



## **BIBLE SAINDUA (II)** **Testament Zaharra — 2. zathia**

**Jean Pierre Duvoisin**

Iturria: *Bible Saindua*, Duvoisin (faksimilea). La Gran Enciclopedia Vasca, 1973.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DuvoisinBibleaII.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**BIBLE SAINDUA,**  
edo Testament Zahar eta Berria,  
Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatetik  
lehenbiziko aldiko  
Laphurdiko eskarara itzulia.

Luis-Luziano  
Bonaparte printzeak  
argitara emana.

«Jaunaren hitzak, hitz garbiak dira, zilhar suaz ikhartua,  
lurrezko untzian frogatua, zazpi aldiz garaitua». Psal. XI. 7.

**LONDRESEN**



## ESDRAS

### I. LIBURUA

#### I. KAP.

1. Persiarren errege Ziroren lehenbiziko urthean, bethe zedintzat Jaunak Jeremiasen ahoz erran zuen bitza, Jaunak eraiki zuen Persiarren erregeren izpiritua. Zirok bere erresuma guzian oihu eginarazi eta iskribuz ere igorri zituen hitz haukiek:

2. Hau dio Zirok Persiarren erregek: Zeruko Jainko Jaunak eman izan darozkit lurreko erresuma guziak, eta berak manatu darot tenplo bat egin diozodan Jerusalem, zeina Judean baita.

3. Zuetan nor da haren populu guzitik? Hainarekin izan bedi haren Jainkoa. Bihoa Jerusalem Judean denera, eta Israelgo Jainko Jaunari tenplo bat altxa biozo; Jainkoa da hura, zeina Jerusalem baita.

4. Eta gainerako guziek, edozein tokitan egon ditezen, lagunt bezate hura beren lekhitik, zilharrez, urhez, ontasunez, aziendaz, beren oldetara ematen dutenaz bertzalde Jainkoaren tenploko, zeina Jerusalem baita.

5. Eta Judako eta Benjamingo aiten buruzagiak, aphezak, lebitarrak eta Jainkoak izpiritua eraiki zaroeten guziak jaiki ziren, goateko Jaunaren tenplo Jerusalem zenaren altxatzera.

6. Eta inguruetan ziren guziek lagundu zituzten beren zilharrezko eta urhezko untzitarik, ontasun, azienda eta pusketarik, beren oldetara eskaini zituztenez bertzalde.

7. Ziro erregeak ere eman zituen Jaunaren tenploko untziak, Nabukodonosorrek Jerusalemetik eraman eta bere jainkoaren tenploan ezarri zituenak.

8. Bada, Zirok Persiarren erregek hekiek eman zituen Mithridates Gaza-barren semearen eskuz, eta hunek khondatu zarozkan Sasabasarri Judako buruzagiari.

9. Eta huna zenbat ziren: hogoi eta hamar urhezko gorgoila, mila zilharrezko gorgoila, hogoi eta bederatzi kanibet; hogoi eta hamar urhezko xata;

10. Zilharrezko xatak bigarren lerrokoak, laur ehun eta hamar; bertze untzietarik, mila;

11. Urhezko eta zilharrezko untzi guziak, bortz mila et laur ehun ziren. Sasabasarrek hartu zituen oro, Babilonako desterrutik Jerusalemara igaiten zirenekin.

#### II. KAP.

1. Haukiek dira, berriz, herriko umeak igan zirenak gathibutasunetik, zeinetara Babilonako errege Nabukodonosorrek eraman baitzituen Babilonara, eta bihurtu zirenak Jerusalemara eta Judara, zein bere hirira:

2. Zorobabelekin ethorri zirenak: Josue, Nehemias, Saraia, Errahelaia, Mardokai, Belsan, Mesphar, Beguai, Errehum, Baana. Israelgo populuko gizonen nonbrea:

3. Pharosen semeak, bi mila ehun hirur hogoi eta hamabi;

4. Sephatiaren semeak, hirur ehun hirur hogoi eta hamabi;

5. Arearen semeak, zazpi ehun eta hirur hogoi eta hamabortz;

6. Phath Moaben semeak, Josueren eta Joaben semeetarik, bi muta zortzi ehun eta hamabi;

7. Elamen semeak, hamabi ehun berrogoi eta hamalau;

8. Zethuaren semeak, bederatzi ehun berrogoi eta bortz;

9. Lakairen semeak, zazpi ehun eta hirur hogoi;

10. Baniren semeak, sei ehun berrogoi eta bia;

11. Bebairen semeak, sei ehun hogoi eta hirur;

12. Azgaden semeak, hamabi ehun hogoi eta bia;

13. Adonikamen semeak, sei ehun hirur hogoi eta sei;

14. Beguairn semeak, bi mila berrogoi eta hamasei;

15. Adinen semeak, laur ehun berrogoi eta hamalaur;

16. Atherren seme Ezekias ganikakoak, laur hogoi eta hemezortzi;

17. Besairen semeak, hirur ehun hogoi eta hirur;

18. Joraren semeak, ehun eta hamabi;

19. Hasumen semeak, berrehun hogoi eta hirur;

20. Jebarren semeak, laur hogoi eta hamabortz;

21. Bethlehemgo umeak, ehun hogoi eta hirur;

22. Netuphako umeak, berrogoi eta hamasei;

23. Anathotheko umeak, ehun hogoi eta zortzi;

24. Azmabethen semeak, berrogoi eta bia;

25. Kariathiarimgo, Zephirako eta Berotheko umeak, zazpi ehun berrogoi eta hirur;

26. Erramako eta Gabaako umeak, sei ehun hogoi eta bat;

27. Makmaseko gizonak, ehun hogoi eta bia;

28. Bethelgo eta Haiko gizonak berrehun hogoi eta hirur;



29. Neboren semeak, berrogoi eta hamabi;  
 30. Megbisen semeak, zazpitan hogoi eta hamasei;  
 31. Bertze Elamen semeak, hamabi ehun berrogoi eta hamalaur;  
 32. Harimen semeak, hirur ehun eta hogoi;  
 33. Lodeko, Hadideko eta Onoko umeak, zazpi ehun hogoi eta bortz;  
 34. Jerikoko umeak, hirur ehun berrogoi eta bortz;  
 35. Senaaren semeak, hirur mila sei ehun hogoi eta hamar;  
 36. Aphezak: Jadaiairen semeak, Josueren etxeoak, bederatzi ehun hirur hogoi eta hamahirur;  
 37. Emerren semeak, mila eta berrogoi eta hamabi;  
 38. Pheshurren semeak, hamabi ehun berrogoi eta zazpi;  
 39. Harimen semeak, mila eta hamazazpi;  
 40. Lebitarrak: Odobiaren seme Josue eta Zedmihele haurrak, hirur hogoi eta hamalaur;  
 41. Kantariak: Asaphen semeak, sei hogoi eta zortzi;  
 42. Athalzainen semeak: Selumen, Aterren, Telmonen, Akuben, Hatitaren eta Sobairen haurrak, oro sei hogoi eta hemeretzi;  
 43. Nathindarrak: Siharen, Hasupharen, Tabaothern semeak;  
 44. Zerosen, Siaaren, Phadonen semeak;  
 45. Lebanaren, Hagabaren, Akuben semeak;  
 46. Hagaben, Semlairen, Hananen semeak;  
 47. Gadelen, Gaherren, Erraiairen semeak;  
 48. Errasinen, Nekodaren, Gazamen semeak;  
 49. Azaren, Phasearen, Beseeren semeak;  
 50. Asenako umeak, Munimen, Nephusimen semeak;  
 51. Bakhuken, Hakupharen, Harhurren semeak;  
 52. Besluthen, Mahidaren, Harfaren semeak;  
 53. Berkosen, Sisararen, Themaren semeak;  
 54. Nasiaren, Hatipharen semeak;  
 55. Salomonen muthilen umeak, Sotairen, Sophereten, Pharudaren semeak;  
 56. Jalaren, Derkonen, Jedelen semeak;  
 57. Saphatiaren, Hatilen, Phokerethen semeak, zeinak Asebaimgo baitziren, Amiren semeak;  
 58. Nathindar guziak eta Salomonen muthilen umeak, hirur ehun laur hogoi eta hamabi.

59. Haukiek ziren Thelmalatik, Thelharsatik, Kerubetik, Adondik eta Emerretik ethorri zirenak, eta ezin ezagutarazi zituztenak ez beren aiten etxea, ez beren ethorkia, ez-eta Israeldik zirenetz.

60. Dalaiaren semeak, Tobiaren semeak, Nekodaren semeak sei ehun berrogoi eta hamabi;

61. Eta aphez-semeetarik, Hobiaren haurrak, Akosenak eta Berzelairenak, hunek emaztetzat hartu baitzuen Berzelai Galaadarren alabetarik eta hekien izenetik deithua izan baitzen.

62. Horiek bilhatu zuten beren iraulgiko ageria; etzuten aurkhitu, eta apheztasunetik khenduak izan ziren.

63. Eta Athersathak erran zaroeten sailduren saildutik etzezaten jan, aphez argitu eta osoki garbi bat ilkhi zadien arteo.

64. Oste hori guzia zen gizon bakhar bat iduri eta heltzen zen berrogoi eta bi mila hirur ehun eta hirur hogoi gizonetara.

65. Bertzalde ziren hekien muthilak eta neskatoak, zeinak zazpi mila hirur ehun hogoi eta hamazazpi baitziren; eta hekietan berrehun kantari gizon eta emazte.

66. Bazituzten zazpi ehun hogoi eta hamasei zaldi, berrehun berrogoi eta bortz mando,

67. Laur ehun hogoi eta hamabortz kamelu, sei mila zazpi ehun eta hogoi asto.

68. Eta aiten buruzagietarik, Jaunaren Jerusalemeko tenploan sarthu zirenean, beren oldetara Jaunaren etxean eskaini zuten hura zertaz altxa bere tokian.

69. Beren ahale arabera eman zuten lanaren dirua, hirur hogoi eta bat mila solido urhezko, bortz mila mina zilharrezko, eta ehun aphez-soineko.

70. Beraz aphezak eta lebitarrak, populuaren artekoak, kantariak, athalzainak eta Nathindarrak egotu ziren zein beren hirietan, eta Israel guzia ere bere hirietan.

### III. KAP.

1. Eta ordukoz ethorria zen zazpigarren hilabetea; Israelgo semeak beren hirietan ziren, eta populua gizon bakhar bat bezala bildu zen Jerusalemara.

2. Eta jaiki ziren Josue Josedeken semea, eta haren anaia aphezak eta Zorobabel Salathielen semea eta haren anaia, eta Israelgo Jainkoaren aldarea altxatu zuten, hartan holokausten eskaintzeko, iskribatua den bezala Moisen, Jainkoaren gizonaren legean.



3. Bada, Jainkoaren aldarea bere oinen gainean ezarri zuten, inguru-ko lurretako populuak hekien izitzera hari zirelarik, eta aldarearen gainean Jaunari goiz-arrats eskaini zaroten holokausta.

4. Tabernakletako besta egin zuten, iskribatua denaren arabera, eta halaber egun oroz holokausta bere bidean, manamenduaren arabera, egun bakhotxeko egitekoa bere egunean;

5. Eta gero bethiko holokausta, hala hilabeteen lehenbiziko egunean, nola Jaunaren besta-buru kontsekratuak ziren guziez, eta nork bere oldetara Jaunari emaitzak eskaintzen ziren orotan.

6. Zazpigarren hilabeteke lehen egunetik hasi ziren Jaunari holo-kaustaren eskaintzen. Bada, Jainkoaren tenploko asentuak etziren oraino eginak.

7. Dirua eman zaroeten beraz harginei eta harri-aphaintzaileei; Sidondarrei ere eta Tiriarrei jatekoa, edatekoa eta olioia, Libandik Jopeko itsasora zedro zuren ekhartzeko, Persiarren errege Zirok manatu zaroeten bezala.

8. Bada, Jaunaren tenplora Jerusalemera ethorri zirenetik bigarren urthean eta bigarren hilabetean, Zorobabel Salathielen semea, Josue Josedeken semea, hekien anaietarikako gainerako aphezak, lebitarrak eta gathibutasunetik Jerusalemera ethorri ziren guziak, hasi ziren, eta Jaunaren lanari hotsemateko ezarri zituzten hogoi urthetarik goitiko lebitarrak.

9. Eta Josue eta bere semeak eta anaiak, Zedmihel eta bere semeak, Judako semeak gizon bakhar bat bezala, Henadaden umeak eta hekien seme eta anaia lebitarrak jarri ziren Jainkoaren tenploko lanak egiten zituzten langileen premiatzen.

10. Beraz harginek asentuen gainean ezarri zutenean Jaunaren tenploa, aphezak beren soinekotan eta turutekin, eta Asaphen seme lebitarrak zinbalekin xutik jarri ziren Jainkoaren laudatzeko Israelgo errege Dabidek egin kantikekin.

11. Eta himno eta Jaunaren aithorreen kantatzen zuten: Zeren den ona, zeren bethikoa den Israelen gainean haren urrikalpena. Populu guziak halaber burrunba handia egiten zuen Jauna laudatzean, zeren zen asentatua Jaunaren tenploa.

12. Apez eta lebitarretarik ere askok, familietako buruzagi eta zaharrenek, tenploa xutik zenean lehenago ikhusi, eta bertze tenploa hau beren begien aitzinean zutenek, nigar marraska egiten zuten; eta hainitzek bozkariozko oihutan altxatzen zuten boza.

13. Eta nihork etzezakeen ezagut bozkariotan zirenen oihuak eta nigarrez zaudenen oihuak; alabainan populu guzia batean oihuz hari zen eta urrun heltzen zen harramantza.

#### IV. KAP.

1. Bada, Judaren eta Benjaminen etsaiek aditu zuten gathibutasuneko haurrek tenplo bat altxatzen zaroetela Israelgo Jainko Jaunari.

2. Eta Zorobabeli eta zaharren buruzagiei hurbildurik, erran zaroeten: Zuekin hariko gare egiten, ezik zuek bezala guk ere zuen Jainkoa bilhatzen dugu; hara non bitimak imolatu diozkigun, hunat erakharri gaituen, Asurgo errege Asor Hadanen egunez geroztik.

3. Zorobabelek, Josuek eta zaharren gainerako buruzagiek ihardetsi zaroeten: Ez dihoakigu zuei eta guri elkharrekin gure Jainkoari tenploaren altxatzea, bainan guk bakharrik gure Jainko Jaunari altxaturen diogu hura, Ziro Petsiarren erregek manatu bezala.

4. Gerthatu zen beraz lekhuko populuak trabatzen zuela Judako populuaren lana eta asaldatzen zituela tenploaren egitean.

5. Eta hekien kontra ibilarazi zituzten biltzarreko zirenak, hekien xedeon urratzeko Persiarren errege Zioren bizi uzian, erregina zedin arte Dario Persiarren errege.

6. Bada, Asuerusen erregetasuneko egunetan, haren erreinu basteen, iratxikipen bat iskribatu zuten Judako eta Jerusalemeko egoiliarren kontra.

7. Eta Artakserksesen egunetan, Beselam Mithridatesek, Thabeelek eta gainerako hekien biltzarreko zirenek iskribatu zaroten Artakserksesi Persiarren erregeri; gutuna aldiz siriaraz zen, eta Siriako hizkuntzan irakurtzen zen.

8. Erreum Beelteemek eta Samsai iskribauak Jerusalemek bertze gutun bat Artakserkses erregeari iskribatu zaroten huneletan:

9. Erreum Beelteemek, Samsai iskribauak eta biltzarreko bertzeek, Dinarrek, Apharsathakarrek, Terphaldarrek, Apharsarrek, Erkuarrek, Babilondarrek, Susanekarrek, Diebarrek eta Elamitarrek,

10. Eta gainerako jendaki Asenaphar handi eta ospetsuak erakharri eta Samariako hirietan eta hibaiaz hunaindietako aurkhintzetan bakean egonarazi dituenek,

11. (Hau hekiek igorri gutunaren kopia da), Artakserkses erregeari, bere zerbitzari, hibaiaz hunaindian diren gizonek, agur diote:

12. Erregeren ezagutzako izan bedi, Juduak zure ganik gure gana igan direnak ethorri direla Jerusalemera, hiri bihurri eta guziz gaixtora, berritzen hari dutena, harrasiak altxatuz eta etxeak eginez.



13. Jakin beza orai beraz erregek, nola baldin hiri hori egina eta hortako harrasiak berrituak izaten badira, Juduek ez dutela emanen ez zerga, ez figo, ez urthe baxhotzeko onetarik, eta erregeen gaineraino helduko da bidegabe hori.

14. Guk aldiz, jauregian jan izan dugun gatzaz orhoituz, eta idukiz ez dela zilhegi erregeren bidegabea ikhustea, hargatik igorri dugu eta errege jakintsun egiten dugu,

15. Bilha zaitezentzat zure arbasoen istorioetako liburuetan, eta aurkhituren duzu agerietan iskribatua, eta jakinen duzu nola hiri hori den hiri bihurri, erregeei eta lekhuei bidegabe-egilea, eta behialako egunetarik horren ganik ilkhi direla gerlak, aria hortaz hori izan baita ezeztatua.

16. Jakinarazten diogu erregeri, nola hiri hori altxatua eta horren harrasiak berrituak izaten badira, galduko ditutzula hibaiaz hunaindiko onak.

17. Erregek hitz hau bidali zaroeten Erreum Beelteemi, Samsai iskribuari eta Samariako bertze egoiliar biltzarreko zirenei, eta hibaiaz hunaindiko gainerakoei, agur eta bake igorritz:

18. Zuek bidali iratxikipena, gora irakurtua izan da ene aitzinean.

19. Eta nik manaturik bilhatu dira ageriak eta atzeman da hiri hori behialako egunetarik erregeen kontra bihurtzen dela, makhurrak eta gerlak hortan bizten direla.

20. Ezik errege guziz hazkarrak izatu dira Jerusalemen, hibaiaz haindiko eremu guzian nausi zirenak, eta figoa ere, lurreko gozoak eta zergak izaten zituztenak.

21. Orai beraz adi zazue ene erabakia: Ez betzatzue gizon horiek utz hiri horren altxatzera, nik mana dezadan arteo.

22. Berautzue nagitasunik eman eginbide horren bethetzen, eta emeki emeki handi dadien erregeen kontrako bidegabea.

23. Hargatik Artakserkses erregearen erabakia irakurtua izan zen Erreum Beelteemen, Samsai iskribauaren eta hekien biltzarraren aitzinean; eta berehala Jerusalemera goan ziren Juduetara, eta debekatu zituzten bortxaz eta indarraz.

24. Orduan baratua izan zen Jaunaren etxeko lana Jerusalemen eta hala-hala gelditu zen Dario Persiarren erregearen bigarren urthea arteo.

## V. KAP.

1. Bada Agjeo profetak eta Zakarias Adoren semeak Israelgo Jainkoaren izenean profetisatzen zuten Judean eta Jerusalemen ziren Juduei.

2. Orduan jaiki ziren Zorobabel Salathielen semea, eta Josue Josedeken semea, eta hasi ziren Jaunaren etxearen altxatzen; eta Jainkoaren profetak hekiekin ziren eta laguntzen zituzten.

3. Bainan orduan berean hekietara ethorri ziren Thathanai, hibaiaz hunaindian buruzagi zena, Stharbuzanai eta hekien biltzarrekoak, eta hunela erran zaroeten: Nork berotu zaituzte etxe horren altxatzera eta hortako harrasi berritzera?

4. Horren gainean erran gineroezten lan hortako buruzagien izenak.

5. Bainan Juduetako zaharren gainean jarri zen hekien Jainkoaren begia, eta ezin debekatu zituzten. Ongi atzeman izan zen Darioren aitzinera gauzaren ekhartzea, eta han ihardetsiko zutela jazargo horri.

6. Thathanai hibaiaz hunaindiko lurreko buruzagiak, Stherbuzanai eta hekien biltzarreko uraz hunaindiko Apharfakarek Dario erregeari bidali zaroten gutunaren kopia.

7. Hari bidali zaroten solasa hunela zen iskribatua: Bake oso Dario erregeari.

8. Errege jakintsun izan bedi izatu gara Judeako herrialdean, Jainko handiaren etxean, zeina harri mugerez egiten hari baita, eta zurak harrasi gainean ezartzen dituzte lana agudoki doha, eta goiti hari da hekien eskuetan.

9. Mintzatu ditugu beraz hango zaharrak, eta hau erran daroegu: Nork eman darotzue etxe horren altxatzeko eta harrasi horien berritzeko esku?

10. Galdata ere daroetzegu beren izenak zuri gaztiazteko, eta iskribatu ditugu hekien artean buruzagi diren gizonen izenak.

11. Hunelako solasa ihardetsi darokute, diotelarik: Zeruko eta lurreko Jainkoaren zerbitzariak gare gu; altxatzen dugu tenplo bat, urthe asko haukiek baino lehen egina izan zena, eta Israelgo errege handi batek egin eta akhabatu zuena.

12. Bainan gure aitek zeruko Jainkoa hasarretzera ekharri zuten ondoan, Jainkoak arthiki zituen Babilonako errege Nabukodonosor kaldearraren eskuetara. Hunek etxe hau urratu eta hemengo populua Babilonara eraman zuen.

13. Ordean Babilonako errege Zioren lehenbiziko urthean, Ziro erregeak erabaki bat eman zuen Jainkoaren etxe hunen berritzeko.

14. Eta oraino Jainkoaren etxeko untzi urhezkoak eta zilharrezkoak, Nabukodonosorrek Jerusalemen zen tenplotik hartu eta Babilonako tenplora eraman zituenak, Ziro erregeak atheratu ditu Babilonako tenplotik, eta erran diozka Sasabasar deitzen zen bati, eta buruzagi ezarri du.



15. Eta erran dio: Har zatzu untzi haukiek, zoaz eta ezar zatzu Jerusalem den tenploan, eta Jaunaren etxea berriz izan bedi altxatua bere lekhuana.

16. Orduan beraz Sasabasar hori ethorri da eta jarri ditu Jaunaren tenploaren asentuak Jerusalemen; eta ordutik hunat tenploa egiten hari da, eta ez da oraino akhabatua.

17. Orai beraz erregeri ongi iduritzen bazaio, Babilonan den erregeren liburutegian ikharraraz beza, hean errege Zirok manatu izan duen, Jerusalemen altxa zedin Jainkoaren etxea, eta gauza horren gainean igor biazagu bere nahikundearen berri.

## VI. KAP.

1. Orduan Dario erregeak manaturik, ikhartu zuten Babilonan bilduak ziren liburuen liburutegia.

2. Eta aurkhitu zen Ekbatanan, zeina baita Mediako gatzelu bat, liburu bat, eta hartan iskribatua zen hulatzeko solasa:

3. Ziro erregearen lehenbiziko urthean, Ziro erregeak erabaki du, altxatua izanen dela Jainkoaren etxea, Jerusalem dena, bere tokian, han bitimen imolatzeko, eta asentuak jarriak izanen direla, hirur hogoi besoren goratasuna eta hirur hogoi besoren zabalatasuna jasanen dituztenak;

4. Izanen direla harri mugerrezko hirur lerro eta oro bat zur berrizko lerroak: gastuak berriz, erregeren etxetik emanak izanen dira;

5. Jainkoaren tenploko urhezko eta zilharrezko untiak ere, Nabukodonosorrek Jerusalemeko tenplotik hartu eta Babilonara ekharri zituenak, bihurtuak izanen dira eta berriz eramanak Jerusalemeko tenploa beren lekhuara, eta ezarriak izan dira Jainkoaren tenploan.

6. Orai beraz, Thathanai, hibaiaz haindiko eremuko buruzagia, Stharbutanai, eta Apharsakar zuen biltzarrekoak, hibaiaz haindian zaretenak, Juduetarik egizue urrun gibelerat;

7. Jainkoaren tenploa utz zazue egina izatera Juduen buruzagiak eta hekien zaharrez, Jainkoaren etxe hori egin dezaten bere lekhuana.

8. Nitaz manatua da halaber zer izan behar den egina Juduen aphez hekiez, Jainkoaren etxea egin dadientzat; erran nahi da erregeren khutxatik, hori da hibaiaz haindiko eremuan ematen diren zergetarik, artharekin emanak izan ditezen gastuak gizon hekiei, lana ez dadientzat izan trabatua.

9. Eta baldin premia izaten bada, aratxeak, bildotsak, pittikak zeruko Jainkoarentzat holokaustetako, ogia, gatza, arnoa, olio, Jerusalemen

diren aphezen ohitzen arabera emanak izan bekiozkite egun oroz, ez dadien deusetan erratekorik izan.

10. Eta zeruko Jainkoari sakrifizioak eskaint betzazte, eta erregeren eta haren semeen bizientzat othoitz egin bezate.

11. Eta nitaz ezarria da erabakia: Edozein gizonen hauts dezan manu hau, zur bat haren etxetik khendua izan bedi eta xutik landatua, eta hura hartan josia izan bedi; haren etxea berriz, hartua izan bedi.

12. Eta han bere izena egonarazi duen Jainkoak desegin betza erresuma guziak eta populua, zeinak Jerusalem den Jainkoaren etxe hari kontra eginen baitio eta eskua hedatuko baitu haren urratzeko. Nik, Dariok ezarri dut erabaki hau, zeina nahi baitut arthatsuki izan dadien begiratua.

13. Beraz Thathanai uraz hunaindiko buruzagiak, Stharbutanai eta hekien biltzarrekoek, nola Dario erregeak manatu, hala egin zuten artha handiz.

14. Bada, Juduetako zaharrak lanari hari ziren, eta oro ontsa zihozkoten, Agjeo profetaren eta Zakarias Adoren semearen profeziaren arabera; eta tenploa altxatu eta egin zuten Israelgo Jainkoaren manuz, Ziroren, Darioren eta Artakserksesen, Persiarren erregeen manuz.

15. Eta Jainkoaren etxe hura akhabatu zuten adargo hilabethearen hirugarren eguneko, Dario erregearen erregetasuneko seigarren urthean.

16. Israelgo semeek berriz, aphezak eta lebitarrek eta gathibutasunetik bihurtu ziren gainerako umeek, Jainkoaren etxeari bozkalentzietan eman zaroten lehen erabilaldia.

17. Jainkoaren etxearen lehen erabilaldiko eskaini zituzten ehun aratxe, berrehun ahari, laur ehun bildots, eta ahuntzetarik hamabi akher Israel guziaren bekhatuarentzat, Israelgo leinuen nonbrearen arabera.

18. Aphezak beren lerroetan eta lebitarrak beren aldietan ezarriak izan ziren Jaunaren lanetan Jerusalemen, Moisen liburuan iskribatua den bezala.

19. Israelgo semeek berriz, gathibutasunetik ethorriek, Bazkoa egin zuten lehenbiziko hilabetheko hamalagarren egunean.

20. Ezik aphezak eta lebitarrak gizon bakhar bat bezala garbi egin ziren; eta oro xahu izanez, Bazkoa imolatu zuten gathibutasuneko ume guzientzat, beren anaia aphezentzat eta berentzat.

21. Eta Israelgo seme gathibutasunetik bihurtu zirenek, eta Israelgo Jainko Jaunaren bilhatzeko, beren buruak lurreko jendaien khutsutik berezi zituztenek, jan zuten.



22. Eta zazpi egunez bozkariotan egin zuten airisetako besta-burua, zeren Jaunak boztu baitzituen, eta hekien alde itzuli baitzuen Asurgo erregeren bihotza hekien eskuetara laguntza egin ziozoten Israelgo Jainko Jaunaren etxeko lanean.

## VII. KAP.

1. Gauza horiez geroztik, Artakserkses Persiarren errege zelarik, Esdras Saraiasen semea, Saraias baitzen Azariasen seme, Azarias Helziasena,

2. Helzias Selumena, Selum Sadokena, Sadok Akitobena,

3. Akitob Amariasena, Amarias Azariasena, Azarias Maraiothena,

4. Maraioth Zarahiasena, Zarahias Oziena, Ozi Bokziena,

5. Bokzi Abisuea, Abisue Phineesena, Phinees Eleazarrena, Eleazar Aaronena, zeina baitzen hastetik apez;

6. Esdras hura igan zen Babilonatik, eta bere trebe zen Moisen legean, Israelgo Jainko Jaunak eman zuenean; eta errege onhetsi ziozkan bere galde guziak, zeren Jainko Jaunaren eskua baitien haren gainean.

7. Eta Israelgo semeetarik, aphezen eta lebitarren semeetarik, kantarietarik, athalzainetarik eta Nathindarretarik, Jerusalemara igan ziren Artakserkses erregearen zaspigarren urthean.

8. Eta Jerusalemara ethorri ziren bortzgarren hilabetearen, hura baitzen erregeren zaspigarren urtea.

9. Alabainan Esdras lehen hilabetearen lehenbiziko egunean Babilonatik abiatu zen igaiten, eta bortzgarren hilabeteke lehenbiziko egunean heldu zen Jerusalemara, haren Jainkoaren esku lagungarria haren gainean baitzen.

10. Ezik Esdrasek bere bihotza aphaindu zuen, Jaunaren legearen ikhartzeko, eta bethetzeko, eta Israeli irakhasteko Jaunaren manuak eta erabakiak.

11. Artakserkses erregeak Esdras aphezari, Jaunaren hitzetan eta manamenduetan eta haren zeremonia Israelgoetan jakina zen iskribauari eman erabakiko gutunaren kopia hau da:

12. Artakserkses erregeen erregeak Esdras aphezari, iskribau zeruko Jainkoaren legeaz guziz jakinari, agur.

13. Nitaz izan da erabakia, ene erresuman Israelgo populutik, haren aphezetarik eta lebitarretarik nihork atsegin balin badu Jerusalemara goatea, dihoan zurekin.

14. Ezik erregeren eta haren batzarreko zazpien aitzinean bidalia zare, Judearen eta Jerusalemen begiztatzeko, zure Jainkoaren lege eskuan duzunaren arabera,

15. Eta erregek eta bere batzarrekoek, Jerusalem bere tabernakle duen Israelgo Jainkoari beren oldez eskaintzen daroeten urhearen eta zilharraren eramateko.

16. Eta Babilonako herrialdean aurkhituko duzun urhe eta zilhar guzia, eta populuak eskaini nahiko duena, eta aphezen artekoek beren oldez beren Jainkoaren etxe Jerusalem denari eskainiko daroetena,

17. Lainoki har zazu, eta diru hartarik aratxeak, bildotsak, bitimak eta hekien libazioneak arthaz eros zatzu, eta hekiek eskaint zatzu zuen Jainkoaren tenploko Jerusalem den aldarearen gainean.

18. Aldiz oraino zuk eta zure anaiek gelditzen diren urhetik eta ilharretik atsegin baduzue bertze zerbaiten egitea, zuen Jainkoaren nahia- ren arabera egizue.

19. Zure Jainkoaren etxeko zerbitzuko emanak zaizkitzun untiak ere, Jerusalem ezar zatzu Jainkoaren aitzinean.

20. Eta zure Jainkoaren etxean behar izanen diren gainerakoak ere, zenbat-nahi izan dadien premia xahu dezazun, emana izanen zaitzu erregeren khutxatik eta dirutik,

21. Eta ene ganik. Nik, Artakferkfes erregeak erabaki eta manatu dut erresumako khutxako zainei, Esdras aphezak, zeruko Jainkoaren legeko iskribauak zer-nahi galda dezazuen, luzamenik gabe eman diozozuen,

22. Ehun talendu zilharrezkotaraino, ehun koro ogitaraino, ehun bato arnotaraino, ehun bato oliotaraino, gatza berriz neurririk gabe.

23. Zeruko Jainkoaren zerbitzuari darontzon oro, arthaz izan beitez zeruko Jainkoaren tenploan emanak, beldurrez-eta erregeren eta haren semeen erresumaren kontra sumin dadien.

24. Halaber jakintsun egiten zaituztegu, aphez guziez, lebitarrez, kantarietaz, athalzainez, Nathindarrez eta Jainkoaren etxe huntako zerbitzariez denaz bezenbatean, ez duzuela ahalik hekien gainean ezartzeko figo, zerga eta urthesaririk.

25. Zuk berriz, Esdras, zure Jainkoaren zuhurtzia zure baithan denaren arabera, ezar zatzu juieak eta buruzagiak, jua dezaten hibaiaz haindiko populu guzia, erran nahi da zure Jainkoaren legea ezagutzen dutenak, eta oraino argi zatzue trabarik gabe jakitaterik ez dutenak.

26. Eta zeinak-ere artharekin begiratuko ez baititu zure Jainkoaren legea eta erregeren legea, haina juiatua izanen da heriotzera, edo desterrura, edo bere ontasunaren galtzera, edo bederen presondegira.





27. Benedika bedi gure arbasoen Jainko Jauna, erregeren bihotzean ezarri duena ospatzea Jaunaren etxe Jerusalem dena,

28. Eta bere urrikalpena ene gainera ixuri duena erregeren aitzinean, haren batzarrekoen eta azpiko aitzindari botheredun guzien aitzinean. Eta nik, ene baithan zen ene Jainko Jaunaren eskuak hazkarturik, Israelgo lehenbizikoak bildu ditut, enekin igan ditezentzat.

### VIII. KAP.

1. Haukiek dira beraz familietako buruzagiak eta Babilonatik enekin ethorri zirenen iraulgiak, Artakserkses erregearen erregetasuneko eguntan:

2. Phineesen umeetarik, Jersom; Ithamarren umeetarik, Daniel; Dabiden umeetarik, Hatus;

3. Pharosen semeetarikako Sekeniasen umeetarik, Zakarias, eta harekin khondatauak izan ziren zazpitan hogoi eta hamar gizon;

4. Phabath Moaben umeetarik, Elioenai, Zareheren semea, eta harekin berrehun gizon

5. Sekeniasen umeetarik, Ezekielen semea, eta harekin hirur ehun gizon;

6. Adanen umeetarik, Abed, Jonathanen semea, eta harekin berrogoi eta hamar gizon;

7. Alamen umeetarik, Isaias, Athaliasen semea, eta harekin hirur hogoi eta hamar gizon;

8. Saphatiasen umeetarik, Zebedia, Mikaelen semea, eta harekin laur hogoi gizon;

9. Joaben umeetarik, Obedia, Jahielen semea, eta harekin berrehun eta hemezortzi gizon;

10. Selomithen umeetarik, Josphiasen semea, eta harekin zortzitan hogoi gizon;

11. Bebairen umeetarik, Zakarias, Bebairen semea, eta harekin hogoi eta zortzi gizon;

12. Azgaden umeetarik, Johanan, Ekzetanen semea, eta harekin ehun eta hamar gizon;

13. Adonikamen umeetarik, azken zirenak eta huna hekien izenak: Elipheleth, Jehiel eta Samaias, eta hekiekin hirur hogoi gizon;

14. Beguiren umeetarik, Uthai eta Zakur, eta hekiekin hirur hogoi eta hamar gizon;

15. Bada, bilarazi nituen Ahabako alderat dihoan hibaiera, eta han egotu ginen hirur egun; populuan eta aphezetan bilhatu nuen Lebiren semeetarik, eta hekiatarik ez nuen han khausitu.

16. Hargatik igorri nituen Eliezer, Ariel, Semeia, Elnathan, Jarib, bertze Elnathan, Nathan, Zakarias, eta Mosolam buruzagiak, eta Joiarib eta Elnathan gizon zuhurrak;

17. Igorri nituen Edo gana, zeina lehenbizikoa baitzen Kasphiako lekhuana, eta ahoan ezarri narozkioten Edori eta haren anaia Nathindarrei erran behar zarozkioten solasak Kasphiako lekhuana, gutara erakhartzeko gare Jainkoaren etxeko zerbitzariak.

18. Eta gure gainean zen gure Jainkoaren esku lagungarriaren bidez, gutara erakharri zituzten gizon bat guziz jakina Moholiren semeetarik, Moholi baitzen Lebiren seme eta Lebi Israelena; eta Sarabia eta haren hemezortzi seme eta anaia;

19. Eta Hasabias, eta harekin Isaias Merariren umeetarik eta haren hogoi anaia eta seme;

20. Eta Nathindarretarik, Dabidek eta aitzindariak lebitarren zerbitzuko eman zituztenetarik, berrehun eta hogoi gizon; hekiek guziak beren izenez deitzen ziren.

21. Eta han, Ahabako ur-bazterrean, barur bat oiher egin nuen, atsekabetan eman gintezen gure Jainko Jaunaren aitzinean, eta makhurrik gabeko bide bat galda ginezan haren ganik guretzat, gure seme eta izate guziarentzat.

22. Ezik ahalke izan nintzen erregeri laguntza eta zaldizkoak galdegitea, bidean etsaia ganik gure zaintzeko, zeren erregeri erran bainaroen: Gure Jainkoaren eskua, hura lainoki bilhatzen dutenen gainean da; eta haren nausitasuna, indarra eta hasarrea, hura bazterrerat uzten duten guzien gainean.

23. Barurtu ginen beraz eta holetan othoiztu ginduen gure Jainkoa, eta ongi heldu zitzaikun.

24. Eta aphezen buruzagietarik berezi nituen hamabi, Sarabia, Hasabias, eta hekiekin hekien anaietarik hamar.

25. Eta phisatu niozkaten zilharra, urhea eta gure Jainkoaren etxeko untzi kontsekratuak, erregek, haren batzarrekoek eta aitzindariak eta Israeldik khausitu ziren guziek eskaini zituztenak.

26. Eta hekien eskuetan phisatu nituen sei ehun eta berrogoi eta hamar talendu zilharrezko, ehun zilharrezko untzi, ehun talendu urhezko,

27. Hogoi xata urhezko, mila solidoren hazta zutenak, eta bi untzi, kobre hauta dirdiragarri batezkoak, urhea bezain ederrak.



28. Eta erran naroten: Jaunaren sainduak zarete, eta sainduak dira untzi, zilhar eta urhe, nork bere oldez gure arbasoen Jainko Jaunari eskainiak.

29. Zain eta begira zatzue, phisa detzatzuen arteo aphezen eta lebitarren buruzagien aitzinean eta Israelgo familietako buruzagien aitzinean, Jerusalemen Jaunaren etxeko khutxan.

30. Aphezek eta lebitarrek hartu zituzten gero zilharra, urhea eta unziai phisaturik, Jerusalemera eramateko gare Jainkoaren etxera.

31. Abiatu ginen beraz Ahabako hibaetik lehenbiziko hilabethearen hamabigarren egunean, Jerusalemera goateko. Gure gainean izan zen gure Jainkoaren eskua, eta bidean itzurrazazi gintuen etsaiaren eta zelatariaren eskuari.

32. Jerusalemera ethorri eta han hirur egunez egotu ginen.

33. Laugarren egunean berriz, zilharra, urhea eta unziai gure Jainkoaren etxean phisatuak izan ziren, Meremoth, Uriasen seme aphezaren eskuz; Eleazar Phineesen semea harekin zen; eta hekiekin Jozabed Josueren semea eta Nodaia Benoiren semea, lebitarrak.

34. Oro beren nombre eta phisuaren arabera emanak izan ziren, eta guzien phisuak iskribatuak izan ziren orduan.

35. Desterruko ume, gathibutasunetik ethorri zirenek Israelgo Jainkoari holokaustetan eskaini zaroetzen Israelgo populu guziarentzat hamabi aratxe, laur hogoi eta hamasei ahari, hirur hogoi eta hamazazpi bildots, eta bekhatuarentzat hamabi akher: oro holokaustetan Jaunari.

36. Erregeren erabakiak eman zarozten erregeren aitzinera agertzen ziren satrapei, eta hibaiaz hunaindiko aitzindariei; eta populua eta Jainkoaren etxea altxatu zituzten.

## IX. KAP.

1. Bada, horiek egin ziren ondoan, aitzindariak hurbildu zarozkidan, ziotelarik: Israelgo populua, aphezak eta lebitarrak ez dira berezi lekhuko jendaietarik eta hekien itsuskerietarik, erran nahi da Kananear, Hethear, Pherezear, Jebusear, Amontar, Moabitar, Egiptoar eta Amorhearrenetarik.

2. Ezik berentzat eta beren semeentzat hartu dituzte hekien alabeta-rik, eta iraulgi saindua nahastekatu dute lurretako jendaiekin. Aitzindarien eta kargudunen eskua ere lehenbizikoa izatu da lege hauste hortan.

3. Solas hori aditu nuenean, urratu nituen ene kapa eta soina, atheratu nituen ene buruko eta bizarreko ileak, eta deithoretan jarri nintzen.

4. Berriz, Israelgo Jainkoaren hitzaren beldur ziren guziak bildu ziren ene gana, gathibutasunetik ethorri zirenen lege-haustearen ariaz, eta ni goibelik jarria nindagoen arratseko sakrifizioa arteo.

5. Eta arratseko sakrifizioan atheratu nintzen ene atsekabetik; eta ene kapa eta soin urratuekin, belhauniko jarri nintzen eta ene eskuak ene Jainko Jauna ganat hedatu nituen;

6. Eta erran nuen: Ene Jainkoa, urmariatua nago eta ahalke naiz ene begiak zure gana goititzeko, zeren gure tzarkeriak gure buruen gainean metatu baitira eta gure bekhatuen murrua zeruraino igan baita,

7. Gure arbasoen egunak danik: gerorrek ere bekhatu latzenak egin ditugu egungo eguna arteo, eta gure gaizkien gatik arthikiak gare gu, gure erregeak eta gure aphezak lurreko erregeen eskuetara, ezpataren azpira, gathibutasunera, ohoinen eskuetara eta begitharteko ahalkera, egungo egunean bezala.

8. Eta orai gure othoitza, ilhaun bat iduri eta doidoia heldu da gure Jainko Jaunaren aitzinera, ondarrak geldi dakizkiguntzat, eta atherbe bat emana izan dakiguntzat lekhu sainduan, eta gure Jainkoak argi ditzan gure begiak, eta bizi aphur bat eman dizagun gure gathibutasunean;

9. Zeren gathibu baikare, eta gure gathibutasunean ez baikaitu utzi gure Jainkoak, bainan gure gainera ixurarazi baitu Persiarren erregeren urrikalpena, eman zezaguntzat bizia, altxa zezan gure Jainkoaren etxea eta xuti hango harrasi urratuak eta atherbe bat eman zezagun guri Judan eta Jerusalem.

10. Eta orai, gure Jainkoa, horien ondotik zer erranen dugu? alabainan utzi ditugu zure manamenduak,

11. Zure zerbitzari profeten arartekoz eman izan ditutzunak, zinioelarik: Lurra, zeinetara sartzeta baitzohazte, hartaz gozatzeko, lur lohia da, jendaien eta bertze lumen lohitasunaren arabera, jendaiek hura beren tzarkeriaren khutsuaz bethe baitute bazter batetarik bertzera.

12. Orai beraz ez eman zuen alabak hekien semeei eta ez har hekien alabak zuen semeentzat, eta ez bilha egun eta bizian ez hekien bakea ez zoriona, hazkar izan zaitezentzat eta jan detzatzuen lurreko onak, eta bethi guziraino zuen semeak izan detzatzuen zuen ondore.

13. Eta gure gainera erori diren guzien ondoan gure egitate guziz tzarren gatik eta gure bekhatu handia gatik, zuk, gure Jainkoa, gure tzarkeriatik atheratu gaituzu, eta egun gerthatzen den itzurpena eman darokuzu,

14. Ez gaitezentzat gaizkirat itzul, alferretara bihur ez detzagun zure manamenduak eta ezkontzez ez gaitezentzat jos holako izigarrierietako



populuekin. Gure ezeztatzeraino hasarretua othe zare gure alderat, gutarik ondarrak ere itzurtzera ez uzteko?

15. Israeigo Jainko Jauna, zuzena zare, ezen itzurtzekotzat izatu gare utziak, egun gerhatzen den bezala. Huna non garen gure bekhatuan zure aitzinean; ezen zure aitzinean ez daiteke iraun horreletan.

### X. KAP.

1. Beraz Esdras horrela zagoelarik othoizka, Jaunari errekeika, nigarrrez eta Jainkoaren tenplo aitzinean lurrera eroria, gizon, emazteki eta haur oste handi bat bildu zen Israeldik haren gana, eta populua egotu zen nigar uharretan.

2. Eta Sekeniasek, Jehielen seme Ela-men semeak, ihardetsi zuen, eta Esdrasi erran zaroen: Gure Jainkoaren legea hautsi dugu; emazte arrotz lurreko populueterikakoak hartu izan ditugu; eta orai Israelen balin bada horren gaineko urrikoa,

3. Patu jo dezagun gure Jainko Jaunarekin, iraziko ditugula emazte horiek oro eta horien ganik sorthu direnak, Jaunaren nahiaren arabera eta gure Jainko Jaunaren manamenduaren beldur direnen nahiaren arabera: legearen arietara egina izan bedi.

4. Jaiki zaite; zuri dagokizu manatzea, eta gu zurekin izanen gare; har zazu indar, eta egizu.

5. Esdras xutitu zen beraz; errekeitu zituen aphezen eta lebitarren buruzagiak eta Israel guzia solas horren arabera zezaten egin, eta zin egin zuten.

6. Eta Esdras jaiki zen Jaunaren etxearen aitzinean eta goan Eliasiben seme Johanaren gelara; han sarthu zen eta etzuen ogirik jan, ez urik edan, ezik gathibusunetik ethorri zirenen lege hausteaz nigarrez zagon.

7. Eta Judan eta Jerusalemen desterruko ume guzietan oihu egina izan zen, Jerusdemera bil zitezela;

8. Eta nor-ere ez baitzen hirur egunik barnean ethorriko aitzindarien eta zaharren erabakiaren arabera, hainari khenduak izanen zitzaizkoela bere izateak oro, eta bera irazia izanen zela desterrutik ethorri zirenen baldarnatik.

9. Judako eta Benjamingo gizon guziak Jerusalemera bildu ziren beraz hirur egunak barnean, hura baitzen bederatzigarren hilabetea eta hilabetearen hogoigarren egunean; eta populua jarri zen Jaunaren etxe-ko plazan, oro bekhatuaren gatik eta orduko uriteen gatik ikharan.

10. Esdras apheza jaiki zen eta erran zaroeten: Legea duzue hautsi, eta emazte arrotzak hartu dituzte, Israelen bekhatuari berhatzeko.

11. Eta orai aithor emozue zuen arbasoen Jainko Jaunari, egizue haren gogarako dena, berez zaitezte lurreko populueterik eta emazte arrotzeterik.

12. Eta oste guziak ihardetsi eta goraki erran zuen: Zuk guri erran hitzaren arabera, hala egin bedi.

13. Hargatik, nola oste handia baikare, eta urite delakoz, eta kanpoan ez baikagozke, eta ez baita egun baten edo bien lana (alabainan bekhatu gaitza egin dugu hortan),

14. Atzindariak ezarriak izan beitez oste guziaren gainean; eta gure hirietan emazte arrotzak hartu dituzten guziak ethor beitez ephe xedatuetan, eta hekiekin hiri bakhotxeko zaharrak eta juieak, bekhatu horren gatikako gare Jainkoaren hasarrea aldara dadien arteo gure gainetik.

15. Beraz Jonathan Azahelen semea, eta Jaasia Thekueren semea jarri ziren horren gaineko; Mesolam eta Sebethai lebitarrek lagundu zituzten.

16. Eta hala egin zuten desterruko umeek. Esdras apheza eta familiarikako buruzagiak goan ziren beren arbasoen ganikako etxeetara, oro beren izenen arabera, eta hamargarren hilabetearen lehenbiziko egunean jarri ziren gauzaren argitasunen egiten.

17. Eta emazte arrotzak hartu zituzten gizonen egitekoak xuritu zituzten urthats eguneko.

18. Aphez-semeetarik, emazte arrotzak hartu zituztenak, khausitu ziren: Josueren umeetarik, Josedeken semeak eta haren anaiak, Maasia, Eliezer, Jarib eta Godolia.

19. Eta beren eskuak eman zituzten beren emazteen irazteko, eta arthaldetik ahari bat bekhatuarentzat eskaintzeko;

20. Emerren umeetarik, Hanani eta Zebedia;

21. Harimen semeetarik, Maasia, Elia, Semeia, Jehiel eta Ozias;

22. Phefhurren umeetarik, Elioenai, Maasia, Ismael, Nathanael, Jozabed eta Elasa;

23. Lebitarren umeetarik, Jozabed, Semei, Zelaia, hura bera baita Kalita, Phataia, Juda eta Eliezer;

24. Kantarietarik, Eliasib; athalzainetarik, Selum, Telem eta Uri;

25. Eta Israeldik, Pharosen semeetarik, Erremeia, Jezia, Melkia, Miamin, Eliezer, Melkia eta Banea;

26. Elamen semeetarik, Mathania, Zakarias, Tehiel, Abdi, Jerimoth eta Elia;



27. Zethuaren semeetarik, Elioenai, Eliasib, Mathania, Jerimuth, Zabad eta Aziza;

28. Bebairen semeetarik, Johanan, Hanania, Zabai, Athalai;

29. Baniren semeetarik, Mosolam, Meluk, Adaia, Jasub, Saal eta Erramoth;

30. Phahath Moaben umeetarik, Edna, Kalal, Banaias, Maasias, Mathanias, Beseleel, Benui eta Manase;

31. Heremen semeetarik, Eliezer, Josue, Melkias, Semeias, Simeon,

32. Benjamin, Malok, Samarias;

33. Halomen semeetarik, Mathanai, Mathatha, Zabad, Eliphelet, Jermai, Manase, Semei;

34. Baniren semeetarik, Maadi, Antram eta Bel,

35. Baneas, Badaias, Keliau,

36. Bania, Marimuth, Eliasb,

37. Mathanias, Mathanai, Jasi,

38. Bani, Benui, Semei,

39. Salmias, Nathan, Adaias,

40. Meknedebai, Sisai, Sarai,

41. Ezrel, Selemiau, Semeiaa;

42. Selum, Amaria, Josep;

43. Neboren umeetarik, Jehiel, Mathathias, Zabad, Zabina, Jedu, foel eta Banaia.

44. Horiek orok hartu izan zituzten emazte arrotzak, eta baziren emaztekiak horien ganik haurrak izan zituztenak.

## NEHEMIAS, ESDRASEN II. LIBURUA

### I. KAP.

1. Nehemias Helziasen semearen hitzak. Hau gerthatu zen hogoigarren urthean, kasleuko hilabethean, eta ni Susako gazteluan nintzen.

2. Eta Hanani, ene anaietarik bat, bera eta Judako gizon batzu ethorri ziren, eta gathibutasunetik gelditu eta bizi ziren Juduez eta Jerusalemek berri galdatu naroten.

3. Eta ihardetsi zarotedan: Gelditu direnak eta gathibutasunetik han utziak izan direnak gure herrian, atsekabe handitan eta laidotan daudezi; Jerusalemeko harrasia urratua eta hango atheak suz erreak dira.

4. Eta horrelako solasak aditu nituenean, jarri nintzen, eta nigarrez eta deithorez egotu nintzen asko egunez. Barur eta othoitz egiten nuen zeruko Jainkoaren aitzinean.

5. Eta erran nuen: Errekeitzen zaitut, zeruko Jainko Jaun hazkar, handi eta ikharagarria, batasun eta urrikalmendu begiratzen duzuna zu maithatzen zaituztenekin eta zure manamenduak idukitzen dituztenekin;

6. Zure beharriak heda eta zure begiak zabal beitez, entzun dezazun zure zerbitzariaren othoitza, orai gau eta egun zure aitzinean altxatzen dudana Israelgo seme zure zerbitzariarentzat; eta aithor darotzut Israelgo semeen bekhatuez, zeinetaz zure alderat hobendun egin baitira; nik eta ene aitaren etxeak bekhatu egin dugu;

7. Ergelkeriak zoratu gaitu eta ez ditugu begiratu zure manamendu, zeremonia eta erabaki, Moisi zure zerbitzariari manatu ditutzunak.

8. Orhoit bezedi Moisi zure zerbitzariari eman diozun hitzaz, zina-roelarik: Noiz-etare hautsiko baituzue ene legea, nik barraiatuko zaituztet populetan;

9. Eta baldin ene ganat bihurtzen bazarete eta ene manamenduak begiratzen eta bethetzen badituztue; zeruko bertze bazterraino bazinete eramanak ere, handik bilduko eta bihurrazaziko zaituztet nik ene izena han egon dadientzat hautatu dudak lekhura.

10. Eta haukiek dira zure zerbitzariak eta zure populua, zure indarraren handiaz eta zure esku hazkarraz berrerosi ditutzunak.

11. Othoi, Jauna, zure beharria atzarria egon bedi zure zerbitzariaren othoitzari, eta zure izenaren beldur izan nahi duten zure zerbitzariaren



othoitzari; bida zazu egun zure zerbitzaria, eta urrikalpen emozu gizon hunen aitzinean: ezik erregeren edarale nintzen ni.

## II. KAP.

1. Bada, gerthatu zen nisango hilabetea, Artakserkses erregearen hogoigarren urthean, arnoa haren aitzinean zela; hartu nuen arnoa eta erregeri eman nareon; eta iraungia bezala nintzen haren aitzinean.

2. Eta erregek erran zarodan: Nolaz da hire begithartea goibel, ez hautanean eri ikhusten? hori ez da ariarik gabe, bainan etzakiat hire bihotzeko minaren berri. Eta beldur handi eta gaindizkako batek hartu ninduen.

3. Eta erregeri erran nareon: Oi errege, bizi zaite egun eta bethi! nolaz ez da ilhun izanen ene begithartea, mortu egin denaz geroz ene arbasoen hobien etxeko hiria, eta suz erreak hango atheak?

4. Eta erregek erran zarodan: Zeren galdea duk? Othoiztu nuen zeruko Jainkoa,

5. Eta erran nareon erregeri: Baldin erregeri ontsa iduritzen bazaio, eta zure zerbitzaria gogaragari bada zure aitzinean, bidal nezazu Judeara, ene aitaren hobiko hirira, eta altxatuko dut hura.

6. Erregek eta erreginak, haren aldean jarria zenak, erran zarotedan: Noiz arteo iraunen du hire bidaiak, eta noiz itzuliko haiz? Eta ene solasa erregeren gogarako izatu zen, eta igorri ninduen, eta xedatu nareon epea.

7. Eta erran nareon erregeri: Baldin erregeri ontsa iduritzen bazaio, gutunak eman biatzat hibaiaz haindiko aitzindariatzat, iraganaraz nezaten, Judeara hel nadien arteo,

8. Eta gutun bat Asaphentzat erregeren oihaneko zainarentzat, zurak eman ditzadan estal ahal izan detzadan etxeko dorreko atheak, eta hiriko harrasiak, eta ni sarthuko naizen etxea. Eta erregek eman zarodan Jainkoaren esku lagungarri ene gainean zenaren arabera.

9. Eta ethorri nintzen hibaiaz hunaindiko eremuko aitzindarietara eta eman narozkioten erregeren gutunak. Bada, erregek enekin igorri zituen soldado aitzindariak eta zaldizkoak.

10. Sanabalat Oronaimdarrak eta Tobias Amontar zerbitzariak aditu zuten, eta atsekabe handitan sarthu ziren, gizon bat ethorri zelakotz, Israelgo semeen ona bilhatzen zuena.

11. Jerusalemara ethorri nintzen, eta han nintzen hirur egun hartan;

12. Gauaz jaiki nintzen, eta gizon guti enekin, eta nihorri ere ez nareon ezagutzerat eman Jaunak ene bihotzean zer ezarri zuen egin nezan Jerusalem, eta ez nuen azpiko abererik, nerorrek igaiten nuena baizik.

13. Gauaz ilkhi nintzen Haraneko athetik, eta Erainsugearen ithurri aitzina gaindi, Gorotzeko athearen alderat hartu nuen, eta nindabilan Jerusalemeko harrasi urratuari eta hango athe suz erreei begira.

14. Eta iragan nintzen Ithurriko athera eta Erregeren ixtunera, eta etzen ene azpiko aberearentzat iragan lekhurik.

15. Eta igan nintzen gauaz erreka gaindi, eta harrasiari begira nindabilan; eta itzulirik, ethorri nintzen Haraneko athera eta sarthu nintzen.

16. Bada, kargudunek etzakiten norat egin nuen edo zer hari nintzen; Judueri ere, ez aphezei, ez handiei, ez kargudunei, ez lanetan hari ziren bertzei ez naroten ordu arteo deusere agertu.

17. Eta erran naroten: Badakizue zer atsekabetan garen; alabainan Jerusalem mortu egin da eta hemengo atheak erreak dira. Zatozte, altxa detzagun Jerusalemeko harrasiak, eta ez gaitezen laidotan izan gehiago.

18. Eta agertu naroten nola laguntzen ninduen Jainkoaren eskuak, eta erregek niri erran solasak, eta erraten daroet: Jaiki gaiten eta loth gaiten lanari. Eta ongian hazkartu ziren hekien eskuak.

19. Sanabalat Oronaimdarrak berriz, eta Tobias Amontar zerbitzariak eta Gosem Arabiarrak aditu zuten, eta trufatzen eta erdeinatzen gintuzten, eta erraten zarokuten: Zer da egiten duzuen lan hori? Erregeren kontra bihurtzen othe zarete?

20. Eta nik ordainez erran naroten: Zeruko Jainkoak berak laguntzen gaitu, eta gu haren zerbitzariak gare. Jaiki gaiten eta lanari jo dezogun. Zuek aldiz, ez zathirik, ez zuzenik, ez orhoitzapenik ez duzue Jerusalem.

## III. KAP.

1. Eta Eliasib aphez-handia eta haren anaia aphezak jaiki ziren eta altxatu zuten Arthaldeko athea; sainduetsi zuten eta hango athe-alderdiak ezarri zituzten; eta sainduespena egin zuten Ehun besotako dorreraino eta Hananeelgo dorreraino.

2. Eta haren aldean altxatu zuten Jerikoko gizonak, eta haren aldean altxatu zuen Zakurrek Amriren semeak.

3. Asnaaren semeek berriz, altxatu zuten Arrainen athea; estali zuten eta ezarri zituzten athe-alderdiak, zerrapoak eta hagak. Eta hekien aldean altxatu zuen Marimuthek Uriasen semeak, Urias baitzen Akusen seme.

4. Eta haren aldean altxatu zuen Mosolamek Barakiasen semeak, Barakias baitzen Mesezebelen seme; eta haren aldean altxatu zuen Sadokek Baanaren semeak;



5. Eta hekien aldean altxatu zuten Thekuearrek; hekietako handiek etzituzten ordean beren buruak gurthu Jaunaren lanean.
6. Joiada Phasearen semeak eta Mosolam Besodiaren semeak altxatu zuten athe Zaharra; berek estali zuten, eta ezarri zituzten athe-alderdiak, zerrapoak eta hagak.
7. Eta hekien aldean altxatu zuten Meltias Gabaondarrak eta Jadon Meronatharrak, Gabaongo eta Maspako umeek, hibaiaz haindiko buruzagiaren ordainez;
8. Eta haren aldean altxatu zuen Eziel urheginak Araiaren semeak; eta haren aldean altxatu zuen Ananiasek baltsamuginaren semeak; eta Jerusalemgo lanak heldu zituzten Karrika handiko harrasiraino.
9. Eta haren ondoan altxatu zuen Erraphaiak, Hurren seme, Jerusalem alderdi baten buruzagi zenak;
10. Eta haren ondoan altxatu zuen Jedaiak Haromaphen semeak, bere etxeko parrean; eta haren aldean altxatu zuen Hatusek Haseboniasen semeak.
11. Melkias Heremen semeak, eta Hasub, Phahath Moaben semeak altxatu zituzten karrika baten erdia eta Labeetako dorrea.
12. Selumek, Alohesen semeak, Jerusalemeko karrika erdi bateko buruzagiak, berak eta bere alabek altxatu zuten hekien aldean.
13. Hanunek eta Zanoetarrek altxatu zuten Haraneko athea; berek altxatu zuten hura eta ezarri zituzten hartako athe-alderdiak, zerrapoak eta hagak eta harrasia berritu mila besotan Gorotzeko atheraino.
14. Melkias Errekaben semeak, Bethakaramgo karrikako buruzagiak, altxatu zuen Gorotzeko athea; berak altxatu zuen hura eta ezarri zituen hartako athe-alderdiak, zerrapoak eta hagak.
15. Selum Kolhozaren semeak, Maspako herriko buruzagiak, altxatu zuen Ithurriko athea; berak altxatu zuen hura eta ezarri zituen hartako athe-alderdiak, zerrapoak eta hagak, eta berritu Siloeko arraintegiko harrasiak, erregeren baratzean, eta Dabiden hiritik jausten diren mailetaraino.
16. Haren ondotik, Nehemias Azboken semeak, Bethsurgo herri erdiaren buruzagiak, altxatu zuen Dabiden hobiko parreraino, eta lan handirekin egina den arraintegiraino, eta Hazkarren etxeraino.
17. Haren ondotik altxatu zuten lebitarrek; Errehum Beniren semeak, eta haren ondotik, Hasebiasek, Zeilako karrika erdiko buruzagiak, bere karrikan.
18. Haren ondotik altxatu zuten hekien anaiek; Babai Enadaden semeak, Zeilako karrika erdiko buruzagiak;

19. Haren ondotik altxatu zuen Azerrek, Josueren seme Maspako buruzagiak, bertze saila Izkina hazkarreko igaitearen parrean;
20. Haren ondotik, Baruk Zakairen semeak mendian altxatu ziren bertze saila, izkinatik Eliasib aphez-handiaren etxeko atheraino;
21. Haren ondotik, Merimuth, Uriasen seme Hakusen ilobasoak, altxatu zuen bertze saila Eliasiben etxeko athetik Eliasiben etxearen hedadura guzian.
22. Haren ondotik altxatu zuten Jordaneko zelhaietako aphezek;
23. Hekien ondotik altxatu zuten Benjaminek eta Hasubek, zeinek bere etxearen parrean; hekien ondotik altxatu zuen Azariasek, Maasiasen seme Ananiasen ilobasoak, bere etxearen parrean;
24. Haren ondotik, Benui Henadaden semeak altxatu zuen bertze saila, Azariasen etxetik bihurturaino eta izkinaraino;
25. Phalel Oziren semeak bihurturaino parrean eta erregeren etxetik altxatzen den dorre goraren parrean, erran nahi da presondegiko lorioan; haren ondotik, Phadaiak, Pharosen semeak;
26. Nathindarrak berriz, Ophelen egoten ziren Uretako atheraino iguzki-haize alderat eta han altxatzen zen dorreko alderat.
27. Haren ondotik Thekuearrek altxatu zuten bertze saila dorre handi eta goratik tenploko harrasiraino.
28. Gaingan berriz, aphezek, Zaldien athetik hasirik zeinek beren etxeen parrean altxatu zuten.
29. Hekien ondotik, Sadok Emerren semeak altxatu zuen bere etxearen parrean; eta haren ondotik, Semaia, Sekeniasen seme, iguzki-haizeko atheko athalzainak.
30. Haren ondotik, Hanania Selemiasen semeak eta Hanun Selephen seigarren semeak, altxatu zuten bertze saila; haren ondotik, Mosolam Barakiasen semeak, altxatu zuen bere khutxategiko parrean; haren ondotik, Melkias urheginaren semeak altxatu zuen Nathindarren etxeraino eta phuskatzar saltzailetaraino Juieen atheko parrean Izkinako gelaraino;
31. Eta Izkinako gelaren artean, Arthaldeko athean altxatu zuten urheginak eta tratulariek.

#### IV. KAP.

1. Bada, gerthatu zen Sanabalatek aditu zuenean harrasia altxatzen ginduela, hasarretu zela hainitz; eta bere sephan, trufatu zituen Juduak,
2. Eta beren anaien eta Samariar ostearen aitzinean erran zuen: Zer hari dira Judu gaizoak? Jendaiek utziko othe dituzte? Sakrifikatuko eta



akhabatuko othe dute egun batez? Harrasirik egin othe dezakete suak herrauts munthoin batzuetara bihurtu dituen harri batzuekin?

3. Haren aldean zen Tobias Amontarrak ere erran zuen: Egin bezate; hazeri bat heldu balin bada, horien harrizko harrasiaren gainetik jauzi egingen du.

4. Adi zazu, oi gure Jainkoa, nola garen erdeinutara eroriak; laidoa horien buruaren gainera bihurraz zazu, eta gathibutasuneko lurtean erran zatzu erdeinagarritzat.

5. Ez biazazu itzal horien tzarkeria, eta ez bedi ezezta horien bekhatua zure begithartearen aitzinean, trufatu dituztelakotz zure hiriaren egi-leak.

6. Hargatik harrasia altxatu eta berritu ginduen erditaraino; eta popularen bihotza lanera berotua zen.

7. Bainan noiz-etare Sanabalatek, Tobiasek, Arabiarrek, Amontarrek eta Azotarrek aditu baitzuten Jerusalemeko harrasiko urradura tapatua zela eta hauskura guzian bethetzen hasi zirela, hasarre handitan sarthu ziren.

8. Eta guziak elkhar gana bildu ziren, ethortzeko Jerusalemen gudukatzera eta zelaten hedatzera.

9. Gure Jainkoari othoitz egin ginaren, eta hekien kontra gau eta egun zainak ezarri gintuen harrasiaren gainean.

10. Bada, Judak erran zuen: Ahitua da ekharlearen indarra, lurketa sobera da, eta guk ezin altxatuko dugu harrasia.

11. Eta gure etsaiek erran zuten: Ez bezate deusera jakin, hekien erdi-sar gaitezen arteo; orduan hilen ditugu eta geldiaraziko dugu lana.

12. Bainan gerthatu zen hekien aldean egoten ziren Juduak ethorri zirela, eta hamarretan erran zarokutela gauza, gure gana ethorri ziren lekhu guzietarik;

13. Eta harrasi gibeledu lekhu populua lerroan ezarri nuen inguruan ezpatekin, lantzekin eta arranbelekkin.

14. Begiratu nuen eta jaiki nintzen, eta buruzagiei, kargudunei eta gainerako populuari erran naroten: Ez izan hekien begithartearen beldur. Orhoit zaitezte Jaun handi eta ikharagarriaz, eta guduka zaitezte zuen anaia, zuen seme, zuen alaba, zuen emazte eta zuen etxeentzat.

15. Gerthatu zen, berriz, gure etsaiek jakin zutenean argituak ginela, Jaunak urmariatu zuela bekien asmua. Eta oro itzuli ginen harrasietara, zein bere lanera.

16. Eta egun hartarik, hango gizon-gazteen erdia lanean hari zen, eta bertze erdia gudura abian zagoen; eta lantzak, erredolak, arranbelak, gerruntzeak eta aitzindariak hekien gibelean ziren Judako etxe guzian.

17. Harrasian lanean hari zirenek, haxe ekhartzten eta gainera ematen hari zirenek, esku batez jotzen zuten lanari, eta ezpata zadukaten bertzean.

18. Ezik lanean hari ziren guziek gerrian zuten ezpata. Eta harrasia altxatzen zuten, eta turuta durrundarazten zuten ene manuz.

19. Eta aitzindari eta kargudunei eta gainerako populuari erran naroten: Handia eta hedatua da lana, eta bat bertzea ganik urrun barraiatuak gure harrasian.

20. Non-nahi adi dezazuen turutaren durrunda, harat laster egizue gure gana; gure Jainkoa gudukatuko da gure alde.

21. Eta guk, jo dezogun lanari; gutarik erdiek iduk betzazte lantzak, argi-zirrintatik izarrek ilkhi arteo.

22. Orduan halaber erran naroen populuari: Bakhotxa bere muthilarekin egon bedi Jerusalemen erdian, eta aldiak izan betzagu gabaz eta egunaz lanean haritzeko.

23. Bada, nik, ene anaiek eta muthilek eta enekilako zainek ez gintuen soinekoak uzten; bakharrik xahupenekotzat biluzten zen bakhotxa.

## V. KAP.

1. Eta populutik eta emazteetarik oihi handi bat atheratu zen, hekien anaia Juduen kontra.

2. Eta baziren erraten zutenak: Hainitz dira gure semeak eta alabak; hekien truk ogia har dezagun, eta jan dezagun, eta bizi gaitezen.

3. Eta baziren erraten zutenak: Gure landak, mahastiak eta etxeak eman detzagun bahi, eta ogia har dezagun gosete huntan.

4. Eta bertzeek erraten zuten: Dirua mailega dezagun erregeren zergetarik, eta eman detzagun gure landak eta mahastiak.

5. Eta orai, nolako gure anaien haragia, halako da gure haragia; nolako horien semeak, halako dira gure semeak ere. Huna non gathibutasunaren azpiko ezartzen ditugun gure semeak eta alabak; gathibu dira gure alabak, eta horien berrerostekorik ez dugu; eta bertzeek gozatzen dituzte gure landak eta mahastiak.

6. Eta gogorki samurtu nintzen aditu nuenean hitz horien araberako hekien oihua.

7. Ene baithan gogoetan egon nintzen; eta larderiatu nituen handiak eta kargudunak, eta erran naroten: Lukurua bakhotxak behartzten duzue zuen anaien ganik? Eta bilkhu handi bat eginarazi nuen hekien kontra.



8. Eta erran naroten: Guk, dakizuen bezala, gure ahalaren arabera berrerosi ditugu gure anaia Juduak jendaiei salduak izan zirenak; eta zuek beraz salduko dituzte zuen anaia, eta guk beharko ditugu berrerosi? Ixilik gelditu ziren, eta etzuten khausitu zer ihardets.

9. Eta erran naroten: Ez da ona zuek egiten duzuen gauza. Zertako etzarete gure Jainkoaren beldurrean ibiltzen, jendaia gure etsaiek ez diazaguten iroiirik egin?

10. Nik, ene anaiek eta sehiak askori maileguz eman izan diotegu dirua eta ogia. Orok hitz batean ez diozotegun emana gibelerat galda; barkha dezagun zor zaikun maileguzko dirua.

11. Bihur zotzute egun beren landak eta mahastiak, olibadiak eta etxeak; eta hobeki egiteko ere, horientzat eman zazue horien ganik behar-tzen ohi duzuen diruaren, ogiaren, arnoaren eta olioaren ehungarrena.

12. Eta ihardetsi zuten: Bihurtuko ditugu, eta ez daroegu deusere gal-datuko; zuk nola erran, hala egingen dugu. Eta deithu nituen aphezak eta errekeitu nituen erran nuen bezala egin zezaten.

13. Eta gero iharrosi nuen ene kapako hegala, eta erran nuen: Jainkoak haina horrela iharros beza bere etxe eta lanetarik, zeinak betheko ez batzu hitz hori; horrela izan bedi iharrosia eta erromestua. Eta oste guziak ihardetsi zuen: Halabiz. Eta laudatu zuten Jainkoa. Populuak egin zuen beraz errana izan zen bezala.

14. Aldiz, erregek Judako lurreen buruzagi ezarri ninduen egunetik, Artakserkses erregearen hogoigarren urthetik hogoi eta hamabigarrene-raino ez nik, ez ene anaiek ez ditugu hartu buruzagiei zor ziren urthe-sariak.

15. Lehenbiziko buruzagiek ordean, ene aitzinean izatu zirenek, populua lehertu zuten, haren ganik egun oroz ogitan eta arnotan hartuz berrogoi siklo; eta bertzalde hekien azpiko kargudunek zaphatu zuten populua. Baina nik ez nuen hala egin Jainkoaren beldurrez;

16. Eta oraino hobeki, harrasiko lanean haritu naiz, eta ez dut landa-rik erosi, eta ene muthilak oro lanera bilduak ziren.

17. Juduak halaber eta kargudunak, ehun eta berrogoi eta hamar gizon, eta gure ingurutan diren jendaietarik gure gana ethortzen zirenak, ene mahainean ziren.

18. Aldiz, egun oroz enetzat xuxentzen ziren idi bat, sei ahari hauta-tu, hegastinak bertzalde; eta hamar egunetarik ematen nituen arno asko eta bertze hainitz; eta oraino ez ditut galdatu ene karguko urthe-sariak; alabainan populua hainitz zen behartua.

19. Oi ene Jainkoa, ene onetan orhoit zaite nitaz, populu huni egin izan diodan guziaren arabera.

## VI. KAP.

1. Bada; gerthatu zen, noiz-etare Sanabalatek, Tobiasek, Gosem Arabiarrak eta bertze gure etsaiek aditu zutenean nik harrasia altxatu nuela, eta etzela hartan hutsarte gelditurik (ez nituen bada oraino orduan atheetan atheladak ezarri),

2. Sanabalatek eta Gosemek ene gana igorri zutela, ziotelarik: Zato, eta batasun jo dezagun elkharrekin Onoko zelhaieko herrietan. Baina niri gaizkiaren egiteko asmua zerabilkaten.

3. Mandatariak igorri narozten beraz erratera: Lan handi bat egiten dut, eta ez naiteke jauts, beldurrez-eta nagí dadien, zuen gana ethorriko eta jautsiko naizenean.

4. Bada, lau aldiz gaztiatu zarotedan solas bera; eta nik lehenbiziko hitzaz ihardetsi naroten.

5. Eta Sanabalatek bortzgarren aldiak igorri zuten ene gana bere mut-hil bat lehenbiziko galdearen arabera, eta eskuan bazuen gutun bat hune-letan iskribatua:

6. Jendaietan entzuna izan da, eta Gosemek erran du, zuk eta Juduek erregeri bihurtzea derabilkazuela gogoan, eta horren gatik altxatzen duzu-la harrasia, eta Juduen ganean errege jarri nahi duzula; aria hortaz

7. Profetak ere ezarri dituztula, zutaz haro egin dezaten Jerusalem, erranez: Errege bat Judean bada. Erregek solas horiek adituko ditu; horren gatik orai zato, hortaz elkharren artean egotera.

8. Eta igorri naroen, niolarik: Hitz horiek ez dira egiak, baina zure bihotzetik atheratzen dituzu.

9. Ezen hekiek oro gure izardera hari ziren, ustez-eta lanetik baratu-ko zirela gure eskuak, eta geldirik egonen ginela. Horren gatik ene eskuei, indar gehiago eman naroten.

10. Eta sarthu nintzen ixilik Semeias Dalaiasen semearen etxean, Dalaias Metabeelen seme baitzen. Harek erran zarodan: Jainkoaren etxean, tenploaren erdian, mintza gaitezen, eta herts detzagun atheak, zeren zure hiltzera ethortzekoak baitira, eta gabaz ethorriko dira zure sarraskitzera.

11. Ihardetsi nuen: Ni bezalako gizon batek ihes egiten othe du? eta nor da ni bezalakorik tenploan sarthuko dena eta biziko dena? Ez naiz sarthuko.

12. Eta ezagutu nuen etzuela Jainkoak igorri, baina alegia profetisa-tuz mintzatu zitzaidala, eta Tobiasek eta Sanabalatek hortaratu zutela.





13. Ezik saria hartua zuen ene iziarzteko eta niri bekhatu eragiteko, eta izan zezaten gaizki bat niri jazartzeko.

14. Orhoit zaite nitaz, Jauna, Tobiasen eta Sanabalaten ariaz, hekien horrelako egitateen arabera, eta halaber Noadia profetaren eta bertze profeten ariaz, zeinak ene izitzeraz hari baitziren.

15. Bada, harrasia oso ezarria izan zen berrogoi eta hamabi egunez, eluleko hilabetheko hogoi eta bortzgarren egunean.

16. Gerthatu zen beraz gure etsai guziek aditu zutenean hori, gure inguruan ziren jendaiak oro izitu zirela, gogoak erori zitzaizkotela, eta bazakitela lan hori Jaunak egina zela.

17. Eta oraino egun hekietan, Judu handien asko gutun Tobiasi igorriak ziren, eta Tobiasen ganik ere ethortzen zitzaizkoten.

18. Ezik Judean baziren asko harekin zin bazutenik, Arearen seme Sekeniasen suhi zelakotz eta haren seme Johanenek emaztetzat hartu zuelakotz Barakiasen seme Mosolamen alaba.

19. Ene aitzinean ere laudatzen zuten hura, eta ene solasak gaztiazten ziozkaten; eta Tobiasek gutunak igortzen ene izitzeko.

## VII. KAP.

1. Bada, harrasia egina izan zen ondoan, eta atheladak ezarri nitue-nean eta begietan iragan nituenean athalzainak, kantariak eta lebitarrak,

2. Manatu nituen Hanani ene anaia eta Hananias Jerusalemeko etxe-ko buruzagia (ezik hura gizon zin eta bertzeak baino Jainkoaren beldurragoa iduritzen zitzaidan);

3. Eta erran naroten: Iguzkia berotu arteo ez beitez idek Jerusalemeko atheak. Eta oraino han zirelarik, atheak hertsiak eta hagu-tuak izan ziren; eta Jerusalemdarretarik zainak ezarri nituen, zein bere aldian eta bere etxearen parrean.

4. Hiria berriz, hainitz zen zabala eta handia eta populua guzia haren erdian, eta etxeak etziren eginak.

5. Bainan Jainkoak ezarri zuen ene bihotzean bilaraztea handiak, kargudunak eta jende xehea, hekien khondatzeko; eta lehenbizikorik ethorri zirenen khonduaren liburua atzeman nuen, eta hartan iskribatua aurkhitu zen:

6. Haukiek dira lekhuko umeak, gathibutasunetik bihurtu direnak, eta Nabukodonosorrek Babilonako erregek eraman zituenak, eta Jerusalemera, eta Judeara, eta zein bere hirira itzuli direnak:

7. Zorobabelekin ethorriak: Josue, Nehemias, Azarias, Erraamias, Nahatnani, Mardoqueo, Belsam, Mespharath, Begoai, Nahum, Baana. Israelgo populutikako gizonen nonbrea:

8. Pharosen semeak, bi mila ehun hirur hogoi eta hamabi;

9. Saphatiaren semeak, hirur ehun eta hirur hogoi eta hamabi;

10. Arearen semeak, sei ehun eta berrogoi eta hamabi;

11. Phahat Moaben semeak, Josueren eta Joaben semeetarik, bi mila zortzi ehun eta hemezortzi;

12. Elamen semeetarik, hamabi ehun berrogoi eta hamalaur;

13. Zethuaren semeak, zortzi ehun berrogoi eta bortz;

14. Zakairen semeak, zazpi ehun eta hirur hogoi;

15. Banuiren semeak, sei ehun berrogoi eta zortzi;

16. Bebairen semeak, sei ehun hogoi eta zortzi;

17. Azgaden semeak, bi mila hirur ehun hogoi eta bia;

18. Adonikamen semeak, sei ehun hirur hogoi eta zazpi;

19. Beguaireren semeak, bi mila hirur hogoi eta zazpi;

20. Adinen semeak, sei ehun berrogoi eta hamabortz;

21. Aterren Hezeziaren semearen umeak, laur hogoi eta hemezortzi;

22. Hasemen semeak, hirur ehun hogoi eta zortzi;

23. Besairen semeak, hirur ehun hogoi eta lau;

24. Harephen semeak, ehun eta hamabi;

25. Gabaongo umeak, laur hogoi eta hamabortz;

26. Bethlehemgo eta Netuphako umeak, bedereratzitan hogoi eta zortzi;

27. Anathotheko gizonak, sei ehun hogoi eta zortzi;

28. Bethazmotheko gizonak, berrogoi eta bia;

29. Kariathiarimgo, Zephirako eta Berotheko gizonak, zazpi ehun berrogoi eta hirur;

30. Erramako eta Jebako gizonak, sei ehun hogoi eta bat;

31. Makmaseko gizonak, sei hogoi eta bia;

32. Bethelgo eta Haiko gizonak, sei hogoi eta hirur;

33. Bertze Neboren gizonak, berrogoi eta hamabi;

34. Bertze Elamen gizonak, hamabi ehun berrogoi eta hamalaur;

35. Haremen semeak, hirur ehun eta hogoi;

36. Jerikoko umeak, hirur ehun berrogoi eta bortz;

37. Lodeko, Hadideko eta Onoko umeak, zazpi ehun hogoi eta bat;

38. Senaaren semeak, hirur mila bederatzitan ehun hogoi eta hamar.

39. Aphezak: Idaiaren semeak, Josueren etxean, bederatzitan ehun hirur hogoi eta hamahirur;



40. Emerren semeak, mila berrogoi eta hamabi;  
 41. Phashurren semeak hamabi ehun berrogoi eta zazpi;  
 42. Aremen semeak, mila eta hamazazpi. Lebitarrak;  
 43. Josueren eta Zedmiheleu semeak;  
 44. Oduiarenak, hirur hogoi eta hamalau. Kantariak;  
 45. Asaphen semeak, zazpitan hogoi eta zortzi.  
 46. Athalzainak: Selumen semeak, Aterren semeak, Telmonen semeak, Akuben semeak, Hatitaren semeak, Sobairen semeak, sei hogoi eta hemezortzi.  
 47. Nathindarrak: Soharen semeak, Hakupharen semeak, Tebaotheren semeak,  
 48. Zerosen semeak, Siaaren semeak, Phadonen semeak, Lebanaren semeak, Hagabaren semeak, Selmairen semeak,  
 49. Hananen semeak, Jedelen semeak, Gaharren semeak,  
 50. Erraaiaren semeak, Errasinen semeak, Nekodaren semeak,  
 51. Jezemen semeak, Azaren semeak, Phasearen semeak,  
 52. Besairen semeak, Munimensemeak, Nephusimen semeak,  
 53. Bakhuken semeak, Hakupharen semeak, Harhurren semeak,  
 54. Beslothen semeak, Mahidaren semeak, Harsaren semeak,  
 55. Berkosen semeak, Sisararen semeak, Themaren semeak,  
 56. Nasiaren semeak, Hatipharen semeak,  
 57. Salomonen zerbitzarien semeak: Sothairen semeak, Sopherethen semeak, Pharidaren semeak,  
 58. Jahalaren semeak, Darkonen semeak, Jedelen semeak,  
 59. Saphatiaren semeak, Hatilen semeak, Phokerethen semeak, Phokerethsorthua baitzen Amonen seme Sabaimen ganik.  
 60. Nathindar guziak eta Salomonen zerbitzarien semeak, hirur ehun laur hogoi eta hamabi.  
 61. Haukiek dira, berriz, igan direnak Thelmatetik, Thelharsatik, Kerubetik, Adonetik eta Emerretik, eta ezin ezagutarazi dituztenak ez beren aiten etxea, ez beren ethorkia, ez-eta Israeldik direnez:  
 62. Dalaiaren semeak, Tobiaren semeak, Nekodaren semeak, sei ehun berrogoi eta bia.  
 63. Eta aphezetarik, Habiaren semeak, Akosen semeak, Berzelaiaren semeak, hunek hartu baitzuen Berzelai Galaadarraren alabetarik, eta hekien izenetik deithua izan baitzen.  
 64. Horiek bilhatu dute beren ageria leheneko izen-hartzean, eta ez dute aurkhitu, eta apheztasunetik khenduak dira.

65. Eta Athersathak erran daroete ez dezaten jan sailduren saildu-tik, aphez argitu eta jakin bat kargutan sarthu arteo.

66. Oste guzia zen gizon bakhar bat bezala, eta heltzen zen berrogoi eta bi mila hirur ehun eta hirur hogoi lagunetara,

67. Hekien muthilak eta neskatoak gabe, zeinak baitziren zazpi mila hirur ehun hogoi eta hamazazpi, eta hekien artean berrehun berrogoi eta bortz gizon eta emazteki kantari.

68. Hekien zaldiak ziren zazpi ehun hogoi eta hamasei; mandoak, berrehun berrogoi eta bortz;

69. Kameluak, laur ehun hogoi eta hamabortz; astoak, sei mila zazpi ehun eta hogoi.

70. Aldiz, familietako buruzagietarik zenbaitek lanarentzat eman zuten. Athersathak khutxarat eman zituen hogoi mila drakma urhezko, berrogoi eta hamar gorgoila, bortz ehun hogoi eta hamar aphez-athorra.

71. Eta familietako buruzagietarik zenbaitek lanetako khutxarat eman zituzten hogoi mila drakma urhezko, eta bi mila eta berrehun mina zilharrezko.

72. Eta gainerako populuak eman zuena zen, hogoi mila drakma urhezko, bi mila mina zilharrezko eta hirur hogoi eta zazpi aphez-athorra.

73. Aphezak berriz, lebitarrak, athalzainak, kantariak eta bertze jende xehea, Nathindarrak eta Israel guzia egotu ziren zein beren hiritan.

## VIII. KAP.

1. Eta ethorri zen zazpigarren hilabetea. Bada, Israelgo semeak beren hirietan ziren. Eta populu guzia gizon bakhar bat bezala bildu zen Uretako athearen aitzinean den plazara, eta Esdras iskribauari erran zaroten ekhar zezala Moisen legeko liburua, Israeli Jaunak manatu izan zuena.

2. Esdras aphezak ekharri zuen beraz legea zazpigarren hilabeteako lehenbiziko egunean, gizonen, emaztekien eta adi zezaketen guzien ostearen aitzinera.

3. Eta hartan irakurtu zuen ozenki Uretako athearen aitzinean den plazan, gizonen, emaztekien eta adimendua zutenen aitzinean, goizetik eguerdiraino; eta populu guziaren beharriak liburura hedatuak zauden.

4. Bada Esdras iskribaua xutik zagoen zurezko mail mintzatzeko eginarazi zuen baten gainean; eta haren aldean eskuinetik zauden Mathathias, Semeia, Ania, Uria, Helzia eta Maasia, eta ezkerretik, Phadaia, Misael, Melkia, Hasum, Hasbadana, Zakaria eta Mosolam.



5. Eta Esdrasek populu guziaren aitzinean ideki zuen liburua; ezik populu guzia baino gorago zen; eta liburua ideki zuenean, populu guzia xutik jarri zen.

6. Eta Esdrasek benedikatu zuen Jainko Jaun handia, eta populu guziak ihardetsi zuen, eskuak altxatuz: Halabiz, halabiz. Eta gurthu ziren, eta lurrean ahuspez adoratu zuten Jainkoa.

7. Bada, Josue, Bani, Serebia, Jamin, Akub, Septhai, Odia, Maasia, Zelita, Azarias, Jozabed, Hanan, Phadaia lebitarrek populua ixiltasunean idukitzen zuten, legearen aditzeko; populua berriz, bere lerrotan xutik zagoen.

8. Eta Jainkoaren legeko liburuan irakurtu zuten garbiki eta ozenki, orok adi zezatentzat; eta aditu zuten hekiek irakurtuz.

9. Bada, Nehemiasek (hura bera da Athersatha), Esdras aphez eta iskribauak, eta lebitar populu guziari legearen gaineko garbitasunak ematen zaroztenek, erran zuten: Egun hau gure Jainko Jaunari sailduetsia da; ez deithora, ez nigarrik egin. Ezik populu guzia nigarrez zagoen legeko hitza aditzearekin.

10. Eta Nehemiasek erran zaroten: Zoazte, jan zatzue haragi goriak, edan zazue arno ezta, eta berentzat jatekorik xuxendu ez dutenei emotzute beren zathiak, zeren egun hau Jainkoaren egun saildua baita; eta ez betzaitzete jar gogoko ilhunduretan, ezik Jaunaren bozkarioa, gure indarra da.

11. Lebitarrek berriz, populu guzian ixiltasuna idukarazten zuten, erranez: Zaudezte ixilik, egun hau saildua baita, eta ez deithora.

12. Populu guzia goan zen beraz jatera, edatera, etzutenei ematera eta bozkario handiz bestatzera, zeren aditu baitzituzten Esdrasek irakhatsi zaroezten legeko hitzak

13. Eta bigarren egunean, populu guziko familietako buruzagiak, aphezak eta lebitarrak Esdrasen gana bildu ziren, legeko hitzak xeha zetzotentzat.

14. Eta legean iskribatua aurkhitu zuten, Jaunak Moisen arartekoz manatu zuela, Israelgo umeak etxoletan egon ditezten zazpigarren hila-betheko besta-buruz;

15. Eta beren hiri guzietan eta Jerusalemen oihu egin eta heda dezaten solasa, erranez: Athera zaitezte mendira, eta ekhar zatzue oliba-hostoilak, zuhaitz ederrenen hostoilak, arraianen hostoilak, palmen adarrak eta zuhamu hostotsuen hostoilak, etxolen egiteko iskribatua den bezala.

16. Eta populua ilkhi zen, eta ekharri zituzten. Eta bakhotxak beretzat egin zituzten etxolak beren etxetako zabaltzetan, lorioetan, Jaunaren etxeko lorioetan, Uretako atheko plazan, eta Efraimgo atheko plazan.

17. Gathibusonetik itzuli zirenen baldarna guziak egin zituen beraz etxolak, eta etxoletan egotu ziren; ezen Israelgo semeek holakorik etzuten egin Josue Nunen semearen egunetarik ordu arteo. Eta bozkalentzia handiak izatu ziren.

18. Bada Esdrasek Jaunaren legeko liburuan irakurtu zuen egun oroz, lehenbiziko egunetik azkeneko eguneraino; eta zazpi egunez egin zuten besta, eta zortzigarrenean, ohitzaren arabera bilkhua egin zuten.

## IX. KAP.

1. Bada, hilabete hartako hogoi eta laugarren egunean, Israelgo semeak bildu ziren barurean, zakhuak jauntzirik eta buruak lurrez estaliak.

2. Eta Israelgo semeen odola berezia izan zen odol arrotzeko ume guzietarik; eta xutik jarririk aithortzen zituzten beren bekhatuak eta beren arbasoen gaizkiak.

3. Eta xutitzeko jaiki ziren, eta beren Jainko Jaunaren legeko liburuan irakurtu zuten egunean lauretan, eta lauretan aithor ematen zuten eta adoratzen zuten beren Jainko Jauna.

4. Lebitarren mailaren gainean berriz, xutitu ziren Josue, Bani, Zedmihel, Sabania, Boni, Sarebias, Bani eta Kanani, eta deihadarka oihu egin zaroten beren Jainko Jaunari.

5. Eta Josue, Zedmihel, Boni, Hasebnia, Serebia, Odaia, Sebnia, eta Phathahia lebitarrek erran zuten: Jaiki zaizte, zuen Jainko Jauna benedika zazue bethitik bethiraino; benedika bezate, Jauna, zure ospezko izen gora benedizione eta laudorio guzitan.

6. Zuk, Jauna, zuk bakharririk egin ditutzu zerua, eta zeruetako zerua, eta hekietako armada guzia; lurra, eta hartan direnak oro; itsasoak, eta hekietan direnak oro; eta zuk ematen daroezu guziei bizia; eta zeruko armadak adoratzten zaitu.

7. Jainko Jauna, zu zare Abram hautatu duzuna, eta Kaldearren sutik atheratu duzuna, eta Abrahamen izena eman diozuna,

8. Eta haren bihotza zure aitzinean zin aurkhitu duzuna, eta harekin patu jo duzuna, hari eta haren ondoregoari emateko Kananearren, Hethearren, Amorhearren, Pherezearren, Jebusearren eta Jerjesearren lurra; eta zure hitzak bethe ditutzu, zeren baitzare zuzena.



9. Eta Egiptoan ikhusi duzu gure arbasoen atsekabea, eta hekien marraska entzun duzu itsaso Gorriko hegjan.

10. Eta eman ditutzu ezagutkariak eta sendagailak Faraonen baithan, haren zerbitzari guzien baithan, eta haren lurreko populu guzian; ezagutu duzu alabainan burgoiki haritu zirela hekien kontra; eta zure izena goratu duzu orduan, egungo egunean bezala.

11. Itsasoa urratu duzu hekien aitzinean, eta leihorrez iragan dira itsasoaren erditik; aldiz, hekien ondotik jarraikitzen zirenak lezera arthiki ditutzu, harria ur zurrunbilora bezala.

12. Lanhozko habearen hekien bidatzaile izatu zare egunaz, eta suzko habearen gabaz, ageri izan zakioten hekiek zabiltzan bidea.

13. Halaber jautsi zare Sinaiko mendira; hekiekin mintzatu zare zerutik, eta eman diozkatzute erabaki zuzenak, egiazko legea, zeremoniak eta manamendu onak.

14. Erakhutsi diozute zure larunbataren sainduesten, eta Moise zure zerbitzariaren eskuz eman diozkatzute manamenduak, zeremoniak eta legea.

15. Zerutik ere, beren gosean, ogia eman diozute, eta ura harri mokhorretik atheratu diozute egarri zirenean, eta erran diozute sar zitezen eta goza zezaten lurra, zeinaren gainean eskua altxatu baitzinduen emanen zineroetela.

16. Bainan berak eta gure aitak burgoiki haritu izan dira, gogortu dituzte beren buruak, eta ez dituzte entzun zure manamenduak.

17. Eta ez dute nahi izan aditu, eta ez dira orhoitu hekientzat egin zintuen sendagailez. Gogortu dituzte beren buruak, eta bihurri egitea gatik bezala, burua itzuli dute beren gathibutasunera bihurtzeko. Zu ordean, Jainko laguntza-egile, barkhatiar, eta urrikalmendutsua, luzakor eta urrikalpen handitakoa, ez ditutzu bazterrerat utzi;

18. Ez-etare berentzat aratxe urthu bat egin, eta erran zutenean: Hori duk, Israel, hire Jainkoa, Egiptotik ilkhi hauena; eta burho gaitzak arthiki zituztenean.

19. Zuk ordean, zure urrikalpenen handian, ez ditutzu mortuan utzi; lanhozko habea ez da hekien ganik gibelatu egunaz, hekiek beren bidean bidatzeko, ez-etare suzko habea gabaz, hekiei erakhusteko bidea zeintarik sarthu behar baitziren.

20. Eta zure izpiritu ona eman daroezu hekien argitzeko, eta zure mana ez duzu khendu hekien ahotik, eta ura eman daroezu egarrarian.

21. Berrogoi urthez hazi ditutzu mortuan, eta etzaiote deusere eskastu; hekien soinekoak ez dira zahartu, eta hekien oinak ez dira lehertu.

22. Eman daroeztetu erresumak eta populuak, eta zorthean zathitu daroeztetu; Sehonon lurra, Hefebongo erregeren lurra eta Basango errege Ogen lurra gozatu dituzte.

23. Hekien semeak berhatu ditutzu zeruko izarrak bezala, eta erakharri ditutzu lur huntara, zeintaz hekien aitei erran baitzinaroeten sarthuko zirela eta gozatuko zutela.

24. Eta hekien semeak ethorri dira eta gozatu dute lurra eta hekien aitzinean aphaldu ditutzu hemen egoten ziren Kananarrak, eta hekietako erregeak eta lekhuko populuak eskuetara arthiki daroeztetu, hekietaz egin zezaten nahi zutena.

25. Hargatik hartu dituzte hiri hazkarrak eta lur gori bat, eta gozatu dituzte etxe ontasun orotarik betheak; bertzeek eginikako urtegiak, mahastiak, olibadiak eta fruituak zakharzten zuhaitz asko; eta jan dute, ase eta gizendu dira; eta zure onaren handiaz, gozo guzien nasaizia izatu dute.

26. Bainan hasarretzera ekharri zaituzte, zure ganik urrundu dira, eta beren gibelera arthiki dute zure legea; eta zure gana bihurtzeaz jazartzen zioten profetak hil dituzte, eta burho handiak arthiki dituzte.

27. Eta zuk arthiki ditutzu beren etsaien eskuetara, eta hekiek atsekabetan ezarri dituzte. Eta beren hesturako orduan, deihadar zure ganat egin dute, eta zuk zerutik aditu duzu; eta zure urrikalpen handiaren arabera, igorri daroeztetu salbatzaileak, hekien atheratzeko beren etsaien eskuetarik.

28. Eta noiz-etare phausu hartu baitzuten, itzuli dira zure aitzinean gaizkiaren egitera; eta utzi ditutzu beren etsaien eskura, zeinak nausi jarri baitzaizkote. Bihurtu dira zure alderat, deihadar egin darotzute; eta zuk zerutik entzun eta zure urrikaltzapenetan askotan libratu ditutzu.

29. Eta errekeitu ditutzu zure legerat itzul zitezen. Hekiek berriz, burgoiki haritu dira, eta ez dituzte entzun zure manamenduak, eta berhatu egin dute zure erabakien kontra, zeinak bethetzen baditu gizonak, hekien bidez biziko baita; eta gibela itzuli dira, gogortu dituzte beren buruak, eta ez dute entzun.

30. Eta hekien gainean asko urthez luzatu duzu, eta zure izpirituaz zure profeten arartekoz errekeitu ditutzu; eta ez dute entzun, eta lurretako jendaien eskuetara arthiki ditutzu.

31. Bainan zure urrikaltzapen handietan ez ditutzu alde bat xahutu eta utzi; zeren zu baitzare urrikalmenduzko Jainko barkhatiarra.

32. Hargatik orai, oi gure Jainko handi, hazkar eta ikharagarria, hitza eta urrikalmendua idukitzen ditutzuna, gu, gure erregeak, gure buruza-



giak, gure aphezak, gure profetak, gure aitak eta zure populu guzia, Asurgo erregeren egunetarik eta orai arteo atzeman gaituzten zorigaitz guzietarik ez aldera zure begithartea.

33. Eta zuzena zare zu gure gainera jautsi diren zorigaitz guzietan, zeren egiaren arabera egin baituzu; gu aldiz, tzarkerian ibili gare.

34. Gure erregeek, gure buruzagiek, gure aphezak eta gure aitek ez dute bethe zure legea, ez dituzte entzun zure manamenduak ez-eta hekien baithan atheratu dituzun lekhukotasunak.

35. Eta hekiek beren erreinuetan, hekientzat baliarazi duzun zure ontasun handian, eta aitzinera eman daroezun lur zabal eta gorian etzaituzte zerbitzatu eta beren jaidura guziz tzarretarik bihurtu ez dira.

36. Huna non egun geroni gathibu garen; eta gure arbasoei eman zineroeten lurra, jan zetzazten hartako ogia eta hartan diren onak, eta gu gerorri gathibu gare hartan.

37. Eta gure gainean gure bekhatuen gatik ezarri dituzun erregeentzat sortzen dira hartako fruituak; eta erregeak gure gorputzen eta gure abereen gainean beren gogara derabilkate nausitasuna, eta hestura handitan gare.

38. Horien guzien gainean beraz, batasun egiten dugu eta iskribatzen dugu eta sinatzen dute gure buruzagiek, gure lebitarrek eta gure aphezak.

## X. KAP.

1. Bada, sinatzaile izatu ziren Nehemias Athersatha, Hakelairan semea, eta Sedezias,

2. Saraias, Azarias, Jeremias,

3. Pheshur, Amarias, Melkias,

4. Hatus, Sebenia, Meluk,

5. Haren, Merimuth, Obdias,

6. Daniel, Jenthon, Baruk,

7. Mosolam, Abia, Miamin,

8. Maazia, Beggai, Semeia: horiek aphezak.

9. Lebitarrak berriz: Josue Azaniasen semea, Benui Henadaden semeetarik, Zedmihel,

10. Eta hekien anaiak, Sebenia, Odaia, Zelita, Phalaia, Hanan,

11. Mika, Errohob, Hasebia,

12. Zakur, Serebia, Sabania,

13. Odaia, Bani, Baninu.

14. Populuko aitzindariak: Pharos, Phahath Moab, Elam, Zethu, Bani,

15. Boni, Azgad, Bebai,

16. Adonia, Begoai, Adin,

17. Ater, Hezezia, Azur,

18. Odaia, Hasum, Besai,

19. Hareph, Anathoth, Nebai,

20. Mephias, Mosolam, Hazir,

21. Mesizabel, Sadok, Jedua,

22. Pheltia, Hanan, Anaia,

23. Osee, Hanania, Hasub,

24. Alohes, Phalea, Sobek,

25. Errehum, Hasebna, Maasia,

26. Ekaia, Hanan, Anan,

27. Meluk, Haran, Baana;

28. Eta populuko gainerakoek, aphezak, lebitarrek, athalzainek, kantariak, Nathindarrek, eta lurreko jendaietarik Jainkoaren legera aldaratu ziren guziek, hekien emazteek, hekien semeek eta hekien alabek;

29. Eta adimendua zuketen guziek beren anaientzat ihardesten zuten; eta hekietako lehenbizikoak heldu ziren agintzera eta zin egitera ibiliko zirela Jainkoaren legean, Jaunak Moisi Jainkoaren zerbitzariari eman izan zaroenean, begiraturiko eta betheko zituztela gure Jainko Jaunaren manamendu guziak, haren erabakiak eta zeremoniak;

30. Eta gure alabak ez gintuela emanen lurreko jendakiari, eta hekien alabak ez gintuela gure semeentzat hartuko;

31. Halaber lurreko jendakiaren saltzekoak eta zerbitzatzeko gauza guziak, larunbatean saltzera ekhartzen dituztenak, ez gintuela hekien ganik hartuko larunbatean eta egun sainduetsian; jubilau utziko ginduela zazpigarren urthea, eta zorrik nihorri ez ginduela galdatuko;

32. Gure gainean eginbidea ezarriko ginduela urthean siklo baten herenaren emateko gure Jainkoaren etxeko egitekoentzat,

33. Proposizoneko ogientzat, bethiko sakrifizioarentzat, eta larunbatetako, hilabeteen lehen eguneko, besta-buruetako, egun sainduetsietako eta bekhatuarentzateko holokaustentzat; Israelentzat othoitz egina izan dadientzat eta gure Jainkoaren etxeko behar diren guzientzat.

34. Zortheak atheratu ditugu beraz egurren eskaintzaren gainean, aphezen, lebitarren eta popularen artean, gure Jainkoaren etxera ekharriak izan ditezen gure aiten etxeka, mugatik mugara, urthe bateko mugetan bertze urtheraino, erre ditezen gure Jainko Jaunaren aldarearen gainean, Moisen legean iskribatua den bezala.



35. Eta agindu dugu, Jaunaren etxera, urthetik urthera ekharriko ditugula gure lurreko lehen sorthuak eta zuhamu guzietako fruitu guzien pikainak;

36. Gure semeetarikako eta abereetako lehen sorthuak, legean iskribatua den bezala, eta gure idi eta ardietako lehen sorthuak, gure Jainkoaren etxean eskaintzeko, gure Jainkoaren etxean zerbitzatzen diren aphezen eskuetara.

37. Gure jateko eta edatekoetako pikainak, eta zuhamu guzietako, mahasti eta olibadietakoak ere aphezei ekharriko daroeztegu gure Jainkoaren khutxara, eta gure lurreko hamarrenak lebitarrei. Lebitar berek gure lanetako hamarrenak hartuko dituzte hiri guzietarik.

38. Eta aphez Aaronen umea lebitarrekin izanen da hamarrenetan, eta lebitarrek beren hamarrenaren hamargarrena eskainiko dute Jaunaren etxean khutxara, khutxategiko etxean.

39. Ezen Israelgo semeek eta Lebiren umeek khutxara ekharriko dituzte ogiaren, arnoaren eta olioaren pikainak, eta han izanen dira untxi sailduetsiak, aphezak, kantariak, athalzainak eta kargudunak, eta ez dugu bazterrerat utziko gure Jainkoaren etxea.

## XI. KAP.

1. Bada, populuko aitzindariak Jerusalemen egin zuten beren egoitza; gainerako populuak berriz, zortha arthiki zuen, atheratzeko hamargarren bat, Jerusalemen, hiri sainduan egotekoa izanen zena, eta aldiz bederatziaik bertze hirietan.

2. Bada, beren oldetara Jerusalemen egotea eskaini zuten gizon guziak benedikatu zituen populuak.

3. Hargatik beraz Judeako aitzindariak Jerusalemen eta Judako hirietan egotu zirenak, haukiek dira. Bakhotxa, berriz, Israeldar, aphez, lebitar, Nathindar eta Salomonen sehien ume, zein bere gozamen eta hirian egotu zen.

4. Eta Jerusalemen egoitza egin zuten Judako semeetarik eta Benjamingo semeetarik; Judako semeetarik: Athaias Aziamen semeak, Aziam baitzen Zakariasen Seme, Zakarias Amariasena, Amarias Saphatiasena, Saphatias Malaleelena; Pharesen umeetarik,

5. Maasia Baruken semeak, Baruk baitzen Kolhozaren seme, Kolhoza Haziarena, Hazia Adaiarena, Adaia Joaribena, Joarib Zakariasena, Zakarias Silotar batena.

6. Horiek oro ziren Pharesen Seme Jerusalemen egotu zirenak, laur ehun hirur hogoi eta zortzi gizon hazkar.

7. Haukiek dira berriz, Benjamingo umeak: Selum Mosolamen seme, Joeden seme, Phadaiaren seme, Kolaiaren seme, Masiaren seme, Etheelen Seme, Isaiaren semea,

8. Eta haren ondotik Jebai, Selai, bederatzia ehun hogoi eta zortzi gizon,

9. Eta Joel Zekriren semea, hekien buruzagia, eta Judas Senuaren semea, hiriaren gainean bigarrena.

10. Aphezetarik gelditu ziren Idaia Joariben semea, Jakin,

11. Saraia Helziasen seme, Mosolamen seme, Sadoken seme, Meraiiothen seme, Akitoben seme, Jaunaren etxeko aitzindaria,

12. Eta hekien anaiak, tenploko lanak egiten zituztenak; zortzi ehun hogoi eta bia; eta Adaia Jerohamen seme, Pheleliaren seme, Amsiren seme, Zakariasen reine, Pheshurren seme, Melkiasen semea,

13. Eta hekien anaia, zaharretako buruzagiak, berrehun berrogoi eta bia; eta Amasai Azreelen seme, Ahaziren seme, Mosolamothen seme, Emerren semea,

14. Eta hekien anaia indar handitakoak, sei hogoi eta zortzi; eta hekien buruzagia, Zabdiel, handi baten semea.

15. Lebitarretarik gelditu ziren Semeia Hasuben seme, Azarikamen Seme, Hasabiaren seme, Boniren semea;

16. Eta Sabathai eta Jozabed, lebitarren buruzagiez Jainkoaren etxean kanpoan ziren lanen arthaz kargutuak;

17. Eta Mathania Mikaren seme, Zebedeiren seme, Asaphen semea, laudatzeko eta aithor emateko othoitzeko buruzagia, eta Bekhezia, haren anaien arteko buruzagi ondokoa, eta Abda Samuaren seme, Galalen seme, Idithunen semea.

18. Hiri sainduan gelditu lebitar guziak, berrehun laur hogoi eta laur;

19. Eta athalzainak, Akub, Telmon eta hekien anaiak, atheak zaintzen zituztenak, zortzitan hogoi eta hamabi.

20. Eta Israelgo bertze aphezak eta lebitarrek Judako hiri guzietan beren egoitza egin zuten, zeinek bere gozamenean.

21. Eta gelditu ziren Nathindarrak, Ophelen zaudezenak, eta Nathindarren buruzagiak, Siaha eta Gaspha,

22. Eta lebitarren buruzagia Jerusalemen, Azi Boniren seme, Hasabiasen seme, Mathaniasen seme, Mikaren semea; Asaphen semeetarik, Jainkoaren etxeko eginbideetan kantatzen zutenak;

23. Ezen erregeren manamendua zen hekien gainean, eta egun orotako aldiak bereziak ziren kantarien artean.



24. Eta Phathahia Xlesezebelen semea, Judaren seme Zararen umee-tarik, erregeren manupekoa populuarekilako egiteko guzietan.

25. Eta beren etxeetan, aurkhintza guzietan, Judaren umeetarik egotu ziren Kariatharben eta hango herrietan, Dibonen eta hango herrietan, Kabseelen eta hango herrixketan,

26. Jesuen, Moladan, Bethphalethen,

27. Hasersualen, Bersabeen eta hango herrietan,

28. Sizelegen, Mokonan eta hango herrietan,

29. Erremonen, Saraan, Jerimuthen,

30. Zanoan, Odolamen, eta hekitako herrietan, Lakisen eta hango aurkhintzetan, Azekan eta hango herrietan. Eta Bersabeen egotu ziren Enomgo haraneraino.

31. Benjaminen umeak berriz, egotu ziren, Jeban hasirik, Mekmasen, Hain, Bethelen, eta hango herrietan,

32. Anathothen, Noben, Ananian,

33. Asurren, Erraman, Jethaimen,

34. Hadiden, Seboimen, Nebalaten, Loden,

35. Eta Onon, langileen haranean.

36. Eta lebitarrez bezenbatean, beren egon-lekhuak zituzten Judan eta Benjaminen.

## XII. KAP.

1. Haukiek dira aphezak eta lebitarrak Zorobabel Salathielen semea-arkin eta Josuerekin igan zirenak: Saraia, Jeremias, Esdras,

2. Amaria, Meluk, Hatus,

3. Sebenias, Erheum, Mtilerimuth,

4. Ado, Jenthon, Abia,

5. Miamin, Madia, Belga,

6. Semeia, Joarib, Selum, Amok, Helzias,

7. Idaia. Horiek dira aphezen buruzagiak eta hekien anaiak, Josueren egunetan.

8. Aldiz lebitarrak: Jesua, Benui, Zedmihel, Sarebia, Juda, Mathanias, himnoen gaineko zirenak berak eta beren anaiak;

9. Eta Bekhezia, eta Hani, eta hekien anaiak, zein bere karguan.

10. Bada, Josuek izan zuen Joazim, Joazimek Eliasib, Eliasibek Joiada,

11. Joiadak Jonathan, Jonathanek Jedoa.

12. Joazimen egunetan berriz, aphez eta familietako buruzagi ziren: Saraiarenarena, Maraia; Jeremiasenarena, Hananias;

13. Esdrasenarena, Mosolam; Amariarenarena, Johanan;

14. Milikorenarena, Jonathan; Sebeniasenarena, Josep;

15. Haramenarena, Edna; Maraiiothenarena, Helzi;

16. Adaiarenarena, Zakaria; Jenthonenarena, Mosolam;

17. Abiarenarena, Zekri; Miaminenarena, eta Moadiarenarena, Phelti;

18. Belgarenarena, Samua; Semaiarenarena, Jonathan;

19. Joaribenarena, Mathanai; Jodaiarenarena, Azi;

20. Selaiarenarena, Zelai; Amokenarena, Heber;

21. Helziasenarena, Hasebia; Idaiarenarena, Nathanael.

22. Eliasiben, Joiadaren, Johananen eta Jedoaren egunetan, lebitar-familietako buruzagiak eta aphezak iskribuz ezarriak izan dira, Dario Persiako errege zelarik.

23. Lebiren seme, familietako buruzagiak, Egintzetako liburuan iskribatuak dira Jonathan Eliasiben semearen egunetaraino.

24. Lebitarren buruzagiak: Hasebia, Serebia eta Josue Zedmihelen semea, eta hekien anaiak ziren beren aldietan laudorio eta aithor emateko, Dabid Jainkoaren gizonaren manamenduaren arabera, eta begira egoteko bardin beren lerroan.

25. Mathania, Bekhezia, Obedia, Mosolam, Telmon, Akub ziren atheen eta athe aitzinetako lorioen zainak.

26. Horiek ziren Joazimen egunetan, Joazim baitzen Josueren semea eta Josue Josedekena, eta Nehemias buruzagiaren eta Esdras aphez eta iskribauaren egunetan.

27. Bada, Jerusalemeko harrasiaren dedikazionearentzat, beren egon-lekhu guzietarik bilhatu zituzten lebitarrak Jerusalemeko erakartzeko eta dedikazionearen eta bozkalentzia baten egiteko esker onetan kantika zinzin-alekin, maniurrekin eta gitarrekin.

28. Kantarien semeak bildu ziren beraz Jerusalem inguruetakoko bazterretarik eta Nethuphatiko herrietarik,

29. Galgalgo etxetik, Jebako eta Azmabeteiko aurkhintzetarik, ziren kantariak berentzat herriak egin baitzituzten Jerusalemeko inguruetan.

30. Aphezak eta lebitarrak xahu egin ziren eta xahutu zituzten popu-lua, atheak eta harrasia.

31. Judako buruzagiak berriz, harrasiaren gainera iganarazi nituen, eta laudorioen kantatzaileak bi moltzo handitan ezarri nituen. Harrasiaren gainean goan ziren eskuin Gorotzeko atheko alderat.

32. Eta hekien ondotik goan ziren Osaia eta Judako buruzagian erdiak,



33. Eta Azarias, Esdras, Mosolam, Judas, Benjamin, Semeia eta Jeremias;

34. Eta aphezen semeetarik, turutak durrundatuz, Zakarias Jonathanen seme, Semeiaren seme, Mathiasen seme, Mikaiaren seme, Zekurren seme, Asaphen semea;

35. Eta haren anaiak, Semeia, Azareel, Malalai, Galalai, Maai, Nathanael, Judas eta Hanani, Dabidek Jainkoaren gizonak manatu tresnak joz; eta Esdras iskribaua hekien aitzinean zen Ithurriko athean.

36. Hekien parrean igan ziren bertzeak Dabiden hiriko mailak gora, Dabiden etxe gaineko harrasia gaindi; Uretako atheraino, iguzki-haizerat.

37. Eta eskerrak bihurtzen zituztenen bigarren andana parretik zihotan, eta ni hekien ondotik, eta populuaren erdia harrasiaren eta Labeetako dorrearen gainean, harrasi zabaleneraino,

38. Eta Efraimgo athearen, athe Zaharraren, Arrainen athearen, Hananeelgo dorrearen eta Ematheko dorrearen gainean, Arthaldearen atheraino, eta baratu ziren Presondegiko athean;

39. Eta laudorioak kantatzen zituztenen bi andanak gelditu ziren Jainkoaren etxean, eta ni ere bai, eta enekin kargudunen erdiak;

40. Eta aphezak ere, Eliakim, Maasia, Miamin, Mikea, Elioenai, Zakaria, Hanania turutekin,

41. Eta Maasia, Semeia, Eleazar, Azi, Johanan, Melkia, Elam, eta Ezer. Eta kantariak eta Jezraia hekien buruzagiak ozenki kantatu zuten.

42. Egun hartan bitima handiak imolatu zituzten, eta boztu ziren, ezik bozkario handia eman zaroeten Jainkoak; hekien emazteak eta haurrak ere boztu ziren, eta Jerusalemetik urrunera entzun ziren hekien bozkarioaren otsak.

43. Halaber egun hartan berezi zituzten gizonak khutxako salhen zaintzat, libazioneen, pikainen eta hamarrenen karguarekin, hekien bidez hiriko buruzagiek esker onezko bestan sarraraz zetzazten aphezak eta lebitarrak, zeren Juda bozkariotan baitzen aphezak eta lebitarrak bilduak ikhustez.

44. Eta begiratu zituzten beren Jainkoaren manamendua eta xahupeneko manamendua; eta kantariak eta athalzainek egin zuten Dabiden eta Salomon haren semearen manamenduaren arabera.

45. Ezen hastetik, Dabiden eta Asaphen egunetan, Jainkoari laudorio eta aithor ematen zaroeten kantarien aitzindariak ezarriak ziren.

46. Eta Israel guziak, Zorobabelen egunetan eta Nehemiasen egunetan kantariak eta athalzainek egun oroz ematen zaroetzen beren zathiak,

eta sailduen zituzten lebitarrak, eta lebitarrek sailduen zituzten Aaronen semeak.

### XIII. KAP.

1. Bada, egun hartan populuaren aitzinean irakurtu zen Moisen liburuan, eta hartan iskribatua aurkhitu zen, Amontarrak eta Moabitarrak etzirela Jainkoaren baldarnan sarthu behar menderen mendetan;

2. Zeren etziren Israelgo umeei biderat atheratu ogiarekin eta urarekin, eta zeren hekien kontra erakharri zuten Balaam hekien madarikatze-ra; eta gure Jainkoak benedizionetara bihurtu zuen madariziona.

3. Bada, egin zen, legea aditu zutenean, Israeldik berezi zituztela arrotz guziak.

4. Eta horren gainean ikhusteko zuen Eliasib aphezak, zeinari gure Jainkoaren etxeko khutxaren gaineko kargua eman baitzioten, eta Tobiasen ahaide hurbila zen.

5. Eginarazi zuen beraz khutxategi handi bat beretzat, eta haren aitzinean han zauden emaitzak, isentsua, untzia; ogiaren, arnoaren eta olioaren hamarrenak; lebitarren, kantarien, eta athalzainen zuzenak, eta aphezen pikainak.

6. Bada, horietan orotan ez nintzen Jerusalemen, zeren Artakserkses Babilonako erregeren hogoi eta hamabigarren urthean, erregeren gana goan bainintzen, eta ene egun azkenetan errege othoiztu nuen utz nintzan.

7. Eta Jerusalemera ethorri nintzen eta ezagutu nuen Eliasibek Tobiasen gatik egin zuen gaizkia, hari Jainkoaren etxeko atherbeetan egon-lekhu bat eginez.

8. Eta gaizkia handia iduritu zitzaidan. Eta Tobiasen egoitzako tresnak arthiki nituen khutxategitik kanporat;

9. Eta nik manaturik, xahutu zuten khutxategia, eta harat bihurtu nituen Jaunaren etxeko untzia, sakrifizioa eta isentsua.

10. Eta jakin nuen lebitarren zuzenak etzirela emanak izan; eta lebitarretarik, kantarietarik eta tenploko zerbitzarietarik bakhotzak bere herrira ihes egin zuela.

11. Eta kargudunen kontra eraiki nuen egitekoa eta erran nuen: Zertako uzten dugu Jainkoaren etxea? Eta bilarazi nituen ihes egin zutenak, eta beren lekhetan egonarazi nituen.

12. Eta Juda guziak selharura ekhartzen zituen ogiaren, arnoaren eta olioaren hamarrena.

13. Eta selharuez kargutu gintuen Selemias apheza, Sadok iskribaua, eta lebitarretarik Phadaias; eta hekien aldean, Hanan Zakhurren semea,





Mathaniasen ilobasoa, zuzenak izan zirelaketz ezagutuak, eta eskuetan utziak izan zaroezten beren anaien zathiak.

14. Nitaz orhoit zaitte, ene Jainkoa, horren gatik, eta nik ene Jainkoaren etxean eta haren zeremonietan egin ditudan ongiak ez betzazu ezeztatu.

15. Orduko egunetan, Judan ikhusi nituen larunbatez lakotan mahats lehertzen hari zirenak, ogi-zama ekharleak; arno, mahats, piko eta edozein haxe asto gaintan ezartzen eta Jerusalemeko ekhartzen zituztenak larunbatean. Eta jazarri nuen saltzeak egin zetzazten salpenak zilhegi ziren egunetan.

16. Eta hirian bazauden Tiriarrak arrainak eta saltzeko guzietarik ekhartzen zituztenak; eta Jerusalemen larunbatetan saltzen zituzten Judako umeei.

17. Eta larderiatu nituen Judako buruzagiak eta erran naroten: Zer da egiten duzuen gaizki hori, eta zertako profanatzen duzue larunbata?

18. Ez othe dute hori egin gure arbasoek, eta gero gure Jainkoak gure gainera eta hiri hunen gainera erakharri baitu zorigaitz hau guzia? Eta zuek, larunbata hautsiz, berhatzen duzue Israelen gainera Jaunaren hasarrea.

19. Bada, Jerusalemeko atheak phausuan sarthu zirenean larunbatez, nik erran eta hertsitu zituzten atheak, eta manatu nuen etzetzaten idek larunbat biharamuneraino; eta ene zerbitzarietarik ezarri nituen atheetan begia idukitzeko nihork etzezan haxerik sar larunbatean.

20. Eta tratulariak eta saltzeko gauzak ekhartzen zituztenak, behin edo bietan gelditu ziren Jerusalemetik kanpoan.

21. Eta larderiatu nituen eta erran naroten: Zertan zaudezte harra-siaren parrean? berriz egiten baduzue hori, eskua ezarriko dut zuen gainean. Hargatik etziren geroztik larunbatetan ethorri.

22. Lebitarrei ere erran naroten, xahu zitezen, eta atheen zaintzera eta larunbataren sailduesterara ethor zitezen. Horren gatik beraz, ene Jainkoa, orhoit zaitte nitaz, eta barkha dizadazu zure nihonereko urrikalpenen arabera.

23. Orduko egunetan halaber ikhusi nituen Juduak Azotar, Amontar eta Moabitar emazteak hartzen zituztenak.

24. Eta hekien haurrak erdi azotaraz mintzo ziren; etzakiten juduaraz mintzatzen, eta populu baten eta bertzearen hizkuntzetan nahasteka mintzo ziren.

25. Eta larderiatu nituen eta madarikatu. Hekietarik gizonak jo nituen, buruak murriztu narozten eta Jainkoaz zin-eragin naroten, beren

alabak etzituztela arrotzen semei emanen, eta beren semeentzat eta beren buruentzat etzutela hekien alabarik hartuko, niolarik:

26. Salomon Israelgo erregek ez othe zuen horrelako gauzan bekhatu egin? eta segurki asko eta asko jendaietan etzen haren iduriko erregerik, eta maithatua zen bere Jainkoaz, eta Jainkoak Israel guziaren gainean errege ezarri zuen, eta halere emazte arrotzek bekhatura erorrazazi zuten hura.

27. Eta guk ere, bihurriarena eginez, eginen othe dugu gaizki handi hau guzia, non gure Jainkoaren legea hautsiko eta emazte arrotzak hartuko baititugu?

28. Bada, Joiada, Eliasib aphez-handiaren semearen umeetarik bat, Sanabalat Horonitarraren suhi zen, eta ene ganik urrun khendu nuen.

29. Ene Jainko Jauna, bizi bedi zure orhoitzapena, aphezetasuna eta aphez eta lebitar legea lohitzten dutenen kontra.

30. Xahutu nituen beraz emazte arrotz guzietarik, eta ezarri nituen aphezak eta lebitarrak beren lerroetan, zein beren eginbideetan,

31. Eta egurren eskaintzaren gainean, ephe berezietan, eta pikainen gainean. Ene Jainkoa, nitaz orhoit zaitenzi ene onetan. Halabiz.



## TOBIAS

### I. KAP.

1. Tobias Nefthaliko leinukoa eta hirikoa, (hiri hura baita Galileako gainetan, Naasongo azpian, mendebalerat daraman bidez haindian, ezkerretarik duelarik Sephetgo hiria),

2. Hartua izan zenean, Salmanasar Asiriarren erregeren egunetan, gathibutasunean gerthatzen zen arren, etzen egiaren bidetik ilkhi,

3. Haletan non izaten ahal zituen guziak bere odoleko anaia gathibu lagunei egun oroz ematen baitziotzaten.

4. Eta nahiz izan zadien Nefthaliko leinuan orotarik gazteena, etzuen halere haurkeriarik batere erabili bere egintzetan.

5. Eta azken buru, guziak zihoazenean Jeroboam Israelgo erregek eginikako aratxe urhezkoetara, harek bakharrik ihes egiten zuen orenen lagunkhidetasunari.

6. Bainan Jerusalemera goaten zen Jaunaren tenplora, eta han adora-tzen zuen Israelgo Jainko Jauna, bere pikain guziak eta bere hamarrenak zuzenki eskainiz;

7. Halaz non hirugarren urthean, hamarrenak oro proselitei eta arro-tzei ematen baitzarozten.

8. Horiek eta horiek bezalakoak, Jainko legearen arabera haurttoa zelarik begiratzen zituen.

9. Gizondu zenean, berriz, emaztetzat hartu zuen Ana bere leinukoa, seme bat izan zuen haren ganik, eta bere izena eman zaroen;

10. Eta ttipitik Jainkoaren beldur izaten eta bekhatutik bere buruaren begiratzen irakhatsi zaroen.

11. Beraz Ninibeko hirira bere emaztearekin eta semearekin gathibu eramana izan zenean bere leinu guziarekin,

12. Noiz-etare guziek jaten baitzuten jendaien jakietarik, harek begi-ratu zuen bere arima, eta etzen behinere khutsatu hekien jakietan.

13. Eta nola bere bihotz oroz orhoitu baitzen Jaunaz, Jainkoak gra-zia eman zaroen Salmanasar erregearen aitzinean.

14. Eta nahi zuen toki guzietara goateko ahala, lehiatzen zen guzien egiteko eskukotasunarekin, eman zaroen erregek.

15. Goaten zen beraz gathibutasunean ziren guzien gana, eta salba-menduzko oharrenak ematen zaroetzten.

16. Bada, Erraies Mediarren hirira goan zen batez, berekin zituelarik hamar talendu zilharrezko, zeinetaz ohoratu baitzuen erregek,

17. Nola bere odoleko oste handian ikhusi baitzuen Gabelo, bere lei-nutarra, behar handitan, ageri baten azpian eman zaroen aiphatu den dirua.

18. Bainan asko denboren buruan, Salmanasar hil ondoan, Senakerib haren semea haren orde erreginatzen zelarik, eta nola hunek Israelgo semeak gaitzez baitzituen begietan;

19. Tobias egun oroz goaten zen bere ahaide guzietara; gozakarizko solasak ematen zaroetzten; eta bakhotxari, bere ahalaeren arabera, zuenetik zathitzen zaroen.

20. Gosez zaudenak hazten, buluzei soinekoak ematen, beren bait-harik hilak eta bertzeek hilak artha handirekin ehorzten zituen.

21. Azkenekoz, errege Senakerib, Judeatik itzuli zenean, Jaunak haren inguruan haren burhoen gatik egin zuen sarraskiaren ihes, bere sephan Israelgo umeetarik hil zituen asko, eta Tobiasek ehorzten zituen hekien gorphutzak.

22. Bainan erregek jakin zueneko, manatu zuen hil zezaten, eta hartu zituen haren izateak oro.

23. Tobias ordean bere semearekin eta emaztearekin, orotarik bulu-sia gorde zen, alabainan askok maite zuten.

24. Berriz, handik berrogoi eta bortz egunen buruan, errege hil zuten bere semeek;

25. Eta Tobias itzuli zen bere etxera, eta bihurtua izan zaroen bere izate guzia.

### II. KAP.

1. Bada, horiez geroztik, Jaunaren besta egun bat zelarik, eta nola barazkari on bat aphaindua baitzen Tobiasen etxean,

2. Tobiasek bere semeari erran zaroen: Zoaz, eta gure leinukoetarik zenbait Jainkoaren beldur direnak erakhar zatzu gurekin barazkaltzera.

3. Eta goanik bihurtu zenean, berria ekharri zaroen Israelgo umeetarik bat zintzurra egin zagoela karrikaren gainean hedatua. Eta berehala mahainetik jaikirik, barazkaria utziz jan gabe goan zen gorphutzera;

4. Eta hura harturik, ixilik ekharri zuen bere etxerat, iguzkia etzan ondoan, segurki ehorztekotzat.

5. Eta gorphutza gorde ondoan, ogia jan zuen nigar eta ikhararekin,



6. Jaunak Amos profetaren ahoz erran zuen hitz huntaz orhoituz: Nigar eta deithoretara bihurturen dira zuen besta-egunak.
7. Eta iguzkia etzan zenean, goan eta ehortzi zuen gorphutza.
8. Bada bere hurbileko guziak gaizkika hari zitzaizkon, ziotelarik: Oraikoz gauza horren gatik manatua izan da hil zaitzaten, eta doidoia itzuria hiltzeko manuari, berritan hari zare hil ehorzten?
9. Bainan Tobias, erregeren baino Jainkoaren beldurrago, ebasten zituen hilen gorphutzak, bere etxean gordetzen zituen eta gau minean ehorzten.
10. Bada egun batez gerthatu zen, hil ehorzten nekhatua, bere etxerat heldu zelarik, etzan eta lokhartu zela harrasi baten ondoan.
11. Eta ainhara-ohantze batetik gorotz beroak begietara erori zitzaizkon lo zagoelarik, eta itsutu zen.
12. Jaunak berriz, frogapen hori gertha zakioen onhetsi zuen, haren jasan kortasuna, Job sainduarena bezala, ondokoei ikhuskaritan emana izan zakioten;
13. Ezen nola ttipitik Jainkoaren beldur izan baitzen bethi, eta haren manamenduak begiratu baitzituen, etzuen Jainkoaren kontra uherdurarik hartu, gerthatu zitzaioelakoan itsutasuneko gaitza;
14. Bainan khordokatu gabe, Jainkoaren beldurrean gelditu zen, bere biziko egun oroz Jainkoari eskerrak bihurtuz.
15. Eta nola erregeek Job dohatsuari eskarnio egiten baitzaroten, hala Tobiasen ahaide eta hurbilek trufatzen zuten haren bizitzea, erranez:
16. Non da zure igurikitza, zeina gatik karitate egiten eta hil ehorzten hari baitzinen?
17. Bainan Tobiasek jazartzen zaroeten, erranez: Berautzue hola mintzatzetik;
18. Ezen sainduen haurrak gare, eta bizitze bat igurikitzen dugu, gure Jainkoak emanen darotena hartarik beren sinhestea behinere aldaratzen ez dutenei.
19. Aldiz, Ana haren emaztea ehaitera egun oroz goaten zen, eta bere eskuetako lanetik atheratzen ahal zuen bizitzekoa ekhartzen zuen.
20. Handik egin zen, pittika bat izanik, ekharri zuela etxerat.
21. Haren senharrak pittika marraskaz aditurik, erran zuen: Ikhusazue ez othe den bederen ebatsia; bihur zazue bere jabeei, ez baitzaiku zilhegi ebatsia den zerbaite jatea edo ukitzea.
22. Haren emazteak, samurturik hitz horiei ihardetsi zuen: Zure igurikitza alferretara garbiki bihurtu da, eta orai dira ageri zure karitateak.
23. Hitz horietaz eta holako bertze askoz iroika haritzen zitzaioen.

### III. KAP.

1. Orduan auhen bat arthiki zuen Tobiasek, eta nigarrekin abiatu zen othoitzean,
2. Zioelarik: Zuzena zare, Jauna, eta zure erabakiak zuzenak dira oro, eta zure bide guziak dira urrikalpeneko, egiako eta zuzentasuneko bideak.
3. Eta orai, Jauna, nitaz orhoit izan zaite; ez bezazu asperkunde har ene bekhatuez eta ez bekizkitzu gogora ene hobenak edo ene ahaideenak.
4. Zeren ez garen zure manamenduei ethordun izatu, hargatik arthiki gaituzu larrutzetara, gathibusunera, heriotzera, errankizunetan eta irrigarritan izatera jendaki guziei, zeinen artean barriatu baikaituzu.
5. Eta orai, Jauna, handiak dira zure juiamenduak, zeren ez baitugu egin zure manamenduen arabera eta ez baikare zintasunean ibili zure aitzinean.
6. Eta orai, Jauna, nitaz egizu zure nahiaren arabera, eta mana zazu ene arima bakean izan dadien hartua; ezik enetzat hiltzea bizitzea baino hobe da.
7. Bada, egun hartan berean gerthatu zen, Sarak, Erraguelen alabak, Erraies Mediarren hirian, iroi bat entzun zuela bere aitaren neskatotearik baten ganik;
8. Ezkontzaz zazpi gizoni emana izan zelakoz; eta Asmodeo deithurikako debru batek hil zituen hekiek, haren baithara sarthu ziren bezain laster.
9. Beraz, nola huts batentzat gaizkiak erraten baitzizkan neskatxari, hunek ihardetsi zaroen, zioelarik: Senhar hiltzailea, ez biazagu zure ganik lurraren gainean behinere ikhus semerik edo alabarik.
10. Ez othe nauzu ni ere hil nahi, zazpi gizon oraikoz hil ditutzun bezala? Hitz horren gainera, Sara goan zen ber: etxeko gela gorenera, eta hirur gau-egunez etzuen ez jan, ez edan;
11. Bainan othoitzean bethi egonez, Jainkoa nigarrez errekeitzen zuen, athera zezan othoi laido hartarik.
12. Gerthatu zen berriz, hirugarren egunean, othoitza akhabatzean Jauna benedikatzun zuelarik,
13. Erran zuela: Benedikatua da zure izena, oi gure arbasoen Jainko Jauna, samurtu ondoan urrikalpen ematen duzuna, eta hesturako orduan bekhatuak zure gana dei egiten dutenei barkhatzen ditutzuna.
14. Zure gana, Jauna, itzultzen dut begithartea; zure gana bihurtzen ditut begiak.



15. Galdatzen dut, Jauna, laidu hunen lokharrietarik athera nezazun, edo bederen har nezazun lurraren gainetik.

16. Badakizu, Jauna, egundaino ez dudala gizon minik izatu, eta ene arima lehia tzar orotarik xahu iduki dudala.

17. Egundaino ez naiz dostatzen zirenekin nahasi, eta arinkerietan dabiltzan baltsako ez dut ene burua erakhutsi.

18. Bainan gizon baten hartzea zure beldurrarekin onhetsi dut, eta ez ene lehia tzarrarekin.

19. Eta, ez nintzen hekien doi, edo beharbada hekiek ene doi etziren; zeren beharbada bertze gizon batentzat bainauzu begiratu.

20. Ezik zure gogoaz ez da gizonaren meneko.

21. Ordean ohoratzen zaituenak gerthutzat daduka, baldin haren bizia frogapenetan izatu bada, ohoratua izanen dela; atsekabeen izatu bada, atheratua izanen dela; gartziguan izatu bada, zure urrikalpenerako bidean izanen dela onhetsia.

22. Ezen etzare gure zorigaitzetan lakhet, alabainan phesiaren ondolik, dakhartzu jabala; eta nigar eta auhenen ondolik, ixurtzen duzu bozkarioa.

23. Zure izena, oi Israelgo Jainkoa, mendeetan izan bedi benedikatua.

24. Ordu hartan izan ziren entzunak Tobiasen eta Sararen othoitzak guzizko Jainkoaren ospearen aitzinean.

25. Eta Errafael Jaunaren aingeru saindua igorria izan zen hainen sendatzera, zeinen bien othoitzak ordu berean Jaunaren aitzinera izan biltziren ekharriak.

#### IV. KAP.

1. Beraz nola Tobiassek uste izan baitzuen haren othoitza entzuna zela hil ahal zedintzat, bere gana deithu zuen bere seme Tobias,

2. Eta erran zaroen: Ene semea, entzun zatzu ene ahoko hitzak, eta haukiek zure bihotzean jar zatzu asentu bat bezala.

3. Noiz-ere Jainkoak bere ganat hartuko baitu ene arima, ehortzazu ene gorputza, eta zure biziko egun guzietan ohoretan idukazu zure ama.

4. Ezik gogoan iduki behar duzu zer eta zenbateko galtzeko zoriak zure gatik jasan dituen sabelean zintuenean.

5. Aldiz, harek ere bethe dukeenean bere bizitzeko ephea, ene aldean ehortziko duzu.

6. Berriz, zure biziko egun oroz gogoan izan zazu Jainkoa; berautzu noizbait bekhatua onhets, eta hauts gure Jainko Jaunaren manamenduak.

7. Duzunetik egizu karitate, eta nihoiz beharrari ez biozozu aldara zure begithartea; ezen hola eginen da zure ganik ez dela itzuliko Jaunaren begithartea.

8. Nola izanen baituzu ahala, urrikalmendutsu hala izan zaitezi.

9. Hainitz balin baduzu, nasaiki emazu; guti balin baduzu, gutitik ere gogo onez emateaz artha har zazu.

10. Ezen sari eder bat biltzen duzu behar-orduko.

11. Zeren karitateak edozein bekhatutarik eta heriotzetik atheratzen baitu, eta arima ez baitu ilhunpeetara uzten goatera.

12. Karitatea izanen da, egiten dutenentzat, gogo-ontgarri handi bat Jainko guzizkoaren aitzinean.

13. Zaude erne, ene semea, zure burua lohikeriatik begiratzeko, eta zure emazteaz landan berautzu nihoiz ezagutzetik tzarkeria.

14. Etzazula behinere utz hanpuruskeria nausitzera zure gogoan eta zure solasetan; ezik galpen orok hartan hartu dute hastea.

15. Nihor zuretzat haritu bada lanean, saria bihur zozu berehala, eta zuretzateko sarizalearen saria ez bedi aphur bat ere zutan geldi.

16. Norbaitek zuri egitea gaitzets zindukeena, ikhusazu zerorrek noizbait bertzeei ez egitea.

17. Zure ogia gose eta behar direnekin jan zazu, eta zure soinekoetarik estal zatzu buluz direnak.

18. Zure ogia eta zure arnoa gizon zuzenaren hobiaren gainean ezar zatzu, eta begira zaite hekietarik bekhatoreekin jatetik eta edatetik.

19. Zuhurraren baithan bilha zazu bethi zure argia.

20. Noiznahiden benedika zazu Jainkoa; galda zozu bida detzan zure urhatsak, eta zure asmu guziak haren baithan geldi ditezen.

21. Halaber jakintsun egiten zaitut, ene semea, nola haurttoa zinelarik oraino, hamar zilharrezko talendu eman izan ditudan Gabelori Erraiesen Mediarren hirian, eta etxean dut haren ageria.

22. Hargatik bilha zaite nola helduko zaren haren ganat, nola aiphatu diru hori haren ganik eskuratuko, eta hari bere ageria bihurtuko duzun.

23. Ez lotsa, ene semea. Egia da bizitze behar bat daramagula, bainan ontasun handiak izanen ditugu, baldin Jainkoaren beldur izaten bagare, bekhatutik gibelatzen bagare, eta ongia egiten badugu.

#### V. KAP.

1. Orduan Tobiassek ihardetsi zaroen bere aitari eta erran zaroen: Aita, zuk manatu guziak eginen ditut.



2. Bainan ez dakit nola eskura diru hura; Gabelok ez nau ezagutzen, eta nik hura nor den ez dakit. Zer ezagutkari emanen darot hari? Bertzalde egundaino ez dut ezagutu harat goateko bidea.

3. Orduan aitak ihardetsi zaroen eta erran: Eskutan dut Gabeloren ageria hau hari erakhutsi orduko, berehala bihurtuko du dirua.

4. Bainan orai zoaz, eta bilha zazu gizon fidel bat bere saritan zurekin goanen dena, diru hori eskura dezazun ni bizi naizelarik oraino.

5. Orduan ilkhirik, Tobiasek atzeman zuen gizon-gazte eder bat, gerria tinkatua ehutik, bideari lotzeko abian iduri.

6. Eta jakin gabe Jainkoaren aingeru bat zela, agur egin eta erran zaroen: Nongoa zaitugu, gizon maitea?

7. Eta hunek ihardetsi zuen: Israelgo umeetarik naiz. Eta Tobiasek erran zaroen: Badakizu Mediarren lurrera daraman bidea?

8. Ihardetsi zaroen: Bai, badakit; askotan egin ditut hango bide guziak, eta egotu naiz gure anaia Gabeloren baithan, zeina baitago Erraiesen, Mediarren hiri Ekhatanako mendian denean.

9. Tobiasek erran zaroen: Igurik nezazu, othoi, berri hori ene aitari eman diozodan arteo.

10. Orduan Tobias sarthu zen, eta horietaz orotaz jakintsun egin zuen bere aita. Aita miretsi zen horren gainean, eta galdatu zuen arrotza bere gana.

11. Hargatik sarthu zen, Tobiasi agur egin eta erran zaroen: Bozkarioa izan dezazula bethi.

12. Eta Tobiasek erran zuen: Zer bozkario izan dezaket nik, ilhunpeetan jarria, zeruko argia ikhusten ez dudanak?

13. Gizon-gazteak ihardetsi zaroen: Emazu bihotzez, hurbil da orena non Jainkoak sendaturen baitzaitu.

14. Eta Tobiasek erran zaroen: Eraman ahal othe dezazuke ene semea Gabeloren gana, Erraies Mediarren hirira? eta itzuliko zarenean emanen darotzut zure saria.

15. Aingeruak erran zaroen: Nik eramanen dut harat eta erakharriko zure gana.

16. Tobiasek erran zaroen berriz: Erradazu, othoi, zein etxetakoa, edo zein leinutakoa zaren zu?

17. Errafael aingeruak ihardetsi zaroen: Sarizalearen ethorkia, ata sarizale bat bilhatzen duzu zure semearekin goanen dena?

18. Bainan zuri grinarik ez emateko, Azarias naiz, Ananias handiaren semea.

19. Tobiasek erran zaroen: Ethorki handitik zare. Bainan othoizten zaitut etzaitezen samur zeren nahi izan dudan zure ethorkia ezagutu.

20. Aingeruak erran zaroen berriz: Oso eramanen dut zure semea, eta oso erakharriren darotzut.

21. Tobiasek aldiz ihardetsi zaroen: Bidaia on egizue, Jainkoa zuekin izan bedi bidean, eta haren aingerua zuen lagun izan bedi.

22. Orduan, bidean eramateko guziak xuxendurik, Tobiasek agur egin zaroeten bere ait-amei, eta bideari lothu ziren biak elkharrekin.

23. Eta ilkhi zirenean, ama nigarrez eta erraten abiatu zen: Gure zahartzeko makila khendu eta gure ganik urrundu duzu.

24. Egundaino izatu ez balitz diru hura, zeinaren ondoan igorri baituzut!

25. Dugun gutia aski ginduen, uste izateko aberastasun bat zela gure semea begien aitzinean izatea.

26. Tobiasek erran zaroen: Ez, nigarrrik egin; ongi helduko da gure semea, eta ongi bihurtuko da gure gana, eta zure begiek berriz ikhusingo dute.

27. Ezen sinhestea dut Jainkoaren aingeru onak lagunduko duela, eta ongi antolatuko dituela haren inguruan gerthatzen diren guziak, hanbatean non bozkariotan itzuliko baitzaroku gure haurra.

28. Hitz horren gainean, ama nigarretik baratu eta ixildu zen.

## VI. KAP.

1. Tobias abiatu zen beraz; xakhurra jarraiki zitzaioen, eta lehenbiziko trikaldia egin zuen Tigrisko hibaiaren aldean.

2. Eta oinen garbitzera goan zen, eta hara non arrain ikharagarri bat irestera atheratu zitzaioen.

3. Haren beldurrez Tobiasek marraska bat egin zuen, zioelarik: Jauna, atzematen nau!

4. Eta aingeruak erran zaroen: Loth zakizkio beharri-zokhotik, eta herrestazazu zure gana. Tobiasek hala eginik, herrestatu zuen leihorrera, eta zalapartaka hasi zen haren oinetan.

5. Orduan aingeruak erran zaroen Tobiasi: Hertzeak egiozkitzu arrain horri; har zatzu horren bihotza, mina eta gibela, ezen hainitz onak dira sendakaritako.

6. Hori egin zuenean, erre zuen haren haragietarik, eta berekin bideko eraman zuten; gazitu zuten gainerakoa, zeina aski baitzuten Erraies Mediarren hiriraino heltzeko.



7. Orduan Tobias galdeka hasi zitzaioen aingeruari eta erran zaroen: Erradazu, othoi, anaia Azarias, zer sendakari atherako da arrainetik begiratzeko manatu ditutuz puska horietarik?

8. Eta aingeruak hunela ihardetsi zaroen: Horren bihotzetik izpi bat ikhatzen gainean ematen baduzu, hartako kheak debru-mota guziak atzerarazten ditu nahiz gizona ganik, nahiz emaztekoa ganik, hanbatean non ez baitira gehiago hekiei hurbilduko.

9. Eta mina on da zamarra duten hekien ferekatzeko, eta sendatuko dira.

10. Eta Tobiasek erran zaroen: Non nahi duzu egon gaitezen?

11. Aingeruak ihardetsi zaroen, zioelarik: Bada hemen Erraguel deitzen den gizon bat zure ahaide hurbila eta zure leinukoa, eta harek badu alaba bat Sara deitzen dena; ez du ere ez muthil, ez neskatxa, hartaz berme haurrik.

12. Haren ontasan guzia zuri zor zaitzu, eta haren alaba emaztetzat hartu behar duzu.

13. Galda zozu beraz bere aitari, eta emanen darotzu.

14. Orduan Tobiasek ihardetsi eta erran zaroen: Aditzea dut zazpi senharri emana izan dela, eta zazpiak hil direla; eta aditzea dut oraino debru batek hil dituela.

15. Beldur naiz beraz niri ere hala gertha dakidan; eta nola bainaiz ene burhasoen haur bakharra, hekien zahartzea atsekabetan jautsaraz nezake hobira.

16. Orduan Errafael aingeruak erran zaroen: Adi nezazu, eta irakha-tsiko darotzut nor diren hainak zeinen gainean debruak esku baituke.

17. Zeinak-ere ezkontzan sartzen baitira haletan non Jainkoa beren ganik eta beren gogotik kanpo ezartzen baitute, eta beren haragikoikeriari, adimendurik ez duten zaldi eta mando batek bezala, bide ematen baitiote, hainen gainean debruak esku badu.

18. Baina zu harekin ezkonduko zarenean, gelan sarthu-eta, hirur egunez begira zaite haren ganik, eta othoitzik baizen deusere bertzerik ez egin harekin.

19. Aldiz, gau hartan berean, arrainaren gibela erre ondoan, ihes igorria izanen da debrua.

20. Berriz, bigarren gauean patriarka sainduen batasunera onhetsia izanen zare.

21. Eta hirugarren gauean, Jainkoaren benedizioea ardietsiren duzu, zuen ganik sort ditezen osagarritako umeak.

22. Bada, hirugarren gau hura iragan ondoan, neskatxa hartuko duzu Jaunaren beldurrearekin, lehenago haur izateko irrisak, ezenez-eta lehia tzar batek hartaturik, Abrahamen odoleko haurretan ardiets dezazun benedizioea.

## VII. KAP.

1. Bada, Erraguelen baithan sartu ziren, eta Erraguelek bozkarioekin hartu zituen.

2. Eta Erraguelek Tobiasi begiratzean, Ana bere emazteari erran zaroen: Nolako eitea duen gizon-gazte hunek ene kusiarekin!

3. Horren ondotik erran zuen: Nongoak zarete, anaia gazteak? Eta hekiek ihardetsi zuten: Nefthaliren leinukoak gare, Ninibeko gathibutasunekoak.

4. Eta Erraguelek erran zaroeten: Ezagutzen duzue ene anaia Tobias? Ihardetsi zuten: Ezagutzen dugu.

5. Eta nola hainitz ongi erraten baitzuen hartaz, aingeruak Erragueli erran zaroen: Tobias zeinaren berriak galdegiten baitituztu, gizon-gazte hunen aita da.

6. Erraguel goan zitzaioen eta nigarrez besarkatu zuen; eta lephotik lothua nigar egiten zuelarik,

7. Erran zuen: Benedizioe zuri, ene haurra, ezik gizon on eta pres-tuaren seme baitzare.

8. Eta Ana haren emaztea eta Sara hekien alaba nigarrez zauden.

9. Bada, mintzatu ziren ondoan, Erraguelek manatu zuen ahari bat hil eta barazkari bat aphain zezaten. Eta nola othoizten baitzituen mahai-nean jartzera,

10. Tobiasek erran zuen: Egun ez dut nik hemen ez janen ez edanen, non ez darotazun lehenik ene galdea onhesten eta Sara zure alaba niri emateaz agintzen.

11. Hitz hori aditzearekin, Erraguel ikharatu zen, zakielakotz Sararen gana sarthu ziren zazpi senhar hekiei zer zitzaioten gerthatu, eta beldur-tzen hasi zen Tobiasi ere orobat gertha zakion; eta nola khordokan baitzagoen, eta galdeari ez baitzuen deusere ihardesten,

12. Aingeruak erran zaroen: Ez izan lotsa zure alabaren huni ematera, zeren emaztetzat zor baitzaio Jainkoaren beldur den gizon-gazte huni; hargatik ez dezake bertze batek izan zure alaba.

13. Orduan Erraguelek erran zuen: Ez dut dudarik Jainkoak bere aitzinera onhetsi dituela ene othoitz eta nigarrak;



14. Eta uste dut ene ganat ethorrazazi zaituztetela ene alaba bere ahaidegoari iritxik dadintzat, Moisen legearen arabera; eta orai ez dudarik egin emanen darotzudala.

15. Eta harturik bere alabaren esku eskuina, ezarri zuen Tobiasen esku eskuinean, zioelarik: Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoben Jainkoa izan bedi zuekin, eta berak iritxik betzaitzazte, eta bere benedizonea bethe beza zuen baithan.

16. Eta paper bat harturik egin zuten ezkontzako ageria.

17. Eta gero barazkaldu ziren, Jainkoa benedikatu.

18. Eta Erraguelek deithu zuen Ana bere emaztea, eta manatu zaroen aphaïn zezan bertze gela bat.

19. Anak harat sarrarazi zuen Sara bere alaba eta nigar egin zuen.

20. Eta erran zaroen: Egizu bihotzetik, ene alaba; zeruko Jaunak bozkarioa emanen darotzu, jasan duzun nahigabearen ordain.

### VIII. KAP.

1. Bada afal ondoan, haren gana sarrarazi zuten gizon-gaztea.

2. Eta Tobias orhoiturik aingeruaren solasaz, bere murtxilatik atzeratu zuen arrainaren gibel-pozi bat eta ikhatz bizien gainean ezarri zuen.

3. Orduan Errafael aingeruak hartu zuen debrua eta estekatu zuen Egipto gaineko mortuan.

4. Orduan Tobiasek solas onak eman zarozkan neskatxari eta erran zaroen: Sara, jaiki zaite; othoitz egin diozogun Jainkoari egun, bihar eta etzi, zeren hirur gau horietan Jainkoari iratxiki behar baikare; eta hirugarren gaua iragan ondoan, ezkontzako bideetan ibiliko gare;

5. Ezen sailduen umeak gare eta ez gaitzke elkharri iratxik, Jainkoa ezagutzen ez duten jendakien arara.

6. Bada, biak jaikirik, batean minki othoitz egiten zuten, osagarria emana izan zakioten.

7. Eta Tobiasek erran zuen: Gure arbasoen Jainko Jauna, benedika bezaitzate zeru-lurrek, itsaso, ithurri eta ibaiek, eta hekietan diren zure kreatura guzietan.

8. Zuk egin izan duzu Adam lurreko lohitik, et Eba laguntzat eman diozu

9. Eta orai, Jauna, badakizu ez dudala lehia tzar baten ariaz emaztetzat hartzen ene arrebak, bainan-bai ondokoen izateko nahikariz, hekietaz izan zaitezten menderen mendetan benedikatu.

10. Sarak erran zuen halaber: Urrikal zakizkigu, Jauna, urrikal zakizkigu, eta biak elkharrekin osagarritan zahar begaitz.

11. Eta oilarrek jotzen duten muga inguruan, Erraguelek manatu zuen hurbil zitezten haren sehiak; eta harekin batean hobi baten egitera goan ziren.

12. Ezik bazerran: Huni ere beharbada, Sararen gana sarthu izan diren bertze zazpi senhar hekiei bezala gerthatu dakioko.

13. Zilhoa xuxendu ondoan, Erraguel bihurtu zen bere emaztearen gana, eta erran zaroen:

14. Igor zazu zure neskatotarik bat ikhustera hean hil den, ehortz dezadan eguna argitu baino lehen.

15. Emazteak igorri zuen bere neskatotarik bat. Gelan sarthurik, hunek atzeman zituen bizi eta oso elkharrekin batean lo.

16. Eta itzulirik, berri ona ekharri zuen; eta Jauna benedikatu zuten Erraguelek eta Ana haren emazteak.

17. Eta erran zuten: Benedikatzen zaitugu, Israelgo Jainko Jauna, zeren gerthatu ez den uste ginduen bezala.

18. Ezik urrikari izan gaitutzu, eta gure ganik gibelatu duzu jazartzen zarokun etsaia.

19. Guphidetsi ditutzu, berriz, bi haur bakhar horiek. Egizu, Jauna, geroago eta gehiago benedika zaitzaten, eta eskaint dezazuten zure laudoriozko sakrifizioa beren osagarriaren arietan, jendaki guzietan ezagut dezatentzat lur guzian zu zarella Jainko bakharra.

20. Eta berehala Erraguelek bere sehie manatu zaroeten, argitu baino lehen tapa zezaten egin zuten zilhoa.

21. Aldiz, bere emazteari erran zaroen aphaïn zezan barazkari bat, eta bidaietan direnentzat behar diren jateko guziak xuxent zetzan.

22. Hilarazi zituen halaber bi behi gizen eta laur ahari, eta barazkari handi bat xuxentarazi zuen bere hauzo eta adiskide guzientzat.

23. Erraguelek othoitzu zuen Tobias bi aste harekin egun zedin.

24. Eta zituen guzien erdiak Tobiasi eman zarozkan, eta gainerako gelditu bertze erdiaz ageri bat egin zuen Tobiasentzat izateko, bera eta bere emaztea hil ondoan.

### IX. KAP.

1. Orduan Tobiasek bere gana deithu zuen aingerua, gizon batentzat zadukana, eta erran zaroen: Anaia Azarias, adi zatzu, othoi, ene hitzak.

2. Nere burua zure sehi eman banezazu ere, ez netzazke aski ongi ezagut zure arthak.

3. Halarik-ere othoizten zaitut har detzatzun abereak eta muthilak, eta Erraies Mediakora goan zaitezten Gabeloren gana, bihur diozozun



bere ageria, haren eskutik har dezazun dirua, eta othoitz dezazun ethor dadien ene ezteietara.

4. Alabainan zerorrek badakizu ene aitak egunak khondatzen dituela; eta egun bat gehiago berantzen balin badut, haren arima atsekabetan jarriko da.

5. Eta ikhusten ere duzu nola othoiztu nauen Erraguelek, eta ezin arbuia dezakedala haren othoitzza.

6. Orduan Errafaelek harturik Erraguelen muthiletarik laur eta bi kamelu goan zen Erraies, Mediarren hirira; eta aurkhiturik Gabelo bihurtu zaroen bere ageria, eta haren ganik diru guzia hartu zuen.

7. Jakintsun egin zuen Tobias gazteari gerthatu guziez, eta berekin ezteietara ethorrarazi zuen.

8. Gabelo sarthu zenean Erraguelen etxean, Tobias atzeman zuen mahainean; eta Tobias jaikirik, elkhar besarkatu zuten; Gabelok nigar egin zuen; benedikatu zuen Jainkoa,

9. Eta erran zuen: Israelgo Jainkoak benedika bezaitza, zeren zaren gizon prestu, zuzen, Jainkoaren beldur denaren eta karitate-egilearen seme;

10. Eta benedizioea hel bedi zure emaztearen eta zuen ahaideen gainera;

11. Eta ikhus betzatzue zuen haurrak eta zuen haurren haurrak hirugarren eta laugarren belhauneraino; eta zuen ondoregoa benedikatua izan bedi menderen mendetan erreginatzen den Israelgo Jainkoaz.

12. Eta guziak, Halabiz, erran ondoan, jarri ziren mahainean; bainan ezteietako barazkaria ere Jaunaren beldurrarekin egin zuten.

## X. KAP.

1. Bainan Tobiasek luzatzen zuelarik bere ezkontzaren ariaz, haren aita grinan zen, eta erraten zuen: Zertako luzatzen duela uste duzu ene semeak, edo zerk daduka han?

2. Uste duzu Gabelo hil dela eta nihork ez daroela bihurtzen dirua?

3. Bada, ilhuntzen hasi zen bera, eta Ana haren emaztea harekin; eta biak nigarrez abiatu ziren, beren semea etzitzaiotelakotz egun bereziko bihurtzen hekien aitzinera.

4. Eta amak ixurtzen zituen ezin sosegatuzko nigarrak, eta erraten zuen: Ai! ai enea! ai ene semea! zertako igorri zaitugu bidez bide, gure begietako argia, gure zahartzeko makhila, gure biziko gozoa, gure odolaren igurikitza?

5. Zu baxharra baithan gintuen oro batean, eta etzintugun gu ganik urrundu behar.

6. Tobiasek erraten zaroen: Zaude ixilik eta ez asalda; gure semea ongi da; gizon aski fidelarekin igorri dugu.

7. Bainan harek niholaz etzukeen onik, bainan egun oroz atheratuz begira egoten zen, eta bazabilan bide guziak gaindi zeinetarik hura itzuliko zelako phekiza iduritzen baitzaroen, hura urrunera ethortzen ikhusi nahiz, ahal bazen.

8. Bizkitartean Erraguelek erraten zaroen bere suhiari: Zaude hemen, eta nik zure berri onekin igorriko darot mandataria bat zure aita Tobiasi.

9. Tobiasek ihardetsi zaroen: Badakit nik ene aitak eta ene amak orai khondatzen dituztela egunak, eta hekien izpiritua oinhazetan dago hekien baithan.

10. Eta nola Erraguelek hainitz solasez othoiztu baitzuen Tobias, eta hunek ez baitzuen niholaz ere entzun nahi, Erraguelek erran zarozkan Sara eta bere ontasan guzien erdiak muthil, neskatxa, arthalde, kamelu, behitan, eta diru hainitz, eta bere ganik igorri zuen osasunarekin eta bozkarioarekin,

11. Zioelarik: Jaunaren aingeru saildua izan bedi zuen bidean, gaitzik gabe bida betzaitzazte; gauza guziak zuen ait-amen inguruan ongi atzeman betzatzue, eta ene begiek hil nadien baino lehen ikhus betzate zuen haurrak.

12. Eta ait-amek beren alaba harturik, besarkatu eta goatera utzi zuten,

13. Erraten ziotelarik ohora zetzan bere aitagarreba eta amagarreba, maitha bere senharra, antola familia, manaia etxea, eta estakuruga-bea erakhuts zezan bere burua.

## XI. KAP.

1. Eta nola itzultzen baitziren, hamekagarren egunean heldu ziren Karanera, zeina Ninibetik bidez erditan baita.

2. Eta aingeruak erran zuen: Tobias anaia, badakizu nola utzi duzun zure aita.

3. Baldin beraz zure gogarako bada, goazin gu aitzinean, eta zure sehiak emeki jarraikiko dira gure bideari, zure emazte eta aziendekin batean.

4. Eta nola aitzinerat goateko solas hori ongi hartua izan baitzen, Tobiasi erran zaroen Errafaelek: Har zazu zurekin arrainaren mina, ezen





horren beharra izanen da. Hartarakoz Tobiasek hartu zuen minetik, eta goan ziren.

5. Bada, Ana egun oroz bide-bazterrean jarria egoten zen mendi-bizkar batean, nondik urrunera ikhus baitzezakeen.

6. Eta handik goaitan zagoelarik bere semearen ethortzeari, urrunera ikhusi zuen, eta berehala ezagutu zuen bere seme heldu zena; eta lasterka goanik, bere senharrari berria eman zaroen, zioelarik: Huna non heldu den zure semea.

7. Eta Errafaelek Tobiasek erran zaroen: Zure etxean sarthu bezain sarri, adora zazu berehala zure Jainko Jauna, eta eskerrak bihurtzen diozkatzularik, hurbil zaite zure aitaren gana eta besarka zazu.

8. Eta berehala haren begiak fereka zatzu zurekin ekhartzen duzun arrain-minaz; jakizu ezen haren begiak laster idekiko direla; zure aitak ikhusiko du zeruko argia, eta zure ikhustek bozkariotan ezarriko du.

9. Orduan, bidean jarraiki zitzaioten xakhurra lasterka goan zen aitzinerat, eta berri-emaile heldu den bat iduri, buztana higituz erakhusten zuen bere atsegina.

10. Eta aita itsua jaikirik, zangoz haztaka abiatu zen lasterrez; eta muthil bati emanik eskua, jo zuen bere semearen bidera.

11. Eta bereganatuz besarkatu zuen bere emaztearekin, eta biak atseginez nigarrez hasi ziren.

12. Eta Jainkoa adoratu eta hari eskerrak bihurtu ondoan, jarri ziren.

13. Orduan Tobiasek harturik arrainaren minetik, ferekatu zituen bere aitaren begiak.

14. Eta oren-erdi bat hurran iguri egon zen, eta zamarra abiatu zen haren begietarik ilkhitzen, arroltzearen larrua iduri.

15. Tobias hari lothurik, atheratu zuen bere aitaren begietarik, eta ordu berean bixta izan zuen.

16. Eta Jainkoa goersten zuten berak, bere emazteak eta hura ezagutzen zuten guziek.

17. Eta Tobiasek erraten zuen: Benedikatzen zaitut, Israelgo Jainko Jauna, zeren nauzun gaztigatu eta sendatu, eta huna non ikhusten dudan Tobias ene semea.

18. Halaber Sara haren semearen emaztea eta haren sehi guziak osagarritan, aziendak, kameluak eta emaztearen dirutze handia, eta Gabeloren ganik izatu diru hura ere, zazpi egunen buruan sarthu ziren.

19. Tobiasek bere burhasoei erran zarozten Jainkoak egin zarozkan ongi guziak hura laguntzen zuen gizonaren bidez.

20. Akior eta Nabath Tobiasek kusiak, Tobiasek gana ethorri ziren bozkariotan, dohatsu zerratelarik Jainkoak haren inguruan erakhutsi zituen ongi guziez.

21. Eta zazpi egunez barazkariak eginez, guziak bozkario handitan ibili ziren.

## XII. KAP.

1. Orduan Tobiasek deithu zuen bere semea eta erran zaroen: Zer eman diozogue zurekin izatu den gizon saindu huni?

2. Tobiasek ihardetsi zaroen bere aitari: Aita, zer sari emanen diogu? edo zer izan ditake hunen ongi eginen bethe?

3. Eraman eta erakharri nau, hunek hartu du Gabeloren ganik dirua, hunek izanarazi darot ene emaztea, hunek hastandu du haren ganik debrua, bozkarioz bethe ditu haren burhasoak, ilkhi nau neroni arrainaren ahotik, zeroniri ere ikhusarazi darotzu zeruetako argia, eta hunen bidez gure ontasan guziez betheak. Zer emanen ahal diogu horietaz gai denik?

4. Bainan galdegiten darotzut, ene aita, othoitz dezazun har dezan, gutiegi ez bazaio, ekharri ditugun guzien erdia.

5. Aita-semeek aingerua deithurik, bazterrerat hartu zuten, eta othoizka hasi zitzaizkon, beretzat nahi izan zetzan othoi onhetsi ekharri zituzten guzien erdiak.

6. Orduan aingeruak erran zaroeten ixilka: Benedika zazue zeruko Jainkoa, eta bizi diren guzien aitzinean emozue aithor, zeren duen zuen gainera ilkhiarazi bere urrikalmendua.

7. Ezen on da erregeren gauza gordea gerizatzea, bainan ohoragarri da Jainkoaren egintzen agertzea eta aithortzea.

8. Othoizta barurarekin eta karitatearekin, urhe-meten biltzea baino hobe da;

9. Zeren karitateak itzurrazten baitu heriotzeari, harek garbitzen du bekatuetarik, eta aurkhiarazten ditu urrikalpena eta bethiereko bizitzea.

10. Bainan bekatua eta tzarkeria egiten dituztenak, beren arimen etsai dira.

11. Agertzen darotzuet beraz egia, eta ez darotzuet gerizatuko gauza gordea.

12. Nigarrekin othoitz egiten zinduenean, hilak ehorzten zintuenean, eta zure onthuruntza utzirik, hilak egunaz zure eta hean gordetzen eta gabaz ehorzten zintuenean, nik eskaini izan diot Jaunari zure othoizta.



13. Eta nola Jainkoaz onhetsia baitzinen, premia zen frogapenez frogatua izan zintezten.

14. Eta orai Jaunak bidali nau zure sendatzera, eta debruaren eskutik Sararen atheratzera.

15. Ni naiz alabainan Errafael aingerua, Jaunaren aitzinean xutik egoten garen zazpietarik bat.

16. Eta hitz horiek aditzearekin, nahasi ziren, eta ikharan lurrerat ahuspez erori ziren.

17. Aingeruak erran zaroten: Bakea dela zuekin, ez izan beldurrik.

18. Ezik zuekin nintzenez, Jainkoaren nahiz nintzen; hura kanta eta benedika zazue.

19. Iduri nuen zuekin jaten eta edaten nuela; bainan ni ezin ikhusizko janhari batez eta gizonek ikhus ez dezaketen edari batez naiz hazten.

20. Ordu da beraz bidali nauenaren gana bihur nedin; zuek aldiz, benedika zazue Jainkoa eta barraia zatzue haren sendagaila guziak.

21. Eta horiek erran zituenean, suntsitu zen hekien begietarik, eta ezin ikhusi zuten gehiago.

22. Orduan lurrean hirur orenez ahuspez, benedikatu zuten Jauna, eta jaikirik barraiatu zituzten haren sendagaila guziak.

### XIII. KAP.

1. Bada, Tobias zaharrak, ahoa idekirik, benedikatu zuen Jainkoa, eta erran zuen: Handia zare, Jauna, bethi guzian, eta mende orotara hedatzen da zure erreinua.

2. Alabainan zuk jotzen eta zuk sendatzen duzu, zuk hobira jautsazten eta zuk handik eraikarazten duzu; eta nihor itzur ez daite zure eskuari.

3. Israelgo umeak, Jaunari aithor emozuete, eta lauda zazue jendaien aitzinean.

4. Ezik hura ezagutzen ez duten jendaien artean zaituzte barraiatu, khonda detzatzuen haren sendagailak eta jakintsun egin detzatzuen ez dela hartaz bertze Jainko ahalorotakorik.

5. Gure gaixtakerien gatik harek gaitu gaztigatu, eta bere urrikal-menduaren ariaz harek gaitu salbatu.

6. Ikhusazue beraz zer darokun egin, eta beldur eta ikhararekin emozuete aithor; zuen egintzetan gorets zazue mendeetako erregea.

7. Nitaz bezenbatean, aithor emanen darot ene gathibutasuneko lurrean; zeren baitu bere maiestatea erakhusi jendaki bekhatoros baten gainean.

8. Hargatik, bekhatoreak, itzul zaitezte, eta zuzenari bere bidea emozue Jainkoaren aitzinean, urrikalpenetan hartuko zaituztetela sinhetsiz.

9. Ni aldiz, eta ene arima haren baithan gare bozturen.

10. Benedika zazue Jauna, haren hautetsi guziek; erabil zatzue bozkariozko egunak, eta aithor emozue.

11. Jerusalem, Jainkoaren hiria, zure eskuetako egintzen gatik xehatu zaitu Jaunak.

12. Egin darozkitzun ongien gatik aithor bihur zozu Jaunari, eta benedika zazu mendeetako Jainkoa, zure erdian berri dezan bere tabernaklea, zure gana deith detzan berriz gathibu guziak, eta bozkariotan izan zaitezen menderen mendetan.

13. Argirik ederrenaz dirdiratuko duzu, eta lurreko izkina guziek adoraturen zaituzte.

14. Jendaiak urrundani ethorriko dira zure gana; emaitzak ekharriko dituzte, zure baithan adoratuko dute Jauna eta zure lurra saindutzat dute idukiren.

15. Ezen zure baithan izen handiari deiez dira hariko.

16. Madarikatuak izanen dira zu eskarniatuko zaituztenak, eta kondenatuak izanen dira zuri ahapaldika hariko direnak, eta benedikatuak dira izanen zu berritan altxatuko zaituztenak.

17. Zu aldiz zure umeetan bozturen zare, zeren oro benedikatuak eta Jauna gana bilduak izanen baitira.

18. Dohatsu zu maithatzen zaituzten guziak eta zure bakeaz bozten direnak!

19. Oi ene arima, benedika zazu Jauna, zeren hestura orotarik duen atheratu gure Jainko Jaunak Jerusalem bere hiria.

20. Dohatsu izanen naiz baldin ene odolekorik norbait gelditzen bada Jerusalem distiraduraren ikhusteko.

21. Zafirrez eta esmeraldaz eginen dira Jerusalemeko atheak; eta harri baliosez haren harrasietako inguru guzia.

22. Hango plaza guziak harri xuri garbiz izanen dira galtzadatuak, alleluia kantatuko dute hango karrketan.

23. Benedikatua Jauna, hura goratu duena, eta haren gainean erregina bedi menderen mendetan. Halabiz.

### XIV. KAP.

1. Hortan akhabatu ziren Tobiasen solasak. Tobias argitu zenaz geroztik, bizi izan zen berrogoi eta bi urthez, eta ikhusi zituen bere ilobasoen haurrak.



2. Eta ehun eta bi urthe bethe ondoan, ohorezki ehortzia izan zen Niniben.

3. Berrogoi eta hamasei urthe zituen ezik begietako argia galdu zue-nean, eta hirur hogoi urthetan berriz izan zuen.

4. Aldiz haren gainerako bizia bozkarioan iragan zen, eta Jainkoaren beldurrean ongi aitzinatuz, bakean goan zen.

5. Heriotzeko orenean berriz, bere ganat deithu zituen bere seme Tobias eta hunen zazpi seme bere ilobasoak, eta erran zaroeten:

6. Hurbil bide daiteke Niniberen galpena; ez da alabainan Jaunaren hitza erortzen, eta gure anaia, Israelgo lurretik barraiatuak direnak, hartara itzuliko dira.

7. Berriz, hango lur mortu bilhakatu guzia betheko da, eta han errea zetzan Jainkoaren etxea berriz altxatu: izanen da, eta harat bihurturen dira Jainkoaren beldur diren guziak.

8. Eta jendaiek utziko dituzte beren jainkoaizunak, eta Jerusalemara ethorriko dira, eta han eginen dute beren egoitza;

9. Eta han boztuko dira lurreko errege guziak, adoratzen dutelarik Israelgo erregea.

10. Ene haurrak, adi zazue beraz zuen aita: zintasunean zerbitza zazue Jauna, eta haren gogarako direnen egitea bilha zazue.

11. Zuen semeei ere mana zozuete zuzenbidean ibil ditezen eta karitate egin dezaten, Jainkoaz izan ditezen orhoiti, eta hura noiz-nahi benedikata dezaten zintasunean eta beren ahal guziaz.

12. Orai beraz, haurrak, adi nezazue, ez egon hemen; bainan noiz-ere ehortziko baituzue zuen ama ene aldean hobi berean, egun beretik zuen urhatsak abia zatzue hemendik goateko.

13. Ikhusten dut alabainan hiri huntako tzarkeriak ekharriko daroela bere akhabantza.

14. Bere ama hil ondoan beraz, Tobias urrundu zen Ninibetik bere emazte eta hurrekin eta haurren hurrekin, eta bihurtu zen bere emaztearen burhasoetara.

15. Eta osagarritan eta zahartze on batean aurkhitu zituen: izan zuen hekietaz artha, eta berak hertsu zituen hekien begiak; eta Erraguelen etxe-ko ondorego guzia berak izan zuen, eta bere haurren haurrak ikhusi zituen bortzgarren belhauneraino.

16. Laur hogoi eta hemeretzi urthe Jaunaren beldurrean bethe zituen ondoan, bozkariorekin ehortzi zuten.

17. Haren ahaidego guziak berriz, eta haren ondoko guziek bizitze on eta ihardukitze saindu batean iraun zuten, haletan non Jainkoaz bezala gizonez ere eta lekhuko egoiliar guzietz onhetsiak izan baitziren.



## JUDITH

### I. KAP.

1. Arphaksad Mediarren erregek bere azpikotu zituen jendaki asko, eta berak altxatu zuen hiri bat guziz hazkarra, zeina deithu baitzuen Ekhatana.

2. Lau izkinetako harri pikatuz egin zuen. Hirur hogoi eta hamar beso zabal ziren harrasiak eta hogoi eta hamar beso gora zirenak egin zituen; dorreak aldiz, ehun beso gora zirenak ezarri zituen.

3. Hekien sahetsak, laur izkinetakoak, hogoi pia hedatzen ziren bak-hotxa, eta hiriko atheak ezarri zituen dorreen goratasun berean.

4. Eta espantuak handi zituen bere burua ahal gaitzeko iduritzen baitzitzaioen bere armadaren indarra eta orga-lasterren ostea gatik.

5. Nabukodonosor, Asiririarren errege, Ninibeko hiri handian erreginatzen zena, bere erregetasuneko hamabigarren urthean Arphaksaden kontra gudukatu zen eta atzeman zuen

6. Erragau deitzen den zelhai handian, Ufratako, Tigriseko eta Jadasongo inguruetan, Eriok Eliziarren erregearen ordokian.

7. Orduan goratua izan zen Nabukodonosorren erreinua; haren bihotza hantu zen, eta bidalkinak igorri zituen Zilizian, Damasena eta Libanen egoten ziren guziei,

8. Karmelen eta Zedarren ziren jendakiei, Galilean eta Esdrelongo zelhai handian egoten zirenei,

9. Samarian eta Jordaneko uraz haindian zirenei eta Jerusalemearaino, eta Jeseke lurrera Ethiopiako mugak jo arteo.

10. Nabukodonosorrek Asiriarren erregek horiei orori bidalkinak igorri zarozten.

11. Eta guziek orobat jazarri zarozten, eta igorri zituzten gibelerat hutsik, eta irazi zituzten ohoratu gabe.

12. Orduan lur haren guziaren kontra gaitziturik, Nabukodonosor erregeak bere tronuz eta bere erresumaz zin egin zuen bere buruari asperkunde atherako zaroela toki hekiez orotaz.

### II. KAP.

1. Nabukodonosor erregearen hamahirugarren urthean, lehenbiziko hilabethearen hogoi eta bigarren egunean, Nabukodonosor Asiriarren erregearen jauregian biltzar bat egin zen, asperkunde atheratzeko ariaz.

2. Deithu zituen zahar guziak, buruzagi guziak eta bere gerlariak, eta bekiekin iduki zuen biltzar ixil bat.

3. Eta erran zaroten hau zuela bere asmua, lur guzia bere manamenduari azpiratzea.

4. Nola haren errana izan baitzen guzien gogarako, Nabukodonosorrek deithu zuen Holofernes bere armadako buruzagia,

5. Eta erran zaroen: Ilkhi zaite mendebaleko erresuma guzien kontra, eta bereziki ene manamendua arbuiatu dutenen kontra.

6. Zure begiak ez du erresuma bakhar bat guphidetsiko, eta hiri hazkar guziak ezarriko dituzu ene azpian.

7. Orduan Holofernesek deithu zituen aitzindariak eta Asiriarren armadako kargudunak; eta khondatu zituen goatekoak ziren gizonak, erregek manatu zaroen bezala, sei hogoi mila oinezko gudulari eta hamabi mila zaldizko arranbelari.

8. Eta bere armadaren aitzinean goanarazi zituen nihonereko kameluketa, armadek behar zituzten guziak nasaiki bizkarrean, idi eta ardi artaldeak, nihork ezin erran baitzezakeen zenbat.

9. Manatu zuen ogia Siria guzitik haren iragan-bidean xuxendua izan zedin.

10. Errege-etxetik berriz, hartu zuen urhe eta zilharketa gaitza.

11. Eta abiatu ziren bera eta bere armada guzia, orga-lasterrekin, zaldizkoekin eta arranbelariekin, zeinek lurraren gaina estali baitzuten xartalek bezala.

12. Eta Asiriarren mugak iragan-eta, ethorri zen Anjeko mendi handi, Ziliziako ezkerrean direnetara, eta hango gaztelu guzietara igan zen, eta hazkargailu guziak hartu zituen.

13. Urratu zuen Melothiko aiphu handitako hiria, larrutu zituen Tharsistar guziak, eta mortuaren parrean eta Zelongo hegoaldera ziren Ismaeldarrak.

14. Eta Ufrata iragan zuen, ethorri zen Mesopotamiara, eta Manbreko errekatik itsasoraino ziren hiri gora guziak urratu zituen.

15. Nausitu zen hango eremu guziez Ziliziatik Japheteko mugetaraino, zeinak hegoaldera baitira.

16. Eta berekin erakharri zituen Madiantar guziak; hartu zarozten beren izate guziak, eta bihurtu zitzaizkonak oro iragan zituen ezpataren ahotik.

17. Gero Damasko zelhaietara uztaroan jautsi zen; erre zituen ogi guziak eta ebakarazi zituen zuhaitz guziak eta mahastiak;

18. Eta haren beldurra erori zen lurreko egoiliar guzien gainera.



### III. KAP.

1. Orduan hiri eta erresuma guzietako erregeek eta buruzagiek, erran nahi da Siriako, Mesopotamiako, Siria Sobalگو, Libiako eta Ziliziakoek igorri zituzten beren bidalkinak, zeinek Holofernesen gana ethorrik erran baituzten:

2. Gure alderateko zure gaitzidura bara bedi; ezen hobe da bizirik zerbitza dezagun Nabukodonosor errege handia, eta zure azpiko izan gaitzen, ezenez-eta hilik gure heriotzarekin batean jasan detzagun gure gathibutasuneko bidegabeak.

3. Gure hiri guziak, gure gozamenak oro, mendi, mendixka, zelhai, idi-arthaldeak, ardi-arthaldeak, ahuntzenak, zaldienak eta kameluenak, gure izate guziak eta familiak, zure aitzinean dira.

4. Ditugunak oro zure legearen azpiko izan beitez:

5. Gu eta gure haurrak zure gathibu gare.

6. Bakezko nausi bat bezala zatokigu, eta gure zerbitzuaz atsegin dukezun bezala balia zaitez.

7. Orduan mendietarik zaldizkoekin jautsi zen indar handitan eta nausitu zen hiri guziez eta lurreko egoiliar guziez.

8. Hiri guzietarik berriz, berekin laguntzat hartu zituen gizon hazkar eta gerlakotzat hautak.

9. Eta hanbateko beldurra jarri zen lekhu hekietan, non hirietako buruzagiak eta ohorezko gizonak populuekin batean biderat atheratzen baitzitzaizkoen hurbiltzen zenean,

10. Ongiethorria eginez khoro eta argiekin eta dantzan ethorritz atabala eta xirolekin.

11. Eta horiek egiten zituzten arren, ezin eztitu zuten haren bihotzaren gogorra;

12. Ezik urratu zituen hekien hiriak eta ebaki lukuak.

13. Alabainan Nabukodonosor erregeak manatu zaroen xahu zetzan lurreko jainkoak oro, bera bakharrik izan zedintzat jainko errana Holofernesek haren eskuari azpiko ezarri ahal zituzkeen jendakiez.

14. Bada, Siria Sobal iraganik, Apamea guzia eta Mesopotamia guzia, Holofernes ethorri zen Idumearretara, Gabaako lurrean,

15. Eta hartu zituen hekien hiri guziak, eta han jarri zen hogoi eta hamar egunez, zeinetan manatu baitzuen batera bil zedin haren armada-ko indar guzia.

### IV. KAP.

1. Orduan, horiek aditurik, Judako lurrean egoten ziren Israelgo semeak izitu ziren hainitz haren aitzinean.

2. Ikharak eta lazturak hartu zituen hekien bihotzak, beldurrez-eta Jerusalemari eta Jaunaren tenploari egin ziozoten bertze hiriei eta hekietako tenploeie egin zuena.

3. Eta igorri zuten Samaria guzira inguruan Jerikoraino, eta aitzindu ziren mendi-bizkar guzien hartzera.

4. Harrasiz inguratu zituzten beren herriak, eta ogiak bildu zituzten guduari buruz abiatzeko.

5. Eliakim aphezak halaber, Esdrelongo aldean, zelhai handiaren parrean, Dothaingo ondoan egoten ziren guziei eta Holofernes iragan behar zen bidea ziren guziei iskribatu zaroeten,

6. Har zetzazten mendi-patarrak zeinak gaindi egin baitzitakeen Jerusalemara, eta han zain zetzazten, bidea mendien artean hertxia izan zitakeen lekhuak.

7. Israelgo semeek egin zuten Eliakim Jaunaren aphezak manatu ziotenaren arabera.

8. Eta populu guziak errekei handiz Jauna gana deihadar egin zuen, eta berek eta beren emazteek beren arimak aphaltu zituzten barurean eta othoitzetan.

9. Aphezek zurdatzak jauntzi zituzten, haurrak Jaunaren tenploaren aitzinean ahuspez ezarri zituzten eta Jaunaren aldarea estali zuten zurdatz batez.

10. Eta orok batean Israelgo Jainko Jaunari deihadar egin zaroten, bekien haurrak eta emazteak etzitezen emanak izan etsaien aztaparretara, hekien hiriak xahutzera eta lekhu sailduak lohitzera, eta etzitezen jendaien laidagarri bilhaka.

11. Orduan Eliakim Jaunaren aphez-handiak inguratu zuen Israel guzia, eta mintzatu zitzaioeten,

12. Ziolarik: Jakizue Jaunak entzunen dituela zuen othoitzak, baldin itxikiz ihardukitzen baduzue barurei eta othoitzari haren aitzinean.

13. Orhoit izan bekizue Moise Jaunaren zerbitzaria, zeinak, ez ezpartekin gudukatuz, bainan othoitz sailduak eginez, eragotzi baitzuen Amalek sinheste hazkarretan zagoena bere indarraren, bere ahalaren, bere armada, erredola, orga-laster eta zaldizkoen ganean.

14. Orobat izanen da Israelen etsai guziez, baldin iraunkor izaten bazarete hasi duzuen lanean.

15. Beraz dei hortara, Jaunaren aitzinean zauden Jaunari errekeika,



16. Haletan non, Jaunari holokaustak eskeintzen zaroztenek berek, zurdatzak soinean eta buruak hautsez estalirik eskaintzen baitzituzten sakrifizioak Jaunari.

17. Eta guziek beren bihotz oroz othoizten zuten Jainkoa hel zakio- en Israelgo bere populuari.

## V. KAP.

1. Eta Holofernesi, Asiriarren armadako buruzagiari berria ekharri zaroten, nola Israelgo semeak hari buru egiteko bidetan jartzen hari ziren eta mendietako bideak hertsit zituztela.

2. Eta bere hasarre handian khetan eman zen, eta deithu zituen Moabeko aitzindariak oro eta Amongo buruzagiak,

3. Eta erran zarooten: Erradazue zein den mendiak daduzkan populu hori, edo zer eta nolakoak eta zenbatekoak diren horien hiriak; zer den horien indarra, edo zer den horien ostea, edo zein den horien armadako erregea;

4. Eta zertako iguzki-sorthaldean egoten diren guzien aitzinean, horiek diren arbuiatzen gaituztenak eta gure aitzinera ilkhitzen ez direnak baketiarki guri ongiethorriaren egitera?

5. Orduan Akior, Amonge seme guzien buruzagiak ihardestean, erran zuen: Ene Jauna, baldin zure gogarako balitz entzutea, egia erran nezake zure aitzinean mendietan egoten den populu hortaz, eta gezurrezko hitz bat ez da ene ahotik ilkhiko.

6. Populu hori Kaldearren odoletik heldu da.

7. Lehenbizitik Mesopotamian egotu da, zeren ez baitzuten nahi izan jarraiki Kaldearren lurrian ziren beren arbasoen jainkoei.

8. Hargatik bazterrerat utzirik beren arbasoen zeremoniak, zeinak jainko askorentzat baitziren,

9. Adoratu zuten zeruko Jainko bakharra, zeinak ere manatu baitzarooten ilkhi zitezen handik eta Karanen egon zitezen. Eta nola goseteak hartu baitzuen lurra oro, Egiptora jautsi ziren, eta han laur ehun urthez hala berhatu ziren non horien armada ezin khonda baitzitakeen.

10. Eta nola Egiptoko erregek lehertzen baitzituen eta bortxatzen baitzituen mortero eta adrailu egiten, bere hirien altxatzeko, deihadar egin zaroten beren Jaunari, zeinak asko izurriz jo baitzuen Egiptoko lurra.

11. Eta nola Egiptoarrek beren ganik irazi baitzituzten, eta baratu baitzen hekien gaineko izurria, eta nahi baitzituzten berriz atzeman eta beren gathibusunera bihurrarazi;

12. Haukiek ihes zihoazelarik, zeruko Jainkoak ideki zarooten itsasoa, haletan non urak bi aldeetarik harrasia bezala gogortu baitziren, eta berak iragan baitziren oin idorretan itsasoko zola gaindi ibiliz.

13. Egiptoarren ezin khondatuzko armada hekiei jarraitzen zelarik, haletan izan zen lekhu hartan urez estalia, non bakharrak ere ez baitzen gelditu ondokoei berri horren emateko.

14. Bada, itsaso Gorritik ilkhirik, egotu ziren Sinako mendiko mortuan, zeinetan egundaino gizonik egotu edo gizasemerik phausatu ezin izan ahal baita.

15. Han ithurri kharatsak eztitu ziren horiek edan zezatentzat, eta berrogoi urthez zerutik izan zuten jatekoa.

16. Non-nahi sar zitezen arranbela, gezi, erredola eta ezpatarik gabe, horien Jainkoa horien alde gudukatzen eta garaitiar atheratzen zen.

17. Eta nihork ezin jazarri izan dio populu horri, bere Jainko Jaunaren zerbitzutik gibelerat egin duenean baizik.

18. Ezen beren Jainkoaz kanpo bertze bat adoratu duten aldi oroz, arthikiak izan dira harrapakinari, ezpatari eta laidoari.

19. Eta beren Jainkoaren zerbitzutik gibelatu izateaz urrikitan sarthu diren aldi guzietz berriz, zeruko Jainkoak eman darote etsaiei buru egiteko indarra.

20. Azkenekotz eragotzi dituzte Kananearren erregea, Jebusearrena, Pherezearrena, Hethearrena, Hebearrena, Amorhearrena, eta Hefebonen indar handitan ziren guziak eta berek gozatu dituzte hekien lurra eta hiriak.

21. Eta bekhatara erortzen etzireno, horiekin ziren on guziak; ezen horien Jainkoak higuin du gaixtakeria.

22. Hargatik urthe haukien aitzintxean, nola Jainkoak ibiltzeko eman zarooten bidetik aldaratu baitziren, asko jendaiek gudueta xahutu dituzte, eta horietarik hainitzak gathibu lur arrotzera eramanak izan dira.

23. Bainan berriki, beren Jainko Jauna gana bihurturik, barbanakatuak ziren lekhuetarik bildu dira; igan dituzte mendi haukiek oro, eta berriz gozaten dute Jerusalemene, non baitute beren saindutegia.

24. Orain beraz, ene Jauna, bilha zaite hean tzarkeria, zerbait othe duten beren Jainkoaren aitzinean; eta orduan igan gaitezen horietara, zeren beren Jainkoak arthikiren baititu zure eskuetara, eta ezarriak izanen dira zure botherearen uztarriaren azpian.

25. Bainan populu horrek gaitzigarrikeriarik ez badu bere Jainkoaren aitzinean, ezin buru egingen daroetegu, zeren beren Jainkoak maldatuko baititu, eta izanen gare lur guziaren laidagarri.



26. Eta Akior solas horien egitetik gelditu zenean, Holofernesen handi mandi guziak hasarretu ziren, eta gogoan zuten haren hiltzea, elkharri erraten zutelarik:

27. Nor da erraten duen hori, Israelgo semeek, ez harma, ez bihotz, ez gduetakako antzearen jakitaterik ez duten horiek buru egin dezoketela Nabukodonosor erregeari eta haren armadei?

28. Ezagut dezan beraz Akiorrek enganatzen gaituela, igan gaitezen mendietera; eta horietako hazkarrak hartuak izanen direnean, Akior horiekin ezpatan iragana izanen da;

29. Jendaki guziek jakin dezatentzat Nabukodonosor dela lurreko jainkoa, eta hartaz landan bertzerik ez dela.

## VI. KAP.

1. Aldiz, mintzatzetik gelditu zirenean, Holofernesek hasarre gaitzean erran zaroen Akiorri:

2. Profetarena egin darokulakotz, erranez Israelgo jendaia maldatua izanen dela bere Jainkoaz, hiri erakusteko ez dela Jainkorik Nabukodonosor baizik,

3. Hilen ditugunean guziak, gizon bakhar bat bezala, heror Asiriarren ezpataren azpira eroriko haiz hekiekin batean, eta Israel guzia hirekin batean galdua izanen duk xahutze berean;

4. Eta frogatuko duk Nabukodonosor dela lur guziko jauna; eta orduan ene soldadoen ezpata iraganen duk hire sahets batetik bertzera, eta sastakatua eroriko haiz Israeldar sakhituen artera, eta ez duk hatsa izanen gehiago, hekiekin kalitua izateko baizik.

5. Bada, uste baduk hire profezia egia dela, ez bedi eror hire begit-hartea; eta hire ahurpegia hartzen duen zurphildura haiza bedi hire ganik, uste baduk ezin bethe dezakedala ene hitza.

6. Jakin dezakan, berriz, hunen froga eginen dukala hekiekin batean, hunan non oren beretik izanen haizen hekien populuari batua, hekiekin batean eror hadien ene asperkundearen azpira, ene ezpatak emanen daroetenean hekiei merezitu duten gaztigua.

7. Orduan Holofernesek bere zerbitzariari manatu zaroeten har zeza ten Akior, eraman zezaten Bethuliara eta ezar zezaten Israelgo semeen eskuetan.

8. Holofernesen zerbitzariak hartu zuten Akior eta goan ziren zelhaiak barna; bainan mendietera hurbildu zirenean habalariak atheratu ziren hekien kontra.

9. Hekiek aldiz, mendi-mazelaz baztertuz, zuhaitz bati lau hatzetarik estekatu zuten Akior, eta hala sokhaz lothu ondoan, utzi zuten, eta beren nausiaren gana bihurtu ziren.

10. Bada, Israelgo semeak Bethuliatik jautsirik, ethorri ziren haren gana; lokharriak urratu ondoan, eraman zuten Bethuliara, eta populua erdian ezarririk, galdatu zaroten zer ariaz Asiriarren utzi zuten estekatua.

11. Orduko egunetan buruzagi ziren han Ozias Mikaren semea, Simeonen leinukoa, eta Karmi, hura bera baitzen Gothoniel.

12. Zaharren erdian beraz eta guzian aitzinean, Akiorrek erran zituen Holofernesen galdearen gainean erran zituenak oro, eta noletan Holofernesen populua hil nahi izan zuen solas horren gatik;

13. Eta nola Holofernesek, samurturik, manatu zuen Israeldarren eskuetara izan zedin aria hortaz emana, oinhazetan Israelgo semeak garhaitu ondoan, hilaraz zezantzat zeren erran zuen: Zeruko Jainkoa da horien geriza.

14. Eta Akiorrek horiek oro begietara eman zituenean, populu guzia ahuspez erori zen, Jauna adoratu, eta orok batean nigar eta marrasketan ixuri zituzten beren othoitzak Jaunaren aitzinean,

15. Erraten zutelarik: Zeru-lurretako Jainko Jauna, begira zazu horien hanpurustasunari, ikhusazu gure aphaltasuna, begiz har zazu sainduen bekhurundea, eta erakhusazu ez ditutzula bazterrerat uzten zutaz sinheste dutenak, eta aphaltzen ditutzula beren buruaz sinheste eta beren indarraz espantu dutenak.

16. Beraz nigarretik baratu ondoan, eta populua egun guzian othoitzean egonik, gozakarizko solasak eman zarozten Akiorri,

17. Erranez: Gure arbasoen Jainkoak, zeinaren ahala goraki aithortu baituzu, emanen darotzu aldia zeronek hekien heriotzea lehenago ikhus-tekoa.

18. Eta berriz, gure Jainko Jaunak itzurpen emanen daroetenean bere zerbitzariari, Jainkoa zurekin halaber izan bedi gure erdian; arren-eta, zure gogarako izanen denaren arabera, hala bizi zaitezen gurekin nola zure herritarrekin.

19. Orduan Ozias, bilkhua akhabatu zenean, hartu zuen bere etxerat eta afari handi bat eman zaroen.

20. Eta zahar guziak deithurik, barura akhabatu-eta elkharrekin jan zuten.

21. Gero berriz, populu guzia bilarazia izan zen, eta gau guzian othoizka egotu ziren baldarnan, laguntza galdatuz Israelgo Jainkoari.



## VII. KAP.

1. Bada, biharamunean Holofernesek manatu zaroeten bere armadei igan zitezen Bethuliaren kontra.

2. Eta ziren oinezkoak sei hogoi mila eta zaldizkoak hogoi eta bi mila, eta bertzalde ziren gathibutasunak atzeman zituen gizon hekien osteak, eta hiri eta bazterretako gazteria guzitik erakharriak izan zirenak.

3. Oro bardin jarri ziren Israelgo semeei gudu emateko bidetan, eta mendi-hegala gora ethorri ziren Dothainen gainera begira dagoen kaskora, Belma deitzen den lekhotik Kelmoneraino, zeina Esdrelonen parrean baita.

4. Israelgo semeak berriz, ikhusririk hekien ostea, lurrera ahuspez erori ziren, heren buruak hautsez estaliz eta orok batean Israelgo Jainkoa othoiztuz bere urrikalpena agerraraz zezan bere populua gainera.

5. Eta beren gerlako harmak harturik, lekhuka jarri ziren, mendiarteak gora dohan bide hertsiaeren atketetan, eta hekien zain zauden gau eta egun.

6. Bizkitartean inguruka itzulikatzean, Holofernesek atzeman zuen hirirat heldu zen ithurriak hegoaldetik zuela bere ixtuna hiriz kanpoan, eta manatu zuen ixtun hura izan zedin trenkatua.

7. Baziren hargatik harrasietarik ez urrun ithurriak zeinetarik ura ebaska atheratzen ikhusten baitziren hiritarrak, beren egarriaren ematzeko, asetzeko baino hobeki.

8. Bainan Amongo eta Moabeko umeak hurbildu ziren Holofernesen gana, ziotelarik: Israelgo semeek ez dute beren sinhestea ez lantzetan, ez geizetan; bainan mendiek maldatzen dituzte, eta erroizuak bezalako pendoitz batzuek ematen diote beren indarra.

9. Beraz gudurik egin gabe garhait ahal detzatzuntzat, ezar zatzue ithurrien zaintzaileak, ez dezaten hekiatarik urik athera, eta ezpata gabe hilen ditutzu, edo bederen ahitu ondoan eskuetara emanen daroztute beren hiria, zeina, mendietan delakoan, uste baitute ezin garhaitua dela.

10. Solas horiek izan ziren Holofernesen eta haren inguruko gizonen gogarako, eta ithurri bakhoxka ezarri zituen ehun zaintzaile inguruan.

11. Eta zaintze hori hogoi egunez egina izan zenean, urtegiek eta lako guziek eskas egin zaroten Bethulian egoten zirenei, haletan non hiriaren barnean ez baitzen hekien asetzekorik egun bakhar batez, ezen egun oroz ura neurtuz ematen zitzaioen populuari.

12. Orduan Oziasen gana bildurik gizon, emazteki, gizon-gazte eta haurrak, guziek elkharrekin boz batez

13. Erran zuten: Jainkoak zure eta gure artean erabak beza, ezen zorigaitz hau erakharri duzu gure gainera, ez nahiz baketiarki Asiriarreni mintzatu, eta horren gatik Jainkoak hekien eskuetara eman gaitu.

14. Eta nihor ez da guri laguntza egiteko, hekien aitzinean eroriak gaudelarik egarritz eta xahutze ikharagarri batean.

15. Eta orai bilaraz zatzue hirian diren guziak, gure buruak berariaz eman detzagun Holofernesen populua eskuetara.

16. Hobe dugu alabainan gathibu eta bizirik benedika dezagun Jauna, ezenetz hiltzea eta gizon guzien laidagarri izatea, gure haurrak eta gure emazteak ikhusi ondoan hiltzen gare hekien aitzinean.

17. Egun, lekhuko zerua eta lurra eta gure arbasoen Jainkoa, zeinak gutarik asperkunde atheratzen baitu gure bekhatuen arabera, galdatzen daroztugu hiria orai berean Holofernesen armadaren eskuetan ezar dezazun, gure heriotzea laburra izan dadien ezpataren ahoz, luzeegi heldu baita egarriaren khaldaz.

18. Eta horiek erran zituztenean, nigar eta marraska handi bat egin zen bilkhu guzian, eta asko orenez guziek batean deihadar egin zaroten Jainkoari, erraten zarotelarik:

19. Bekhatu egin dugu gure aitekin, zuzenari bidegabe egin diogu, tzarkeria erabili dugu.

20. Zu, urrikalmendutsu zarelakotz, urrikal zakizkigu, edo zerorren zaharoaz asper zatzu gure gaizkiak, eta zure aithor-emaileak ez betzatzu arthik ezagutzen etzaitzutenen eskuetara,

21. Jendaien artean erran ez dezaten: Non da horien Jainkoa?

22. Deihadarka unhaturik, eta nigarrez akhiturik, ixildu zirenean,

23. Ozias jaiki zen nigarrez bustia eta erran zuen. Deskantsa zaitzete, anaiak, eta bortz egun haukiez gaudezen Jauna ganik urrikalpenaren begira.

24. Ezik beharbada hautsiko du bere hasarrea, eta ospe emanen dio bere izenari.

25. Ordean bortz egun haukiek iraganik, laguntzarik ez balin bazaitu ethortzen, erran duzuen eginen dugu.

## VIII. KAP.

1. Eta gerthatu zen solas horiek heldu zirela Judith alhargunaren gana, zeina baitzen Merariren alaba, Merari Idoksen semea, Idoks Josepena, Josep Oziasena, Ozias Elairena, Elai Jannorrena, Jannor Jedeonena, Jedeon Erraphaimena, Erraphaim Akitobena, Akitob





Melkiasena, Melkias Enanena, Enan Nathanasena, Nathanas Salathielena, Salathiel Simeonena, zeina Errubenen seme baitzen.

2. Eta Judithen senhar zena zen Manase, zeina garagar-uztako egunetan hil baitzen;

3. Ezik landan espal-lotzaileei eragiten zaroetelarik, beroak jo zuen buruan, eta hil izan zen Bethulian bere hirian, eta han ehortzi zuten bere arbasoekin.

4. Bada, hirur urthe eta sei hilabete ordukoz baziren Judith alhar-gun gelditua zela.

5. Eta bere etxe gaineko selharuan beretzat egin zuen gela gorde bat, zeintan hertsia egoten baitzen bere neskatxekin.

6. Eta zurdatz bat soinean, barur egiten zuen bere biziko egun guziz, lekhat larunbatetan, ilhargi berri egunetan eta Israelen etxeko bestetan.

7. Bada, hainitz ederra zen begiko; bere senharrak utzi ziozkan aberastasun handiak, sehi hainitz, eta ontasun idi-arthaldez eta ardi-arthaldez betheak.

8. Eta orotan aiphu handitan zen, zeren zen Jaunarentzat hainitz beldurti, eta nihor etzen harentzat elhe gaixto bat atheratuko zuenik.

9. Hargatik entzun zuenean Oziasek. agindu zuela, bortzgarren eguna iragan ondoan hiria etsaiaren eskura emanen zuela, igorri zuen bi zaharretara, Kabri eta Karmi gana.

10. Haukiek ethorri zitzaizkon eta erran zaroeten Judithhek: Zer da solas hori, Oziasek onhetsi duela hiria Asiriarrei eskuetara ematea, baldin bortz egun nik barnean laguntzarik ez bazaitzue heldu?

11. Eta nor zarete zuek frogetan ezartzeko Jauna?

12. Solas hori ez da urrikalpenaren deitzekoa, baina hobeki hasarrearen jauzaraztekoa eta sutan ezartzekoa.

13. Jaunaren urrikalmenduari ephe bat eman diozue, eta zerorren iduriko egun bat berezi diozue Jainkoari.

14. Baina nola jasankor baita Jauna, hortaz beraz urrikitan sar gaitzen, eta nigarrak ixuriz haren barkhariatasunari dei egin diozogun;

15. Jainkoak ezen ez du gizonaren arara dixidatzen, eta ez du giza-semeak bezala sutan hasarre hartzen.

16. Hargatik aphalt detzagun haren aitzinean gure arimak; eta aphaltasuneko izpiritutan jarririk eta Jauna zerbitzatu,

17. Erran diozogun nigarrekin, bere nahiaren arabera eragin diozun gure alderat bere urrikalmenduari, nola asalduan ezarri baikaitu horien hanpuruskeriak, hala gure aphaltasunetik ospe athera dezagun halaber;

18. Zeren ez garen jarraiki, beren Jainkoa utzi eta jainko arrotzak adoratu dituzten gure arbasoen bekhatuiei:

19. Tzarkeria horren gatik arthikiak izan dira beren etsaiei, hilak, larrutuak eta laidoztatuak izateko; guk aldiz, ez dugu bertze Jainkorik eza-gutzen hura bera baizik.

20. Aphaltuak igurik dezagun haren gozakaria, eta gure odola asper-tuko du gure etsaien ganikako atsekabeetarik, gure kontra jaikitzen diren jendaia guziak aphaltuko ditu, eta ahalketara erorrazaziko ditu gure Jainko Jaunak.

21. Eta orai, anaiak, nola zuek baitzarete Jainkoaren populuko zahar-rak eta zuen itxikian baitago horien arima, zuen solasez gothor zatzue horien bihotzak, orhoit ditezen gure arbasoak bilhatuak izan direla, hean zinki beren Jainkoa zerbitzatzun zuten frogatzekotzat.

22. Orhoitu behar dira nola Abraham gure aita izan zen bilhatua, eta atsekabe askoz frogatua izanik, egin zela Jainkoaren adiskide.

23. Hala Isaak, hala Jakob, hala Moise eta Jainkoaren gogarako izatu diren guziak asko atsekabetarik fidelik iragan dira.

24. Hainak ordean, Jaunaren beldurrarekin frogapenak onhetsi ez dituztenak, eta beren jasangaizkeria eta beren marmararen erantzukia Jaunaren kontra altxatu dituztenak,

25. Aingeru zahutzaileaz izan dira zahutuak, eta sugeek galdu dituzte.

26. Gu ere beraz ez gaitezen txar izan jasaiten ditugun haukien gatik;

27. Baina gure baithan eginez, gure oinhaze haukiek gure bekhatuak baino arinagoak direla, sinhets dezagun Jaunaren azoteak, zeinetaz sehi batzu bezala gatzigatuak baikare, ethorri direla gure zentzarazteko, eta ez gure galtzeko.

28. Eta Oziasek eta zaharrek erran zaroten: Zuk erran guziak egiak dira, eta zure hitzetan ez da den-gutieneko erratekorik.

29. Orai beraz othoitz egizu guretzat, emazteki saindu eta Jainkoaren beldurdun bat baitzare.

30. Eta Judithhek ihardetsi zaroeten: Nola ezagutzen baituzue nik erran ahal dudana, Jainkoa ganikakoa dela,

31. Halaber frogazue hean Jainkoa ganikakoa den egiteko burutan hartu dudana, eta othoitz zazue Jainkoa gogor dezan ene gogoko asmua.

32. Gau buntan egonen zarete athean, eta ni ilkhiko naiz ene gelaria-ekin, eta othoitz egizue, Jaunak, erran izan duzuen bezala, bortz egunik barnean begira diozun Israelgo bere populuari.



33. Zuek berriz, ez dut nahi bilha zaizten ene asmuaz, eta neronek zuei berriak ekharri arteo, ez bedi bertzerik egin, baizik-ere gure Jainko Jaunari enetzateko orhoitzak.

34. Ozias Judako buruzagiak erran zaroen: Zoaz bakean, Jauna zurekin izan bedi gure etsaietarik asperkunde atheratzeko. Eta itzulirik goan ziren.

### IX. KAP.

1. Hekiek gibelerat egiten zutelarik, Judith sarthu zen bere othoitz-lekhuari; eta zurdatzu jauntzirik, hantsa ezarri zuen buruaren gainean, eta Jaunaren aitzinean ahuspeka, deihadar egiten zaroen Jaunari, zioelarik:

2. Ene aita Simeonen Jainko Jauna, ezpata eman zineroena arrotzen ganik begiratzeko, zeren beren tzarkerian bortxa egin zuten, eta dontzellari ahalke gorritan ixterra agertu zarotelakotz;

3. Hekien emazteak harrapakinera eta hekien alabak gathibutasunera, eta harrapakin guzia erdizkatzera eman zintuena zure zerbitzari, zure alderako kharrez gartu zirenei; hel zakizkio, othoi, ene Jainko Jauna, alhargun huni.

4. Ezen lehenbiziko sendagailak, gerokoak eta ondokoak zuk egin eta asmatu ditutzu; eta zuk zerorrek nahi izan duzuna da gerthatu.

5. Alabainan zure bide guziek aphainduak dira, eta zure erabakiak zure probidentzian jarri ditutzu.

6. Asiriarren kanpei begira zazu orai, lehen nahi izan zinaren beza-la begiratu Egiptoarren kanpei, harmaturik laster egiten zutenean zure zerbitzarien ondotik, beren sinhestea ezarriz orga-lasterretan, beren zaldierian eta gerlarien ostean.

7. Bainan begia eman zinduen hekien kanpen gainera, eta ilhunpeek itsutu zituzten.

8. Lezeak iduki zituen hekien zangoak eta urek estali zituzten.

9. Hala egin bekiote, Jauna, beren ostean sinheste dutenei, beren orga-lasterrez, mako, erredola, gezi eta lantzez espantu dutenei,

10. Eta ez dakitenei zu bera zarela gure Jainkoa, gerlak hastetik zebatzten dituzuna, eta Jauna dela zure izena.

11. Gora zazu zure besoa hastetik bezala, eta hautsazu zure indarrak hekien indarra; zure saindutegia bortxatzea, zure izenaren tabernaklea lohitzea, eta zure aldareko adarrak beren ezpataz jauzaraztea burutan dutenen indarra, zure hasarrearen azpira eror bedi.

12. Egizu, Jauna, haren beraren ezpataz ebak dadien haren hanpustasuna.

13. Bere begien segadan atzemana izan bedi ene baithan, eta jo zazu ene ezpainetako elhearen eztiak.

14. Ezar zazu ene ariman haren erdeinatzeko sendotasuna, eta haren eragozteko indarra;

15. Ezen zure izenaren aiphagarri izanen da, nola emazteki baten eskuaz hura duzun eragotzi.

16. Alabainan, Jauna, zure indarra ez datza ostean ez-eta zure oldea zaldien indarretan, eta hastetik hanpurutsuak ez dira zure gogarako izatu, bainan apha eta emeen othoitzak lakhet izan duzu.

17. Zeruen Jainkoa, uren kreatzailea, kreatura guzien Jauna, adi neza-zu ni, naizen herbala, zuri othoitzez eta zure urrikalmenduaren phekizian nagoena.

18. Orhoit bekizu, Jauna, zure lekhukotasuna; hitza ene ahoan ezar zazu, eta ene gogoa gogor zazu ene bihotzean, zure etxeak iraun dezan zure sainduespenean,

19. Eta jendaki guziek ezagut dezaten zu zarela Jainkoa eta zutaz bertzerik ez dela.

### X. KAP.

1. Bada, Jaunari oihu egitetik gelditu zenean, Jaunari ahuspez zagoen lekhitik jaiki zen.

2. Deithu zuen bere gelaria, eta bere etxera jautsirik, soinetik khendu zuen zurdatzu, eta erauntzi zuen bere alhargun jaunzkura.

3. Garbitu zuen bere gorphutza, gantzutu zen usain hoberenetik, aphaindu zuen bere buruko ilea, mothoa buruan ezarri zuen, jauntzi zituen bere boztasuneko soinekoak, oinetakoak ezarri zituen, hartu zituen eskumuthurrekoak, liliak, beharrietakoak eta erreztunak, eta bere edergailu guziez aphaindu zen.

4. Jaunak halaber dirdira bat eman zaroen, aphaindura hura oro etzelakotz lehia tzar batetarik heldu bainan-bai berthutetik; eta hargatik Jaunak berhatu zuen haren edertasuna, nihonereko edertasunean ager zedintzat guzien begien aitzinera.

5. Judithek beraz eman ziozkan bere gelariari xahato bat arno, gorgoila bat olio, irina, piko merlatuak, ogia eta gasna, eta abiatu zen.

6. Eta hiriko athera ethorri zenean, atzeman zituen begira zaudela Ozias eta hiriko zaharrak.

7. Ikhusi zutenean, harriturik handizki espantatu ziren haren edertasunaz.



8. Guzia gatik deusere galdatu gabe iragaitera utzi zuten, erraten ziotelarik: Gure arbasoen Jainko Jaunak eman biazazu grazia, eta bere indarraz hazkar beza zure bihotzeko asmua, zu baithan handiets dadien Jerusalem eta zure izena izan dadien sainduen eta zuzenen arteko.

9. Eta han ziren guziek hitz batean erran zuten: Halabiz, halabiz.

10. Judith berriz, Jauna othoiztuz iragan zen atheetan, bera eta bere gelaria.

11. Aldiz, gerthatu zen, menditik jausten zelarik argitzeko mugatsuan, atheratu zitzaizkola Asiriarren begiralariak, eta geldiarazi zuten erraten ziotelarik: Nondik heldu zare? edo norat zihoaz?

12. Hunek ihardetsi zuen: Hebrearren alaba naiz, hekiatarik ihes egin dut, zeren baitakit gerthatu behar dena, larrutzer a emanak izanen zaizkitzuela, zuek arbuatuz ez dituztelakotz beren oldetara, beren buruak eman nahikatu, urrikalpen aurkhitzekotzat zuen aitzinean.

13. Aria hortaz ene baithan egin dut, diodalarik: Goanen naiz Holofernes buruzagia gana, agertuko diozkat haukien gordekariak, eta erakhutsiko diot zer bidez atzemanen dituen, haletan non haren armada-ko gizon bakhar bat ez baita eroriko.

14. Eta gizon horiek aditu zituztenean Judithen solasak, begira zagokion haren begitharteari, eta begiak harrituak zituzten, ezen espan-tatuak ziren haren edertasunaz.

15. Eta erran zaroten: Zure bizia begiratu duzu gure nausia gana jaus-tekko asmua egin duzunean.

16. Jakizu bada, agertuko zarenean haren aitzinera, ongirik baizen ez darotzula eginen, eta guziz gogaragarri izanen zarozkiola haren bihotzari. Eta eraman zuten Holofernesen olhara, haren berria ematen zutelarik.

17. Eta sarthu zenean haren aitzinera, Holofernes berehala atzeman a izan zen begietarik.

18. Eta haren inguruko soldadoek erran zaroten: Nork arbuia Hebrearren populua, hunen emazte ederrak dituen, halaz non horien izateko baizik ez balitz ere, gudu eman behar baikinaroete?

19. Judithek beraz Holofernes ikhustearikin jarria bere olhan, zeina- ren oihala purpurazkoa baitzen, urhez, esmeraldaz eta harri baliosez ederztatua,

20. Eta begia altxatu zuenean haren begithartera, adoratu zuen lurre- rat eroririk. Eta Holofernesen zerbitzariak, xutitu zuten, beren nausiaren manuz.

## XI. KAP.

1. Orduan Holofernesek erran zaroen: Zaude deskantsu, ez izan bihotzean beldurrik; ezen ez darot egundaino bidegaberik egin errege Nabukodonosor zerbitzatu nahi izan duen gizon bati.

2. Aldiz, zure populuak ez banindu arbuia, ez nuen ene lantza haren gainera altxatuko.

3. Bainan orai, erradazu, zer ariaz urrundu zaren hekien ganik, eta nolaz gure gana nahi izan duzun ethorri?

4. Eta Judithhek ihardetsi zaroen: Onhets zatzu zure neskatoaren solasak, ezen zure neskatoaren solasei begiratzen bazare, Jaunak zurekin akhabatuko du gauza.

5. Ezen bizi bedi Nabukodonosor lurreko erregea, eta bizi bedi haren indarra, zeina zu baithan baitatza, makhur dabilzan guzien gazi- gatzeko; alabainan zure bidez, ez ezik gizonek zerbitzatzen dute, bainan oraino bazterretako abereek ere entzuten dute.

6. Ezen jendaia orotan aiphatua da zure izpirituko zuhurtzia, guziek badakite zu bakharrik zarela prestu eta ahalduna haren erresuma guzian, eta bazter orotan ez da aiphurik zure gerlaritasunaz baizik.

7. Akiorrekin erran duena ere ez da jakingabea, ez-etare zuk hartaz manatu duzuna.

8. Alabainan segur da gure Jainkoa hain gaitzitua dela populuaren bekhatuez, non bere profeten ararteko gaztiatu baitio etsaien eskuetara arthikiren duela bere bekhatuen gatik.

9. Eta nola Israelgo semeek baitakite Jainkoa dutela damuztatu, zure beldurra hekien gainean jarria da.

10. Bertzalde oraino, goseteak atzeman ditu, eta ur eskasak oraino ezarri ditu hilak iduri.

11. Azkenekoz jarri dira beren azienden hiltzera eta hekien odolaren edatera.

12. Eta beren Jainko Jaunaren gauza sainduak, ogi, arno, olio, zeinak ez ukitzeaz manatu baitu Jaunak, burutan hartu dute berek hekien ahitzea, eta eskuz ukitu ere behar ez lituzketenen jatea; beraz horiek egiten dituz- telakotz, segur da Jaunak xahutzer a emanen dituela.

13. Nik zure neskatoak bainakien hori, ihes egin dut hekien ganik, eta Jaunak igorri nau horien guzien zuri agertzera.

14. Ezen nik, zure neskatoak, adoratzen dut Jainkoa orai ere zure aitzinean; eta zure neskatoa ilkhiko da eta othoitz eginen dio Jainkoari;

15. Eta erranen darot niri noiz bihurtuko dioten horiei beren bekha- tuen saria, eta ethorriko natzaitzu erratera, haletan non eramanen baitzai-



tut Jerusalemen erditik, eta Israelgo populu guzia izanen duzu, artzainik ez duten ardi batzu iduri, eta zakhur bat ere ez da izanen zure kontra sain-gaturen duenik;

16. Ezen horiek oro niri erranak izan zaizkit Jainkoaren probidentziaz.

17. Eta nola horien kontra samurtua baita Jainkoa, hitz haukien zuri ekhartzera igorria naiz.

18. Bada solas horiek oro izan ziren Holofernesen eta haren zerbitzarien gogarako; espantatuak zauden haren zuhurtziaz, eta batak berzteari erraten zuten:

19. Lurraren gainean ez da hunelako emaztekirik, ez begiko, ez edertasunez, ez solasaren umotasunez.

20. Eta Holofernesek erran zaroen: Ongi egin du Jainkoak, populua aitzinean igorri zaituenak hura gure eskuetara dezazun;

21. Eta nola ona baita zure agintza, hori egiten badarot zure Jainkoak, ene Jainko ere izanen da; eta zu handi izanen zare Nabukodonosorren etxean, eta zure izena aiphamenetan izanen da lurraren buru batetik bertera.

## XII. KAP.

1. Orduan manatu zuen sarraraz zezaten haren khutxak zauden lek-hura, eta han egon zedin, eta mezutu zuen zer eman behar zitzaioen bere mahainetik.

2. Judithek ihardetsi zaroen eta erran: Ezin janen dut orai zuk niri emateaz manatu dituzun horietarik, Jaunaren hasarrea ene gainera ethor dadien beldurrez; bainan janen dut enetzat ekharri ditudan gauzetarik.

3. Holofernesek erran zaroen: Ekharri dituzun horiek eskas egiten badarotzute, zer eginen dugu zuretzat?

4. Judithek ihardetsi zuen: Bizi bedi zure arima, ene jauna, zeren zure neskatoak ez baititu guziak akhituko, Jainkoak ene eskuz, egin dezan baino lehen burutan hartu dudana. Eta Holofernesen zerbitzariak eraman zuten harek manatu olhara.

5. Sartzerakoan Judithek galdatu zuen, haizu utz zezoten gabaz kanporat ilkhitzea argitu aitzinean othoitzera eta Jaunari dei egitera goateko.

6. Eta Holofernesek manatu zaroten bere gelazainei, utz zezaten bere oldera atheratzera eta sartzera hirur egunez bere Jainkoaren adoratzeko.

7. Eta gabaz ilkhitzen zen Bethuliako haranera, eta ithurri bateko uretan garbitzen zen.

8. Eta igaitean, othoizten zuen Israelgo Jainko Jauna, aphain zezon bidea bere populua libratzeko.

9. Eta sarthurik, garbi egoten zen olharen barnean, bere janharia ilhuntean har zezan arteo.

10. Eta gerthatu zen laugarren egunean Holofernesek barazkari bat eman zaroetela bere zerbitzariei, eta erran zaroen Bagao bere ebakiari: Zoaz eta bil zazu emazteki hebrear hori enekin gogotik egotera.

11. Alabainan Asiriarren artean laidagarri da emazteki batek gizon batez irri egin lezan, haren ganik garbirik atheratuz.

12. Orduan Bagao goan zen Judithen gana, eta erran zaroen: Neskatz maitea, ez lotsa izan ene nausia baithara sartzeko, ohoratua izan zadientzat haren aitzinean, harekin jan dezazun eta arnoa bozkariotan edan dezazun.

13. Judithek ihardetsi zaroen: Zer naiz ni ene jaunari enferratzeko?

14. Eginen dut nik haren begien aitzinean on eta ongi izanen den guzia. Berriz, zer ere haren gogarako izanen baita, hura ene biziko egun guzietan enetzat hoberenik izanen da.

15. Eta Judith xutitu zen eta aphaindu zen bere soinekoez; sarthu zen Holofernesen gana eta jarri zen haren aitzinean.

16. Aldiz, Holofernesen bihotza joa izan zen, ezen Judithen ganako suak erretzen hari zuen.

17. Eta Holofernesek erran zaroen: Edan zazu orai, eta jar zaite bozkariotan jateko, ezen grazia aurkhitu duzu ene aitzinean.

18. Judithek ihardetsi zuen: Edanen dut, jauna, zeren egun ene arima goretsiagoa baita ene biziko bertze egun guzietan baino.

19. Eta hartu zituen bere neskatoak xuxendu ziozkan jatekoak, eta jan eta edan zuen Holofernesen aitzinean.

20. Eta Holofernes haren ariaz bozkarioz arindu zen, eta hanbat arno edan zuen, nola bere bizi guzian edan ez baitzuen.

## XIII. KAP.

1. Ilhuna ethorri zeneko, Holofernesen zerbitzariak higitu ziren beren lekhetara; Bagaok hertsi zuen gelako athea, eta goan zen.

2. Bada, arnoak arthikiak ziren oro;

3. Eta Judith bakharrik zen gelan.

4. Holofernes berriz, hordi arraila ohean lo zagoen.

5. Judithek bere neskatzari erran zaroen: Kanpoan gela aitzinean xutik egon zadien, eta begiak erne iduk zetzan.

6. Eta Judith bera ohearen aitzinean gelditu zen, nigarrekin othoitz egiten zuelarik, ezpainak ixil-ixila higituz,



7. Zioelarik: Jauna, Israelgo Jainkoa, hazkar nezazu, eta ordu huntan begira diozozu ene eskuetako lanari, gora dezazan Jerusaleme zure hiria, agindu duzun bezala; eta akhaba dezadan, zutaz egin ditakeelako ustean hartu dudan asmua.

8. Eta horiek erran ondoan, hurbildu zen Holofernesen ohe-burukitan zen habera, eta hari estekatua dilindan zagoen ezpata atheratu zuen.

9. Eta hura biluzi ondoan, iletik hartu zuen Holofernes, eta erran zuen: Jainko Jauna, hazkar nezazu ordu huntan.

10. Eta bietan jo zuen haren lepho-zakhia eta moztu zioen burua; gero hartu zuen habeetarik bela, eta anbildu zuen haren gorphutza motza.

11. Ilkhi zen aphurto baten buruko; bere neskatoari eman zaroen Holofernesen burua, eta manatu zaroen ezar zezan bere murtxilan.

12. Eta biak atheratu ziren, beren azturaren arabera, othoitzera goateko bezala; iragan zituzten kanpak, eta harana inguratuz, goan ziren hiriko athera.

13. Eta Judithek harrasietako zainei urrundik erran zaroeten: Idekatzue atheak, zeren gurekin baita Jainkoa, bere indarra Israelen agerarazi duena.

14. Eta zainek aditu zutenean haren mintzoa, deithu zituzten hiriko zaharrak.

15. Eta haren ganat ethorri ziren guziak ttipienetik handieneraino; alabainan etziren igurikitzen ordukotz ethorriko zela gehiago.

16. Eta argiak bizturik, haren ingurura bildu ziren oro; hura berriz, lekhu gorago batera iganik, manatu zituen ixiltzeaz. Guziak ixildu zirenean,

17. Judithek erran zuen: Lauda zazue gure Jainko Jauna, zeinak ez, baititu bazterrerat utzi haren baithan bere igurikitza ezarri dutenak.

18. Haren neskato naizenaren baithan bethe du bere urrikalpena, Israelgo etxeari agindu daroena; eta ene eskuz gau huntan hil du bere populuaren etsaia.

19. Gero murtxilatik harturik Holofernesen burua, erakhutsi zaroeten, erraten zuelarik: Huna Holofernes Asiriarren armadako aitzindariaren burua, eta huna hura hordia etzana zagoen oheko erridaua, eta han gure Jainko Jaunak jo baitu emazteki baten eskuaz.

20. Bainan Jainko bizia lekhuko, haren aingeruak begiratu nauela haratekoan, humatekoan eta han egotean, eta ez nauela utzi, ni, haren neskatoa, khutsatua izatera, bainan bekhatuaren likhitsik gabe zuetara bihurraziti nauela, haren garhaiziaz, ene itzurtzeaz eta zuen libratzeaz bozkariotan.

21. Aithor eman diozogun orok, zeren den ona, zeren menderen mendetan baitirau haren urrikalmenduak.

22. Bada, guziek adoraturaz Jauna, erran zaroten Judithi: Jaunak benedikatu zaitu bere indarrean, zeren zure eskuz ezdeusetaratu baititu gure etsaiak.

23. Aldiz, Oziasek, Israelgo populuaren buruzagiak, erran zaroen: Ene haurra, Jainko Jaun gorakoak lurreko emazteki guzien gainetik benedikatu zaitu.

24. Benedika bekio zeru-lurrak egin dituen Jaunari, zeinak zure eskua erabili baitu gure etsaien aitzindariari buruaren mozteko.

25. Ezik hanbat handietsi du egun zure izena, non mende orotan zure laudorioa ixilduren ez baita Jaunaren indarraz orhoit izanen diren gizonen ahoan, zeinentzat ez baituzu guphidetsi zure bizia, zure odolekoen hestura eta atsekabeen ariaz, bainan gu xahutzetik begiratzea gatik ethorri zare gure Jainkoaren aitzinera.

26. Eta populu guziak erran zuen: Biz biz!

27. Bada Akior deithua izanik, ethorri zen, eta Judithek erran zaroen: Israelgo Jainkoak, zeinari lekhukotasun bihurtu baitiozu bere etsai guziez dela aspturen, berak gau huntan ene eskuz ebaki du sinhestegabeko guzien aitzindariaren burua.

28. Eta froga athera dezazun hola dela, huna Holofernesen burua, zeinak bere hanpuruskeriaren ozartasunean arbiatu baitu Israelgo Jainkoa, eta zu heriotzez dixidatu baitzaitu, zioelarik: Israelgo populua hartua izanen denean, manatuko diat ezpataz sakhituak izan ditezen hire sahetsak.

29. Akhior berriz, lazturak hestutua Holofernesen burua ikhustearrekin, erori zen musuz lurrera, eta alditxartu zen.

30. Gero ordean, ezagutza bihurturik, ontsatu zenean, bere burua arthiki zuen Judithen oinetara, adoratu zuen, eta erran zaroen:

31. Zure Jainkoaz benedikatua zare Jakobene etxe guzian, ezen zure izena adituko duten jendaki orotan, zure ariaz goretsia izanen da Israelgo Jainkoa.

#### XIV. KAP.

1. Bada, Judithek erran zaroen populu guziari: Adi nezazue, anaiak; buru hori gure harrasietan ezar zazue dilindan;

2. Eta iguzkia atheratuko denean, bakhotxak har betza bere harmak, eta ilkhi zaitezte oldar handitan, ez beherera jausteko, bainan gudu ematera bazindoazte bezala.



3. Orduan begiralariet beharko dute gibelerat laster egin, beren buruzagiaren gudura deitzeko.
4. Eta hekien aitzindariet Holofernesen olhara laster eginen dutenean, eta hura atzemanen dutenean bururik gabe bere odolean igeri, izialdurak hartuko ditu.
5. Eta ezagutu dukezuenen ihes goanak direla, zohazkiote ausarki ondotik, zeren Jaunak lehertuko baititu zuen oinen azpian.
6. Orduan Akiorek ikhustenez Israelgo Jainkoak egin zuen sendagaila, utzirik jendaien jainkoizunen legea, sinhetsi zuen Jainkoa baithan, ingurebaki zuen bere haragia, eta iratxikia izan zen Israelgo populuari, haren odoleko ondorego guzia orai arteo den bezala.
7. Bada, egundu zueneko, Holofernesen burua harrasienean gainean dilindan ezarri zuten; gizon baxhotxak hartu zituen bere harmak, eta ilkhi ziren harramantz handitan eta marrumaka.
8. Hori ikhustearekin, begiralariet laster egin zuten Holofernesen olhara.
9. Bada, olhan zirenak ethorririk, gelako sartzean harrabots eginez ernaraztea gatik, xothillkerian hari ziren loaren haustera, Holofernes iratzarria izan zedin ez ernarazleez, bainan-bai harrabots-egileez.
10. Alabainan nihor etzaitheken ausarta Asiriarren buruzagiaren gela jotzera edo sartzekotzat idekitzera.
11. Bainan ethorri zirenean haren aitzindariak eta ehuntariak eta Asiriarren erregeren armadako lehenbizikoak, gelazainei erran zaroeten:
12. Sar zaitzete eta atzarraraz zazue, zeren arratoinak, ilkhirik beren xiloetarik, ausartatu baitira gudura gure deitzera.
13. Orduan Bagao sarthurik haren gelan, gelditu zen erridauaren aitzinean, eta esku zaflaka hasi zen, ezen uste zuen Judithekin lo zagoela.
14. Bainan nola ez baitzitzaioen beharrietara heldu etzana zenaren harrabotsik batere, erridauera hurbildu zen, eta hura altxaturik eta ikhusi-rik Holofernesen gorputza bururik gabe lurrean zatzala odolean igeri, oihu marraska handi bat egin zuen, eta soinekoak urratu zituen.
15. Eta Judithen olhan sarthurik, etzuen aurkhitu, eta kanporat ilkhi zen populuaren gana,
16. Eta erran zuen: Emazteki hebrear bakhar batek nahastura ezarri du Nabukodonosorren etxean; ezik huna Holofernes lurrean etzana eta bururik ez du hunen gorphutzak.
17. Asiriarren armadako aitzindariet aditu zutenean hori, urratu zituzten guziek soinekoak; ezin jasanezko beldur eta ikhara bat erori ziren hekien gainera, eta hekien izpirituak osoki nahasi ziren.

18. Eta ezin erranezko marraska bat altxatu zen hekien kanpen erditik.

## XV. KAP.

1. Armada guziak aditu zuenean Holofernesek burua moztua izan zuela, galdu zituzten izpiritua eta asmua, eta ikharaz eta izialduraz bakharrik erabiliak, ihesaz itzurtzera egin zuten,
2. Haletan non nihor ez baitzen bere lagunari mintzo, bainan buruak aphalt, oro utziz hari ziren ihes egitera Hebrearrei, zeinak aditzen baitzitzuzten harmaturik gainera heldu zitzaizkotela; eta ihes zoazen zelhaietako bideez eta mendietako bidexkez.
3. Hargatik Israelgo semeek, iheska ikhusi-rik, ondotik egin zaroeten. Turutak durrundatuz eta marrumaka jautsi ziren hekien ondotik.
4. Eta nola Asiriarrek ez baitziren bilduak eta ihes baitzoazen tarripataka, Israelgo semeek berriz, multzo batean ondotik eginez, sarraskitzen zituzten atzeman ahal zetzazketen guziak.
5. Hargatik Oziasek berriak igorri zituen Israelgo hiri eta bazter orotara.
6. Orduan hiri eta herri guziek gazteria hauta igorri zuten Asiriarren ondotik, eta ezpatarekin hilka jarraiki zitzaizkoten beren mugetako zedarrietaraino heldu arteo.
7. Aldiz, Bethulian ziren gainerakoak Asiriarren kanpetan sarthu ziren, eta Afriarrek ihes egitean utzi harrapakina hartu zuten eta haxe gaitzak egin zituzten.
8. Bethuliara garhaitiar bihurtu zirenek berriz, berekin ekharri zituzten Asiriarrenak izanak ziren guziak, haletan non ezin khondatuzkoak baitziren arthaldeak, abereak eta bertze puskak oro, ttipitik handiraino guzien aberasteko dira hekien buluzkinetarik.
9. Joazim berriz, aphez-handia, Jerusalemetik ethorri zen Bethuliara zahar guziekin Judithen ikhustera.
10. Judith ilkhi zenean haren gana, guziek benedikatu zuten hitz batean, erraten zutelarik: Zu zare Jerusalem ospea, zu Israelen bozkarioa, zu gure populuaren ohorea;
11. Ezen gizon bat bezala haritu zare, eta zure bihotza hazkartua izan da, garbitasuna maithatu duzulakoz, eta zure senharraren ondotik ez duzulakoz bertzerik ezagutu; horren gatik Jaunaren eskuak zaitu hazkartu, eta horren gatik benedikatua izanen zare menderen mendez.
12. Eta populu guziak erran zuen: Halabiz! halabiz!
13. Bada, Israelgo populuak hogoi eta hamar egunez doidoia bildu zituen Asiriarren buluzkinak.



14. Eta berriz, Judithi eman zarozten Holofernesenak izatutzat eza-gutuak izan ziren puskak, urhe, zilhar, soineko, harri balios eta tresnak oro, eta populuak eman ziozkan guziak.

15. Eta populuak oro, emaztekiekin, neskatxekin eta gizon-gazteekin bozkariotan hari ziren organoen eta gitarren jotzen.

### XVI. KAP.

1. Orduan Judithek Jaunari kantika hau kantatu zaroen huneletan:

2. Abia zaitzte Jaunaren ohoretan atabalen jotzen; Jaunaren laudorioak kanta zatzue zinbalekin; kantu berri bat kanta zozue, gorets eta deith zazue haren izena.

3. Gerlak zebatzen ditu Jaunak; Jauna da haren izena.

4. Harek ezarri ditu bere kanpak bere populuaren erdian, gure atertzeko gure etsai guzien aztaparretarik.

5. Asur mendietarik ipharraldetik ethorri da bere indarren ostean; haren osteak bethe ditu errekek, haren zaldiek estali dituzte haranak.

6. Erran du erreko dituela ene bazterrak, ezpataz sarraskituko dituela ene gizon-gazteak, emanen dituela ene haurrak harrapakara eta neskatxak gathibu.

7. Bainan guziz-ahaldunak, Jaunak jo du; emazteki baten eskuetara eman du, eta sakhitu du.

8. Ezen hekien buruzagia ez da gizon-gazteez izan arthikia, ez dute hura Titanen semeek jo, etzaizkio digante gaitzak zeherrera atheratu; bainan Judithek, Merariren alabak, bere begitharteko edertasunean hura du urmariatu.

9. Ezen erauntzi du alharguntasuneko jauntzia, eta bozkalentiako jauntzia du soineratu Israelgo semeen gorespeneko.

10. Baltsamuz gantzutu du bere begithartea, bere ile ederrak bildu ditu burukora, soin berri bat hartu du haren zoratzeko.

11. Judithen oinetakoek miretsi diozkate begiak, haren edertasunak gathibu ezarri dio arima, eta Judithek marrauzaz ebaki dio lephoa.

12. Persiarrak laztu dira haren gogo sendoaz, eta Mediarrak haren lotsagabetasunaz.

13. Orduan Asiriarren kanpak marraskaz eman dira, ene herritar gaitxoak, egarriak khaldatuak agertu direnean.

14. Neskatxen semeek sastakatu dituzte; hil dituzte ihes dohazen haur batzu bezala; ene Jainko Jaunaren aitzinean galdu dira guduak.

15. Himno bat kanta diozgun Jaunari; himno berri bat kanta diozgun gure Jainkoari.

16. Adonai Jauna, handia zare zu, zure indarrean oro z gainekoa, eta nihork ezin garhaitua.

17. Zure kreatura guziek zerbitza betzaitzate; zeren zuk erran, eta egin izan baitira; zure hatsa igorri duzu, eta sorthu dira, eta ez da zure ahoko hitzari gogor eginen duenik.

18. Mendiak urekin iharrosiko dira asentuetarik, eta harriak zure begithartearen aitzinean ezkoa bezala dira urthuren.

19. Zure beldur direnak ordean, orotan handi izanen dira zure baithan.

20. Zorigaitz ene populuaren gainera jakiko den jendakiari ezen Jaun guziz-ahaldunak asperkunde atheratuko du hekien gainean, eta ethorriko zatzaite bere erabakiko egunean.

21. Ezen sua eta harrak ezarriko ditu hekien haragietan, bethi guzian izan ditezen errekek eta oinhazetan.

22. Eta gero, populu guzia garhaiziaren ondotik Jerusalemara ethorri zen Jaunaren adoratzera, eta xahutu ziren bezain laster, guziek eskaini zituzten holokaustak, botuak eta beren agintzak.

23. Judithek berriz, ahazpeneko anathemetan eskaini zituen, Holofernesen gerlako tresna guziak, populuak eman zarozkanak, eta berak haren ohetik hartu zuen bela.

24. Aldiz populu bozkariotan zen lekhu sailduen aitzinean, eta garhaizia hortazko atsegina hirur hilabetez elebratua izan zen Judithekin.

25. Eta egun hekien buruan, bakhotxa bere etxera itzuli zen, eta Judith handi egina izan zen Bethulian eta Israelgo lur guziko ikhusiena zen.

26. Ezen haren baithan garbitasuna batua zen berthuteari, haletan non, Manase haren senharra hilez geroztik, ez baitzuen gizonik ezagutu bere biziko egun orotan.

27. Besta-egunetan berriz, ospe handirekin agertzen zen.

28. Bada, bere senharraren etxean egotu zen ehun eta bortz urthez; bere gelaria gathibugotik atheratu zuen, eta hil zen eta bere senharraren hobian Bethulian ehortzi zuten.

29. Populu guziak deithoratu zuen zazpi egunez.

30. Berriz, hura bizi izan zen, eta asko urthez hura hil ondoan, nihork etzen izatu Israelen asalatzeko.

31. Aldiz, garhaizia hartako besta-eguna, egun saildukilako idukia da Hebrearrez, eta ordutik eguna arteo bestatua da Juduez.



## ESTHER

### I. KAP.

1. Asueroren egunetan, zeina Indietarik Ethiopiaraino erreginatu baitzen seietan hogoi eta zazpi herrialderen gainean,

2. Bere erresumako tronuan jarri zenean, Susango hiria zen haren erresumako burua.

3. Bere erregetasuneko hirugarren urthean beraz, besta handi bat eman zaroeten bere aitzinean buruzagi guziei, bere zerbitzariei, Persiar hazkarrenei, Mediar ikhusienei, eta herrialdeetako buruzagiei,

4. Denbora luze batez, erran nahi bederatzitan hogoi egunez, erak-hustekotzat bere erreinuko aberastasunak eta ospea, eta bere botherearen handia eta leloa.

5. Eta bestako egunak akhabatzera zihoazelarik, deithu zuen Susanen aurkhitu zen populu guzia, handienetik ttipieneraino; eta manatu zuen, zazpi egunez barazkaria aphaint zezaten bere baratzeko eta erregeek berregintza handitan beren eskuz landatu zuten zuhaztiko sartzean.

6. Eta alde orotarik baziren oihaleria batzu, zuriak, moredinezkoak eta zerukarakoak, dilindan idukiak liho hautazko eta purpurazko lokharri batzuz, zeinak sarthuak baitziren boliazko erreztunetan, eta marmolazko habe batzuek idukitzen zituzten. Urhezko eta zilharrezko ohe batzu ere lerroka ezarriak ziren esmeraldez eta Parosko marmolaz eginikako galtzadaren baten gainean, zeina harrigarri ederki karantzatua baitzen.

7. Deithuak zirenek berriz, urhezko xatetan edaten zuten, eta jakiak ekhartzela zituzten asko moldetako untzietan. Arnoa ere hoberenetik eta nasaiki ematen zuten, erregeren handitasunari zihoakien bezala.

8. Nihork etzuen edatera hertsatzen nahi etzuen; baina erregeek manatu bezala, mahain-buru bakhotxean, ezarria zen haren azpiko aitzindarietarik bat, batbederak har zezan nahi zukeena.

9. Basthi erreginak halaber emazteki barazkari bat eman zuen, Asuero erregea egoten ohi zen jauregian.

10. Beraz zazpigarren egunean, nola harrotua baitzen errege, eta sobera edanik arnoak berotu baitzuen, manatu zaroeten Maumami, Bazathari, Harbonari, Baeathari, Abgathari, Zetharri eta Karkasi, haren aitzinean zerbitzatzen zuten zazpi ebakiei,

11. Erregeren aitzinera sarraraz zezaten Basthi erregina, diadema buruaren gainean ezarririk, populu guziei eta aitzindarietarako erak-hustekotzat haren edertasuna, ezik hainitz zen ederra.

12. Hunek etzuen nahi izan, eta nardatu zen ethortzeaz erregeek bere ebakiez bidali zituen manura. Hortaz hasarreturik eta khe handitan jarriarik, erregeek

13. Mintzatu zituen haren aldean bethi, erregeen azturara egoten ziren zuhurak, eta zeinen erranetik egiten baitzituen oro, bazakitzatela-kotz arbasoen legeak eta ohitzak.

14. (Bada, lehenak eta hurbilenak ziren Karsena, Sethar, Adamatha, Tharsis, Mares, Marsana eta Mamukan, Persiarren eta Mediarren zazpi buruzagiak, erregeren begithartea ikhusten zutenak, eta haren ondotik lehenbizikorik jartzten ohi zirenek.)

15. Galdatu zaroeten zer gaztiguren azpira eroria zen Basthi erregina, zeinak ez baitzuen nahi izan bethe errege Asuerok ebakiez igorri manamendua.

16. Eta erregeek eta aitzindarietarako aditzen zutelarik, Mamukanek erran zuen: Basthi erreginak damu egin du, ez ezik erregeri bakharririk, baina oraino populu guziei eta errege Asueroren bazter orotan diren aitzindarietarako.

17. Ezen erreginaren solasa ilkhiko da emazteki guzietara, arbuia detzaten beren senharrak eta erran dezaten: Errege Asuerok manatu dio Basthi erreginari ager dadien haren aitzinera, eta harek ez du nahi izatu.

18. Eta irakhasbide horren ariaz, Persiar eta Mediar aitzindarietarako emazte guzietarako axolarik ez dute idukiko beren senharren manuez: horren gatik bidezkoa da erregeren samurra.

19. Baldin zure gogarako balitz, zure izenean ilkhi bedi, eta Persiarren eta Mediarren legearen arabera iskribatua izan bedi erabaki bat, zeinaren haustea zilhegi ez baita, Basthi erregina ez dadien ager gehiago erregeren aitzinera, baina hura baino hobea den bertze batek har dezan haren erreginatasuna.

20. Eta hori oihu egin izan bedi zure erresuma guziz zabaleko herrialde orotan; eta nahiz ttipien, nahiz handien emazte guzietarako beren senharrei ohore bihur biozote.

21. Mamukanen solasa erregeren eta aitzindarietarako gogarako izan zen; eta erregeek haren erranetik egin zuen.

22. Gutunak bidali zituen bere erresumako bazter orotara, hizkuntza eta letra berezietan, jendaki bakhotxak adi eta irakur izan ahal zezan, senharrak buruzagi eta nausi zirela beren etxetan; eta hori oihu egin izan zela populu guzietan.





## II. KAP.

1. Horiek hola gerthatu ondoan, Asueroren hasarrea jabaldu zenean, orhoitu zen Basthiz eta harek egin edo jasan zuenaz.

2. Eta erregeren sehi eta zerbitzariak erran zuten: Erregerentzat bilha beitez neskatxa dontzella eta ederrak,

3. Eta lekhu guzietara igor beitez gizonak, neskatxa eder eta dontzellak begizatuko dituztenak; Susango hirira erakhar eta emaztekien etxean eman betzazte Eyeo ebakiaren eskuan, zeina baita errege andreez kargutua eta zaintzen baititu, eta har betzazte emazteki aphaindura eta bertze premiazko direnak.

4. Eta guzien artean erregeren gogarako izanen dena, hura erreginatuko da Basthiren orde. Erregek ongi hartu zuen solasa, eta manatu zuen egin zedin hekiek erran bezala.

5. Susango hirian bazen gizon judu bat Mardoqueo deitzen zena, Jairren semea, Jair Semeiren seme baitzen, eta Semei Zis Jeminitarrarena.

6. Hura Jerusalemetik erakharria izan zen, Nabukodonosor erregeak Babilonara erakharri zuenean Jekonias Judako errege.

7. Aitordetzat baliatu zitzaioen bere anaiaaren alabari, zeina deitzen baitzen Edisa edo bertzenaz Esther. Hau burhasoz gabetua zen, ederra osoki eta begitharte arraiekkoa. Eta ait-amak hil zitzaizkonean, Mardokeok alabatzen hartu zuen.

8. Noiz-etare hedatu baitzen erregeren erabakia, eta haren manuz hainitz neskatxa eder erakhartzen baitzituzten Susanera, eta Eyeo ebakiaren eskuetara ematen, Esther ere bertze neskatxekin emana izan zen, emaztekien artean begiratua izateko.

9. Estherrek aurkhitu zaroen eta grazia izan zuen haren aitzinean. Eta harek manatu zaroen ebaki bati laster xuxen zezan emazteki aphaindura bat, eta Estherri eman ziotzon behar zituenak, eta zazpi neskatxa guziz ederrak erregeren etxetik, eta aphaint eta artha zetzan hura eta haren ondoko neskatxak.

10. Estherrek etzaroen agertu nahi izan zein jendakitarik eta zein herritakoa zen; zeren Mardokeok manatu baitzaroen, gauza hortaz niho-lerre ixilik egon zedin.

11. Mardoqueo egun oroz hara-hunaka bazabilan neskatxa hautatuak begiratzen ziren etxe-sartzeko aitzinean, Estherren gaineko grinaz, eta zer gerthatuko zitzaioen jakin nahiz.

12. Bada, neskatxa bakhoxari lerroan ethorri zitzaioeneko erregeren aitzinera agertzeko ordua, emazteki aphaindurari dihoazkion guziak egin

ondoan, hamabi hilabete iragaiten ziren, hunela bizkitartean non sei hilabetez mirra-olioz gantzutzen baitziren, eta bertze seiez zerbitzaten baitziren asko usain on eta baltsamuz.

13. Eta erregeren gana sartzera, aphaindurari datxikon edozein gauza galda zezaten, izaten zuten, eta beren gogara aphaindurik iragaiten ziren emaztekien gelatik erregerenera.

14. Eta arratsean sarthu zena ilkhitzen zen goizean, eta handik eramaten zuten bertze barne batzuetara, zeinak baitziren erregeren ohaideez artha zuen Susagazi ebakiaren eskupeko; eta haina etzaitkeen gehiago erregeren gana bihur, non etzuen erregek nahi eta ethor zedin bere ize-nez manatu.

15. Bada, denbora bethe zenean, ethorri zen eguna non Esther, Mardoqueoaren anaia Abihailen alaba, Mardokeok bere alabatzen hartu zuena, erregeren gana bere aldian sarthu behar baitzen. Estherrek etzuen galdatu emazteki edergailurik, baina Eyeo ebakiak, neskatxen zainak, aphaintzeko eman ziozkan berak nahi zituen guziak. Ezik Esther guziz ongi irazkia zen, eta bere ezin sinhetsizko edertasunarekin esker gozokoa eta maithagarria zen guzien idurira.

16. Errege Asueroren gelara eramana izan zen beraz, hamargarren hilabetean, zeina deitzen baitzen tebeth, haren erregetasuneko zazpigarren urtean.

17. Eta erregek maithatu zuen bertze emazteki guziak baino gehiago; Estherrek haren baithan izan zuen emazteki guzien gainetik esker eta begitharte; Asuerok buruan ezarri zaroen erregina-diadema, eta erregina-razi zuen Basthiren orde.

18. Eta barazkari nihonereko bat manatu zuen aphaindua izan zedin aitzindari guziei eta bere zerbitzariari, Estherren ezkontzako eta ezteietako. Populu guziei eman zaroeten phausua, eta egin zituen emaitza batzu printze baten bizartasunaren arabera.

19. Eta bigarren ezkontzakotzat neskatxak bilhatzen eta erakhartzen zituztenean, Mardoqueo egoten zen erregeren athean.

20. Haren manuaren arabera, Estherrek etzitzen oraino agertu ez bere sorlekhu, ez populua. Ezen Estherrek egiten zituen harek manatu guziak, eta oro egiten zituen hala-nola ohi baitzuen haurttoa hazten zuenean.

21. Beraz Mardoqueo erregeren athean egoten zen denboran, Bagathan eta Thares, erregeren bi ebaki, athalzain eta jauregiko lehenbiziko sartzaz kargutuak zirenak, samurtu ziren, eta nahi izan zuten erregeri jazarri eta hura hil.



22. Mardoceok etzuen hori gorde, eta berehala jakinarazi zaroen Esther erreginari, eta hunek erregeri Mardoceoren izenean, zeinak argitu baitzuen gauzaz.

23. Hortaz bilhatu eta egia atzeman zen ondoan, habe batetik urkha-tuak izan ziren bi ebakiak. Eta erregeren manuz, liburuetan eta urteko istorioan ezarria izan zen hori.

### III. KAP.

1. Horiez geroztik, Asuero erregeak altxatu zuen Aman Amadathiren semea, zeina Agagen odolekoa baitzen; eta haren jarlekhua ezarri zuen bere azpian zituen aitzindari guziak baino gorago.

2. Eta jauregiko atheetan ziren erregeren zerbitzari guziek belhaunaz lurrerat egiten eta Aman adoratzeko zuten; ezen erregek hala manatu zuten; Mardoceok bakharrik etzuen belhaunaz lurra jotzen ez-eta Aman adora-tzen.

3. Jauregiko atheak zaintzen zituzten erregeren muthilek Mardoceori erran zaroten: Zergatik bertzeek bezala ez duzu begiratzeko erregeren manamendua?

4. Eta nola hori askotan erran baitzaroten eta harek ez baitzuen nahi entzun, jakintsun egin zuten Aman, ikhustea gatik hean bere hartan gogortuko zen Mardoceo; hunek ezik erran zaroeten Juduetarik zela.

5. Amanek hori aditu zuenean eta froga egin ondoan etzaroela Mardoceok belhauna lurreratzen eta etzuela adoratzeko, sumindu zen gogorki,

6. Eta ezdeusentzat iduki zuen bere eskuak Mardoceo bakharraren gainean ematea; ezik aditua zen judu jendakitik zela; eta nahiago izan zuen galdu Asueroren erresuman ziren Juduen jendaki guzia.

7. Lehenbiziko hilabetean (zeina deitzen baita nisan), Asueroren erregetasuneko hamabigarren urtean, Amanen aitzinean untzira arthikia izan zen hebraraz phur deitzen den zortea, jakiteko hean zein egunez eta zein hilabetez behar othe zen heriotzetan ezarri Juduen jendakia; eta atheratu zen hamabigarren hilabetea, adar deitzen dena.

8. Eta Amanek erran zaroen Asuero erregeari: Bada populu bat zure erresumako herrialde orotan barraiata, eta bat bertzea ganik berezia, lege eta zeremonia berri batzuz zerbitzatzen dena, eta gehiago oraino, zure manamenduz erdeinu duena. Eta arras ongi badakizu zure erresu-marentzat ez dela on hura ozartzerat utz dadien.

9. Baldin zure gogarako bada, mana zazu gal dadien, eta zure khu-txazainei emanen diozkatet hamar mila talendu.

10. Erregek bere erhitik atheratu zuen beraz zerbitzatzen ohi zuen erreztuna, eta eman zaroen Amani, Amadathiren semeari, Agagen odole-koari, Juduen etsaiari,

11. Eta erran zaroen: Zurea izan bedi agintzen duzun dirua; populuaz egizu nahi duzuna.

12. Eta nisan deitzen den lehenbiziko hilabetean, hilabete hartako hamahirugarren egunean, deithuak izan ziren erregeren iskribauak; eta Amanek manatu bezala, Asuero erregearen izenean iskribatua izan zen erregeren satrapa guziei, herrialdeetako eta jendaia berezietako juieei, beren mintzaia berezietan, jendaia bakhotxak irakur eta entzun ahal izan zezantzat; eta gutunak, erregeren erreztunaz joak,

13. Herrialde guzietara igorriak izan ziren erregeren lasterkariekin, hil eta xahu zetzaten Juduak oro, ttipitik zaharrera, haurrak eta emaztekiak, egun bakhar batez, erran nahi baita adar deitzen zen hilabetearen hamahirugarrenean, eta jabe zitezen hekien ontasunez.

14. Eta hau zen gutunek zakhartena, herrialde guziak jakintsun egin eta erran den eguneko abian eman zitezentzat.

15. Igorriak ziren lasterregileak, higitzen ziren erregeren manuaren bethetzera. Eta berehala erabakia Susanen afixatua izan zen, erregek eta Amanek barazkari handi bat zutelarik, eta hirian ziren Judu guziak nigar-rren erdian.

### IV. KAP.

1. Mardoceok jakin zuenean hori, urratu zituen bere soinekoak, eta zaku bat jauntzi zuen, burua hautsez estaltzen zuelarik; eta hiriko plaza-ren erdian deihadarka haritzen zen, erakhutsiz bere bihotzeko atsekabea,

2. Eta jauregiko atheraino ethorritz marraskaka; ezik etzen haizu erregeren ezkabatzera sartzea zakhua jauntzia zuenik.

3. Herrialde guzietan ere, hiritan eta bertze lekhuetan, zeinetara heldu izan baitzen erregeren manu odolezkoa, heiagora handiak, barurak, marras-kak eta nigarrak ziren Juduen artean, eta hainitzek zakhua eta hautsa zituz-ten ohetzat.

4. Bada Estherren neskatxak eta ebakiak sarthu ziren eta eman zaro-ten berria. Hori aditzearekin, lastu zen. Aldagarri bat igorri zaroen Mardoceori, jauntz zezan zakhua khendurik; bainan etzuen nahi izan.

5. Estherrek deithurik Athak ebakia, erregek zerbitzaritzat eman zaroena, Mardoceoren gana goateaz manatu zuen eta haren ganik jakiteaz zertako egiten zuen hala.



6. Athak ilkhirik goan zen Mardoqueo gana, zeina xutik baitzagoen hiriko plazan, jauregiko athe aitzinean.

7. Mardokeok jakintsun egin zuen gerthatu ziren guziez, nola Amanek agindu zuen dirua erregeren khutxetara ekhartzea Juduen heriotzearen ordain.

8. Eman zaroen halaber Susanen afixatua zen erabakiaren kopia bat, erakhuts zezon erreginari eta erran zezon goan zadien erregeren gana bere popularentzat othoiztera.

9. Gibelerat itzulirik, Athakek Estherri ekharri zaroen Mardokeok erran zituen guzien berria.

10. Estherrek ihardetsi zaroen eta manatu zuen erran zezon Mardokeori:

11. Erregeren zerbitzari guziek eta haren azpiko herrialde orok bada-kite, nahiz gizona, nahiz emaztekoa, deithua izan gabe sarthuko dena erregeren salha barnekoan, luzatzerik gabe berehala heriotzetan ematen dela, baldin erregek urhe-zaharoa hedatzen ez badio barkhatiartasuneko eza-gutgailutzat, eta haletan bizi ahal dadien. Ni beraz nola sarthuko ahal naiz erregeren gana, ez nauenez geroz bere gana deithu hogoi eta hamar egun hautan?

12. Mardokeok aditu zuenean hori,

13. Estherri gaztiatu zaroen berriz, zioelarik: Ez dezazula uste izan, Juduak oro galtzen badira, zure bizia bakharrik atheratuko duzula, zeren zaren erregeren etxean.

14. Ezen baldin orai ixilik egoten bazare, Juduak bertze zerbaite bidez salbatuak izanen dira; eta zu, eta zure aitaren etxea, galduko zarete. Eta nork daki hean etzaren hortakotzat erreginatasunera heldu izan, hunelako orduan baliatzeko?

15. Estherrek berriz gaztiatu zaroen Mardokeori:

16. Zoaz; bil zatzu Susanen aurkhituko ditutzun Judu guziak, eta othoitz egizue enetzat. Ez bezazue ez jan, ez edan hirur gau-egunez; eta nik orobat ene neskatxekin barur eginen dut, eta orduan erregeren gana sarthuko naiz, legearen kontra goanez, deithua izan gabe, eta ene burua heriotzearen zorian ezarriz.

17. Hargatik goan zen Mardoqueo, eta Estherrek manatu ziozkan guziak egin zituen.

## V. KAP.

1. Bada, hirugarren egunean Estherrek jauntzi, zituen erregina-soi-nekoak, eta xutik eman zen errege-etxeko barneko salhan, erregeren gela-

ko parrean; eta errege bere tronuan jarria zagoen jauregiko zolan, gelako athearen parrean.

2. Eta xutik ikhusi zuenean Esther erregina haren begien atsegingarri izan zen, eta hedatu zaroen eskuan zadukan urhe-zigorra. Hurbiltzean Estherrek musu eman zaroen zigorraren mokoari.

3. Eta erregek erran zaroen: Zer nahi duzu, Esther erregina? zer da zure galdea? galda bazineza ere erresumaren erdia, emana izan lakikezu.

4. Estherrek ihardetsi zuen: Baldin erregeren gogarako balitz, othoizten zaitut ene gana ethor zaitezten egun, eta Aman zurekin, nik aphaindu barazkarira.

5. Eta erregek erran zuen ordu berean: Aman deith zazue berehala, Estherren nahira jauts dadien. Hargatik errege eta Aman ethorri ziren erreginak aphaindu barazkarira.

6. Eta erregek erran zaroen, arno ausarki edan ondoan: Zer galdatzen duzu eman dakizun? eta zeren galdea duzu? galda bazineza ere ene erresumaren erdia, ardietsi zinezake.

7. Estherrek ihardetsi zaroen: Ene galdea eta othoitzak haukiek dira:

8. Baldin grazia aurkhitu badut erregeren aitzinean, eta erregeren gogarako bada niri ematea galdatzen dudana, eta ene galdea bethetzea, errege eta Aman ethor beitez hekientzat aphaindu dudana barazkarira, eta bihar agertuko diot erregeri ene nahikaria.

9. Hargatik egun hartan Aman ilkhi zen bozik eta arinik. Eta ikhusi zuenean Mardoqueo jauregiko atheetan jarria, eta ez ezik etzitzaioela xutitu, bainan higitu ere etzela jarria zaroen tokitik, gaitzidura minean sarthu zen;

10. Eta bere sumindura itzaliz, sarthu zen etxera, eta bilarazi zituen bere adiskideak eta Zares bere emaztea.

11. Erakhutsi ziozkatzen bere aberastasun handiak, bere haurren mol-tzoa, eta zer ospe handitan erregek altxatu zuen aitzindari guziez eta bere zerbitzarietz gorago.

12. Eta horien ondotik erran zuen: Esther erreginak ere nihor ez du nitaz bertzerik erregerekin barazkarira galdatu: bihar ere haren baithan erregerekin barazkaldu behar dut.

13. Eta horiek oro ditudan arren, deusere badudala etzait iduri, Mardoqueo Judua erregeren atheetan jarria ikhusiko dudano.

14. Eta Zares haren emazteak eta bertze adiskideek ihardetsi zuten: Mana zazu xuxent dezaten urkhabe gora bat, berrogoi eta hamar besotan iganen dena, eta bihar goizean errozu erregeri Mardoqueo haren gainetik urkhatua izan dadien, eta hola bozik goanen zare erregerekin barazkaite-



ra. Solasa haren gogarakoa izan zen, eta manatu zuen xuxent zezaten gurutze gora bat.

## VI. KAP.

1. Erregek gau hura iragan zuen lorik gabe, eta manatu zuen ekhar zetzoten iragan denboretako istorioak eta urthe-gerthakariak. Haren aitzinean irakurtzen zituztelarik,

2. Ethorri ziren lekhu hartara, zeintan iskribatua baitzen nola Mardoceok agertu zituen Bagathan eta Phares ebakien zelatak, errege Asuero hil nahi zutenenak.

3. Erregek aditu zuenean hori, erran zuen: Zer ohore eta sari izan ditu Mardoceok horrelako fideltasunaren ariaz? Bere zerbitzariak eta ministroek ihardetsi zaroten: Ez du saririk batere izatu.

4. Eta erregek erran zuen berehala: Nor da ezkaratzean? Ezik Aman errege etxeko ezkaratz barnekoan sarthua zen, erregeri burutan emateko mana zezan Mardoceo urkhatua izan zedin harentzat xuxendua zen habetik.

5. Sehiek ihardetsi zuten: Aman da ezkaratzean. Eta erregek erran zuen: Sar bedi.

6. Eta Aman sarthu zenean, erran zaroen: Zer egin behar zaio erregek ohoratu nahi duen gizonari? Amanek aldiz, bere bihotzean eginez eta ustez bera baizik nihor etzela bertzerik erregek ohoratu nahi zukeenik,

7. Ihardetsi zuen: Erregek ohoratu nahi duen gizona,

8. Errege soinekoz izan behar da jauntzia, eta ezarria erregeren azpian ibiltzen den zaldi baten ganean, burura harturik errege-diadema;

9. Erregeren aitzindari eta buruzagietarik lehenbizikoak atxik beza haren zaldia, eta hiriko plaza gairi goanez, oihiu egin eta erran beza: Hunela izanen da ohoratua erregek ohoratu nahiko duena.

10. Eta erregek erran zaroen: Higi zaite, eta soina eta zaldia harturik, erran duzun bezala egiozu Mardoceo Juduari, jauregiko athean jartzen denari. Berautzu erran dituzun guzietarik deusere ahanztetik.

11. Amanek beraz hartu zituen soina eta zaldia, eta Mardoceori soina hiriko plazan jauntzirik eta hura zaldiaren ganean ezarriarik, haren aitzinean bazihoan eta oihiu egiten zuen: Ohore hau du merezi, erregek ohoratu nahiko duenak.

12. Eta Mardoceo bihurtu zen jauregiko athera; eta Aman lehen-bai-lehen goan zen bere etxera nigarrez eta burua estalirik.

13. Eta erran zarozten Zares bere emazteari eta bere adiskideei gertatu zitzaizkon guziak. Bere biltzarrean zituen zuhurrek eta bere emazteak ihardetsi zaroten: Juduen odoletikakoa bada Mardoceo, zeinaren

aitzinean erortzen hasi baitzare, ezin itxikiko diozu buru, bainan eroriko zare horren aitzinean.

14. Oraino mintzo zirelarik, ethorri ziren erregeren ebakiak, eta hertsatu zuten erreginak aphaindu barazkarira goatera berehala.

## VII. KAP.

1. Errege eta Aman sarthu ziren beraz erreginarekin edatera.

2. Eta bigarren egunean ere, erregek, arnoak berotu zuen ondoan, erran zaroen erreginari: Esther, zer galdatzen duzu eman dakizun? zer nahi duzu egin dadien? galdatzen bazindu ere ene erresumaren erdia, ardiets zinezake.

3. Estherrek ihardetsi zaroen: Oi errege, grazia aurkhitu badut zure begietan, onhets diezadatu bizia, zeinarentzat, othoitzez bainagozu, eta ene populua, zeinarentzat, errekeitzen baitzaitut.

4. Ezen ni eta ene populua arthikiak gare lehertuak, sarraskituak eta galduak izateko. Eta oxala gathibutzat salduak bagindedi! jasankizun lizate zorigaitza, eta ixilik niagoke auhenekin; bainan orai etsai bat badugu zeinaren odolgirotasuna erregeren gain bihurtzen baita.

5. Eta errege Asuerok ihardestean erran zuen: Nor da hura, eta zer ahaletakoa da horren egitera ausartatzeko?

6. Eta Estherrek erran zuen: Gure etsai eta ixterbegi guziz gaixto hura, Aman da. Hori aditzearekin, Aman harritua gelditu zen, ezin jasan ez erregeren eta erreginaren begitharteak.

7. Errege berriz, hasarretan jaiki zen, eta barazkariko tokitik goan zen baratze zuhaitzez bethe batera. Aman ere xutitu zen Esther erreginaren othoizteko bere biziarentzat; ezagutu zuen ezik zer asturu zadukan erregek harentzat.

8. Errege itzuli zenean baratze zuhaitsetatik eta barazkariko lekhuaz sarthu zenean, atzeman zuen Amanek bere burua arthiki zuela Esther etzana zen ohearen gainera, eta erran zuen: Zer erreginari ere ene etxean, ene aitzinean bortxa egin nahi dio! Hitzaz erregeren ahotik atheratu orduriko, Amani berehala estali zaroten begitharteak.

9. Eta Harbonak, erregeren zerbitzuan zaroen ebakietarik batek erran zuen: Amanen etxean bada berrogoi eta hamar besoz gora den urkhabe bat, xuxendu zuena Mardoceorentzat, zeina erregeren onetan mintzatu baita. Erregek ihardetsi zaroen: Hau urkha zazue hartarik.

10. Hargatik Aman urkhatua izan zen Mardoceorentzat xuxendu zuen urkhabetik, eta jabaldu zen erregeren hasarrea.



### VIII. KAP.

1. Egun hartan Asuero erregeak Aman Juduen etsaiaren etxea eman zaroen Esther erreginari, eta Mardoeko agertu zen erregeren aitzinera; ezen Estherrek aithortu zaroen bere osaba zuela.

2. Eta erregek hartu zuen Amani khenarazi zaroen erreztuna, eta Mardokeori eman zaroen. Estherrek berriz, Mardoeko ezarri zuen bere etxearen buruan.

3. Horiek ez askiz, bere burua nigarrez arthiki zuen erregeren oinetara, eta mintzatu zitzaioen othoizka mana zezan alferretara bihur zitezen Aman Agagtarraren gaixtakeria eta Juduen kontra asmatu zituen zimarku tzarrak.

4. Erregek eskuaz hedatu zaroen ohitzaren arabera urhezko errege-makhila, zeintaz egiten baitzen barkhatiartasuneko ezagutkaria. Eta erregina jaikirik, xutik eman zen erregeren aitzinean,

5. Eta erran zuen: Erregek atsegin badu, eta beren begietan grazia aurkhitu badut, eta ene othoizta ez bazaio desgogarako, errekeiez nago gutun berri batzuz oneratuak izan ditezen Aman Juduen zelatari eta etsaiaren lehenagoko gutunak, zeinetaz erregeren herrialde orotara igorri baitzuen Juduen galtzeko manua;

6. Ezen nola jasanen ahal ditut ene herritarren sarraskia eta heriotzea?

7. Errege Asuerok ihardetsi zaroten Esther erreginari eta Mardoeko Juduari: Estherri eman diot Amanen etxea, eta manatu dut Aman bera izan zadien gurutzeari lothua, zeren ausartatu den bere eskua Juduen gainean ezartzera.

8. Iskriba zazue beraz Juduei zuen gogoko den bezala erregeren izenean, gutunak joz ene erreztunaz. Ezen hau zen ohitza, erregeren izenean igorririkako gutunei eta haren erreztunaz joak zirenei nihor ez baitzen enferrarik egitera ausartatzen:

9. Eta erregeren gutun-egileak eta iskribauak deithurik, (bada, hura zen hirugarren hilabete, siban deitzen zenaren erditsua), hilabete haren hogoi eta hirugarren egunean gutunak iskribatuak izan ziren, Mardoekok nahi izan zuen bezala, Juduei, eta Indietarik Ethiopiarainoko seietan hogoi eta zazpi herrialdeen buruko ziren buruzagi, aitzindari eta juieei, eta herrialde bakhoxari, jendaki bakhoxari eta Juduei, zeini bere mintzaia eta letraz, orok irakur eta adi zetzaztentzat.

10. Eta erregeren izenean igortzen ziren gutun horiek haren erreztunaz joak izan ziren eta bidaliak lasterregile batzuez, zeinek herrialde guziak gaindi laster eginez, gutun zaharrak aitzin zetzaztentzat geroztikako berriez.

11. Erregek manatu zaroten Juduen gana goan zitezen hiri bakhotean, eta batera bilaraz zetzazten beren bizien zain egoteko, beren etsai guzien hiltzeko eta xahutzeko hekien emazte, haur eta etxeekin, eta hekien buluzkinez jabetzeko.

12. Eta herrialde guzietan egun bat izan zen ezarria asperraldi horrentzat, erran nahi da adar deitzen den hamabigarren hilabete hamaahirugarren eguna.

13. Eta hau zen gutun harek zadukana, jakina izan zedin errege Asueroren azpiko ziren lur eta populu guzietan, Juduak beren etsaietarik asperkunde atheratzera abian zirela.

14. Eta lasterregileak ilkhi ziren berrien zalhuki eramatera, eta erregeren erabakia Susanean afixatua izan zen.

15. Mardoekok berriz, jauregitik eta erregeren aitzinetik ilkhirik, distirutzen zuen errege-soinekoekin, erran nahi da moredin eta zeru-koloreekin, urrezko khoro bat zuelarik buruan, eta sedazko eta purpurazko kapa bat soinean. Eta hiri guzia bozkarioz jauzi zen.

16. Bada, argi berri batek iduri zuen ilkhitzen zela Juduen gainera, bozkario, ohore eta bestak.

17. Populu guzien artean, hirietan eta herrialdeetan, erregeren manuak heltzen ziren toki guzietan, harrigarriko bozkarioa zen; janthor-du, barazkari eta bestarik baizen etzen, hanbatetaraino non bertze jendaki eta sinhesteko ziren asko bildu baitzien Juduen erliyione eta zeremonietara; ezen judu izenaren beldur handi batek hartu zituen oro.

### IX. KAP.

1. Beraz hamabigarren hilabetean, aitzinean erran dugunaz adar deitzen zenean, hamabirugarren egunean, noiz-etare Juduen hiltzeko bideak hartzen baitzituzten, eta hekien etsaiak odolari hirrikatuak baitzauden, Juduak aitzitik hasi ziren nausitzen eta beren interbegietarik asperten.

2. Eta bildu ziren hiri, herri eta lekhu guzietan, eskuaren hedatzeko beren etsai eta jazarleen gainera. Eta nihor etzitzaioten buru egitera ausartatu, zeren hekien handitasunaren beldurrak hartu baitzituen populu guziak;

3. Ezik herrialdeetako juie, buruzagi, aitzindari, eta lekhuetan eta lanetan zerbait kargu zuten guziek altxatzen zituzten Juduak Mardoekoren beldurrez,

4. Zeina jauregiko buruzagi eta ahal handitan zela ezagutu baitzuten. Haren izenaren aiphua ere egun oroz handituz eta ahotik ahora zihoan.



5. Hargatik Juduek sarraski handiz jo zituzten beren etsaiak, eta hil zituzten, hekiei bihurtuz heriotze bat zeina berei emateko bideak hartu baitzituzten;

6. Hanbatetaraino non Susanen berean hil baitzituzten bortz ehun gizon, eta bertzalde Aman Agagtar Juduen etsaiaren semeak, zeinen ize-nak haukiek baitira:

7. Pharsandatha, Delpbon, Esphatha,

8. Phoratha, Adalia, Aridatha,

9. Phermestha, Arisai, Aridai eta Jezatha.

10. Hekiek hil ondoan, etzuten hekien izanetarik harrapakinik ukitu nahi izan.

11. Susanen hilak izan zirenen nonbrea berehala eramana izan zitzaioen erregeri,

12. Zeinak erreginari erran baitzaroen: Juduek Susango hirian hil dituzte bortz ehun gizon, eta Amanen hamar semeak bertzalde. Zenbateko sarraskia dadukazu egin behar duten herrialde orotan? Zer galdatzen duzu gehiago eta zer nahi duzu mana dezadan egin dadien?

13. Estherrek ihardetsi zaroen: Erregeren gogarako bada, Juduei eman bekiote, egun Susanen egin dutenaren, bihar ere egiteko eskua, eta Amanen hamar semeak izan beitez habetarik urkhatuak.

14. Eta erregek manatu zuen hala egin zedin. Eta berehala erabakia izan zen Susanen afixatua, eta Amanen hamar semeak izan ziren dilindan ezarriak.

15. Adarreko hilabethearen hamalagarren egunean, bildurik, Juduek Susanen hil zituzten hirur ehun gizon; bainan etzuten hekien onik ukitu.

16. Erregeren azpiko ziren herrialde guzietan ere Juduak egotu ziren beren bizien zain, hil ondoan beren etsai eta jazarleak, hainbertzetaraino non hilak heldu baitziren hirur hogoi eta hamabortz miletara, eta nihork ez baitzuen ukitu hekien onetarik den-gutiena.

17. Bada, adarreko hilabethearen hamahirugarren eguna izan zen orotan sarraskiko lehenbizikoa, eta hamalagarrenean gelditu ziren hiltzetik. Egun hura ezarri zuten besta-burutzat, handik harat bethi guzian, bestatzeo janthordu, bozkario eta barazkariz.

18. Bainan Susango hirian hilka haritu zirenek, hilabete hartako hamahirugarren eta hamalagarren egunetan egin zuten sarraskia, eta hamabortzgarrenean gelditu ziren hiltzetik. Eta hargatik ezarri zuten egun hura barazkari eta bozkariozko bestatza.

19. Harrasigabeko hirietan eta herrietan egoten ziren Juduek berriz, adarreko hilabethearen hamalagarren eguna hartu zuten barazkari eta

bozkariozko eguntzat, orduan egiteko beren bozkalentziak eta elkharri igortzeko barazkari eta jatekoetarik.

20. Mardoceok iskribatu zituen beraz horiek oro, eta gutunetan ezarriak Juduei igorri zarozten egoten ziren lekhu guzietara, nahiz hurbileko, nahiz urruneko tokietara,

21. Bestatza har zetzazten adarreko hilabete hamalagarren eta hamabortzgarren egunak, eta urthe-buruan, besta zetzazten ohore handitan;

22. Egun hekietan aspertu zirelako Juduak beren etsaietarik, eta nigar eta belzturak aldatu zirelako irri eta bozkariotara; eta egun hekiek izan zitezen barazkari eta bozkariozko egunak, elkharri beren jatekoetarik igor zezaten, eta beharrei egin zetzozten emaitza xumeak.

23. Eta Juduek bestatza hartu zituzten orduan egiten hasi zituztenak oro, eta Mardoceok gutunez gaztiatu zaroztenak egiteaz.

24. Ezen Amanek, Amadathiren seme, Agagen odolekoak, Juduen etsai eta ixterbegiak, gaizkia hekien kontra burutan hartu zuen hekien hiltzeko eta xahutzeko, eta arthiki zuen phurra, gure mintzaian zortea deitzen dena.

25. Bainan gero Esther sarthu zen erregeren aitzinera, othoizten zuelarik Amanen eginahalak urmariatuak izan zitezen erregeren gutun batez, eta Juduen kontra asmatu zuen gaizkia bihur zedin haren beraren buruarren gainera. Eta azkenekotz bera eta bere semeak izan ziren gurutzeari lothuak.

26. Eta ordudanik egun hekiek deithuak izan ziren phurim, erran nahi da zortetako egunak, zeren phurra, erran nahi da zortea, arthikia izan baitzen untzira. Eta gerthatu ziren guziak dira idukiak gutunetan, erran nahi da Mardoceoren liburu huntan.

27. Juduek berentzat, beren ondokoentzat eta beren erliyoneari batu nahi izan ziren guzientzat erabaki zuten orduan jasan eta gero ganbiatuak izan ziren guzien orhoitzapena, nihor etzadientzat haizu izan egun hekiek bestatu gabe iragaitera, liburu hunek lekhukotasun ematen duen bezala, eta urtheak urthea ekhartzen duelarik, bethi egiten den bezala.

28. Hekiek dira egunak behinere orhoitzapenetik galduko ez direnak, eta herrialde guziek, gizaldi oroz bestatuko dituztenak lurraren hedadura guzian; eta ez da hiririk zeinetan phurimetako egunak, erran nahi da zortetakoak, begiratuak ez baitira Juduek eta hekien ondoregoaz, zeina zere- monia hekien eginbidearen azpian baita.

29. Eta Abihailen alaba Esther erreginak eta Mardoceo Juduak bigarren gutun bat ere iskribatu zuten, egun hura artha oso batekin izan zedintzat ondokoen ondoko bestatua.



30. Eta errege Asueroren sei hogoi eta zazpi herrialdeetan egoten ziren Judu guziei igorri zaroten, izan zezatentzat bakea, eta onhets zezaten egia,

31. Zortetako egunak begiratu, eta beren orduan bozkarioz bestatuz. Mardoceok eta Estherrek manatu bezala, Juduek eginbidea hartu zuten berentzat eta beren haurrentzat begiratzeko barurak, oihuak eta zortetako egunak,

32. Eta Estherrena deitzen den liburu huntako istorioan idukiak direnak oro.

### X. KAP.

1. Bada Asuero erregeak zergarenpeko ezarri zituen lurra oro eta itsasoko irla guziak.

2. Eta iskribatuak dira Mediarren eta Persiarren liburutetan nolakoak ziren haren ahalak eta erresuma, eta zer kargu eta goratasunetara altxatu zuten Mardoceo;

3. Eta nola Mardoceo, Juduen odoletikakoa, izan zen errege Asueroren ondotik bigarrena, eta handi Juduen artean, eta bere anaien osteaz onhetsia, bere popularen ona bilhatuz, eta bere odolekoen bakea ukitzen zuten ez baizik ez mintzatuz.

4. Eta Mardoceok erran zuen: Jainkoak egin ditu horiek.

5. Orhoit naiz ezen amets batez, horiek berak erran nahi zituenaz, eta ez da hartakorik deuseren huts gerthatu.

6. Ithurri xume bat, hibai bilhakatu zena, eta argi eta iguzki batera bihurtu zena, eta ur hainitzetara erauntsi zena, Esther da, zeina erregek emaztetzat hartu baitzuen, eta nahi izan baitzuen erregina izan zadien.

7. Bi erainsugeak, ni eta Aman gare.

8. Bildu ziren jendaia dira Juduen izenaren ezeztatzeko eginahalak egin dituztenak.

9. Ene herritarrak berriz, dira Israelgoak, zeinek Jaunari deihadar egin baitute, eta Jaunak salbatu du bere populua, eta atheratu gaitu gaitz guziatarik, eta jendaien artean egin ditu ezagutkari handiak eta sendagailak;

10. Eta manatu zuen izan zitezen bi zorte, bata Jainkoaren populua-rena, eta bertzea jendaia guziarena.

11. Eta bi zorteak Jaunaren aitzinera ethorri ziren, ordudanik jendaia guziei erabaki egunean;

12. Eta Jauna orhoitu zen bere populua, eta urrikaldu zitzaioen bere primantzari.

13. Adarreko hilabetearen egun hekiek, hilabete hamaia eta hamabortzgarrena begiratuak izanen dira bozkario eta artha handirekin populu bilduaren baldarnan, Israelgo populua gero giza orotan.

### XI. KAP.

1. Ptolemeoren eta Kleopatraren erregetasuneko laugarren urtean, Dositheok, bere burua aphez eta lebitar odoletik zerranak, eta Ptolemeo haren semeak ekharri zuten phurimen gaineke gutun hau, zeina baitzeraten argitu zuela Jerusalem Lisimakok, Ptolemeoren semeak.

2. Artakserkses guzi handiaren erregetasuneko bigarren urtean, nisango hilabetearen lehen egunean, amets bat izan zuen Mardoceok Jairren semeak, Jair baitzen Semeiren seme, Semei Zisena, Benjaminen leinukoa.

3. Judua zen, Susango hirian egoten zena, gizon handia, eta erregeen gortean lehenbizikoen artekoa.

4. Zen, berriz, Babilonako errege Nabukodonosorrek Jerusalemetik Judako errege Jekoniasekin eraman zituen gathibuetarik.

5. Eta hau izan zen haren ametsa. Iduritu zitzaizkon mintzoak, harramantzak, ihurtzuriak, lur-ikharak eta nahasturak lurraren gainean.

6. Eta hara bi erainsuge handi, eta ekharri gudu ematera abian ziren.

7. Eta hekien oihuari, jendaia guziak subermatu ziren zuzenen jendakiari gudu emateko.

8. Eta egun hura izan zen ilhunbe, liskar, atsekabe eta hesturetako egun bat, eta izialdura gaitz bat lurraren gainean zen hedatu.

9. Eta zuzenen jendakia zorigaitz handi zerbaiten beldurrean, nahasia eta heriotzeari begira jarria zagoen.

10. Eta Jainkoari deihadar egin zaroten; eta oihuz zaudezelarik, ithurri xume bat berhatu zen hibai handi bat egiteraino eta ur hainitz igorri zuen.

11. Argia eta iguzkia atheratu ziren; eta aphalak izan ziren goratuak eta iretsi zituzten handi zirenak.

12. Mardoceok hori ikhusi eta ohetik jaiki zen ondoan, gogoan zera-bilkan zer egin nahi othe zuen Jainkoak; eta buruan landatua zuen, amets horrek zer erran nahi othe zuen jakiteko lehia.

### XII. KAP.

1. Bada, orduan erregeren gortean egoten zen erregeren ebakiekin, Bagatha eta Thararekin, zeinak jauregiko athalzain baitziren.



2. Eta ezagutu zituenean hekien asmuak, eta artha handirekin bilhata zen ondoan, ikhusi zuen bermatzen zirela eskuak Artakserkses erregearen gainean ezartzera, eta hortaz argitu zuen errege.

3. Erregeek, bien gaineko garbitasunak eginak izan zirenean, eta aithortu zuten ondoan, manatu zuen eraman zetzazten hiltzera.

4. Erregeek berriz, istorioetan ezarrarazi zuen gerthatu zena, eta Mardokeok ere iskribuz ezarri zuen.

5. Erregeek, emaitzak eginik salhu horren ariaz, manatu zaroen egon zedin jauregian.

6. Bainen Aman Buiearra, Adamathiren semea, ospe handitan zen erregeren aitzinean, eta bidegabe egin nahi izan zaroeten Mardokeori eta haren populuari, hilak izan ziren erregeren bi ebakien gatik.

### XIII. KAP.

1. Artakserkses, Indietarik Ethiopiaraino errege guziz handiak, sei hogoi eta zazpi herrialdeetako aitzindari haren manamenduko diren buruzagi eta aitzindari, agur.

2. Asko jendaiari mana nezan arren eta ene eskuaren azpiko ezarri izan nezan lurra oro, ez dut nahi izan batere baliatu gaizki ene ahalaren handiaz, bainen-bai barkhatiarki eta eztiki erabili ene azpikoak, beren bizia ixilik iraganez ikhararik gabe, goza zitezentzat gizon guziak zale diren bakeaz.

3. Bada, ene biltzarrekoei galdatu ondoan noletan egin nezakeen hori, bere zuhurtasunaz eta fidelitateaz bertzeak garaitzen zituen batek, eta erregeren ondotik bigarren zenak, otsez Amanek,

4. Jakintsun egin nau populu bat badela lur guziaren gainean barraiatua, lege berri batzuei jarraikitzen dena, eta jendaia guzien ohitzaren kontra harituz, erregeen manuak erdeinatzen dituen eta bere makhurkeriaz jendaia guzien arteko batasun ona hausten duena.

5. Hori jakin dugunean, ikhususirik jendaia bat, gizate guziari bihurtzen dena, lege tzarrei jarraikitzen dela, gure manuen kontra dihoala, eta gure azpiko herrialdeen arteko bakea eta batasuna nahasten dituela,

6. Manatu dugu, Amanek, herrialde guziez kargu duenak, erregeren ondotik bigarren denak eta aitatatz hartzen dugunak, erakhutsiko dituenak oro, beren etsaiez izan ditezen xahutuak beren emazte eta haurrekin, aurthengo hamabigarren hilabete, adar deitzen denaren hamalagarren egunean, eta hekietarik nihor ez dadien izan guphidez utzia;

7. Gizon gaixto hekiek, egun ber batez ifernuetara jautsirik, gure erresumari bihur diozoten khendu zaroten bakea.

8. Mardokeok othoiztu zuen Jauna, haren egintza guziez orhoituz,

9. Eta erran zuen: Jauna, errege Jaun ahalorotakoa, ezen zure eskupean daude gauza guziak, eta nihor ez da zure nahiari buru egin diozokeenik, baldin erabaki baduzu Israelen salbatzea;

10. Zuk egin ditutzu zerua eta lurra, eta zeruaren inguruak daduzkan guziak.

11. Ororen Jauna zare, eta nihor ez da zure maiesteari iharduk diozokeenik.

12. Oro badakizkitzu, eta badakizu ez dudala ez hanpuruskeriaz, ez erdeinuz, ez ospe behar zerbaitez utzi Aman hanpurutsua adoratu gabe;

13. (Ezen gogotik niagokeen, Israel salbatzea gatik, haren oinhatzei ere musu ematera.)

14. Bainen gizon batetara aldara beldur nintzen ene Jainkoaren ohorea eta ene Jainkoaz bertze bat adora.

15. Eta orai, Jauna, Abrahamen Jainko erregea, urrikal zakizkio populuari, gure etsaiek nahi gaituztelako zaldutza eta zure primantza xahutu.

16. Ez bezazu arbuia zure zathia, Egiptotik zuretzat berrerosi duzuna.

17. Entzun zazu ene othoizta, begithartez jar zakizkio zure primantzako populuari eta gure nigarrak bozkariotara aida zatzu, bizirik lauda dezagun, Jauna, zure izena, eta herts ez detzatzun zu kantatzen zaituzten ahoak.

18. Israel guziak halaber gogo eta othoizt beraz deihadar egin zaroen Jaunari, zeren heriotze segura baitzagokoeten buruaren gainera.

### XIV. KAP.

1. Esther erreginak ere Jauna gana ihes egin zuen, dixidutan zagoen galtzeko zoriaren beldurrez.

2. Eta erregina soinekoak erauntzirik, jauntzi zituen nigar, atsekabeei zihoazkotenak; eta baltsamu-moten orde, hautsez eta zikhinez estali zuen burua; barurez zehatu zuen bere gorputza; eta lehenago bozten ohi zen lekhu guzietan, bazterrak bethe zituen burutik atheratzen zituen ileez.

3. Eta Israelgo Jainko Jaunari othoizt egiten zaroen erranez: Ene Jauna, gure errege bakharra zarena, eta zeintaz bertze laguntzailerik ez baitut, lagun nezazu ene zurztasunean.

4. Ene eskuetan da ene galtzeko zoria.

5. Ene aita ganik entzuna dut, zuk, Jauna, hartu ditutzula Israel populu guzieren artetik, eta gure aitak beren arbaso guziez geroztik, hekiek bethiko primantzatzat idukitzeko, eta erran bezala egin izan diozute.

6. Bekhatu egin izan dugu zure aitzinean, eta hargatik arthiki gaituzu gure etsaien eskuetara;





7. Ezen hekien jainkoak adoratu ditugu. Zuzena zare, Jauna.
8. Eta orai etzaiote aski, gathibusatun gogorrenaren azpian gure lehertzea; bainan beren eskuetak indarra beren jainkoaizunen ahalari iratxikiz,
9. Nahi dituzte zure agintzak itzulikarazi, zure primantza xahutu, zure laudatzaileen ahoak hertsu, eta iraungiarazi zure tenploko eta aldareko ospea,
10. Jendaien ahoaren idekitzekotzat, jainkoaizunen indarraren laudatze, eta haragizko errege bat bethi guzian espantatzeko.
11. Ez eman, Jauna, ezdeus batzuei zure manamenduko makhila, gure galtzapenari irri egin diozoten beldurrez; bainan hekien gainera bihurraz zazu hekien asmua, eta galaraz zazu gure lehertzen hasi dena.
12. Gutaz orhoit zaitezi, Jauna; zure burua ager dizaguzu gure hesturako orduan, eta gothor nezazu, Jauna, jainkoen eta ahal orenen erregea.
13. Beharbezalako solasak ezar zatzu ene ahoan lehoinaren aitzinean, eta aiherkundetara bihurraz zazu haren bihotza gure etsaiaren kontra, hau bere eta hunekilako guziak galduak izan ditezen batean.
14. Gu ordean salba gaitzatzu zure eskuaz, eta lagunt nezazu ni, bertze laguntzarik ez dudana zu baizik, Jauna, gauza orenen jakitate duzuna,
15. Eta dakizuna gaixtaginen ospea gaitzets dudala, eta ingurebakigabeen eta edozein arrotzen ohea higuin dudala.
16. Zuk badakizu ene premia, gaitziriskotan dudala hanpuruskeriako eta ene ospeko ezagutgailu, ene buruaren gainean izaten dena, populua-ren aitzinera agertzen naizen egunetan, eta higuin dudala astagaizdunaren athorra bezala, eta ez dudala erabiltzen ene ixiltasuneko egunean;
17. Ez dudala jan Amanen mahainean, ez dudala ez gozorik hartu erregeren barazkarian, ez-eta libazionetako arnorik edan;
18. Eta hunat erakharria izan naizenetik orai arteo, zure neskatoa egundaino ez dela boztu zu baithan baizik, oi Abrahamen Jainko Jauna.
19. Oi Jainko orenen gainetik hazkarra, entzun zazu bertze igurikitza-rik ez dutenen hitza, athera gaitzatzu etsaien aztaparretik, eta ilkhi nezazu ikharabideetarik.

### XV. KAP.

1. Eta gaztiatu zaroen (Mardoceok naski) sar zadien erregeren gana eta othoitz zezan bere populu eta herriarentzat.
2. Orhoit zaitezi, zioen, zure aphaltasuneko egunez, nola izan zaren hazia ene eskuan, zeren Aman, erregeren ondotik bigarrena, gure kontra mintzatu baita gure hilarazteko.

3. Eta zuk deihadar egiozu Jaunari, erregeri mintza zakizkio, eta athera gaitzatzu heriotzetik.
4. Bada, hirugarren egunean Estherrek utzi zituen bere soinekoak eta jauntzi erreginarenak.
5. Eta erreginaren soinekoekin argitzen zuelarik, eta deithu ondoan Jainkoa guzien manatzailea eta salbatzailea, hartu zituen bi neskata,
6. Eta baten gainean bermatzen zen, beraztasunez eta samurtasunez bere gorputza ezin ekhar baleza bezala;
7. Bertze neskata berriz, bere andreari jarraitzen zitzaioen, lurre-ra erortzen zen soina atxikiz.
8. Bera aldiz, begithartea arrosaren gorriduraz estalia zuelarik eta begiek eztiki argitzen zaroetelarik, arima gordea zadukan ilhunik eta beldur handiak josia.
9. Ather guziak beraz aldizka iraganik, gelditu zen erregeren parrean, hura egoten zen tokian bere tronuaren gainean, errege-soinekoen jauntzia, urhez eta harri baliosez argitzen zuela; eta ikhusteko ikharagarri zen.
10. Eta burua altxatu zuenean, eta begietako suaz erakhutsi zuenean bere barneko hasarredura, erregina erori zen, eta haren koloreak zurphildurara iraganik, neskataren gainera makhurtu zuen bere buru iraungia.
11. Eta Jainkoak ezittasunera itzuli zuen erregeren izpiritua; eta berehala, beldurra harturik, jauzi zen bere tronutik, eta besoetan jasanetz, bere baithara itzul zadien arteo, solas haukiez lausengatzen zuen:
12. Zer duzu, Esther? Zure anaia naiz ni, ez izan beldurrik.
13. Etzare hilen; ezen ez da zuretzat ezarria lege hori, bainan bertze guzientzat.
14. Hurbil zaite beraz eta uki zazu errege-makhila.
15. Eta nola ixilik baitzagoen, hartu zuen urhezko makhila, lephoaren gainean ezarri zaroen, eta musu emanik erran zaroen: Zertako etzaizkit mintzatzan?
16. Estherrek ihardets zuen: Ikhusi zaitut, jauna, Jainkoaren aingerua iduri, eta ene bihotza nahasi da zure ospearen beldurraz.
17. Ezen hunenbat zare ederregarri, jauna, eta graziaz bethea da zure begithartea.
18. Eta mintzo zelarik, erori zen bigarren aldiko, eta alditzar egitera zitzaioen.
19. Errege berriz, asaldatu zen guzia, eta haren azpiko buruzagiak Estherren sosegatzera hari ziren.



## XVI. KAP.

1. Artakserkses Indietarik Ethiopiarainoko errege handiak, sei hogoi eta zazpi herrialdeetako buruzagi eta aitzindari haren manamenduari begiratzen direnei, dioete agur.

2. Buruzagien ontasunaz eta hekien ganik izan ohoreaz asko sarthu dira hanpuruskerietan.

3. Eta ez-ezik bermatzen dira erregeei beren azpikoak zaphatzera, baina oraino, ezin egarritz emana zaroeten ospea, hura eman izan diotenen beren kontra hedatzen dituzte zelatak.

4. Etzaiote aski ongieginez eskerrik ez bihurtzea eta beren baitan gizatasuneko legeak haustea, baina oraino uste dute guziak ikhusten dituen Jainkoaren erabakiari itzuriko zaizkola.

5. Eta hanbateko zorokeriara dira erori, non gezurrez eta zimarkhuz hari baitira eragotzi nahiz hainak zeinek arthatsuki bethetzen baitituzte emanak izan zaizkoten karguak eta haletan egiten baitituzte guziak, non merezitzen baitituzte ooren laudorioak.

6. Haletan gaixtaginek beren amarru tzarrez atzematen dituzte erregeen beharri lainoak, ustez berak bezalakoak direla bertzeak.

7. Horren froga ere atheratzen da istorio zaharretarik eta egun oroz gerthutzen direnetarik, nola batzuen bururazpen tzarrez gaixtatzen diren erregeen jaidurak.

8. Hargatik dira bideak hartzeko herrialde guzien bakearentzat.

9. Eta baldin batean bat eta bertzean bertzea manatzen badugu, ez duzue zeren uste izan gure izpirituko arintasunetik heldu dela hori, baina bai orduen egoki eta premien arabera, herriaren onak nahi duen bezala, ekhartzen dugula erabakia.

10. Eta agerikiago adi dezazuen derraguna, gutaz onhetsia izan da arrotz bat, Aman, Adamathiren semea, bihotzez eta ethorkiz Mazedoniarra, eta Persiarren odolari atzea, eta gure urrikalkortasuna bere odolgirokeriaz nothatzen zuena.

11. Eta bere baitan frogatu ondoan onhiriste bat hanbatekoa, non deithua baitzen gure aitatzat eta guziez adoratua erregeren ondotik bigarren;

12. Hainbertzetarainoko hanpurustasun ozarrera igan da hura, non erreinuaz eta biziarekin gure gabetzera hari baitzen.

13. Ezen zimarkhu berri eta egundaino aditu ez diren batzuek hilarazi nahi izan ditu Mardoqueo, zeinaren fidelotasun eta ongieginei esker bizi baikare, eta Eftther gure erregetasuneko laguna, bere populu guziarekin,

14. Asmu huntan, non, hekiek hilik, zelatak hedatuko baitzituen gure bakhartasunari, eta Mazedoniarretara iraganaraziren baitzuen Persiarren erreinua.

15. Guk ordean ez ditugu den-gutieneko hobenean atzeman, baina aitzitik lege zuzenen arabera zerabiltzala Juduak, gizonik tzarrenaz heriotzeko bereziak zirenak.

16. Eta ezagutu dugu seme direla Jainko guziz gora, guziz handi eta bethi bizi denaren, zeinaren ongieginari esker erresuma gure arbasoei eta guri, emana eta egun arteo idukia baitzaiku.

17. Hargatik jakizue Amanek gure izenean bidali zarozkitzueten gutunak hutsalak direla.

18. Eta tzarkeria horren gatik, zelata-egilea eta bere ahaidego guzia urkhabetarik daude dilindan hiri huntako, erran nahi da Susango atheen aitzinean; ez guk, baina Jainkoak hari bihurturik merezitu duena.

19. Aldiz, orai igortzen dugun erabaki hau, hiri guzietan izan bedi oiuhu egina, haizu izan dakiotentzat Juduei beren legee jarraitzea.

20. Eta laguntza egin behar diozute, bil ahal detzaztentzat adar deitzen den hamabigarren hilabethearen hamahirugarrenean, hekien hiltzeko eginbidetan jarri zirenak.

21. Alabain abalorotako Jainkoak bozkariotara aldatzen diote atsekabezko eta nigarrezko egun hura.

22. Hargatik zuek ere egun hura bertze besta-egunen arteko idukiazue, bozkalentzia guziekin bestatuz hura, ondokoekin jakin dezatentzat,

23. Persiarrei ethordun fidel izaten direnek, beren fidelotasunaren araberako saria izaten dutela; eta berriz, hekien erreinuaren kontra zelatak hedatzen dituztenak galtzen direla beren gaixtakeria gatik.

24. Aldiz, besta hortan sarthu nahiko ez den edozein herrialde eta hiri, ezpataz eta suaz izan bedi xahutua, eta haletan izan bedi eragotzia, non, ez ezik gizonentzat, baina oraino abereentzat izan ez baita bethi guziko ibilkizun, arbuioaren eta bihurrikundearen ikhugailutan.



## JOB

### I. KAP.

1. Huseko lurrean bazen gizon bat Job deitzen zena; eta gizon hura zen lainoa, zuzena, Jainkoaren beldurti eta gaizkitik urruntzen zena.
2. Eta sorthu zitzaizkon zazpi seme eta hirur alaba.
3. Eta haren izana zen zazpi mila ardi, hirur mila kamelu, bortz ehun idi-pare, bortz ehun asto urrixa eta sehi hainitz. Eta zen gizon hura handi iguzki-aldeko jendaia guzieren artean.
4. Eta haren semeak goaten ziren, eta zeinek bere egunean eta bere etxearen aldian, egiten zuten barazkaria. Eta igortzen zuten beren hirur arreben bilha, hekiei berekin janaraz eta edanarazteko.
5. Eta barazkariko egunen ingurua egin zenean, Jobek igortzen zuen hekietara, sainduesten zituen; eta argitzeko jaikirik, holokaustak eskaintzen zituen bakhotxarentzat. Ezik erraten zuen: Ene semeek beharbada bekhatu egin dukete eta beren bihotzetan Jainkoa ez benedikatu. Horrela egun oroz egiten zuen Jobek.
6. Bada, halako egun batez, Jainkoaren haurrak ethorri zirelarik Jaunaren aitzinera agertzeko, Satan ere aurkhitu zen hekien artean.
7. Jaunak erran zaroen: Nondik heldu haiz? Hunek ihardestean erran zuen: Inguratu dut lurra eta guzia gaindi ibili naiz.
8. Eta Jaunak erran zaroen: Ez duk ikhusi Job ene zerbitzaria, haren idurikorik lurrean ez baita, gizon laino, zuzen, Jainkoaren beldurti eta gaizkitik urruntzen dena?
9. Satanez Jaunari ihardestean erran zuen: Job alferretan othe da Jainkoaren beldur?
10. Ez othe ditutzu alde orotarik inguratu hura, haren etxea eta izate guziak? Ez othe duzu benedikatu haren eskuetako lana, eta haren ontasuna ez othe da berhatu lurrean?
11. Bainan guti bat heda zazu eskua, uki zatzu gozatzen dituen guziak, hean benedikatuko zaituen begithartera.
12. Jaunak erran zaroen beraz Satani: Huna non hire eskuan diren harek dituenak oro; bakharrrik haren gainera ez bezak eskua heda. Eta Satan ilkhi zen Jaunaren aitzinetik.
13. Bada, egun batez, nola Joben seme-alabak jaten hari baitziren eta arnoaren edaten beren anaia zaharrenaren etxean,

14. Jobi ethorri zitzaioen berriketari bat erran zaroena: Idiak iraulden hari ziren, eta astoak alhan zauden hekien aldean,

15. Eta Sabearrak jauzi dira, oro eraman dituzte eta muthilak ezpataz jo, eta ni bakharrrik itzuri naiz zuri berriaren ekhartzeko.

16. Eta oraino mintzo zelarik, ethorri zen bertze bat, eta erran zuen: Jainkoaren sua erori da zerutik, eta ardiak eta muthilak jo eta erre ditu, eta nik bakharrrik ihes egin dut zuri berriaren ekhartzeko.

17. Hura ere mintzo zelarik oraino, ethorri zen bertze bat, eta erran zuen: Kaldearrak jarri dira hirur andanetan, kameluetara sarthu dira eta eraman dituzte; ezpataz jo dituzte muthilak ere, eta nik bakharrrik ihes egin dut zuri berriaren ekhartzeko.

18. Hura mintzo zen oraino, eta hara non sarthu zen bertze bat, eta erran zuen: Zure semeak eta alabak jaten hari zirelarik eta arnoaren edaten beren anaia zaharrenaren etxean,

19. Haize gaitz bat bat-batean jaiki da mortuko aurkhintzatik, khordokatu ditu etxearen lau izkinak, eta etxeak erortzean lehertu ditu zure haurrak, hil dira, eta ni bakharrrik itzuri naiz zuri berriaren ekhartzera.

20. Orduan Job xutitu zuen, hautsi zituen bere soinekoak, eta burua murrizturik, lurrera eroriz, adoran jarri zen;

21. Eta erran zuen: Buluz ilkhi naiz ene amaren sabeletik eta buluz itzuliren naiz, harat: Jaunak eman, Jaunak khendu; nola baitzuen Jaunak atsegin, hala gerthatu da. Benedikatua izan bedi Jaunaren izena.

22. Horieta orotan Joben ezpainez etzuten bekhatuak egin, eta etzuten zorokeria bat atheratu Jainkoaren kontra.

### II. KAP.

1. Bada, Jainkoaren haurrak ethorri ziren egun batez, eta Jaunaren aitzinean zaudezelarik, gerthatu zen Satan ere ethorri zela hekien artera, eta Jaunaren aitzinean zagoela.

2. Eta Jaunak erran zaroen Satani: Nondik heldu haiz? Hunek ihardestean erran zuen: Inguratu dut lurra eta guzia gaindi ibili naiz.

3. Eta Jaunak erran zaroen Satani: Ez duk ikhusi Job ene zerbitzaria, haren idurikorik ez baita lurraren gainean, gizon laino eta zuzena, Jainkoaren beldurti, gaizkitik urruntzen, eta oraino garbi begiratzen dena? Hik ordean haren kontra abiarazi nauk, hari alferretan atsekabe ematen.

4. Jaunari ihardestean Satanez erran zuen: Gizonak bertzeen larrua berearentzat eta dituen guziak bere biziarentzat emanen ditu;

5. Bertzela ezarrozu eskua gainean, hezur-haragietan uki zazu, eta orduan ikhusiren duzu, hean benedikatuko zaituen begithartera.



6. Jaunak erran zaroen beraz Satani: Horra non dukan eskuan; utzok hargatik bizia.

7. Satan beraz ilkhi zen Jaunaren aitzinetik, eta oin-zolatik buru-kas-koraino zauririk gaixtoenaz jo zuen Job.

8. Samatsaren gainean jarririk, Jobek eltzeki puska batez khentzen zuen zornea.

9. Eta bere emazteak erran zaroen: Egonen zare oraino zure laino-kerian? Jainkoa benedika zazu eta hil zaitezi.

10. Jobek ihardetsi zaroen: Emazteki burtxoroetarik bat iduri mintzatu zare. Baldin Jaunaren eskutik onak hartu izan baditugu, zergatik ez ditugu harturen gaixtoak? Horietan orotan Joben ezpainek etzuten bekhaturik egin.

11. Bizkitartean Joben hirur adiskidek entzunik hari gerthatu zitzaizkon asturugaitzak oro, ethorri ziren zein bere lekhotik, Eliphaz Themandarra, Baldad Suharra eta Sophar Naamatharra; ezik hitzartuak ziren ethortzeko batean haren ikhustera eta gozakari ekhartzera.

12. Eta urrunetik begiak altxatu zituztenean, etzuten ezagutu; eta aia-yaka hasirik, eman ziren nigarrari; soinekoak urratu zituzten, eta herrautsa goiti arthikiz buruaren gainera erorrarazi zuten.

13. Eta harekin lurreen jarririk egotu ziren zazpi gau-egunez, eta nihork etzaroen solas bat egin; ikhusten zuten ezik borthitza zela haren oinhazea.

### III. KAP.

1. Gero Jobek ideki zuen ahoa eta madarikatu zuen bere sorth-eguna,

2. Eta erran zuen:

3. Gal beitez ni sorthu naizen eguna, eta gaua zeintan errana izan baita: Gizon bat egin da.

4. Egun hura ilhunbetara aida bedi; Jainkoak hura zeru gainetik ez beza bilha, eta argiak argi ez beza.

5. Ilhun bezate ilhunbeek eta herioaren itzalak, lanhoak har beza eta khiretsak khirestasunean ingura beza.

6. Xirimola beltzak har beza gau hura; ez bedi khonda urtheko egu-netan, ez-etare sar hilabetheetan:

7. Gau hura egon bedi bakharra, nihork ez beza laudoriorekin aipha.

8. Madarika bezate, eguna madarikatzen dutenek, Lebiathanen erai-kitzera daudezinek.

9. Hartako gobelak itsu betza izarrak; igurik beza argia, eta ikhus ez beza ez hura, ez-etare jaikitzen den argizkorriaren ilkhitzea;

10. Zeren ez duen hertsu ni ekharri nauen sabela eta ez dituen ondi-koak ene begietarik khendu.

11. Zenako ez naiz amaren sabelean hil, edo sabeletik ilkhitzean bere-hala galdu?

12. Zertako hartu naute altzora? zertako hazi nau bulharrak?

13. Ezen orai lotan ixil nindagoke, eta ene loan phausu banuke

14. Lurreko errege eta aitzindari, berentzat bakhar-lekhuak altxatzen dituztenekin,

15. Edo urhea duten eta beren etxeak zilharrez bethetzen dituzten buruzagiekin;

16. Edo ez nindaite bizi, hilori gorde bat edo sorthurik argia ikhusi ez dutenak iduri.

17. Han, gaixtaginak baratu dira tarrapatatik; han, lanak nekhatu dituenek ardietsi dute phausua;

18. Han, elkharri beihala burdinaztatuak zirenak, ez dira gehiago esti-ratuak, ez dute entzuten lanerako manatzailearen mintzoa.

19. Han dira handia eta ttipia, eta gathibua bere nausia ganik libro.

20. Zergatik eman zaiote argia dohakabeari, eta bizia bihotzeko uher-duran daudezinei?

21. Diruaren ondoan lur zilhatzen hari direnak iduri, herioaren begi-ra daude, eta etzaiote heldu;

22. Eta bozkario handitan dira, aurkhitzen dutenean hobia.

23. Zertako eman zaio bizia bere bidea gordea duen gizonari, Jainkoak ilhunbez inguratu duenari?

24. Auhenska nago jan aitzinean; ene marrumak iduri du ur-uharren orroa;

25. Zeren ethorri baitzait lotsatzen ninduen izialdura, eta beldur nintzena gerthatu baitzait.

26. Ez ohartuarena ez dut egin? ez naiz ixilik eta phausuan egotu? Eta halere ene gainera jautsi da Jainkoaren hasarrea.

### IV. KAP.

1. Orduan Eliphaz Themandarrak ihardestean erran zuen:

2. Abiatzen baginade zuri mintzaten, etzinduke beharbada ongi hartuko, bainan nork iduk dezake bururat ethorri solasa?

3. Hainitzen irakhaste izatu zare, eta beso nekhatuak hazkartu ditutzu;



4. Zure solasek gohortu dituzte khordokan zirenak, eta ikharan zaudetzen belhaunak gogortu dituzu.

5. Orai ordean zure gainera ethorri da zauria, eta ilhaundu zare; jo zaitu, eta asaldutan zare.

6. Non dira bada zure, Jainkoaren alderako beldurra, zure hazkartasuna, zure jasankortasuna, zure bideen osotasuna?

7. Gogorat ekhartzu, othoi, nor egundaino hobengabetarik den galdu, edo noiz zahutuak izan diren zuzenak.

8. Bainan hobeki, ikhusi dut tzarkeria egiten dutenak, oinhazeak eraiten eta biltzen dituztenak

9. Galdu direla Jainkoak haize eginik, eta haren hasarrearen hatsak iraungi dituela.

10. Horreletan lehoi orotsaren marruma eta urrixaren orroa izan dira ithoak, eta lehoinkumeen hortzak kraskatuak.

11. Tigrea da iraungi ez baitzuen zer atzeman, eta lehoinaren umeak haizatuak izan dira.

12. Bada, hitz bat errana izan zait ixilik, eta ebaska bezala ene beharriak atzeman ditu marmara arin hartako phiruak,

13. Gauazko ikhuspen bateko lazturan, loak gizona arthikitzen duen orduan.

14. Izialdurak eta ikharak hartu ninduten, eta ene hezurak oro harrituak ziren.

15. Eta nola izpiritu bat iragaiten baitzen ene aitzinean, ene haragiko ileak xutu ziren.

16. Halako itxura bat, zeinaren begithartea ez bainuen ezagutzen, baratu zen ene begien aitzinean, eta haren mintzoa aditu nuen haize eme baten hatsa iduri.

17. Gizona, Jainkoari erkhatuz, zuzentzat atheratuko othe da, edo egin duena baino garbiago izanen othe da gizona?

18. Hura zerbitzitzen dutenak berak ez dira gothor, eta bere ainguruetan atzeman du galdukeria:

19. Zenbatez hobeki, lohizko etxetan bizi direnak, lurrezko asentu bat baizik ez dutenak, iretsiak izanen dira har batez bezala.

20. Goizetik arratsera ebakiak izanen dira; eta bat ez delakotz adimendu duenik, behin-bethiko galduko dira.

21. Gelditu ditazkeenak berriz, hekietarik khenduko dira; hilen dira, eta ez zuhurtasunean.

## V. KAP.

1. Hel egizu beraz, nihor balin bada ihardetsiko darotzunik, eta sainduetarik norbaiten aldera itzul zaite.

2. Hasarreak segurki hiltzen du zoroa eta bekhaizgoak ttipia.

3. Ikhusi dut zoroa erro sendoaren gainean, eta ordu berean mada-rikatu dut haren edertasuna.

4. Haren semeak, salbatzetik urrun, oinez lehertuak izanen dira athean eta nihor ez da hekien atheratzeko izanen.

5. Hamikatuak janen dute haren uzta, gizon harmatuak bortxaz eramane du bera, eta egarri direnek edanen dituzte haren aberastasunak.

6. Deusik ez da lurrean egiten eraindurarik gabe, eta oinhazea ez da lurretik sortzen.

7. Gizona sortzen da laneko, eta hegastina hegaldaka ibiltzeko.

8. Hartakotzat Jaunari igorriko diotzat ene othoitzak, eta ene solasak atheratuko diotzat Jainkoari,

9. Zeinak egiten baititu gauza handi, ezin barrenduzko, harrigarri eta nonbregabekoak;

10. Zeinak igortzen baitu uria lurraren gainera, eta urztatzen baitu mundua;

11. Zeinak goratzen baititu aphaltak, eta bozkariarazten atsekabedunak;

12. Zeinak urmariatzen baititu gaixtoen asmuak, hekien eskuek hasia ezin dezatentzat akhaba;

13. Zeinak atzematen baititu jakintsunak beren amarruez, eta urmariatzen gaixtaginen xedeak.

14. Egun bethez ilhunbeak-barna dira ibiliren, eta eguerditan haztaka harituren dira nola gau bethean.

15. Jainkoak hekien mihiaren ezpatatik begiraturen du noharroina eta bortxariaren eskutik erromesa.

16. Beharrarentzat izanen da peskiza, gaixtaginak aldiz, josiko du bere ahoa.

17. Dohatsu Jainkoaz azurriatua den gizona! Ez gaitzets beraz Jaunaren jazargoa;

18. Zeren berak zaurtzen eta berak sasualtzen baitu; berak du jotzen eta bere eskuz sendatzen.

19. Sei hesturetarik atheratuko zaitu, eta zazpigarrenean gaitzak etzaitu ukituren.

20. Gosetea heriotzetik, eta gerlatean ezpataren helmenetik itzuriko zaitu.



21. Mihiaren ukhaldietarik begiratu izanen zare; eta asturugaitzak, ethorriko denean, etzaitu izituko.
22. Desmasiaren eta gosetearen erdian irri eginen duzu, eta lurreko abereek etzaituzte ikharatuko.
23. Bazterretako harriek ez darotzute minik eginen, eta zuretzat baketiar izanen dira lurreko abereak.
24. Eta jakinen duzu bakea duela zure olhak, eta zure etxeko egitekoak arhatzean, ez duzu bekhatu eginen.
25. Ikhusiren duzu zure hazia berhatuko dela, eta zure ondoreak lurreko belharra bezala izanen dira.
26. Aberats sarthuko zare bobira, bere aroan biltzen den ogi-zama bezala.
27. Horra, horiek agertu ditugun bezala egiak dira; adi zatzu, eta erabil gogoan.

## VI. KAP.

1. Bada, Jobek ihardestean erran zuen:
2. Oxala phisuetara ekharriak balira Jainkoaren hasarrea merezitu darotedan bekhatuak, eta egartzen dudan zorigaitza!
3. Hau, itsasoko legarra bezala, phisuago ager laiteke: horren gatik dira ene solasak minez betheak;
4. Ezen Jaunaren geziak nitan sarthuak dira, eta hekien erresuminak ahitzen du ene izpiritua, eta Jaunaren lazturak ene kontra dira gudukatzen.
5. Basastoa orroaz egonen othe da belharra duenean, edo idia marrumaz mainatera bethearen aitzinean?
6. Ala jan ditake gatzik gabeko janhari geza? ala norbaitek dasta othe dezake dastatzaileari herioa ematen dioen gauza?
7. Lehenago ukitu ere nahi ez nituenak dira orai, hesturaren handiz, ene janhari.
8. Nork emanen du onhetsia izan dadien ene othoitz, eta Jainkoak eman dezadan igurikitzen dudana?
9. Hasi denak berak leher beneza; zabal beza bere eskua eta trenka beza ene bizia.
10. Eta hau izan bedi ene gozakari, oinhazez azotatzean ez nauela guphidesten, eta ez naizela zeherrera jartzen Guziz-Sainduaren manuei.
11. Zer da ezen ene indarra ihardukitzekotzat? Edo nolakoa da ene azken burua jasankorki irauteko?
12. Ene gogortasuna ez da harriaren gogortasuna, eta ene haragia ez da kobrezkoa.

13. Huna non ez dudan laguntzarik ene baithan, eta ene adiskide minenak ere urrundu dira ni ganik.
14. Zeinak-ere bere urrikalmendua khentzen baitio bere adiskideari, hainak bazterrerat uzten du Jaunaren beldurtasuna.
15. Ene anaiak ene aitzinean iragan dira, haranak behera fharrastan dihoan lats bat bezala.
16. Izotzaren lotsa direnei eroriko zaiote elhurra gainera.
17. Latsak iguri, goan orduko agortuko dira; eta berotu orduko, elhurra bezala urthuko dira.
18. Itsutuak dira hekien urhatsetako bidexkak; larrez-larre biderik gabe dabilta, eta galduko dira.
19. Begiz har zatzue Themango bidexkak eta Sabako bideak, eta zaudetze aphur bat iguri.
20. Ahalkatuak dira, zeren ez dudan etsitu; ene ganaraino ere ethorri izan dira, eta ahalkeak estali ditu.
21. Ethorri orduko, ene zauria ikhusi bezain laster, izituak zarete.
22. Erran othe darotzuet: Ekhar darotzue zer bait, indazue zuen onetarik,
23. Athera nezazue etsaiaren aztaparretik, indardunen eskupetik?
24. Ageri nezazue, eta ixilduren naiz; eta balin bada ez nakien zer bait, irakhats darotzue.
25. Zertako zarete gaizki atheratzen egiazen solasari, zuetarik nihor etzaretelarik aihar niri estakururik emateko?
26. Erantzukika haritzeko baizik ez ditutzue aphaintzen zuen solasak, eta haizeari igortzen ditutzue zuen elheak.
27. Umezurtz baten gainera erortzen zarete, eta zuen adiskidearen ehortzera hari zarete.
28. Guzia gatik abiatu duzuen ahaba zazue; baina entzun ere nezazue eta ikhusazue hean gezurrez naizen mintzo.
29. Ihardetsazue, othoi, khimerako gogorik gabe, eta zuzen direnak erranez erabak zazue.
30. Eta ez duzue tzarkeria ene mihian atzemanen, ez-eta zorokeriarik ene ahoan.

## VII. KAP.

1. Gizonaren bizia gudu bat da lurraren gainean, eta haren egunak dira sarizalearen egunen pare.
2. Nola gathibuak baitu itzalaz min, nola sarizalea baitago bere lanaren akhabantzari begira;



3. Hala nik ere khondata ditut hilabethe hutsak eta gau nekhatuak.
4. Loak hartuko banau, erranen dut: Noiz jaikiko naiz? eta berriz egonen natzaio arratsari begira, eta oinhazez betheko naiz ilhundu arteo.
5. Ene haragia ustelduraz eta herrauts zikhinez estalia da; ene larrua idortua eta kizkurtua da.
6. Ene egunak lasterrago iragan dira ehaileak haria ebakitzen duen baino, eta iraungi dira, deus peskizarik utzi gabe.
7. Orhoit zaitte, Jauna, ene bizia ufako bat dela, eta ene begia ez dela itzuliko ordu onen ikhustera.
8. Laster gizonaren begiak ez nau ikhusiren; ezen ene gainean dira zure hasarreko begiak, eta ezin iraunen dut.
9. Nola ezeztatzen baita lanhoa eta iragaiten, hala ifernuetara jausten dena ez da gehiago igaiten.
10. Ez da gehiago bere etxerat itzuliren, eta ez du gehiago bere lekhuak ezaguturen.
11. Hargatik ez dut ene mihia geldirik utziko; mintzaturen naiz ene bihotzeko atsekabeen, solas eginen dut ene arimako uherduran.
12. Itsaso bat othe naiz edo bale bat, zuk ni presondegia batez inguratzeko?
13. Erraten badut: Oheak gozatuko ditu ene minak, arinduko naiz ene buruarekin ene etzauntzan solastatuz:
14. Ametsez izituren nauzu eta ikhuspen izigarriz lazturen.
15. Hargatik ene arimak nahiago du urkhabea, ene hezurrek heriotzea.
16. Etsia dut, ez naiz gehiago hanbat biziko. Barkha niri, Jauna; ezen deusik ez dira ene egunak.
17. Zer da gizona, zuk handiets dezazuntzat? edo zergatik ixur zinezake zure bihotza haren gainera?
18. Argitzetik heldu zaizkio ikhustera, eta han berean ezartzen duzu frogetan.
19. Noiz arteo ez darotazu barkhatuko, ez nauzu utsiko, izan deza-dan ahogozoaren iresteko astia?
20. Egin dut bekhatu; zer eginen dut zure jabaltzeko, oi gizonen begiralea? Zertako hartu nauzu etsaitzat, eta zertako naiz ene buruaren behargarri?
21. Zergatik ez duzu ezeztatzen ene bekhatua eta xahutzen ene tzarkeria? Huna non orai herrautsean lokhartzera nohan; eta bihar goizean bilhatzen banauzu, orduko ez naiz gehiago izanen.

## VIII. KAP.

1. Orduan Baldad Suharrak ihardestean erran zuen:
2. Noiz arteo mintzaturen zare horrela, eta zure ahoko solasak izanen dira haize muthiria iduri?
3. Jainkoak zuzenbideari hobenik egiten othe dio? Ahalorotakoak zuzen dena iraultzen othe du?
4. Baldin zure semeek egin badute ere haren kontra bekhatu, eta beren tzarkeriaren azpian utzi baditu;
5. Guzia gatik zu goizetik jaikitzen bazare Jainkoa gana, eta othoizten baduzu Ahalorotakoa;
6. Baldin garbitasunean eta zuzentasunean ibiltzen bazare, berehala zutaratuko da eta bakea bihurtuko dio zure etxeari, han bizi delakotz zuzentasuna.
7. Hanbat eginen du, non zure lehenbiziko ontasunak ttipiak izan balira ere, azkenak gaindizka ethorriko baitira.
8. Bilha zaitte iragan gizamendeetan, artharekin ikhar zazu gure arbasoen orhoitzapena;
9. (Ezik atzokoak gure munduan eta deus ez dakigunak, zeren gure egunak lurrean baitira itzal bat iduri:)
10. Eta arbasoek argituko zaituzte; mintzatuko zaizkitzu, eta beren bihotzetik atheratuko dituzte solasak.
11. Ihia bizi othe daiteke hezetasunik gabe? ezpata-belharra urik ez den tokian?
12. Lorean delarik oraino, eta eskuz bildu aitzinean, ihartzen da belhar guziak baino lehen.
13. Horiek dira Jainkoa ahanzten dutenen bideak; horrela galduko da itxuraz baizik ona ez denaren pheskiza.
14. Ez da lakhetuko bere zorokerian; haren sinhesteak iduriko du armiarma-sarea.
15. Bermatuko da bere etxearen gainean, eta etxea ez da gogor egonen; ostikoak ezarriko diozka, eta ez da xutik egonen.
16. Iduri du, iguzkia agertu baino lehen belharra eta hura ilkhitzean gandoa atheratzen duena;
17. Harri-metan usutzen zaizko erroak, eta harrien artean dago.
18. Atheratzen badute bere lekhitik, lekhuak ukhatuko du, eta erranen dio: Ez haut ezagutzen.
19. Hori da ezen haren aphur bateko bozkarioa; bertze belhar batzu haren orde sortzen dira lurretik.



20. Jainkoak ez du iraziren gizon lainoa, ez-eta eskua gaixtaginari hedaturen,

21. Zure begithartea bozkarioz eta ezpainak arraiziaz bethe ditezen arteo.

22. Orduan higuin zinduztenak, ahalkez estaliko dira, eta gaixtaginen etxeak ez du ihardukiren.

### IX. KAP.

1. Eta Jobek ihardestean erran zuen:

2. Egiazki badakit hala dela hori, eta gizona, Jainkoaren parrean, ez dela zuzena aurkhituren.

3. Hari iharduki nahi balio, ez luke miletarik behin zer ihardets hari.

4. Jainkoa bihotzez zuhur eta indarrez hazkar da; nor enferratu zaio, eta du gero izan bakea?

5. Harek aldaratzen ditu mendiak, eta harek bere hasarrearen hatsean eragozten dituenak ohartzen ez dira.

6. Harek higitzen du lurra bere lekhitik, eta lurraren harroinak khor-dokatuak dira.

7. Harek manatzen dio iguzkiari, eta iguzkia ez da ilkhitzen; eta izarrak hersten ditu zigilu baten azpian bezala.

8. Harek bakharririk hedatu ditu zeruak, eta ibiltzen da itsasoko uhin-gainean.

9. Harek egin ditu Xitoiloak, Oriona eta Zazpi-Ohoinak eta hegoaldekoak.

10. Harek egiten ditu gauza handiak, ezin-adituzkoak, harrigarriak eta nonbregabekoak.

11. Ethortzen bazait niri, ez dut ikhusiko; goaten bada, ez dut adituko.

12. Bat-batean egiten badu galde bat, nork hari ihardets? Edo nork erran diozoke: Zertako hari zare horrela?

13. Jainko da, eta nihork ezin ihardets diozoke haren hasarreari, eta haren azpian amor egiten dute lurra jasaiten dutenek.

14. Zer naiz beraz ni, hari ihardesteko, eta ene solasak harekin egiteko?

15. Zuzen zerbait balin balitz ere ene baithan, ez niozoke ihardets, bainan ene juiea othoizka behar nezake.

16. Eta deika nagokoelarik entzun banindeza ere, ez nuke usteko entzun duela ene mintzoa.

17. Ezik xirimola batean lehertuko nau; eta ez merezituri ere, usutuko ditu ene zauriak.

18. Ez nau uzten hatsaren hartzera, eta uherduraz bethetzen nau.

19. Baldin indarra bilhatzen bada haren kontra, hura da guziz indarduna; erabakiaren zuzentasuna behartzen bada, nihor ez da ene alde lekukotasun ekhartzera ausartatzen.

20. Baldin ene burua garbitu nahi badut, ene ahoak hobendun atzeratzen nau; baldin hobengabe erakhusten badut ene burua, tzarra naizela frogatzen darot.

21. Garbi eta laino banintz ere, hori bera ez lakike ene arimak, eta unhagarri nuke bizia.

22. Batera heldu dira ene erran guziak: ala hobengabea, ala hobenduna, Jainkoak biak jotzen ditu.

23. Bainan zaurtzen badu, hil beza behingoan, eta hobenik ez dutenen oinhazeez irri egin ez beza.

24. Lurra gaixtaginaren eskuetara da emana; haren juieen begiak itsutzen ditu Jainkoak; baldin harek ez, nork bada?

25. Ene egunak lasterkaria baino zalhuago goan dira, eta ez dute gozorik ikhusi.

26. Iragan dira, fruitua daramaten untziak iduri, bazkara hegaldatzen den arranoaren pare.

27. Erraten badut: Ez naiz gehiago horrela mintzaturen; ifrentziatzen da ene begithartea, bihurrikatzen naiz oinhazeez.

28. Lazten nintzen ene egintza guzietan, bainakien, Jauna, etzinardala hutsegiten banuen barkhatuko.

29. Baldin halarik-ere gaixtagin bat banaiz, zertako erabili duket lan alferra?

30. Baldin garbitua banintz elhur-urez bezala, eta ene eskuek xuriz argi balezate;

31. Zikhinez lohi nindezakezu halere, eta ene soinekoek gaitsets nindukete.

32. Ezik ez nuke ene iduriko gizon bati ihardesteko, ez-etare enekin bardinez bardin juiamendutan entzuna izan daitekeen bati.

33. Ez laiteke nihor bien larderiartzeko, bien artean bere eskuaren ezartzeko.

34. Ene gainetik khen beza bere zigorra, eta haren beldurrak ez beneza ikhara.

35. Mintzaturen naiz orduan, eta ez nau lazturen; ezik orai ene beldurrarekin ezin ihardets dezaket.





## X. KAP.

1. Unhatua naiz bizitzeaz; erasiren dut ene buruaren kontra, mintzaturen naiz ene bihotzeko uherduran.
2. Erranen diot Jainkoari: Ez benezazu hobendun ezar; erakhuts dizadazu zeren nauzun hunela erabiltzen.
3. Belztua eta ehoa banadukazu, ni zure eskuetako lana, gaixtaginen asmuari laguntza ematen badiozu, ongi othe da hori zure iduriko?
4. Haragizkoak othe dira zure begiak, ala gizonak ikhusten duen bezala ikhusten duzu zuk ere?
5. Gizonaren egunak iduri othe dira zure egunak, eta zure urtheak gizonen urtheak bezalakoak,
6. Zuk bilhatzeko ene gaizkia eta ikhartzeko ene bekhatua,
7. Dakizularik ez dudala egin tzarkeriarik batere, eta nihor ez dela zure eskutik ni athera nezakeenik?
8. Zure eskuek egin izan naute, hekiek obratu naute naizen bezalako, eta orai hola xahuturen othe nauzu?
9. Orhoit zaite, othoi, buztina bezala orhatu nauzula, eta herrautsetara bihurraziren nauzula.
10. Ez othe nauzu esnea bezala higitu eta manthoina bezala gatzarazi?
11. Larruz eta haragiz jauntzi nauzu, hezurak eta zainak ustartzuz egin nauzu.
12. Bizia eta zure urrikalpena eman izan daroztatzu, eta zure ikhustateak begiratu nau bizirik.
13. Horiek zure baithan gordeak daduzkatzun arren, halarik-ere badakit guziez orhoitzen zarela.
14. Baldin bekhatu egin badut, eta orai arteo guphidetsi banauzu, zergatik ez duzu jasanen garbi nadien ene hobenetik?
15. Tzar izatu banaiz, zorigaitz niri; zuzena banaiz, ez dut altxatuko burua, zeren naizen nahigabez eta beharreriaz gauditua.
16. Eta ene hanpurustasuna gatik lothuko zaizkit lehoin bat bezala, eta itzulirik harrigarriko oinhazetan ezarriko nauzu.
17. Ene kontra eraikitzen dituztu zure lekhukoak, zure hasarrea berhatzen duzu ene kontra, eta nahigabeak guduka hari dira ni baithan.
18. Zertako ilkhiazi nauzu ene amaren sabeletik? Oxala urthu banintz begiak ikhus nintzan baino lehen!
19. Amaren sabeletik hobira iraganik, izatu ez banintz bezala izanen nintzen.
20. Ene egun aphurrak ez othe dira laster akhabatuko? Utz nezazu beraz ene bihotzmina deithora dezadan guti bat,

21. Itzultzerik gabe goan nadien baino lehen lekhu ilhun eta heriotzearen goibelaz estalia den hartara,
22. Lazeriazko eta ilhunbezko lekhu hartara, non baitaude herioaren itzala, nahasmendua eta bethi dirauen lastura.

## XI. KAP.

1. Aldiz Sophar Naamatharrak ihardestean erran zuen:
2. Hanbat erasten duenak, entzunen ere ez othe du? Ala gizon elhetsua zuzentzat ilkhiren othe da?
3. Zuri bakharrik guziak egonen othe dira ixilik? Eta orotaz irri egin dukezunean, ez othe da nihor izanen zuri ahalkearen emateko?
4. Erran duzu ezik: Jauna, garbi dira ene solasak eta xahu naiz zure aitzinean.
5. Oxala mintzatzen balitzaitzu Jainkoa eta idek balezazu bere ahoa,
6. Zuri erakhustekotzat bere zuhurtziaren itzalpeak eta zenbat den hedatua haren legea, eta gero adi dezazun haren ganik hainitz gutiago ardiesten duzula zure tzartasunak merezitzen du-en baino!
7. Ezagutzen othe dituztu bada zerek diren haren bideak? osoki othe dakizu haren guzizko ahala?
8. Zerua baino goragoa da, eta zu nola hel? Ifernua baino barnagoa da, eta zu nola sar haraino?
9. Haren hedaturak xitzen ditu lurraren luzetasuna, eta itsasoaren zabaltasuna.
10. Baldin oro eragotz edo batera bil baletza, enferra nork egin liozoke?
11. Alabainan ezagutzen du gizonen ergeltasuna; eta tzarkeria ikhusten duenean, ez othe zaio begira egoten?
12. Gizon ergela hazten da hanpuruskerian, eta uste du libro sorthu dela basastoaren umea bezala.
13. Zuk berriz, gogortu duzu zure bihotza, eta halere Jainkoa gana hedatu dituztu eskuak.
14. Baldin zure ganik irazitzen baduzu zure baithan den tzarkeria, eta bidegabekeria ez bada zure olhan egoten;
15. Orduan narriorik gabe goratuko ahal duzu begithartea, eta izanen zare gothor eta ez duzu beldurrik izanen.
16. Ahantziko ere duzu zure noharrointasuna, eta hartaz etzare orhoituko, baizik-ere iragan den uhar batez bezala.
17. Arrastirian eguna ilkhiko zaitzu eguerdiko argitasunarekin bezala; eta noiz-ere galdua zarela usteko baituztu, atheratuko zare artizarra iduri.



18. Eskainia izanen zaitzun igurikitaz ardietsiren duzu sinheste deskantsu bat; eta hobiratu ondoan, lo eginen duzu beldurrikan gabe.

19. Phausuan izanen zare eta ez duzu izanen izitzailerik; eta askok othoiztuko zaituzte jar zakitzoten begithartez.

20. Aldiz, gaixtaginen begiak iraungiren dira; galduren dituzte itzurpide guziak; eta zer-ere baitzen hekien peskiza, hura izanen zaio hastiagarri hekien arimari.

## XII. KAP.

1. Jobek aldiz, ihardestean erran zuen:

2. Zuek bakharrik zarete beraz gizon, eta zuekin batean hilen othe da zuhurtzia?

3. Nik ere zuek bezala badut bihotz bat, eta ene izpirituak ez du zue-naren minik; nor da ezen zuek dakizuena ez dakienik?

4. Nik bezala bere adiskidearen iroiak hartuko dituenak deiagora eginen dio Jainkoari, eta entzuna izanen da; ezen irrigarri dabila zuzenaren lainotasuna.

5. Hura da kriselu bat erdeinutan dena aberatsen gogokundeetan, bainan argitzera dagona ordu berezian.

6. Nasaizian dira ohoinen olhak, eta ozarki hari dira Jainkoaren tarritatzen, noiz-etare harek emanak baitituzte guziak eskuetara.

7. Zoaz aziendetara, eta irakhatsiren darotzute; zoaz zeruko hegastinetara eta argituren zaituzte.

8. Mintza zakizkio lurrari, eta ihardetsiren darotzu; eta mintzaturen zaizkitzu itsasoko arrainek.

9. Nor da ez dakienik Jaunaren eskuak egin dituela horiek oro?

10. Haren eskuan da bizia duen guziaren arima, gizonaren haragian den izpiritua.

11. Ez othe ditu beharriak berezkatzen hitzak, eta jalearen ahoak jatekoen gozoa?

12. Zaharretan da zuhurtzia, bizi luzean umotasuna.

13. Bainan Jainkoa baithan datza zuhurtzia eta indarra, harek ditu asmua eta ezagutza.

14. Harek hausten duena, nihork osa ez dezake; gizona hersten badu, ez da hari idekiko dioenik.

15. Urak idukitzen baditu, oro agortuko dira; eta uzten baditu, gainazpikatuko dute lurra.

16. Haren baithan dira indarra eta zuhurtzia; harek ezagutzen du zein den enganatzaile, eta zein enganatua dena.

17. Kontseilu-emaileak zorokeriara azkenekotz erorrarazten ditu, eta juieak durduzadurara.

18. Erregeei ezpatako uhala khentzen, eta gerria sokha batez tinkatzen daroete.

19. Aphezak aphaltzen eta handiak lurrerat arthikitzen ditu.

20. Egiatien ahoan aldatzen du solasa, eta zaharrei khentzen daroete jakitatea.

21. Erdeinua buruzagien gainera ixurrazten du, xutitzen dituelarik lurrean ehoak zaudezenak.

22. Ilhunbeetan barna gordeak zirenak agertzen ditu, eta argitara ilkhiazatzen du herioaren itzala.

23. Harek berhatzen, harek galtzen ditu jendaiak, eta xahutuak zirenak harek osora bihurrazten ditu.

24. Lurreko populuko buruzagien bihotza itzulikatzen du, eta berak enganatzen ditu, urhats alferretan ibil ditezen biderik ez den tokitan.

25. Egunaren erdian haztaka ibiliko dira ilhunbeetan bezala, eta andarka hariaraziko ditu hordiak iduri.

## XIII. KAP.

1. Bada, horiek oro ikhusi ditu ene begiak eta aditu ene beharriak, eta ene izpirituak ardietsi ditu guziak.

2. Zuen jakitatea bezain urrun hedatzen da ene ezagutza, eta zuen bethe banaiz.

3. Bainan halere mintzatuko natzaio Ahalorotakoari, eta Jainkoarekin nahi dut iharduki;

4. Lehenik erakhutsiz gezur-asmatzaile batzu zaretela eta irakhaspen tzarrei zarraiztela.

5. Eta oxala ixilik egoten bazinete, zuhurtzat hartuak izan zaitezten-tzat!

6. Entzun zatzue beraz ene erantzukiak eta beharria emozue ene ahoko erabakiari.

7. Jainkoa zuen gezurraren beharretan othe da, zuek haren alde enganioka mintzatzeko?

8. Jainkoaren laguntzara heldu othe zarete, eta haren alde erabakitzera hari zarete?

9. Ala hori othe da Jainkoaren gogarako, zeinarentzat deusere ez baita gorderik? ala hura engana uste duzue gizon bat bezala zuen maulez?

10. Berak jazarriko darotzute, zeren amarruka baitadukazue haren alderdia.



11. Higituko den bezain sarri, asaldutan ezarriko zaituztete; eta zuen gainera eroriko da haren ganikako lastura.
12. Zuen orhoitzapena jarriko da herrautsaren pare, eta zuen buruak lohira bihurtuak izanen dira.
13. Zaudezte aphur bat ixilik, erran detzadan gogoak emanen darozkidanak.
14. Zergatik zirtzikatzen dut hortzez ene haragia eta derabilkat ene bizia eskuetan?
15. Hil banindeza ere Jainkoak, haren baithan lagoke ene igurikitza; eta halarik-ere jazarriko diot ene bizi-moldeari haren aitzinean.
16. Eta bere izanen da ene salbatzailea, ezik haren aitzinera ez da itxura-egilerik agertuko.
17. Entzun zazue ene solasa, eta zuen beharriak ardiets betza asma-kari haukiek.
18. Baldin juiatua banintz, badakit zuzena nindakeela atzema.
19. Nor da juiamendutara enekin atherako dena? Ethor bedi; zertako ixilik egonen naiz iraungitzen?
20. Jauna, bi gauza niri ez egiteaz zaitut othoizten, eta orduan ez diot zure begitharteari ene burua gordeko.
21. Urrun zazu ene gainetik zure eskua, eta zure beldurra ez beneza ikhara.
22. Deith nezazu, eta ihardetsiren darotzut; edo bertzela mintzaturen natzaitzu, eta zuk ihardets dizadazu.
23. Zer dira ene gaizkiak eta bekhatuak? erakhuts daroztatzu ene tzarkeria eta hobenak.
24. Zergatik gordetzen darotazu zure begithartea, eta nadukazu zure etsaitzat?
25. Haizeak daraman hosto baten kontra erakhusten duzu zure indarra, eta lasto ihar baten ondolik zabilta.
26. Ezen garraztasunak iskribatzen ditutzu ene kontra, eta ene gazetatsuneko bekhatuen gatik nahi nauzu xahutu.
27. Esteketan ezarri ditutzu ene oinak; begia iduki diozute ene bidexka guziei, eta ene oinhatzei begiz egotu zare;
28. Ni usteldura pozi bat bezala ezeztatzera nihoalarik eta biphielik jaten duten soineko bat iduri dudalarik.

#### XIV. KAP.

1. Gizona emaztekoa ganik sorthua, labor delarik bizitzen, asko laze-riaz da bethetzen.

2. Ilkhitzen da lore bat iduri, eta oinpean lehertzen dute, eta itzal bat bezala da ezeztatzen, eta behinere ez dago hein berean.
3. Hura den bezalakoaren gainera zure begiak idekitzeko eta hura zurekin juiamendutara erakhartzeko doi othe dadukazu?
4. Hazi lohitik sorthua norik egin dezake xahu? ez othe zuk bakharrik, Jauna?
5. Gutia dira gizonaren egunak; zure baithan dago zenbat diren haren hilabeteak; zuk ezarri diozkatzu haren biziari iragan ez ditazkeen mugarriak.
6. Aphur bat urrun zaite gizona ganik, phausu har dezan, ethor dakion arteo azken ordua, sarizalea bere egunaren akhabantzari dagoen bezala.
7. Zuhaitza ez dago etsian; adaburutzen badute, hostatzen da berriz, eta urthumeak multzoka heldu zaizko.
8. Haren erroa zahartua balitz ere lurtean, haren ondo iraungia balago herrautsean,
9. Muskilduko da uraren usainera eta adaburua eginen du lehenbizi landatu zutenean bezala.
10. Gizona ordean hila, biluzia eta ezeztatua denean non othe da?
11. Nola itsasotik urak goaten balira eta hibai bat husturik agortzen balitz;
12. Hala gizona heriotzeko loan sartzen denean, ez da pizberrituko; zerua urratua izan dadien arteo, ez da ez iratzarriko, ez bere lotik jaikiko.
13. Norik emanen darot geriza eta gorde nezazun ene hobian, zure hasarrearen hatsa iragan arteo, eta berez dizadazun nitaz orhoituko zaren ordua?
14. Uste duzu gizon hila berriz bizi daitekeela? Orai gudutan daramaztan egun guziei ene aldatzapenari begira nago ethor dadien arteo.
15. Deithuko nauzu eta ihardetsiren darotzut; zure eskuetako lanari hedaturen diozu zure eskuina.
16. Ene urhats guziak khondatuak ditutzu, baina barkha zozute ene bekhatuei.
17. Zakhu batean bezala zigilatu ditutzu ene hobenak, baina sendatu duzu ene tzartasuna.
18. Mendia lehertzen denean urmariatzen da, eta harria bere lekhitik eramana da;
19. Urak zilhatzen du harria, eta ur-jotzeak emeki emeki jaten du lurra zuk orobat xahutzen duzu gizona.



20. Indar aphur bat eman diozu, gero dadien bethiko; aldatzen diozu itxura eta khentzen duzu hemendik.

21. Haren haurrak izan ditezen edo ospetsu, edo arbuiagarri, ez da izanen haren ezagutzako.

22. Bainan, bizi deno, haren haragia oinhazez, eta arima bere gainean nigarrez egonen dira.

### XV. KAP.

1. Aldiz Eliphaz Themandarrak ihardestean erran zuen:

2. Zuhurrak, haizeari bezala mintzatuz, ihardetsiren othe du, eta berotuz bere barnea?

3. Zure solasetan zure bardinetik gorago denari jazartzen diozu, eta zuretzat on ez dena erasten duzu.

4. Zure baithan den bezenbatean haritu zare Jainkoaren beldurraren ezeztatza, eta haren aitzinetik othoitzaren irazitza.

5. Alabainan zure tzarkeriaren irakhaspenak dira zure ahoan, eta burho arthikitzaileen hatzetan zabilta.

6. Zure ahoak hobendun atheratuko zaitu, eta ez nik; eta zure ezpainek zerorri ihardetsiren darotzute.

7. Gizonetarik lehenbizikoa sorthu othe zare? aldapak baino lehen izan othe zare egina?

8. Zure beharria Jainkoaren asmuetan othe zen, eta haren zuhurtzia ez othe da zurearen bethe?

9. Zer dakizu guk ez dakigunik? zer argi duzu guk hartu ez dugunik?

10. Badira guthartean adineko gizonak, asko urthezkoak, zure aitak baino hainitez zaharragoak.

11. Zu gogoan ezartzea gaitz othe leikio Jainkoari? Bainan zure solas tzarrek ez dute agintzen hori.

12. Zerk hantzen darotzu bihotza, eta nolaz ditutzu begi harritu horiek, handitasun zoro batzuz iduri amesten duzula?

13. Zerk Jainkoaren kontra hazarazten du zure gogoa, zuk ahotik atheratzeko holako solasak?

14. Zer da gizona, notha gabe izateko; eta emaztekoa ganik sorthua dena, zuzentzat agertzeko?

15. Huna Jainkoaren sainduak berak ez direla aldakortasunik gabe, eta zeruak haren aitzinean ez direla garbi.

16. Zenbatez gizona, gaizkia ura bezala edaten duena, ez da hastiagarriago eta ezdeusago?

17. Argituko zaitut, adi nezazu; ikhusi dudana erranen darotzut.

18. Zuhurrek aithortzen dute eta ez gordetzen jakin dutena beren arbasoetarik,

19. Zeinei bakharrrik emana izan baitzaroete lur hau, eta arrotza ez dute utzi hemendik iragaitera.

20. Egun oroz gaixtagina hanpurustuz dihoa, eta ez da jakina zer iraunen duen haren nausitasun gaixtoak.

21. Izialdurako otsak dira bethi haren beharrietan; eta bakea denean, hura bethi zelatei nabarmendua dago.

22. Alde orotarik ezpatak ikhusten dituela, ez du uste gauetik itzuli daitekeela egunera.

23. Bere ogiaren bilhatzera egiten duenean, uste du bere egun beltza gainera ethorria duela.

24. Atsekabeak ikharan idukiren du, eta grinak inguratuko du, gudurat han den errege bat bezala.

25. Ezen Jainkoaren kontra hedatu du bere eskua, eta Ahalorotakoaren kontra da gogortu.

26. Burua gorarik laster egin du haren kontra, eta burgoitasun gaitzaz harmatu da.

27. Gizenak estali dio begithartea eta gantza dariote haren sabetsei.

28. Hiri debulatuetan egin du bere egoitza, eta hobi bilhakatuak diren etxe hustuetan.

29. Ez da aberastuko, haren onek ez dute iraunen, eta lurrean ez du eginen bere erroa.

30. Ilhunbeetarik ez da ilkhiko, garrak iharraraziko ditu haren adarrak, eta Jaunaren ahoko hatsak suntsiaraziko du.

31. Ez du, bere burua enganatuz, sinheste alferrik erabiliren, nolazbaiko preziotan berreroz daitekela.

32. Galduko da bere egunak bethegabetarik, eta ihartuko zaizkio bere eskuak.

33. Zirphilduko da, bere mahatsa lehen lorean galtzen duen aihena iduri, bere lorea arthikitzen duen oliba bezala.

34. Alabainan goritasunik gabe izanen dira alegiakariak bildu onak, eta suak erreko ditu emaitzak gogotik hartzen dituztenen olhak.

35. Oinhazearen aita da, gaixtakeria sortzen da haren ganik, eta haren barnea zimarkhuketa dabila.



## XVI. KAP.

1. Jobek aldiz, ihardestean erran zuen:
2. Horrelakoak ardura ditut entzun; zuek oro gozakari-emaile behar-garriak zarete.
3. Ez othe dute akhabantzarik izanen zuen haizezko solasek? Ala gaitz othe da zuretzat hola mintzatzea?
4. Nik ere zuei holakoak eras ahal netzazketzue; eta oxala zuen anima balitz ene arimaren heinean!
5. Nik ere goza zintzaketet ene hitzez, eta higi nezake ene burua zuen gainera.
6. Hazkar zintzaketet ene solasez, eta zuek guphidetsiz higi netzaz-ke ene ezpainak.
7. Bainan zer egin? Mintzatuko banaiz, ez da jabalduko ene oinhazea; eta ixilduko banaiz, ez da ene ganik urrunduren
8. Orai berriz, hestutzen nau ene oinhazeak, eta ezdeusetaratuak dira ene alderdiak.
9. Ene larruko zimurrek lekhukotasun atheratzen dute ene kontra, eta gezurti bat jaikitzen da ene aitzinera niri jazartzen darotalarik.
10. Ene gainera bildu du bere errabia; eta dixidatzen naularik, hortzak karraskatu ditu ene kontra; ene etsaiak begi ikharagarri batzuekin begiratu darot.
11. Ene gainera ideki dituzte beren ahoak; eta irain eginez, jo naute mathelan; ene atsekabeez ase dira.
12. Jainkoak gizon tzarren ahalen azpian lothu nau; gaixtaginen eskuetara nau arthiki.
13. Ni, bertze orduz aberats handi nintzen hura, bat-batean naiz ehoa. Estekatu du ene lephoa, xehakatu nau, eta bere ukhaldien xedetzat nau ezarri.
14. Bere lantzez inguratu nau, alde orotarik zilhatu ditu ene sahetsak; ez nau guphide izan, lurrera ixuri ditu ene hertzeak.
15. Sarraskia sarraskiaren gainean eginez zirtzikatu nau, digante bat iduri jauzi zait gainera.
16. Eta nik zakhu bat jauntzi dut larruaren gainera eta hautsez estali dut ene haragia.
17. Nigarraren nigarrez hantu da ene begithartea eta lanbroa jautsi da ene bethazaletara.
18. Jasan ditut horiek tzarkeriarik gabe zirelarik ene eskuak, garbiak nituelarik Jainkoa ganako ene othoitzak.

19. Lurra, ez biazak estal ene odola, hi baithan ez bedi khausi lekhu bat ene marraskaren ithotzeko.

20. Ezik hara zeruan ene lekhukoa; zeru gorenetan dago ene berri dakiena.

21. Elhetan barriatzen dira ene adiskideak; eta ene begiak, Jainkoa ganat ixurtzen ditu bere nigarrak.

22. Oxala gizona Jainkoaren aitzinean hala garbi ahal baledi, nola gizasemea garbi ahal baititake bera bezalako baten aitzinean!

23. Ezen huna ene urthe gutiak laster dihoazela, eta bide bat daromat, zeintaz itzultzerik ez baituket.

## XVII. KAP.

1. Ene indarrak iraungitzen, ene egunak laburtzen hari dira, eta hobia bera zait gelditzen.

2. Ez naiz bekhatura jautsi, eta halere atsekabeen gainean dago ene begia.

3. Libra nezazu, Jauna; zure aldean ezar nezazu, eta gero edozein ethor bekit jazartzera

4. Argitik urundu duzu halakoen bihotza; hargatik ospatuak izanen ez dira.

5. Harrapakina bere lagunei daroete agindu; bainan haren semeen begiak iraungiren dira.

6. Ezarri nau jendearen ahotan errankizun bat bezala, eta ikhugarriritzat nago guzien aitzinean.

7. Gaitzidurak lanbrotu darot begia, eta ene alderdiak ezdeusetara bezala egin dira.

8. Zuzenak hortaz harrituko dira, eta hobengabea alegiakariaren kontra jaikiko da.

9. Eta zuzena bere bideetan da egonen eta esku xahuetan handituko du indarra.

10. Zuek oro beraz, bihur zaitezte, zatozte, eta erakhutsiren darotzuet zuhurtziarik zuen baithan ez dela batere.

11. Iragan dira ene egunak, ene gogoetak haizatu dira, erdiratuz ene bihotza.

12. Gaua egun egin darotade, eta ilhunaren ondotik argiari nago berriz iguri.

13. Iraun baneza ere, hobia nuke etxetzat, eta ilhunbeetan xuxendu dut ene ohea.



14. Usteldurari erran dio: Hi haiz ene aita; eta harrei: Zuek zarete ene ama-arrebak.

15. Orai non da bada ene igurikipena, eta nork ikhustate hartzen du nik jasaiten dudana?

16. Ene phekiza guziak hobiaren zolara enekin dira jautsiko. Uste duzu han bederen izanen dela phausurik enetzat?

### XVIII. KAP.

1. Baldad Suharrak berriz, ihardestean erran zuen:

2. Noizdino erasiari duzu joko? Nabadi zazu lehenik solasa, eta hale-tan mintza gaitezke gero.

3. Zertako gare ikhusiak abereen bardin, eta gaitezke nardagarri zuen aitzinean?

4. Zertako zure hats gaixtoan galtzen duzu zure arima? Zure gatik ukhatua izanen othe da lurra, eta harkadiak beren tokitarik jauziak izanen othe dira?

5. Ez othe da iraungiko gaixtaginaren argia, eta haren suko garra ez othe da beltzik egonen?

6. Argia ilhunduren da haren olhan, eta hilen da haren gaineko kriselua.

7. Haren ahalaren urhatsak hestutuak izanen dira, eta bere asmuek berek anbilduren dute.

8. Alabainan sarean sarthu du oina, eta haren uztarrien artean higitzen da.

9. Oina sarean lothua egonen zaio, eta egarriak khaldan idukiren du.

10. Haren atzematete artea lurrean zen gordea, eta biltzeko peita bide gainean zuen.

11. Beldurrak alde orotarik ikharatuko du eta inguratuko ditu haren zangoak.

12. Goseak ahituko du haren indarra, eta hangoak hartuko ditu haren sahetsak.

13. Herio garratzak iretsiko du haren larruko edertasuna; ahituko ditu, haren besoak.

14. Haren sinhestea irazia izanen da haren olhatik, eta herioa, errege bat iduri, oinka ibiliko da haren gainean.

15. Zenduaren olhan eginen dute haren lagunek beren egoitza, eta sufrea ihaurria izanen da haren olhan.

16. Haren beheitiko erroak ihartuko dira, eta goitiko adarrak izanen dira kraskatuak.

17. Haren orhoitzapena galduko da lurretik, eta plazetan haren izena ez da aiphamenetan izanen.

18. Iraizia izanen da argitik ilhunbeetara, eta mundutik kanpora.

19. Ez du utziko bere odolekorik, ez ondorerik bere populuan; haren ganikakorik ez da izanen haren herrialdean.

20. Haren egunean, gazteak harrituko dira eta zaharrak lasturaz josiak izanen dira.

21. Horra beraz zertaratuko diren gaixtaginaren onak, horra nolakatu-tuko den Jainkoa ezagutzen ez duena.

### XIX. KAP.

1. Jobek aldiz, ihardestean erran zuen:

2. Noiz arteo atsekabe emanen diozue ene arimari, eta ehoa idukiren nauzue zuen erasiez?

3. Huna hamarretan hari zaretela ni ahalketara arthiki beharrez, eta ni gaizki erabiltzeaz etzaitzue begithartea gorritzen.

4. Jakingabe bat izatu banaiz ere, enetzat izanen da naski ene jakin-gabetasuna.

5. Zuek berriz, ene kontra jaikitzen zarete eta atzeman nauten laido-ez jazartzen darotazue.

6. Orai bederen ezagutazue Jainkoak ez nauela bere erabaki zuzenaren arabera atsekabez eta azotez inguratu.

7. Minaren minez oihu eginen dut, eta nihork ez nau entzunen; marraska eginen dut, eta ez da izanen zuzenari bere bidea emanen daroenik.

8. Jaunak hertsu du ene bidea, eta ez naiteke iragan, eta ilhunbeak ezarri ditu ene bidexkan.

9. Biluzi nau ene ospetik; khendu darot khoroa burutik.

10. Alde orotarik xahutu nau, eta galtzen hari naiz; eta khendu darot ene phekiza guzia, atheratua den zuhaitz bati bezala.

11. Haren hasarrearen hata ene kontra jauzi da, eta horrela nau iduki etsai baten pare.

12. Harek igorri ohoinak ethorri dira, ene gainera egin dute beren bidea, eta alde orotarik sethiatu dute ene olha.

13. Ene ganik urrun igorri ditu ene anaiak; eta ene ezagunak, arrotz batzu bezala, gibelatu dira ni ganik.

14. Ene hurbilek bazterrerat utzi naute; eta ezagutzen nindutenek ahantzi naute.



15. Ene etxean zaudenek eta ene neskatoek arrotz bat bezala iduki naute, nonbaitko bideanta bezala izatu naiz hekien begietan.

16. Deithu dut ene muthila, eta ez darot ihardetsi; eta bada, ene ahoz othoizten nuen.

17. Ene hatsaz nakhaiztu da ene emaztea, eta alferretan othoitz egin diotet ene sabeletikako umei.

18. Zoroek berek eskamiatzen ninduten, eta urrundu natzaioletean, enetzat gaizki erasten hari ziren.

19. Higuindu naute bertze orduzko adiskide mamienek, eta gehienik maithatu dudana ene kontra atheratu da.

20. Haragiak goanik, ene hezurak larruari josi dira, eta ezpainak bak-harrik gelditu zaizkit hortzen inguruan.

21. Urrikal zakizkidate, urrikal, zuek bederen, ene adiskideak; ezen ukitu nau Jaunaren eskuak.

22. Zertako darotazue jazartzen Jainkoak bezala eta ene haragitik zarete asetzen?

23. Nork emanen darot iskribatuak izan ditezen ene hitzak? nork emanen darot izan ditezen liburu batean ezarriak,

24. Berun-hostoan burdin-zorrotaz, edo harriaren gainean zizelaz bernuzatuak?

25. Badakit ezen bizi dela ene Berreroslea, eta lurretik bizturen naizela azken egunean;

26. Jauntziren naizela berriz ene larruaz eta ene haragian ikhusiren dudala ene Jainkoa,

27. Zeina ikhusiren baitut neronek, eta ez bertze batek, eta ene begiak egonen zaizko begira. Hori da ene bihotzean jarria den igurikitza.

28. Zertako diozue beraz orai: Jazar diozogun, lopideak horren kontra atzeman detzagun?

29. Ihes egizue beraz ezpataren aitzinetik, zeren baita tzarkeriaren aspertzaila den ezpata bat; eta jakizue badela juiamendu bat.

## XX. KAP.

1. Bada, Sophar Naamatharrak ihardestean erran zuen:

2. Karia hortaz asko gogoeta aldizkatzen dira ene baithan, eta ene gogo a baderamate alde batera eta bertzera.

3. Entzunen dut irakhaspena, zeintaz baitarotazu jazartzen, bainan ene adimenduzko izpirituak bururatuko darot zer ihardets.

4. Hau badakit, hastapenetik eta gizona lurraren gainean ezarria izan denetik,

5. Gaixtaginaren ospea laburra dela, eta alegia-egileen bozkarioa begitzuli baten pare.

6. Haren hanpurustasuna zeruraino igan baledi ere, eta haren buruak hedoiak jo baletza,

7. Azkenekotz gorotza bezala gal laiteke; eta hura ikhusi zutenek erranen dute: Non da?

8. Histen den amets bat iduri, ez da aurkhituren; iraganen da gauazko itxurapen bat bezala.

9. Ikhusi zuen begiak ez du gehiago ikhusiren, eta bere lekhuak ez du gehiago ezaguturen.

10. Haren semeak beharraren azpian ehoak egonen dira; bere eskuek bihurturen diote bertzeei egin gaizkia;

11. Haren hezurak betheko dira haren gaztetasuneko zabarkeriez, eta harekin herrautsean egingen dute lo.

12. Ezen gaizkia gozo izanen zaiounean ahoan, gordeko du bere mihiaren azpian

13. Guphidetsiko du, ez du utziko, eta bere zintzurran gordeko du.

14. Haren ogia sabelean aspikaren minera bihurturen zaio.

15. Goiti egingen ditu iretsi dituen aberastasunak, eta Jainkoak atheraturen ditu haren sabeletik.

16. Zurgaturen du aspiken burua eta biperaren mihiak hilaraziren du.

17. (Ez ditu ikhusiren hibaieko xirripak, ez-eta ezti eta burrazko latsak.)

18. Egin dituen guziak ordainez jasanen ditu, eta ez da halere ahitua izanen; bere atzemankeria guzien arabera, hanbat ere izanen du egartzeko;

19. Zeren beharrak oinpean erabiliz larrutu baititu; etxea ebatsia baitu, eta ez berak egina.

20. Ez da haren sabela ase; eta izan dukeenean gura zuen hura, ezin du gozatu.

21. Deusere ez da gelditu haren jatekotik, eta hargatik deus ez da geldituren haren ontasunetarik.

22. Ase ditakeenean, hestutzen eta ithotzen egonen da, eta guzizko oinhaze bat eroriko zaio gainera.

23. Beth eza bere sabela, Jainkoak igor diozon bere hasarrearen hantsa eta haren gainera uria bezala erorraraz detzan bere geziak.

24. Burdinazko harmei itzuriko da, eta kobrezko arranbelara da eroriko.

25. Ezpata buluzia eta bere maginatik atheratua da; dirdiraturaz sarras-kituko du; ikharagarrikeria batzu harat-hunatka ibiliko zaizko gainetik.



26. Ilhunbe guziak bilduak dira haren arimako zolara; bizten ez den su batek iretsiko du; bere olhan orotaz utzia, atsekabetan egonen da.

27. Zeruek argitaraturen dute haren tzartasuna, eta lurra jaikiren da haren kontra.

28. Haren etxeko haurrak etsaiaren menean izanen dira, eta eramanak izanen dira Jainkoaren hasarreko egunean.

29. Hori da Jainkoak gaixtaginari dadukon zathia, Jaunak haren solas tzarrei emanen daroten primantza.

### XXI. KAP.

1. Jobek aldiz, ihardestean erran zuen:

2. Entzun zatzue, othoi, ene hitzak eta urrikitan sar zaitetze.

3. Jasan nezazue, eta mintzatuko naiz; eta gero, iduritzen bazaitzue trufatuko zarete ene erranez.

4. Gizon batekin othe dut ene makhurra, atsekabetan sartzeko ariarik ez izateko?

5. Zaudezkidate begira, harri zaitetze eta erhia ezpainen aitzinean idukazue.

6. Eta ni, orhoitzen naizenean, lazten naiz, eta ikharak jotzen du ene haragia.

7. Zertako beraz gaixtaginak dira bizi, goratuak eta ontasunez gaindituak?

8. Hekien ondoregoak badirau hekien aitzinean, beren hurbilekoen eta ilobasoen multzoaz inguratuak dira.

9. Hekien etxeak beldurtzekorik gabe eta bakean dira, eta Jainkoaren azotea ez da hekien gainean.

10. Hekien behiak ernaltzen dira eta ez dute hilori egiten, erditzen dira eta ez dute umea galtzen.

11. Hekien haurrak arthaldeak bezala ilkhitzen dira eta jauzika hari dira beren jostetetan.

12. Eskuetan dituzte atabala eta gitarra, eta organo-otsez bozten dira.

13. Ontasunen erdian daramatzate beren egunak, eta aphur batez jausten dira hobira.

14. Jainkoari erran diote: Urrunt hadi gu ganik, ez diagu hire bideez jakitaterik nahi.

15. Nor da Ahalorotakoa, guk hura zerbitzatzeko, eta zer atheratuko dugu hura othoizturik ere?

16. Halarik-ere urrun ni ganik gaixtaginen asmua, ezen hekien ontasunak ez dira hekien eskuko.

17. Zenbatetan ez da iraungitzen gaixtaginen argia, uholdea etzaiote gainera heldu, eta Jainkoak ez diozkate igortzen bere hasarrearen oinharzeak?

18. Izanen dira lastoa haizearen aitzinean bezala, eta xirimolak barraiatzen duen hautsa iduri.

19. Jainkoak semeei begiratuko diote aitaren oinhazea, eta aitak eza-gutuko du gaztigatua izan den orduan.

20. Bere begiz ikhusiko du bere burua xahutua izaten, eta Ahalorotakoaren hasarreko uretik edanen du.

21. Zer axola luke ezen bere etxeaz bere ondotik, bardin erdiz-erdi gutituak ez balitu bere hilabeteak.

22. Nihor othe da zerbaiten irakhasteko Jainkoari, handi-mandi guzien juiatzaileari?

23. Halakoa hiltzen da azkeneraino gozaturik indarra, osagarria, ontasunak, zoriona;

24. Haren barnea urinak gori daduka, eta muinak hezitzen diozka hezurrak.

25. Halakoa berria, bere arimako uherduran hiltzen da, eta ontasunak gabe.

26. Eta bizkitartean elkharrekin herrautsean lo egingen dute, eta harrek bardin estaliko dituzte.

27. Garbiki ezagutzen ditut zuen gogoeta eta ene gainerateko iduripen gaixtoak.

28. Ezen diozue: Zer egin da buru-zagi horren etxea? Zer egin dira gaixtaginen olhak?

29. Galdegiozue bideant edozeini, eta ikhusiko duzue horietaz orotaz jakintsun dela;

30. Gaixtagina, galdu behar den eguneko begiratua dela, eta Jaunaren hasarreko eguneraino osorik dela eramana.

31. Ezen haren aitzinean nork jazarriko dio bere bide gaixtoaz? nork bihurtuko diozka egin dituen gaizkiak?

32. Hobira eramanen dute, eta iduriko du harek duela hilen baldarnako manamendua.

33. Eder izan zaio Kozitoko ur-hegiari; nihonereko gizonketa eramane du bere ondotik, eta ezin erran bezenbat izanen du aitzinean.

34. Zertan hari zarete beraz alferretan niri gozagarri eman beharrez, ageri denean zuen erranak zeiber egiten dioela egari.





## XXII. KAP.

1. Eta Eliphaz Themandarrak ihardestean erran zuen:
2. Gizona, zuhurtzia oso baten jabe balitz-ere, Jainkoari erkhatzeko othe da?
3. Zuzena bazare ere zertaz ontzen da Jainkoa? edo zer ematen diozu, garbia izanik ere zure bidea?
4. Beldurrez hariko othe da zurekin solas xuritzen, eta juiamendutara zurekin atherako othe da?
5. Ez othe zaitu zafratzen zure maltzurkeria handiaren eta nihonereko gaizkien gatik?
6. Alabainan, ariarik gabe zure anaiei khendu diozute beren bahia, eta buluzak gabetu dituzu beren soinekoetarik.
7. Akhitua zenari ez diozu eman ura, eta ogia gose zenari khendu diozu.
8. Zure besoko indarraren itzalean gozaten zinduen lurra, eta haskarrenarena eginez eskuperatzen zinduen.
9. Alhargunak igorri ditutzu eskuak hutsik, eta umezurtzei hautsi daroztetzu ukharaiak.
10. Horien gatik zare artez inguratua eta asaldatzen zaitu bat-bateko ikharak.
11. Eta zuk uste zinduen etzinela ilhunbeak ikhusi beharra eta urholdeak jorik eramatekoa?
12. Ala ez duzu buruan Jainkoa zerua baino goragoa dela eta izarretarik goiti dela altxatzen?
13. Eta diozu: Zer daki Jainkoak? Hedoi baten artetik bezala juiatzen du.
14. Hedoi bat gordegarri du; ez dago gure gora-behereei begira, zeruko buru batetik bertzera inguruka dabila.
15. Atxiki nahi othe duzu mende zaharretako bidea, gizon tzarrek zehatu dutena?
16. Zeinak adinik gabe eramanak izan baitira, eta uharrak errotik eragotzi baititu;
17. Zeinek Jainkoari erraten baitzaroten: Urrunt hadi gu ganik; eta zeinek hura baitzadukaten Ahalorotako Jaunak deusen egiteko ahalik ez balu bezala,
18. Noiz-ere harek betheak baitzituzten etxeak ontasunez. Urrun ni ganik hekien ustekeriak!
19. Zuzenek ikhusiren dituzte galtzen, eta boztaren dira; irain eginen deroete hobengabeak.

20. Goratu ziren eta ez othe dira lurrerat eragotziak izan? eta suak ez othe ditu hekien ondarrak iretsi?
21. Jainkoaren nahiari egiozu beraz amor, eta izan zazu bakea, eta horreletan zorion guziak izanen ditutzu.
22. Haren ahotik har zazu legea, eta haren hitzak zure bihotzean ezar zatzu.
23. Baldin Ahalorotakoa gana itzultzen bazare, berritan ezarria izanen zare zure zorionean, eta gaizkia urrun igorriren duzu zure olhatik.
24. Lur-orde, emanen darotzu harria; eta harri-orde, urhezko uharrak.
25. Ahalorotakoa zure etsaien kontra izanen da, eta dirua metatuko da zure etxean.
26. Orduan Ahalorotakoa baithan aurkhituren duzu zure gogo guzia, eta Jainkoa ganat altxaturen duzu begitharte.
27. Othoizturen duzu, eta entzunen zaitu, eta bozkarioz betheko ditutzu haren alderako zure botuak.
28. Asmu bat eginen duzunean, gauza eskura ethorriko zaitzu, eta argiak dirdiratuko du zure bideetan.
29. Ezen aphaltua izan dena, ospean izanen da, eta begiak behebitu dituena, hura salbatuko da.
30. Hobengabea salbatuko da, bere eskuen garbitasunaz salbatuko da ordean.

## XXIII. KAP.

1. Jobek aldiz ihardestean erran zuen:
2. Orai ere uherrez bethea da ene solasa, eta ene zauria egin duen eskua garratzago dago ene auhenak samin diren baino.
3. Nork emanen darot ezagut dezadan ene Jainkoa, aurkhi dezadan eta goan nadien haren tronuraino?
4. Haren aitzinera athera nezake ene hauzia, eta ene ahoa bethe nezake ene arrangurez,
5. Jakin detzadan ihardetsiko darozkidan hitzak eta ezagut dezadan erranen darotana.
6. Ez nuke nahi bere indar gaitzarekin iharduk lezan enekin, ez-eta leher nintzan bere handitasun dorphearen azpian.
7. Zuzentasuna athera beza ene kontra, eta garaitiar ilkhi bedi ene hauzia.
8. Bainen iguzki-haizera egiten badut, ez da agertzen; mendebalera banoha, ez dut ardiesten.



9. Ezker itzultzen banaiz, zer eginen dut? ez dut atzemanen; eskuin egiten badut, ez dut ikhusiko.

10. Berak ordean badaki ene bidea, eta frogatu nau suan iragaiten den urhea bezala.

11. Ene oina haren hatzei jarraiki da, haren bidea iduki du, eta ez naiz hartarik makhurtu.

12. Haren ahoko manamenduetarik ez dut gibel egin, ene bihotzean zaindu ditut haren ezpainenak hitzak.

13. Hura bakharririk da alabainan dena, eta nihork ezin zeherraraz dezake haren gogo; eta haren izpirituak nahi duen guzia egiten du

14. Bere nahia ene gainean duenean bethe, bertze halako asko eskuan ditu.

15. Hargatik nahasten nau haren begitharteak, eta begiratzen diodan, lotzen zait ikhara.

16. Jainkoak amor eragin dio ene bihotzari, eta Ahalorotakoak nau asaldatu.

17. Ilhunbe inguratzen nindutenen gatik ezen ez naiz galdu, eta hedoiak ez du bere lanbroaz itsutu ene begithartea.

#### XXIV. KAP.

1. Denborak etzaizko Ahalorotakoari gordeak; bainan hura ezagutzen dutenak ez dakite haren egunen berri.

2. Batzuek aldaratzen dituzte mugarriak, ebasten dituzte arthaldeak, eta alhara baderamatzate.

3. Hartzen dute umezurtzen astoa, eta bahi eramaten dute alhargunaren behia.

4. Iraultzen dituzte beharren bideak, eta batean zaphatzen dituzte lurreko gizon emeak.

5. Bertze batzu, basastoak mortuan iduri, ilkhitzen dira beren lanera: harrapakinari zelatan egonez aphaizten dute beren haurren jatekoa.

6. Uztatzen dute berena ez duten landa, indarraren azpian eho dute-naren mahastian egiten dute arnoa.

7. Gizonak buluzik igortzen dituzte, soinekoak khentzen diozkate, hotzetan estalgirik ez dutenei,

8. Eta haukiek mendiko uriaz bustiak dira, eta estalgirik ez izanez, harri azpiari josten dira.

9. Bortxa eginez, gaixtaginek larrutu dituzte umezurtzak, eta biluzi jende gaixoa.

10. Has eta soinekorik gabe dabiltzanei eta gosez daudezinei eskutik khendu diozkate ogi-burukak.

11. Hekien kharben artean egin dute eguerdiko loa, eta mahatsa dolhareetan lehertu dutenak egarriz daude.

12. Hirietan gizonak auhenez iduki dituzte, eta sarraskitu dituztenen bozak deihadar egin du, eta Jainkoak ez du jasaiten goan dadien aspertua izan gabe.

13. Argiari izan dira bihurri; ez dakizkate Jainkoaren bideak, eta ez dira haren bidexkez itzuli.

14. Goiz lehenetik jaikitzen da gizon hiltzailea, bizia atheraten diote beharrari eta noharroinari; gabaz berriz, ohoina bezala izanen da.

15. Lagunaren emazteari darraikona ilhunari dago begira, dioelarik: Nihork ez nau ikhusiko; eta gordetzen du begithartea.

16. Gabaz zilhatzen ditu etxeak, egun hitzartuan, eta ez dute argiarekin, zer ikhus.

17. Oharkabean heldu bazaiote argi-zirrinta, iduritzen zaiote herioaren itzala; eta ilhunbeka argiz bezala dabilta.

18. Halakoa uraren axala baino arinago da. Madarikatua izan bedi lurrean haren zathia, ez bedi mahaskietako bidez ibil.

19. Elhur-uretarik bero-khaldara iragan bedi, eta bere bekhatuak heriotzera eraman beza.

20. Urrikalpenak ahantz beza; harrak izan beitez haren gozotasun; orhoitzapenetan izan ez bedi, bainan zuhaitz alferra bezala ebakia izan bedi.

21. Hazi du ezen amatzen ez den barre-ta, eta ongirik ez dio egin alhargunari.

22. Bere indar handian eragotzi ditu hazkarrak; eta buru egin behar-ko duenean, biziaren gal beldur izanen da.

23. Jainkoak eman dio urrikitzeko astia; eta hura hartaz baliatu da hanpuruskeriako: bainan Jainkoaren begiak haren urhatsen gainean daude.

24. Halakoak aphur batentzat goratu dira; ez dute iraunen; aphalduak izanen dira gauza guziak bezala; eramanak eta lehertuak izanen dira ogien buruak bezala.

25. Hori hala ez bada, nork jazar dizaket gezurtika, eta ene hitzez nork niri iratxik Jainkoaren aitzinean?

#### XXV. KAP.

1. Baldad Suharrak berriz, ihardestean erran zuen:



2. Zeruko gainetan bakea erreginarazten dituenaren baithan daude ahala eta larderia.
3. Athera ahal othe daiteke zenbat diren haren soldadoak? Eta noren gainera ez da haren argia ilkhitzen?
4. Jainkoaren parrean gizona zuzentzat athera othe daiteke, edo emaztekiaren umea garbi ager othe daite?
5. Ilhargiak berak ez du argitzen, eta izarrak ez dira xahu haren aitzinean.
6. Zenbatez gutiago gizona, usteldura bat dena, eta gizasemea har bat baizik ez dena?

### XXVI. KAP.

1. Jobek aldiz ihardestean erran zuen:
2. Noren laguntzera hari zare? herbal norbaiti? indar eskas denaren habe jartzen zare?
3. Nor argitu beharrez hari zare? zuhurtziarik gabe den bat othe? eta zure umotasun handia erakhutsi othe duzu?
4. Nor nahi izan duzu irakhatsi? ala hatsaren emailea?
5. Hara non diganteak eta hekiekin egoten direnak dauden auhenez uren azpian.
6. Haren aitzinean ifernua biluz da, eta lezeak estalgirik ez du.
7. Harek hedatu du ipharra hutsaren gainean, eta lurra dilindan ezarri du ezdeusaren gainean.
8. Harek lotzen ditu urak bere hedoietan, guziak ez ditezen batean eror beheiti.
9. Harek idukitzen du bere tronua estalirik eta hedoiak hedatzen ditu haren gainera.
10. Urei inguruan eman diote mugarri bat, argia eta ilhuna akhaba ditezen arteo.
11. Haren buru higitze bati ikharatzen eta khordokatzen dira zeruko habeak.
12. Bere indarrean bat-batean bildu ditu itsasoak, eta haren zuhurtziak zebatu du hanpurutsua.
13. Haren izpirituak berregindu ditu zeruak, eta haren eskuak eraginez atheratu da suge bihurgunetsua.
14. Haren bideetarik guti bat baizik ez da erranik; eta haren solasetik izpi bat baizik ez denean guk aditu duguna, nork begira diozoke haren ihurtzuriaren gaitzari?

### XXVII. KAP.

1. Job lothurik bere solas idurizkakoari, mintzatu zen oraino eta erran zuen:
2. Bizi bedi Jainkoa, ene gaineko erabakia gibelatu duena, eta bizi bedi Ahalorotakoa, ene arima uherduran ezarri duena
3. Zeren hatsa ene baithan gelditzen deno, eta ene sudur-mizpiretan Jainkoa ganikako biziak diraueno,
4. Ene ezpainek ez baitute tzarkeria bat erranen, ez-eta ene mihiak gezur bat moldatuko.
5. Urrun da uste baitut zuzen juiatzen duzuela; hil arteo ez naiz atheratuko hobengabe naizela erratetik.
6. Ez dut utziko hasi dudan ene xuripena, ene bihotzak alabainan ez nerrau ene bizi guzian hobendun.
7. Gaixtagintzat goan bedi ene etsaia, gizatzartzat niri par egilea.
8. Zer pheskiza duke alegiakariak, jaramankeriaz lotzen bada bertzeen onari, eta Jainkoak haren arimari ez badio atherik idekitzen?
9. Jainkoak entzunen othe du haren deihadarra, zorigaitza gainera ethorriko zaiocenean?
10. Ala bere gozoa aurkhituren othe du Ahalorotakoa baithan, eta edozein orduz Jainkoari dei eginen ahal othe dio?
11. Jainkoaren laguntzarekin argituren zaituztet Ahalorotakoa baithan denaz, eta ez darotzuet gordeko.
12. Baina jakintsun zarete guziak, eta zertako ariarik gabe deratsatzue solas alferrak?
13. Hau da gizon gaixtoaren zuzena Jainkoaren baithan, eta hau mut-hirik Ahalorotakoa ganik hartuko duten primantza:
14. Baldin seme asko heldu bazaio, ezpataren bazka izanen dira, eta haren ilobasoak ez dira ogiz aseko.
15. Haren ganik geldituko direnak, hil orduko ehortziko dira, eta beren alhargunek ez darote deithorerik eginen.
16. Dirua lur-meta bezala bildu balu ere, eta lohia bezala moltzatu balitu soinekoak,
17. Lana hartuko du bai, gizon zuzenak ordean jauntziko ditu soinekoak, eta hobengabeak eramanen du diruaren zathia.
18. Bere etxea biphiak bezala egin du, eta etxola bat egin du abere-zainak bezala.
19. Aberatsak bethiko loa hartuko duenean, ez du berekin deusere eramanen; idekiko ditu begiak, eta deus ez du atzemanen.



20. Uhar batek bezala hartuko du erromeseriak, phesiak gabaz du lehertuko.

21. Erretzen duen haize bat lothuko zaio, eramanen du, eta xirimola batek bezala jauzaraziko du bere tokitik.

22. Jainkoak ezarriko dio eskua gainean eta ez du guphidetsiko; haren eskutik ihes egin beharrez hariko da.

23. Haren lekhuari begiraturik, esku-zaflaka hariko dira haren gainean eta hixtuka ondotik.

### XXVIII. KAP.

1. Zilharrak badu lurrean bere adarren sorlekhua, eta urheak urtzen den tokia;

2. Burdina lurretik atheratzen da; eta harria, beroak urthurik, kobre bilhakutzen da.

3. Gizonak nahi duen iraupena eman dio ilhunari; bere begia heltzen du gauza guzien akhabantzara, lupheko ilhunbeetako harrira, heriotzearen itzalpeetara.

4. Uharrak populu bidaianta ganik berezten ditu gizon beharraren oinak ahantzi dituenak eta helbiderik gabe direnak.

5. Lurra, zeintan sortzen baitzen ogia, suaz iraulia izan da.

6. Hartako harrietan da zafirraren lekhua eta hartako mokhorretan urhearena.

7. Xoriak ez daki hango bidea, eta saiaren begiak ez du hura ikhus.

8. Tratularien umEEK ez dute hura oinkatu, eta lehoinaren urrixa ez da han gaindi iragan.

9. Gizonak harriaren gainera hedatu du eskua, mendiak erroetarik irauli ditu.

10. Harrietan errekek egin ditu, eta haren begiak gauza balios guziak ikhusi ditu.

11. Hibaien zolak ere ikhartu, eta estaliak zirenak argiratu ditu.

12. Bainan non atzematen da zuhurtzia? Eta zein da adimenduaren lekhua?

13. Gizonak ez daki haren balioa, eta ez da aurkhitzen gozoki bizi direnen lurrean.

14. Lezeak erraten du: Ez da ene baithan. Itsasoak dio: Ez da enekin.

15. Ez da urherik ederrenarentzat ematen, ez da zilharrean trukutzen.

16. Ez da Indietako oihal thindatuen aldean ezartzeko, ez-eta sardonez harriaren edo zafirraren aldean.

17. Urhea edo berina ez dira hari bardintzeko, eta ez dira urhezko untiak hartan trukatu.

18. Balio handieneko eta goreneko gauzak ez dira haren aldean aipatu; bainan zuhurtzia lekhu gordeetarik atheratzen da.

19. Ethiopiako topaza ez da haren bardin ezarriko, ez-eta oihal thindatu ederrenak haren aldean.

20. Nondik heldu da bada zuhurtzia? Non da adimenduaren lekhua?

21. Gordea da bizi diren guzien begiei; zeruko hegastinentzat orobat estalia da.

22. Galpenak eta herioak diote: Gure beharritz entzun dugu haren omena.

23. Jainkoak ezagutzen du haren bidea, berak daki haren lekhua.

24. Alabainan bera da munduaren bazterrak ikhusten dituenak, eta zeruaren azpian diren gauza guziak begiz daduzkana.

25. Hura da haizeari indarra eman dioena; harek neurritu ditu urak.

26. Legea ematen zaroetenean uriei eta bidea phesi burrunbatsuei,

27. Orduan ikhusi zuen zuhurtzia, orduan ezagutarazi, aphaindu eta ikhartu zuen.

28. Eta gizonari erran zaroen: Huna Jaunaren beldurra, hau da zuhurtzia, eta gaizkitik gibelerat egiteko adimendua.

### XXIX. KAP.

1. Job lothurik bere solas idurizkakoari, mintzatu zen oraino, eta erran zuen:

2. Nork emanen darot izan nadien beihala bezala, hala-nola Jainkoak begiratzen ninduen egunetan,

3. Haren argiak ene gainera distiratzen zuenean, eta haren argitara ilhunbetan nindabilanean;

4. Izatu naizen bezala ene gaztetasuneko egunetan, Jainkoa ixilik ene olhan zenean;

5. Ahalorotakoa enekin eta ene haurrak ene inguruan zirenean;

6. Oinak esnean garbitzen nintuenean, eta harria olio-ithurritara urtzen zitzaitanean;

7. Hiriko athera goaten nintzenez, eta plaza gainean jarlekhu bat xuxentzen zarotatenean?

8. Gizon-gazteek ikhusten ninduten, eta itzaltzen ziren; eta zaharrak jaikirik, xutik egoten ziren.

9. Aitzindariak solasetik gelditzen ziren eta erhia ahoaren aitzinean ezartzen zuten.



10. Buruzagiek beren mintzoa ithotzen zuten eta hekien mihia zintzurri josten zen.
11. Aditzen zuen beharriak dohatsu deitzen ninduen, eta ikhusten zuen begiak lekhukotasun bihurtzen zarodan,
12. Atheratzen nituelakotz marraskaz zagoen beharra eta laguntzarik etzuen umezurtza.
13. Galtzera zihoanaren benedizioea, ene gainera heldu zen, eta gozatzen nuen alhargunaren bihotza.
14. Zuzentasunaz jauntzi dut ene burua; ene zuzentasunaz jauntzi naiz, aldagarri eta khoro batez bezala.
15. Izatu naiz itsuaren begia eta mainguaeren oina.
16. Beharren aita nintzen; eta ez nakizkien gauzetan, artha handiz bilhatzen nintzen.
17. Gaixtaginari hausten niozkan haginak, eta hortzetarik khentzen nioen phuska.
18. Eta erraten nuen: Ene ohantzettoan hilen naiz, eta ene egunak palmak bezala berhaturen ditut.
19. Ene erroa ur-bazterretan hedatzen da, eta ene hostoilan geldituen da ihintza.
20. Ene ospea bethi berrituz goanen da, eta ene arranbela hazkartuz ene eskuan.
21. Entzuten nindutenak, ene erabakiari begira egoten ziren; erne eta ixil zauden ene erranari.
22. Etziren ausartatzen ene hitzei deusen iratxikitzeria, eta ene solasa ihintza bezala jausten zitzaioeten gainera.
23. Deitzen ninduten lur agorrek uria bezala; ahoak idukitzen zituzten lur hirrikatua udazkeneko erauntsiari dagoen bezala.
24. Irri bat noiz edo noiz egiten banioten, ezin sinhetsiz egoten ziren, eta ene begiharteko argidura etzen lurrera erortzen.
25. Hekien gana goan nahi banuen, buru-buruan jartzen nintzen; eta errege bat bere armadaz inguratua iduri jartzen nintzenean, halere nintzen atsekabetan zirenen gozatzaile.

### XXX. KAP.

1. Eta orai nitaz egiten dute irri gazteagoek, zeinen aitag ene arthaldeko zakhurren artean ezartzeaz nardatuko bainintzen;
2. Zeinen eskuetako indarra ez-deusentzat bainadukan, eta bizia bera hekientzat sobera iduritzen baitzitzaitan.

3. Beharrak eta goseak iretsiak, mortuan ahal zutena karruskatzen zuten, asturugaitzez eta erromeseriaz zikhina zariotela;
4. Belharrak eta zuhaitz-azalak jaten zituzten, eta orreen erroz hazten ziren;
5. Erreketara goaten ziren hekien harrapatzera; eta bakhar zenbait atzeman zuketenean, izkolaka harat laster egiten zuten.
6. Mortuko erreketan, lurreko zilhogetan edo harri gainetan egoten ziren;
7. Horrelako biziak ziren boz, eta nihonereko atsegina zitzaioten sasipean egotea.
8. Aita zoro eta putrusen seme eta lurrean doidoia baizik ageri ez diren batzu dagozkit eskarnioz.
9. Orai hekien kantagailu bilhakatua naiz, eta errankizuntzat egina natzaioete.
10. Higuintzetan nadukate, ene ganik urrun doazi ihesi eta ez dira beldur niri begithartera thu egiteko.
11. Jainkoak alabainan ideki du bere gezi-untzia, eta erdiratu nau, eta balaztatu du ene ahoa.
12. Ene zorigaitza hasi denean, jaiki dira berehala eskuin-aldean, behaztoparazi dituzte ene zangoak, eta beren urhatsen azpian hartu naute, itsasoko uhinek bezala.
13. Urratu dituzte ene bideak, hedatu darozkidate zelatak, nausitu dira, eta nihor ez da niri languntzarik ekhartzeko izatu.
14. Harrasi urratu batetik eta athe idekitik bezala jauzi zaizkit gainera, eta ene zorigaitzen erdian erori dira ene gainera.
15. Ezdeusetaratua naiz; haizeak bezala eraman darotazue ene lehia; eta lanho bat iduri goan da ene zoriona.
16. Eta orai ene arima ilhauntzen hari da ene baithan, eta atsekabezko egunak hartu nau.
17. Oinhazeak gabaz erdiratzen ditu ene hezurak, eta jaten hari nautenek ez dute lorik egiten.
18. Hekien moltzoak iresten du ene jaunzkura, eta athorraren gaineko buruak bezala hertsatzen naute.
19. Egina naiz lohia iduri, ilhauna eta hautsa bezala naiz bilhakatu.
20. Deihadar darotzut egiten, Jauna, eta ez nauzu entzuten; zure aitzinean xutik nago, eta ez darotazu begiratzen.
21. Muthiritu zaizkit, eta zure eskuaren gogortasunean etsai atheratu.
22. Lurretik jauzi nauzu; eta haizearen gainean bezala ezarriz, phorrokatu nauzu guzia.



23. Badakit heriotzera naramazula, bizi diren guzien etxea ezarria den lekhura.
24. Guzia gatik ez duzu eskua hedatzen hekiek alde bat ahitzeko; eta erortzen badira ere, zerorrek salbaturen dituztu.
25. Beihala nigar egiten nuen atsekabetan zenaren gainera, eta ene arima beharrari urrikaltzen zitzaioen.
26. Onari nindagoen begira, eta gaixtoa zait ethorri; argia nuen igurkitzen, eta ilhunbeak dira jauzi.
27. Sutan dago ene barnea hatsarterik gabe: atsekabezko egunek ustekabeen atzeman Haute.
28. Auhenez nindabilan, sumindu gabetarik; xutituz marraska egiten nuen jendeen erdian.
29. Erainsugeen anaia izatu naiz eta ostruken lagun.
30. Ene gainean belztu da larrua, eta khaldak ene hezurrak khabartu ditu.
31. Deithoretara aldatu da ene gitarra; ene organoak ez du nigar-egileen boza baizik.

### XXXI. KAP.

1. Patu egin dut ene begiekin, neskatxa bat ere gogoan ez erabiltzeko.
2. Ezen bertzela Jainkoak zer zathi zukeen zerutik ene baithan, eta Ahalorotakoak zer primantza bere egoitza goratik?
3. Galpena ez othe da gaixtaginarentzat, eta hastantzea tzarkeria egiten haritzen direnentzat?
4. Jainkoa ez othe dago ene bide guziei begira, eta ez othe ditu ene urhats guziak khondatzen?
5. Ergelkerian ibili balin banaiz, eta maularakotzat ene oina ernatu balin bada;
6. Jainkoak phisu zuzenetan phisa beneza, eta ezagut beza ene lainotasuna.
7. Ene urhatsa bidetik makhurtu bada, ene bihotza ene begiei jarraiki bada, eta ene eskuei notha bat lothu bazaiote;
8. Erain bezat, eta bertze batek jan beza nik eraina; ene ganikako ondoregoa errotik atheratua izan bedi.
9. Baldin ene bihotza linburtu bada emazteki baten gainean, eta zelatarik ene adiskide baten atean hedatu izan badut;
10. Bertze baten ondar izan bedi ene emaztea, eta bertzeak makhur beitez haren gainera.

11. Ezen hori zilhegi ez dena da, eta tzarkeriarik handiena;
12. Su bat da ahitu arteo erretzen duena, eta ninika guziak errotik daramatzana.
13. Baldin zuzenbideaz nardatu banaiz ene muthilaren eta neskatoaren alderat, makhur zerbait zutenean enekin;
14. Zer eginen dut arren, Jainkoa juiatzera jaikiko denean? Eta zer ihardetsiko diot bilhatzera abiatzen denean?
15. Ez othe nau amaren sabelean egin ene sehia ere egin izan duenak? eta ni sabelean irazkitu nauena eta hura egin duena, ez othe da Jainko bera?
16. Beharrari nahi zuena ez badiot ukhatu, eta alhargunaren begia ez badut iguri egonarazi;
17. Ene ahamena bakharrik jan ez badut, eta umezurtzak hartarik jan izan badu;
18. (Ezen ene haurretik urrikalmendua enekin handitu, eta ene amaren sabeletik enekin atheratu da;)
19. Erdeinatu badut bideanta has zelakotz, eta jende beharra etzuelakotz estalgirik;
20. Baldin haren alderdiek ez banaute benedikatu, eta ene ardien ilearekin ez bada berotu;
21. Baldin eskua altxatu badut umezurtzaren gainera, atean hazkarrago nintzela ikhusten nuenean ere;
22. Sorbalda bere lotgunetik eror bekit, eta ene besoa bere hezurrekin kraska bedi.
23. Ezen bethi Jainkoaren beldur izan naiz, ene gainera hantzen diren uhinen bezala; eta egundaino ezin jasan dut haren ahalkesunaren handia.
24. Ez dut uste izan urhea zela ene indarra, eta ez diot urhe ederrenari erran: Hi haiz ene sinhestea.
25. Baldin ene aberastasun handiez, eta zeren ene eskuak hainitz atzematen zuen boztu banaiz;
26. Baldin begiratu badiotet iguzkiari dirdiratzen zuenean eta ilhargiari argirik zihoanean;
27. Eta ene bihotza ixilik boztu bada, eta ahoz musu eman badiot ene eskuari;
28. Hori laiteke tzarkeria gaitzena, eta Jainko guziz goraren alderako arnegamendua.
29. Higuin ninduenaren gaitzaz ez naiz boztu, eta hura gaixtakerian atzemanik ez naiz bozkarioz jauzi;



30. Ezen ez diot bekhatuari eman ene zintzurra, ixterbegia madarikatzuz galdatzeko haren bizia.
31. Ene olhako gizonak ez badute erran: Nork emanen daroku horren jakietarik asetzera?
32. Arrotza ere ez da kanpoan egon, ene athea idekia izan zaio bideantari.
33. Asko gizonak bezala estali badut ene bekhatua, eta golkhoan gorde badut ene tzarkeria;
34. Oste handiak izitu banau, eta ahaideen erdeinuak lotsatu; aitzitik ez banaiz ixildu eta athetik ez ilkhi;
35. Nork emanen darot entzule bat, Ahalorotakoak entzun dezan ene lehia, eta berak iskriba dezan ene gaineko erabakia liburu batean,
36. Nik hura ene sorbaldaren gainean erabiltzeko eta hartaz khoro batez bezala ene burua inguratzeko?
37. Urhats oroz erasiko dut hura, eta agertuko dut buruzagiaren aitzinera bezala.
38. Ene lurak ene kontra deihadar egiten badu, eta hartako hildoak harekin batean nigarrez badaude;
39. Dirurik eman gabe jan baditut hartako fruituak, eta atsekabetan ezarri badut hartako laborarien arima;
40. Ogi-orde eman biazat lapharra, eta garagar-orde elhorria.

### XXXII. KAP.

1. Bada, hirur gizon hekiek utzi zuten Jobi ihardestea, zeren zuzentzat zadukan bere burua.
2. Eta Barakel Buztarraren seme Eliu, Erramen odoletikakoa, samur-tu eta gaitzitu zen; eta Joben kontra hasarretu zen, erraten zuelakotz zuzena zela Jainkoaren aitzinean.
3. Gaitzitua zen, berriz, haren adiskideen kontra, aria onik etzutela-kotz khausitu Jobi ihardesteko, bainan Job hobendun erratea baizik etzutelakotz egin.
4. Eliu beraz, Job mintzo zelarik begira egon zen, mintzo zirenak zaharragoak zirelakotz.
5. Bainan ikhusi zuenean hirurek ezin ihardets zezaketela, handizki samurtu zen.
6. Eliu, Barakel Buztarraren semeak ihardestean erran zuen: Adinez ni naiz gazteena eta zuek aldiz, zaharrenak; hargatik burua beheititurik herabe izan naiz zuei erakusteko zer iduritzen zaitan hiri.

7. Alabainan ene ustekeria zen adina mintzaturen zela, eta urtheek irakhatsiren zutela zuhurtzia.

8. Ordean, ikhusten dudan bezala, izpiritua gizonetan den arren, Ahalorotakoaren ganik heldu da adigarria.

9. Zuhurrenik ez dira bethi adin handikoak, ez-eta zaharrak zuzenaren adimendua gehienik dutenak.

10. Hargatik erranen dut: Entzun nezazue, nik ere dakidana erakhusiren darotzuet.

11. Ezik zuen solasei begira egon natzaiote; zuen umotasunaren entzuten egotu naiz, hitzez gauzaren xuritzen haritu zareteno;

12. Eta uste izan dudano zerbait erranen zindutela, iguriki izan dut: bainan ikhusten dudan bezala, zuetarik nihor ez da Jobi jazar eta hunen solasei ihardets dezakeenik.

13. Ez bezazue erran: Aurkhitu dugu zuhurtzia; Jainkoak egotzi du Job, ez gizonak.

14. Jobek niri ez darot deus erran, eta nik ez diot zuen solasen arbera ihardetsiren.

15. Lotsatuak dira, ez dute gehiago ihardesten, eta hitza beren ahoan tapatu dute.

16. Zeren beraz iguriki dudan, eta ez diren mintzatu; bekhoz bekho egotu diren, eta ez duten ihardetsi;

17. Ni ere mintzaturen naiz ene aldian, eta erakhutsiren dut dakidana;

18. Ezen erratekoz bethea naiz eta barneko izpiritua batek hertsatzen nau.

19. Ene barnea da hatsbiderik ez duen linburreta bezala, zeinak untzi berriak zartarazten baititu.

20. Mintzaturen naiz, hats aphur baten hartzeko; idekiko ditut ezpainak, eta ihardetsiko dut.

21. Nor-nor-den ez naiz begiratuko eta ez dut Jainkoa gizonaren khide ezarriko.

22. Ez dakit alabainan zenbat naizen biziko, eta hean egin nauenak laster ez nauen hemendik khenduko.

### XXXIII. KAP.

1. Job, adi zatzu beraz ene hitzak, eta beharria emozute ene solas guziei.

2. Huna non ideki dudan ahoa, mintza dadientzat ene mihia.

3. Bihotz lainotik ilkhiko dira ene hitzak, eta egia garbia erranen dute ene ezpainak.



4. Jainkoaren izpirituak egin nau, eta Ahalorotakoaren hatsak nau biztu.
5. Ihardets dizadazu, ahal baduzu, eta buruz buru jar zakizkit.
6. Bai ni, bai zu, Jainkoak eginak gare, eta lur beretik orhatu gaitu.
7. Arren ene antzeak ez bezaitza lotsa, ez-eta ene mihiaren ederrak aspira.
8. Ene beharrietara zuk erran duzu, eta ongi aditu ditut zure solas haukiek:
9. Garbi naiz eta hobenik gabe; nothagabe naiz eta tzartasuna ez da ene baithan.
10. Ezen Jainkoak ene baithan erratekoak bilhatu ditu, bere etsaitzat nindaukalakoan;
11. Estekan ezarri ditu ene oinak, eta zaindu ditu ene bidexka guziak.
12. Hortan, bada, etzare garbi. Ihardetsiren darotzut, gizonaz handiagoa dela Jainkoa.
13. Haren kontra erasten othe duzu, ihardetsi ez duelakotz zure elhe guziei?
14. Jainkoa mintzatzen da behin eta ez du errepikatzen.
15. Ametsez, gauazko agerkuntzetan, loa gizonen gainera erortzen denean, eta lo daudenean ohean;
16. Orduan Jainkoak idekitzen ditu gizonen beharriak, eta hekiek argituz irakhasten diozkate jakin behar dituztenak,
17. Gizona, egiten dituen gaizkietarik gibelaraztea gatik, eta hura hanpuruskerian atheratzeko,
18. Haren arima galdukeriatik iraziz, eta haren bizia iragan ez dadientzat ezpataren azpira.
19. Oinhazeez halaber larderiitzen du bere ohean, eta maletarazten ditu haren hezur guziak.
20. Gizona hala denean, ogiak eta lehen barnea lehiatzen zioen jatekoak jotzen diote gogo.
21. Urtzen da haren haragia; eta estaliak zituen hezurak, agerian jarriko zaizko.
22. Hurbildua da ustelduko den ordura, eta haren bizia heriotzeari alderatu zaio.
23. Orduan baldin mila aingerutarik bat izaten bada haren alde mintzatzen dena, gizonaren zuzentasunaz aithor emateko;
24. Hartaz urrikalduren da Jainkoa, eta erranen du: Athera zazu jauts ez dadien lurrean usteltzera; aurkhitu dut horri begithartez jartzeko aria.

25. Oinhazeez iretsi dute horren haragia, bihur bedi bere gaztetasuneko egunetara.
26. Othoiztuko du Jainkoa, eta Jainkoa begithartetsu izanen zaio; gizonak bozkariorekin ikhusesiren du haren begithartea, eta Jainkoak bihurturen dio bere xuritasuna.
27. Hunek begiratuko diote bertze gizonei eta erranen du: Bekhatu egin dut, eta zinez hobendun egin naiz, eta ez dut halere merezi nuena izatu.
28. Horrela bere bizia atheratu du heriotzera goatetik, bainan iraunez oraino, goza dezan argia.
29. Horra bada, horiek oro Jainkoak hirur aldiz egiten ditu gizon bakhotxari,
30. Haren bizia heriotzetik bihurrazteko eta gizon bizien argiaz argitzeko.
31. Job, zaude atzarria eta entzun nezazu; eta mintzo naizeno, zaude othoi ixilik.
32. Balin baduzu ordean zer erran, ihardets darotazu, mintza zaite; nahi dut ezen garbi ager ahal zaitezen,
33. Erratekorik ez baduzu, adi nezazu; zaude ixil, eta irakhatsiren darotzut zuhurtzia.

#### XXXIV. KAP.

1. Eliu beraz berriz mintzatu zen, eta haukiek ere erran zituen
2. Gizon zuhurrak, entzun zatzue ene hitzak; jakintsunak, emadazue beharria.
3. Ezen beharriak frogan ematen ditu solasak, eta zintzurak gozotik ezagutzen ditu jakiak.
4. Berez dezagun zer den zuzen, eta gure artean ikhus dezagun zer den hoberenik.
5. Alabainan Jobek erran du: Zuzena naiz, eta Jainkoak ez dio ene zuzenari bere bidea ematen.
6. Ezik gezurra bada ene gaineko erabakian: bekhatuik batere gabe, gezi muthiriak ditut sarthuak.
7. Nor da gizona Joben iduriko dena, zeinak Jainkoaren alderako erdeinua iresten baitu ura bezala;
8. Zeina tzarkerian hari direnen urhatsa baitaduka, eta gizon gaixtoekin baitabila?
9. Erran du ezen: Gizona ez da Jainkoaren gogarako izanen, haren bidean ibili balitz ere.





10. Hargatik, gizon umoak, entzun nezazue. Jainkoa ganik urrun da tzartasuna, urrun Ahalorotakoa ganik gaixtotasuna.
11. Ezen gizonari bere egintzen arabera bihurturen dio, eta batbederari bere bideen arabera dio itzuliren.
12. Egiazki alabainan ez du nihor hobenduntzat ariarik gabe atheratuko, eta Ahalorotakoak ez du zuzenaren kontra erabakiko.
13. Bere orde lurraz nor kargutu du bertzerik? edo berak egin duen munduaren gaineko nor ezarri du?
14. Garraztasunean begira balezo gizonari haren gogoak, bizia eta hatsa bere ganat khen letzozke.
15. Gizon guziak batean ahi eta hauts bilhaka litazke.
16. Baldin beraz zutan bada adimendua, entzun zazu solasa eta ene hitzei zaude atzarririk.
17. Senda othe daiteke zuzentasuna maite ez duena? Eta nolaz zuk hunen ozarki hobenduntzat egiten duzu guziz zuzena dena?
18. Zeinak errege bati erranen baitio: Arnegatu bat haiz; zeinak handi-mandiak deithuko baititu gizon tzarrak;
19. Zeinak ez baitu begiratzen nor diren buruzagiak; zeinak handitahunik ez batio errege bati ezagutzen gizon behararekin duenean makhurrara, ezen oro haren eskuz eginak dira.
20. Errege edo buruzagi, bat-batean hilen dira; gauaren erdian jauziko da populua, eta ezeztatuko dira; eta gaixtoak bizia galduko du nihork lagundu gabe.
21. Ezen Jainkoaren begiak gizonen bideen gainean daude, eta begiz daduzka hekien urhats guziak.
22. Ez da ilhunberik, ez herioaren itzalik, hekien-pean gordetzeko tzarkeria egiten dutenak.
23. Ez da alabainan gehiago gizonaren ahalean Jainkoari goatea zuzentasunaren gainean jazartzera.
24. Xahutuko ditu asko eta asko ezin erran bezenbat, eta bertze batzu ezarriko ditu hekien orde;
25. Zeren baitakizki hekien egitateak, eta hargatik gaua eginen du hekien gainera, eta xahutuak izanen dira.
26. Gizon tzar batzu bezala, guzien aitzinean joko ditu hainak,
27. Zeinak berariaz bezala urrundu baitira haren ganik, eta ez baitituzte nahi izan haren bideak ezagutu,
28. Haren gana helarazteko behararen oihua eta noharroinaren deihadarra.

29. Ezen bakea ematen badu, nork hoben atherako dio? Eta bere begihartea gordetzen badu, nork bilhatuko du zer aria duen populuen edo gizon guzien gainean?
30. Harek populuaren bekhatuen gatik erreginarazten du gizon alegiakaria.
31. Ni Jainkoaz mintzatu naizenaz geroztik, zu ere etzaitut debekatuko.
32. Makhur banabila, argi nezazu; tzarkeriarik erran badut, ez naiz gehiago mintzatzeko.
33. Jainkoak zure gainera ez othe lezake errotaraz ene solas makhurrara, zure desgogarako izan den arren? Ezik zu hasi zare mintzatzan, eta ez ni; eta zerbait hoberik balin badakizu, mintza zaite.
34. Adimendutako gizonak mintza bekizkit, eta gizon zuhurrak entzun beneza.
35. Job ordean zoroki mintzatu da, eta hunen solasek ez dute umotasunik agertzen.
36. Ene aita, Job frogatua izan bedi azkeneraino; ez bezaite bara tzarkeriako gizonaren gainetik;
37. Zeren duen burhoa bere bekhatuen gainera ezarri, gure artean berriz hertsatua izan bedi; eta orduan ber: solasez Jainkoa deith beza juiamendutara.

### XXXV. KAP.

1. Eliu beraz hunela mintzatu zen berriz:
2. Job, uste othe duzu zure gogoeta beharbezalakoa zela erran duzuean: Jainkoa baino zuzenagoa naiz ni?
3. Ezen erran duzu: Zuzen dena ez da zure gogarako, edo zer baliatuko zare, nik bekhatu egiten badut?
4. Hargatik ihardetsiko diotet nik zure solasei, eta zure adiskideei zurekin batean.
5. Begiak eman zatzu zerurat, eta ikhusazu; zaudezkote zeruei begira; zenbatez da zutaz gorago!
6. Bekhatu egiten baduzu, zer bidegabe ekharriko diozu? Eta meta-balira ere zure tzarkeriak, zer zinduke haren kontra eginik?
7. Bada, zuzenki ibiliz ere, zer emanen diozu, edo zer on duke zure ganik?
8. Zure gaixtakeriak zure iduriko gizon bati bidegabe ekhar diozoke, eta zuzentasunak on eginen dio gizaseme bati.
9. Gezurrez beltzatzan hari direnen ostearen gatik, oihuz egonen dira; errege gaixtoen bortxen ariaz hariko dira marraskaka;



10. Eta nihork ez du erran: Non da Jainkoa, ni egin nauena, gabaz kantuak ematen dituen,

11. Lurreko abereez jakintsunago eta zeruko hegastinez argituago egiten gaituena?

12. Han izkolaz egonen dira, eta Jainkoak ez ditu entzunen, gaixtaginen hanpuruskeriaren gatik.

13. Jainkoak ez du beraz alferretan adituko, eta Ahalorotakoak begiratuko diote batbederaren ariei.

14. Arren, zuk erran duzunean: Ez du begiratzten; juia zaitezi haren aitzinean, eta zaudezkio iguri.

15. Ezen ez du oraino igortzen bere hasarrea, ez-etare garrazki jazartzen gaizkiari.

16. Jobek beraz alferretan ideki du ahoa, eta elhe huts atheratzen hari da.

### XXXVI. KAP.

1. Solasari oraino jarraikiz, Eliuk erran zituen hauiek ere:

2. Entzun nezazu aphur bat, eta zerbait agertuko darotzut, ezen badut oraino Jainkoaren alde zer erran.

3. Hastetik lothuko natzaio berritan ene solasari, eta frogatuko dut zuzena dela ni egin nauen Jainkoa.

4. Egiazki ezen ez da gezurrik ene hitzetan, eta jakitate oso batekoak direla frogatua izanen zaitzu.

5. Jainkoak ez ditu botheretsuak iraitzen, bere delarik botheretsu.

6. Bainan gaixtaginak ez ditu salbatzen, eta zuzen dena bihurtzen diote beharrei.

7. Prestuaren gainetik begiak ez ditu aldaratzen, eta erregeak bethiko ezartzen ditu tronuaren gainean, eta han gogortuak dira.

8. Eta burdinetan izaten badira batzu, eta behartasunaren lokharriz lothuak,

9. Jainkoak erakhutsiko diozkate beren egitateak eta tzarkeriak, zeren izatu baitira muthiri.

10. Beharriak halaber argituko diozkate erantzuki egitekotzat; eta mintzatuko da, bihur ditezentzat tzarkerietarik.

11. Baldin entzuten badute eta begiratzten badira, beren egunak ontasunen erdian eta urtheak ospean betheko dituzte.

12. Bainan entzuten ez badute, ezpatatik iraganen dira eta beren zorokerian dira galduko.

13. Alegiakariak eta maltzurrek jauzarazten dute Jainkoaren hasarrea, eta deihadar ez dute eginen, estekan izanen direnean.

14. Adin ederrean eginen diote arimak eta hekien bizia iraungiren da emagizonena iduri.

15. Jainkoak hesturatik atherako du beharra, eta atsekabeko orduan argituko dio beharria.

16. Leze hertsu eta ondorik gabekotik zabalerat ilkhiko zaitu beraz, eta mahainean zure phausua guziz gori izanen da.

17. Zure xuritzekoa gaixtaginarena bezala juiatua izan da; merezitu duzunaren arabera, zuzena bihurtua izanen zaitzu.

18. Ez bekizu beraz nautsi irakidura, norbaiten zaphatzeko; eta emaitzaketak batek ez biazazu amor eragin.

19. Atsekaberik gabe beheiti zazu zure handikeria, eta muthiriei khen zozute indarra.

20. Gaua ez bezazu luza, populuak ethor dakizkitzun hekien kontra-ko erratekoekin.

21. Berautzu gaizkirat makhur, ezen haren ondotik abiatu zare behar-eroriz geroztik.

22. Huna bada, Jainkoa zein gora den bere indarrean, eta bere idurikorik legegileetan ez du.

23. Nork ikhar detzazke haren bideak, edo nork erran diozoke: Zuzenari bidegabe diozu egin?

24. Orhoit zaitezi etzarella jakintsun haren egintzez, zeinetaz gizonen eman baitituzte kantuak.

25. Gizon guziek ikhusten dute, batbederak urrundik begiratzten dio.

26. Huna Jainkoa handi dela, gure jakitateari garai; haren urtheek zenbatik ez dute.

27. Harek goititzen ditu ur-inharrak, eta hibaiak iduri, ixurtzen ditu uriak,

28. Hedoiatarik jausten eta lurraren gaina estaltzen dutenak.

29. Harek nahi duenean, hedoiak hedatzen ditu bere itzalkari bezala;

30. Harek gainetik dirdirarazten ditu bere argiak; itsasoko ondarrak ere estaltzen ditu.

31. Hekien bidez juiatzen ditu populuak, eta hazkurria hainitz gizoni igortzen diote.

32. Bere eskuetan gordetzen du argia, eta manatzen dio alfer dadien berriz.

33. Maite duenari erakhusten dio argi hura dela haren primantza eta hartara igan daitekeela.



### XXXVII. KAP.

1. Hortaz lazten da ene bihotza eta bere lekhotik egiten du.
2. Haren mintzoak emanen darotzuen ikharan entzun zatzue haren irakhaspena eta haren ahotik ilkhitzen den burrunba.
3. Begira dago bera zeru guzien azpira, eta haren argiak jotzen du lurraren bazter batetik bertzera.
4. Haren ondotik burrunbatuko du harrabots lazgarriak, bere orroa handiarekin karraskatuko du; eta orroa entzun denean, nihor ez da ausar-tatuko zerezkoa den bilhatzera.
5. Gauza handi eta ezin-ikhartuzkoak egiten dituen Jainkoak ikhara-garriki burrunbaraziren du bere boza.
6. Harek manatzen diote jauts ditezen lurrera elhurrari, neguko uriei eta bere hazkartasuneko zophernei;
7. Harek zigiluaz jotzen ditu gizon guzien eskuak, batbederak ezagut detzan bere egintzak.
8. Basaberea bere gordegailura sarthuko eta bere zilhoan egonen da.
9. Hegoa beheretik heldu da phezia, eta hotza ipharretik.
10. Jainkoak haize egin, eta horma gogortzen da; berriz haize egin, eta ur turrustetan badihoa.
11. Ogiak ur eske daudezi hedoiei, eta hedoiek beren argia hedatzen dute.
12. Inguruan badoazi hekiek manatzen dituenaren nahiak igortzen dituen edozein tokitara, lurraren hedadura guzian bidaltzen dituen lekhu guzietara,
13. Edo leinu batera, edo lur batera, edo haren urrikalmenduko zein-nahi tokitan aurkhitzeaz mana dezoten.
14. Oi Job, entzun zazu hau; bara zaite; begia emozute Jainkoaren sendagailei.
15. Othe dakizu noiz Jainkoak uriei manatu dioketen erakhuts deza-ten haren hedoiengatik?
16. Othe dakizkitzue hedoiengatik bide handiak eta Jainkoaren jakitate osoak?
17. Lure soinekoak ez othe dira bero, lurra hegoaz haizeztatua denean?
18. Zuk beharbada Jainkoarekin lanthu ditutzu zeruak, zeinak kobrez urthu balira bezain sendoak baitira.
19. Irakhats dizaguzu zer erranen diogun, ezen gu ilhunbez gare inguratuak.
20. Nork erranen darozkio nik diotzadanak? Baldin gizon bat mintzatzen abia baledi ere, iretsia gelditi laiteke.

21. Bainan orai argia ikhusten ez dute; airea bat-batean hedoi egiten da, eta iragaiten den haize batek barraiasten ditu.
22. Ipharretik heldu da urhea, eta ikhararekin ospatu behar da Jainkoa.
23. Dagokion bezala nolakoa den ardiets ez dezakegu; handi da bere indar, erabaki eta zuzentasunaz; ezin-erranezkoa da.
24. Hargatik gizonak izanen dira haren beldur, eta beren buruak zuhur daduzkatenetarik nihor ausartaturen ez da hari bekhoz bekho begi-ratzera.

### XXXVIII. KAP.

1. Bada, xirimola baten erditik mintzatuz, Jainkoak erran zaroen Jobi:
2. Zuhurtziaren erranak jakitategabeko elhetan inguratzen dituen hori nor da?
3. Gizon batek bezala tinka zazu gerria; galdeak eginen darozkitzut, eta ihardetsiko darotazu.
4. Non zinen lurraren asentuak jartzen nituenean? Erradazu, adimendurik balin baduzu.
5. Errazu, balin badakizu, nork ezarri dituen haren neurriak, edo nork hedatu dioen gainetik haria?
6. Zeren gainean dira gogortuak haren asentuak, edo nork jarri du haren izkinaharria,
7. Argizagi goixtiarrek batean laudatzen nindutenean, eta Jainkoaren umeak oro bozkariotan zaudenean?
8. Itsasoa antaperetan nork hertsu du, jautzen zenean amaren sabele-tik ilkhitzen balitz bezala,
9. Hedoi bat ematen naronean estalgizat, eta gobelaz inguratzen nuenean haurtasuneko xatharrez bezala?
10. Inguruan ezarri diozkat ene zedarriak, haga eta atheak.
11. Eta erran dut: Horraraino ethorriko haiz eta ez duk eginen aitzina-go, eta hor lehertuko dituk hire tirain hantuk.
12. Sorthu zarenaz geroztik zuk manatzen othe duzu argiduria, eta argizkorriari zuk erakhusten othe diozu bere lekhuak?
13. Zuk iharrosiz iduki othe ditutzu lurraren buruak eta hartarik era-gotzi gaixtaginak?
14. Itxura berrituko zaio, buztinak hatz bat hartzen duen bezala, eta egonen da soineko bat iduri.
15. Gaixtoei beren argia khendua eta beso gora hautsia izanen zaiz-kote.



16. Sarthu othe zare itsaso-barnerraino eta ibili lezearen ondarretan?
17. Herioaren atheak idekiak izan zaizkitzu? ikhusi duzu hango sartze beltza?
18. Begia eman diozu lurraren zabalari? Erran dizadatzu guziak, balin badakizkitzu.
19. Non egoten da argia, eta zein da ilhunbeeen lekhoa,
20. Bakhotxa bere eremura eraman dezazun eta ezagut detzatzun hekien egoitzetako bideak?
21. Aitzinetik othe zinakien sortzekoa zinela, eta ezagutzen othe zin-  
duen zure egunen luzetasuna?
22. Sarthu zare elhurraren bildegietan? ikhusi ditutzu harriaren bil-  
degia,
23. Zeinak xuxendu baititut etsaiaren ordukotzat, gudu eta gerlaren  
eguneko?
24. Zein bidetarik argia hedatzen eta beroa lurraren gainera dira  
barraiatzen?
25. Nork eman diozkate uhar gaitzari gaia eta ihurtzuri burrunbatsua-  
ri bides,
26. Erorrarazteko uria lurrera, gizonik gabeko mortuan, nihor-  
ere egoten ez den lekhan;
27. Toki basa eta ibilbide ez direnen bethetzeko, belhar ferdeak ekhar  
detzatentzat?
28. Nor da uriaren aita, edo nork egin ditu ihintz-inharrak?
29. Noren sabeletik ilkhi da horma? nork egin du zerutikako izotza?
30. Urak harria bezala mokhortzen dira, eta zurrunbiloaren gaina  
gogortzen da.
31. Gai izanen othe zare Xitoiloen izar dirdirariak elkharganatzeko  
eta Zazpi-Ohoinak barraiatzeko?
32. Zuk agerrarazten othe duzu goizean artizarra bere mugan eta  
arratsean lurreko umeen ganean jaikiarazten ilhutzeko izarra?
33. Othe dakizu zeruko antolamendua, eta emanen othe duzu haren  
aria lurraren ganean?
34. Helduko duzu zure oihua hedoietaino, eta ur-uharrak zurrutatu-  
ren othe dira zure gainera?
35. Zuk manatu-eta ozpina goanen othe da, eta gibelerakoan erranen  
othe darotzu: Huna ni?
36. Nork ezarri du zuhurtzia gizonaren barnean; edo nork eman dio  
oilarrari ezagutza?

37. Nork erranen du zeruetako bideen aria? hango itzulien arteko  
batasuna nork du lohakarraziren?
38. Non zinen herrautsa lurrean herrausten eta mokhorrak mokhor-  
tzen zirenean?
39. Zuk atzematen othe duzu lehoinaren urrixa puska, eta zuk asetzen  
othe ditutzu haren umeak,
40. Harpetan etzanak eta zilhoetan zelatan daudezinean?
41. Nork aphaintzen dio beleari bere jatekoa, haren umeak Jainkoari  
karrankaz daudezinean, hor-hemenka ibiliz jatekorik ez dutelakotz?

### XXXIX. KAP.

1. Badakizu orkhatzak noiz erditzen diren harkadietan, edo ikhusi  
ditutzu orenak erditzen?
2. Khondata ditutzu hekiek ernari egoten diren hilabeteak, eta  
badakizu noiz erditzen diren?
3. Makhurtzen dira umearen egiteko, erditzen dira eta orroa egiten  
dute.
4. Umeak berezten eta alhara goaten dira; ilkhitzen dira eta hekien  
ganat ez bihurtzen.
5. Nork utzi du basastoa bere buruaren jabe, eta nork urratu ditu  
haren lokharriak?
6. Mortuan eman diot etxea, eta gatz-lurrean olhak.
7. Hiriko osteaz trufatzen da, nausi baten oihua ez du aditzen.
8. Bere alhapidetako mendiei begiratzen diote inguruan eta orotan  
belhar berdeketa dabila.
9. Errinozeroak nahiko othe zaitu zerbitzatu, eta egonen othe da  
zure heian?
10. Zure hedearekin errinozeroa uztartuko othe duzu lurraren iraultze-  
ko, edo zure ondotik lehertuko othe ditu haranetako mokhorrak?
11. Haren indar handiaren ganean fidatuko zare, eta utziko othe  
diozkatzu zure lanak?
12. Uste duzu bihurturen darotzula eraina, eta bihiak ekharriko ditue-  
la zure larrainera?
13. Ostrukaren hegatsak iduri du amiamokoarena eta astorearena.
14. Bere arroltzeak lurrean uzten ditueanean, zuk othe berotzen ditutzu  
herrautsean?
15. Ahanzten du oinak azpian hartuko edo lar-abereak lehertuko  
dituela beharbada.



16. Gogorra da bere umeentzat, bereak ez balitu bezala, eta alferretan haritu da lanean deusek etzuelarik bortxatzen.
17. Alabainan Jainkoak zuhurtziaz gabetu du, eta ez dio ezagutzarik eman.
18. Behar orduan, hegalkak goiti altxatzen ditu, eta trufatzen da zaldiaz eta haren gainekoaz.
19. Zuk emanen diozu zaldiari indarra, edo haren bulharretan ezarriko duzu irrintzina?
20. Zuk jauzkaraziko duzu xartala bezala? Haren sudur-xixtuak ikhara ematen du.
21. Hatz-behartzaz lurra zilhatzen du, susaiki jauzten da; gizon hartuei aitzinera badohakiot.
22. Nardatzen da beldurraz, ezpatari amorrik ez dio egiten.
23. Haren gainean krinkaka hari da gezi-untzia, eta dirdiratzen dute lantzak eta erredolak.
24. Irakiduran, dardaran, lurra jaten du; turutaren durrundak sutan ezartzen du.
25. Aditzen du turuta? erraten du: Aitzina! Urrunetik usnatzen du gudua; aditzen ditu aitzindarien solas berogarriak, eta armadaren marrumak.
26. Zure zuhurtziaren bidez lumatzen da astorea, bere hegalkak hegoara hedatuz?
27. Zure manura goratuko da arranoa, eta lekhu gaitzetan kokatzen du bere ohantzea?
28. Harrietan dago, gerenda xutetan eta ezin-ardietsizko harkadietan du bere egoitza.
29. Handik begizatzen du bere harrapakina; haren begiek urrunera ikhusten dute.
30. Haren umeek odola edoskitzen dute; eta non-nahi izan dadien hilikia, han da berehala.
31. Eta Jauna mintzatu zen oraino, eta erran zioen Jobi:
32. Jainkoarekin eztabadaka hari dena, hunen errexki ezitzen othe da? Segurki, Jainkoari jazartzen dioenak ihardetsi behar dio.
33. Bainan Jobek Jainkoari ihardestean erran zioen:
34. Arinki mintzatu naiz, eta zer ihardets dezaket? Eskua ezarriko dut ene ahoaren gainean.
35. Hitz bat erran dut, eta oxala atheratu ez banu! bertze bat ere erran dut, eta ez darotet bertzerik ondotik emanen.

## XL. KAP.

1. Bada, Jaunak xirimolatik Jobi ihardestean, erran zuen:
2. Tinka zazu gerria gizon batek bezala; galdeak eginen darozkituz, eta ihardets darotazu.
3. Alferretara bihurraziren othe duzu ene erabakia, eta hobendun eginen othe nauzu zure buruaren garbi atheratzeko?
4. Jainkoak bezalako beso bat othe duzu, eta zure bozak harenak bezala burrunbatzen othe du?
5. Edertasunez ingura zaitte, tronu gora batera igan zaitte, ospetsu izan zaitte eta soinekorik ederrenez aphain zaitte.
6. Hanpurutsuak zure suminduran herrautsa bezala haiza zatzu; burgoiari begiratu-eta lurrera herresta zazu.
7. Hanpurutsuak begi ukhaldi batez urmaria zatzu, eta gaixtaginak han berean leher zatzu.
8. Oro batean herrauspean gorde zatzu eta hekien begithartea hobian itsu zazu;
9. Eta nik aithorturen dut zure eskuina zure salbatzeko gai dela.
10. Huna Behemoth zurekin egin dudana, belharra idiak bezala janen du.
11. Horren hazkartasuna gerrian da eta sabeleko xilkhoan du bere indarra.
12. Horren buztana zedroa bezain laz egiten da, horren potroetako zainak gurutzelarkatuak dira.
13. Horren hezurak kobrezko tutuak bezala dira, horren hezur-lokharriak dira burdinazko zaflak iduri.
14. Hori da Jainkoaren egintzetan lehenbizikoa; hori egin duenak erabiliko du horren ezpata.
15. Horrentzat mendiek ekhartzen dituzte belharrak, eta lar-abereak harat heldu dira dostatzera.
16. Horrek itzalpean, khanaberen arteko gordegailuetan eta lekhu hezeetan egiten du lo.
17. Itzalek gerizatzen diote bere itzala, erreka zumelikek inguratzen dute.
18. Hara non edanen duen hibai bat, eta ez da harrituko; eta Jordanea bere ahora uste du eroriko zaiola.
19. Amuaz bezala gizonak begietarik atzemanen du eta hesaulez zilhatuko diozka sudur-mizpirak.
20. Amuaz atheratuko othe duzu Lebiathan, eta sokhaz estekatuko othe diozu mihia?



21. Ezarriko diozu erretzun bat sudur-mizpiretarik edo muthurra zil-hatuko diozu ustei batez?
22. Bilduko duzu zuri othoitz egitera eta eztikeria erratera?
23. Zurekin patu eginen du eta bethiko gathibu hartuko duzu?
24. Xori batez bezala dostatuko zare hartaz, eta zure neskatoei este-katuko diozute?
25. Phuskatuko dute adiskideek, eta traturariet zathituko dute?
26. Haren larruaz betheko duzu arrantzarien sarea, eta haren buruaz arrainen phutzua?
27. Eskua gainean ezar zozu; orhoit zaitezi gerlaz, eta ez abia gehia-go mintzatzera.
28. Horra non urmariatuko den haren pheskiza, eta non eragotzia izanen den guzien begien aitzinean.

### XLI. KAP.

1. Ez dut odolkoii batek bezala eraikiren; ezen nork itxikiko dio ene begitharteari.
2. Nork lehenik eman darot zerbait, gero berari bihurtzekotan? Eneak dira zeruaren azpiko guziak.
3. Ez dut guphide izanen; ez dut amorrik emanen haren solas hazkar eta othoizteko aphainduei.
4. Nork agertuko du haren gaineko azala, eta nor sarthuko da haren ahoaren erdira?
5. Nork idekiko ditu haren muthurreko atheak? Lastura dago haren hortzen inguruan.
6. Haren bizkarra da guzia erredola kobrezkoz bezala, elkhar tinkatzen duten ezkatatz josia.
7. Ezkatak bata bertzeari lotzen dira, eta hats bat ere ez da artetik sartzen.
8. Bata bertzeari iritxikitzen dira, eta elkharri idukiz ez ditazke nihondik berez.
9. Haren urzintzak iduri du suko garra, haren begiratzeek argitzeko dirdirak.
10. Haren ahotik argiak ilkhitzen dira, zuzi biztuak iduri.
11. Haren sudur-mizpiretarik atheratzen da khea, suan irakitzen duen eltzetik bezala.
12. Ikhatzak bizten ditu haren hatsak, eta garra ilkhitzen da haren ahotik.
13. Indarra haren lephazakian dago, gosetea haren aitzinean dabila.

14. Haren gorphutzeko alderdiak hazkarki iratxikiak dira elkharri; ozpina eror lakiokete gainera, eta nihorat ez laizteke higi.
15. Haren bihotza gogortuko da harria bezala eta harotzaren ingudioa bezala mokhortuko da.
16. Jaikiko denean, aingeruak izituko dira, eta beren izialduran, beren buruen xahutzen hasiko dira.
17. Ezpata lothuko zaiocenean, ez ezpata, ez lantza, ez gerruntzerik ez da hari ihardetsiko ahal dioenik.
18. Ezen burdinaz axola izanen du, nola lastoaz; eta kobrez, nola zur ustelaz.
19. Arranbelariak ez du ihes igorriko; habalatikako harriak ez dira harentzat zizkirra baino gehiago.
20. Mailua etzaio lasto-zizkirra baino gehiago izanen, eta irri-eginen du lantzaren dixiduaz.
21. Iguzkiaren dirdirak haren azpian dira; urhea lohia bezala zagoen azpian erabiliko du.
22. Itsaso-barna eltze bat bezala irakitaraziko du, eta ezarriko du balsamuek irakitzen dutenean bezala.
23. Bidexka argi bat eginen da haren ondotik, eta zurrunbiloak iduriko du gizon zaharraren buru zuria.
24. Ez da lurraren gainean ahalik harekin erkhatzekorik, ezen hura egina da nihoren beldur ez izateko.
25. Gora derabilka begia, hura baita hanpurustasunaren utne guzien errege.

### XLII. KAP.

1. Orduan Jobek Jaunari ihardestean erran zuen:
2. Badakit ahal guziak zurekin direla, eta gogoetarik ez dela zuretzat gordea denik.
3. Nor da jakitaterik gabe itsutuko duena Jainkoaren asmua? Hargatik erasi ditut zorokeriak eta ene jakitatea iragaiten zuten gauza neurrigabeakoak.
4. Adi nezazu, eta mintzatuko naiz; galdeak eginen darozkitzut, eta ihardets darotazu.
5. Entzun izan zaitu ene beharriak, bainan orai ene begiak zaitu ikhusten.
6. Horren gatik ene buruari erantzuten diot, eta penitentzia egiten dut herrautsean eta hutsean.



7. Jaunak hitz horiek Jobi erran ondoan, Eliphaz Themandarrari erran zaroen: Ene hasarrea zure gainean eta zure bi adiskideen gainean da, ene aitzinean etzaretelakotz zuzentasunean mintzatu, Job ene zerbitzaria bezala.

8. Har zatzue beraz zazpi zezen eta zazpi ahari, eta zoazte Job ene zerbitzaria gana, eta zuentzat holokausta bat eskaint zazu; Jobek berriz, ene zerbitzariak, zuentzat eginen du othoitz; onhetsiko dut haren begit-hartea, ez dakizuentzat jazarrria izan zuen zorokeria; ezen etzaizkidate zuzentasunean mintzatu, Job ene zerbitzaria bezala.

9. Eliphaz Themandarra, Baldad Suharra eta Sophar Naamatharra goan ziren beraz eta egin zuten Jaunak erran zaroetenaren arabera, eta Jaunak onhetsi zuen Joben othoitz.

10. Jauna halaber jabaldua izan zen Joben errekeietara, bere bi adiskideentzat othoitz egiten zuenean; eta Jobi bikhunka bihurtu ziozkan lehenago zituen ontasun guziak.

11. Haren anaia guziak berriz, haren arreba guziak eta aitzineko eza-gunak oro ethorri ziren haren gana, eta jan zuten haren etxean. Burua urrikariz, higitu zuten haren gainera, eta Jaunak haren gainera erakharri zituen asturugaitz guziez gozakari eman zaroten; eta bakhotxak eman zaroten ardi bat eta urhezko beharrietako bat.

12. Jaunak aldiz gehiago benedikatu zuen Job azkenerat hastapenean baino. Haren arthaldeak ethorri ziren hamalau mila arditara, sei mila kamelutara, mila idi-uztarritarra eta mila asto urrixetara.

13. Eta izan zituen zazpi seme eta hirur alaba.

14. Eta neskata bat deithu zuen Eguna, bigarrena Kasia, eta hirugarrena Antimonio-adarra.

15. Etzen bada, lur guziaren gainean khausitu emaztekirik Joben alabak bezain ederrik, eta beren aitak eman zaroeten ontasunetan zuzen bera nola hekien anaiei.

16. Horiez gozotik berriz, Job bizitzan zen ehun eta berrogoi urthe; ikhusi zituen bere semeak eta bere semeen semeak laugarren belhauneraino, eta hil izan zen zaharturik eta egunez bethea.

## PSALMOAK

### I. PSAL

1. Dohatsu gizona, gaixtaginen asmetan sarthu ez dena, bekhato-reen bidean gelditu ez dena, izurriaren alkian jarri ez dena:

2. Bainan bere gogoa Jaunaren legean dadukana, eta haren legean izpiritua gau-egun alhaturen duena.

3. Iduriko du uren hegian landatua den zuhaitza, zeinak fruitua emanen baitu bere aroan.

Ez da eroriko haren hostoa, eta ongi helduko dira haren ganik atheratuko diren gauza guziak.

4. Ez da horrela gaixtaginaz; ez da horrela, bainan-bai haizeak lurraren gainetik harrotzen duen herrautsaz bezala.

5. Halabada gaixtagina ez da jaikiren erabakiko egunean, ez-etare bekhatoarea zuzenen baldarnan.

6. Jaunak ezik ezagutzen du zuzenen bidexka; eta gaixtaginen bidea lezean galtzen da.

### II. PSAL.

1. Jendaiak zertako dira iharrosi? populuek zertako dituzte erabili asmaketa ezdeusak?

2. Jaiki dira erregeak, eta buruzagiak bildu dira Jaunaren kontra eta haren Kristoren kontra:

3. Hauts detzagun hekien lokharriak, khien dezagun gure gainetik bekien uztarria.

4. Bainan zeruetan egoten dena trufatuko zatzoiote, eta Jaunak bere irrigarri izanen ditu.

5. Orduan bere hasarrean, mintzatu zatzaiote; eta bere suminduran, nahasmendutan ezarriko ditu.

6. Ni aldiz, hartaz izatu naiz errege ezarria Sionen gainean, haren mendi sainduan, erantzun dezadan haren legea.

7. Jaunak erran darot: Ene semea zare, egun aitatu naiz zutaz.

8. Galda darodazu, eta zure primantza emanen darozkitz jendaiak eta zure gozamenak hedaturen ditut lurraren bazterretaraino.

9. Burdinazko zigorrarekin hotsemanen daroezu, eta lurrezko untzi bat bezala phorroskaturen ditutzu.

10. Eta orai, erregeak, nabari zazu; argi zaitzte, lurraren juitzaileak.



11. Beldurrekin zerbitza zazue Jauna, eta haren baithan boz zaitezte ikhararekin.

12. Besarka zazue legea, Jauna ez dakizuen hasarre eta gal etzaiztezen bide zuzenetik.

13. Sutu ditakeenean laster haren hasarre, dohatsu haren baithan sinheste duten guziak.

### III. PSAL.

1. Dabiden psalmoa, Absalom bere semearen aitzinean ihes zihoa-nean.

2. Jauna, zertako ostetan igan dira, ni hestutu beharrez hari direnak? Hainitz dira ene kontra jaikitzen direnak.

3. Askok erraten diote ene arimari: Salbamendurik ez duke bere Jainkoa baithan.

4. Bainan, Jauna, zu zare ene geriza, ene ospea, eta ene burua goratzen duzuna.

5. Ene ahoz Jaunari deihadar egin diot, eta entzun izan nau bere mendi sailndutik.

6. Lokhartu naiz eta lo onean egotu; eta iratzarri naiz, Jaunak bere gerizaren azpira bainau hartu.

7. Ez nau izituko ene inguruan den etsai elemeniak. Jaiki zaite, Jauna; salba nezazu, ene Jainkoa.

8. Ezen jo ditutzu ene kontra ariarik gabe altxatu diren guziak; hautsi ditutzu bekhatoeren hortzak.

9. Jauna ganik dathor salbamendua; zure benedizioea hedatzen duzu zure popularen gainera.

### IV. PSAL.

1. Azkeneraino, kantatzeko Dabiden psalmoa.

2. Dei egin diodanean, entzun nau ene zuzenbideko Jainkoak; hesturan nintzen orduan, zabaldu darotazu bihotza. Urrikal zakizkit, eta entzun zazu ene othoitzza.

3. Gizasemeak, noiz arteo thoil izanen zarete bihotzez? Zertako maithatzen duzue ergelkeria eta bilhatzen gezurra?

4. Jakizue ederresgarri egin duela Jaunak bere sailndua. Entzunen nau Jaunak, deihadar eginen diodanean.

5. Samur zaitezte, eta berautzue bekhaturik egin. Zuen bihotzetan derrazuenaz urrikitan sar zaitezte zuen ohetan.

6. Zuzentasuneko sakrifizioa egizue, eta Jauna baithan idukazue zuen pheskiza. Askok erraten dute: Nork guri erakhuts ontasunak?

7. Gure gainean jarria da, Jauna, zure begitharteko argiaren arrastoa. Bozkarioa eman diozu ene bihotzari.

8. Goritu dira ogiaren, arnoaren eta olioaren gozotik.

9. Nik bakean izanen ditut loa eta phausua;

10. Zeren igurikitza berezi bat ezarri baituzu, Jauna, ene bibotzean.

### V. PSAL.

1. Akhabantzarraino, ondoregoa ardiesten duenaren karietan, Dabiden psalmoa.

2. Jauna, zure beharriak adi betza ene solasak; entzun zazu ene oihua.

3. Ene othoitzari zaudezi atzarririk, oi ene errege eta Jainkoa.

4. Ezen, Jauna, othoizturen zaitut, eta goizetik entzunen duzu ene mintzoa.

5. Goizetik jarriren naiz zure aitzinean, eta ikhusiren dut Jainko bat zarella gaixtakeria nahi ez duzuna;

6. Maltzurak ez duela zure aldean izanen bere egoitza, eta zuzenari hoben egiten dutenek ez dutela zure begien aitzinean iraunen.

7. Gaitzets ditutzu tzarkeria-egileak; galtzen ditutzu gezurrez mintzo direnak. Jaunak aborritzen du gizon odolko, zimarkhutsua;

8. Ni ordean zure urrikalpen guziei esker,

Sarthuko naiz zure etxean; zure beldurrean adoratuko zaitut zure tenplo sailnduan.

9. Jauna bida nezazu zure zuzentasuneko bidean; zure aitzinean bida zazu ene urhatsa ene etsaien ariaz.

10. Ezen egia ez da hekien ahoan; haizerik baizik ez da hekien bihotzean.

11. Hekien zintzurra hobi zabaldu bat da; hekien mihiak zimarkhutan dabilta. Juia zatzu, Jainkoa.

Hutsegin bezate beren asmuetan; irazitza beren tzarkeria guzien arabera, ezen sumindu zaituzte, Jauna.

12. Bozkariotan sar beitez beren pheskiza zure baithan dutenak oro; bethi guzian boztaren dira, eta hekien artean eginen duzu zure egoitza.

Zure baithan harturen dute beren ospea zure izena maite duten guziek,

13. Zeren zuzenari emanen baitiozkatzu zure benedizioeak.





Jauna, zure oneriztea erredola bat bezala atheratu duzu gure buruen gainera.

### VI. PSAL.

1. Akhabantzaraino, kantatzeko, Dabiden psalmoa zortziurruneko.
2. Jauna, ez bezadazu jazar zure suminduraren hatsean; ez benezazu azurria zure hasarrean.
3. Urrikal zakizkit, Jauna, zeren naizen hebain; senda nezazu, Jauna, zeren asaldutan baitira ene hezurrak.
4. Asaldu gaitzean da ene arima; bainan zuk, Jauna, noiz arteo utzi-ren nauzu huntan?
5. Ene alderat itzul zaite, Jauna; athera zazu ene arima; salba nezazu zure urrikalmenduaren ariaz.
6. Alabainan ez da hilez geroz nihor zutaz orhoit denik; ifernuan berriz, nork aithor bihurturen darotzu?
7. Auhenetan ahiturik nago; gau oroz bustiko dut ene ohea, nigar-uharrak ixuriko ditut ene etzauntzaren gainera.
8. Gaitzidurak nahasi du ene begia; zahartu naiz ene etsai guzien artean.
9. Urrun zaitezte ni ganik, tzarkeria-egile guziak, ezen Jaunak entzun du ene nigar-marraska.
10. Jaunak entzun du ene othoitza, Jaunak onhetsi du ene errekeia.
11. Ahalka beitez ene etsai guziak, eror beitez nahastura gaitzera, ahalke gorritan itzul beitez laster.

### VII. PSAL.

1. Dabidek Jaunari kantatu zaroen psalmoa, Jeminiren seme Kusiren solasen ariaz.
2. Ene Jainko Jauna, zutan izan da ene igurikitza; itzur eta athera nezazu ene ondoan dabiltzan guzien aztaparretarik;
3. Beldurrez-eta egun batez ene etsaiak, lehoin batek bezala, eraman diazadan bizia, nihor ez dudalarik ene berrerosteko eta salbatzeko.
4. Ene Jainko Jauna, nik egin badut jazartzen darotedan gaizkia, ene eskuetan balin bada tzarkeria,
5. Bihurtu izan badiotet gaizkia niri egin darotatenei, hutsik goan benedi, merezi bezala, ene etsaien aitzinetik;
6. Etsaia jarraik bekio ene biziari, atzeman eta lurrean ostika beza, eta ene ospea erabil beza herrauspean.

7. Zure hasarrean altxa zaite, Jauna; ager zazu zure indarra ene etsaien eremuetan.

Jaiki zaite, ene Jainko Jauna, zerorrek erabaki duzunaren egiteko;

8. Eta populuen baldarna zure ingurura bilduko da.

Haren arietan igan zaite zure tronura:

9. Jaunak juiatzen ditu populuak.

Juia nezazu, Jauna, ene zuzentasunaren arabera, eta ene baithan den garbitasunaren arabera.

10. Urmariaturen da bekhatorearen maltzurkeria, eta gizon zuzena bidaturen duzu, oi Jainko, bihotzak eta barneak ikhartzen ditutzuna.

Bidezkoa da.

11. Ene laguntza Jauna ganikakoa, ezen harek itzurrazten ditu bihotzez zuzen direnak.

12. Jainkoa, jui zuzen, indardun eta jasankorra, egun oroz hasarretzen othe da?

13. Haren ganat ez bazarete bihurtzen, dardaratuko du bere ezpata; hedatua du bere arrarbela, zuzendua daduka.

14. Hiltzeko tresnak hartan xuxenduak ditu; bere geziak gizon sukoientzat egin ditu.

15. Gaixtagina behartu da bidegabearen egiteko; oinhazeaz ernalduta, eta tzarkeriaz erdi.

16. Zuphu bat abiatu eta egin du, eta berak egin zilhora da erori.

17. Bere gaixtakeria bihurturen zaio buruaren gainera; lephora eroriko zaio bere tzarkeria.

18. Aithor emanen diot Jaunari bere zuzentasunaren arabera, eta kantikak kantaturen diozkat Jaun guziz goraren izenari.

### VIII. PSAL.

1. Akhabantzaraino, dolhareetako, Dabiden psalmoa.

2. Jauna, gure Jauna, zeinen den ederresgarri zure izena lurraren hedadura guzian!

Ezen zure ospea zeruez gorago heltzen da.

3. Haurren eta bulharrean direnen ahotik atheratu duzu zure laudorio osoa, zure etsaien ariaz, etsaiaren eta aiherkundetsuaren xahutzeko.

4. Begiratuko diotedanean zure zeru, zure eskuetak lanei; ilhargi eta izar asentatu ditutzunei;

5. Zer da gizona, hartaz orhoit izan zaitezentzat? zer da gizaseme bat, haren ikhustera zu ethortzekotzat?



6. Aingeruak baino aphur bat beherago ezarri duzu; ospezko eta ohorezko khoro bat egin diozu,
7. Eta zure eskuetako lanen gaineko ezarri duzu.
8. Haren oinenpeko ezarri dituzu guziak, ardi, idi, eta bertzalde larretako abereak,
9. Zeruko hegastinak eta itsasoko arrainak, itsaspeko bidexketan ibiltzen diren guziak.
10. Jauna, gure Jauna, zeinen den ederresgarri zure izena lurraren hedadura guzian!

### IX. PSAL.

1. Azkeneraino, semearen gauza gordeen gainean, Dabiden psalmoa.
2. Ene bihotz oroz, Jauna, emanen darotzut aithor; kantaturen dituzure sendagaila guziak,
3. Zure baithan boztuko eta goiheretuko naiz; zure izena kantaturen dut, Jainko guziz gora.
4. Zuk ene etsaia gibelaz itzularaztearekin, herbalduko eta galduko dira zure aitzinetik guziak.
5. Ezen zuzenbidea eman darokuzu niri eta ene egitekoari: zure tronua gainean jarri zare, Jainko zuzenki juiatzen duzuna.
6. Azurriatu ditutzu jendaiak, eta gaixtagina galdu da; bethiko eta menderen mendetako ezeztatu duzu hekien izena.
7. Etsaiaren ezpatek bethikotzat galdu dute beren indarra; urratu ditutzu hekien hiriak.
- Harramantzekin galdu da hekien orhoitzapena;
8. Bainan bethi guzian dirau Jaunak. Juiatzekotzat xuxendu du bere tronua;
9. Zuzenbidean juiaturen du berak lurra; zuzenaren arabera juiaturen ditu populuak.
10. Jauna beharraren ihes-lekhu egin da, haren laguntza behar-ordu eta hesturetan.
11. Zure izena ezagutzen dutenek, zure baithan izan bezate beren igurikitza, zeren ez baititutzu bazterrerat utzi zu bilhatzen zaituztenak, Jauna.
12. Kanta zazue Sionen dagoen Jauna; jendaien artean ezagutaraz zatzue haren arthak;
13. Ezen orhoitu da beharrez, bilhatu du hekien odola, etzaio ahan-tzi hekien oihua.

14. Urrikal zakizkit, Jauna; ikhusazu zer aphaltasunetan ezarri nauten ene etsaiek.
15. Oi zu, heriotzeko atheetarik goititzen nauzuna, zure laudorio guziak ezagutaraz detzadan Siongo alabari hiriko atheetan!
16. Bozturen naiz zuk eman salbamenduan. Jendaiak sarthuak daude beren eskuz egin duten lezeari.
- Hekien zangoa atzeman izan da berek gorde duten artean.
17. Ezagutua izanen da Jauna, zuzenari bere bidea ematen daroena; bekhatorea atzeman izan da bere eskuetako lanetan.
18. Ifernura boazi bekhatoreak, Jainkoa ahanzten duten jendaiak oro.
19. Ezen beharra ez da azkeneraino ahantzia izanen, noharroinaren jasankortasuna ez da bethiko alferra izanen.
20. Jaiki zaitte, Jauna, gogor ez dadien gizonaren ahala; jendaiak zure aitzinean juiatuak izan beitez.
21. Hekien gainean ezar zazu, Jauna, legemaile bat, jendaiak jakin dezaten, gizon direla.
- X. *Psal* 1. Zertako, Jauna, urrunduzare? zertako uzten gaituzu gure behar-ordu eta hesturetan?
2. Gaixtagina hantzen delarik, beharra ehotzen dute; atzemanak izanen dira berek asmatzen dituzten amarruetan.
3. Alabainan bekhatorea laudatua da bere arimako lehietan, eta gaixtagina benedikatua da.
4. Bekhatoreak sumindu du Jauna: bere sepharen handiz, ez du hura bilhatuko.
5. Ez du bere aitzinean Jainkoa: lohituak ditu noiznahiden bere bideak. Zure erabakiak, Jauna, ezeztatzen dira haren begietan: nausituko zaiote bere etsai guziei.
6. Ezen bere bihotzean erran du: Ez naiz gizamendetan khordokatu izanen, etzait asturugaitzik gerthatuko.
7. Madarizionez bethea da haren ahoa, uherduraz eta zimarkhuz; nekhea eta oinhazea haren mihi azpian daude.
8. Aberatsekin egoten da zelatetan; zokhoetan, hobengabearen hiltzea gatik.
9. Begia daduko jende beharrari; zelatak lekhu itsuan hedatzen diozka, lehoinak bere zilhoan bezala.
- Zelatak hedatzen ditu beharraren larrutzeko, beharra larrutzeko bereganatzen duelarik.
10. Bere sarean lurrera arthikiko du, makhurtuko eta eroriko da, noiz-ere nausitua baititake beharrei.



11. Ezen erran du bere bihotzean: ahantzi zaio Jainkoari; begiak aldaratzen ditu, batere ez ikhusteko.

12. Jaiki zaite, Jainko Jauna, gora bedi zure eskua; ez ahantz beharrak.

13. Zergatik gaixtaginak sumintarazi du Jainkoa? Zeren erran duen bere bihotzean: Ez da bilhatuko.

14. Ikhusten duzu, Jauna, ezen begiratzen diozute nekhe oinhazeei, zure eskuari arthikitzeke gaixtaginak.

Zure gain da beharra, zu zare umezurtzaren laguntza.

15. Hauts zazu bekhatorearen eta gaixtaginaren besoa. Bilhatua izan da haren bekhatua eta ez da khausituko.

16. Jauna erreginaturen da bethi eta menderen mendetan: jendaia, galduren zarete haren lurretik.

17. Jaunak entzun du beharren nahikaria. Jauna, zure beharriak entzun du hekien bihotzeko aphaindura.

18. Umezurtzaren eta aphalaren alde erabak zazu, gizonak bene burua ez dezantzat gehiago lurraren gainean espanta.

#### X. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.

2. Jaunaren baithan dut ene fidantzia: nolaz diozue ene arimari erraten: Mendira egizak hemendik, etxexoriak bezala?

3. Ezen horra non bekhatoreek hedatu duten beren arranbela; beren geziak xuxendu dituzte gezi-untzian, hekietaz ilhunpean jotzeko bihotzez zuzen direnak.

4. Desegin dute ezen zuk akhabatu lana: bainan zer egin du gizon zuzenak?

5. Jauna bere tenplo sainduan da; Jaunak zeruetan du bere jarlekhua. Haren begiak beharraren gainera daude; haren bekhurundea gizasemei galdez dago.

6. Prestua eta gaixtagina, biak ikhartzten ditu Jaunak: gaixtakeria maite duenak gaitzets du bere arima.

7. Arteak uria bezala eroriko dira bekhatoreen gainera; sua, eta sufrea eta phesietako hatsa dira hekientzat,

8. Zeren Jauna zuzena baita, eta zuzentasuna maite baitu; haren begia zuzentasunaren alderat itzulia dago.

#### XI. PSAL.

1. Azkeneraino, zortziurrunekotzat, Dabiden psalmoa.

2. Salba nezazu, Jauna, zeren galdua baita saindua; zeren gizonen semeek aphurtu baitituzte egiak.

3. Oro gezurrez mintzatu dira lagunari; ezpain maltzurak dituzte; bihotza alde batera dute eta bertzera mintzatu dira.

4. Jaunak ezeztu betza ezpain maltzur guziak eta mihi espantu-egilea.

5. Erran izan dute: Goretsiko dugu gure mihia, gure ezpainen jabe gare; zein da gure Jaun?

6. Noharroinen lazeria gatik, beharren auhenen gatik jaikiko naiz orai, dio Jaunak.

Itzurraraziren ditut, eta hori eginen dut ene hitzean.

7. Jaunaren hitzak, hitz garbiak dira, zilhar suaz ikhartua, lurrezko untzian frogatua, zazpi aldiz garbitua.

8. Jauna, zuk begiratuko gaituzu; zuk bethi zainduko gaituzu gizalde hortarik.

9. Gaixtaginak inguruka dabilta: zure handitasunaren arabera berhatu ditutzu gizonen semeak.

#### XII. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.

Noiz arteo, Jauna, azkeneraino ahantziko othe nauzu? Noiz arteo aldaratuko duzu ene ganik zure begithartea?

2. Noiz arteo erabiliren ditut ehun asmu ene ariman? Noiz arteo alhaturen dut egunaz ene bihotza atsekabeen?

3. Noiz arteo ene etsaia altxaturen da ene gainera?

4. Beira zazu eta entzun nezazu, ene Jainko Jauna.

Argi zatzu ene begiak, ez nadien behinere lohakar heriotzean;

5. Ene etsaiak egun batez erran dezan beldurrez: Garai atheratu natzaio.

Hestutzen nautenak bozkariotan sarthuko dira khordokatua izaten banaiz;

6. Nik aldiz, zure urrikaltzapenean ezarri dut ene igurikitza.

Ene bihotza bozkarioz jauziren da zuk nauzulakotz itzuri; kantaturren dut ongiz gaitzitu nauen Jauna; ospaturen dut Jaun gorenaren izena.

#### XIII. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.

Zoroak bere bihotzean erran du: Ez da Jainkorik.

Galduak dira halakoak eta hatsgarri egin dira beren lakhetkuntzetan: horietan ez da ongia egiten duenik, bakhar bat ere ez da.



2. Jaunak zerutik begiratu du ikhusteko heia baden adimendukorik edo Jainkoa bilhatzen duenik.

3. Oro zeihertu, oro batean alfer bilhakatu dira; bat ez da ongia egiten duenik, bakhar bat ere ez da.

Horien zintzurra hobi ideki bat da; maltzurkeriako erabili dituzte beren mihiak, aspikaren phozoina dute ezpainpean.

Madarizonez eta uherduraz bethea dute ahoa; odolaren ixurtzeko arin dute urhatsa.

Gogorkeriarik eta zorigaitzik baizen ez da horien ibilbideetan, eta bakerako bidea ez dute ezagutu; Jainkoaren beldurra ez da horien begien aitzinean.

4. Ene populua ogi puska bat bezala iresten duten tzarkeria-egile horiei guzietan ez othe zaiote bada ezagutzarik ethorriko?

5. Deirik Jaunari ez daroete egin; eta beldurrak ikharatu ditu, beldurtzekorik etzen lekhuari ere;

6. Alabainan Jauna prestuen araldearekin da; eta zuek, gaixtaginak, urmariatu dituzte gizon behararen xedeak, Jauna delakotz haren igurikitza.

7. Siondik nork emanen du Israelen itzurpena? Jaunak hautsiko duenean bere populua gathibutasuna, atseginez jauziko da Jakob, bozkariotan sarthuko da Israel.

#### XIV. PSAL.

1. Dabiden psalmoa.

Jauna, nor egonen da zure tabernaklean? nor phausatuko da zure mendi sainduan?

2. Notharik gabe dabilana eta zuzenari bere bidea ematen daroena;

3. Bere bihotzetik egiaz mintzatzen dena, eta bere mihiaz maltzurkeriarik erabiltzen ez duena;

Bere lagunari gaizkirik egiten ez dioena, eta bere lagunentzat laidoa onhesten ez duena.

4. Ezdeus batentzat daduka gizon maltzurra; bainan ospatzen ditu Jaunaren beldur direnak.

Harek zin egiten dio bere lagunari, eta ez du enganatzen;

5. Harek ez du lukurantz ematen bere dirua, eta emaitzarik ez du onhesten, hobetik ez duenari bidegabe ekhartzeko.

Hola egiten duena ez da behinere khordokatua izanen.

#### XV. PSAL.

1. Hanean Dabidi berari iskribatua.

Begira nezazu, Jauna, zeren zure baithan izan dudanez igurikitza.

2. Erran izan diot Jaunari: Zu zare ene Jainkoa, ezen ene onen beharrik ez duzu.

3. Haren lurraren gainean diren sainduei miretsarazi diozkate hekiek alderako ene gogoak.

4. Errezeluz bethe dira, bainan gero lasterrari eman dira.

Bilkhuetara ez ditut odol ixurtzera bilduko eta ez dira ene ezpainak hekiek izenen aiphatzera orhoituko.

5. Jauna da ene primantzako zathia, enetzat berezia dena; zu zare ene primantza bihurtuko darotazuna.

6. Sokhak enetzat lurrik ederrenetan erori dira, ezen ene primantza guziz ederra da.

7. Benedikaturen dut Jauna, niri adimendua eman izan darotana; bertzalde ilhundu arteo ene barnea deika haritu izan zait.

8. Jauna nadukan bethi ene begien aitzinean, zeren ene eskuinean baita ez nadiantzat izan khordokatua.

9. Horren gatik boztu da ene bihotza, eta ene mihiak kantatu ditu bozkariozko kantuak; eta bertzalde ene haragia phausatuko da pheskiza ederrean;

10. Zeren ez baituzu ene arima ifernuan utziko, eta ez baituzu nahi-ko zure sainduak ikhus dezan usteldura.

Ezagutarazi daroztatzu bizitzeko bideak, bozkarioz betheko nauzu zure begithartea agertuz: gogo guziak zure esku eskuinean dira akhabantzaraino.

#### XVI. PSAL.

1. Dabiden othoitza.

Jauna, bere bidea emozu ene zuzenari; entzun zazu ene errekeia.

Zure beharrik onhets beza ene othoitz, amarrurik gabe ene ezpainak egiten dutena.

2. Zure begithartetik ilkhi bedi ene erabakia; zure begiek ikhus beza-te zuzena.

3. Frogatu duzu ene bihotza; gauaz ikhustera ethorri zaizkit; suaz frogatu nauzu, eta tzarkeriarik ez da ene baithan aurkhitu.

4. Ene ahoa ez dadien mintza gizonen egintzen arabera, bide gogor-rrak iduki ditut zure ahoko hitzen ariaz.



5. Zure bideetan emozute ene urhatsei indarra, behaztopa ez ditezen ene oinak.

6. Nik deihadar egin dut entzun nauzulakotz, ene Jainkoa: ene alde-rat makhur zazu zure beharria, eta entzun zatzu ene hitzak.

7. Espantagarriki ager zatzu zure urrikalpenak, zure baithan beren pheskiza dadukatenak salbatzen dituzun Jauna.

8. Begi-ninia bezala zain nezazu zure eskuinari bihurtzen diren gaixtaginetarik.

Zure hegalean itzalean geriza nezazu

9. Atsekabeztatu nauten gaixtaginetarik.

Ene etsaiek inguratu dute ene arima;

10. Gogortu dituzte beren bihotzak; hekien ahoak ez du izan hanpuru-skeriako solasik baizen.

11. Iraizi nauten ondoan, orai inguratua nadukate: beren begiak lurre-ra makhurtzeko asmua dute hartu.

12. Hartu naute, harrapakinari lotzera dagoen lehoinak bezala, eta zokhoetan egoten den lehoinkumeak bezala.

13. Jaiki zaite, Jauna; aitzin zakizkio ene etsaiari eta eragotz zazu; itzurraz zazu ene arima gaixtaginaren ganik; zure ezpata khen zozute

14. Zure eskuaren etsaiei.

Jauna, lurreko gutietarik berez zatzu beren bizian; hekien sabela zure ontasan gordeez bethea da.

Badute nahi bezenbat haur, eta beren ondoregoak uzten dituzte beren hurrei.

15. Ni ordean, ene zuzentasunarekin agertuko naiz zure aitzinera; aseko naiz, zure ospea denean agertuko.

### XVII. PSAL.

1. Akhabantzaraino, Jaunari bere zerbitzari Dabidek kantatu kantika-koro hitzak, Jaunak bere etsai guzien eskuetarik eta Saulen eskutik itzurraz zuten egunean. Eta erran zuen:

2. Maithaturen zaitut, Jauna, zu ene indarra.

3. Jauna da ene habea eta ihes-lekhua, ene salbatzailea.

Ene Jainkoa da ene laguntza; haren baithan izanen dut ene igurikitza. Hura da ene geriza, ene salbamenduko adarra eta ene habea.

4. Jaunari laudatuz dei eginen diot, eta ene etsaietarik izanen naiz maldatua.

5. Heriotzeko oinhazeek naute inguratu, eta gaixtakeriaren uharrek asaldatu naute.

6. Inguratu naute ifernuko oinhazeek; herioaren arteek atzeman naute.

7. Ene hesturan Jaunari dei egin diot, eta deihadar egin diot ene Jainkoari.

Bere tenplo sailduti entzun du ene mintzoa, eta haren aitzinean egin dudan oihua heldu izan da haren beharrietara.

8. Laztu eta ikharatu da lurra; mendien erroak ikharatu eta khordokatu dira, hasarre dutelakotz Jainkoa.

9. Haren hasarrean khea igan da, haren begietarik sua biztu da, eta haren ganik ikhartzak khaldatu dira.

10. Ezkaili ditu zeruak, eta jautsi da; eta hedoi bat zuen oin-pean.

11. Eta igan da Kerubinen gainera, eta hegaldatu da, haizeen hegalean gainean hegaldaka goan da.

12. Ilhunbeak ezarri ditu bere gordegarrak; tabernakletzat ditu bere inguruan; aireko hedoietan den ur gobelaz eginak dira.

13. Haren begitharteko dirdirak haizatu ditu lanhoak, harria eta suko ikhartzak.

14. Jaunak zeru gainetik karraskarazi du ihurtzuria, Guzik-Gorak adiarazi du bere mintzoa; arthiki ditu harria eta ikhartz khaldatuak.

15. Eta arthiki ditu bere geziak, eta barraiatu ditu ene etsaiak; igorri du ximista ximistaren gainean, eta nahasi ditu.

16. Eta uren ithurburuak agertu dira, eta lurraren erroak agerian jarri, Zuk dixidaturik, Jauna, zure hasarrearen hatsa igorrorrik.

17. Zeru goratik igorri darot laguntza, hartu nau, eta ur-uharren erditik atheratu.

18. Itzuri nau ene etsai guzik hazkarrei eta higuintzetan nindutenei, indar ene gainean hartu zutelakotz.

19. Atzeman naute ene hesturako egunean; bainan Jauna jarri da ene gerizagarri.

20. Atheratu nau zabalera, salbatu nau, nahi ninduelakotz.

21. Ene zuzentasunaren arabera sariztaturen nau Jaunak, eta bihurturen darot ene eskuen garbitasunaren arabera;

22. Zeren iduki ditudan Jaunaren bideak, eta ez naizen gaixtoki ibili ene Jainkoaren kontra;

23. Zeren ene begien aitzinean iduki ditudan haren erabakiak oro, eta ez ditudan haren juiamenduak arbuiatu.

24. Eta garbi izanen naiz haren aitzinean, eta begiraturen naiz ene tzartasunetik.



25. Eta Jaunak sariztaturen nau ene zuzentasunaren arabera eta ene eskuen garbitasunaren arabera haren begien aitzinean.
26. Sainduarekin saindu, garbiarekin garbi izanen zare.
27. Hautetsiarekin hautatua izanen zare, tzarrarekin tzartuko zare.
28. Ezen aphalt dena goratuko duzu, eta aphaltuko ditutzu hanpurutsuen begiak.
29. Alabainan zuk argiarazten diozu ene kriseluari, Jauna: ene Jainkoa, argi zatzu ene ilhunbeak;
30. Zeren zure laguntzarekin tentazioneari itzuriko bainatzaio; ene Jainkoaren laguntzarekin jauziko dut harrasia.
31. Hura da ene Jainkoa; haren bidea garbia da; Jaunaren hitzak dira suaz garbituak iduri; haren baithan bere igurikitza dadukaten guzien gerizatzailea da.
32. Alabainan nor da Jainko, ezenetz Jauna? edo nor da Jainko gure Jainkoaz kanpo?
33. Hura da indarrez jauntzi nauen Jainkoa, eta ene bidea khutsurik gabe ezarri duena;
34. Ene oinak orenenak bezala arindu dituena; lekhu goretan jartzen nauena;
35. Ene eskuei gudukatzen irakhatsi diotena; eta zuk ezarri ditutzu ene besoak kobrezko arranbela iduri.
36. Eman izan darotazu ene itzupeneko geriza, eta zure eskuinak lagundu izan nau.
- Zure irakhaspenak kridantzatu nau bethiko, eta zure irakhaspenak argituren nau.
37. Ene oinen azpian luzatu darotazu urhatsa, eta ene oinak ez dira hebaindu.
38. Ondotik eginen diotet ene etsaiei, eta atzemanen ditut; ez naiz bihurturen ahi ditezen arteo.
39. Phorroskaturen ditut, eta ezin buru eginen dute; eta ene oin-pera eroriko dira.
40. Gerlakotzat indarrez jauntzi nauzu, eta ene azpira erorarazi ditutzu ene kontra jaikitzen zirenak.
41. Ene etsaiak ihes igorri ditutzu ene aitzinean, eta herrautsi ditutzu higuintzetan nindaukatena.
42. Helka haritu dira, eta nihor etzen hekien atheratzeko; Jaunari deihadar egin diote, bainan ez ditu entzun.
43. Eginen ditut haizeak daraman herrautsa bezala; karriketako lohia bezala eginen ditut.

44. Atheratuko nauzu populuarekilako makhurretarik; jendaien buruan ezarriko nauzu.
45. Ezagutu ez dudan populu batek zerbitzatu nau; ene hitza aditu bezain sarri, egin du ene errana.
46. Arrotzaren semeak gezurrez mintzatu zaizkit, arrotzaren semeak zahartu dira, eta khordokatu dira beren bideetan.
47. Bizi bedi Jauna, benedika bekio ene Jainkoari, eta goretsia izan bedi ni salbatu nauen Jainkoa.
48. Zu zare Jainko ni aspertzen nauzuna, eta populuak ene azpian ezartzen ditutzuna, ene etsai hasarreetarik begiratzen nauzuna.
49. Ene kontra bihurtzen direnetarik gorago altxaturen nauzu; gizon gaixtoaren aztaparretik atheraturen nauzu.
50. Aria hortaz, Jauna, jendaien artean aithor emanen darotzut, eta zure izena kantaturen dut psalmo batean.
51. Erranen dut zer sendagailaz itzuri duen Jaunak bere hautuko erregea, zer urrikalpen izan duen Dabid bere kristoz, eta haren ondoreez bethi eta bethiraino.

### XVIII. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.
2. Zeruek derrate Jainkoaren ospea, eta ortziak diotza haren eskutikako lanak.
3. Egunak egunari erraten dio solas hori; gauak gaua jakintsun egiten du hortaz.
4. Ez da ez mintzaia, ez hizkuntzarik zeinetan aditzen ez baita hekien mintzoa.
5. Lurraren hedadura guzira heldu izan da hekien solasen ozentasuna; lurraren bazter orotan entzuten dira hekien hitzak.
6. Iguzkian ezarri du bere egon-lekhua; eta iguzkia, bere ohetik ilkhitzen den ezkonberri bat iduri,  
Digante bat bezala jauzi da bere bidearen egitera;
7. Zeruaren buru batetik ilkhitzen da,  
Eta bertze bururaino laster egiten du, eta deus ez da haren berotasunari gorde dakiokenik.
8. Nothagabea da Jaunaren legea, bihurtarazten ditu arimak; zina da Jaunaren lekhukotasuna; zuhurtzia ematen darote aphaiei.
9. Zuzenak dira Jaunaren erabakiak, bozkariotan ezartzen dituzte bihotzak; distiratzen du Jaunaren legeak, argitzen ditu begiak.



10. Saindua da Jaunaren beldurra, badirau menderen mendetan: zinak dira Jaunaren erabakiak, eta berenez zuzenak.

11. Lehiakizunago dira urhe eta harri balios metak baino; ezta baino, erleen orrazea baino gozoago dira.

12. Hargatik begirutzen ditu zure zerbitzariak; sari handia heldu da hekien begiratzetik.

13. Nork ezagutzen ditu bere hutsak? ene hoben itsuetarik garbi nezazu,

14. Ete, arrotzenetarik begira zazu zure zerbitzaria.

Baldin hekiek ez bazaizkit nausitzen, orduan izanen naiz nothagabe, eta garbituren ere naiz bekhatu guziz handi batetarik.

15. Orduan ene ahoko solasak izanen dira zure gogarako, eta ene bihotzeko gogoetak ere zure aitzinean izanen dira bethi.

Jauna, zu zare ene laguntza eta ene berrerroslea.

### XIX. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.

2. Jaunak entzun bezaitza hesturako egunean; geriza bezaitza Jakobean Jainkoaren izenak.

3. Laguntza igor biazazu bere lekhu saindutik, eta Siondik begira bezaitza.

4. Orhoit izan bedi zure sakrifizio oroz, eta zure holokausta gozo izan bekio.

5. Eman biazazu zure bihotzeko nahiaren arabera, eta zure xedek bethearaz betza.

6. Zure itzurpenaz gare bozturen, eta gure Jainkoaren izenaz gare handietsiren.

7. Jaunak bethe betza zure galdeak oro: Jaunak bere Kristo duela itzurrazazi, orai dut ezagutu.

Jaunak bere zeru saindutik entzunen du; haren besoko indarrean da itzurpena.

8. Etsaiek hotsematen dute beren orga-laster eta zaldietara; guk aldiz, gure Jainko Jaunaren izenari dei egiten diogu.

9. Hekiek hertsatuak izan dira eta erori dira; gu berriz, jaiki gare eta xut gaudezi.

10. Jauna, salba zazu errege, eta entzun gaitzatzu dei eginen darotzugun egunean.

### XX. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.

2. Jauna, zure indarraz bozturen da errege, eta zure ganikako itzurpenaz bozkario handitan sarturen da.

3. Eman diozu haren bihotzak nahi zuena, eta ez diozu hutsegín haren ezpainetako galdeari.

4. Aitzindu zaizkio alabainan zure ezttasuneko benedizioeez; haren buruaren gainean ezarri duzu harri baliosezko khoro bat.

5. Bizia galdatu darotzu, eta zuk menderen mendetako eman diozu egunen luzetasuna.

6. Handia da haren ospea zure ganikako itzurpenean; ospea eta berregintza handia ezartzen ditutzu haren gainean;

7. Ezen benedizioetan emanen duzu menderen mendetan; bozkarioz betheko duzu zure begithartea erakhutsiz.

8. Zeren erregek Jauna baithan dadukan bere igurikitza, Guziz-Goraren urrikalpenari esker ez da khordokatua izanen.

9. Zure eskuak harrapa betza zure etsai guziak; zure eskuinak atzeman betza higuín zaituzten guziak.

10. Labe khaldatua iduri ezarriren ditutzu, zure begithartea agertuko duzun orduan; Jaunak lazturen ditu bere hasarrean, eta suak iretsiko ditu.

11. Lurretik xahuturen ditutzu hekien haurrak, eta gizasemeen arte-tik hekien ondokoak;

12. Zeren zure gainera bihurtu duten gaizkia; asmuak egin, bainan ezin obratu dituzte.

13. Hargatik ihes igorriren ditutzu, eta zure azken ukhaldietara itzularaziren diozute beren begithartea.

14. Zure indarrean altxa zaite, Jauna; kantu eta maniurretan ospaturen dugu zure ahalen handia.

### XXI. PSAL.

1. Azkeneraino, goizeko laguntzako, Dabiden psalmoa.

2. Jainkoa, ene Jainkoa, begira zazu ene gainera; zertako utzi nauzu bazterrerat? ene bekhatuek urrundu dute ni ganik ene itzurpena.

3. Ene Jainkoa, egunaz deihadar eginen darotzut, eta ez nauzu entzunen; gauaz ere oi-huz egonen natzaitzu eta orduan ez da alferretan izanen.

4. Zuk aldiz, lekhu sainduan duzu egoitza, oi Israelen laudorioen xedea!

5. Gure arbasoek zure baithan iduki dute beren pheskiza; zure baitan iduki izan dute, eta hesturetarik atheratu ditutzu.



6. Zuri deihadar egin, eta itzuriak izan dira; zu baithan iguriki, eta ahalkatuak izan ez dira.
7. Ni ordean har bat naiz, eta ez gizon bat; gizonei laidagarri, jendeari nardagarri natzaiotena.
8. Ikhusi nauten guziek irriz jokhatu naute; burua dardaratz, beren ezpainez erasi dute:
9. Jauna ganik du iguriki, Jaunak athera beza; itzurraz beza, hori duenaz geroztik gogoko.
10. Eta zuk atheratu nauzu amaren sabeletik, zu izan zare ene igurikitza ene amaren bulharretik;
11. Zure eskuetan sortzetik izan naiz ezarria; ene amaren sabeletik, zu zare ene Jainkoa;
12. Ez gibela ni ganik;  
Ezen hurbil da hestura, eta ez dut nihondik laguntzailerik.
13. Zezenko hainitzek inguratu naute; zezen gizenez sethiatua naiz.
14. Ene kontra ideki dute beren ahoa, marrumaz heldu den lehoin harrapari batek bezala.
15. Ura bezala ixuria naiz, ene hezur guziak barraiatuak dira.  
Bihotza ene barnean eginga da urtzen den ezkoa iduri.
16. Ene indarra agortu da baxerakia bezala, eta mihia lothu zait aho-gangari, eta ezarri nauzu hil-herrautsa bezala.
17. Alabainan zakhur-multzo batek inguratu nau; maltzurkerian dabiltzanen batzarrak sethiatu nau.  
Zilhatu dituzte ene eskuak eta ene oinak;
18. Khondata dituzte ene hezur guziak,  
Begiztatu eta ikhartu naute;
19. Beren artean zathitu dituzte ene soinekoak, eta ene gaineko soina zortera arthiki dute.
20. Bainan zuk, Jauna, ez bezadazu urrunt zure laguntza; ene zaintzeari egizu.
21. Athera zazu ene arima marrauzaren azpitik, ene arima zurtza zakhurraren menetik.
22. Itzur nezazu lehoinaren ahotik; ene aphaltasuna begira zazu likornaren adarretarik.
23. Ezagutaraziko diotet ene anaiei zure izena, eta baldarnaren erdian laudaturen zaitut.
24. Jaunaren beldur zaretan guziak, hura lauda zazue; Jakoben iraulgiko guziek ospa zazue.

25. Israelen odoleko guziak haren beldur izan beitez, ez duelakotz erdeinatu, ez arbiatu beharraren othoitza;

Ez duelakotz ene ganik aldaratu bere begithartea; eta entzun nauelakotz oihu egin diodanean.

26. Zure baithan izanen da ene laudorioa baldarna handian; betheko ditut ene botuak Jaunaren beldur direnen aitzinean.

27. Beharrek janen dute, eta aseko dira; laudatuko dute Jauna hura bilhatzen dutenek; hekien bihotzak menderen mendetan biziko dira.

28. Lurreko eremu guziak orhoituren dira, eta Jauna gana dira bihurturen.

Eta jendaietako familia guziak adoratzen jarriko dira haren aitzinean;  
29. Zeren Jaunarena baita erregetasuna, eta bera izanen da jendaki guzien jaun.

30. Jan dute lurreko handiek eta adoratu dute Jauna; haren aitzinera eroriko dira lurrera jausten diren guziak.

31. Eta ene arima harentzat biziko da, eta ene ondoregoak zerbitzaturen du.

32. Ethortzekoa den iraulgi bat ezagutaraziko du Jaunak; zeruek sortzekoa den populu Jaunak eginari ezagutaraziren diote haren zulentasuna.

## XXII. PSAL.

1. Dabiden psalmoa.  
Jaunak darot hotsematen, etzait deusere eskastuko;
2. Non ere baita alhapidea, han nau ezarri.  
Ur bizkorgarrien aldean hazi nau;
3. Bihurrarazi du ene arima.  
Zuzenbideko bidexketara erakharri nau, bere izenaren arietan.
4. Ezen ibil banedi ere herioaren itzalpeetan, ez nuke gaitzen beldurrik, zu enekin zarelakotz.  
Zure zigorra eta zure makhila dira ene gozagarri.
5. Ene aitzinean xuxendu duzu mahaina, niri indar emateko hestutzen nautenen kontra.  
Olioan gantzutu duzu ene burua; zeinen den ederra ene baso hordigarria!
6. Eta zure urrikalpena jarraikiren zait ene bizitzeko egun orotan,  
7. Jaunaren etxean egin dezadan ene egoitza mendeen iraupenean.

## XXIII. PSAL.

1. Astearen lehenbiziko eguneko, Dabiden psalmoa.





Jaunarenak dira lurra, eta hartan direnak oro; lurraren ingurua, eta hartan egoten diren guziak;

2. Zeren harek baitu itsasoan gainean asentatu, eta ibaien gainean xuxendu.

3. Nor izanen da Jaunaren mendira, edo nor egonen ahal da haren lekhu sailduan?

4. Eskuak hobengabe eta bihotza xahu dituen, bere arima alferretan izan ez duena, eta bere lagunari zimarkhurekin zin egin ez dioena.

5. Hainak ardietsiren du Jauna ganik benedizioa eta Jainko bere salbatzailea ganik urrikalpena.

6. Hura da Jainkoa bilhatzen dutenen gizaldia, Jakobean Jainkoaren begithartea bilhatzen dutenena.

7. Zabal zatzue zuen atheak, oi buruzagiak; zabal zaitzete, oi athe bethierekoak; eta sarthuren da errege ospezkoa.

8. Zein da ospezko errege hori? Jaun hazkar eta ahalduna, Jaun gudueta ahalduna.

9. Zabal zatzue zuen atheak, oi buruzagiak; zabal zaitzete, oi athe bethierekoak; eta sarthuren da errege ospezkoa,

10. Zein da ospezko errege hori? Armadetako Jauna da ospezko errege.

#### XXIV. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.

Jauna, zure ganat altxatu dut ene arima;

2. Ene Jainkoa, zutan dut ene sinhestea; ez naiz ahalketan eroriko.

3. Eta ez benezate trufa ene etsaiek; ezen beren igurikitza zutan duten guziak, ez dira ahalkatuak izanen.

4. Ahalkatuak izan beitez tzarkeria alfer egiten hari direnak.

Zure bideak erakhuts daroztatzu, Jauna; irakhats daroztatzu zure bidexkak.

5. Zure egian bida nezazu, eta argi nezazu; zeren zu baitzare Jainkoa, ene salbatzailea, eta iguriki baitzaitut egun guzian.

6. Orhoit zaitzi, Jauna, zure guphidetasunez; orhoit zaitzi zure urrikalmendu, egundainotik dirautenez.

7. Ez bezaitze orhoit ene gaztetasuneko hobenez eta jakin-eskasez.

Zure urrialmenduaren arabera orhoit zaitzi nitaz, zure ontasunaren ariaz, Jauna.

8. Jauna ezta eta zuzena da; horren gatik legeaz argituren ditu bidean behaztopatzen direnak.

9. Zuzenbidean ezta direnak bidaturen ditu, emeei bere bideak irakhatsiren diozkate.

10. Urrikalmendua eta egia dira Jaunaren bide guziak, haren legea eta manamenduak bilhatzen dituztenentzat.

11. Zure izenaren ariaz, Jauna, jabalduko zaizkio ene bekhatuari, ezen handia da.

12. Nor da Jaunaren beldur den gizona? Jaunak legeaz argitzen du hura hautatu duen bidean.

13. Hainaren bizia ontasunen erdian iraganen da eta haren umeez lurra izanen dute ondoregoz.

14. Jauna habe bat da haren beldur direnentzat, eta haren legea da hekiei irakhatsia izateko.

15. Ene begiak Jaunari dagozkio bethi, zeren berak atheratuko baitutu artetik ene zangoak.

16. Begia emazu ene gainera, eta urrikal zakizkit; zeren zurtz eta behar bainaiz.

17. Usutu dira ene bihotzeko hesturak; athera nezazu ene behardu-retarik.

18. Ikhuzazu nola naizen aphaldua eta nekhatua, eta barkha darozkitatu ene hoben guziak.

19. Begira zozute ene etsaiei, zeren murrukatu baitira eta higuintzarik tzarrenaz higuintzen binaute.

20. Zaint darotazu bizia, eta itzurraraz nezazu, ez naiz ahalketan eroriko, zure baithan iduki dudalakotz ene igurikitza.

21. Gizon prestu eta zuzenak ene alde jarri dira, zeren zu iguriki baitzaitut.

22. Jainkoa, bere hestura guzietarik athera zazu Israel.

#### XXV. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.

Juia nezazu, Jauna, zeren hobenetik garbi ibili bainaiz; Jaunaren baithan dut ene igurikitza, ez naiz iraungiduran eroriko.

2. Froga nezazu, Jauna, hazta nezazu; suaz ikhar zatzu ene bihotza eta ene barnea;

3. Ezen ene begien aitzinean iduki izan dut zure urrikalmendua, eta zure egian lakhet izan dut.

4. Ez naiz gizon ergelen bilkhuetan jarri, eta tzarkeria egiten dutenentara ez naiz sarthuko.

5. Higuindu dut maltzurren baldarna, eta ez naiz gaixtaginekin jarriko.



6. Prestuen artean garbituko ditut ene eskuak, eta zure aldarea inguratuko dut, Jauna,
7. Aditzea gatik zure laudorioak kantatzen, eta neronek errateko zure sendagaila guziak.
8. Jauna, maithatu ditut zure tenploko berregindura eta zure ospearen egon-lekhua.
9. Jainkoa, ez bezazu gal ene arima gaixtaginekin, ez-eta ene bizia gizon odolkoiekin,
10. Zeinen eskuetan baitira tzarkeriak; hekien eskuina bethea da hartu dituzten emaitzez.
11. Ni aldiz, ene hobengabetasunean ibili naiz; libra nezazu, eta urriak zakizkit.
12. Ene oina bide zuzenean egotu da: prestuen baldarnan benedikaturen zaitut.

#### XXVI. PSAL.

1. Dabiden psalmoa, gantzutua izan zedin aitzinekoa. Jauna da ene argia, eta ene geriza; noren beldur izanen naiz?  
Jauna da ene biziaren zaina: nork ikharatuko nau?
2. Gaixtaginak ene gainera hurbiltzen hari direlarik ene haragien iresteko,  
Ni hestutzen nauten etsaiak, berak hebaindu eta erori dira.
3. Kanpak ene kontra jartzen balira ere, ene bihotza ez laiteke izi.  
Gudua ene kontra abia baledi ere, hortan berean nuke pheskiza-bide bat.
4. Gauza bat galdatu diot Jaunari, eta bilhaturen dut ongi; hura da ene bizitzeko egun oroz Jaunaren etxean egotea,  
Ikhus detzadan Jaunaren gozoak, eta ene begiz ikhuska dezadan haren tenploa.
5. Alabainan bere tabernaklean gorde izan nau; eta asturugaitzetako egunean, bere tabernakle xokhoan maldatu nau.
6. Harriaren gainean altxatu nau; eta orai ene burua ene etsaien gainetik goratu du.  
Inguruka ibili naiz, eta haren tabernaklean imolatu dut deihadarreko bitima: kantatuko dut eta psalmoak erranen diozkat Jaunari.
7. Jauna, adi zatzu zu ganat egiten ditudan oihuak, eta entzun nezazu.
8. Ene bihotza mintzatu zaitzu, ene begitharteak bilhatu zaitu: bilhaturen dut, Jauna, zure begithartea.

9. Ez biazazu ene ganik aldara zure begithartea; ez bezaite zure hasarrean aldara zure zerbitzaria ganik.  
Izan zaitte ene laguntzaile, ez benezazu bazterrerat utz, ez-eta arbuia, oi ene Jainko salbagarria.
10. Alabainan utzi naute ene ait-amek; Jaunak ordean hartu nau.
11. Zure bidean, Jauna, emadazu zure legea; eta ene etsaien aria gatik, bida nezazu bidexka zuzenean.
12. Ez benezazu arthik hestutzen nautenen eskuetara; ezen gezurrezko lekhukoak ene kontra jaiki dira, eta gaixtakeriak bere burua du gezurtatu.
13. Sinheste dut Jaunaren onak ikhusingen ditudala bizi direnen lurtean.
14. Zaude Jaunaren begira, emazu gizonak bezala, indarza zazu zure bihotza, eta igurikazu Jauna.

#### XXVII. PSAL.

1. Dabidi berari psalmoa.  
Zure gana deihadar eginen dut, Jauna, ez bezaizkit ixilik egon; bel-durrez-eta ixilik egoten bazare, bilhaka nadien putzura erortzen direnen iduriko.
2. Entzun zazu, Jauna, ene errekeien otsa zuri othoitzez nagoenean, zure tenplo saindurat hedatzen ditudanean eskuak.
3. Ez benezazu eraman bekhatooreekin batean, ez-eta gal tzarkeria-egileekin.  
Hainek bakea aiphatzen diote beren lagunari, baina gaizkia dute beren bihotzetan.
4. Emozute beren egintzen arabera eta beren asmuen tzarkeriaren arabera.  
Egizute beren eskuetako egintzen arabera; emozute beren saria.
5. Zeren ez dituzten ezagutu Jaunaren egintzak eta haren eskuetako lanak, xahutuko ditutzu, eta ez ditutzu berreginen.
6. Benedika bekio Jaunari, zeren duen entzun ene errekeiaren otsa.
7. Jauna da ene laguntza eta ene malda; ene bihotzak haren baithan izatu du bere igurikitza eta lagundua izan naiz.  
Eta birloratu da ene haragia; eta ene nahitara aithor emanen diot Jaunari.
8. Jauna da bere populua indarra, eta bere kristoren itzurpenak maldatzen dituena.
9. Jauna, benedika zazu zure populua, benedika zazu zure primantza; zure erregetasuna erabil zazu hekien gainean, eta gorets zatzu bethi guzian.



### XXVIII. PSAL.

1. Dabiden psalmoa tabernaklea akhabatu zeneko.  
Jaunari ekhar zotzuet, oi Jainkoaren umeak, Jaunari ekhar zotzuet aharien umeak.
2. Jaunari ekhar zozue ospe eta ohore; Jaunari ekhar zozue bere ize-naren ospea; adora zazue Jauna bere lorio sainduan.
3. Jaunaren mintzoa entzun da uren gainean; ospezko Jainkoak ihurtzuria karraskarazi du; Jauna uren hedaduraren gainean da.
4. Indar du Jaunaren mintzoak; ederresgarri da Jaunaren mintzoa.
5. Jaunaren mintzoak phorroskatzen ditu zedroak; Jaunak phorroskaturen ditu Libango zedroak.
6. Xehakaturen ditu hala-nola Libango aratxea, hala-nola likornaren ume maitea.
7. Jaunaren mintzoak urratzen du sugarra;
8. Jaunaren mintzoak ikharatzen du mortua; Jaunak iharrosiren du Kadesgo mortua,
9. Jaunaren mintzoak xuxentzen ditu orenak eta agerturen ditu oihan lodiak, eta guziek ospe bihurturen diote bere tenploan.
10. Jaunak uholdearen gainean ezartzen du egoitza; bethi guziko errege jarriko da Jauna.
11. Jaunak indar emanen dio bere populuari; Jaunak bakean benedikatuko du bere populua.

### XXIX. PSAL.

1. Dabiden etxeko dedikazionekotzat kantatzeko psalmoa.
2. Goretsiren zaitut, Jauna, zeren nauzun hartu, eta ene gainean ez diozuten ene etsaiei gozorik eman.
3. Ene Jainko Jauna, oi hu egin darotzut, eta sendatu nauzu.
4. Jauna, ene arima atheratu duzu ifernutik, eta aldaratu nauzu putzura jausten direnetarik.
5. Jaunari kantikak kanta zatzue, Jaunaren sainduak; aithor emozue haren saindutasunaren orhoitzapenari.
6. Zeren haren gaitziduratik heldu baita haren hasarrea; eta bizia haren nahitik heldu da.  
Arratsa izanen da nigarreko, eta goiza bozkarioko.
7. Nik ordean erran dut ene nasaizian: Ez riat behinere khordokatu izanen.
8. Jauna, zure nahiaren arabera indar eman izan diozu ene osperi.

Ene ganik aldaratu duzu zure begithartea, eta asaldutan jarri naiz.

9. Zuri, Jauna, eginen dut deihadar, eta errekeituko dut ene Jainkoa.

10. Ene odoletik zer on ethor ditake, ni usteltzera jaustean?

Herrautsak aithor emanen othe darotzu, edo oi hu eginen othe du zure egia?

11. Jaunak aditu du eta urrikaldu zait; Jauna egin da ene laguntzaile.

12. Ene deithorea bozkariotara bihurtu duzu; urratu duzu ene zakhua eta bozkarioz inguratu nauzu,

13. Ene ospeak laudorio bihur dezazun, eta ez nadien ilhunduran eror; ene Jainko Jauna, bethi guzian aithor emanen darotzut.

### XXX. PSAL.

1. Azkeneraino, estasioko Dabiden psalmoa.

2. Zure baithan, Jauna, izan dut ene igurikitza, ez naiz bethi ahalkatua izanen; libra nezazu zure zuzentasunaren arabera.

3. Ene alderat makhur zazu beharria; laster egizu ni hesturatik atheratzera.

Izan zakizkit Jainko begirale eta ihes-lekhu bat, ni salba nezazuntzat;

4. Zu zare alabainan ene indarra eta ihes-lekhua, eta zure izenaren gatik bidaturen eta haziren nauzu.

5. Atheraturen nauzu gorde darotedan arte huntarik; zeren zu baitzare ene gerizatzaila.

6. Zure eskuetara bihurtzen dut ene arima; berrerosi nauzu, Jauna, egiazko Jainkoa.

7. Higuin ditutzu gauza huts eta alferretan lakhet direnak.

Bainan nik Jauna baithan eman dut ene pheskiza;

8. Zure urrikalpenean naiz jauziren eta bozturen.

Ene aphaltasunari begiratu diozulakotz, hesturetarik atheratu duzu ene arima.

9. Ez nauzu hertsu etsaiaren eskuetan, eta bide zabalean gogortu ditutzu ene oinak.

10. Urrikal zakizkit, Jauna, zeren ene begia, ene arima eta ene barnea hasarreak nahasiak baitira;

11. Zeren bihotzminean ene bizia, eta ene urtheak auhinetan iraungitu baitira.

Beharrerian ahuldua da ene indarra; ene hezurak asaldatuak dira.

12. Laido bat bilhakatu naiz ene etsai guzientzat, eta guziz ene hauzontzat; ene ezagunen lazgarri egin naiz.

Ikhusten nindutenek, ene ganik kanporat ihes egin dute;



13. Ahanzpenetan utzia naiz, bihotzetik hil dena bezala.  
Bilhakatu naiz untzi hautsi baten pare;
14. Entzun dut alabainan ene inguruan zauden askoren erantzukia.  
Ene kontra bilduak zirelarik, bizia niri khentzeko asmua egin dute.
15. Nik ordean, Jauna, zure baithan ezarri dut ene igurikitza; erran izan dut: Ene Jainkoa zare zu,
16. Zure eskuetan da ene zoria.  
Athera nezazu ene etsaien eta ene ondotik dabiltzanen eskuetarik.
17. Zure begithartea argi zazu zure zerbitzariaren gainera, salba neza-zu zure urrikalmenduan;
18. Jauna, ez naiz ahalketan eroriko, zeren zuri dei egin darotzudan.  
Ahalka beitez gaixtaginak; hobira eramanak izan beitez;
19. Mutu beitez ezpain maltzurak,  
Prestuaren kontra tzarkeria erasten hari direnak, hanpuruskeria eta arbuiotan.
20. Zenbat eta zein eztitasun handia begiratu duzun, Jauna, zure beldur direnentzat  
Gizonen semeen aitzinean aphaindu diozute, zure baithan beren pheskiza dadukatenei.
21. Zure begitharteko toki gordean gordeko ditutzu gizonen ganikako asaldutik.  
Zure tabernaklean gerizatuko ditutzu mihien jazarrietarik.
22. Benedikatua Jauna, zeren hiri hazkarrean espantagarriki erakhutsi darotan bere urrikalmendua.
23. Nik ordean ene gogo eroriarekin erran izan dut: Eragotzi nauzu zure begien aitzinetik.  
Hargatik entzun duzu ene othoitzaren oihua, zuri deihadarrez nindagozunean.
24. Jauna maitha zazue, haren saindu guziek, zeren egia bilhatuko baitu Jaunak, eta sari nasaia emanen baitiote hanpuruskeria egiten hari direnei.
25. Gizonek bezala egizue era hazkar zazue zuen bihotza, zuen igurikitza Jaunaren baithan dadukazuenek.

**XXXI. PSAL.**

1. Dabidi berari aditza.  
Dohatsu hainak zeinen gaizkiak baitira barkhatuak, eta zeinen bekhatuak estaliak baitira.
2. Dohatsu gizona zeinari Jaunak ez baitio jazartzen bere bekhatua, eta zeinaren izpirituan zimarkhurik ez baita.
3. Ixilik egotu naizelakotz, zahartu dira ene hezurak, egun guzia oihuz nindagoelarik.
4. Zeren gabaz eta egunaz ene gainean dorphetu den zure eskua, ihauskatu naiz ene atsekabeen, elhorria barna sartzen zarodalarik.
5. Ezagutarazi darotzut ene hobena, ez dut gorde ene bidegabekeria.  
Erran izan dut: Ene kontra Jaunari aithorturen diot ene bidegabekeria; eta zuk barkhatu duzu ene bekhatuaren tzartasuna.
6. Aria hortaz saindu den guziak othoitz eginen darotzu behar den orduan.  
Horren gatik uholdeko ur gaitzak etzaizkio hurbilduren.
7. Inguratzen nauen hesturatik zu zare ene ihes-lekhua: ene bozkarioa, inguratzen nautenen artetik athera nezazu.
8. Adimendua emanen daiat; ibiliko haizen bidean argituren haut; ene begiak hire gainean finkaturen ditiat.
9. Berautzue bilhaka zaldia eta mandoa bezala, zeinek adimendurik ez baitute.  
Kabrestuaz eta hedeaz hertsu tzak, hurbiltzen ez bazaizkik.
10. Azote asko bada bekhatorearentzat; bainan urrikalmenduak inguratuko du bere igurikitza Jaunaren baithan dadukana.
11. Gizon prestuak, Jaunaren baithan boz eta jauz zaitze; ospa zaitzte, bihotz zuzenekoak zaretzen guziak.

**XXXII. PSAL.**

1. Dabiden psalmoa.  
Prestuak, Jauna baithan bozkaria zaitzte; gizon zuzenei dihoakiote laudatzea.
2. Jaunari aithor emozue gitarraren gainean, kanta zatzue haren laudorioak hamar zurdetako manurraren gainean.
3. Kanta zozue kantika berri bat, bozkariozko otsekin kanta zazue Jaunaren izena;
4. Zeren zuzena baita Jaunaren hitza eta zinak baitira haren egintza guziak.



5. Maite ditu urrikalmendua eta zuzentasuna; Jaunaren urrikalmen-  
duaz bethea da lurra.
6. Jaunaren hitzak finkatu ditu zeruak, haren ahoko hatsak egin du  
zeruetako armada guzia.
7. Zahagi batera bezala bildu ditu itsasoko urak; khutxetan bezala  
ezarri ditu zurrunbiloak.
8. Jaunaren beldur izan bedi lurra oro; lurreko egoiliar guziak ikhara  
beitez haren aitzinean.
9. Ezen hura mintzatu da, eta eginak izan dira gauza guziak; harek  
manatu, eta ezdeusetarik atheratu dira.
10. Jaunak urmariatzen ditu jendaien asmuak; hutsaltzen ditu, berriz,  
populuengogokundeak, eta hutsaltzen ditu buruzagien asmuak.
11. Aldiz, Jaunaren asmua menderen mendetan badago; haren biho-  
tzeko gogokundeek gizalditik gizaldira badiraute.
12. Dohatsu jendakia zeinaren Jainko baita Jauna! dohatsu bere pri-  
mantzatzat hautatu duen populua!
13. Jaunak begiratu du zerutik; ikhusi ditu gizaseme guziak.
14. Bere egoitza, aitzinean aphaindutik, lurrean egoten diren guzien  
gainera eman izan du begia.
15. Harek bederazka egin ditu hekien bihotzak; harek ezagutzen ditu  
hekien egintza guziak.
16. Errege bat ez da salbatzen bere indar handiari esker, eta digante  
bat ez da salbaturen bere indar gaitzaren bidez.
17. Zaldia enganakor da salbatzeko, eta haren indarraren handiak ez  
du salbatuko.
18. Huna Jaunaren begiak direla haren beldur direnen gainean, eta  
haren urrikalmenduan beren igurikitza dadukatenen gainean,
19. Heriotzetik iraitzeko hekien arimak, eta gosetean hazkurria hekiei  
emateko.
20. Gure arimak igurikitzen du Jauna, zeren hura baita gure laguntza  
eta geriza;
21. Zeren gure bihotza haren baithan bozkariaturen baita; eta haren  
izen sainduan iduki dugu gure pheskiza.
22. Jauna, zure urrikalmendua gure gainera jauts bedi, zure baithan  
gure igurikitza izan dugun bezala.

### XXXIII. PSAL.

1. Dabidi, bere begithartea aldatu zuenean Akimeleken aitzinean,  
zeinak igorri baitzuen, eta goan zen.

2. Edozein orduz benedikaturen dut Jauna; haren laudorioa ene  
ahoa izanen da bethi.
3. Jauna baithan laudaturen da ene arima; eme direnek entzun beza-  
ta eta bozkaria beitez.
4. Enekin handiets zazue Jauna, eta batean gorets dezagun haren  
izena.
5. Jauna bilhatu dut, eta entzun izan nau, eta ene hestura guzietarik  
atheratu nau.
6. Haren gana hurbil eta argi zaitezte; eta zuen begithartek ez dira  
ahalkatuak izanen.
7. Noharroin hunek deihadar dio egin, eta entzun du Jaunak, eta  
atheratu du bere hestura guzietarik.
8. Haren beldur diren guzien ingurura ethorriko da Jaunaren ainge-  
rua, eta atheratuko ditu.
9. Dasta zazue eta ikhusazue zein gozoa den Jauna: dohatsu gizona  
haren baithan bere igurikitza dadukana!
10. Jaunaren beldur izan zaitezte, haren saindu guziak; ezen haren  
beldur direnek ez dute eskasik.
11. Aberatsak behartu eta gosez egon dira; aldiz Jauna bilhatzen  
dutenek ez dute ontasun eskasik izanen batere.
12. Zatozte, haurrak, entzun nezazue; irakhatsiren darotzuet  
Jaunaren beldurra.
13. Zein da gizona bizi nahi dena, egun onak ikhustea maite duena?
14. Gaizkitik zain zak hire mihia, eta hire ezpainek zimarkhurik ez  
bezate athera.
15. Aldara hadi gaizkitik, eta egizak ongia; bakea bilha zak, eta jarraik  
hakio.
16. Jaunaren begiak prestuen gainean, eta haren beharriak hekien  
othoitzei atzarriak daude.
17. Aldiz, Jaunaren begithartea zorrotz dago gaizkia egiten dutenen  
gainera, ezeztatzekotzat hekien orhoitzapena lurraren gainetik.
18. Prestuek deihadar egin dute, eta entzun ditu Jaunak, eta hestura  
guzietarik atheratu ditu.
19. Bihotza hestutua dutenen aldean da Jauna; gogoz aphaal daudenak  
salbatuko ditu.
20. Hainitzak dira prestuen hesturak; baina orotarik atheratuko ditu  
Jaunak.
21. Jaunak zaintzen ditu hekien hezurak oro; ez da hekietarik bat  
bakharra izanen hautsia.



22. Bekhatoreen heriotzea guziz gaitza da; eta gizon prestua higuindu dutenak galduko dira.

23. Jaunak berrerosien ditu bere zerbitzarien arimak, eta haren baitan beren igurikitza dadukaten guziak ez dira galduko.

#### XXXIV. PSAL.

1. Dabidi berari.

Juia zatzu, Jauna, bidegabe egiten hari zaizkidanak; guduka zatzu ni gudukatzen nautenak.

2. Har zatzu harmak eta erredola, eta jaik zaite ene laguntzera.

3. Erabil zazu zure ezpata, bideak herts zatzu ene ondotik dabiltzanena kontra; errozu ene arimari: Ni naiz zure salbamendua.

4. Nahasiak eta ahalkatuak izan beitez ene biziaren ondotik dabiltzanak.

Enezat gaizkia gogoan dutenak izan beitez gibelerat eragotziak eta ahalkez estaliak.

5. Bilhaka beitez herrautsa haizearen aitzinean bezala, eta Jaunaren aingeruak hertsu betza.

6. Hekien bidea guzia ilhunbe eta linburtegi bilhaka bedi, eta Jaunaren aingeruak jo beza hekien ondotik;

7. Zeren duten, ariarik izan gabe, ene hilarazteko beren artea gorde, eta ene arima laidoztatu dutelakotz hartako biderik etzutenean.

8. Ustekabeko arteak atzeman beza ene etsaia; hedatu duen zelatak, bera harrapa beza; bere artean eror bedi bera.

9. Aldiz, ene arima boztaren da Jauna baithan, eta gogo harturen du bere salbatzailean.

10. Ene hezur guziek erranen dute: Jauna, nor da zure idurikorik?

Noharoina atheratzen duzu bera baino hazkarragoen eskutik; erro-mesa eta beharra larrutzen dituztenetarik.

11. Gezurrezko lekhuko batzuk, jaikirik galdatzen zarozkidaten ez nakizkien gauzak.

12. Ongientzat gaizkiak bihurtzen zarozkidaten, agorrazazi nahi zuten ene bizia.

13. Aldiz, niri bidegabe egitera hari zirenean, nik zurdatzu jaunzten nuen.

Ene arima baruraz aphaltzen nuen, eta othoitzu ene onetara itzultzaren zarodan.

14. Hari nintzaioten lagun bati bezala, gure anaia bati bezala atsegin egitera; nigar eta atsekabetan dagoenak bezala aphaltzen nuen ene burua.

15. Eta hekiek ene gainean boztu dira, eta elkhar gana bildu dira; azoteak bildu dira ene gainera, eta ez nakien.

16. Barraiatu dira, bainan ez urrikitu; ni zertan froga dira ibili; irain eginez eskarniatu naute, eta ene kontra karraskatu dituzte hortzak.

17. Jauna, noiz begiraturen duzu? hekien maltzurkeriatik itzurraz zazu ene arima; lehoinen hortzetarik athera zazu ene arima zurtza.

18. Baldarna handi batean aithor emanen darotzut; laudaturen zaitut populu gaitz baten erdian.

19. Ez beitez boz ene gainean, niri gaizki bihurtzen zarozkidanak, ariarik gabe gaitzets nadukatenak eta begiz kheinuka hari direnak.

20. Ezen niri bakezko solasak ematen zarozkidaten; eta beren sephan lurrari mintzatu, zimarkhu asmatzen hari ziren.

21. Eta ene gainera ideki dute beren ahoa; erran dute: Ederki! ederkil! gure begiek ikhusi dute nahi zutena.

22. Ikhusi duzu zuk ere, Jauna, ez ixilik egon; Jauna, ni ganik ez gibela.

23. Jaik zaite, Jauna; ene zuzenaz jabe zaite; ene Jainko eta ene Jauna, ene alde jar zaite.

24. Zure zuzentasunaren arabera juia nezazu, ene Jainko Jauna, eta ez beitez boz ene gainean.

25. Ez bezate erran beren bihotzetan: Ederki! ederkil! gure arima. Eta ez bezate erran: Iretsi dugu!

26. Ahalkez gaindituak eta urthuak izan beitez ene gaitzez bozkariatzen direnak.

Ene gainean gaizki mintzo direnak ahalke gorritan geldi beitez.

27. Ene zuzenaren alde direnak bozkaria eta jauz beitez; eta Jaunaren zerbitzariaren bakea nahi dutenek erran bezate bethi: Goretsia izan bedi Jauna!

28. Eta ene mihiak goretsiko du zure zuzentasuna, egun guzian kantatuko ditut zure laudorioak.

#### XXXV. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabidi berari, Jaunaren zerbitzariari.

2. Gaixtaginak erran du bere baithan, gaizkia egin nahi duela. Jainkoaren beldurrik ez da haren begien aitzinean.

3. Ezen maltzurkerian ibili da Jaunaren aitzinean, haren tzarkeria izan dadientzat higuingarri khausitua.

4. Haren ahoko solasak dira guziak tzarkeria eta jokotria; ez du nahi izan adimendurik ongiaren egiteko.



5. Bere ohean gaixtakeriaz alhatu du gogoa; bide tzar guzietan baratu da; maltzurkeria berriz, ez du bigundu.

6. Jauna, zure urrikalmendua zeruan da, eta zure egia hedoietaraino da heltzen.

7. Zure justizia da Jainkoaren mendiak bezain handia; zure juiamenduak dira lezea bezain barrenak.

Jauna, salbatuko dituzu gizonak eta abereak;

8. Hala-nola, oi Jainkoa, berhatu baituzu zure urrikalmendua.

Gizasemeak aldiz, zure hegalean gerizan egon dira iguri.

9. Hordituren dira zure etxeko ontasun nasaiez, eta zure gogoen uharrean edararen dituzu;

10. Zeren den zure baithan bizitzeko ithurria, eta zure argian argia ikhusiko dugun.

11. Ezagutzen zaituztenen gainera heda zazu zure urrikalmendua, eta bihotz zuzenekoak diren gainera zure zuzentasuna.

12. Hanpuruskeriaren oina ez bekite hel, eta bekhatorearen eskuak ez beneza khordoka.

13. Han erori dira tzarkeria-egileak; iraziak izan dira eta xutik ezin dira baratu.

### XXXVI. PSAL.

1. Dabidi berari psalmoa.

Maltzurrentzat ez izan bekhaizgorik, ez-eta tzarkeria-egileentzat ardurarik;

2. Ezen belharra bezala laster idortuko dira; eta hala-nola baratzekariak, goizik dira zimailduren.

3. Jaunaren baithan izan zazu zure pheskiza, eta egizu ongia; eta lurrean egizu zure egoitza, eta hango ontasunetarik haziko zare.

4. Zure gogoa Jaunaren baithan har zazu, eta emanen darozkitzu zure bihotzak galdatu guziak.

5. Zure bizia Jaunari ager diozozu, haren baithan iduk zazu zure pheskiza, eta berak egingen ditu oro.

6. Zure zuzentasuna argia bezala agerraraziko du, eta zure zuzena eguerdia bezala.

7. Jaunari ethordun izan zakizkio, eta othoitz egiozu.

Bekhaizgorik ez izan bere bidean zorion duenarentzat, eta bidegabekeria egiten hari den gizonarentzat.

8. Bara zaite samurgotarik eta uzkitzu sepha gaixtoak; berautzu gaizkiaren egiteko bekhaizgorik hartzetik;

9. Ezen gaizkia egingen dutenak xahutuak izanen dira: Jaunaren iguri daudenek aldiz, lurra primantzetan izanen dute.

10. Oraino aphur bat, eta bekhatorea ez da izanen; eta bilhatuko duzu haren tokia, eta ez duzu atzemanen.

11. Emeek berriz, lurra izanen dute primantzaz, eta bakerik handie-nean gogo hartuko dute.

12. Bekhatoreak begiz idukiren du prestua, eta hortzak karraskaturen ditu haren kontra.

13. Jaunak ordean hartaz irri egingen du, ikhusten baitu heldu dela haren eguna.

14. Ezpata buluzi dute bekhatoreek; hedatu dute beren arranbela, Beharraren eta noharroinaren iraitzeko, bihotzez zuzen direnen hiltzeko.

15. Beren ezpata berei sar bekiote bihotzetik, eta kraska bedi hekien arranbela.

16. Prestuak hobe du bere gutia, bekhatoreen aberastasun handiak baino;

17. Zeren hautsiak izanen baitira bekhatoreen besoak; aldiz, Jaunak sendotzen ditu prestuak.

18. Jaunak badakizki nothagabe direnen egunak, eta hekien primantzak iraunen du bethi.

19. Ordu gaitzean ez dira ahalkatuak izanen, eta gosetean aseak izanen dira:

20. Ezen bekhatoreak galduko dira. Jaunaren etsaiak berriz, behin ohoratuak eta goratuak izan ondoan, gero khea bezala iraungiz, iraungiren dira.

21. Bekhatoreak mailegatuko du, eta ez du bihurtuko: prestua berriz, urrikalduko da, eta emanen du;

22. Zeren Jauna benedikatzten dutenek, lurra izanen baitute primantzaz; aldiz hura madarikatzten dutenak, galduko dira.

23. Jaunaren baithan gizon prestuak erabiliko ditu bere urhatsak, eta Jaunak onhetsiko du haren bidea.

24. Erortzen bada, ez du min-hartuko, Jaunak artera ematen baitu eskua.

25. Gazte izanik, zahartu naiz, eta ez dut ikhusi gizon zuzena bazterrerat utzia, ez-eta haren haurrak beren ogiaren eskatzen.

26. Egun oroz urrikaltzen zaiote beharrei, eta maileguz ematen hari da; eta benedizionetan izanen da haren odola.



27. Aldara zaitte gaizkitik eta egizu ongia, eta menderen mendetako izanen da zure egoitza;

28. Zeren Jaunak maite baitu zuzenbidea eta ez baititu uzten bere sailduak: bethi guzian izanen dira begiratuak.

Zuzenbidetik kanpo dabiltzanak gaztigatuak izanen dira, eta gaixtaginen odola galduko da;

29. Luzenean dabilzaneke, berriz, lurra primantzaz izanen dute, eta hartan izanen dute menderen mendez beren egoitza.

30. Gizon zuzenaren ahoak asmatu du zuhurtzia, eta haren mihian izanen da zuzentasuna.

31. Jainkoaren legea haren bihotzean da, eta haren oina ez da behaztopaturen.

32. Gaixtaginak begiz daduka prestua, eta hura hil nahiz dabila.

33. Bainan Jaunak ez du haren eskuetara utziko prestua, eta ez du kondanaturen, juiatua izan denean.

34. Jaunari zaudezkio iguri eta begira zazu haren bidea, eta aitxaturen zaitu primantzaz har dezazun lurra: bekhatoreak galduko direnean, ikhusiko duzu.

35. Ikhusi dut gaixtagina altxatua eta goratua, Libango zedroak iduri.

36. Iragan naiz, eta hara orduko ezten, eta bilhatu dut, eta ez dut aurkhitu haren tokia ere.

37. Begira zazu hobengabetasuna; zuzentasunari zarrakizkio; zeren gizon bakezkoak utziko baititu ondoreak.

38. Gaixtaginak berriz, batean galduko dira, eta herioak eramanen ditu ondoreak.

39. Jauna ganik dathor prestuen salbamendua, hesturako orduan hura da hekien geriza.

40. Eta Jaunak lagunduko ditu, eta atherako ditu; iraziko ditu gaixtaginen aztaparretik eta salbatuko ditu, zeren haren baithan izan duten beren igurikitza.

### XXXVII. PSAL.

1. Dabiden psalmoa orhoitzapeneko, larunbat-eguneko.

2. Jauna, zure hats gaitzean ez biazadazu jazar, ez benezazu azurria zure hasarrean;

3. Ezen ene baithan sarthuak dira zure geziak, eta ene gainean gogortu duzu zure eskua.

4. Zure hasarrearen aitzinean ene haragiak osasunik ez du; ene hezurrek bakerik ez dute ene bekhatuan aitzinean;

5. Ezen ene tzarkeriak buruaz gorago igan zaizkit, eta haxe dorphe batek bezala naute lehertzen.

6. Zornatu eta usteldu dira ene zauriak ene zorokerien ariaz.

7. Lander egina eta lurreraino makhurtua naiz; egun guzian, gogoa ilhunik daramat urhatsa;

8. Ezen ene geltzurinak lilurakeriaz bethe dira, eta ene haragian alde sasualik ez da.

9. Guziz atsekabeztatua naiz eta aphaldua; ene bihotzeko auhenak orroaz naduka.

10. Jauna, zure aitzinean dira ene lehia guziak eta ene auhenak etzaizkitzu gordeak.

11. Asalduran da ene bihotza; ene indarrak utzi nau, eta ene begieta argia bere ez da gehiago enekin.

12. Ene adiskideak eta ene ahaideak ene kontra hurbildu eta jarri dira. Eta ene aldean zirenak urrunetik gelditu dira,

13. Eta ene biziaren ondotik zabilzkanak, muthiritasunean lotzen ziren.

Niri bidegabe egin beharrez zabilzkanak gezurrez mintzo ziren, eta egun guzian zimarkhu asmatzen hari ziren.

14. Bainan nik, gorak bezala ez nituen aditzen, eta mutuak bezala ez nuen ahoa idekitzen.

15. Eta bilhakatu naiz aditzen ez duen gizon bat bezala, eta zer ihar-dets ahoan ez duena bezala.

16. Zeren zure baithan izan dudanean ene igurikitza, zuk entzunen nauzu, ene Jainko Jauna.

17. Alabainan erran dut: Ene etsaiak ez beitez bozkaria ene gainean; ene zangoak khordokatu direnean, hekien mihia ene gainean larderia handitan ibili da.

18. Ezen banago azote guzien onhestera, eta ene bihotzmina bethi ene begien aitzinean dago.

19. Ezen goraki eginen dut ene tzarkeriaren aithorra, eta ene bekhatuaz egonen naiz gogoetan.

20. Aldiz, ene etsaiak bizi dira; ene kontra gogortuak dira, eta ni gaixtoki gaitzirizkotan nadukatenak berhatuak dira.

21. Ongiarentzat gaizkia bihurtzen dutenak, nitaz gaizki mintzo ziren, ongiari jarraitzen nintzelakotz.

22. Ez benezazu basterrerat utz, ene Jainko Jauna; ez bezaite ene ganik gibela.

23. Ene salbamenduko Jainko Jauna, laster egizu ene laguntzera.



**XXXVIII. PSAL.**

1. Azkeneraino, Idithuni berari, Dabiden kantika.
2. Erran izan dut: Zainduko ditut ene bideak, ez nadien ene mihiaz egin hobendun.  
Zain bat ezarri diot ene ahoari, bekhatoarea ene kontra jartzen zelarik.
3. Ixilik eta aphaltik egotu naiz, eta gauza onetan ere ez naiz mintzatu, eta erreberritu da ene oinhazea.
4. Ene baithan berotu da ene bihotza, eta ene gogoetetan sua biztu da.
5. Ene mihiz erran izan dut: Jauna, ezaguturaz dizadazu ene azken ordua,  
Eta zenbat diren oraino ene bizitzeko egunak, jakin dezadan zenbat dudak eskas.
6. Huna non ene egunak ezarri dituzun khondatzeko errex, eta ene izatea ezdeus bat bezala da zure aitzinean.  
Egiazki, bizi den gizona ongi gauza ezdeusa da.
7. Egiazki, iduripen bat bezala iragaiten da gizona; eta halere grinatzen da alferretan.  
Hari da diru metatzen, eta ez daki norentzat biltzen dituen.
8. Eta orai zeri nago iguri? Ez othe Jaunari? bai, ene ontasun guziaz zure baithan da.
9. Athera nezazu ene gaizki guzietatik: laidagarritzat eman nauzu zoroari.
10. Ixilik gelditu naiz eta ez dut ahoa ideki, zeren zuk egin baitituzte horiek:
  11. Ene ganik aldara zatzu zure zauriak.
  12. Erantzun darotazunean, zure besoko indarraren azpian erkhitua erori naiz; bere tzarkeria gatik azurriatu duzu gizona;  
Eta armiarma bezala iharrarazten duzu haren arima; egiazki alferretan grinatzen da gizona.
  13. Jauna, entzun zatzu ene othoitz errekeiak; ikhusuzu ene nigarrak.  
Ez egon ixilik, zeren zure aitzinean arrotz eta bidaiari bat bainaiz ni, hala-nola ene arbaso guziak.
  14. Hats-hartzera utz nezazu, zerbait indar har dezadan, goan nadien baino lehen, eta zendua izanen naiz gero.

**XXXIX. PSAL.**

1. Azkeneraino, Dabidi berari psalmoa.
2. Igurikiz iguriki dut Jauna, eta begiratu du ene gainera.
3. Entzun ditu ene othoitzak, eta atheratu nau erromeseriako putzuetik eta lohizko baltsatik.  
Ene oinak harriaren gainean jarri, eta ene urhatsak bidatu ditu.
4. Ene ahoan ezarri du kantika berri bat, gure Jainkoaren ospagarri.  
Askok ikhuresen dute, eta beldurrean jarriko dira; eta Jaunaren baitan ezarriren dute beren pheskiza.
5. Dohatsu gizona, zeinaren pheskiza Jaunaren izena baita, eta zeinak begiratu ez baitu gauza huts eta zorokeria gezurrezkoetara!
6. Ene Jainko Jauna, asko sendagaila egin izan duzu, eta parerik ez duzu zure asmuetan.  
Entzunarazi ditut eta mintzatu naiz; berhatu dira khondu guziez gorago.
7. Sakrifiziorik eta eskaintzarik ez duzu nahi izan; bainan ernatu daroztatatzu beharriak.  
Bekhatuarentzat ere holokaustarik ez duzu galdatu:
8. Orduan erran dut: Huna non heldu naizen.  
Nitaz iskribatua da liburuaren buruan,
9. Zure nahia egin behar dudala.  
Ene Jainkoa, nahi izan dut, eta zure legea ezarri dut ene bihotzaren erdian.
10. Zure zuzentasuna ezagutarazi dut baldarna handian; huna non ez ditudan debekatuko ene ezpainak; Jauna, badakizu,
11. Ez dut ene bihotzean gorde zure zuzentasuna; ezagutarazi ditut zure egia eta zure ganikako salbamendua.  
Zure urrikalmendua eta zure egia ez ditut gorde bilkhu handiari.
12. Zuk berriz, Jauna, ez ni ganik urrunt zure urrikalpenak; zure urrikalmenduak eta zure egiak lagundu naute bethi.
13. Ezen nihonereko gaitzek inguratu naute; lothu zaizkit ene tzarkeriak, eta ezin jasan dut hekien ikhustea.  
Ene buruko ileak baino gehiago egin dira, eta utzi nau ene bihotzak.
14. Ene atheratzea zure gogarako izan bedi, Jauna; Jauna, begira dizadazu ene laguntzeko.
15. Ene biziaren ondotik dabiltzanak hura niri khendu beharrez, nahasiak eta ahalkez joak izan beitez oro.  
Ene gaitza nahi dutenek, gibelerat egin bezate eta ahalkez urthuak izan beitez.



16. Niri erraten darotadenek: Hor! hor! laster eraman bezate beren ahalkea.

17. Zutan bozkaria eta jauz bitez zu bilhatzen zaituzten guziak; eta zure ganikako salbamendua maite dutenek erran bezate bethi: Handietsia izan bedi Jauna!

18. Ni ordean eskale eta behar naiz: Jaunak du nitaz ardura.  
Zu zare ene laguntza eta ene geriza: ene Jainkoa, ez othoi luza.

### **XL. PSAL.**

1. Azkeneraino, Dabidi berari psalmoa.
2. Dohatsu gizona, beharraren eta noharroinaren gainean erne dagoena? Egun gaitzean Jaunak atheratuko du hura.
3. Jaunak zaint, bizikor eta dohatsu egin beza hura lurraren gainean, eta haren bizia ez beza arthik haren etsaien eskuetara.
4. Jaunak laguntza ekhar biozo oinhazezko ohean. Haren eritasunean harrotu diozu bere etzauntza guzia.
5. Nik erran dut: Jauna, urrikal zakizkit; senda zazu ene arima, zeren bekhatu egin baitut zure alderat.
6. Ene etsaiek arthiki daroztate burhoak: Noiz hilen da bada? ez othe da galduko horren izena?
7. Eta bat heldu bazen ene ikhustera, itxura ederretan mintzo zitzaitan; tzarkeria bildua zuen haren bihotzak.  
Kanporat ilkhitzen zen, eta
8. Bere gogoaren arabera mintzatzen zen.  
Ene etsai guziek ene kontra marmaratzten zuten; ene kontra gaizki asmatzen haritzen ziren.
9. Elhe gaixto bat atheratu dute ene kontra: lo dagoenak ez othe dezake jaikitzerat egin.
10. Ezen enekin bakean zen gizonak, zeinaren baithan sinheste bainuen, ene ogia jaten zuenak, ene eragoztera egin du.
11. Bainan zu, Jauna, urrikal zakizkit; eraik nezazu, eta bihurturen diotet beren saria.
12. Huntan ezagutu dut nahi ninduzula, zeren ene etsaiak ez baitu bozkariorik ene gainean hartuko.
13. Ni berriz, ene hobengabetasuna gatik onhetsi eta zure aitzinean finkatu nauzu bethi.
14. Benedikatua izan bedi Israelgo Jainko Jauna mendetarik mendetaraino. Halabiz, halabiz.

### **XLI. PSAL.**

1. Azkeneraino, Koreren semeen argitzeko.
2. Nola ithurrietara lehiatzen baita orena, hala ene arima zure gana lehiatzen da, oi Jainkoa.
3. Ene arima Jainko hazkar bizi az egarritu da: noiz goanen eta agerituko naiz Jainkoaren aitzinera?
4. Gau eta egun nigarrak ditut ogitzat, niri egun oroz erraten darotadenean: Non da hire Jainkoa?
5. Hortaz orhoitu naiz eta ixuri dut ene arima ene baithara, zeren iraganen bainaiz tabernakle miresgarriko lekhura, Jainkoaren etxeraino, Bozkario eta aithorretako kantuetan, bestaliarren otsetan.
6. Oi ene arima, zertako zare ilhun eta zergatik nauzu asaldatzen? Jainkoa baithan izan bedi zure pheskiza, ezen aithor emanen diot oraino, hura baita ene begitharteko salbagarria
7. Eta ene Jainkoa.  
Ene arima nahasi da ene baithara; aria hortaz zutaz orhoitu izanen naiz Jordaneko lurretik eta Hermondik, mendi ttipitik.
8. Lezeak lezea deitzen du, zure ur-uharren harrabotsaren erdian.  
Zure phesia eta uhinak, oro ene gainetik iragan dira.
9. Jaunak egunaz manatu du bere urrikalmendua, eta gabaz kantatuko dut haren kantika.  
Ene baithan izanen da ene biziko Jainkoaren othoitza,
10. Eta erranen diot Jainkoari: Zu zare ni maldatzen nauzuna.  
Zeren nauzu ahantzi? zeren nabila ilhunik, ene etsaiak atsekabetan nadukalarik?
11. Ene hezurak phorroskatzean, gaizkika hari zaizkit ni hertsatzen nauten etsaiak;  
Egun oroz erraten darotedalarik: Non da hire Jainkoa?
12. Zeren zaude ilhunik, oi ene arima? zertako nauzu asaldatzen? Jainkoari zaudezkio iguri, ezen aithor bihurturen diot oraino: hura da ene begitharteko salbagarria eta ene Jainkoa.

### **XLII. PSAL.**

1. Dabiden psalmoa.  
Jainkoa, juia nezazu, eta berez zatu ene ariak saindua ez den jendakitik: athera nezazu gizon gaixto eta maltzuraren eskutik.
2. Jainkoa, zu zarenaz geroztik ene indarra, zertako nauzu irazi? eta zertako ilhunik nabila, ene etsaiak atsekabetan nadukanean?



3. Igor zatzu zure argia eta zure egia: hekhiek erakharri eta eraman naute zure mendi saindura eta zure tabernaklera.

4. Hurbilduko naiz Jainkoaren aldarera, ene gaztetasuna bozkariatzen duen Jainkoa gana.

Jainko, ene Jainkoa, aithor bihurturen darotzut gitarraren gainean.

5. Oi ene arima, zertako zare ilhun, eta zergatik nauzu asaldatzen?

Jainkoari zaudezkio iguri, ezen aithor bihurturen diot oraino: hura da ene begitharteko salbagarria eta ene Jainkoa.

### XLIII. PSAL.

1. Azkeneraino, Koreren semeentzat, argitzeko.

2. Jainkoa, gure beharrez aditu dugu: gure arbasoek jakintsun egin gaituzte,

Hekien denboran eta egun zaharretan egin izan ditutzunez.

3. Zure eskuak jendaiak xahutu ditu, eta hekien orde gure arbasoak ezarri ditutzu; atsekabez jo eta irazi ditutzu populuak.

4. Ezen gure arbasoek ez dute beren ezpatari esker lur hunen gozarena irabazi, eta ez ditu beren besoak salbatu,

Bainan-bai zure eskuinak eta zure besoak, zure begitharteko argiak, zeren hekiekin lakhet izan baituzu.

5. Zeror zare ene erregea eta ene Jainkoa, Jakob salba dadien manatzen duzuna.

6. Zure indarrarekin adarraz bulkhaturen ditugu gure etsaiak, eta zure izenaren bidez irri eginen dugu gure kontra jaikitzen direnez.

7. Ezen ez dut ene arranbelan idukiren ene phekiza; eta ez nau ene ezpatak salbatuko.

8. Alabainan atsekabetan gindaduzkatenetarik salbatu gaituzu, eta higuin gintuztenak ahalketan ezarri ditutzu.

9. Jauna baithan goretsiren gare egun guziz eta zure izenari aithor diogu bihurturen menderen mendetan.

10. Bainan orai irazi eta ahalketan arthiki gaituzu; eta, Jainkoa, etzere ilkhiko gare armadetara.

11. Gure etsaien aitzinean ihesari itzularazi gaituzu, eta higuintzetan gaituztenek gure onetarik biluzten gaituzte.

12. Eman gaituzu jateko ardiak bezala, eta jendaietan barraiatu gaituzu.

13. Saririk gabe saldu duzu zure populua, eta jende-osterik etzen hekien sal-erosietan.

14. Laidagarritzat eman gaituzu gure hauzoei, trufa eta irrigarritzat gure inguruetakoei.

15. Errankizunetan eta buru-higigarri eman gaituzu populuetan.

16. Egun guzian aitzinean dut ene ahalkea; eta ene begitharteko ahalkeak estali nau,

17. Gaizki-erraile eta erasleen erdian, ene etsaiaren eta gaizki-egilearen aitzinean.

18. Horiek oro ethorri dira gure gainera, eta etzaitugu ahantzi, eta ez gure tzarki haritu zurekilako patuaren kontra.

19. Eta gure bihotzak ez du gibelerat egin, eta gure bidexkak aldaratu ditutzu zure bidetik;

20. Ezen aphaldu gaituzu atsekabezko lekhuak, eta herioaren itzalak estali gaitu.

21. Ahantzi badugu gure Jainkoaren izena, eta gure eskuak Jainko arrotz bati hedatu badiozkigu;

22. Jainkoak ez othe ditu horiek bilhatuko? ezen harek ezagutzen ditu bihotzeko lekhu gordeak.

Holetan egun oroz heriotzearen azpian gure zure gatik; hiltzeko ardiei bezala begiratzen darokute.

23. Xuti zaite, Jauna, zertako zaude lo? Xuti zaite eta ez begatzaitzu hastan azkeneraino.

24. Zertako aldaratzen duzu zure begithartea eta ahanzten ditutzu gure erromeseria eta hestura?

25. Gure arima zeren den herrautsean aphaldua, eta gure sabela lurrari josia;

26. Jaiki zaite, Jauna; lagunt gaitzatzu eta zure izena gatik berreros gaitzatzu.

### XLIV. PSAL.

1. Azkeneraino, aldatuak izanen direnentzat; Koreren semeen adigarri. Maitearentzat kantika.

2. Ene bihotzak solas on bat atheratu du; erregerentzat dut ene kantua. Ene mihia zalhuki iskribatzen duen iskribauaren hegatsaren pare da.

3. Oi gizasemeetarik ederrena, graziaz betheak dira zure ezpainak; hartatik benedikatu zaitu Jaunak bethiko.

4. Oi guziz botheretsu zarena, tinka zazu gerrian zure ezpata.

5. Altxa zaite zure ospean eta edertasunean; zorionean aitzina zaite eta erregina,



Egiaren, eztitasunaren eta zuzentasunaren ariaz, eta espantagarriki bidaturen zaitu zure eskuinak.

6. Zure gezi zorrotzak sarthuko dira erregeren etsaien bihotzetan; populuak zure azpira eroriko dira.

7. Oi Jainkoa, menderen mendetako da zure jarlekhua; zuzentasuneko zigorra.

8. Zuzenbidea maithatu duzu, eta tzarkeria higuindu; hargatik, oi Jainkoa, gantzutu zaitu zure Jainkoak bozkariozko olioaz, zure lagunkhidade guzien artetik.

9. Mirra, aloes eta kanela usaina ilkhitzen da zure soinekoetarik eta zure boliazko etxeetarik: hekietaz

10. Erregeen alabek egin dute zure gozoa, zuri ohore ekhartzeko.

Erregina zure eskuinean xutik zagoen, soin urheztatu batekin, asko edergailuz inguratua.

11. Adi eta ikhusazu, ene alaba, emazu beharria; ahantz zatzu zure herria eta zure aitaren etxea.

12. Eta errege zure edertasunaz lehiatuko da; ezen bera da zure Jainko Jauna, eta adoratuko dute.

13. Eta Tirreko neskatzak ethorriko dira emaitzekin; populuko aberats guziek errekehituko dute zure begithartea.

14. Erregeren alabaren ospe guzia barnetikakoa da; lits urheztatuz

15. Eta lorekaduraz inguratua da.

Haren ondotik neskatzak erakharriko diozkate erregeri; haren lagunak ekharriak izanen dira zure aitzinera.

16. Bozkario guzietan ekharriak izanen dira; erregeren tenplora erakharriren dituzte.

17. Zure arbasoen orde, semeak sorthu zaizkitzu; lur guziaren gainean buruzagi ezarriko dituzu.

18. Gizamende guzietan zure izenaz orhoit izanen dira.

Hargatik populuek aithor bihurturen darotzute bethi eta menderen mendetan.

#### XLV. PSAL.

1. Azkeneraino, Koreren semeei, gauza ixilentzat.

2. Jainkoa da gure ihes-lekhua eta indarra; gure laguntzailea atzeman gaituzten hestura gaitzetan.

3. Hargatik ez gare izituko, noiz-etare lurra asaldutan izanen baita eta mendiak itsaso-zolara arthikiak izanen baitira.

4. Hango urek harrabots egin dute eta nahasiak izan dira, eta mendiak haren indarrak khordokatuak.

5. Hibai bateko gaiak bozten du Jainkoaren hiria; Guziz-Gorak sainduetsi du bere tabernaklea.

6. Jainkoa haren erdian da; ez da khordokatuko; hura goiz-goizetik lagunduko du Jainkoak.

7. Jendaiak nahasiak eta erresumak uzkailliak izan dira: Jainkoak adiarazi du bere mintzoa, eta lurra ikharatu da.

8. Gurekin da armadetako Jauna; Jakoben Jainkoa da gure begirale.

9. Zatozte eta ikhusatzue Jaunaren egintzak, lurrean egin dituen sendagailak,

10. Gerlak khenduz lurraren bertze bururaino.

Hautsiko du arranbela, harmak puskatuko eta erredolak suz erreko ditu.

11. Bara zaitezte eta ikhusazue ni naizela Jainkoa; goretsia izanen naiz jendairen artean, goretsia izanen naiz lurraren gainean.

12. Gurekin da armadetako Jauna; Jakoben Jainkoa da gure begirale.

#### XLVI. PSAL.

1. Azkeneraino, Koreren semeentzat psalmoa.

2. Populuak, orok eskuak zafla zatzue, Jaunari igor zatzue bozkariozko oihuak;

3. Zeren Jauna baita gora, ikharagarri, lur guziaren gaineko errege handia.

4. Azpiratu darozkigu populuak, jendaiak ezarri ditu gure zangopetan.

5. Bere primantzatzat hautatu gaitu, Jakoben edertasun maithatu duena.

6. Jainkoa igaiten da bozkariozko oihuen erdian, eta Jauna turuta durrundetan.

7. Kanta, kanta zotzue kantikak gure Jainkoari; kanta zotzue, kanta gure erregeari.

8. Zeren Jainkoa lur guziko errege baita: kanta zazue jakinki.

9. Jainkoa erreginaturen da jendairen gainean; Jainkoa jarriren da bere alkhi sainduan.

10. Populuetako buruzagiak Abrahamen Jainkoa gana bildu dira, zeren lurreko jainko hazkarrak hainitz izan baitira goratuak.

**XLVII. PSAL.**

1. Koreren semeei kantikako psalmoa, astearren bigarren eguneko.
2. Jauna handi eta guziz laudagarri da gure Jainkoaren hirian, haren mendi saindian.
3. Siongo mendia, errege handiaren hiria, ipharraldean asentatua da lur guziko bozkarioaren erdian.
4. Jainkoa ezagutua izanen da hango etxeetan, bere gerizaren azpira hartuko duenean.
5. Ezen huna non lurreko erregeak bildu diren eta bateratu diren.
6. Berek ikhusi dutenean, harritu, nahasi, asaldatu dira;
7. Ikharak hartu ditu.  
Han ziren minak erditzen hari denarenak bezala;
8. Zure hats muthiriaz phorroskaturen ditutzu Tharsiseko untiak.
9. Nola aditu baikinuen, hala ikhusten dugu armadetako Jaunaren hirian, gure Jainkoaren hirian; Jainkoak asentatu du hura bethiko.
10. Jainkoa, zure urrikalmendua izan dugu zure tenploaren erdian.
11. Jainkoa, nola baitagokio zure izenari, hala zure laudorioak hedatzen dira lurraren bazterretaraino; zuzentasunez bethea da zure eskuina.
12. Bozkaria bedi Siongo mendia, jauz beitez Judako alabak, zure zuzentasunaren ariaz, Jauna.
13. Ingura eta besarka zazue Sion; hango dorreetan mintza zaitezte.
14. Zuen bihotzak ezar zatzue haren indarrean, eta berez zatzue hango etxeak, zuen ondokoei errateko,
15. Jainkoa, gure Jainkoa han dela bethi eta menderen mendetako, hura dela erreginaturen gure gainean mende guzietan.

**XLVIII. PSAL.**

1. Azkeneraino, Koreren semeei psalmoa.
2. Haukiek adi zatzue, populuak; beharria heda zazue lurrean egoten zarenen guziek,
3. Lurraren semeek eta gizonen semeek, aberats eta behar orok batean.
4. Ene ahoak erranen du zuhurtasuna, ene bihotzeko gogoetak umotasuna.
5. Parabolara makhurtuko dut ene beharria; maniurraren gainean agertuko dut ene erratekoa.
6. Zer ariaz beldur izanen naiz egun gaitzean? zeren ene urhatsen tzarkeriak inguratuko bainau.

7. Beren indarraren gainean sinheste dutenek eta beren aberastasun handiez sendagaila egiten dutenek jakin bezate,
8. Anaiak ania ez duela berrerosten. Bertze gizon batek berrerosten othe du? Jainkoari ez dio jabaltzeko dina eginen,
9. Ez-eta bere arimaren berrerospeneko saria emanen; lanean hariko bada ere bethi
10. Eta biziko bada ere akhabantzaraino.
11. Ez du heriotzea ikhusiko, zuhurrak hiltzen ikhustean: erhoa eta zoroa orobat galduko dira.  
Bertzeei utziko diozkate beren aberastasunak,
12. Eta beren hobiak izanen dituzte beren etxe bethi guziko.  
Mendetik mendera hekiek izanen dituzte beren egoitza, beren izenez deithu dituzten ondoan beren lurrak.
13. Eta gizonak, ohoretan zenean, ez du adimendurik izan; bere burua egin du abere adimendugabekoen pare eta hekien iduriko egin da.
14. Beren bidea beren behaztopagarri dute; eta halere beren ahoko elheetan izanen dira lakhet.
15. Ardiak bezala ifernuan ezarriak izan dira; herioak alhatuko ditu.  
Prestuak goizetik jarriko zaizkote nausi; ospetik lekhora, indar guziak iraungiko zaizkote ifernuan.
16. Jaunak ordean ifernuaren ahaletik berrerrosiko du ene arima, bere eskura hartuko nauenean.
17. Ez lotsa, gizona aberastua eta haren etzeko ospea handitua izanen direnean;
18. Zeren ez baititu hiltzean guziak eramanez, eta haren ospea ez baita haren ondotik jarraikiko;
19. Ezen bizi deno izanen da zoritsu; ongi eginen diozunean, laudatuko zaitu.
20. Sarthuko da bere arbasoak dituen lekhuana, eta behinere ez du ikhusiko argia.
21. Gizonak, ohoretan zenean, ez du adimendurik izan, abere adimendugabekoen pare jarri eta hekien iduriko egin da.

**XLIX. PSAL.**

1. Asaphentzat psalmoa.  
Jainkoen Jainkoa, Jauna mintzatu da, eta deithu du lurra,  
Iguzkia sortzen den tokitik etzaten den lekharaino:
2. Siondik ilkhiko da haren edertasunaren dirdira.



3. Ageriki ethorriko da gure Jainkoa: gure Jainkoa ethorriko da, eta ez da ixilik egonen.

Sua biztuko da haren aitzinean, eta phesia gaitzak inguratuko du.

4. Gainetik zerua, beheretik lurra deithuko ditu bere populuaren berezteko.

5. Bil zotzue bere sailduak, sakrifizioen gainean harekin batasun egin dutenak.

6. Zeruek goraki erranen dute haren zuzentasuna, zeren Jainkoa bera baita juie.

7. Adi zazu, ene populua, mintzatzera noha; adi zazu, Israel, eta lek-hukotasun atherako darotzut: ni naiz Jainkoa, zure Jainkoa.

8. Zure sakrifizioen gainean ez darotzut jazarriko; ezen zure holo-kaustak ene aitzinean dira bethi.

9. Ez dut aratxerik zure etxetik hartuko, ez-eta akherrik zure arthal-deatarik;

10. Ezen eneak dira oihanetako abereak oro, mendietan diren aziendak eta idiak.

11. Ezagutzen ditut zeruko hegastin guziak, eta bazterren edertasuna ene eskuan da.

12. Gosetzen banintz, ez nezakezu zuri erran; ezen lurra alde batetik bertzera eta harek daduzkan guziak eneak dira.

13. Zezenkitik janen edo akher-odolik edanen othe dut?

14. Laudoriozko sakrifizioa imola zozu Jainkoari, eta zure botuak bihur zotzu Guziz-Gorari.

15. Hesturako egunean niri dei egidazu, eta nik atheratuko zaitut, eta zuk ohoratuko nauzu.

16. Bainan Jainkoak erran dio bekhatoeari: Zertan hari haiz ene erabakien erasten eta hire ahoan ene lek-hukotasunaren erabiltzen?

17. Hik berriz, gaitzets duk ene irakhaspena, eta gibelerat arthiki dituk ene hitzak.

18. Ikhusten bahuen ohoin bat, harekin laster egiten huen, eta bertzeen emazteekin khutsatzen zirenekin ihardukipen hartzen huen.

19. Hire ahoari maltzurkeria zarion, eta hire mihiak zimarkhuak aphaintzen zitikan.

20. Jarririk, hire anaiaren kontra mintzatzan hintzen eta hire amaren semearen kontra behaztopagailuak ezartzen hituen:

21. Horiek egin dituk, eta ixilik egin izan nauk.

Bidegabe uste izan duk hire iduriko nintzela: jazarriko daiat, eta hire begithartearen kontra jarriko nauk.

22. Adi zatzue horiek, Jainkoa ahanzten duzuenek; beldurrez eta eraman zaitzazten egun batez, eta nihor ez dadien izan zuen itzurrazteko.

23. Laudoriozko sakrifizioak ohoratuko nau; eta hura da bidea zeintarik gizonari agertuko baitiot Jainkoaren salbamendua.

## L. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa,

2. Haren gana ethorri zenean Nathan profeta, hura Bethsabeeren gana sarthu zen ondoan.

3. Jainkoa, urrikal zakizkit, zure urrikalmendu handiaren arabera.

Eta zure urrikalpenen ostearen arabera, borra zazu ene tzarkeria.

4. Geroago eta gehiago garbi nezazu ene tzarkeriatik eta xahu ene bekhaturtik.

5. Alabainan ezagutzen dut ene tzarkeria, eta ene bekhaturia ene kontra dago bethi.

6. Bakharrik zure kontra egin dut bekhaturia, eta zure aitzinean egin dut gaizkia: haletan zuzenak atheratuko dira zure hitzak, eta garaitari izanen zare juiatzen zaituztenean.

7. Ezen huna non gaizkitik sorthu naizen, eta ene ama bekhaturia nitaz amatu den.

8. Alabainan zuk egia maithatu duzu; agertu darozkidatzu zure zuhurtziako gauza gorde eta dudakoak.

9. Hisopoaz ihinza nezazu, eta garbitua izanen naiz; xahutuko nauzu, eta eginen naiz elhurra baino xuriago.

10. Bozkarioa eta goiheretasuna emanen diotzatzute ene beharriei, eta jauziren dira ene hezur eroriak.

11. Ene bekhaturietatik aldara zazu zure begithartea, eta borra zatzu ene tzarkeria guziak.

12. Ene baithan egizu, Jainkoa, bihotz xahu bat, eta ene barnean berri zazu zuzentasuneko izpiritua.

13. Ez benezazu irai zure aitzinetik, eta ez biazadazu khen zure izpiritu saildua.

14. Bihur dizadazu zure salbamenduko bozkarioa, eta izpiritu buruzagiaz gogor nezazu.

15. Gizon tzarrei irakhatsiren daroeztet zure bideak, eta gaixtaginak zure gana bihurturen dira.

16. Jainkoa, ene salbamenduko Jainkoa, athera nezazu odolpetik, eta ene mihiak goretziren du zure zuzentasuna.



17. Jauna, idekiko ditutzu ene ezpainak, eta ene ahoak goraki adiara-ziko ditu zure laudorioak.

18. Alabainan sakrifizio bat nahi izan bazindu, lehiaz narotzun eskainiko: bainan etzare holokaustetan lakhet izanen.

19. Jainkoaren gogarako sakrifizioa, urrikiak hautsi duen izpiritua da. Jainkoa, ez duzu arbuatuko bihotz bat urrikiak eta beheramenduak joa.

20. Jauna, Sioni ongi egiozu zure nahikunde onaren arabera, arren altxatuak izan ditezen Jerusalemeko harrasiak.

21. Orduan ditutzu onhetsiren zuzenbideko sakrifizioa, eskaintzak eta holokaustak; orduan ezarriko dira aratxeak zure aldarearen gainean.

### LII. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden adigarri,

2. Doeg Idumearra ethorri zenean, eta Sauli berria ekharri eta erran zaroenean: Dabid Akimeleken etxean izatu da.

3. Nolaz espantatzen duk maltzurkerian hire burua, oi gizon gaixtakeriako hazkar haizena?

4. Egun oroz hire mihia bidegabekeria asmatzen ibili duk; bizarna-bala zorrotzak bezala zimarkhu egin duk.

5. Maltzurkeria ongia baino maiteago izan duk, makhur mintzatzea zuzen baino.

6. Solas galgarri guziak maithatu dituk, oi mihi maltzurra.

7. Hargatik Jainkoak xahutuko hau behin-bethiko; khenduko eta irai-ziko hau hi hire olhatik, eta hire erroa bizi direnen lurretik.

8. Prestuek ikhusiko dute, eta izituko dira; haren gainean irri-eginen dute, eta erranen:

9. Horra gizona, Jainkoa bere laguntzaitzat hartu ez-duena;

Bainan bere aberastasun handietan eman du bere pheskiza eta bere ahal ezdeusaz buruipe hartu du.

10. Ni ordean, Jainkoaren etxean naiz oliba-ondo fruitutsu baten pare; ene pheskiza Jainkoaren urrikalmenduan iduki dut bethiko eta menderen mendetako.

11. Bethi eta bethi aithor darotzut bihurtuko, horiek egin ditutzulakotz; eta zure izenari egonen natzaio iguri, zeren den ona zure sainduen aitzinean.

### LIII. PSAL.

1. Azkeneraino, Maelethentzat, Dabiden adigarri.

Zoroak bere bihotzean erran du: Ez da Jainkorik.

2. Ustelduak dira eta beren tzarkeriez hasgarri eginak: bat ez da ongia egiten duenik.

3. Zerutik gizonen semeen gainera begiratu du Jainkoak, ikhustekotzat hean batere baden adimendudunik edo Jainkoa bilhatzen duenik.

4. Oro makhurtu dira, batean alfer egin dira; ez da ongia egiten duenik, ez-eta bakhar bat ere.

5. Ez othe dira noizbait ohartuko tzarkeria egiten hari diren guziak, jateko ogia bezala iresten dutenak ene populua?

6. Jainkoari ez daroete deirik egin: han beldurrez ikharatu dira, non beldur izatekorik ez baitzen;

Zeren Jainkoak gizonen gogarako direnen hezurak ilhaundu baitu: hainak ahalketara eroriak dira, Jainkoak erdeinatu dituelakotz.

7. Nork emanen du Siondik Israelen itzurpena? Jainkoak bere populua gathibutasunetik bihurraziko duenean, Jakob jauziko eta Israel bozkariatuko dira.

### LIV. PSAL.

1. Azkeneraino, kantiketan, Dabiden adigarri,

2. Ziphtarrak ethorri zirenean eta Sauli erran zaroetenean: Dabid ez da gure tokitan gordea?

3. Jainkoa, zure izenaz salba nezazu, eta zure indarraz erabakazu ene gainean.

4. Jainkoa, entzun zazu ene othoitza, zure beharriak ardiets betza ene ahoko hitzak.

5. Ezen ene kontra jaiki dira arrotzak; indar handitako gizonen bilhatu dute ene bizia, eta ez dute Jainkoa beren begien aitzinean ezarri.

6. Eta huna non laguntzen nauen Jainkoak, eta Jauna da ene biziaren begirale.

7. Gaitzak ene etsaien gainera aldara zatzu; zure zintasanaren arabera xahu zatzu.

8. Ene gogara sakrifikaturen darotzut, eta zure izenari, Jauna, aithor emanen diot, zeren den ona;

9. Ezen hestura guzietarik atheratu nauzu, eta ene begiak gain-behera begiratu diote ene etsaiei.

### LIV. PSAL.

1. Azkeneraino, kantiketan, Dabiden adigarri.

2. Jainkoa, entzun zazu ene othoitza, ez arbuia ene errekeiak;

3. Begira dizadazu, eta entzun nezazu.



- Ilhun nago ene gogoko alhaduran; asaldu naute
4. Ene etsaiaren mintzoak eta gaixtaginaren hestutzeak;  
Zeren ene gain egin baitituzte gaixtakeriak, eta beren sephan ene atsekabegarri baitira.
5. Ene bihotza asalduan dago ene baithan, eta heriotzearen izialdu-  
ra ene gainera erori da.
6. Beldurra eta ikhara ene gainera jautsi dira, eta ilhunbeek estali  
naute.
7. Eta erran dut: Nork emanen darozkit usoaren hegalk? hegald  
nindaite, phausa-lekhu batera hel nindaite.
8. Huna non ihes-eginez naizen urrundu, eta bakhartasunean naiz  
gelditu.
9. Izpirituko uzkurreriatik eta phesiatik atheratu nauenaren iguri  
nindagoen.
10. Eragotz zatzu, Jauna, alde orotara eragiozute hekien mihiei; ezen  
tzarkeriarik eta nahaskeriarik baizen ez dut hirian ikhusi.
11. Gau eta egun tzarkeriek inguratzen du bere harrasienean;  
bortxak
12. Eta bidegabekeriak haren erdian dira;  
Lukurantz eta zimarkhua ez dira hango plazetarik urrundu.
13. Ezen baldin ene etsaiak madarikatu izan banindu, jasan nukeen  
segurki;
- Eta gaitzirizkotan nindaukana, ene kontra goraki mintzatu izan  
balitz, gordeko nintzen eiki haren ganik.
14. Bainan zu zare, enekin bat zinena, ene bidaria, ene ezaguna,
15. Enekin batean onthuruntza gozoak egiten zintuena, eta enekin  
bataunean Jainkoaren etxean ibiltzen zinena.
16. Herioa gainera bekiote; ifernura bizirik jauts beitez;  
Gaixtakeria hekien egoitzetan eta hekien erdian dagoelakotz.
17. Nik aldiz, Jaunari dei egin diot, eta Jaunak atherako nau.
18. Goizean, eguerditan, arratsean aithor emanen diot eta agertuko  
dizkat ene nahigabeak, eta entzunen du ene mintzoa.
19. Bakea emanen dio ene arimari ene kontra hurbiltzen direnen  
ganik, ezen hainitz dira ene inguruan.
20. Jainkoak, mendeak baino lehenago danik dirauenak, entzunen  
nau, eta aphalduko ditu.
- Ezen ez da nehortzerik hekien baithan, eta ez dira Jainkoaren bel-  
dur.
21. Jaunak hedatuko du eskua, bakhotxari bere sariaren emateko.

- Lohitu dute harekilako patua;
22. Haizatuak izan dira haren begithartearen hasarreaz; haren biho-  
tzak egin diote gainera.
- Hainaren solasak olio baino legunago direlarik, egiazko geziak dira.
23. Jaunaren gain utzazu zure grina, eta berak haziko zaitu: ez du  
gizon zuzena bethi gora-beheretan utziko.
24. Zuk berriz, Jainkoa, gaixtaginak arthikiko ditutzu galpeneko  
putzura.
- Gizon odolko eta maltzurrek ez dituzte erdizkatuko beren egunak;  
nik aldiz, Jauna, zure baithan idukiko dut ene pheskiza.

#### LV. PSAL.

1. Azkeneraino, lekhu sainduetarik urrundu izan den populuaren-  
tzat, habean Dabidek iskribatua, arrotzek Jethen iduki zutenean.
2. Jainkoa, urrikal zakizkit, zeren oinkatu bainau gizonak eta egun  
oroz guduka hestutu.
3. Egun guzian oinkatu naute ene etsaiek, hainitz zirelakotz ene kon-  
tra gudukatzen zirenak.
4. Egun betheak lotsatuko nau, bainan zure baithan izanen dut ene  
igurikitza.
5. Jainkoa baithan laudatuko dut niri eman hitza, Jainkoa izan dut  
ene pheskiza: gizonak egin dizaketanaren beldur ez naiz izanen.
6. Egun guzian madarikatzen zituzten ene solasak; ene kontra gaiz-  
kirat zauden hekien gogoeta guziak.
7. Bilkhu egiten hariko dira, eta gordeko dira; begiz idukiko dituzte  
ene urhatsak.
- Nola ene biziari aiheri zan baitira,
8. Zuk ere ez ditutzu salbatuko. Zure hasarrean xehakatuko ditutzu  
populuak.
- Jainkoa,
9. Egin izan darotzut ene biziaren aithorra; ene nigarrak ezarri ditutzu  
zure aitzinean.
- Zure agintzak dakharren bezala,
10. Orduan ene etsaiak bulkhatuak izanen dira gibelerat.
- Edozein egunez dei egin dezazudan, hara non ezagutzen dudane  
Jainkoa zarela.
11. Jainkoa baithan laudaturen dut haren hitza; Jauna baithan lauda-  
turen dut haren agintza; Jainkoa baithan izan dut ene igurikitza, ez naiz  
izanen gizonak egin dizaketanaren beldur.





12. Jainkoa, ene baithan bizi dira esker onetan bihurturen darozkitzutan botuak;

13. Zeren atheratu duzun ene bizia herioaren aztaparretik eta ene oinak behaztopatik begiratu, Jainkoaren gogara egin dezadan bizi direnen argitara.

### LVII. PSAL.

1. Azkeneraino. Ez dezazun gal. Dabidek habeak iskribatua, Saulen aitzinetik zilho batera ihes goan zenean.

2. Urrikal zakizkit, Jainkoa, urrikal zakizkit, zeren zuri baitago ene arima. Eta zure hegalean itzalean iguri egonen naiz, gaixtakeria iragan dadien arteo.

3. Deihadar eginen diot Jainko guziz gorari, Jainko niri ongi egin darotanari.

4. Zeru gainetik igorri du, eta atheratu nau; laidagarri eman ditu ni ostikatzen nindutenak.

Jainkoak bidali ditu bere urrikalmendua eta bere egia,

5. Eta ene arima atheratu du lehoinkumeen erditik: asaldutan egin dut lo.

Gizonen semeek dituzte hortzak, harmak eta geziak iduri; hekien mihia ezpataren pare da.

6. Zeruatarik goiti gora zaite, Jainkoa; eta zure ospeak lur guziaren gainera dirdira beza.

7. Ene oinei hedatu diote arte bat, eta malguarazi dute ene arima.

Ene hobia ene aitzinean egin dute, eta berak harat erori dira.

8. Aphaindua da ene arima, Jainkoa; aphaindua da ene anima; kantatuko zaitut eta psalmo bat erranen darotzut.

9. Jaiki zaite, ene ospea; atzar zaitezte, maniurra eta gitarra; argitze-tik jaikiko naiz.

10. Populuen erdian aithor bihurturen darotzut, Jauna; eta psalmo bat erranen darotzut jendaien erdian;

11. Zeren zeruutaraino goretsia den zure urrikalmendua, eta hedoietaraino zure egia.

12. Zeruatarik goiti gora zaite, Jainkoa; eta zure ospeak lur guziaren gainera dirdira beza.

### LVIII. PSAL.

1. Azkeneraino. Ez dezazun gal. Dabidek habeak iskribatua.

2. Baldin egiazki zuzentasuna aiphatzen baduzue, zuzen erabakazue, oi gizonen semeak.

3. Ezen zuen bihotzean tzarkeriak obratzen dituzte lurraren gainean, eta zuen eskuak bidegabe aphaintzen hari dira.

4. Bekhatoreak sortzetik baztertu dira, amaren sabeletik makhur dabilta, gezurrez mintzo dira.

5. Hekien errabia sugearena bezala da; iduri du aspik gor eta bere beharriak tapatzen dituenarena;

6. Zeinak ez baitu aditzen xarmatzaileen eta jakinki xarmatzen hari den gaizkinaren boza.

7. Jainkoak hortzak hautsiko daroezte beren ahoan; Jaunak kraskatuko ditu lehoinen haginak.

8. Ezdeusetaruko dira, ixurtzen den ura bezala; hedatua daduka bere arranela, iraungi ditezen arteo.

9. Ahituak izanen dira, urtzen den ezkoa bezala; sua gainera erori zaiote, eta iguzkia ez dute gehiago ikhusi.

10. Zuen arrantzeek elhorriaren indarra ezagutu baino lehen, bizi-biziak bezala, hala Jainkoak iretsiko ditu bere hasarrean.

11. Bozturen da gizon zuzena, asperkundera ikhustean; bere eskuak bekhatorearen odolean garbituko ditu.

12. Eta gizonak erranen du: Baldin egiazki zuzenak bere sana atheratzen badu, egiazki bada beraz Jainko bat gizonak lurraren gainean juiatzen dituen.

### LVIII. PSAL.

1. Azkeneraino. Ez dezazun gal. Dabidek habe batean iskribatua, Saulek haren etxearen zaintzera igorri zuenean, haren hilarazteko.

2. Ene Jainkoa, athera nezazu ene etsaien eskuatarik, eta itzurraz nezazu ene kontra jaikitzen direnei.

3. Athera nezazu gaixtakeria egileen eskuatarik; eta gizon odolkoien ganik begira nezazu.

4. Ezen huna non ethorri diren ene biziaren hartzera; indarretan jauzi dira ene gainera.

5. Eta hori, Jauna, ene aldetik gaizki eta hobenik gabe; bidegaberik egin gabe ibili naiz eta bidatu ditut ene urhatsak.

6. Ene bidera jaiki zaite eta ikhusazu; eta zu, Jauna, armadetako Jainkoa, Israelgo Jainkoa,

Abia zaite jendaki guzien ikhuskatzera; ez urrikal tzarkeria egiten hari diren guziei.



7. Itzuliko dira ilhunaldera, eta zakhurrek bezala gosea jasanen dute, eta hiriaren inguruan ibiliko dira.

8. Hara non beren ahoan erasiaka hariko diren; ezpata bat da hekien ezpainetan, eta erran dute: Nork aditu gaitu?

9. Eta zuk, Jauna, irri eginen duzu hekiez; ezdeusetara ekharriko ditutzu jendaia guziak.

10. Zuri esker begiratuko dut ene indarra, zeren Jainkoa baita ene geriza.

11. Aitzinduko zait ene Jainkoaren urrikalmendua.

12. Jainkoak erakhutsi darot zer izanen den ene etsaiez: etzatzula hil, othoi, beldurrez-eta orhoitzapen horren galtzera ethor ditezen ene populuak.

Barraia zatzu zure indarraz, khen zotzute beren eskuak, Jauna, ene gerizatzailea.

13. Gaztiga zazu hekien ahoko hobena, hekien ezpainetako solasa, eta beren hanpuruskerian atzemanak izan beitez.

Agertuak izanen dira hekien burho eta gezurrak

14. Xahupeneko egunean, zure hasarreak xahutuko dituenen; eta ez dira izanen gehiago.

Eta jakinen dute Jainkoa erreginatzen dela Jakobean gainean eta lurraren bazterretaraino.

15. Itzuliko dira ilhunaldera, zakhurrek bezala jasanen dute gosea, eta hiriaren inguruan ibiliko dira.

16. Jan nahiz barraiatuko dira; bainan ez dira aseko eta marmaraka hariko dira.

17. Nik aldiz kantatuko dut zure indarra, eta goizetik goretsiko dut zure urrikalmendua;

Zeren ene gerizatzaile eta ene ihes-lekhu egin zaren, ene hesturako egunean.

18. Ene laguntzailea, maniurraren gainean kantatuko zaitut, zeren zaren ene Jainko begiralea, ene Jainko ni urrikari nauzuna.

### LIX. PSAL.

1. Akhabantzaraino, aldatuak izanen direnentzat. Dabidek berak hebean irakhaspenetan iskribatua,

2. Mesopotamia Siriakoa eta Sobal erre zituenean, eta Joabek itzul-tzean Gaztegiatoko haranean jo zuenean Idumea, hamabi mila gizon xahuturik.

3. Jainkoa, hastandu eta xahutu gaituzu; hasarretu zare, eta gero urrikaldu zaizkigu.

4. Ikharatu eta nahasi duzu lurra; osa zatzu hunen phuskak, ezen khordokan dago.

5. Egun gogorrek erakhutsi diozkatzu zure populuari, eta urriki mineko arnoa edanarazi diozu.

6. Zure beldur direnei seinale eman diozute, arranbelaren aitzinetik ihesegin zezaten,

Athera zitezentzat zure maiteak:

7. Salba nezazu zure eskuinaz eta adi nezazu.

8. Bere saildutegian mintzatu da Jainkoa: bozkariotan sarthuko naiz, zathituko dut Sikemgo lurra eta neurtuko olhetako harana.

9. Galaad enea da, enea da Manase, eta Efraim ene buruko indarra da;

Juda ene errege da,

10. Moab ene pheskizaren untzia.

Idumearen gainera hedatuko dut ene oina; arrotzak ene azpiko dira.

11. Nork eramanen nau hiri hazkarraren barnera? nork eramanen nau Idumearaino?

12. Jainkoa, ez othe zare zu gu hastandu gaituzuna?

Jainkoa, ez othe zare gehiago gure armadetara ilkhiko?

13. Iguzu zure laguntza hesturatik atheratzeko; ezen salbatzeko alferra da gizonaren eginahala.

14. Jainkoa lagun, garhaizia eramanen dugu; eta harek berak ezdeus-tuko ditu gure hestutzaileak.

### LX. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden himnoetan.

2. Jainkoa, entzun zazu ene errekeia; beha zozu ene othoitzari.

3. Lurraren bazterretik deihadar egin darotzut: ene bihotza alhaduraz behartua zelarik, harriaren gainera goititu nauzu.

Bidatu nauzu,

4. Egin zarelakotz ene igurikitza, indarraren dorrea etsaiaren aitzinean.

5. Zure tabernaklean mendetako izanen dut ene egoitza; maldaturen naiz zure hegalean itzalaren azpian,

6. Ene Jainkoa, entzun duzu alabainan ene othoitzza; primantza eman daroezu zure izenaren beldur zirenei.



7. Eguna egunaren gainean iratxikiren diozu erregeri; haren urtheak berhaturen ditutzu gizamende guzien iraupenean.

8. Bethi eta bethi egonen da Jainkoaren aitzinean: nork ikharturen ditu haren urrikalmendua eta egia?

9. Horreletan, Jauna, kantaturen dut bethi zure izena, egunetik egunera bihurtzekotzat ene botuak.

### LXI. PSAL.

1. Azkeneraino, Idithunentzat, Dabiden psalmoa.

2. Ene arima Jainkoari ez othe zaio ethordun izanen? ezen haren ganik dathorkit ene itzurpena.

3. Alabainan bera da ene Jainkoa, ene salbatzailea, ene geriza; ez naiz gehiago izanen khordokatua.

4. Noiz arteo jauziko zarete gizonaren kontra; guziak harrasi makhurtu bati bezala, etxe erori bati bezala, hiltzera hari zeraizkiote?

5. Alabainan ene ospearen eragozteko asmua egin dute; egarriarekin laster egin dut: ahoz benediziona, bihotzez madariziona hari ziren.

6. Bainan, oi ene arima, Jainkoari izan zakizkio ethordun, ezen haren ganik dathor ene jasankortasuna;

7. Zeren hura baita ene Jainkoa, ene salbatzailea; hura da ene laguntza eta ez naiz eroriko.

8. Jainkoa baithan dira ene itzurpena eta ene ospea; Jainkoa da ni laguntzen nauena, eta Jainkoa baithan datza ene phekiza.

9. Populuaren bilkhua, guziak haren baithan ezar zak hire igurikimena; haren baithan ixur zatzue zuen bihotzak; Jainkoa da gure laguntzaile bethikotzat.

10. Bainan gizasemeak ezdeusak dira; gizasemeak enganatzaile dira balantzetan; oro batean enganatzeko baizik ez dira beren ezdeustasunaz.

11. Berautzue gaixakerian ezartzetik zuen phekiza; harrapakieria ez lehia; nasai heldu badira aberastasunak, berautzue hekietan ezar bihotza.

12. Jainkoa mintzatu da behin; bi solas haukiek aditu ditut: Jainkoarena dela ahala,

13. Eta zure zurea, Jauna, urrikalmendua; zuk bakhotxari bere eginen arabera bihurturen diozula.

### LXII. PSAL.

1. Dabiden psalmoa Idumeako mortuan zenean.

2. Jainkoa, ene Jainkoa, argizetik nagozu atzarria.

Zutaz egarritu da ene arima, zenbatetan ez da zure gana lehiatu ene haragia!

3. Toki huts, ez biderik, ez urik ez duen huntan, zure aitzinera agertu naiz hala-nola lekhu sainduan, zure indarraren eta ospearen ikhusteko.

4. Zure urrikalmendua hobe baita bizi guziak baino, laudaturen zaituzte ene ezpaineak.

5. Haletan benedikaturen zaitut ene bizitzean, eta zure izenean altxaturen ditut ene eskuak.

6. Gozoz eta goritasunez betheko den bezala ene arima, ene ahoak bozkalentiako kantutan laudaturen zaitu.

7. Baldin zutaz orhoitzen banaiz ene etzauntzan, zu baithan erabiliko dut ene gogoia ordu goiztiarretan,

8. Zu izan zarelakotz ene laguntzailea. Zure hegalen itzalean jauziko da ene bozkarioa:

9. Zuri da iratxiki ene arima: zure eskuinak soinkatu nau.

10. Aldiz, alferretan ene etsaiek bilhatu dute ene bizia; luphera jautsiko dira;

11. Ezpataren ahoari emanak eta hazerien puska izanen dira.

12. Errege berriz, Jainkoaren baithan da boztaren: laudatuak izanen dira hartaz zin egiten duten guziak, zeren tapatua izan baita tzarkeria-errailen ahoa.

### LXIII. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.

2. Errekeika nagoenean, Jauna, entzun zazu ene othoitz: etsaiaren beldurretik athera zazu ene arima.

3. Galdatu nauzu gaixtaginen bilkhutik, tzarkeria-egileen ostetik;

4. Alabainan ezpata bat bezala zorroztu dituzte beren mihiak; hedatu dute arranbela, harma garratza,

5. Itzalpetan sastakatzeko notharik gabe dena.

6. Terrepentean sastakatuko dute, eta ez dira lotsa izanen; gogoeta gaixtoan gogortu dute beren burua.

Mintzatu dira arteak gorde behar dituztela, eta erran dute: Nork ikhusiko ditu?

7. Gaixakeriaketa ibili dira, eta bilhatzean lanak ahitu ditu.

Gizona altxatuko da bihotzeko hanturara,

8. Eta Jainkoa garai izanen da.

Hekien ukhaldiak haurren geziak iduri bilhakatu dira,

9. Eta beren kontra higatu dituzte beren mihiak.



Nahasi dira hekien ikhuse guziak,

10. Eta gizonak oro izitu dira.

Eta goraki erran dituzte Jainkoaren egintzak eta hekien adimenduak ardietsi ditu harek eginak.

11. Gizon zuzena bozturen da Jauna baithan; haren baithan izanen du bere pheskiza, eta bihotzez zuzenak diren guziak izanen dira laudatuak.

#### LXIV. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa. Jeremiasen eta Ezekielen kantika desterruko populuari, goaten abiatu zenean.

2. Jainkoa, zuri dagokiozu Sionen himnoa, eta zuri izanen zaitzu botua bihurtua Jerusalem.

3. Entzun zazu ene othoitz: gizon guziak zure gana ethorriko dira.

4. Gaixtaginen solasak nausitu dira gure gainean, bainan barkhatuko darozkigutzu gure hobenak.

5. Dohatsu hautatu eta hartu duzuna! zure lorioetan izanen du bere egoitza.

Zure etxeko onez betheko gare: saildua da zure tenploa,

6. Ederresgarria zuzentasunez.

Entzun gaitzatzu, Jainko gure salbatzailea, lurreko bazter guzien eta itsaso urrunen igurikitza.

7. Zure indarrean asentatzen ditutzu mendiak, ahalaz jauntzia zare,

8. Lazten ditutzu itsasoaren ondarra eta hango uhinen orroa.

Zure sendagailek lastuko

9. Eta ikharatuko dituzte lurraren bazterrak: iguzki-ilkhitzetik sartze-ko lekhuraino hedatuko duzu bozkarioa.

10. Lurrari agertu zaizkio eta horditu duzu: aberastasunez gaintitu duzu.

Urez hantua da Jainkoaren hibaia; gizonei aphaindu daroezu jatekoa, ezen hartako aphaintzen duzu lurra.

11. Urez ase zatzu hango latsak, berha zazu haren muskila; muskiltzen dena boztuko da hango ihintzez.

12. Benedikaturen duzu zure ontasuneko urthearen khoroa; eta zure bazterrak goritasunez bethiak izanen dira.

13. Gizenduko dira mortuko lekhu ederrak, eta bozkarioz jauntziak izanen dira aldapak.

14. Ahariak ardiz inguratuak izanen dira eta haranak bihez gaintituak, ezen ez da alde orotarik izanen oihu eta kanturik baizen.

#### LXV. PSAL.

1. Azkeneraino, birphizteko psalmoaren kantika.

Oi lurra, alde orotarik bozkariozko oihuak igor zatzik Jainkoari:

2. Psalmotan kanta zazue haren izena: haren laudorioei ospe emozuete.

3. Jainkoari errozue: Zeinen lazgarri diren zure egintzak, Jauna! zure indar gaitzaren aitzinean, ukho eginen dute zure etsaiek.

4. Adora bezaitza lur guziak, kanta betza zure laudorioak, psalmotan kanta beza zure izena.

5. Zatozte eta ikhus zatzue Jainkoaren egintzak. Ikharagarri da giza-semeen gaineko asmuetan.

6. Leihorretara harek bihurtu du itsasoa: oinez iragan dira hibaiaren erditik: han boztu gure Jauna baithan.

7. Hura bere indarraz erreginatzen da bethi guzian: haren begiak jendaien gainean daude: bihurriarena egiten dutenak ez beitez hant beren baithan.

8. Jendaiak, benedika zazue gure Jainkoa, eta orotan entzunaz zatzue haren laudorioak.

9. Harek begiratu du ene arima bizirik, eta ene oinak ez ditu khor-dokatzerat utzi.

10. Ezen, oi Jainkoa, frogatu gaituzu: suaz frogatu gaituzu, zilharra frogatzen den bezala.

11. Artean sarrarazi gaituzu, gure gainera ekharri ditutzu hesturak,

12. Gure gainean ezarri ditutzu gizon gogorak.

Sutik eta uretik iragan gare, eta freskalekhura erakharri gaituzu.

13. Zure etxera sarthuko naiz holokausten eskaintzera; bihurtuko darozkitzut

14. Ene ezpainek agindu botuak;

Ezen ene ahoa mintzatu da ene hesturako orduan.

15. Holokausta goriak eskainiko darozkitzut, aharien usain onarekin; eskainiko darozkitzut idiak akherrekin.

16. Zatozte, entzun zazue, Jainkoaren beldur zaretan guziek; erranen ditut nolako ongiak egin diozkan ene arimari.

17. Ene ahoz oihu egin diot eta ene mihiz goretsi dut.

18. Ikhusi banu gaixtakeria ene bihotzean, Jaunak ez ninduen entzunen.

19. Hargatik entzun nau Jainkoak, eta atzarri da ene othoitzari.



20. Benedikatua Jainkoa, bere ganik ene othoitzza eta ene ganik bere urrikalmendua aldaratu ez dituen.

### LXVI. PSAL.

1. Azkeneraino, himnoetan, Dabiden kantikako psalmoa.
2. Urrikal bekigu Jainkoa, eta benedikata begaizka; gure gainera argia-raz beza bere begithartea, eta urrikal bekigu;
3. Lurrean ezagut dezaguntzat zure bidea, jendaki guzietan zu zarella salbatzailea.
4. Oi Jainkoa, populu guziek aithor eman biazazute; orok aithor eman biazazute.
5. Jendaiaik boz beitez, jauz beitez, zeren populuak zuzenki juiatzen eta lurraren gainean jendaiaik bidatzen baitituzte.
6. Oi Jainkoa, populuak aithor eman biazazute, aithor eman biazazute guziek:
7. Lurrak athera du bere fruitua.  
Jainkoak, gure Jainkoak benedikata begaizka;
8. Benedikata begaizka Jainkoak, eta lurraren bazterrak oro haren beldur izan beitez.

### LXVII. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabidi berari kantikako psalmoa.
2. Altxa bedi Jainkoa; haiza beitez haren etsaiak; hura higuin dutenek ihesezin bezate haren aitzinetik.
3. Iraungi beitez, khea iraungitzen den bezala; nola suaren aitzinean urtzen baita ezkoa, hala suntsi beitez bekhatoreak Jainkoaren aitzinetik.
4. Aldiz, prestuak ase beitez, jauz beitez Jainkoaren aitzinean, eta bozkariotan gogo har bezate.
5. Kanta zazue Jainkoa, psalmo bat kanta zozue haren izenari; bidea aphain zozue iguzki-etzitearen gainera igana denari: Jauna da haren izena.  
Jauz zaitezte haren aitzinean: Nahasiko dira haren aitzinean,
6. Umezurtzen aitaren, alhargunen juiearen aitzinean.  
Jainkoa bere saindutegian da;
7. Harek etxe berean egonarazten ditu aztura bereko gizonak.  
Harek atheratzen ditu bere indarraz lokharriz hestuak; eta orobat bihurriarena egiten dutenak, hobietan daudezenak.
8. Oi Jainkoa, zure populuaren aitzinean zinabiltzanean, mortua gaindi iragaiten zinenean,

9. Lurra ikharatu zen, eta zeruak urthu ziren Sinaiko Jainkoaren aitzinean, Israelgo Jainkoaren aitzinean.

10. Oi Jainkoa, uri gozo bat berezi diozu zure primantzari; ahitua zen, bainan zuk sasualdu duzu.

11. Hartan egonen dira zure abereak: Jainkoa, zure ezintasunean hura aphaindu diozu beharrari.

12. Jaunak indar handirekin solasa emanen diote berri onaren ekharleei.

13. Armadetako erregek maiteari, etzeko maite eta ederrari emanen diozka buluzkinak bereztera.

14. Lokhartuak bazarete zuen primantzen erdian, iduriko duzue usohegal zilharreztatua eta zeinaren gibel-aldeak baitu urhearen argidura ezta.

15. Jaun zerukoak haren gatik juiatuko dituenen erregeak, zurituko dira Selmonen elhurra bezala.

16. Jainkoaren mendia, mendi gorria da.

Mendi gizena, mendi gorria da:

17. Zertako uste duzu halako mendi gizenik badela?

Hura da mendia, zeintan Jainkoak lakhet baitu egotea; ezen Jauna han egonen da azkeneraino.

18. Jainkoaren orga-lasterra asko hamar milaz inguratua da; milaka dira bozten direnak; Jauna hekien erdian dago lekhu sainduan, Sinairan gainean bezala.

19. Igan zare lekhu gorara, gathibuak hartu dituzte, gizonetan onhe-tsi dituzte emaitzak.

Zure eskupera hartu dituzte sinhesterik etzutenak Jainko Jauna gurekin egoten zela.

20. Egun oroz benedikata bekio Jaunari: zorionezko bide bat aphainduko daroku; Jainkoa da gu salbatuko gaituena.

21. Gure Jainkoa da Jainko salbatzen duena eta heriotzeko athekako nausi den Jaun Jauna.

22. Bainan Jainkoak hautsiko ditu bere etsaien buruak, beren bekhatuetan dabilzananen kasko gorak.

23. Jaunak erran du: Atheratuko zaituztet Basandik, atheratuko zaituztet itsaso-barnetik,

24. Etsaien odolean gorri ditezen zuen zangoa eta zuen zakhurren mihia.

25. Jainkoa, ikhusi dute zure urhatsa, saindutegian den ene Jainkoaren, ene erregearen urhatsa.



26. Buruzagiak zihoazen aitzinean psalmolariekin batean, neskatxa gazte atabalarien erdian.

27. Baldarnetan benedika zazue Jainkoa, Jauna, Israelgo ithurrietari-kakoak zaretenek.

28. Han zen Benjamin gaztettoa, bozkarioz zoratu.

Han ziren Judako buruzagiak, hekien aitzindariak, Zabulongo buruzagiak, Nefthaliko buruzagiak.

29. Jainkoa, mana zozu zure indarrari, Jainkoa, finka zazu gure bait-han egin duzun hau.

30. Jerusalem zure tenplotik erregeek eskainiren darozkitzute emaitzak.

31. Larderia zatzu ihitokietako basabereak, zezenak bezala bilduak populuen behien erdira, irazitako zilharra bezala frogatuak izan direnak.

Barraia zatzu gerla nahi duten jendaiak;

32. Egiptotik ethorriko dira bidalkinak; Ethiopiak hedatuko diozka Jaunari eskuak.

33. Lurreko erresumak, Jainkoa kanta zazue, Jaunari kanta zotzue psalmoak.

34. Iguzki-sorthaldera zeruko zerugainera igana den Jainkoari kanta zotzue psalmoak.

Huna non bere mintzoari emanen daroen indarraren ozentasuna.

35. Ospe bihur diozozue Jainkoari Israelen gainean: hedoietan ager-tzen dira haren handitasuna eta haren indarra.

36. Miresgarri da Jainkoa bere egoitza sainduan; Israelgo Jainkoak bere populuari emanen diozka indarra eta bihotzoitasuna. Jainkoari benedika bekio.

### LXVIII. PSAL.

1. Azkeneraino, aldatuak izanen direnentzat, Dabiden psalmoa.

2. Jainkoa, salba nezazu, zeren ene arimaraino urak sarthu baitira.

3. Ixtilean barna sarthua naiz, eta ondorik ez da.

Itsaso-zabalera heldu naiz eta phesiak itho nau.

4. Oihuka ethendu naiz, erlastu da ene zintzurra; iraungitu dira ene begiak ene Jainkoaren iguri nagoelarik.

5. Ariarik gabe gaitzirizkotan hartu nautenak, ene buruko ileak baino usuagotu dira.

Ene etsai, bidegabezki niri jarraiki direnak, hazkartu dira; hartu ez nuena pagatu dut orduan.

6. Jauna, zuk badakizu ene jakin-eskasaren berri, eta ene hutsak etzaizkitzu gordeak.

7. Jauna, armadetako Jauna, zure iguri daudenak ez beitez ene gainean ahalka.

Israelgo Jainkoa, zu bilhatzen zaituztenak ez beitez ene gatik izan ahalketan ezarriak;

8. Zeren zure gatik jasan baitut laidoa, ahalkeak estali baitu ene begithartea.

9. Arrotz bilhakatua izan natzaiote erre anaiei, atze ene amaren semeei;

10. Zeren erre nauen zure etxearen alderako kharrak, eta zu laidoz-tatzen zintuztenen irainak ene gainera erori baitira.

11. Eta ene arima baruraren azpian ezarri dut, eta laidotara bihurtua izan zait.

12. Eta zurdatz bat ezarri dut soinekotzat, eta hekiei irrigarri egin natzaiote.

13. Athean jartzen zirenak, ene kontra mintzatzen ziren, eta arno edaten hari zirenek ene gainean kantatzen zuten.

14. Nik ordean, Jauna, zuri igortzen darotzut ene othoitz: orai da, Jainkoa, atsegin dukezunaren erakusteko ordua.

Entzun nezazu zure urrikalmendu handian eta zure hitz salbagarri-ren zintasunean.

15. Ixtiletik athera nezazu, eta ez naiz hondatuko; athera nezazu gaitzets nautenen eskuetarik eta uren zolatik.

16. Ureko phesiak itho ez beneza, zurrunbiloak irets ez beneza, eta putzuko ahoa ez bedi herts ene gainera.

17. Entzun nezazu, Jauna, zeren ongikoi baita zure urrikalkortasuna; begira zazu ene gainera zure urrikalpen handien arabera.

18. Ez bezazu aldara zure begithartea zure zerbitzariaren gainetik; laster entzun nezazu, ezen hesturan nabila.

19. Atzarria zagozkio ene arimari, eta libra zazu; salba nezazu ene etsaien gatik.

20. Zuk badakizkitzu ene laido, deboilamendu, ahalkeriak.

21. Zure aitzinean dira ni hestutzen nauten guziak: ene bihotzak igu-riki ditu laidoa eta beharra.

Iguri egon naiz nor sarthuko zen ene atsekabean, eta ez da nihor izan; nork emanen zarodan gozakari, eta nihor ez dut aurkhitu.

22. Jatekotzat mina eman darotade; egarrian edarizat minagrea.



23. Hekien mahaina hekien aitzinean bilhaka bedi arte bat, hekien gaizkien sari, hekientzat behaitopagailu bat.

24. Lanbro beitez hekien begiak, ez dezaten ikhus, eta bethi makhurtua iduk biozozute bizkarra.

25. Hekien gainera ixur zazu zure hasarrea, eta zure hasarrearen kheak atzeman betza.

26. Hekien egon-lekhua mortu bilhaka bedi, eta nihor ez bedi izan hekien olhetan egoteko;

27. Jazarri diotelakotz zuk jazarri diozunari, eta berhatu dutelakotz ene zaurietarikako oinhazearen gainera.

28. Gaizkia eragiozute beren gaizkiaren gainera, eta ez beitez sar zure zuzenbidean.

29. Borratuak izan beitez bizien liburutik: eta prestuekin ez beitez iskribatuak izan.

30. Beharrak eta atsekabeak joa nadukate ni: bainan, Jainkoa, zure esku salbagarriak egin darot laguntza.

31. Kantikekin laudaturen dut Jainkoaren izena, eta goretsiren dut ene laudorioetan.

32. Eta gogaragarriago izanen zaio, ezenetz aratxe gazte, adar eta behatz egiten hari dena.

33. Beharrek ikhus bezate, eta bozkaria beitez: bilha zazue Jainkoa, eta biziko da zuen arima:

34. Ezen Jaunak entzun ditu beharrak, eta ez ditu arbuatu bere gathibuak.

35. Lauda bezate zeruek eta lurak, itsasoak eta hekietan diren zierpeek:

36. Ezen Jainkoak salbaturen du Sion: berrituak izanen dira Judako hiriak.

Eta han eginen dute beren egoitza, eta beren zuzenaren bidez ardie-tsiren dute hura.

37. Eta haren zerbitzarien ondokoek hura gozaturen dute, eta haren izena maite dutenek beren egoitza han eginen dute.

### LXIX. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa, Jaunak salbatu zuelako orhoitza-penetan.

2. Jainkoa, zaude atzarria ene laguntzera; Jauna, laster egizu niri esku ematera.

3. Urmariatuak eta ahalke gorritan izan beitez ene biziaren ondotik dabiltzanak.

4. Niri gaizkia nahi dutenak ahalka beitez eta gibelerat egin bezate. Laster egin bezate gibelerat niri erraten dutenek: Hor! hor!

5. Bozkariotan jauz beitez zure baithan, zu bilhatzen zaituztenak; eta zure ganikako salbamendua maite dutenek erran bezate bethi: Handietsia izan bedi Jauna!

6. Ni ordean behar eta erromes naiz; lagun nezazu, Jainkoa.

Zu zare ene laguntzailea eta libratzailea; Jauna, ez luza gehiago.

### LXX. PSAL.

1. Dabiden psalmoa, Jonadaben semeena eta lehenbiziko gathibue-na.

Zure baithan, Jauna, izan dut ene igurikitza: ez naiz behinere ahalketan eroriko:

2. Libra nezazu eta athera zure zuzentasunaren arabera.

Ene gana beheiti zazu beharria eta salba nezazu.

3. Enezat izan zaite Jainko gerizatzaile eta malda-lekhu hazkar bat, arren eta salba nezazun:

Zeren zu baitzare ene habea eta ihes-lekhua.

4. Ene Jainkoa, athera nezazu bekhatorearen eskutik, legearen kontra dabilanaren eskutik eta gaixtaginarenetik:

5. Ezen, Jauna, zu zare ene jasan kortasunaren aria: Jauna, zu zare ene pheskiza ene gaztetasunetik.

6. Zure gainean bermatu naiz sortzetik: zu zare ene geriza ene amaren sabeletik.

Zutaz izanen dira bethi ene kantuak.

7. Sendagaila bat bezala bilhakatu naiz hainitzentzat, eta zu zare ene laguntza hazkarra.

8. Ene ahoa laudorioz bethe bedi, zure osparen kantatzeko, egun guzian zure handitasunaren goresteko.

9. Ez nezazula hastan ene zahartzeko egunetan: ez nezazula utz, ene indarra ahitzearekin:

10. Zeren ene etsaiek erran baitarotade, eta ene biziari aiher zirenek elkarren artean asmu bat egin baitute,

11. Ziotelarik: Jainkoak bazterrerat utzi du: jarraik zakizkiote eta atzeman zazue, ezen nihor ez da haren atheratzeko.

12. Oi Jainkoa, ez urrun ni ganik; ene Jainkoa, zaude ene laguntzera atzarria.



13. Urmaria eta ezeza beitez ene arimaren beltzatera hari direnak: ahalke gorriak estal betza, niri gaitz bilhatzen dabilzanak.

14. Nik berriz, ez dut ene pheskiza utziko behinere, eta laudorioa laudorioaren gainean ezarriko dut zuretzat.

15. Ene ahoak goraki ezagutaraziko du zure zuzentasuna: egun guzian kantatuko dut zure laguntza salbagarria.

Nola ez baitut eskola jakitaterik, sarthuko naiz Jaunaren bothereetan;

16. Jauna, zu bakharraren zuzentasunaz orhoituko naiz.

17. Jainkoa, zuk argitu nauzu ene gaztetasunetik; eta goraki erranen ditut zure oraidinoko sendagailak.

18. Jainkoa, ez benezazu utz ene zahartze eta azken egunetaraino, Ethortzekoa den gizaldi guziari ezagutaraz diotzodan arteo zure besoa,

Oi Jainkoa, zure ahala,

19. Zure zuzentasuna, eta zeruetaraino egin dituzun sendagailak.

Jainkoa, nor da zure idurikorik?

20. Zenbat hestura handi eta gaitz erakhusi daroztatzun! eta itzulirik, bizia bihurtu darotazu eta berriz lurreko lezetarik erakharri nauzu.

21. Berhatu duzu zure ospea, eta itzuli zare, eta sosegatu nauzu.

22. Eta nik musikako tresnetan goretsiko dut zure zintasuna: Jainkoa, Israelgo saildua, gitarraren gainean kantatuko ditut zure laudorioak.

23. Ene ezpaineak erranen dute ene bozkarioa, nik zuri psalmoak kantatzean: eta boztuko da ene arima, zuk berrerosi duzuna.

24. Ene mihiak ere egun guzian ezagutaraziko du zure zuzentasuna, ahalke gorrituta itzuliko direnean ene gaitza bilhatzen dutenak.

### LXXI. PSAL.

1. Psalmoa, Salomonen gainean.

2. Jainkoa, erregeri emozu zure argigarria, eta erregeren semeari zure zuzentasuna:

Zuzenki juia dezan zure populua, eta argituki zure behar gaixoak.

3. Mendiak populuarentzat har bezate bakea, eta aldapek zuzentasuna,

4. Populuko beharrak juiatuko eta beharren umeak salbatuko ditu, eta bertzeen belzten gaizki hari dena beheratuko du.

5. Mendetik mendera, iguzkiak eta ilhargiak bezenbat iraunen du.

6. Jautsiko da uria ardi-iler bezala, xortak lurrera erortzen diren bezala.

7. Haren egunetan zuzentasuna eta bakearen nasaitasuna ilkhiko dira lurrera, ilhargia ezeztatua izan arteo.

8. Eta erreginatuko da itsasotik itsasoraino, hibaitik lurraren baste-rretaraino.

9. Ethiopiarrek haren aitzinean ahuspez eroriko dira, eta haren etsaiek milikatuko dute lurra.

10. Tharsiseko eta irletako erregeek emaitzak eskainiko daroezte, Arabiako eta Sabako erregeek ekharriko daroezte dohainak.

11. Eta errege guziek adoratuko, jendaki guziek zerbitzatuko dute;

12. Itzurraziko duelakotz indardunaren eskutik beharra eta lagun-tzailerik ez duen beharra.

13. Guphidetsiko ditu beharra eta noharroina, eta salbatuko ditu beharren biziak.

14. Lukurutik eta gaixakeriatik berrerosiko ditu hekien biziak, eta hekien izena ohoretan izanen da haren aitzinean.

15. Eta biziko da, eta emanen diote Arabiako urhetik, eta bethi adoratuko dute bere ariaz; egun oroz benedikatuako dute.

16. Bihia nasai izanen da lurrean mendigainetan; Liban gainean oroz gorago helduko da haren fruitua; lurreko belharra bezala jendea hiritik loratuko da.

17. Mende guzietan benedikatua izan bedi haren izena; iguzkiak baino lehenagotanik dirau haren izenak.

Eta haren baithan benedikatuak izanen dira lurreko leinu guziek; jendaia guziek handietsiko dute.

18. Benedika bekio Israelgo Jainko Jaunari, bakharrak sendagailak egiten dituenari.

19. Eta benedikatua izan bedi bethi guzian haren maiestatearen izena, eta lurra oro haren maiestateaz bethea izan bedi. Biz, biz.

20. Akhabo dira Dabid Jeferen semearen laudoriozko kantuak.

### LXXII. PSAL.

1. Asaphen psalmoa.

Jainkoa zein ona den Israelentzat, bihotz zuzeneko direnentzat!

2. Ordean ene oinak khordokatzer, ene urhatsak barraiatzer dira;

3. Zeren, bekhatoreen bakea ikhusiz, suharto bainaiz gaixtaginen gainean;

4. Ez dutelakotz beren heriotzeari begiratzen, eta indar dutelakotz beren zaurietan.

5. Ez dira gizonen nekhetan barne, ez-eta gizonekin azotatuak.





6. Horren gatik daduzka hanpurustasunak, beren tzartasun eta gaix-takeriak estaltzen dituzte.
7. Tzarkeria lekhu goritik bezala atheratzen zaiote; beren bihotzeko lehie eman dira.
8. Gaizkia asmatu eta erran dute; goraki erran dute gaixtakeria.
9. Ahoa zeruaren kontra ideki dute, eta hekien mihiak iragan du lurra.
10. Hargatik ene populua horrat itzuliko da; eta egun betheak atze-manen dira hekien baithan.
11. Eta erran du: Nolaz daiteke Jainkoa jakintsun dela; eta Guziz-Gorak othe du horietaz jakitate?
12. Huna non bekhatore horiek nasaizian diren beren mendean, eta aberastasunak bildu dituzte.
13. Eta erran dut: Ariarik gabe garbitu dut beraz ene bihotza, eta garbi direnen artean xahutu ditut eskuak;
14. Ezen egun guzian azotatua izan naiz, eta goizetik hasi da ene azu-rialdia.
15. Erran baneza: Horrela mintzatuko naiz, huna non zorotzat athe-ra nezakeen zure haurren andana guzia.
16. Uste nuen ardietsiko nuela hori nola zaitkeen: bainan lan gaitza nuen aitzinean,
17. Jainkoaren saindutegian sar nindedien eta ezagut nezan arteo gaixtaginen akhabantza.
18. Egia da horrela ezarri ditutzula beren maltzurkerien gatik; goratzen zirenean, eragotzi ditutzu.
19. Nola erori dira inkoniamendura? bat-batean iraugitu dira, beren gaixtakeria gatik galdu dira.
20. Atzartzen direnen ametsa bezala, Jauna, zure hiritik ezeztatu duzu hekien iduria.
21. Hargatik sugartu da ene bihotza, eta mudatu dira ene geltzurri-nak;
22. Eta ni ezdeustua izan naiz, nola ez dakidala.
23. Abere baten pare egina naiz zure aitzinean; eta halere zurekin gel-ditu naiz.
24. Iduki darotazu eskua, ene eskuina; zure gogara eraman nauzu eta ospetsuki iharduki;
25. Alabainan zer da enetzat zeruan, eta zutaz bertzerik zer nahi izan dut lurrean?

26. Iraungitu dira ene haragia eta ene bihotza; oi ene bihotzeko Jainkoa, zu zare Jainko ene phartea bethi guziko;
27. Zeren galduko baitira zure ganik urruntzen direnak, eta galduko baititutu, zu utzirik bertzeekin khutsatuko direnak.
28. Bainan enetzat on da Jainkoari iratxikitzea, Jainko Jauna baithan ene phekizaren ezartzea,  
Goraki egin detzadan zure laudorio guziak Siongo alabaren athee-tan.

### LXXIII. PSAL.

1. Asaphen aditza.  
Oi Jainkoa, zergatik bethiko hastandu gaituzu? zure hasarrea sutan jarri da zure hespileko ardien kontra.
2. Orhoit zaitezi, hastetik gozatu duzun zure bilkhuaz.  
Berrerosi duzu zure primantzako makhila, Siongo mendia zeintan egin izan baituzu zure egoitza.
3. Goiti zatzu zure eskuak hekien hanpuruskerien eragozteko: etsaiak zenbat gaixtakeria ez du egin zure lekhu sainduan!
4. Zu gaitzets zaituztenek beren buruak espantatu dituzte zure besta-buruaren erdian.  
Beren banderak ezagutkaritzat ezarri dituzte haren gainean,  
5. Nola ilkhi-bidean, eta etzakiten zer hari ziren.  
Zuhaitz oihanean bezala, haizkoraz
6. Hautsi dituzte han berean hango atheak; haizkoraz eta marteluz hura lurrerat arthiki dute.
7. Suz erre dute zure saindutegia, lurrean lohitu dute zure izenaren tabernaklea.
8. Hekien ahaidegoak batean erran du bere bihotzean: Lurretik gel-diaraz detzagun Jainkoaren besta guziak.
9. Ez dugu guretateko sendagailarik ikhusten, gehiago ez da profeta-rik eta Jainkoak ez gaitu gehiago ezagutzen.
10. Oi Jainkoa, noiz arteo etsaia iroika hariko zaikigu? noiz arteo azkenekotz ixterbegiak burhoka hasarrearaziko du zure izena?
11. Zertako aldaratzen dituzu zure eskua eta zure eskuina alde bat zure bulharretik?
12. Bada, Jainkoak, egundainotikako gure erregeak, salbamendua egin du lurraren erdian.
13. Zure indarrak finkatu duzu itsasoa; urean hautsi ditutzu erainsu-geen buruak.



14. Zuk xehakatu ditutzu erainsugearen buruak, eta hura jatera eman daroezu Ethiopiako populuei.

15. Zuk urratu ditutzu harri kitorrak ilkhiazteko ithurriak eta uharak; zuk agorrazazi ditutzu Ethango hibiaiak.

16. Eguna zurea da eta zurea da gaua; zuk egin ditutzu argizkorria eta iguzkia.

17. Zuk egin ditutzu lurreko eremu guziak; zuk egin ditutzu uda eta primadera.

18. Huntaz orhoit zaite, etsaiak jazarri dioela Jaunari, eta populu zoro batek burhoztatu duela zure izena.

19. Basabereei ez bekiozkiotzute arthik zuri aithor ematen darotzuten arimak, eta azkeneraino ez betzatzu ahantz zure behar gaixoen arimak.

20. Begira zozu zure patuari, zeren gaizki bildurikako etxez betheak baitira lurreko gizonik erdeinagarrienak.

21. Aphaldua dena ez bedi ahalketan itzul; beharrak eta erromesak laudatuko dute zure izena.

22. Jaiki zaite, Jainkoa, zure zuzenari emozu bide; orhoit zaitezi zure alderako iranez, zoroak egun oroz egiten darozkitzunez.

23. Ez ahantz zure etsaien izkolak; zu higuintzen zaituztenen hanpuru-rustasuna igaiten hari da bethi.

#### LXXIV. PSAL.

1. Azkeneraino. Ez dezazun gal. Asaphen kantikako psalmoa.

2. Aithor bihurturen darotzugu, Jainkoa, aithor bihurturen darotzugu, eta dei eginen diogu zure izenari.

Orotan erranen dituzu zure sendagailak.

3. Astia hartuko dudanean, zuzenari emanen diot bere bidea.

4. Urthuak dira lurra eta hartan egoten diren guziak; nik gogortu ditut haren habeak.

5. Gaixtaginei erran daroet: Gaizkian ez ibil; eta hobendunei: Adarra ez goiti.

6. Berautzue gora altxatetik zuen adarra; berautzue Jainkoaren kontra tzarkeriarik erratetik;

7. Zeren ez baitukezue laguntzarik ez iguzki-sorthaldetik, ez etzanal-detik, ez mortu, ez mendietarik;

8. Ezen Jainkoa da juie.

Halakoa aphaltzen du, halakoa goratzen;

9. Zeren haren eskuan baita untzi bat arno hazkar, nahastekatuz bethea.

Eta hartarik ixurtzen du hunat eta harat; halarik-ere hartako ondakina ez da akhitua; lurreko bekhatore guziek edanen dute.

10. Aldiz nik goraki erranen ditut bethi haren sendagailak; kantatuko ditut Jakoben Jainkoaren laudorioak.

11. Eta hautsiko ditut bekhatoreen adar guziak, eta goratuak izanen dira prestuaren adarrak.

#### LXXV. PSAL.

1. Azkeneraino, laudorioetan, Asaphen psalmoa, Asiriarren gainean kantika.

2. Jainkoa ezagutua da Judean; haren izena handi da Israelen.

3. Haren lekhoa bake-lekhuan jarria da, eta haren egoitza Sionen.

4. Han hautsi ditu arranbelen indarrak, erredola, ezpata, gerlak.

5. Zuk bethiereko mendietarik espantagarriki dirdiratzean,

6. Nahasi dira bihotzez zoro diren guziak.

Beren loaz lohakartu dira, eta gizon ontasuntzale guziek deusere ez dute beren eskuetan khausitu.

7. Zure dixidura, oi Jakoben Jainkoa, lo-asman sarthu dira zaldien gainera igaiten zirenak.

8. Ikharagarria zare, eta nork eginen darotzu buru, zure hasarrea bizten den orduan?

9. Zeru gainetik adiarazi duzu zure erabakia; lurra ikharatu eta harritua gelditu da,

10. Jainkoa juiatzera jaiki denean, lurreko gizon une guzien salbatzekotzat.

11. Hargatik gizonaren gogoak aithor emanen darotzu, eta gogoeta haren ondorioek besta egun bat atheratuko darotzute.

12. Botuak egin eta bihur zotzute zuen Jainko Jaunari, haren ingurura emaitzak ekhartzen dituzuen guziek.

Botuak egizkitzue Jainko ikharagarriari,

13. Eta bizia buruzagiei khentzen diotenari, lurreko erregeei ikharagarri denari.

#### LXXVI. PSAL.

1. Azkeneraino, Idithunentzat, Asaphen psalmoa.

2. Ene ahoz Jaunari deihadar egin diot; ene ahoz deihadar egin diot, eta hedatu darot beharria.

3. Ene hesturako egunean bilhatu dut Jainkoa; gauaz ene eskuez hari nindagiokon, eta ez naiz huts gelditu.



Ene arimak ez du nahi izan bertze gozakaririk;

4. Orhoitu naiz Jainkoaz, eta gozoz bethe naiz, eta alhatu dut gogoa, eta iraungitu zait izpiritua.

5. Ene begiek beilak aitzindu dituzte; nahasia izan naiz, eta ez naiz mintzatu.

6. Gogoan erabili ditut beihalako egunak; buruan izan ditut bethiereko urtheak.

7. Ene bihotzean alhatu naiz gauaz; lanean nadukan ene burua, eta izpiritua behartzen nuen.

8. Hastantzerara hariko othe da bethi Jainkoa, ala ez othe da oraino jarriko begithartetsuago izatera?

9. Ala gizalditik gizaldira bethikotzat ebakiko othe du bene urrikal-mendua?

10. Ala Jainkoari urrikaltzen ahantziko zaio, edo bere hasarrean herisiko ditu bere urrikal-mendua?

11. Eta erran dut: Orai naiz hasten: ganbio hau Guziz-Goraren esku-tik dathor.

12. Jaunaz orhoitu naiz, eta hastetikako zure sendagaila guziez orhoitu izanen naiz.

13. Eta zure egintza guzietan erabiliren dut ene gogoa, eta alhaturen dut zure asmuez.

14. Oi Jainkoa, sainduak dira zure bideak; zein Jainko da gure Jainkoa bezain handi?

15. Zu zare Jainko sendagaila-egilea.  
Populuetan ezagutarazi duzu zure indarra;

16. Zure besoaz berrerosi duzu zure populua, Jakobena eta Josepen umeak.

17. Oi Jainkoa, urek ikhusi zaituzte; urek ikhusi eta izitu dira; zurrun-biloak lastu dira.

18. Ur-uhar gaitzak harrabots handitan erori dira; hedoiek entzunarazi dute beren orroa.  
Zure geziak ere, iragaiten ziren;

19. Zure ihurtzuriaren burrunba inguruan zabilan.  
Zure ximistek argitu dute lurra: lurra ikharatu eta dardaratu da.

20. Itsasoaren erditik egin duzu zure bidea, urketa gaitzaren erditik zure bidexkak, eta nihork ez ditu ezagutuko zure hatzak.

21. Arthalde bat bezala erakharri duzu zure populua Moisen eta Aaronen eskuz.

## LXXVII. PSAL.

1. Asaphen aditza.  
Adi zak ene legea, oi ene populua: ene ahoko hitzetara makhur zak hire beharria.

2. Paraboletan idekiko dut ene ahoa, eta asmakarika erranen darozkitzuet hastetikako gauzak.

3. Zer eta zer ez dugu aditu eta ezagutu, eta gure aitek darozkigute erran!

4. Ez dira hekien umeei gordeak gizaldi batetik bertzera.  
Guziek kantatzen zituzten Jaunaren laudorioak, ahalak eta harek egin sendagailak.

5. Eta bere lekhukotasuna eraiki du Jakobena baithan, eta lege bat ezarri du Israelen,  
Gure arbasoei manatu diotzatenak ezagutarazteaz haren semeei,

6. Jakinak izan zitezen ondoko gizaldian.  
Sorthuko eta jaikiko diren umeek khondatuko diozkate beren semeei,

7. Jainkoa baithan ezar dezatentzat beren pheskiza, ez detzazten ahantz Jainkoaren egintzak eta bilha detzazten haren manamendua;

8. Beldurrez-eta bilhaka ditezen beren arbasoak bezala, gizaldi tzar, Jainkoaren samurrazle bat;  
Gizaldi bat bere bihotza zuzen bidatu ez duena, eta zeinaren izpiritua ez baita Jainkoaren baithako sinhestean egon.

9. Efremen semeek, zakitelarik arranbelaren hedatzen eta gezien igortzen, gibelaz itzuli dira gerlako egunean.

10. Ez dute Jainkoarekilako patua begiratu, eta ez dira legean nahi izan ibili.

11. Eta ahantzi dituzte haren ongieginak eta erakhusi diozkaten sendagailak.

12. Hekien arbasoen aitzinean sendagailak egin ditu Egiptoko lurrean eta Taniseko zelhaiean.

13. Itsasoa urratu du eta iraganarazi diote, eta urak ezarri ditu zahagi batean bezala.

14. Eta egunaz hedoi batez bidatu ditu, eta gabaz su-argiz.

15. Mortuan urratu du harri kitorra, eta edaran ditu ur-leze batetan bezala.

16. Eta ura atheratu du harritik, eta urak atheratu ditu hibaia iduri.

17. Eta oraino haren kontra bekhatu egitera jarri dira, eta samurtzera ekharri dute Guziz-Gora toki agorrean.



18. Eta beren bihotzetan ibili dira Jainkoa zertan froga, jakiak jateko galdatuz.
19. Eta Jainkoaz gaizki mintzatu dira; erran dute: Jainkoak xuxenduko ahal othe du mahain bat mortuan?
20. Jo duelakotz harria, eta urak atheratu direlakotz, eta turrustaka bazterrak estali dituztelakotz,  
Bere populuari ogia ere emanen ahal, edo jakia xuxenduko othe dio?
21. Beraz Jaunak aditu zituen, eta luzatu zuen; eta haren sua biztu zen Jakobon kontra, eta haren hasarrea igan zen Israelen gainera,
22. Zeren etzuten sinhetsi Jainkoa baithan, ez-eta iguriki haren ganik salbamendua.
23. Eta manatu zioten gaineko hedoei, eta ideki zituen zeruko atheak.
24. Eta mana uritan erori zitzaioten jateko, eta zeruko ogia eman zioten.
25. Gizonak jan zuen aingeruen ogia; hazkurria nasaiki igorri zioten.
26. Hegoa khendu zuen zerutik eta bere indarrak sarrarazi zuen Afrikako haizea.
27. Eta hekien gainera herrautsa bezala erorrarazi zituen haragiak, eta itsasoko legarra bezala hegastinak.
28. Eta hegastinak erori ziren hekien kanpen erdira, olhen ingurura.
29. Eta jan zuten, eta gaindizka ase ziren. Jainkoak iraganarazi zaroeten beren gutizia,
30. Eta beren lehia etzitzaioten hutsik gelditu.  
Haragiak ahoan zituzten oraino,
31. Eta Jainkoaren hasarrea igan zitzaioten gainera.  
Eta hil zituen hekietarik lehenbizikoak, eta arthiki zituen Israelgo hautak.
32. Horien guzien gatik ere, bekhatu egin zuten oraino, eta etzuten sinhetsi Jainkoaren sendagailetan.
33. Eta hekien egunak iraungi ziren ezdeuskerian, eta hekien urtheak laster iragan ziren.
34. Jainkoak hiltzen zituenean, orduan bilhatzen zuten hura; orduan itzultzen eta goizetik haren gana heldu ziren.
35. Orduan orhoitzen ziren Jainkoa zela hekien laguntza, eta Jainko gora zela hekien berreroslea.
36. Eta maite zuten ahoz, eta hekien mihia gezurrez mintzo zitzaioenen.
37. Bainan hekien bihotza etzen haren alderat zuzena, eta etzauden fidel harekilako patuan.

38. Jauna ordean urrikalmendutsu zen, barkhatzen zaroeten hekien bekhatuei eta etzituen alde bat xahutzen.
- Eta egiten zuen bere hasarrearen aldaratzera, eta bere hasarrea etzuen guzia bizterat uzten.
39. Eta orhoitzen zen haragizko gizon batzu zirela; haize bat, dihoana eta bihurtzen ez dena.
40. Mortuan zenbat aldiz etzuten gaizkuratu! Zenbatetan etzuten hasarretzerat ekharri lekhu agor hartan!
41. Eta berenera itzultzen ziren, eta frogetan ezartzen zuten Jainkoa, eta uhertarazten zuten Israelgo saildua.
42. Etziren haren eskuaz orhoitzen, beren hertsarien aztaparretik atheratu zituen egun hartaz;
43. Nola Egiptoan agertu zituen bere ezagutkariak, eta Tanisko zelhaiean bere sendagailak;
44. Nola odolotara bihurtu zituen hekien hibaiak eta urak, edaterat ez uzteko;
45. Nola igorri zaroezten ulieria bat jaten zituena, eta igela xahutzen zituena;
46. Nola herdoari eman zituen hekien fruituak, eta xartalari hekien uzta;
47. Nola harriaz hil zituen hekien mahastiak, eta izotzaz hekien martzokak;
48. Nola harriari eman zituen hekien aziendak, eta suari hekien iza-teak;
49. Nola hekien gainera igorri zituen bere hasarrearen gaitzidura, bere gaitzidura eta hasarrea, eta hestura guziak, aingeru gaixtoen bidez.
50. Bide bat egin zaroen bere hasarreari, eta etzituen hekien biziak heriotzetik guphidetsi, eta hekien aziendak ere hilarazi zituen.
51. Jo zituen lehen-sorthu guziak Egiptoko lurtean, hekien lan guzietao pikainak Kamen olhetan.
52. Eta arthalde bat bezala atheratu zuen bere populua, eta ardiak bezala eraman mortura.
53. Eta eraman zituen pheskizaz betheak eta beldurrik gabe, eta itsasoaz estali zituen hekien etsaiak.
54. Eta eraman zituen bere sailduespeneko mendira, haren eskuina jabetu zen mendira.
- Eta bere populua aitzainetik irazi zituen jendaiak, eta zortera phartitu zaroen lurra, sokhaz neurtu ondoan:



55. Eta hekien olhetan Israelgo leinuei eginarazi zaroeten beren egoitza.

56. Eta haukiek frogetan ezarri eta uhertarazi zuten Jainko guziz gora, eta etzuten begiratu haren legea.

57. Eta makhurtu ziren eta etzuten iduki patua: beren aiten arara, arranbela tzarraren iduriko egin ziren.

58. Hasarretzera ekharri zuten beren munhoekin eta bekhaizgo eman zaroten beren jainkomoldeekin.

59. Jainkoak entzun zuen: nardatu zen, eta ezdeustu zuen Israel.

60. Eta arbuiatu zuen Siloko tabernaklea, bere tabernaklea, zeintan egin baitzuen bere egoitza gizonen artean.

61. Eta gathibutasunera eman zuen hekien indarra eta etsaien eskura hekien edergailua.

62. Ezpaten artean hertsu zuen bere populua, eta nardatu zen bere primantzaz.

63. Suak iretzi zituen hekien gizon-gazteak, eta neskaxak etziren deithoratuak izan.

64. Hekien aphezak ezpataren azpira erori ziren, eta hekien alharguentzat etzen nigarririk.

65. Eta Jauna atzarri zen lotarik bezala, arnoan baltsatu den gizon hazkarra bezala.

66. Eta bere etsaiak jo zituen giblean; bethiko laidoaz estali zituen.

67. Hastandu zuen Josepen olha, eta etzuen hautatu Efraimen leinua.

68. Bainan hautatu zituen Judako leinua, Siongo mendi, maithatu duena.

69. Eta likornaren adarra bezala altxatu zuen bere saindutegia, bethikotzat gogortu zuen lurrean.

70. Eta hautatu zuen Dabid, bere zerbitzaria, ardi-arthaldean erditik; ardi ernarien ondotik hartu zuen,

71. Alharaz zetzan Jakob, haren zerbitzaria, eta Israel, haren primantza.

72. Eta Dabidek alharazi zituen bere bihotzeko garbitasunean, eta erabili zituen bere eskuetako adimenduan.

### LXXVIII. PSAL.

1. Asaphen psalmoa.

Oi Jainkoa, etsaiak ethorri dira zure primantzara, lohitu dute zure tenplo saindua, eta Jerusalem ezarri dute fruitu zaintzeko etxolatatzat.

2. Zure zerbitzarien gorphutz hilak jaterat eman daroezte zeruko hegastinei, eta zure sainduen haragiak lurreko basabereei.

3. Ura bezala ixuri dute hekien odola Jerusalem inguruan; eta nihor ez da izan hekien ehorzteko.

4. Bilhakatu gare gure hauzoei laidagarri, gure ingurutan direnen erdeinagarri eta irrigarri.

5. Noiz arteo, Jauna, egonen zare samur? azkeneraino othe? zure kharra bethi egonen othe da sua bezala erretzen?

6. Ixurazu zure hasarrea ezagutzen etzaituzten jendaien gainera, eta zure izena deitzen ez duten erresumetara;

7. Zeren iretzi baitute Jakob, eta desmasiatu haren lekhuia.

8. Ez bezaitenzi orhoit gure bekhatu zaharrez; laster aitzin bekizkigu zure urrikalmenduak, zeren hainitz behar eginak baikare.

9. Lagun gaitzatu, Jainkoa, gure salbatzailea; zure izenaren ospetan libra gaitzatu, Jauna; gure bekhatuei jahal zakizkiote zure izenaren gatik;

10. Beldurrez-eta jendaietan erran dezaten: Non da horien Jainkoa? eta gure begien aitzinean jendaietan ager bedi

Zure zerbitzarien odol ixuria izan denaren asperkunea:

11. Gathibuen auhenak hel beitez zure aitzinera.

Zure besoaren handitasunaren arabera, jabe zaite hilak izan direnen haurrez.

12. Gure hauzoei bulharretara zazpitan bihur diozozute guri egin darokuten gaizkia: bihur zozuete, Jauna, berek zuri egin laidoa.

13. Guk berriz, zure populu, zure bazka-lekhuetako ardiek, aithor bihurturen darotzugu menderen mendetan:

Gizaldi orotan goraki eginen ditugu zure laudorioak.

### LXXIX. PSAL.

1. Azkeneraino, ganbiatuak izanen direnentzat, Asaphen lekhukotazuna, psalmoa.

2. Entzun zazu, oi zu, Israeli hotsematen diozuna, Josep ardi bat bezala bidatzen duzuna.

Kerubinen gainean jarria zarena, alfer zaite

3. Efraimen, Benjaminen eta Manaseren begietara.

Eragiozu zure bothereari, eta zato gure salbatzera.

4. Jainkoa, bihurtaraz gaitzatu; erakhuts dizaguzu zure begithartea, eta salbatuak gaitetzke.

5. Armadetako Jainko Jauna, naiz arteo samur egonen zarozkio zure zerbitzariaren othoitziari?



6. Noiz arteo haziko gaituzu nigarrezko ogiaz, eta edatera emanen darokuzu nigarra untzi handitik?

7. Gure hauzoen ixterbegi ezarri gaituzu, eta gure etsaiek erdeinatu gaituzte.

8. Armadetako Jainkoa, bihurraraz gaitzatzu; erakhuts dizaguzu zure begithartea, eta salbatuak gaitezke.

9. Egiptotik atheratu duzu mahastia, eta jendaiak irazirik landatu duzu.

10. Bideko buruzagi izatu zare haren aitzinean, eta landatu ditutzu haren erroak, eta bethe du lurra.

11. Haren itzalak estali ditu mendiak, eta haren aihenek Jainkoaren zedroak.

12. Haren gandoak hedatu dira itsasoraino eta haren aldaskak hibairaino.

13. Zertako urratu duzu haren harrasia eta larrutzen dute bidean iragaiten diren guziek?

14. Oihanetik basurdeak xahutu du, eta basabere guziek murriztu dute.

15. Armadetako Jainkoa, itzul zaite; begira zazu zerutik, ikhus eta ikhar zazu mahasti hau.

16. Gothor zazu zure eskuinak landatu duen mahatsa, eta begia emozu gizonaren semeari, zeina zuretzat finkatu baituzu.

17. Zure mahastia suz errea da eta azpitik joa: zure begitharteko dixi-  
duak galduko ditu guziek.

18. Zure eskua hel bedi zure eskuineko gizonaren gainera eta gizonaren semearen gainera, zeina zuretzat finkatu baituzu.

19. Eta ez gare zure ganik gibelatuko; eta bizkortuko gaituzu, eta dei eginen diogu zure izenari.

20. Armadetako Jainko Jauna, bihurraraz gaitzatzu; erakhutsazu zure begithartea, eta salbatuak gaitezke.

#### LXXX. PSAL.

1. Azkeneraino, dolhareetako, Asaph beraren psalmoa.

2. Gorets zazue Jainkoa, gure laguntza; bozkarioz kanta zazue Jakobena Jainkoa.

3. Has zazue psalmo bat; jo zatzue atabala eta maniurra gozoa gitarrekin.

4. Durrunda zazue turutarekin hilabethearen lehenean, zuen bestaburuko egun berezian:

5. Ezen lege bat da Israelen, eta Jakobena Jainkoak eman manamendu bat.

6. Lekhukotasun hori ezarri zuen Josep baithan, harek ezagutzen etzuen mintzaia bat aditu zuenean Egiptoko lurretik ilkhitzen zelarik.

7. Haxeak khendu zituen haren bizkarretik; saskietan erabili dira haren eskuak.

8. Hesturan dei egin darotazu, eta libratu zaitut; phesian gordea nintzelarik entzun zaitut; jazargoako urean frogatu zaitut.

9. Ene populua, adi nezazu, eta ene lekhukotasuna atheratuko darotzut; oi Israel, entzuten banauzu,

10. Jainko berririk ez da zure baithan izanen, eta jainko arrotzik ez duzu adoratuko.

11. Ni naiz alabainan zure Jainko Jauna, Egiptoko lurretik atheratu zaitudana: zabal zazu ahoa, eta nik betheko darotzut.

12. Eta ene populuak ez du entzun ene mintzoa, eta Israelek ez darot eman beharria.

13. Eta nik utzi ditut beren bihotzeko lehietara: beren asmuetan ibiliko dira.

14. Baldin entzun banindu ene populuak, ene bideetan ibili balitz Israel,

15. Ezdeus batean aphaldu nitukeen hekien etsaiak, eta hestutzen zituztenen gainera ezarriko nuen eskua.

16. Jaunari bere etsaiek gezur egin diote, eta hekien denborak menderen mendetan iraunen du.

17. Eta hazi ditu ogi-bihiaren mamitik, eta harritikako eztiz ase ditu.

#### LXXXI. PSAL.

1. Asaphen psalmoa.

Jainkoa jarri da jainkoen bilkhuan, eta hekien erdian juiatzen ditu jainkoak.

2. Noiz arteo juiatuko duzue zuzen-kontra, onhetsiko ditutzue bekhatoreen begitharteak?

3. Beharrari eta umezurtzari emozue zuzenbidea; aphala eta beharra garbi athera zatzue.

4. Athera zazue noharroina; beharra libra zazue bekhatorearen aztaparretik.

5. Ez dute jakin, ez endelgotu; ilhunbeetan dabilta: lurraren asentu guziak ikharatuko dira.

6. Nik erran dut: Jainko zarete, eta oro Guziz-Goraren semeak.



7. Bainan gizonak bezala hilen zarete zuek, eta aitzindarietarik bat bezala eroriko zarete.

8. Jainkoa, jaiki zaite, juia zazu lurra, zeren jendaia guzietan izanen baitzare premu.

### LXXXII. PSAL.

1. Asaphen psalmoko kantika.
2. Oi Jainkoa, nor izanen da zure iduriko? Ez bezaite ixilik egon, ez-eta bara, Jainkoa;
3. Ezen huna non zure etsaiak harraboska hasi diren, eta zure gaitzes-leek goratu duten burua.
4. Maltzurkeriako asmuak erabili dituzte zure populuaren gainean, eta zure sainduen kontrako gogoak hartu dituzte.
5. Erran dute: Zatozte eta xahu detzagun, eta Israelen horien izenik ez bedi gehiago aipha.
6. Hitz batean ezik jarri dira, zure kontra elkhar hartu dute
7. Idumearren olhek eta Ismaeldarrek, Moabek eta Agartarrek,
8. Jebalek, Amonek eta Amalekek; arrotzek Tirren egoten direnekin.
9. Asur ere hekien gana ethorri da; Loten semeei bere laguntza eman daroete.
10. Egiozute hekiei Madiani eta Sisarari bezala, Jabini Zisongo errekan bezala.
11. Endorren galdu ziren; bilhakatu ziren lurreko ongarrria bezala.
12. Oreb, Zeb, Zebee eta Salmana bezala ezar zatzu hekien aitzindariak: Hekien aitzindari guziak,
13. Zeinek erran baitute: Jainkoaren saindutegiak primantza batez bezala jabe gaitezen.
14. Ene Jainkoa, ezar zatzu pirrita bat bezala, eta lastoa haizearen aitzinean bezala.
15. Oihana erretzen duen suak bezala, mendiak erretzen dituen garrak bezala,
16. Hala goanen zakizkiote ondotik zure phesian, eta zure hasarrean nahasiko ditutzu.
17. Laidoz bethe zatzu hekien begitharteak, eta zure izena bilhatuko dute, Jauna.
18. Ahalka eta nahas beitez menderen mendetan; urmaria eta gal beitez.
19. Eta ezagut bezate Jauna dela zure izena: zu zarela Guziz-Gora lur guzian.

### LXXXIII. PSAL.

1. Azkeneraino, dolhareetako, Koreren semeentzat psalmoa.
2. Armadetako Jauna, zein diren maithagarri zure tabernakleak!
3. Ene arima lehiatzen eta iraungitzen da Jaunaren lorioetan. Ene bihotza eta haragia bozkariatu dira Jainko bizia baithan;
4. Ezen etxeroriak atzematen du non egon eta ttorttoilak ohantze bat, non ezar bere umeak; Eta nik zure aldareak, oi armadetako Jainkoa, ene errege eta ene Jainkoa.
5. Dohatsu zure etxean beren egoitza dutenak, Jauna! Menderen mendetan laudatuko zaituzte.
6. Dohatsu gizona, zeinaren laguntza zure ganik heldu baita! Bere bihotzean aphaindu ditu iganbideak,
7. Nigarretako haran huntan, Jainkoak berezi duen egon-lekhura.
8. Ezen legegileak emanen du bere benedizioea; berthutetik bertuhera goanen dira; jainkoen Jainkoa ikhusiko dute Siongo gainean.
9. Jauna, armadetako Jainkoa, entzun zazu ene othoitza; zure beharritz onhets zazu, Jakoben Jainkoa.
10. Jainkoa, gure geriza, begira dizaguzu, eta begia emazu zure Kristoren begithartera;
11. Zeren egun bat zure lorioetan, bertze asko mila baino hobe baita. Ene Jainkoaren etxean apha izatea hautatu dut, bekhatoreen olhe-tan egotea baino lehen.
12. Urrikalmendua eta egia maite dituelakotz Jainkoak, grazia eta ospea emanen ditu Jaunak.
13. Ontasunez ez ditu gabeturen hobenik gabe dabiltzanak. Armadetako Jauna, dohatsu zure baithan bere pheskiza dadukan gizona!

### LXXXIV. PSAL.

1. Azkeneraino, Koreren semeei psalmoa.
2. Jauna, benedikatu duzu zure lurra; gathibutasunetik atheratu duzu Jakob.
3. Zure populuari barkhatu diozu bere bekhatua; estali ditutzu hekien hoben guziak.
4. Eztitu duzu zure hasarre guzia, hekien gainetik aldaratu duzu zure hasarrearen khea.
5. Jainkoa, gure salbatzailea, bihurraraz gaitzatzu, eta gure gainetik aldara zazu zure hasarrea.



6. Bethiraino hasarre egonen othe gatzazkigu, edo zure hasarrea gizalditik gizaldira hedaturen othe duzu?

7. Jainkoa, itzulirik emanen darokuzu bizia; eta zure populua zure baithan da bozturen.

8. Zure urrikalmendua erakhuts dizaguzu, Jauna, eta emaguzu zure salbamendua.

9. Entzunen dut Jainko Jaunak ene baithan erranen duena; ezen bakezko solasak izanen ditu bere populuarentzat,

Eta bere saindu eta bihotzez itzultzen direnentzat.

10. Segur da haren beldur direnetarik hurbil dela haren ganikako salbamendua, ospeak gure lurrean izan dezan bere egoitza.

11. Bide berean batu dira urrikalmendua eta egia; zuzentasunak eta bakeak elkharri eman daroete musu.

12. Egia lurretik atheratu da, eta zuzentasunak zerutik begiratu du;

13. Ezen Jaunak emanen du bere benedizioa, eta lurak bere fruitua.

14. Zuzentasuna ibiliko da haren aitzinean, eta bere urhatsak eginen ditu haren bidean.

#### LXXXV. PSAL.

1. Dabidi berari othoitza.

Jauna, makhur zazu beharria eta entzun nezazu, zeren naizen behar eta erromes.

2. Zain zazu ene arima, saindu naizelakotz; ene Jainkoa, salba zazu zure zerbitzari, bere igurikitza zure baithan dadukana.

3. Urrikal zakizkit, Jauna, zergatik egun guzian oihuz egon bainarotzu;

4. Bozkaria zazu zure sehiaren arima, zure gana, Jauna, altxatu dudalakotz ene arima;

5. Alabainan ezti eta gozo zare, Jauna, eta urrikalmendu handiak ditutzu zuri dei egiten duten guzientzat.

6. Zure beharrik, Jauna, har zazu ene othoitza, eta atzarria zaudezi ene errekeizko oiuhari.

7. Deihadar egin darotzut ene hesturako egunean, zeren bainauzu entzun.

8. Jainkoetan zure idurikorik ez da, Jauna, eta ez da zure egintzen araberakorik

9. Zuk egin ditutzun jendaia guziak ethorriko eta zure aitzinean adoran jarriko dira, Jauna; eta ospaturen dute zure izena;

10. Zeren handi baitzare, zu, eta sendagailak egiten ditutzuna: zu zare Jainko bakharra.

11. Bida nezazu, Jauna, zure bidean, eta ibiliko naiz zure egian; bozkaria bedi ene bihotza, zure izenaren beldur izan nadien.

12. Ene bihotz guziaz aithor emanen darotzut, ene Jainko Jauna, eta bethi guzian ospaturen dut zure izena;

13. Zeren handia baita zure urrikalmendua ene gainean, eta ene bizia atheratu baituzu ifernuko zolatik.

14. Jainkoa, gaixtaginak ene gainera jaiki dira, eta indardunen baldarna ibili da ene biziaren ondoan; eta etzaituzte zu ezarri beren aitzinean,

15. Eta zu, Jainko Jauna, urrikalkor eta urrikalmendu hartzailea zare, jasankorra, urrikalmendu handitakoa eta egitia.

16. Begira zazu ene gainera eta urrikal zakizkit; nausiaraz zazu zure zerbitzaria, eta salba zazu zure neskatoaren semea.

17. Ene alde agerraraz zazu zerbait ezagutkari, ikhus dezaten ni hasiatzen nautenek, eta urth ditezen ahalkez; zeren lagundu bainauzu, Jauna, eta gozakari eman baitarotazu.

#### LXXXVI. PSAL.

1. Koreren semeei, kantikako psalmoa.

Mendi sainduetan jarriak dira haren asentuak;

2. Jaunak maite ditu Siongo atheak Jakobean olha guzien gainetik.

3. Oi Jainkoaren hiria, gauza ospetsuak erran dituzte zutaz.

4. Orhoituren naiz Errahabez eta Babilonaz, zeinek ezagutzen bainaute.

Huna arrotzak, eta Tiriara, eta Ethiopiarren populua; haukiek han izatu dira.

5. Ez othe da Sionez erranen: Asko gizon sorthu izan dira han, eta Guziz-Gorak berak asentatu du hura?

6. Jaunak erranen du hori hartan izatu diren populu eta aitzindarien iskribuetan.

7. Zutako egoitza, bozkarioz betheak diren guzien idurikoa da.

#### LXXXVII. PSAL.

1. Psalmoko kantika Koreren semeei, azkeneraino, Mahelethentzat ihardesteko, Eman Ezraharraren adigarria.

2. Ene salbamenduko Jainko Jauna, gau eta egun deihadarrez egotu naiz zure aitzinean.





3. Ene othoitzza hel bedi zure aitzinera; ene errekeiari beheiti diozozu zure beharria;

4. Zeren gaitzez bethea baita ene arima, eta ene bizia heriotzera hurbildua.

5. Idukia naiz putzura jausten direnekilako; egina naiz laguntzarik gabeko gizon,

6. Hilan artean libro dena bezala;

Sarraskituak izan ondoan, hobietan lo daudenak bezala, zeinetaz ez baitzare gehiago orhoitzen, eta zure eskuz hastanduak baitira.

7. Ezarri haute putzuaren zolan, lekhu ilhunbetsuetan eta herioaren itzalpean.

8. Ene gainean jarri da zure hasarrea, eta ene gainera igorri ditutzu zure uhar guziak.

9. Ene ganik urrundu ditutzu ene ezagunak; hartu naute beren hatsagarri.

Etsaiari arthikia izan naiz, eta ezin ilkhi naiteke;

10. Beharrez iraungi dira ene begiak.

Zuri oihu egin darotzut, Jauna; egun guzian zure gana hedatu ditut eskuak.

11. Sendagailak eginen othe ditutzu hilentzat; edo midikuek bizturik, aithor emanen othe darotzute?

12. Hobian norbait mintzatuko othe da zure urrikalmenduaz, eta galpenean zure egiaz?

13. Ilhunbeetan ezagutuak izanen othe dira zure sendagailak, eta ahanzpeneko lurrean zure zuzentasuna?

14. Eta nik, Jauna, zure gana egin dut oihu, eta goizetik helduko zaitzu ene othoitzza.

15. Zertako, Jauna, hasantzen duzu ene othoitzza, eta ene ganik baztertzen duzu zure begithartea?

16. Ni naiz behar eta ene gaztetasunetik nekheen erdian; berriz, goratua izan ondoan, aphaltua eta nahasia naiz.

17. Ene gaisetik iragan dira zure hasarreak, eta zure izialdiek nahasi naute.

18. Egun guzian inguratu naute urak bezala, eta orok batean naute ingurakatu.

19. Ene gatik beharraz urrundu ditutzu ene adiskide, ahaide eta ezagunak.

## LXXXVIII. PSAL.

1. Ethan Ezraharraren adigarria.

2. Bethi eta bethi kantaturen ditut Jaunaren urrikalmenduak. Ene ahoak gizamende guzietan goraki erranen du zure egia;

3. Zeren erran baituzu: Bethi guzian urrikalmendua altxatua izanen da zeruetan; han gogortuko da zure egia.

4. Batasun egin dut ene hautetsiekin; zin egin izan diot ene zerbitzari Dabidi:

5. Menderen mendetaraino iraunaraziko diot zure odolari.

Altxatuko dut zure tronua gizamende orotako.

6. Jauna, zeruek aithor emanen daroete zure sendagailei; goretsiko dute zure egia sailduen baldarnan;

7. Ezen hedoietan nor izanen da Jaunaren bardin? Jainkoaren haurretan nor izanen da haren iduriko?

8. Jainkoa, zeina ospatua baita sailduen baldarnan, handi eta ikhara-garri da haren inguruan diren guzian gaisetik.

9. Jauna, armadetako Jainkoa, nor da zure idurikorik? ahaldun zare, Jauna, eta bethi zure egiaz inguratua.

10. Nausitzen zataizkio itsasoaren indarrari; zuk eztitzen duzu, berriz, haren uhinen oldarra.

11. Zuk aphaltu duzu hanpurutsua, sarraskitua den gizona bezala; zure besoko indarrak barraiatu ditutzu zure etsaiak.

12. Zureak dira zeruak eta zurea da lurra; zuk asentatu ditutzu lurra eta hunek daduzkanak;

13. Zuk egin ditutzu ipharra eta itsasoa.

Zure izenari bozkarioz jauziko dira Thabor eta Hermon;

14. Zure besoan da ahala.

Zure eskua ez bedi khordoka eta goretsia izan bedi zure eskuina.

15. Zure alkhia zuzenbidearen eta zuzentasunaren gainean jarria da. Urrikalmendua eta egia ibiliko dira zure aitzinean.

16. Dohatsu bozten dakien populua!

Jauna, zure begitharteko argitara dira ibiliko,

17. Eta zure izenari jauziko dira egun guzian, eta zure zuzentasunean izanen dira goratuak;

18. Zeren zu baitzare hekien indarraren ospea, eta zure nahitik goratua izanen da gure adarra;

19. Ezik Jaunak gaitu hartu, Israelgo sailduak, gure erregeak.

20. Orduan ikhospunetan mintzatu zare zure sailduei eta erran duzu: Indardunari eman diot laguntza, eta goratu dut ene populutikako hautetsia.



21. Aurkhitu dut Dabid ene zerbitzaria, gantzutu dut ene olio sainduaz;
22. Ezen ene eskuak lagunduko du eta ene besoak hazkartuko.
23. Etsaiak ez du deusik irabaziko haren gainean, eta tzarkeriako umea ez da hari bidegabe ekhartzeko gai izanen.
24. Haren etsaiak xehakatuko ditut haren aitzinean, eta ihes igorriko ditut hura hastio dutenak.
25. Harekin izanen dira ene egia eta ene urrikalmendua, eta ene ize-nean goratua izanen da haren adarra.
26. Itsasoaren gainera hedatuko dut haren eskua, eta hibaien gainera haren eskuina.
27. Berak dei eginen darot huneletan: Ene aita zare zu, ene Jainkoa, ene itzurpeneko geriza.
28. Eta nik ene lehen umetzat hartuko dut hura, lurreko erregeez gorago dut ezarriren.
29. Bethi guzian begiratuiko diot ene urrikalmendua, eta enekin egin patua zin egonen zaio.
30. Eta haren odola ezarriko dut menderen mendetako, eta haren tronuak iraunen du zeruko argiak bezenbat.
31. Bainen baldinetaria haren umeek bazterrerat uzten badute ene legea, eta ez badira ibiltzen ene manamenduen arabera;
32. Baldin profanatzan badituzte ene erabakiak, eta zaintzen ez badituzte ene manamenduak;
33. Azotearekin ikhartuko ditut hekien tzarkeriak, eta zigorrarekin bekhatuak.
34. Bainen ez dut haren gainetik khenduko ene urrikalmendua, eta ez diot hobenik eginen ene agintzari.
35. Ez dut hautsiko enekilako patua, eta ez ditut hutsalduko ene ahotikako hitzak.
36. Zin egin dut behin ene saindutasunaz, ez diodala gezur eginen Dabidi;
37. Haren odolak iraunen du menderen mendetan.
38. Eta haren tronua ene aitzinean izanen da bethi iguzkia bezala, ilhargi bethea bezala, eta lekhuko zin zeruan.
39. Zuk ordean hastandu, erdeinatu eta urrundu duzu zure Kristo.
40. Hautsi duzu zure zerbitzariarekilako patua, lurrean profanatu duzu haren saindutegia.
41. Urratu ditutzu haren inguruko hesiak; izialdura ezarri duzu haren hazkargailuetan.

42. Larrutu dute bidean iragaiten ziren guziek; laidagarri egin da bere hauzoentzat.
43. Goratu duzu hura zaphatzen dutenen eskuina; bozkariotan ezarri ditutzu haren etsai guziak;
44. Khendu diozu bere ezpataren laguntza, eta ez duzu gerlan lagundu;
45. Khendu duzu bere distiratik, eta lurrean phorroskatu duzu haren alkhia;
46. Gutitu ditutzu haren iraupeneko egunak; ahalkez estali duzu.
47. Noiz arteo, Jauna, azkeneraino aldaratzen othe duzu begithartea? noiz arteo sua bezala khetan egonen da zure hasarre?
48. Orhoit zaitenzi zer den ene izatea; ezen alferretan egin othe ditutzu gizaseme guziak?
49. Zein da gizona bizirik geldituko dena eta herioa ikhusiren ez duena? nork atheratuko du bere bizia herioaren eskutik?
50. Jauna, non dira zure beihalako urrikalmenduak, Dabidi zure zintasunean zin egin zinaroen bezala?
51. Jauna, orhoit zaitenzi zure zerbitzariak asko jendaien ganik jasan laidoaz, zeina iduki baitut ene golkhoan;
52. Zeinarekin iroika hari baitira zure etsaiak, Jauna, iroika zure Kristoren aldatzeaz.
53. Bethi guzian benedikatua izan bedi Jauna: halabiz, halabiz.

#### LXXXIX. PSAL.

1. Moise, Jainkoaren gizonaren othoizta.  
Jauna, gure ihes-lekhu egina zare gizalditik gizaldira.
2. Mendetik eta mendetaraino, mendiak baino lehenagotanik, lurra eta mundua aphainduak izan diren aitzinetik, Jainkoa zare zu.
3. Aphaltasunera ez bezazu arthik gizona. Zuk erran duzu: Itzul zaitetze, gizasemeak.
4. Ezen mila urthe zure begietan hala dira nola atzoko egun goan dena  
Eta gabazko beila bat bezala;
5. Gizonen urtheak dira ezdeusentzat idukiak diren gauzen pare.
6. Gizona da hala nola goizean iragaiten den belharra; goizean loratzen eta iragaiten, arratsaldean ebakitzen, kizkortzen eta idortzen:
7. Ezen zure hasarreak iraungi gaitu eta zure hats gaitzak nahasi.
8. Gure tzarkeriak ezarri ditutzu zure aitzinean, eta gure mendea zure begitharteko argian.



9. Hargatik iraungi dira gure egun guziak, eta iraungi gare zure hasarrean.

Gure urtheak badoazi armiarma bezala;

10. Gure urtheetako egunak hirur hogoi eta hamar urthetara heltzen dira.

Bainan hazkarrek ardiesten badituzte laur hogoi urthe, gainerako hori ez da hekientzat nekhe eta oinhaze baikik.

Gero dathor ezintasuna, eta eramanak gare hemendik.

11. Nork ezagutzen du zure hasarrearen gaiztasuna, eta nork beldurra gatik jo dezake

12. Zenbatekoa den zure hasarrea?

Horreletan erakhuts dizaguzu zure eskuina, eta egin gaitzatzu zuhurtzian argi bihotzez.

13. Itzul zaitte, Jauna; noiz arteo izanen zare samur? othoitzak bera bezaitza zure zerbitzarien alderat.

14. Goizetik betheak izan gare zure urrikalmenduaz, eta bozkarioz jauzi gare, eta gozoz betheak izan gare gure egun orotan.

15. Bozkariotan gare, aphaltu gaituzun egunen ordainez, ikhusi ditugun urthe gaitzen ordainez.

16. Begia eman zazu zure zerbitzarien eta zure lanen gainera, eta bida zatzu hekien haurrak.

17. Gure Jainko Jaunaren argia izan bedi gure gainean; gure gainetik bida zatzu gure eskuetako egintzak, eta hotsemozu gure eskuetako lanari.

### XC. PSAL.

1. Dabiden kantikako laudorioak.

Guziz-Goraren laguntzaren azpian egonen dena, zeruko Jainkoaren gerizan geldituko da.

2. Jaunari erranen dio: Zu zare ene geriza, ene ihes-lekhua. Ene Jainkoa da, haren baithan izanen da ene igurikitza;

3. Ezen harek atheratu nau ihiztarien arteetarik eta solas gaixtoetarik.

4. Bere soinaz itzal egingen darotzu, eta haren hegalpean egonen zare pheskizetan.

5. Haren egiak inguratuko zaitu erredola batez; etzare beldur izanen ez gabazko lasturaren,

6. Ez egunaz dihoan geziaren, ez ilhunbeetan dabilan egitekoaren, ez oldarraldien, ez-eta eguerdiko debruaren.

7. Zure ezkerrean eroriko dira mila, eta eskuinean hamar mila; ez da ordean bat hurbilduko zuri.

8. Bainan begiratuko duzu zure begiz, eta ikhusiko duzu bekhatooren saria;

9. Ezen, Jauna, zu zare ene igurikitza; Guziz-Gora hartu duzu zure ihes-lekhutzat.

10. Gaitza ez da zure gana helduko, eta azotea ez da hurbilduko zure olhara.

11. Ezen bere aingeruei eman diote zutaz kargu, zaint zetzaten zure bide guzietan.

12. Ekharriko zaituzte beren eskuetan, beldurrez oinaz jo dezazun harria.

13. Aspikaren eta basilikaren gainean ibiliko zare, eta ostikaturen ditutzu lehoina eta erainsugea.

14. Zeren ene baithan iduki duen bere pheskiza libratuko dut; gerizatzuko dut, zeren ezagutu duen ene izena.

15. Niri egin darot oiuhu, eta entzunen dut nik; harekilako izanen naiz hesturetan; atheratuko dut eta ospatuko.

16. Betheko dut egunen luzetasunaz, eta erakhutsiko diot ene salbamendua.

### XCI. PSAL.

1. Kantikako psalmoa larunbat-eguneko.

2. Gozo da Jaunari aithor ematea, eta zure izenari psalmoen kantatzea, oi Guziz-Gora,

3. Zure urrikalmendua goizetik ezagutaraziz, eta gabaz zure egia,

4. Hamar zurdetako maniurran, kantikekin gitarraren gainean;

5. Zeren gozo eman baitarotazu, Jauna, zure eginduran; eta bozkariatuko naiz zure eskuetako lanetan.

6. Zeinen handi diren, Jauna, zure egintzak! Guziz dira barrenak zure gogokundeak.

7. Erhoak ez ditu ezagutzen, ez-eta zoroak ardiesten.

8. Belharra bezala atheratuko direnean bekhatoreak, eta tzarkeria-egile guziak agertuko direnean,

Menderen mendetako galduko dira;

9. Zu ordean, Jauna, bethi guzian izanen zare Guziz-Gora.

10. Ezen huna zure etsaiak, Jauna, huna non galduko diren zure etsaiak, eta barraiatuak izanen diren tzarkeria-egile guziak.

11. Eta ene adarra goratua izanen da likornarena bezala, eta urrikalpen nasaian izanen da ene zahartzea.



12. Eta ene begiak begiratu diote ene etsaiei, eta ene beharriak adituko du ene kontra jaikitzen diren gaixtaginen gaineko erabakia.

13. Prestua palma bezala loratuko da; berhatuko da Libango zedroa bezala.

14. Jaunaren etxean landatuak loratuko dira gure Jainkoaren etxeko lorioetan.

15. Zahartze on batean berhatuko dira oraino; eta onez betheak izanen dira,

16. Goraki ezagutaraz dezaten,

Gure Jainko Jauna zuzena dela, eta tzarkeriarik haren baithan ez dela.

### XCII. PSAL.

1. Dabidi berari kantikako laudorioak larunbat-bezperako, zeintan asentatua izan baita lurra.

Jauna erreginatu da, ospez jauntzia da; indarrez jauntzia da Jauna, eta tinkatu du gerria;

Ezen finkatu du lurra, zeina ez baita izanen khordokatua.

2. Ordudanik aphaindua da zure jarlekhoa; bethidanik bazare.

3. Hibaiek altxatu dute, Jauna, hibaiek altxatu dute beren mintzoa.

Hibaiek altxatu dituzte beren uhinak

4. Ur hainitzen orroekin.

Ederresgarri dira itsasoaren goititzeak, ederresgarri da Jauna bere lekhu goretan.

5. Guziz sinhesgarri dira zure lekhukotasunak; zure etxeari, Jauna, dagokio saindutasuna egunen hedadura guzian.

### XCIII. PSAL.

1. Dabidi berari psalmoa astearren laugarren eguneko.

Jauna aspertzeetako Jainkoa da; asperkudeetako Jainkoa trabarik gabe hari da.

2. Gora zaitte, Jauna, lurra juiatzen duzuna; hanpurutsuei bihur diozute beren saria.

3. Bekhatoreak noiz arteo, Jauna, noiz arteo bekhatoreak izanen dira ospatuak?

4. Noiz arteo espantuka ibiliko dira eta tzarki mintzatuko? noiz arteo haro eginen dute bidegabe-egile guziek?

5. Jauna, aphaldu dute zure populua, eta larrutu zure primantza.

6. Hil dituzte alharguna eta arrotza; hil dituzte umezurtzak.

7. Eta erran izan dute: Jaunak ez du ikhusiko, ez da ohartuko Jakoben Jainkoa.

8. Populuko zoroak, adimendutan sar zaitetze; oi erhoak, zuhur zaitetze noizbait.

9. Beharria bere lekhuaren ezarri duenak, ez othe du adituko, edo begia egin duenak ez othe du ikhusiko?

10. Populuak azurriatzen dituenak, ez othe du jazarriko? ez othe ditu harek irakhasen gizonak?

11. Jaunak ezagutzen ditu gizonen gogoetak, badaki haizezkoak direla.

12. Dohatsu gizona zuk irakhasiren duzuna, Jauna, eta zure legez argituren duzuna!

13. Ezti diotzotzu egun gaitzak, hobia bekhatoreari idekia izan dakioen arteo:

14. Ezen Jaunak ez du hastanduko bere populua, eta bere primantza ez du bazterrat utziko,

15. Juiamendua bihur dakioen arteo zuzenbideari, eta hunen aldera bil ditezen arteo bihotz zuzenekoak diren guziak.

16. Nor atheratuko da ene alde maltzurkerian dabilzananen kontra, edo nor jarriko da enekin tzarkeria-egileen kontra?

17. Baldin ez banindu Jaunak lagundu, guti batekin ene arima hilen egoitzan zitakeen.

18. Erraten banuen: Khordokatua da ene oina; zure urrikalmenduak, Jauna, laguntzen ninduen.

19. Bihotzean jasaiten nituen nihonereko oinhazeen arabera, zure gozakariak eman diote bozkario ene arimari.

20. Tzarkeriaren alkhia iratxikia othe da bada zuri, zeinak nekhea manamendutan ematen baituzu?

21. Gaixtaginek arteak hedatuko diozkate prestuaren biziari, eta kondenatuko dute odol hobengabea.

22. Bainen Jauna jarri zait ihes-lekhu, ene Jainkoa ene phekizaren laguntza.

23. Eta bihurtuko diote beren gaixtakeria, eta beren maltzurkeriaz galduko ditu; gure Jainko Jaunak galduko ditu.

### XCIV. PSAL.

1. Dabidi berari kantikako laudorioak.

Zatozte, bozkarioz kanta dezogun Jaunari, bozkarioz lauda dezagun salbatzen gaituen Jainkoa.



2. Aithor ematera laster egun haren aitzinera eta bozkarioz kanta diotzogun psalmoak;
3. Zeren Jauna baita Jainko handia, eta jainko guzien gaineko errege handia;
4. Zeren haren eskuan baitira lurreko eremu guziak, eta harenak baitira mendien bizkarrak.
5. Zeren harena baita itsasoa, eta berak egin baitu hura, eta haren eskuek egin baitute leihorra.
6. Zatozte, adora dezagun, eta ahuspeka gaitezen, eta gaudezen nigarrez gu egin gaituen Jaunaren aitzinean;
7. Zeren bera baita gure Jainko Jauna, eta gu baikare haren alhapideko populua eta haren eskupeko ardiak.
8. Egun aditzen baduzue haren mintzoa, berantzue gogor zuen bihotzak,
9. Hasarretu nintzenez bezala, frogapeneko egunean mortuan, non bilhatu baininduten zuen arbasoek, frogatu baininduten, eta ikhusi baitziztuzten ene egintzak.
10. Berrogoi urthez gaitzez egon natzaio gizalde hari, eta erran izan dut: Horiek bethi zeherrerat hari dira bihotzez.
11. Eta hekiek ez dituzte ezagutu ene bideak: hargatik ene hasarrean zin egin dut, etzirela ene phausuan sarthuko.

### XCIV. PSAL.

1. Dabidi berari kantika, Jaunaren etxea altxatzen zutenean, gathibutasunaren ondotik.  
Jaunari kanta diozozue kantika berri bat; Jaunari kanta diozozue lurreko populu guziek.
2. Kanta diozozue Jaunari, eta benedikazue haren izena; egunetik egunera ezagutarazazue haren ganikako itzurpena.
3. Jendaien artean oiher egizue haren ospea, populu guzietan haren sendagailak
4. Zeren Jauna handi baita eta guziz goihesgarri, jainko guzien gainetik ikharagarri,
5. Ezik debru dira jendaien jainko guziak; bainan Jaunak egin ditu zeruak.
6. Haren aitzinean dira aithorra eta edertasuna; haren saindutegian, saindutasuna eta handitasuna.
7. Bihur diozozue Jaunari, oi jendaien herriak, bihur diozozue Jaunari ospe eta ohore;

8. Bihur diozozue Jaunari bere izenaren ospea.  
Har zatzue bitimak eta sar zaitzete haren lorioetan;
9. Adora zazue Jauna bere lorio sainduan.  
Lurra oro ikhara bedi haren aitzinean;
10. Errazue jendaietan, Jauna erregetu dela.  
Ezen zuzendu du lurraren ingurua, zeina ez baita khordokaturen; populuak zuzentasunean juiatu ditu.
11. Goihera beitez zeruak, eta bozkarioz jauz bedi lurra; iharros beitez itsasoa eta haren barnekoak;
12. Boz beitez bazterrak eta hekietan direnak oro.  
Orduan oiheretako zuhamu guziak bozkarioz jauziko dira
13. Jaunaren aitzinean, zeren heldu den, zeren heldu den lurraren juiatzera.  
Lurra juiatuko du zuzentasunean; populuak juiatuko ditu bere eguren arabera.

### XCVI. PSAL.

1. Dabidi berari psalmoa, bere lurra bihurtua izan zitzaioenean.  
Erregetu da Jauna: lurra bozkarioz jauz bedi, boz beitez irla guziak.
2. Hedoa eta lanbroa haren inguruan dira: zuzenbidea eta juiamendua dira haren alkharen asentuak.
3. Sua goanen da haren aitzinean, eta garretan ezarriko ditu haren etsaiak.
4. Lurraren inguru guzian dirdiratu dute haren ximistek, lurra ikhusi ditu eta ikharatu da.
5. Mendiak Jaunaren aitzinean ezkoa bezala urthu dira; Jaunaren aitzinean urthu da lur guzia.
6. Zeruek oiher egin dute haren zuzentasuna, eta populu guziek ikhusi dute haren ospea.
7. Urmaria beitez eskuz eginikako lanak adoratzeko dituztenak, eta beren jainkomoldeez espantatzen direnak.  
Adora zazue, haren aingeru guziek;
8. Sionek aditu du, eta bozkariotan sarthu da.  
Jauna, Judako alabak zure juiamenduen bozkarioz jauzi dira.
9. Zu zare ezen lurraren gaineko Jaun guziz gora, jainko guzien gainetik hainitez gorago zarena.
10. Jauna maite duzuenek hastia zazue gaizkia: Jaunak zaintzen ditu bere sainduen biziak; gaixtaginaren eskutik atherako ditu.
11. Argia ilkhi zaio prestuari, eta bozkarioa bihotzez zuzenak direnei.



12. Prestuak, Jauna baithan har zazue bozkario, eta aithor emozue haren saindutasunaren orhoitzapenari.

### XCVII. PSAL.

1. Dabidi berari psalmoa.

Jaunari kanta diozozue kantika berri bat, zeren sendagailak egin baititu.

Berak, bere eskuinaz, bere beso sainduaz du salbatu.

2. Jaunak ezagutarazi du bere ganikako salbamendua; jendaien aitzinean agertu du bere zuzentasuna.

3. Orhoitu da bere urrikalmenduaz eta zintasanaz Israelen etxearen alderat.

Lurreko bazter guziek ikhusi dute gure Jainkoa ganikako salbamendua.

4. Lurra oro bozkariotan jar bedi Jaunaren aitzinean; kanta zazue, jauz zaitezte, jo zazue musikako tresnak.

5. Jaunari jo diozozue gitarra, gitarraren gainean kantatuz psalmoak;

6. Jo zatzue kobrezko eta adarrezko turutak.

Bozkaria zaitezte gure errege Jaunaren aitzinean;

7. Iharros beitez itsasoa eta hartan direnak, lurreko inguruak eta han egoten diren guziak.

8. Hibaiak esku-zaflaka hariko dira, mendiak batean jauziko dira

9. Jaunaren aitzinean, zeren heldu baita lurraren juiatzera.

Zuzenki juiatuko du lurraren ingurua, eta populuak zuzenbidean.

### XCVIII. PSAL.

1. Dabidi berari psalmoa.

Erregetu da Jauna, sumin beitez populuak; kerubinen gainean jarri da, dardara bedi lurra.

2. Jauna Sionen handi eta populu guzien gainetik gora da.

3. Aithor eman biozote zure izen handiari, zeren den ikharagarri eta saindu:

4. Eta erregeren ohoreak lakhet du zuzentasuna.

Zuk aphaindu ditutzu zuzenbideak; zure juiamendu eta erabakiak atheratu ditutzu Jakobean etxean.

5. Gorets zazue gure Jainko Jauna, eta adora zazue haren oinpeko alkhia, zeren saindua baita.

6. Haren aphezetan ziren Moise eta Aaron, eta haren izenari dei egiten zarotenen arteko zen Samuel;

Deitzen zuten Jauna, eta harek entzuten zituen;

7. Hedoiezko habetik mintzatzen zatzaioeten.

Begiratzen zituzten haren manamenduak, eta harek eman zaroeten legea.

8. Gure Jainko Jauna, zuk zintuen entzuten; Jainkoa, begithartez egon zatzaioete, aspertzen zinezan ere hekien asmu makhur guziez.

9. Gorets zazue gure Jainko Jauna, eta adora zazue bere mendi sainduan; ezen saindua da gure Jainko Jauna.

### XCIX. PSAL.

1. Aithorreko psalmoa.

2. Lurra oro, bozkarioz ospa zak Jainkoa; bozkalentzian zerbitza zazue Jauna.

Bozkariozko jauzitan ager zaitezte haren aitzinean.

3. Jakizue Jauna bera dela Jainkoa; harek egin gaituela, eta ez geronek geronen buruak.

Jaunaren populua, haren alhapideko ardiak,

4. Sar zaitezte haren atheetan aithor ematera, haren lorioetan himnoak kantatuz; aithor bihur diozozue.

Lauda zazue haren izena,

5. Zeren ezitia baita Jauna, bethi baitirau haren urrikalmenduak, gizamende orotara hedatzen baita haren egia.

### C. PSAL.

1. Dabidi berari psalmoa.

Jauna, kantaturen ditut zure urrikalmendua eta zuzentasuna.

Psalmotan kantatuko dut,

2. Eta erne egonen naiz nothagabeko bidean, ethorriko zarenean ni gana.

Bihotzeko garbitasunean nindabilan ene etxearen erdian.

3. Ez nuen gauza tzarrik ene begien aitzinean ezartzen; higuindu ditut legea hausten zutenak;

Bihotz galdurik etzait iratxiki niri;

4. Ez nuen ezagutzen ene ganik baztertzen zen gizon gaixtoa;

5. Gibeletik bere laguna jaten zuenaren kontra jarraikitzen nintzen;

Begi hanpurutsuko eta ezin-asezko bihotzeko gizonarekin ez nuen jaten.



6. Ene begiak lurreko gizon fidelen alderat itzultzen ziren, hekiek enekin jarrarazteko; zein-ere baitzabilan nothagabeko bidean, hainak zerbitzatzten ninduen.

7. Hanpuruskerian hari dena, ez da ene etxe barnean egonen; tzarki mintzatzten denak ez du ene begien aitzinean egin bere bidea.

8. Goizetik hiltzen nituen lurreko bekhatore guziak, gaizki-egile guzieren xahutzeko Jaunaren hiritik.

### CI. PSAL.

1. Beharraren othoitza, gogo-behertua ditakeenean, eta Jaunaren aitzinean bere othoitza ixurtzen duenean.

2. Jauna, entzun zazu ene othoitza eta hel bekizu ene deihadarra.

3. Ez bezazu ene ganik aldera zure begithartea, eta edozein orduz eror nadien hesturan, ene alderat makhur zazu zure beharria.

Edozein orduz dei egin dezazudan, entzun nezazu laster;

4. Zeren khea bezala iraungi baitira ene egunak, eta xikkila bezala idortu ene hezurrak.

5. Ihartu naiz belharra bezala, eta khabartu da ene bihotza, zeren ene ogiaren jatea ahantzi baitut.

6. Ene auhenen auhenez, ene hezurra bat egin da ene haragiarekin.

7. Egin naiz mortuko pelikanoaren iduriko, eta bilhakatu naiz huntza bere zilhoan bezala.

8. Loa galdu dut eta egin naiz etxexori bakharra hegaztegian bezala.

9. Egun guzian erantzunka hari zarokidan ene etsaiak, eta laudatzen nindutenek, ene kontra zin egiten zuten.

10. Hautsa jaten nuen ogia bezala, eta ene nigarrarekin nahastekatzen nuen ene edaria,

11. Zure gaitziduraren hasarrea gatik; zeren goratu nauzun ondoan, eragotzi bainauzu.

12. Ene egunak behehitu dira itzala bezala, eta neroni belharra bezala naiz ihartu.

13. Zuk ordean, Jauna, badirauzu bethi guzian, eta zure omena hedatzen da gizamende orotara.

14. Jaikiko zare, Jauna; urrikalduko zaizkio Sioni; zeren ethorria baita ordua, hartaz urrikaltzeko ordua;

15. Alabainan zure zerbitzariak maithatu dituzte hartako harriak, eta urrikari izanen dute hango lurra.

16. Jendaiak, Jauna, zure izenaren, eta lurreko errege guziak zure ospearen beldur izanen dira;

17. Jaunak berritu duelakotz Sion, eta agerturen baita bere ospearen erdian.

18. Begiratu dio aphalen othoitziari eta ez du erdeinatu hekien errekeia.

19. Iskribatuak izan beitez horiek bertze gizaldiarentzat, eta sorthuko den populuak laudatuko du Jauna;

20. Zeren bere lekhu saindu goratik arthiki baitu begia; Jaunak zerutik begiratu dio lurrari,

21. Gathibuen auhenen entzuteko, hilak izan direnen umeen libratzea gatik;

22. Sionen oihu egin dezaten Jaunaren izena, eta haren laudorioak kanta Jerusalemen,

23. Populuak eta erregeak, Jaunaren zerbitzatzeko, batera bilduko direnean.

24. Jaunari ihardetsi dio bere indarrik handienean: Erradazu laburrak izanen diren ene orduarterainoko egunak.

25. Ez nezazula deith ene egunen erdian: zure urtheak menderen mendetan hedatzen dira.

26. Zuk, Jauna, hastapenean asentatu duzu lurra; zeruak zure eskue-tako lana dira.

27. Galduko dira hekiek, bainan zuk iraunen duzu, eta oro soineko bat bezala ihetxetuko dira.

Eta aldatuko dituzu estalgi bat bezala, eta aldatuak izanen dira;

28. Zu ordean bethi bera zare, eta zure urtheak ez dira iraungiko.

29. Zure zerbitzarien umeek bethiko egoitza bat izanen dute, eta hekien ondokoek bide ederrean iraunen dute bethi guzian.

### CII. PSAL.

1. Dabidi berari.

Ene arima, benedika zazu Jauna, eta ene barnean diren guziek benedika bezate haren izen saindua.

2. Ene arima, benedika zazu Jauna, eta ez bekizkitzu ahantz haren ongiegin guziak.

3. Hura jabalduko zaoiete zure gaixtakeria guziei; harek sendatzen ditu zure hebaindura guziak.

4. Heriotzetik harek berrerosten du zure bizia; harek khoroatzen zaitu bere urrikalkortasunean eta urrikalpenetan.

5. Bethetzen zaitu nahi dituzun onez; zure gaztetasuna erreberrituko da arranoarena bezala.



6. Jaunak urrikalmenduak hartzen ditu, eta zuzenbidea bihurtzen doroete bidegabea jasaiten dutenei.

7. Moisi ezagutarazi diozka bere bideak, Israelgo semeei bere nahiak.

8. Jauna da urrikalmendutsu eta urrikalkor, luzakor eta guziz urrikaltzale.

9. Ez da bethi samur egonen, ez-eta bethi dixiduka hariko.

10. Ez daroku gure bekhatuen arabera egin, ez-etare gure tzarkerien araberrako saria bihurtu;

11. Ezik zenbat-ere zerua lurraz gorago baita, hanbat hazkartu du bere urrikalmendua haren beldur direnen gainean.

12. Zenbat-ere iguzki-ilkhitzea etzitetik urrun baita, hanbat-ere urrun egin ditu gu ganik gure gaixtakeriak.

13. Nola aita bat urrikaltzen baitzaiote bere haurrei, hala urrikaldu da Jauna haren beldur direnen alderat,

14. Ezagutzen zuelakotz nolako orhez garen eginak.

Orhoitu da herrautsez eginak garela;

15. Gizonaren egunak belharraren pare dira; bazterretako lorea nola, hala loratzen da;

16. Ezen bizia haren baithan iraganen da, eta ez egonen; eta gero ez du bere lekhua gehiago ezagutuko.

17. Bainan Jaunaren urrikalmenduak egundainotik eta bethiren bethi du iraunen haren beldur direnen gainean;

Eta semeen semeetara hedatuko da haren zuzentasuna,

18. Haren legea begiratzen dutenen

Eta haren manamenduen bethetzeaz orhoit direnentzat.

19. Jaunak zeruan xuxendu du bere alkhia, eta orenen gainera hedatuko da haren erregetasuna.

20. Jauna benedikazazue, haren aingeru guziek, indarrez ahaldun zaretenek, haren errana egiten duzuenek, haren ahoko manuen bethetzeko.

21. Jauna benedikazazue, haren armada guziek, haren manu-bethetzaille, haren nahia egiten duzuenek.

22. Jauna benedikazazue, haren egintza guziek, haren jauntasuneko lekhu orotan; ene arima, benedikazazu Jauna.

### CIII. PSAL.

1. Dabidi berari.

Ene arima, benedikazazu Jauna. Jainko Jauna, handizki zare goretsia. Ospez eta edertasunez inguratu zare;

2. Argiz jauntzia zare soineko batez bezala.

Zerua larru-olha bat bezala hedatu duzu;

3. Haren gain-aldeak urez estali ditutzu;

Hedoiaren gainera igaiten zare; ibiltzen zare haizeen hegalden gainean;

4. Zure aingeruak egiten ditutzu haizearen pare, eta zure manu-bethetzailleak su erregarria bezala;

5. Lurra asentatu duzu bere asentuairen gainean, eta ez da menderen mendetan makhurtuko.

6. Lezea zuen jauntzizat soineko baten pare; urek estaltzen zituzten mendiak.

7. Ihes egin dute zure larderiaren aitzinean; zure ihurtzuriaren burrunbak ikharatu ditu.

8. Mendiak igaiten eta zelhaiak jausten dira berezi diozuten lekhuak.

9. Urei ezarri diozute iraganen ez duten mugarrak, eta ez dira lurra- ren estaltzera bihurtuko.

10. Ithurriak igortzen ditutzu haranak gaindi, eta urak iragaiten dira mendi artetarik.

11. Bazterretako abere guziek hetarik edaten dute; basastoak, beren egarran, hekien begira daude.

12. Zeruko hegastinak hekien gainean egoten dira; harrien erditik kantatzen dute.

13. Mendiak urztatzen ditutzu beren gain-aldeetarik; lurra asetzen da zure eskuetarikako fruituz.

14. Sorhoa sorrarazten duzu aziendentzat eta belharrak gizonaren zerbitzuko;

Lurretik atheratzen ditutzu ogia,

15. Eta arnoa, gizonaren bihotza harrotzen duena;

Olioia begithartea arraitzen duena, eta ogia, gizonaren bihotza hazkartzeko duena.

16. Bazterretako zuhaitzak eta Libango zedroak, zuk landatu ditutzu-nak, nasaiki haziko dira;

17. Xoriek hekietan eginen dituzte ohantzeak.

Amiamokoaren etxea da orotarik gorena.

18. Mendi gorak orenentzat dira, harriak sagarroien ihes-lekhuak.

19. Ilhargia egin duzu, denboren erakhisteko; iguzkiak badaki noiz etzan.

20. Ilhunbeak ezarri ditutzu, eta gaua egin da; gauaz dabilta oihane-ko abere guziak;





21. Lehoinkumeak orroaz daude beren puska beharrez, eta Jainkoari galdatzen diote jatekoa.
22. Iguzkia ilkhitzen da; biltzen dira eta beren etzan-lekhuetan jartzen.
23. Gizona orduan atheratzen da bere lanera eta egitekora arrats arteo.
24. Zeinen diren ederresgarri, Jauna, zure obrak! Zuhurtziarekin egin ditutzu guziak: lurra bethea da zure ongiez.
25. Hori da itsasoaren handia eta zabala! Hortan daude nihonereko zierpeketak,  
Abere xeheak handiekin;
26. Hor iragaiten dira untziak;  
Hor dabila erainsuge hura, zeina hor dostatzeko egin izan baituzu.
27. Oro begira daude eman diozozuten bere orduan jatekoa.
28. Zuk emanez, bilduko dute; zuk eskua zabalduz, ontasunez oro betheko dira.
29. Berriz, aldaratzen baduzu begithartea, nahasmendutan jarriko dira; khenduko diozute hatsa, eta iraungiko dira eta beren herrautsera bihurtuko.
30. Igorriko duzu zure izpiritua eta kreatuak izanen dira, eta berrituko duzu lurraren gaina.
31. Jaunaren ospeak birau menderen mendetan! Jaunak gozo hartuko du bere egintzetan.
32. Harek begiratzen dio lurrari, eta ikhararazten du; ukitzen ditu mendiak, eta khetan jartzen dira.
33. Jauna kantaturen dut ene bizi guzian; biziko naizeno, psalmotan ospaturen dut ene Jainkoa.
34. Gogarako izan bekizkio ene hitzak; nik berriz, Jauna baithan hartuko dut ene gozoa.
35. Lurretik suntsi beitez bekhatoreak eta gaixtaginak, gehiago ez diren bezala; ene arima, benedika zazu Jauna.

#### CIV. PSAL.

1. Lauda Jauna.  
Aithor emozue Jaunari, eta dei egiozue haren izenari; populuetan ezagutaraz zatzue haren eginkariak.
2. Gorets zazue zuen kantu musikako tresnetan; ezagutaraz zatzue haren sendagaila guziak.
3. Lauda zazue haren izen saindua; goihera bedi Jauna bilhatzen dutenen bihotza.

4. Bilha zazue Jauna, eta indar har zazue; bilha zazue bethi haren begithartea.
5. Orhoit zaitzete egin dituen gauza ederresgarriez, haren sendagailuz eta haren ahoko erabakiez,
6. Haren zerbitzari, Abrahamen haurrak; haren hautetsi, Jakobene umek.
7. Hura da gure Jainko Jauna; haren erabakiak lur guziaren gainera hedatzen dira.
8. Orhoitu da bethi bere batasunaz, mila gizalditan bethetzeko eman duen hitzaz;
9. Abrahami egin agintzaz, eta Isaakekilako bere zinaz.
10. Eta hura legetan eman dio Jakobi, eta bethiko patutan Israeli,
11. Zioelarik: Emanen darotzut Kanaango lurra, zure primantza izanen da hura;
12. Noiz-ere moltxo ttipian, hainitz guti eta hango arrotz baitziren.
13. Eta jendaki batetik bertzera ibili ziren, eta erresuma batetik bertze populua batera.
14. Etzuen gizon bat utzi hekiei bidegabe egitera, eta hekien ariaz azurriatu zituen erregeak.
15. Berautzue ene kristorik uki; berautzue ene profeten gainean maltzurkeriarik erabiltzetik.
16. Eta gosetea deithu zuen lurraren gainera, eta ogiari khendu zaroen bere indarra.
17. Hekien aitzinean igorri zuen gizon bat: Josep gathibutzat izan zen saldua.
18. Gatheetan hestutuak izan ziren haren oinak, eta burdinak zilhatu zioen arima,
19. Haren hitza bethetzera ethor zedin arteo.  
Jaunaren solasak sutu zuen;
20. Erregek bidali zuen haren gana eta libratu zuen; populuen buruzagiak kanporat atheratu zuen.
21. Ezarri zuen bere etxeke nautsi, eta bere izate guzien buruko,
22. Erresumako aitzindariak argi zetzan bera bezala, eta zaharrei umotasuna irakhats ziozoten.
23. Eta Egipton sarthu zen Israel, eta Jakob Kamen lurrean arrotz izan zen.
24. Eta Jainkoak bere populua handizki berhatu zuen, eta bere etsaien gainean hazkartu.



25. Itzuli zuen Egiptoarren bihotza, higuin zezaten haren populua, eta maula egin ziozoten haren zerbitzariari.
26. Igorri zituen Moise, bere zerbitzaria, eta Aaron, zeina baitzuen hautatu.
27. Hekien baithan ezarri zuen ezagutkarien eta sendagailen egiteko ahala Kamen lurrean.
28. Ilhunbeak igorri eta bazterrak ilhundu zituen, eta etzituen garraztu bere solasak.
29. Hekien urak odoletara aldatu eta arrainak hilarazi zituen.
30. Hekien lurak eman zituen igelak hekien erregeen gela barneen taraino.
31. Mintzatu zen, eta uli eta ulitxeria bat ethorri zen hekien eremu guzietara.
32. Uritzat eman zaroeten harria, eta su bat oro erretzen zituena hekien lurrean.
33. Jo zituen hekien mahastiak eta pikoak, eta phorroskatu zituen hekien eremuko zuhaitzak.
34. Mintzatu zen, eta ethorri ziren harra eta xartala, zeinen elementia nihonerekoa baitzen.
35. Belhar guziak iretsi zituzten hekien lurrean, eta jan zituzten hekien lurreko fruitu guziak.
36. Jaunak jo zituen hekien lurrean lehen-sorthuak oro eta hekien lan guzietako pikainak.
37. Eta Israeldarrak atheratu zituen urhe eta zilharrez betherik, eta hebaindu bat etzen hekien leinuetan.
38. Egiptoa boztu zen hekien goatez, zeren hekien beldurra jarria baitzen haren gainean.
39. Jaunak hedoi bat hedatu zuen hekien gerizatzeko, eta su bat hekiei gabaz argi egiteko.
40. Galdatu zuten, eta igorri zaroeten kaila eta zeruko ogitik ase zituen.
41. Urratu zuen harria, eta urak zurrustan atheratu ziren, eta hibaiak goan ziren mortua barna;
42. Zeren orhoitu baitzen bere zerbitzari Abrahami eman zaroen bere hitz sailduaz.
43. Bere populua bozkariotan eta bere hautetsiak goihererik atheratu zituen.
44. Eta eman zaroeten jendaien herrialdeak, eta gozatu zituzten populuen lanak;

45. Haren zeremoniak begira, eta haren legea bilha zetzaztentzat.

### CV. PSAL.

1. Lauda Jauna.  
Aithor emozue Jaunari, zeren den ona, zeren mendetan baitirau haren urrikalmenduak.
2. Nork erran Jaunaren ahalak eta adiaraz haren laudorio guziak?
3. Dohatsu begiratzen dutenak zuzentasuna, eta zuzenari bere bidea noiz-nahi ematen darotenak!
4. Gutaz orhoitu zaitezi, Jauna, zure populuari dadukozun begitharte onean; zato gure ikhustera salbamenduzko gogoan,
5. Ikhus detzagun zure hautetsien onak, boz gaitezen zure populua ren bozkarioan, laudatua izan zaitezen zure primantzan.
6. Bekhatu egin dugu gure arbasoekin, gaizki ibili gare, tzarkeriak egin ditugu.
7. Gure arbasoek Egipton ez dituzte beren baithan ardietsi zure sendagailak, ez dira orhoitu zure urrikalmendu nihonereko guziez;  
Hasarrearazi zaituzte, itsasora, itsaso Gorriara igaitean.
8. Eta Jaunak salbatu zituen bere izenaren ariaz, ezagutarazteko zat bere ahala.
9. Eta dixidatu zuen itsaso Gorria, eta agortu zen; eta eraman zituen lezeak barna, hala-nola mortuko zelhaietik.
10. Atheratu zituen hastio zituztenen eskutik, eta etsaiaren eskutik berrerosi zituen.
11. Eta urez estali zituen hekien hestutzailak, eta bat bakharra hekie-tarik etzen gelditu.
12. Eta Israeldarrekin sinheste hartu zuten haren hitzetan eta kantatu zituzten haren laudorioak.
13. Laster makhurtu ziren, ahantzi zituzten haren egintzak, eta etzuten iguriki bere asmua bethe arteo.
14. Eta mortuan zalekeriari eman ziren, eta Jainkoa frogetan ezarri zuten toki agor hartan.
15. Eta eman zaroten galdatzen zutena, eta igorri zuen hekien lehien asetzekoa.
16. Eta kanpetan hasarrearazi zituzten Moise eta Aaron Jaunaren saildua.
17. Lurra iduki zen, eta iretsi zuen Dathan, eta estali zuen Abironen bilkhua.



18. Eta sua biztu zen hekien bilguman; garrak erre zituen bekhatur egileak.
19. Eta Horeben egin zuten aratxe bat, eta adoratu zuten eskuz egirikako molde bat.
20. Eta belharra jaten duen aratxe baten itxurara trukatu zuten beren ospea.
21. Ahantzi zuten Jainkoa, hekiek salbatu zituena, Egipton gauza handiak,
22. Ederresarriak Kamen lurrean eta ikharagarriak itsas Gorrian egin zituena.
23. Eta erran zuen xahutuko zituela, baldin Moise haren hautetsia haren aitzinean jarri ez balitz haren hausteko,  
Aldararaztea gatik haren hasarrea, arren-eta etzetzan xahu;
24. Eta hekiek ezdeusentzat iduki zuten lehiagarritzko lurra.  
Haren hitzari etzaroten sinhesterik eman,
25. Eta marmaraka haritu ziren beren olhetan; etzuten entzun Jaunaren mintzoa.
26. Eta hekien gainera goititu zuen bere eskua, hekien xahutzeko mortuaren erdian,
27. Hekien odola iraitzeko jendaien aitzinean, eta hekien barraiatzeko bazter orotan.
28. Eta Beelphegorri kontsekratu ziren, eta hilen sakrifizioetarik jan zuten.
29. Eta samurrarazi zuten beren asmuez, eta xahutzeak berhatu ziren hekien artean.
30. Eta Jaunaren alde jarri zen Phinees, eta jabaldu zuen, eta xahutzea gelditu zen.
31. Eta hori egitate zuzentzat aiphatua izan zaio gizaldi orotan mendeetaraino.
32. Eta samurrarazi zuten Jauna Jazargoako uretan; eta Moise gazti-gatua izan zen hekien gatik,
33. Zeren uhertu baitzuten haren gogoa,  
Eta khordokatu baitzen bere ahoko solasetan.
34. Etzituzten xahutu Jaunak erran jendaiaik;
35. Eta nahastekatu ziren jendaiekin, eta ikhasi zuten hekiek bezala egiten,
36. Eta zerbitzatu zituzten hekien jainkomoldeak, eta hori izan zen hekien behaztoparazteko;
37. Eta debruei imolatu zarozten beren seme-alabak;

38. Eta ixuri zuten hobengabeko odola, beren seme-alaben odola, zeinak sakrifikatu baitzituzten Kanaango jainkomoldeei.
- Eta lurra odolez usteldua izan zen,
39. Eta khutsatu zuten beren eginkariez, eta lohitu ziren beren asmu tzarretan.
40. Eta Jauna hats gaitxoan hasarretu zen bere populuaren kontra, eta gaitzetsi zuen bere primantza.
41. Eta arthiki zituen jendaien eskuetara; eta nausitu zitzaizkoten hekiek hastio zituztenak.
42. Eta hestutu zituzten beren etsaiek, eta hekien eskuaren azpian aphaltuak izan ziren.
43. Jaunak maiz libratu zituen.  
Bainan hekiek kharmindu zuten beren gogoeta tzarrez, eta aphaltu zituen beren gaixtakerien ariaz.
44. Eta begiratu zaroeten hestutuak zabiltzanean, eta entzun zuen hekien othoitza.
45. Eta orhoitu zen bere patuaz, eta urrikitu zitzaioen bere urrikal-mendu nihonerekoaren arabera.
46. Eta urrikalmendutara eman zituen, hekiek gathibu hartu zituzten guzien aitzinean.
47. Gure Jainko Jauna, salba gaitzatzu, eta bil jendaien erditik;  
Aithor bihur diozogun zure izen sainduari, eta gorets gaitezen zure laudorioetan.
48. Benedika bekio Israelgo Jainko Jaunari mendetik mendeetaraino; eta populu guziak erranen du: Halabiz, halabiz.

## CVI. PSAL.

1. Lauda Jauna.  
Jaunari aithor emozue, zeren den ona, zeren mendetan baitirau haren urrikalmenduak.
2. Mintza beitez Jaunak berrerosi dituenak, etsaiaren eskutik bererrosi eta herrialde orotarik bildu dituenak,
3. Iguzki-sortzetik etzateko lekhuraino, ipharretik itsasoraino.
4. Mortuan, toki agorretan bazterrez bazter ibili dira; egoitzazko hiri baterako bidea ez dute aurkhitu izan.
5. Gosez eta egarriz, hekien arima iraungi da hekien baitan.
6. Eta beren hesturan deihadar egin diote Jaunari, eta beren beharren azpitik atheratu ditu.
7. Eta bide zuzenera eraman ditu, goan zitezen egoitzazko hirira.



8. Jaunari aithor bihur bekio bere urrikalmenduez, eta haren senda-gailez gizonen semeentzat;
9. Zeren duen are arima iraungia, eta ontasunez gainditu goseak zadukana,
10. Ilhunbeetan eta herioaren itzalean jarriak zirenak, erromeserian eta burdinen lokharrietan zaudezenak,
11. Kharmindu zituztelakotz Jaunaren solasak, eta hasarrearazi Guziz-Goraren gogoia.
12. Eta nekheen erdian beheratua izan da hekien bihotza; hebainduak izan dira, eta ez da nihor izan laguntza emateko.
13. Eta beren hesturan Jaunari deihadar egin diote, eta beren beharren azpitik atheratu ditu.
14. Eta ilkhi ditu ilhunbeetarik eta herioaren itzaletik, eta trenkatu ditu hekien lokharriak.
15. Jaunari aithor bihur bekio bere urrikalmenduez, eta gizonen semeentzateko haren sendagailez,
16. Zeren phorroskatu dituen kobrezko atheak eta kraskatu burdinazko hagak.
17. Atheratu ditu beren tzarkeriako bidetik; ezen beren gaixtakerien gatik ziren beheratuak.
18. Hekien arimak gaitzets zuen edozein janhari, eta herioaren atheetaraino ziren hurbilduak.
19. Eta beren hesturan Jaunari deihadar egin diote, eta beren beharren azpitik atheratu ditu.
20. Igorri diote bere hitza eta sendatu ditu, eta heriotzetik atheratu ditu.
21. Jaunari aithor bekizkio bere urrikalmenduak, eta gizonen semeentzateko haren sendagailak.
22. Eta laudoriozko sakrifizioa sakrifika biozote, eta bozkarioz oihu egin betzazte haren eginkariak.
23. Untziz itsasoaren gainean dabilzanek, uren zabaltasunean lanean hari direnek,
24. Hekiek ikhusi dituzte Jaunaren egintzak eta sendagailak lezeen erdian.
25. Jauna mintzatu, eta agertu da phesiaren hatsa, eta jauzi dira itsasoko uhinak;
26. Zeruraino igaiten dira, eta lezeondora jausten; gaitzaren gaitzez itsasgizonei ihartzen zaiote bihotza.

27. Nahasiak eta khordokan dabilta hordia bezala, eta suntsitu da hekien zuhurtzia guzia.
28. Eta beren hesturan, Jaunari deihadar egin diote, eta beren atheetarik atheratu ditu.
29. Eta phesiatik haize ezti bat egin du, eta ixildu dira itsasoko uhinak.
30. Eta hekien ixiltzeaz boztu dira, eta Jaunak eraman ditu berek nahi zuten portura.
31. Jaunari aithor bekizkio bere urrikalmenduak, eta gizonen semeentzateko haren sendagailak;
32. Eta gorets bezate populuaren baldarnan, eta lauda bezate zaharren bilkhuan.
33. Hibiaiak ezarri ditu mortua bezala, eta uren iragan-bideak egarriz hiltzeko tokiak bezala,
34. Lur gori bat gatz-toki bat bezala, han egoten zirenen gaixtakeria gatik.
35. Ur-osinetara aldatu du mortua, eta urik gabeko leihorra ur-mailetara.
36. Eta han ezarri ditu gose zirenak, eta hiri bat egin dute egon-lekutako.
37. Eta landak erain dituzte, eta mahastiak landatu; eta fruitua nasai eman dute.
38. Jaunak benedikatu ditu, eta handizki berhatu dira; eta ez ditu hekien aziendak gutitu.
39. Eta gutitara ethorri dira, eta gaitz eta nahigabe askoz joak izan dira.
40. Erdeinua ixuria izan da aitzindarien gainera, eta Jaunak erabili ditu biderik gabeko tokitan, eta ez bidean.
41. Eta beharretik atheratu du noharroina, eta ardiak bezala berhatu ditu haren haurrak.
42. Prestuek ikhusiko dute, eta boztuko dira; eta gaixtagin guziek tapatuko dute beren ahoa.
43. Nor da zuhur, eta hainak begiratuko ditu gogoan horiek, eta izaten du Jaunaren urrikalpenen adimendua?

#### CVII. PSAL.

1. Dabidi berari psalmoko kantika.
2. Jainkoa, ene bihotza aphaindua da, aphaindua da ene bihotza. Kantatuko dut, musikako tresnak joko dut ene ospearen erdian.



3. Atzar zaitte, ene ospea; atzar, maniurra eta gitarra: goiz-goizetik atzarriko naiz ni ere.

4. Populuaren aitzinean aithor emanen darotzut, Jauna, eta psalmoak kantatzen darozkitzut jendaien erdian;

5. Zeren zure urrikalmendua zeruak baino handiago baita, eta hedoietaraino heltzen baita zure egia.

6. Zeruen gainera altxa zaitte, Jainkoa, eta zure ospeak dirdira beza lur guziaren gainera,

7. Athera ditezentzat zure maiteak: Zure eskuinak libra beneza, eta entzun nezazu;

8. Jauna mintzatu da bere lekhu sailduan.

Bozkarioz jauziko naiz: phartituko dut Sikem eta olhetako harana neurtuko.

9. Galaad enea da, eta enea da Manase; eta Efraim da ene buruaren geriza.

Juda ene errege da;

10. Moab ene pheskizaren untzia.

Idumean hedatuko dut ene oina; arrotzak ene adiskide egin dira.

11. Nork eramanen nau hiri hazkartura? nork eramanen nau Idumearaino?

12. Ez othe zuk, Jainkoa, zeinak hastandu baikintutzun, eta ez baintzen, oi Jainkoa, gure armadetara agertzen?

13. Hesturatik ilkhitzeko laguntza iguzu, ezen salbatzeko alferra da gizonaren eginahala.

14. Jainkoa baithan eginen dugu indar, eta harek ezdeusetara ekharriko ditu gure etsaiak.

### CVIII. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.

2. Jainkoa, ez bezazu ixil ene laudorioa, bekhatoarearen ahoa eta maltzurarena ene gainera ideki direlakotz.

3. Maltzurkerian mintzatu dira ene kontra, eta herrazko solasez inguratu naute, eta ariarik gabe jazarri darotade.

4. Maithatu behar orde, enetzat gaizkika hari ziren; ni aldiz othoiztean nindagoen.

5. Gaizkiak ongientzat, eta herra ene amodioaren ordain bihurtu daroztade.

6. Gaixtagina ezar zazu ene etsaiaren nausi, eta bethi haren eskutian izan bedi debrua.

7. Juitua izaten denean, kondaturik ilkhi bedi, eta bere othoizta bekhaturtat athera bekio.

8. Gutituak izan beitez haren egunak, eta bertze batek har beza haren kargua.

9. Haren semeak umezurtz egin beitez, eta haren emaztea alhargun.

10. Haren haurrak lekhuz lekhu erabiliak izan beitez, eskale, eta beren egoitzetarik iraziak.

11. Lukulariak bilha beza haren izate guzia, eta arrotzek larru betzazte haren nekheetarikako onak.

12. Harentzat laguntzailerik izan ez bedi, ez-eta haren umezurtzez urrikalduko denik.

13. Haren ganikako umeak izan beitez herioaren bazka, eta haren izena gizaldi bakhar batean gal bedi.

14. Haren arbasoen gaixakeria Jaunaren aitzinean orhoitzapenetara bihur bedi, eta haren amaren bekhaturta ez bedi izan ezeztatua.

15. Jaunaren aitzinean iraun bezate bethi, eta lurretik suntsi bedi hekien orhoitzapena,

16. Zeren ez den urrikalmendu hartzeaz orhoit izan;

17. Eta zeren hilarazi beharrez jazarri dioen gizon buluz, erromes eta atsekabetan zenari.

18. Madarizionea du maithatu, eta madarizionea zaio ethorriren; benedizioneaz etzen gura, eta benedizionea haren ganik urrunduren da.

Madarizionea jauntzi du hala-nola soineko bat, eta ura bezala sarthu da haren barnean, eta olio bezala haren hezurretan.

19. Izan bekio estaltzen duen soinekoa bezala, tinkatzen duen gerrikoa bezala.

20. Horra zer saria izanen duten Jaunaren baithan ene belzten eta ene arimaren kontra gaizki erraten hari direnek.

21. Eta zuk, Jauna, Jauna, enekin egizu zure izenaren ariaz, zeren gozoa baita zure urrikalmendua.

Libra nezazu,

22. Zeren naizen behar eta eskasian, eta nahasia den ene barnean ene bihotza.

23. Khendua naiz erortzen den itzala iduri, eta irazia xartalak bezala.

24. Baruraz herbalduak dira ene belhaunak, eta ene haragia olio eskasez iraungia da.

25. Eta hekien laidagarri bilhakatu naiz: ikhusi naute, eta dardaratu dituzte buruak.



26. Lagunt nezazu, ene Jainko Jauna, eta salba zure urrikalmendua-  
ren arabera.

27. Eta jakin bezate zure eskutik heldu direla haukiek oro, eta hau  
zuk egina dela, Jauna.

28. Hekiek madarikatzen hariko dira, eta zu benedikatzen; urmaria-  
tuak izan beitez ene kontra jaikitzen direnak; aldiz, bozkariotan izanen da  
zure zerbitzaria.

29. Ahalkeaz jauntziak izan beitez ene belzten hari direnak, eta beren  
ahalkeak estal betza gaineko soinak bezala.

30. Ene ahoak Jaunari aithor goraki emanen dio, eta ostearen erdian  
laudaturen dut;

31. Zeren egotu den beharraren eskuinean, ene arimaren begiratzeko  
jazarleen ganik.

### CIX. PSAL.

1. Dabiden psalmoa.

Jaunak ene Jaunari erran dio: Jar zaite ene eskuinean,

Zure etsaiak ezar detzadan arteo zure oinpeko alkhi.

2. Jaunak Siondik ilkhiazariko du zure indarreko makhila: erregina  
zaite zure etsaien erdian.

3. Zure indarreko egunean, saindutasuneko ospearen erdian zure  
baithan da zure hastea; ene galtzarretik atheratu zaitut artizarra baino  
lehen.

4. Jaunak zin egin izan du, eta etzaio urrikituren: Bethiko zu zare  
aphez, Melkisedeken arara.

5. Jauna zure eskuinean da; bere hasarreko egunean phorroskatu ditu  
erregeak.

6. Jendaien erdian juiatzen hariko da; xahutuko ditu bazterrak; leher-  
tuko ditu askoren buruak lurreen.

7. Bidean errekatik edanen du; hargatik goratuko du burua.

### CX. PSAL.

1. Lauda Jauna.

Jauna, ene bihotz oroz aithor bihurtaren darotzut prestuen baldar-  
na, bilkhuetan.

2. Handiak dira Jaunaren eskuko lanak, bere nahi guzien arabera  
bereziak.

3. Aithor eta gorespen atheratzen diote bere lanek, eta menderen  
mendetan iraunen du haren zulentasunak.

4. Jaun urrikalkor eta urrikalmendutsuak bere sendagailen orhoitza-  
pen bat eman du:

5. Jatekoa eman diote haren beldur direnei.

Bere patuaz orhoituko da bethi guzian;

6. Bere populuari ezagutaraziko dio bere egintzen indarra,

7. Hari emanez jendaien primantza; egia eta zulentasuna haren  
eskuetako egintzak dira.

8. Zinak dira haren lege guziak eta bethiren bethiko gogortuak, zin-  
tasunean eta zulentasunean eginak.

9. Jaunak berrerospena igorri dio bere populuari; bethikotzat egin du  
harekin batasun.

Saindua eta ikharagarria da haren izena:

10. Jaunaren beldurra da zuhurtziaren hastapena.

Hura zaintzen duten guzietan da adimendu ona: haren laudorioek  
iraunen dute menderen mendetan.

### CXI. PSAL.

1. Lauda Jauna, Agjeoren eta Zakariasen bihurpenaz. Dohatsu  
Jaunaren beldur den gizona! Haren manamenduetan guziz lakhet dena.

2. Lurraren gainean ahaldun izanen da haren ganikako ondoregoa:  
benedikatuak izanen dira prestuen umeak.

3. Ospea eta aberastasunak haren etxean izanen dira, eta menderen  
mendetan iraunen du haren zulentasunak.

4. Ilhunbeetan prestuei argi bat ilkhi zaiote: Jauna urrikalkor, urri-  
kalmendutsu eta zuzena da.

5. Dohatsua da urrikaltzen eta maileguz ematen duen gizona! Bere  
solas guziak adimendurekin aphaintzen ditu;

6. Hargatik ez da behinere khordokatua izanen.

7. Prestua bethi guzian izanen da orhoitzapenetan; gaizki entzute  
beldurrik ez du izanen.

Jaunaren baithan igurikitza dago haren bihotza;

8. Haren bihotza gohortua da; ez da khordokatuko bere etsaiak  
heziak ikhusi arteo.

9. Barriatu, beharrei eman du bere izana; haren zulentasunak men-  
deren mendetan du iraunen; haren adarra ospetara izanen da goratua.

10. Gaixtaginak ikhusiko du eta hasarretuko da; karraskatuko ditu  
hortzak eta ihartuko da: galduko da bekhatoreen lehia.

**CXII. PSAL.**

1. Lauda Jauna.  
Haurrak, lauda zazue Jauna, lauda zazue Jaunaren izena.
2. Benedika bekio Jaunaren izenari oraidanik eta mendeetaraino.
3. Iguzkiaren ilkhitzetik etziten den lekhuraino laudatzeko da Jaunaren izena.
4. Jauna jendaia guziez gorago da, eta zeruan gainetik gorago da haren ospea.
5. Nor da gure Jainko Jaunaren idurikorik, zeinak hergoretan baitu bere egoitza,
6. Eta zeruan eta lurrean diren aphalei begiratzen baitiote;
7. Zeinak beharra lurretik jaikarazten baitu, eta erromesa samatsetik goratzen,
8. Hura jarrazteko aitzindariekin, bere populuko buruzagiekin;
9. Zeinak agor zen emaztekoa ezartzen baitu bere etxean haur-moltzoren ama bozkariotsu?

**CXIII. PSAL.**

1. Lauda Jauna.  
Israel ilkhi zenean Egiptotik, Jakob en etxea erdaldun hekien artetik,
2. Judea bilhakatu zen Jaunaren saildutegi eta Israel haren erreinu.
3. Itsasoak ikhusi eta ihes goan zen; Jordaneak gibelerat egin zuen.
4. Mendiak jauzi ziren ahariak bezala, eta mendixkak ardien bildotsak iduri.
5. Itsasoa, zer duk ihes goateko; eta hik, Jordanea, zergatik egin duk gibelerat?
6. Mendiak, zertako jauzi zarete ahariak bezala, eta zuek, mendixkak, bildotsak iduri?
7. Lurra ikharatu da Jaunaren aitzinean, Jakob en Jainkoaren aitzinean.
8. Harek aldatzen du harria ur-maeletara, eta kitorra ithur-uretara.

1. Ez guri, Jauna, ez guri, bainan zure izenari eman ezozu ospe,
2. Zure urrikalmendu eta egiaren ariaz, beldurrez-eta jendaiek noiz-bait erran dezaten: Non da horien Jainkoa?
3. Gure Jainkoa ordean zeruan da; bere gogoko zituen guziak egin ditu.
4. Jendaien jainko-itxurak dira zilhar eta urhe, gizonen eskuetakolanak.

5. Ahoa badute, eta ez dira mintzatzen; badituzte begiak, eta ez dute ikhusten.

6. Beharriak izan, eta ez dute aditzen; sudur-mizpirak izan, eta ez dute usnatzen.

7. Badituzte eskuak, eta ez dute haztatzen; oinak ere, eta ez dira ibiliko; beren zintzurretik ez dute oihurik egingen.

8. Hekien iduriko bilhaka beitez hekien egileak, eta hekietan sinheste duten guziak.

9. Israel en etxeak Jauna baithan iduki du bere pheskiza: hura da haren laguntza eta geriza.

10. Aaron en etxeak Jauna baithan iduki du bere pheskiza: hura da haren laguntza eta geriza.

11. Jaunaren beldur direnek Jauna baithan iduki dute beren pheskiza: hura da hekien laguntza eta geriza.

12. Jauna orhoit izan da gutaz eta benedikatu gaitu.

Benedikatu du Israel en etxea, benedikatu du Aaron en etxea.

13. Ttipi eta handi, benedikatu ditu Jaunaren beldur diren guziak.

14. Jaunak gehiago egin beza zuentzat, zuentzat eta zuen semeentzat.

15. Benedika bezaitzate Jaunak, zeru-lurrak egin dituenak.

16. Jaunarena da zeruko zerua; lurra aldiz, gizonen semeei eman izan daroete.

17. Hilek etzaituzte laudaturen, Jauna, ez-eta ifernura jausten diren guziek.

18. Bainan guk, bizi garenek, benedikatzen dugu Jauna, oraidanik eta mendeetaraino.

**CXIV. PSAL.**

1. Lauda Jauna.

Maithatu dut, zeren Jaunak entzunen baitu ene othoitzaren oihua;

2. Zeren ene alderat makhurtu baitu bere beharria; eta nik dei egingen diot ene egun orotan.

3. Heriotzeko oinhazeek inguratu naute, eta ifernuko athekek atzeman haute.

Hestura eta oinhazea aurkhitu ditut,

4. Eta dei egin diot Jaunaren izenari. Oi Jauna, athera zazu ene arima:

5. Urrikalmendutsua da Jauna eta zuzena, eta urrikaltzen da gure Jainkoa.

6. Jaunak begiratzen ditu ttipiak: aphaldu naiz eta atheratu nau.



7. Oi ene arima, itzul hadi hire phausura, zeren benedikatu baihau Jaunak;

8. Ezen khendu ditu heriotzeari ene bizia, nigarrei ene begiak, erori-koari ene oinak.

9. Jaunaren gogarako izanen naiz bizi direnen tokian.

### CXV. PSAL.

10. Lauda Jauna.

Sinhetsi dut; hargatik mintzatu izan naiz: bainan ni hainitz aphaudia izan naiz.

11. Ene asalduan erran izan dut: Gizon guziak gezurtiak dira.

12. Zer bihurtuko diot Jaunari niri egin darozkidan guzientzat?

13. Hartuko dut salbamenduko untzia, eta dei eginen diot Jaunaren izenari.

14. Jaunari bere populu guziaren aitzinean bihurtuko diozkat ene botuak:

15. Jaunaren aitzinean prezagarri handi da haren sainduen heriotzea.

16. Oi Jauna, zeren naizen zure zer-bitzaria, zure zerbitzaria eta zure neskatoaren umea,

Hautsi ditutzu ene lokharriak:

17. Eskainiko daretzut laudoriozko sakrifizio bat, eta dei eginen diot Jaunaren izenari.

18. Jaunari bihurtuko diozkat ene botuak bere populu guziaren aitzinean,

19. Jaunaren etxeko lorioan, zure erdian, oi Jerusaleme.

### CXVI. PSAL.

1. Lauda Jauna.

Lauda zazue Jauna, jendaia guziek; hura lauda zazue, populu guziek;

2. Zeren gure gainean finkatu baita haren urrikalmendua, eta Jaunaren zintasanak baitirau menderen mendetan.

### CXVII. PSAL.

1. Lauda Jauna. Jaunari aithor bihur diozozue, zeren den ona, zeren mendetan hedatzen den haren urrikalmendua.

2. Orai Israelek erran beza ona dela, haren urrikalmenduak mendetan badirauela.

3. Orai erran beza Aaronen etxeak, haren urrikalmenduak mendetan badirauela.

4. Orai erran bezate Jaunaren beldur diren guziek, haren urrikalmenduak mendetan badirauela.

5. Jaunari ene hesturatik dei egin diot, eta Jaunak entzun nau zabale-ra atheratuz.

6. Jauna da ene laguntza, ez naiz gizonak egin dezakedanaren beldur izanen.

7. Jauna da ene laguntza, eta ni nardatuko naiz ene etsaiez.

8. Hobe da Jaunaren baithan fidatzea gizonetan baino.

9. Hobe da Jaunaren baithan uste izatea aitzindarietan baino.

10. Jendaki guziek inguratu naute, eta Jaunaren izenean hekien ganik izan naiz aspertua.

11. Inguratzuz ingurakatu naute, eta Jaunaren izenean izan naiz hekien ganik aspertua.

12. Inguratu naute erleek bezala, sutan jarri dira sua lapharretan bezala, eta Jaunaren izenean izan naiz hekien ganik aspertua.

13. Bulkhatua izan naiz, erortzerat abian, eta Jaunak soinkatu nau.

14. Jauna da ene indarra, ene ospea, eta ene salbatzaile jarri da.

15. Bozkariozko eta esker onezko otsak dira prestuen olhetan.

16. Jaunaren eskuinak egin du indar; Jaunaren eskuinak goititu nau; Jaunaren eskuinak egin du indar.

17. Ez naiz hilen, bainan-bai biziko, eta goraki erranen ditut Jaunaren eginak.

18. Jaunak gogorki nau zehatu, ez nau ordean heriotzearen eskuetar eman.

19. Zabal daroztatuzue zuzenbideko atheak; hekietan sarthurik aithor Jaunari diot bihurturen.

20. Hau da Jaunaren athea, huntarik sarthu dira prestuak.

21. Aithor darotzut bihurturen, zeren nauzun entzun eta jarri zaren ene salbatzaile.

22. Etxe-egileek ez onhetsi harria, hura bilhakatu da izkina-harri.

23. Jaunak egin du hori, eta gure begientzat da miresgarri.

24. Hau da Jaunak egin duen eguna; bozkarioz jauz gaitezen egun.

25. Oi Jauna, salba nezazu! Oi Jauna, egizu onduz nohan!

26. Benedika bekio Jaunaren izenean heldu denari!

Benedikatu zaituztegu Jaunaren etxetik:

27. Jauna da Jainko, eta argia eman daroku.

Besta handi bat egizue abar hostotsuekin aldareko adarretaraino.

28. Zu zare ene Jainkoa eta zuri darotzut aithor bihurturen; zu zare ene Jainkoa, eta zu zaitut goretziren.





Aithor darotzut bihurturen, zeren nauzun entzun eta jarri zaren ene salbatzaile.

29. Aithor bihur diozogun Jaunari, zeren den ona, zeren bethi dirauen haren urrikalmenduak.

### CXVIII. PSAL.

1. Lauda Jauna.

**ALEPH.** Dohatsu bidean nothagabe, Jaunaren legean dabilzanak!

2. Dohatsu haren manamenduak ikhartzen dituztenak, eta hura bihotz oroz bilhatzen dutenak!

3. Ezen gaixtakeria egiten dutenak, haren bideetan ez dabilta.

4. Zuk duzu manatu zure manamenduak hertsiki begiratzea.

5. Oxala ene urhatsek har baletzate zure manamenduen begiratzeko bideak!

6. Ez nintake orduan ahalkez joa, zure manu guzietara begia ematean.

7. Aithor bihurturen darotzut bihotzeko zintasunean, zeren ikhasi baitut zure erabakien zuzentasuna.

8. Zure manamenduak zainduko ditut; ez nezazula alde bat utz bazterrerat.

**BETH.** 9. Gazteak nola xuxen dezake bere bidea? Zure erranak begiratuz.

10. Bilhatu zaitut ene bihotz oroz: ez nezazula urrunt zure manamenduetarik.

11. Bihotzaren barnean iduki ditut zure erranak, zure alderat bekhaturik ez egitea gatik.

12. Benedikatua zare, Jauna: irakhats dizadatzu zure manamenduak.

13. Ene ezpainetan derabilzkat zure ahoko erabaki guziak.

14. Zure lekhukotasunen bidean dut lakhet, aberastasan guzietan bezala.

15. Zure manamenduetan alhatuko dut gogoa, eta zure bideei begira egonen naiz.

16. Zure manamenduetan alhatuko dut gogoa, zure erranak ez ditut ahantziko.

**GIMEL.** 17. Dohain emozu zure zerbitzariari, bizkor nezazu, eta begiratuko ditut zure erranak.

18. Argi zatzu ene begiak eta zure legeko miresgarritasunak begietsiren ditut.

19. Ni arrotz bat naiz lurraren gainean: ez biatzatzu gorde zure manamenduak.

20. Zure legean lehiatz bethi hurrandua da ene arima.

21. Azurritu ditutzu hanpurutsuak; madarikatuak, zure manamenduetarik makhurtzen direnak.

22. Laidoa eta erdeinua khen zatzu ene gainetik, bilhatu ditudalakotz zure lekhukotasunak;

23. Ezen buruzagiak jarri eta ene kontra mintzatu dira; aldiz zure zerbitzaria, zure legeetan alhatzen zen;

24. Alabainan zure lekhukotasunak dira ene gogo-erabilketak, eta zure legeak ene bidari.

**DALETH.** 25. Lurrari eroria dago ene arima: bizkor nezazu zure hitzaren arabera.

26. Erakhutsi darozkitzut ene bideak, eta entzun nauzu: irakhats dizadatzu zure legeak.

27. Irakhats dizadazu zure legeen bidea; eta zure sendagailez alhatuko dut ene gogoa.

28. Unhaduraz lo-asmara erori da ene arima, hazkar nezazu zure agintzen arabera.

29. Tzarkeriako bidetik aldara nezazu, eta zure legearen arietan urrikal zakizkit.

30. Egiaren bidea dut hautatu, eta zure erabakiak ez ditut ahantzi.

31. Jauna, zure lekhukotasunei naiz eratziki; ez benezazu arthik ahalketara.

32. Zure manamenduen bideaz lasteregin dut, zabaldu duzunean ene bihotza.

**HE.** 33. Legetzat emadazu, Jauna, zure manamenduen bidea, eta hura bilhaturen dut bethi.

34. Emadazu ezagutza, eta ikhartuko dut zure legea eta ene bihotz oroz begiratuko dut.

35. Eraman nezazu zure manamenduen bideaz, zeren hura nahi izan baitut.

36. Ene bihotzari ixuria emozu zure lekhukotasunetara, eta ez jaramankeriara.

37. Bazter zatzu ene begiak, ez detzazten gauza hutsalak ikhus; zure bidean bizkor nezazu.

38. Zure hitza jar zazu zure zerbitzariaren baithan, egon dadientzat zure beldurrean.

39. Ene ganik khen zazu lotsatzen nauen laidoa, ezen gozoz betheak dira zure erabakiak.



40. Huna non zure legearen lehiaz nagon erretzen; zure zuzentasunaren arabera biziaren neza.
- VAU. 41.** Zure urrikalmendua, Jauna, ene gainera jauts bedi, eta zure ganikako salbamendua zure hitzaren arabera.
42. Eta hitz bat ihardetsiko diotet jazarrika hari zaizkitanei, zure solasetan dadukadala ene igurikimena.
43. Eta ez biazazu nihoiz-ere ahotik khien egiaren hitza, zeren zure solasetan baitu ene pheskiza.
44. Eta bethi begiraturen dut zure legea, bethi eta bethiren bethi.
45. Bide zabalaz nindabilan, zure manamenduak bilhatu nituelakotz.
46. Zure lekhukotasunez erregean aitzinean mintzatzen nintzen, eta ez nintzen ahalketara erortzen.
47. Eta zure manamendu maithatu nituenetan alhatzen nuen gogo.
48. Eta ene eskuak altxatu ditut zure manamendu maithatu ditudanei, eta zure legeetan nintzen alhatzen.
- ZAIN. 49.** Orhoit zaitezi zure zerbitzariari eman hitzaz, zeintaz niri eman baitarotazu ene pheskiza.
50. Hartarik izatu dut ene sosegua ene beheramenduan, zeren zure solasak bainau bizkortu.
51. Hanpurutsuak alde orotarik gaixtakerian hari zitaizkidan: bainan ni ez naiz zure legetik makhurtu.
52. Zure erabaki egundainotikakoez orhoit izan naiz, Jauna, eta sosegu hartu dut.
53. Erkhidura nausitu zait, bekhatoreek uzten zutelakotz zure legea.
54. Ene desterruko lekhuan zure erabaki zuzenak ziren ene kantuen bide.
55. Gabaz zure izenaz orhoit izan naiz, Jauna, eta begiratu izan dut zure legea.
56. Zure erabakiak bilhatu ditudalakotz gerthatu zait hori.
- HETH. 57.** Oi Jauna, ene zathia, erran dut zure legea idukiren dudala.
58. Zure begithartea othoiztu dut ene bihotz guziaz; urrikal zakizkit zure hitzaren arabera.
59. Ene bideez gogoeta egin izan dut, eta oinak itzuli ditut zure legeetara.
60. Abian naiz, eta ez lotsa zure manamenduen begiratzer.
61. Bekhatoreen lokharriek inguratu naute, eta ez dut halere ahantzi zure legea.
62. Gau minean jaikitzen nintzen zuri aithor bihurtzera zure legeko erabaki zuzenen gainean.

63. Phartedun naiz zure beldur diren guziekin eta zure manamenduak zaintzen dituztenekin.
64. Zure urrikalmenduaz lurra bethea da, Jauna; zure legeak irakhats dizadatu.
- TETH. 65.** Zure zerbitzariari ongia egin diozu, Jauna, zure hitzaren arabera.
66. Irakhats dizadatu ontasuna, zuhurtasuna, jakitatea, zeren sinheste izan dudan zure manamenduetan.
67. Beheratua izan nindadien aitzinean, hobendun erori nintzen: hargatik zaindu dut zure legea.
68. Ona zare zu, eta zure ontasunean irakhats dizadatu zure legeak.
69. Hanpurutsuen gaixtakeria metatua da ene gainean: nik orduan ene bihotz guziaz ikharturen ditut zure manamenduak.
70. Esnea bezala manthoindu da hekien bihotza, nik aldiz zure legean alhatu dut ene gogo.
71. Enetzat on da zeren beheratu nauzun, ikhas detzadan zure legeak.
72. Zure ahoko legea enetzat hobe da, urhe eta zilhar metak baino.
- JOD. 73.** Zure eskuek egin eta orhatu naute: indazu adimendua ikhas ditzadan zure manamenduak.
74. Zure beldur direnek ikhusiko naute eta boztuko dira, zure hitzean ezarri dudalakotz ene igurikimen guzia.
75. Ezagutzen dut, Jauna, zure erabakiak zuzenezkoak direla, eta zuzenki beheratu nauzula.
76. Zure urrikalmendua ethor bedi ene sosegatzera, zure zerbitzariari eman diozun hitzaren arabera.
77. Ethor bekizkit zure urrikaltzapenak, eta biziko naiz, zeren zure legeaz baitira ene gogo-erabilketak.
78. Ahalkez estaliak izan beitez hanpurutsuak, ene gainean bidegabeiki erabili dutelakotz gaixtakeria: nik aldiz, zure manamenduetan alhatzen nuen gogo.
79. Ene alde itzul beitez zure beldur direnak, eta zure lekhukotasunan berri dakitenak.
80. Ene bihotza nothagabe bilhaka bedi zure legeetan biziz, ez nadiantzat izan ahalketara arthikia.
- CAPH. 81.** Ene arima iraungi da zure ganikako salbamenduaren iguri, eta zure hitzean ezarri dut ene pheskiza guzia.
82. Ene begiak iraungi dira zure agintzen ondoreen iguri, ziotelarik: Noiz emanen darotazu sosegu?



83. Ezen bilhakatu naiz zahagi bat izotzean bezala: ez ditut halere ahantzi zure manamenduak.
84. Zenbat egun ditu zure zerbitzariak, zuzenari bidea eman diozozun arteo ene jazarleen gainean?
85. Gaixtaginek erasi darozkidate elhe huts asko, bainan ez zure legearen idurikorik.
86. Zure manamendu guziak egia fiera dira: ene etsaiek bidegabeki jazarri darotade: lagun nezazu.
87. Xahutzer naute lurtean: nik ordean ez ditut bazterrerat utzi zure manamenduak.
88. Bizkor nezazu zure urrikalmenduaren arabera, eta begiratuko ditut zure ahoko lekhukotasunak.
- LAMED. 89. Zure hitzak, Jauna, bethiren bethi dirauka zeruan.
90. Zure egiak dirauka mendetik mendera: zuk asentatu duzu lurra, eta badirau.
91. Egunak ihardukitzen du zuk manatu urhatsean, zeren orok zerbitzatzen baitzaituzte.
92. Zure legeaz izan ez balira ene gogoko erabiltetak, orduan behar-bada galduko nintzen ene beheramenduan.
93. Behinere ez ditut ahantziko zure manamenduak, zeren hekien bidez bainauzu bizkortu.
94. Zurea naiz, salba nezazu, ezen zure manamenduak bilhatu ditut.
95. Gaixtaginek iguriki naute, ni galdu nahiz; bainan ezagutu ditut zure lekhukotasunak.
96. Gauza akhabatu guzien akhabantza ikhusi dut; bainan zure legea guziz da hedatua.
- MEM. 97. Nola maithatu dudan, Jauna, zure legea! Hartan alhatzen dut egun guzian ene gogoa.
98. Ene etsaiak baino umoago egin nauzu zure legeaz, zeren hari bainago bethi iratxikia.
99. Adimendu handiagoa izatu dut ene irakhasle guziek baino, zeren zure lekhukotasunak izatu baitira bethi ene gogoaren alhabide.
100. Adimenduz gainditu ditut zaharrak, zeren zure manamenduak ditudan bilhatu.
101. Ene oinak bide tzar guzitarik debekatu ditut, zure hitzaren begiratzea gatik.
102. Zure erabakietarik ez naiz makhurtu, zeren zuk eman izan darotazun legea.

103. Zeinen gozo zaizkidan zure solasak! Eztia ene ahoari baino gehiago.
104. Zure manamenduez izatu naiz argitua: hargatik higuindu ditut tzarkeriako bide guziak.
- NUN. 105. Zure hitza kriselu bat da ene urhatsentzat, eta argi bat ene ibilbideentzat.
106. Zin egin eta burutan hartu dut zure zuzentasuneko erabakien zaintzea.
107. Alde orotarik beheratua naiz, Jauna; bizkor nezazu zure hitzaren arabera.
108. Begitharte egiozute, Jauna, ene ahoak bere nahitara egin botuei, eta irakhats dizadatzu zure erabakiak.
109. Ene arima ene eskuen menturan da bethi, eta ez dut ahantzi zure legea.
110. Artea hedatu darotade gaixtaginek, eta ez naiz zure manamenduetarik baztertu.
111. Bethiko primantzetan ardietsi ditut zure lekhukotasunak, zeren baitira ene bihotzaren bozkarioa.
112. Ene bihotzari ixuria eman diot zure legeen begiratzera, sariaren arietan.
- SAMECH. 113. Gaixtaginak hastio izan ditut, eta maithatu dut zure legea.
114. Ene laguntza eta ene habea zare zu, eta zure hitzean izatu dut ene igurikitza handia.
115. Urrun zaitezte, gaixtaginak, ni ganik; eta ikharturen ditut ene Jainkoaren manamenduak.
116. Esku emadazu, zure hitzaren arabera, eta biziko naiz, eta ez biadzazu urmariaraz ene psheskiza.
117. Lapin nezazu eta salbatua izanen naiz, eta zure legeak gogoan erabiliren ditut bethi.
118. Arbuiatzen ditut zure erabakietarik gibelatzen direnak, tzarrak direlakotz hekien gogoetak.
119. Lege-hauste batzuentzat iduki ditut lurreko bekhatore guziak; hargatik maithatu ditut zure lekhukotasunak.
120. Zure beldurraz alderen-bertze iragan zazu ene haragia; ezen zure erabakien beldur naiz.
- AIN. 121. Zuzentasunean ibili naiz eta zuzenari eman diot bere bidea: ez benezazu arthik ene belzten hari direnen eskuetara.



122. Onerako laguntza egin diozozu zure zerbitzariari: ez benezate beltz hanpurutsuek.
123. Zure ganikako salbamenduaren eta zure zuzentasuneko agintza-ren iguri, ene begiak iraungitu dira.
124. Zure zerbitzariarekin egizu zure urrikalmenduaren arabera, eta irakhats dizadatzu zure legeak.
125. Zure zerbitzaria naiz ni: indazu adimendua, ardiets detzadan zure lekhukotasunak.
126. Ordu da egiteko, Jauna; ezeztatu dute zure legea;
127. Hargatik maithatu ditut zure manamenduak, urhea eta topaza baino gehiago;
128. Hargatik naramanzkan ene urhatsak zure manamendu guzien arabera, eta higuin izan ditut tzarkeriako bide guziak.
- PHE. 129** Ederresgarri dira zure lekhukotasunak: aria hortaz ikhartu ditu ene arimak.
130. Zure solasen agerpenak argitzen du, eta xumeei adimendua ematen.
131. Ideki izan dut ahoa eta eneganatu dut zure hatsa, zeren bainin-dagoen zure manamenduen lehiaz.
132. Begira dizadazu, eta urrikal zakizkit, zure izenaren beldur dire-nei egiten ohi zaren bezala.
133. Zure manamenduen arabera bidatu ditut ene urhatsak, eta tzar-keriarik ez bekik behinere nausi.
134. Libra nezazu gizonen kalomnietarik, begira detzadan zure mana-menduak.
135. Zure zerbitzariaren gainera argiaraz diozozu zure begitharteari, eta irakhats dizadazu zure legea.
136. Ene begiek ixuri dituzte nigar-ithurriak, zeren ez duten zure legea begiratu.
- SADE. 137.** Zuzena zare, Jauna, eta zuzena da zure erabakia.
138. Manatu duzu begira detzagun zuzentasuna, zure lekhukotasunak eta zure egia.
139. Iharrarazi nau ene kharrak, ene etsaiek ahantzi dituztelakotz zure hitzak.
140. Zure solasa borthizki khaldatua da, eta zure zerbitzariak maitha-tu du hura.
141. Haur gazte bat naiz eta erdeinatua: ez dut ahantzi zure legea.
142. Zure zuzentasuna, bethiereko zuzentasuna da, eta zure legea egia bera da.

143. Hestura eta athekek atzeman naute: zure manamenduak dira ene gogoaren alhabideak.
144. Zure lekhukotasunak bethiereko zuzentasuna dira; emadazu adi-mendua, eta biziko naiz.
- COPH. 145.** Ene bihotz oroz egin dut oihu: Entzun nezazu, Jauna: bilhatuko ditut zure legeak.
146. Zuri egin dut oihu: Salba nezazu; begiratuko ditut zure mana-menduak.
147. Goiz lehenetik abiatu naiz, eta deihadar egin dut, zeren zure hitze-tan ezarri baitut ene igurikimen guzia.
148. Argia baino lehen zure gana goititu ditut begiak, zure solasez alhatzeko ene gogoia.
149. Ene mintzoa adi zazu, Jauna, zure urrikalmenduaren arabera; eta zure zuzentasunaren arabera hazkar zazu ene bizia.
150. Ene jazarleak gaizkiari hurbildu zaizko; urrundu dira, berriz, zure legetik.
151. Hurbil zare, Jauna; eta zure bide guziak egia bera dira.
152. Hastetik ezagutu dut zure lekhukotasunetarik, bethikotzat asen-tatu ditutzula.
- RES. 153.** Iklusazu ene beheramendua, eta athera nezazu, zeren ez baitut ahantzi zure legea.
154. Juia zazu ene egitekoa eta berreros nezazu: bizia bihur dizadazu zure hitzaren gatik.
155. Bekhatoreetarik urrun dago salbamendua, ez dituztelakotz zure legeak bilhatu.
156. Handiak dira, Jauna, zure urrikalpenak: biziarez nezazu zure erabaki zuzenaren arabera.
157. Hainitz dira niri jazartzen eta ene hestutzera hari direnak: zure lekhukotasunetarik ez naiz makhurtu.
158. Ikhusi ditut legea hausten zutenak, eta ihartu naiz zeren etzituz-ten zure hitzak begiratzen.
159. Jauna, ikhusazu nola maithatu ditudan zure manamenduak zure urrikalpenean emadazu bizia.
160. Egia da zure hitz guzien erroa; zure zuzentasunaren erabakiek menderen mendetan dute iraunen.
- SIN. 161.** Ariarik gabe jazarri darotet buruzagiek, eta ene bihotza zure solasen beldurrez egon da.
162. Zure hitzen gainean bozkariotan sarthuko naiz, buluzkin handi batzu atzeman dituen iduri.



163. Higuintzetan izatu dut eta gaitzetsi gaixtakeria; aldiz zure legea maite izan dut.

164. Egunean zazpitan laudorioak kantatu darozkitzut zure zuzentasuneko erabakien gainean.

165. Bake handi bat da zure legea maite dutenentzat, eta behaztopa-gailurik hekientzat ez da.

166. Zure ganikako salbamenduaren begira nindagoen, Jauna, eta maithatu ditut zure manamenduak.

167. Ene arimak begiratu eta biziki maithatu ditu zure lekhukotasunak.

168. Zaindu ditut zure manamendu eta lekhukotasunak, ezen ene bide guziak zure aitzinean ziren.

TAU. 169. Zure aitzinera, Jauna, ager bedi ene othoitz: adimendua emadazu zure hitzaren arabera.

170. Zure aitzinera sar bedi ene galdea: athera nezazu zure hitzaren arabera.

171. Ene ahoak ozenki kantaturen darotzu himno bat, irakhatsi darozkiketzonean zure legeak.

172. Ene mihiak errepikaturen ditu zure hitzak, zeren zure manamendu guziak zuzentasuna bera baitira.

173. Zure eskuak egin beza ene salbatzera, zeren naizen zure manamenduez hautatu.

174. Zure ganikako salbamenduaren lehia hartu dut, Jauna, eta zure legea izatu da ene gogoaren alhabidea.

175. Bizi bedi ene arima, eta laudaturen zaitu; eta zure erabakiek emanen darotade laguntza.

176. Galdu den ardia bezala errebelatu naiz: bilha zazu zure zerbitzaria, ez dituelakotz ahantzi zure manamenduak.

### CXIX. PSAL.

1. Mailetako kantika.

Jaunari deihadar egin diot hesturan nintzenean, eta entzun izan nau.

2. Jauna, ene arima athera zazu gaixtaginen ezpainerarik eta mihi maltzurretik.

3. Zer emanen, edo zer ekharriko daie hire mihi maltzurarentzat?

4. Hazkarraren gezi zorrotzak ikhatz erregarriekin.

5. Zorigaitz niri, zeren luzeak izatu diren ene arrotzasuneko egunak! Zedarren daudezenekin egin izan dut ene egoitza;

6. Luzez izatu da arrotz ene anima.

7. Bakea hastio zutenekin baketiar izatu naiz: mintzatzen natzaiotenean, ariarik gabe jazartzen zarotedan.

### CXX. PSAL.

1. Mailetako kantika.

Begiak goititu ditut mendietara, nondik ethorriko baitzait laguntza.

2. Ene laguntza ethorriko da Jauna ganik, zeinak egin baititu zeru-lurrak.

3. Zu zaintzen zaituenak ez beza utz khordokatzeraz zure oina, eta ez bedi lohakhar.

4. Huna non ez den, ez khuman, ez lotan sarthuko Israel zaintzen duena.

5. Jaunak zaintzen zaitu; Jauna, zure geriza, zure esku eskuinaren gainean dago.

6. Eguzak etzaitu iguzkiak erreko, ez-etare gabaz ilhargiak.

7. Jaunak zaintzen zaitu gaitz guzietarik; Jaunak zain beza zure arima.

8. Jaunak zain betza zure sar-ilkhiak oraidanik bethi guziraino.

### CXXI. PSAL.

1. Mailetako kantika.

Boztu naiz erran daroztedan solas haukietan: Goanen gare Jaunaren etxera.

2. Gure oinak zure lorioetan baratuak zaudezen, oi Jerusaleme.

3. Jerusaleme, zeina altxatzen baitute hiri bat bezala, eta zeintan nork berak izanen baitu bere zathia.

4. Alabainan hunat igan dira leinuak, Jaunaren leinuak, Israelen lekhukotasuna, Jaunaren izenari aithor bihurtzeko.

5. Ezen hemen jarri dituzte justiziako alkhiak, Dabiden etxearen gainean asentatu alkhiak.

6. Galda zatzue, Jerusalemen bakearen onetan direnak, eta nasaizia-eren erdian izan beitez zu maite zaituztenak.

7. Bakea izan bedi zure hazkargailuetan eta nasaizia zure dorreetan.

8. Ene anaia eta hurbilen gatik aiphatzen dut bakea zuretzat.

9. Gure Jainko Jaunaren etxea gatik, zuretzat bilhatu ditut onak.

### CXXII. PSAL.

1. Mailetako kantika.

Zure gana goititu ditut begiak, oi zeruetan zaudezena.



2. Huna bada, nola muthilen begiak baitaudezi beren nausien kheinuei,

Nola neskatoaren begiak baitaudezi haren etxekandrearen kheinuei, hala gure begiak ere gure Jainko Jaunari daudezi, urrikal dakigun arteo.

3. Urrikal zakizkigu, Jauna, urrikal zakizkigu, zeren gaudezen erdeinu askoz betheak;

4. Gure arima hainitz bethea da; aberatsen laidagarri eta hanpurutsuen erdeinagarri gare.

### CXXIII. PSAL.

1. Mailetako kantika.

Baldin gure baithan izan ez bazen Jauna, Israelek orai erran beza:

2. Baldin gure baithan izan ez bazen Jauna,

Gizonak gure gainera jaikitzen zirenean,

3. Bizirik beharbada iresten gintuzten.

Gure kontra bizten zenean hekien hasarrea,

4. Urak beharbada iresten gintuen.

5. Gure arima uharretik iragan da; beharbada iragan zitakeen ezin jasanen zuen ur batetik.

6. Benedika bekio Jaunari, zeinak ez baigaitu eman atzematera hekien hortzei.

7. Gure arima, etxexoria iduri, atheratua izan da ihiztarien artetik. Artea hautsia, eta gu libratuak izan gare.

8. Zeru-lurrak egin dituen Jaunaren izenean da gure laguntza.

### CXXIV. PSAL.

1. Mailetako kantika.

Jaunaren baithan fidatzen direnak, Siongo mendia bezala dira: behinere ez da khordokatua izanen,

2. Jerusalem egoten dena.

Mendiak dira haren inguruan, eta Jauna bere populuaren inguruan oraidanik eta mendeetaraino;

3. Ezen Jaunak ez du bekhatoreei utziko manamendua prestuen primantzaren gainean, prestuek gaixtakeriara heda ez detzazten beren eskuak.

4. Jauna, ongia egiozute prestuei eta bihotzez zuzenak direnei.

5. Bainen bide bihurrietara makhurtzen direnak, Jaunak eramanen ditu tzarkeria-egileekin. Bakea izan bedi Israelen gainean.

### CXXV. PSAL.

1. Mailetako kantika.

Jaunak gathibutasunetik bihurraztean Sion, sosegatuak direnak bezala eginak izan ginen.

2. Orduan bozkarioz bethea izan da gure ahoa eta arinduraz gure mihia.

Orduan jendaien artean erranen dute: Jaunak ospe atheratu du horien alde egin duenaz.

3. Guretzat egin duenaz ospe atheratu du Jaunak, eta gu bozkariotan jarri gare.

4. Ur-uharra hegoa denean bezala, bihurraz gaitzatu, Jauna, gure gathibutasunetik.

5. Nigarretan eraiten dutenek, bozkariotan biduko dute.

6. Haziak arthikiz bazoazen haratekoan, eta nigar egiten zuten.

Bainan gibeleratekoan bozkariotan ethorriko dira beren kharbak soinean.

### CXXVI. PSAL.

1. Salomonen mailetako kantika.

Jaunak egiten ez badu etxea, alferretan nekhatu dira haren egiten hari direnak.

Jaunak zaintzen ez badu hiria, alferretan beilatzen du haren zain dagoenak.

2. Alfer duzue argiaren aitzin jaikitzea: jarri ondoan xuti zaitetze, atsekabezko ogiaren jaten hari zaretanak.

Loa bere maiteei eman dioketenean,

3. Huna Jaunaren primantza, semeak; saria, sabeleko fruitua.

4. Hazkarraren eskuan nola geziak, hala izanen dira iharrosiak direnen semeak.

5. Dohatsu gizona hekiez ikhusiko duena bere lehia bethea! Ahalketara ez da eroriko, athean bere etsaiei mintzatuko denean.

### CXXVII. PSAL.

1. Mailetako kantika.

Dohatsu Jaunaren beldur diren guziak, haren bideetan dabilzanan!

2. Zorion duzu, zeren haziko baitzare zure eskuetako lanetik, eta ongi helduko zaitzu.

3. Zure emaztea, mahats-aihen gori bat iduri izanen da zure etxearen aldamenetan.



Zure semeak, olibaren urthumeak iduri izanen dira zure mahainaren inguruan.

4. Horra nola benedikatua izanen den Jaunaren beldur den gizona.
5. Sion gaisetik benedikata bezaitza Jaunak, eta Jerusalemeko onak ikhüsiren ditutzu balin ba zure biziko egun orotan.
6. Eta ikhüsiren ditutzu balin ba zure semeen semeak, Israelen gainean bakea.

### CXXVIII. PSAL.

1. Mailetako kantika.  
Orai erran beza Israelek: Ardura jazarri darotade ene gaztetasunetik.
2. Ardura jazarri darotade ene gaztetasunetik, eta halere deus ezin egin darotade.
3. Gaixtaginak ene bizkarraren gainean haritu dira beren lanean; irunarazi diote beren tzarkeriari.
4. Jainko zuzenak lehertuko ditu gaixtaginen buruak.
5. Sion gaitzetsi duten guziak ahalkatuak izan beitez eta gibelerat egin bezate.
6. Bilhaka beitez hegaztegiatoko belharra iduri, zeina ihartzen baita khendu baino lehen,
7. Zeintaz ez baitu uztazaleak bere eskua betheko, ez-eta bere bap-hoa eskumenen biltzen hari denak.
8. Eta bideantek ez diote erran: Jaunaren benedizioea izan bedi zuen gainean: Jaunaren izenean benedikatzan zaituztegu.

### CXXIX. PSAL.

1. Mailetako kantika.  
Jauna, leze beheretarik zure gana arthiki dut deihadar:
2. Jauna, entzun zazu ene mintzoa.  
Zure beharriak atzarriak izan beitez ene othoitzaren deiari.
3. Gaizkiak begietan idukitzen baditutzu, Jauna; Jauna, nork iraunen ahal du?
4. Zure baithan delakotz barkhatiartasuna eta zure legearen gatik iguriki zaitut, Jauna.  
Zure hitzean iguriki du ene arimak;
5. Ene arimak Jaunaren baithan izan du bere pheskiza.
6. Goizeko beilatik arratseraino, Israelek Jauna baithan iduk beza bere pheskiza;

7. Zeren Jaunaren baithan baitira urrikalmendua eta berrerospen nasaia,
8. Eta harek berak berrerrosiko baitu Israel bere gaizki guzietarik.

### CXXX. PSAL.

1. Dabiden mailetako kantika.  
Jauna, ez da hantu ene bihotza, eta ez dira goratu ene begiak.  
Jauna, ez naiz handiarena eginez ibili, ez-eta nitaz gorago diren sendagailetan.
2. Ene gogoetak ez baziren aphaltak, bainan hantu badut ene bihotza; Nola baita amaren bulharretik higuindu haurra, hala izan bedi sarizatua ene arima.
3. Israelek Jauna baithan iduk beza bere pheskiza orai eta gero guziraino.

### CXXXI. PSAL.

1. Mailetako kantika.  
Jauna, orhoit bekizu Dabid eta haren eztitasun guzia,
2. Nola zin egin dioen Jaunari eta botu Jakobon Jainkoari.
3. Ez ahal naiz ene etxe-barnera sarthuko, ez ahal naiz ene etzateko ohera iganen,
4. Ez ahal diotet emanen lorik ene begiei, ez-eta khumarik ene behazalei,
5. Ez-etare phausurik ene oloei, atzeman diozodan arteo lekhu bat Jaunari, tabernakle bat Jakobon Jainkoari.
6. Entzutez dakigu Efratan zela; oihaneko zelhaietan aurkhitu dugu.
7. Haren tabernaklean sarthuko gare; haren oinak baratu diren tokian adoratuko dugu.
8. Jaiki zaitte, Jauna, zure phausa-lekhura, zu eta zure saindutasuneko arkha.
9. Zure aphezek zuzentasuna jauntz bezate, eta bozkarioz jauz beitez zure sainduak.
10. Zure zerbitzari Dabiden kariak ez bezazu aldara zure Kristoren begitharte.
11. Jaunak Dabidi egia batez zin egin dio, eta ez du hutsik igorriko; erran izan dio: Zure sabeletikako umea ezarriko dut zure tronua gainean.
12. Baldin zure semeek begiratzen badituzte enekilako patua eta ene manamendu irakhatsiko diozkatedan haukiek,



Eta hekien semeek ere bethi guziraino; jarriko dira zure tronuan;

13. Ezen Jaunak hautatu du Sion, hura hautatu du bere egon-lekhutzat.

14. Hura da menderen mendetako ene phausa-lekhua; han eginen dut ene egoitza, zeren hura baitut hautatu.

15. Benedizioez benedikaturen dut hango alharguna, eta hango beharrak ogiz ditut aseko.

16. Salbamenduaz jauntziko ditut hango aphezak, eta zure sainduak bozkarioz jauziko dira.

17. Han agertuko dut Dabiden adarra: argi bat aphaindu diot ene Kristori.

18. Ahalkez estaliko ditut haren etsaiak; aldiz haren gainera loratuko da ene saindutasuna.

### CXXXII. PSAL.

1. Dabiden mailetako kantika.

Huna zein on eta gozo den anaiak elkharrekin egotea!

2. Hala-nola buruaren gainean gantzugailua, bizarrera jautsi zena, Aaronen bizarrera;

Haren soinekoaren bazterrera jautsi zena;

3. Hala-nola Hermongo ihintza, Siongo mendira jausten dena.

Ezen batasunaren gainera igortzen ditu Jaunak benedizioea eta bizia bethi guziraino.

### CXXXIII. PSAL.

1. Mailetako kantika.

Orai benedika zazue Jauna, Jaunaren zerbitzari guziek.

Jaunaren etxean, gure Jainkoaren tenploko lorioetan zaudeztenek,

2. Gabaz zuen eskuak haren saindutegira heda zatzue, eta benedika zazue Jauna.

3. Siondik benedika bezaitza Jaunak, zeru-lurrak egin dituenak.

### CXXXIV. PSAL.

1. Lauda Jauna.

Lauda zazue Jaunaren izena; lauda zazue Jauna, haren zerbitzariak.

2. Jaunaren etxean, gure Jainkoaren tenploko lorioetan zaudeztenek,

3. Lauda zazue Jauna, zeren Jauna ona baita; psalmoak kanta zatzue haren izenari, zeren gozoa baita.

4. Alabainan Jaunak beretzat hautatu du Jakob, bere-beretzat Israel.

5. Ezen neronek ezagutu dut Jauna handia dela, eta gure Jainkoa jainko guzien gainekoa.

6. Nahi izan dituen guziak egin ditu Jaunak zeru-lurretan, itsaso eta ondar-lezeetan.

7. Harek erakhartzen ditu hedoiak lurraren bertze burutik, eginen ditu ximistak uharrean,

Atheratzen ditu haizeak bere khutxetarik,

8. Jo izan ditu Egiptoko lehen-sorthuak gizonetik abereetaraino,

9. Eta igorri ditu, oi Egipto, ezagutkariak eta sendagailak hire erdira, Faraonen eta haren zerbitzarien gainera.

10. Harek jo izan ditu asko jendaia, eta hil errege indar handitakoak,

11. Sehon Amorhearren errege, Og Basango errege, eta Kanaango erresuma guziak;

12. Eta hekien lurra eman du primantzetan, primantzetan Israelgo bere populuari.

13. Jauna, zure izenak iraunen du bethi guzian; Jauna, zure orhoitza-pena iraganen da gizaldira eta gizaldira;

14. Ezen Jaunak juiatuko du bere populua, eta hautsia izanen da bere zerbitzarien othoitzez.

15. Jendaien jainko-itxurak dira zilhar eta urhe, gizonen eskuetako lanak.

16. Ahoa badute, eta ez dira mintzatuko; begiak badituzte, eta ez dute ikhusiko;

17. Beharriak badituzte, eta ez dute adituko, ezen-eta hatsik ez da hekien ahoan.

18. Hekien egileak hekien iduriko egin beitez, eta hekietan sinheste hartzen duten guziak ere.

19. Israelen etxea, benedika zazu Jauna; Aaronen etxea, benedika zazu Jauna;

20. Lebiren etxea, benedika zazu Jauna; Jaunaren beldur zaretenak, benedika zazue Jauna.

21. Sion gainetik benedikatua izan bedi Jauna, bere egoitza Jerusalem duena.

### CXXXV. PSAL.

1. Lauda Jauna.

Jaunari aithor diozozue bihur, zeren den ona; zeren bethirainokoa den haren urrikalmendua.





2. Jainkoen Jainkoari aithor diozozue bihur, zeren bethirainokoa den haren urrikalmendua.
3. Jaunen Jaunari aithor diozozue bihur, zeren bethirainokoa den haren urrikalmendua.
4. Harek sendagaila handiak egin ditu berak, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
5. Adituki egin ditu zeruak, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
6. Harek gogortu du lurra uren gainean, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
7. Harek egin ditu argizagi handiak, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
8. Harek egin du iguzkia egunaren eskuko, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
9. Harek gauaren eskuko egin ditu ilhargia eta izarrak, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
10. Harek jo du Egipto hango lehen-sortuekin, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
11. Harek erakharri du Israel Egiptoarren erditik, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
12. Esku indardun eta beso goraz erakharri du, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
13. Harek bi aldetara urratu du itsaso Gorria, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
14. Eta erakharri du Israel haren erditik, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
15. Eta itsaso Gorrira eragotzi ditu Faraon eta haren armada, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
16. Harek erakharri du bere populua mortua barna, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
17. Harek jo ditu errege handiak, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
18. Eta errege hazkarrak hil ditu, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
19. Hil du Sehon, Amorhearren errege, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
20. Eta hil du Og, Basango errege, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.

21. Eta primantzetan eman du hekien lurra, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
  22. Primantzetan eman dio bere zerbitzari Israeli, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
  23. Beheramendutan ginelakotz orhoitu da gutaz, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
  24. Eta gure etsaietarik berrerosi gaitu, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
  25. Harek ematen du jatekoa haragizko guziei, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
  26. Aithor zeruko Jainkoari diozozue bihur, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.
- Jaunaren Jaunari aithor diozozue bihur, zeren bethirainokoa baita haren urrikalmendua.

#### CXXXVI. PSAL.

1. Dabiden psalmoa Jeremiasi.  
Babilonako hibaien bazterretan, han jarri gare eta nigarrari eman Sionez orhoitzean.
2. Haren erdian sahatsetarik dilindan ezarri ditugu gure musikako tresnak,
3. Zeren han, gu gathibu eraman gaituztenek galdegin baitarozkigute gure kantuetako hitzak.  
Eta gu erakharri gaituztenek erran darokute: kanta dizaguzue Siongo kantiketakik himno bat.
4. Lur atzean nola kantatuko dugu Jaunaren kantika?
5. Ahantzen bazaitut, oi Jerusaleme, ene eskuina ahantzia izan bedi.
6. Ene mihia ene aho gainari josia geldi bedi, zutaz ez banaiz orhoitzen, Ez balin badut Jerusaleme ezartzen ene bozkarioaren hastapentzat.
7. Orhoit zaitte, Jauna, Edomen semeez, Jerusalemen xahutzeko egunean. Hekiek zioten: Ezezta, ezezta zazue hortan azken asenturaino.
8. Babilonako alaba zorigaixtokoa, dohatsu hiri bihurturen dainana hik guri egin gaizkiak!
9. Dohatsu hartuko dituen hire haur xeheak eta harriaren gainean phorroskatuko dituen!

#### CXXXVII. PSAL.

1. Dabidi berari.



Ene bihotz guziz, Jauna, darotzut aithor bihurtuko, zeren ene ahoko hitzak dituzun entzun.

Aingeruen aitzinean kantatuko darozkitzut psalmoak;

2. Adoran egonen naiz zure tenplo sailduan eta zure izenari diot bihurturen aithor,

Zure urrikalmenduaren eta zure egiaren gainean, zeren duzun guziez gorago handietsi zure izen saildua.

3. Edozein egunez dei egin dezazudan, entzun nezazu; indarra berhatuko duzu ene ariman.

4. Lurreko errege guziek aithor eman biazazute, Jauna, zeren aditu baitituzte zure ahoko hitz guziak.

5. Eta Jaunaren bideetan kanta bezate, Jaunaren ospea zeinen den handia;

6. Jauna gora dela, eta halere begiratzen diotela aphaleko gauzei, eta gorak urrundani ezagutzen dituela.

7. Hesturaren erdian ibiltzen banaiz, bizkorturen nauzu; ene etsaien sepharen gainera hedatu duzu eskua, eta zure eskuak salbatu izan nau.

8. Jaunak asperkunde atheratuko du ene orde: Jauna, bethirainokoa da zure urrikalmena; ez bezazu arbuia zure eskuetako lana.

#### CXXXVIII. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.

Jauna, frogatu eta ezagutu nauzu;

2. Jakin duzu noiz jarri eta noiz jaiki naizen.

3. Urrundik ezagutu ditutzu ene gogoetak; ene ibilbide eta itzul-inguruak ikhartu ditutzu;

4. Eta aitzinetik ikhusi ditutzu ene urhadak, solasa ene mihian izan dadien baino lehen.

5. Horra, Jauna, gauza guziak jakin ditutzu, berriak eta zaharrak; zuk egin nauzu, eta ene gainean ezarri duzu zure eskua.

6. Nitaz gorago harrigarriki heltzen da zure jakintasuna; hedadura handia du eta ezin helduko naiz hartara.

7. Norat goanen naiz zure izpirituaren aitzinetik, eta norat ihes egin dut zure begietarik?

8. Zerura igaiten banaiz, zu han zare; ifernura jausten banaiz, orobat han zare.

9. Goizetik hartzen badituzte ene hegalkak, eta itsasoaren bertze bazter-rrera balin banoha egotera,

10. Harat ere zure eskuak eramanen nau, eta zure eskuinak idukiko nau.

11. Eta erran izan dut: Beharbada ilhunbeek gordeko naute. Eta gaua ene argigarri da ene atseginpetan;

12. Zeren ilhunbeek goibeldurarik ez baitukete zuretzat, eta gaua eguna bezala argituko baita: gauaren ilhuna zuretzat da hala-nola egunazko argia.

13. Zeren baitzare ene geltzurrinen jabe, gerizatu nauzu ene amaren sabeletik.

14. Aithor bihurtuko darotzut, Jauna, zeren harrigarri den bezala agertu baituzu zure handitasuna: ederresgarriak dira zure egintzak, eta ongi badaki ene arimak.

15. Etzaizkitzun gordeak ene hezurak, zeronek gordeki egin ditutzu-nak, eta ene izatea lurraren barnean egin duzuna.

16. Zure begiek ikhusi naute oso ez nintzenez oraino, eta gizon guziak zure liburuan iskribatuak dira; hekien egunak eginen dira, eta bizkitartean hekietarik nihor ez da oraino.

17. Bada, Jainkoa, zure adiskideak hainitz ohoratuak zaizkit; hekien buruzagitasuna hainitz hazkartua da.

18. Khondatuko dituzte, eta legar-izpiak gaudituko dituzte; atzarri naiz, eta zurekin naiz oraino.

19. Bekhatoreak hiltzen badituzte, Jainkoa, urrun zakizkidate, gizon odolkoikiak;

20. Zeren erraten baituzue zuen gogoan: Alferretan hartuko dituzte haren hiriak.

21. Ez othe dituzte hastiatu, Jauna, zu higuintu zaituztenak, eta ez othe naiz ihartu zure etsaiak ikhusiz?

22. Higuintza osoaz higuintu dituzte, eta ene etsai egin dira.

23. Froga nezazu, Jainkoa; ene bihotzaz jakintsun izan zaitezi; egin dizadatzu galdeak eta ezagut zazu ene bidexkak.

24. Eta ikhusazu hean baden ene baithan tzarkeriako biderik, eta eraman nezazu bethiereko bidera.

#### CXXXIX. PSAL.

1. Azkeneraino, Dabiden psalmoa.

2. Athera nezazu, Jauna, gizon gaixtoaren eskutik; athera nezazu gaixtaginaren aztaparretik.

3. Horiek gaixtakeriak asmatu dituzte beren bihotzean; egun guzian gerla bizten hari ziren.



4. Zorroztu dituzte beren mihiak sugeak iduri; aspikaren phozoina ezpainpean dute.

5. Zain nezazu, Jauna bekhatorearen eskutik, eta athera nezazu gizon gaixtoen aztaparretik.

Ni ene bidean eragozteko asmua hartu dute;

6. Hanpurutsuek artea gorde darotade.

Eta sokhak hedatu dituzte artean; behaztopagailua ezarri darotade bide-hegian.

7. Jaunari erran diot: Zu zare ene Jainkoa; entzun zazu ene othoitza-ren oihua.

8. Jauna, Jauna, ene salbamenduko indarra, ene buruaren gainera geriza egin duzu gerla-egunean.

9. Jauna, ez benezazu arthik, ene desgogara, bekhatorearen eskuetara: ene kontra asmatzen haritu dira; ez nezazula utz, hant ez ditezentzat.

10. Hekien itzul-inguruetako asmu berezia, hekien ezpainetako maltzurkeria hekien gainera eroriko da.

11. Ikhatzak eroriko dira hekien gainera; sutara arthikiko ditutzu; oin-hazez ezin iraunen dute.

12. Gizon mihitsuak ez du lurreen urhats onik eginen; heriotzeko orduan gaitz guziek hartuko dute gizon tzarra.

13. Badakit Jaunak zuzenbidea atheratuko duela beharrentzat, eta asperkundera nohorroinentzat.

14. Prestuek aldiz, aithor bihurturen darotzute, eta zuzenek zure aitzinean izanen dute beren egoitza.

### CXL. PSAL.

1. Dabiden psalmoa.

Jauna, zuri egin darotzut deihadar, entzun nezazu; atzarririk zaude ene mintzoari, oihu eginen darotzudanean.

2. Ene othoitza zure aitzinera hel bedi isentsua bezala; ene eskuen altxapena arratseko sakrifizioa bezala izan bedi.

3. Jauna, zain bat ezar diozozu ene ahoari, eta ene ezpainei athe bat inguratuko dituen.

4. Ez bezazu utz ene bihotza maltzurkeriako solasetara, ene bekhatuak aitzakiaka edertzeko,

Gaixtakeria egiten hari diren gizonekin; eta ez dut ihardukimenik izanen hekien gizon hautekin.

5. Prestuak erantzukiko darot urrikalmendurekin, eta erranen darozkit gaizkiak: baina bekhatorearen olioak ez du gantzutuko ene burua,

Zeren ene othoitza altxatuko baita oraino hekien gogarako atseginen erditik ere:

6. Hekien juieak harriari josirik iretsiak izan dira.

Adituko dituzte ene hitzak, ahala badutelakotz.

7. Nola lur-hiltoa lurraren gainera iraulia baita, Hala gure hezurak barraiatuak dira hobi-sartzean:

8. Jauna, ene begiak zure ganat itzuliak direlakotz, zure baithan izan dudalakotz ene igurikimena, ez dizadazula khen bizia.

9. Begira nezazu hedatu darotedan artetik eta gaixtakeria-egileen behaztopagailuetarik.

10. Bekhatoreak eroriko dira gaixtakeriaren sarean; ni bakharrik egonen naiz iragan nadien arteo.

### CXLI. PSAL.

1. Dabiden adigarri, harpean zagoeneko othoitza.

2. Ene ahoak deihadar egin dio Jaunari, ene ahoak Jaunari heldu dio ene othoitza:

3. Haren aitzinean ixurtzen dut ene othoitza, haren aitzinean derrat ene hestura,

4. Bizia ni ganik ezeztatzen delarik, eta zuk badakizkitzu ene bidexkak. Nindohan bide huntan gorde darotade artea.

5. Begiratzen nuen eskuin, eta ikhusten nuen, eta nihor etzen ni eza-gutzen ninduenik.

Ene ihesbideak galduak dira, eta nihor ez da ene biziaren begiratze-ra hariko denik.

6. Zuri oihu egin darotzut, Jauna; erran dut: Zu zare ene pheskiza, ene zathia, bizi direnen lurreen.

7. Zaude atzarria ene othoitzari, ezen beheramendu handian naiz.

Ene jazarleen artetik athera nezazu, zeren indarrez nausituak baitituz.

8. Idukia den lekhitik, ilkhiaz zazu ene arima, zure izenari aithor bihurtzeko: gizon prestuak iduri daude, ene saria eman dizadazun arteo.

### CXLII. PSAL.

1. Dabiden psalmoa, bere seme Absalom ondotik zabilkoenean.

Jauna, entzun zazu ene othoitza; zure zintasunean onhets bezate zure beharriek ene errekeia; entzun nezazu zure zuzentasunean.

2. Eta ez bezedi sar juiamendutan zure zerbitzariarekin, zeren ez baita gizon bizirik zure aitzinean garbi izanen denik.



3. Entzun nezazu, zeren etsaiak jazarri baitio ene arimari, eta lurre-raino aphaltu baitu ene bizia.

Ilhunbeetan ezarri nau, aspaldiko hilak iduri,

4. Eta ene izpiritua ene gainean grinatua da; bihotza asaldutan dut ene barnean.

5. Orhoitu naiz behialako egunez; ene gogoa erabili dut zure egintza guzien gainean; alhatzen nintzen zure eskuetako lanez.

6. Hedatu darozkitzut eskuak; ene arima deiez dagokizu urik gabeko lur bat iduri.

7. Laster entzun nezazu, Jauna; iraungi da ene izpiritua.

Ez bizazazu aldara zure begithartea, ezen egin nintake putzura jausten direnen iduriko.

8. Goizetik adiaraz dizadazu zure urrikalmendua, zeren izan dudan zure baithan ene igurikitza.

Ezagutaraz dizadazu ibili behar naizen bidea, zeren zure ganat altxatu dudan ene arima.

9. Jauna, zure ganat ihes egin dut, athera nezazu ene etsaien aztaparretik;

10. Irakhats dizadazu zure nahiaren egiten, zeren zu baitzare ene Jainkoa.

Zure izpiritu onak eramanen nau zuzentasuneko lurrera; zure izenaren gatik,

11. Jauna, biziareziko nauzu zure zuzentasunaren arabera;

Hesturatik atheratuko duzu ene arima;

12. Eta ene ganateko zure urrikalmenduan, xahutuko ditutzu ene etsai guziak.

Eta galduko ditutzu ene arima hestutua dadukatenak oro, zeren naizen ni zure zerbitzaria.

### CXLIII. PSAL.

1. Dabiden psalmoa Goliathen kontra.

Benedika bekio ene Jainko Jaunari, zeinak irakhasten baitiote ene eskuei gudukatzen eta ene erhiegi gerla egiten.

2. Hura da ni urrikari nauena, hura da ene ihes-lekhua, ene habea, ene salbatzailea;

Hura da ene geriza eta haren baithan iduki dut ene pheskiza; harek ene-eskupekotzen du ene populua.

3. Jauna, zer da gizona zuk hari ezagutarazi izateko zure burua, edo zer da gizasemea zuk horrela eskerretan baitadukazu?

4. Gizona ezdeusaren pare da egina; haren egunak itzala iduri dira iragaiten.

5. Jauna, makhur zatzu zure zeruak, eta jauts zaite; uki zatzu mendiak, eta khetan goanen dira.

6. Dirdiraraz zazu ximista, eta urmariaraziko ditutzu; igor zatzu zure geziak, eta gainazpikatuko ditutzu.

7. Zeru gainetik heda zazu eskua; athera eta libra nezazu uharren erditik eta arrotzen umeen eskuetarik,

8. Zeinen ahoak gauza hutsik baizik ez baitu erasi, eta zeinen eskuina tzarkeriako eskuina baita.

9. Jainkoa, kantika berri bat darotzut kantaturen; hamar zurdetako maniurran kantaturen darotzut psalmo bat.

10. Oi zu, erregeak salbatzen ditutzuna, Dabid zure zerbitzaria gaixtaginaren ezpatatik begiratu duzuna,

11. Itzurraz nezazu,

Eta athera nezazu arrotzen semeen eskutik, zeinen ahoak elhe hutsa erasi baitute, eta zeinen eskuina tzarkeriako eskuina baita.

12. Hekien semeak dira landare gazteak beren gaztetasunean bezala.

Hekien alabak aphainduak eta edergailuz inguratuak dira, tenplo bat bezala.

13. Hekien selharuak betheak dira; batetik bertzera goitia igortzen dute;

Hekien ardiak ernariak, moltzoka beren ilkhibideetan;

14. Hekien behiak gizenak dira.

Hekien karriketan ez da ez harrasi leherturik, ez urradurarik, ez marrumarik.

15. Errana da: Dohatsu horiek dituen populua! Dohatsu populua, zeinak Jauna baitu bere Jainko!

### CXLIV. PSAL.

1. Laudamena Dabidi berari.

Jainkoa, ene erregea, goretsiko zaitut eta benedikatuko dut zure izena orai eta menderen mendetan.

2. Egun oroz benedikatuko zaitut eta laudatuko dut zure izena orai eta menderen mendetan.

3. Handia da Jauna, eta guziz laudagarria, eta mugarririk ez du haren handitasunak.

4. Gizaldi guziek laudatuko dituzte zure eginkariak, eta goraki aipatuko dute zure botherea.



5. Zure saindutasunaren handiestasun ospetsuaz mintzatuko dira, eta erranen dituzte zure sendagaila espantagarriak.

6. Erranen dute zure eginkari lazgarrien indarra, eta hekien ahoan izanen da zure handitasuna.

7. Aiphamenetan ezarriko dute zure eztitasuneko nasaiziaren orhoitzapena, eta zure zuzentasunaz bozkariotan ibiliko dira.

8. Urrikalkor eta urrikalmendutsu da Jauna, jasankor eta hainitz urrikalmendutsu.

9. Jauna guzientzat ezti da, eta haren urrikalpenak hedatzen dira haren eginkunde guzien gainera.

10. Zure eginkari guziek aithor eman biazazute, Jauna, eta benedika bezaitzazte zure sainduak.

11. Erranen dute zure erreinuko ospea, eta zure ahalaren handiaz mintzatuko dira,

12. Gizasemeei ezagutarazteko zure ahala eta zure erreinuko ospearen handitasuna.

13. Zure erregetasunak menderen mendetan badirau eta zure nausitasuna gizaldi guzien gainera da hedatzen.

Jauna fidel da bere hitz guzietan, eta saindu bere egintza orotan.

14. Jaunak xutitzen ditu erortzen diren guziak, eta jaikitzen eroriak direnak.

15. Begi guziak zuri daude, Jauna, eta zuk behar den mugan ematen duzu hekien hazkurria.

16. Zabaltzen duzu eskua eta benedizioez bethetzen dituzu abere guziak.

17. Jauna zuzena da bere bide guzietan, eta saindua bere egintza orotan.

18. Jauna hurbil dago dei egiten daroeten guzien ganik, zintasunean dei egiten daroetenen ganik.

19. Haren beldur direnen nahia egingen du, eta entzunen du hekien othoitzza, eta salbatuko ditu.

20. Jaunak begiratzen ditu hura maite duten guziak, eta galduko ditu bekhatoreak oro.

21. Ene ahoak egingen ditu Jaunaren laudorioak; gizon guziek benedika bezate haren izen saindua orai eta menderen mendetan.

#### CXLV. PSAL.

1. Lauda Jauna, Agjeo eta Zakariarena.

2. Ene arima, lauda zazu Jauna; ene bizian laudatuko dut Jauna; psalmoak kantatuko diotzat ene Jainkoari izanen naizeno.

Ez bezazue zuen sinhestea eman aitzindarietan,

3. Ez-eta gizasemeetan, zeinetan ez baita salbamendua.

4. Goanen zaiote bizia eta bihurtuko dira beren lurrera; egun hartan sunsituren dira hekien gogorapen guziak.

5. Dohatsu haina zeinaren laguntzaile baita Jakobena Jainkoa! Bere igurikitza duduka bere Jainko Jauna baithan,

6. Zeinak egin baititu zerua, lurra, itsasoa eta hekietan direnak oro.

7. Harek begiratzen du bethi zintasuna; zuzena bihurtzen diote makhurra jasaiten dutenei; jatekoa ematen diote gosez daudenei.

Jaunak libratzen ditu burdinetan direnak;

8. Jaunak argitzen ditu itsuak.

Jaunak xutitzen ditu eroriak; Jaunak maithatzen ditu prestuak.

9. Jaunak zaintzen ditu arrotzak; lagunduko ditu umezurtza eta alharguna, eta xahutuko bekhatoreen bideak.

10. Jauna erreginatuko da mendeetan; zure Jainko izanen da, oi Sion, gizaldi orotan.

#### CXLVI. PSAL.

1. Lauda Jauna.

Lauda zazue Jauna, zeren on baita psalmoa: gure Jainkoari gozo eta eder izan bekizkio gure laudorioak.

2. Jaunak berritzean Jerusaleme, bilduko ditu Israelgo ume barraiatuak.

3. Harek sendatzen ditu bihotzak hautsiak dituztenak, eta lotzen ditu hekien zauriak.

4. Harek khondatzen du izarren ostea, eta deitzen ditu zein bere izenaz.

5. Handia da gure Jauna, eta handia haren indarra; ezin-neurtuzkoa da haren zuzentza.

6. Jaunak soinkatzen ditu ezti direnak; eta berriz, lurreraino aphaltzen bekhatoreak.

7. Abia zatzue, aithor bihurtzean, Jaunaren laudorioak; gitarraren gainean psalmoak kanta diozotzue gure Jainkoari.

8. Harek estaltzen du zerua hedoiez eta lurrari xuxentzen dio uria.

Harek eragiten ditu belharra mendietan eta landareak gizonen zerbitzuko.

9. Harek jatekoa ematen daroete abereei eta belearen ume hari deiez daudezinei.

10. Ez du nahikunderik izanen zaldiaren indarrean eta haren gogoa ez da izanen gizonaren zangarretan.



11. Jaunak duduka bere gogoaren haren beldur direnentzat, eta haren urrikalmenduaren gainean beren pheskiza dutenentzat.

### CXLVII. PSAL.

12. Lauda Jauna.

Oi Jerusaleme, lauda zazu zure Jauna; zure Jainkoa lauda zazu, oi Sion;

13. Zeren harek baititu zure atheetako zerrapoak hazkartu, eta zure semeak benedikatu zure barnean.

14. Bakea harek ezarri du zure eremuetan, eta asetzen zaitu ogiaren irinik hobeenez.

15. Harek bere solasa igortzen dio lurrari, eta laster doha haren hitza.

16. Harek ematen du elhurra ardi-ilea bezala eta hedatzen lanhoa hautsa bezala.

17. Igortzen du bere horma ahamenak bezala: nork iraun haren hotzaren aitzinean?

18. Igorriko du bere hitza, eta urtharaziko ditu; haren hatsak joko du, eta urak turrustan goanen dira.

19. Harek ezagutarazten ditu bere hitza Jakobi, bere erabaki eta jua-menduak Israeli.

20. Ez du horrela egin edozein jendakiri, eta ez diozkate bere erabakiak agertu.

Lauda Jauna.

### CXLVIII. PSAL.

1. Lauda Jauna.

Oi zerutarrak, lauda zazu Jauna; lauda zazu, hergoretan zaudeztenek.

2. Lauda zazu, haren aingeru guziek; Lauda zazu, haren-peko bothereek.

3. Iguzkia eta ilhargia, lauda zazu; izarrak eta argia, lauda zazu.

4. Zerueta zeruak, lauda zazu; eta zeruen gainean diren ur guziek

5. Lauda bezate Jaunaren izena.

Zeren harek erran eta eginak izan baitira, harek manatu eta kreatuak izan baitira.

6. Ezarri ditu bethiko eta menderen mendeko; manua eman izan du, eta ez da iraganen.

7. Lurtarrak, erainsugeak eta leze barrenak, orok lauda zazu Jauna.

8. Sua, harria, elhurra, horma, phesietako hatsa, haren errana egiten duzuenak;

9. Mendiak eta munho guziak, zuhaitz fruitudunak eta zedro guziak,

10. Basabere eta azienda guziak, sugeak eta hegastin hegaldunak,  
11. Lurreko errege eta populu guziak, aitzindari eta lurreko jui guziak,

12. Gizon-gazte eta neskatxak, zahar-gazteak, lauda zazu Jaunaren izena;

13. Ezik haren bakharraren izena da goresgarri.

14. Zeru-lurren gainean da haren aithorra, eta harek goratu du bere populuaren adarra.

Himno bat izan bezate beraz haren saindu guziek, Israelgo umeek, hari hurbiltzen zaioen populuak.

Lauda Jauna.

### CXLIX. PSAL.

1. Lauda Jauna.

Kantika berri bat Jaunari kanta diozue; haren laudoria sainduen baldarnan izan bedi.

2. Israel haren baithan, egin duenaren baithan bozkaria bedi; eta Siongo umeak jauz beitez beren erregearen baithan.

3. Kantari-andanan lauda bezate haren izena; jo betzozte atabala, maniurrak;

4. Zeren Jaunak bere gogoaren baitaduka bere populuaren, eta salbamentu goratuko baititu emeak.

5. Ospearen erdian jauziko dira sainduak, beren oheetan boztuko dira.

6. Jainkoaren gorespenak izanen dira bethi hekien ahoan, eta eskutian idukiko dituzte bi ahotako ezpatak,

7. Asperkunde jendaien gainean atheratzeko, eta populuaren azurrizteko;

8. Hekien erregeen zangoak eta hekien aitorensemeen eskuak burdinaz estekatzeko;

9. Hekien gainean bethe dezaten iskribatua den erabakia. Horrelakoa da haren saindu guzien ospea.

Lauda Jauna.



## CL. PSAL.

1. Lauda Jauna.  
Lauda zazue Jauna bere saindutegian, lauda zazue bere botherearen hedaduran.
2. Lauda zazue bere ahaletan; lauda zazue bere handitasun gaitzaren arabera.
3. Lauda zazue turuta-otsez, lauda zazue maniurra eta gitarraren gainean.
4. Lauda zazue atabala, kantari-andanekin; lauda zazue zurda, organoekin.
5. Lauda zazue zinbala ozenekin; lauda zazue bozkariozko zinbalekin;
6. Hatsa duten guziek lauda bezate Jauna.  
Lauda Jauna.

## ERRAN-ZAHARRAK

### I. KAP.

1. Salomonen parabolak, Israelgo errege Dabiden semearenak,
2. Zuhurtziaren eta prestutasunaren jakiteko;
3. Umotasunaren solasen ardiesteko, eta hartzeko irakhasmenaren jakitatea, zuzenbidea, juiamendua eta zuzentasuna;
4. Xumeei emateko xothiltasuna, jakitatea eta adimendua gazteei.
5. Adituz zuhurra zuhurragoturen da, eta adimendutsuak manatzen ikhasiko du.
6. Ohartuko dira parabolari eta argitasunari, zuhurren erranei eta hekien asmakariei.
7. Jaunaren beldurra, zuhurtasunaren hastea da; zoroek arbuio dute zuhurtziarentzat eta irakhasmenarentzat.
8. Ene semea, adi zazu zure aitaren irakhaspena, eta ez utz zure amaren legea,
9. Edergailu bil dezan zure buruak, eta gathe aberats bat zure lep-  
hoak.
10. Ene semea, baldin amainatzeraz hari bazaizkitzu bekhatoreak, berautzu hekietara erortzetik.
11. Erran balezazute: Zato gurekin, zelatak heda detzagun odolaren ixurtzeko; deusik egin ez darokun hobengabeari arteak heda diotzogun;
12. Bizirik irets dezagun, ifernuak bezala, eta osorik putzura erortzen dena bezala;
13. Zer-nahi gauza balios atzemanen dugu; gure etxeak buluzkinez betheko ditugu;
14. Zorthe egizu gurekin; moltsa bat izan dezagun orok.
15. Ene semea, ez hekiekin ibil; zure oina zain zazu hekien bidexke-  
tarik;
16. Ezen hekien zangoek gaizkira laster egiten dute, eta odolaren ixurtzera higitzen dira.
17. Bainan alferretan sarea arthikitzen da hegalak dituztenen begien aitzinean.
18. Beren odolaren kontra ere hedatzen dituzte zelatak, beren arimen kontra hari dira zimarkhu egiten.
19. Holakoak dira jaramanaren bidexkak; atzematzen dituzte aberatsen arimak.



20. Kanpoan mintzo da zuhurtzia, plazetan atheratzen du bere hitza.
21. Osteen aitzinean oihuz dago; hiriko atheen kanpoko aldean atheratzen ditu bere solasak, dioelarik:
22. Haurrak, noiz arteo maithatuko duzue haurtasuna, eta zoroek noiz arteo izanen dute kaltekor dituzten gauzen gutizia, eta umotasunik ez dutenek higuinduko dute jakintasuna?
23. Ene kridantzamendura, itzul zaitezte; huna non agertuko darotzue-dan ene izpiritua, eta adiaraziko ene hitzak.
24. Zeren nik deithu, eta zuek ez duzuen nahi izan; nik eskua hedatu, eta nihor etzen begiratzeko;
25. Ene erran on guziak erdeinatu eta ene gaizkiak axolarik gabe utzi dituzten:
26. Nik ere zuen heriotzeko orduan irri eginen dut, eta trufatuko naiz, beldur zinetena gertatuko zaitzuetenean;
27. Zorigaitza bat-batean jauziko denean; herioak, phesiak bezala jazarriko darotzuean; hesturak eta athekak ethorriko direnean zuen gainera.
28. Orduan deithuko naute, eta ez dut entzunen; goizetik jaikiko dira, eta ez naute atzemanen;
29. Zeren hastio izan duten irakhaspena, eta ez duten hartu Jaunaren beldurra.
30. Zeren ene erran ona ez duten onhetsi, eta erdeinatu dituzten ene kridantzamendu guziak.
31. Janen dute beraz beren bideko fruitua eta beren asmuez aseko dira.
32. Haurren makhurtzeak hilen ditu, eta zoroen ongitzeak galduko.
33. Ni entzunen nauena ordean, izialdurarik gabe phausatuko da, eta nasiziaz gozatuko, gaitzen beldurra khendurik.

## II. KAP.

1. Ene semea, onhesten badituzu ene solasak eta zure baithan gordezten badituzu,
2. Zure beharriak entzun dezan zuhurtzia; bil zazu zure bihotza umotasunaren ezagutzera;
3. Ezen baldin zuhurtzia deitzen baduzu, eta zure bihotza umotasunaren azpira gurtzen baduzu;
4. Hura bilhatzen baduzu, eta dirutze baten atzimateko bezala harentzat zilhatzen hari bazare;

5. Orduan adituko duzu Jaunaren beldurra, eta aurkhituko duzu Jainkoaren jakintza.

6. Alabainan Jaunak ematen du zuhurtzia, eta haren ahotik dathortzi umotasuna eta jakitatea.

7. Salbamendua begiraten du zuzenentzat, eta gerizatzen ditu laino-ki dabiltzanak,

8. Zuzentasuneko bidexkak idukiz, eta sainduen bideak begiratu.

9. Orduan ezagutuko dituzu zuzenbidea, juiamendua eta zuzentasuna, eta bidexka on guziak.

10. Baldin zuhurtzia sartzen bada zure bihotzean, eta jakitatea zure arimaren gogarako bada,

11. Asmuak begiratu zaitu eta umotasunak zainduko,

12. Itzur zaitezentzat bide gaixtoari eta gauza tzarrak erraten dituen gizonari;

13. Zeinak uzten baitu bide zuzena, eta bide ilhunarik ibiltzen baita;

14. Zeina bozten baita gaizkia egin dukeenean, eta gauzarik tzarretan bozkarioz jauzten baita;

15. Zeinaren bideak galdukeriakoak baitira, eta hekien urhatsak tzarkeriakoak;

16. Itzur zaitezentzat emazteki atzeari, eta bere solasak lekatzen dituen arrotzari,

17. Zeinak uzten baitu bere gaztetasuneko bidaria,

18. Eta ahantzen Jainkoarekilako batasuna; ezik haren etxea heriotzearen alderat makhurtua da, eta ifernura doazi haren bidexkak.

19. Haren gana sartzen direnak oro, ez dira bihurturen eta ez dituzte harturen bizitzeko bidexkak.

20. Zaiten ibil bide onean, eta idukatzu prestuen bidexkak.

21. Alabainan zuzenak direnak egonen dira lurrean, eta lainoak han geldituko dira;

22. Bainan gaixtaginak lurretik galduak izanen dira, eta tzarkerian hari direnak handik khenduak dira izanen.

## III. KAP.

1. Ene semea, ez bezazu ahantz ene legea, eta zure bihotzak zain betza ene manamenduak;

2. Ezen ekharriren darozkitzute egunen luzetasuna, bizitzeko urt-heak eta bakea.

3. Urrikalkortasuna eta egia ez beitez urrun zu ganik; ezar zatzu zure lephoaren inguruan, eta zure bihotzaren gainean iskriba zatzu.





4. Eta aurkhituren ditutzu grazia eta egiteko molde on bat Jainkoaren eta gizonen aitzinean.
5. Zure bihotz guziaz Jaunaren baithan fida zaitte, eta ez berma zure umotasunaren gainean.
6. Zure hara-huna guzietan hura izan zazu gogoan, eta berak bida-turen ditu zure urhatsak.
7. Zuhurtzat ez iduk zure burua; izan zaitte Jainkoaren beldur, eta gibel egiozu gaizkiari;
8. Ezen horrela zure barnea sasual eta zure hezurak hezatuak izanen dira.
9. Zure izatetik ohora zazu Jauna, eta emotzu zure uzta guzien pikainak,
10. Zure selharuak ontasunez betheko, eta zure dolhareak arnoz gaudituko dira.
11. Ene semea, ez egotz Jauna ganikako kridantzamendua, etzaitze-la erkhi gaztigatzen zaituenean.
12. Ezen maite duena gaztigatzen du Jaunak, eta lakhet da harekin, aita bat bere semearekin bezala.
13. Dohatsu gizona zuhurtzia aurkhitu duena, eta umotasunez nasai dena!
14. Haren biltzea hobe da asko diruz jabe egitea baino, eta urhe ede-rrenak eta garbienak ez ditu haren fruituak balio.
15. Aberastasun guziak baino baliosago da; eta galda ditazkeen gauza guziak, ez dira hari erkhatzeko gai.
16. Haren eskuinak daduka egunen luzetasuna, eta ezkerak aberas-tasunak eta ospea.
17. Haren bideak oro ederrak dira eta haren bidexka guziak bakez-koak.
18. Hura besarkatzen dutenentzat da bizitzeko zuhaitza, eta dohatsu hari iritxikia dagoena.
19. Jaunak zuhurtasunaz asentatu du lurra, eta umotasunaz jarri ditu zeruak.
20. Haren zuhurtziaren bidez ondarrak gaindika goan dira eta lan-hoak ihintzetara loditzen dira.
21. Ene semea, horiek ez beitez zure begietarik athera; iduk zatzu legea eta ene errana;
22. Eta hori izanen da zure arimako bizia eta zure ahoko berregin-dura.
23. Orduan gogoan onik ibiliko zare zure bidean, eta zure oina ez da behaztopatuko.

24. Lo egiten baduzu, beldurrik gabe eginen duzu; phausu hartuko duzu, eta gozoa izanen da zure loa.
25. Ez har tupuzteko ikharadurarik eta ez izi zure gainera jauziko diren gaixtaginen indarrez;
26. Ezen Jauna zure sahetsean izanen da, eta zure oina zainduko du, etzedintzat izan atzemaana.
27. Ongiaren egitetik, ahala duena berautzu gibela; eta zerorrek egizu ongia, ahala balin baduzu.
28. Ez erran zure adiskideari: Zoaz, eta zato berriz, bihar emanen darotzut, berehala eman dezakezunean.
29. Ez hari eskupeka gaizkiaren egiten zure adiskideari, noiz-etare harek zure baithan baitu bere fidantzia.
30. Ariarik gabe eskatimarik ez har gizonarekin, noiz-etare berak ez baitarotzu gaizkirik deusere egin.
31. Ez bekhazgorik ekhar makhurrean dabilanari, eta ez jarraik haren bideei;
32. Zeren Jaunak hastio baititu enganatzaile guziak, eta lainoekin bai-titu bere solasak.
33. Jaunak igortzen du beharra gaixtaginaren etxera; bainan prestuen egoitzak benedikatuak izanen dira.
34. Harek trufatuko ditu trufariak, eta graziaz betheko ditu ezti dire-nak.
35. Zuhurrek gozatuko dute ospea; zoroen goratzea ahalketara bihurtuko da.

#### IV. KAP.

1. Ene haurrak, entzun zazue aitaren irakhaspena, eta erne zaudezte umotasunaren ikhasteko.
2. Dohain on bat eginen darotzuet; ez bezazue bazterrerat utz, ene legea;
3. Ezik neroni nintzen ene aitaren seme maitea, eta ene amaren ume bakharra;
4. Eta aitak irakhasten eta erraten zarotan: Zure bihotzak onhets betza ene solasak; begira zatzu ene manamenduak, eta biziko zare.
5. Izan zazu zuhurtzia, izan zazu umotasuna; ez ahantz ene ahotika-ko solasak, eta hekiatarik ez makhur.
6. Ez utz zuhurtzia, eta zainduko zaitu; maitha zazu, eta begiraturen zaitu.



7. Zuhurtziaren hastapena da haren biltzera haritzea; zure bertze izate guzien erdian, umotasuna bil zazu.
8. Hura ardiets zazu, eta altxaturen zaitu; haren bidez izanen zare ospatua, hura besarkatu dukezunean.
9. Graziatzko berhatzpen bat emanen dio zure buruari, eta khoro eder batek gerizaturen zaitu.
10. Adi zazu, ene semea, eta onhets zatzu ene solasak, luza ditezen zure bizitzeko urtheak.
11. Erakhutsiren darotzut zuhurtziako bidea; zuzentasuneko bidexkez eramanen zaitut:
12. Hekietan sarthu zaitekeenean, zure urhatsak ez dira hertsatuak izanen, eta lasterka zihoazalarik ez duzu behaztopagailurik izanen.
13. Irakhasmenari zatxizkio, ez utz hura; zain zazu, zeren hura baita zure bizia.
14. Ez bekizkitzu lakhet izan gizon tzarren bidexkak, eta ez bekizu atsegingarri izan gaixtaginen bidea.
15. Ihes egiozu, ez hartarik iragan; aldara zaite eta bazterrerat utz zazu;
16. Ezen lorik ez dukete, non ez duten gaizki zerbait egin; eta loa gal-tzen dute, non ez duten norbait eragotzi.
17. Tzarkeriako ogia jaten dute, eta bidegabekeriako arnoa edaten.
18. Aldiz, prestuen bidexka, argi distiragarri bat iduri, ilkhitzen da eta handitzen egun betheraino.
19. Gaixtaginen bidea ilhuna da: ez dakite norat erortzen diren.
20. Ene semea, entzun zatzu ene solasak, eta beharria emozute ene erranei.
21. Zure begietarik ez bezate gibelerat egin; zain zatzu zure bihotzaren minean;
22. Ezen hekiek dira aurkhitzen dituztenen bizitzea, eta gorphutz ororen osagarria.
23. Artha guzirekin zain zazu zure bihotza, zeren handik ilkhitzen baita bizia.
24. Hastan zazu zure ganik aho gaixtoa, eta ezpain gaizki-errailleak urrun izan beitez zure ganik.
25. Zure bekiek zuzen ikhus bezate, eta zure bekhurustek aitzin betzate zure urhatsak.
26. Zure oinez hazta zazu zure bidea, eta horrela zure ibilbide guziak segurtuko dira.

27. Ez bezedi makhur ez eskuin, ez ezker; gaizkitik aldara zazu zure oina; ezik Jaunak ezagutzen ditu eskuinerat diren bideak; bainan ezkerre-ratekoak tzarrak dira. Berriz, harek berak xuxenduko ditu zure lasterrak, eta zure urhatsak bakezko bideetara atheratuko ditu.

## V. KAP.

1. Ene semea, atzarria zaudezkiote ene solas zuhurrei, eta beharria emozute ene hitz umoei;
2. Zain detzatzun zure gogoetak, eta zure ezpainek begira dezaten irakhasmena. Berautzu emaztekiaren balakakeriari beharria ematetik;
3. Ezen eztia darioten breska iduri dute lilitxoaren ezpainek, eta haren zintzurak olioz argitzen du;
4. Bainan haren ondorio azkenak uher dira zizari-belharra bezala, eta zorrotz hala-nola bi ahotako ezpata.
5. Heriotzera jausien dira haren oinak, eta ifernuetara sartzen dira haren urhatsak.
6. Ez dabilta bizitzeko bideaz; haren urhatsak dira barraiatuak eta ezin-ezagutuzkoak.
7. Orai beraz, ene semea, adi nezazu, eta ene ahoko hitzetarik ez bezaite gibela.
8. Lilitxoaren ganik urrun zatzu zure bideak, eta ez bezedi haren etxeko athetik hurbil.
9. Ez eman arrotzei zure ohorea, ez-eta odolgiro bati zure urtheak,
10. Arrotzak ez ditezen bethe zure onez, eta zure nekheen saria ez dadien geldi etxe atzean;
11. Beldurrez-eta azkenekotz auhenetan egon zaitezen, zure haragiak eta gorphutza ahitu dituztun ondoan, eta erran dezazun:
12. Zertako hastiatu dut kridantzamendua, eta ene bihotzak ez du onhetsi erantzukia?
13. Zertako ez othe dut entzun argitzen nindutenen mintzoa, eta ene nausietara ez othe dut makhurtu ene beharria?
14. Gaizki guzietan hurran sarthu naiz, baldarnaren eta sinagogaren erdian.
15. Edan zazu zure urtegiko uretik eta zure ithurriko xirripetarik:
16. Kanporat ilkhi beitez zure ithurriak, eta karriketara barraia zatzu zure urak.
17. Zure-zureak izan zatzu, eta arrotzak izan ez beitez zurekin phartedun.



18. Zure zaina bedi benedikatua, eta boz zaitezi zure gaztetasunetikako emaztearekin.

19. Hura izan bekizu hala-nola oren ama maite-maitea, hala-nola oren ume gogokoena: noiz-nahi hordi betzazte haren bulharrek; haren amodioan bethi har betzatu zure gogo guziak.

20. Zergatik, ene semea, emazte atzeaz utziko duzu balakatzera zure burua, eta gozo hartuko duzu zurea ez denaren bulharren artean?

21. Jaunak begiratzen du gizonaren bideetara, eta begiaz daduzka haren urhatsak oro.

22. Bere tzarkeriek atzematen dute gaixtagina, eta bere bekhatuen lokharriez hestutua da.

23. Hilan da hura, zeren ez den nehortu, eta enganatua geldituko da bere nihonereko zorokerietan.

## VI. KAP.

1. Ene semea, zure adiskidearentzat berme sarthu bazare, arrotzari eman diozu bahi zure eskua.

2. Zure ahoko hitzez sareratu, eta solas zure-zureez atzeman zare.

3. Diodana egizu beraz, ene semea, eta zure burua athera zazu, erori zarelakotz zure lagunaren eskura. Laster egizu, higi zaitte, atzarraraz zazu zure adiskidea;

4. Lorik ez eman zure begiei, ez utz lohakhartzera zure bethazalak.

5. Itzur zaitezi orkhatza eskutik bezala, xoria ihiztariaren eskutik bezala.

6. Zoaz, oi nagia, xinhaulria gana; ikhusatzu haren bidexkak, eta ikhasazu zuhurtzia.

7. Ez duen arren ez aitzindari, ez irakhaste, ez buruzagirik,

8. Udan xuxentzen du bere hazkurria, eta uztaroan biltzen du zer jan.

9. Oi nagia, noiz arteo egonen zare lo? noiz atzarriko zare zure lotik?

10. Aphur bat lotan, aphur bat lo-asman egonen zare, aphur bat bilduko ditutzu eskuak, lo egitea gatik:

11. Eta beharra gainera ethorriko zaitzu bidaiari bat bezala, eta erromeseria hala-nola gizon harmatu bat. Bainan langile bazare, zure uzta ethorriko da ithurria bezala, eta beharrak urrun zukan ihes eginen du.

12. Gizon arnegatua, gizon alfer bat da; elhe maltzurrez bethea dabila;

13. Hari da begiz kheinuka, zangoz joka; erhiz mintzo da.

14. Bere bihotz galduan gaizkiaren aphaintzen hari da, eta noiz-nahi eskatima eraiten dabila.

15. Bat-batean ethorriko zaio bere galpena, eta tupustean lehertua izanen da; harentzat ez da gehiago sendagailurik.

16. Sei gauza dira Jaunak higuin dituenak, eta hatsgarri daduka haren arimak zazpigarrena:

17. Begi goratiak, mihi gezurtia, esku hobengabeko odolaren ixurleak,

18. Bihotz asmu tzar egilea, gaizkirat laster egiteko zalhu diren oinak,

19. Lekhuko faltsu gezurrez mintzo dena, eta anaien artean makhur phizten haritzen dena.

20. Begira zatzu, ene semea, zure aitaren manamenduak, eta ez utz zure amaren legea.

21. Iduk zatzu bethi zure bihotzean lothuak, eta ingura zatzu zure lephoan.

22. Bidean zoazinean, ibil beitez zurekin; lo zaudenean, zaint bezaitzate; eta atzartzen zarenean, hekiekin egizu solas:

23. Zeren manamendua kriselu bat baita, legea argi bat, eta irakhaspenaren kridantza biziaren bidea;

24. Zure begiratzeko ema tzarra ganik, eta emazte arrotzaren mihi legunetik.

25. Halakoaren edertasunaz ez bedi gutizia zure bihotza, eta zure burua ez utz haren jestuez atzematera;

26. Ezen lilitxoaren saria, doi-doia da ogi bakhar bat; bainan emaztekiak gizonari balio handitako arima atzematen dio.

27. Gizonak bere golkhoan gorde othe dezake sua, haren soinekoak erreko ez diren bezala?

28. Edo ikhatzen gainean ibil othe ditake, haren oin-azpiak erreko ez diren bezala?

29. Hala bere lagunaren emaztea ganat sartzen dena, ez da garbi izanen hura ukitu ondoan.

30. Ez da hoben handia, norbaitek ebasgo bat egin duenean, ezen ebasten du bere gosearen asetzeko.

31. Atzeman dutenean ere, zazpitan bihurtuko du ebatsia, eta emanen ditu bere etxeko izate guziak.

32. Bainan bertzeen emaztearekin khutsutan denak, bihotzeko zorokeria baten gatik galduko du bere arima.

33. Itsuseria eta ahalkea biltzen ditu bere gainera, eta haren laidoa ez da ezeztatuko,

34. Zeren gizonaren bekhaizgoak eta sephak ez baitute guphidetsiko aspertzeko egunean.



35. Nihorren othoitzik ez du onhetsiko, eta ez du barkhatzeko har-  
turen emaitza asko ere.

### VII. KAP.

1. Ene semea, idukatzu ene solasak; eta bil zatzu zure baithan, hau-  
rra, ene manamenduak.
2. Begira zatzu ene erranak eta biziko zare, zaint zazu ene legea zure  
begi-ninia bezala;
3. Loth zazu zure erhie eta iskriba zazu zure bihotzeko plametan.
4. Zuhurtziari errozu: Ene arreba zare, eta umotasuna deith zazu  
zure adiskidea;
5. Zaint zaitzan emazte arrotza ganik, eta bere solasak ezti egiten  
dituen atzea ganik;
6. Begia ezen eman dut ene etxeko leihotik, xareten artetik:
7. Ikhusten ditut gazteak, begira nago gizon-gazte burtzoro bati,
8. Zeina iragaiten baita karrikatik, emazte haren etxe izkinatik, eta  
harateko bidez baitabila,
9. Ilhunean, eguna arrasten denean, gabazko ilhunbe eta gobelarekin.
10. Eta hara non lilitxoaren aphainduran atheratzen zaioen emazteki,  
arima harrapatzera jarria, guzia solas, zokho guzietan dabilan bat,
11. Sesua ezin jasan dezakeena, eta bere oinak etxean idukitzeko gai  
ez dena;
12. Orai athean, gero karriketan, gero izkinetan barrandan dagoena.
13. Eta gixon-gaztea atzemanik, musukatzen du, eta ahalkegabeko  
begitharte batekin balakuka hari zaio, dioelarik:
14. Bitimak agindu ditut zorion izateko; egun bethe ditut ene botuak:
15. Horren gatik ilkhi naiz zure bidera, zu ikhusi nahiz, eta atzeman  
zaitut.
16. Sokhetan hedatu dut ene ohea, Egiptotikako khurtxoin thinda-  
tuekin moldatu dut.
17. Mirra, aloesa eta zinamoma birbiratu ditut ene etzauntzan.
18. Zato, hordi gaiten gure bulharrez, gozo har dezagun gure guti-  
ziako besarkaldietan, egunak argi dezan arteo;
19. Ezen senharra ez dut etxean; bide luzeari lothua da.
20. Diru-zakhuto bat hartu du berekin; ilhargi betheko egunean  
itzultzekoa da etxerat.
21. Asko solasez biribilkatu du, eta bere ezpainetako lausenguez  
bildu du.

22. Jarraitzen zaio berehala, bitimatzat daramaten idia bezala, eta  
jauzika dohan bildotsa bezala; eta zoroak ez daki estekara dela herrestatua,
23. Gezi batek zilha diozon arteo bihotza; badoha hala-nola xori  
batek segadara hegaldaka egin baleza, eta ez daki haren biziak dihoala.
24. Orai beraz, ene semea, adi nezazu; atzarririk zaude ene ahoko  
solasei.
25. Zure gogoa ez bedi herrestatua izan emazte haren bideetara, ez  
bezedi errebela haren bidexketan;
26. Ezen asko sakhiturik eragotzi eta hazkarrenak ere hilarazi ditu.
27. Haren etxea da ifernuko bidea, herioaren egoitzako zolaraino  
jausten dena.

### VIII. KAP.

1. Zuhurtzia oihuz ez othe dago, eta umotasunak ez othe du deiha-  
dar egiten?
2. Jarririk bide gaineko bizkar handi eta goretan, bidexken erdian,
3. Hiriko atheen ondoan, atheetan beretan, mintzo da, dioelarik:
4. Oi gizonak, zuei nago oihuz, eta gizasemeentzat da ene deihadarra.
5. Gazteak, ezagutazue zuhurtzia; zoroak, ohart zaitezte.
6. Adi zazue, ezen gauza handiz mintzatzera noha, eta ene ezpainak  
idekiko dira gauza zuzenen errateko.
7. Ene ahoak erabiliko du egia, eta ene ezpainek biguinduko dute  
tzarkeria.
8. Bidezkoak dira ene solas guziak; hekietan ez da deusere gaixtorik,  
ez tzarririk.
9. Zuzenak dira adimendutsuentzat, eta errexak jakitate aurrakitu  
dutenentzat.
10. Onhets zazue ene irakhaspena, eta ez dirua: hauta zazue irakhas-  
mena urhea baino hobeki;
11. Alabainan gauza baliosenak baino hobea da zuhurtzia; eta lehia  
eman dezaketen guziak ez dira haren erkhide.
12. Ni, zuhurtzia, asmuan egoten naiz, eta gogokunde argituen  
artean naiz.
13. Jaunaren beldurrak biguin du gaizkia; hastio ditut ozartasuna,  
hanpuruskeria, bide galdua eta bi hitzetako ahoa.
14. Ni ganikakoak dira asmu ona eta zuzentasuna; ni ganikakoak  
umotasuna eta indarra.
15. Ene bidez erregeak erreginatzen dira eta lege-egileek erabakitzen  
dute zuzen dena.



16. Ene bidez manatzen dute buruzagiek, eta justizia bihurtzen dute ahala eskuan dutenek.
17. Ni maite nautenak maithatzen ditut nik, eta goizik ene ganat ernatzen direnek aurkhitzen naute.
18. Enekin dira aberastasunak eta ospea, ontasun ederrenak eta zuzentasuna;
19. Ezen urhea eta harri baliosa baino hobea da ene fruitua, eta ni ganik sortzen dena zilhar hauta baino hobea.
20. Zuzenaren bideetan nabila, adimenduaren bidexken erditik,
21. Ni maite nautenen aberasteko eta hekien khutxen bethetzeko.
22. Jauna ene jabe da bere bidean hastetik, abiaduratik, deusere egin aitzinetik.
23. Egundainotik ezarria naiz, eta aspalditik, lurra egina izan zedin baino lehenagodanik.
24. Ondarrak etziren oraino, eta orduko egina nintzen; ithur-urak etziren oraino jauzten;
25. Mendiak etziren oraino beren bulto gaitzean jarriak; mendixkak baino lehen jaoa nintzen;
26. Jaunak etzituen oraino egin lurra, hibaiak eta lurraren erroak;
27. Zeruak aphaintzen zituenean, han nintzen; lege ezin-hautsizko batez eta antapera batez inguratzen zituenean ondarrak;
28. Ortzia gogortzen zuenean gainean, eta ithur-urak beren neurritan ezartzen zituenean;
29. Itsasoa bere zedarriez inguratzen zuenean, eta urei lege bat ematen zarotenean, etzetzazten beren mugak iragan; lurraren asentuak airetan jartzen zituenean;
30. Harekin nintzen guzien xuxentzen; eta egun oroz gozo hartzen nien, bethi haren aitzinean dostatuz;
31. Dostatuz munduaren hedaduran; eta ene gozoa zen gizasemeekin izatea.
32. Orai beraz, ene haurrak, entzun nezazue; dohatsu ene bideak zaintzen dituztenak.
33. Adi zazue ene irakhaspena; izan zuhur, eta ez hastan hura.
34. Dohatsu ni entzuten nauen gizona, eta ene ilkhibideetan atzarria, eta ene sartzeko athean erne dagoena!
35. Ni atzemanen nauenak aurkhitzen du bizia, eta Jauna ganik ilkhiren du salbamendua.
36. Bainan ene alderat hobendun eginen denak, zaurthuko du bere arima; ni higuintzen nauten guziek maite dute heriotzea.

## IX. KAP.

1. Zuhurtziak egin du beretzat etxe bat; zazpi habe irazki ditu;
2. Imolatu tutu bere bitimak; nahastekatu du arnoa, eta xuxendu du bere mahaina.
3. Bere neskatoak igorri ditu deitzera gaztelura eta hiriko harrasietara;
4. Lainorik nihor balin bada, ethor bedi ene gana. Eta zoroeri erran diote:
5. Zatozte, jan zazue ene ogia eta edan zazue zuentzat xuxendu dudan arnoa.
6. Utz zazue haurtasuna, eta bizi zaitezte; eta ibil zaitezte umotasunaren bideetarik.
7. Trufariaren irakhasten hari denak, bere buruari egiten dio irain; eta gaixtaginari erantzuten dioenak, bere burua nothatzen du.
8. Ez biozozu trufariari erantzun, beldurrez-eta hastia zaitzan: zuhurriari erantzun diozozu, eta maite izanen zaitu.
9. Bidea emozu zuhurrari, eta zuhurragoturen da; zuzena irakhatsozu, eta hartara lehen-bai-lehen eginen du.
10. Jaunaren beldurra da zuhurtziaren hastapena, eta umotasuna da sailduen jakitatea.
11. Alabainan ene bidez luzatuko dira zure egunak eta berhatuko zure bizitzeko urtheak.
12. Baldin zuhur izaten bazare, zuretzat izan zare hala; aldiz, trufari bazare, zerorrek jasanen duzu bidegabea,
13. Emazteki zoro, harotsu, amainakeriaz bethe eta deusere ez dakiena.
14. Bere etxeko athean jarria dago alkhi baten gainean, hiriko lekhu goran,
15. Handik iragaiten eta beren bidean dihoazenen deitzeko.
16. Laino dena bazter bedi ene alderat. Eta zoroari erran dio:
17. Ebatsizko urak etziago dira, eta gordekako ogia gozoago.
18. Eta hunek etzakien han zirela diganteak, eta harekilako barazkal-tiarak ifernuko zolara dihoazela.

## SALOMONEN PARABOLAK

### X. KAP.

1. Aitaren bozgarri da seme zuhurra; seme zoroa, berriz, bere amaren hiragarri.
2. Tzarkeriatikako aberastasunak ez dira deusetako baliaturen; zuzentasunak aldiz, heriotzetik libratzen du.



3. Jaunak ez du goseteaz hagaranduren prestuaren arima, eta erago-tziren ditu gaixtaginen maltzurkeriak.
4. Esku nagiak dakhar erromestasuna aldiz, bizitorean eskuak biltzen ditu aberastasunak.  
Gezuraren gainean bermatzen dena, haizez hazten da; haina, berriz, hegaldaka dihoazen xorien ondotik jarraitzen da.
5. Uztaroan biltzen hari dena, ume zuhurra da; bainan udan lo dagoena, ahalkeriaren umea da.
6. Jaunaren benedizioea prestuaren buruaren gainean da; tzarkeriak aldiz, estaltzen du gaixtaginen begithartea.
7. Laudoriorekin aiphatuko da prestuaren orhoitzapena, eta gaixtagi-nen izena ustelduko da.
8. Bihotzez zuhur denak onhesten ditu bertzeen erranak; zoroa aho-tik galtzen da.
9. Lainoki dabilana, gogoia zabalik ibiltzen da; bainan bere bideak makhurreritzen dituena, ageri izanen da.
10. Begi-kheinuka hari denak oinhaze emanen du; eta ezpainez iza-nen da zaurthua.
11. Prestuaren ahoa, biziaren ithurria da; eta gaixtaginen ahoak gor-detzen du tzarkeria.
12. Herrak bizten ditu eskatimak, eta karitateak itsutzen hoben guziak.
13. Jakitatea aurkhitzen da zuhurraren ezpainetan, eta zaharoa adi-menduz eskas denaren bizkarrean.
14. Zuhurrek gordetzen dute jakitatea; aldiz, zoroen ahoa ahalka-menduari hurbil dago.
15. Aberatsarentzat ontasunak gaztelu beharrarentzat gabea lotsa-mendu.
16. Prestuaren lanak, bizitzerat; gaixtaginen egintzak aldiz, bekhaturat.
17. Irakhasmena zaintzen duenarentzat, biziko bidea; erantzukia baz-terrerat uzten duenarentzat, errebelatzea.
18. Ezpain gezurtiek gordetzen dute herra; iranka hari dena, zoro bat da.
19. Elhe hainitzei etzaiote bekhatua eskastuko; bainan bere ezpainak neurritan daduzkana, guziz da umoa.
20. Prestuaren mihia da zilhar hauta; aldiz, gaixtaginen bihotza deu-setako ez da.
21. Prestuaren ahoak asko ditu argituren; ikhasigabeak berriz, bihotze-ko landerrarian dira hilen.

22. Jaunaren benedizioeak egiten ditu aberatsak, eta atsekabea ez da hekiei batuko.
23. Irri egiteko bezala zoroak egiten du gaixtakeria; zuhurtzia da aldiz, gizonaren umotasuna.
24. Zeren-ere baita beldur gaixtagina, hura ethorriko zaio gainera; prestuari emana izanen zaio bere nahikariaren arabera.
25. Iragaiten den phesia bat iduri gaixtagina suntsituren da; prestua berriz, bethiko asentu bat bezala egonen da.
26. Nola baitira minagrea hortzen eta khea begien, hala da alferra igorri dutenen alderat.
27. Jaunaren beldurrak luzatzen ditu egunak, eta laburtuak izanen dira gaixtaginen urtheak.
28. Prestuen igurikitza bozkario da; aldiz, gaixtaginen pheskiza gal-duko da.
29. Jaunaren bidea da lainoaren indarra eta gaizkia egiten dutenentzat da beldurra.
30. Prestua ez da behinere khordokatua izanen; gaixtaginak aldiz, ez dira lurraren gainean egonen.
31. Prestuaren mihiak argitaraturen du zuhurtzia; gaixtaginen mihia galduko da.
32. Prestuaren ezpainak begiratzen dira atsegingarri denari, eta gaix-taginen ahoa zimarkhuari.

## XI. KAP.

1. Balentza enganagarria da Jaunaren begira hatsgarri; eta phisu zuzena, haren nahikari.
2. Non-ere baita hanpuruseria, han ere izanen da ahalkeria; aldiz, non izanen da aphalturatasuna, han ere zuhurtasuna.
3. Prestuen lainotasuna, hekien bide; aldiz, gaixtaginen maltzurtasu-na, hekien galbide.
4. Aberastasunak asperkandezko egunean deusetako ez dira izanen; zuzentasunak aldiz, heriotzetik du libraturen.
5. Zuzentasunak lainoa lagunduko du bere bidean, eta gaixtagina eroriko da bere tzarkerian.
6. Zuzentasunak zuzenak ditu atheratuko, eta beren arteetan gaixta-ginak dira eroriko.
7. Gizon gaixtoa hil ondoan, pheskizarik ez da gehiago batere iza-nen, eta egitekotsuen igurikimena guzia da galduren.



8. Prestua hesturatik izan da atheratua, eta gaixtagina haren ordain izanen da sarthua.
9. Alegiakariak elhez enganatzen ditu bere adiskideak; prestuak aldiz, libratzen ditu beren jakitateak.
10. Hiria bozkariotan izanen da prestuen ontzeaz, eta laudoriozko kantuak izanen dira gaixtaginen galtzeaz.
11. Prestuen benedizioeak du hiria goretsiko, eta gaixtaginen ahoak eragotziko.
12. Bihotzez lander da bere adiskidearentzat erdeinu duena; aldiz, ixilik egonen da gizon umo dena.
13. Ixileko gauzak agertzen ditu, maltzurkerian dabilanak; bihotzez fidel denak aldiz, gordetzen ditu adiskideak fidatu diozkanak.
14. Manatzailerik ez den lekhuana, populua galtzen; kontseilu hainitz den tokian aldiz, da salbatzen.
15. Gaitzak joko du berme sartzen dena arrotzaren gatik; aldiz, arteetarik begiratzen dena, egonen da seguretik.
16. Ospe izanen du emazteki esker-ondunak, eta aberats izanen dira gizon indardunak.
17. Bere arimari on egiten dio gizon urrikalmendutsu denak, gizon gogorrek aldiz, bulkhatzen ditu orobat ahaide hurbilenak.
18. Gaixtaginak egiten du lan iraun ez dezakena; aldiz, zuzentasma eraiten duenak, altxatuko du bere sari xuxena.
19. Barkhatiartasunak aphaintzen ditu bizitzeko bideak; eta eriotzearena, gaizkiari jarraikitzeak.
20. Bihotz galdua Jaunarentzat hatsgarri, eta ongi nahi dio lainoki dabilanari.
21. Gaixtagina, baladuzka ere eskuak gurutzatuak, ez da hobengabe izanen; baina prestuen odola da salbaturen.
22. Emazteki eder eta burtzoroa, ahardiaren muthurrean erreztun urhezkoa.
23. Prestuen lehia doha ongirat; gaixtaginen igurikitza, hasarrerat.
24. Batzuek berenetik ematen dute, eta aberatsagotzen dira; bertzeek hartzen dute berena ez dutena, eta bethi beharretan dira.
25. Arima-emailea izanen da goritua; eta hordiarazlea, bera ere horditua.
26. Bihia gordetzen duena, madarikatua izanen da populuen artean; aldiz, benedizioena da saltzen dutenen buruaren gainean.
27. Goizetik zorionean jaikitzen da ongia bilhatzen duena; gaizkiketaria berriz, gaizkiaz izanen da lehertua.

28. Bere aberastasunetan fidatzen dena, eroriko da; prestuak aldiz, hosto ferdea bezala gorituko dira.
29. Bere etxea nahastean duenak izanen du haizea, eta zoro dena izanen da zuhurraren muthil.
30. Bizitzeko zuhaitza da prestuaren sari, eta nork-ere arimak laguntzen baititu, haina zuhurra da.
31. Prestua lurrean zehatua bada, zenbatenaz hobeki gaixtagina eta bekhatorea!

## XII. KAP.

1. Kridantza maite duenak, maite du zuhurtzia; erantzukiak higuin dituenak, berriz, zoro bat da.
2. Ona denak, grazia ardietsiko du Jauna ganik; bere buruari fida dena, berriz, gaixtoki dabila.
3. Gizona ez da tzarkeriatik hazkartuko, eta prestuen erroa ez da hitutuko.
4. Emazte bizitorea bere senharrarentzat khoro bat da; eta ahalkatze-ko gauzak egiten dituenak, senharraren hezurren ustelgarri da.
5. Prestuen gogoetak zuzentasunez betheak dira; eta gaixtaginen asmuak, zimarkhuz.
6. Gaixtaginen hitzak odolari zelata egiten dabilta; prestuak beren ahoaz libratuko dira.
7. Jo zatu gaixtaginak, eta suntsituko dira; ordean prestuen etxeak iraunen du.
8. Bere argitasunetik ezagutuko da gizona; baina ergel eta zoro dena erdeinuari bidean jartzen zaio.
9. Berez bere doitzen den gaixoak, gehiago balio du, ezenetz harro eta ogiz eskas denak.
10. Prestuak bere abereen biziaz ardura badu; aldiz, gaixtaginen barneak gogorrek dira.
11. Bere lurra lantzen duena aseko da ogiz; aldiz, alferkerian lakhet dena guziz da zoroa.
- Arnozko bestetan gozoki egoten denak, ahalkagarrikeriak utziko ditu bere hazkargailuetan.
12. Gaixtaginaren lehia da gaixtoenen hazkargailua; baina prestuen erroa gorituz goanen da.
13. Bere ezpainetako bekhatuen gatik xahupena hurbiltzen zaio gizon gaixtoari; prestua ordean atheratuko da hesturatik.



14. Nork-berak bere ahoko fruituetarik bilduko du bere ona, eta bere eskuetako egintzen arabera emana izanen zaiou.

15. Zoroari bere bidea zuzena zaiou bere begietan; aldiz, zuhurra denak entzuten ditu bertzeen erranak.

16. Ergelak berehala agertzen du bere samurra; berriz, izan hidoia nork-ere gordetzen baitu, hura xothila da.

17. Dakienaren errailea, lekhuko zuzena da; aldiz, gezurrez mintzo dena, lekhuko maulatia da.

18. Bada agintzen duenik eta kontzientziaren ezpataz bezala sistatua denik; bainan zuhurraren mihia haren osagarria da.

19. Egiaz mintzo den ahoa, bethi gogor egonen da; aldiz, harramas-kan mintzo den lekhukoak aphaintzen du mihi gezurtia.

20. Zimarkhua da gaizki asmaketan hari direnen bihotzean; bozkarioa jarraitzen zaiote, ordean, bakezko asmuen egiten hari direnei.

21. Zer-nahi gertha dakioken, prestua ez da ilhunduran jarriko; aldiz, gaitzak betheko ditu gaixtaginak.

22. Ezpain gezurtiak hatsgarri zaizko Jaunari; zintasunean dabiltzanak, berriz, haren gogoko dira.

23. Gizon xothilak gordetzen du bere jakintasuna; eta zoroaren bihotza bere erhokeriaren agertzera hari da.

24. Hazkarren eskua nausi izanen da; aldiz, nagia dena, zerga pagatzen hariko da.

25. Bihotzeko ithundurak beheratuko du gizona, bainan solas on batek goiheretuko du.

26. Bere adiskidearen kariatz, bidegabe batez axola ez dadukana, gizon prestua da; beren bideak, ordean, enganatuko ditu gaixtaginak.

27. Maulatiak ez du irabazirik atzemanen, eta prestuaren ontasunak izanen du urhearen balioa.

28. Zuzenbidean da bizitzea; bide zeherrak, berriz, heriotzera darama.

### XIII. KAP.

1. Seme zuhurak aditzen du aitaren irakhaspena; bainan irri-egile denak ez du entzuten kridantzatua denean.

2. Gizon prestua ontasunez betheko da bere ahoko fruitutik; ordean lege-hausleen arima tzarra da.

3. Bere ahoa zaintzen duenak zaintzen du bere arima; aldiz, bahas-kaki mintzatzen denak jasanen ditu gaitzen ukiak.

4. Nagiak du nahi eta ez nahi; langile direnak, berriz, gorituko dira.

5. Prestuak hastiatuko du gezurrezko solasa; gaixtaginak aldiz, ahal-katzen du eta ahalkatua izanen da.

6. Prestutasunak zaintzen du hobengabearen bidea; tzarkeriak ordean, eragozten du bekhatorea.

7. Hulakoak iduri du aberats, zeinak deusik ez baitu; eta halakoak iduri du behar, zeina aberastasunen erdian baita.

8. Aberatsak bere aberastasunez berrerosten du bizia; bainan behar-rak ezin jasan dezake larderia.

9. Prestuen argiak bozten du; aldiz, gaixtaginen kriselua hilen da.

10. Hanpurutsuen artean badira bethi khimerak; aldiz, gauza guziak umotasunekin egiten dituztenei hotsematen diote zuhurtziak.

11. Ontasun herresaka metatua gutituko da; bainan aphurka eskuz bildua berhatuko da.

12. Gerorat dagoen pheskizak ilhuntzen du arima; nahikari bethetzen dena, bizitzeko zuhaitza da.

13. Gauza zerbaitentzat erdeinu atheratzen duenak, bere burua lotzen du gerokotzat; bainan manamenduaren beldur dena, bakean egonen da.

Arima amarrutsuak bekhatutan inguruka dabilta; aldiz, prestuak dira urrikalkor eta urrikaltzen.

14. Zuhurraren legea da bizitzeko ithurria, heriotzeko zorigaitzetik baztertzeko.

15. Irakhasmen onak dakhar grazia; trufatzaileen bidean da zurrun-biloa.

16. Xothilak umotasunekin egiten ditu guziak; ergelak berriz, agertzen du bere zorokeria.

17. Gaixtaginaren mandataria zorigaitzera eroriko da; aldiz, mandatarari zinak osagarria dakhar.

18. Irakhasmena bazterrerat uzten duenarentzat erromestasuna eta laidoa; aldiz, kridantzatzaileari ethordun denarentzat ospea.

19. Nahikaria bethetzen bada, arimak gozo hartzen du: zoroek higuin dituzte gaizkiari ihes egiten diotenak.

20. Zuhurrekin dabilana, zuhur izanen da; zoroen adiskidea, hekien iduriko eginen da.

21. Gaitza bekhatoreen ondolik dabila; eta onak prestuei emanak izanen zaroezte.

22. Gizon onak ondoretzat semeak eta ilobasoak uzten ditu; eta gaixtoaren ontasunak prestuarentzat begiratuak dira.

23. Arbasoen ganikako lurreen ontasun handia altxatzen da; eta bertzeetan biltzen da adimendurik gabe.





24. Zigorra guphidesten duenak higuin du bere semea; aldiz, bere haurra maite duenak, artharekin kridantzaten du.

25. Prestuak jaten du eta bethetzen bere barnea; berriz, gaixtaginen sabela ezin-asezkoa da.

#### XIV. KAP.

1. Emazteki zuhurrak eginen du bere etxea; zoroak eragotziko du egina dena ere.

2. Bide zuzenaz dabilana eta Jainkoaren beldur dena, arbuiatua da bide tzarraz ibiltzen denaz.

3. Hanpuruskeriaka zigorra zoroaren ahoan da; aldiz, beren ezpainek begiratzen dituzte zuhurrak.

4. Idirik ez den tokian, bihitegia hutsa da; baina uzta hainitz den lekhuana, han ageri da idiaren indarra.

5. Lekhuko zinak ez dio gezurrik; gezur barriatzen hari da lekhuko maulatia.

6. Trufariak bilhatzen du zuhurtzia eta ez du aurkhitzen; umoak errexki argitzen dira.

7. Par egiozu gizon zoroari, eta ikhusiko duzu ez dakiela umotasu-neko solasik.

8. Xothilaren zuhurtzia da bere bidearen ezagutzea; eta zoroen umogabekeria nihon ez da baratzen.

9. Bekhatuaz trufatzen da zoroa; eta prestuen artean egonen da grazia.

10. Bihotzak daki bere arimako uherdura; haren bozkarioan ere ez da sarthuko arrotza.

11. Xahutuak izanen dira gaixtaginen etxeak; aldiz, prestuen olhak gorituko dira.

12. Bada bidea gizonari zuzena iduritzen zaioena; haren buruak ordean, heriotzera darama.

13. Irria atsekabez nahastekatzen da, eta deithoreak hartzen du bozkarioaren azken burua.

14. Zoroa bere bideez aseko da, eta hura baino hobeki gizon ona.

15. Gaizoak sinhesten du edozein solas; xothilak begiratzen diete bere urhats guziei.

Deus onik ez da izanen haur amarrutsuarentzat; baina zerbitzari zuhurrari ongi atherako zaizko egiten dituen guziak, eta zuzen goanen da bere bidean.

16. Zuhurra beldur da, eta aldaratzen da gaizkitik; zoroa aitzina dihoa eta gogoia sendorik.

17. Pairugabeak eginen du zorokeria; eta gizon amarrutsua hastiagari da.

18. Adimendu ttipikoak zorokeriaren jabe dira; eta xothilak jakitatearen begira egonen dira.

19. Gaixtaginak onen aitzinean, eta tzarraz prestuen atheetan lurrean egonen dira.

20. Erromesa bere ahaideari berari higuin izanen zaio; aberatsak, berriz, izanen du adiskide asko.

21. Gure laguna arbuiatzen duenak, bekhatu egiten du, baina beharraz urrikaltzen dena, dohatsu izanen da.

Jaunaren baitan sinheste duenak maite du urrikalmendua.

22. Makhur dabilta gaizkiaren egileak; urrikalmenduak eta zintasanak ontasunei bidea idekitzen diote.

23. Lan hainitz den tokian izanen da nasaizia; aldiz, elhe hainitz den tokian, ardura eskasia.

24. Aberastasunak zuhurrentzat khoru; zoroen ergeltasuna, umogabekeria.

25. Lekhuko zinak arimak libratzen ditu, eta alde orotara mintzo denak gezurraz barriatzen.

26. Jaunaren beldurrean datza gogoaren sendotasuna, eta beldur hura duenaren hurrek pheskiza izanen dute.

27. Jaunaren beldurra bizitzeko ithurria, gizonei bazter eragiteko heriotzeko galpenetik.

28. Populuaren handian erregerentzat ospe, eta gutian buruzaginentzat laido.

29. Pairuduna umotasun handiaren arabera ibiltzen da; aldiz, pairugabeak, agertzen du bere zorokeria.

30. Bihotzaren sasualtasuna da haragiaren bizigarri; bekhaizgoa, hezurren ustelgarri.

31. Gizon beharrari bidegabe ekhartzen dioenak, haren egileari irain ekhartzen dio; aldiz, ohore demo, beharrez urrikaltzen denak.

32. Bere maltzurkerian gaixtagina hastandua izanen da; prestuak, berriz, bere heriotzetik igurikitzen du.

33. Gizon umoaren bihotzean datza zuhurtasuna, eta argituko ditu jakitaterik ez dutenak ere.

34. Zuzentasunak goratzen du jendea; bekhatuak aldiz, lander egiten ditu populuak.

35. Erregez onhetsia da zerbitzari oharduna; hutsalak jasanen du haren hasarrea.



## XV. KAP.

1. Eztiki ihardesteak samurra hausten du; hitz gogorrek sulia jauzazten.
2. Zuhurren mihiak aphaintzen du jakintasuna; ergelen ahoan irakitzen hari da zorokeria.
3. Jaunaren begiak lekhu guzietan begira daude onei eta gaixtoei.
4. Bakezko mihia bizitzeko zuhaitza da; baina neurririk ez duena, gogo lehergarri da.
5. Zoroa trufatzen da bere aitaren kridantzamenduaz; aldiz, erantzukiak begiratzen dituena zuhurragoturen da.  
Zuzentasun nasaian da indarririk handiena; baina gaixtaginen gogotak errotik atheratuak izanen dira.
6. Indar handia da prestuaren etxean; eta nahasmendua gaixtaginaren eginkarietan.
7. Zuhurren ezpaineak jakitatea erainen dute; bertzelakoa izanen da zoroen bihotza.
8. Jaunari hatsagarri zaizko gaixtaginen bitimak, eta gogaragarri prestuen botuak.
9. Gaixtaginaren bidea hatsagarri zaio Jaunari; hartaz maithatua da zuzentasunari jarraitzen dena.
10. Irakhasmen tzarra, bizitzeko bidea uzten duenarentzat da; kridantza higuin duena hilen da.
11. Infernua eta galpena agerian daude Jaunaren aitzinean; zenbatez hobeki gizasemeen bihotzak!
12. Izurridunak ez du maite erantzuten dioena; haren urhatsak ez doazi zuhurren ganat;
13. Bozkariotan den bihotzak arraitzen du begithartea; arimako ilhunduran, gogo erortzen da.
14. Zuhurraren bihotza ikhastera hari da; ezjakinez hazten da zoroen ahoa.
15. Beharraren egunak, oro gaixtoak dira; gogo deskantsuak iduri du bethi dirauen barazkari bat.
16. Gutti, Jaunaren beldurrarekin, hobe da, ezenetz dirutze handi eta ezin-asezkoak.
17. Hobe da baratzeakari jatera deithua izatea maitez, ezenetz aratxe gizendura gogo gaitzez.
18. Gizon hasarrekorrak phizten ditu khimerak; jasankor denak jabaltzen ditu phiztuak direnak.

19. Alferren bideak iduri du elhorrizko hesia, behaztopagailurik ez da prestuen bidean.
20. Aita bozten du seme zuhurrak; gizon zoroak arbuatzen du bere ama.
21. Zorokeria da zoroaren bozkarioa, eta gizon umoak begiratu z darama urhatsa.
22. Kontseilurik ez den lekhu gogokundeak urmariatzen dira; gogortzen dira, berriz, kontseilu-emaile asko den tokian.
23. Bere ahoko errana eder zaio gizonari; hobe da ordu onean ethorri solasa.
24. Bizitzeko bidexka gizon argituaren gaineko aldean da, hura aldaradientzat ifernuko ondarretarik.
25. Jaunak lurrerat eragotziko ditu hanpurutsuen etxeak, eta gogortuko ditu alhargunaren mugarriak.
26. Gogoeta tzarrak hatsagarri zaizko Jaunari; eta guziz eder zaio solas garbia.
27. Jaramankeriari jarraitzen denak nahasten du bere etxea; aldiz, emaitzen izatea higuin duena, biziko da.  
Urrikalmenduaz eta sinhesteaz garbitzen da bekhatua; berriz, Jaunaren beldurraren ariaz aldaratzen da gizona gaizkitik.
28. Prestuaren gogoak ethorduntasunaz du asmu; gaixtaginaren ahoa tzarkeriaz da gaindi.
29. Jauna urrun dago gaixtaginetarik, eta entzunen ditu prestuen othoitzak.
30. Begietako argiak goiheretzen du arima; omen onak goritzen ditu hezurak.
31. Bizitzera daraman kridantza entzuten duen beharria, zuhurren artean egonen da.
32. Irakhasmena hastantzen duenak arbuatzen du bere arima; aldiz, kridantzaren onheslea bere bihotzaren jabe da.
33. Jaunaren beldurra da zuhurtziaren irakhaslea, eta aphalturatasuna ospearen aitzinean dabila.

## XVI. KAP.

1. Gizonari zaio arimaren aphaintzea, eta Jaunari mihiaren bidatzea.
2. Gizonaren bide guziak ageri dira haren begientzat; Jauna da gogoen phisatzailea.
3. Jaunari ager diozotzu zure eginkariak, eta harek bidaturen ditu zure gogotak.



4. Jaunak beretzat egin ditu gauza guziak; gaixtagina ere egun gaixtoko.
5. Ozar dena hatsgarri zaio Jaunari; eskua eskuarekin tinkatua baladuka ere, ez da hobengabe izanen.
- Bizitze onaren hastapena da zuzenari bere bidea ematea; eta onhe-tsiagoa da Jauna baithan, ezenetz bitimen imolatzea.
6. Urrikalpenaz eta zintasunaz berrerosten da bekhatua, eta Jaunaren beldurrean gizona baztertzen da gaizkitik.
7. Jaunaren gogarako izanen direnean gizonaren bideak, bakera bihurraziko ditu haren etsaiak ere.
8. Hobe da guti zuzenbidean, ezenetz ontasun hainitz bidegabean.
9. Gizonaren bihotzak aphaintzen du bere bidea; bainan Jaunari zaio haren urhatsen bidatzea.
10. Asmua erregeren ezpainetan da; haren ahoa ez da erabakian mak-hur goanen.
11. Phisu eta balantzez juiatzen du Jaunak, eta haren egintza guziak dira zakhuko harriak iduri.
12. Tzarkerian hari direnak hatsgarri zaizko erregeri, zeren zuzenta-sunak gogortzen baitu tronua.
13. Ezpain zuzenak dira erregeen nahiaren araberako; zuzen mintzo dena izanen da maithatua.
14. Erregeren hasarrea da herioaren mandataria; eta gizon zuhurrak jabalduko du.
15. Erregeren begiharteko arraizian datza bizia, eta haren barkha-tiartasuna da berantaroko uria iduri.
16. Izan zazu zuhurtzia, zeren urhea baino hobea baita; umotasuna bil zazu, zilharra baino baliosago baita.
17. Prestuen bidexka gaizkitik baztertzen da; bere arima zaintzen duenak idukitzen du bere bidea.
18. Hanpuruskeria xahutzearen aitzin dabila, eta galpenaren aitzinean hantzen da gogoa.
19. Hobe da aphaldua izatea eme direnekin, ezenetz buluzkin berez-ten haritzea hanpurutsuekin.
20. Sola huntaz argitua denak aurkhituren ditu onak, eta bere iguri-kitza Jaunaren baithan dadukana, haina dohatsu da.
21. Bihotzez zuhur dena, umoa deithuko dute; eta aho ezta duenak gehiagokoak ardietsiko ditu.
22. Argitasuna, haren jabe denarentzat, biziaren ithurri da; zoroen jakitate, ergelkeria da.

23. Zuhurraren bihotzak irakhatsiko dio haren ahoari, eta esker eder bat emanen daroete haren ezpainei.
24. Solas aphaindua, ezti-breska bat da; arimako gozotasuna, hezu-rren osagarria da.
25. Bide bat bada, gizonari zuzena dirudiena, eta haren azken buruak heriotzera darama.
26. Beretzat hari da lanean nekhatzen denaren arima, zeren bortxatzen baitu bere ahoak.
27. Gizon tzarra zilhatzen hari da gaizkiaren atzemateko, eta sua erretzen hari da haren ezpainetan.
28. Gizon galduak phizten ditu eskatimak, eta elhetsuak makhurtzen ditu buruzagiak.
29. Gizon gaixtoak amainatzen du bere adiskidea, eta ona ez den bidetik eramaten du.
30. Begi landatuekin gaixtakeria asmatzen duenak, ezpainak asikiz egiten du gaizkia.
31. Zahartzea ospezko khoro bat da, zuzentasuneko bideetan atze-maten dena.
32. Gizon jasankorra hobe da bihotzoia baino; eta bere gogoaren nausi dena, hiri-hartzailea baino.
33. Zortheak untzira arthikitzen dira, bainan Jaunak xuxentzen ditu.

## XVII. KAP.

1. Ahamen idor bat hobe da bozkarioarekin, ezenetz etxe bitimaz bethe bat aharrarekin.
2. Sehi zuhurra haur zoroiei nausituko zaiote, eta anaien artean zat-hituko du ondoregoa.
3. Suaz zilharra, sutegian urhea frogatzen diren bezala, hala Jaunak frogatzen ditu bihotzak.
4. Gaixtaginak egiten du mihi gaixtoaren nahia, eta maltzurrak ezpain gezurtiena.
5. Gizon beharra arbuaitzen duenak, haren egilea du laidatzen; eta bertzeen galtzeaz bozten dena, ez da gaztigatua izan gabe egonen.
6. Haurren haurrak dira zaharren khoro, eta aita dira semeen ospe.
7. Solas aphainduak ez dagozkio zoroari, ez-eta gezurra buruzagia-ren ezpainei.
8. Harri balios bat da, begira dagoenaren igurikitza; nora-nahi itzul dadien, umoki aditzen du.



9. Huts-estaltzailea, adiskideketa dabila; salhatariak, bat zirenak berezten ditu.
10. Erantzun bat gehiago baliatzen da umoaren baithan, ezenetz ehun ukhaldi zoroaren baithan.
11. Bethi aharraketa dabila gaixtoa; bainan aingeru gogorra igorria izanen da haren kontra.
12. Hobe da umeak ebatsi zaizkon hartz ama bat buruz buru egitea, ezenetz bere zorokerian sinheste hartzen duen ergel bat.
13. Nork-ere ongiarentzat gaizkia bihurtuko baitu, asturugaitza ez da haren etxetik urrunduko.
14. Khimera-abiataileak iduri du urari bide ematen dioena, eta gaizkia jasan baino lehen, bazterrerat uzten du zuzenbidea.
15. Gaixtaginaren garbitzailea, eta zuzena kondenatzen duena, bata eta bertzea hatsgarri dira Jauna baithan.
16. Zoroarentzat zer du balio aberastasunen izatea, ez dezakeenean eros zuhurtzia?  
Etxe gora egin duenak, haren urrantza bilhatzen du; eta ez ikhasterra hari dena, asturugaitzetera eroriko da.
17. Adiskide denak noiznahiden maite izaten du; eta anaia, hesturako orduan da ezagun.
18. Gizon zoroa esku-zaflaka hariko da, bere adiskidearen berme sarthu ondoan.
19. Makhurbideez gogoalhatzen duenak maite ditu khimerak; eta bere athea goratzen duena, bere galtzearen ondotik dabila.
20. Barne tzarrekoa denak ez du ongia aurkhituren; eta bi aldetara mintzo dena, asturugaitzera eroriko da.
21. Bere laidagarri sorthu da zoroa; eta aita bat ere ez da bere haur ergelaz boztuko.
22. Arima goihereak adin loredun bat atheratzen du; gogo ilhunak ihartzen ditu hezurak.
23. Gaixtaginak golkhotik emaitzak hartzen ditu, zuzenbidearen makhurtzea gatik.
24. Umoaren begithartean argitzen du zuhurtziak; zoroaren begiak lurraren bertze buruan daude.
25. Zoroa da bere aitaren hasarregarri, eta jaiotzen duen amaren hiragarri.
26. Ez da on prestuari bidegabe ekhartzea, ez-eta zuzen erabakitzen duen buruzagiaren jotzea.
27. Nork-ere begirakorki atheratzen baititu solasak, haina umoa da eta jakina; eta gizon argitua izpiritu gurbilekoa da.

28. Zoroa ere, ixilik balin badago, zuhurtzat aiphatua da; eta adimendutsutat, ezpainak tinkatzen baditu.

### XVIII. KAP.

1. Adiskidearen ganik gibelatu nahi dena, hartako bideketa dabila; bethi arbuiagarri izanen da.
2. Zoroak ez ditu onhesten umotasunezko solasak, non etzizaizkion mintzatzen bihotzean duenaren arabera.
3. Gaizki guzien ondarrera jautsi ditakeenean gaixtagina, orotaz trufatzen da; bainan ondotik ditu hidoi eta laidoak.
4. Gizonaren ahotikako hitzak dira ur barna bat iduri; eta zuhurtziaren ithurria, gaindika dihoan lats bat bezala.
5. Ez da on gaixtaginari nor den begiratzea, erabakiaren zuzentasunetik makhurtzeko.
6. Zoroaren ezpainak eskatimetan nahastekatzen dira, eta haren ahoak khimerak ilkhiazten ditu.
7. Zoroaren ahoa da haren lehargarri, eta haren ezpainak haren ariaren galgarri.
8. Bi mihi dituenaren solasek iduri dute lainoak; eta hekiek sartzen dira sabel-ondoraino.  
Lanak lotsatzen du alferra; bihotzez faun direnak gosez egonen dira.
9. Lanean beratz eta malet dena, barraiariaren anaia da.
10. Dorre guziz hazkarra da Jaunaren izena; prestuak hartara laster egiten du, eta altxatua izanen da.
11. Aberatsaren ontasunak dira haren indarren hiri, eta haragi hazkar bat haren inguruan bezala.
12. Gizonaren bihotza goititzen da, lehertua izan dadien aitzinean; eta aphaudia izanen da, ospatua den baino lehen.
13. Aditu aitzinean ihardesten duenak, zoro bat dela erakusten du, eta ahalkea merezi duela.
14. Gizonaren gogoak jasaiten du bere erphiltasuna; nork jasanen ahal du ordean izpiritu samur-errexak?
15. Bihotz umoa izanen da jakitatearen jabe, eta zuhurren beharria ikhasi beharrez dabila.
16. Emaitzek zabaltzen diote bidea gizonari, eta lekhu egiten diote buruzagiaren aitzinean.
17. Prestua lehenbizikoa da bere buruari jazartzeko; heldu da haren adiskidea, eta hunek du haztatuko.



18. Zortheak hausten ditu makhurrak, eta handien artean ere hura da juie.

19. Anaiaz lagundua den anaiak hiri hazkar bat iduri du, eta hekien erabakiak dira hirietako athe-hagak bezala.

20. Gizonaren ahoko fruitutik betheko da haren sabela, eta haren ezpainetarik sortzen denetik aseko da hura.

21. Bizitzea eta heriotzea mihiaren eskuko dira; hura maite dutenek, haren fruituetarik janen dute.

22. Emazte on bat atzeman duenak, ontasun bat aurkhitu du, eta Jauna ganik ardietsko ditu gozoak.

Emazte on bat irazten duenak, ontasun bat hasantzen du; bainan bertze baten emazte lohia dadukana, zoroa eta tzarra da.

23. Othoizka mintzatuko da beharra; eta aberatsa zorrozki.

24. Bilkhuetan maithagarri den gizona, adiskideago izanen da eze-netz anai bat.

### XIX. KAP.

1. Bere lainotasunean dabilan beharra hobea da, ezenetz aberats zoro eta bere ezpainak bihurrikatzen dituena.

2. Arimako jakitaterik ez den lekhuak, onik ez da; eta oinez zalhu dabilana, behaztopatuko da.

3. Gizona bere zorotasunak erorrarazten du, eta Jainkoaren kontra khaldan dago bihotzez.

4. Aberastasunek ematen dute adiskide asko; aldiz, beharraren ganik urruntzen dira aitzinean izan dituenak ere.

5. Lekhuko faltsua ez da gaztigurik gabe egonen; eta gezur-erraila ez da itzuriko.

6. Hainitzek ohore ekhartzen diote ahaldunaren jauntasunari, eta emailaren emaitzen adiskide dira.

7. Gizon beharra higuin dute bere anaiek; eta gehiagorik, adiskideek urrunegiten diote.

Elheen ondolik baizik ez dabilanak, ez du deusik izanen;

8. Aldiz, bere gogoaren jabe denak maite du bere arima, eta umotasunaren zaintzaileak aurkhituren ditu onak.

9. Lekhuko faltsua ez da gaztigatua izan gabe egonen; eta gezurrez mintzo dena, galduko da.

10. Gozokeriak ez dihoazkio zoroari, ez-eta gathibuari buruzagien gaineko nausitasuna.

11. Gizonaren argitasuna haren jasankortasunetik da ezagun; eta haren ospea da bidegabeen gainetik iragaita.

12. Nola lehoinareen orroa, hala ere da errege baten hasarrea; eta nola ihintza belharraren gainean, hala ere da haren boztasuna.

13. Seme zoroa, aitaren atsekabea da; eta emazte kasailaria, bethi darioen hegaztegi bat.

14. Burhasoek demate etxe eta ontasun; Jaunak dema ordean garbiki emazte umoa.

15. Alferkeriak ekhartzen du khuma, eta arima nagia gosez egonen da.

16. Manamendua zaintzen duenak, zaintzen du bere arima; aldiz, bere bidez ardurarik ez dadukana, heriotzera eroriko da.

17. Beharraz urrikaltzen denak, irabazitara Jaunari maileguz ematen dio, eta Jaunak bihurtuko dio ordaina.

18. Argi zazu zure semea, ez etsi; bainan hiltzeraino ez ekhar haren bizia.

19. Jauzkor denak, kaltea jasanen du; eta bat hartu dukeenean, bia ekharriko ditu.

20. Entzun zazu errana eta onhets irakhasmena, azkenean zuhur izan zadientsat.

21. Gizonaren bihotzean asko gogoeta badabila; bainan Jaunaren nahiak berean dirau.

22. Gizon beharra urrikalkor da, eta erromesa hobea da gizon gezurtia baino.

23. Jaunaren beldurrak bizitzera darama; nasaizian egonen da eta asturugaitzik gabe.

24. Alferrak galtzarpean gordetzen du eskua, eta ez da ahorat haren ekhartzeko.

25. Gizon tzarra gaztigatua denean, zoroa zuhurrago izanen da; baldin, berriz, zuhurra kridantzaten baduzu, kridantza adituko du.

26. Aitari atsekabe ematen dioena eta ama ihes igortzen duena, laidotsu eta dohakabe da.

27. Semea, ez bara irakhasmenaren entzutetik, eta ez izan argitasuneko solasak jakin gabe.

28. Lekhuko gaixtoa zuzenbidez trufatzen da; eta gaixtaginen ahoak iresten du tzarkeria.

29. Aphainduak daude trufarien juiamendua eta zoroen gorputzen jotzeko mailuak.



## XX. KAP.

1. Arnoa linburkoi, eta hordikeria harramanztsu; hekietan lakhet dena, ez da zuhur izanen.
2. Nola baita lehoinaren orroa, hala ere da erregeren lastura; hura jauzarazten duenak, bere arimaren kontra bekhatu egiten du.
3. Gizonarentzat ohoragarri da eskatimetarik bereztea bere burua; bainan zoro guziak laidagarrikerietan sartzen dira.
4. Nagiak hotzaren gatik ez du nahi izan irauli; udan eske ibiliko da beraz, eta ez diote emanen.
5. Gogokundea gizonaren bihotzean ur barna bat bezala; bainan gizon zuhurra hara goanen zaio hartzera.
6. Asko gizon deitzen dituzte urrikalmendutsu; nork atzemanen du ordean gizon segurki hala dena?
7. Bere lainotasunean dabilan gizon prestuak, haurrak bere ondotik utziko ditu zoriondun.
8. Juiatzeko alkhian jarria den erregeak, bere bekhokiaz suntsiarazten du gaizkia.
9. Nork erran dezake: Xahua da ene bihotza; bekhaturik garbi naiz?
10. Phisu bi eta neurri bi, Jaunaren aitzinean dira hatsgarri.
11. Haur baten jaiduretarik ezagutzen da, hein haren eginkariak xahuak eta zuzenak izanen diren.
12. Aditzen duen beharria eta ikhusten duen begia, Jaunak egin ditu bat eta bertzea.
13. Ez maitha loa, beharrak ehoa iduk zaitzan beldurrez; idekatzu begiak, eta ogiz ase zait.
14. Ez da ona, ez da ona, diote erosle guziek; eta etxeratu direnean, orduan izanen dute espantu.
15. Bada urhe eta harri balios asko; bainan untzi zinez baliosa, aho zuhurra da.
16. Arrotzaren berme sarthu denari har diozozu soinekoa; eta arrotzen arietan, khien diozozu bahia.
17. Gizonari gozo zaio gezurraren ogia, eta gero legarrez betheko zaio ahoa.
18. Kontseiluek gogortzen dituzte gogoetak eta gerlak behar dira umotasunekin erabili.
19. Gauza gordeak salhatzen, jokotriak erabiltzen eta ezpainak zabal-tzen dituenaren baltsako ez bezedi sar.
20. Bere ait-amak madarikatzen dituena, hainari ilhunbeen erdian hilen zaio bere argia.

21. Ondorego bat zeinaren biltzera hastetik nihor lehiaka hari baita, benedizionerik gabe izanen da azkenean.
22. Ez erran: Bihurturen dut gaizkia; igurikazu Jauna, eta harek atxeraturako zaitu.
23. Phisua eta phisua hatsgarri dira Jaunaren begietan; balantza engantzailea ez da ona.
24. Jaunaz bidatuak dira gizonaren urhatsak; nor da ordean gizonetarik bere bidea ezagut dezakeena?
25. Galpena da gizonarentzat sailduen irestea, eta botuak egin ondolan, hekien ukhatzea.
26. Errege zuhurrak suntsiarazten ditu gaixtaginak, eta hekien gainera jautsarazten du bobeda.
27. Jaunaren hatsa gizonaren baithan argi bat da barneko zokho guziak ikhartzan dituena.
28. Urrikalmenduak eta egiak zaintzen dute errege, eta barkhatiartasunak gogortzen du haren tronua.
29. Indarra da gazteen bozkarioa, eta ile xuriak zaharren ohorea.
30. Sakhiaren ubeldurak eta zauriek sabel-barnean garbitzen dituzte minak.

## XXI. KAP.

1. Nola ur-xirripak, hala erregeren bihotza Jaunaren eskuan da; nahi duen alderdira makhurrarazten du hura.
2. Gizonari bere bide guziak zuzenak iduritzen zaizko; Jaunak ordean haztatzen ditu bihotzak.
3. Jaunak bitimak baino lakhetago ditu urrikalpen hartzea eta zuzenari bere bidea ematea.
4. Bihotzeko hanturak larritzen ditu begiak; gaixtaginen argia, bekhatu bat da.
5. Hazkarraren asmuek nasaizia dakharte; aldiz, nagia bethi beharretan da.
6. Mihi gezurtiaz diru biltzen hari dena, tuta eta zoroa da, eta herioaren sarean da sarthuko.
7. Gaixtaginen harrapakariak izanen dira hekien galgarri, ez diotela-kotz eman nahi izan zuzenari bere bidea.
8. Gizonaren bide tzarra, bide arrotza da; aldiz, garbi denak, egitate zuzenak ditu.
9. Hobe da selharu-zokho batean egotea, ezenetz baltsako etxean emazte mokokariarekin.



10. Gaixtaginaren arima gaizki-gura da; ez du urrikari izanen bere laguna.
11. Gaixtoa joa denean, zuhurrago izanen da lainoa; eta badin zuhurrari badarraikio, zuhurtziaren jabe eginen da.
12. Prestuak gaixtaginaren etxeaz gogoeta baderabilka, gaizkitik atheratzeko gaixtaginak.
13. Beharraren oihuari bere beharria tapatzen duena, bera ere oihuz egonen da, eta ez da entzuna izanen.
14. Emaizta ixil batek iraungitzen ditu hasarredurak; eta golkhora sarthu dohainak, sepharik handiena.
15. Prestuaren bozkarioa da zuzenari bere bidea ematea, eta tzarkeria-egileentzat da ikhara.
16. Irakhasmeneko bidetik makhurtuko den gizona, diganteen bilkuan egonen da.
17. Aseak maite dituena, beharrea geldituko da; arnoa eta poxi onak maite dituena, ez da aberastuko.
18. Prestuaren orde emanen da gaixtagina, eta makhur dabilana zuzenen orde.
19. Mortuan egotea hobe da, ezenetz emazte mokokari eta sephatirekin.
20. Lehiatzeko ontasuntzea eta olio badira prestuaren egoitzan, eta umo ez den gizonak oro haizutzen ditu.
21. Zuzenbideari eta urrikalmenduari jarraikitzen denak khausituko ditu bizia, zuzena eta ospea.
22. Zuhurra hazkarren hirira igan da, eta hautsi du haren sinhesteko indarra.
23. Bere ahoa eta mihia zaintzen dituenak, hesturetarik zaintzen du bere arima.
24. Ozar hanpurutsua, ikhasigabe bat deitzen dute, bere hasarrean hanphuruskerian dabilalakotz.
25. Nahikariek hiltzen dute nagia; ezen haren eskuek ez dute deuse re egin nahi.
26. Egun guzian guraz eta lehiatzen dago; prestu denak ordean, emanen du, eta ez da lanetik baratuko.
27. Hatsgarri dira gaixtaginen bitimak, zeren gaixtakeriatik atheratzen baitituzte.
28. Lekhuko gezurtia galduko da; gizon ethorkorra garhaiziaz mintzatu- tuko da.

29. Gizon tzarrak ahalkegabekeriako itzulia ematen dio bere bekhok- iari; prestua, berriz, bere bidearen xuxentzera hari da.
30. Ez da zuhurtziarik, ez da umotasunik, ez da asmu onik Jaunaren kontra.
31. Gudu egunekotzat xuxentzen da zaldia, Jaunak ordean ematen du itzurpena.

## XXII. KAP.

1. Aiphamen ona hobe da ontasun asko baino; esker ona zilhar eta urhearen garai da.
2. Aberatsak eta beharrak buruz buru egin dute. Jauna da bien egilea.
3. Xothilak ikhusten du asturugaitza eta gordetzen da; gaizoa aitzina dihoa, eta jasaiten du kaltea.
4. Modestiaren ondorioak dira Jaunaren beldurra, ontasunak, ospea eta bizitza.
5. Harmak eta ezpata gaixtaginaren bidean dira; aldiz, bere arima begiratzen duenak hekietarik urrun eginen du.
6. Erran bat da: Gizon-gaztea sarthu bidetik ez da, zahartu ondoan ere ilkhiko.
7. Aberatsak beharrari manatzen dio, eta mailegatzailea, maileguz emalearen muthil da.
8. Tzarkeria eraiten duenak, asturugaitzak bilduko ditu, eta bere hasarrearen zigorrak phorroskatuko du.
9. Urrikalmendura ekharria dena, benedikatua izanen da, bere ogie- tarik eman dioelakotz beharrari.
- Emaizta-egileak ardietsiko du garhaizia eta ohore; bainan hartzaileari arima khentzen dio.
10. Iraizazu trufaria, eta harekin goanen da aharra, eta baratuko dira makhur eta irainak.
11. Bihotzeko garbitasuna maite duenak, bere ezpainetako esker ede- rra gatik izanen du adiskidetzat errege.
12. Jaunaren begiek zaintzen dute jakintasuna; eta hutsaltzen dira gaixtaginaren solasak.
13. Dio alferrak: Lehoina kanpoan da, hil nindezake karriken erdian.
14. Emazteki arrotzaren ahoa zilho barna bat da; haina harat eroriko da, zeinaren kontra samur baita Jauna.
15. Zorotasuna haurraren bihotzean lothua da, eta kridantzamen- duaren zigorrak haizatuko du.



16. Beharra zaphatzen duenak bere aberastasunen handitzeko, aberatsago bati emanen dio berak, eta eskasian geldituko da.

17. Makhur zazu beharria, eta adi zatzu zuhurren hitzak, eta zure bihotza iratxik diozozu ene irakhaspenari.

18. Ederra izanen zaitzu, zure barnean begiratuko duzunean; eta zure ezpainetan gaindi egingen du,

19. Eure sinhestea Jauna baithan izan dadien; hargatik egun erakhutsi darotzut hori.

20. Huna non hiruretan xehatu darotzudan asmu eta jakitaterekin,

21. Zuri erakhusteko egiaren segurtasuna eta erranak, igorri zaituztenei ihardets ahal dezazuntzat.

22. Bortxarik ez egin beharrari, zeren den behar; eta ez zapha erro-mesa athean;

23. Zeren Jaunak juiatuko baitu haren egitekoa, eta zilhatuko baititu haren arima zilhatu dutenak.

24. Ez izan gizon hasarrekorren adiskide, eta gizon suliatsuarekin ez ibil;

25. Beldurrez-eta ikhas detzatzun haren bidexkak, eta behaztopagailu bat eman diozozun zure arimari.

26. Ez bezedi izan eskuan jotzen eta zorren berme beren buruak eskaintzen dutenekilako;

27. Ezen bihurtzeko abalik ez baduzu, ez othe litake aria bat zure ohetik estalgia eraman dezazuten?

28. Ez iragan zure arbasoek ezarri mugarri zaharretarik haratago.

29. Ikhusi duzu gizon bat bere lana arin daramana? erregeen aitzinean egonen da, eta ez da jende xeheen aitzinean geldituko.

### XXIII. KAP.

1. Buruzagiarekin jateko jarri zaithekeenean, artharekin begira zazu zure aitzinean emanak diren gauzei;

2. Eta kanibeta ezar zazu zure zintzurrean, baldin bizkitartean zure ahalean baduzu zure arima.

3. Ez bezedi gutizia hainaren jatekoetarik, zeinaren baithan gezurra- ren ogia khausitzen baita.

4. Aberasteko ez bezedi nekha; bainan neurri bat emozu zure umotasanari.

5. Begiak ez goiti ezin izan detzazketzun ontasunetara, zeren egingen baitituzte hegalak arranoarenak bezalakoak, eta zerura hegaldatuko baitira.

6. Gizon bekhaiztiarekin ez jan, eta ez gutizia haren jatekoetarik;

7. Zeren azti eta aiherukari batek bezala, ez dakienaz ustekeriak hartzen baititu.

Erranen darotzu: Jan eta edan zazu; bainan haren gogoa ez da zurekilako.

8. Jan izan dituzketzun jakiak goiti egingen eta zure solas ederrak galduko ditutzu.

9. Ez mintza zoroen beharrietara, zeren arbuiatuko baitute zure solas- en irakhaspena.

10. Ez uki jende ttipien mugarriei, eta ez sar umezurtzen landan;

11. Ezen botheretsu da hekien hurkoa, eta bera jabetuko da hekien zuzenaz zure kontra.

12. Zure bihotzak irakhasmenera eta zure beharriek jakintasunezko solasetara egin bezate.

13. Ez guphidets haurrari kridantza; ezen zigorraz jotzen baduzu ere, ez da hilen.

14. Hura zigorraz joko duzu, eta haren arima ifernutik atheratuko.

15. Ene haurra, zuhurra bada zure arima, zurekin boztuko da ene bihotza,

16. Eta bozkarioz jauziko da ene barnea, solas zuzenak atheratuko dituztenean zure ezpainek.

17. Zure bihotzak ez beza bekhatoreentzat har bekhaizgorik, bainan egun guzian izan zaite Jaunaren beldurrean;

18. Zeren azken orduan pheskizetan izanen baitzare, eta igurikitzen duzuna etzaitzu izanen khendua.

19. Entzun zazu, ene haurra, eta izan zaitenzi zuhur, eta bide zuzenaz erabil zazu zure arima.

20. Ez bezedi khausi edaleen apairuetan, ez-eta haragiak jateko ekhartzen dituztenen aseetan;

21. Ezik edanean daudezenek eta xahutzen hari direnek erreka joko dute, eta puskaz jaunzten da lo-egilea.

22. Entzun zazu bizia eman darotzun aita, eta ez erdeina zure ama zahartu ditakeenean.

23. Erosazu egia, eta berautzu sal zuhurtzia, irakhasmena eta adimendua.

24. Bozkarioz jauzten da prestuaren aita; eta ume zuhurrari bizia eman dioena, haren baithan da boztuko.

25. Boz beitez zure aita eta zure ama, eta bozkarioz jauz bedi jaiotzen emaztea.





26. Ene haurra, indazu zure bihotza, eta zure begiek zaint betzazte ene bideak.

27. Alabainan lilitxoa, zilho barna bat da; eta emazte atzea putzu her-tsi bat.

28. Ohoina bezala zelatan dago bidean, eta erne ez direla ikhusten dituenak hilen ditu.

29. Norentzat zorigaitz? noren aitarentzat zorigaitz? norentzat ahar-rak? norentzat lezeak? norentzat ariagabeko sarraskiak? norentzat begie-tako itsadura?

30. Ez othe arnoan daudenentzat eta baso husten lakhet dutenentzat?

31. Ez arnoari begira horitzen denean, basoan haren itxurak argitzen duenean: gozoki sartzen da,

32. Bainan azkenekotz asikiko zaitu sugeak bezala; eta basilikak beza-la sarthuko darotzu phozoadura.

33. Zure begiek ikhusiko dituzte emazte atzeak, eta zure bihotzak tzarkeriak erranen ditu;

34. Eta izanen zare itsasoaren erdian lo dagoena bezala, eta lema galdu duen lemazain lohakhartuaren iduriko;

35. Eta erranen duzu: Jo naute, bainan ez dut minik hartu; herrestatu naute, bainan ez naiz ni ohartu; noiz atzarriko naiz eta khausituko dut berriz arnoa?

#### XXIV. KAP.

1. Gizatarrez ez izan bekhaizti, eta ez lehia hekiekilako izatera.
2. Zeren hekien gogoak harrapakieriaz baitu amets, eta hekien ezpai-nek maltzurkeriak baiteratsazte.
3. Zuhurtziaz altxatzen da etxea, eta umotasunaz gogortzen.
4. Jakitateak betheko ditu selharuak gauza baliosenez eta ederrenez.
5. Gizon zuhurra hazkar da; eta gizon jakintsuna indardun eta bizkor da;
6. Zeren neurriak hartuz egiten baita gerla, eta salbamendua kon-tseilu hainitz den tokian baita.
7. Zoroarentzat gora dago zuhurtzia; athean ez du ahoa idekiko.
8. Gaizkiaren egitea gogoan erabiltzen duena deitzen da zoroa.
9. Zoroaren gogoeta bekhatu bat da, eta gaizki-mintzatzailea hatsga-rri zaiote gzonei.
10. Hesturako egunean, ahiturik etsitzen baduzu, gutituko da zure indarra.

11. Itzurrazatzu hiltzera daramatzatenak, eta heriotzera eramaten dituztenen atheratzetik ez bara.

12. Erran bazineza: Indarrek ez naute laguntzen, bihotzen ikharleak berak ezagut lezake; deusek ez du enganatzen zure arimaren begiralea, eta gizonari bere egintzen arabera dio bihurturen.

13. Ene semea, jan zazu ezta ona delakotz, eta breska, zure ahoari guziz gozo zaiokolotz.

14. Hala-hala zuhurtziaren irakhasmena izanen zaio zure arimari; aurkhitu dukezunean hura, pheskiza izanen duzu zure azken orenean, eta zure pheskiza ez da galduko.

15. Ez heda zelatarik, gaizkia ez bilha prestuaren etxean, eta ez asal-da haren phausua;

16. Ezen zazpitan eroriko da prestua, eta jaikiko da; gaixtaginak ordean tzarkerian ithoko dira.

17. Bozkariarik ez har zure etsaia erori ditakeenean, eta ez jauz xahu-tu delakotz;

18. Beldurrez-eta Jaunak ikhus dezan, gaitzi dakioen, eta haren gai-netik khen dezan bere hasarrea.

19. Ez hari zein-gehiagoka gaixtaginekin, eta ez ekhar bekhaizgorik gizatarrei;

20. Ezen gaixtoek ez dute gerokoaren pheskizarik, eta gaixtaginen argia hilen da.

21. Ene semea, Jaunaren eta erregeren beldur izan zaitezi, eta ez bezaite nahas gaizki-errailleekin;

22. Zeren batbatean altxatuko baita hekien galpena; eta nork ezagutzen du nolakoa izanen den bataren eta bertzearen xahupena?

23. Haukiek ere zuhurrentzat: Juiamendutan ez da on begiratzea nor nor den.

24. Gaixtaginari erraten diotenak: Prestua zare, populuek hainak madarikatuko eta leinuek hastiatuko dituzte.

25. Hura azurriatuko dutenak izanen dira laudatuak, eta benedizio-nea ethorriko zaroete gainera.

26. Solas zuzenak ihardesten dituenak, musu ematen du ezpainetan.

27. Zure lana aphain zazu kanpoan, eta artharekin lant zazu zure lurra, gero altxa dezazun zure etxea.

28. Zure lagunaren kontra ez bezedi athera gezurrezko lekhuko, eta ez balaka nihor zure ezpainez.

29. Ez erran: Nola egin baitarot, hala eginen diot nik ere; zeini bere lanaren arabera bihurtuko diot.



30. Alferraren landatik eta zoroaren mahastitik iragan naiz;  
 31. Eta hara non hausinek bethe zutela guzia, eta lapharrek estali zutela haren gaina, eta lurrean zela inguruko harrasia.  
 32. Hori ikhusi dudanean, altxatu dut bihotzean, eta ikhuskari hortaz argitu naiz.  
 33. Erran dut: Aphur bat lo eginen duk, aphur bat kuluskan egonen haiz, aphur bat bilduko dituk eskuak lo egiteko;  
 34. Eta lasterkari bat iduri, ethorriko zaik erromeseria, eta eskaletasuna, gizon harmatu bat iduri.

### XXV. KAP.

1. Salomonenak dira parabola haukiek ere, Judako errege Ezekiasen gizonen altxatuak.
2. Jainkoaren ospea da bere hitzaren gordetzea, eta erregeen ospea da haren bilhatzea.
3. Zerua gainean, lurra behean, eta erregeen bihotza, ezin-barrenduzkoak dira.
4. Zilharrari khen zozu herdoila, eta atheratuko da untzi bat guziz garbia.
5. Gaixtakeria khen zazu erregeren begithartetik, eta zuzentasunaz gogortuko da haren tronua.
6. Hantua ez ager erregeren aitzinera, eta ez jar handien jarlekhuak;
7. Hobe da ezik erran dezazuten: Igan zaite hunat, ezenetz-eta aphaldua izan zaitezen erregeren aitzinean.
8. Eskatima batean ez berehala ager zure begiek ikhusi dutena, beldurrez-eta gero ezin medea dezazun zure adiskideari eman diozun laidoa.
9. Zure egitekoaz iharduk zazu zure adiskidearekin, eta zure barneko gauza ez ager arrotzari,
10. Beldurrez-eta iroi egin dezazun, aditu dukeenean, eta gero erantzutetik ez dadien bara.  
 Eskerra eta adiskidetasuna salbagarri dira; begira zatzu zurekin, etzadientzat erdeinagarri bilhaka.
11. Bere mugan erraten den solasa da urrezko sagarrak zilharrezko ohean bezala.
12. Zuhurrari eta beharri ethordunari egiten den kridantzak, iduri du urrezko beharrietakoa, eta argitzen duen perla.
13. Nola uztaroan elhurraren hozkura, hala da bidalkin fidela bidali duenarentzat; phausu ematen dio haren arimari.

14. Gizon espantutsuak eta bere agintzak bethetzen ez dituenak, iduri du hedoi eta haize uririk ondolik ez dutenak.
15. Pairuak ematuko du buruzagia, eta mihi gozoak hautsiko du gogortasuna.
16. Atzeman baduzu ezta, jan zazu zure doia, beldurrez-eta aserik goiti egin dezazun.
17. Aldara zazu oina zure lagunaren etxetik, beldurrez-eta egun batez aserik higuintzetan har zaitzan.
18. Sastakai, ezpata eta gezi zorrotz bat da, bere lagunaren kontra gezurrezko lekhukotasuna ekhartzen duen gizona.
19. Hortz ustelaren eta oin nekhatuaren gainean bermatzen da, fidel ez denaren gainean bere pheskiza ematen duena hesturako egunean;
20. Eta hotz deneko uzten du kapa.  
 Bihotz tzarrari kantikak kantatzea, minagrea gatzuan ezartzea da.  
 Nola zerrenak oihala eta biphia zura, hala goibeldurak jaten dio gizonari bihotza.
21. Zure etsaia gose bada, ase zazu; egarriz badago, emozu ura edatera;
22. Ezen ikhatz biziak bilduko ditutzu haren buruaren gainera, eta Jaunak bihurtuko darotzu.
23. Ipharrak haizatzen ditu uriak, eta begitharte ilhunak mihi gaizki-mintzatzailea.
24. Etxe gaineko selharu-zokhoan egotea hobe da, ezenetz etxe-barnean emazte mokokariarekin batean.
25. Urrungo lekhitik berri ona, ur hotza egarri denarentzat bezala da.
26. Gaixtaginaren aitzinean erortzen den prestuak, iduri du ithurri zangoz nahasia, edo xirripa usteldua.
27. Nola ezta ez baita on hainitz jaten duenarentzat, hala maiestarean ikharle dena, lehertua izanen da haren ospez.
28. Nola baita hiri ideki eta inguruan harrasi gabe den bat, orobat da mintzatzean bere gogoia ezin hez dezakeen gizona.

### XXVI. KAP.

1. Nola udari elhurra eta neguari uritea, hala dihoa ospea zoroari.
2. Nola bertzetara hegaldatzen den xoria eta norapait goaten den etxexoria, hala zein beraren gainera jausten da, ariarik gabe arthiki mada-riziona.
3. Azotea zaldiari, muthurrekoa astoari, eta zaharoa zoroen bizkarrari.



4. Zoroari ez ihardets haren zorotasunaren arabera, haren iduriko bilhaka zaitezen beldurrez.
5. Zoroari bere zoroakeriaren arabera ihardetsozu, uste izan ez dezan zuhurra dela.
6. Zangoetarik maingutzen da, eta gaitza hurrupatzen du, bere berriak mandatari zoroarekin igortzen dituenak.
7. Nola mainguak alferretan baititu zangar ederrak, hala zoroen ahoan egoki ez dira parabolak.
8. Zoroari ohore ekhartzen dioenak, hala egiten du nola Merkurioren metara harri bat ekhartzen duenak.
9. Nola bailizate elhorri bat sortzen balitz hordiaren eskuan, hala lizate parabola zoroen ahoan.
10. Erabakiak trenkatzen ditu hauziak, eta zoroa ixilarazten duenak, hasarredurak jabalarazten ditu.
11. Hala egiten du bere zoroeria berritzen duen ergelak, nola bere goiti-eginera itzultzen den zakhurak.
12. Ikhusi duzu bere burua zuhur dadukan gizona? haren ganik baino gehiago igurikitzeko da zoroaren ganik.
13. Nagiak erraten du: Lehoina bidean da, eta lehoin urrixak bazterrak daduzka.
14. Nola athe bat bere erroaren gainean bihurtzen baita, hala nagia itzultzen da bere ohean.
15. Nagiak galtzarpean gordetzen du eskua, eta lan zaio ahora goititzen badu.
16. Nagiak bere burua zuhurrago uste du, solas zuhurrak ihardukitzen dituzten zazpi gizon baino.
17. Iragaitean berotzen eta bertzeen aharra ukitzen ez den batean nahastaten denak, iduri du zakhurra beharrietarik hartuko duena.
18. Nola hobendun baita geziak eta sastakaiak hil nahiz arthikitzen dituenak,
19. Orobat da gizona maltzurki bere adiskideari kalte egiten daroena; eta atzemana ditakeenean, erraten duena: Dostatzean egin dut.
20. Egurrak eskas egin dukeenean, hilen da sua; salhataria khen eta geldituko dira eskatimak.
21. Ikhatz hila biziari bezala, eta egurra suari, orobat da gizon jauz-korra aharra bizteko.
22. Salhataria solasek lainoak iduri dute, eta hekiek sartzen dira barneko mineraino.

23. Zilhar zephatsuarekin aphaindu nahi bazindu bezala lurrezko untzi bat, orobat dira ezpain hanpurutsuak bihotz galdu bati iritxikiak.
24. Bere ezpainetarik ezagutzen da etsaia, zimarkhuak derabilzkanean bihotzean.
25. Bere mintzoa ezti athera baleza ere, ez biazazu sinhets, zeren baitira zazpi maltzurkeria haren bihotzean.
26. Itxura ederraren azpian gordetzen duenak herra, bilkhuan ikhusiko du agertzen bere maltzurkeria.
27. Zilhoaren egilea, hartara erortzen da; eta harria bihurtuko da anbiltzen duenaren gainera.
28. Mihi enganariak ez du egia maite, eta aho legunak xahutzeak dakharzka.

### XXVII. KAP.

1. Ez egin biharamunekotzat espanturik, ez dakizunean zer gerthakari atheratuko duen egun harek.
2. Bertze batek lauda bezaitza, eta ez zure ahoak; atzeak, eta ez zure ezpaineak.
3. Harria dorphea da, phisua da legarra; bainan biak baino dorpheagoa da zoroaren hasarrea.
4. Hasarreak urrikalmendurik ez du, ez-eta sulia jauzten denak; eta nork jasan kantitua denaren oldarra?
5. Kridantza ageria hobe da amodio ixila baino.
6. Maite duenak egin uspela hobe da herradunaren musu maltzurra baino.
7. Asea denak ostikatuko du ezti-breska, eta gose denak khiretsa ere gozo khausituko du.
8. Nola xori bere ohantzetik urrun dohana, hala gizon bere tokia uzten duena.
9. Baltsamuak eta bertze usain onak dira bihotzaren atsegingarri, eta adiskide baten erran onak dira arimaren gozagarri.
10. Ez utz bazterrerat zure adiskidea ez-eta zure aitaren adiskidea, eta ez sar zure anaiaren etxean zure atsekabeko egunean.  
Hobe da hauzo hurbilekoa, ezenetz anaia urrunekoa.
11. Ene haurra, berma zakizkio zuhurtziari eta goihere zazu ene bihotza, izan ahal dezazun zer ihardets gaizkika mintzo zaitzunari.
12. Ikhusenez asturugaitza, xothila gorde da; burtxoroeak iragaitean jasan dituzte kalteak.



13. Arrotzarentzat berme sarthu denaren soinekoa eraman zazu; eraman diozozu arrotzarentzateko bahia.

14. Gautik lekhora jaikitzean, bere lagunaren goraki laudatzen hari dena, gaizki mintzo denaren iduriko izanen da.

15. Hegaztegi egun hotzean ura dariotenak eta emazte mokokaria bata bertzeari dira erkhatzen.

16. Hura atxiki nahi duenak iduri du haizea iduki nahi duena eta olioia eskura bilduko duena.

17. Burdinak burdina zorrozten, eta gizonak bere adiskidearen begit-hartea ernarazten.

18. Pikoa zaintzen duenak janen du haren fruitutik, eta bere nausiaren zain dagoena ospetan izanen da goratua.

19. Nola urera begira daudenen begitharteez han argitzen baitute, hala gizonen bihotzak ageri dira umoentzat.

20. Ifernua eta galpeneko lezea ez dira bethetzen behinere, orobat ezin-asezkoak dira gizonen begiak ere.

21. Nola frogatzen baita zilharra urtzeko untzian, eta urhea labeen, hala gizona frogatua da laudatzen duenaren ahoaz.

Gaixtaginaren bihotza gaizki bilha dabila; prestuarena, berriz, zuhurtziaren bilha.

22. Zoroa xurruan xehaka bazineza ere garagar-bihia marteluz joz bezala, ez leikioke khi bere zorokeria.

23. Artharekin ikhusazu zure abereen heina eta ongi begira diozozute zure ardiei;

24. Ezik etzare bethi ahaletan izanen, baina khoroa menderen mendetako izanen zaitzu emana.

25. Sorhoak idekiak dira, agertu da belhar berria, eta mendietan beharrak bilduak dira.

26. Bildotsak zure jauntziko, eta pittikak landaren saritako.

27. Ahuntzen esnea aski izan bekizu zure jakitako, zure etxeko beharretako eta zure neskatoen hazteko.

### XXVIII. KAP.

1. Gaixtagina ihes dihoa, nihor ondolik gabe; prestua aldiz, gogoaz hazkarrik lehoina bezala, beldurrik gabe izanen da.

2. Lurrak bere bekhauten gatik badu asko buruzagi; eta gizonaren zuhurtzia gatik eta argituak direnen jakitategatik, nausiaren bizia luzeagoa izanen da.

3. Beharren zaphatzaile den gizon beharrak, iduri du gosetea dakharren erauntsia gaitza.

4. Legea bazterrerat uzten dutenak laudatzen dute gaixtagina; zaintzen dutenak bizten dira haren kontra.

5. Gizon gaixtoek ez derabilkate zuzenbidea burutan; baina Jauna bilhatzen dutenak, orori ohartzen dira.

6. Hobe da bere lainotasunean dihoan erromesa, ezenetz bide galduetan dabilan aberatsa.

7. Legea begiratzen duena, ume zuhurra da; aldiz, zintzurkoiak asetzen hari denak ahalkea arthikitzen dio bere aitari.

8. Intresez eta lukuruz ontasun biltzen hari denak, beharren alderat bizar izanen denarentzat biltzen ditu.

9. Nork-ere legearen ez aditzeko makhurtuko baitu beharria, hainaren othoitza gaitzetsgarri izanen da.

10. Bide tzarrean prestuen enganatzen hari dena, bera eroriko da berak egin lezera, eta lainoek gozatuko dituzte haren onak.

11. Gizon aberatsak zuhurra dela uste du; umoa den beharrak ordean haztatuko dio bihotza.

12. Prestuen gorapenean ospe handi bat bada; gaixtaginak erreginatzen direnean, gizon-xahutzeak.

13. Bere gaixtakerien gordetzen hari denak ez du bururatuko; aldiz, aithortzen eta uzten dituenak ardietsiko du urrikalmendua.

14. Dohatsu bethi lotsa den gizona! Bihotz gogorrekoa dena, berriz, gaitzera eroriko da.

15. Marrumaz hari den lehoin, gosez jana den hartz bat da buruzagi gaixto bat populu gaixoaren gainean.

16. Umotasunez eskas den buruzagi batek asko zaphatuko ditu maualaz; aldiz, jaramankeria higuin duenak luzatuko ditu bere bizitzeko egunak.

17. Hobengabearen odolaren ixurtzailea, putzuraino ihes baloha ere, nihork ez du idukiko.

18. Lainoki dabilana salbo izanen da; bide galduetan ibiltzen dena, eroriko da behin bethiko.

19. Lurra lantzen duena aseko da ogiz; aldiz, alferkeriari darraikioena, beharrez betheko da.

20. Hainitz laudatuko da gizon fidela; baina lehen-bai-lehen aberastera hari dena, ez da hobengabe izanen.

21. Erabakitzean nor nor den begiratzen duenak ez du ongi egiten; halakoak ogi-ahamen baten gatik ere bazterrerat utziko du egia.



22. Lehen-bai-lehen aberastera hari den gizonak, eta bertzeez bek-haitz denak, ez daki erromeseria tupustean eroriko zaroela gainera.

23. Gizon bat kridantzaten duenak esker aurkhituren du ondoan haren baithan, mihiko legunkeriez enganatzen duenak baino hobeki.

24. Bere ait-amei zerbait ebasten duena, eta ez dela bekhatu erraten duena, gizon hiltzailearekin barne da.

25. Espantuka haritzen eta hantzen denak khimerak bizten ditu; baina Jauna baithan bere pheskiza dadukana, sendatua izanen da.

26. Bere bihotzaren gainean bere sinhestea bermatzen duena, zoro bat da; aldiz, zuhurki dabilana, salbatua izanen da.

27. Beharrari ematen duenak ez du eskasik izanen; baina othoitzlea arbuizatzen duenak jasanen du beharra.

28. Gizonak gordeko dira gaixtaginak jaikiko direnean; hekiek gal-tzean, prestuak berhatuko dira.

### XXIX. KAP.

1. Nork-ere kridantzazalea buru-gaixtokeriaz arbuiatuko baitu, hai-nari eroriko zaio tupusteko asturugaitza, eta ondotik ezar sendatzerik jarraikiko.

2. Prestuak berhatzeaz boztuko da jendea; gaixtaginek nausitasuna hartzean, auhenez abiatuko da populua.

3. Zuhurtzia maite duen gizonak boztuko du bere aita; aldiz, lilitxo-ak haziko dituenak galduko du bere izatea.

4. Errege prestuak goratu lurra, gizon zekhenak xahutuko du.

5. Bere adiskideari solas legun eta alegiazkoez mintzo denak, sarea hedatzen dio aitzinean.

6. Arteak atzemanen du bekhatu egiten hari den gizon gaixtoa; eta prestua bozkarioz eta lauduriozko kantuz egonen da.

7. Prestuak ezagutzen du beharraren zuzena; gaixtaginak ez daki deusere.

8. Gizon galduak xahutzen dute hiria; zuhurrek, berriz, aldaratzen dute sulia.

9. Gizon zuhurra, aharratzen bada zoroarekin, edo samur dadien, edo irri egin dezan, ez du phausirik aurkhituko.

10. Gizon odolkoiek higuin dute lainoa; prestuek, berriz, begiratu nahi diote bizia.

11. Zoroak atheratzen du gogoan duen guzia; zuhurra ephez dago, eta gerorako goaitatzen da.

12. Solas gezurtiak gogotik aditzen dituen buruzagiak, gaixtoak izanen ditu zerbitzari guziak.

13. Beharrak eta hartzeduruak buruz buru egin dute; Jauna da bien argitzailea.

14. Beharrak zintasunean juiatzen dituen erregea, hainaren tronua bethikotzat da gogortuko.

15. Zaharoak eta kridantzak ematen dute zuhurtzia; aldiz, bere nahitara uzten den haurrak ahalkatuko du bere ama.

16. Gaixtagin gehiago, eta gaixtakeria gehiago izanen da; eta prestuak izanen dira hekien xahupenaz lekhuko.

17. Irakhats zazu ongi zure semea, eta zure gozagarri izanen da, eta atseginen nasaizia emanen dio zure arimari.

18. Profeziarik ez denean gehiago izanen, populua barraiatuko da; legea zaintzen duena ordean, dohatsu da.

19. Gathibua ez daiteke hitzez irakhats; ezik aditzen du zuk diozuna, eta ihardesteaz ez da axoladuru.

20. Ikhusi duzu gizon bat mintzatzera zalhu? haren ganik medeantza baino zoroeria gehiago uste izateko da.

21. Guriki bere sehia haurretik hazten duenak, gerorat ozar atzema-nen du.

22. Hasarrekor denak khimerak bizten ditu; eta gaitzikor dena, bek-hatura erorkorrango izanen da.

23. Hanpurutsuari darraikio beheramendua, eta ospetara goratua izanen da bihotzez apha dena.

24. Uhoinarekin barne egiten denak hastio du bere arima; aditzen du nola deitzen duten zin egitera, eta ez du agertuko hura.

25. Gizonaren beldur dena laster eroriko da; Jaunaren baithan bere igurikimena dadukana izanen da goratua.

26. Asko dabilta buruzagiaren ganik begitharteketa; baina Jauna ganik atherako zaio batbederari zor zaioena.

27. Prestuek gaixtagina higuin dute, eta gaixtaginek hastio dituzte bide zuzenaz dabiltzanak.

Hitza zaintzen duen umea, galpenetik salbo izanen da.

### XXX. KAP.

1. Bilarazlearen hitzak, egiaren hedatzailearen semearenak.

Jainkoa berekin duen gizon batek erran ikhuspena; eta Jainkoa haren baithan izanez indar harturik, erran du:

2. Gizonetarik zoroena naiz, eta gizonen zuhurtzia ez da ene baithan.



3. Ez dut ikhasi zuhurtzia, ez-etare ezagutu sainduen jakitatea.
4. Nor zerurat igan eta jautsi da? nork bere eskuetan iduki du izpiri-tua? nork urak bildu ditu hala-nola sailhal batera? leihorrari nork ezarri diozka bere mugarri guziak? zer izen du, eta zer da haren semearen izena, balin badakizu?
5. Jainkoaren hitzak oro khaldatuak dira. Erredola bat da haren igu-riki daudezenentzat.
6. Ez berba batere haren hitzei, beldurrez-eta jazarria izan dakizun eta gezurretan aurkhitua izan zaitez.
7. Bi galde egin izan darozkitzut, ez ukha niri hil nadien baino lehen.
8. Ergelkeria eta gezurrezko hitzak urrun egizkitzu ni ganik;  
Ez niri eman ez behartasuna, ez-etare aberastasuna; emadazu bak-harrik bizitzeko premia dena;
9. Beldurrez-eta ase ondoan lerra nadien ukhaztera, eta erran deza-dan Nor da Jauna? edo beharrak hartaturik, ebats dezadan, eta ene Jainkoaren izena arnega.
10. Ez jazar sheiari bere nausiaren aitzinean, madarika zaitzan eta eror zadien beldurrez.
11. Ethorki batek madarikatzen du bere aita, eta ez du bere ama benedikatzen.
12. Ethorki batek bere burua garbi daduka, eta bizkitartean ez da bere lohikerietarik xahutua.
13. Ethorki batek begi gorak eta bekhoki goitituak daduzka.
14. Ethorki batek, hortzen orde, ezpatak ditu; eta xehakutzen du bere hortzez, irestekotzat lurreko beharrak eta gizonen arteko erromesak.
15. Odoledeak baditu bi alaba, diotenak: Ekhar, ekhar.  
Hirur gauza dira ezin-asezkoak, eta laugarrenak behinere ez dio: Aski.
16. Ifernua, ume-untziaren ahoa, urez asetzen ez den lurra; sua, berriz, behinere ez dioena: Aski.
17. Aitari irain egiten, eta bere amaren haur eginpenari eskarnio egi-ten dioen begia irazia izan bedi erreketako beleez, eta arranoaren umeek jan bezate bera.
18. Hirur gauza zaizkit gaitzak, eta laugarrena ez dakit batere:
19. Arranoaren bidea zeruan, sugearen bidea harriaren gainean, untzia-ren bidea itsasoaren erdian, eta gizonaren bidea gartzetasunean.
20. Hala-halakoa da bertzeekin khutsatu den emaztearen bidea ere; hainak jaten du, eta ahoa xukhatzean, erraten: Ez dut gaizkirik egin.
21. Hirur gauzaz nahasia da lurra eta ezin jasan dezake laugarrena:

22. Gathibuaz, erregetua denean zoro batez, jatekoz ase denean;
23. Emazteki hastiagarri batez, ezkontzaz hartua denean; eta neska-to batez, bere etxekandarearen ondore egin denean.
24. Lurreko lau gauza dira guziz ttipiak, eta hainak dira zuhurrak baino zuhurragoak:
25. Xinhaurriak, populu xehe, uztaroan bere jatekoa aphaintzen duena;
26. Erbiak, populu indargabe, harrian bere ohantzea ezartzen duena;
27. Xartalak, erregerik ez dutenak, eta oro beren moltzoetan goaten direnak;
28. Estelioak, eskuen gainean dabilzanak, eta erregeren etxetan ego-ten direnak;
29. Hirur gauza dira ongi direnak ibiltzen, eta laugarrena osperekin dabila:
30. Lehoina, basaberetarik hazkarrena, bidean gerthatzen zaioen nihoren beldur izanen ez dena;
31. Oilarra, susaiki dabilana; aharia; eta errege bat, zeinari enferratzen ez baita nihor.
32. Bada zoro agertu dena, gain gainera goratua izan den ondoan; ezen adimendurik izatu balu, eskua bere ahoaren gainean ezarri zukeen.
33. Berriz, dithia hazkarki tinkatzen duenak esnearen edoskitzeko, gaina atheratzen du; borthizki zintzatzen denak, odola ilkhitzen du; eta hasarrea tarritatzen duenak, aharrak sorrarazten ditu.

### XXXI. KAP.

1. Lamuel erregearen hitzak. Bere amak irakhatsi dioen ikhuspenua.
2. Zer erranen darotzut, ene maitea? zer, ene sabeleko ume maitea? zer, ene botuetako haur maitea?
3. Emaztekiei ez eman zure ontasuna; eta erregeen xahutzeko, ez eman zure aberastasunak.
4. Ez eman erregeei, oi Lamuel, erregeei ez eman arnoa; zeren hor-dikeria nausi dagoen tokian, ez baita deusere gorderik;
5. Edan dezaten beldurrez, ahantz dezaten zuzenbidea, eta hoben egin diozoten beharraren haurren zuzenari.
6. Edaria emozute atsekabetan direnei, eta arnoa bihotza uher dutenei.
7. Edan bezate eta ahantz beren behartasuna, eta beren minai gehia-go orhoit ez beitez.
8. Idekazu zure ahoa mutuarentzat, eta iragaiten diren haur guzien alde.



9. Idekazu zure ahoa, zuzen dena mana zazu, eta zuzenki juia zatzu beharra eta errromesa.
10. Nork atzemanen du emazte indarduna? urrungo eta lurraren berzte bazterreko gauza baino baliosago da.
11. Haren baitan fidatzen da haren senharraren bihotza, eta buluzkin eskasik ez du izanen.
12. Bere bizitzeko egun orotan senharrari ongia bihurturen dio, eta ez gaizkia.
13. Bilhatu ditu ilea eta lihoa, eta lanean haritu da bere eskuetako antzearekin.
14. Egin da tratulariaren untxiaren iduriko, zeinak urrundarik ekhartzzen baitio bere ogia.
15. Eta gabaz jaiki da, eta harrapakina eman daroete bere muthilei eta jatekoa neskatoei.
16. Begiztatu du landa bat, eta erosi du; eta bere eskuetako irabazitik landatu du mahasti bat.
17. Indarraz gerrikatu du bere gerruntzea, eta hazkartu du bere besoa.
18. Dastatu eta ikhusi du ona dela haren eginkaria: gabaz ez da hilen haren argia.
19. Gauza hazkarretan ezarri du eskua eta haren erhiak ardatzari lothu dira.
20. Bere eskua erromesari zabaldu dio, eta ahurrak beharrari hedatu.
21. Bere etxeko ez da, ez hotzaren, ez elhurraren beldur; ezen haren sehi guziek soineko bikhunak dituzte.
22. Beretzat egin du egunazko eta gabazko estalgia; liho hautaz eta purpuraz jauntzia da.
23. Haren senharra atheetan ikhusia izanen da, tokiko zaharrekin jarriko denean.
24. Mihise bat egin eta saldu du, eta gerriko bat eman dio Kananearrari.
25. Indarrez eta edertasunez jauntzia da, eta azken egunean irria izanen du.
26. Zuhurtziari ideki dio bere ahoa, eta barkhatiartasuneko legea haren mihian da.
27. Begia eman diote bere etxeko bidexkei, eta ez du alferrik jan bere ogia.
28. Haren haurrak jaiki dira, eta zorionezkoa dela aithor gora eman diote; haren senharra ere jaiki da eta laudatu du.

29. Asko neskatxek bildu dituzte ontasanak; zu, guzien gainetik goan zare.
30. Eskerra enganagarri eta edertasuna hutsal da; Jaunaren beldur den emaztekoa, haina izanen da laudatua.
31. Emozue bere eskuko fruitutik, eta bere egintzek lauda bezate atheetan.



## EKLESIASTESA

### I. KAP.

1. Eklesiastesaren hitzak, Jerusalemeko errege Dabiden semearenak.
2. Hutsalkeriaren hutsalkeria, dio Eklesiastesak: hutsalkeriaren hutsalkeria, eta oro hutsalkeria.
3. Gizonak zer du gehiago bere lanetik, iguzkiaren azpian daraman nekhetik?
4. Gizaldi bat badoha, gizaldi bat heldu da; bainan lurra hala-hala dago bethi.
5. Iguzkia jaikitzen eta etzaten da, eta bere lekhura itzultzen; eta han berriz jaikirik,
6. Ingurua egiten du eguerdia gaindi, eta ipharrera itzultzen da. Haizea badoha oro itzulika iraganez, eta bere inguruekin bihurtzen da.
7. Hibai guziak itsasora sartzen dira, eta itsasoak ez du gaindi egiten: hibaiak ilkhi diren tokira bihurtzen dira, berriz ere turrustaka goateko.
8. Gauza guziak gaitzak dira: gizonak hitzez ezin eman dezake hekien xehetasuna. Begia ikhustez ez da asetzen, ez-eta beharria aditzeaz bethetzen.
9. Zer da izan denik? izatekoa den hura bera. Zer da egin denik? egitekoa den hura bera.
10. Deus ez da berririk iguzkiaren azpian, eta nihor ez da gai errateko: Huna hau berria da: ezen jadanik izatu da gu baino lehenagoko men-deetan.
11. Ez da lehenbiziko gauzen orhoitzapenik, eta gerorat gerthatzeak direnez ere ez dira orhoituko azkenki izatekoak diren gizonak.
12. Ni, Eklesiastes, Israelgo errege izatu naiz Jerusalem;
13. Eta ene buruan ezarri dut bilhatzea eta ikhartzea zuhurki, iguzkiaren azpian gerthatzen diren guziak. Jainkoak lan gaitz hori eman diote gizonen semeei, hortan hari ditezentzat.
14. Ikhusi ditut iguzkiaren azpian egiten direnak oro, eta huna hutsalkeria eta gogoko behardura direla guziak.
15. Zabartuak nekez dira nehortzen, eta zoroen ostea nihonerekoa da.
16. Mintzatu naiz ene bihotzean, nioelarik: Huna non handi bilhakatua naizen, eta zuhurtasunean aitzindu ditut, ni baino lehen Jerusalem izatu diren guziak; eta ene gogoak zuhurki begietsi ditu hainitz gauza, eta argitu naiz.

17. Umotasuna eta jakitatea, errebelamenduak eta zorokeria zer diren ikhastera eman izan dut ene bihotza; eta ezagutu dut horietan ere bazela lan eta gogoko behardura;

18. Zeren zuhurtasun handian baitago gaitzidura handia, eta bere jakitatea berhatzen duenak berhatzen baitu behardura ere.

### II. KAP.

1. Ene bihotzean erran izan dut: Goanen naiz, atseginetan ibiliko naiz igeri, ontasunen gogoak hartuko ditut; eta ikhusi dut hori ere gauza huts bat zela.
2. Ezagutu dut irria enganio bat dela, eta bozkarioari erran diot: Zertan habila enganio alfer ematen?
3. Ene bihotzean gogo hartu dut behar naizela arnotik begiratu, ene arima ekhartzeko zuhurtziara, eta zorokeriari ihes egiteko, ikhusi arteo zer den on gizasemearentzat, zer egin behar duen iguzkiaren azpian haren bizitzeko egunek dirauteno.
4. Lan handiak erabili ditut; altxatu ditut etxeak eta landatu mahastiak.
5. Baratzeak eta sagardiak egin ditut, eta han zuhamu orotarik ezarri izan dut.
6. Urentzat ezteinuak egin ditut, zuhaitz gazteetako oihanaren urzatzeko.
7. Izatu dut muthil, neskato eta sehi hainitz, abereak ere eta ardi-artalde handiak, ene aitzinean Jerusalem izan diren guziek baino gehiago.
8. Metatu ditut urhea eta zilharra, erregeen eta lekhuetakoz izateak, enetzat berezi ditut gizon eta emazteki kantariak, eta gizasemeen atsegingarri direnak oro, xatak eta unziai arnoaren husteko.
9. Eta aberastasunez gauditut ditut ene aitzinean Jerusalem izan diren guziak; zuhurtziak ere enekin irau du.
10. Eta ene begiak tirriatu diren guzietarik ez diotet deusere guphidsi; eta ene bihotzari ez diot debekatu gozatzea edozein atsegin, eta gozo hartzea aphaindu nituen gauzetan, eta uste izan dut emana zitzaitala ene lanez horreletan gozatzea.
11. Eta itzuli naizenean ene eskuek eginikako obra guzien alderat, eta izerdi alferrak atheratu darozkidaten lanen alderat, orotan ikhusi ditut hutsalkeria eta gogoko behardura, eta deusek ere ez dirauela iguzkiaren azpian.
12. Iragan naiz zuhurtziaren, errebelamenduen eta zorokeriaren begiestera. Zer da, nioen, gizona, jarraik ahal dadientzat errege bere egi-leari?





13. Eta ikhusi dut zuhurtzia hanbat aitzintzen dela zorokeriari, zenbat argia urruntzen baita ilhunbeatarik.

14. Zuhurrak begiak ditu buruan, zoroa ilhunbeka dabila, eta ezagutu dut heriotze bat dela bientzat.

15. Eta ene bihotzean erran dut: Baldin heriotze bera bada enetzat eta zoroarentzat, zer baliatzen zait zuhurtziari eman diodan lan handiagoa? Eta ene buruarekin iharduki ondoan, ohartu naiz hori ere hutsilkeria bat dela.

16. Ez da ezen bethiko orhoitzapenik zuhurrarentzat, zoroarentzat baino gehiago, eta ethorkizunak oro bardin ahanzpenaz estaliko ditu; gizon jakina hiltzen da hala-nola ezjakina.

17. Eta horren gatik unhatu naiz ene biazia, ikhustenez gaitzik baizik ez dela iguzkiaren azpian, eta oro hutsalkeria eta gogoko atsekabe direla.

18. Gero hastiatu dut ene antze guzia zeinarekin hain arduratsuki lanari haritu bainatzaio iguzkiaren azpian, ene ondotik utzi behar baitut ondore bat,

19. Zeina ez baitakit izanen den zuhurra ala zoroa, eta hura izanen baita ni izertarazi eta grinatu nauten ene lanetan nausi; eta othe da deuseren hunenbat hutsalik?

20. Horren gatik baratu naiz eta ene bihotzak ukho egin du iguzkiaren azpian lanean haritzeari.

21. Alabainan, gizon batek, zuhurtzia, argi eta ardura handirekin lanean haritu denean, bertze alfer bati uzten dio bildua. Eta beraz hori da hutsalkeria bat eta gaizki handi bat.

22. Ezen gizonak zer atheratuko du bere lan guzietarik eta gogoko beharduratik, zeinak hiratu baitu iguzkiaren azpian?

23. Haren egun guziak atsekabez eta minez dira betheak, eta gabaz ere ez du gogoko phausurik. Eta ez othe da hori hutsalkeria?

24. Ez othe da hobe jatea, edatea eta bere arimari erakhustea bere lanetarikako onak? Eta hori Jainkoaren eskutik dathor.

25. Nork horrela iretsiko du eta ni bezala atseginetan igeri ibiliko da?

26. Jainkoak eman dio, haren aitzinean ona den gizonari zuhurtasun, jakitate, bozkario; bekhatoreari aldiz, nahigabe eta grina alferrak, hari dadientzat berhatzen eta biltzen eta oro utz detzan Jainkoaren gogoko den bati. Bainan hori hutsalkeria da eta gogoko behardura alferra.

### III. KAP.

1. Gauza guziek beren muga badute, eta zeruaren azpian oro beren ephetan iragaiten dira.

2. Muga bada sortzeko, muga hiltzeko; Muga landatzeko, eta muga landatuaren atheratzeko.

3. Bada muga hilarazteko, eta muga sendarazteko; Muga urratzeko, eta muga altxatzeko;

4. Muga nigarraren, eta muga irriaren;

Muga deithoratzeko, eta muga jauzkatzeko;

5. Muga harri arthikitzeke, eta muga biltzeko;

Muga besarkatzeko, eta muga besarkaldietarik urrun egiteko;

6. Muga irabazteko, eta muga galtzeko;

Muga zaintzeko, eta muga uzteko;

7. Muga hausteko, eta muga osatzeko; Muga ixiltzeko, eta muga mintzatzeko;

8. Muga maithatzeko, eta muga higuintzeko;

Muga gerlarako, eta muga bakerako.

9. Bere lanetik gizonak zer du gehiago?

10. Ikhusi dut Jaunak gizasemei eman daroeten nekhea, hartan berma ditezentzat.

11. Gauza guziak onak egin ditu beren orduko, eta mundua gizonen eztabadei eman daroete, gizonak ez dezan ardiets Jainkoak hastetik azkerainokotzat egin duen lana.

12. Eta ezagutu dut ez dela deuseren hoberik boztea baino eta bere bizian ongi egitea;

13. Ezen guziek, jaten, edaten eta beren lanetik ona ikhusten dutenek, Jainkoaren dohainez dute hori.

14. Ikhas dut Jaunak egin dituen lan guziek iraunen dutela bethi: ezin dezakegu deuseren ez berha, ez guti, Jaunak bere beldurraren emateko egin dituen gauzei.

15. Egina izan denak badirau; ethortzekoak direnak, jadanik izatuak dira, eta Jainkoak berritzen du iragan dena.

16. iguzkiaren azpian ikhusi ditut tzarkeria juiamenduaren orde, eta bidegabekeria zuzenbidearen orde.

17. Eta erran izan dut ene bihotzean: Jainkoak juiatuko ditu prestua eta gaixtagina, eta hura izanen da gauza guzien ordua.

18. Gizasemeez erran dut ene bihotzean: Jainkoak frogatzen dituela, eta erakhusten duela abereen pare direla.

19. Hargatik gizona eta azienda bardin hiltzen dira, eta bardina da bataren eta bertzearen izatea; nola hiltzen baita gizona, hala-hala hiltzen da aberea; orok bardin hatsa hartzen dute, eta gizonak deuseren ez du aziendak baino gehiago: oro hutsalkeriaren azpiko dira.



20. Eta oro lekhu berera dihoazi: oro lurretik eginak dira, eta orobat lurrera bihurtzen dira.

21. Nork daki hean Adamen semeen izpiritua goiti igaiten den, eta abereen izpiritua beheiti jausten den?

22. Eta khausitu dut deusere ez dela gizonarentzat hoberik bere lanean boztea baino, eta hori dela hari eroria zaioen zathia. Alabainan nork helaraziko du ezagutzera haren ondotik gerthatzekoak direnak?

#### IV. KAP.

1. Bertze batzuetara itzuli dut ene izpiritua, eta ikhusi ditut iguzkiaren azpian egiten diren zaphatzeak, eta hobengabeen nigarrak, eta nihor ez dela gozakari emateko; eta nihondik laguntzarik gabe, ezin iharduk diozoketela gaixtaginen muthirikeriei.

2. Eta erran dut hilak biziak baino hobeki direla;

3. Eta ustea hartu dut batzuek eta bertzeek baino zori hobea duela oraino sorthu ez denak, eta iguzkiaren azpian egiten diren gaizkiak ikhusi ez dituenak.

4. Berriz eman diotet begia gizonen lan guziei, eta ohartu naiz antzeak lagunaren bekhaizgoari zabalduak daudezela; eta hortan ere hutsalkeria eta behargabeko grina.

5. Zoroak biltzen ditu eskuak eta jaten bere haragiak, dioelarik:

6. Ahurtara bat hobe da deskantsurekin, ezenetz bi eskuen bethea nekhe eta gogoko behardurarekin.

7. Begiratu, bertze hutsalkeria bat ere aurkhitu dut iguzkiaren azpian:

8. Halakoa pakant da, eta ez du berekin, ez semerik, ez anaiarik, eta halere ez da lanetik baratzen, era haren begiak ez ditazke diruz ase; eta ez du gogoeta egiten, erraten duelarik: Norentzat hari naiz lanean, eta gabetzen dut ene bizia ene ontasunen gozotik? Hortan ere hutsalkeria eta behardura gaixtoena.

9. Hobe da beraz, pakant baino, bia elkharrekin izatea; ezik probetxu atheratzen dute beren phartzunergotik.

10. Batek erortzera egin badu, bertzeak soinkaturen du. Zorigaitz bakharrari! Ezen erori ditakeenean, nihor ez du altxatuko duenik.

11. Eta bia balin badira lotan, elkhar berotuko dute; nola berotuko da bakharra?

12. Eta baldin hekietarik bati nausitzen bazaio norbait, biek huni buru eginen daroete; nekhez trenkatzen da hirur phirutako sokha.

13. Haur behar eta zuhur bat hobe da errege zahar eta zoro bat baino, zeinak ez baitaki aitzinetik geroan ikhusten.

14. Ezen batzutan bada presondegitik eta burdinetarik, errege izateko ilkhitzen dena; eta bertze bat, errege sorthua, beharraren azpian higitzen dena.

15. Ikhusi ditut bizi diren guziak, dabiltzala iguzkiaren azpian gizon-gazte ondokoarekin, zeina erregeren ordain jaikiko baita.

16. Haren aitzinean izatu diren guziek egiten dute nihonereko populu oste bat; eta gero ethortzekoak direnak, ez dira haren baithan boztuko. Bainan hori are hutsalkeria eta gogoko behardura.

17. Zure oina zain zazu Jaunaren etxean sartzean, eta entzutera hurbil zaite; ezik hainitez hobe da ethorkortasuna, gaizki egiten dutena ezagutzen ez duten zoroen bitimak baino.

#### V. KAP.

1. Ez mintza nola-nahika, eta zure bihotza Jainkoaren aitzinean solasaren atheratzera ez bedi laster izan; ezen Jainkoa zeruan da, eta zu lurrean; horren gatik egizu solas guti.

2. Hainitz grinari jarraitzen dira ametsak, eta solas hainitzetan aurkhitzen da zorokeria.

3. Zerbait botu egin badiozu Jainkoari, bihurtzea ez luza; ezen desgogarako zaio agintza gezurti eta zoroa; bainan zer-ere botu egin baituzu, bihur zazu.

4. Hainitez hobe da boturik ez egitea, ezenetz agindu botua ez bihurtzea.

5. Zure ahoaz ez bekhatu eragin zure haragiari; eta ez erran aingeruaren aitzinean: Ez da probidentziarik; beldurrez-eta zure solasen kontra hasarreturik, Jainkoak urmaria detzan zure eskuetako lan guziak.

6. Amets hainitz den tokian bada asko hutsalkeria eta solas elemenia bat: zu ordean izan zaitezi Jainkoaren beldur.

7. Ikhusten baditutzu noharroinak zaphatuak, juiamendu bortxatarrak eta zuzenbidea ostikatua herrialde batean, ez hortaz harri; ezen gora dena baino goragoko bertze bat bada, eta hekiek baino handiago diren bertzeak ere badira;

8. Eta bertzalde errege batek manatzen dio bere azpiko lur guziari.

9. Jaramana ez da diruz aseko, eta aberastasunak maite dituenak ez du hekietarik probetxurik atheratuko: hutsalkeria bat da beraz hori.

10. Ontasun hainitz den tokian, jale hainitz ere bada; eta jabeak zer du bertze probetxurik, aberastasun hekiek bere begiz ikhusten dituela baizik?



11. Jan dezan guti edo hainitz, lanean hari denari loa gozo zaio; bainan asetasunak ez du aberatsa lo egitera uzten.

12. Bada bertze gaitz bat ere guziz gaixtoa iguzkiaren azpian ikhusi dudana: aberastasun begiratuak beren jabearen kaltetan;

13. Ezik atsekabe gaitzaren erdian galtzen dira: jaio du seme bat, behartasun handian izanen dena.

14. Buluz ilkhi den bezala bere amaren sabeletik, buluz itzuliko da, eta bere lanetik deusere ez du eramanen berekin.

15. Gaitz guziz urrikaltzekoa! Nola ethorri, hala itzuliko da. Zer baliatuko da beraz haizearentzat nekhaturik?

16. Bere bizitzeko egun guziez jan du ilhunbeetan, grina hainitzen erdian, atsekabe eta gogoko ilhunduran.

17. Hargatik hau on iduritu zait niri, nork jan eta dan dezan, eta bozkarioz goza dadien bere lan, iguzkiaren azpian berak jasan duenaz, Jainkoak eman diozkan bere biziko egun lerroan; eta hori dela haren zathia.

18. Eta gizon guzientzat, zeinei Jainkoak eman baitiozkate aberastasunak eta ontasunak, eta hekietarik jateko ahala, beren zathiaz gozatzekoa, eta beren lanetik bozkario atheratzekoa; hori Jainkoaren dohain bat da.

19. Alabainan guti orhoituko da bere bizitzeko egunez, zeren Jainkoak gozoz betheko baitu haren bihotza.

## VI. KAP.

1. Bada berme gaitz bat ere iguzkiaren azpian ikhusi dudana, eta gizonen artean ardurakoa:

2. Gizon bat zeinari Jainkoak eman izan baitiozka aherastasun, ontasun, ohoreak; eta haren arimak deusere ez du eskas lehia duenetarik; eta Jainkoak ez dio eman hekiez gozatzeko ahala, bainan gizon atze batek iretsiko ditu: hori da hutsalkeria eta deithoragarritasun handia.

3. Norbaitek izan balitu ere ehun haur, bizi izan balitz asko urthez eta adin handia ardietsi balu; baldin bere bizian gozaten ez baditu bere izantzako ontasunak eta ehortzi gabe gelditzen bada; hortaz nik diot, hura baino hilori bat hobe dela.

4. Alabainan alferretan ethorri da, eta ilhunbeetara dihoa, eta ahanzpenak histuko du haren izena.

5. Iguzkia ez du ikhusi, eta ez du ezagutu ongitik gaizkira nolako artea den.

6. Eta bizi izan balitz ere bi mila urthez, eta ontasunez gozatu ez balitz, ez othe doazi lasterrez oro lekhu berera?

7. Ahoarentzat da gizonaren lan guzia, bainan ez da betheko haren arima.

8. Zuhurrak zer du zoroak baino gehiago? eta zer du beharrak, eze-netz badohala bizia den tokira?

9. Nahi duzunaren ikhustea hobe duzu, ez dakizunaren lehia hartzea baino: bainan hori ere hutsalkeria bat da eta gogo sendotasun bat.

10. Izan beharra dena, jadanik bere izenaz deithua da: jakina da gizon bat dela, eta hazkarragoarekin juiamendutan ezin iharduk dezakeela.

11. Erabiltzen da elhe asko, eta asko solaz eztabadetan, oro hutsalke-riaz betheak.

## VII. KAP.

1. Zer premia da gizonarentzat bere baino goragoko gauzak bilha detzan, ez dakienean zer duen on bere bizian, bere arrozgoako egunetan, eta itzala-iduri iragaiten den denboran? Edo nork ezagutaraz diozke, haren ondotik zer gerthatuko den iguzkiaren azpian?

2. Hobe da omen ona gantzugailu baliosak baino, eta hiltzeko eguna sortzeko eguna baino.

3. Deithorea den etxera hobe du goatea, ezenetz barazkaria den etxera: alabainan, hartan ohartarazten da gizon guzien akhabantzaz, eta bizi denak gogoetak egiten ditu gerthatzekoa denaz.

4. Irria baino hobe da hasarrea, zeren hobendun jartzen denaren arima kridantzaten baita begitharteko ilhunduraz.

5. Zuhurren bihotza ilhundura den tokian da, eta zoroena bozkalenzia den lekhu.

6. Hobe da zuhurraz izatea kridantzatua, ezenetz zoroen balakuz enganatua;

7. Zeren duphinaren azpian erretzen hari diren elhorrien harrabotsa nolako, zoroaren irria halako: bainan hori ere hutsalkeria.

8. Kalomniak nahasten du zuhurra eta ilhauntzen haren bihotzeko indarra.

9. Solasaren akhaboa hobe da hastea baino; gizon jasankorra hobe da ozarra baino.

10. Ez izan jauzkor, zeren hasarrea zoroaren golkhoan baitago.

11. Ez erran: Zure ustez, zergatik ziren lehengo denborak hobeak oraiakoak diren baino? zoroa da ezen horrelako galdea.

12. Zuhurtzia aberastasunekin baliosago da eta iguzkia ikhusten dutenei probetxagarriago;



13. Ezen nola maldatzen baitu zuhurtziak, hala maldatzen du diruak ere: bainan hau gehiago dute jakintasunak eta zuhurtziak, bizia ematen baitiote hekien jabe direnei.

14. Begia emozute Jainkoaren egintzei; ikhusazu nihork ez dezakeela kridantza harek arbuiatu duena.

15. Onez goza zaite egun onean, eta berautzu egun gaixtoari; alabainan hura bezala hau ere Jainkoak egin du, gizonak ez dezan izan haren kontra arrangurabide zuzenik.

16. Hau ere ikhusi izan dut ene hutsalkeriako egunetan: prestua galtzen da bere prestutasunean, eta gaixtagina luzez bizitzen bere gaixtakerian.

17. Ez izan prestuegi, ez-eta premia den baino zuhurrago, gaizokeriara eror zaitezen beldurrez.

18. Ez erabil tzarkeria hainitz, eta berautzu zoro izatetik, beldurrez eta hil zaitezen zurea ez den orduan.

19. Ongi da prestuari hel zakizkion; bainan bertzearen ganik ere ez gibela zure esku; zeren Jainkoaren beldur denak deus ez baitu arthagabe uzten.

20. Zuhurtziak zuhurra hazkarragotzen du hiriko hamar aitzindari baino;

21. Lurrean alabainan ez da gizon presturik, zeinak ongia egiten baitu eta bekhaturik ez baitu egiten.

22. Bainan zuk ere ez iraxik zure bihotza erasten diren elhe guziei, beldurrez-eta entzun dezazun zure sehia zutaz gaizki mintzatzen;

23. Badaki alabainan zure barneak zeroni maiz gaizki mintzatu zarela bertzeez.

24. Zuhurtziaren biltzeko ez da nik erabili ez dudarik. Erran izan dut: Zuhurtuko naiz; eta harek ene ganik urrun egin du

25. Lehen zen baino hainitz gehiago; eta haie barnatasun handian datza! Nork atzeman hura?

26. Gogoaz iragan ditut oro, jakiteko, begiztatzeko, eta zuhurtziaren eta ariaren bilhatzeko, eta ezagutzeko zoroaren tzarkeria eta umogabeen errebelamenduak.

27. Eta khausitu dut emaztekoa heriotzea baino uherragoa dela, ihiztarien artea dela, haren bihotza sare bat, haren eskuak gathe batzu. Jainkoaren gogarako denak, emaztekiari ihes eginen dio; aldiz, bekhatore dena, hartaz izanen da atzeman.

28. Horra zer aurkhitu dudan, dio Eklesiastesak, gauza bat bertzeari hurbildu dudanean, aria bat nahiz atzeman,

29. Ene arimak oraino bilhatzen duena, eta ez dut khausitu. Mila gizonetan, bat atzeman dut; eta emazteki bat ez dut khausitu orotan.

30. Bakharrik hau dut aurkhitu, zuzena egin duela Jainkoak gizona, eta gizonak bere burua nihonereko ihardukarietan koropilatzen duela. Nor da halako, non zuhur baita? eta nork ezagutu du solasaren garbitasuna?

## VIII. KAP.

1. Zuhurtziak izarniatzen du gizonaren ahurpegian, eta Ahalorotakoak mudatzen dio begithartea.

2. Nik zaintzen ditut erregeren ahoko hitzak eta Jainkoaren zineko manamenduak.

3. Ez gibela herresakaz haren aitzinetik, eta ez iraun tzarkeriako lanean, zeren nahiko dituen guziek eginen baititu.

4. Ahalez bethea da haren hitza, eta nihork ezin erran diozoke: Zergatik egiten duzu hola?

5. Manamendua begiratzen duenak ez du gaitzik batere jasanen. Zuhurraren bihotzak ezagutzen du noiz eta zer ihardets.

6. Egiteko guziek badute beren ordua eta ongi-ethorria, eta gizonak asko atsekabe;

7. Zeren ez baitakizki gauza iraganak, eta ethortzekoez ez baitute niholazko berririk.

8. Ez da gizonaren ahalean bizia goatetik debekatzea; ahalik ez du heriotzeko egunaren gainean, eta phausurik etzaio uzten, jauzten denean gerla; gaixtagina ere ez du gaixtakeriak salbatuko.

9. Begietsi ditut horiek oro, eta iritxiki dut ene bihotza iguzkiaren azpian egiten diren gauza guziei. Batzutan gizonak gizonaren gainean bere zorigaitzetan nausitasun badu.

10. Ikhusi ditut gaixtaginak ehortziak, zeinak oraino bizi zirenean ere, lekhu sainduan baitzauden, eta laudatzen zituzten hirian hekien egintzak, prestuen egintzen idurikoak izan balira bezala; bainan hori ere hutsalkeria;

11. Ezen, erabakia ez delakoan gaixtaginen kontra berehala ekhartzen, gizasemeek beldurrik batere gabe egiten dituzte gaizkiak.

12. Eta bizkitartean zeren bekhatoreak ehunetan egin duen gaizkia, eta jasanorki egarria den, hortarik ezagutu dut nik zoriona izanen dela Jainkoaren beldur direnentzat eta haren begitharteak larderiatzen dituentzat.

13. Onik izan ez bedi gaixtaginarentzat, aien egunak ez beitez izan luzatuak; bainan itzala bezala iragan beitez Jaunaren beldur ez direnak.



14. Bada bertze hutsalkeria bat ere lurraren gainean gerthatzen den: prestuak badira, zeinei asturugaitzak heltzen baitzaizkote, gaixtaginen egintzetan ibili balire bezala; eta badira gaixtaginak, deskantsua dutenak, prestuen egintzak balituzte bezala. Bainan hori ere dadukat hutsalkeria guziz handitzat.

15. Laudatu dut beraz bozkarioa, gizonak iguzkiaren azpian ez delakotz bertze onik, baizik-ere jaten eta edaten duela eta bozten dela; eta berekin hori bakharrik eramanen baitu bere lanetik, Jainkoak iguzkiaren azpian eman diozkan bere biziko egunetan.

16. Eta iratxiki dut ene bihotza zuhurtziaz jakintsun egiteari eta lurraren gainean dagoen saxeriaren ezagutzeari; bada gizonik zeinaren begiek ez egunaz, ez gauaz lorik atzematen ez dutenik.

17. Eta ezagutu dut, Jainkoaren egintza iguzkiaren azpian gerthatzen diren guzien ariarik batere ez dezakeela khausi gizonak, eta zenbatenez ere gehiago hariko baita haren bilhatzen, hanbatenez gutiago khausituko duela. Zuhurrak erran baleza ere ezagutzen duela, ezin atzeman lezake.

### IX. KAP.

1. Horiek oro ene bihotzean erabili ditut, zuzenki ezagutu nahiz. Badira prestuak eta zuhurrak, eta hekien egintzak Jainkoaren eskuetan dira; eta halere gizonak et daki ala duen merezi onhirizkoa, ala gaitzirizkoa:

2. Bainan oro mentura batean ethorkizunekotzat begiratuak dira, zeren oro bardin gerthatzen zaizkoten prestuari eta gaixtaginari, onari eta gaixtoari, xahuari eta lohiari, bitimak imolatzen dituenari eta sakrifizioak arbuatzen dituenari. Nola baita ona, hala-hala bekhatoera ere; gezurrez zin egiten duena bezala da egiaz egiten duena ere.

3. Hori da areenik iguzkiaren azpian egiten diren orotan, zeren guziei gauza berak gerthatzen baitzaizkote. Hortarik dathor gizasemeen bihotzak tzarkeriaz eta arbuioz bethetzen direla beren bizian; eta gero ifer-nuetara eramanak izanen dira.

4. Ez da nihor bethi bizi denik eta horren ustekeria duenik: zakhur bizia hobe da lehoin hila baino.

5. Alabainan bizi direnek badakite hiltzekoak direla; hilek ordean deusik ez dakite gehiago, eta gehiago ez dute sariirik, zeren hekien orhoitzape-na ahanzpenari utzia baita.

6. Maithatze, higuintze, bekhaitzatek ere batean iraungi dira; eta ez dute gehiago ikhustekorik, ez mende huntan, ez iguzkiaren azpian egiten diren gauzetan.

7. Zoaz beraz, eta bozkarioz jan zazu zure ogia, eta arraiki edan zure arnoa, zeren Jainkoaren gogarako baitira zure egintzak.

8. Ordu oroz zure soinekoak izan beitez xuriak eta zure burukotzat olioak ez beza eskas egin.

9. Maite duzun emaztearekin goza zaite biziaz, iguzkiaren azpian zure hutsalkeriako denboran emanak izan zaizkitzun zure bizitze iragan-korreko egun oroz; ezen hori da zure zathia bizian, eta iguzkiaren azpian derabilkazun lanean.

10. Laster egizu zure eskuak egin dezakeen guzia; zeren ez baita, ez lan, ez aria, ez zuhurtzia, ez jakitaterik hilen baithan, zeinen gana zalhuki baitzoaz.

11. Itzuli naiz bertze alde batera, eta iguzkiaren azpian ikhusi dut ez dela zalhuentzat lasterkan irabazia, hazkarrentzat garhaizia, zuhurrentzat ogia, jakinentzat aberastasuna, antzetsuentzat eskerra; bainan ordua eta gerthakaria direla orotan.

12. Gizonak ez du ezagutzen bere akhabantza; bainan nola arraina amuan atzematen baita eta xoria segadan, gizonak ere hala harrapatzen dira oren gaitzean, tupustean gainera heldu zaiotenean.

13. Zuhurtzia hau ere ikhusi dut iguzkiaren azpian, eta frogatu izan dut guziz handitzat:

14. Hiri bat bazen ttipia, eta gizon guti hartan; haren kontra ethorri zen errege handi bat, inguratu zuen, hazkargailuak inguruan altxatu eta alde orotarik sethiatu.

15. Eta hartan khausitu zen gizon bat beharra eta zuhurra, eta bere zuhurtasunaz libratu zuen hiria, eta gero nihor etzen orhoitu gehiago gizon, behar hartaz.

16. Eta nik erraten nuen zuhurtzia indarra baino hobea dela. Nola beraz gizon behar haren zuhurtasuna erdeinatua izan da, eta haren solasak ez dira entzunak izan?

17. Ixiltasunean entzuten dira zuhurren solasak, zoroen artean aitzindariaren oihua baino hobeki.

18. Gerlako harmak baino hobe da zuhurtzia; eta batean huts egiten duenak, hainitz ontasun galduko du.



## X. KAP.

1. Uliek hiltzean gantzugailuari galarazten diote bere gozotasuna; zorozeria aphurra eta iraupengabeak garaitzen ditu zuhurtzia eta ospea.
2. Zuhurraren bihotza haren esku eskuinean da, eta zoroaren bihotza hunen esku ezkerrean.
3. Eta oraino zoroak, bere bidean dihoanean, nola adimendugabea baita, guziak zoro daduzka.
4. Ahala duenaren izpiritua igaiten bazaitzu gainera, ez utz zure tokia, zeren sendagailuak baratuko baititu bekhatuik handienak.
5. Gaizki bat bada, iguzkiaren azpian ikhusi dudana buruzagiaren ganik atheratzen errebelamendu baten bidez bezala:
6. Zoroa kargu handira goratua, eta aberatsak behereko aldean jarriak.
7. Ikhusi ditut gathibuak zaldiz, eta aitzindariak lurtean oinez gathibuak bezala.
8. Zilhoaren egilea hartara eroriko da; eta nork-ere urratuko baitu hesia, hura asikiko du sugeak.
9. Harriak larrutuko du harriketari dena, eta egur arraitzen hari denak hekietan min hartuko du.
10. Burdina khamustua balin bada, eta hura ez lehen bezala, bainan gehiago khamustun bada, nekhe handirekin zorrotzuko da; eta zuhurtzia bermatzeari jarraitzen zaio.
11. Sugeak ixilik asikitzen badu, harek baino deusere ez du gutiago gordeka belzten hari denak.
12. Zuhurraren ahoko solasak esker ederrekoak dira, eta zoroa bere ezpaineak erorraraziko dute.
13. Haren elheen hastapena zorozeria bat da; eta haren ahotik ilkhitzen den azkena, errebelamendurik tzarrena.
14. Zoroak metaka ditu eiheak. Gizonak ez daki zer izan den haren aitzinean; eta nork erakhuts diozoke zer izanen den haren ondotik?
15. Beren lanak xahutuko ditu zoroak, zeinek ez baitakite hirira goaten.
16. Zorigaitz hiri, lurra, zeinaren erregea haur baita, eta zeinetako buruzagiak goizetik hari baitira jaten
17. Dohatsu lurra, zeinaren erregea deihatua baita, eta zeinetako buruzagiek tenorean jaten baitute, barnearen hazteko eta ez zalekeriaz!
18. Alferkeriak erorraraziko du etxegaineko zureria eta eskuen nagitasunak betheko du etxea zitaitzez.

19. Gizonak egiten dituzte ogia eta arnoa irriz egoteko, beren bizia asetan iragan dezatentzat; eta gauza guziak diruaren manuko dira.

20. Zure gogoan ez erran erregerentzat gaizkirik, eta zure gela zokhoan ez madarika aberatsa, zeren zeruko xoriek berek eramanen baitituzte zure hitzak, eta hegalak dituenak barraituko baitu zuk errana.

## XI. KAP.

1. Arthikazu zure ogia iragaiten diren uren gainera, zeren asko denboren buruan atzemanen baituzu.
2. Ematzu zazpi zathi eta zortzi ere, zeren ez baitakizu zer gaitz gertatu behar den lurtean.
3. Hedoiak betheak badira, uria ixuriko dute lurraren gainera; zuhaitza erortzen bada hegoara edo ipharrera, edozein tokitara eror dadien, han egonen da.
4. Haizeari begira dagoenak ez du eraiten, eta hedoiei begira dagoenak ez du behinere uztarik bilduko.
5. Hala-nola ez baituzu ezagutzen biziaren bidea ez-eta nola hezurak elkhari iratxikitzen diren emazteki izorraren sabelean; hala-hala ez dakizkitzu Jainkoaren obrak, hura baita gauza guzien egilea.
6. Goizetik erain zazu hazia, eta arratsean ez bedi zure eskua geldi, zeren ez baitakizu zein, hura ala hau sorthuko den lehenik; eta baldin biak bardin egiten badira, hobe izanen da.
7. Begiei argia gozo eta iguzkiaren ikhustea lakhet zaiote.
8. Gizona asko urthez bizi izatu bada, eta hekietan orotan bozkariotan izan bada, orhoitu behar da ilhunbeetako denboraz, eta egunketa handi hartaz; zeinak, behin ethorri direnean, iraganari frogatuko baitiote bere hutsalkeria.
9. Gizon-gaztea, beraz boz zaite zure gaztetasunean, bozkariotan izan bedi zure bihotza zure gaztaroko egunetan; ibil zaite zure bihotzaren bideetan eta zure begien argitara; eta jakizu Jainkoak horietaz orotaz juiamendutara galdutako zaituela.
10. Iraizatzu hasarrea zure bihotzetik eta gaixtakeria zure haragitik; ezen gaztetasuna eta atsegina bardin hutsalak dira.

## XII. KAP.

1. Zure kreatzaileaz orhoit zaite zure gaztaroko egunetan, atsekabearen ordua ethorri baino lehen eta hurbil ditezen aitzinean urtheak zeinetaz erranen baituzu: Ez dira ene gogarako;



2. Goibel ditezen baino lehen iguzkia eta argia, ilhargia eta izarrak, eta hedoiak itzul ditezen uriaren ondotik;
3. Laztuko direnean etxearen zainak, eta khordokatuko gizonik hazkarrenak; ehaileak alfer eta gutituak izanen direnean, eta zirrituetarik ikhusten dutenak lanbrotuko direnean;
4. Karrikan atheak hertsiko dituztenean, ehailearen mintzoaren ahi-duran; hegastinaren karrankara jaikiko direnean; kantuaren alabak gortuko direnean guziak;
5. Lekhu gorak ere lotsagarri izanen direnean, eta izialdurak bidean jauziko direnean; amanda-hondoa loratuko da, xartala gizenduko, eta kaprak ezdeustuko direnean; zeren gizona baitoha bere bethiko etxera, eta karrikan ingurua eginen baitute deithoratzaillek;
6. Zilhar-haria trenka, eta urhezko hedea gibelerat bil dadien baino lehen; pegarra ithurriaren gainean hautsi, eta pirrita urtegiaren gainean xehakatu aitzinean;
7. Herrautsa bihur dadien baino lehen lurrera, zeintarik atheratua baitzen; eta izpiritua itzul dadien baino lehen Jainkoa gana, zeinak eman baitzuen.
8. Hutsalkerien hutsalkeria, dio Eklesiastesak, eta oro hutsalkeria.
9. Eta nola Eklesiastesak guziz baitzen zuhurra, irakhatsi zuen populua, eta erran zituen egin zituenak, eta ikhartuz xuxendu zituen parabola hainitz.
10. Bildu zituen zerbaitetako hitzak, eta iskribatu zituen solas guziz zuhurrak eta egiaz betheak.
11. Akhuloak iduri, eta itze barna sarthuak bezala dira zuhurren hitzak, artzain bakharrak nausten kontseiluz emanak.
12. Hekiez bertzerik ez bilha, ene semea. Asko liburu eginez, akhatzerik ez daite; eta gogoa ardura alhatzea, haragiaren erkhitzea da.
13. Batean entzun dezagun guziek solasaren ondarra: Izan zaitzei Jainkoaren beldur, eta begira zatzu haren manamenduak; ezen hortan da gizona oso.
14. Eta Jainkoak juiamendutara erakharriko ditu egiten direnak oro nolana hiko hutsaren ariaz, hori izan dadien edo onezko edo gaixtozkoa.

## SALOMONEN KANTIKETAKO KANTIKA

### I. KAP.

1. Musu egidazu zure ahoko musuaz ezen zure bulharrak arnoa baino gozoagoak dira,
2. Usainez baltsamurik hobeenen garai. Zure izena da olio ixuria iduri horren gatik neskatxa gasteek maithatu zaituzte zu.
3. Zurekin eraman nezazu: zure ondoan laster eginen dugu zure baltsamuen usainera. Erregek sarrarazi nau bere gela-barnetan: jausiko gare eta bozkariaturen zu baithan, orhoiturik zure bulharrak arnoa baino gozoagoak direla: bihotz-zuzenek maite zaituzte.
4. Oi Jerusalemeko alabak, beltza naiz, bainan ederra, Zedarreko xolak bezala, Salomonen larru-olhak bezala.
5. Ez dezazuen begira beltzarana naizela, zeren histu bainau iguzkiak jazarri darotet ene amaren semeek, ezarri haute mahastien zain, eta ene mahastia ez dut zaindu.
6. Oi ene arimak maite zaituena, erakhuts dizadazu nongo ahapide-tan ibiltzen zaren, non egiten duzun eguerdiko loa, ez nadien zat bazterrez-bazter abia zure lagunen arthaldeen ondotik.
7. Jakintsun ez bazare, oi andreetarik ederrena, ilkhi zaitte, eta zoazi arthaldeen hatzen ondotik, eta alha zatzu zure pittikak artzainen etxolen ondoan.
8. Ene maitea, agertu zaizkit ene zaldiaren iduriko, Faraonen urkhazterretan.
9. Zure bi mathelak ederrak dira hala-nola uso ttorttoilaren baphoa: zure lephoa, lepho-gathea bezala.
10. Eginen darozkitzugu urhezko gatheak, arteak zilharrez berregindurik.
11. Errege bere etzauntzan zagoelarik, ene nardoak hedatu du bere usaina.
12. Ene bihotzekoa, mirrazko floka bat da enetzat, egonen da ene bi bulharren artean.
13. Ene bihotzekoa da enetzat Zipreko mahats-molkho bat bezala, Engadiko mahastietan.
14. Ai zein ederra zaren, ene maitea, zein ederra zaren! Usoaren begiak ditutzu.



15. Ai zein ederra zaren, ene bihotzekoa, eta berregina! Gure ohea guzia loreztatua da.

16. Zedroz dira gure etxeko zurak, gure bobedak ziprez.

## II. KAP.

1. Ni naiz bazterretako lorea, eta haranetako lilia.

2. Nola lilia lapharren artean, hala ene maitea agertzen da bertze neskatxen erdian.

3. Nola sagarrondoia oiha-neko zuhaitzen artean, hala ene bihotzekoa agertzen da gizasemeen artean. Min nuenaren itzalean jarri naiz: eta gozo da haren fruitua ene ahoko.

4. Sarrarazi nau bere arnotegian, amodioa ezarri du ene bihotzean.

5. Lorez hazkar nezazue, ingura nezazue sagarrez: ezen amodioz iraingitzen nago.

6. Esku ezkerra ezarriko du ene buruaren azpian, eta eskuinaz besarkaturen nau.

7. Othoizten zaituztet, oi Jerusalemeko alabak, orkhatzez eta oiha-netako orenez, ez dezazuen asalda, ez-etare atzarraraz ene maitea, berak nahi duen arteo.

8. Ene bihotzekoaren mintzoa! Huna bera non heldu den mendietan jauzika, bizkarrak iraganez.

9. Ene bihotzekoak iduri du orkhatza eta orenaren umea. Huna non dagoen gure harrasiaren ondoan, leihoetarik begira, xareten artetarik barrandan.

10. Huna ene bihotzekoak non erraten darotan: Jaiki zaite, egizu laster, ene maitea, ene usoa, ene ederra, eta zato.

11. Ezen oraikotz iragan da negua, uria goan eta itzuri da.

12. Loreak agertu dira gure lurrean, ethorri da ephai-aroa: ttorttoilaren kurruka entzun da gure lurrean.

13. Pikondoak ekharri ditu bere pikoak: loretan mahastiek hedatu dute beren usaina. Jaiki zaite, ene maitea, ene ederra, eta zato.

14. Ene maitea, har-arteetan, harrasiko zilhoan, erakuts dizadazu zure begithartea, zure mintzoak jo beza ene beharria, ezen gozoa da zure mintzoa, ederra zure begithartea.

15. Atzeman ditzagutzue mahastiak xahutzen dituzten haxeri ttipi-ttoak: ezen loratu da gure mahastia.

16. Enea da ene bihotzekoa, eta ni harena, lilien artean alhatzen denarena,

17. Eguna zabal, eta itzalak eror ditezen arteraino. Bihur zaite; ene bihotzekoa, izan zaitezi orkhatzaren eta orenkumearen iduriko Bethergo mendien gainean.

## III. KAP.

1. Ene ohean, gauen minean, bilhatu izan dut ene arimak maithatzen duena: bilhatu izan dut, eta ez dut aurkhitu.

2. Jaikiko naiz, eta itzulikatuko dut hiria: karriketari eta plazak gaindi bilhatuko dut ene arimak maithatzen duena: bilhatu dut, eta ez dut aurkhitu.

3. Atzeman naute hiria zaintzen duten beilariek: Ikhusi duzue ene arimak maithatzen duena?

4. Hekietarik haratxago iragan naizenean, aurkhitu dut ene arimak maithatzen duena: atxiki dut; eta ez dut utziren sarraraz dezadan arteo ene amaren etxean, eta ene burhasoaren gelan.

5. Othoizten zaituztet, oi Jerusalemeko alabak, orkhatzez eta oiha-netako orenez, ez dezazuen asalda, ez-etare atzarraraz ene maitea, berak nahi duen arteo.

6. Zein da mortuaren erditik igaiten den hau, mirraz, isentsuz, eta baltsamuginaren herrauts guzietz egin baltsamuetarik ilkhitzen den lanho-adarra iduri?

7. Huna non Salomonen etzauntza inguratzen duten hirur hogoi hazkarrek Israelgo hazkarrenetarikakoek:

8. Guziak ezpatekin, eta gerletan guziz jakinak: batbederak sahetsean du ezpata, gabazko izialduren ariaz.

9. Libango zuhamuz soin-karrosa bat egin izan du Salomon erregeak.

10. Habeak egin ditu zilharrez, etzin-lekhua urhez, igan-tokia purpuraz: erditan hedatu du onhirizgoa, Jerusalemeko alaben ariaz.

11. Ilkhi zaitezte, Siongo alabak, eta ikhusazue errege Salomon, buruan bere belharrekoa, zeintaz bere amak khoroatu baitzuen ezkontzeko egunean, eta haren bozkarioko egunean.

## IV. KAP.

1. Zeinen zaren ederra, oi ene maitea, zeinen zaren ederra! Usoaren begiak dituztu, barnean gordea denik aiphatu gabe. Zure ileak dira Galaadeko menditik igan diren ahuntz-arthaldeak iduri.

2. Zure hortzak dira ardi murriztuak iduri, ithurrian garbiturik mendirat igan direnean, guziak ume biritxiekin, eta antzurik ez da hekietan;





3. Zure ezpainak eskarlatatzko xingola bat iduri; zure mintzoa ezta da. Nolakoak baitira mingranaren bi erdiak, halakoak dira zure bi mathe-lak, barnean gordea denik aipatu gabe.

4. Zure lephoak iduri du Dabiden dorrea, hazkargailuekin egina: mila erredola dilindan daude hartarik, eta hazkarren harmagailu guzia.

5. Zure bi bulharrak dira lilien artean alhatzen diren orkhatzaren bi ume biritxiak iduri.

6. Eguna argi, eta ilhuna suntsi dadien arteraino, goanen naiz mirra-ko mendira eta isentsuko aldapara.

7. Guzia zare ederra, oi ene maitea, eta itzalik ez da zu bait han.

8. Zato Libanetik, ene andre-beharra, zato Libanetik, zato; khoroa-tua izanen zare: zato Amanako kaskotik, Sanir eta Hermongo gainetik, lehoinen etzan-lekhuetarik, lehoi-nabarren mendietarik.

9. Eritu duzu ene bihotza, oi ene arreba, ene esposa, zure begi batez eta zure lephoko ile-kuskula batez.

10. Zein ederrak diren zure bulharrak, oi ene arreba, ene esposal Arnoa gozo den baino ederrago dira, eta zure baltsamuen usaina, bertze usain on guziak baino gozoagoa da.

11. Oi ene esposa, zure ezpainak dira ezta darioen breska bezala, ezta eta esnea dira zure mihiaren azpian: zure soinekoen usaina da isen-tsuaren usaina bezala.

12. Baratze hertsu bat zare, ene arreba, ene esposa, baratze hertsu bat, ithurri zigilatu bat.

13. Zure hats-egotzaldiek iduri dute mingranazko baratze bat sagra-rren fruituekin, zipreko nardoarekin;

14. Nardoa eta safrana, khana usain onaren eta zinamoma Libango zuhamu guziekin, mirra eta aloesa baltsamu gozoen guziekin.

15. Baratzetako ithurria zare; Libanetik thurrustaka jausten diren ur bizietako ithurburua.

16. Jaiki zaitte, ipharra; zato, hegoa; haize emazue ene baratzera, eta heda beitez hango usain gozoak.

## V. KAP.

1. Bethor, ene bihotzekoa bere baratzera, eta jan beza bere sagarre-tako fruitua. Ethorri naiz ene baratzera, ene arreba, ene esposa: bildu izan dut ene mirra ene baltsamuekin: jan dut breska ene eztiarekin: edan dut ene arnoa ene esnearekin: jan zazue, adiskideak, eta edan zazue, eta hordi zaitzete, ene bihotzekoak.

2. Lotan naiz, eta ene bihotza atzarria dago: ai! ene bihotzekoaren mintzoa! Berak jotzen darot athea, dioelarik: Ideki dizadazu, ene arreba, ene maitea, ene usoa, ene nothagabea; ezen burua dut ihintzez bethea, eta ileak gauetako ur-xortez.

3. Eraunzi izan dut ene soina, nola jauntziren dut berriz? Garbitu izan ditut zangoak, nola lohi berriz?

4. Ene bihotzekoak eskua zirritutik sarthu du, eta ene barnea lastu du haren ukitzeak.

5. Jaiki naiz ene bihotzekoari idekitzera: ene eskuei zarioten mirra, eta usain gozoenak ene erhie.

6. Ideki izan diot ene bihotzekoari ene atheko krisketa: hura ordean aldaratua zen eta aitzina iragana. Ene arima urthu da hura mintzatu izan deneko: bilhatu dut, eta ez dut aurkhitu: deithu dut, eta ez darot ihardetsi.

7. Hirian inguruka dabilzan zainek atzeman naute; jo eta uspelkatu naute; harrasi-zainek eraman darotade ene kapa.

8. Othoizten zaitzitet, Jerusalemeko alabak, baldin aurkhitzen badu-zue ene bihotzekoa, errozue amodioz ahiduran nagoela.

9. Zer du bada zure maitheak bertze batek ez duenik, oi andreetarik ederrena? Zer du zure maitheak bertze batek ez duenik, huneletan othoizteko gu?

10. Ene bihotzekoa xuri-gorria da, asko milen artean berezia.

11. Haren burua da urhe ederrena iduri: haren ileak, belea bera bezain beltzak, palmondoaren gandoak iduri.

12. Haren begiek iduri dute uso esnean garbituak ur-xirripen bazte-rretan, eta ur lasterren hegietan egoten direnak.

13. Haren mathelak dira baltsamuzko larraintto bat bezala, baltsa-muginek xuxendua: haren ezpainak iduri dute mirra hautena dakharreten liliak.

14. Haren eskuak urhezkoak dira, thornuan thornatuak eta moredi-nez betheak. Haren sabelak iduri du bolia zafirrez berregindua.

15. Haren zangarrak dira marmolazko habeak bezala, urhezko asen-tuen gainean. Ederra da Libango mendia bezala, berezia zedroa bezala.

16. Haren mintzoa ezin-gehiago ezta da, eta bera osoki guragarria: horra nolako den ene bihotzekoa, eta bera da ene adiskidea, oi Jerusalemeko alabak.

17. Nora goan da zure bihotzekoa, oi andreetarik ederrena? nora baztertu da zure bihotzekoa? erraguzu, eta bilhaturen dugu zurekin.



## VI. KAP.

1. Ene bihotzekoa jautsi izan da bere baratzeria baltsamuetako larrainera, baratzerian hartzeko bere janharria, eta lilien biltzeko.
2. Ni ene bihotzekoarena naiz, eta enea da ene bihotzekoa, lilien artean hazten dena.
3. Ederra zare, ene maitea, gozoa eta berregina Jerusalem bezala: lazgarri zare lerrotan pharatu den armada bezala.
4. Bazter zatu begiak ni ganik, zeren ene baitharik jauzarazi bainaute. Zure ileak dira Galaadetik agertu den ahuntz-arthaldea iduri.
5. Zure hortzak dira garbitzeko lekhutik igan diren ardiak bezala, guziak ume biritxiek, eta ez da hekietan antzurik.
6. Nola mingranaren axala, hala dira zure mathelak, zutan gordeak direnak aiphatu gabe.
7. Hirur hogoi dira erreginak, eta laur hogoi ohaideak, eta erran ez daiteke zenbat diren neskatxa gazteak.
8. Bainan bat da ene usoa, itzalgabea; bakharra da bere amarena, bere burhasoaren eskutik hautatua. Neskatxek ikhusi izan dute eta goraki deithu guziz dohatsua: erreginek eta ohaideek goretsi izan dute.
9. Zein da andre heldu den hau, argi-urratzea heldu den bezala, ederra nola ilhargia, zoragarria nola iguzkia, lazgarri nola armada lerroka pharatu?
10. Jautsi naiz heltzaurretako baratzeria, ikhustekotzat haranetako sagardiak, begiratzekotzat hea loratu diren mahastiak, eta muskildu mingranak.
11. Ez dut jakin: ene arimak nahasi nau, Aminadaben urkha-lasterren ariaz.
12. Bihur zaite, bihur, Sulamdarra; bihur zaite, bihur, begira dezazugun.

## VII. KAP.

1. Zer ikhusiren duzu Sulamdarra baithan, ezpada gerlari-moltzoak kanpetan? Zure urhatsak zeinen diren ederrak, errege alaba, zure oineta-koetan! Zure ixterretako giltzek iduri dute ofizialearen eskuz eginak diren lepho-gatheak.
2. Zure xilkhoak iduri du thornuan eginikako xata, edariz eskas ez dena. Zure sabela da ogi-murru liliz inguratua bezala.
3. Zure bi bulharrak dira orkhatzaren bi une biritxiak bezala.

4. Zure lephoak iduri du bolizko dorrea. Zure begiek iduri dute Hefebongo arraintegiak, oste-alabaren atean direnak. Zure sudurra dago nola Damas-aldera begiratzen duen Libango dorrea.

5. Zure burua da Karmela bezala; eta zure buruko ilaiak iduri du erregeren purpura erreketan lothua.

6. Zeinen zaren ederra, eta zeinen berregina, oi ene maitena, ene gozagarria!

7. Zure irazkiak iduri du palmaren irazkia, eta zure bulharrek mahats-molkhoak.

8. Eta erran izan dut: Iganen naiz palma-hondora, eta hartuko ditut haren fruituak: eta zure bulharrak izanen zaizkit mahatsaren molkhoak bezala, eta zure ahoko hatsa sagarraren usaina bezala.

9. Zure zintzurra arnorik hautena iduri, ene bihotzekoak edateko; bere ezpainez eta hortzez gozatzeko gai da.

10. Ene bihotzekoarena naiz ni, eta bera ixuria dago ni gana.

11. Zato, ene bihotzekoa, ilkhi gaitezen bazterretara; bizi gaitezen bazter-aldeetan.

12. Goizik jaiki gaitezen mahastietara: dugun ikhusi hea loratu den mahastia, hea loreak bihitzen diren, hea loratu diren mingranak: han emanen darozkitzut ene bi bulharrak.

13. Urriloek hedatu dute beren usaina: gure athirian dira fruitu guziak: berriak eta zaharrak, oi ene bihotzekoa, oro zuretzat ditut begiratu.

## VIII. KAP.

1. Nork emanen darot izan zaitezen ene anaia, ene amaren bulhar bera edoskia, aurkhi zaitzadan kanpoan eta musu eman dizazudan, eta geroz nihoren nardagarri izan ez nadien?

2. Lothuko natzaitzu, eta eramanen zaitut ene amaren etxera: han jakintsun eginen nauzu, eta nik emanen darotzut arno baltsamuztatu batetik, eta ene mingranen limurreta edatera.

3. Esku ezkerria ezarriko du ene buru-pean, eta eskuinaz besarkatzen nau.

4. Othoizten zaituztet, oi Jerusalemeko alabak, asalda ez dezazuen nik maite dudana, eta ez dezazuen atzarraraz ere, berak nahi duen arteo.

5. Nor da mortutik igaiten den hau, dena gozotasunez bethea, eta bere bihotzekoaren gainean bermatuz? Sagarrondoaren azpian atzarrarazi zaitut: han khutsatua izatu da zure ama, zure burhasoak han galdu du bere lorea.



6. Zure bihotzaren gainean ezar nezazu zigilu bat bezala, zigilu bat bezala zure besuan: zeren amodioa hazkar baita herioa bezain; amodioaren eragindura gogor ifernua bezain, eta haren lamek erretzen baitute su eta gar lamek bezala.

7. Ur handiek ezin iraungi dute amodioa, hibaiek ez dute ithoko: gizonak amodioa gatik eman baletza ere bere etxeko ontasun guziak, uste luke oraino deusguti egin lukeela.

8. Gure ahizpa ttipia da, eta bulharrik ez du: Zer eginen diogu gure ahizpari, solaseko adina ethorria daitenean?

9. Harrasia balin bada, egin diotzogun zilharrezko dorreak gainean: athea balin bada, estaliko dugu zedrozko oholez.

10. Ni harrasia naiz: eta ene bulharrak dorrea bezala dira, agertu naitzenaz geroztik bakea ardiesten duena bezala ene senharraren aitzinean.

11. Mahasti bat izan du baketiarrak, jendaiak daduzkan hartan: zaintzaileei eman izan diote eta mahastizainak fruituentzat zor ditu mila zilharrezko.

12. Ene mahastia ene aitzinean dago. Baketiarrak izanen ditu bere mila zilharrezkoak, eta zaintzaileek berrehun.

13. Oi zu, baratzetan zaudezena, adiskideak barrandan daude, adiaraz dizadazu zure mintzoa.

14. Ihes-egizu, ene bihotzekoa; egizu orkhatzak eta orenkumeak bezala baltsamueta mendien gainean.

## ZUHURTZIA

### I. KAP.

1. Zuzentasuna maitha zazue, lurra juiatzen duzuenak; barne onez har zazue Jainkoaz sendimendu, eta bihotzeko lainotasunean bilha zazue;

2. Zeren aurkhitzen baitute, frogetan haren ematera hari ez direnek, eta agertzen baita haren baitan sinheste dutenei;

3. Alabainan gogoeta tzarrek berezten dute Jainkoa ganik; aldiz, indar frogatuak kridantzaten ditu zoroak.

4. Hargatik arima gaizkikoian ez da sarthuko zuhurtzia, eta ez da egonen bekhatuen azpiko den gorphutzean;

5. Ezen izpiritu sainduak, irakhaspenaren nausiak, ihes eginen daroe alegiakeriei; ilkhitzen da gogoeta adimendugabekoetarik; eta tzarkeriak artera sartzearekin, iraitzen du alde bat;

6. Ezen ongikoa da zuhurtziako izpiritua; eta gaizki-errailea ez du atheratuko haren ezpainez merezitu gaztigutik; zeren Jainkoa haren barnearen lekhuko, haren bihotzaren ikharle zin eta haren mihiko elheen entzule baita.

7. Alabainan Jaunaren izpirituak bethetzen ditu munduko bazterrek oro; eta ororen jasaile denak, badu solas guziez jakitate.

8. Hargatik gaizki-errailea ezin gorde daiteke, eta gaztiguzko juiamenduak ez du iragaitera utziko;

9. Ezen gaixtagina bere gogoeten gainean izanen da bilhatua; haren solasak berriz, Jainkoa gana helduko dira, haren gaixtakeria izan dadientzat gaztigatua;

10. Zeren Jainko bekhaizkorraren beharriak entzuten baititu oro, eta marmararik arinena etzaio gordea izanen.

11. Begira zatzue beraz zuen buruak deusere ekhartzen ez duten marmaretarik, eta ez utz zuen mihia gaizki mintzatza, zeren solas ixilena ez baita alfer goanen; berriz, gezurraz mintzo den ahoak, arima hiltzen du.

12. Ez bezaitzte bero heriotzearen ondotik zuen bizitzeko errebela-menduan, eta zuen galpena ez bezazue irabaz zuen eskuetako egintzetan;

13. Ezen ez du Jainkoak egin heriotzea, eta ez da bizi direnen galpean bozten.

14. Alabainan oro egin ditu izan ditezentzat; eta lur guziko jendakiak sendakizun egin ditu; etzen hekietan pozoadura hilgarririk, eta ifernuen erreinua etzen lurraren gainean.



15. Ezen zuentasuna behin-bethikoa da eta hil-ezina.

16. Gaixtaginek ordean, beren hitzez eta egintzez deithu dute herioa; ustez adiskide zuten, harekin egin dute batasun eta iraungitu dira; zeren haren aldekoak direnek hori baitute merezi.

## II. KAP.

1. Ezen gogoeta makhurrak eginez beren baithan, erran izan dute: Laburra eta nahigabetsua da gure bizitzeko denbora; gizonarentzat, akhabatzen denean ez da gozakaririk deusere, eta nihor ez da ezagutu ifer-nuetarik bihurtu denik;

2. Zeren ezdeusetarik sorthu baikare, eta hunen ondotik izanen gare egundaino izan ez bagine bezala; alabainan hatsa gure sudur-mizpiretan khe bat da, eta hitza phindar bat da gure bihotzaren ernarazteko.

3. Hura iraungi-eta, gure gorphutza hauts izanen da, eta izpiritua barraiatuko da aire suntsikor bat bezala; gure bizia, iraganen da hala-nola hedoiaren hatza, eta lanho bat barraiatzen den bezala, zeina ihes igortzen baitute iguzkiaren dirdirek eta erorrarazten haren berotasunak.

4. Gure izena ahantziko da denborarekin, eta nihork ez du izanen gare egintzen orhoitzapenik;

5. Alabainan gure denbora itzal baten iragaitza da, eta gure akhabantzatik bihurtzerik ez da; zeren zigiluaz joa baita, eta ez da nihor bihurzen.

6. Zatozte beraz, gaitezen oraiko onez goza eta laster gazte gareno balia gaitezen kreaturaz.

7. Arno hoberenez eta gantzugailuz bethe gaitezen; itzur ez bekigu aroko lorea.

8. Khoroa detzagun gure buruak arrosaz zirphil ditezen baino lehen; sorho bat izan ez bedi gure atsegin-hartzeetan iraganen ez dugunik.

9. Gutarik nihor izan ez bedi gure atseginetan phartedun izanen ez denik; orotan utz detzagun gure bozkalentzien hatzak, zeren hori baita gure zathia, gure zoria.

10. Azpian iduk dezagun prestu beharra; ez dezagun guphidets alharguna, ez-eta heraberik izan urtheek zuritrikako zaharraren ilearentzat.

11. Bainan gure indarra izan bedi zuzen-lege; ezen herbal dena ez da deusetako.

12. Ingura dezagun beraz prestua, zeren ez baitugu deusetako, gure egintzei aldegaitz baitago, jazartzen baitarozkigu gure lege-hausteak, eta gaizki mintzo baita gure bizi-moldeko baiez.

13. Dio orotan, baduela Jainkoaren ezagutza, eta Jainko- seme deitzen du bere burua.

14. Gure asmuen erantzule jarri zaiku.

15. Horren ikhustea ere lan zaiku, zeren bertzeena ez-bezalakoa baita horren bizitzea, eta horren bideak ezinaldatuzkoak baitira.

16. Ergel batzuentzat idukiak gare hortaz; gure bideetarik begiratzen da lohi-zuputarik bezala; nahiago du prestuen akhabantza, eta sendagaila-ka dio Jainkoa duela bere aita.

17. Ikhus dezagun beraz hea egiak diren horren erranak, froga dezagun zer zaioen gerthaturen, eta jakinen dugu nolako akhabantza izanen den horrena;

18. Ezen Jainkoaren seme egiazkoa balin bada, Jainkoak lagunduko eta bere ixterbegien eskuetarik atheratuko du.

19. Laidoz eta estiraz froga dezagun, jakiteko horren emetasuna eta frogatzeko horren jasan kortasuna.

20. Heriotze ahalkagarrienera kondena dezagun; ezen horren alderako ikhustatea izanen da horren hitzen araberkoa.

21. Horiek asmatu zituzten, eta enganatu ziren; alabainan itsutu ditu beren gaixtakeriak.

22. Ez dituzte jakin Jainkoak bere baithan daduzkanak, ez dute iguriki zuentasunaren saria, eta ez dute ezagutu arima sainduen ohorea;

23. Zeren Jainkoak gizona egin baitu ezin-xahutuzkoa, eta bere iduriaren arara egin baitu.

24. Herioa ordean debruaren bekhaizgoz sarthu izan da lurrera.

25. Haren aldeko direnek, berriz, harek bezala egiten dute.

## III. KAP.

1. Bainan prestuen arimak Jainkoaren eskuan dira, eta herioaren estirek ez dituzte prestuak ukituko.

2. Zoroen begietara, iduri zuten hiltzen zirela, eta hekien ilkhitzea gaitz batentzat hartua izan da,

3. Eta gure ganik eginbidea ezeztapen batentzat; hekiek ordean bakean dira.

4. Eta baldin gizonen aitzinean estirak jasan badituzte, hekien igurikimena hilezintasunez bethea da.

5. Gauza aphurretan lazeriatuak, handietan izanen dira ongi sariztuak, zeren Jainkoak frogetan ezarri eta beraz merezdun aurkhitu baititu.

6. Frogatu ditu hala-nola urhea suan, eta hartu ditu holokaustetako bitima bat bezala, eta muga ditakeenean izanen da hekiekizateko ikhustatea.



7. Prestuek argituko dute, eta goanen dira hala-nola phindarrak kha-naberadi batean.

8. Jendaiaik juiatuko dituzte, eta populuen gainean izanen dira nausi, eta hekien Jauna erreginaturen da bethi guzian.

9. Haren baithan sinheste dadukatenek izanen dute egiares aditza; eta haren maitetasunean zin daudezenak hari iratxikiko dira, zeren dohaina eta bakea haren hautetsientzat baitira.

10. Gaixtaginek aldiz, erabili izan dituzten gogoeten arabera izanen dute gaztigua, zuzena utzi dutelakotz bazterrerat eta Jauna ganik gibelatu direlakotz.

11. Alabainan zuhurtzia eta irakhasmena egozten dituena dohakabe da: halakoen pheskiza hutsa da; hekien lanak alferrak eta egintzak deusetako ez dira.

12. Hekien emazteak zoroak dira eta semeak guziz tzarrak.

13. Madarikatua hekien ganikako kreatura, eta dohatsu emazte agorra; eta khutsatugabeak, ohea bekhatutan ezagutu ez duenak, izanen du bere saria, Jainkoak begiratuko diotenean arima sainduei;

14. Dohatsu ebakia, zeinak bere eskuz egin ez baitu gaizkia, eta Jainkoaren kontra asmatu ez baitu tzarkeriarik Ezen haren zintasanari emanen zaizko dohain berezi bat, eta zathi bat guziz gogarakoa Jainkoaren tenploan.

15. Alabainan lan onen fruitua ospetsua da, eta trenkatzen ez dena da zuhurtziaren erroa.

16. Aldiz, bertzeekin khutsiatzen diren emazteen umeak zorigaitzean izanen dira, eta ohe lohiko hazia xahutua izanen da.

17. Eta luzea balitz ere hekien bizia, ezdeusentzat idukiak izanen dira, eta ohorerik gabe izanen da hekien zahartze ondarra.

18. Eta lasterrago hiltzen badira, pheskizarik ez dute izanen, ez-eta hiltz gozagarri bat, oro ezagutuak izanen diren egunean;

19. Ezik gogorak izanen dira bidegabeko jendakiaren akhabatzeak.

#### IV. KAP.

1. Oi zoinen den ederra odol garbiko jendakia ospearekin! Ezen ezingalduzkoa da haren orhoitzapena, ezagutua delakotz eta Jainkoaren eta gizonen baithan.

2. Han denean, imitatzen, eta goan denean, agiantzatzen dute; eta bethikotz khoroatua, trionfatzen da, khutsatugabeko gudueta saria eramanez.

3. Bainan gaixtaginen oste nihonerekoa ez da zerbaitetako izanen, eta gando bortek ez dute erro barnarik eginen, ez-etare asentu hazkarrik utziko.

4. Eta baldin denboran muskiltzen badira adarretan, azpiz erphil direlakotz haizeak khordokaturen, eta haizeen borthiztasunak errotik atheraturen ditu.

5. Alabainan hekien adar heldueabeak phorroskatuak izanen dira, eta hekien fruituak alfer eta jateko kharatsak, eta ez dira deusetako onak izanen.

6. Ezen tzarkeriako loetarik sortzen diren haurrak, beren burhasoen kontra tzarkeriaren lekhuko atheratzen dira, bilhatuak direnean.

7. Prestua berriz, baldin herioaz terrepenni atzemana izaten balitz, phausuzko lekhuan lizate.

8. Alabainan zahartze ahalkesuna, ez da luzez iraun duena ez-eta urthe hainitz soinean dituena; bainan ile zuriak dira gizonaren adimendua;

9. Eta bizitze nothagabekoa, zahar adina.

10. Jainkoaren gogarako izanez, haren maite bilhakatu da; eta bekhatoreen artean zelakotz bizi, lekhuz izan da aldatua.

11. Eramana izan da, beldurrez-eta maltzurkeriak gaizkura zezon adigarria, edo gauzen itxurak engana zezan haren arima.

12. Ergeltasunaren liluramenduak ongiak gobeltzen ditu, eta zalekeriaren aldakortasunak, itzulikarazten du gaixtakeria gabeko adimendua.

13. Ephe laburrean ahitu da eta denbora luzeko eginbideak bethe ditu.

14. Alabainan haren arima Jainkoaren gogarako zen, eta Jainkoak horren gatik laster egin du tzarkerien erditik haren atheratzera. Populuek ikhusten dute, ez aditzen; eta beren bihotzetan ez dute hunelakorik ezartzan,

15. Jainkoak daduzkala bere grazia eta urrikalmendua bere sainduen gainean, eta begiak bere hautetsien gainean.

16. Hil den prestuak kondentzen ditu ordean gaixtagin bizi direnak, eta gaztetasun laster ahituak, gizon tzarraren bizitze luzea;

17. Ikhusiko dute ezen zuhurraren akhabatzea, eta ez dute adituko zer xede Jaunak duen hartaz eta zertako ezarri duen segurean.

18. Ikhusiko dute hura eta erdeinatuko; Jaunak ordean irri eginen du liekietaz.

19. Eta gero hilen dira ohorerik gabe, eta bethikotz laidotan izanen dira hilen artean; zeren Jaunak phorroskatuko baititu hantu hekiek, mintzorik



gabe, eta errotarik eragotziko ditu, eta azken inkoniamendura ereriko dira; auhenez egonen dira, eta galduko da hekien orhoitzapena.

20. Ikharan abiatuko dira beren bekhatuez orhoitzen, eta beren tzarkeriek jazarriko diote kontra.

### V. KAP.

1. Orduan prestuak, urgoitasun handitan, hesturan ezarri dituztenen eta beren lanen saria eraman diotenen kontra jarriko dira.

2. Hori ikhustearekin, gaixtaginak izigarriko beldur batez nahasiko dira, eta harrituak egonen dira bat-bateko salbamendu uste etzuten hortaz;

3. Beren baithan erraten dutelarik, urrikitan sarthuz eta gogoko hesturaren gaitzez auhendatuz: Horiek dira beihala trufetan eta laidotan bezala izan ditugun hekiek.

4. Gure zoroa! Horien bizitza erhokeria bat, eta horien akhabantza ohore gabeko bat ginaduzkan:

5. Horra nola Jainkoaren umeen arteko sarthuak diren, eta sainduen artean da horien zathia.

6. Makhurtu gare beraz egia bidetik, zuzentasunaren argiak ez du guretzat argitu eta adigarriaren iguzkia ez da guretzat jaiki.

7. Tzarkeriako eta galpeneko bidean akhitu gare, eta bide gaitzetan ibili; aldiz, Jaunaren bidea ez dugu ezagutu.

8. Zer baliatu zaiku hanpurustasuna? edo aberastasunen kheak zer ekharri daroku?

9. Horiek oro iragan dira itzalaren pare, eta lasterrez dihoan berrikeriari bat bezala;

10. Eta itsasoko olhatoa iragaiten duen untzia iduri, zeinaren hatzik, iragan ondoan, ez baititake khausi, ez-etare haren kilaren biderik uhinen erdian;

11. Edo aiman hegaldaka dihoan xoria iduri, zeinaren bideko herexarik hautematen ez baita, baina bakharririk hegalean harrabotsa, haize mehea jotzean eta indarka bideko airea urratzean; hegalak higituz goan da, eta ez da haren bidearen ezagutkaririk aurkitzen batere;

12. Eta berezi den lekhura igorri den gezia iduri; urratu duen airea bere baithan hertsu da berehala, halaz non geziaren iraganbidea ez baitaki nihork:

13. Hala gu ere sorthu bezain sarri izatetik gelditu gare; eta ezin erakutsi ahal izan dugu berthutearen seinalerik baina gure tzarkerian ahi-tuak izan gare.

14. Bekhatoreek horrelakoak diozkate ifernuan;

15. Zeren gaixtaginaren pheskizak iduri baitu haizeak daraman ilhau-na, phesiak barriatzen duen harrapo arina, haizeak hedatzen duen khea, egun bateko arrotz iragaiten denaren orhoitzapena.

16. Prestuak aldiz, bethi guzian dira biziko; hekiekizateko saria Jauna baithan da, eta Guziz-Gorak hekien gainean daduka begia.

17. Hargatik izanen dituzte Jaunaren eskutik ohorezko erreinua eta ospezko diadema; ezen haren eskuinak gerizatuko eta haren beso sainduak zainduko ditu.

18. Haren kharrak hartuko ditu harmak, eta kreatura harmatuko du etsaiez aspertzeko.

19. Gerruntzetat jauntsiko du zuzena, eta kaskatzat hartuko du juiamendu segura.

20. Zuzentasuna hartuko du ezin-zilhatuzko erredolatat;

21. Bere hasarre gogorra zorrotzuko du lantzaren arara, eta mundua oro zoroen kontra harekin gudukatuko da.

22. Ozpinak zuzen goanen dira; hedoen erditik arranbela hazkarki tinkatutik bezala egotziak izanen dira, eta berezi lekhua joko dute.

23. Eta hasarre harritsuaz harri gaitzak arthikiak izanen dira; itsasoko ura gaixtaginaren kontra sutuko da, eta hibaiak gogorki jauziko zaizkote.

24. Hekien kontra jaikiko da indarraren hatsa, eta haize-xirimola batek bezala barriatuko ditu; hekien gaixtakeriak mortu eraginen du lurra oro, eta maltzurkeriak eragotziko ditu ahaldupen alkiak.

### VI. KAP.

1. Indarra baino hobe da zuhurtzia, eta gizon umoa hazkarra baino.

2. Entzun zazue beraz, erregeak, eta nabadi zazue; argi zaitzete, lurreko juiek.

3. Heda zatzue beharriak, populuen nausi zaretenek, eta jende-osteen gainean zuen buruak eder zaizkitzuenek;

4. Zeren Jaunak eman izan baitarotzue ahala, eta indarra Guziz-Gorak, zeinak zuen egintzak bilhatuko eta gogoetak ikhartuko baititu;

5. Alabainan haren erreinuko ministro izan-eta, ez duzue zuzen juiatu, ez-eta zuzentasuneko legea begiratu, ez-etare etzarete Jainkoaren nahiaren arabera ibili.

6. Ikharagarriki eta laster agerturen zaitzue; ezen juiamendu bat izanen da guziz gogorra buruzagi direnentzat;

7. Alabainan urrikalmendu ematen zaio xumeari, baina handiek estira handiak jasanen dituzte.



8. Jainkoak ezen ez du nihor nor delakotz itzurraziko, eta ez du edozeinen handitasuna izanen guphide; zeren berak egin baititu handia eta xumea, eta guzientzat orobat baitu ardura.

9. Bainan handientzat daude estirarik handienak.

10. Beraz, oi erregeak, zuentzat dira ene solas haukiek, ikhas deza-zuen zuhurtzia, eta eror etzaitezten;

11. Ezen zuzena, zuzenki begiratu dutenak izanen dira zuzentzat atheratuak, eta haukiek ikhasiko dituztenek khausituko dute zer ihardets.

12. Lehia zaitezte beraz ene solasetara, maitha zatzue, eta izanen duzue jakitatea.

13. Zuhurtziak distirutzen du eta ez da behinere histen; hura maite dutenek, errexxi ikhusten dute, eta bilhatzen dutenek aurkhitzen dute.

14. Haren lehia dutenei aitzintzen zaiote, bere burua lehenik hekiei erakhusteko.

15. Argitzetik harentzat atzarria egonen dena ez da nekhatuko, ezen bere athean aurkhituko du jarria.

16. Hartaz egotea beraz asmutan, hori da adimendu osoa; eta zeina haren gatik egonen baita atzarria, haina laster izanen da segurean;

17. Ezen bera dabila inguruka hartaz merezdun direnen bilhatzen; bideetan arraiki erakhusten diote bere burua, eta probidentzia osoan dihoakiote aitzinera.

18. Alabainan zuhurtziaren hastapena da argitu nahiaren lehia zinezkoa.

19. Ikhasi nahiaren lehia, zuhurtziaren amodioa; amodioa haren legeen idukitzea; berriz, legeen idukitzea, garbitasun osa.

20. Garbitasun osoak berriz, Jainkoari hurbil izatea egiten du.

21. Hargatik zuhurtziarentzateko lehiak bethiereko erreinura darama.

22. Baldin beraz, oi populuen erregeak, tronuetan eta manamenduko makhiletan bazarete lakhet, maitha zazue zuhurtzia, bethi guzian erreginatzeke.

23. Populuen buruzagi zareten guziek maitha zazue zuhurtziaren argia.

24. Erranen dut zer den zuhurtzia eta nola den egina; ez darozkitzuet gordeko Jainkoaren segretuak; bainan sortze-hastetik ikhartuko dut, haren jakitatea ezarriko dut argitara, eta ez naiz goanen egiazen gainetik.

25. Ene bidea ez da izanen bekhaizgo ihartzen hari denarekilako, zeren horrelako gizona ez baita zuhurtzian phartedun izanen.

26. Bada, zuhurren otea munduaren ona da, eta errege zuhurra populuaren sendotasuna.

27. Ene solasetarik argi zaitezte beraz, eta baliatuko zaitzue.

## VII. KAP.

1. Ni ere gizon hilkizun bat naiz, bertzeak bezalakoa, lurrez egina izan den lehenbizikoaren ethorkitik, eta haragi-itxura hartu dut amaren sabelean;

2. Hamar hilabetherik barnean, odolean izan naiz gatzatua gizonaren hazitik eta loko gozoaren erdian.

3. Sorthu ondoan guzien airetik hartu dut hatsa, erori naiz bertzeen lur berera, eta lehenbiziko oihua nigarrez arthiki dut bertze guziek bezala.

4. Xatharretan izan naiz hazia eta artha handiekin;

5. Ezen erregeetan ez da nihor sortze-hastea bertzela izan duenik.

6. Bat da beraz guzientzat bizirako sartzea, eta ilkhitzea orobatekoa.

7. Horren gatik hautatu naiz, eta adimendua izan zait emana; eta dei egin dut, eta zuhurtziaren izpiritua ethorri da ene baithara.

8. Eta zuhurtzia nahiago izan dut erresumak eta tronuak baino, eta iduki izan dut aberastasunak haren aldean ezdeuskeria batzu zirela.

9. Eta ez dut hari erkhatu harri baliosa, zeren urhe guzia haren aldean, legar-izpi bat baita, eta zilharra haren parrean lohitzat idukia.

10. Osagarriaren eta edertasunaren gainetik maithatu dut, eta argiaren aitzin ezarri dut, zeren haren argitasuna ezin-iraungizkoa baita.

11. Bainan harekin batean ethorri zaizkit ontasun guziak, eta haren eskutik nihonereko aberastasunak.

12. Eta bozkariatu naiz horietan orotan, zeren ene aitzinean baitzabilan zuhurtzia hura; ez nakien ordean horien guzien ama zela.

13. Hura ikhasi dut alegiarik gabe; bekhaizgorik gabe hartaz egiten dut pharte, eta ez ditut haren onak gordetzen;

14. Ezen gizonentzat da nihonereko ontasun bat, zeintaz baliatu direnak Jainkoaren adiskidetasunean phartedun egin baitira, jakitatearen dohainez gomendagarri.

15. Bada, Jainkoak eman izan darot adimenduz mintzatzea, eta niri eman dohain guziez aiher diren asmuak izatea; zeren hura bera baita zuhurtziaren bidaria eta zuhurren kridantzazalea.

16. Alabainan haren eskuan gare, gu, gure solasak, gure zuhurtzia oro, egin behar dugunaren jakitatea eta bizi-moldatzea;

17. Ezen berak eman izan darot gauza direnen egiazko jakitatea, jakin netzan munduaren antolamendua, gaien eragindurak,

18. Denboren hastea, akhabatzea eta erdia, aroen aldarteak, denboren aldak,



19. Urthearen itzulia, izarren antolamendua,
20. Azienden izantzak, abereen usnak, haizeen indarra, gizonen gogoetak, belharren bereztasunak eta erroen eragindurak.
21. Eta ikhasi dut edozein gauza gorde eta ohartugabeko, ezen zuhurtziak, ororen egileak, argitu nau.
22. Alabainan haren baithan bada aditzazko izpiritu bat, saindua, bakharra, askokhuna, axita, jakina, higikorra, khutsatugabea, segura, eztia, ongia maite duena, zorrotza, deusek-ere ezin-debekatuzkoa, ongi-egilea,
23. Gizonzalea, ongikoa, ezin-khordokatua, gerthua, sesuzkoa, indar guziak dituen, oro aitzinetik ikhusten dituen, izpiritu guziak bere baithan daduzkana, adikizuna, garbia eta xothila.
24. Alabainan zuhurtzia higikor guziak baino higikorrago da; orotara heltzen da, berriz, bere garbitasunean ariaz;
25. Ezen hura da Jainkoaren indarreko hatsa eta Jainko ahalorotakoaren argitasuneko halako ilkhitza zin bat; eta horren gatik etzaio deusere khutsaturik iratxikitzen.
26. Zeren hura baita bethitikako argiaren distira, Jainkoaren maiestateko mirail nothagabea, eta haren ontasunaren itxura.
27. Eta nola bakharra baita, ahal guziak baditu; eta bere baithan baitirau, oro berritzen ditu, eta jendaietan hedatzen da arima sainduetan; harek egiten ditu Jainkoaren adiskideak eta profetak.
28. Alabainan Jainkoak ez du maite nihor, zuhurtziarekin egoten dena baizik;
29. Ezen hura ederragoa da iguzkia baino, eta izarren antolamendu guziaren gainetik; argiari erkhatuz, garai khausitzen da;
30. Ezen argiari darraio gaua; bainan gaixtakeriak ezin garhait deza zuhurtzia.

### VIII. KAP.

1. Zuhurtzia hazkarki heltzen da beraz buru batetik bertzera, eta guziak ezteki xuxentzen ditu.
2. Maithatu eta bilhatu dut ene gaztetasunetik, eta hura espostzat hartzea bilhatu dut, eta haren edertasunaren zale egin naiz.
3. Bere ethorkiaren bizartasunari ospe atheratzen dio, Jainkoaren batasunean bizi delakotz; eta gauza guzien Jaunak ere maite du;
4. Irakhasten du ezen Jainkoaren jakitatea, eta haren eginkarien hautatzailea da.
5. Eta aberastasunen irritsa bizian balin bada, zer da aberats gorik zuhurtzia baino, zeinak egiten baititu gauza guziak?

6. Baldin berriz, antzeak zerbait egiten badu, nor da zuhurtzia baino antzetsuago gauzen egiten?
7. Eta norbaitek zuzentasuna maite badu, zuhurtziaren eraginduratik dathortzi berthute handiak; ezen irakhasten ditu begirakortasuna, umotasuna, zuzentasuna eta berthutea, zeinak baino gizonentzat bizian deusere ez baita probetxagarriarik.
8. Eta norbaitek balin badu jakitate haintzen irritsa, zuhurtziak badakizki iraganak eta jotzen ditu ethortzekoak, ezagutzen ditu solasetako xothiltasunak eta badaki aria guzien asmatzen; ezagutkariak eta sendagailak hel ditezen baino lehen, eta denboretako eta mendeetako gerthakariak ezagutzen ditu.
9. Burutan hartu dut beraz hura enekin bizitzera ekhartzea, baitakit bere onez pharte egonen darotala eta izanen dela ene gogoeta eta unhaduretako gozagarria.
10. Haren ariaz ospetan izanen naiz populuen aitzinean, eta naizen gaztea, ohoretan zaharren baithan.
11. Atzemanen dute adimendu zorrotza dudala juiamenduetan; ederrresgarri izanen naiz botheretsuen aitzinean, eta nitaz miretsiko dira buruzagien begitharteak.
12. Ixilik banago, iguri, eta mintzo banaiz, begira egonen dira; eta solas luzea atheratzen badut, eskua ezarriko dute beren ahoaren gainean.
13. Bertzalde haren bidez izanen dut hilezintasuna, eta ene ondotik ethorriko direnei utziko diotet bethiko orhoitzapena.
14. Populuei hotsemanen diotet, eta jendaiak ethordun izanen zaizkit.
15. Errege larderiadunak beldur izanen dira adituko nautenean; ostearentzat ona eta gerlan hazkar agertuko naiz.
16. Harekin phausu hartuko dut ene etxean sartzen naizenean; ezen harekilako solasak ez du kharastasunik, eta unhadura ez da haren lagunkhidetasunean, bainan-bai bozkarioa eta goiheretasuna.
17. Gogoeta horiek ene baithan eginik, eta ene bihotzean orhoiturik, hilezintasuna zuhurtziaren batasunean dela,
18. Gogo ona haren adiskidetasunean, ezin-ahituzko ontasunak haren eskuetarikako egintzetan, argitasuna harekilako hitz erabiltzeetan, eta ospea haren solaseko ihardukimenean; banindabilan haren bilha, hura eneganatu nahiz.
19. Bada, hartze oneko haurra nintzen eta ethorki ongi dohatua nuen,
20. Eta ontuz nindohalakotz, heldu nintzen gorphutzeko garbitasunera.





21. Eta nola ezagutu bainuen ez nindakeela begiratiar izan bertzela, non ez Jainkoak eman ez, (eta hori bera zuhurtziaren eragintza bat zen jakitea noren ganikakoa zen dohain hori), Jaunaren gana goan nintzen, errekeitu nuen, eta erran nioen ene bihotzaren erditik:

### IX. KAP.

1. Ene arbasoen Jainko eta urrikalpenetako Jauna, oro zure hitzaz egin ditutzuna,

2. Eta gizona zure zuhurtasunean egin duzuna, jaun izan dadien zuk egin kreaturen gainean,

3. Lur guziari hotseman diozon zuzentasunean eta zuzenbidean, eta juiamenduak bihotzeko zuzentasunean athera detzantzatz;

4. Indazu zuhurtzia, zure tronuaeren aitzinean dagoena, eta ez benezazu iraz zure umeetarik;

5. Zeren naizen zure zerbitzaria, eta zure neskatoaren semea, gizon bat herbala, iraupen laburrekoa, eta deus-gutia zure juiamendu eta legeen aditzeko;

6. Ezen balitz-ere norbait gizasemeen-artean guziz umoa, baldin zure zuhurtzia haren ganik urrun balitz, ezdeusentzat lizate hartua.

7. Zure populuaren errege zuk hautatu nauzu, eta zure semeen eta zure alaben jui.

8. Eta erran darotazu altxa detzadan tenplo bat zure mendi sainduan eta aldare bat zure egoitzako hirian, hastetik xuxendu duzun zure tabernaklearen idurira.

9. Zurekin da zure zuhurtzia, zure egintzak ezagutzen dituen, mundua egiten zinduean zurekin han zena, eta zakieta zer zen zure begien gogarako eta zer zure manamenduen araberako.

10. Igor zazu zure zeru sainduetarik eta zure handitasunaren jarlek-hutik, enekin izan eta enekin lanean hari dadien, jakin dezadantzatz zer den zure baithan onhetsia;

11. Ezen harek oro badakizki, oro ezagutzen ditu; ene egintzetan begirakorki eramanen, eta bere bothereaz begiratuko nau.

12. Eta ene egintzak izanen dira onhetsiak, eta zuzenki hotsemanen diot zure populari, eta ene aitaren tronuaeren dina izanen naiz.

13. Alabainan gizonetan zein da Jainkoaren gogoko berri jakin deza-keena? edo nork asma dezake zer nahi duen Jainkoak?

14. Ezen gelberak dira gizonen gogoetak, eta gure aitzinerateko ohar-penak dira gerthutasunik gabeak.

15. Alabainan gorphutz ustelkorrak thoiltzen du arima, eta lurrezko etxeak aphaltzen du izpiritu hainitz alhaduraz poxelatua.

16. Nekez ezagutzen ditugu lurrean iragaiten direnak, eta ikhusem-ean ditugunen khausitza lan dugu; nork ikhar ordean zeruetan direnak?

17. Nork jakinen du, berriz, Jauna, zure gogoa, zerorrek ematen ez baduzu zuhurtzia, eta zeru-gorenatarik igortzen ez baduzu zure izpiritu saindua;

18. Horreletan zuzenduak izan ditezen lurrean direnen bidexkak eta gizonen ikhas dezaten zer den zure gogarako?

19. Ezen, Jauna, zuhurtziaz izan dira sendatuak zure gogarako hasta-penetik izan diren guziak.

### X. KAP.

1. Jainkoak munduko aitatatz lehenezko egin zuena zuhurtziak zaindu zuen, bakharra zenean oraino kreaturik.

2. Atheratu zuen bere bekhatutik, eta eman zioen orori buru egiteko indarra.

3. Gaixtagina bere sephan zuhurtziaren ganik urrundua zenean, bere anaia hiralazi zioen aiherkundeak galdu zuen.

4. Eta gaixtaginaren gatik urak xahutzen zuenean lurra, zuhurtziak atheratu zuen berriz erreparua, prestua zur txar baten gainean erabiliz.

5. Eta jendaiak tzarkerian batera ethorri zirenean ere, harek ezagutu zuen prestua; Jainkoaren alderako hobetik gabe begiratu eta semearen-tzateko urrikalmenduaren kontra hazkar iduki zuen.

6. Harek atheratu zuen prestua galtzen hari ziren gaixtaginen artetik, sua bortz hirien gainera jaustean.

7. Hekien galdukeriaren lekhukotasunetan, lurra mortu egin khetan dago, zuhaitzek fruitu angelak dituzte, eta gatzeko itxura bat xutik dago, arima sinbetsugogor baten orhoitzapen.

8. Alabainan zuhurtzia bazterrerat utzi dutenak, ezezik huntan erori dira non ez baitzakiten zer zen ongia, bainan oraino gizonen utzi diote beren zorokeriaren orhoitzapena, ezin gorde ahal izan baitiozkate bekhatu egin dituztenak.

9. Zuhurtziak ordean oinhazetarik atheratzen ditu hura begiratzen dutenak.

10. Harek bide zuzenez eraman du anaiaren hasarrearen ihes zihoa-na; erakhutsi izan dio Jainkoaren eta eman sainduen jakitatea; hura bere lanetan aberastu du eta baliarazi ditu haren nekheak.



11. Lagundu du, hura atzeman beharrez inguruan zituenen zimarkuaren kontra, eta aberats egin izan du.

12. Etsaietarik zaindu eta zoratzailetarik gerizatu du; gudu borthitza eman dio, garai athera zadien, eta jakin zezan oro baino hazkarrago dela zuhurtzia.

13. Harek ez du bazterrerat utzi prestua, saldua izan zenean; bainan bekhatoreen eskuetarik atheratu du, eta harekin zilhora jautsi da.

14. Burdinetan ez du utzi, eskura ziotzon arteo erreinuko makhila eta ahala hura hestutzen zutenen kontra; gezurti erakhutsi ditu hura belztu zutenak, eta bethiko ospe bat eman izan dio.

15. Populu prestua eta ethorki saildua harek atheratu ditu zaphatzen zituzten jendakien azpitik.

16. Jainkoaren zerbitzariaren ariman sarthu da, eta sendagaila eta eza-gutkariz buru egin diote lazgarri ziren erregeei.

17. Prestuei bihurtu diote beren nekheen saria; bide miresgarriaz eraman ditu, eta hekientzat izan da egunaz itzal eta gabaz izar-argi.

18. Itsaso Gorria gaindi eraman eta urtze handiaren erditik iragan ditu.

19. Aldiz, hekien etsaiak itsasoan itho ditu, eta berak lezeen ondotik atheratu; eta horren gatik prestuek eraman dituzte gaixtaginen buluzkinak.

20. Eta, Jauna, kantatu dute zure izen saildua eta orok batean laudatu zure esku garaitiarra;

21. Zeren zuhurtziak ideki baitu mutuen ahoa, eta hizdun eder egin baititu haurtuen mihiak.

## XI. KAP.

1. Harek hotseman diote beren egintzetan profeta sailduaren ararteko.

2. Nihor egoten etzen mortuak barna bide egin dute, eta olhak mortu lekhuetan landatu dituzte.

3. Etsaiei buru egin dute eta ixterbegietarik aspertu dira.

4. Egarriak jo ditu eta dei egin darotzute; eta emana izan zaiote ura kotor gaitzetik eta egarriaren gozatzekoa harri gogorretik;

5. Ezen nola hekien etsaiak gaitigua jasan baitzuten edatekoaren eskasez, eta hekien artean Israelen umeak bozkariotan baitziren nasaiziarren erdian;

6. Haletan, beren eskasean ongi egin zioten Israelen umeei.

7. Ezen bethi dirauen hibai baten orde, gizon-odola eman diozute gaixtaginei.

8. Noiz-etare haukiek galtzen hari baitziren hil izan zituzten haurren ordainez, ura iguriki gabeen zure populuari nasai eman diozu,

9. Erakhusten zinduelarik, orduan izan zen egarriteaz, nola dituzun zureak goratzen eta hekien etsaiak hiltzen;

10. Ezik noiz-etare frogatua izan baitzen zure populua eta onhesten baitzuen urrikahenduzko kridantzaldia, ezagutu zuen zer estirak jasaiten dituzten gaixtagin hasarrerekin juiatuak direnek.

11. Eta zinez ere batzu frogatu dituzte aita mezutzaille batek bezala; bertzeak aldiz, errege garratz bilhatzen den batek bezala kondenatu dituzte.

12. Orobat ziren estiratuak, Hebrearrak han zirenean eta etzirenean;

13. Ezen bi atsekabak hartu zituzten, eta auhenak heldu zitzaizkoten iraganaren orhoitzapenarekin.

14. Eta aditu zutenean beren gaitza bertzeen on bilhakatu zela, orhoitu ziren Jaunaz, ederretsiz ondorio azkena;

15. Ezen gerthatu zenaren ondarrean, prestuak ez-bezala egarriz ithoak izanez, haina ederretsi zuten, zeinaz irriegin baitzuten, gogorkerian urari emana izan zenean.

16. Aldiz, hekien tzarkeriatikako asmu zoroen gatik, zeren askok, makhur ibiliz, adoratzen zituzten suge mutuak eta deusetako etziren abereak; aspertzeko igorri diozute nihonereko abere mutu araldea;

17. Jakin zezatentzat, batbederak zertaz egin bekhatu, hartaz duela estira.

18. Alabainan etzen ezina zure esku guziz ahaldunarentzat, mundu guzia gai moldegaitz batetarik egin izan duenarentzat, hekien gainera igortzea hartz-oste bat, edo lehoin ozarrak,

19. Edo mota berriko abere ezagutugabeak, errabiaz betheak, edo suzko hatsa zutenak, edo khe usaina arthikitzen zutenak, edo begietarik izitzeko phindarrak igortzen zituztenak;

20. Zeinek ezetik beren sakhiaz xahu baitzetzazketen, bainan oraino ikhustez beraz hilaraziko baitzituzten izialduraren gaitzez.

21. Hekiek gabe ere hil zitazkeen ufako batez, beren egintzek ondolik jazarririk, eta zure indarraren hatsak barriaturik; bainan zuk oro neurri, nonbre eta phisutan xuxentzen dituzte;

22. Ezen egundainotik zu zare bakharra bothere guzizkoa duzuna; eta nork itxikiko dio zure besoko indarrari?

23. Nola baita balantzen mihia, nola baita argialdeko ihintz-inhar lurrerat erortzen dena, hala dago zure aitzinean mundua.



24. Bainan guziez urrikaltzen zare, oro zure ahalean direlakotz; eta gizonen bekhatuei ez ikhusiarena egiten diozute urrikiari uztea-gatik bidea.

25. Ezik diren gauza guziak maite dituztu, eta egin izan dituzunetarik deusere ez dadukazu higuinzetan; ez duzu alabainan zerbait asentatu edo egin higuin zinadukalarik.

26. Nola, bada, zerbaitek iraun zezakeen, nahi izan ez bazindu? edo zer galdu gabe begiratuko da, ez balin bada zuk deithua?

27. Bainan oro guphide dituztu, oro zureak direlakotz, Jauna, arimak maite dituzuna.

## XII. KAP.

1. Oi zein ona eta ezia den, Jauna, zure izpiritua gauza guzietan!

2. Hargatik emeki emeki kridantzatzen dituztu erbebatzen direnak; egiten dituzten hutsei ohartarazten dituztu, eta mintzatzen zaizkote, zutan sinhets dezaten, Jauna, gaixtakeria bazterrerat utzirik;

3. Ezen hastio zintuen zure lur sailduko egoiliar beihalakoak,

4. Egintza zure begietan hasgarriak egiten zituztelakotz sorginkeria eta sakrifizio tzarrez;

5. Urrikalmendurik gabe zirelakotz beren semeen hiltzaile, gizon-sabelen jale eta odol-iresle, zure lege sailduaren kontra;

6. Eta arima laguntzagabeko hekien burhaso eta hilarazle zirelakotz, nahi izan dituztu galdu gare arbasoen eskuz;

7. Zuk orotarik maiteena duzun lurrak har zezan harek merezi bezalako populu bat, Jainkoaren umeen populu.

8. Hekiek ere guphidetsi dituztu, gizonak zirelakoan, eta zure armadaren aitzinean igorri dituztu listorak, emeki emeki hekien xahutzera;

9. Ez, ahalik etzinduelakotz gaixtaginak prestuei gerlaz azpiratzeko, edo hekiek xahutzeko batean basabere gogorrez, edo zure hitz garratz batez;

10. Bainan juiamendua neurrika bihurtuz, urrikiari bidea zinaren ematen, etzinelarik jakin gabe tzarra zela hekien jendakia, berenez zutela maltzurkeria, eta hekien gogo behinere ezin aldatuko ahal zela;

11. Ezik hastetik zen madarikatua hekien iraulgia; eta nihoren beldur etzinelarik, barkhamendua ematen zinaren hekien bekhatuei.

12. Alabainan nor da erranen darotzuna: Zer egin duzu? edo nor da zure erabakiaren kontra atheratuko dena? edo nor zure aitzinera ethorriko da gizon tzar batzuen aspertzale? edo nork jasarriko darotzu, zuk egin jendaik galdu izan badira?

13. Ezen ez da zutaz bertze Jainkorik, ororen artha dagokionik, zuk hari erakhusteko ez duzuna bidegabezki erabakirik bihurtzen.

14. Ez da ez erregerik, ez buruzagirik galarazi dituztuzen bilhatuko denik zure aitzinean.

15. Beraz nola zuzena baitzare, oro zuzenki antolatzen dituztu; gaitigatua izan behar ez denaren kondenatzea ere dadukazu zure ahalaria ez dagokiola.

16. Alabainan zure indarra zuzenbidearen hastapena da; eta ororen Jauna zarelakoz, horrek guphidetsarazten darozkitzu guziak.

17. Ezen zure indarra erakhusten duzu, indar osoaren jabe etzaduzkatenean, eta orduan zaphatzen duzu ezagutzen etzaituztenen osartasuna.

18. Zuk ordean, Jaun botheretsua, phausuz juiatzen duzu eta ikhustate handirekin hotsematen darokuzu, ezen ahal izatea zure eskuko da nahi duzunean.

19. Berriz, zure populuari horrelako eginkariez irakhatsi diozu, zuzen eta on izan behar dela, eta igurikimen ona eman diozute zure haurrei, zeren juiatzean bekhatuari uzten baitiozu urrikiaren bidea.

20. Alabainan hanbateko herabearekin gaitigatu badituztu zure zerbitzarien etsaiak eta heriotzea hartze zutenak, beren maltzurkeriatik aldatzeko astia eta bidea emanez;

21. Zenbateko ikhustatearekin ez dituztu juiatzen zure haurrak, zeinen arbasoei zin egin baitiozute eta agintza handienen hitzak eman!

22. Noiz-ere beraz ematen baitarokuzu zehaldi bat, askotan zafrazten dituztu gure etsaiak, zure ontasuna ezagut dezagun ongi begiratzuz; eta juiamendu bat jasaiten dugunean, izan dezagun zure urrikalmenduren pheskiza.

23. Horren gatik ere zorokerian eta gaixtakerian beren bizia eraman dutenei, beren adoragailuez eman diozkatuzte estira gaitzak;

24. Ezen erbebatmentuko bidean luzez ibili dira erbebatuak, abererak putrusenak jainkotzat hartuz, eta haur zoroak bezala biziz.

25. Hargatik haur zoro batzuei bezala eman diozute, irriz jokhatuak izateko juiamendu bat.

26. Aldiz, trufa eta azurrialdi hekietaz nehortu ez direnek frogatu dute juiamendu bat Jainkoari zagokiona.

27. Ezen gaitzituak ziren jasaiteko izateaz jainkotzat zaduzkatenen ganik; eta hekiez xahutuak zirela ikhusirik, egiazko Jainkotzat ezagutu zuten lehen ukhatu zutena; eta beren gogortasuna gatik gainera ethorri zitzaienten azken kondenamendua.



### XIII. KAP.

1. Bada, Jainkoaren ezagutza ez duten gizonak oro hutsalak dira; agerian dauden ontasunetarik ezin ardietsi dute den hura, eta eginkariei begiraturaz ez dute ezagutu nor zen egilea.

2. Bainan uste izan dute, edo sua, edo haizea, edo aire-arima, edo izarraren moltzoa, edo ur handia, edo iguzkia eta ilhargia, zirela munduari hotsematen dioten jainkoak.

3. Baldin hekien edertasunak zoraturik, jainko zirela uste izan badute, ezagut bezate zenbatez den ederrago hekien nausia; ezen edertasunaren aitak egin ditu guziak.

4. Edo hekien indarra eta egintzak miretsi badituzte, hartarik ardiets bezate hekien egilea hekiek baino botheretsuagoa dela;

5. Alabainan edertasunaren eta kreaturaren handitasunetik kreatzailela ageri izan ditake ezagutkizun den bezala.

6. Bainan ororen gatik hekietan hutsa ttipiagoo da bertze zenbaitetan baino; ezen beharbada Jainkoa bilhatzean eta khausitu nahian errebelatzen dira.

7. Alabainan haren eginkarien erdian biziz, bilhatzen dute; eta beren ustea hartzen dute, zeren onak baitira ageri diren hekiek.

8. Guzia gatik ere etzaiote barkhatu behar;

9. Ezen izatu ahal badute jakintasunik aski mendeetako gauzen ezagutzeko, nolaz ez dute hekien Jauna errexkiago aurkhitu?

10. Aldiz, hainak dohakabe dira eta hekien pheskiza hilen artean da, zeinek jainko deithu baitituzte gizonen eskuetako lanak, urhea eta zilharra, antzearen asmakariak eta abere-itxurak, edo deusetako ez den harri bat, beihalako esku baten lana.

11. Baldin langile ofiziale batek oihanetik ebakitzen badu zur xuxen bat, azala mainarekin khentzen badio guzia, eta bere antzeaz baliatuz propiki egiten badu biziko zerbitzuko tresna zerbit;

12. Bere lanetikako ezpalez baliatzen bada jatekoaren aphaintzeko;

13. Eta hekien gainerakoa, deusetako ez dena, eta guzia koropilo, propiki bernuzatzen du astia duenean; bere antzeari esker molde bat ematen dio, eta hartarik egiten du gizon baten itxura,

14. Edo abere zenbaiten iduria, arminkaz ferekatzen duelarik, eta thinduarekin haren kolorea gerritzen, eta hartan diren nothak oro ferekatuz;

15. Eta egiten badu hari dagokion egoitza bat, hura harrasian ezartzen duelarik eta burdinaz gogortzen;

16. Eror dadien beldurrez, begia idukiz, jakinez ez dezakeela bere burua lagunt; ezen itxura bat da eta laguntza beharretan.

17. Eta errekitzen du bere ontasunarentzat eta bere haurrentzat, bere ezkontzako eginez botuak, eta arimarik ez duen zur bati mintzatzeko ez da ahalke.

18. Eta osasuna galdatzen dio indargabe bati, eta hil bat othoizten du bere biziarentzat; eta laguntzara deitzen du bere buruarentzat ez dena.

19. Ibil ez ditakeenari galdatzen dio bidekotzat laguntza; eta dela irabazteko, dela egiteko, eta gauza guzien ondoreen gainean hura othoizten du, deusetan deusetako ez dena.

### XIV. KAP

1. Bertze batek berriz, itsasoz ibiltzeko asmua eginik, eta uhin gaitzak gaindi abiatuak, bere daraman zura baino fluxagoari dei egiten dio;

2. Ezen irabazteko lehiak asmatu eta ofizialearen mainak egin du untzia.

3. Bainan, Aita, zure probidentziak hotsematen dio; ezen zuk eman diozu itsasoan bidea eta uhinen artetik bidexka guziz segura;

4. Erakhutsiz orotarik salbatzeko ahala zutan dela, norbait itsasora goan baledi ere jakina izan gabe.

5. Ordean zure zuhurtziaren eginkariak ez ditezen alferretan izan, hargatik gizonek ere zur-puska bati fidatzen diozkate beren biziak, eta itsasoa untziz iraganik, salbu atheratzen dira.

6. Hastapenetik ere digante hanpurutsuak galdu zirenean, munduaren pheskizak ihes eginik zure eskuak hotsematen zioen untzi batera, hunek munduari zaindu zioen sort-hazia;

7. Benedikatua da ezen zura zeintaz egiten baita justizia.

8. Bainan idola egiteko zura madarikatua da eta haren egilea ere bai; hau zeren den egile; hura berriz, zeren zur flux bat izan-eta, den jainko deithua;

9. Jainkoari ezen orobat hats zaizko tzarra eta tzarkeria.

10. Alabainan egin denak eta hura egin duenak jasanen dituzte estirak.

11. Hargatik beraz ikhustaterik ez da izanen jendaien idolentzat ere; zeren, Jainkoaren kreatura izan-eta, bilhakatu baitira hatsgarri, gizonen arimentzat behaztopagailu eta zoroen zangoentzat arte bat.

12. Alabainan idolen egiteko abiadura da galdukeriaren hastapena; eta hekien asmatzea gizonen biziaren galpen osoa;

13. Ezen idolak etziren hastetik, eta ez dira izanen bethi.



14. Alabainan gizonen tutasunak ekharri ditu lurrera; hargatik laburra atzemana izanen da hekien akhabantza.

15. Atsekabe saminean minduru zagoelarik, aita batek egin zuen seme terrepentean galdu baten iduria; eta aitzinean gizon bezala hila zenaren adoratzeko hasi zen gero jainko baten bezala, eta bere sehien artean ezarri zituen bestak eta sakrifizioak.

16. Ondoa, bertze denbora bat ethortzearekin eta aztura tzar hori nausitzearekin, aragabekeria hori lege bezala idukia izan zen, eta buruzagien manuz adoratzeko zituzten itxurak.

17. Eta gizonak agerian ezin ohora zetzazketenak, urrun zirelaketz, hekien itxura ekharririk, ohoratu nahi zuten erregearen itxura agerikoa egin zuten; ardurarekin adoratzekotzat bertze tokitan zena, han izan balitz bezala.

18. Aldiz, ofizialearen antze ederrak, adoratzeko hura ezagutzen etzuten hartara ekharri zituen;

19. Ezen ofizialeak, bere hartzailearen gogara egin nahiz, bere antze guziarekin haritu zen, itxuraren atheratzeko ahalik hobekiena.

20. Gizonen osteak berriz, lanaren edertasunak ekharririk, jainkotzat hartu zuen orduan, aitzinean gizon bezala ohoratu zuena.

21. Eta hori izan zen gizonen biziaren enganabidea, zeren gizonak, edo beren bihotzminean, edo erregeak zerbitzatuz, ezin-hedatuzko izena eman baitzieten harriei eta zurei.

22. Eta Jainkoaren ezagutzatik makhurtu izatea gizonak etzitzaioteren aski izan; baina oraino, zorokeriako kasaila handi baten erdian bizi zirelarik, hanbat gaitz eta hanbatekoak deitzen dituzte bakea;

23. Ezen edo beren umeak imolatuz, edo sakrifizio beltzak eginez, edo erhokeriaz betherikako beilak erabiliz,

24. Ez dituzte gehiago, ez bizitzea, ez ezkontza xahu begiraten; baina batak bertzea bekhazgoz hiltzen du; edo bertzen emazteei hurbilduz atsekabe ematen.

25. Eta oro nahasiak dira, odol, hiltzeketa, ohointza, maula, galdukeria, fede-eskaste, nahaskeria, zin-hauste, prestuen asaldatze,

26. Jainkoak ez orhoitze, arimen khutsatze, sortze-aldatze, ezkontze-tako aldakortasun, emazte eta neskatxekilako zarbarkeriak.

27. Alabainan idola hatsagarrien adoratzeko, gaizki guzien eragindura, hastapena eta akhabantza da;

28. Ezen edo bozkariotan direnean erhokeriara erotzen dira, edo gezurrezko profeziak atheratzen dituzte, edo bidegabekeria bizi dira, edo zinak laster hausten dituzte.

29. Alabainan arimabekoko idola batzuetan hdatzen direnean, etzaioite iduritzen zin gaizki eginez beren buruei kalte ekhartzen diotela.

30. Beraz batak eta bertzeaz gerthatuko zaiote merezitu dutena, zeren sinheste tzarrak hartu dituzten Jainkoak, idolei begiratzuz, eta zin egin duten bidegabekeri zimarikhutan zuzentasuna arbuatuz;

31. Ezen idolez zin egin-eta, ez da hekien indarra, bainan-bai hutsegileei zor zaioten gaztigua gaixtaginen zin-hausteari jazartzen dutea bethi.

## XV. KAP.

1. Zu ordean, oi gure Jainkoa, zu zare ezti, egiati, jasankor eta oro urrikalmendurekin xuxentzen ditutzuna;

2. Ezen bekhatu egiten badugu, zureak gare, ezagutzen dugulaketz zure handitasuna; eta bekhatu ez badugu egiten, badakigu zurekilako garela khondatuak.

3. Alabainan zu ezagutzea, zuzentasun osoa da; eta ezagutzea zure zuzentasuna eta indarra, hilezintasunaren erroa da.

4. Hargatik ez gaituzte makhurrean erorarazi gizonen antze gaixtoaren asmakariak, ez-eta thindatzaileen egintzek, lan alfer, itxura, asko karantzekin bernuzatuek,

5. Zeinen ikhustek lehietan ematen baitu zoroa eta maitharazten baitio bizirik gabeko itxura bat.

6. Gaizkia maite dutenak, idolen egile, maithatzaile eta adoratzaileak, ez dira damu halakotan idukitzeko beren pheskiza.

7. Baxeregileak ere, lur bera orhatuz, egiten ditu lanaren bidez gure zerbitzuko untiak oro; eta lohi beretik egiten ditu zerbitzu garbietako untiak, eta orobat bertzelakoak; baxeregilea da juie zer izanen den unti hekien zerbitzua.

8. Eta lan alfer batekin lohi hartarik beretik jainko bat egiten du hainak, zeina aphur bat lehenago lurretik egin izan baitzen, eta guti baten buruan hartua izan zen lekhura itzuliko baita, arima zuenaren zorra gal-datua zaionean.

9. Ez da ordean khexu jasan behar duenaz, ez-eta laburra duelaketz bizi; baina zein garai hari da urhegin eta zilharginekin; kobreginek ere bezala egiten du, eta sendagaila daduka zeren gauza ezdeus bat egiten duen;

10. Haren bihotza hautsa da, haren pheskiza lur ezdeus bat, eta haren bizi lohia baino putrusago;

11. Zeren ez baitaki nork egin duen; nork eman dioen arima zeinaren bidez egiten baitu bere lana; nork eman dioen biziarazten duen hatsa.



12. Uste ere izan dute gure bizia dosteta bat dela, biziko egitekoa irabazia dela, eta nondik-nahitik ontasun biltzen hari behar dela, gaizkitik izanik ere.

13. Ezen lurrezko orhetik untzi hauskor eta idola egiten hari denak, hainak badaki guzien gainetik egiten duela bekhatu.

14. Zure populuaen etsai guziak eta hura azpian dadukatenak, zoro, dohakabe eta adimenduak agintzen duen baino hanpurutsuago dira;

15. Zeren jainko uste baitituzte jendaien idola guziak, zeinei begiak ez baitzaizkote baliatzen ikhusteko, mizpirak hats-hartzeko, beharriak aditzeko, eskuetako erhiak haztatzeko, eta zeinen zangoak ere nagi baitaude ibiltzera.

16. Alabainan gizon batek egin ditu, eta bizia maileguz duenak orhatu ditu. Ez da alabainan gizonik bere iduriko jainko bat egin dezakeenik;

17. Ezen nola hilkorra baita, bere esku gaixtoez gauza hil bat egiten du; berak ezik gehiago du balio adoratzen dituenek baino; zeren bera, nahiz hilkor den, bizi baita; hekiek ordean behinere.

18. Eta abererik putrusenak ere adoratzen dituzte; erkhatuz bertze adimendugabeko abereei, hekiek baino gutiago dira.

19. Eta nihork ez detzazke begiz ikhus ere abere hekietarrikako onak; bainan ihes egin diote Jainkoaren laudorioari eta haren benedizioneari.

## XVI. KAP.

1. Horren gatik eta hekien bidez jasan dituzte merezitu bezalako oin-hazeak, eta xahutuak izan dira basaberezko elementa batez.

2. Oinhaze hekien orde, ongi antolatu duzu zure populua, zeinari eman baitiozu bere irrisaren araberako jana, gogo berri batekin, eta kailak janharitzat aphainduz.

3. Batzu, jateko irrisarekin, janhari premienei ere gohaintzen ziren, Jainkoak erakhutsi eta igorri zauriak gatik; bertzeak aldiz, aphur bat behartuak izan ondoan, dastatu zuten janhari berria.

4. Hekiek ezen, zure populua ehoa zadukatenak ezin-itzurizko xahupenaz joak izan behar ziren; haukiei aldiz, bakharrik behar zitzaioten erakhutsi nola xahutzen ziren etsai zituztenak.

5. Egia da basabereen errabia gogorrek jazarri diotela zure haurrei ere, eta suge gaixtoen asikiek xahutzen zituztela.

6. Bainan zure hasarreak etzuen iraun bethi; kridantza batentzat izan ziren arte laburrez asaldatuak, salbamenduko ezagutkari bat bazutelarik, orhoit zitezen zure legeko manamenduez;

7. Ezen etagutkariaren alderat itzultzen zena, etzen ikhusten zuen hartaz sasualdua, bainan-bai zutaz guzien salbatzaileaz.

8. Hortan berriz, gure etsaiei erakhutsi izan daroezu, zu zarela gaitz orotarik atheratzen duzuna;

9. Ezen hekiek xartala eta ulien asikiek hiltzen zituzten, eta etzen khausitu hekien bizientzat sendagailurik, zeren horreletan xahutuak izatea baitzuten merezi.

10. Aldiz, erainsuge phozoatuen hortzek etzituzten garhaitu zure haurrak, zeren zure urrikalmendua jausten baitzen eta sendatzen baitzituen.

11. Alabainan zaurthuak ziren orhoit zitezen zure hitzez, eta laster sendatuak ziren, beldurrez-eta ahanzpen handirat eroriz, ezin balia ahal zitezen zure laguntzaz.

12. Eta egiaz, ez ditu ez belhar, ez manthar batek sendatu; bainan-bai, Jauna, zure hitz oro sendatzen dituenak.

13. Ezen, Jauna, zu zare biziaren eta herioaren ahala duzuna; zuk eramaten duzu heriotzeko athera, zuk bihurrazten.

14. Gizonak aldiz, hiltzen du gaixtakeriaz; eta izpiritua ilkhiz geroztik, ez da bihurtzen, eta hiltzaieak ez du itzularaziko arima goana dena.

15. Bainan zure eskuari ezin dakioko ihes.

16. Ezagutzen zaituztela ukhatu duten gaixtaginak, zure besoko indarraz izan dira joak; ur berri, harri eta erauntsiek jazarri daroete, eta suaz izan dira iraungiak.

17. Eta harrigarri zena, urean (zeinak oro hiltzen baititu), suak indar gehiago zuen oraino; ezen mundua prestuen aspertzaila da.

18. Sua ezitzen zen batzuetan, gaixtaginen kontra igorri basabereak etzitezen erre; bainan gaixtaginek berek ikhusiz jakin zezaten Jainkoaren juiamenduz jasaiten zutela beren gaitza.

19. Eta bertze batzuetan, suak urean alde orotarik erretzen zuen bere indarraren gainetik lur tzar hartako jendakiaren xahutzeko.

20. Halakoen orde, aingeruen hazkurriaz hazi duzu zure populua, eta zerutik igorri diozu ogi bat nekherik gabe aphaindua, gozotasun guziak berekin zituena eta ahokotzat guziz ezitia.

21. Eta zuk eman hazkurriak erakhusten zuen nolako eztitasuna duzun zure haurren alderat; eta bakhotxaren nahira antolatuz, batbederak nahi zuen bezala itzultzen zen.

22. Elhurrak berriz, eta hormak jasaiten zuten suaren indarra eta etziren urtzen; jakina izan zadien suak khaldan, harriaren eta erauntsiaren erdian dirdiratuz, erretzen zituela etsaien onak.



23. Bainan hunek berriz, bere indarra ere ahanzten zuen, haz zitezatzat prestuak.

24. Ezen kreaturak zerbitzatzen zaitu bere egilea bezala, sutan jartzen da gaixtaginen estiratzeko, eta ezitzen zure baithan fidatzen direnei ongi egiteko.

25. Hargatik eta orduan olde orotara mudatuz, zerbitzatzen zuen zure grazia, guzien hazlea, beren irritsa ezagutarazten zarotzutenen nahi-tara:

26. Zure haur maithatu zintuenek, Jauna, jakin zezaten, lurretik sort-hu fruituek ez dituztela hazten gizonak; bainan zure hitzak zaintzen ditue-la zure baithan sinhesten dutenak.

27. Ezen suak ezin ahi zezakeen hura, urtzen zen iguzkiaren dirdira gutienak berotu orduko;

28. Orotaz izan zadien ezagutua zu benedikatzeko iguzkiari aitzindu behar zaiola, eta argia atheratu baino lehen behar zarea adoratu.

29. Ezen eskergabearen pheskiza neguko horma bezala urthuko da, deusetako ez den ura bezala ezeztatuko da.

## XVII. KAP.

1. Alabainan, Jauna, handiak dira zure juiamenduak, eta ezin-erranezkoak zure hitzak; horren gatik zeihertu dira arima ikhasigabeak.

2. Ezen gaixtaginak, beren ustean nausi zitazkeenean jendaki sainduari, ilhunbe eta gau luze batetako lokharriez hestutuak egon dira, beren etxeetan hertsia, bethiereko probidentziaren ihes.

3. Eta uste zutenean gordeak egon beren bekhatu beltzen azpian, ahanzpeneko estalgi ilhunaren-pean barraiatuak izan ziren, lastura izigarrarian, eta harridura gaitzaz nahasiak;

4. Ezen hekiek idukitzen zituen zilhoak etzituen beldurretik zaintzen, zeren jausten zen harrabotsak asaldutan ezartzen baitzituen, eta mamu beltz batzuek, hekiei agertuz izialdura ekhartzen baitzitoten.

5. Eta etzen suaren indarrrik hekiei argia eman ziozoketenik, eta izarren dirdiradura garbiak etzezakeen argi gau lazgarri hura.

6. Agertzen zitzaioten, berriz, terrepenteko su bat, izialduraz bethea; eta haren beldurrak jorik, sistez baizik agertzen etziren mamuek gaitzagoak oraino iduriarazten zaroezten ikhusten zituztenak.

7. Eta aztien antzea izan zen irrigarri ezarria, eta zuhurtziatzko espan-tuak laidorekin azurriatuak;

8. Ezen arima erkhitzen hari zirenetarik, izialduren eta asalduen iraitza agintzen zutenak, berak zauden erkhitzen, beldurrez betheak, ooren irrigarri.

9. Alabainan izigarrikeria hekietarik deusek nahasten ez bazituzten ere, ikharan hiltzen ziren, abereen iragaitzak eta sugreen xixtuek lasturik, eta niholazere ihes ezin egin dakioken airea ikhusi nahigabe.

10. Ezen nola tzarkeria izikor baita, bere kondenamenduaren lekhu-kotasuna ematen du; alabainan kontzientzia nahasiari gaitza heldu zaio bethi gogora.

11. Alabainan beldurra ez da deusere bertzerik, baizik-ere gogoko laguntza-etsia bat.

12. Eta zenbatez barnetik baitu igurikimen txarragoa, hanbatez handi-agoa daduka oinhaze ematen dioten arien ezjakina.

13. Hekiek aldiz, zeinak, ifernu beheeretarik eta gainetarik heldu zitzaioten gau zinez latz hartan lo ber batean lo baitzauden,

14. Batzuetan mamuen beldurrak zerabilzkan; bertze batzuetan arimaren erkhidurak arthikiak zaduzkan; ezen terrepenteko eta ustekabeko izialdura bat gainera ethorri zitzaioten.

15. Gero, baldin hekietarik norbait erori bazen, burdinarik gabe pre-sondegian hertsia bazagoen;

16. Ezik basherritar zenbait, edo artzain, edo lur-lanetako langile bat atzemana bazen; ezin-bertzezko premia jasaiten zuen;

17. Ezen oro ilhunbeen lokharri beraz lothuak ziren. Nahiz haizea-aren xixtuak, edo xorien kantu eztiak zuhaitzen adar hostotsuen artean, edo ur lasterraren gargarak,

18. Edo harri anbilduen harrabots handiak, edo dostatzen hari ziren abereen laster ikhusten etzutenak, edo marrumaz zauden basabereen orro hazkarrak, edo mendi goretarik ihardesten zuen oihartzunak, orok izialduraz ethenarazten zituzten.

19. Lur guzia ezen argi arraso batez argitua zen eta trabarik gabe lanei jarraitzen zen.

20. Bakharrrik hekien gainean zen ezarria gau dorphe hura, gainera ethorri behar zitzaioten ilhunbeen itxura. Beraz beren buruak ilhunbeak baino jasangaitzago zituzten.

## XVIII. KAP.

1. Bada, argi ederrean zauden zure sainduak, eta gaixtaginek aditzen zuten hekien mintzoa, bainan etzuten ikhusten hekien begithartea. Eta sainduak handiesten zintuzten, zeren gaitz berak etzituzten jasaiten.



2. Eta aitzinean bidegabeak jasaiten zituztenek, esker onak bihurtzen zituzten, etzutelakotz gehiago bidegaberik jasaiteko, eta galdatzen zuten iraun zezan desbardintasun horrek.

3. Aria hortaz izan zuten suzko habe khaldatu bat ezagutzen etzuten bideko bidari, eta eman zineroeten geriza oneko iguzki bat, saxeriarik gabea.

4. Zure haurrak (zeinen bidez munduari hasten baitzitzaioen emana izaten zure legeko argi narriogabea), hertsia idukitzen zituztenek, merezi zuten argiak eskas egitea, eta ilhunbezko presondegiaren jasaitea.

5. Prestuen haurren hiltzeko asmua zerabilkatenean, eta haur bat urari emana eta salbatua izan zen ondoan; hekien gaztigatzeko, galdu zinduen hekien haur oste bat, eta berak moltzoan itho zintuen ur gaitz batean;

6. Ezen gau hura aitzinetik ezagutua izan zen gure arbasoek, arren-eta garbiki jakinik bethe zirela sinhetsi zituzten agintzak, izan zitezen gogoz hazkar.

7. Bada, zure populua ikhusi zituen behin prestuen librantza eta hanbatekin gaixtaginen galpena.

8. Ezen nola gaztigatu baitituztu etsaiak, hala gu ere eraiki eta handiets gaituzu.

9. Alabainan sainduen ume prestuek sakrifizioak egiten zituzten ixilka, eta batasunean ezartzen zuten zuzenbideko legea, prestuek on-gaitzak orobat onhetsiren zituztela, eta ordukotz kantatzen zituzten arbasoen ganikako kantikak.

10. Bertzelakoak ziren aldiz, etsaien oihuak, eta entzuten ziren beren haurrak deithoratzen zituztenen marraska minak.

11. Gathibua nausiarekin gaztigu beraz zen joa, eta populuko gizonak erregek bezalako azoteak jasaiten zituen.

12. Guziek bazituzten beraz hilak orobat, khonda ahal baino gehiago, heriotze batetarik goanak; ezen hilen ehorzteko biziak etziren aski; zeren hekien arteko jende aiphatuen guzia aphur batez izan baitzen xahutua.

13. Bertze sendagaila orotarik etzuten sinhesterik hartu aztien gatik; bainan lehen-sorthuak xahutuak izan ziren orduan, aithortu zuten Jainkoaren populua zela:

14. Ezen oro ixiltasun gozo batean zaudezelarik, eta gauak bere itzulian bidearen erdia zuenean,

15. Zerutik, errege jarlekhotik xahupeneko lurraren erdira jauzi zen zure hitz guziz ahalduna, gerlari gogor baten pare,

16. Ezpata zorrotz baten pare, erabaki garratza ekhartzen zuelarik; eta xutik, bazterrak oro hiltzeketaz bethe zituen, eta lurrean xutik zelarik jotzen zuen zerua.

17. Orduan amets gaixtoen ikhuspenek nahasi zituzten berehala, eta ustekabeko izialdurak ethorri zitzaizkoten gainera.

18. Eta bat alde batera eta bertzea bertzera arthikiak erdi-hilak, goraki erraten zuten zer ariaz hiltzen ziren;

19. Ezen nahasi zituzten ikhuskariak aitzinetik albiste ematen zaroeten, hil etzitezen jakin gabe zertako jasaiten zituzten gaitz hekiek.

20. Bada, heriotzearen frogapenak ukitu zituen orduan prestuak, eta populua mortuan asaldutan ezarria izan zen; etzuen ordean luzez iraun zure hasarreak;

21. Ezen nothgabeko gizon bat lehiaka abiatu zure errekeitzen populuentzat, goratuz bere zerbitzuaren erredola, isentsuaren erdian igorritz othoitz, errekeiak, geldiarazi zuten zure hasarrea, eta behardurari akhabantza eman zioen, erakhusten zuelarik zure zerbitzaria zela.

22. Asaldua garhaitu zuen, ez gorphutzeko indarraz, ez-eta harmen bothereaz; bainan hitzaz amor eragin zaroen alperten zenari, gure arbasoei eginikako zinak eta hekiekilako batasuna orhoitzapenetara ekharriz.

23. Ezen ordukotz hilak bat bertzearen gainera metaka eroriak zirelarik, artera sarthu zen, trenkatu zuen oldarra, eta hautsi bizietara zaraman bide hura.

24. Alabainan mundua oro zen harek zuen aphez-soinean; aiten izen handiak iskribatuak ziren lau harri lerrotan eta zure izen ederretsia ber-nuzatua zen haren buruko diademan.

25. Xahutzaileak ordean haukiei amor eman zaroeten, eta haukien beldur izan zen; ezik zure hasarrearen frogatze bakhar hori aski zen.

## XIX. KAP.

1. Bainan jainkoaren hasarrea urrikalmendurik gabe azkeneraino ethorri zitzaioten gaixtaginei gainera. Alabainan Jainkoak aitzinetik bazakien zer behar zitzaioten gerthatu.

2. Zeren berek Israelen umeak goatera utzi eta ardura handirekin igorri zituzten ondoan, urrikiak harturik gibeletik jarraikitzen baitzitzaitzokoten.

3. Ezik nigarren erdian zirelarik oraino eta hilen hobietan deithoratzen zaudelarik, bertze gogokunde erhokeriazko bat hartu zuten, eta othoizka igorri zituzten hekien ondolik, ihesliar batzuen gibeletik bezala jo zuten.





4. Alabainan behardura zuzen batek zaramatzen akhabantza hortara; eta gerthatuen orhoitzapena galtzen zuten, gaztiguak bethe zezan hekin estirek zuten eskastasuna;

5. Eta zure populua sendagailaz iragan zadien; hekiek aldiz, heriotze berri bat atzeman zezaten.

6. Alabainan kreatura guziak, beren moten arabera, hastetik bezala moldeberritzen ziren, zure manuak bethez, damurik gabe zure umeak izan zitezzen zainduak;

7. Ezen hedoi batek itzaltzen zituen hekien kanpak; aitzinean ura zen tokian agertu zen leihor idorra, itsaso Gorrian bide bat poxelurik gabe eta leze-ondarretan zelhai belharrez estali bat,

8. Zeina gairi iragan baitzen zure eskuak maldatzen zuen populu guzia, ikhusten zituelarik zure sendagaila eta erakhuskari harrigarriak.

9. Boztu ziren, alhapidetan zaldiak bezala, eta jauzi ziren bildotsak iduri, handiesten zintuztelarik, Jauna, hekiek libratu zintuena.

10. Alabainan orhoit ziren oraino hekien arrotz-lekhuan eginak izan zirenez, nola bertze abereen orde lurak eman zituen uliak, eta hibaiak arrain orde atheratu zuten igel-elementia bat.

11. Azkeneko ikhusi zuten, berriz, hegastin mota berri bat, beren tirriak hartaraturik janhari guziz gozo bat galdatu zutenean;

12. Ezen sosegatzeko hekien lehia, kaila igan zitzaioten itsasotik, eta gaztiguak erori ziren bekhatoreen gainera, ez aitzinetik ihurtzurien indarraz eginak izan ziren adiarazpen hekiek gabe; ezen zuzenki jasaiten zuten beren tzarkerien arabera.

13. Alabainan arrotz-legea gaixtoki hautsi zuten: bertzeak bederen ezagutugabeko arrotzak etzituzten hartzen; haukiek ordean arrotz ongiegileak gathibu ezartzen zituzten.

14. Eta ez hori bakharrik, bainan oraino bertzerik zen hekien ikhustatea, zeren gogo gaitzez hartzen baitzituzten arrotzak.

15. Bainan haukiek bozkarioekin hartu ondoan lege beren azpian bizi izan ziren arrotzak, oinhaze garratzenak jasanarazi ziozkaten.

16. Aldiz, itsutasunez izan ziren joak, hala-nola bertzeak prestuaren athean, tupusteko ilhunbeez estaliak izan zirenean, eta bakhotxa bere atheko bidearen bilha zabilanean;

17. Ezen lehengaiek hartzen dute batak bertzearen aldia, hala-nola organoan krinkak aldizkatzen baitira eta orok, zeinek bere otsa zaintzen baitute; hortarik ezagut baititake segurki orduan ikhusi zena;

18. Ezen leihorrekoak urekotara aldatzen, eta igerikari guziak lurrera iragaiten ziren.

19. Suak urean ohiko indarra gairitzen zuen, eta urak ahanzten zuen berenazko iraungizaletasuna.

20. Garrak aitzitik, bazter orotan zabilizan abere ustelkorren haragiak etzituen dainatzen, eta etzuen urtharazten janhari gozo, bertzenaz horma bezala errexki urtzen zen hura. Alabainan, jauna, gauza guzietan handietsi eta ohoratu duzu zure populua, eta ez duzu arbuaiatu, ordu orotan eta toki guzietan laguntza ematen zinaroelarik.



## EKLESIASTIKOA

### EKLESIASTIKOAREN GAINEAN, JESUS SIRAKEN SEMEAREN AITZIN-SOLASA

Legeaz, profetez eta hekien ondotik ethorri direnez erakhutsia zaiku gauza hainitzen eta handien zuhurtzia, zeinetaz laudatu behar baita Israel bere irakhasmenaren eta zuhurtziaren ariaz; zeren ez-ezik behar baita argituak ziren mintzatu direnak, bainan arrotzak ere hekien bidez hizdun eder eta iskribau guziz jakintsun egin ditazkeelakotz. Ene aitaso Jesus, legearen, profeten eta gure arbasoek utzi izan darozkiguten bertze liburuaren irakurtzeko arthari hainitz eman zen ondoan, berak ere nahi izan zuen iskribatu irakhasmenari eta zuhurtziari darontzoten hekiatarik zerbait, argitzeko lehia dutenek, eta hekiez jakintsun eginik, geroago eta gehiago hekiei iritxik dezaten gogoia, eta gogor ditezen legearen arabera bizitze baten eramatera. Dei egiten darotzuet beraz begirunerekin ethortzeaz eta artha arduratsuenarekin irakurpenaren egiteaz; eta hutsak barkhatzeaz solas hainetan zeinetan ezagun baita hitzen antolamenduan eskas egiten dugula, zuhurtzia nolakoa den erakhustean. Alabainan hebrazko hitzak eskasegi izaten dira, bertze mintzaia batera bihurtzen direnean. Hori ez da ordean huntan baxharrik; bainan oraino legeak berak, profetek eta bertze liburuak makhur handia badute bi mintzaietan irakurtzen direnean. Bada, Ptolomeo Eberjete erregearen egunetan, hogoi eta hemezortzigarren urthean, Egiptora heldu izan nintzen ondoan, eta asko urthe hartan han nindagoelarik, liburu hau aurkhitu nuen han utzia, ez irakhasmen ttipiko eta arbuigarrikoa. Hargatik nik uste izan dut on eta premia zela zerbait artha eta lan ematea liburu hunen ezagutarazteko; eta hainitz beilatuz, denborarekin ekharri dut ene lana akhabantzara, eta liburu hau emateko heinera nahi direnei bermatu, eta ikhasi nahi dutenei zer astura hartu behar duten Jaunaren legearen arabera bizitzearen eramateko gogoia hartu dutenek.

#### I. KAP.

1. Zuhurtzia Jainko Jauna ganikakoa da guzia; harekin izatu da bethitik, eta mendeak baino lehenagotan bada.

2. Nork khondatu ditu itsasoko legarra, uri-xortak eta mendeetako egunak? Nork neurtu ditu zeruaren goratasuna, lurraren zabaltasuna, lezearen barnatasuna?

3. Nork ikhartu du Jainkoaren zuhurtasuna, zeina ooren aitzin baitabila?

4. Zuhurtzia kreatua izan da oro baino lehen, eta gurbiltasunaren argia egundainotik da.

5. Zuhurtziaren ithurria zeru gainetan Jainkoaren hitza da, eta behiereko manamenduak dira haren bideak.

6. Nori agertua izan zaio zuhurtziaren erroa, eta nork ezagutu du haren xothiltasuna?

7. Nori agertua eta erakhutsia izan zaio zuhurtziaren urhatsa? Nork ardiesten ditu haren bide guziak?

8. Baina baxharra da, Jainko guziz gora, ahalorotakoa, errege bothe- retsu eta ikharagarria, bere tronuan jarria, Jainko, guzien nausia.

9. Harek kreatu du hura Izpiritu sainduaren baithan; harek ikhasi, khondatu eta neurtu du.

10. Eta hedatu du bere egintza guzien gainera eta haragi ooren gainera, bere emanaren arabera, eta maite dutenei eman izan diote.

11. Jaunaren beldurra da ospea, handiespena, bozkarioa eta goihere- tasuneko khoroa.

12. Jaunaren beldurra arraituko du bihotza, eta emanen ditu bozka- rioa, goihertetasuna eta egunen luzetasuna.

13. Jaunaren beldur dena dohatsu izanen da bere azken egunetan, eta benedikatua hiltzeko egunean.

14. Jainkoaren amodioa da zuhurtzia ohoragarria.

15. Aldiz, zeinei-ere agertzen baitzaio te begietara, hainek maithatzen dute, haren egintza ederrak ikhasiz eta ezagutzuz.

16. Jaunaren beldurra da zuhurtziaren hastapena; gizon fidelekin amen sabelean kreatua da; emazteki hautetsiekin dabila; prestuen eta fide- len baithan ezagutzen da.

17. Jaunaren beldurra da jakitatearen jainkotiartasuna.

18. Jainkotiartasunak zaintzen eta ontzen du bihotza; ematen ditu gozotasuna eta bozkarioa.

19. Jaunaren beldur denari ongi helduko zaio, eta benedikatua izanen da heriotzeko egunean.

20. Jaunaren beldur izana, zuhurtziaren gairidura, eta haren gani- kako fruituen gairidura da.



21. Ematen dituen fruituez betheko du Jaunaren beldur denaren etxea eta bere aberastasunez haren selharuak.
22. Jaunaren beldurra da zuhurtziaren khoroa; harek bethetzen du bakez eta salbamenduko fruituz.
23. Harek ikhusi eta khondatu du zuhurtzia: bata eta bertzea dira, berriz, Jainkoaren dohainak.
24. Zuhurtziak hedatzen ditu jakitatea eta gurbiltasunaren argia, eta goratzen du hura dadukatenen ospea.
25. Jaunaren beldur izatea da zuhurtziaren erroa, eta iraupen handi-koak dira haren adarrak.
26. Zuhurtziaren eskuan dira adigarria eta jakitatearen jainkotiartasuna; aldiz bekhatoarei gaitzets zaiote zuhurtzia.
27. Jaunaren beldurrak irazten du bekhataua.
28. Alabainan beldurrik gabe dena, prestutasunera ezin helduko da; ezik haren sepharen aiherra haren galgarri da.
29. Jasankorrek igurikiko du mugaraino, eta bozkarioaren bihurpena gero izanen da.
30. Adimendu onekoak bere baithan idukiko ditu bere solasak muga ethorri arteo, eta askoren ahoek aiphatuko dute haren adimendua.
31. Bizi-moldearen irakhaspena zuhurtzian datza.
32. Bekhatoarei aldiz gaitzets zaio Jainkoaren adoratzeari.
33. Ene haurra, zuhurtziaren lehariak balin baduzu, begira zazu zuzentasuna, eta Jainkoak emanen darotzu hura;
34. Ezen Jaunaren beldurra da zuhurtzia eta jakitatea; eta haren gogarako direnak,
35. Sinhestea eta ezintasuna dira, eta ontasunez gaudituko da hekien jabe dena.
36. Jaunaren beldurrari, ez izan sinhetsgogor, eta Jaunari ez hurbil bi aldetara dagoen bihotz batekin.
37. Ez izan alegiakari gizonen aitzinean, eta ez behaztopa zure ezpainen bidez.
38. Zaudezkiote erne, beldurrez-eta eror zaitezten eta zure arimari ekhar diozozun desohore,
39. Eta Jainkoak nabari detzan zutan gordeak daudenak, eta sinagogaren erdian phorroska zaitzan;
40. Zeren Jaunari hurbildu zitzaizkoen maltzurki, eta zure bihotza bethea den maulaz eta zimarkhuz.

## II. KAP.

1. Ene haurra, Jainkoaren zerbitzura hurbiltzean, zaude gogor zuzenbidean eta beldurrean, eta aphain zazu zure arima frogapenari buru egitera.
2. Aphal zazu zure bihotza eta zaude iguri; makhur zazu zure beharria, ongi har zatzu adimenduzko solasak, eta ez basterka abia goibel-orduan.
3. Jasan zatzu Jainkoaren luzamenduak; iratxik zakizkio Jainkoari, eta zaude iguri, azkenerat berha dadientsat zure bizia.
4. Onhets zazu gerthatuko zaitzun guzia; oinhazean ez egin amor, eta jasanakor zaude zure aphalmenduan;
5. Zeren suan frogatzen baitira urhea eta zilharra, gizonak, berriz, aphalmenduko sutik iragaiten dira.
6. Izan zazu Jainkoaren baithan sinheste, eta harek; atheratuko zaitu; zuzen zazu zure bidea, eta idukazu haren baithan zure pheskiza; begira zazu haren beldurra, eta hartan zahar zait.
7. Jaunaren beldur zaretenak, zaudezte haren urrikalmenduaren iguri; eta haren ganik ez aldara, eror zaitezten beldurrez.
8. Jaunaren beldur zaretenak, haren baithan izan zazue sinheste, eta zuen saria ez da galduko.
9. Jaunaren beldur zaretenak, haren baithan idukazue zuen pheskiza, eta haren urrikalmendua ethorriko zaitzue bozkarioz bethetzera.
10. Jaunaren beldur zaretenak, maitha zazue hura aita zuen bihotzak argituak izanen dira.
11. Begira zazue, ene haurrak, gizonen osteei, eta jakizue Jaunaren baithan beren igurikitza izan dutenatarik nihor ez dela ahalketan gelditu.
12. Ezik zein da haren manamenduetan gogor egon-eta, bazterrerat utzia izan denik? edo hari dei egin-eta, arbiatu duenik?
13. Alabainan Jainkoa ona eta urrikalmendutsua da; hesturako egu- nean barkhatzen ditu bekhatuak, eta hura egian bilhatzen duten guzien gerizatzailea da.
14. Zorigaitz bihotz bikhunari, ezpain phozoatuei, esku gaizki-egileei aita lurrean bi bidez dabilan bekhatoarei!
15. Zorigaitz bihotzez iritxikiak ez direnei, Jainkoa baithan sinisterik ez izan-eta, aria hortaz harek gerizatzen ez dituenei!
16. Zorigaitz jasankortasuna galdu dutenei, bide zuzenak utzi-eta, makhurretara zehertu direnei!
17. Eta zer eginen dute, ikhartzten abiatuko denean Jauna?



18. Jaunaren beldur direnek, ez dira haren hitzarentzat sinhetsgogor izanen; eta hura maite dutenek zainduko dute haren bidea.

19. Jaunaren beldur direnek bilhatuko dituzte haren gogarako diren gauzak, eta hura maite dutenak haren legeaz izanen dira betheak.

20. Jaunaren beldur direnek aphainduko dituzte beren bihotzak, aita haren aitzinean saildutuko dituzte beren arimak.

21. Jaunaren beldur direnek zainduko dituzte haren manamenduak, eta ihardukiko dute harek begira diozoten orduraino,

22. Diotelarik: Penitentzia egiten ez badugu, Jaunaren eskuetara eroriko gare, eta ez gizonenetara.

23. Alabainan haren handitasunaren arabera da haren baithan haren urrikalmendua.

### III. KAP.

1. Zuhurtziaren haurrak dira prestuen baldarna; eta hekien jendakia, ethorkortasunez eta amodioz bethea da.

2. Haurrak, adi zazue aitaren errana, eta egizue salbatuko zareten bezala.

3. Alabainan Jainkoak nahi du hurrek ohora dezaten aita, eta manatu du amak esku izan dezan hekien gainean.

4. Jainkoa maite duenak othoitz eginen dio bere bekhatuentzat, eta begiratuko da hekietarik, eta entzuna izanen da bere othoitz jarraikian.

5. Diru biltzen hari dena bezala da bere aria ohoratzen duena.

6. Bere aita ohoratzen duenak bere hurretan aurkhituko du bozkario, eta entzuna izanen da othoitz eginen duen egunean.

7. Luzez biziko da bere aitaren ohoratzaille dena, eta bere amaren gozagarri izanen da aitari ethordun dena.

8. Jaunaren beldur denak ohoratzen ditu burhasoak, eta nausi batzu bezala zerbitzatuko ditu bere biziaren emaileak.

9. Zure aita ohora zazu hitzaz, egintzaz eta jasankortasun osoaz;

10. Haren benedizioea jauts dadien zure gainera, eta azkeneraino irau dezan.

11. Aitaren benedizioeak gogortzen ditu haurren etxeak; aldiz amaren madarizioeak asentuatarik jauzarazten ditu.

12. Ez bezedi ospa zure aitaren desohorean, ezen haren ahalkea ez da zuretzat ospe.

13. Alabainan gizonaren ospea aitaren ohoretik dator, eta aitaren desohorea semearentzat desohore da.

14. Ene haurra, bere zahartzean lagunt zazu zure aita, eta ez biozozu bere bizian atsekaberik eman.

15. Eta adimendua ttipitu bazaio, jasan zazu, eta ez arbuia zure indarrean; ezen aitaren alderako karitatea ez da ahantzia izanen.

16. Alabainan ongia bihurtua izanen zaitzu amaren jasangaiztasunaren ordainez;

17. Zuzentasunean altxatua izanen da zure etxea, eta hesturako egunean zutaz orhoitzapen izanen da; eta zure bekhatuak urthuko dira, halanola horma egun ederrean.

18. Zein lelo tzarrekkoa den bere aita trebes uzten duena! Eta Jainkoaz madarikatua da bere ama uhertzen duena.

19. Ene haurra, ez titasunean egizkitzu zure eginkari guziak; eta gizonen arteko ospez bertzalde, hekien amodioa izanen duzu.

20. Zenbatenaz handiago baitzare, hanbatenaz orotan aphilago jar zaite; eta Jainkoaren baithan grazia aurkhituren duzu;

21. Zeren Jainkoaren ahala da bakharrik handi, eta aphalez da ohoratua.

22. Ez bilha zutaz goragoko gauzak, eta borthitzagokoak ez ikhar; bainan Jainkoak manatu darotzuna erabil zazu bethi gogoan, eta etzaramatzala haren obra gehienek ikhartzeko lehiak;

23. Ezen gordeak direnak, zure begiz ikhusteko premiarik ez duzu.

24. Ez ibil asko gauza alferren ikhartzeko, eta Jainkoaren asko obra ezagutu beharrez.

25. Alabainan gizonen ezagutzaz goragoko hainitz gauza agertuak dira zure aitzinean.

26. Asko gizon ere izan dira beren ustekeriez enganatuak, eta beren adimendu herbalak hutsalakerian iduki ditu.

27. Bihotz gogorrek asturugaitzak izanen ditu azkenean; eta galmen-ta maite duena, hartan galduko da.

28. Bi bidetarik dabilan bihotza ez da ongi atherako, eta bihotzez galdua dena hekietan behaztopatuko da.

29. Bihotz tzarra oinhazez josia izanen da, eta bekhatorea giroago eta gehiago bekhatuan sarthuko da.

30. Hanpurutsuen bildumarentzat sendatzerik izanen ez da; ezen bekhatuaren gandoak erroak eginen ditu hekien baithan, eta ez dira ohar-tuko.

31. Zuhurraren bihotza bere zuhurtziatik da ezagun, eta prestuaren beharriak zuhurtzia entzunen du lehia handienarekin.



32. Bihotz zuhur eta adimendutsua bekhatutik begiratuko da, eta bere eginkarietan ongi helduko da.

33. Sua khaldan denean urak hiltzen du, eta amoinak bekhatuari ihardesten dio.

34. Eta begira dagokio Jainko, ongiaren sarizatzailea; gerorat orhoitzen da hartaz, eta karitate-egileak habe bat aurkhituren du eroriko den orduan.

#### IV. KAP.

1. Ene haurra, amoinarik gabe ez utz beharra, eta haren ganik bertze aldera ez itzul begiak.

2. Ez arbuia gosez dagoena, eta ez minth beharra bere gabetasunean.

3. Atsekaberik ez eman beharraren bihotzari, eta hesturan dagoenari ematea ez luza.

4. Ez arbuia atsekabetan denaren othoitza, eta beharraren ganik ez aldera begithartea.

5. Beharraren ganik ez aldera begithartea, sepha har dezan beldurrez, eta ez utz galdegileak gibeletik zure madarikatzera;

6. Ezik bere arimako uherduran madarikatzen zaituenaren burhoa izanen da entzuna; haina entzunen du hura egin duenak.

7. Beharren bilkhuan xehe zaitte; zaharraren aitzinean apha zazu zure arima, eta handiaren aitzinean beheiti zazu zure burua.

8. Beharrari nardatu gabe makhur diozozu zure beharria, bihur zor diozuna, eta bakezko solasak ezitasunekin ihardets.

9. Hanpurutsuaren eskutik athera zazu bidegabea jasaiten duena, eta ez ekhar zure ariman kharmindurarik.

10. Juiatzean, umezurtzentzat izan zaitte urrikalmendutsu aita bat bezala, eta hekien amarentzat senhar orde.

11. Eta zu izanen zare Guziz-Goraren seme ethordun bat bezala, eta urrikalduko zaitzu ama bat baino gehiago.

12. Zuhurtziak bere hurrei ematen diote bizitzeko hatsa; bere gerizara hartzen ditu hura bilhatzen dutenak, eta aitzinean badohakiote zuzentasunaren bidean.

13. Hura maite duenak maite du bizia, eta harentzat atzarriak daudezenek gozatuko dute haren bakea.

14. Haren jabe direnak bizia izanen dute primantzetan; eta hura sartuko den lekhuia, Jainkoak benedikatu du.

15. Hura zerbitzatzen dutenak ethorkor dira sainduaren alderat, eta Jainkoak maite ditu hura maite dutenak.

16. Hura entzuten duenak jendaiak juiatuko ditu, eta hari begiratuko dioena gerthu egonen da.

17. Hari bere sinhestea emanen dioenak hura primantzaz izanen du, eta hainaren umeak hartaz gozatuko dira.

18. Alabainan zuhurtzia frogapenean hainarekin dabila, eta lehenbizikoetan hautatzen du.

19. Haren gainera erakharriko ditu beldurra, ikhara eta frogapena, eta estiratuko du bere irakhaspeneko estiran, froga dezan arteo bere gogoe-tetan, eta sinheste izan dezan haren arimaren gainean.

20. Eta hazkartuko du, bide zuzen bat eginen du haren ganat, eta bozkarioz betheko du.

21. Eta agertuko diozka bere baithan gordeak daduzkan gauzak, eta haren gainera bilduko ditu jakitatea eta zuzenaren ezagutza.

22. Baldin ordean zehiertzen bada, utziko du eta arthikiko bere etsaiaren eskura.

23. Ene haurra, guphidets zazu denbora eta bazterrerat egiozu gaizkiari.

24. Zure arimaren gatik ez izan ahalke egiazen errateko;

25. Ezen bada ahalkea bekhatua dakharrena, eta bada ospe eta esker dakharrena.

26. Zure buruaren kontra ez begira nor-nor-den, eta zure arimaren kaltetan gezurrik ez egin.

27. Ez guphidets zure laguna gaizkira erori denean;

28. Eta ez iduk solasa salbagarri ditakeen orduan. Ez gorde zure zuhurtasuna egoki denean;

29. Ezen ageri da zuhurtzia mihian; adimendua, jakitatea eta argitasuna gizon adimendutsuaren elheetan, eta gothortasuna zuzenbidezko eginkarietan.

30. Ez gezurta niholaz-ere solas egiatia, eta zure jakitategabetik ethorri gezurraz ahalka zaitte.

31. Ez izan ahalke zure bekhatuen aithortzeko, eta ez jar bekhatura eramanean zaituen gizonaren meneko.

32. Ahaldunari bekhoz bekho ez egon gogorretik eta ez hari indarka hibaiaren oldarrari buruz.

33. Zuzenaren alde guduka zaitte zure arimaren ariaz, eta heriotzeraino jazar zazu zuzenaren alde; eta Jainkoak gudukatuko ditu zure etsaiak zure ariaz.

34. Ez izan mintzatzeko zalhu, eta laneko hutsal eta nagi.



35. Ez izan zure etxean lehoina iduri, sehiak kalika erabiliz eta azpi-koak zaphan idukiz.

36. Zure eskua ez bedi izan zabaldua hartzeko eta hertsia emateko.

### V. KAP.

1. Ez ezar zure sinhestea ontasun gaizki bilduetan, eta ez erran: Badut ene dira bizitzeko; ezen etzaitzu deusere baliatuko asperkundero eta gaztiguko egunean.

2. Ez jarraik zure indarrean zure bihotzeko lehiei,

3. Eta ez erran: Ene ahalaren handia! edo: Nork duke ene gainean eskudantzia ene egintzen ariaz? Ezen Jainko aspertzaileak asperkunde atheratuko du.

4. Ez erran: Bekhatu egin dut, eta zer kalte gerthatu zait? Ezen Guziz-Gora bihurtzaile luzakorra da.

5. Ez izan beldurrik gabe bekhatu barkhatuaren gainean, eta ez berha bekhatua bekhatuaren gainera.

6. Eta ez erran: Jaunaren urrikalkortasuna handia da; urrikalduko da ene bekhatuen osteari.

7. Alabainan urrikalmendua eta hasarrea laster hurbiltzen dira haren ganik, eta bekhatoreen gainera begira dago haren hasarrea.

8. Ez berant Jaunaren gana bihurtzera, eta ez luza egunetik egunera;

9. Ezen terrepentean jautsiko zaitzu haren hasarrea, eta galduko zaitu asperkundero egunean.

10. Ez izan arduratsu aberastasun gaizki bilduez; alabainan etzaizkitzu baliatuko gaztigu eta asperkundero egunean.

11. Ez ibil haize guziekin eta ez goan bide oroz; ezen hola mihi bik-hunetik ezagutzen da bekhatorea.

12. Gogor zaude Jaunaren bidean, zure adimenduko zintasunean eta jakitatean, eta bakezko eta zuzentasuneko hitza darraizula.

13. Ezti zaude solasaren entzutera, ardiets dezazun, eta zuhurki jakin dezazun egiaz ihardesten.

14. Ardietsi baduzu, ihardets diozozu zure lagunari, bertzelaz eskua ezar zazu ahoaren gainean, beldurrez-eta elhe zoro zerbaitetan atzemaia izan zadien eta ahalketan ezarria.

15. Ohorea eta leloa darraizkio zuhurraren solasari; aldiz zoroaren mihia haren galgarri da.

16. Ez bezedi elheketari deithua izan, ez-eta zure mihitik atzemaia, ez-etare ahalketan ezarria.

17. Alabainan ahalkea eta urrikia dira ohoinarentzat, eta lelorik tza-rrena mihi bikhunarentzat; elheketariarentzat, berriz, higuintza, etsaigoa eta laidoa.

18. Xumearen eta handiaren, bientzat bardin emozu zuzenari bere bidea.

### VI. KAP.

1. Adiskide behar-bidean, ez bilhaka zure lagunaren etsai; ezen gaix-taginak bere zathitzat izanen ditu irain, laidoak, hala-nola bekhatore bek-haizti eta bi mihitako guziek.

2. Etzaitezela zure arimako gogoan altxa zezena iduri, beldurrez-eta zure zorokeriak hauts dezan zure indarra,

3. Jan detzan zure hostoak eta xahu zure fruituak, eta utz zaitzan egur ihar bat mortuan bezala;

4. Ezen arima gaixtoak galduko du bere jabea, bozkariagarri arthiki-ko diote bere etsaiei, eta bilduko du gaixtaginen zortera.

5. Solas eztiak berhatzen ditu adiskideak eta ematen etsaiak, eta gizon prestuaren baithan mihi gozoak indar badu.

6. han zazu adiskide baketiar hainitz, eta miletarik bat kontseilu hartzeko.

7. Adiskide bat balin baduzu, frogara izan zazu, eta ez errexxi har haren baithan sinheste;

8. Ezen halakoa adiskide da orduaren arabera, eta ez da adiskide ego-nen ordu gaitzean.

9. Halakoa adiskide da, zeina etsaigora baita itzultzen; eta halakoa adiskide da, zeinak agertuko baititu gaitzirizko, irain, aharrak.

10. Halakoa adiskide da mahaineko lagun, eta ez da adiskide egonen beharreko egunean.

11. Adiskidea aldatu gabe egoten bada, khide bat bezala izanen duzu, eta zure etzekoen heraberik gabe eginen du.

12. Baldin zure alderat jauskor bada eta itzultzen bada zure aitzine-tik, adiskidantza mamia eta ona izanen duzu.

13. Aldara zaite zure etsayetarik, eta atzarria zaude zure adiskideen gainean.

14. Adiskide zine, geriza hazkarra da; hura aurkhitu duenak, balio handitako gauza bat atzeman du.

15. Deus ez da hurbiltzekorik adiskide zinari; eta urhea eta zilharra ez dira gai haren zintasunaren onari erkhatzeko.



16. Adiskide zine, bizia eta ezin-hiltasuna ematen duen errekitua da; eta Jainkoaren beldur direnek atzemanen dute hura.

17. Jainkoaren beldurra duenak, hala-ber izanen du adiskidantza ona, zeren haren idurikoa izanen baita haren adiskidea.

18. Ene haurra, gaztedanik har zazu irakhasmena, eta zuhurtasuna ardietsiren duzu ileak zuri dakizkitzun arteo.

19. Hurbil zakizkio iraultzen eta eraiten hari dena bezala, eta igurikatzu haren fruitu onak.

20. Hariko zare haren lan aphurrean, eta laster janen duzu harek eman fruituetarik.

21. Zein latza den zuhurtzia gizon makhurrentzat! Zorua ez da harekin egonen.

22. Hekientzat izanen da frogapenetan harriaren hazta bezala, eta ez dute luzatuko haren egoztera.

23. Alabainan zuhurtzia, jakitatearen izena ekhartzen duen bezala, ez da gehientzat ageri; bainan ezagutzen dutenen baithan badago Jainkoaren aitzinera heldu arteo.

24. Adi zazu, haurra, onhetsazu adimenduzko kontseilua, eta ez arbuia ene errana.

25. Ezar zazu zure oina haren estekan eta zure lephoa haren gathean.

26. Makhur diozozu zure sorbalda eta soin gainean eraman zazu, eta ez unha haren lokharrietan.

27. Bihotz oroz hurbil zakizkio, eta eginahal guziaz begira zatzu haren bideak.

28. Bilha zazu, eta agertuko zaitzu; eta behin haren jabe eginez geroz, ez utz gehiago;

29. Ezen azkenekotz hartan aurkhituren duzu phausua, eta zuretzat bozkariotara bihurturen da.

30. Eta zuretzat haren estekak izanen dira geriza hazkar eta asentu sendo bat bezala; eta haren gathea, ospezko jauntzi bat bezala;

31. Ezen haren baithan edertasun bat bada bizia ematen duena, eta haren estekak dira lokharri sendagarriak.

32. Ospezko soineko bat bezala jauntziko duzu, eta bozkariozko khoro bat bezala ezarriko duzu buruan.

33. Ene haurra, atzarria egoten bazaizkit, argituko zare; eta aphaintzen baduzu zure arima, izanen zare zuhur.

34. Beharria ekhartzen baduzu, irakhasmena hartuko duzu; eta entzutea maite izaten baduzu, zuhur izanen zare.

35. Zaude zahar umoen bilkhuan, eta bihotzez iratxik zakizkio hekien zuhurtasunari, entzun ahal detzatzun Jainkoaz diotena, eta gal ez detzatzun hekien erran ederrak.

36. Ikhusten baduzu adimendutako gizon bat, zoazkio goizetik, eta zure oinak ardura zapha beza haren athelasa.

37. Jainkoaren legean idukatzu zure gogoetak, eta haren manamenduetan izan zaite guziz jarraikia; eta berak emanen darotzu behar den bihotza, eta emana izanen zaitzu zuhurtziaren gutizia.

## VII. KAP.

1. Ez egin gaizkirik, eta gaitzak etzaitu atzemanen.

2. Gibela zaite gaixtagina ganik, eta gaizkia urrunduko da zure ganik.

3. Ene haurra, ez erain gaizkia bidegabearen hildoan, eta hura ez duzu zazpikhun uztatuko.

4. Ez galda Jaunari buruzagigoa, ez-eta erregeri ohorezko alkhia.

5. Jainkoaren aitzinean ez egin zure buruaren garbi atheratzera, zeren berak ezagutzen baitu zure bihotza; eta ez abia erregeren aitzinean zuhur agertu beharrez.

6. Ez ibil juie bilhakatu nahiz, tzarkerien hausteko indarraren jabe ez bazare, beldurrez-eta lotsaraz zaitzan ahaldunaren begitharteak, eta behaztopagailu bat eman diozozun zure zulentasunari.

7. Ez hutsegin hiriko ostearen alderat, eta ez sar populuaren erdira.

8. Bekhatua ez tinka bi koropiloz; ezen bakharraren gatik ere etzare gaztigurik gabe goanen.

9. Ez izan bihotzez ilhaun.

10. Ez guphidets othoitz eta karitate egitea.

11. Ez erran: Jaunak begiratuko dio ene emaitzen araldeari; eta nik eskainiz Jainko guziz gorari, onhetsiko ditu ene emaitzak.

12. Ez trufa gizonaz bihotza uherrik duenean; ezik aphaltzen eta goratzen duena bada, Jainko oren ikhuslea.

13. Ez iraul gezurrik zure anaiaren kontra, eta halakorik orobat ez egin zure adiskidearen kontra.

14. Berautzu gezurrez gezur ibiltzetik; ezen aztura hori ez da ona.

15. Ez izan elhetsu zaharren bilkhuan, eta hitzak ez errepika zure othoitzean.

16. Ez higuin lan nekhatuak eta Guziz-Gorak kreatu duen lur-lana.

17. Ez ezar zure burua gizon barraiatuen araldeko.

18. Orhoit zaite hasarreaz, ez baitu beranduko.



19. Handizki apha! zazu zure izpiritua; zeren gaixtaginaren haragia-  
rentzateko asperkundera, sua eta harrak izanen baitira.

20. Ez hutsegini zure adiskidearen alderat, diru ematea luzatzen due-  
lakotz, eta urhearen gatik ez arbuia zure anaia xitezkoa.

21. Emazte adimendutsu eta on, Jaunaren beldurrean izan duzunaren  
ganik berautzu gibela, ezik haren ahalkekortasunaren eskerra urhearen  
garai da.

22. Ez gaizki erabil zinki lanean hari den sehia, ez-eta bere bizia ema-  
ten darotzun sarizalea.

23. Zure bizia bezain maite izan zazu sehi zuhurra; libertateaz etza-  
zula gabe, eta ez utz erromes.

24. Badituztu aziendak? artha zatzu; eta zuretzat on badira, ez utz  
etxetik.

25. Badituztu semeak? irakhats zatu ongi, eta haurretik amor eragin  
diozozute.

26. Badituztu alabak? zain zatu hekien gorphutzak garbi, eta ez bio-  
zozuete erakhuts begithartea irrikoi.

27. Ezkontzaz emazu zure alaba, eta lan handi bat egin dukezu; eta  
adimendutako gizonari emozu.

28. Zure gogoaren araberako emaztea balin baduzu, etzazula irreiz;  
eta higuinarran ez har sinheterik. Zure bihotz oroz

29. Ohora zazu zure aita, eta ez ahantz zure amaren intzirak.

30. Orhoit zaitte hekiek gabe etzinaiztela sorthua, eta bihur diozo-  
zute hala-nola zuri egin baitarotzute.

31. Zure bihotz guziaz izan zaitte Jainkoaren beldur, eta saindu iduk  
zatu haren aphezak.

32. Zure ahal oroz maitha zazu egin zaituena, eta bazterrerat ez utz  
haren ministroak.

33. Zure arima guziaz ohora zazu Jainkoa; ohore emozute aphezai,  
eta xahu zaitte bitimen sorbaldak eskainiz.

34. Pikainetarik eta xahupeneko bitimetarik, manatua zaitzun bezala,  
emozute beren zathia, eta zure totalkeriatik garbi zaitte gutiekien.

35. Jaunari eskaini diozotzu zure bitimen sorbaldak, sainduespeneko  
sakrifizioa eta gauza sainduetsien pikainak.

36. Beharrari heda diozozu zure eskua, osa ditezen jabalpeneko  
sakrifizioa eta zure eskaintza.

37. Emaitzak esker du bizi diren guzien aitzinean, eta hilari eskerra  
ez debeka.

38. Ez hutsegini nigarrez daudezenei gozakari ekhartzea, eta ibil zaitte  
auhenetan direnekin.

39. Eri-ikhustera ez izan nagi; ezen horrela finkatuko zare karitatean.

40. Zure egintza orotan orhoit zaitte zure azken egunaz, eta ez duzu  
behinere bekhatuik eginen.

## VIII. KAP.

1. Ez izan hauzirik gizon ahal handikoarekin, haren eskuetara eror  
zaitezen beldurrez.

2. Ez aharra gizon aberatsarekin, hauzi eman dezazun beldurrez;

3. Ezen urheak eta zilharrak asko galdu dituzte, heltzen dira erregeen  
bihotzeraino eta itzulikarazten dute.

4. Ez aharra gizon mihitsuarekin, eta egurra ez meta haren suan.

5. Ez iharduk gizon ikhasigabearekin, beldurrez-eta gaizki mintza  
dadien zure haurrez.

6. Ez arbuia bekhatutik aldaratzen den gizona, eta hari ez erran gaiz-  
kirik; orhoit zaitte guziak gaztiguaren meneko gabela.

7. Gizona ez erdeina bere zaharrear; alabainan gutarikakoak dira  
zahartzen.

8. Ez boz hil delakotz zure etsaia, dakizunean hilen gabela guziak eta  
ez dugula nahi irribide bilhakatu.

9. Ez erdeina zahar eta zuhurren solasa, eta hekien erranetan alha  
zaitte;

10. Ezen hekien ganik ikhasiko duzu zuhurtzia eta irakhasmenaren  
aditza, eta handien zerbitzatzen estakururik gabe.

11. Ez bekitzu itzur zaharren solasak; ezen berek aitzinekoetarik  
ikhasia dute;

12. Alabainan hekien ganik ikhasiko duzu adimendua, eta behar den  
orduan ihardesten.

13. Ez khalda bekhatoreen ikhatzak, hekiei gaizkika hariz, beldurrez-  
eta bekhatore hekien garrak erre zaitzan zerorri.

14. Ez abia ozarrari buruz, ez dadien jar zelataria zure ahoari bezala.

15. Maileguz ez eman zu baino gehiago denari: eman baduzu galdutzat  
idui kazu.

16. Ez sar berme zure indarraz gorago; sarthu bazare, bihurtu behar  
bazindu bezala egizu gogoeta.

17. Ez har ustekeriarik juiearen kontra, zeren zuzenaren arabera era-  
bakitzen baitu.





18. Bidean ez ibil gizon oldarkorrekarekin; beldurrez-eta zure gainera erorraraz detzan beraren asturugaitzak; ezen hura bere oldetara ibiliko da, eta harekin batean haren zorokeriaz galduko zare.

19. Gizon hasarrekorrekarekin ez abia liskarrik, eta ez goan mortua barna oldarkorrekarekin; zeren ezdeus bezala baita haren aitzinean odola, eta laguntzabiderik ez dukezun tokian sakhituren zaitu.

20. Ergelekin ez egin batzarrerik; alabainan ezin maithatuko dute beren oldeko gauzarik baizen.

21. Arrotzaren aitzinean ez iduk biltzarrik; ezen ez dakizu zer atheratuko duen gero.

22. Edozeini ez ager zure bihotza, beldurrez-eta itxura ederra egin-eta, gaizki mintza dadien zutaz.

### IX. KAP.

1. Ez har bekhaizgorik zure sahetseko emazteari, beldurrez-eta zure gainean erakhuts dezan zure ganik ikhasiko duen maltzurkeria gaixtoa.

2. Ez eman emazteari zure gainean nausitasunik, beldurrez-eta bere detzan zure eskuak, eta geldi zaitezen ahalkearen azpian.

3. Ez begira askoz zale den emaztekiari, haren sareetara eror zaitez beldurrez.

4. Ez izan jarraikitasunik ema-dantzariarekin, eta etzazula entzun, haren eragindurak gal zaitzan beldurrez.

5. Ez begira neskatxari, haren edertasuna zure behaztopagarri izan dadien beldurrez.

6. Ez eman niholaz-ere lilitxoei zure bihotza, beldurrez-eta gal zaitezten zu eta zure izateak.

7. Hiriko karriketari ez begira inguru guziei, eta ez ibil plaza zaphatzen.

8. Begithartea aldara zazu emazteki aphaindua ganik, eta ez egon begiraka atzearen edertasunari.

9. Emaztekiaren edertasunak asko galdu ditu, eta hartarik zalekeria sua bezala khaldatzen da.

10. Edozein emazteki lilitxo dena, lohia bezala bidean oinkatua izanen da.

11. Askok bertzeen emazteen edertasunari miretsiak egonik, Jainkoaz iraziak izan dira; ezen hekiekilako solasak suak bezala erretzen du.

12. Bertze baten emaztearekin ez jar batere, eta ez egon harekin ukhondoaren gainera bermatua.

13. Arnoan harekin ez eraunts, beldurrez-eta zure bihotza haren alderat itzul dadien, eta zure odolak erorraraz zaitzan galpenera.

14. Ez utz adiskide zaharra, ezen berria ez da haren iduriko izanen.

15. Adiskide berria da arno berria bezala; zahar bedi, eta gozoki edanen duzu.

16. Bekhatorearen ospez eta aberastasunez ez izan bekhaitez, ezen ez dakizu nolakoa izanen den haren eragozpena.

17. Ez bedi zure gogarako izan gaixtaginen bidegabekeria, dakizularik gaixtagina ez dela hil arteo Jainkoaren gogarako izanen.

18. Zaude urrun hiltzeko ahala duen gizonaren ganik, eta heriotzearen beldurkunderik ez duzu erabiliko.

19. Hurbiltzen bazare haren gana, berautzu zerbait egin, beldurrez-eta khen dezazun bizia.

20. Jakizu herioarekin baltsan zarella, zeren arteen erdira sarthu zaren eta maltzurren harmen gainean zabiltzalakotz.

21. Zure ernetasun guziarekin begira zaite zure aldeko lagunaren ganik, eta egitekoak egizkitzu gizon zuhur eta umoekin.

22. Gizon prestuak izan zatzu barazkaltartzat, eta Jaunaren beldurizateaz egizu ospe.

23. Jainkoaz izan bedi zure gogoko alhadura, eta Guziz-Goraren manamenduez zure solas guziak.

24. Ofizialeak, beren eskuetako lanak laudatuko ditu; populuaren buruzagia, bere solasen zuhurtasunak; eta zaharra, bere hitzaren usna onak.

25. Gizon mihitsua ikharagarri izanen da bere hirian, eta ozarra bere hitzetan higuigarri.

### X. KAP.

1. Juie zuhurak juiatuko du bere populua, eta gizon umoaren buruzagigoa gothor egonen da.

2. Nolakoa populuaren juiea, halakoak haren ministroak; nolakoa hiriko buruzagia, halakoak han daudezenak ere.

3. Errege zoroak galduko du bere populua, eta kargudunen adimenduak egoiliarrez betheko ditu hiriak.

4. Jainkoaren eskuan da lurreko ahala, eta lurraren gainera behar den orduan eraikiko du buruzagi ona.

5. Jainkoaren eskuan da gizonaren zoriona, eta iskrubaua inguratzen du hari dagokioen ohoreaz.

6. Ez orhoit lagunak egin irain guziez, eta irainezko egitaterik ez egin batere.



7. Hanpurustasuna Jainkoaren eta gizonen aitzinean higuigarri da, eta jendaian tzarkeria hatsgarri.

8. Nausitasuna jendaia batetik bertzerera eramaten da, bidegabekeria, gaizki, irain, eta asko moldetako zimarkhuen gatik.

9. Deus ez da jaramana baino hatsgarriagorik. Nolaz hanpurusten dira lurra eta hautsa?

10. Deus ez da tzarragorik diruaren maithatzea baino; ezen jaramanak arima salkizun daduka; zeren bizi delarik gabetu baitu bere bihotzaz.

11. Nausitasun guziak iraupen laburreko. Eritasun luzeak unhatzen du midikua.

12. Midikuak hausten du eritasun xumea: hala-hala errege bat egun bizi eta bihar hila da.

13. Eta gizona hilen denean sugeak, abereak eta harrak izanen ditu primantzatzat.

14. Gizonaren hanpurustasunaren hastapena da Jainkoaz arnegatzea;

15. Zeren bere egilearen ganik urrundu baita haren bihotza; hanpurustasuna delakotz bekhatu guzien hastapena: hura berekin duena betheko da madarizionez, eta harek xahutuko du azkenean.

16. Hargatik laidoz Jaunak estali ditu gaixtaginen bilkhuak, eta bethikotz xahutu ditu.

17. Jainkoak uzkailei ditu buruzagi hanpurutsuen alkhiak, eta emeak jarrarazi ditu hekien orde.

18. Jainkoak iharrarazi ditu jendaia hanpurutsuen erroak, eta jendaia beretarik jautsgura zirenak goratu izan ditu.

19. Jaunak hondatu ditu jendaian lurak, eta erroraino xahutu ditu jendaia.

20. Iharrarazi ditu batzu eta galdu; eta hekien orhoitzapena suntsiarazi du lurretik.

21. Jainkoak ezeztatu du hanpurutsuen orhoitzapena, eta irautera utzi du bihotzez jautsgura zirenen orhoitzapena.

22. Hanpurustasuna ez da gizonarekin izan sorthua, ez-eta jauzkor-tasuna emaztekiarekin.

23. Jainkoaren beldur diren gizonen iraulgia ohoratua izanen da, eta desohoratua Jaunaren manamenduez axolarik ez dutenena.

24. Bere anaien buruzagi dena ohoretan da hekien artean; eta Jaunaren beldur direnak, eder izanen dira haren begietan.

25. Aberatsen, ohoredunen eta beharren ospea, Jainkoaren beldurra da.

26. Berautzu aphalestetik gizon prestu beharra, eta gorestetik gaixto aberatsa.

27. Handi, juie, ahaldunak ohoretan dira, eta Jainkoaren beldur dena baino handiagorik ez da.

28. Gizon libroek gathibu adimendutsua serbitzatuko dute; gizon umo eta argituak ez du marmaratuko kridantzatuko dutenean, eta ikhasigabea ez da ohoretan izanen.

29. Ez bezaite hant lana egitean, eta ez bara hesturako orduan.

30. Lanean hari eta orotaz nasaizian dena hobea da ezenetz espantuz eta ogi eskasez dagoena.

31. Ene semea, emetasunean begira zazu zure arima, eta ohore emozu merezi duenaren arabera.

32. Bere arimaren kontra bekhatu egiten duena, nork atheratuko du prestutzat? eta nork ohoratuko du, bere arima desohoratzen duena?

33. Beharra ospatua da bere zuhurtasunaz eta Jaunarentzat duen beldurraz, eta bada gizona bere ontasunen gatik ohoratzen dena.

34. Aldiz bere behartasunean ospatua dena, zenbat ez lizate gehiago aberastasunean! Eta ontasunaren gatik ospetan dena erromestasunaren beldur izan bedi.

## XI. KAP.

1. Zuhurtziak goraturen du beheratua denaren burua, eta handien erdian jarraraziko du haina.

2. Ez lauda gizona bere edertasuna gatik, ez-eta erdeina itxura txarra gatik.

3. Erlea xumetto da hegaldunen artean, eta haren ontasuna da gozotasunez lehenbizikoa.

4. Ez espanta zure jauntziaz eta ez hant ohore duzun egunean; zeren Guziz-Goraren lanak baitira bakharrrik espantagarri eta ospagarri eta dira gordeak eta ikhusigabeak.

5. Asko errege jarri izan dira tronuan, eta nihork ustegabeakoak erabili du diadema.

6. Asko botheretsu hestura gogorraren azpira erori izan dira, eta ospetsu zirenak arthikiak izan dira bertzeen eskuetara.

7. Bilhatu baino lehen, ez nihori baiarik eratxik; eta bilhatu zaitkeenean, zuzenki azurria.

8. Aditu baino lehen, ez hitzik ihardets; eta solasaren erdian, ez abia mintzatzen.

9. Mengoa etzaitzun gauzaz ez erabil borrokarik, eta ez jar bekhatoreekin juiatzen.



10. Ene semea, ez sar egiteko hainzietan; eta aberats bazare, hutsetik etzare izanen garbi, ezen baldin ondotik bazabiltza, ez duzu atzemanen, eta aitzinean bazabiltza, etzare itzuriko.

11. Bada gizon gaixto zinkhurinatsua, lanarekin borroka eta herresaka hari dena, eta hariago eta gutiago gorituko da.

12. Bada gizon iraungia, deusere biltzen ez duena, indargabea, eta beharra nasai duena.

13. Eta Jainkoaren begiak begitharte egin dio; altxatu du bere behe-ramendutik, eta goratu du haren burua; eta asko miretsi dira haren baithan, eta ohore bihurtu diote Jainkoari.

14. On, gaitzak, bizia eta heriotzea, behartasuna eta aberastasuna, oro Jainkoa ganikakoak dira.

15. Zuhurtzia eta irakhasmena, eta legearen jakitatea Jainkoa baithan dira; maithakundea eta ongien bidea haren beraren baithan.

16. Malhurra eta ilhunbeak bekhatoorekin kreatuak izan dira; gaizkian bozten direnak, berriz, gaizkian dira zaharturen.

17. Jainkoaren dohainak irauten du prestuen baithan, eta haren eragindurak bethiko zoriona dakhar.

18. Bada xuhurki hariz aberasten dena; eta saritik hau du beretzat,

19. Erraten duena: Atzeman dut enetzat phausua, eta orai bakharrik janan dut ene onetarik.

20. Eta ez daki denbora badohala, herioa hurbiltzen hari dela, oro bertzei utziko dituela, eta hilen dela.

21. Zaude zure patuan, hartaz izan beitez zure solasak, eta zuretzateko manamenduak bethez zahar zaite.

22. Ez bara bekhatooreen egitateetan; baina zure sinhestea Jainkoa baithan idukazu, eta zaude zure tokian.

23. Alabainan errex zaio Jainkoaren begiari, bat-batean aberastea gizon beharra.

24. Jainkoaren benedizioea lehiat dago prestuaren sariztatzerat, eta hunen egintzek laster dakharte fruitu.

25. Ez erran: Zertako grina? eta zer on atheratuko dut hortarik?

26. Ez erran: Banaiz ene dira, eta zer gaitz ethor dakiket hortarik?

27. Onen egunean ez egon gaitzez orhoitu gabe, eta gaitzera egunean ez izan onez ahanzkor;

28. Zeren Jainkoari errex baitzaio, batbederari hiltzeko egunean bihurtzea bere bideen arabera.

29. Oren bat gaitzek ahantzarazten ditu atsegirik handienak eta gizona akhabatzearekin agortzen dira haren egitateak.

30. Gizonik ez lauda hil baino lehen, zeren bere semeetarik ezagun baita gizona.

31. Zure etxean ez sarraraz edozein gizon, zeren zimarkutsuak asko arte baitu;

32. Ezen nolako hatsa arthikitzen baitute barne usaindua dutenek; nola epherra kaiolara eta basahuntza sarera biltzen baitira; halakoa ere da hanpurutsuen bihotza, eta halakoa bere lagunaren erortzeari begira dagoena.

33. Alabainan onak gaitzera bihurtuz, zelatan dago, eta nothatzen ditu eginkari hautenak.

34. Phindar bakharetik handitzen da sua, zimarkhutsu batetarik handitzen da odol-ixurtzea; eta gizon gaixtoa odolari dago zelatan.

35. Begira zaite izurriduna ganik, ezen gaizki obratzen hari da; arbuioa bethikotzat zure gainera bil dezan beldurrez.

36. Arrotza zure baithara onhets zazu, eta harek nahasmenduan eragotziko, eta zerorren ontasunetarik khenduko zaitu.

## XII. KAP.

1. Ongia egiten baduzu, jakizu nori egiten diozun, eta esker handitan izanen dira zure ongiak.

2. Ongia egiozu prestuari, eta sari handia atzemanen duzu, eta haren ganik ez balin bada, segurki Jainkoa ganik.

3. Onik ez da alabainan gaizkian jarraikia denarentzat eta amoina egiten ez duenarentzat; zeren-eta Guziz-Gorak gaitzirizkotan baitaduzka bekhatoreak, eta urrikitzen direnei urrikaltzen baita.

4. Emoza bihotz bera duenari, eta ez lagunt bekhatoorea; eta beren saria gaixtaginei eta bekhatoorei bihurtuko diote, asperkundero eguneko-tzat hekiek zaintzen dituenak.

5. Emoza prestuari eta laguntzarik ez egin bekhatoeari.

6. Aphalari egiozu ongia, eta ez eman gaixtaginari; hari ez utz ogirik ematera, haletan zu baino ahdunago izan dadien beldurrez;

7. Gaitzak ezik bikhun aurkhituko ditutzu hari eginen diozkatzun ongi guzietan; zeren-eta Guziz-Gorak gaitzirizkotan baititu bekhatoreak, eta gaixtaginei asperkunde bihurtuko baitiote.

8. Zorionean, adiskidea ez da ezagun; eta zorigaitzean, etsaia ez da gordeko.

9. Gizona zorionean, haren etsaiak ilhunduran; eta haren zorigaitzean, adiskidea da ageri.

10. Behinere zure etsaia baithan sinhesterik ez har; ezen herdoilak kobrea bezala, jaten hari du bere tzartasunak.



11. Eta guzia aphaldua, burua beheiti baloha ere, zaude erne, eta begira zaite haren ganik.

12. Ez bezazu zure aldean ezar, eta ez bedi jar zure eskuinean, beldurrez-eta zure tokira itzulirik, bilha dezan zure jarlekuaren hartzea, eta azkenean ezagut detzatzun ene hitzak, eta loth dakizun ene solasen mina.

13. Nor urrikalduko da sugeak asiki duen xarmatzaileari, eta basabe-reetara hurbiltzen diren guziei? eta hala-hala da gizon gaixtoarekin uztartzen dena, eta haren bekhatuetan birundatua da.

14. Oren bat egonen da zurekin; bainan erortzera egiten baduzu, etzaitu jasanen.

15. Etsaiak ezttasuna derabilka ezpainetan; eta bere bihotzean zilhora zure arthikitzeo asmuak derabilzka.

16. Etsaiak nigarra derabila bere begietan; eta artea atzeman ahal badeza, ezin aseko da zure odolez;

17. Eta asturugaitzik gerthatzen bazaitzu, han lehenbizikorik hura atzemanen duzu.

18. Etsaiak nigarrez derabila begietan, eta laguntza emateko itxuran, lurra zilhatuko darotzu oin-pean.

19. Dardaratuko du burua, esku-zaflaka hariko da, eta asko elhe barraiatuz begitharte aldatuko du.

### XIII. KAP.

1. Bikhea ukituko duenak hartuko du haren khutsua; eta hanpurut-huarekin ihardukiko duenak hanpurustasuna soineratuko du.

2. Bera baino handiagoarekin ihardukitzen duenak karga bat hartzen du bizkarrera. Eta ez izan zu baino aberatsagoaren lagunkhide.

3. Zer ihardukimendu izan dezakete duphinak eta eltzeak? ezen koskatuko direnean, eltzea hautsiko da.

4. Aberatsak bidegabea egin, eta larderiaka dabila; beharra aldiz, bidegabe jasanik, ixil dago.

5. Ematen baduzu, hartuko zaitu; deusere ez duzunean, bazterrerat utziko zaitu.

6. Ontasun balin baduzu, zurekin jarriko da mahainean, eta larrutuko zaitu; eta bera ez da zutaz khexu izanen.

7. Premia bazaizkio, enganatuko zaitu, eta irria hortzetan, irrits emanen darotzu, solas onak emanez, eta erranen darotzu: Zeren beharra duzu?

8. Bere barazkariakin xahutuko zaitu, eta bi edo hirur aldiz ahituko ditu zure ahalak; azkenean zutaz irri eginen du; eta gero ikhusten zaitue-  
nean, utziko zaitu eta burua dardaratuko du zure alderat.

9. Jainkoari apha zakizkio eta zaude haren eskuari iguri.

10. Berautzu enganaturik zorozeria aphaltzetik.

11. Ez apha izan zure zuhurtasunean, beldurrez-eta zorozeria aphaldurik enganatua izan zaitezen.

12. Handiagoak deitzen bazaitu, gibelerat egizu; ezen aria hortaz gehiago deithuko zaitu.

13. Ez izan nabarmen, behaztopa beldurrez; eta ez jar haren ganik urrun, etzaitezen ahantzia geldi.

14. Khidez khide harekin mintzatzen ez bara; sinheterik ez eman haren elhe luzei; ezen bere solas guzien artetik zure haztatzen hariko da; eta irria hortzetan, galdeginen darozkitzu gordeak daduzkatzun gauzak.

15. Haren bihotz gogorak idukiko ditu zure hitzak, eta ez darozkitzu guphidetsiko gaizkia eta burdinak.

16. Goaita zuri! Atxikatzu zure beharriak erne; zeren galtzeko zoria-  
rekin baitzabiltza.

17. Haren solasak aditzean, berriz, ametsetan bezala ikhusatu, eta zaude atzarririk.

18. Zure bizi guzian maitha zazu Jainkoa, eta zure salbamendurako dei egiozu.

19. Abere guziek beren idurikoak maite dituzte; gizon guziek ere orobat berak bezalakoak.

20. Haragia bere idurikoari iratxikitzen da, eta gizona bera bezalako-  
arekin erkhidetzen.

21. Otsoak noizbait iharduk baleza bildotsarekin, orobat gaixtaginak prestuarekin.

22. Zer ihardukimen gizon sainduak duke zakhur batekin? edo zer khidetasun aberatsak beharrek?

23. Basastoa mortuan lehoinaren puska; eta hala-hala beharrak aberatsen bazka.

24. Nola jautsguratasuna hatsgarri baitzaio hanpurutsuari, hala gizon beharra aberatsei zaiote gaitzesgarri.

25. Aberatsa khordokan, gogortzen dute bere adiskideek; aphala, berriz, erortzera dohanean, bere ezagunek berek anbiltzen dute.

26. Aberats enganatuari asko laguntzaile; hanpuruseriak erran badi-  
tu, badu edertzaile.



27. Aphala enganatua da, eta bertzalde gaizkiak entzuten ditu; zuhurki mintzatzen bada, ez dute aditu nahi.
28. Aberatsa mintza, eta guziak ixil, eta haren hitza zeruetaraino altxatzen dute.
29. Beharra mintzatu, eta erraten dute: Nor da hori? eta behaztopatzen bada, anbilduko dute.
30. Ontasunak on dira, kontzientzian bekhatuak ez duenarentzat; behartasuna guziz gaitz den bezala gaixtaginaren ahoan.
31. Bihotzak gizonari aldatzen dio begithartea, edo onerat, edo gaixtorat.
32. Lan izanen duzu eta nekhez khausituko bihotz onaren hatza eta begitharte ona.

#### XIV. KAP.

1. Dohatsu gizona hitzaz bere ahotik erori ez dena, eta bere bekhatuaren erredurak khexatzen ez duena!
2. Dohatsu arimako goibeldurarik ez duena, eta bere pheskizaz gabetua ez dena!
3. Gizon dirukoi eta atxikiak deusetako ez du ontasuna, eta gizon bekhaiztiak zertako du urhea?
4. Bere gogo guziz aberastasun metatzen zuzen-kontra hari direnak bertzeentzat biltzen du, eta bertze bat dostatuko da haren ontasunetan.
5. Bere buruarentzat gaixto dena, bertze norentzat on izanen da? eta ez du bere ontasunetan gozorik hartuko.
6. Deus ez da tzarragorik bere sabelari bekhaizten dena baino, eta hori da haren tzarkeriaren gaztigua.
7. Ongia egiten badu, jakin eta nahi gabe egiten du; eta azkenean agertzen du bere tzartasuna.
8. Bekhaiztiak tzarra du begia; bazterrerat ematen du begithartea, eta arbuizatzen bere arima.
9. Ezin-asezkoa da dirukoiaren begia bere lehia tzarrean; ez da aseko bere arima iharraraziz ahi dezan arteo.
10. Begi gaixtoa gaizkirat dago; jaramana ez da ogiz aseko, baina bere mahainean eskasian eta ilhun egonen da.
11. Ene haurra, zerbaiten jabe bazare, egiozu zure buruari ongi, eta Jainkoari eskaini zazu egokiak.
12. Orhoit zaite herioa ez dela berankor, eta hobirateko erabakia agertua izan zaitzula; ezen mundu hunen erabakia da, heriotzez hilen dela.

13. Hil aitzinean egiozu zure adiskideari ongia, eta zure indarren araber hedatuz, beharrari emozu.
14. Ez khen zure buruari egun oneko gozoak, eta emaitza oneko puskak ez utz galtzera.
15. Ez othe diozkatzute bertzei utziko zure nekhe eta lanen fruituak zortean zathitzera?
16. Eman eta har zazu, eta zure arima saildu zazu.
17. Hil baino lehen egizkitzu saildutasuneko eginkariak, ezik hilen herrian ez da jateko khausitzeko mengoarik.
18. Haragi guziak xirphiltzen dira belharra bezala eta zuhaitz berdean muskiltzen den hostoa iduri.
19. Batzu sortzen eta bertzeak erortzen dira; orobat da haragiaren eta odolaren iraulgia; bat akhaba, bertzea sor.
20. Edozein lan ustelkizun azkenekotz iraungiko da, eta haren egilea harekin goanen da.
21. Egintza ona, ontzat atheratuko da; eta egin duenak hartan izanen du ohore.
22. Dohatsu gizona zuhurtasunean bizitzen dena, eta gogoa bere zuzentasunean alhatzen duena, eta bere baithan orhoitzen dena Jainkoa dagokoela begira!
23. Jainkoaren bideez bere bihotzean ihardukitzen duena, eta haren gauza gordeetan aditzen dena; zuhurtziari jarraitzen dena, hatzen ondolik dihoana iduri, eta haren bideetan gelditzen dena;
24. Haren leihotarik begira, eta atheetan aditzen dagoena;
25. Haren etxearen aldean phausatzen dena; eta haren harrasietan hesaul bat sarthurik, bere etxola haren sahetsean eginen duena; eta hainaren onak behin-bethiko phausuan egonen dira haren etxolan.
26. Bere haurrak ezarriko ditu haren gerizan, eta bere egonen da haren hegalean azpian.
27. Haren gerizaren azpian berotik maldatua izanen da, eta haren ospean phausu hartuko du.

#### XV. KAP.

1. Jainkoaren beldur denak eginen du ongia; eta zuzentasunaren jabe denak aurkhituko du zuhurtzia.
2. Eta bidera hainari ethorriko zaio ama ohoratu bat iduri, eta hura hartuko du neskatxa batek senharra bezala.



3. Biziko eta adimenduko ogiaz haziko du; zuhurtzia salbagarriaren uraz edaranen du; haren baithan gogortuko da, eta hura ez da khordokatu.

4. Eta zuhurtziak atxikiko du, eta hura ez da ahalketara eroriko; eta zuhurtziak altxatuko du bere lagunen baithan.

5. Ahoa baldarnaren erdian idekiko dio; zuhurtziak eta adimenduzko izpirituz betheko du; eta ozpezko soina jauntziko dio.

6. Bozkarioa eta goiheretasuna metatuko ditu haren gainean, eta behereko izen baten ondore egingen du.

7. Gizon zoroek ez dute zuhurtzia atzemanen, eta adimendutakoak bidera goanen zaizko; zoroek ez dute ikhusiko; urrun dago ezen hanpuruskeria eta zimarkhutarik.

8. Gizon gezurtiak ez dira hartaz orhoituko, eta egatiak harekin khausituko dira, eta ongi goanen dira Jainkoaren aitzinera hel ditezen arteo.

9. Bekhatorearen ahoan laudorioa ez da eder;

10. Zeren Jainkoa ganik heldu baita zuhurtzia. Alabainan zuhurtziaren aldean dago Jainkoarentzateko laudorioa, eta nasai izanen da fidel denaren ahoan eta hari ooren nausiak emanen dio.

11. Ez erran: Jainkoaren gatik ez da zuhurtzia enekin; ezen Jainkoak higuin duena zuk ez egin.

12. Ez erran: Jainkoak makhurrazazi nau; ezen gizon tzarrak ez dira harentzat premia.

13. Jainkoak gaitzets du errebelamendu hatsgarria, zeina haren beldur direnentzat ez baita maithagarri izanen.

14. Jainkoak hastapenetik egin izan zuen gizona, eta utzi zuen egite-  
ra iduritzen zitzaioenaren arabera.

15. Bertzalde eman ziozkan lege eta manamenduak.

16. Baldin bethi nahi baduzu egin haren gogarako dena eta manamenduak begiratu, hekiek zainduko zaituzte.

17. Aitzinean ezarri darozkitzut ura eta sua: nahi duzenera heda zazu eskua.

18. Bizia eta herioa, ongia eta gaizkia, gizonaren aitzinean dira; haren gogarako dena mana izanen zaio.

19. Alabainan Jainkoaren zuhurtzia nihonerekoa da, eta ahalez hazkar da, oro geldiarterik gabe ikhusten dituelarik.

20. Jaunaren begiak daude haren beldur direnen gainean, eta ezagutzen ditu gizonaren egintza guziak.

21. Nihori ez dio manatu gaizkiaren egitea, eta nihori ez dio eman bekhatuaren egiteko eskua;

22. Ezen haur fede-ukhatu eta ezdeusetako batzuen osteaz ez da lehiatsu.

## XVI. KAP.

1. Zure haur tzarrak berhatzen badira ere, ez bozkariarik har hekien baithan; atsegirik ez har hekietan, Jainkoaren beldurra hekietan ez bada.

2. Ez izan sinhesterik hekien bizian, eta ez begira hekien lanei.

3. Alabainan bat hobe da Jainkoaren beldur dena, ezenetz mila haur tzar;

4. Eta hobe da haurrik gabe hiltzea, haur tzarrak uztea baino.

5. Gizon umo bakhar batek sortherria betheko du egoiliarrez, mortu egingen dira gaixtaginen eremuak.

6. Ene begiak asko holako ikhusi izan du, eta oraino handiagorik ene beharriak entzun.

7. Gaixtaginen baldarnan khaldatuko da sua, eta jendaki sinhestegabeen khaldatuko da sepha.

8. Beihalako diganteek ez dute beren bekhautentzat othoitz egin; beren indarrean zuten sinheste, eta xahutuak izan dira.

9. Jainkoak ez du guphidetsi izan Lot arrotz zagoen tokia, eta gaitzetsi izan ditu hango egoiliarrak beren solasetako hanpurukeria gatik.

10. Etzaiote urrikaldu; eta, bere bekhatueta hantzen zen jendaia hura oro galdu izan du;

11. Eta hala-hala sei ehun mila oinezko, beren bihotzeko gogortasunean elkharretara bildu zirenak; eta bat, bertzeak bezala burugogor izatu balitz, sendagaila zitakeen bizirik athera balitz;

12. Ezen harekin dira urrikalmendua eta hasarrea; ahaldun da barkatzeko, eta badaki hasarrearen hedatzen.

13. Nolakoa haren urrikalmendua, halakoa haren gaztigua; gizona bere egingen arabera juiatzen du.

14. Gaixtagina bere harrapakerian ez da itzuriko; eta urrikalmendu hartzen duenaren jasankortasunak bere saria ez du berantetsiko.

15. Urrikalpenezko egitate guziek batbederari egingen diote tokia, haren eginkariek merezitu arabera, eta haren erromeriako umatasunaren arabera.

16. Ez erran: Jainkoaki gordeko natzaio, eta zeru gainetik nor orhoituko da nitaz?



17. Populu handi hartan ez naiz ezagutua izanen; ezen erre arima zer da hainbertze kreaturen erdian?

18. Hara non zerua eta zeruetako zerua, eta lezea, eta lurra oro, eta hekietan direnak, ikharan jarriko diren haren aitzinean;

19. Mendi, mendixkak eta lurraren erroak lasturaz khordokatuko dira, Jainkoak begiratuko diotenean.

20. Eta horien guzieren erdian gizonaren bihotza zorotua dago; bainan Jainkoak ezagutzen ditu bihotz guziak.

21. Nor da ordean haren bideak eta gizonaren begiak ezin-ikhusizko phesia ezagutuko dituen?

22. Ezen haren obra hainitz gordeak dira; bainan nork erran haren zuzentasunezko egintzak? edo nork jasan hekiek? Alabainan barzuen ganik urrun da erabakia, eta guzieren ikharpena akhabantzan izanen da.

23. bihotza ttipitzen zaionak ezdeuskeriako gogoetak ditu, eta gizon umotasunik gabeak eta makhurrean dabilanak erhokeriazko gogoetak.

24. Ene haurra, entzun nezazu; ikhasazu zure adimenduaren argitzen, eta ene solasei erne zaude zure bihotzean.

25. Zuzenki emanen darotzut irakhaspena, eta bermatuko naiz zuhurtzia nolakoa den zuri erratera: eta ene solasei zaude zure bihotzean erne; nik izpirituko zuzentasunean erraten darozkitzut Jainkoak, hastetik bere egintzetan ezarri dituen indarrak, eta zintasunean ezagutarazten darotzut haren jakitatea.

26. Jainkoak bere zuhurtzian antolatu ditu hastetik bere obrak, eta egin dituen ordutik berezi ditu hekietako aurkhintzak eta hekien hastapenak zein bere motaren arabera.

27. Esleitu diotzate beren lanak bethikotzat; eta ez dira ez gosetu, ez nekhatu, ez baratu beren lanetarik.

28. Bakhotzak ez du bere aldekoa hertsatuko mendeen mendetaraino.

29. Ez izan Jaunaren hitzari sinhetsgogor.

30. Gero Jainkoak lurrera begiratu du, eta bere onez bethe.

31. Eta abere bizidun guziak ilkhiazi ditu lurraren gainera eta berriz haren beraren barnera bihurtuko dira.

## XVII. KAP.

1. Jainkoak lurretik kreatu du gizona, eta bere idurira egin izan du.  
2. Eta berriz lurretara bihurtarazi du, eta bere arabera indarrak jautzi du.

3. Eman diozka hunenbertzeko egunketa bat eta muga, eta lurrean diren guzieren gainean nausitasuna eman dio.

4. Haren larteria ezarri du haragidun guzieren baithan, eta gizona jarri da abere eta hegastinen nausi.

5. Jainkoak lagun bat kreatu dio bere izatetik bera iduria; eman dioz-kate ezagutza, mihia, begiak, beharriak, bihotza, hekien bidez asmu egiteko; eta adigarriaren argiz bethe ditu.

6. Hekietan kreatu du izpirituaren jakintasuna, hekien bihotza bethe du adimenduz, eta on-gaitzak erakhutsi diozkate.

7. Bere begia ezarri du hekien bihotzen gainean hekiei erakhusteko bere egintzen handitasuna,

8. Orok batean lauda zezaten haren izen saildua, hari ospe bihur bere sendagailez eta goraki aithor haren egintza handiak.

9. Gainerako eman diote bizitzeko moldea eta biziren legeaz premu egin ditu.

10. Hekiekin egin du bethikotzat batasun, eta irakhutsi diozkate zuzenbidea eta bere erabakiak.

11. Eta hekien begiak ikhusi ditu haren ospeko sendagailak, eta hekien beharriek izan dute haren mintzoaren aditzeko ohorea, eta harek erran izan dioete: Berautzue gaizki orotarik.

12. Eta manatu ditu zein bere lagunaren arthaz.

13. Hekien bideak haren aitzinean dira bethi; ez dira haren begiei gordeak.

14. Jendaki bakhotxari buruko ezarri dio hotsemaile bat.

15. Eta Israel egina izan da Jainkoaren zathi ageria.

16. Eta hekien egintza guziak iguzkia bezala Jainkoaren aitzinean dira; eta haren begiak aldaratu gabe hekien bideei begira daude.

17. Hekien tzartasunak ez ditu itzali Jainkoaren legeak, eta haren aitzinean dira hekien tzarkeria guziak.

18. Gizonaren amoina zigilu bat bezala da Jainkoaren baithan, eta gizonak egin ongiaren eskerra zainduko du begi-ninia bezala.

19. Eta azkenean Jainkoa jaikiko da, bakhotxari bere buruaren gainera emanen dio bere saria eta luphera bihurtaraziko ditu gaixtaginak.

20. Bainan urrikitan direnei zabaltzen diote zuzentasuneko bidea; gogortzen ditu ezin ihardukiz khordokan direnak, eta esleitu diote egia haren zathitzat.

21. Bihur zaite jauna gana, eta utzatzu zure bekhatuak.

22. Oithoitz egizu Jaunaren aitzinean eta guti zatzu behaztopabideak.

23. Jauna gana bihur zaite; urrun zaite tzarkerietarik, eta minki gaitzets zazu hatsgarri dena.



24. Ezagut zatzu zuzenbidea eta Jainkoaren erabakiak, zaude ezarria izan zaren bezala eta ez utz Jainko guziz goraren othoiztea.

25. Mende saildiko alderat egizu, bizi direnekin eta Jainkoari aithor ematen diotenekin.

26. Ez egon gaixtaginen makhurretan, hil aitzinean aithor bihur zazu. Deusere ez balitz bezala galtzen da hilen ganikako aithorra.

27. Bizi zarelarik aithor bihur zazu, bizi eta sasual zarelarik bihur zazu, lauda Jainkoa eta ospe bihur haren urrikalpenez.

28. Zeinen diren handiak haren urrikalmendua, eta barkhamendua haren ganat bihurtzen direnentzat

29. Alabainan oro ez ditezke gizonen baithan izan, zeren gizasemea ez baita herioaren garai eta maltzurkeriaren ezdeustasunean lakhet baita.

30. Zer da iguzkia baino argiagorik? eta-bada iraungiko da. Haragiak eta odolak asmatzen dutena baino zer da tzarragorik? eta hura jazarria izanen zaiote.

31. Iguzkiak begiratzen dio zeru goretako indarrari, eta gizona ez da hauts eta lur baizik.

### XVIII. KAP.

1. Egundainotik bizi denak guziak batean kreatu ditu; Jainkoa bakharrrik izaten da zuzentzat ezagutua, eta ezin-garhaituzko errege egonen da bethiren bethi.

2. Nor daite gai haren egintzen errateko?

3. Nork ezen ikharturen ditu harek egin sendagailak?

4. Nork, berriz, ezagutaraziko du haren handitasunaren ahala? edo nor abiatuko da haren urrikalmenduaren erraten?

5. Ez ditazke ez guti, ez berha, ez ardiets Jainkoaren sendagailak.

6. Noiz-ere gizonak akhabatu baituke, orduan hasiko da; eta noiz-ere gelditu baititake, balditua egonen da.

7. Zer da gizona eta zer da haren ahala? zer ongiz, edo zer gaizkiz da gai?

8. Gizonen bizia, luzeena harturik ere, ehun urthetako da; hekien urthe aphurrak bethiko mendearen egunean hartuak dira hala-nola itsa-soko ur-xorta bat, hala nola legar-izpi bat.

9. Horren gatik Jainkoa igurikor da gizonen alderat, eta hekien gainera ixurtzen du bere urrikalmendua.

10. Ikhusten du hekien bihotzen sendokeria gaixtoa dela, eta ezagutzen du hekien izpirituko deboiladura tzarra dela.

11. Hargatik hekien baithan bethetzen du bere urrikalkortasuna eta erakusten diote zuzenaren bidea.

12. Gizonaren urrikalkortasuna, haren lagunaren gainera hedatzen da; Jainkoarena ordean haragi ororen gainera.

13. Harek badu urrikalmendua, irakhasten eta kridantzaten du, halanola artzainak bere arthaldea.

14. Urrikari ditu haren urrikalmenduko irakhaspena hartzen dutenak, eta haren erabakien azpian lehiatuz jartzen direnak.

15. Ene haurra, egiten duzun ongiarekin erantzuna ez nahasteka, eta zerbait ematen duzunean ez eratzik hitz gaixtoen atsekabea.

16. Ihintzak ez othe du berria ematen? hala-hala hitz gozoa emaitza baino hobea da.

17. Solas hura ez othe da eman den onaren garai? bainan bat eta bertzea gizon prestuarekin dira.

18. Zoroak saminki erantzuten du, eta ikhasigabearen emaitzak zitzorrazten ditu begiak.

19. Juiatu baino lehen, zuzentasuna aphain zazu zure baithan; eta mintzatu baino lehen, jakitatea bil zazu.

20. Gaitzak jo baino lehen, sendakariaz zerbitza zaite; juiatu baino lehen, argi zazu zure burua, eta Jainkoaren aitzinean aurkhituko duzu begitharte.

21. Gaitzak jo baino lehen, aphal zazu zure burua, eta eritasuneko orduan erakhutsazu zure bihurpena.

22. Deusek-ere ez bezaitza traba othoitz egitetik bethi, eta ez izan herabe hil arteo zuzenbidean ibiltzeko; zeren Jaunaren sariak bethi guzian iraunen baitu.

23. Othoitzaren aitzinetik aphain zazu zure arima, eta ez izan Jainkoaren frogatzen dabilan gizona iduri.

24. Orhoit zaite azken eguneko hasarreaz eta orduaz zeintan batbederari emanen baitzaio bere bizitzearen araberako saria.

25. Behartasunaz orhoit zaite nasaiziako egunean eta noharroinaren beharrez aberastasuneko egunean.

26. Goizetik arratsera aroa aldatzen da, eta horiek oro tupustean egiten dira Jainkoaren begietan.

27. Gizon zuhurra bethi beldurrean dago, eta bekhatuetako egunean begiratuko da nagitasunetik.

28. Gizon xothilak ezagutzen du zuhurtzia, eta aithor bihurtzen dio hura aurkhitzen duenari.

29. Gizon adimentutakoak beren hitzetan, zuhurki dabilta berak; badute egiaren eta zuzenaren aditza, eta uria bezala ixurtzen dituzte erran-zaharrak eta erabakiak.





30. Ez goan zure zalekerien ondotik, eta bazterrerat egizu zure nahikundetik.

31. Zure arimako lehiak bethetzen badituzu, zure burua eginen duzu zure etsaien bozgarri.

32. Ez izan lakhet osteen erdian, ez-etare bilkhu ttipietan; ezen hutsa ardurakoa da hekietan.

33. Ez eror behartasunera lukurutan mailegatuz, zarpan ez duzunean deusere; ezen hori zure biziak bekhaiz izatea lizate.

### XIX. KAP.

1. Langile edalea ez da aberastuko, eta gauza ttipietan ezaxolatua dena, emeki emeki beharrera eroriko da.

2. Arnoak eta emaztekiek behaztoparazten dituzte zuhurrak eta hobenduntzen adimendutako gizonak.

3. Lilitxoei josten dena zabartuko da; ustelduraren eta haren puska bilhakatuko da; erakhutsia izanen da irakaskari handi bat bezala, eta haren arima khendua izanen da bizidunen liburutik.

4. Sinhesbera dena, bihotz arinekoka da, eta behehituko da; eta bere biziaren kontra bekhatu egiten duena, ergel batentzat idukia izanen da.

5. Tzarkeriak bozten duena, desohoratua izanen da; kridantza higuin duenari laburtuko zaio bizia, eta elheketa higuin duenak ithoko du maltzurkeria.

6. Bere arimaren kontra bekhatu egiten duenari urrikituko zaio; eta maltzurkerian lakhet dena, desohoratua izanen da.

7. Ez errepika hitz gaixto eta gaitzigarria, eta etzaitzu bidegaberik ethorriko.

8. Ez erran barnean duzuna ez adiskideari, ez etsiari; eta balin badu zu hoben zerbait, ez ager;

9. Ezen hainak entzunen eta begiz idukiko zaitu; eta zure hutsaren itsutzeko alegia egiten duelarik, gaitzirizkotan hartuko zaitu, eta hola jazarriko darotzu bethi.

10. Entzun duzu hitz bat zure lagunaren kontra? itho bedi zure baithan, gogoari emanik etzaituela leherraraziko.

11. Aditu elheaz ergela berehala erditzen da, hala-nola haur-minetan emaztekiak intzirak ezin iduk baitetzazke.

12. Gizonaren ixterrean sarthua den gezia nola, zoroaren bihotzean elhea hala.

13. Kridantza zazu zure adiskidea, beldurrez-eta ez duen entzun zer derasaten, eta erran dezan: Ez dut egin; edo egin balin badu, ez dadien bihur berriz egitera.

14. Kridantza zazu zure laguna iratxikitzen dioten elheaz, zeren ez baitu erran beharbada; eta erran badu, ez dezan errepika.

15. Kridantza zazu adiskidea; ezen maiz gerthatzen da hutsa.

16. Ez sinhets elhe guziak; bada mihitik hutsegiten duena, bainan ez arimatik.

17. Nor da alabainan mihitik hutsik egiten ez duena? Kridantza zazu laguna, larderiatu aitzinean.

18. Eta Guziz-Goraren beldurrari emozu bide, zeren Jainkoaren beldurra baita zuhurtzia osoa; eta dauntza zuhurtzia huntan Jainkoaren beldur izatea, eta zuhurtzia osoan legearen bethetzea.

19. Gaizkiaren egiteko jakitatea ez da zuhurtasuna, eta gaixtaginen umotasuna ez da adimendua.

20. Bada tzartasun bat, gaitzespene bere baithan dadukana; eta zoro-keria bada, zeina baita zuhurtzia eskas bat.

21. Gizon zuhurtziaz xume, eta adimenduz eskas dena Jainkoaren beldurrarekin, hobea da ezenetz adimenduz nasai dena eta Guziz-Goraren legea hausten duena.

22. Bada antze bat segura, eta bide gaixtokoa,

23. Eta bada solas zina atheratzen duena egiaz mintzatuz. Bada gizona bere burua maltzurki beheratzen duena, eta zeinaren barnea zimarkuz bethea baita.

24. Bada beheramendu handirekin soberetaraino aphaltzen dena; eta bada begithartea behehitzen duena, eta gauza ezjakinari ez-ikhusiarena egiten dioena.

25. Eta bere kalipu eskasak ez badu bekhatu egitera uzten, eginen du gaizkia, gaizki egiteko artea atzematen badu.

26. Begira ezagun da gizona, eta bekhoz bekhotik ezagutzen da adimenduduna.

27. Gorphutzeko jauntziak, hortzetako irriak, ibiltzeak erakhusten dute zer den gizona.

28. Mokhorren hasarrean bada gezurrezko kridantza bat, eta bada ustekeria bat, zeina ez baita ontzat ezagutua; eta bada gizona ixilik dagoena, eta hura umoa da.



## XX. KAP.

1. Zenbatez ez da hobe kridantzatzea, ezenetz hasarre gelditzea eta debekatzea barkhamendu eskatzetik hutsa aithortzen duena
2. Ebakiaren lehia tzarrak gal balezo neskaxari lorea,
3. Hala-hala egiten du bidegabezko juiamendua gaixtoki bihurtzen duenak.
4. Zein on den urrikiaren erakustea kridantzatua denean! Ezik hola berariazko bekhatuari itzurtzen zare.
5. Bada gizon ixila, zuhur aurkhitua dena; eta bada higuingarria bere elhastre ahalkegabearen ariaz.
6. Bada ixilik dagoena, solaseko aditzarik ez izanez; eta bada ixilik dagoena, jakinez noiz den ordu ona.
7. Zuhurra hein bat egonen da ixilik; ergela ordean eta umogabea ez dira orduari begiratuko.
8. Elhe hainitz derabilanak dainu eginen dio bere arimari, eta zuzenik gabe eskudantzia hartzoilea gaitzirizkotan eroriko da.
9. Legegabeko gizona aitzinaz dihoa gaizkian, eta bere asmuak kal-tetara bihurtzen zaizko.
10. Bada emate bat deusetako ez dena, eta bertze bat bietan sarizta-tuko dena.
11. Bada ospea gatikako beheramendua, eta bada aphaltasunaren bidez goratzen duena burua.
12. Bada asko gauza merke berrerosten duena, eta hekiek zazpitan bihurtzen dituen.
13. Zuhurrak solasean bere burua maithagarri eginen du; aldiz zoro-aren eskerra urmariatuko da.
14. Zoroak emana ez duzu deusetako izanen; ezen haren begiak zaz-pikhunak dira.
15. Gauza guti emanen du eta iroi hainitz eginen; eta haren ahoa ide-kitzea, su-hartze bat da.
16. Hulakoak egun ematen du maileguz, eta bihar galdatzen: higuin-garria da holako gizona.
17. Ergelak ez du izanen adiskiderik, ez-eta haren ongiek eskerrik;
18. Ezen haren ogia jaten dutenek mihi gezurtia dute. Zenbatetan eta zenbatek irriz jokhatuko duten!
19. Ez du alabainan adimendu zuzenarekin ematen iduki behar zukeena, eta orobat iduki behar etzukeena.
20. Mihi gezurtiaren erorikoa da galtzadaren gainera erortzen den gizona iduri; hala-hala gaixtaginak eroriko dira laster.

21. Gizon morrokkoa da khondera alfer bat gizon ikhasigabeen ahoan izaten ohi den bezala.
22. Ergelaren ahotik solas zuhurra ez da ongi hartzen, zeren ez baitu bere orduan erraten.
23. Bada gizona bekhatutik begiratzen dena ahal eskasez, eta phau-suan tirriatuko dena.
24. Bada ahalkearen ariaz bere arima galtzen duena, eta gizon umo-gabe baten gatik galduko du; nor-nor-den begiratzen duelakotz, galduko du bere burua.
25. Bada bere adiskideari ahalkearen ariaz agintzen duena eta hura etsaitzat irabazten du urrurik.
26. Gezurra gizonaren baithan laido itsusia da, eta usu da gizon mak-hurren ahoan.
27. Bethi gezurrez mintzo den gizona baino hobe da ohoina; bainan galpena izanen da bien primantza.
28. Gizon gezurtien bizia ohoregabea da; eta beren ahalkeria, baratu gabe jarraitzen zaio.
29. Zuhurrak bere buruari on ekhartzen dio bere solasez, eta gizon umo-a handien gogarako izanen da.
30. Bere lurra lantzen duenak goratuko du bihi murrua, eta zuzenari bere bidea ematen dioenak bere burua du goratuko; aldiz handien goga-rako denak tzarkeriari ihes eginen dio.
31. Dohain, emaitzek itsutzen dituzte juieen begiak; eta mututzen balira bezala, ahoan bazterrerat demate gaztigua.
32. Zuhurtzia gordea eta ikhusten ez den dirutzea, zertako dira on bata eta bertzea?
33. Bere antzegabetasuna gordetzen duenak gehiago du balio eze-netz bere zuhurtasuna gordetzen duen gizonak.

## XXI. KAP.

1. Ene haurra, egin duzu bekhatu? ez abia berriz; bainan othoitz egizu lehenekoentzat, izan dakizkitzun barkhatuak.
2. Bekhatuari ihes-egiozu sugeari bezala; eta hurbiltzen bazaizkio, harrapatuko zaitu.
3. Haren hortzak dira lehoinaren hortzak iduri; gizonen arimak hiltzen dituzte.
4. Bekhatua da ezpata bi aldeetarik zorroztua; harek egin sakhientzat sendatzerik ez da.



5. Larderia, irainek urmariatuko dituzte ontasunak, eta hanpuruzke-riak urtharaziko du etxerik aberatsena; hola xahutuko da hanpurutsuaren ontasuna.

6. Beharraren ahotikako othoitza Jainkoaren beharrietaraino heldu-ko da, eta justizia ethorriko zaio laster.

7. Kridantza higuin duena bekhatorearen hatzen gainean dabila; eta Jainkoaren beldur dena bere baithan sarthuko da.

8. Botheretsua urrunera ezagun da bere mihi ausartetik, eta zuhurrak badaki haren ganik itzurtzen.

9. Bertzeen gostuz bere etxea egiten duenak iduri du neguan bere harriak biltzen dituenak.

10. Bekhatoreen bilduma da arkola-meta bat bezala; suko garra iza-nen da hekien akhabantza.

11. Bekhatoreen bidea harriz bardindua da, eta buruan ifernua, ilhun-beak eta oinhazeak.

12. Zuzentasuna begiratzin duenak idukiko du haren aditza.

13. Jainkoaren beldurraren azken burua, zuhurtasuna eta adimendua.

14. Ongian zuhur ez dena ez da jakintsun eginen.

15. Bada, berriz, zuhurtzia bat gaizkian nasai dena; eta adimendua ez da uherdura den tokian.

16. Zuhurraren jakitatea da gaindi dohan ura bezala, eta haren erra-nak bizitzeko ithurriak bezala iraunen du.

17. Ergelaren bihotzak iduri du unti hautsi bat, eta zuhurtziarik batere ez du idukiko.

18. Edozein solas zuhur entzun dezan gizon argituak, laudatuko eta bere baithara bilduko du. Atseginzaleak aditzen du; ez du gogarako, eta gibelerat arthikiko du.

19. Ergelaren solastantza da bidean haxe bat bezala; ezen adimendu-tsuaren ezpainetan aurkhitzen da esker ederra.

20. Gurbilaren ahoa da baldarnetan bilhatua, eta gogoan erabiliko dituzte haren hitzak.

21. Nola etxe urratu bat, ergelarentzat hala da zuhurtzia; eta zoroa-ren jakitatea da ezin-erranezko solasketa bat.

22. Irakhasmena da erhoarentzat zangoetan oin-burdinak bezala, esku eskuinean ukharai-burdinak bezala.

23. Ergela, irri egitean karkaraka dago; zuhurrak aldiz doidoia ixilik irri egiten da.

24. Irakhasmena umoarentzat da urhezko edergailu bat, eta esku-muthurreko bat bezala eskuineko besoan.

25. Ergelaren oina errexki sartzen da hauzoaren etxean, eta gizon jakina herabe da botheretsuarentzat.

26. Zoroak etxera leihotik begiratuko du; gizon ikhasia ordean kan-potik egonen da.

27. Gizonaren erhokeria da athetan entzuten egotea, eta gurbilari desohore izanen zaio.

28. Gurbil ez direnen ezpainek erasiko dituzte zorokeriak; bainan umoen solasak balantzetan phisatuak izanen dira.

29. Ergelek ahoan dute bihotza, eta zuhurrek ahoa bihotzean dute.

30. Gaixtaginak madarikatzen duenean debrua, bere burua madari-katzen du.

31. Salhatariak lizunduko du bere arima, eta orotaz hatsiatua izanen da; eta harekin dagoena higuingarri izanen da; gizon ixil eta adimendutsua ohoratua izanen da.

## XXII. KAP.

1. Nagia lohizko harriz izanen da harrikatua, eta guziek arbuioa mintzatuko dira hartaz.

2. Idi-gortzez harrikatuko da nagia; eta hura ukituko duten guziek iharrosiko dute eskua.

3. Seme ikhasigabea izanen da bere aitaren ahalkagarri; alaba, berriz, eginen da haren arbuigarri.

4. Neskatxa gurbila primantza bat izanen da bere senharrarentzat; ezen ahalkagarria dena burhasoaren desohoragarri atheratuko da.

5. Emazteki kopetatuak aita eta senharra ahalketara arthikiko ditu eta gaixtaginen bethe izanen da; aldiz, batak eta bertzeak erdeinatuko dute.

6. Deithorean musika, destenorereko solasa; azotea eta irakhaspena, tenore orotan zuhurtzia.

7. Ergel baten irakhasten hari denak iduri du eltze hautsi osatzen hari dena.

8. Entzuten ez duenari solas ematen duenak iduri du lo gogorretik atzarrarazten hari dena.

9. Zuhurtziak zoroari mintzo denak lo dagoenari solas ematen du; eta solasa akhabatu denean, hunek ihardetsiko du: Nor da hau?

10. Hilaren gainean nigar egizu, ezen iraungi da haren argia; eta zoro-aren gainean egizu nigar, ezen iraungi da haren adimendua.

11. Nigar gutiago egizu hilaren gainean, phausua hartu duelakotz;

12. Alabainan gaixtaginaren bizi tzarra, ergelaren heriotzea baino areagoa da.



13. Zazpi egunetz dirau hilaren deithoarek; ergelarenak ordean eta gaixtaginarenak, hekien bizitzeko egun guziez.
14. Zoroarekin ez hainitz mintza, eta erhoarekin ez ibil.
15. Begira zaitte haren ganik, nahigaberik ez dezazun izan; eta etzare haren bekhatuaz khutsituko.
16. Aldara zaitte haren ganik, eta aurkhituren duzu phausua, eta haren erhotasunetik ez duzu atsekaberik bilduko.
17. Zer da beruna baino dorpheagorik? eta zoroak bertze izenik othe duke zoroa baizik?
18. Jasaiteko errexago dira legarra, gatza eta burdina-mokhorra, eze-netz umogabea, ergela eta gaixtagina.
19. Etxe baten asentuan lothua den zurezko lokharria ez da deslot-huko; hala-hala da bihotz bat kontseiluaren asmuaz gogortua.
20. Adimendutsuaren gogoak ez du nihoiz amor eginen beldurraren gatik.
21. Nola bizkarretan hesaulek eta mortero gabeko harrasiek ez baitute haizearen aitzinean iraunen,
22. Hala-hala ere zoroaren bihotz iziperak bere gogoetetan ez dio beldurraren oldarrari ihardetsiko.
23. Nola bihotz ikharatia ergelaren gogoetetan ez baita nihoiz lotsatzen, hala Jainkoaren manamenduetan dagoena, bethi gogor egonen da.
24. Begia sistatzen duenak nigarra derakhar, eta bihotza sistatzen duenak minberatasuna jauzarazten du.
25. Xoriei harria arthikiko duenak haizatuko ditu; hala-hala adiskideari irain egiten dioenak ere adiskidantza urratzen du.
26. Adiskidearen gainera ezpata athera bazineza ere, ez etsi; bada ezen oraino bihurbide.
27. Zure ahoa gordinki ideki bazinara ere zure adiskideari, ez lotsa; oraino ezen bada antolabide, ez bazare sarthu irain, iroi, eskarnio, gauza gorde salhatze eta sakhi maltzurretan; horiek orok ihes igorriko dute adiskidea.
28. Zaude fidel adiskideari beharrak jotzen duenean, zorion dukeen ere boztea gatik harekin.
29. Fidel zaudezkio atsekabeetako orduan, haren primantzan ere izatekotzat haren primukhide.
30. Labetik suko bafada eta khea garra baino lehen ilkhitzen dira, eta odola baino lehen burho, irain, dixiduak.
31. Ez naiz ahalke izanen adiskideari agur egiteko; ez naiz haren aitzinean gordeko; eta haren eskutik heldu bazait gaizkia, egarriko dut.

32. Adituko duten guziak, beren buruak haren ganik zainduko dituzte.
33. Nork emanen dio ene ahoari zaintzaile bat, eta zigilu segur bat ezarriko ene ezpainen gainean, hekien bidez eror ez nadin, eta ene mihiak ez nezan gal?

### XXIII. KAP.

1. Jauna, ene aita eta ene biziaren nausia, ez nezazula utz ene mihi, ezpainen eraginurara, eta ez benezazu utz hekien bidez erortzera.
2. Nork emanen dio ene gogoari kridantza eta ene bihotzari zuhurtziaren irakhasmena; hekien jakin eskaskerietan ez nezaten guphidets, eta hekien hutsak ez ditezen ager,
3. Eta beldurrez ene jakingabetasunak bera, ene hobenak usu, eta ene bekhatuak murruka ditezen, eta eror nadien ene ixterbegien aitzinean, eta ene etsaia boz dadien ene gainean?
4. Jauna, ene aita, eta ene biziaren Jainkoa, ez nezazula utz hekien gogara.
5. Ez eman niri begietako burgoitasuna, eta zalekeria guziak urrun zatzu ene ganik.
6. Khen zatzu ene ganik sabeldarraiokeria guziak, haragikoikeriako lehiak ez benezate har, eta ez nezazula utz arimako ezaxolakeriari eta ahalkegabetasunari.
7. Haurrak, adi zazue mihiaren irakhaspena, eta hau begiratuko duena ez da ahotik galduko, ez-etare egitate tzarretan behaztopatuko.
8. Bekhatorea bere hutsalkeriatik izanen da harrapatua; eta beren ahoak behaztoparaziko ditu hanpurutsua eta mihi gaixtoa.
9. Zin arthikitzen ohi ez bedi zure ahoa; ezen hartarik dathortzi asko eroriko.
10. Jainkoaz alatzea, berriz, usu izan ez bedi zure ahoan, eta ez erabil sailduen izenak zure solasetan, zeren hortaz ez baitzare garbi izanen;
11. Ezik nola maiz estiran ezartzen den gathibuari ez baitzaizkio ubeldurak goaten; hala orotan zin egiten eta aldatzen han dena ez da bekhatutik xahu izanen.
12. Zin arthikitzen ardura hari den gizona, tzarkeriaz betheko da, eta zauriak ez dira haren etxetik ilkhiko.
13. Hitzaz jaten badu, bekhatua haren gain izanen da; eta ukhatzen badu, bietan egiten du bekhatu.
14. Eta zin alferra egin badu, ez da hobengabetzat atheratuko; ezen zor zaioen sariaz betheko da haren etxea.



15. Bada bertze hizkuntza bat herioaren parrean jartzen dena; hura ez bedi khausi Jakoben primantzan.
16. Alabainan jainkotiarrek halakoak beren ganik urrun khenduko dituzte, eta ez dira bekhatuan ihauskatuko.
17. Hizkuntza makhurrei ohi ez bedi zure ahoa; ezik hekietan bada bekhatu den gauza.
18. Orhoit zaite zure ait-amez; ezen handien artean zare;
19. Beldurrez-eta Jainkoak ahantz zaitzan hekien aitzinean, eta hekiekilako zure trebetasunaz ergeldurik, laido jasan, sorthu ez bazine nahiago izan eta zure sortzeko eguna madarika dezazun.
20. Solas tzarretan ohitua den gizonak, bere bizi guzian ez du mintzatzen ikhasiko.
21. Bi jende-motek dute bekhatua nasai, eta hirugarrenak derakhar hasarrea eta galpena.
22. Khaldan den sua bezalako arima suharra ez da hilen zerbait iretsi arteo.
23. Bere haragiko zalekerietan galdua den gizona ez da baratuko sua bitz dezan arteo.
24. Gizon andrekoari edozein ogi gozo zaio; bekhatu egiten ez da unhatuko azkeneraino.
25. Bere ohetik bertzeenera iragaiten den gizonak arbiuaitzen du bere arima, dioelarik: Nork ikhusten nau?
26. Ilhunbeak inguruan ditut, harrasiek itzaltzen naute, eta nihork ez darot begiratzen: noren izanen naiz beldur? Guziz-Gora ez da ene bekhatuez orhoituko.
27. Eta Jainkoaren begiak oro ikhusten dituela ez du ezagutzen, zeren horrelako gizon-beldurrak eta gizonen hekien beldurrak khentzen baitiote Jainkoaren larderia.
28. Ez du ezagutzen Jainkoaren begiak hainitzez argiagoak direla iguzkia baino, inguruka begira daudezela gizonen bide guziei, ondar-lezeei eta gizonen bihotzetako zokho gordeenei.
29. Alabainan Jainko Jaunaz ezagutuak ziren oro, krea zetzan aitzinean, eta egin dituen ondoan orobat ikhusten ditu guziak.
30. Baina hiriko plazetan izanen da gaztigatua, eta zaldinoa bezala ihes igorria, eta gutien ustean atzema.
31. Eta guzientzat laidagarri izanen da, zeren ez duen ezagutu Jainkoaren beldurra.
32. Orobat izanen da bere senharra uzten duen emaztekoa, eta ber-tzeen ganikako ondorea ematen duena;

33. Ezen lehenbizikorik ez da Guziz-Goraren legean sinhesdun izan; bigarrenekorik bere senharraren aldera bekhatu egin du; hirugarrenekorik bertzeekin khutsatu da, eta bertze gizon baten ganik izatu ditu haurrak.

34. Eta atheratuko dute baldarnaren aitzinera eta bilhatzeak eginen dira haren haurren gainean.

35. Errorik ez dute atheratuko haren haurrek, eta fruiturik ez dute emanen haren adarrek.

36. Madarizionetan utziko du bere orhoitzapena, eta ez da haren laidoa ezeztaturen.

37. Eta gelditu direnek ezagutuko dute deusere ez dela hoberik Jainkoaren beldurra baino, deusere gozoagorik Jaunaren manamenduei begiratzea baino.

38. Ospe handia da Jaunari jarraitzea; ezen haren ganik dathor biziaren luzetasuna.

#### XXIV. KAP.

1. Zuhurtzak bere burua du laudaturen, eta harturen du Jainkoa bait-han ohore, eta bere populuaren erdian ospe.

2. Guziz-Goraren bilkhuan idekiko du ahoa, eta haren armadaren aitzinera ilkhiren da ospetan.

3. Izanen da bere populuaren erdian goretsia, eta sainduen baldarnan ederretsia.

4. Laudorio izanen du hautetsien ostean, eta benedikatua izanen da benedikatuak direnen erdian, dioelarik:

5. Ni Guziz-Goraren ahotik ilkhi naiz, kreatura guziak baino lehen sorthua.

6. Nik sortharazi dut zeruetan argi bat ezin-iraungizkoa, eta inguratu dut lur guzia lanbro batez bezala.

7. Hergoretan dut ene egoitza eta hedoiezko habean ene tronua.

8. Egin dut neronek zeruko ingurua, sarthu izan naiz ondar-lezeetan, ibili naiz itsasoko uhinen gainean.

9. Jarri izan naiz lurreko toki guzietan, eta populu guzien erdian,

10. Eta buruzagitasuna izatu dut jendaki orotan.

11. Ene indarrak oin-pean ibili ditut handi-ttipi guzien bihotzak; eta horietan orotan bilhatu dut phausa-lekhu bat, eta Jaunaren primantzan egin dut ene egoitza.

12. Orduan ororen kreatzaileak manatu nau eta mintzatu zait; eta ene tabernaklean phausatu da ni kreatu nauena;



13. Eta erran izan darot: Jakoben baithan egizu zure egoitza, Israel izan bedi zure primantza, eta ene hautetsien baithan arthikatzu erroak.

14. Hastapenetik eta mendeak baino lehen izan naiz kreatua, mende orotan izanen naiz, eta egoitza sailduan Jaunaren aitzinean haritu naiz ene eginbideetan.

15. Eta horreletan finkatua izan naiz Sionen, eta halaber aurkhitu dut hiri sailduetsian ene phausua, eta Jerusalem da ene boherea.

16. Eta erroak egin ditut populu ohoratuan, eta haren primantza ene Jainkoaren primantzan da, eta ene egoitza saildu guzien baldarnan.

17. Altxatu naiz zedroa Liban gainean eta ziprea Siongo mendian bezala;

18. Altxatu naiz palmondoak Kadesen eta arrosak Jerikon bezala;

19. Altxatu naiz olibondo ederra bazterretan eta albo bide-sahetsean ur-hegian bezala.

20. Usaina eman dut hala-nola zinamomak eta baltsamu urrundunak; usainik gozoena erran dut mirra hautak bezala.

21. Usaintzatu dut ene egoitza hala-nola estoraksak, galbanoak, onizak, aloesak eta isentsu sistatugabeak, eta ene usaina nahastekatua ez den baltsamuarena bezalakoa da.

22. Tirrimintin-ondoak bezala hedatu ditut ene adarrak, eta ene adarrak ohorezko eta eskerrezko gandoak dira.

23. Mahats-ondoak bezala eman dut usain gozoa, eta ene loreak ohorezko eta aberastasuneko fruituak dira.

24. Maithakunde ederraren, beldurraren, ezagutzaren eta igurikitza sailduaren ama naiz ni.

25. Ene baithan da bidearen eta egiaren esker guzia; ene baithan biziaren eta berthutearen igurikitza guzia.

26. Zatozte ene gana, ene lehia duzuen guziak, eta bethe zaitzte ene ganikako fruituez;

27. Ezen ene izpiritua gozoa da eztiaren garai, eta ene primantza gozoa da ezti eta breskaren gainetik.

28. Ene orhoitzapena helduko da mendeetako gizaldietara.

29. Ni jaten nautenak, gose izanen dira oraino; eta edaten nautenak, oraino egarri.

30. Ni entzuten nauena ez da ahalketan eroriko, eta ene eragindurarekin lanean hari direnek ez dute bekhaturik eginen.

31. Ni argitara atheratzen nautenek izanen dute bethiereko bizia.

32. Hau guzia da bizitzeko liburua, Guzi-Gorarekilako batasuna eta egiaren ezagutza.

33. Moisek ekharri du legea zuzentasuneko manamenduekin, Jakoben etxeari primantza hitzematen eta Israeli agintzak egiten diozkana.

34. Jainkoak Dabid bere zerbitzariari agindu dio haren ganik ilkhia-raziko duela errege guziz boheretsua, eta ohorezko tronuan bethi guzian jarria izanen dena.

35. Harek hedatzen du zuhurtzia, hala-nola Phisona gaindi baitoha, hala-nola Tigrisa fruitu berrien aroan;

36. Harek hedatzen du adimendua, hala-nola Ufratak gaindi egiten baitu; hura hedatzen da, Jordanea uztaroan bezala;

37. Harek igortzen du irakhaspena argia bezala, eta agertzen da Jehona mahats-biltzetako tenorean bezala.

38. Harek lehenbizikorik osoki ezagutu du zuhurtzia, eta hebainogak ez du barrenduren.

39. Alabainan haren gogoeta hedatzen da itsasoa baino urrunago, eta haren asmua jausten lezea baino beherago.

40. Nik, zuhurtziak, ixuri ditut hibaik;

41. Ni parabisutik ilkhi naiz, uhar gaitz baten bidea hibaitik bezala, hibaiaren erreka bezala, ixtuna bezala.

42. Erran dut: Hezatuko dut landareetako ene baratzea, eta aseko dut ene sorhoko belharra.

43. Eta huna non ene erreka handitu den eta ene hibaia itsasoa iduri egin den;

44. Zeren ene irakhaspena guzien gainera argiaraziren baitut, hala-nola goizeko argia, eta hura hedatuko dut urruneraino.

45. Sarhuko naiz lurraren barnealde guzietara, begiz joko ditut lo daudezen guziak, eta argituren ditut Jaunaren baithan beren igurikitza dadukaten guziak.

46. Hedaturen dut oraino profetia bezalako irakhaspen bat; hura utziren diotet zuhurtasuna bilhatzen dutenei, eta hekien iraulgietarik ez naiz baraturen mende saildua arteo.

47. Iklusazue ez naizela enetzat bakharrik lanean haritu, bainan-bai egia bilhatzen duten guzientzat.

## XXV. KAP.

1. Ene gogoak lakheta du hirur gauzetan, zeinak Jainkoaren eta gizonen aitzinean onhetsiak baitira:

2. Anaien arteko bihotz-batasuna, hurbilekoen amodioa, eta senhar-emazte elkharren artean ongi heldu direnak.



3. Hirur mota dira ene arimak higuin dituenak; eta hainitz dorphe zaizkit hekien biziak:
4. Erromes hanpurutsua, aberats gezurtia eta gizon-zahar ergel eta zoroa.
5. Gaztean bildu ez duzuna, nola aurkhituren duzu zahartzean?
6. Zein eder den ile zurietan adimendua, eta zaharretan umotasunaren ezagutza!
7. Zuhurtzia zeinen den eder adin handitakoetan, ezagutza eta argitasuna handi-mandietan!
8. Zaharren khoroa da jakitate handia; eta hekien ospea, Jainkoaren beldurra.
9. Bederatzi gauza handietsi ditut bihotza nabarmentzen ez dutenak, eta hamargarrena ahal bezain ongi erranen daroet gizonei.
10. Gizon bat bere haurretan bere gozoa aurkhitzen duena, eta bizi delarik bere etsaiak xahutuak ikhusten dituen.
11. Dohatsu gizona emazte adimendutakoarekin bizi dena, bere mihiaz erori ez dena, eta beraren dina ez direnen azpiko ez dena!
12. Dohatsu haina, zeinak egiazko adiskide bat atzeman baitu eta zuzenbidea aiphatzen baitio entzuten duen beharri bati!
13. Zein den handi zuhurtzia eta jakitate aurkhitu dituen! Bainan Jaunaren beldur dena baino handiagorik ez da.
14. Jaunaren beldurra oren gainean jarria da.
15. Dohatsu gizona, zeinari emana baitzaio Jainkoaren beldurra iza-tea! Hura duena nori erkha daiteke?
16. Jainkoaren beldurra da haren amodioaren hastapena; sinhastearen hastapena, berriz, eratziki behar zaio.
17. Zauririk handiena da bihotzeko ilhundura eta gaitzik handiena, emaztekiaren axtakeria.
18. Jasankizunago da edozein zauri, bihotzeko zauria baino;
19. Edozein tzartasun, emaztekiarena baino;
20. Edozein atsekabe, gaitzesleen ganikakoa baino;
21. Edozein aspertze, etsaien ganikakoa baino.
22. Ez da buru gaixtorik sugearena gaihentzen duenik;
23. Eta ez da sepharik emazteki onena garaitzen duenik. Lakhetago izanen da lehoin, erainsugeekin egotea, ezenetz emazte gaixtoarekin egotea.
24. Gaixtakeriak emaztekiari bihurrikatzen dio begitharte guzia; ilhuntsen dio ahurpegia hartzarena iduri, eta zurdatz bat bezala agerrazten du.

25. Haren senharrak bere kuintak egiten ditu bere ahaideetan; eta aditzean, ixilttorik dago hasbeherapenez.
26. Edozein gaixtakeria ezta da emaztekiaren gaixtakeriaren aldean; beren pharte eror bekiote bekhatoeei.
27. Nola patar legartsu bat zaharraren oinentzat, hala emazte mokokaria bakezko gizonarentzat.
28. Ez begira emaztekiaren ederrari, eta emaztekiaz ez gutizia ederra delakoan.
29. Emaztekiaren sepha, ozartasuna eta ahalkegabekeria handiak dira.
30. Emazteak balin badu nausitasuna, izkinaka dago bethi bere senharrari.
31. Emazte gaixtoa da bihotz zaphagarri, begitharte ilhungarri eta bihotzeko zauri.
32. Bere senharrari gozorik ematen ez dioen emaztea da haren eskuen herbalgarri eta belhaunen hebaingarri.
33. Emaztekiaren ganik ethorri da bekhatuaren hastapena, eta harek hilarazten gaitu oro.
34. Ez eman urari biderik den ttipiena ere; ez-eta emazte gaixtoari ilkhitzeko eskurik.
35. Ez badabila zure eskupean, ahalkea emanen darotzu zure etsaien aitzinean.
36. Berez zazu zure ganik, ez dadientzat bethi zutaz gaizki balia.

## XXVI. KAP.

1. Dohatsu emazte onaren senharra! Ezen bikhunduko da haren urt-heen nonbrea.
2. Senharraren gozoa da emazte indarduna, eta haren bizitzeko urt-heak bakean iraganaziren ditu.
3. Emazte ona, zathi ona; Jainkoaren beldur direnen zathitzat gizonari emana izanen zaio bere egintza onen sari.
4. Izan ditezen aberats edo behar, bihotza on izanen dute, eta noiz-nahi hekien begitharteak goihere izanen dira.
5. Hirur gauzen beldur izan da ene bihotza, eta laugarrenekoan harritu da ene begitharte:
6. Hiri baten gaitzirizkoa, populu baten jauzte,
7. Eta gezurrezko eratzikimendua, oro heriotzea baino latzagoak direnak;
8. Bainan emazte bekhaitzia da bihotzeko oinhaze eta atsekabea.



9. Emazte bekhaiztiaren mihia azote bat da, orori bere arranguren egiten hari dena.
10. Idi-uztarri khordokaria nolako, emazte gaixtoa ere halako; hura dadukanak iduri du harrobiari lothu dena.
11. Emazte hordikoia, hasarre eta laido bidea da, eta haren itsuseria ez da gordeko.
12. Emaztekiaren barriadura ezagutuko da haren begietako harrotasunetik eta bekhurundetik.
13. Bera gibelatzen ez den alaba zain zazu ongi, beldurrez-eta balia dadien atzeman arguinaz.
14. Zaude erne haren begietako harrokeriari, eta ez harri zutaz axolarik ez badu.
15. Bidaiari egarrituak bezala, ithurriari idekiko dio ahoa; edanen du hurbileko ur guzietarik; phaldo guzien aldean jarriko da, eta gezi guziei idekiko diote bere gezi-untzia, leher egin dezan arteo.
16. Emazte xintaren eskerra izanen da haren senharraren gozoa, eta gorituko ditu haren hezurak.
17. Emaztekitasuna Jainkoaren dohain bat da.
18. Emazteki adimendutsu eta ixilak, parerik ez du holako jende ongi ikhasiak.
19. Emazte saindu eta garbia grazia bat da, grazia guzien gainekoa.
20. Ez da, berriz, diru-munthoinik arima xahuaren aldean ezartzekorik.
21. Nola baita munduarentzat Jainkoaren hergoretan jaikitzen iguzkia, hala emazte onaren begithartea da bere etxearen berregingarri.
22. Kriseluak gandereilu sainduan bezala, argitzen du begitharteko goiheretasunak adin onean.
23. Urrezko habeak zilharrezko oinen gainean bezala, gothor dago emazte bizitorea bere oinen gainean.
24. Asentuak harri sendoaren gainean bethikotzat diren bezala, Jainkoaren manamenduak hala daude emazte sainduaren bihotzean.
25. Bi gauzek eman diote ene bihotzari atsekabe, eta hirugarrenean jauzi zait sumindura:
26. Gizon gerlari, beharrez iraungitzen dena, gizon zuhur arbuiatua,
27. Eta zuzenbidetik makhurrera iragaiten dena: hau ezpataren ahoarentzat berezi du Jainkoak.
28. Bi gauza agertu zaizkit galmentatsu eta gaitz: tratularia nekhez gabetuko da legearen alderako ezaxolakeriaz; eta ostalera ez da ezpainen bekhatuetarik garbi egonen.

## XXVII. KAP.

1. Behartasunaren gatik asko egin dira hobendun, eta aberastea bilhatzen duenak legetik baztertzen ditu begiak.
2. Nola ziri bat sartzen baita harri arteka baten erdian, hala bekhatua tinkatua dago sal-erosgoen artean.
3. Hobena hobendunarekin izanen da xahutua.
4. Baldin ez bazare Jainkoaren beldurrari hazkarki lothua egoten, laster izanen da zure etxea eragotzia.
5. Nola bahea higituz herrautsa geldituko baita, hala duda-mudak gizonaren gogoetetan.
6. Labeak frogatzen ditu baxeragilearen untziak, eta hesturaren frogapenak gizon zuzenak.
7. Nola zuhaitzari eman lana agertzen baita haren fruitutik, hala gizonaren bihotzeko asmuak haren solasetarik.
8. Ez lauda gizona mintzatu den baino lehen, ezik solasa da gizonen frogabidea.
9. Zuzenbideari bazarraizkio, aurkhituren duzu; ohorezko soin bat bezala jauntziko duzu; harekin egonen zare; gerizaturen zaitu bethi; eta oro agertuak izanen diren egunean laguntza segur bat aurkhituren duzu.
10. Xoriak beren idurikoetara biltzen dira, eta egia bihurtzen da hartazko eginkariak derabilzkatenetara.
11. Nola lehoina bethi zelatan baitago ihiziari, hala bekhatuak tzarkeria egileei.
12. Gizon saindua prestutasunean badago iguzkia bere batean bezala; zoroa, berriz, ilhargia bezala da aldatzen.
13. Zoroen artean, bertze aldi bateko idukazu solasa; aldiz, gogoeta umoak dituztenetara izan zaite jarraikia.
14. Bekhatu-egileen solasa higuingarria da, eta bekhatuko gozoetan dituzte beren dostetak.
15. Solas burhokariak, buruan xutiaraziko ditu ileak; eta haren izigarritasunak gortuko ditu beharriak.
16. Odol-ixurtzea hanpurutsuen aharran khaustzen da, eta hekien madarizioneak adigaitz dira beharientzat.
17. Adiskide baten segretuak salhatzea dituena sinhestean galtzen da, eta ez du atzemanen bere bihotzeko adiskiderik.
18. Maitha zazu laguna eta zinki zaudezkio eratzikia.
19. Baldin gordeak daduzkanak salhatzen badituztu, gehiago ez goan haren ondotik;





20. Ezen nola den bere adiskidea hil duena, hala-hala ere da bere lagunaren, adiskidetasuna hautsi duena;

21. Eta nola egin duen eskutik xoria utzi duenak, hala utzi duzu zure laguna, eta ez duzu gehiago eskuratuko.

22. Ez goan haren ondotik, zeren jadanik urrun baita; ihes goan da orkhatza saretik bezala, zeren zaurthua baitu bihotza:

23. Ezin bilduko duzu gehiago. Gaizki mintzatu denarentzat bada bakebide:

24. Bainan adiskidearen segretuen salhatzea, arima dohakabearen etsia da.

25. Begiz lausengatzen duenak tzarkeria derabilka gogoan, eta nihork ez du hastanduko.

26. Zure aitzinean legunduko du ahoa, eta ederretsiko ditu zure solasak: bainan azkenean aldatuko du bere mintzaia eta zure erorrarazteko bidea bilhatuko du zure solasetan.

27. Hastio izan ditut asko gauza, eta batere haren bardin; Jainkoak ere hastio izanen du.

28. Harria goiti arthikitzen duenari burura eroriko zaio; sakhi maltzurak, maltzuraren zauriak urratuko ditu.

29. Zilhoa egiten duena, hartara eroriko da; harria bere lagunari bidean ezarriko dioena, hartan behaztopatuko da, eta bertzeei sarea hedatuko diotena, bera hartan galduko da.

30. Asmu tzarra egin duenari, hura eroriko zaio gainera, eta ez du ezagutuko nondik heldu zaioen.

31. Trufa, irainak hanpurutsuentzat, eta asperkundera halakoari zelatan egonen zaio lehoina bezala,

32. Artean galduko dira prestuen erorikoaz bozkario dutenak; aldiz, oinhazeak ahituko ditu hil ditezen baino lehen.

33. Sepha eta hasarrea, biak dira hatsgarri, eta bekhatoreak bere baitan idukiko ditu bethi.

### XXVIII. KAP.

1. Aspertu nahi denak Jauna ganik asperkunde atzemanen du, eta Jaunak ez ditu ezeztatzeraz utziko haren bekhatuak.

2. Barkha diozozu bidegabe egin darotzun lagunari; eta orduan, othoit egiten duzularik, barkhatuko zaizkitzu zure bekhatuak.

3. Gizonak gizonari idukitzen dio sepha, eta Jainkoari sendakari eskez dago!

4. Bere iduriko gizon batentzat urrikalmendurik ez du, eta bere bekhatuentzat barkhamendu eskatzen du!

5. Bera haragi baizen ez delarik, idukitzen du sepha, eta Jainkoa ganik begiharte galdatzen du! Nork haren hobentzat eginen du errekei?

6. Orhoit bekizu zure azken ordua, eta etsaigotarik bara zaite;

7. Ezen usteldura eta heriotzea burura dagozkote Jainkoaren manamenduak hausten dituztenei.

8. Orhoit Jainkoaren beldurraz, eta sepharik ez har lagunaren alderat.

9. Orhoit Guziz-Gorarekilako batasunaz, eta ez begira lagunaren hutsari.

10. Begira zaite aharretarik eta gutituko dituzu zure bekhatuak;

11. Alabainan gizon jauzkorak bizten ditu aharrak; bekhatoreak nahastura ezarriren du adiskideen artean, eta etsaigoak arthikiren bakea dutenen erdira.

12. Oihanean den egurraren arabera suak egiten du; eta gizonaren ahalen arabera izanen da haren hasarredura, eta bere izantzen arabera goitiaziko du bere hasarrea.

13. Eskatimarako laburtasunak bizten du sua, khimerarakoak ixurtzen du odola, eta mihi dixidiariak dakhar heriotzea.

14. Phindarrari haize ematen badiozu, sua bezala khaldaturen da; eta thu egiten badiozu, hilen da; biak ahotik dathortzi.

15. Salhataria eta bi aldetara mintzo dena madarikatuak izanen dira, zeren asko makhurtuko dituzten bakea zutenak.

16. Artera sartzen den mihiak asko nahasi eta jendakitik jendakira barraiatu ditu.

17. Herrautsi ditu aberatsen hiri harrasiztatuak, eta eragotzi handien etxeak.

18. Populuen indarrak hautsi eta jendaia hazkarrak xahutu ditu.

19. Artera sartzen den mihiak irazi ditu emazteki sendoak eta beren lanetikako onez gabetu ditu.

20. Hari begiratzen denak ez du deskantsurik izanen ez-eta adiskide bat zeinaren gainean phausa baititake.

21. Azote-ukhaldiak egiten du ubeldura bat; bainan mihi-ukhaldiak erretzen ditu hezurak.

22. Asko ezpatatik hil izan dira, bainan ez hainbertze nola beren mihitik hil direnak.

23. Dohatsu haina, zeina mihi gaixtotik maldatua baita, eta zeinaren gainera ez baita iragan haren hisia! Zeinak ez baitu bere gainera bildu haren uztarria; zeina ez baita haren gatheetan lothua;



24. Ezen haren uztarria, burdinazko uztarria da; eta haren gathea, kobrezko gathea.

25. Haren ganikako heriotzea, heriotze guziz latza da, eta hura baino hobia hobe lizate.

26. Haren iraupena ez da iraunkor izanen; bainan gaixtaginen bidez nausituko da, eta bere garrean ezin erreko ditu prestuak.

27. Jainkoa bazterrerat uzten dutenak, mihi haren azpira eroriko dira. Hekien baithan khaldaturen da, eta ez da iraungiko; hekien gainera igorria izanen da lehoina iduri, eta xehakaturen ditu lehoinabarrak bezala.

28. Elhorriz hertsazu zure beharria; ez entzun mihi gaixtoa, eta zure ahoari egiozkitzu athe-zerrapoak.

29. Urth zatzu zure urhe-zilharrak; egizu zure solasentzat balantza bat eta muthurreko on bat zure ahoarentzat.

30. Erne zaude lerraraz etzaitzan zure mihiak, eta etzaitzen eror zelatan dagozkitzun etsaien aitzinean, eta zure erorikoa izan ez dadien ezin-sendatuzkoa heriotzeraino.

### XXIX. KAP.

1. Guphidesten duenak, bere lagunari maileguz irabazitara dema; eta emateko eskuaz baliatzen denak, manamenduak begiratzen ditu.

2. Zure lagunari bere behar orduan maileguz emozu, eta lagunari mailegatua bere mugan bihur diozozu.

3. Idukazu zure hitza; fintasunean ibil zaite harekin, eta behar duzuna aurkhituren duzu bethi.

4. Askok aurkhitu gauzarentzat dadukate mailegua; eta nahigabe ematen daroete beren laguntzaileei.

5. Gauza izan arteo, musuka hari dira emailearen eskuari, eta mintzoa aphaltzen dute beren agintzen egiteko.

6. Eta bihurtzeko orduan ephe galdez daude; khexuzko eta arrangu-razko solasak dituzte eta denbora hartzen dute aitzakiatzat.

7. Aldiz balin badute bihurtzeko ahala, gibelerat egonen dira, doidoia bihurturen dute diruaren erdia, eta nahi dute hari begira diozon hartzeduruak diru aurkhitu bati bezala.

8. Bertzela bada, galaraziko diote bere dirua eta ariarik gabe hura etsai eginen dute.

9. Laidoak eta hitz gaixtoak bihurtuko diozkate, eta iraina itzuliko diote harek egin ohore eta ongaiaren ordain.

10. Askok ez dute maileguz ematen, ez gaixtoz, bainan txarki engatunak izan beldurrez.

11. Guzia gatik bihotzoikiago egizu beharraren alderat, eta ez biozozu berantetsaraz zure laguntza.

12. Manamenduaren gatik laguntza egiozu beharrari; eta haren buluztasuna gatik, ez igor hutsik.

13. Gal zazu zure dirua zure anaia eta zure adiskidea gatik, eta ez bezazu zure galgarri harri baten azpian gorde.

14. Zure khutxaz egizu Guziz-Goraren manamenduen arabera, eta urhea baino gehiago baliaturen zaitzu.

15. Beharraren bihotzean hertsazu amoina, eta hunek othoitz eginen du gaitz orotarik zure begitatzeko.

16, 17, 18. Indardunaren erredolak baino, eta lantzak baino gogorkiagok gudukaturen du zure etsaia.

19. Gizon onak bere lagunarentzat ihardesten du, eta ahalkea galdua duenak uzten bere buru.

20. Ez ahantz bermeak egin ongia; ezen bere bizia ezarri du zurearen bahi.

21. Bekhatorea eta lohia hekientzat ihardetsi duenaren ihes dabilta.

22. Bekhatoreak bere daduzka harentzat ihardetsi duenaren ontasunak; eta den eskergabea, bazterrerat utziko du egitekotarik atheratu duena.

23. Gizon batek ihardesten du bere lagunarentzat, eta hunek, ahalkea galdu dukeenean, bazterrerat utziko du.

24. Bermego gaizki atheratuak asko galdu ditu ongi zihoazenak, eta erabili ditu itsasoko uhinak bezala.

25. Itzulika erabili ondoan desterratu ditu indar handitako ziren gizonak, eta jendaia atzetan ibildaun izan dira.

26. Bekhatore Jaunaren legearen hauslea, bermego txarretara eroriko da; eta asko egiteko egin beharrez dabilana, juiamendutara eroriko da.

27. Xuxen zazu zure laguna zure ahalaaren arabera, eta begira zeroni eror etzaitzen.

28. Gizonak bizitzen hasteko behar ditu ura, ogia, soinekoak eta etxe bat ahalkearen gerizatzeke.

29. Beharraren jana oholezko hegaztegiaren azpian hobe da, ezenetz barazkari ederrena bertzeen etxean norat bil ez duen gizonarentzat.

30. Hainitzen orde gutia zure gogarako izan bedi, eta lekhu arrotzeko iroia ez duzu adituren.

31. Bizi txarra da etxez etxe ostatatzea; eta ostatatzen den tokian gizonak ez du gogoa zabalik deus egiten ez-eta ahoa idekitzen.



32. Eskergabe zenbait bertze orduz ostatatu dituzke, jatera eta edatera eman izan diokete, eta gero solas khiretsak adituko ditu.

33. Zoaz, ostatatzailea, aphain zazu mahaina, eta duzunetik emozute bertzei jatera.

34. Ilkhi zait, ene adiskideei ongi-ethorria egitera uzteko; ene etxea beharra ethorri zait ene anaiaren ostatatzeke.

35. Adimendua duen gizonari bi gauza haukiek zaizko gogor: Ostatatzailearen erantzuna, eta maileguz eman duenaren iroia.

### XXX. KAP.

1. Bere semea maite duenak, azotea jarraikarazten dio, bozkario iza-tekotzat bere azken egunetan, eta hauzoko atheen jotzera ez goateko.

2. Bere semea irakhasten duenak hartan khausituren du bere laudorioa, hartan aurkhituren du bere ospea bere etxekoen erdian.

3. Bere semea irakhasten duenak, bekhaizgo ematen dio ixterbegiari, eta hartaz izanen du ospe bere adiskideen artean.

4. Aita hil da, eta hil ez balitz bezala da; ezen bera bezalako bat utzi du bere ondotik.

5. Bere bizian ikhusi du, eta hartan bozkariatu da; hiltzean ez du atsekaberik izan, eta bere etsaien aitzinean ez da ahalkatu.

6. Utzi izan du alabainan, etxea etsaietarik zainduko duen bat eta adiskideei alfer bihurturen diotena.

7. Haurren arimen maitez lothuren diozkate beren zauriak, eta oihu batek asalдутan emanen du haren barnea.

8. Zaldi hezigabea moldagaitzik itzurtzen da, eta haur bere burutara utzia bihurri dabila.

9. Maina zazu semea, eta larderiaturko zaitu; josta zait harekin, eta atsekabe emanen darotzu.

10. Harekin irriz ez hari, min izan dezazun beldurrez, eta azkenekotz zure hortzak hoskin ditezen beldurrez.

11. Gaztean hari ez eman nausitasunik, eta ez egon haren gogoetegi begiratu gabe.

12. Gaztean malguaraz diozozu burua, eta haur deno zafra diozozu sakhsatsak, beldurrez-eta gogor dadien, etzaitzan gehiago sinhets, eta izan dadien zure bihotzaren erdiragarri.

13. Irakhats zazu zure semea, egizu haren gizontzera, etzaitzen gero haren laidoaren gainean behaztopa.

14. Noharoin sasual eta indarrez hazkar dena hobe da, ezenetz aberats herbal eta gaitzak ehoa.

15. Zuzenbidearen saildutasunean arimaren sasualtasuna hobe da, urhe eta zilhar guziak baino; gorphutz bizkorra ere nihonereko ontasuntzeak baino.

16. Ez da ontasunik gorphutzeko sasualtasunaren gainekorik, ez-eta gozorik bihotzeko goiheretasuna baino goragokorik.

17. Heriotzea hobe da, ezenetz bizitze uherra; eta bethiereko phausua, ezenetz erkhidura irautiarra.

18. Ontasun aho hertsian gordeak direnek iduri dute hobi baten inguruan hedatua den barazkariko jatekoak.

19. Idolak zertako ditu libazioneak? ezen ez du ez janen, ez usaindaturen.

20. Hala-hala da Jaunak irazten duena, bere tzarkeriaren gana bizkarrerean,

21. Begiz ikhusi eta auhen arthikiz, hala-nola ebaki bat, neskatxa besarkatzen duena eta hasbeherapenka egoten.

22. Ilhundurarik ez eman zure arimari; zure gogoan hiradurarik ez eman zure buruari.

23. Bihotzeko gozoa, hura da gizonaren bizia, eta saildutasunaren bildegi ezin-hustuzkoa; eta gizonarentzat goiheretasuna bizitze luzea da.

24. Zure arimari urrikal zakizkio Jainkoaren gogara eginez, eta zaude zure buruaz nausi; zure bihotza Jainkoaren saildutasunera bil zazu eta zure ganik urrun haiza zazu goibeldura;

25. Alabainan goibeldurak hil ditu asko, eta hartan ez da deus onik.

26. Bekhaizgoak eta sephak laburtzen dituzte egunak, eta gogoetadurak muga baino lehen dakhar zahartzea.

27. Bihotz goihere eta ona ezteietan dago; ezen haren onthuruntzak arinki dira egiten.

### XXXI. KAP.

1. Ontasun biltzeko beilak idortzen du haragia, eta hartarako gogoe-tak khentzen du loa.

2. Geroa ezagutu-beharrezko gogoetak adimendua nahasten du, eta eritasun handiak arima zuhurtzen.

3. Aberatsa lanean hari da ontasun biltzeko, eta bere phausuan gozatu-tu ditu bere onak.

4. Beharra hari da lanean jateko eskasiaz, eta erromesten da azkenekotz.

5. Urhearen maithatzailea ez da atheraturko garbi, eta galdukeriaren ondotik dabilana, galdukeriaz betheko da.



6. Urheak erakharri ditu asko erortze, eta haren edertasuna izan da hekien galgarri.
7. Urhea, hari sakrifikatzen diotenen behaztopagailu da; zorigaitz hari darraizkotenei eta harek galaraziko ditu umo ez-diren guziak.
8. Dohatsu aberatsa estakurugabe aurkhitua izan dena, urhearen ondotik goan ez-dena, ontasun eta diru-metetan bere phekiza ezarri ez-duena!
9. Zein da hura, eta laudaturen dugu? ezen sendagaila egin du bere bizian.
10. Urheaz izan da frogatua, eta garbi gelditu, harentzat izanen baita bethiko ospe. Legea hauts zezakeen, eta ez du hautsi; gaizkia egin zezakeen, eta ez du egin:
11. Horren gatik haren onak Jauna baithan gogortu dira, eta sainduen baldarnak goraki erranen diru haren amoinak.
12. Mahain handi batean jarria zare? ez idek lehenbizikorik zure ahoa haren gainera.
13. Ez hula mintza: Hainitz gauza bada hunen gainean.
14. Orhoit zaitte begi gaixtoa gaixto dela.
15. Zer kreatu da begia baino maltzurragorik? bere nigar guziak ixuriko ditu, ikhustean.
16. Zure eskua lehenik ez heda, beldurrez-eta gorri zaitezen bekaizgoz khutsaturik.
17. Ez ithoka jan barazkarietan.
18. Zure burutik ezagutazu zure lagunari dagokiona.
19. Aitzinera ematen darotzutenetarik har zazu behar-den-bezalako gizon batek bezala, etzaitezen, hainitz janez, hinguigarri atxikia izan.
20. Ongi ikhasia bezala, lehenbizikorik geldi zaitte, eta ez izan sobranio, behaztopa beldurrez.
21. Hainitzen erdian jarria bazare, ez eskua heda bertzeek baino lehen, eta ez lehenbizikoa izan edatera galdegiteko.
22. Zein arno guti aski den gizon ikhasiarentzat! Eta gero etzaitu zure loan nekhaturen, eta oinhazerik ez duzu hautemanen.
23. Logabea, sabelminak eta oinhazeak gizon zoroarentzat;
24. Janean zuhur denarentzat osasuneko loa; goiza arteo lo eginen du, eta haren arima gozatuko da haren baithan.
25. Eta baldin hainitz jatera hertsatu bazaituzte, xuti zaitte bertzeen erditik, goiti egizu, horrek freskatuko zaitu eta ez diozu eritasun bat emanen zure gorphutzari.

26. Adi nezazu, semea, eta ez benezazu erdeina; azkenekotz atzema-nen duzu egiazkoak direla ene solasak.
27. Zalhu izan zaitte zure lan guzietan, eta eritasunik etzaitzu batere zure bidera atheratuko.
28. Hainitzen mihian izanen da jatera ederki ematen duenaren laudorioa, eta harentzat egiak izanen du lekhukotasun zina.
29. Hiria erasian hariko da jatekoan zekenegi denarentzat, eta haren zekenkeriaz lekhukotasuna egiatia da.
30. Ez tarrita arnozaleak edatera, ezen asko xahutu ditu arnoak.
31. Suak frogatzen du burdina gogorra, hala edan den arnoak ezagutarazten ditu hordian hanpurutsuen bihotzak.
32. Neurritz edan arnoa bigarren bizi bat da gizonentzat: hartarik hurri edaten baduzu, gizon neurritua izanen zare.
33. Zer da arnoak aphurtzen duen gizonaren bizia?
34. Zerk gabetzen gaitu biziak? Heriotzeak.
35. Arnoa hastetik egina izan da gizonaren bozteko, eta ez hordikeriako.
36. Neurritz edan arnoa arimaren eta bihotzaren bozgarri da.
37. Edan neurritua arimako eta gorphutzeko osagarria da.
38. Arno hainitzen edateak, sumindura, hasarre eta xahupen handiak derakharzka.
39. Arno hainitzen edatea arimako uherdura da.
40. Hordia ozartzen du, zoroa behaztoparazten, indarra gutitzen eta sakiak egiten.
41. Lagunari gaizkirik ez erran arnozko bestan, erdeinurik ez egin bere harrokeriako orduan.
42. Hari ez egin iroirik, eta ez hertsu zorra galdatuz.

### XXXII. KAP.

1. Mahain-buruko ezarri zaituzte? ez bezedi hant; hekien artean izan zaittezi hekietarik bat bezala.
2. Izan zazu hekiez artha, eta gero jar zaitte; eta zure eginbide guzia betherik, har zazu zure tokia,
3. Hekien gatik boz zaitezen, khoroa har dezazun eskerrezko edergailu bat bezala, eta ardiets bestaliarren laudorioak.
4. Adinez zaharrena, mintza zaitte (ezen zuri da egoki
5. Lehenbiziko hitza), jakitate zuhur batekin eta ez nahas batasuna.
6. Ez dutenean entzuten, bego solasa; etzaitzezela gaizki altxa zure zuhurtzian.



7. Urhezko edergailuan eskarbukla-harria nola, arnozko bestan musikariak hala.
8. Urhegintian esmeraldazko zigilua nola, arno gozo eta neurrituan musikari-andana bat hala.
9. Ixilik zaude aditzean, eta zure ikhustatearen ariaz ethorriren zaitzu esker ona.
10. Gizon-gaztea, doidoia mintza zaite, nahiz zure ikhustekoan.
11. Baldinetaria bietan behartua bazare, laburzki ihardetsazu.
12. Asko gauzetan ez dakiena bezala zaude; entzun zazu, batean ixilik, bertzean galdeginez.
13. Handien artean, aitzinegi ez sar, eta guti mintza zaharrak diren tokian.
14. Harriaren aitzinean dihoa ximista, eta herabetasunak aitzinean du enterra, eta ikhustateak bilduko darotzu esker ona.
15. Eta jaikitzeo orduan, ez bara; baina lehenbizi laster egizu zure etxera, eta han aldara, eta han dosta zaite,
16. Eta zure gogoetak egizkitzu bekhaturik eta hanpuruskeriarik gabe.
17. Eta horien ororen gainean benedika zazu Jauna, zu egin eta bere ontasun guzietz gainditzen zaituena.
18. Jaunaren beldur denak ardietsiren du haren argia, eta harentzat beilatuko duenak aurkhituren du benedizioa.
19. Legea bilhatzen duena betheko da hartaz; eta hartan behaztopaturen da amarruka hari dena.
20. Jaunaren beldur direnek aurkhituren dute adimendu zuzena, eta argi bat bezala biztuko dituzte beren eginkari zuzenak.
21. Gizon bekhatoreak kridantzari ihes eginen dio, eta bere nahiaren araberako saria atzemanen du.
22. Adimendua etzaio barraiatuko kontseilua lakheta duen gizonari; arrotz eta hanpurutsu denak beldurraren larderiarik ez du izanen,
23. Ez-etare zerbait, bere baitharik, kontseilurik gabe egin duen ondoan, eta bere kontra atheratuko zaizko bere buruzkinkeriak.
24. Semea, deusere ez egin kontseilurik gabe, eta hola egin ondoan ez duzu urrikirik izanen.
25. Ez goan bide larrutuaz, eta ez ditutzu harriak joko; bide gaitzari ez loth, zure buruari behaztopagailurik ez emateko.
26. Begira zaite zure haurretarik ere, eta zure burua zain zazu zure sehietarik.

27. Zure eginkari guzietan sinheste oso bat emozu zure arimari; hori da ezen manamenduen zainbidea.

28. Jainkoa baithan sinheste duenak atzartasun ekhartzen diote manamenduei; eta hari fidatzen dena ez da beheiti hariko.

### XXXIII. KAP.

1. Jaunaren beldur denari etzaio gaitzik helduren; baina Jainkoak frogapenean zainduko eta gaitzatarik atheratuko du hura.

2. Zuhurrak ez ditu higuintzen Jaunaren manamendu eta erabakiak, eta ez da phorroskatua izanen untzia phesian bezala.

3. Adimendutako gizonak sinhesten du Jainkoaren legean eta fidel dago legea hari.

4. Galde bati garbitasuna atheratu behar duenak bere hitzak aphainduko ditu; eta hola othoitz egin duenean, entzuna izanen da, eta ardietsiko du jakitatea, eta orduan ihardetsiko.

5. Ergelaren bihotza orga-arroda bezala da, eta haren gogoa haxa itzulikaria bezala.

6. Adiskide trufaria da hala-nola zaldi garañoa, zeina irrintzinaz baitago gainera igaiten zaizkioen guzien azpitik.

7. Zertako dira egun bat bertzearen garai, ephe bat bertzearen, eta urthe bat bertzearen, oro iguzkitik heldu direlarik?

8. Jaunak bere zuhurtzian berezi ditu, iguzkia egin izan denaz geroztik bide manatua idukitzen duelarik.

9. Jaunak berezi ditu denborak eta besta-egunak gizonentzat, eta haukiek besta-egunak beren ordutan bestatu dituzte.

10. Jainkoak egun hekiatarik goratu eta handietsi ditu zenbait, eta bertze batzu ardurako egunetan ezarri. Eta gizon guziak, Adam kreatua izan den lohi eta lur beretik dira.

11. Jaunak bere zuhurtzia nihonerekoan berezkatu diru, eta bide berezak eman daroezte.

12. hekiatarik zenbait benedikatu eta goratu ditu, eta bertze zenbait sailduetsi eta bere buruari iratxiki; bertze batzu madarikatu, eta aphaldu, eta hastandu ditu haren ganik berezi direnetik.

13. Nola baita buztina baxeregilearen eskuan, zeinak moldatzen eta xuxentzen baitu,

14. Eta haren bide guziak baitira haren oldearen araberakoak; orobat gizona bere egilearen eskuetan, zeinak bihurtuko baitio ongi idurituko zaioen bezala.



15. Gaizkiaren kontra da ongia, eta bizia heriotzearen kontra; orobat da gaixtagina ere gizon prestuaren kontra. Eta horrela begira zazu Guziz-Goraren egintza orotara; oro birazka eta bat bertzearen kontra dira.

16. Eta ni azkena atheratu naiz, mahats-biltzaileen ondotik bihiken biltzen hari dena iduri.

17. Eta nik ere Jainkoaren benedizioean iduki dut ene igurikitza, eta mahats-biltzaileak bezala bethe dut dolharea.

18. Begira zazue ez naizela lanean haritu enetzat baxharrik, baina jakitatea bilhatzen duten guzientzat.

19. Handiak eta populuak, adi nezazue orok; eta baldarnako buruzagiek emazue beharria.

20. Zure bizian ahalik ez eman zure buruaren gainean ez seme, ez emazte, ez anaia, ez adiskideari; zure ontasuna ez eman bertzei, belduzrez eta urriki dakizun, eta hekiei othoizka galdegitera behar zaitezten.

21. Bizi zareno, hatsa duzuno, nihork ez bezaitza hortarik aldara;

22. Ezen hobe da zure haurrek othoitz zaitzaten, zu hekien eskuei begira egotea baino.

23. Nausitasuna idukazu zure eginkari guzietan.

24. Notharik ez eman zure ospari: zure biziko egunen akhabantza-ko egunean, eta hiltzeko orduan pharti zazu zure ondoregoa.

25. Bazka, makhila eta karga astoaren; ogia, azotea eta lana gathibuaren.

26. Lanean hari da azotearen azpian, eta alfer egotea bilhatzen du; eskua tinkatu gabe utzozu, eta itzurtzera hari da.

27. Ustarriak eta hedeak hezten dute lepho gogorra eta lan jarraikiak malgutzen du gathibua.

28. Gathibu maltzurari estirak eta burdinak; igorrazu lanera, ez dadien alferrik egon;

29. Ezen hainitz gaixtakeria erakhutsi du alfertasunak.

30. Ezar zazu lanean; ezen hura da hari dagokioena. Ez bazaitu entzun nahi, amor eragiozu oin-burdinekin, eta garratzegi ez izan zein-nahi-den gizonen gainean; berriz, dorpherik deusere ez egin adimendurik gabe.

31. Gathibu bat balin baduzu fidela, izan zazu zure bizia bezain maite; egiozu hala-nola anaia bati, zeren zure odolaz erosi baituzu.

32. Gaizki erabiltzen baduzu zuzen kontran, ihes goanen da.

33. Eta itzuririk goan balin bada, ez dakikezu nori galda haren berri ez-eta zein bidez hura bilha.

### XXXIV. KAP.

1. Haizezko pheskiza eta gezurra gizon zoroarentzat; eta umotasunik ez dutenek ametsen gainean altxatzen dituzte beren asmuak.

2. Nola baita itzalari lotzen eta haizeari jarraitzen dena, hala-hala da ikhuspen gezurrezkoei atzarria dagoena ere.

3. Ametsetako ikhuspena da hau iduri: gizon itxura bat gizonaren aitzinean.

4. Xahu ez denaz nola xahu ditake? gezurrak zer egia derrake?

5. Aztikeria enganiozko, zelata gezurrezko eta gaizkinen ametsak, hutsalkeria batzu dira.

6. Zure bihotzak olde batzu jasaiten ditu emazteki erdi-beharrak bezala; ez eman hekiei zure bihotza, ikhuspena ez bada Guziz-Gorak bidalia;

7. Ametsek ezen errebelatu dituzte asko, eta erori dira hekietan izanez beren pheskiza:

8. Gezurrik gabe betheko da legeko hitza, eta zuhurtzia ageri izanen da fidel denaren ahoan.

9. Zer daki frogapenetan izatu ez den gizonak? Hainitz frogatu duenak izanen du asmu asko; eta adimenduzko gauzak erranen ditu hainitz ikhasi duenak.

10. Gutti frogatu duenak, guti ezagutzen du; baina hainitz egin duenak handitu du bere xothiltasuna.

11. Nolakoa da frogapenetan izan ez denaren jakitatea? Enganatu izan denak du ernetasuna nasai.

12. Ibiliz ikhusi dut asko gauza, eta ohitza asko ezagutu.

13. Horien gatik izatu naiz zenbait aldiz heriotzerainoko zoritan, eta Jainkoari esker hetarik naiz atheratu.

14. Jainkoak bilhatzen du haren beldur den izpiritua eta benedikaturen du haren begiak;

15. Ezen halakoen igurikimena salbatzen dituenaren gainean dago, eta jainkoaren begia hura maite dutenen gainean.

16. Jaunaren beldur dena ez da deusetaz izituren, eta ez da ikharaturren, zeren Jainkoa bera baita haren igurikimena.

17. Dohatsu Jaunaren beldur denaren arima

18. Nori dago begira, eta nor da haren indarra?

19. Jaunaren begiak daude haren beldur direnen gainean; hura da ahalaren gerizatzailea, indarraren gogortzailea, beroaren neurritzailea, eta eguerdiko itzalkaria.



20. Hura da behaztopak hausten, erorikoan laguntzen, arimak goratzen, begiak argitzen, osagarria, bizia eta benedizioea ematen dituen.

21. Bide makhurreko ontasunetik imolatzen duenaren eskaintza narrioduna da, eta gaixtaginen trufakeriak gaitzetsiak dira.

22. Jauna, egia eta zuzentasunaren bidean igurikitzen dutenentzat da bakharrik.

23. Gaixtaginen emaitzak Guziz-Gorari etzaizkio eder; ez diote begiratzen gaixtaginen emaitzei, eta hekien nihonereko sakrifizioketak ez da bekhatuei jabalaraziko.

24. Beharren ontasunetik sakrifizio eskaintzen hari denak iduri du aitaren aitzinean semea hiltzen duena.

25. Beharren ogia beharren bizia da; haren ebaslea gizon odolko bat da.

26. Gizonari bere izerditikako ogia khentzen dioena, bere laguna hiltzen duenaren pare da.

27. Odol-ixurtzailea eta sarizaleari maula-egilea, biak anaiak dira.

28. Batak egin eta bertzeak urra, zer atheratzen dute lana baizik?

29. Batak othoitz eta bertzeak madarika, zeinen mintzoa entzunen du Jainkoak?

30. Hilaren ukitzeaz xahu, eta hura berriz uki, zer balio du xahupen harek?

31. Hala-hala bekhatuen ondotik barur egin, eta berriz hekietara bihur, zer baliatzen da bere burua aphaldu duena? nork entzunen du haren othoitz?

### XXXV. KAP.

1. Legea begiratzea, hainitz eskaintzen egitea da.

2. Sakrifizio salbagarri bat da manamenduei atzarria egotea eta gaizki guzietarik gibelatzea.

3. Eta bidegabekieratik gibelatzea, hori da sakrifizioz jabalpena deitzea bidegabekerien gainera, eta bekhatuentzat othoitz egitea.

4. Jainkoari eskerrak bihurtzen dituenak, irin-lorea eskaintzen du; eta lagunari barkhatzen dioenak, sakrifizio bat.

5. Gaizkitik gibelatzea zaio Jaunari gogarako, eta bidegabekieratik gibelatzea bekhatuentzat errekeitzea da.

6. Jaunaren aitzinera etzare eskuek hutsik agertuko;

7. Ezen horiek oro Jainkoaren manamenduz egiten dira.

8. Prestuaren eskaintzak goritzen du aldarea, eta usain gozotan igaiten da Guziz-Goraren aitzinera.

9. Onhetsia da prestuaren sakrifizioa, eta Jaunak ez du galduko haren orhoitzapena.

10. Gogo onez ospe bihur diozozu Jainkoari, eta ez deusere guti zure lanetako fruituen pikainetarik.

11. Emaitza guzietan egizu begithartea goihere, eta bozkariotan sainduets zatzu zure hamarrenak.

12. Guziz-Gorari emozu harek emanaren arabera, eta begi onez emazu zure eskuek khausitzen dutena;

13. Zeren sariztatzailea baita Jauna, eta bihurturen darotzu zazpitan bertze hainbertze.

14. Ez egin eskaintza tzarrik; ezen ez ditu onhetsiko.

15. Ez igurik tzarkeriako sakrifiziotik, zeren juie baita Jauna, eta haren aitzinean nihork ez du nor delakoan ikhustaterik.

16. Jaunak ez du begiratuko nor-nor-den beharraren kontra, eta dai-natuaren othoitz entzunen du.

17. Ez ditu erdeinaturen umezurtzaren othoitzak ez-eta alharguna, hunek ixurtzen badu bere auhenen kuinta.

18. Alhargunaren nigarrak ez othe dira jausten haren mathelak behe-  
ra, eta ez othe daude deihadarka hekiek jautsarazten dituenaren kontra?

19. Ezen mathelatik zeruraino igaiten dira, eta Jauna, entzulea, ez da hekietan lakhet izanen.

20. Bozik Jainkoa adoratzen duena onhetsia izanen da, eta haren othoitzak hedoietaraino joko du.

21. Aphaltzen denaren othoitzak zilhatuko ditu hedoiak; hurbildu arteo ez du onik izanen; eta ez du gibelerat eginen Guziz-Gorak begira diozon arteo.

22. Eta Jaunak ez du luzatuko, bainan juiatuko ditu prestuak eta zuzenari emanen dio bere bidea; eta guziz hazkarra gaixtaginentzat ez da pairuz egonen, hekien bizkarrari jasanarazi gabe.

23. Asperkundera bihurturen diote jendaiei, hanpurutsuen ostea xahutu eta gaixtaginen manamenduko makhila phorroskatu arteo;

24. Gizionei bihurtu arteo beren eginen eredura, eta Adamen egintzen eta hantustearen arabera;

25. Juia dezan arteo bere populuaren zuzena, eta prestuak bozturen ditu bere urrikalpenaz.

26. Jainkoaren urrikalmendua eder da hesturetako orduan, hala-nola hedoi uritsua idorteko aroan.



### XXXVI. KAP.

1. Guzien Jainkoa, urrikal zakizkigu, begira dizaguzu eta erakhuts zure urrikalpenen argia.
2. Zure lastura arthikazu bilhatu etzaituzten jendakien gainera, eza-gut dezatentzat Jainkorik ez dela zu baizik, eta goraki erran detzazten zure sendagailak.
3. Gora zazu zure eskua jendaia arrotzen gainera, ikhus dezaten zure ahala;
4. Nola ezen gure baithan sainduetsia baitzare hekien aitzinean, hala gure aitzinean ere handietsia izan bezedi hekien baithan;
5. Ezagut zetzaten, guk ezagutu izan dugun bezala ez dela, Jauna, zutaz bertze Jainkorik.
6. Erreberri zatu ezagutkariak, egin bertze sendagailak;
7. Ospa zatu zure eskua eta eskuineko besoa;
8. Higi zazu zure hasarrea, eta barraia zure sepha;
9. Xahu zazu bihurri-egilea, eta phorroska etsaia;
10. Eragiozu denborari, premia zazu akhabantza, gizonek goraki erran detzazten zure sendagailak.
11. Itzurtzen dena garraren khaldaz iretsia izan bedi.
12. Buruak leher diotzotzute etsaien aitzindari, zeinek erraten baitute: Ez da gutaz bertze Jaunik.
13. Bil zatu Jakobean leinu guziak, ezagut dezaten ez dela zutaz bertze Jainkorik, eta orotan erran detzazten zure sendagailak, eta izanen dira zure primantza hastetik bezala.
14. Urrikal zakizkio zure populuari, zeinaren gainera deithua izan baita zure izena, eta Israelez, zeina ezarri baituzu zure seme zaharrenaren bardin.
15. Urrikal zakizkio zure sainduespeneko hiriari, Jerusalemeri, zure phausuko hiriari.
16. Zure ezin-erranezko solasez bethe zazu Sion, eta ospez populua.
17. Lekhukotasun bihur diozozue zure ume hastetik direnei, eta egiazko athera zatu beihalako profetek aitzinetik zure izenean erran dituztenak.
18. Saria emozute igurikitzen zaituztenei, zure profetak egiami aurkhi ditezen, eta entzun zatu zure zerbitzarien othoitzak,
19. Aaronek zure populuaren gainera deithu benedizionearen arabera, eta bida gaitzatu zuzenaren bidean; eta lurrean egoten diren guziak jakin bezate zu zarela Jainko mendeen begieslea.

20. Sabelak hartzen ditu janhari guziak; bada ordean jateko bat bertzea baino hobea.
21. Ahoak berezkaratzen du ihizikia, bai-eta bihotzak elhe gezurtiak.
22. Bihotz galduak ilhundura emanen du, eta gizon argituak enferra egingen dio.
23. Emaztekiak edozein gizon hartuko du, bainan neskatxa bada neskatxa baino hobea.
24. Emaztekiaren edertasunak argiarazten dio haren senharraren begiharteari, eta lehia gauditzen du gizonaren lehia guziaren gainetik.
25. Haren mihiak sendatzen, ematzen eta gozatzen balin badaki, haren senharra ez da gizasemeen arabera.
26. Emazte ona dadukanak egiten du ontasun; laguntzaile bat bera bezalakoa badu, eta haren deskantsua habe bat iduri dago.
27. Hesirik ez den tokian ontasuna larrutzen da, eta emaztekirik ez den lekhuauhenez dago gizona beharrak joa.
28. Atherberik ez duenaren, gaua heltzen zaioen tokian etzaten denaren, eta hiritik hirira, gerria tinkatua dadukan ohoina iduri dabilanaren baithan nork du sinheste?

### XXXVII. KAP.

1. Edozein adiskidek erranen du: Nik ere adiskidantza egin izan dut; bainan ene adiskidea izenez da adiskide. Ez othe da hori heriotzeraino dirauen mina?
2. Laguna, berriz, eta adiskidea etsaitasunera bihurtuko dira.
3. Oi asmurik tzarrena, nondik sorthu haiz lurraren estaltzeko hire maltzurkeria eta zimarkhuez?
4. Lagunak bere adiskidearekin gozo hartzen du ordu ederrean, eta ordu txarrean etsai atheratuko zaio.
5. Laguna adiskidearekin auhendatzen da bere sabelaren gatik, eta etsaiaren kontra hartuko du erredola.
6. Adiskidea ez ahantz zure ariman, eta hartaz ez izan orhoitgabe aberats zaretekeenean.
7. Kontseilu ez har zelatak hedatzen darozkitzunaren baithan, eta zure bekhazti direnetarik gorde zazu zure xedea.
8. Edozein kontseilarik atheratzen du kontseilu, bainan bere alde kontseilatzen.
9. Zure burua zaint zazu halakoaren ganik; jakizu lehenik zer premia dukeen, (ezik bere buruarentzateko asmuak izanen ditu),
10. Beldurrez-eta lurrean ziri bat sar dezan, eta erran dezazun:





11. Bidea ona da; eta bazterretik begira egon dadien ikhusteko zer gerthatuko zaitzun.
12. Legegabeko gizon batekin aipha zazu saildutasunaz, makhurra-ekin zuzentasunaz, emaztekiarekin bekhaitzen duen lagunaz, iziperare-kin gerlaz, tratulariarekin tratuaz, eroslearekin salpenaz, bekhaitziarekin bihurtzeko eskerrez,
13. Inpioarekin jainkotiartasunaz, ohoregabearekin ohoreaz, lur-lantzai-learekin edozein lanez,
14. Urtheko langilearekin urtheko eginbideez, sehi alferrarekin lan handiaz; hekiei ez begira edozein kontseilu eman dezazuten.
15. Bainan jarraikia izan zaitezi gizon sailduaren baithan, nor-nahi ezagut dezazun Jainkoaren beldurra idukitzen duena,
16. Zeinarekin arima zure arimaren arabera baita, eta zeina, ilhun-pean khordokan zaretekeenean, zure minean sarthuko baita.
17. Zure gana bil zazu kontseilu oneko bihotz bat; ezen bertzerik ez da zuretzat hura baino hoberik.
18. Gizon saildu baten arimak egia batzutan atheratzen du, guzien ikhusteko bizkar batean jarriak diren zazpi begiralarik baino hobeki.
19. Eta oroz gainetik othoitz zazu Guziz-Gora egia-aren bidean zai-tzan bida.
20. Deusere egin baino lehen, zure aitzinean bihoa egiaren hitza, eta kontseilu segura egintza guzien aitzinean.
21. Elhe gaixto batek aldatuko du bihotza; huntarik heldu dira lau gauza; ongia eta gaizkia, bizitza eta heriotza; eta arduran mihiak dera-bilzka hekien gora-beherak. Bada gizon xothila, hainitzi irakhasten duena, eta beretzat ez dena.
22. Bada gizon jakina asko argitzen dituen, eta bere buruarentzat beretz dena.
23. Hastiagarri da xothilkerian mintzo dena; bera orotan izanen da enganatua.
24. Grazia etzaio Jaunaz emana; ezen zuhurtzia guzitik da buluz.
25. Bada zuhurra, bere buruarentzat zuhur dena; eta laudagarri dira haren adimenduaren fruituak.
26. Gizon zuhurrak argitzen du bere populua, eta haren adimendu-aren fruituak ez dira fardoak.
27. Benedizioez betheko da gizon zuhurra, eta ikhusten dutenek laudaturen dute.
28. Gizonaren biziak hunenbertze egun ditu; aldiz Israelen egunak ezin-khondatuzkoak dira.

29. Zuhurrak populuan izanen du ohorezko primantza, eta haren izena bethi guziraio da biziko.
30. Semea, zure bizian froga zazu zure arima; eta tzarra balitz, ez eman nausitasunik;
31. Ez dira ezen guziak guzientzat egoki, eta edozeini etzaio edozein gauza lakhet.
32. Ez izan barazkarietan golos, eta jaki guziei ez loth;
33. Ezen jaki hainitzetan izanen da eritasuna, eta goloskeriak jauza-razten ditu sabel-minak.
34. Asko hil izan dira neurri-eskasaren ariaz; aldiz neurritua denak luzatzen du bizia.

### XXXVIII. KAP.

1. Premiaren gatik midikua ohora zazu; ezen Guziz-Gorak egin du hura.
2. Alabainan Jainkoa ganikakoa da midikuntza, eta erregeren ganik izanen ditu emaitzak.
3. Midikuari bere jankintasunak goraturen dio burua, eta handien aitzinean izanen da laudatua.
4. Guziz-Gorak lurretik egin ditu sendakariak, eta gizon zuhurrek ez dituzte hastio izanen.
5. Ur kharatsak ez othe dira egurraz izan eztituak?
6. Gizonak ezagutzeko da sendakarien indarra; eta Guziz-Gorak jakitara eman diote gizonari ohora dezaten bere sendagailen.
7. Hekietaz sendatuz ematen du oinhazea, eta baltsamuginak eginen ditu baltsamu gozoak eta gantzugailu sendatzekoak aphainduko ditu; hekien eragindura ez da ordean osoa izanen,
8. Ezen Jainkoa ganik dathor bakea lurrera.
9. Ene semea, eri zarenean ez gutiets zure burua; bainan Jauna othoitz zazu, eta harek sendaturen zaitu.
10. Aldara zaite gaizkitik, zuzen zatzu zure eskuak, eta hoben orota-rik garbi zazu bihotza.
11. Egizu usain onezko eta irin-lorezko sakrifizioa; zure eskaintza gorria egizu, eta jar zaite midikuaren eskuetan;
12. Ezen Jaunak egin du hura; eta ez bedi zure ganik goan, haren egintzen premian zarelakotz,
13. Zeren ethorria baita midikuen eskuetara zihoazen ordua.
14. Berek aldiz othoiztuko dute Jauna, eriei eman diozoten phausu eta osan, bertzeekin bizi ditezentzat.



15. Bere egilearen aitzinean bekhatutan erortzen dena, midikuaren eskuetara eroriko da.

16. Ene semea, nigarrak ixuratzu hilaren gainera, eta nigarrez abia zaite ondiko jasan duena bezala; hilaren gorputza lurrez estal zazu ohitzaren arabera, eta haren ehorztea ez utz axolagabekeriaz.

17. Elhe gaixtoen beldurrez, ekhar zazu minki egun batez haren dolua, eta sosega zaite zure atsekabeen.

18. Hilak merzei duenaren arabera egizu deithorea egun batez edo bieze, erauntsia tzarren beldurrez.

19. Ilhundurak alabainan hurbilarazten du herioa, eta zebatzen du indarra, eta bihotzeko belztasanak behehitarazten du burua.

20. Bakhartasunean, irauten du ilhundurak; eta atsekabedunaren bizia haren bihotzaren arabera da.

21. Zure bihotza belzturari ez eman, bainan urrun zazu zure ganik, eta orhoit zaite azken egunaz;

22. Berautzu ahantz; ezen ez da bihurtzerik; hilari etzinezoke onik ekhar, bai ordean gaizki handia zure buruari.

23. Orhoit zaite ene gaineko juiamenduaz; ezen orobat izanen da zureaz; atzo niri, eta egun zuri.

24. Hil denaren phausuan phausaraz zazu haren orhoitzapena, eta haren izpirituaren ilkhipenaz sosega zaite.

25. Astiarekin zuhurturen da iskribaua; eta egiteko guti derabilanak bilduren du zuhurtzia. Zer zuhurtziaz betheko da

26. Golde-nabarra dadukana, akhuloarekin espantatzen dena, idi sistatzen eta hekiekin lanean hari dena, eta zezenen umeez baizik solasik ez duena?

27. Bere bihotz guzia emanen du hildo itzultzeari, eta bere arthak behi gizentzeari.

28. Haren iduriko dira ofiziale guziak eta etxegilea, gaua eguna bezala iragaiten duena; zigiluak bernuzatzen dituena; jarraikiz mudantzatzen ditu itxurak; bere bihotza ematen du gauzen iduriaren ongi hartzera, eta beilatuz akhabatzen du lana.

29. Orobat da burdina lantzen duena, ingudioaren aldean jarririk eta burdin-lanari begira; suaren hatsak khabartzen diozka haragiak, eta suaren berotasunean dago egun guzian.

30. Mailu-harrabotsa bethi berritzen da haren beharrira, eta haren begia erre dago aitzinean duen tresnaren moldeari.

31. Bere lanaren akhabatzeari ematen du bihotza, eta beilatuz berregintzen du osoki.

32. Orobat da baxeregilea bere lanean jarria, zangoz itzulikatzen duela pirrita; arduratsu dago bethi bere lanaren ariaz, eta haren langintza guzia neurritz haritzeari darraio.

33. Bere besoaz ematen dio buztinari moldea, eta bere oinaz amor emanarazten dio haren biguintasunari.

34. Bere bihotz guzia ematen du leguntzeari, eta arthatsuki xahutzen du labea.

35. Hainek orok beren eskuen gainean dute beren pheskiza, eta batbedera zintzo da bere antzean.

36. Hekiek guziak gabe ez da hiririk egiten.

37. Eta ez dira hirian egoten, ez ibiltzen, eta ez dira biltzarrean sartzen.

38. Ez dira juieen alkhan jartzen; ez dute juiamenduetako legearen aditzarik; ez dituzte populuari ematen irakhaspena eta bizimoldea, eta parabolaren argitasuna ez dute hekiek atheratzen.

39. Bainan iraurarazten diote mendeko gauzei, eta beren ofizio lanetan daude othoitzean, beren eginkariari emanez beren izpiritua, eta Guziz-Goraren legearen bethetzea bilhatuz.

### XXXIX. KAP.

1. Zuhurrak zahar guzien zuhurtasuna bilhatuko du, eta profeten irakurtzen hariko da.

2. Lelotako gizonen erranak ez ditu galtzerat utziko, eta hanbatekin sarthuko da parabolaren xothiltasunetan.

3. Bilhatuko du erran-zaharrek dadukaten adigarria, eta parabolak gordetzen dutenaren ikhartzen hariko da.

4. Handien artean bere kargua betheko du, eta buruzagien aitzinera agertuko da.

5. Jendaia arrotzen lurrera iraganen da; ezen gizonen artean frogatuko ditu ongia eta gaizkia.

6. Bere bihotza emanen du itzultzera goizetik Jauna gana, bere egilearen gana, eta Guziz-Goraren aitzinean othoitz egingen du.

7. Othoitzeko idekiren du bere ahoa, eta bere hobenentzat errekei egingen du;

8. Ezen Jaun handiak nahi izaten balin badu, adimenduzko izpirituz betheko du hura.

9. Eta harek uria bezala ixuriko ditu bere zuhurtziazko solasak, eta othoitzaz aithor bihurtuko dio Jaunari.

10. Eta Jaunak bidaturen ditu haren asmu eta bizimoldeak eta Jaunaren zuhurtzia gordean harturen du bere kontseilua.



11. Berak agerturen ditu haren irakhaspeneko argiak eta bere ospea ezarriren du Jaunarekilako patuaren legean.
12. Hainitzek laudaturen dute haren zuhurtasuna, zeina ezeztaturen ez baita mendeetaraino.
13. Haren orhoitzapena ez da galduko, eta iraulgitik iraulgira aiphametan izanen da haren izena.
14. Jendaiek erranen dute haren zuhurtzia, eta baldarnak eginen ditu haren laudorioak.
15. Luzez irauten badu, bertze milak baino aiphamen handiagoa utziko du, eta phausura iragaiten bada, orduan baliatuko zaio.
16. Aihaturen dut oraino ene gogo, mintza nadientzat; ezen kharrak bethetzen nau.
17. Mintzo da erranez: Jainkoaren haurrak, entzun nezazue, eta ur-bazterretan landatu arrosak bezala ekhar zatzue fruituak.
18. Libanek bezala izan zazue usain gozoa.
19. Loretan lora zaitezte lilia bezala, eta heda zazue zuen usaina; graziaz hosta zaitezte, kanta zatzue laudoriozko kantikak, eta bere egintzetan lauda zazue Jauna.
20. Emozue handiespen haren izenari, eta aithor diozozue bihur zuen ezpainetako hitzetan, zuen ezpainetako kantiketan, zuen gitarren gainean, eta hunela erranen duzue zuen aithorrean:
21. Jaunaren egintza guziak osoki dira onak.
22. Haren hitz batera, ura baratu da munthoin bat bezala; eta haren ahoko manura, ur bildegi bat bezala.
23. Alabainan haren manura egiten da jabalmena, eta harek eman salbamenduan aphurtzerik ez da.
24. Haragidun guzien egintzak haren aitzinean daude, eta haren begientzat lauda eta benedika zazue Jaunaren bat bakharra ez da gorderik.
25. Haren begiak jotzen du mendetik mendera, eta deus ez da harri-garririk haren aitzinean.
26. Ez da zeren erran: Zer da hau, edo zer da hori? Ezik oro beren mugan dira agerturen.
27. Haren ganikako benedizioneak iduri du gaindika dihoan ibaia.
28. Nola uholdeak ez tali baitu leihorra, hala haren hasarrearen puska izanen dira hura bilhatu ez duten jendakiak.
29. Nola leihortu baititu urak eta agortu baita gero leihorra, haren bideak ere batbederaren bideen arabera zuzenak izan baitira, hala haren hasarrea izanen da bekhatoreen eragozgarri.

30. Nola hastetik ongiak onentzat izan baitira eginak, hala on-gaitzak gaixtoentzat.
31. Haukiek dira lehenbizikorik gizonen biziarentzat premia: Ura, sua eta burdina, gatza, esnea eta ogi irin-lorezkoa, ezitia, mahats-molkhoa, olio eta jauntzia.
32. Horiek oro sainduentzat dira onetan, hala gaixtagin eta bekhatoreentzat bihurtzen dira gaitzetan.
33. Badira izpiritual asperkundero kreatuak izan direnak, eta beren errabian gogortzen dituzte gaixtaginen estirak.
34. Akhabantzako egunean hedaturen dute beren indarra, eta beren kreatzailearen sepharen gogara dute eginen.
35. Sua, harria, gosetea, heriotzea, horiek oro asperkundero izan dira eginak,
36. Hala-nola basabereen hortzak, harrobiak, sugeak, eta ezpata gaixtaginak xahutuz asperkunde daramana.
37. Bozkarioz dihoazi Jaunaren manura; lurraren gainean, behar-orduko abian jarriko dira, eta beren mugan hitz bat ez dute utziko erortzera.
38. Horren gatik hastetik finkatu naiz gogoeta haukietan; horietan bilhatu dut ontseilu eta erabili ene gogo, eta iskribuz ezarri ditut.
39. Jaunaren egintza guziak onak dira, eta guziak, zein bere orenean, baliarazten ditu.
40. Ez da zeren erran: Hau hori baino txarragoa da; ezen guziak beren tenoretan ontzat ezagutuko dira.
41. Eta orai ahoz eta bihotz oroz izena.

## XL. KAP.

1. Alhadura handi bat atheratua izan da gizon guzientzat eta uztarri gogorra ezarria Adamen semeen gainean, beren amaren sabeletik ilkhi diren egunetik, guzien amaren baithan ehortziak izanen diren eguneraino.
2. Hekien gogoetek eta bihotzeko izialdurek, ethorkizunaren gaineko iduripenek eta oro akhabatzeko egunak,
3. Ospezko alkhiairen gainean jarria dagoenetik, lurrean eta herraurtean etzana dagoeneraino;
4. Moredinez jaunzten denetik eta khoroa dakharrenetik, liho latzez larrua estaltzen dueneraino, sepha, bekhaizgo, tarrapata, gora-behera, heriotzearen beldur, samurgo irauntia, khimerek asalдутan daduzkate;
5. Eta phausatzeko orduan ohean gabazko loak hekien gogoetak nahasten ditu.



6. Gizonak hartzen duen phausua aphurra, ezdeusa da, eta bere loan ere khexu da guardian balago bezala.
7. Bere izpirituko iduripenez nahasia da hala-nola guduko orduan ihes dihoana; jaikitzen da, segurean da, eta miresten du bere izialdura alferra.
8. Hori gerthatzen zaiote haragidun guziei, gizonetik aziendaraino, eta bekhatoreei zazpitan gehiago.
9. Bertzalde, heriotze, sarraski, khimera, ezpata, hertsapen, gosete, xahutze, izurri,
10. Horiek oro eginak izan dira gaixtaginentzat, eta hekien gatik igorria izan da uholdea.
11. Lurretikako guziak, lurrera bihurturen dira, eta ur guziak itsasora itzuliren.
12. Emaitza tzar eta gaixtakeriak galduren dira, bainan egia gogor egonen da bethi.
13. Gaixtaginen aberastasunak erreka bat bezala agorturen dira eta burrunbaka goanen, hala-nola ihurtzuri handi bat uri-erauntsian.
14. Bozkario bat izanen da eskuak idekiko dituztenean; hola urma-riatuko dira azkenean lege-hausleak.
15. Gaixtaginen umeek ez dute aldaska usurik arthikiren; harkadi-muthurretan kraskaka hari diren erro txarren pare dira.
16. Ur-hegian eta ibai-bazterrean sorthu belharra sorhotakoa baino lehen atheratua izanen da.
17. Ongiegiletasuna da baratze benedikatu bat iduri, eta urrikalmen-  
duak menderen mende du iraunen.
18. Bere lanean bere dina duenaren bizia gozoa izanen da, eta halako bizian atzemanen duzu behar duzun aberastasun guzia.
19. Haurrek eta hiri baten egiteak gogortzen dute izen baten iraupe-  
na, eta horien gainetik da prezatua emazte nothagabea.
20. Arnoak eta musikak goiheretzen dute bihotza, eta horiek baino  
gehiago zuhurtziaren maithatzeak.
21. Xirolak eta maniurrak egiten dute musika gozoa, eta mihi gozoa  
hekien bien garai da.
22. Begiak lakhet ditu arraizia eta edertasuna, eta eraitza ferdeak  
hekien garai dira.
23. Adiskideak eta bere lagunak behar-orduan elkhar dute laguntzen,  
eta senhar-emazteek hekiek baino hobeki.
24. Hesturako orduan lagungarri dira anaiak, eta urrikalkortasunak  
hekiek baino laguntza hobea eginen du.

25. Urhea eta zilharra oinen gogorgarri dira, eta kontseilu ona hekien  
garai da.
26. Ontasun-indarrek urgoitzen dute bihotza, eta Jaunaren beldurrak  
gehiago.
27. Jaunaren beldurrarekin ez da beheititzerik, ez-eta harekin laguntza  
eske ibiltzerik.
28. Jaunaren beldurra benedizionezko baratze bat da, eta berregin-  
dua ospe guzien gaindi.
29. Ene haurra, ez eska zure bizi guzian; ezen eske ibiltzea baino  
hobe da hiltzea.
30. Bertzeen mahainari Begira dagoenaren bizia, bizi ustean ez da  
bizitzea; ezen bertzeen jatekoz hazten du bere burua.
31. Gizon gurbilak orduan eta ikhasiak hortarik zainduko du bere  
burua.
32. Ezaxolatuaren gogarako da eskatzea, eta su bat erretzen hariko  
da haren sabelean.

#### XLI. KAP.

1. Oi herioa, zenbat da khiretsa hire orhoitzapena bere ontasunen  
erdian bakea duen gizonarentzat,
2. Gizon deskantsuarentzat, zeinaren egitekoak ongi baitoazi orotan,  
eta zeinak gozo har baitezoke oraino janari!
3. Oi herioa, hire erabakia ezia duk gizon noharroin eta indarrak  
galtzen dituenarentzat,
4. Zeinak, adinaren erkhiduran, gauza guzietaz grina behar baitu, sin-  
heste ona eta pairua galdu baititu
5. Ez izan herioaren erabakiaren beldur. Orhoit zaite zure aitzinean  
iraganez eta zuri gerthatuko zaizkitzunez; hori da haragidun guzientzat  
Jauna ganikako erabakia.
6. Eta zer gerthaturen zaitzu Guziz-Goraren nahiko ez denik? Edo  
hamar, edo ehun, edo mila urthek mengoarik ez dute.
7. Hilean ez da zenbat bizi izan den axolarik.
8. Bekhatoreen haurrak, hasgarrikeriako haur dira bilhakutzen, eta  
gaixtaginen etxeen aldaketan egoten direnak ere bai.
9. Bekhatoreen haurren primantza galduko da, eta hekien ondokoen  
gainean iraunen du laidoak.
10. Aita tzarraz arranguraturen dira semeak, zeren haren gatik diren  
laidotan.



11. Zorigaitz zuei, gizon gaixtoak, zeinek bazterrerat utzi baituzue Jaun guziz-goraren legea!
12. Sorthu bazarete, madarizonean zarete sorthu; eta hiltzen bazarete, madarizonean izanen da zuen zathia.
13. Lurretikako guziak lurrera dira bihurturen; gaixtaginak orobat madarizionetik galpena dira eroriko.
14. Gizonen deithorea egiten da hekien gorphutzen inguruan; bainan ezenztaturen da gaixtaginen izena.
15. Omen onaz izan zazu artha; ezen hura iraunkorrago dukezu mila ontasun balios eta handi baino.
16. Bizitze onak dirau egun hein bat; omen onak aldiz menderen mende.
17. Ene irakhaspena bakean begira zazue, haurrak; alabainan zuhurtzia gordea eta diru ageri ez dena, zertako dira on bata eta bertzea?
18. Bere zorotasuna gordetzen duen gizona hobea da ezenetz bere zuhurtasuna gordetzen duena.
19. Ahalke har zazu beraz ene ahotik ilkhitzera dihoazen haukiez;
20. Ezen ez da on nola-nahika ahalke hartzea, eta zinez onak diren gauza guziak ez dira guzien gogarako.
21. Likhiskeriaz ahalka zaitte zure ait-amen aitzinean, eta gezurraz manatzailearen eta kargudunaren aitzinean;
22. Hobenaz buruzagiaren eta juiearen aitzinean, eta gaixtakeriaz baldarnaren eta populuaren aitzinean;
23. Bidegabekeriaz zure lagunaren eta adiskidearen aitzinean; eta egoten zaren tokian,
24. Ohointzaz, Jainkoaren egiares eta lekhukotasunaren ariaz; jatekoen gainera makhurtzeaz, eta har-emanetan enganatzeaz;
25. Agur egiten dutenei ez ihardesteaz; emazteki lilitxoei begiratzeaz, eta begithartea zure ahaideari itzultzeaz.
26. Ez itzul begithartea zure laguna ganik; ahalka zaitte nihori berearen khentzeko eta ez bihurtzeko.
27. Ez begira bertze gizon baten emazteari; ez bilha haren neskatoa, eta ez egon haren ohearen aldean.
28. Ahalka zaitte zure adiskideen aitzinean solas itsusirik idukitzeaz; eta zerbait eman dukezunean, iroirik ez egin.

## XLII. KAP.

1. Ez errepika aditu solasa, eta ez salha gauza gordea; eta izanen zare zinez ahalkerik gabe eta begitharte aurkhituren duzu gizon guzien aitzinean, aiphatzera nihoazkitzun haukiez orotaz ez ahalka, eta nor-nor-den ez begira bekhatu egiterainokoan.
2. Ez ahalka Guziz-Goraren legeaz eta batasunaz, eta gaixtagina garbitzen duen juiamendua;
3. Lagunen eta bidaianten egitekoan, eta adiskideen primantzaren zathitzean;
4. Balantzen eta phisuen zuzentasunean, guti edo hainitz erostean;
5. Tratuko eta tratularien mauletan, eta haurren maiz kridantzatzean, ez-etare gathibu gaixtoaren sakhatsak odolztatzean.
6. Emazte gaixtoari gauzen gakhatzea on da.
7. Esku hainitz den tokian, herts gauzak; khonda eta phisa ematen duzun guzia; har-emanak aldiz iskriba oro.
8. Ez ahalka zoroaren eta ergelaren kridantzatzeaz, ez-eta gizon-gazteek juiatzen dituzten zaharrez; eta horrela agertuko zare umo eta bizi diren guziez izanen zare onhetsia.
9. Alaba aitarentzat da ixilik atzarria egoteko bide bat, eta haren gatikako grinak khentzen dio loa, beldurrez-eta gaztean ezkondu gabe adinetara hel dadien, edo senharrarekin denean hastio bilhaka dadien;
10. Edo egun batez khutsa dadien bere dontzeilatasunean, edo aitaaren etxean izarra gertha dadien, edo senharrarekin delarik legea hauts dezan, edo bederen agor egon dadien.
11. Zain zazu ongi alaba gizakoa, etzaitzan egun batez bilhakaraz zure etsaien laidagarri, hiriko erauntsien eta jendeen erantzukien gatik, eta ahalketara erorraraz zaitzan populu guziaren aitzinean.
12. Ez nihori begira bere edertasuna gatik, eta ez egon emaztekien erdian;
13. Ezen soinekoetarik ilkhitzen da biphia eta emaztekitik gizonaren tzarkeria.
14. Alabainan gizon gaizki-egilea hobe da, ezenetz ongia egiten eta laidoan ahalkarazten duen emaztekoa.
15. Orhoituko naiz beraz Jaunaren egintzez, eta erranen dut ikhusi dudana; Jaunaren hitzetan dira ageri haren egintzak.
16. Iguzkiak alde orotara argituz, guziak ikhusten ditu; eta Jaunaren ospez dira betheak haren egintzak.



17. Jaunak ez othe ditu sainduen ahoz ezagutarazi bere sendagaila guziak zeinak finkatu baititu, Jaun ahalorotakoa den bezala, haren ospatze-ko iraun dezatentzat?

18. Ondar-lezeak eta gizonen bihotzak ikhartzen eta hekien asmu gordeenak ezagutzen ditu.

19. Alabainan jakitate oroz jakintsun da Jauna; eta denboren seinaleari begiratzen dio, ezagutaraziz iraganeko eta ethorkizuneko gauzak, eta gordeak direnen hatzak agertuz.

20. Gogoeta bat etaia itzurtzen, ez-eta hitz bakhar bat gordetzen.

21. Bere zuhurtziaren sendagailak berregindu ditu; hura mendeak baino lehen bada eta mende guzietan izanen da.

22. Ez dakioke ez berha, ez guti, eta ez da nihoren kontseiluen eska-sean.

23. Zeinen diren ederresgarri haren egintza guziak! Eta bizkitartean phindar bat bezala da guk begiets dezakeguna.

24. Hekiek oro bizi dira eta menderen mende diraute, eta haren nahiari ethordun dira behartuak diren guzian.

25. Gauza guziak bikhun dira, bata bertzearen zeiber, eta ez du deusere eskas utzi.

26. Bakhotxari finkatu dio bere ona; eta nor aseko da haren ospearen ikhusten?

### XLIII. KAP.

1. Ortzia bere goratasunean erakhusten du zeinen den ederra; zeruaren edertasuna ospearen erdian agertzen da;

2. Etzatean gure begietara agerrarazten du iguzkiak, ontzi ederresgarri Guziz-Goraren obrak.

3. Eguerditan erretzen du lurra, eta nork iraun haren khaldaren azpian? Labeak bezalako berotasuna badaduka bere lanetan.

4. Iguzkiak hiruretan xigortzen ditu mendiak; suzko dirdirak igortzen ditu, eta haren distirak liluratzen ditu begiak.

5. Handia da Jauna, hura egin duena; eta haren manura, iguzkiak laster egiten du bere bidean.

6. Ilhargia bere itzulian da guzientzat denboren erakhusle, epheen berezle.

7. Ilhargiak erakusten ditu Nesta-egunak: hura da argizagia, bethe den orduko aphurtuz dihoana.

8. Haren izenetik deitzen da hilabethea; handituz dihoa miresgarriki bethe dadien arteo.

9. Hergoretan agertzen da armada bat, ospetsuki distiratzen duena zeruetako ortzian.

10. Izarren ospea da zeruko edertasuna; Jaunak argitzen du lurra hergoretarik.

11. Sainduaren lehen hitzari begira daude haren manuaren bethetzeko, eta beren atzartasunean ez dira hutsean gerthatuko.

12. Ikhustitu ortzadarra eta benedika haren egilea; guziz da ederra bere distiraduran.

13. Inguratzen du zerua bere ospezko arranbelaz; Guziz-Goraren eskuek agerrarazi dute hura.

14. Manatzen du elhurra, eta fharrastan heldu da; igortzen du ximista, eta ximistak laster egiten du haren erabakiaren bethetzerara.

15. Horren gatik dira zabalduak Jainkoaren harmategiak, eta hedoiak xoriak bezala dira hegaldatu.

16. Jaunaren indar gaitzak metatu ditu hedoiak, eta leherrarazi harri-abarrak.

17. Haren begi ukhaldi batera ikharatu dira mendiak; haren nahi batera xixtuz abiatu da hegoa.

18. Haren ihurtzuri-karraskek, mendebalaren phesiek, haize-xirimolek lastu dute lurra.

19. Kokatzera jausten den xori elemenia bat bezala hedatu du elhurra, zeina jautsi baita xartala erortzen denean bezala.

20. Haren zuritasunak zoratzen du begia, eta harek dadukan urak ikharatzen bihotza.

21. Gatza bezala lurrera ixurtzen du izotza, eta hormatzen denean, kharloaren arrantzeak iduri egiten da.

22. Iphar-haize hotzak jo du, eta ura kristaila bezala hormatu da; ur-osin guzien gainean baratzen da, eta erredola bat bezala jaunzten du ur gogortua.

23. Mendiak larrutzen ditu, mortua erretzen, eta belharra suak bezala xipiltzen.

24. Lanho batek laster egin dezan, eta oro sendaturen dira; bero heldu denetik jauts bedi ihintza eta harek hautsiren du.

25. Jaunaren hitz bati ixildu da haizea; haren gogo-iragaite bati jabaldu dira ondarrak, eta Jaunak han jarri ditu irlak.

26. Itsasotan dabilzanek erran betzazte hango galmentak; eta gure beharrez aditzearekin, miretsiak geldituren gare.

27. Han dira egintza guziz eder, harrigarriak, asko abere-mota, eta azienda orotarik eta kreatura gaitzak.



28. Jainkoaren manuz guziak dihoazi beren akhabantzara; haren hitz batez oro dira xuxenduak.

29. Asko erranen dugu, eta ahituren gare gure solasetan; baina hitz guzien akhabantza hau da, gauza guzietan dela Jauna.

30. Haren ospatzeko zer da gure ahala? Alabainan bere egintza guzien gaineko da Ahalarotakoa.

31. Jauna ikharagarria da eta guziz handia; haren ahala ederresgarria da.

32. Zuen ahal guziaz goretsiko duzue Jauna, eta hura oraino gorago izanen da, eta miresgarria da haren handitasuna.

33. Jauna benedikatzan duzuenek, ahal duzuen bezenbat goretsazue; ezen laudorio guziez handiago da.

34. Haren gorestean, indarrez bethe zaitezte, ez nekha; ez duzue alabainan hura gogoaz ardiesten ahal.

35. Nork hura ikhus? nork erran nolakoa den? nork hura gorets, has-tetik denaren arabera?

36. Haren egintza hainitz, haukiek baino handiagoak, gordeak daude; ezen gutiak dira guk ikhusten ditugunak.

37. Baina Jaunak egin ditu guziak, eta jainkotiarki bizi direnei eman daroete zuhurtzia.

#### XLIV. KAP.

1. Lauda detzagun ospezko gizonak, eta gure arbasoak beren iraul-gian.

2. Jaunak egundainotik bere bizartasunaz ospe handitan ezarri ditu.

3. Nausitasuna gozaten zuten beren erreinutan; gizon berthutez handiak eta gurbiltasunez jauntziak ziren; beren profezietan erakusten zuten profetasunaz dohatuak zirela.

4. Orduko populuari manatzen zaroeten, eta beren gurbiltasunaren ariaz solas guziz sailduak adiarazten zarozten populuei.

5. Hekien antzeak aurkhitu ditu musikako eresiak eta moldatu dituzte Iskrittoretako kantikak.

6. Gizon berthutez aberatsak ziren, zinezko edertasuna maite zutenak eta beren etxeetan baketiarki bizi zirenak.

7. Guziek beren herritarretan mendez mende ospe ardietsi dute, eta beren egunetako laudorioez gozaten dira oraino.

8. Hekien ganik sorthu direnek utzi dute izen bat hekien laudorioek erreplikatzan dituenak.

9. Badira zeinen orhoitzapenik ez baita; ezeztatu dira izan ez balire bezala; sorthu dira sorthu ez-balire bezala, eta hekien semeak hekiekin.

10. Baina lehenbiziko hekiek, gizon karitatetsuak ziren, eta hekien egintza karitatezkoek badiraute;

11. Hekien odolean iraunen dute hekien ontasunek.

12. Hekien ilobasoak ondore sailduak dira, eta hekien odola Jaunarekilako batasunean dago.

13. Hekien ariaz diraute bethi hekien umeek; eta hekien odola eta ospea ez dira bazterrerat utziko.

14. Hekien gorphutzak bakean izan dira ehortziak eta hekien izena menderen mendetan da bizi.

15. Populuek derratela hekien zuhurtzia, eta baldarnak egin betza hekien laudorioak.

16. Henok Jainkoaren gogarako izatu da, eta pharabisura izan da eramana, urrikitan sarraraztekozat jendaia.

17. Noe narriogabe eta prestu izan da atzeman, eta sepharen orduan bakebide da bilhakatu.

18. Hargatik gizon ondar batzu izan ziren lurrean utziak egin zenean uholdea.

19. Haren baithan izan zen ezarria mendearekilako batasuna, haragidunak ez-ditezen gehiago uholdeaz xahutuak izan ahal.

20. Abraham handia jendaietako ostearen aita izatu da, eta ospez haren idurikorik ez da aurkhitu; harek begiratu zuen Guziz-Goraren legea, eta patutan izatu zen harekin.

21. Haren haragiarekin iduki du bere patua, eta frogan zina aurkhitua izan da.

22. Hargatik zin eginik ospea eman izan dio haren jendakiari, berharazi du lurreko herrautsa bezala,

23. Goratu du haren odola izarrak bezala, eta premu egin izan ditu itsaso batetik bertzera, eta hibaitik lurraren bazterretaraino.

24. Eta Isaakentzat orobat egin du haren aita Abrahamen gatik.

25. Jaunak haren baithan benedikatu ditu jendaia guziak, eta batasuna finkatu du Jakoben buruaren gainean.

26. Ezagutu du bere benedizioeez; eman dio agindu primantza eta zathitu hamabi leinuen artean.

27. Eta begiratu diozka gizon karitatetsuak, gizon guzien aitzinean grazia aurkhitzen zutenak.

#### XLV. KAP.

1. Jainkoaz eta gizonez maithatua izan da Moise, zeinaren orhoitzapena benedizionetan baita.



2. Ospez sailduen iduriko egin izan du Jaunak; handietsi du etsaien ikharatzeko, eta haren hitzetara jabaldu dira erakhuskari latzak.
3. Ospe eman dio erregeen aitzinean, manamenduak eman diozka bere populuaeren aitzinean, eta bere ospea erakhusi izan dio.
4. Saindu egin du hura bere fedean eta eztitasunean, eta gizon guzietarik berezi izan du;
5. Ezen entzun ditu hura eta haren mintzoa, eta hedoian sarrarazi du.
6. Populuaren aitzinean eman diozka manamenduak, bizitzeko eta jakitateko legea, Jakobi irakhastekotzat harekilako batasuna eta Israeli haren erabakiak.
7. Handi egin du Aaron, haren anaia eta haren idurikoa, Lebiren leinukoa.
8. Harekin egin du bethiko patua; eman izan dio populuko apheztasuna; ospez eta zorionez bethe du.
9. Ospezko gerriko batez inguratu du; ospezko soin bat jauntzi dio; eta khoroatu du botherearen seinaleez.
10. Eman diozka soin luzea, galtzak eta soingainekoa, eta itzuli guzian inguratu du asko xilintxa urhezkoz,
11. Ibiltzean harrabots egin zezan, tenploan entzunarazteko harrabotsa, populuko umeen oharraspentetan.
12. Eman dio soin saildua, urhez, moredinez eta purpuraz ehoa, gizon zuhur, adimenduz eta zintasunez bethea zen baten obra.
13. Ofizialeak egin du hura eskarlata bihurtuz, harri baliosez berregindurik eta hekiek urhean lothuz, eta harriak harriginaren eskuz lant-huak, Israelgo leinuen nonbrearen arabera hekien orhoitzapentetan.
14. Haren burukoaren gainean bada urhezko khoro bat, zeintan ber-nuzatuak baitira saildutasunaren seinalea eta ohorearen ospea; lan ede-rresgarria eta hekien gogara berregindua;
15. Hain ederrik hura baino lehen ez baita izatu hastapeneraino.
16. Atzerik ez da nihor izatu hura jauntzi duenik, bainan bakharrik Aaronen semeek eta ilobasoek ondoren-ondoko mendeetan.
17. Haren sakrifizioak suaz izan dira egun oroz iraulgiak.
18. Moisek bethe ditu haren eskuak eta hura gantzu du olio sailduaz.
19. Hari eta haren ganikako iraulgiari emana izan zaiote bethiereko patutan, zeruko egunek dirauteno, apheztasuneko eginbideak bethetzea, laudorioen bihurtzeko zuzena izatea, eta bere populuaeren benedikatzeara Jaunaren izenean.
20. Harek hautatu du bizidun guzietarik eskaintzeko sakrifizio, isentsu, usain gozoak Jainkoari, orhoit dadientzat bere populuari begitharte egiteaz;

21. Eta bere manamenduan gainean eta bere erabakietako lekhukotasunen gainean mintzatzeko ahala eman izan dio, manamenduak Jakobi irakhats zetzan eta Israeli legearen gaineko argitasunak egin.
22. Hargatik haren kontra jaiki dira atzeak; eta bekhaizgoz mortuan gizon batzuek, zeinak Dathanekin eta Abironekin baitziren, eta Koreren bilgumak sepha gaixtotan inguratu dute.
23. Jainko Jaunak ikhusi zuen eta etzitzazioen eder iduritu, eta xahu-tuak izan zioen haren hasarrearen oldarrean.
24. Sendagaila gaitzak atheratu ziozkaten gainera eta suaren garrean iraulgi zituen.
25. Eta berhatu zuen Aaronen ospea; eman zioen primantza bat eta berezi ziozkan lurreko fruituen pikainak.
26. Apheztei ogia nasai eman zioten pikainetan; ezen hazi behar dira Jaunaren sakrifizioez, zeinak eman izan baitiozka hari eta haren odolari.
27. Gainerakoan jendaien lurra ez da haren primantzako izanen, eta zathirik ez du populuaerekin; ezen Jauna da bera haren zathi eta primantza.
28. Phinees, Eleazarren semea, hirugarrena da ospez, Aaronen urhatsari jarraiki zelakotz Jaunaren beldurrean.
29. Khordokatu gabe egotu zen populuaeren ahalkagarrikerian; haren arimako prestutasunak eta kharrak Israelen alderat jabaldu zuten Jainkoa.
30. Hargatik egin zuen harekin bakezko batasuna, eta eman zaroen gauza sailduen eta bere populuaeren gainean nausitasuna, bethiko aphez-tasuneko goihendea izan zadien harentzat eta haren ganikako iraulgiaren-tzat.
31. Dabidekin ere, Jeferen seme Judako leinukoarekin, egin zuen patu; primantza eman zaroeten hari eta haren ganikakoei, zuhurtzia ezar zezaten gure bihotzean, zuzentasunean juiatuz haren populua, arren-eta gal etzitezen hekien onak; eta hekien ospea bethirainoko egin zuen hekien ganikako iraulgian.

#### XLVI. KAP.

1. Jesus, Naberen semea, profetetan Moisen ondokoa, gerlan hazkar, eta bere izenaren arabera handi izatu da.
2. Guziz handi izatu da Jainkoaren hautetsien zaintzeko, jaikitzen ziren etsaien gudukatzeko eta Israelen primantzaren irabazteko.
3. Zer ospea ez du bildu eskuak altxatuz eta geziak hirien kontra art-hikiz!
4. Nork hala buru egin izan ahal du haren aitzinean? Ezen Jaunak berak erakharri diozka etsaiak menera.





5. Bere sephan ez othe zuen baratu iguzkia, eta egun bakhar bat ez othe zen bia bezain luze egina izan?

6. Guziz-Gora botheretsuari dei egin zaroen, etsaiei alde orotarik oldartzean; eta Jainko handi eta sainduak entzun zuen, indar ikharagarriko harriak arthikiz.

7. Jauzi zen etsaiaren gainera, eta patarra beheran xahutu izan zuen,

8. Jendaiek ezagutuz zezaten Jaunaren ahala, errex ez baita Jainkoaren kontra gudukatzea. Eta Ahaldunaren ondotik jarraiki zen;

9. Eta Moisen egunetan, harek eta Jephonen seme Kalebek jainkotiarki egin zuten etsaiaren kontra jarriz, populua bekhatutik debekatu, eta tzarkeriako marmarak ithoz.

10. Eta hekiek biak sei ehun mila oinezkotarik izan ziren galmentatik atheratuak eta bereziak populua sarrarazteko bere primantzan, esnea eta ezta darioen lurrean.

11. Eta Jainkoak hazkartasuna eman zaroen Kalebi, eta hari indarra gelditu zitzaioen zahartzerraino, igan zadiantzat lurreko toki gora batera, eta haren odolak izatu du primantza hura;

12. Israelgo seme guziek ezagutuz zezaten on dela Jainko sainduari ethordun izatea.

13. Gero agertu ziren juiiek, bat bertzearen ondotik, eta zeinen biho-tza ez baitzen galdu; hekiek etziren hastandu Jauna ganik,

14. Merezituz benedizionetan izan dadien hekien orhoitzapena; hekien hezurak egun batez jaiki ditezen beren tokitik,

15. Eta menderen mendetan iraun dezan hekien izenak, gizon saindu hekien ospeak irauten duelarik hekien semeen baithan.

16. Samuel, Jaunaren profetak, bere Jainko Jaunaz maithatuak, buruzagitasun berri bat ezarri eta populua gainean gantzutu zituen.

17. Jaunaren legearen arabera juiatu zuen populua; eta Jakoben Jainkoak ikhusi zuen; eta Samuel egjazko profetatzat izan zen frogatua;

18. Bere hitzetan zin ezagutua izan zen, argiaren Jainkoa ikhusi baitzuen.

19. Eta Jaun guziz ahaldunari dei egin zaroen narriogabeko bildots bat imolatu, buru egin zaroetenean atde orotarik inguratzen zuten etsaiei.

20. Eta Jauna zerutik ihurtzuri-karraskaz abiatu zen, eta harrabots gaitzarekin adiarazi zuen bere mintzoa.

21. Eta xehakatu zituen Tiriarren buruzagiak eta Filistindarren aitzindari guziak.

22. Eta Samuelek, bere bizia eta urtheak akhabatzeko aitzinean, lekukotasun atheratu zuen Jaunaren eta haren kristuren aitzinean, nihoren ganik etzutela hartu ez dirurik, ez-eta oinetako bat ere; eta gizonik etzen izatu hari jazarri zaroenik.

23. Eta gero lohakartu zen, eta erregeri ezagutarazi eta erakhutsi zaroen haren biziaren akhabantza, eta lurretik altxatu zuen bere boza profetian mintzatuz populua xahutzera zihoala bere tzartasuna gatik.

## XLVII. KAP.

1. Horiez geroztik jaiki zen Nathan profeta, Dabiden egunetan.

2. Eta nola bilgorra berezten baita haragitik, hala Dabid berezia izan zen Israelgo umeen artetik.

3. Gaztean, lehoinekin dostatu zen bildotsekin bezala, eta hartzekin, hala-nola ardien umerriekin.

4. Ez othe zuen hil digante bat eta populua gainetik khendu laidoa?

5. Eskua altxaturik, habalako harriaz eragotzi zuen Goliathen hanpurustasuna;

6. Alabainan Jaun guziz ahaldunari dei egin zaroen; eta Jaunak haren eskuinean ezarri zuen gerlan gaitza zen gizon baten eragozteko ahala eta bere populua adarraren goratzekoa.

7. Horreletan, hamar mila gizon hilik bezala, ospatu zuen populua, eta Jaunaren benedizionetan laudatu, ospezko khoro bat eskainiz;

8. Ezen xehakatu zituen alde orotako etsaiak, xahutu zituen Filistindar etsaiak egungo eguneraino, eta behin-bethikotz phorroskatu zuen hekien adarra.

9. Bere egintza guzietan sainduari aithor bihurtu zioen, eta Guziz-Gora kantatu zuen kantu ospagarrietan.

10. Bere bihotz oroz laudatu du Jauna eta maithatu du Jainko, haren egile eta etsaien kontra indar-emailea.

11. Kantariak ezarri ditu aldarearen aitzinean, eta hekien kantuetan xuxendu ditu eresiarik gozoenak.

12. Edertu ditu besta-buruak eta berregindu egun sainduak biziaren akhabantzarraino, lauda zezaten Jaunaren izen saindua, eta goizetik handiets Jainkoaren saindutasuna.

13. Jaunak garbitu ditu haren bekhatuak, eta bethiko goratu haren adarra; eta erregetasunaren segurantzeta eta ospezko alkhi bat Israelen eman izan diozka.



14. Haren ondotik jaiki da haren seme zuhurra; eta haren ariaz Jaunak eragotzi du etsaien indar guzia.

15. Bakezko egunetan manatu du Salomonek, zeinari Jainkoak azpiratu baitiozka etsai guziak, etxe bat altxa ziozontzat Jaunaren izenari eta bethikotzat aphaint saindutegi bat. Oi Salomon, nola izan zaren zure gasetasunean argitua?

16. Zuhurtziaz bethea izan zare ibai bat bezala, eta zure izpirituak argitu du lurra.

17. Asmakariz bethe ditutzu zure parabolak; urrungo irletaraino barraiatua izan da zure izena, eta zure bakean maithatua izan zare.

18. Lurrak ederretsi ditu zure kantika, erran-zahar, parabola, argipenak;

19. Eta goretsi du Jainko Jaunaren izena, zeina deitzen baita Israelgo Jainkoa.

20. Urhea bildu duzu kobrea bezala, eta zilhar-murruak egin ditutzu berunez bezain errexki;

21. Eta zure belhaunak khurtu ditutzu emaztekien aitzinean, eta gabetu zare zure gorphutzaren nausitasunaz;

22. Nothatu duzu zure ospea, eta desohoratu zure ganikako iraulgia, hasarrea jauzaraziz zure haurren gainera, eta asperkundera zure erhokeriaren gainera,

23. Bi zathitan ezarrarazi baituzu zure erresuma, eta Efraimdik ilkhiaz buruzagi gogor bat.

24. Bainen Jainkoak ez du bazterrat utziko bere urrikalkortasuna; ez ditu galduko, ez urratuko bere obrak, ez-eta errotik xahutuko bere hautetsiaren ilobasoak, eta ez du galduko Jauna maithatu duenaren odola.

25. Bainen ondar bat utzi dio Jakobi, eta zenbait aldaska Dabiden erroari;

26. Eta Salomonen bizia akhabatu da haren arbasoekin.

27. Eta bere ondoko utzi ditu populuko gizonik zoroena,

28. Gizon umotasunik gabea, Erroboam, zeinak populua hastandu baitu bere asmu txarraz;

29. Eta Jeroboam, Nabaten semea, zeinak bekhatu eragin baitio Israeli, eta Efraimi eman bekhatu egiteko bidea; eta uharra bezala zihozten hekien bekhatuak.

30. Beren bekhatuek irazi dituzte beren lurretik.

31. Gaizki guziak bilhatu zituzten, asperkundera ethor zakioten arteo, eta gero Jaunak barkhatu ziozkaten beren bekhatuak.

## XLVIII. KAP.

1. Elias profeta jaiki zen sua iduri, eta haren hitzak erretzen zuen zuziak bezala.

2. Gosetea jauzarazi zuen populuaren gainera, eta bekhaizgoz haren samurrarazten hari zirenak gutitara ekharriak izan ziren; ezen etzezazketen jasan Jaunaren manamenduak.

3. Jaunaren izenean hertsu zuen zerua, eta handik hiruretan jautsara-zi zuen sua.

4. Horreletan izan zen Elias goretsia bere sendagailez; eta nor hola-koz espanta daiteke zu bezala?

5. Zu, zeinak, Jainko Jaunaren hitzaz, ifernuetarik heriotzearen esku-  
petik eraiki baituzu hil bat;

6. Zeinak xahupenera arthiki baititutzu erregeak, errexki hautsi hekien botherea, eta espantulariak beren ohetik ilkhitzera ez utzi;

7. Zeinak Jaunaren juiamendua aditzen baituzu Sinan eta asperkun-  
dearen erabakiak Horeben;

8. Zeinak gantzutzen baititutzu erregeak asperkunderen atheratzeko, eta profetak egiten zure ondoko;

9. Zeina altxatua izan baitzare su xirimola batean, susko zaldiekilako orga-lasterrean;

10. Zeina izan baitzare berezia Jaunaren hasarrearen ematzeko juiamenduetako orduan, aitaren bihotza semearen gana biltzeko, eta Jakoben leinuen bihurrazteko lehengo heinera.

11. Dohatsu dira ikhusi zaituztenak eta zure adiskidantzaz berreginduak;

12. Ezen gu, gure bizian baxharrik bizi gare; bainen hil garen ondolan, gure izena ez da hala izanen.

13. Elias halabadere xirimolan itzalia izan da; haren izpiritua ordean Eliseoren baithan da gelditu: Eliseo bere egunetan ez da edozein buruzagiren beldur izan, eta ahalez nihor ez da haren garai izatu.

14. Deusek-ere ez du hura garhaitu; eta hil ondoan ere, profetisatu du haren gorphutzak.

15. Harritzeko gauzak egin ditu bere bizian eta sendagailak hil ondoan.

16. Horien guzien gatik populua ez da urrikitan sarthu, ez-eta bere bekhatuetarik ilkhi, bere lurretik irazia eta bazter orotan barraiatua izan arteo;

17. Eta jende guti bat eta Dabiden etxean printze bat baizen ez da gelditu.



18. Hekietarik batzuek egin izan dute Jainkoaren gogara zena; bainan bertzeek bekhatu hainitz.

19. Ezekiasiek bere hiria hazkartu du, haren erdira ura erakharri, harroka burdinaz zilhatu eta urarentzat putzu bat egin.

20. Haren egunetan, Senakerib igan zen; igorri zuen Errabfazes; bere eskua hekien kontra goratu zuen, eta Sionen gainera altxatu, eta bere ahalaz hanpurustu zen.

21. Orduan ikharatu ziren hekien eskuak eta bihotzak eta heiagoraka egotu ziren, emaztekiak erdi-minetan bezala;

22. Jaun urrikalmendutsuari dei egin zaroten; eta eskuak hedatuz, zerura altxatu zituzten; eta Jainko Jaun sailduak berehala entzun zuen hekien mintzoa.

23. Etzen orhoitu hekien bekhatuez, eta etzituen beren etsaiei arthiki; bainan Isaias profeta sailduaren eskuz xahu egin zituen.

24. Eragotzi zituen Asiriarren kanpak; eta Jaunaren aingeruak zathikatu zuen hekien armada.

25. Alabainan Ezekiasiek egin izan zuen Jainkoari lakhet zaiोजना, eta bihotzoiki ibili zen bere aita Dabiden bidez, zeina manatu baitzaroen Isaiasek, profeta handi eta Jainkoaren aitzinean fidelak.

26. Haren egunetan iguzkiak gibelerat egin izan zuen, eta Jaunak luzatu zuen erregeren bizia.

27. Izpiritu handiaren bidez Isaiasek ikhushi zituen azken denborak, eta sosegu eman zaroten Sionen nigarrez zaudezenei.

28. Erakhutsi zuen ethorkizuna bethi guziraino, eta gauza gordeak, gertha zitezen aitzinetik.

### XLIX. KAP.

1. Josiasezko orhoitzapena da, baltsamuginak aphaindu usain gozoaren pare.

2. Haren orhoitzapena guzien ahoan gozo izanen da hala-nola ezitia, hala-nola musika arnozko besta batean.

3. Jainkozki bidatua izan da urrikitan sarraraztera populua, eta irazi ditu tzarkeriazko hatsgarrikeriak.

4. Eta Jainkoaren alderat itzularazi du haren bihotza, eta bekhatutako mendean gogortu du jainkotiartasuna.

5. Dabidez, Ezekiasiez eta Josiasez kanpo, oro bekhatutan erori dira.

6. Alabainan Judako errege guziek bazterrerat utzi dute Guziz-Goraren legea, eta Jainkoaren beldurraz ez dute axolarik izan;

7. Ezik bertze batzuei eman darote beren erresuma eta jendaki arrotz bati beren ospea.

8. Arrotzek erre dute saildutasuneko hiri hautatua, eta mortu egin hango karrikak, Jeremiasen erranaren arabera.

9. Alabainan populua gaizki erabili zuen, amaren sabeletik profeta-tzat kontsekratua zena eta bidalia eragoztera, xahutzera eta galtzera, eta berriz altxatzera eta erreberritzera.

10. Ezekielek izatu du ospezko ikhushpena, zeina erakhutsi baitzaroen Jaunak kerubinen orga-lasterrean;

11. Ezen uriaren itxuraren azpian erakhutsi ditu etsaien asturugaitzak, eta bide zuzenak iduki dituztenen zoriona.

12. Beren lekhitik jaik beitez hamabi profeten hezurak; ezen hekiek hazkartu dute Jakob eta beren buruak dituzte berrerosi beren bihotzoitasunaren zintasunaz.

13. Nola handitsiren dugu Zorobabel? ezen hura izatu da hala-nola erreztun bat esku eskuinean;

14. Bai eta orobat nola handiets Jesus, Josedeken semea? Hekiek beren egunetan altxatu dute Jaunaren etxea eta berritu haren tenplo saildua, bethiereko ospearentzat aphaindua.

15. Eta menderen mende orhoitzapenetan izan bedi Nehemias ere, zeinak xutitu baititu gure harrasi urratuak, asentatu atheak eta zerrapoak, eta altxatu gure etxeak.

16. Nihor lurrean Henok bezalakorik ez da sorthu; ezen lurretik eramana izan da;

17. Ez-eta Josep bezalakorik, zeina sorthu baita gizon, bere anaien buruzagi, bere jendakiaren habe, bere anaien hotsemaile, eta bere populuaren gogogarri.

18. Haren hezurak ikhartuak izan dira, eta hil ondoan profetisatu dute.

19. Sethek eta Semek ospe ardietsi izan dute gizonen baithan; bainan Adam egundainotik guzien garai izatu da.

### L. KAP.

1. Oniasen semea zen Simon aphez-handia, zeinak bizi zelarik gogortu baitzuen Jaunaren etxea, eta bere egunetan hazkartu tenploa.

2. Harek eginarazi zituen halaber tenploko asentu barnak, etxe bikhuna eta harrasi gorak.

3. Haren egunetan ur-putzuei bazarioten, eta itsasoa iduri betheak ziren nihoiz ez bezala.



4. Haren bere populuz izan zuen artha eta galpenetik libratu zuen.
5. Izan zuen hiriaren handitzeko ahala, ospe ardietsi zuen populua-  
ren gaineko karguan eta handitu zuen tenploko eta lorioko sartzea.
6. Bere egunetan argitu du hala-nola artizarrak lanhoaren artetik,  
hala-nola ilhargi betheak;
7. Eta nola iguzki dirdiragarriak, hala distiratu du Jainkoaren tenplo-  
an;
8. Ortzadar ospezko lanhoen erdian argitzen duenak bezala, prima-  
derako egunetan arrosen loreak bezala, ur-hegietako liliek bezala, udako  
egunetan pasatzen duen isentsua iduri;
9. Su argitzen duena eta suan erretzen den isentsua iduri,
10. Urhe osozko untzi, harri eder oroz berregindua iduri;
11. Muskiltzen den oliba eta goiti altxatzen den ziprea iduri; hala da  
agertu, hartu duenean ospezko soina, eta jauntzi dituenen bere kargua-  
ren bethetzeko soinekoak.
12. Aldare saindura igan denean, ospe eman dio saindutasuneko  
jauntziari.
13. Aphezen eskuetarik bitimen zathiak hartzean, xutik zagonean  
aldarearen ondoan, bere anaiak inguruan zituen, hala-nola Libango men-  
dian landatuak diren zedroak.
14. Hala egoten ziren haren inguruan, nola palmaren adarrak; eta  
Aaronen seme guziak beren ospearen erdian ziren.
15. Eskaintza, berriz, hekien eskuz egiten zen Israelgo baldarna  
guziaren aitzinean; eta sakrifizioa aldarean akhabatuz, ohore ekhartzen  
zioen errege guziz gorarentzateko eskaintzari.
16. Libazionearen egiteko hedatu du eskua, eta mahatsaren odoletik  
egin du libazionea.
17. Aldarearen oinetan nausi guziz gorari ixuri dio jainkokarako usain  
gozoa.
18. Orduan Aaronen semeek oihu handi bat egin dute; durrundarazi  
dituzte kobrezko turutak, eta harrabots handi bat adiarazi dute orhoitza-  
penetan Jaunaren aitzinean.
19. Orduan populu guzia pharrastan ethorri da; lurrera ahuspeka  
erori dira beren Jainko Jaunaren adoratzeko eta beren othoitzen igortze-  
ko Jainko botheretsu guziz gorari.
20. Psalmu kantatzaileek altxatu dituzte bozak eta eresia eztimasun  
bethea berhatu da etxe handian.

21. Eta populua bere othoitzean errekeitu du Jaun guziz gora,  
Jaunari bihurtu arteo zor zaion ohorea eta aphezek bethe arteo beren  
eginbideak.

22. Orduan aldaretik jautsirik, aphez-handiak altxatu ditu eskuak  
Israelgo semeen baldarna guziaren gainera, ospe Jainkoari bere ezpainez  
bihurtzeko, eta haren izenean ospatua izateko.

23. Eta errepikatu du bere othoitza, Jainkoaren indarraren erakhus-  
tea gatik.

24. Eta orai othoitzazue guzien Jainkoa, zeinak lur guzian gauza han-  
diak egin baititu, gure egunak berbatu amaren sabeletik ilkhi garenaz  
geroztik; eta gurekin egin baitu bere urrikalmenduaren arabera;

25. Eta eman biazagu bihotzeko goiheretasuna; eta gure egunetan,  
bakea egin dadien Israelen menderen mendetako;

26. Sinhets dezan Israelek gurekin dela Jainkoaren urrikalmendua,  
arren-eta libra gaitzan haren egunetan.

27. Bi jendaki ditu gaitzirizkotan ene arimak; higuin dudan hiruga-  
rrena, ez da jendakia:

28. Seirgo mendian egoten direnak eta Filistindarrak, eta Sikemen  
dagoen populu zoroa.

29. Zuhurtziaren eta jakitatearen irakhasmena liburu huntan iskriba-  
tu du Jesus, Siraken seme Jerusalemarrak, eta bere bihotzetik erreberri-  
tu du zuhurtzia.

30. Dohatsu hitz on haukietan alhatzen dena Bere bihotzean haukiek  
ezartzen dituen izanen da bethi zuhur;

31. Ezen haukien arabera egiten badu, orotako gai izanen da; zeren  
Jainkoaren argiak bidatzen baitu haren urhatsa.

## LI. KAP.

1. Jesus, Siraken semearen othoitza. Aithor darotzut bihurturen, Jaun  
erregea, eta laudaturen zaitut, Jainko ene salbatzailea.

2. Aithor zure izenari diot bihurturen, zeren ene laguntzaile eta geri-  
zattaile zaren egin.

3. Ene gorputza libratu duzu galpenetik, mihi gaixtoaren arteetarik  
eta gezur-egileen ezpainetarik, eta ene laguntzaile zare atheratu jazartzen  
zarotatenen aitzinera.

4. Zure urrikalmenduaren handitasunaren arabera libratu nauzu ene  
irestera orroaz abiatuak zirenen ganik,

5. Ene bizia bilhatzen zutenen eskuetarik eta inguratzen ninduten  
hesturen atheketarik.



6. Inguratu nauen garraren khaldatik atheratu nauzu, eta suaren erdian beroak ez nau jo;
7. Ifernu barneko ondarretarik, mihi likhitsetik, gezurrezko solasetik, errege gaixtoaren ganik, eta mihi tzarretik itzurrazazi nauzu.
8. Ene arimak hil arteo laudaturen du Jauna,
9. Ene bizia hobia behera abian baitzen.
10. Alde orotarik ninduten inguratu, eta nihor etzen ene laguntzeko; gizonen laguntzari nindagoen begira, eta etzen enetzat.
11. Zure urrikalmenduaz orhoitu naiz, Jauna, eta zure egintzaz, zeinak egundainotik baitira;
12. Atheratzen dituzulakotz, Jauna, zure iguri egoten direnak eta jendaen eskuetarik libratzen dituzulakotz.
13. Lurraren gainean altxatu duzu ene egoitza, eta heldu zen herioaren kontra zaitut othoiztu.
14. Dei egin diot Jaunari, ene Jaunaren aitari, laguntzarik gabe ez nindezan utz ene hesturako orduan, eta hanpurutsuen egunean.
15. Zure izenaren laudatzetik ez naiz baraturen, eta laudatuko dut aithor bihurtuz, entzuna izan delakotz ene othoizta;
16. Galpenetik itzurrazazi eta ordu gaitzetik atheratu nauzulakotz.
17. Hargatik darotzut aithor bihurturen, zure laudorioak ditut kantaturen eta Jaunaren izena dut benedikaturen.
18. Gazte nintzelarik oraino, zeihertu baino lehen, ene othoitzean zuhurtasuna garbiki dut bilhatu.
19. Tenploaren aitzinean galdatzen nuen hura, eta azken eguneraino bilhaturen dut. Eta loratu da, mahats goixtiarra iduri;
20. Eta une bihotza hartan da goiheretu. Bide zuzenean ibili da ene oina; gaztedanik bilhatu dut zuhurtzia;
21. Aphur bat beheititu diot beharria, eta ardietsi izan dut.
22. Zuhurtasun handia aurkhitu dut ene baithan, eta hainitz naiz hartaz baliatu.
23. Haren emaileari diot bihurturen ospe;
24. Ezen zuhurtziak nahi duenaren egiteko gogoa hartua dut; ongirako kharra badut, eta ez naiz ahalketan eroriko.
25. Haren ariaz gudukatu da ene arima, eta gogortu naiz harek nahi duena eginez.
26. Ene eskuak altxatu ditut goiti, eta hura ez ezagutzeaz egotu naiz deithoretan.
27. Hari buruz eraman dut ene arima, eta argitzearekin aurkhitu izan dut.

28. Haren bidez hastapenetik ene bihotzaren jabe izatu naiz: horren gatik ez naiz izanen bazterrerat utzia.
29. Haren bilhatzean asaldutan izan da ene barnea; aria hortaz gozaturen dut ontasun handi hura.
30. Saritzat Jaunak eman darot mihia, eta hartaz beraz dut laudaturen.
31. Hurbil zakizkidate, jakintsun etzaretenak, eta bil zaitetze irakhaspeneko etxera.
32. Zergatik berantzen duzue oraino? eta zer diozue huni? Egartsu handiak daduzka zuen arimak.
33. Ideki izan dut ene ahoa, eta mintzatu naiz; zuhurtzia dirurik gabe erosazue,
34. Eta uztarriaren azpian ezar zazue lephoa, eta zuen arimak har beza irakhasmena; ezen haren atzemateko, hurbilean dago.
35. Ikhusazue zuen begiz, guti nekhatu naizela eta sosegu handia aurkhitu dudala.
36. Dirutze handi bat bezala har zazue irakhasmena, eta hartan urheketa handi baten jabe izanen zarete.
37. Jaunaren urrikalmenduan goihere bedi zuen arima; eta haren laudoretan etzarete ahalketara izanen arthikiak.
38. Muga deno egizue zuen lana, eta ordu ditakeenean emanen darotzue zuen saria.



## ISAIASEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Amosen seme, Isaiasen ikhuspena, Judaren eta Jerusalemen gainean, Judako errege Ozias, Joathan, Akaz eta Ezekiasen egunetan ikhusi duena.

2. Zeruak, adi zazue; lurra, emak beharria; zeren Jainkoa baita mintzatu. Hazi eta altxatu ditut haurrak; hekiek aldiz nardatu dira nitaz.

3. Idiak ezagutzen du bere jabea, eta astoak bere nausiaren heia; Israelek ordean ez nau ezagutu, eta ene populuak ez du aditzarik.

4. Zorigaitz jendaki bekhatoreari, populu tzarkeriak thoilduari, iraulgi gaixtoari, ume galdue! Bazterrerat utzi dute Jauna, burhoztatu dute Israelgo saildua, atzetu dira gibelerat eginez.

5. Gaugero non joko zaituztet, legearen hausten berhatuz zihozte-nak? Buru guziak hagaranduak, bihotz guziak eroriak dira.

6. Oin-zolatik buru-kaskora, hekietan nihon ez da aurkhintza sasual bat; sarraski, uspel, zauri hantu, ez dira ez lothuak, ez erremedioz gantzutuak, ez olioiz gozatuak.

7. Zuen lurra mortu egina da, zuen hiriak suz erreak; arrotzek zuen aitzinean iresten dute zuen herria, eta desmasiatua izanen da hala-nola gerlateko xahupenean.

8. Siongo alaba izanen da trebes utzia hala-nola mahastian etxola, konkondre-alhorrean xolopioa, eta xahutzen hari den hiria bezala.

9. Armadetako Jaunak utzi ez baleroku hazia, Sodoma bezala eta Gomorharen iduriko izanen ginen.

10. Jaunaren hitza adi zazue, Sodomako buruzagiak; Gomorhako populua, beharriaz ardietsak gure Jainkoaren legea.

11. Zer zait niri zuen bitimaketa? dio Jaunak. Bethea naiz; ez dut nahi zuen aharien holokaustarik, ez abereen bilgorrik, ez aratxeen odolik, ez-eta bildots eta akherrenik.

12. Ene aitzinera ethorri zaretenean, nork halakorik galdatu izan du zuen eskuetarik, zuek ibiltzeko ene lorioetan?

13. Gehiago ez eskaint sakrifizio alferrik; hatsgarri zait isentsua; ezin jasan detzazket ilhargi berri, larunbat eta bertze bestak; tzarkeriaz betheak dira zuen bilkhuak.

14. Ene arimak hastiatu ditu zuen hilabetheko lehen egunak eta zuen besta-buruak; gaitzigarri zaizkit bilhakatu; lan izatu dut hekien jasaiten.

15. Eta eskuak hedatuko ditutzuenean, zuen ganik bazterturen ditut begiak; eta othoizka hariko zaretenean, ez dut entzunen; ezen zuen eskuak odolez dira betheak.

16. Garbi, xahu zaitezte; ene begien aitzinetik khien zazue zuen gogoten tzarra; bara zaitezte gaixtoki ibiltzetik.

17. Ikhasazue ongi egiten, bilha zazue zuzentasuna, ehoa dagoenari laguntza ekharrozue, umezurtzari zuzenbidea bihur, zaint alharguna.

18. Eta gero zatozte, aria galda diazazute, dio Jaunak; eskarlata bezala balira ere zuen bekhatuak, elhurra bezala xurituko dira, eta purpura bezain gorri balira ere, ilea bezain xuri dira eginen.

19. Nahi baduzue, entzuten banauzue, lurreko onez gozaturen zarete.

20. Nahi ez baduzue, eta hasarrera tarritatzen banauzue, ezpatak iretsiren zaituztete; ezen Jaunaren ahoa da mintzatu.

21. Nola da lilitxo egin hiri fidel, zuzentasunez bethea? Zuzenbidea han egotu da, orai aldiz gizon-hiltzaileak.

22. Hire zilharra zephara bihurtua eta hire arnoa urarekin nahastekatua dun.

23. Hire buruzagiak fedegabeak, ohoin-lagunak ditun; guziak emaitzazale dira, sarien ondotik dabilta. Umezurtzarentzat ez diote zuzenari bere bidea ematen, eta alhargunaren xuritzekoak ez du hekien aitzinera sarbiderik.

24. Aria hortaz, dio armadetako Jainko Jaun, Israelgo hazkarrak: Baiki! sosegu emanen diot ene buruari ene etsaien gainean, asperturen naiz ene etsaiez.

25. Eta zure gainera itzuliren dut eskua, eta zure zepha khenduren dut xahu-xahua egin arteo, eta edekiren dut zutan den ezteinu guzia.

26. Eta zure juiek berriz jarriren ditut lehen ziren bezala, eta biltzar-lariak beihala bezala; gero deithuko zare prestuaren hiria, hiri fidela.

27. Juiamenduaz berrerosiko da Sion, eta zuzentasunak bihurraziko du.

28. Jainkoak batean lehertuko ditu gaixtaginak eta bekhatoreak, eta iraukiak izanen dira Jauna bazterrerat utzi dutenak.

29. Ahalketara arthikiak izanen dira idolez, zeinei sakrifikatu baitute; eta ahalkez gorrituko zarete hautatu dituzuen baratzeen ariaz;

30. Hostoak erortzen zaizkon haritza bezala eta urik gabeko baratze bat iduri izaten zaretenean.

31. Eta zuen indarra izanen da su duen arkola iduri; eta zuen lana, hala-nola phindar bat; eta biak batean errekei dira, eta nihor ez da izanen suaren hiltzeko.



## II. KAP.

1. Zer ikhusi zuen Isaiasek, Amosen semeak, Judaren eta Jerusalemen gainean.

2. Eta azken egunetan, Jaunaren etxeko mendia mendien kaskoan izanen da xuxendua, eta mendixkez gorago helduko da, eta jendaiak hartara fharrastan ethorriko dira.

3. Eta asko populu ethorriko dira, eta erranen dute: Zatozte eta igan gaitezen Jaunaren mendira eta Jakoben Jainkoaren etxera; eta irakhatsiren darozkigu bere bideak, eta haren bidexketan ibiliko gare; ezen Siondik ilkhiko da legea, eta Jerusalem dik Jaunaren hitza.

4. Eta Jaunak juiaturen ditu jendaiak eta azurriaturen asko populu; eta beren ezpatetarik eginen dituzte goldeak eta beren lantzetarik segak; jendaiak jendaiaren kontra ez du altxaturen ezpata, eta ez dira gehiagi gudu ka hariko.

5. Jakob en etxea, zato, eta ibil gaitezen Jaunaren argitara.

6. Alabainan, Jauna, hastandu duzu zure populu a, Jakob en etxea, beihala bezala betheak direlakotz, eta Filistindarrek bezala asmaginak izan dituztelakotz eta ume arrotzei iratxiki baitira.

7. Hekien lurra urhez eta zilharrez bethea da, eta hekien ontasuntzeak ez du ondarrik.

8. Eta hekien lurra bethea da zaldiz eta ezin-khondatuzko orga-lasterrez, eta bethea da idolaz; adoratu dute beren eskuetak o lana; beren erhiz egin izan dutena.

9. Eta gizona gurtu, gizona aphaldu da; ez biozozu beraz barkha.

10. Harrian sar zaitezte, zilhoetan lurr az gorde zaitezte Jaunaren hasarreari eta haren maiestatearen ospari.

11. Gizonaren begi goratiak aphalduak eta gizonen burgoitasuna beheitua izanen dira; Jauna aldiz egun hartan bakharrik izanen da goretsia;

12. Ezen armadetako Jaunaren eguna ilkhitzera dihoa hanpurutsu, burgoi eta ozar guzien gainera, eta aphalduak izanen dira;

13. Eta atheraturen da Libango zedro handi eta gora guzien gainera, eta Basango haritz guzien gainera,

14. Eta mendi handi guzien gainera, eta mendixka gora guzien gainera,

15. Eta dorre gora guzien gainera, eta harrasi gora guzien gainera,

16. Eta Tharsiseko untzi guzien gainera, eta begiko eder diren gauza guzien gainera.

17. Eta gizonen burgoitasuna beheitua izanen da, eta gizonen handigoa aphaldu a izanen da, eta Jauna egun hartan bakharrik izanen da goretsia;

18. Eta idolak arraseraino izanen dira xahutuak.

19. Eta gizonak har-zilhoetan eta lurreko lezeetan sarthuko dira Jaunaren beldurraren eta haren ospeko maiestatearen ihes, jaikiko denean lurraren jotzera.

20. Egun hartan gizonak bere ganik urrun arthikiren ditu bere zilharrezko idolak eta bere urhezko itxurak, sathor eta gau-ainhara, adoratzeko egin zituenak.

21. Eta har-arteketan eta gerenda-zilhoetan sarthuko da Jaunaren beldurraren eta haren ospeko maiestatearen ihes, jaikiko denean lurraren jotzera.

22. Bara zaitezte beraz gizonaren ganik, zeinak sudur-mizpiretan baita hatsa, ezen Guviz-Gora da bakharrik ahandun.

## III. KAP.

1. Alabainan huna non Jaunak, armadetako Jaunak Jerusalem dik eta Judatik khenduko dituela ahala eta khabua, ogiaren indar guzia eta uraren indarra oro,

2. Bihoz duna eta gizon gerlaria, jugea eta profeta, aztia eta zaharra,

3. Berrogoi eta hamar gizonen aitzindaria, eta begitharte ahalkesuneko gizona, eta kontseilu-emailea, eta etxeginetarik jakinena, eta legeko hitzetan argitua dena.

4. Eta buruzagitzat emanen ditut haur batzu, eta emagizon batzu izanen dituzte nausi.

5. Eta populu a jauziko da, gizona gizonaren gainera, eta bakhotxa bere lagunaren kontra; haurrak jazarriko dio zaharrari, jende xeheak handiei;

6. Ezen gizonak hartuko du bere anaia, bere aitaren sehia, erranez: Baduzu aldagarria, izan zaite gure buruzagi; aldiz asturugaitz huntan har zazu manamendua.

7. Hunek ihardetsiko du egun hartan, dioelarik: Ez naiz medeatzeko gai, eta ene etxean ez da ez ogirik ez soinekorik; ez benezazue ezar populuko buruzagi.

8. Alabainan Jerusalem e egozten da eta Juda erortzen, zeren hekien mihia eta asmuak Jaunaren kontra altxatu diren, haren maiestatearen hekien hasarre arazteko.



9. Hekien begitharteko ahalkegabetasunak ihardetsi du hekientzat; Sodomak bezala oihu egin dute beren bekhatua eta ez dute gorde: zorigaitz hekien biziari! zeren gaizkia ordainez bihurtua baitzaiote.

10. Errozute prestuari, ongi egin duelakotz, janen duela bere asmuen frututik.

11. Zorigaitz gaixtaginari gaizkipean! ezen bere egintzen sana zaio emanen.

12. Zerga-biltzaileek larrutu dute ene populua, eta emaztekiak zituzten nausi. Oi ene populua, dohatsu erraten zaituztenek, hekiek berek enganatzen zaituzte, eta zure aitzineko bidea dute urratzen.

13. Juiatzeko jarria da Jauna, eta populuen juiatzera dihoa.

14. Jauna juiamendutan sarthuko da bere populuko zaharrekin eta buruzagiekin; zuek ezen alhatu duzue mahastia, eta zuen etxeak, beharri khendu puskaz betheak dira.

15. Zertako derabilkazue oin-pean ene populua, eta uspelkatu dituzte beharren begitharteak? dio Jaunak, armadetako Jainkoak.

16. Eta Jaunak erran du: Siongo alabak zeren diren hantu, zeren buruak gorarik diren ibili, zeren begi kheinuka zabiltzan, zeren esku-zafllaka hari ziren, zeren haizatuki diren ibili, zeren aphainduz egin duten urhatsa,

17. Jaunak khartzoilduren du Siongo alaben kaskoa, Jaunak biphilduko du hekien ilea.

18. Egun hartan Jaunak khenduko diozkate oinetakoen edergailuak eta ilhargixkak,

19. Gatheak, sareak, eskumuturrekoak eta burukoak,

20. Ileetako eta zangarretako lokharriak, gathetto eta baltsamuntziak, eta beharrietakoak,

21. Erreztunak eta beharharen gainera dilindan dituzten harri baliosak,

22. Aldatzeko soinak, soingainekoak, belak eta orratzak,

23. Mirailak, athorrak, xingolak eta kapak;

24. Eta usain goxoaren orde, urrin tzarra izanen dute; eta hekien gerrikoaren orde, sokha bat; eta ile kuskuilatuen orde, khartzoiltasuna; eta bulhargainekoaren orde, zurdatza.

25. Zuen gizonik ederrenak ere ezpataren azpira, eta hazkarrak gudian eroriko dira.

26. Eta Siongo atheak auhen eta nigarretan egonen dira, eta Sion inkoniamendutan lurrean egonen da jarria.

#### IV. KAP.

1. Eta egun hartan zazpi emaztekik gizon bat hartuko dute, diotelarik: Gure ogia janen dugu eta gure soinekoz estaliko gare; bakharrik zure izena gure gainera deithua izan bedi, khen darokuzu, gure laidoa.

2. Egun hartan izanen dira, Jaunaren hazia ospe eta handiespenetan; lurreko fruitua goretsia; eta Israeldik salbatuak izan zirenak, bozkariotan.

3. Eta Sionen gelditu direnak eta Jerusalemeko ondarrak saildu izanen dira deithuak, bizitzeko liburuan Jerusalemen iskribatuak diren guziak;

4. Jaunak garbitu dukeenean Siongo alaben lohia, eta xahutu dukeenean Jerusalem odola haren erditik zuzentasuneko izpirituaz eta kharezko izpirituaz.

5. Eta Jaunak Siongo mendiko lekhu orotan eta hura deithua izan den tokian, eginen ditu hedoi bat egunaz, eta gabaz khe bat eta su-garrezko argidura bat; ezen atde orotarik haren ospea gerizan izanen da.

6. Eta tabernaklea izanen da itzalkari baten azpian egunazko beroaren kontra, eta segurean eta maldan xirimola eta uriaren kontra.

#### V. KAP.

1. Kantatzera noha ene bihotzekoari ene kusiaren kantika bere mahastiari. Ene bihotzekoaren mahastia egina da bizkar gori batean.

2. Eta berroz hertsu du, eta harriak khendu diozka, eta landare hautaz egin du; haren erdian dorre bat altxatu du eta lako bat egin; gero iguriki mahatsak onak athera zetzan, eta basak atheratu ditu.

3. Orai beraz, oi Jerusalem darrak eta Judako gizonak, jua zazue ene artean eta ene mahastiaren artean.

4. Zer zen gehiago ene mahastiari egin behar nioenik eta egin ez diodanik? ez othe nuen igurikitzeke eman zetzan mahats onak, eta basak ekharri ditu?

5. Eta orai erakhutsiren darotzuet zer eginen diodan ene mahastiari. Khenduko diot hesia, eta egonen da nahi duenak larru; urratuko diot harrasia eta egonen da heltzen denak oinka.

6. Eta mortu eraginen dut; ez da izanen ez moztua, ez haitzurtua; lapharrak eta elhorriak iganen dira, eta hedoiei manaturen daroet ez diotzen gainera uririk egin.

7. Armadetako Jaunaren mahastia, Israelen etxea da, eta Judako gizona iguriki dut haren ganik egitate zuzena, eta huna tzarkeria; iguriki dut zuzenbidea, eta huna deihadarrak.





8. Zorigaitz hari zaretenei etxea etxeari uztartzen, landa landari era-txikitzen tokia eskastu arteo! Zuek bakharrik izan behar othe zarete lurra-ren erdian egoteko?

9. Horiek ene beharrietara dira, dio armadetako Jaunak: Etxe eleme-nia hori ez bada mortu egiten...! etxe handi eta eder horiek ez badira nihor gabe gelditzen...!

10. Ezen hamar golde mahastik emanen dute pegar bat arno; eta hogoi eta hamar gaitzeru hazik, hirur gaitzeru bihi.

11. Zorigaitz goizetik hordikeriako jaikitzen, eta mozkortu arteo eda-ten arratseraino haritzen zaretenei!

12. Non da gitarra, lira, atabala, xirola, arno, zuen barazkarietan bai-zik; eta ez duzue ikhusten Jaunaren lana, eta ez diozute begiratzen haren eskuetako egintzei.

13. Hargatik ene populua gathibu izan da eramana, ez duelakotz adi-mendurik izan; eta handi-mandiak gosez hil dira, eta jendea egarriz ihartu.

14. Hargatik zabaldu du ifernuak bere barnea, eta neurririk gabe ideki bere ahoa; eta hazkarrak, eta populua, eta handiak eta ospedunak harat jautsiko dira.

15. Eta makhurtu beharko da gizona, beheratua izanen da indardu-na, eta aphalduak izanen dira handien begiak.

16. Eta goretsia izanen da armadetako Jauna bere juiamenduaz, eta Jainko saildua saildu izanen da erakhutsia zuzenari emanen dioen bidez.

17. Eta bildotsak alhatuko dira nahi duten bezala; eta mortu hekiek, berriz gorituak, arrotzen izanen dira haztoki.

18. Zorigaitz gaixtakeria hutsalkeriako lokharriekin, eta bekhatua orgetako hedeak bezala herrestatzen ditutzuenei!

19. Zeinek erraten baituzue: Higi bedi, eta laster ethor bedi egin gogo duena, ikhus dezaguntzat; hurbil bedi, ethor bedi Israelgo sailduaren asmua, eta jakinen dugu zerika den.

20. Zorigaitz gaizkia ongitzat eta ongia gaizkitzat deitzen, ilhunbeak argi orde ezartzen, khiretsa gozoarentzat eta gozoa khiretsarentzat hartzen ditutzuenei!

21. Zorigaitz zeronen begietan zuhur eta zeronen idurira gurbil zare-tenei!

22. Zorigaitz arno edateko botheretsu eta hordikeriako hazkar zare-tenei;

23. Emaitzen ariaz gaixtagina garbi atheratzen eta prestuari bere zuzena khentzen diozuenei!

24. Horren gatik, nola su-lamak iresten baitu lastoa eta garraren beroak erretzen, hala hekien erroa hauts bilhakaturen da, eta hekien gani-kako hazia ilhaunak bezala izanen. Alabainan oin-pera arthiki dute arma-detako Jaunaren legea, eta burhoztatu Israelgo sailduaren hitza.

25. Aria hortaz Jaunaren hasarrea biztu da haren populuarren kontra; eta haren gainera hedatu du bere eskua, eta jo du; eta mendiak ikharatu dira, eta jende hilak lohia bezala plazen erdian gelditu dira. Horietan oro-tan haren hasarrea ez da jabaldu, bainan haren eskua hedatua da oraino.

26. Eta goratuko du bandera urruneko jendaien begietara, eta bati xixtu eginen dio lurraren bertze bazterrera: eta huna non hau higitzen den eta laster egiten duen.

27. Haren baithan ez da ez akhitzten, ez nekhatzen denik; ez da lohahkarturen, ez du lorik eginen; ez du khenduren gerriko uhala, eta haren oinetakoen lokharria ez da trenkaturen.

28. Haren geziak zorrotzak, haren arranbela guziak hedatuak dira; haren zaldien behatzak iduri du harria, haren arrodek phesiaren oldarra.

29. Haren orroak iduri du lehoinarena; marruma eginen du lehoin-kumeak bezala; eta gurguratuko du, eta harrapatua atxikiko du, eta tinkatuko, eta nihork ezin khenduko dio.

30. Eta egun hartan Israelen gainera orroa eginen du, itsasoaren orroa iduri: begiratuko diogu lurrari; eta huna hesturako ilhunbeak, eta argia belztua da haren hedoiean.

## VI. KAP.

1. Ozias erregea hil den urthean, ikhusi dut Jauna jarlekhu gora-gora batean jarria, eta haren azpian ziren gauzek bethetzen zuten tenploa.

2. Jarlekhuaren gainaldean xutik zauden serafinak: batek bazituen sei hegal, bertzeak bertze sei; bi hegalez itzaltzen zuten Jaunaren begithartea, eta bertze biez gerizatzen haren oinak, eta bertze biez hegaldakan zauden.

3. Eta batak bertzeari oihu egiten zuten, eta erraten zuten: Saildu, saildu, saildua, armadetako Jainko Jauna; haren ospez lurra bethea da guzia.

4. Eta oihu hortara, atheak gain-behera dardaratu dira, eta khez etxea bethe.

5. Eta erran izan dut: Zorigaitz niri zeren ixilik naizen egon; zeren naizen gizon bat ezpainez lohia; eta ezpainak lohituak dituen populu baten erdian nago, eta armadetako errege Jauna ikhusi dut ene begiz.

6. Eta serafinetarik bat hegaldatu da ene gana, eta eskuan zuen ikhatz gorri bat, aldaretik suhatsekin hartu zuena.



7. Eta ukitu du ene ahoa eta erran: Huna non ikhatzak ukitu darozkitzun ezpainak, eta izanen dira zure gaizkia khendua eta zure bekhatua garbitua.

8. Eta aditu dut Jauna erraten: Zein igorriren dut? nor goanen zaiku? Eta ihardetsi dut: Huna ni, bidal nezazu.

9. Eta erran darot: Zoaz, eta errozu populu horri: Entzun zazue ongi, eta ez adi; ikhusazue begiz, eta ezagut ez.

10. Itsu zazu populu horren bihotza, gor zatzu horren beharriak, eta hertsatzu horren begiak, beldurrez-eta ikhus dezaten horren begiek, entzun horren beharriek, adi horren bihotzak, eta bihur dadien, eta senda dezadan.

11. Eta nik erran dut: Noiz arteo, Jauna? Eta ihardetsi du: Hiriak deboilatatuak eta egoiliarrik gabe, etxeak gizon bat gabe, lurra mortu gelditu arteo.

12. Jaunak urrunera haizaturen ditu gizonak, eta berhaturen da lurra-erdian utzia izan dena.

13. Eta xahupena ethorriren da oraino haren gainera, eta hura Jaunaren gana bihurturen da, eta erakhuspenetan izanen da hala-nola tirrimintin-ondoa, hala-nola bere adarrak hedatzen dituen haritza; eta haren baithan gelditu ditakeena, hazi saindua izanen da.

## VII. KAP.

1. Judako errege Oziasen seme, Joathanen seme, Akazen egunetan, gerthatu zen Errasin Siriako errege, eta Phazee Erromeliaren semea, Israelgo errege, Jerusalemara igan zirela hiriaren gudukatzera, eta ezin hartu zuten.

2. Eta Dabiden etxeari berria ekharri zaroten, erranez: Siria Efraimen gainean bermatu da. Eta erregeren bihotza eta populuarena ikharatu ziren, hala-nola oihanetakozuhaitzak dardaratzen baitira haizeak iharrosten dituenean.

3. Eta Jaunak erran zaroen Isaiasi: Zu eta Jasub, seme gelditu zaitzuna, zohazte Akazen bidera, gaineko arraintegiko ixtun burura, bolazainaren landako bidean.

4. Eta erranen diozu: Zaude ixilik; beldurrik ez izan, eta zure bihotza ez bedi ikhara khea darioten bi itxindi muthur horien gatik; Siriako errege Errasinen eta Erromeliaren semearen irakidura hasarreaz ez lotsa;

5. Zeren zure kontra, zu galdu beharrez, batzarre egin duten Siriak, Efraimek eta Erromeliaren semeak, diotelarik:

6. Igan gaitezen Judeara, jazar diozogun Akazi, hartaz nausi gaitezen, eta Judaren erdian Tabeelen semea ezar dezagun erregetzat.

7. Hau dio Jainko Jaunak: Hekien asmua eroriko da, ez da holakorik izanen.

8. Bainan Damas Sirian buruzagi eta Errasin Damasko buruzagi, hirur hogoi eta bortz urthe oraino eta Efraim ez da gehiago populu bat izanen.

9. Eta Samaria izanen da Efraimen buruzagia, Erromeliaren semea Samariako buruzagia. Ez balin baduzue sinhesten, eroriko zarete.

10. Eta Jauna Akazi mintzatu zitzaioen oraino, ziolarik:

11. Zure Jainko Jaunari ezagutkari bat galda diozozu edo ifernuzolan, edo zeru gainean.

12. Eta Akazek ihardetsi zuen: Ez dut galdeginen, eta ez naiz hariko Jaunaren frogatzen.

13. Eta Isaiasek erran zuen: Adi zazu beraz, Dabiden etxea: Guti othe zaitzu gizonetara jasangaitz izatea, ezen ene Jainkoari ere jasangaitz zare?

14. Horren gatik Jaunak ezagutkari bat emanen darotzu berak: Birjina bat amatuko eta seme batez erdiko da, eta haurra deithuko da Emanuel.

15. Burras eta eztiz haziko da, jakin dezan tzarraren hastantzen eta onaren berezten;

16. Ezen tzarraren hastantzen eta onaren hautatzen haurrak jakin dezan baino lehen, zuk higuintzen duzun lurra utzia izanen da bere bi erregeez.

17. Jaunak zure gainera, eta zure populuaren gainera, eta zure aitaren etxearen gainera Asiriarren erregearekin erakharriren ditu egun batzu nolakorik ethorri ez baita Efraim Juda ganik berezi den egunetarik hunat.

18. Eta egun hartan izanen da, Jaunak xixtu eginen diotela Egiptoko hibaien bertze buruan den uliari, eta Asurren lurtean den erleari.

19. Eta ethorriko dira, eta guziak baratuko haranetakoz erreketan, eta harpeetan, eta zuhamuxka guzietan, eta zilho orotan.

20. Eta egun hartan Jaunak, hibaiatz haindian direnen eta Asiriarren erregeren eskuz, maileguzko bizar-nabala batez bezala murrizturen ditu burua, oinetako ileak eta bizar guzia.

21. Eta egun hartan izanen da, gizon batek haziko dituela behi bat eta bi ardi:

22. Eta esnearen nasaitusunaren ariaz, burraz biziko da; ezen lurra-erdian gelditu ditazkeen guziek burra eta eztia janen dute.

23. Eta egun hartan izanen da, mila aihen-ondo mila zilharrezkoren-tzat izatu ziren toki guziak elhorri eta laphar izanen direla.



24. Han gezi, arranbelekin sarthuko dira; ezen lurra oro, laphar eta elhorri izanen da.

25. Eta mendi, jorraiaz jorratuak izanen diren guzietara, ez da hur-bilduko elhorri eta laphar beldurrik; eta izanen dira idien alhapidetza eta arthaldeek oinkatzeko.

### VIII. KAP.

1. Eta Jaunak erran zarotan: Har zazu liburu handi bat, eta hartan iskriba zazu gizonek dakiten arara: Eraman laster buluzkinak, bil berehala harrapakina.

2. Eta hartu ditut lekhuko zinak, Urias apheza eta Zakarias Barakiaren semea.

3. Eta hurbildu natzaio profetesari, eta amatu da, eta seme batez erdi. Eta Jaunak erran darot: Haurrari izentzat emozu: Laster egik buluzkinen hartzera, higi harrapakinaren biltzera;

4. Ezen haurrak bere ait-amen deitzen jakin dezan baino lehen, indarra khendua izanen da Damasetik eta Samariatik, buluzkinak eramana Asiriarren erregeren aitzinean.

5. Eta Jauna mintzatu zait oraino dioelarik:

6. Zeren populu horrek arbiuatu dituen Siloeko urak, ixil-ixila diho-azenak, eta nahiago izan dituen hartu Errafin eta Erromeliaren semea,

7. Horien gatik huna non Jaunak erakharriko dituen horren gainera, Asiriarren erregea eta haren armada guzia, hala-nola hibai bateko urketa gaitz eta muthiria, zeina igaiten baita hegi guzien gainera, eta fharrastaka baitoha haren bazter guzien gainetik.

8. Eta Judea gaindi goanen da oro estaliz, eta iragaitean ura lephoraino ekharriz; eta bere hegalak hedaturen ditu zure lurraren zabaltasunaren bethe, oi Emanuel.

9. Bil zaitezte, populuak, eta garhaituak izanen zarete; urruneko lur guziak, adi zazue, hazkar zaitezte eta garhaituak izanen zarete; har zatzue soinera harmak, eta garhaituak izanen zarete;

10. Asmuak egizkitzue, eta ezeztatuak izanen dira; errazue hitz bat, eta ez da eginen; zeren gurekin baita Jainkoa;

11. Ezen huna zer erran darotan Jaunak, bere esku hazkarraz banindaduka bezala irakhatsi darot ez nindadien goan populu horren bidez, zioelarik:

12. Ez bezazue erran: Zinhartzea! Alabainan populu horrek derabilzkan elhe guziak dira zinhartze bat. Zerk-ere izitzen baitu hori, ez izan beldur beraz joa, eta ez lotsa.

13. Armadetako Jaunari bakharrik bihur diozozue saindutasuneko aithorra; hura bakharrik izan bedi zuen lotsagarri, eta bakharrik zuen lazgarri.

14. Eta hura zuentzat izanen da sainduesgarri; aldiz Israelgo bi etxeentzat, behaztopa-harri eta trebuka-harri; eta Jerusalem daudenentzat, arte bat eta hekien xahugarri.

15. Eta hekietarik asko behaztopatuko, eta eroriko, eta phorroskatuko dira; eta artean sarthuko, eta atzemanak izanen dira.

16. Loth zazu ene errana, eta ene legea zigilatua idukazu ene dizipuluetan.

17. Eta nik igurikiren dut Jauna, bere begithartea Jakoben etxeari gordetzen dioena, eta egonen naiz haren begira.

18. Huna ni eta ene haurrak, Jaunak eman darozkidanak, izan gaitezen, Siongo mendian dagoen armadetako Jaunaren manuz, ezagutkari eta sendagaila batzu Israelen.

19. Eta errana izanen zaitzuenean: Argi zaitezte pithon eta aztietan, zeinek gurguriatzen baitute beren aztikerietan: Populu baxhotxak ez othe du bere Jainkoari galdatzen bizidunentzat hilen ganik?

20. Zoazte hobeki legera eta lekhukotasunera. Ez badira solas horren arabera mintzaten, ez da hekientzat izanen goizeko argia.

21. Eta hura iraganen da handik; eta jendea eroriko da, eta goseteak hartuko du; eta gosetean, sephak hartuko du; eta madarikaturen ditu bere erregea eta bere Jainkoa; eta begiak emanen ditu goiti,

22. Eta begiratuko du lurrera, eta huna atsekabe eta ilhunbeak, erk-hidurak eta hesturak, eta gau beltza orotan, eta ezin itzuriko da bere hesturari.

### IX. KAP.

1. Abiaduratik, arinduak dira Zabulonon lurra eta Nefthaliren lurra, eta azkenerat dorphetua da itsasoko bidea, Jordanez haindian, jendaien Galileakoa.

2. Ilhunbeetan zabilan populuak argi handi bat ikhusi du: herioaren itzaleko ephaitzetan egoten zirenei atheratu zaiote argi bat.

3. Berhatu duzu populua; eta handitu ez duzu bozkarioa. Zure aitzinean dira bozturen, uztan boztuko direnak, hala-nola bozkarioz baitira jauzten garhailariak, harrapakina eginik bereztean buluzkinak.

4. Alabainan hautsi dituztu populua lehertzen zuen uztarria, eta haren bizkarra larrutzen zuen azotea, eta zerga-biltzailearen makhila, hala-nola Madianen egunean.



5. Ezen bortxakako eta tarrapata batean egin harrapakina eta odolez khutsatu soinekoa, erretzera arthikiak eta suaren bazka izanen dira;
6. Ezen haur bat sorthu zaiku, eta seme bat emana izan zaiku; eta buruzagitasuna haren sorbalden gainean jarria izan da; eta deithua izanen da, Ederresgarria, Kontseilaria, Jainkoa, Hazkarra, dathorren mendearen Aita, bakezko Buruzagia.
7. Haren jauntasuna hedaturen da, eta bakeak akhabantzarik izanen ez du; Dabiden tronuan eta haren erreinuaren gainean da jarriren, hura finka eta hazkar dezan zuzentasunean eta zuzenbidean ordutik eta bethi guziraino: armadetako Jaunaren kharrak eginen du hori.
8. Jaunak hitza igorri dio Jakobi, eta Israelen baithan bethe izan da.
9. Eta jakinen dute Efraingo populu guziak eta Samariako egoiliarrek, zeinek baitiote beren bihotzeko buruiope eta hanpuruskerian:
10. Erori dira adrailuak; baina harri pikatuz eginen ditugu etxeak; sikomorak ebaki dituzte, baina zedroak emanen ditugu ordain.
11. Eta Jaunak populu horren gainera jaikaraziren ditu Errafinen etsaiak, eta tarrapatan erakarriren ditu haren etsaiak,
12. Siriarrak iguzki-haizetik eta Filistindarrak mendebaletik; eta aho betheka iretsiren dute Israel. Horiek orok ez dute jabaldu Jaunaren hasarrea, baina hedatua da oraino haren eskua.
13. Eta populua, jotzen zuenaren gana ez da bihurtu; eta armadeta-ko Jauna ez dute bilhatu.
14. Eta Jaunak Israeldik egun batez ebakiren ditu burua eta buztana; manupekoa eta aitzindaria.
15. Zahar eta ohoratzeko dena, hura da burua; eta profeta gezur-irakhaslea, hura da buztana.
16. Eta populu hura dohatsu derratenak, enganatzaila batzu izanen dira; eta dohatsu aiphatuak, hondatuak izanen dira.
17. Hargatik Jauna ez da arraituren Israelgo gazterien gainean; eta urrikalduren etzaiote hango umezurtz, alhargunei; zeren diren oro alegiakari tzar batzu, eta zoroakeriarik baizen ez derasatelakotz aho guziek. Horiek orok ez dute jabaldu, Jaunaren hasarrea, baina oraino hedatua dago haren eskua.
18. Alabainan tzarkeria sua bezala da biztu, laharrak eta elhorriak iretsiren ditu; eta oihana barna oro errez goanen da, eta xirimolaka igorriren du khea.
19. Armadetako Jaunaren hasarrera, ikharaturen da lurra, eta populua izanen da suaren puska iduri: gizonak ez du guphidetsiren bere anaia.

20. Eta eskuinerat eginen du, eta gosez egonen da; eta ezkerrean janen du, eta ez da aseko; bakhotzak iretsiko du bere besoko haragia; Manasek Efraim, Efraimek Manase, eta biek Juda.
21. Horiek orok ez dute jabaldu Jaunaren hasarrea, eta hedatua dago oraino haren eskua.

## X. KAP.

1. Zorigaitz lege gaixto egileei eta zuzen kontrako gauzak iskribatza-tzen dituztenei,
2. Beharren zaphatzeko juiamenduan, bortxa egiteko ene populuko jende xeheari, alhargunak beren puskatzat nahiz eta umezurtzak larrutu beharrez
3. Zer eginen duzue, Jauna ikhustera eta ondikoak urrundik ethorri-ko zaizkitzuean? Nori eginen diozue hel, eta non utziko duzue zuen ospea,
4. Burdinen azpian makhurtuak ez izateko, eta hilak izan direnekin ez erortzeko? Horiekin ororekin Jaunaren hasarrea ez da jabaldua, baina hedatua da oraino haren eskua.
5. Zorigaitz Asurri! Hura da ene sepharen zigorra eta makhila; haren eskuan da ene asperra.
6. Jendaia maltzur baten gana bidaliren dut; ene hasarrean ikhusten dudana populu baten kontra mezuturen dut, eraman detzan buluzkinak, bil dezan harrapakina, eta jendaia hura oin-petara arthik dezan karriketa-ko lohia bezala.
7. Harek ordean, ez holakorik burutan, ez horrelako asmurik bihotzean ez du izanen; baina haren bihotza xahutzera, eta jendaia ez gutiren hiltzera baizik ez da hariko.
8. Erranen du ezik:
9. Ene aitzindariak ez othe dira hanbatean errege batzu? Ez othe da ene-peko nola Karkamis, hala Kalano; nola Arphad, hala Emath? Samaria ez othe Damas bezala?
10. Nola ene eskuak atzeman baititu idolen erresumak, hala eramanen ditu Jerusalem, eta Samariatik hango jainkomoldeak.
11. Samariari eta haren idolei egin diotedana, ez othe diotet eginen Jerusalem, eta haren jainkomoldeei?
12. Baina Jaunak bere egitekoak akhabatu ditukeenean Siongo mendian eta Jerusalem, hau izanen da: Asurgo erregeren bihotz hanturen fruitua ikhustiren dut; ethorriren naiz haren begi harroen buruiopearen gainera;



13. Erran du ezen: Ene besoaren indarrak egin dut; ene zuhurtziaz argitu naiz; populuen artetik khendu ditut mugak; larrutu ditut hekien buruzagiak; eta gora jartzen zirenak, ene ahalaz beheiti herrestatu ditut.

14. Ene eskuak populuen indarra atzeman du xori ohantze bat bezala; eta nola biltzen baitira nonbait utziak diren arroltzeak, hala bildu ditut nik batera lurra oro; eta nihor ez da izan hegal bat higitu, ahoa ideki, heia-gora bat egin duenik.

15. Haizkora handitzen othe da hartaz ebakitzen hari denaren kontra, edo zerra altxatzen othe da hura erabiltzen duenaren kontra? Orobat laiteke baldin zigorra jaikitzen balitz hura altxatzen duenaren kontra, edo makhila jaikitzen balitz, nahiz ez den egur bat baizik.

16. Hargatik Jaunak, armadetako Jainkoak ihardura igorriren du Asurren gorietara; eta haren ospaeren azpian biztuko da su bat suko garra bezala erretzen hariko dena.

17. Eta su hartan izanen da Israelgo argia, eta garrean Israelgo saindua; eta sutan jarriko eta iretsiak izanen dira egun batez Asurren elhorriak eta laharrak.

18. Eta haren oihaneko eta haren Karmelesko ospea, arimatik hezurretaraino iretsia izanen da, eta bera ikhara gorrian ihes ibiliko.

19. Eta haren oihaneko egur-ondarrak, beren gutiaren gatik khondaturen dira, eta haur batek iskribatuko ditu.

20. Eta gerthaturiko da egun hartan, Israeldik gelditu eta Jakob en etxetik itzuri direnek ez dutela bermatzerat eginen beren joilearen gainean, baina zinki bermaturen direla Jaunaren, Israelgo sainduaren gainean.

21. Ondarrak bihurturen dira, Jakob en ondarrak, diot, Jainko hazkarrak.

22. Ezen baldin zure populua, oi Israel, itsasoko legarra bezala balitz ere, hartako ondarrak dira bihurturen; eta ondar guti harek jabalduren du Jainkoaren justizia.

23. Alabainan Jaunak, armadetako Jainkoak lurraren erdian eginen du xahupen eta gutitze handi bat.

24. Horren gatik hau dio armadetako Jainko Jaunak: Ene populu Sionen zaudezena, ez izan Asurren beldur; zaharoaz joko zaitu, eta Egiptoko bidean bere makhila altxatuko du zure gainera.

25. Oraino aphur bat, oraino guti bat, eta ene gaitzidurak eta ene sephak gaindi eginen dute haren gaixtakerien gainera.

26. Armadetako Jaunak haren gainera altxaturen du azotea, hala-nola Madiani egin izan baitzaroen Orebeke harrian, eta bere zaharo hura altxaturen du Egiptoko bidean, beihala itsasoaren gainera egin zuen bezala.

27. Eta hau gerthaturen da egun hartan: Asurren hazta khendua izanen da zure sorbaldetarik, eta haren uztarria zure lephotik, eta uztarria ustelduren da oliorik gabe.

28. Aiathera ethorriren da, Magronen iraganen da, Makmasen utziko ditu bere puskak.

29. Laster iraganen dira; Gaba da gure jartokia: harritu da Errama; Gabaath Saulena ihesari eman da.

30. Galimgo alaba, egizan marruma; atzar, Laisa, eta hi, Anathoth gaixoa.

31. Medemenak ihesari jo du: Gabimdarrak, egizue bihotzez.

32. Eguna da oraino Nobera heltzeko: dardaturen du bere eskua Siongo alabaren mendiaren eta Jerusalemgo munhoaren gainera.

33. Baina Jaunak, armadetako Jainkoak puskaturen du lurrezko untzia lazturaren erdian; larria izanen da arraildua, handia aphaudia.

34. Haizkoraz ebakiak izanen dira oihan beltzak, eta Liban eroriko da bere zuhaitz luzeekin.

## XI. KAP.

1. Jeferen errotik ilkhiren da gando bat, eta haren errotik altxaturen da lore bat.

2. Eta haren ganean phausaturen da Jaunaren izpiritua, zuhurtziazko eta adigarritzko izpiritua, kontseiluzko eta indarrezko izpiritua, jakitatezko eta jainkotiartasunezko izpiritua;

3. Eta Jaunaren beldurrezko izpirituak betheko du. Ez du juiatuko begien ikhusiaren arabera, ez-eta jazarriko beharrien adituaren arabera;

4. Baina zuzenbidean juiatuko ditu beharrak, eta zuzentasunean jazarriko du lurreko gaixoen alde; eta bere ahoko zigorraz joko du lurra, eta bere ezpainetako hatsaz hilen du gaixtagina.

5. Zuzentasuna izanen da haren gerruntze eta fedea haren gerriko.

6. Otsa egonen da bildotsarekin; lehoinabarra pittikarekin etzanean da; aratxea, lehoina eta ardia elkharrekin egonen dira, eta haur batek eragingen daroete.

7. Aratxea eta hartza batean alhatuko dira; hekien umeak elkharrekin etzanean dira, eta lehoinak idiak bezala janen du lastoa.

8. Bulharretik lehora haurra dostatuko da aspikaren zilhoaren gainean, eta higuindua denak bere eskua ezarriko du basilikaren harpean.

9. Zierpe horiek ez dute dainurik eginen ez-eta hilen ene mendi saindu guzian, zeren Jaunaren jakitateaz bethea baita lurra, itsasoko urek estaltzen duten bezala.



10. Egun hartan, jendaiek errekeituren dute Jeferen gandoa; zeina populuen ezagutkari, gora egonen baita, eta ospetsu izanen da haren hobia.

11. Eta egun hartan hau gerthatuko da: Jaunak bigarren aldiko hedaturen du bere eskua gozatzekotzat bere populuaeren ondarra, itzuria Asiriarei, Egiptoari, Phetrosi, Ethiopiari, Elami, Senaarri, Emathi eta itsasoko irlei.

12. Eta ezagutkari bat altxaturen du jendaien erdian, eta bilduren ditu Israelgo ihesliarrak, eta lurraren lau izkinetarik elkharganaturen ditu Judatik barraiatuak zirenak.

13. Eta Efraimen bekhaizgoa khendua izanen da, eta Judaren etsaiak galduak izanen dira; eta Efraim ez da Judaren bekhaizta izanen, eta Juda ez da Efraimen kontra gudukatuko.

14. Itsasoz hegaldaka joko dute Filistindarren gainera, batean larrutuko dituzte iguzki-aldeko umeak; Idumeak eta Moab-herriak ezagutuko dute hekien manamendua, eta Amonen umeek amor egingen daroete.

15. Jaunak deboilaturen du Egiptoko itsasoaren mihia, eta altxaturen du bere eskua hibaiaren gainera bere hatsaren indarrean, eta joko du bere zazpi erreketan, haletan non oinetakoekin iraganen baita hartan gaindi.

16. Eta ene populu ondar Asiriarei itzuriarentzat bide bat izanen da, hala-nola izatu baitzen Israelentzat Egiptoko lurretik igan zen egun hartan.

## XII. KAP.

1. Eta erranen duzu orduan: Aithor bihurturen darotzut, Jauna, zeren hasarre izatu baitzare ene kontra, eta aldaratu da zure sepha, eta eman darotazu sosegu.

2. Huna non Jainkoa den ene salbatzaile; fede zabalean ibiliko naiz eta ez naiz beldur izanen; zeren Jauna baita ene indarra eta ene ospea, eta hura ilkhi baita ene salbatzera.

3. Salbatzailearen ithurrietarik bozkarioz atheraturen ditutzue urak;

4. Eta egun hartan erranen duzue: Jaunari aithor bihur eta haren ize-nari dei egin diozozue; populueta ezagutaraz zatzue haren egintzak; orhoit bekizue haren izena zeinen den handia.

5. Kanta zazue Jauna, zeren dituen egin sendagailak; lur guzian heda zazue hori.

6. Gorets eta lauda zazu, oi Siongo etxea; zeren handiak, Israelgo sainduak zure erdian duen egoitza berea.

## XIII. KAP.

1. Babilonaren desmasia, Isaiasek, Amosen semeak ikhusia.

2. Mendi hedoitsuaren gainean gora zazue ezagutkaria; altxa zazue mintzoa, gora eskua, eta atheetan sar beitez aitzindariak.

3. Manatu ditut ene sainduetsiak, eta ene sephan deithu ditut ene hazkarrak, bozkarioz ene ospean jautzen direnak.

4. Mendietan ageri da ostearen haroa, populu-murrueen burrunba iduri: hori da erregeen eta jendaia bilduen harramantza. Armadetako Jaunak manatu ditu gerlako gizonak,

5. Urrungo lurretarik, ortziaren bertze burutik heldu direnak. Huna Jauna eta haren hasarrearen tresnak, lur guziaren xahutzerat abian.

6. Marruma egizue; ezen hurbil da Jaunaren eguna; heldu da, desmasia Jauna ganik bezala.

7. Hargatik beso guziak erkhituren dira, gizonaren bihotza iharturen

8. Eta xehaturen da. Minez eta oinhazez bihurrikaturen dira; kuintaz egonen dira, erditzen dena iduri; bat bertzeari harritia geldituren da eta hekien begitharteek iduriko dute xigortuak.

9. Huna non dathorren Jaunaren eguna, egun gogor, asper, sepha, hasarrez bethea, lurraren mortu egitera, eta gaixtaginen handik herraustera.

10. Ezen zeruko izarrek eta hekien dirdirak ez dute emanen beren argia; iguzkia sorthu orduko ilhunduren da, eta ilhargiak ez du argituren bere distiraduraz.

11. Eta ethorriren naiz ikhartzera lurreko gaizkiak, eta gaixtaginen kontra, hekien tzarkeriak, eta baraturen dut legegabekoen hanpuruskeria, eta aphalduren dut hazkarren ozartasuna.

12. Gizona bakhanago izanen da urhea baino, urhe garbiena baino.

13. Hortaz gehiago, iharrosiren dut zerua; eta lurra bere tokitik aldaraturen da, armadetako Jaunaren gaitzidura gatik, eta haren hasarrearen irakidurako egunaren ariaz.

14. Eta Babilona izanen da orkhatz ume ihes dihoana iduri, eta ardia bezala; eta biltzeko nihor ez da izanen; batbederak bere herritarretara egingen du, bakhotxa bere lurrera ihes goanen da.

15. Atzeman guzia hila izanen da; eta ethortzera gerthaturen dena ezpataren azpira eroriko da.

16. Begien aitzinean phorroskaturen diozkate beren haurrak; biluziren diozkate etxeak, eta bortxaturen emazteak.

17. Huna non hekien gainera eraikiren ditudan Mediarrak, zeinek ez baitute zilharrik bilhatuko, ez-eta urherik nahiko;



18. Bainan geziz hilen dituzte haurtoak, eta sabelean hazten hari direnei ez dira urrikalduko, eta hekien begiak haurrik ez du guphidetsiko.

19. Eta Babilona, erresumen arteko erregina ospetsu hura, Kaldearren hanpurustasuneko lilia, xahutua izanen da, Jaunak Sodoma eta Gomorra urratu zituen bezala.

20. Menderen mende ez du egoiliarrik izanen; Arabiarrak ere ez ditu han jarriko bere larru-olak, eta artzainak ez dira han phausatuko.

21. Bainan basabereek izanen dute han beren phausa-lekhua; eta erainsugez betheko dira hango etxeak; eta ostrukek izanen dute han beren egoitza; basakherrek eginen dute han jauzi;

22. Eta huntzek hango jauregietan elkharri uhuria eginen dute, eta fedenak egonen dira linburkeriako tenploetan.

#### XIV. KAP.

1. Babilonaren ordua ethorri hurran da, eta ez dira urrun haren egunak; ezen Jakobi urrikalduren zaio Jauna, eta Israeldik bereziren ditu oraino bere hautuzkoak, eta phausaraziren ditu beren lurtean; arrotza hekiei batuko eta Jakobena etxeari iritxikiko da.

2. Eta populuek hartuko eta beren tokira erakharriko dituzte; eta Israelen etxeak izanen ditu hekiek muthil eta neskatotzat Jaunaren lurtean; bere atzemaileak izanen ditu gathibutzat; eta bere nausiak, azpiko.

3. Eta hau gerthatuko da egun hartan, Jainkoak phausua eman darokezunean zure nekhe, zaphadura eta gathibutasun gogor aitzinean jasan ditutzunetarik:

4. Babilonako erregeren kontra hartuko duzu parabola hau, eta erranen duzu: Nola gelditu da zaphatzailea? nola baratu da zerga?

5. Jaunak hautsi ditu gaixtaginen makhila, nausi zabiltzanen zigorra,

6. Populuak bere aiherran jotzen zituena ezin-sendatuzko zauriaz, jendaia bere errabian azpikotzen zituena, eta gogorki jazartzen ziotena.

7. Lur guzia phausuan jarri eta ixildu da; goiheretu eta bozkarioz jauzi da,

8. Izaiak ere eta Libango zedroak boztu hire gainean dituk, diotelarik: Hi lokhartu haizenaz geroztik, nihor ez duk igaiten gare ebakitzera.

9. Ifernu-behera builan jarri duk hire heltzeari, eraiki darozkik diganteak. Lurreko errege guziak, jendaietako buruzagiak oro jaiki dituk beren tronuetarik.

10. Orok ihardetsiko eta erranen daie: Eta hi ere sakhitua izan haiz gu bezala, gure iduriko egina haiz hi ere.

11. Ifernuetara arthikia izan duk hire hanpuruseria, lurrerat erori duk hire hilikia; harrak izanen dituk ohetzat, eta zizariak estalgi.

12. Nola erori haiz zerutik, Luzifer, goizetan goizik ilkhitzen hintzena? Erori haiz lurrera, jendaien zaurtzailea?

13. Hi, hire bihotzean erraten huen: Iganen naiz zerura, altxaturen dut ene tronua Jainkoaren izarrez gorago, jarriko naiz lekhukotasuneko mendiaren gainean, ipharraren aldean;

14. Iganen naiz hedoi gorenen gainera, izanen naiz Guziz-Goraren iduriko;

15. Orogen gatik arthikia izanen haiz ifernura, phutzu beherera.

16. Ikhusiko hautenek, hire aldera makhurtuz, begiratuko daie, eta erranen die: Hau othe da lurra nahasi eta erresumak khordokatu dituen gizon hura;

17. Lurra mortu egin eta hiriak herraustu dituen, bere gathibuei presondegia ideki ez diotena.

18. Jendaietako errege guziak ospetan lohakhartu dira eta bakhotxa bere azken etxean da.

19. Hi ordean, hire hobitik urrun arthikia izatu haiz, deusetako ez den onbor bat bezala, lohiz zikhindua, eta nahas-mahas ezpataz hilak izan eta putzu-zolara jautsi direnekin, hiliki usteldu bat iduri.

20. Lagunkhidetasunik ez duk izanen, ez-eta hekiekin ere hobian; ezen hire lurra xahutu eta hire populua hil duk: gaixtaginen hazia ez da luzez aiphaturen.

21. Heriotzeko aphain zatzue haren haurrak beren aiten tzarkeria gatik: ez dira altxaturen, lurra ez dute ondoregoz izanen, mundu gaina ez dute hiriz estaliren.

22. Eta ni jaikiko natzaiote gainera, dio armadetako Jaunak; ezeztaturen ditut Babilonaren izena eta hango ondar, hazi, iraulgiak, dio armadetako Jaunak.

23. Eta sagarroiaten aztaparraren-peko ezarriren dut, eta ur-aintzira bilhakaraziren dut, eta erhaztaturen dut erhataz fharrastatuz, dio armadetako Jaunak.

24. Armadetako Jaunak zin egin izan du, erranez: Bai! nik burutan hartua hala izanen da; eta nik nola gogoan iragan,

25. Hala gerthaturen da. Ene lurtean herrausturen baitut Asiriarra, eta oinkaturen dut ene mendietan; eta haren ustaria khenduko dut Israelgo umeen gainetik, eta haukien sorbaldetarik egotzia izanen da haren dorphetasuna.



26. Horra lur guziaren ganean hartu dudan xedea, eta huna populu guzien gainera ene eskua hedatua.

27. Armadetako Jaunak hartu du ezen xede hori, eta nor da hutsalaraziko duena? Hedatu du eskua, eta nork aldaraturen du?

28. Errege Akaz hil den urthean egina izan da profezia hau:

29. Filistin-herria, ez sar guzia bozkariotan, zeren den hautsia zafratzen hinduenaren zigorra; ezik sugearen erotik ilkhiren duk basilika, eta haren umeek iretsiren ditzetek xoriak.

30. Eta beharren haur lehenak haziak izanen, eta beharrak grina gabe phausaturen dituk; eta goseteaz hilaraziren diat hire erroa, eta xahuturen ditiat hire ondarrak.

31. Athea, egizak orrobia; hiria, egizan deihadar; Filistin-herria herraustua da guzia; ezen ipharretik ethorriren da khea, eta nihor ezin itzuriko da haren armadari.

32. Eta zer izanen zaiote ihardetsia populuaren berriak ekharriko dituztenei? Jaunak egin dituela Siongo asentuak, eta haren beraren bait-han haren populuak idukiren duela bere pheskiza.

### XV. KAP.

1. Moaben desmasia. Gabaz xahutua izan da Ar Moabena, eta ixildu da; gabaz eragotzia izan da Moaben harrasia, eta ixildu da.

2. Etxea eta Dibon-munhoetara igan dira, Naboren eta Medabaren ganean deithoratzeko. Moabek egin du marraska; haren baithan, buru guziak larrutuak, bizar guziak murriztuak dira.

3. Zakhuak soinean dabilta hango karrketan; hango hegaztegi gainetan eta plazetan, marruma nigarretara jausten da.

4. Hefebonek eta Elealek eginen dute heia gora, Jasaraino ageri da hekien marraska. Moaben gerlariak hortaz egonen dira orrobiak, eta haren arimak bere buruari eginen dio orrobia.

5. Ene bihotza oihuz dago Moabi; ihes doha Segorreraino, hirur urt-hetako miga hartaraino; Luitheko patarra nigarrez igaiten du, eta Oronaimgo bidean arthikitzen ditu atsekabezko marraskak.

6. Mortu eginen dira Nemrimgo urak, zeren ihartu baita belharra, iraungi sorhoa, hil berdagailu guzia.

7. Hekien tzarkeriaren handitasunaren arabera da, hekien gaztigua ere; Sahatsetako errekaraino eramanak izanen dira.

8. Heiagorak egin du Moaben mugen ingurua; haren orrobia heldu izan da Galimeraino, haren marraska Elimgo putzuraino.

9. Dibongo urak odolez betheak dira; ezen igorriren dut Dibonen gainera gehiagokorik; lehoin bat Moabeko ihesliarrei eta lur hartako ondarrei.

### XVI. KAP.

1. Jauna, bidal zazu bildots lurreko nausia, mortuko harritik, Siongo alabaren mendira.

2. Eta hau izanen da: Nola ihes dihoan xoria eta ohantzetik hegaldatzen diren umeak, hala izanen dira Moabeko alabak Arnongo iragaitzan.

3. Moab, har zak kontseilu, biltzar egik; gaua bezala ezar zak hire itzala eguerditan; itzuri direnak gorde zatzik, eta ez sal iheska dabilzanak.

4. Ene ihesliarrak hire baithan egonen dituk. Moab, izan hadi hekien gordegailu xahutzailearen aitzinetik; herrautsa iraungi, gaixtagina ezeztatu eta lurraren oinkatzailea suntsitu da.

5. Eta aphainduko da tronu bat urrikalmenduan, eta haren ganean jarriren da zintasunean Dabiden olhan errege bat, juie ernea, zuzenbidea bilhatuko eta zuzena laster bihurtuko duena.

6. Nabaritu dugu Moaben hanpurustasuna; hainitz da hanpurutsua; haren hanpuruskeria, haren burgoikeria eta haren hisia handiagoak dira haren indarra baino.

7. Hargatik Moabek Moabi eginen dio orrobia; orrobiaz egonen da guzia: adrailu errezo harrasiaren ganean bozten direnei errozute nolakoak izanen diren hekien zauriak.

8. Ezen Hefebongo hiripeak mortu bilhakuak dira, eta jendaietako buruzagiek ebaki dute Sabamako mahastia: hartako aihenak Jazerteraino helduak dira, mortuan barriatuak dira; hartako gandoak utziak izan dira, iragan dute itsasoa.

9. Hargatik Jazerrekin nigarretan deithoratuko dut Sabamako mahastia; ene nigarrez mainhaturen zaituztet, Hefebon eta Eleale, zeren zuen mahasti eta uzten gainera atheratu baita oinkatzaileen izkola.

10. Jauzi, bozkarioak iraziko dira Karmeldik; bozkario, jauzirik ez da mahastietan izanen; mahatsa lehertzen ohi zuenak ez du lakoan arnorik oinkaturen: oinkatzaileei khendu diotet oihua.

11. Hargatik ene barneak Moaben ganean adiaraziko ditu gitarraren krinkak bezala, eta ene bihotzak deithoraturen du adrailu errezo harrasia.

12. Eta hau gerthaturen da: ezagun izanen denean Moab nekhatu dela bere lekhu goretan, othoitz egitera sarthuren da bere saindutegieta; eta baliaturen ez da.

13. Horra Jaunak Moabi aspalditik erran izan daroen hitza.





14. Eta orai Jauna mintzatu da, dioelarik: Sarizaleak urthe-burua berezia duen bezala, hirur urthuren buruan Moaben ospea khendua izanen da haren populu handiaren gainetik, eta geldituren da aphur eta ttipi, eta ez da berhaturen.

### XVII. KAP.

1. Damasen desmasia. Huna non Damas gelditzera dihoan hiri iza-tetik; eta harri deseginezko munthoin bat izanen da.

2. Aroergo hiriak arthaldeei utziak izanen dira, eta haukiek han phausatuko dira, eta nihork ez ditu izituko.

3. Laguntza gibelatuko da Efraimdik eta erreinua Dantastik; eta Siriako ondarrez izanen da Israelgo umeen ospez bezala, dio armadeta-ko Jaunak.

4. Eta hau gerthatuko da egun hartan: Jakoben ospea gobelduren da, eta haren haragiko gizona urthuren.

5. Eta izanen da, uzta-ondoan ondar-biltzailea iduri, eta haren eskuak bilduko ditu burukak; eta izanen da hala-nola Erraphaimgo hara-nean burukaketa dabilana;

6. Eta Israelen geldituko da molkho bakharra mahastian bezala, eta olibak biltzean bi edo hirur oliba adar baten mokoan, edo lau edo bortz ondoaren kaskoan gelditu direnak iduri, dio Israelgo Jainko Jaunak.

7. Egun hartan, gizona gurthuko da bere egilearen aitzinean, eta haren begiek begiratuko diote Israelgo sailduari.

8. Eta ez da gehiago gurthuren bere eskuz egin zituen aldareen aitzinean, eta ez diote begiratuko bere besoz eginikako luku eta tenploei.

9. Egun hartan, haren indarra egiten zuten hiriak utziak izanen dira, hala-nola izan baitziren utziak golde-nabarrak eta uztak Israelgo semeen aitzinean, eta mortu geldituko zare.

10. Zeren duzun ahantzi Jainko zure salbatzailea, eta orhoitu etzaren zure laguntzaile hazkarrak; hori gatik landaturen dituzu landare ederrak, eta erainen hazi arrotza.

11. Eta landatu ondoan, zure landareak basak izanen dira; goizetik loratuko da zure hazia, eta gozatu behar duzun egunean, galdua da uzta, eta bihotzmin handia izanen duzu.

12. Zorigaitz populuketa gaitzaren osteari, orroaz dagoen itsasoa iduri duenari! Zorigaitz gizon elemania horri, zeinaren harramantzak iduri baitu urketa gaitz baten burrunba!

13. Populuek harrabots eginen dute, bazterretara gaindika dihoazen uharren harrabotsa iduri eta Jaunak larderiatuko ditu, eta urrun ihes egi-

nen dute, eta eramanak izanen dira hala-nola mendietako herrautsa hai-zearen aitzinean, hala-nola xirimola phesiaren aitzinean.

14. Arratsean, huna zer buila! Goizeko, iraungi du. Hori da gure desmasiatzaileen zathia, gure larrutzaileen zortea.

### XVIII. KAP.

1. Zorigaitz lurrari, hegalez harrabots egiten duenari, zeina Ethiopiako ibaiaz haindian baita,

2. Zeinak igortzen baititu bidalkinak itsasuz, eta uren gainean ihizko untzitan! Zoazte, aingeru zalhuak, ethendua eta erdiratua den jendaki baten gana; populu ikharagarri baten garna, hura baino lazgarriagorik ez baita; iguri dagoen eta oinkatua den jendaia baten gana, zeinaren ibaiek larrutu baitute haren lurra.

3. Munduko egoiliar, lurrean zaudezten guziak, ezagutkaria altxatua izanen denean mendien gainean, ikhusiren duzue, eta entzunen turutaren durrundak;

4. Zeren hau baiterrat Jaunak: Phausaturen naiz, eta ene lekhuhan begira egonen, eguerdiko argi zoharra iduri, eta ihintzezko lanhoa uzta-roan bezala.

5. Alabainan aroa baino lehen loratu da mahats guzia; zirthoinduko da, eta ez onduko; pudak ebakiren ditu aihenak; eta utzi dituzkeenak, moztuak eta arthikiak izanen dira.

6. Eta mahastia egonen da mendietako hegastinentzat utzia, eta batean lurreko basabereentzat; eta uda guzian han egonen dira ihiziak, eta neguan lurreko basabereak oro.

7. Orduan, armadetako Jaunari emaitza bat ekharria izanen zaio ethendua eta erdiratua den populuar; populu ikharagarriaz, zeina baino lazgarriagorik ez baita; jendaia iguri dagoen, iguri eta oinkatua dagoenaz, zeinaren ibaiek larrutu baitute haren lurra; ekharria izanen da Siongo mendira, armadetako Jaunaren izena deithua den tokira.

### XIX. KAP.

1. Egiptoaren desmasia. Huna non Jauna iganen den hedoi arin baten gainera, eta Egiptoan sarthuko da, eta Egiptoko jainkomoldeak ikharatuko dira haren aitzinean, eta Egiptoaren bihotza urthuko da haren barnean.

2. Eta jauzaraziko ditut Egiptoarrak Egiptoarren kontra; eta gizona gudukaturen da bere anaiaren kontra, eta gizona bere adiskidearen kontra, hiria hiriaren kontra, erresuma erresumaren kontra.



3. Eta Egiptoaren izpiritua nahasiko da haren baithan eta galaraziko dut haren asmua; eta galdeka hariko dira beren jainkorde, beren azti, pithon eta asmaginei.

4. Eta nausi gogorren eskura arthikiren dut Egiptoa; eta errege mut-hiria izanen dute nausi, dio armadetako Jainko Jaunak.

5. Agorturen da itsasotik ura, eta hibaia idor eta leihor bilhakaturen da.

6. Eta hibaiak ezeztaturen dira; ttipituko eta idortuko dira antapere-tako errekak; khanabera eta ihiak ihartuko dira;

7. Eta hibaiaren erreka, ithurburuan hasirik, agerian geldituko da, eta eraintzetako ixtun guziak idortuko, agortuko eta ezeztatuko dira.

8. Kuintaz egonen dira arrantzariak, eta nigarrez hibaira amua arthikitzen zuten guziak, eta sareak uren gainean hedatzen zituzten guziak erkituko dira.

9. Lihoa lantzen dutenak, xarrantxari eta ehaileak, ahalketan eroriko dira.

10. Urztatzeko errekak ahituko, eta arrain atzemateko zilho-egileak etsian izanen dira.

11. Zoroak dira Taniseko buruzagiak: Faraonen kontseilari zuhurrek adimendugabeko kontseilu bat eman dute. Nola erraten ahal diozue Faraoni: Zuhurren semeak, beihalako erregeen semeak gare gu?

12. Non dira orai hire zuhurrak? erran eta ezagutaraz biazatek zer gogo duen armadetako Jaunak Egiptoaren gainean.

13. Erhotu dira Taniseko buruzagiak ilhaundu dira Memphistar aitzindariak enganatu dute Egiptoa, hango populuen izkina-harria.

14. Jaunak hekien erdian hedatu du zoramenduzko izpiritua; Egiptoa makhur igorri dute bere egintza guzietan, hala-nola andarka dihoan hor-dia eta goiti egiten duena.

15. Eta Egiptoak ez du jakinen zer egin, ez ttipiak, ez handiak, ez aitzindariak, ez manupekoak.

16. Egun hartan Egiptoa izanen da emaztekoa iduri; harrituko da eta izituko armadetako Jaunak eskua iharrostean, ezen berak iharrosiko du haren gainera.

17. Eta Judako lurra izanen da Egiptoaren lazgarri; hartaz orhoituko diren guziak laztuko dira, armadetako Jainkoak haren gainean hartu duen xedearen aitzinean.

18. Egun hartan, Egiptoko lurrean izanen dira bortz hiri Kanaango hizkuntzan mintzatuko direnak, eta armadetako Jaunaz zin eginen dute-nak. Bat deithuko da Iguzki-hiri.

19. Egun hartan, Egiptoko lurraren erdian izanen da Jaunaren aldare bat, eta hango mugaren ondoan Jaunaren orhoitgailu bat.

20. Hura izanen da Egiptoko lurrean Jaunaren ezagutkari eta lekhu-kotasun; ezen hestutzailaren aitzinetik Jaunari deihadar eginen diote, eta Jaunak igorriko diote salbatzaile eta gudukatzaile bat libratuko dituen.

21. Eta Egiptoaz ezagutua izanen da Jauna, eta Egiptoarrek Jauna ezagutuko dute egun hartan; eta ohoratuko dute, bitimik eta emaitzak eskainiz; eta botuak Jaunari eginen eta bihurtuko diozkate.

22. Jaunak Egiptoa joko du zauri batez, zeina berak sendatuko baitu; eta Egiptoarrak itzuliko dira Jaunaren gana, eta Jauna jabalduko zatzaiote eta sendaturen ditu.

23. Egun hartan, bide bat izanen da Egiptotik Asiriarren gana, eta Asiriarra sarthuko da Egipton, eta Egiptoarra Asirian; eta Egiptoarrek zerbitzatuko dute Asur.

24. Egun hartan, Israel hirugarrentzat izanen da Egiptoarrarekin eta Asiriarrarekin: benediziona izanen da lurraren erdian,

25. Zeina benedikatu baitu armadetako Jaunak, erranez: Benedikatua izan bedi Egiptoko ene populua, eta Asiriarra ene eskuetako lana; bainan Israel da ene primantza.

## XX. KAP.

1. Thartan Azoten sarthu zen urthean, Sargon Asiriarren erregek bidalirik, Azot gudukatu eta hartu zuenean;

2. Ordu hartan, Amosen seme Isaiasi mintzatu zitzaioen Jauna, zio-elarik: Zoaz eta soinetik khen zazu zure zakhua, eta zangoetarik zure oinetakoak. Eta hala egin zuen, eta goan zen buluzik eta oinetakorik gabe.

3. Eta erran, aroen Jaunak: Isaias ene zerbitzaria buluzik eta oinetakorik gabe ibili den bezala, hirur urtherentzat izanen baita ezagutkaritan eta sendagailtan Egiptoaren eta Ethiopiaren gainean;

4. Hala Asiriarren erregek aitzinean eramanen du Egiptoarra gathibu eta Ethiopiarra bere lekhuetarik, zahar-gazteak buluzik eta oinetakorik gabe, gibleko aldea ageri Egiptoaren laidotan.

5. Eta izituak izanen eta ahalkatuko dira Ethiopiaz beren pheskizaz, eta Egiptoaz beren gogoko ospeaz.

6. Eta irla hartako egoiliarrak erranen du egun hartan: Horra horiek ziren gure pheskiza, zeinen gana laguntza eske ihes egin baitugu Asiriarren erregeren aitzinetik: eta nola itzuriko ditugegu gure buruak?



## XXI. KAP.

1. Mortuko itsasoaren desmasia. Hegoatik xirimolak heldu diren bezala, heldu da mortutik, lur izigarri batetarik.

2. Ikhuspen gogorra izan zait igorria. Sinhetsgogor dena, tzarki dabila; eta demasiatzaile dena, bere lanean hari da. Igan hadi, Elam; Mediarra, sethia: itho ditut heren auhenak.

3. Hargatik oinhazez bethe dira ene gibel-erraiak; hesturak naduka, hestura erditzen hari denarena bezalakoak; aditzearekin erori, ikhustearekin nahasi naiz.

4. Ahitu da ene bihotza, ilhunbeek harritu naute; Babilona, ene maitea, egina da ene harrigarri.

5. Ezar zak mahaina, atalaitik begira zak jaten eta edaten hari direnei. Jaiki, aitzindariak; loth erredolari.

6. Ezen hau erran darot Jaunak: Zoaz, eta ezar zazu atalari bat; ez zer-nahi ikhus dezan, ethor bedi erratera.

7. Eta ikhusi du bi gizonakilako orga-laster bat; bat zen asto baten gainean, eta bertzea kamelu baten bizkarrean; eta artharekin eta atzarriki begira egotu zen.

8. Eta lehoinak bezala oiuhu egin zuen: Ni naiz Jaunaren atalaiaren gainean, bethi xutik egunaz; eta ene goaitean nago ni, gau guziz.

9. Huna non ethorri den bi zalditako orga-lasterari eragiten zaroen gizon hura, eta ihardetsi, eta erran du: Erori da, erori Babilona, eta haren jainkomolde guziak phorrokatuak dira lurtean.

10. Ene bihi joa, ene larraineko hibia, erran darotzut armadetako Jauna ganik, Israelen Jainkoa ganik aditu dudana.

11. Dumaren desmasia. Seirdik oiuhu egiten darotade: Zaina, zer berri gauaz? zaina, zer berri gauaz?

12. Zainak erran du: Ethorri da goiza, heldu da arratsa; bilhatzen bazarete, bilha ongi; itzul zaitetze, zatozte.

13. Arabian desmasia. Ilhuntean lo eginen duzue oihanean, Dedanimgo bidexketan.

14. Hegoaldeko lurtean egoten zaretenak, egarri denari kiderat atzeratuz ekharrezozue ura; ogiarekin zoazkiote ihesliarrari bidera.

15. Alabainan ihes egin dute ezpaten aitzinetik, dixidatzen zituena-ren ezpataren aitzinetik, arranbela hedatuaren aitzinetik, gudu gogorra-ren aitzinetik.

16. Alabainan hau erran darot Jaunak: Oraino urthe bat, sehiaren urthea bezala neurtua, eta Zedarren ospea oro khendua izanen da.

17. Eta Zedarren semeen arteko arranbelari hazkarren ondarrak ere gutituak izanen dira; ezen mintzatu da Jauna, Israelgo Jainkoa.

## XXII. KAP.

1. Ikhuspeneko haranaren desmasia. Zer dun hik ere, hegaztegiatara guzia igaiteko?

2. Hiri oihez eta jendez bethea, hiri bozkariotsua: hire hilak, ez ditun ezpataz hilak, ez ditun gerlan hil.

3. Hire buruzagi guziek batean ihesezin ditun; gogorki estekatuak izan ditun; atzemanak izan diren guziak, elkharrekin estekatuak eta urrun eramanak izan ditun.

4. Hargatik erran dut: Gibela zaitetze ni ganik, ixuriko ditut nigar minak; ez abia niri sosegu eman beharrez ene populuko alabaren xahupenaren gainean.

5. Hau da ezen hiltzeketako, eta oinkapenetako, eta nigarretako eguna, Ikhuspeneko haranera armadetako Jainko Jaunak igorria, urratzen duelarik harrasia eta ikharagarri agertzen mendi gainean.

6. Eta Elamek hartu du gezi-untzia, zaldizkoaren orga-lastera, eta erredolak biluzi du harrasia.

7. Eta hire haran hautak orga-lalerekin izanen dira betheak, eta hire atean jarriko ditun zaldizkoak.

8. Agertua izanen da Judaren geriza, eta egun hartan ikhusiren duzu harmategia, oihaneko etxea.

9. Ikhusiren dituzue Dabiden hiriko urradurak zenbat diren uso; eta bilduren dituzue behereko arraintegiko urak.

10. Eta khondatuko dituzue Jerusalemgo etxeak, eta etxe urratzen hariko zarete harrasiaren hazkartzeko.

11. Eta osin bat eginen duzue bi harrasiren artean, arraintegi zahar-raren ondoan; eta hura egin zuenaren gainera ez duzue begirik emanen, eta haren egilea urrundik ere ez duzue ikhusiko.

12. Egun hartan armadetako Jainko Jaunak bere populua deithuko du nigar-deithoreetara, ileen murriztera eta zakhuaren jaunztera.

13. Eta huna bozkario eta jauziak, aratxe eta ahari hiltzeak, haragi jateak eta arno edateak. Jan eta edan dezagun, ezen hilen gare bihar.

14. Eta armadetako Jaunaren mintzoa agertu da ene beharrietara: Barkhatzen badarotzuet tzarkeria hori hil zaitetzen arteo, dio armadetako Jainko Jaunak.



15. Hau dio armadetako Jainko Jaunak: Zoaz, sar zait tabernaklean egoten dena gana, Sobna gana, zeina tenploaz baita kargutua, eta erranen diozu:

16. Zer hari zare hemen, edo nor bezala zare hemen, zuk hemen egin baituzu zuretzat hobi bat, lekhu goran artharekin hargindu baituzu orhoitgailu bat, eta harrian hobi bat zuretzat?

17. Huna non Jaunak eramaziren zaituen, oilar bat eramaten den bezala, eta eramaten zaitu hala-nola aldagarri bat.

18. Hesturaz khoraturen du, zure burua; pilota bat bezala arthikiren zaitu lur zabal eta hedatu batera; han hilen zare, eta han akhabaturen dira zure ospearen leloak, oi gizon zure Jaunaren etxeko laidoa.

19. Zauden tokitik iraziren zaitut eta zure kargutik khenduko.

20. Eta hau izanen da egun hartan, deithuko baitut ene zerbitzari Eliazim, Helziasen semea.

21. Eta jauntziren diot zure soinekoa, eta hazkarturen dut zure gerrikoaz, eta haren eskuetan ezarriko dut zure ahala; eta aita bat bezala izanen da Jerusalemgo egoiliarrentzat eta Judaren etxearentzat.

22. Eta haren soingainean ezarriren dut Dabiden etxeko gakhoa; eta idekiren du, eta nihork ezin hertsiko; eta hertsiren du, eta nihork ezin idekiko.

23. Eta ziri bat bezala sarthuren dut hura toki segurean, eta bere aita-eren etxearentzat izanen da ospezko tronu bat bezala.

24. Eta haren gainean ezarriko dute haren aitaren etxeko ospe guzia, eta hartarik dilindan untzi mota guziak, untzi ttipiak oro, edateko untzi-tarik musikako tresnetaraino.

25. Halako egun batez, dio armadetako Jaunak, toki segurean sarthua izan zen ziria, atheratua izanen da, eta hautsiko da, eta eroriko; eta hartarik dilindan zirenak xahuturen dira, zeren Jauna mintzatu baita.

### XXIII. KAP.

1. Tirren desmasia. Orrobiaz abia zaitetze, itsasoko untziak, zeren lekhu zeintarik heldu ohi baitziren untziak xahutua baita: Zethimgo lurretik ethorri zaiote berria.

2. Ixil zaitetze, irlan zaudeztenak: Sidoneko tratulariak itsasoa iraganez ethortzen ziren hire bethetzera.

3. Tirrentzat ziren Nilak bere ur handiekin sorrarazten zituen haziak, eta hibaieko uzten fruituak; Tir bilhakatua zen jendaki guzien merkhatua.

4. Ahalkez urth hadi, Sidon; mintzatu da ezen itsasoa, itsasoko indarra, dioelarik: Ez naiz erdi, eta ez dut haurrik egin; ez dut hazi ez muthil, ez neskatxarik.

5. Deithore minetan egonen dira Egipton, adituko dituztenean Tirreko berriak.

6. Iragan zatzue itsasoak, egizue orrobia, irlan egoten zaretenek.

7. Ez othe da hori zuen hiri hura, zeinak bertze orduz beihalako bere egunez espantu baitzuen? Orai bere oinek urrun eramaten dute arrotz bizitzera.

8. Nork atheratu du asmu hori Tirren gainean, zeina baitzen beihala khorodun, zeinetako tratulariak printze baitziren, eta merkatariak lurreko handi?

9. Armadetako Jaunak egin du asmu hori eragoztekotzat ospedun guzien hanpurustasuna, eta laidotara arthikitzeko lurreko handi-mandiak.

10. Zoaz zure lurretik hibaia iragaiten den bezala, oi itsasoaren alaba; ez duzu gehiago gerrikorik.

11. Jaunak itsasoaren gainera hedatu du bere eskua, iharrosi ditu erresumak; Kanaanen kontra eman ditu manuak, zathikatzeko hango hazkarrak.

12. Eta erran du: Sidonen alaba, neskatxa desohoratua, ez dun gehi-ago hire buruaz espanturik erabiliko; jaikirik iragan zan itsasoa Zethimeraino; han ere ez dun hiretzat izanen phausurik.

13. Horra Kaldearren lurra; ez da izatu holako populurik; Asurrek arthiki zituen horgo asentuak; gathibu eraman dituzte horgo hazkarrak, jauzarazi dituzte horgo etxeak, eta bere lurrera dute eragotzi.

14. Orrobia egizue, itsasoko untziak, zeren xahutua baita zuen indarra.

15. Eta hau izanen da egun hartan: Ahantzia izanen haiz, oi Tir, hirur hogoi eta hamar urthez, errege baten egunak neurtuak diren bezala; aldiz hirur hogoi eta hamar urtheren buruan, Tirrentzat izanen du lilitxoaren kantua bezalako bat.

16. Har zan gitarra, egizan hiriko ingurua, lilitxo ahanzterat utzia; kanta zan ongi, errepika kantua, hitaz orhoit dadien norbait.

17. Eta hau izanen da hirur hogoi eta hamar urtheren buruan: Jauna ethorriren da Tirren ikhustera, eta bere irabazietara bihurraziko du; eta Tir berritan linburturen da ooren aitzinean lurreko erresuma guziekin.

18. Eta haren tratu, irabaziak Jaunari izanen zaizko sailduetsiak; ez dira begiratuak eta zainduak izanen; zeren haren tratua izanen baita Jaunaren aitzinean egoten direnentzat, jan dezaten ase arteo, eta jauntzia izan dezaten azken zahartzaraino.



## XXIV. KAP.

1. Huna non Jaunak xahutuko duen lurra, eta buluziko du, eta gainazpikatuko du, eta barriatuko ditu hango egoiliarak.
2. Eta nola izanen baita populua, hala apheza; nola muthila, hala nautia; nola neskatua, hala etxekandrea; nola erostea, hala saltzailea; nola mailleguz hartzailea, hala emailea; nola gibelerat galdatzen duena, hala zor duena.
3. Xahupenez xahutua izanen da lurra, eta harrapakaria larrutua; hori da ezen Jaunak atheratu duen hitza.
4. Lurra nigarretan da; iraungi, erkhitu da; iraungi da mundua, erkhitu da lurreko populua goratasuna.
5. Eta lurra izurritzatua da hartan daudezenez; zeren hautsi baitituzte legeak, zuzena aldatu, urratu bethiereko patua.
6. Hargatik madarizoneak iretsiko du lurra, eta bekhatuan pulunpatuko dira hartan daudezenak; hargatik zoraturako dira hura lantzen dutenak, eta geldituko da gizon guti.
7. Mahatsa nigarrez dago; mahastia erkhitua da; bihotzez bozten ziren guziak auhenetan daude.
8. Baratua da atabalen harrabotsa, gelditu bozten zirenen oihua, ixildu gitarraren ots gozoa.
9. Ez dute gehiago kantuz edanen arnorik; edaria kharats izanen da edanen dutenentzat.
10. Herraustua da ergelkerietako hiria; hertsia daude etxeak oro, eta nihor ez da sartzen.
11. Arnoaren gainean kuinta izanen da karraketan; galdu da bozkario guzia; arraizia goan da lurretik.
12. Hirian gelditu da bakhartasuna, zorigaitzak joko ditu atheak;
13. Ezen lurraren erdian, populua erdian geldituko direnak izanen dira hala-nola oliba bakharrak, ondo bildu ondoan gelditukoak, hala-nola mahats gutiak, biltzea akhabatu den ondokoak.
14. Hekiek altxaturen dute boza eta kantaturen dituzte laudorioak; Jauna goretsia izanen denean, irrintzinaka joko dute itsasotik.
15. Hargatik ospa zazue Jauna zuen zuhurtasunaz; gorets zazue itsasoko irletan Israelgo Jainko Jaunaren izena.
16. Lurraren bertze burutik entzun ditut laudorioak, prestuaren ospea. Eta erran dut: Ene segretua enetzat, ene segretua enetzat. Zorigaitz niri! Legea dute gaixtuki hautsi, lege-hausleek bezala hautsi dute.

17. Laztura, zilhoa eta artea hiretzat, lurrean hagoena.

18. Eta hau gerthaturen da: beldurraren lotsaz ihes-goalea zilhoa eroriko da; eta zilhotik itzuriko dena, artean izanen da atzemana; zeren zeru goretarik idekiak baitira ur-jauziak eta iharrosiak izanen baitira lurren asentuak.

19. Lurra joka izanen da urratua, lurra karraskaka izanen da lehertua, lurra dardaraka izanen da iharrosia.

20. Lurra hordia bezala andarka khordokan ibiliko da; eta khendua izanen da, gau batentzat hedatzen den olha iduri; eta bere tzarkeriak lehertuko du; eroriko da, eta ez du jaikitza eginen.

21. Eta hau izanen da: Egun hartan Jauna agertuko da zeruko armadaren ikhustera hergoretan, eta lurreko errege lurrean direnen ikhustera.

22. Eta moltzo batera putzuan izanen dira bilduak, eta han presondegian hertsia; eta asko egunen buruan ikhartuak izanen dira.

23. Eta ilhargia ahalkez gorrituko eta urthuko da, armadetako Jauna errege jarriko denean Sionen eta Jerusalemen, eta ospatua izanen denean bere zaharren aitzinean.

## XXV. KAP.

1. Jauna, ene Jainkoa zare zu; goretsiren zaitut, eta aithor bihurturen diot zure izenari; zeren ditutzun egin sendagailak, aspaldidanikako asmu zinak. Halabiz.

2. Alabainan hiritik egin duzu hobi bat, hiri hazkarretik harri murrubat; erabaki duzu arrotzen egon-lekhua ez dadien gehiago izan hiri, ez-eta menderen mendetan berriua.

3. Horren gatik laudaturen zaitu populu hazkarrak, eta zure beldur izanen da jendaki hazkarren hiria;

4. Zeren egin zaren beharraren indar, noharroinaren indar haren hesturako orduan, haren pheskiza phesiako mugan, itzala berotean, ezen hazkarren hatsak iduri du harrasi bat jotzen duen phesia.

5. Beroak egarriaz bezala, heziko duzu arrotzen oldarra; eta iharraziko duzu hazkarren gandoa, hedoi erretzen duen baten azpian beroaz bezala.

6. Eta armadetako Jaunak mendi haren gainean populu guziei eginen diote barazkari gozo bat, arnozko besta bat, haragi gori eta gizen, arno iragaziko besta bat.

7. Eta mendi hartan trenkaturen du populu guzien gainera estekatua den gathea, eta jendaia guzien gainera irazkia den sarea.



8. Herioa bulkhaturen du behin-bethiko; Jainko Jaunak nigarra khen-duko du begitharte guzietarik, lur guzitik khenduko du bere popularen laidoa; ezen Jauna da mintzatu.

9. Eta egun hartan erranen du haren populuak: Huna gure Jainko hura; iguriki dugu, eta salbaturen gaitu; hau da gure Jaun hura; iguriki dugu, eta bozturen eta jauziko gare hunen ganikako salbamenduan;

10. Ezen mendi haren gainean phausaturen da Jaunaren eskua; eta haren azpian lehertua izanen da Moab, lastoa orgen azpian xehatzen den bezala.

11. Eta haren azpitik hedaturen ditu eskuak, igerikariak erikatzeko hedatzen dituen bezala; Jaunak aphalduren du haren ospea, bere eskuetan purtzupilatuz bezala.

12. Eta hire harrasi goretako hazkargailuak eroriko dituk; arthikiak eta lurrerat eragotziak izanen dituk herraustuak izan arteo.

### XXVI. KAP.

1. Kantika hau egun hartan Judako lurrean izanen da kantatua: Sion da gure indarreko hiria; salbatzailea jarriren da hartan harrasi eta harrasi-aitzineko.

2. Zabal zatzue atheak, eta sar bedi jendaki zuzen, egiaren begiralea.

3. Goan da errebelamendu zaharra; begiraturen duzu bakea; bakea, Jauna, zeren dugun zure baithan iduki pheskiza gurea.

4. Jauna baithan ezarri duzue bethikotzat zuen igurikitza, Jainko Jaun hazkarraren baithan bethi guziko;

5. Zeren aphalduko baititu gora zaudenak; behehituko baitu hiri hanpurutsua; aphalduko du lurreraino, jautsaraziko du herrautseraino.

6. Azpian erabiliko du oinak, beharraren oinak, noharroin zangoak.

7. Prestuaren bidexka zuzena da; zuzena da ibiltzeko prestuaren bidea.

8. Eta zure manamenduetako bidexketan iguriki zaitugu, Jauna; gure arimako lehian zauden zure izena eta zure orhoitzapena.

9. Gau guzian zure lehiaz egotu da ene arima; eta oraino ene izpirituaz eta ene bihotz guziaz goizetik zure ganat egonen naiz atzarria. Zure erabakiak lurrean betheko ditutzunean, munduan daudezenek ikhasiren dute zuzentasuna.

10. Urrikal gatzazkion gaixtaginari; ez du ikhasiko zuzentasuna: sainduen lurrean egin ditu tzarkeriak, eta ez du ikhusiko Jaunaren ospea.

11. Jauna, altxa bedi zure eskua, eta ez bezate ikhus: ikhus bezate populu bekhaiztiak, eta ahalkez urth beitez; eta suak irets betza zure etsaiak.

12. Jauna, emanen darokuzu bakea, ezen zuk egin darozkigutzu gure egintza guziak.

13. Jauna, gure Jainkoa, zutaz bertze nausirik izatu da gure gainean: zure izenaz bakharrik orhoit begaitez zu baithan.

14. Hiltzen direnak ez beitez bizi, diganteak ez beitez bizira bihur: horren gatik ethorri zaizkiote ikhustera, eta phorroskatu ditutzu, eta ezeztatu duzu hekiezko orhoitzapen guzia.

15. Ongi egin diozu, Jauna, populu huni, ongi egin diozu: ospe bihurtua izan othe zaitzu? Urrundu ditutzu hunen lurreko muga guziak.

16. Jauna, beren hesturan bilhatu zaituzte; hesturako auhenetan eza-gutaraziko diozute zure irakhaspena.

17. Nola izorra den emaztekoa, heiagoraka baitago oinhazeen erdian, erditzeko ordua hurbildu zaionean; hala gare, Jauna, zure aitzinean bilhakatua.

18. Ernaldu eta erdi bezala gare, eta haizea ilkhi da gu gatik; lurrean ez dugu salbamenduzko fruiturik atheratu; hargatik ez dira erori lur hundertako egoiliarrak.

19. Zuk hilak biziko dira; ene hilak bizturen dira. Atzar zaitetze eta laudorioak kanta zatzue, herrautsean egoten zaretenak; ezen argizko ihintza da, Jauna, zure ihintza, eta xahutuko duzu diganteen lurra.

20. Zoaz, ene populua, sar zaite zure geletan; atheak hertsatuz zure gainera; zaude aphur bat gorderik, gaitzidura iragan dadien arteo.

21. Ezen huna non bere tokitik ilkhitzera dohan Jauna, ikhartzeko lurrean dagoenak haren kontra egin tzarkeria; eta lurra agertuko du gainera ixuri dioten odola, eta ez ditu gehiago estaliko hartan gorde dituzten hilak.

### XXVII. KAP.

1. Egun hartan Jauna bere ezpata gogor, handi eta hazkarrarekin ethorriko da Lebiathanen gainera, suge hagaren gainera, Lebiathanen gainera, suge karabillatsuaren gainera; eta hilen du itsasoan den balea.

2. Egun hartan arno oneko mahastiak kantaturen ditu Jaunaren laudorioak.

3. Ni naiz Jauna, hura zaintzen dudana; maiz urztatuko dut; beldurrezeta bidegaberik egin diozoten, zaintzen dut gau eta egun.



4. Sepharik ez da ene baitan: nor abiatuko da elhorria eta lapharra bezala ene sistatzen? Oinen azpian ibiliko dut eta hanbatekin su emanen diot.

5. Ala hobeki idukiren du ene indarra? Bakea egin beza enekin, bakea enekin egin beza.

6. Jakobi oldar egitera heldu direnen gatik, Israel loratuko da eta aldaskatuko, eta haren haziaz betheko dute lurraren gaina.

7. Jainkoak jo othe du hura etsaiak jotzen zuen bezala? edo Israel hila izan othe da, hari hilka hari zitzaioena bezala?

8. Zutaz irazia izan denean, Jauna, neurritz bere hobenen arabera juiatu duzu. Bere sepha gogorraren eztitzera hari zen Jauna, su gehienik zuen orduan ere.

9. Horreletan aria hortaz Jakoben etxeari barkhatua izanen zaio bere bekhataua; eta hori guzia izanen da haren bekhatuaren khentzeko, aldareko harri guziak ezarriko dituenean herrausten den harria bezala xehakaturik, lukuak eta tenploak lurrerat arthikiak izanen direnean.

10. Alabainan hiri hazkarra urratua izanen da, hiri ederra utzia eta mortu bezala igorria izanen da; han alhatuko eta han etzanen da ergia, eta janen du hango muskila.

11. Agorteak xahutuko ditu hango uztak; emaztekiak ethorriko dira haren argitzera; ezen hango populua ez da zuhurra; hargatik hura egin duena etzaio urrikalduren, eta hura jarri duenak ez dio barkhaturen.

12. Eta hau gerthatuko da: egun hartan Jaunak joko du hibaiaeren errekatik Egiptoko uharreraino, eta zuek, Israelgo semeak, bat-banazka bilduak izanen zarete.

13. Eta hau gerthatuko da: egun hartan turuta handiak durrundaturen du, eta Asiriarren lurtean galduak zirenak eta Egiptoko lurrera iraziak zirenak ethorriko dira, eta adoratuko dute Jauna mendi sainduan Jerusalemen.

### XXVIII. KAP.

1. Zorigaitz hanpuruskeriako khoruari, Efraimgo hordiei, lore erortzen denari, zeina baita hekien bozkariozko sendagaila! Zorigaitz haran goriaren buruan egoten, eta arnoak khordokan erabiltzen dituenel!

2. Huna Jaun botheretsu eta hazkarra; iduri du harri abarraren oldarra, xirimola phorroskatzailea; iduri du bazterrak hartzen eta eremu zabalara gaidika hedatzen diren uhar gaitzen oldarra.

3. Efraimgo hordien hanpuruskeriazko khoroa oin-pean ostikatua izanen da.

4. Eta lore erortzen dena, zeina baita haran goriaren buruan dagoenaren bozkariozko sendagaila, izanen da hala-nola fruitu ontzen dena udazkeneko zohitasuna baino lehen; ikhusiko duenak, eskura hartu orduko, iretsiren du.

5. Egun hartan armadetako Jauna izanen da ospezko khoru bat eta bozkariozko floka bat bere populu ondarrarentzat,

6. Zuzentasuneko izpiritua zuzenaren gainean jartzen denarentzat, eta indarra gerlatik hiriko athera bihurtzen direnentzat.

7. Bainan haukiek ere, arnotuak izanez burua galdu dute, eta hordia- ren hordiz andarka ibili dira; aphezak eta profetak, mozkorrak izanez galdu dute burua, arnoak beretu ditu, hordiak andarka erabili ditu, ez dute ezagutu ikhuslea, ez dute adimenduaren jakitaterik izatu;

8. Ezen mahain guziak betheak dira goiti eginez eta zikhinkeriaz, halaz non toki garbirik ez baita gehiago.

9. Nori erakhutsiko dio Jaunak jakitatea? nori ardietsaraziren dio bere hitza? Esnetik higuindu berriei, bulharretik higuindu haurrei.

10. Irakhats, irakhats berriz; irakhats, irakhats oraino; zaude, zaude oraino; iguri, oraino iguri; aphur bat hemen, aphur bat hemen.

11. Alabainan bertze moldez, bertze hizkuntza batean mintzatuko da Jauna populu harri,

12. Zeinari erran izan baitio: Hau da ene phausua; medearaz zazue nekhatua, eta hau da ene sosegua; eta ez du nahi izan entzun.

13. Eta hau izanen da hekientzat Jaunaren hitza: Irakhats, irakhats berriz; irakhats, irakhats oraino; zaude, zaude oraino; iguri, oraino iguri; aphur bat hemen, aphur bat hemen; arren-eta goan ditezen, eta gibelaren gainera eror ditezen, eta lehertuak izan ditezen eta artean sar eta atzemanak izan ditezen.

14. Hargatik adi zazue Jaunaren hitza, gizon trufari, Jerusalemeko ene populuaren gainean nausi zabiltzatenak.

15. Erran duzue ezen: Batasun egin dugu herioarekin, patu hartu dugu ifernuarekin. Uharrak bezala iraganen denean izurria, ez da gure gainera helduko; zeren gezurraren gainean ezarri baitugu gure pheskiza, eta gezurraren maldan gare.

16. Horren gatik hau dio Jainko Jaunak: Huna non Sionen asentuetan ezartzera nohan harri bat, harri frogatua, izkina harria, baliosa, asentuan asentatua. Sinhetsiko duena, ez bedi lasterrez abia.

17. Eta phisu zuzenean ezarriko dut ene juiamendua, neurri zuzenean ene justizia; eta harriak xahutuko du gezurraren gaineko pheskiza, eta uharrak goanen dira haren gerizaren gainetik.



18. Eta iraungiko da zuen batasun herioarekilakoa, eta ifernuarekila-ko zuen patuak ez du iraunen; uharra bezala iraganen denean izurria, haren azpian anbiduak izanen zarete.

19. Noiz-nahi iragan dadien, eramanen zaituztete; ezen goizean goizik iraganen da, gau eta egun baratu gabe; eta gaztigua izanen da bakharrik aditua ardietsaraziko darotzuena;

20. Ezen ohea hain da hertsia, non bi gizonetarik bat ereriko baita, eta estalgia hain laburra non bia ezin estal baitetzazke.

21. Alabainan Jauna jarriko da beihala barraiamenduko mendian bezala; samurtuko da hala-nola bertze orduz Gabaonen den haranean; egitekotzat bere lana, bere lan arrotza; egiteko bere lana, arrotz zaioen lana.

22. Eta orai berautzue trufa, beldurrez-eta tinka ditezen zuen lokharriak; ezen armadetako Jainko Jauna ganik entzun dut, mozkin eta xahupen baten egitera dihoala lur guziaren gainean.

23. Beharria emozue ene mintzoari eta adi zazue; zaudezte erne eta entzun zazue ene solasa.

24. Egun guzian laboraria iraultzen hari othe da eraitekotzat? bethi mokhor jotzen eta haitzurtzen hari othe da bere lurrean?

25. Haren gaina bardindu duenean, ez othe du eraiten suge-ilharra, eta kumina ixurtzen; eta ez othe ditu aldizka eta zein bere tokian ezartzen ogia, garagarra, artho-xehea eta xingila?

26. Jainkoak ematen dio jakitatea, eta harek argitzen du.

27. Ezen suge-ilharra ez da burdinazko hortzekin bihitzen, eta orgarroda ez da kuminaren gainean inguruka ibiltzen; bainan suge-ilharra zaharoarekin jotzen da, eta kumina makhilarekin.

28. Ogia ordean xehatzen da; bainan bihitzaileak ez du bethi bihituko, ez-eta orgak arroden azpian erabiliko, ez-etare bere burdin hortzekin xehatuko.

29. Eta hori armadetako Jainko Jauna ganik atheratu da, ederretsarazteko haren asmuak eta handietsarazteko haren zuhurtzia.

### XXIX. KAP.

1. Zorigaitz Arieli, Arielgo hiri Dabidek hartu duenari! Urtheak urt-hea eraman du; besta ederrak goan dira.

2. Ariel inguratuko dut hertsgailuz, eta ilhun eta deithoretan izanen da, eta izanen da Ariel iduri.

3. Eta inguru guzian ustei batez bezala inguratuko haut, eta trantxada bat altxatuko dut hire aitzinean, eta hazkargailuak ezarriren ditut hire sethiatzeko.

4. Eta aphaldua izanen haiz, luphetik mintzatuko haiz, eta luphetik entzunen da hire solasa; eta hire mintzoa izanen da pithonarena luphetik iduri, eta hire solasa izanen da luphetikako gurgura bat bezala.

5. Eta hi haizatuko hautenen ostea izanen da herrauts xehea iduri, eta hire kontra nausitu direnen ostea izanen da hala-nola haizeak daramatzen ilhaunak;

6. Eta hori izanen da batbateko tarrapata bat. Armadetako Jauna Arielen ikhustera ethorriko da, ihurtzuri, lur-ikharen erdian; xirimola, phesia eta su iresle baten garraren burrunba lazgarriarekin.

7. Eta Arielen kontra gudukatu diren jendaki guzien ostea, eta Arieli gerla egin, et hura sethiatu, eta haren kontra nausitu direnak oro izanen dira ametsetako gabazko itxurapen bat iduri.

8. Eta nola gose denak ametsetarik jaten baitu, eta atzartzen denean sabela huts baitu; eta nola egarri denak, ametsetarik edaten baitu, eta atzartzen denean, oraino egarri ahitua eta barnea hutsik baitago; hala-hala izanen da Siongo mendiaren kontra gudu egin duten jendaia guzien ostea.

9. Harri eta baldi zaitezte, khordokan eta andarka ibil zaitezte; hordi zaitezte, bainan ez arnoz; kanti zaitezte, ez ordean hordi izanez;

10. Ezen Jaunak zuen gainera buhatuko du lo hatsa; hertsiko ditu zuen begiak, itsutuko ditu zuen profeta eta buruzagi ikhuspendunak.

11. Eta profeta guzien ikhuspenak zuentzat izanen dira, irakurtzen dakien bati ematen den liburu zigilatu batetako hitzak bezala. Erranen diote: Irakur zazu hau. Eta ihardetsiko dut: Ezin dirot, zigilatua baita.

12. Eta liburua emanen zaio irakurtzen ez dakien bati, eta erranen diote: Irakur zazu. Eta ihardetsiko du: Ez dakit irakurtzen.

13. Eta Jaunak erran du: Populu hori ahoz hurbiltzen zaitalako ez ezpainez handiesten nauelako, bainan horren bihotza ene ganik urrun baita, eta gizonen lege eta irakhasmenen araberkoa baita horrek enetzat duen beldurra;

14. Horren gatik huna non, populu hori hobeki harriaraziren dudan bertze sendagaila gaitz eta espantagarri batez ezen zuhurtzia galduko da horren gizon zuhurren baitharik, eta itsutuko da horren umoen adimendua.





15. Zorigaitz zuei zeinak zuen bihotzen barnean sarthuak baitzauzede, Jaunari gorde nahiz zuen xedea; zeinen egintzak ilhunbetakoak baitira, eta erraten baituzue: Nork ikhusten gaitu, eta nork daki gure berri?

16. Tzarra da zuen gogoeta hori, hala-nola buztina baxeregilearen kontra asmutan sar baledi, eta lanak erran balezo lanthu duenari: Ez nauk hik egin; eta baxerak erran balezo egin duenari: Etzaik aditzen.

17. Ez othe da oraino ephe guti laburrik barnean Liban aldatuko Karmelera, eta Karmel ez othe da oihan batentzat hartuko?

18. Eta egun hartan gorrek adituko dituzte liburuko hitzak, eta itsuen begiek ikhusiko dute ilhunbeen eta lanbroaren artetik.

19. Eta gizon ezten bozkarioa handituko da Jauna baithan, eta beharrek bozkarioz jauziko dira Israelgo sainduaren baithan;

20. Zeren erori baita nausi zabilana, xahutu baita trufaria, eta eragotziak baitira gaizkirat atzarriak zaudenak;

21. Gizonei beren solasez bekhatu eragiten zaroetenak, eta baldarna kridantzazaillea amarruka erorrarazten zutenak, eta zuzenbidetik ariarik gabe zeihertzen zirenak.

22. Horren gatik, Jakob en etxeari hau dio Jaunak, Abraham berrerosi duenak: Jakob ez da gehiago ahalkatua izanen, ez-eta haren begithartea ez da gehiago gorrituren;

23. Bere umeak ordean, erre eskuetako lanak, ikhusiko dituenen bere erdian ene izenari ospe ekhartzen; orok batean ospaturen dute Jakob en saindua, eta goraki aithor bihurturen diote Israelen Jainkoari,

24. Eta izpirituz basatuak zirenek ardietsiren dute adigarria, eta marmara-egileek ezaguturen dute legea.

### XXX. KAP.

1. Zorigaitz, dio Jaunak, zorigaitz zuei ume makhurtu zaretenak asmu hartzeko eta ez ene ganikakoa, eta oihalaren irazkitzeko eta ez ene izpituaren arabera, bekhatua bekhatuaren gainean murrukatzeko!

2. Zorigaitz zuei bideari lotzen zaretenak Egiptora jausteko eta ene ahoari galderik egiten ez duzenak, laguntza bat ustez khausitu Faraonen indarrean, eta Egiptoaren itzalaren gainean sinheste izanez!

3. Eta Faraonen indarra izanen da ahalketara zuen arthikitzeke, eta Egiptoaren itzalaren gaineko sinhestea laidotara zuen erorrarazteke.

4. Zuen aitzindariak Tanisen ziren eta zuen berriketariak Haneseraino heldu izan dira.

5. Oro ahalketara dira erori ikhusirik populu bat ezin balia zakioke-tena; etzaiote ez lagungarri, ez zerbaitetako izatu, bainan-bai ahalkagarri eta laidagarri.

6. Hegoako abereen desmasia. Badoazi atsekabe eta hesturetako lurrera, lehoin urrix eta orots, bipera eta basilika hegaldunen tokietara, abereen bizkarrean daramatzatelarik beren onak, eta kameluen konkorraren gainean beren urhe-zilharrak; badoazi ezin baliatuko zaioten populu baten gana.

7. Alabainan Egiptoaren laguntza alferra eta hutsa izanen da. Horren gatik oihi egin dut horren gainean: Ez da hor hanpuruskeriarik baizen; zaudezte geldirik.

8. Zoazkiote beraz orai, eta iskriba diozuzute ezpelaren gainean, eta liburu batean arthatsuki hau iskriba zazu; eta azken egunean bethikotzat izanen da lekhukotasunetan.

9. Alabainan hori da populu hasarretzera tarritatzen duena, ume gezurti, ume Jainkoaren legea entzun nahi ez dutenak;

10. Zeinek baitiote ikhusleei: Ez ikhus; eta begiratzaillei: Guretzat ez begira zuzenak diren gauzei; erragutzue gure gogarako gauzak; guretzat hala ez diren bezala ikhusatzue gauzak.

11. Aldara zazue gure ganik bidea, makhur zazue gure ganik bidexka; Israelgo saindua geldi bedi gure aitzinetik.

12. Horren gatik hau dio Israelgo sainduak: Zeren duzuen gaitzetsi ene hitza, eta duzuen ezarri zuen pheskiza gezurrezko solas eta haroetan eta hekien gainean zareten bermatu;

13. Horien gatik tzarkeria hori izanen da zuentzat hala-nola urradura, harrasi handi batean dixidatzen zuena eta erortzen dena, ezen bat-batean eta gutien ustean ethorriko baita harrasia lehertzera.

14. Eta xehatuko da, hala-nola lurrezko pegar bat zathikatzen baita hazkarki joz, eta haren pusketarik ez da kasko bat khausituko zeintan sutik inhar bat eramanen baita, edo putzutik ur xorta bat atheratuko.

15. Alabainan hau erran du Jainko Jaunak, Israelgo sainduak: Bihurtzen eta bakean egoten bazarete, izanen zarete salbatuak; ixiltasunean eta igurikimenean izanen da zuen indarra. Eta ez duzue nahi izan;

16. Eta erran duzue: Batere; zaldietara ihes eginen dugu. Horren gatik goanen zarete ihes. Zaldi zalhuen gainera iganen gare. Horren gatik ondotik jarraikiko zaizkitzuenak izanen dira zalhuago oraino.

17. Zuetarik mila gizon, baten beldurrez ihes goanen dira; eta bortzen beldurrez orok ihes eginen duzue, geldi zaitetzen arteo untzi masta bat bezala mendi bizkarrean, eta munho gainean ezagutgailua iduri.



18. Hargatik iguri dagokizue Jauna zuei urrikaltzeko, eta horren gatik ospe atheratuko du zuei barkhatuz; ezen Jauna Jainko zuzentasuneko da; dohatsu haren iguri daudezen guziak

19. Ezen Siongo populuak Jerusalemen izanen du bere egoitza; etzare bethi nigarretan egonen, Jaunak zutaz harturen du urrikalpen; zure oihura, entzun bezain laster ihardetsiren darotzu.

20. Eta Jaunak emanen darotzu oraino ogia xuhur eta ur guti, bainan ez du gehiago zure ganik hastanduren zure irakhaslea, eta zure begiek ikhusionsen dute zure argitzailea.

21. Eta zure beharriek atzar-emailearen gibeletik entzunen dute haren hitza, erraten: Hau da bidea, huntarik ibil zaitezte, eta ez makhur ez ezkererat, ez eskuinerat.

22. Eta lohira arthikiren ditutzu zure jainkomoldeen zilharrezko xafiak, eta zure urhezko jainkomoldearen aldagarria, eta arthikiren ditutzu hala-nola astagaizdunaren zikhinkeria. Erranen diozute: Egizue kanporat.

23. Eta Jaunak uria emanen diote zure eraintzei, edozein lurretan egin dituzketzun; eta lurreko fruituetarikako ogia izanen da guziz nasai eta gorria; eta egun hartan bildotsa zabalean alhaturen da zure ontasunean.

24. Eta zure zezen eta zure astokume lurra lantzen dutenek zaldarea nahasirik janen dute larrainean haizatuak izan diren bezala.

25. Eta mendi gora eta munho gora guzien gainean izanen dira ur bizizko errekak, hiltzeketa handiko egunean, dorreak eroriko direnean.

26. Eta ilhargiaren argia izanen da iguzkiaren argia iduri, eta iguzkiaren argia zazpitan handiagoa zazpi egunen argia bezala, Jaunak bere populuaren zauria lothu eta zauriaren sakhia sendatu ditukeenean.

27. Huna Jaunaren izena urrundik heldu dela; sutan da haren sepha, eta gaitz jasaiteko; haren ezpainak gaitziduraz dira betheak, eta haren mihiak su erregarria du iduri.

28. Haren hatsak iduri du gaindika lepho erditaraino igaiten den uharra, jendaien xahutzeko, eta populuen ahoan zen errebelamenduzko muturrekoaren trenkatzeko.

29. Orduan kantika bat emanen duzue hala-nola besta sainduetsiko gauean, eta zuen bihotzeko bozkalentzia izanen da hala-nola Jaunaren mendira Israelgo hazkarraren gana xirola soinuaz dohanaren bozkarioa.

30. Eta Jaunak adiaraziko ditu bere mintzoaren ospezko otsak, eta bere besoaren lazgarritasuna erakhutsiren du sepharen dixiduetan, eta su erregarriaren garrak oro xahuturen ditu xirimola eta harri abarren erdian.

31. Zigorrek ukiturik, Asur ikharan egonen da Jaunaren solasari.

32. Eta zigorra haren gainean gogortuko da; haren gainean baratuko du Jaunak atabala eta gitarra otsez; eta gerla handitan xahutuko ditu Asiriarrak.

33. Aspaldi du ezen Topheth xuxendua dagoela; erregek xuxendu du, barna eta zabalik. Sua eta egurketa handi bat izanen da haren hazkurria; Jaunaren hatsak khaldatuko du sufrezko uharrak bezala.

### XXXI. KAP.

1. Zorigaitz Egiptora laguntzaketa jausten direnei, zaldien gainean idukiz beren phekiza, eta orga-lasterretan izanez beren sinhestea, hainitz badutelakoan, eta zaldizkoetan guziz hazkarrak direlakoan! Zorigaitz Israelgo sainduaren gainean sinheste hartu ez dutenei eta Jauna bilhatu ez dutenei

2. Bainan Jaun zuhurrak erakharri du gaitza, eta ez da bere hitzetarik gibelatu eta jaikiko da gaixtaginen etxearen kontra, eta tzarkeria-egileen laguntzaren kontra.

3. Egiptoarra gizona da, eta ez Jainkoa; eta haren zaldiak dira haragi, eta ez izpiritu; eta Jaunak makhurtuko du eskua, eta laguntzailea eroriko da, eta laguntza-hartzailea lurrera goanen da, eta guziak batean xahutuko dira.

4. Jaunak ezen hau erran izan darot Nola lehoina edo lehoinkumea marrumaz jauzten bazaio bere harrapakinari, eta artzain-moltzoa ethortzen zaiocenean, ez baita izituko hekien oihuez, eta hekien osteak ez baitu lotsatuko hala jautsiko da armadetako Jauna, Siongo mendian eta haren munhoan gudukatzera.

5. Nola hegastina hegaldaka, hala armadetako Jauna ethorriko da Jerusalemen gerizatzeraz; gerizaturen eta libraturen du; iraganen da, eta salbatuko du.

6. Israelgo umeak, urrun gibelatu zineten bezala, bihur zaitezte Jauna gana.

7. Alabainan egun hartan batbederak arthikiko du bere zilharrezko jainkomoldea, eta bere urhezko jainkomoldea, zuen eskuz bekhatutan egin izan ditutzuena.

8. Eta Asur eroriko da, ez gizonaren ezpataren azpira; eta ez du gizonaren ezpatak xahutuko, eta ez da ezpataren ihes goanen; eta haren gazteria zergaren azpiko izanen da.

9. Eta izialdurak galaraziko dio bere indarra, eta haren aitzindariak ikharan ihes, eginen dute, dio Jaunak, zeinaren sua Sionen baita, eta sute-gia Jerusalem.



### XXXII. KAP.

1. Huna non errege bat zuzenki erreginatuko den, eta buruzagiez zuzentasunean erabiliren dute manamendua.
2. Eta gizona izanen da haize-maldan eta phesiatik gerizan jartzen dena iduri; eta errege izanen da hala-nola ithur-urak egarrian eta gerenda gora baten itzala mortuan.
3. Ikhusten dutenen begiak ez dira lanbrotuko, eta aditzen dutenen beharriak erneki egonen dira entzuten.
4. Eta zoroen bihotza adimenduz betheko da, eta mothelen mihia zalhuki eta garbiki mintzatuko.
5. Zoroa dena ez da gehiago deithuko buruzagi, eta jokotriatsua ez da deithuko handi.
6. Alabainan zoroak ergelkeriak erranen ditu, eta haren bihotza tzar-kerian sarthuko da, maltzurkeriaren bururatzeko, eta Jaunari jokotriatsuki mintzatzeko, eta gosez dagoenari jatekoaren, eta egarri denari edatekoaren khentzeko.
7. Maulatiaren tresnak tzarrenetarik dira; ezen asmu aphantzen hari da, gezurrezko solasez prestuen galtzeko, noiz-etare gaixoa zuzentasunean mintzo baita.
8. Bainan buruzagiaren asmuak izanen dira buruzagiari dihoazkionetarik, eta kargudunen gainean jarriko da.
9. Emazteki aberatsak, jaiki zaitetzte, eta adi zazue ene mintzoa; neskatxa gogo sendokoak, beharrietara har zazue ene solasa.
10. Urthe eta zenbait egunen buruan, asalduan izanen zarete, zuek, gogo sendokoak; ezen akhabo dira mahats-biltzeak, uzta-biltzerik ez da gehiago ethorriko.
11. Baldi zaitetzte, andre aberatsak; asalda zaitetzte, gogo sendokoak; biluz zaitetzte, eta ahalkez estal; tinka zuen gerriak.
12. Deithora zaitetzte zuen haurren, zuen lur maitearen, zuen mahasti gorien gainean.
13. Elhorriak eta lapharrak izanen dira ene populuaeren lurraren gainean; zenbatez hobeki hiri bozkariotsuko etxe atseginezkoetan!
14. Ezen etxeak utziak dira, osteak hustu du hiria, ilhunbe beltzak bethiko jarri dira har-zilhoen gainean. Han hartuko du basastoak atsegin, han alhaturen dira arthaldeak,
15. Goratik izpiritua gure gainera jauts dadien arteo; eta mortu bat izanen da Karmelen, eta Karmel oihan batentzat hartuko da.

16. Eta mortuan egonen da zuzentasuna, eta Karmelen gainean jarriko zuzenbidea.

17. Eta bakea zuzentasunaren lana izanen da, eta deskantsua eta beldurgabea bethikotzat zuzentasunetik ethorriko dira.

18. Eta ene populua jarriko da bakearen gozoan, deskantsuzko olhe-tan eta phausu gorian.

19. Bainan harria eroriko da oihanaren gainera, eta hiria beheramendu handitara izanen da aphaltua.

20. Dohatsu, ur guzien gainean eraiten duzuenak, idia eta astoa nahi duten tokira alhara igortzen ditutzuenak!

### XXXIII. KAP.

1. Zorigaitz hiri, harrapakaria! Ez othe haiz heror larrutua izanen? eta hi, arbuiaia, ez othe haiz heror ere arbuiaua izanen? Hire harrapakeriak akhabatu ditukanean, heror larrutua izanen haiz; arbuiauzen unhatu haizeneko, arbuiaua izanen haiz.

2. Jauna, urrikal zakizkigu; ezen iguriki zaitugu; goizetik izan zaite gure besoa, eta hesturako orduan, gure salbamendua.

3. Aingeruaren oihura ihesari jo dute populuek, eta zure altxatzeari alde orotara itzuri dira jendaiak.

4. Eta zuen buluzkinak bilduak izanen dira, hala-nola biltzen baitira brukoak, brukoz zilhoak bethetzen direnean bezala.

5. Goretsia da Jauna, zeren lekhu goran dagoen; Jaunak Sion bethe du zuzenaz eta zuzentasunaz.

6. Eta fede ona izanen da zure egunetan; zuhurtzia eta jakitatea izanen dira salbamenduko aberastasanak; Jaunaren beldurra da haren ontasuna.

7. Huna non ikhusleak kanpoetan heiagoraz abiatuko diren, eta bakezko bidalkinak nigarrez egonen diren minki.

8. Bideak galduak dira; nihor ez da bidexketan iragaiten; hautsi du batasuna, herrautsi ditu hiriak, gizonez ez daduka eskerrik.

9. Nigarrez eta iraungia dago lurra; Liban ahalketan, eta itsustua da; Saron mortua iduri egina da; Basan eta Karmel herrautsiak dira.

10. Jaikiko naiz orai, dio Jaunak; orai agertuko dut ene goratasuna, orai erakhutsiko dut ene indarra.

11. Suz ernalduren zarete, lastoz erdiko; zuen izpirituak suak bezala iretsiko zaituztete.

12. Eta suak bazterrak erre ondoan, gelditzen diren hautsak iduri izanen dira jendaiak, elhorri bilduak erretzen ohi diren bezala.



13. Urrun zaretenek, adi zazue zer egin dudan; eta hurbilekoek eza-gutazue ene indarra.

14. Gaixtaginak Sionen lastuak izan dira, ikharak hartu ditu alegiakiariak. Zuetarik nor egonen ahal da su erregarriarekin? zuetarik nor dago-ke bethirainoko khaldeen erdian?

15. Nor-ere baitabila zuzenbidean eta egiaz mintzo baita; nork-ere hastandu baitu bide makhurreko ontasuna, eta eskuak iharrosi baititu dohain tzar orotarik; nork-ere tapatzen baititu beharriak ez aditzea gatik solas odolkoikiak, eta begiak hersten baititu gaizkiaren ez inkesteko;

16. Baina egonen da lekhu goretan; gerenden gaineko hazkargailue-tan izanen du bere egoitza gora; hari ogia emana zaio, haren urak xuxen ethorriko dira.

17. Haren begiek ikhusingen dute errege bere edertasunean eta lurrari begiraturen diote urrundik.

18. Lure bihotza beldurrean alhaturen da: non da gizon eskolatu? non da legeko hitzak pilatzen zituena? non da haurren irakhaslea?

19. Ez duzu ikhusingo populu ahalkegabe, populu hizkuntza gaitze-koa; haletan non ezin ardiets baitezazuke haren mintzaia limikatu zein-tan zuhurtziarik ez baita.

20. Begira zazu Sioni, gure besta-buruetako hiriarik; zure begiek ikhu-siren dute Jerusalem, egoitza aberatsa, bertze nihorat ezin-eramanezko olha; eta haren ziriak ezin atheratuko dira behinere, eta haren sokak ez dira trenkatuko;

21. Zeren gure Jaunak han bakharririk baitu erakhesten bere ospaga-rritasuna; han, hibaien lekhuak bazterrak ditu guziz zabal eta idekiak; arraularien untzia ez da handik iraganen, eta hirur lerrotako pinaza han-diak ez du trebesatuko;

22. Ezen Jauna da gure juiea, Jauna da gure legemailea, Jauna gure erregea: berak salbaturen gaitu.

23. Hire sokek amor eman die, eta ez dira on izanen: hire masta hale-tan duk, min ezagutgailua heda ez baitezakek. Orduan zathituko dira harrapakin handietako buluzkinak; mainguak lothuko dira harrapakinari.

24. Eta hurbilean dagoenak ez du erranen: Ahitua naiz; eta Jerusalemen egoten den populua bekhatutik xahutua izanen da.

#### XXXIV. KAP.

1. Jendaiak, hurbil zaitezte eta adi zazue; populuak, zaudezte erre; adi bezate lurra eta harek dadukanak, munduak eta harek dakharren guziak.

2. Ezen Jaunaren gaitzidura jendaki guzian gainean da, haren sepha armada guzian gainean: oro hiltzen, oro heriotzeari ematen ditu.

3. Hekien hilak arthikiak egonen dira, hilikiatarik iganen da urrin gaitza; hekien odola mendietarik zurrutaka goanen da.

4. Eta zeruetako izarreria guzia iraungia egonen da, eta zeruak liburu bat bezala bilduko dira, eta hango izarreria guzia eroriko da, hostoa mahastitik edo pikotik erortzen den bezala.

5. Ezen zeruan horditu da ene marrauza: huna non Idumearen gain-nera jautsiko den, ene justiziaren agertzeko heriotzeari eman dudan populuaren gainera.

6. Jaunaren marrauza odolez bethea da, gizendu da bilgorrez, bildo-tsen eta akherren odolez, ahari-gizenen odolez; Bofran da ezen Jaunaren bitima, eta heriotzeketa handia Edomen lurrean.

7. Eta likornak jautsiko dira hekiekin, eta zezenak botheretsuekin; lurra hordituko da hekien odolaz, eta zothala hekien urinaz;

8. Ezen hau da Jaunaren asperkundeko eguna eta Sionen sari zuzen-bidekoen urthea.

9. Edomgo ur-errekak bikhetara eta hango zothala sufretara bihurtu-ren dira; eta hango lurra bikhe khaldatu izanen da.

10. Ez gau, ez egun ez da iraungituren, bethi guzian iganen da han-dik khea; gizalditik gizaldira desmasian egonen da, menderen mendetan ez da izanen han gaindi iraganen denik.

11. Pelikanoa eta sagarroia izanen dira hango nausi; ibisak eta beleak han eginen dute beren egoitza; haria haren gainera hedatua izanen da haren ezeztatzeko, eta beruna haren desmasatzeko.

12. Hango handiak ez dira han izanen; errege bat nahiz, galdeka hari-ko dira, eta hango buruzagi guziak ezeztatuak izanen dira.

13. Elhorriak eta hausinak sorthuko dira hango etxeetan, laharrak hango hazkargailuetan, eta hura izanen da erainsugeen etzan-lekhu eta ostruken alhapide.

14. Eta debruak eta gizastoak han batuko dira, eta iletsuak bata bertzeari oihuka hariko dira; emasugeak han izanen du bere ohantzea eta aurkhituren phausua.

15. Han eginen du sagarroiak bere zilhoa, eta hariko ditu umeak, eta inguru-inguru zilhoa eginik haren gerizan beroki idukiren ditu; han, bat bertzea gana bilduko dira miruak.

16. Arduratsuki bilha zaitezte Jaunaren liburuan, eta irakur zazue: nik erran haukiatarik bakhar batek ez du hutseginen, ez dira bat bertzearen



gogait egonen; zeren ene ahotik atheratzen dena, Jaunak da manatua, eta haren izpirituak ezarri ditu batera.

17. Eta harek berak egin diotzate beren zathiak, eta haren eskuak berezi diote Idumea neurrika; behin bethiko dute gozaturen, menderen mendetan hura izanen dute egoitatzat.

### XXXV. KAP.

1. Toki mortu eta biderik gabeak bozkariotan izanen dira; eremua bozkarioz jauziko da, eta lilia bezala loratuko.

2. Alde orotara muskilduren da, eta bozkarioz jauziko da, eta kantikak ditu kantaturen; emana izanen zaio Libanen ospea, Karmelen eta Saronen edertasuna; berek ikhusiko dituzte Jaunaren ospea eta gure Jainkoaren ederra.

3. Hazkar zatzue esku ethenduak eta indar emozuete belhaun herbalei.

4. Bihotz ilhaunak dituztenei errozute: Har zazue indar, eta ez izan beldurrik: huna non dakharren zuen Jainkoak merezimenduaren arabera-ko asperkundera; Jainkoa heldu da bera, eta salbaturen zaituztete.

5. Orduan idekiren dira itsuen begiak eta zabalduren gorren beharriak.

6. Orduan maingua jauziren da orena bezala, eta idekiren da mutua- ren mihia, zeren ithurriak ilkhi baitira mortuan eta uharrak eremuan.

7. Eta leihor zen tokia ur-maeletara aldatuko da, eta agor zena ithur- urretara. Erainsugeak lehen egoten ziren ohantzetan ilkhiko da khanabera eta ihiaren hosto berdea.

8. Eta han izanen da bidexka bat, eta bide bat bide saildua deithuko dena: khutsatua ez da hartarik iraganen, eta hura izanen da zuzentzat bide zuzena, haletan non zoroak hartan gaindi ibiliko ez baitira.

9. Ez da han izanen lehoi-rik, eta basabere gaixtoa ez da hartarik iga- nen, ez-eta hartan khausituko; eta hartan ibiliko dira libratuak izan direnak;

10. Eta Jaunak berrerosi dituenak bihurturen dira eta Sionera laudo- riorzko kantutan ethorriren, eta bethi iraunen duen bozkario bat izanen da hekien buruaren gainean; boskalentziaren eta goiheretasunaren jabe iza- nen dira, eta oinhazeak eta auhenak ihes egingen dute.

### XXXVI. KAP.

1. Eta Ezekias erregearen hamalagarren urthean gerthatu zen Senakerib, Asiriarren errege, Judako hiri hazkar guzietara igan zela eta hartu zituela.

2. Eta Asiriarren erregek Errabsazes igorri zuen indar handitan Lakistik Jerusalemara Ezekias erregearen gana; eta Errabsazes baratu zen gaineko arraintegiko ixtunean, bolazainaren landako bidean.

3. Eta haren gana ilkhi ziren Eliazim, Helziasen semea, erregeren etxegizona, eta Sobna iskribaua, eta Joahe, Asaphen semea, agerizaina.

4. Eta Errabsazesek erran zaroeten: Hau dio errege handiak: Zer da ustekeria hori zeinaren gainean baihaiz bermatzen?

5. Zer asmuk, edo zer indarrek ekhartzen hau bihurtzera? noren gai- nean dadukak hire pheskiza, ene ganik gibelatu baihaiz?

6. Huna non Egiptoaren gainean, khanaberazko makhila hautsi horren gainean dadukakan hire ustea; horren gainean bermatzen bada gizona, eskutik sorthuren zaiok eta zilhatuko zio: horra zer den Faraon, Egiptoko errege, haren gainean sinheste dadukaten guzientzat.

7. Eta baldin ihardesten balerotak: Gure Jainko Jaunaren baithan ematen dugu gure pheskiza: ez othe da hura bera, zeinaren lekhu gorak eta aldareak eragotzi baititu Ezekias-ek, Judari eta Jerusalem-eri erranez: Bertze aldare hunen aitzinean adoratuko duzue?

8. Eta orai emahadi Asiriarren errege ene nausiaren eskuetara, eta emanen darozkiat bi mila zaldi, eta hekien igailerik ezin atheratuko duk hire populutik.

9. Eta ene nausiaren zerbitzari xumeentarikako juie lekhu bakhar batekoaren begithartea nola jasanen duk? Baldin Egiptoaren gainean bahago, orga-laster eta zaldizkoen gainean;

10. Jaunaren manua gabe igan othe naiz lur huntara, hunen xahutze- ra? Jaunak erran izan darot: Igan zaitte lur hortara eta xahu zazu.

11. Eta Eliazimek, eta Sobnak, eta Joah-ek erran zioten Errabsazes- i: Zure zerbitzari-ri siri- araz mintza zaitte, ezen aditzen dugu: juduaraz ez mintza guri, harrasi gainean dagoen populuak aditzen duelarik.

12. Eta Errabsazesek ihardetsi zaroeten: Hire nausiaren gana eta hire gana igorri othe naik ene nausiak, solas haukien guzien egitera; eta ez lehenago harrasi gainean jarriak dauden gizon horietara, jan dezaten beren ongarria eta zuekin edan oinen azpitik beren gerna?

13. Eta Errabsazes xutik jarri zen, eta juduaraz mintzoa goratuz, oi- hu egin zuen, eta erran: Adi zatzue errege handiaren, Asiriarren erregeren hitzak.

14. Hau dio erregek: Ez bezaitzazte zora Ezekias-ek, zeren ezin itzu- rraziko baitzaituztete.



15. Eta Ezekiasiek ez biazazuete ustekeriarik eman Jaunaren gainean, erranez: Jaunak atheraturen gaitu atheketarik, eta hiri hau ez da emana izanen Asiriarren erregeren eskura.

16. Berautzue Ezekiasen entzutetik; ezen hau dio Asiriarren erregek: Egin dizadazute ongiethorria, eta ilkhi zaitzte ene gana, eta jan zazue zeinek bere mahastitik, eta bere pikotik, eta edan zazue zeinek bere urtegitiko uretik,

17. Ethor nadien arteo eta eraman zaitzaiztadan zuen lurraren iduriko bertze lur batera, zeina baita zuena bezala ogi eta arno lurra, bihi eta mahasti lurra.

18. Eta Ezekiasiek ez bezaitzazte nahas, erranez: Jaunak atheratuko gaitu. Jendaietako Jainkoek atheratu othe dute zeinek bere lurra Asiriarren erregeren eskutik?

19. Non da Ematheko eta Arphadeko jainkoa? non da Sepharbaimgo jainkoa? Atheratu othe dute Samaria ene eskutik?

20. Zein da lur horietako jainko guzietarik bere lurra ene eskutik atheratu duena, Jaunak Jerusalemene atheratzeko ene eskutik?

21. Eta oro ixilik egotu ziren, eta etzioten hitz bat ihardetsi; ezen erregek manu eman zuen, erranez: Ez biozozuete ihardets.

22. Eta soinekoak hautsirik, Ezekiasen gana ethorri ziren Eliazim, Helziasen semea, erregeren etxegizona, eta Sobna iskribaua, eta Joahe, Asaphen semea, agerizaina, eta ekharri ziozkaten Errabsazesen hitzak.

### XXXVII. KAP.

1. Eta gerthatu zen, Ezekias erregeak aditu zuenean hori, urratu zituela bere soinekoak, eta zakhu batez inguratu eta Jaunaren etxean sartu zela.

2. Eta igorri zituen Eliazim, bere etxegizona, eta Sobna iskribaua, eta aphezetarik zaharrenak, zakhuz estalirik, Amosen seme Isaias profeta gana.

3. Eta haukiek erran zaroten Isaias: Hau dio Ezekiasiek: Atsekabezko, eta azurriazko, eta burhozko eguna egun hau! Ezen haurrak ethorri dira sortzeko heinera, eta minetan denak ez du erditzeko indarrik.

4. Zure Jainko Jaunak nolazbait aditu ahal ditu Errabsazesen solasak, Asiriarren errege bere nausiak, Jainko biziaren burhoztatzera igorri duenarenak, eta zure Jainko Jaunak aditu dituen hitzez irain egitera. Altxa zazu beraz zure othoitzza khausitzen diren ondarrantzat.

5. Eta errege Ezekiasen zerbitzariak ethorri ziren Isaiasen gana.

6. Eta Isaiasek erran zaroeten: Hau erranen diozue zuen nausiari: Hau dio Jaunak: Ez izi aditu ditutzun hitzez, Asiriarren erregeren muthilek ni burhoztatu nautenez.

7. Huna non hats bat emanen diodan gainera, eta adituko du berri bat, eta itzuliko da bere lurrera, eta bere lurrean erorraraziko dut ezpatarren azpira.

8. Errabsazes aldiz itzuli zen, eta atzeman zuen Asiriarren errege Lobnaren gudukatzen hari zela; aditu zuen ezik Lakistik goana zela.

9. Eta Asiriarren erregek aditu zuen Tharakaz, Ethiopiako erregez, erraten zutela: Ilkhi da zuri gudu ematera. Hori aditu zuenean, berri-eramaileak igorri ziozkan Ezekiasi, zioelarik:

10. Hau erranen diozue Judako errege Ezekiasi: Ez beheza engana hire Jainkoak, zeinaren baithan baitadukak hire pheskiza, erraten dukalarik: Ez da Asiriarren erregeren eskura arthikia izanen Jerusalemene.

11. Huna, aditu dituk Asiriarren erregeek egin diozkatena oro, xahutu dituzten lur guziei; eta hi itzuriren ahal haiz?

12. Jendaietako jainkoek atheratu othe dituzte ene arbasoek xahutu dituztenak, Gozam, eta Haram, eta Erreseph, eta Edenene ume Thalasarren zirenak?

13. Non dira Ematheko errege, eta Arphadeko errege, eta Sepharbaimgo hiriko, eta Anako, eta Abako errege?

14. Eta Ezekiasiek barri-ekharleen eskutik hartu zituen gutunak, eta irakurtu zituen, eta igan zen Jaunaren etxera; eta Ezekiasiek hedatu zituen Jaunaren aitzinean.

15. Eta Ezekiasiek Jaunari othoitz egin zioen, erraten zuelarik:

16. Armadetako Jauna, Israelgo Jainkoa, kerubinen gainean jarria zaudena; zu zare lurreko erresuma orotako Jainko bakharra; zuk egin ditutzu zeru-lurrak.

17. Ukhur-zazu, Jauna, zure beharria, eta adi zazu; zabal zatzu, Jauna, zure begiak, eta ikhusazu; eta adi zatzu Senakeribek Jainko biziaren burhoztatzeko igorri solasak guziak.

18. Alabainan egia da, Jauna, Asiriarren erregeek mortu egin dituztela lurrak, eta hekietako herrialdeak.

19. Eta suari eman diozkate hekietako jainkoak; alabainan etziren jainko, bainan-bai zur eta harri, gizonen eskuetako lanak; eta puskakatu dituzte.

20. Eta orai, gure Jainko Jauna, salba gaitzatzu haren eskutik; eta lurreko erresuma guziek ezagut bezate, zu bakharra zarela Jauna.



21. Eta Amosen seme Isaiasek Ezekiasen gana bidali zuen, zioelarik. Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Asiriarren errege Senakeriben gainean zuk othoiztuaz,

22. Hitz hau erran du Jaunak Senakeribez: Eskarnio eta irain egin darozkitzu, Siongo alaba garbia; zure ondotik burua gorgoinatu du, Jerusalemeko alaba.

23. Nori arthiki diok eskarnio? nori arthiki burho? noren kontra altxatu duk mintzoa, goititu hire begietako hanpuruskeria? Israelgo sainduaren kontra.

24. Hire muthilen ahoz eskarnio Jaunari diok arthiki, eta erran izan duk: Ene orga-lasterren ostearekin igan naiz mendien bizkarrera, Libanen kaskoetara: ebakiren ditut hango zedro gorak eta hango izai hautak, eta sarthuren naiz haren muthurraren gain-gainera, haren Karmeleko oiha-nera.

25. Nik egin dut zilhoa, eta nik edan ura; eta ene oinaren hatzak agor-tu ditu ixtunetako erreka guziak.

26. Ez othe duzu aditu zer egin diodan beihala? Aspaldiko egunetarik nik erabaki dut hori, era orai burutu dut, eta hori egina da gerlarien munhoen eta hiri hazkarren eragozteko.

27. Eta hango egoiliarrak, eskuak eroriak, ikharan jarri dira eta ahal-kez urthu; egin dira bazterretako belharra eta alhapidetako sorhoa iduri, eta hegaztegietako belhar zohitu baino lehen ihartzen dena bezala.

28. Banakizkian hire egon-lekhu, hire sar-ilkhi, hire sepha zoroak ene kontra.

29. Fhuliaka hindabilanean ene kontra, hire hanpuruskeriaren burrunba igan duk ene beharrietara. Ezarriko daiat beraz muthurreko bat sudur-mizpiretan, kabrestua ahoan, eta ethorri haizen bidez eramanen haut gibelerat.

30. Bainan zuretzat, Ezekias, hau izanen duzu ezagutkari: Aurthen jan zazu bere baitharik sortzen dena, heldu den urthean fruituetarik bizi zaite; hirugarren urthean, berriz, erain zazue eta uzta, landa zatzue mahastiak eta jan hekien fruituetarik.

31. Judaren etxetik salbatu ditakeenak eta gelditu denak, erroak art-hikiren ditu beherean eta fruituak ekharriko ditu gainean;

32. Ezen Jerusalemetik ilkhiko dira ondarrak, eta Siongo menditik salbamenduko adarra: armadetako Jaunaren kharrak eginen du hori.

33. Horren gatik, Jaunak hau dio Asiriarren erregez: Ez da hiri huntara sarthuko, eta ez du hunat gezi bat arthikiko, eta erredola ez da huntaz nausituko, eta hunen inguruan hertsigailurik ez du altxatuko.

34. Zein bidez ethorri, hartaz itzuliko da, eta hiri huntan ez da sart-huko, dio Jaunak.

35. Eta gerizaturen dut hiri hau, salba dezadan ene gatik eta ene zerbizari Dabiden gatik.

36. Bada, Jaunaren aingerua ilkhi zen, eta Asiriarren kanpetan jo zituen bederatzitan hogoi eta bortz mila gizon. Eta goizean jaikitzean, hara guziak gorphutz zirela.

37. Eta Senakerib Asiriarren errege ilkhi zen eta goan, eta bihurtu zen eta Niniban egotu zen.

38. Eta gerthatu zen, tenploan adoratzen zuelarik Nesrok bere jainkoa, Adramelekek eta Sarasarrek, bere semeek, jo zutela ezpataz; eta Ararateko lurrera ihes egin zuten; eta haren orde, erreginatu zen Asarhadon haren semea.

### XXXVIII. KAP.

1. Orduko egunetan, Ezekias eritu zen hiltzeko heineraino, eta Isaias profeta, Amosen semea, ethorri zen haren gana, eta erran zaroen: Hau dio Jaunak: Antola zatzu zure etxeko egitekoak; ezen hilen zare eta etzare biziko.

2. Eta Ezekias ek burua itzuli zuen zokhoko alderat, eta Jaunari othoitz egin zioen,

3. Eta erran zuen: Othoi, Jauna, orhoit zaite othoi, nola zure aitzinean ibili naizen zintasunean eta bihotzeko garbitasunean, eta zure begietan on dena egin izan dudala. Eta Ezekias nigar-uharretan egotu zen.

4. Eta Isaiasi atheratu zitzaioen Jaunaren hitza, zioena:

5. Zoaz, eta Ezekiasi errozu: Hau dio Jaunak, Dabid zure aitaren Jainkoak: Entzun dut zure othoitz eta ikhusi ditut zure nigarrak: huna non nik zure egunen gainera berhatuko ditudan hamabortz urthe.

6. Eta Asiriarren erregeren eskutik atheratuko zaituztet zu eta hiri hau, eta nik gerizatuko dut hau.

7. Berriz, hau izanen da zuretzat Jauna ganikako ezagutkaria, Jaunak obratuko duela erran duen hitza:

8. Huna non nik itzala, zeina Akazen erloian iguzkitan marrak behe-ra jautsi baita, hamar marraz bihurraziko dudana gibelerat. Eta iguzkia itzuli zen hamar marraz, jautsi zituen ozkak gora.

9. Judako errege Ezekiasen kantika, eritu eta bere gaitzetik sendatu zenean.

10. Nik erran dut: Ene egunen erdian jautsiko naiz hobiko athera.

Bilhatu dut ene urtheen ondarra.



11. Erran dut: Bizidunen lurrean ez dut ikhusiko Jainko Jauna. Ez dut gehiago ikhusiren gizona, ez-eta phausuan bizi dena.

12. Ene bizia khendua zait, eta ene ganik bilduak da, artzainen olha biltzen den bezala.

Ene bizia ebakia da, ehaileak haria ebakitzen duen bezala. Jaunak ebaki nau, irazkitzen hari nintzenean oraino: goizetik arratsa artean akhabaturen nauzu.

13. Bihar goiza arteo uste nuen iraun; lehoinak bezala karraskatu ditu ene hezurak:

Goizetik arratsa artean akhabaturen nauzu.

14. Marraska eginen dut ainhararen umeak bezala; kuintaz egonen naiz usoa bezala.

Goiti begira ethenduak dira une begiak;

Jauna, borroka jasaiten nago, ihardukazu enetzat.

15. Zer erranen dut, edo zer ihardetsiren darot harek, bera hari denaz geroztik?

Zure aitzinean gogoz iraganen ditut ene urthe guziak ene bihotzeko uherduran.

16. Jauna, horrela bizitzen bada, eta horrelakoetan badatza une bizia- ren hatsa. azurriaturen eta biziaraziren nauzu oraino.

17. Huna non bakera bihurtzen den uhertasun guziz uherra.

Zuk aldiz atheratu duzu ene arima, gal etzadiantzat; zure gibelerat arthiki ditutzu une bekhatu guziak.

18. Alabainan hobiak ez darotzu aithorrik bihurturen, eta heriotzeak etzaitu laudaturen; putzura jausten direnak ez dira zure zintasanaren iguri egonen.

19. Bizidunak, bizidunak bakharrrik emanen darotzu aithor, nik egungo egunean bezala; aitag bere haurrei ezagutaraziko daroete zure zintasuna.

20. Itzurraz nezazu, Jauna, eta gure bizitzeko egun guzietan Jaunaren etxean kantaturen ditugu gure psalmoak.

21. Eta Isaiasek manatu zuen ekhar ziezaten piko zaretara bat, eta hekietaz lothura egin zezaten erregeren zauriaren gainean, eta senda zedin.

22. Eta Ezekiasiek erran zuen: Zer izanen da ezagutkaria iganen nai- zela oraino Jaunaren etxera?

### XXXIX. KAP.

1. Orduko egunetan, Merodak Baladan, Baladanen semeak, Babilonako erregek, gutunak eta emaitzak igorri ziozkan Ezekiasi; aditu zuen ezik eri izanik sendatua zela.

2. Ezekias, berriz, boztu zen bidalkinen ethortzeaz, eta erakhutsi zaroezten baltsamu, zilhar, urhe, usain gozo eta gantzugailu hoberenak zaduzkan tokia, eta bere tresnak zaduzkan lekhuak, eta khutxetan aurkhi- tzen zirenak oro. Etzen gauzarik Ezekiasiek bere etxean eta bere ahalean zuenik, eta hekiei erakhutsi etziotenik.

3. Aldiz Isaias profeta sarthu zen Ezekias erregea gana, eta erran zaroen: Zer diote gizon horiek, eta nondik ethorri dira zure gana? Eta Ezekiasiek ihardets zuen: Urrungo lurretik, Babilonatik ethorri zaizkit.

4. Eta Isaiasek erran zuen: Zer ikhusi dute zure etxean? Eta Ezekiasiek ihardetsi zuen: Ene etxean diren gauza guziak ikhusi dituzte; ene khutxetan ez da izan gauzarik horiei erakhutsi ez daroeztedanik.

5. Eta Isaiasek erran zaroen: Adi zazu armadetako Jaunaren hitza:

6. Huna non ethorriko diren egunak, aita zure etxean diren gauza guziak, eta zure arbasoek orai arteo bildu dituztenak Babilonara eramanak izanen dira: ez da deusere geldituren, dio Jaunak.

7. Eta zure ganik ilkhiko diren, zuk bizia emanikako semeetarik era- manak izanen dira, eta ebaki Babilonako erregeren jauregian izanen dira.

8. Eta Ezekiasiek ihardetsi zaroen Isaiasi: Zuzena da erran duzun Jauna ganikako hitza. Eta erran zuen oraino: Ene egunetan bederen iraun bezate bakeak eta egia.

### XL. KAP.

1. Sosega zaite, sosega, ene populua, dio zuen Jainkoak.

2. Mintza zaitezte Jerusalemen bihotzari, eta Jerusaleme deith zazue bere izenaz; ezen akhabo dira haren gaitzak, barkhatua zaio bere bekha- tua, bikhun izatu du Jauna ganik bere bekhatu guzien ordain.

3. Mortuan oihuz dagoenaren mintzoa: Aphain zazue Jaunaren bidea, zuzent zatzue mortuan gure Jainkoaren bidexkak.

4. Edozein haren goratua izanen da, edozein mendi eta munho beheratua; eta makhurrak izanen dira xuxenduak, eta malkharrak bardin- duak.

5. Eta agerturen da Jaunaren ospea; eta edozein gizonen ikhusiren du Jaunaren ahoa dela mintzatu.

6. Dioenaren mintzoa: Oihu egik. Eta ihardetsi dut: Zer eginen dut oihu? Edozein haragi belhar dela, eta haren ospea landetako lore bat.





7. Belharra ihartu da eta lorea erori, zeren Jaunaren hatsak gainera buhatu baitu. Populua da zinez belharra;
8. Belharra ihartu eta lorea erori da. Bainan gure Jaunaren hitzak behiren bethi du iraunen.
9. Mendi gora baten gainera igan zaite, oi zu, Sioni berri ona ekhartzen diozuna hazkarki egizu oiuhu, oi zu, Jerusalem berri ona ekhartzen diozuna; egizu oiuhu, ez izan beldur; Judako hiriei errozute: Huna zuen Jainkoa!
10. Huna zuen Jainko Jauna bere indarrean heldu dela, aita haren besoa nausi izanen da. Huna bere saria berekin, eta bere eginkaria bere aitzinean.
11. Artzainak bezala alhaturen du bere arthaldea, besoetan bilduren ditu bildotsak, eta bere galtzarrera hartuko ditu; berak ekharriko ditu ardi ernariak.
12. Ahurraz nork neurtu ditu urak, eta eskuaz nork haztatu ditu zeruak? Nork hirur erhiz airean daduka lurraren bultoa, eta phisatu ditu mendiak, eta balantzetan ezarri munhoak?
13. Nork lagundu du Jaunaren izpiritua? edo nor izatu da haren konseilari, eta irakhatsi dio?
14. Norekin egotu da asmutan? nork argitu du, eta nork erakhutsi dio zuzenbidea, era irakhatsi jakitatea, eta erakhutsi umotasunerako bidea?
15. Jendaiaak xorta suilan bezala ikhusiak dira, izpia balantzetan bezala huna irlak herrauts xehea iduri.
16. Eta Liban guzia ez laite aski haren sakrifizioaren erretzeko, eta abere guziak ez laizteke aski holokaustakotzat.
17. Jendaia guziak, nola ez balira hala dira haren aitzinean, eta ezdeusa eta hutsa bezala dira haren begietan.
18. Zeren iduriko egiten duzue beraz Jainkoa? edo zer itxuren azpian erakhutsiren duzue?
19. Ofizialeak ez othe du urtzen moldea? edo urheginak ez othe du haren itxura urhez egiten, eta zilharginak zilhar-xaflaz?
20. Ofiziale jakinak hautatzen du zur hazkar eta ezin-ustelduzkoa, eta bilhatzen du itxura xutik ematera khordokatuko ez den bezala.
21. Ez othe duzu jakin? ez othe duzu aditu? hastetik ez othe zaitzue berria emana izan? ez othe duzue endelgatu nork asentatu duen lurra?
22. Hainak mundua du jar-lekhu, eta hango egoiliarrak dira xartalak iduri: harek barraiatu ditu zeruak bela bat iduri eta hedatu hala-nola olha bat, hartan egoteko;
23. Hainak, ez balira bezala ezartzen ditu gauza estalien bilhatzaileak, eta ezdeusa bezala egiten lurreko juieak.

24. Halabadere, etzen hekien ondoa lurrean izan ez landatua, ez eraina, ez erroztatua: bat-batean haize egin daroete, eta ihartu dira, eta eraman ditu xirimolak lastoa bezala.

25. Eta noren iduriko, noren bardin egin nautzue? dio Sainduak.

26. Begiak goiti ematzue, eta ikhusazue nork egin dituzkeen zeruak; nork daraman moltzoan hekietako armada, eta guziak deitzen dituen beren izenez, bakhar bat gibelerat gelditu gabe haren ahal, indar, berthuteen handitasunaren ariaz.

27. Nolaz diozu, Jakob, nolaz erasten duzu, Israel: Ene bizia gordea da Jaunarentzat, eta ene Jainkoak ez daduka ene juitzeaz ardurarik?

28. Ez othe dakizu, edo ez othe duzu aditu? Jauna da egundainotikako Jainkoa, lurraren eremuak egin dituena; ez nekhatzen, ez behartzen ez dena, eta haren zuhurtzia ezin-barrenduzkoa da.

29. Harek ematen dio nekhatuari kalipu, eta ahituak direnei berhatzen dute bihotza eta indarra.

30. Nekhatuko dira haurrak eta akhituko, eta gazteak herbalduretan eroriko dira.

31. Bainan beren pheskiza Jaunaren baithan dadukatenek, berrituren dute indarra; arranoak bezala harturen dituzte hegalak; lasterka goanen dira, eta ez nekhatuko; ibiliko dira, eta ez hebainduko.

## XLI. KAP.

1. Irlak ixil beitez ene entzuteko; jendaiek berri bezate beren indarra; eta hurbil beitez, eta orduan mintza; juiamendutara sar gaitezen elkharrekin.

2. Nork eraiki du prestua iguzki-aldetik, eta nork deithu du bere ondotik? Haren aitzinean populuak eman eta erregeak azpiratu, populuak haren ezpatari herrautsa bezala eman eta erregeak haizeak derabilan lastoa bezala haren arranbelari azpiratu ditu.

3. Eta hekiei jarraikitzean, iragan da, haren oinek egin bidexkarik ez baita ageri.

4. Nork egin eta obratu ditu horiek, gizaldiak hatsarritik deithuz? Nik, Jaunak; ni bainaiz lehena, eta ni azkena.

5. Irlek ikhusi eta izitu dira; lurraren lau izkinak harritu dira; jendeak hurbildu eta elkharaganatu dira.

6. Lagunduko du batbederak bere laguna, eta bere anaiari erranen dio: Emok bihotzari!

7. Kobreginak, mailuaz hari zelarik, harekin ingudioan orduan joka hari zena berotu du erranez: Lotzeko ona da; eta lana itzez gogortu du, higi etzadien.



8. Eta zu, Israel, ene zerbitzaria; Jakob, hautatu zaitudana, Abraham ene adiskidea ganikako iraulgia;

9. Haren baithan hartu zaitudana lurraren bertze bazterretik, eta hango lekhu urrunetarik deithu; eta erran izan darotzudana: Zu zare ene zerbitzaria, zu hautatu zaitut, eta etzaitut irazi;

10. Ez izan beldurrik, zeren zurekin bainaiz; ez zeiber, zeren ni bainaiz zure Jainkoa; hazkartu zaitut eta lagundu, eta ene prestuak bere eskuinaz hartu zaitu.

11. Huna, ahalkaturen eta gorrituren dira zuri gudu ematen darotzuten guziak; eta jazartzen darotzuten gizonak, ez balira bezala eginen eta galduko dira.

12. Bilhatuko ditutzu zuri bihurtzen zaizkitzun gizonak, eta ez ditutzu khausituko: ez balira bezala eta xahutuak bezala izanen dira gizon zuri gerla egileak;

13. Zeren ni bainaiz zure Jainko Jauna, eskutik hartzen zaitudana eta erraten darotzudana: Ez izan beldur, nik laguntzen zaitut.

14. Ez izan beldur, Jakob, harra bezala jarria zarena, eta zuek, Israelgo ume hilak bezala zaretenak; nik lagundu zaitut, Israel, dio Jaunak; eta zure berreroslea, Israelgo saildua da.

15. Nik egin zaitut orga berri bat bezala, ogiak jotzen dituen eta bihitzeko hortzak daduzkana; mendiak joko eta xehatuko eta munhoak herrautsa bezala ezarriko ditutzu.

16. Haizaturen ditutzu, eta haizeak eramanez ditu, eta xirimolak barraiatuko; eta zu, Jauna baithan boztuko, eta Israelgo saildua baithan jauziko zare.

17. Noharoin eta beharrak ur eske dabilta, eta ez dute aurkhitzen; egarriak ihartzen hari du hekien mihia. Nik, Jaunak, entzunen ditut; nik, Israelgo Jainkoak, ez ditut bazterrerat utziko.

18. Ibaiak idekiren ditut mendixken mazeletan eta ithurriak landen erdian, mortuak ezarriren ditut ur-maeletan, eta biderik gabeko lurra ur-erreketan.

19. Eremuan emanen ditut zedroa, elhorria, arraiana, olibondoa; mortuan, izaia, zuharra eta ezpela elkarrekin;

20. Ikhus dezaten, eta jakin, eta gogoan erabil, eta adi batean, Jaunaren eskuak egin duela hori, eta Israelgo sailduak kreatu duela.

21. Athera zazue juiamendura zuen zuzena, dio Jaunak; ager zazue, baldin gerthuz bazindute zerbait, dio Jakob en erregek.

22. Hurbil beitez eta erran biazagute zer den gerthatu behar; beihala izatu diren gauzak ezagutaraz detzagutzue; eta bihotza horri emanik, ezaguturen dugu hekien akhabantza; erraguzue zer den gerthatu behar.

23. Erraguzue ethorkizunean gerthatu behar dena, eta jakinen dugu jainko zaretela; egizue halaber ongia edo gaizkia, ahal badezazue, eta guziak ikhuresiren dugu eta mintzaturen gare.

24. Huna, ezdeusetarik eginak zarete; etzenetikakoa da zuen egintza; hatsgarrikeriak hautatu zaituztete.

25. Eraiki dut ipharretik, eta iguzki-sortzetik da ethorriren; deithaturen du ene izena, eta handi-mandiak lohia bezala, baxerigileak buztina oinaz orhatzen duen bezala ditu erabiliren.

26. Zein zarete hatsarritik ethorkizunaren errailea, arren-eta ezagut dezagun? zein da hastapenetik mintzatu dena, erran diozogun: Egiatia zare? Bainen ez da zuetan berri-ekharlerik, ez aitzinetik errailerik, ez-eta nihork ez du zuen solasik aditu.

27. Jaunak lehenbizikorik erranen du: Huna non diren; eta Jerusalemari emanen diot berri onaren ekharlea.

28. Eta begiratu dut, eta hekietarik etzen bat bakharra ere asmu baten atheratzeko, ez-eta galdearen gainean hitz baten ihardesteko.

29. Huna guziak gezurti eta hekien egintzak hutsal direla; hekien itxurak haize eta ezdeuseria dira.

## XLII. KAP.

1. Huna ene zerbitzaria; nik lagunduren dut: huna ene hautetsia; hunen baithan du lakhet ene arimak; hunen gainean ezarri dut ene izpiritua; zuzenbidea ekharriren du jendaietara.

2. Ez du oihurik eginen, nor-nor-den ez da begiratuko, eta haren mintzoa ez da kanpoetan entzunen.

3. Khanabera hautsia ez du lehertuko, eta khetan den mitxa ez du iraungiko; zintasunean emanen dio zuzenari bere bidea.

4. Ez da izanen ez gobel, ez nahasi, zuzentasuna lurraren gainean jar dezan arteo; eta irlak haren legearen iguri egonen dira.

5. Hau dio Jainko Jaunak, zeruak kreatu eta hedatu, lurra eta hartan sortzen direnak finkatu dituenak; lurraren gainean den populuari hatsa, eta lurra oinaz zaphatzen dutenei bizia eman diotenak:

6. Nik, Jaunak, deithu zaitut zuzentasunean, eta hartu dut zure eskua, eta zaindu zaitut; eta eman zaitut populuekilako batasuntzat, eta jendaien argizat;



7. Idek detzatzun itsuen begiak, estekatik athera lothua dena eta presondegitik ilhunbeetan jarriak direnak.

8. Jauna naiz ni, hori da ene izena ez diot bertze bati emanen ene ospea, ez-eta idolei enetzateko laudorioa.

9. Huna non gerthatu diren erranak izan ziren lehenbizikoak; berriak ere ezagutarazten ditut nik, adiaraziko darozkitzuet gertha ditezen baino lehen.

10. Jaunari kanta diozuzue kantika berri bat; haren laudorioa lurraren lau izkinetarik ilkhiazaz zazue, oi itsasora jausten zaretenak eta haren hedaduran zabilzatenak; irlak, eta hekietako egoiliarak.

11. Jaik beitez mortua eta hango hiriak: Zedarrek etxeetan eginen du bere egoitza. Petrarrak, lauda zazue Jauna; mendi-kaskoetarik hariko dira oihuka.

12. Jaunari bihurturen diote ospe, eta haren laudorioa goraki erranen dute irletan.

13. Gerlari hazkarra iduri ilkhiren da Jauna; guduko gizonak bezala beroturen du bere kharra, oihuz hasiko da, deihadar eginen du; bere etsaien gainean indar hartuko du.

14. Ixilik egotu naiz bethi, ez dut hitzik erran, jasankor izatu naiz; orai erditzen hari dena bezala mintzatuko naiz; xahutuko, hondatuko ditut oro batean.

15. Mortu eginen ditut mendiak eta munhoak, iharraraziko ditut hekietako sorho guziak, eta hibaletarik eginen ditut irlak, eta agortuko ditut ur-maelak.

16. Itsuak eramanen ditut ez dakiten bide batetik, eta ibilaraziren ditut ezagutu ez dituzten bidexka batzuetarik; ilhunbeak hekien aitzinean argitara aldaturen ditut, eta makhurrak xuxenetara: hitz horiek eman diozkatet, eta berak ez ditut bazterrerat utzi.

17. Gibelerat itzuli dira; ahalko gorriz ahalka beitez molde bernuzatuetan beren sinhestea dadukatenak, molde urthu batzuei erraten dute-nak: Zuek zarete gure jainkoak.

18. Gorrak, adi; itsuak, begira zazue ikhusteko.

19. Nor da itsu, ez bada ene zerbitzaria? eta nor da gor, ez bada haina zeinari igorri baitiozkat ene mezulariak? Nor da itsu, ez bada saldua izan dena? eta nor da itsu, ez bada Jaunaren zerbitzaria?

20. Zuk, hainitz ikhusten duzunak, ez othe duzu zerbait idukitzen? beharriak idekiak dituzunak, ez othe duzu aditzen?

21. Eta Jaunak hau nahi izan du hunen sainduesteko, legearen handiesteko eta goresteko.

22. Bainan populu hau larrutua eta deboilatua da; gazte guziak artean atzemanak aita presondegietan sarthuak dira; arthikiak dira nork biluz, eta nihor ez da horien atheratzeko; arthikiak dira nork larru, aita nihor ez da errateko: Utzatzue.

23. Nor da zuen artean hau entzuten duenik, atzarria dagoenik eta beharria ematen duenik ethortzekoak diren gauzei?

24. Nork eman du Jakob larrutzer, Israel arthiki deboilarien aztaparreretara? Ez othe da Jauna bera, zeinaren alderat egin izan baitugu bekhatu? Eta ez dute nahi izan haren bideetan ibili, eta ez dute haren legea entzun.

25. Eta Jaunak horien gainera hustu ditu bere sepharen gaitzidura eta gerla gogorra; eta inguru guzian erre du Israel, eta Israelek ez du ezagutu; aita su eman dio, eta ez da ohartu.

### XLIII. KAP.

1. Eta orai hau dio Jaunak, zu kreatu zaituenak, Jakob; zu moldatu zaituenak, Israel: Ez izan beldur, zeren berrerosi aita zure izenaz deithu baitzaitut; enea zare zu.

2. Urak iragaiten badituztu, zurekin izanen naiz, eta hibaiek etzaituzte estaliren; suan ibiltzen bazare, etzare erreko, aita suak ez du zuretzat khaldarik izanen;

3. Zeren ni naizen zure Jainko Jauna, Israelgo saindua, zure salbatzaila; zure barkhamenduarentzat eman ditut Egipto, eta Ethiopia, aita Saba.

4. Ohoragarri eta ospetsu ene begietan egina zarenaz geroztik, maitatu zaitut, eta gizonak emanen ditut zure ordain, eta populuak zure biziarentzat.

5. Ez izan beldurrik, zeren zurekin bainaiz ni; iguzki-haizetik erak-harriren ditut zure haurrak, eta mendebaletik bilduko zaitut zu.

6. Ipharrari erranen diot: Emak; eta hegoari: Berak debeka; ekharzik ene semeak urrungo eremuetarik, eta ene alabak lurraren bertze bazterretik.

7. Ene izenari dei egiten duena, ene ospagarri dut kreatu, moldatu aita egin.

8. Kanporat athera zazu populu itsua, eta begiak dituelarik; gorra, eta beharriak badituelarik.

9. Jendaia guziak elkhargana bilduak dira eta leinuak batuak. Zuetarik nork goraki erranen du hori, eta adiaraziren datozkigu lehenbizitik gertatu direnak? Eman betzazte beren lekhukoak, egiasi athera betzazte; eta entzunak izanen dira eta erranen da: Egia diote.



10. Zuek zarete, dio Jaunak, ene lekhukoak aita nik hautatu zerbitzariak; jakin, sinhets eta endelga dezazuen, ni neroni naizela. Ni baino lehen ez da jainkorik egin, eta ene ondotik ez da bertzerik izanen.

11. Ni naiz, ni naiz Jauna, eta ez da nitaz bertze salbatzailerik.

12. Aitzinerat nik erran darozkitzuet gauzak, eta nik salbatu zaituztet; nik adiarazi darotzuet ethorkizuna, eta jainko arrotzik zuetan ez da izatu; zuek zarete ene lekhukoak, dio Jaunak, eta Jainkoa ni naiz.

13. Eta hatsarritik ni neroni naiz, eta gauza niri eskutik atheratuko darotadanik ez da. Zerbait eginen dut, eta nork debekaturen du?

14. Hau dio Jaunak, zuen berrerosleak, eta Israelgo sailduak: Zuen gatik igorri izan dut Babilonara; eta traba guziak, eta Kaldearrak, beren untziez espantu zutenak erorrarazi ditut.

15. Ni naiz zuen Jaun saildua, Israelen kreatora, zuen errege.

16. Horra zer dioen Jaunak, itsasoan eman duenak bide bat, eta ur-uharretan bidexka bat.

17. Hura da itsasora eraman zituen Egiptoko orga-laster, zaldi, armada eta indar guziak, elkharrekin oro lokhartu baitira, eta ez baitira atzarriko; lihoa bezala xehakatuak dira, eta iraungituak baitira.

18. Lehenbizikoez ez orhoit, beihalakoei ez begira.

19. Huna non berrien egitera nohan, eta oraietan ilkhitzera dohazi; ezagutuko dituzue beraz; bide bat ezarriren dut mortuan, eta hibaiak ezin-iraganezko tokian.

20. Larreko abereek, erainsugeek eta ostrukek goersten naute, zeren urak eman ditudan mortuan eta hibaiak ezin-iraganezko tokietan, ene populuari, ene hautatuari edatera ematea gatik.

21. Populu hori enetzat egin dut; ene laudorioa goraki du eginen.

22. Jakob, ez darotazu dei egin; Israel, etzare enetzat lanean haritu.

23. Ez darotazu eskaini holokaustako aharia, eta ez nauzu zure bitimez goreski; eskaintzez ene zerbitzatzera etzaitut behartu, eta isentsuketan lanik ez darotzut eman.

24. Ez duzu zure diruz enetzat khanabera usaindunik erosi, eta ez nauzu zure bitimen bilgorrez horditu. Bainan zure bekhatuez gathibu bat bezala erabili nauzu, eta zure tzarkeriez hestutu nauzu.

25. Ni naiz, neroni naiz, zure tzarkeriak ene buruaren ariaz ezeztatzen ditudana; eta ez naiz zure bekhatuez orhoituen.

26. Zerbait ahanzi badut, orhoitaraz nezazu, en biak juiamendutan sar gaitezen; balin baduzu zerbait zure buruaren garbitzeko, errazu.

27. Zure arbaso lehenak bekhatu egin du, eta ene legeaz argitzen zintuztenek ene legea hautsi dute.

28. Eta nik desohorea eman dietet saildutegiko buruzagiei; arthiki dut Jakob ezpataren ahora, eta Israel burhoaren azpira.

#### XLIV. KAP.

1. Eta orai adi zazu, Jakob, ene zerbitzaria; eta zuk, Israel, hautatu zaitudanak.

2. Hau dio Jaunak, zu egin, moldatu eta zure amaren sabeletik lagundu zaituenak: Ez izan beldurrik, Jakob, ene zerbitzaria, eta zu, gizon guziz zuzen nik berezia.

3. Ezen urak ixuriko ditut egarri denaren gainera, eta uharrak lur agorrera ene izpiritua ixuriko dut zure ondokoen gainera, eta ene benediziona zure iraulgiaren gainera.

4. Eta belharren artean muskilduren dira, hala-nola sahatsak ur lasterren hegian.

5. Hunek erranen du: Jaunarena naiz horrek Jakoben izenaz aipatuko du harek bere eskuz iskribatuko du: Jaunarena; eta Israelen izenaz edertuko du berea.

6. Hau dio Jaunak, Israelgo erregek, eta haren berrerosle armadetakoa Jaunak Ni naiz lehena, eta ni azkena; eta Jainkoa ez da nitaz landan.

7. Nor da ene idurikorik? Mintza bedi eta ager beza bere burua; eta populu zaharra jarri dudana geroztikako gauzak lerroan aitzinera athera biatzat; ethorkizuna eta gerthatuko direnak oraidanik erran betza.

8. Ez izi, ez ikhara; hau azpalditik adiaraz, eta erran darotzut: Zuek zarete ene lekhuko. Nitaz landan othe da Jainkoa, eta nik ezagutzen ez dakedan kreatora bat?

9. Idola moldatzaile guziak deusik ez dira, eta beren obra maiteenak etzaizkote baliaturen; berak beren ahalketako lekhuko dira, idolek deus ez dutela ez ikhusten ez endelgatzen.

10. Zein da jainko moldatzailea eta deusetako on ez den itxura bat urthu duena?

11. Huna non ahalkez estaliko diren harekin phartedun direnak oro: gizonetarik dira ezen moldatzaile hekiek: bilduko dira guziak, agertuko eta izituko eta ahalkez batean estaliko dira.

12. Burdina lantzen duenak kharraka erabiltzen du; ikhartzarekin eta mailuarekin moldatzen du idola, eta bere besoko indar guziarekin lantzen du; gosetuko da eta ahituko; urik ez du edanen, eta akhituko da.

13. Zurginak eskuaira hedatzen du arrabotaz aphaintzen du idola; eskuairatu eta konpasaz neurriak hartu ditu eta egin du gizon itxura bat bere etxean dagoen gizon eder bat iduri.



14. Ebakitzen ditu zedroak, hartzen ditu oihaneko zuhamuen erdian zaudezen artea eta haritza; landatzen du pinoa, mina uriak hazten baitu.

15. Gizonen sukotzat heldu da: zuhamu hekietarik hartzen du gizonak eta berotzen da; khaldatzen ditu eta ogiak erretzen; gainerakoaz, berriz, egiten du jainko bat eta adoratzeko du; itxura bat egin, eta haren aitzinean ahuspekatzen da.

16. Zuraren erdia suan ezarri du, eta haren erdiarekin xuxendu haragiak jan ditu; erre du jakia eta ase da; eta berotu da, eta erran du: Ongi berotu naiz, ikhusi dut su ona.

17. Gainerakoaz, berriz, jainko bat, itxura bat beretzat egin du; haren aitzinean ahuspekatzen da; adoratzeko eta othoizten du, dioelarik: Libra nezazu, zu baitzare ene jainkoa.

18. Deus ez dakite, eta ez dute aditzen; hekien begiak dira lanhatuak, ez uzteko ikhustera eta bihotzez aditzera.

19. Deus ez dute gogoan iragaiten ez dute ez ezagutzen, ez hautesmaten, errateko: Zur horren erdiaz sua egin dut; hortarikako ikhatzen gainean erre dut ogia; erre ditut haragiak, eta jan eta gaineratikoaz egiten dut idola bat? zur muthur baten aitzinean naiz belhaunikaturen?

20. Zuraren zathi bat hauts egina da, eta bihotz zoroak adoratzeko berteza eta ez du libratuko bere arima, eta ez du erranen: Gezur bat da beharbada ene eskuan.

21. Horietaz orhoit zaite, Jakob, eta zu, Israel, zeren ene zerbitzaria baitzare. Nik egin zaitut; ene zerbitzaria zare, Israel, ez benezazu ahantz.

22. Ezeztatu ditut zure tzarkeriak hedoi bat bezala, zure bekhatuak lanho bat bezala; bihur zaite ene gana, zeren nik baitzaitut berrerosi.

23. Zeruak, lauda zazue Jauna, zeren duen urrikalpen atheratu; lurra- ren bazterrak, bozkarioz jauz zaitezte; mendiak, oihanak eta hango zuhaitzak, ozenda zatzue laudoriozko kantikak, zeren Jakob berrerosi baitu Jaunak eta Israelen baithan ezarri baitu bere ospea.

24. Huna zer diren Jaunak, zure berrerosleak, eta zure amaren sabeladanik egin zaituenak: Ni naiz Jauna, oro egiten ditudana; nik bakharririk ditut hedatu zeruak; nik jarri dut lurra, eta nihor etzen enekin.

25. Nik hutsaltzen ditut asmaginekin sendagailak, eta erhoarazten aztiak; nik khentzen diotet tentua zuhurrei eta nik zoro atheratzen dut hekien jakitateak.

26. Nik dut ene zerbitzariaren baitharik eraikitzen hitza, eta bethetzen ene mezularien ahoko agintza; nik diot Jerusalemeri: Egoiliarrez betheko zare; eta Judako hiriei: Altxatuak izanen zarete berriz, eta eraikiren ditut zuen mortuak.

27. Nik diot ondar-lezeari: Huts hadi, eta agorturen ditiat hire lezeak.

28. Nik diot Zirori: Zu zare ene artzaina, eta zuk betheko duzu ene nahikunde guzia. Nik diot Jerusalemeri: Berrituko zare; eta tenploari: Berriz jaikiko zare zure asentuen gainean.

#### XLV. KAP.

1. Hau dio Jaunak ene kristo Zirori, zeinaren eskuina hartu baitut, haren eskupean ezartzeko jendaiak, eta ihes erregeak igortzeko, eta atheak haren aitzinean zabaltzeko, eta ez ditezen atheak herts.

2. Ni goanen naiz haren aitzinean eta aphalduren ditut lurreko handi-mandiak; urraturen ditut kobrezko atheak eta zathikaturen burdinazko hagak.

3. Emanen darozkitzut gordeak diren aberastasunak, eta ixilikakoak agertuko, jakin dezazun ni naizela Jauna, Israelgo Jainko, zu zure izenaz deithu zaitudana.

4. Eta deithu zaitut, Jakob ene zerbitzaria gatik, eta Israel ene hautesia gatik; deithu zaitut zure izenaz; bertze bat ere eman daroztut, eta ez ninduzun ezagutzen.

5. Ni Jauna naiz, eta ez da bertzerik; nitaz landan ez da Jainkorik; nik gerrikatu zaitut, eta ez ninduzun ezagutzen;

6. Jakin dezaten iguzkia jaikitzen den tokitik etzaten den lekhuraino bizi direnak ez dela ni baizen Jainkorik. Ni naiz Jauna, eta bertzerik ez da.

7. Nik egiten dut argia, nik ilhuna; nik egiten dut bakea, nik sorrazten gaitza; ni naiz Jauna, horiek oro egiten dituenak.

8. Zeruak, gain-behera igorrazue ihintza; hedoiek uria bezala jautsara bezate prestua; idek bedi lurra, eta salbatzailea belharra bezala athera beza, eta zuzentasuna sor bedi harekin; hura nik, Jaunak, egin izan dut.

9. Zorigaitz bere egileari jazartzen dioenari! lurrezko baxera puska! Buztinak baxeregileari erraten othe dio: Zer hari haitz, hire lanak ez dik plantarik?

10. Zorigaitz bere aitari erraten dioenari: Zertako aitatzen zare? eta bere amari: Zertako amaten zare?!

11. Hau dio Jaunak, Israelgo saindu haren egileak: Galda daroztatuzue gertatuko direnak; bilha nezazue ene hurrez eta ene eskuetako egintzez.

12. Nik egin izan dut lurra, eta haren gainean gizona nik kreatu dut; ene eskuek hedatu dituzte zeruak, eta nik eman ditut manuak hango armada guziari.

13. Nik eraikiren dut hura, zuzenari eman diozon bere bidea, eta aphainduren ditut haren bide guziak; harek berrituen du ene hiria, eta



gathibutasunetik igorriren ditu ene haurrak, ez dirutan, ez emaitza truk, dio armadetako Jainko Jaunak.

14. Hau dio Jaunak: Egiptoko langilea, eta Ethiopiako tratularia, eta Sabako gizon handiak iraganen dira zure gana, eta zureak izanen dira: Zure ondotik ibiliko dira, esku-burdinaz lothurik dira ibiliko; eta ahuspekaturen zaizkitzu eta othoizturen zaituzte, diotelarik: Zure baithan bak-harrik da Jainkoa, eta zutarik kanpoan Jainkorik ez da.

15. Zu zare egiazki Jainko gordea, Israelgo Jainkoa, salbatzailea.

16. Gezur-orhatzaileak ahalketan eta gorriturik erori dira guziak; ahalkea soinean goan dira batean.

17. Jaunak Israel salbatu du bethirainoko salbamenduz; etzarete menderen mendetaraino ahalkez gorrituren.

18. Ezen hau dio Jaunak, zeruak kreatu dituenak, lurra moldatu eta egin duen Jainkoak berak, eta haren obratzaileak; hura ez baitu alferretan egin, eta jendeak egoteko moldatu baitu: Ni naiz Jauna, eta bertzerik ez da.

19. Ez naiz mintzatu gordeka, lurreko toki ilhun batean; ez daroet alferretan erran Jakob enumei: Bilha nezazue. Ni naiz Jauna, zuzenaren arabera mintzo naizena, gauza zuzenak irakhasen ditudana.

20. Bil zaitezte, eta zatozte, eta batean hurbil zaitezte, jendaietarik salbatuak izan zaretenak; jakingabeak dira zurezko molde egiten, eta salbatzen ez duen jainko bati othoizka hari direnak.

21. Mintza zaitezte, zatozte eta elkharren artean kontseilu har zazue nork hastapenetik adiarazi du hau? nork orduan aitzinetik erran izan du? Ez othe nik, Jaunak, eta ez da gehiago nitaz landan Jainkorik? Jainko zuzen, salbatzen duenik, ez da ni baizik.

22. Lurraren bazterrak oro, ene gana bihur zaitezte, eta salbatuak izanen zarete, zeren ni bainaiz Jainkoa, eta bertzerik ez baita.

23. Zin egin dut ene buruaz; zuzenbideko hitza ilkhi da ene ahotik, eta bihurturen ez da,

24. Belhaunak ene aitzinean lurra joko duela, mihiak ene izenaz duela zin eginen.

25. Erranen du beraz: Jauna baithan dira ene zuzentasuna eta ene ahala. Populuak haren ganat ethorriko dira, eta hari bihurri egiten ziotenak ahalketara izanen dira arthikiak.

26. Israel ganikako iraulgi guzia Jauna baithan izanen da zuzentzat atheratua eta laudatua.

## XLVI. KAP.

1. Bel puskatua izan da, Nabo xehakatua: hekien itxurak basabereen eta azienden itxurara eginak dira; zuen haxeak phisu dorphekoak dira, lehertzaraino.

2. Erori eta zathikatu dira batean: eramailea ezin salbatu dute, eta hekien adoratzaileak gathibu goan dira.

3. Adi nezazue, Jakob en etxea, eta zuek, Israelen etxetikako ondar guziek, zeinak ene galtzarrean jasan eta ene bihotzean ekharri baitzaituztet.

4. Zahartu arteo eta ileak zuritu arteo ekharriren zaituztet neronek; nik egin eta nik jasanen zaituztet; ekharriko zaituztet eta salbatuko.

5. Noren iduriko, noren bardin, noren erkhide; nor bezalako egin nauzue?

6. Oi zuek, moltsatik atheratzen eta zilharra balantzetan phisatzen duzenak, urhegina erakharriz jainko bat egin dezan; eta ahuspekatzen eta adoratzen jartzen zarete.

7. Ekhartzen dute, soinen gainean ezarririk, eta ezartzen dute bere tokian; eta han egonen da xutik, eta ez da bere lekhitik kantituko. Oihu eginen diotenean ere, ez du adituko; hesturatik ez ditu ilkhiko.

8. Hortaz orhoit zaitezte eta ahalketan geldi; bihur zaitezte zuen bait-hara, lege-hausleak.

9. Orhoit bekizkitzue mende iraganak, ni naizela Jainkoa, ez dela bertze Jainkorik, ez-eta ene idurikorik ez dela;

10. Ni banaiz hatsarritik ezagutarazten dudana azkenean gerthaturen dena; eta hastapenetik, oraino egin ez dena, diodalarik: Ene gogoko gauza gogor egonen da, eta ene nahiak oro eginen dira;

11. Iguzki-haizetik deithuren baitut hegastin bat, eta urrungo lurretik ene nahikundeko gizona: eta mintzatu naiz, eta eginen dut; asmua atheratu dut, eta obraturen dut.

12. Adi nezazue, bihotz gogorrekoak, zuzenbidetik urrun zaretenak.

13. Hurbilarazi dut ene justiziaren orena, ez du luzaturen, eta ene ganikako salbamenduak ez du beranduren. Sionen ezarriren dut ene salbamendua eta Israelen ene ospea.

## XLVII. KAP.

1. Jauts hadi, jar hadi herrautsean, dontzeila, Babilonako alaba; jar hadi lurrean; ez dun tronurik gehiago Kaldearren alabarentzat; ezen ez haiz guria eta samurra deithuren gehiago.

2. Har zan ihara, eta eho zan irina; ager zan hire itsuseria, ager sorbalda, ager ixterrak, iragan hibaiak.



3. Agertua izanen dun hire hidoia; ikhusiko ditin hire laidoa: harturen dut asperkunde, eta ez da gizonik niri itxikiko darotanik.
4. Gure berreroslea deitzen da armadetako Jauna, Israelgo saildua.
5. Jar hadi ixil-ixila, eta ilhunbeetan sar hadi, Kaldearren alaba; ezen ez haute gehiago deithuren erresumetako erregina.
6. Hasarretu izan naiz ene populuaren kontra; gaitzetsi dut ene primantza lohitua; arthiki ditinat hire eskuetara: ez ditun izan urrikari; zaharren gainean gogorki dorphetu dun hire uztarria.
7. Eta erran dun: Erreginaturen naiz egun eta bethi; ez ditun hire bihotzari eman gauza haukiek, eta ez haiz orhoitu hire azken urhatsaz.
8. Eta orai hau adi zan, minbera, eta gogoa zabalik bizi hintzena, hire bihotzari, erraten huena: Banaiz, eta nitaz bertzerik ez da; ez naiz alhargun jarriko, eta agortasuna ez dut ezaguturen.
9. Agortasuna eta alharguntasuna, horiek biak terrepentean eta egun batez ethorriren zaizkin gainera. Oro gainera eroriko zaizkin, hire gaizkinkerien elementia gatik, eta hire xarma-egileen gogortasun gaitza gatik.
10. Hire tzarkerietan bahuen sinheste; erran dun: Ez da nihor ikhusiten nauenik. Hire zuhurtziak eta jakitateak, horiek haute enganatu. Eta hire bihotzean erran dun: Ni banaiz, eta nitaz landan ez da bertze bat.
11. Gaitza ethorriren zain gainera, eta ez dun jakinen nondik ilkhitzen den; eta gainera eroriko zain ezin jabalduko dunan zorigaitza; terrepentean ethorriko zain, ezagutu ez dunan erromeseria.
12. Athera hadi hire xarma-egileekin eta hire gaizkinkeria gaztedanik erabili ditunan guziekin, ikhusteko hean zerbait baliatuko zaizkinan, edo hean hazkarrago egin haitakeen.
13. Hire kontseilu murruren azpian erori haiz; ager beitez eta salba behezate zeru-usnaginek, zeinak izarrei bera baitzauden eta hilabetheak khondatzen baitzituzten, hekien bidez errateko zer gerthatuko zitzaunan.
14. Huna non eginak diren lastoa iduri; suak erre ditu; beren arima ezen itzurraziko diote garrei, ez dira ikhatzak, hekiez berotzeko, ez su bat, haren aitzinean jartzeko.
15. Horra zer bilhakatu zaizkinan bermatu haizen gauza guziak; gaztedanik lakhet hintuen tratulari hekiek, errebelatu ditun zein bere bidean; bat ez dun hire salbatzeko.

### XLVIII. KAP.

1. Hau adi zazue, Jakoben etxea, Israelen izenaz deitzen zaretenak, eta Judaren uretarik ilkhitzen zaretenak, Jaunaren izenaz zin egiten duzue-

nak, eta Israelen Jainkoaz orhoitzen zaretenak, ez egiaren, ez-eta zuzenaren bidean;

2. Alabainan hiri sailduaren izenetik dakharte beren izena, eta bermatzen dira Israelgo Jainkoaren gainean, armadetako Jauna baita haren izena.

3. Lehenbiziko gauzak ordudanik aitzinerat erran ditut, eta ene aho-tilkhi dira, eta adiarazi ditut: bat-batean egin ditut, eta ethorri dira.

4. Banakien ezik mokhorra zarela, zure lephoa burdinazko ziri bat dela eta zure kopeta kobrezkoa.

5. Ordudanik aitzinerat erran darozkitzut gauzak, gerthatu diren baino lehen erakhutsi darozkitzut, beldurraz-eta erran zinezan: Ene idolek egin dituzte horiek; molde bernuzatu eta urthuek dituzte manatu horiek.

6. Aditu zintuen, ikhusatzu guziak. Eta zuek, ezagutarazi dituzte? Ordutik gauza berriak aitzinerat erran darozkitzut; eta badira oraino begiratuak ez dakizkitzunak.

7. Orai dira eginak, eta ez lehendanik; ez egun hau baino lehen, eta ez ditutzu aditu, beldurrez-eta erran zinezan: Huna nik ezagutzen nituela.

8. Ez ditutzu, ez aditu, ez ezagutu, ez-eta zure beharria etzen ordutik idekia; badakit ezen hautsiko duzula legea, eta lege-hauslea zaitut zure amaren sabeletik deithu.

9. Ene izenaren ariaz urrunduren dut ene sepha, eta ene ospea gatik balaztaturen zaitut, gal zaitezen beldurrez.

10. Suaz zaitut garbitu, bainan ez zilharra bezala; beharraren labean zaitut berezi.

11. Ene gatik, ene gatik eginen dut, ez nadienzat izan burhoztatua; eta ez diot bertze bati ene ospea utziko.

12. Adi nezazu, Jakob, eta zuk, Israel, deitzen zaitudana: ni neroni, ni naiz lehena, ni azkena.

13. Ene eskuak halaber asentatu du lurra, eta ene eskuinak neurtu ditu zeruak; nik deithuko ditut, eta batean agertuko dira.

14. Bil zaitetze guziak, eta adi zazue: Idoletarik zeinek aitzinetik ezagutarazi ditu gauza haukiek? Jaunak maithatu du Ziro; haren nahia Babilonan eginen da, eta haren beso izanen da Kaldean.

15. Ni, ni mintzatu naiz, eta deithu dut hura; erakhari dut eta zuzendua da haren bidea.

16. Hurbil zakizkidade, eta hau adi zazue: Ez naiz hastetik ixilka mintzatu; gauza gerthatu baino lehenagotanik, han nintzen; eta orai Jainko Jaunak eta haren izpiritua igorri naute.



17. Hau, dio Jaunak, zure berrerosleak, Israelgo sailduak: Ni naiz zure Jainko Jauna zuretzat on direnak irakhasten darotzkizudana, zabil-tzan bidean hotsematen darotzudana.

18. Oxala atzarria egotu bazine ene manamendue! Zure bakea bilha-katua zitakeen hibai baten pare, eta zure prestutasuna itsasoko zurrunbi-loak bezain barna.

19. Zu ganikako iraulgia izanen zen legarra bezala eta zure sabeleti-kako ondoregoa legarreko harrittoak iduri; haren izena etzen hilen eta ezeztatua izanen ene aitzinean.

20. Ilkhi zaitezte Babilonatik, ihes egiozute Kaldearrei; bozkarioz-ko oihutan jakinaraz zazue zuen librantza; adiaraz zazue berria, eta lurraren buruetaraino heda zazue; errazue: Jaunak berrerosi du Jakob bere zerbitzaria.

21. Egiptotik erakhartzen zituenean, mortuan etzuten egarría jasan; harritik atheratu zioten ura, eta urratu zuen harria, eta turrustaka goan ziren urak.

22. Gaixtaginentzat ez da bakerik, dio Jaunak.

### XLIX. KAP.

1. Irlak, adi zazue; urrungo populuak, zaudezte atzarriak: Jaunak deithu nau sorthu naizen aitzinetik; ene amaren sabeletik orhoitu da ene izenaz.

2. Eta ezarri du ene ahoa ezpata zorrotza iduri; bere eskuko itzala-ren azpian gerizatu nau; eta iduki nau gezi hautatu bat bezala; bere gezi-untzian gorde nau.

3. Eta erran darot: Ene zerbitzaria zare zu, Israel, zeren zutan ospa-turen baitut ene izena.

4. Eta nik erran dut: Alferretan haritu naiz lanari; ariarik gabe eta hutsalkerian ahitu dut ene indarra; Jaunarekin dut beraz ene ikhustekoa, eta ene Jainkoaren eskuan da ene lana.

5. Eta orai Jaunak, bere zerbitzari ene amaren sabeletik egin naue-nak, erran du haren gana bihurraz dezadan Jakob; eta Israel ez da bil-duko; eta ni Jaunaren begietan goresia naiz, eta ene Jainkoa bilhakatu da ene indar.

6. Eta Jaunak erran du: Deus guti da ene zerbitzari izan zaitezen Jakob leinuen eraikitzeke eta Israelen ondarren bihurrazteke: huna non ezarri zaitudan jendaian argi; izan zaitezentzat ene ganikako salba-mendua lurraren buruetaraino.

7. Hau dio Jaunak, Israelen berrerosleak, haren sailduak, arbuatua izan denari, populu gaitzetsiari, nausi direnen gathibuari: Erregeek ikhu-siko zaituzte, buruzagiak jaikiko dira eta adoratuko zaituzte Jauna gatik, zeren den zin bere agintzetan, eta Israelgo saildua gatik, zeinak baitzaitu hautatu.

8. Hau dio Jaunak: Ene gogarako orduan entzun zaitut, eta salba-menduko egunean lagundu; zaindu zaitut eta eman populuarekilako bata-sunaren ararteko, eraikaraz dezazun lurra, eta goza primantza irigoanak;

9. Eta estekan daudezenei erran diozozuten: Ilkhi zaitezte; eta ilhun-beetan direnei: Ager zaitezte. Bide gaine-lan alhaturen dira, eta zelhai-guzietan izanen dira hekien alhapideak.

10. Ez dira ez goseturen, ez-eta egarrituren; beroak eta iguzkiak ez dituzte joko; zeren urrikari dituenak hotsematen baitiote, eta ithur-uretan edaranean baititu.

11. Eta ene mendi guziak ezarriko ditut bide ordoki, eta zelhaituko ditut ene bidexka guziak.

12. Huna non heldu diren urrundik, eta huna batzu ipharretik eta itsasotik, eta bertzeak hegoaldeko lurretik.

13. Zeruak, lauda zazue Jauna; lurra, bozkarioz jauz hadi; mendiak, errepika zatzue laudoriozko kantua; zeren Jaunak gozakari ekharri dioen bere populuari, eta urrikalduko zaioten bere behar gaixoei.

14. Eta Sionek erran du: Bazterrerat utzi nau Jaunak; Jaunak ahantzi nau.

15. Ama batek ahantz othe dezake bere haurra, ez izateko urrikari bere sabeletikako umea? eta harek ahantz baleza ere, nik halarik-ere zu etzaitut ahantziren.

16. Huna non itxuratu zaitudan ene eskuen gainean; zure harrasiak ene begien aitzinean daude bethi.

17. Ethorri dire berritzaileak; urratzen eta xahutzen zintuztenak ilkhiko dire zure erditik.

18. Inguruan goiti zatzu begiak, eta ikhusazu; haukiek oro bildu dire, ethorri dire zu gana; ene buruaz zin egiten dut, dio Jaunak, horiez guziez aphainduko zarela edergailu batez bezala, eta andre espos batek bezala zure inguruan ezarriko ditutzula.

19. Ezen zure mortuak, eta eremuak, eta lur deboilatua, orai hestue-gi izatera doazi egoiliarren ostearen handiz, eta zu iresten zintuztenak ihes urrun goanen dire.

20. Zure agortasunetik lehorako semeek erranen dute oraino zure beharrietara: Enezat hertsiegia da tokia; lekhu egidazu, egon ahal nadien-tzat.





21. Eta zuk zure bihotzean erranen duzu: Nork amatu nau haur haukiez, ni agor bilhakatua eta haurrik egiten ez nuena; ni ene herri aldetarik eramana eta gathibu? Nork hazi ditu, ni utzia eta zurtz izan-eta; eta non ziren haukiek?

22. Hau dio Jainko Jaunak: Huna non jendaietara hedaturen dudan eskua; populuen begietara goraturen dut ene ezagutkaria; eta zure semeak besoetan eta alabak soin gainean ekharriren dituzte.

23. Eta erregeak izanen dira zure unhidaita, eta erreginak zure unhide; begithartea lurrerat beheitituz, adoraturen zaituzte, eta zure oinetako herrautsa milikaturen dute. Eta jakinen duzu ni naizela Jauna, zeinaren ariaz ez baitira ahalketan eroriko ene iguri daudezenak.

24. Indardunari harrapakina khen othe dakioke, edo hazkarraren eskutarik itzurraz othe daiteke atzeman duena?

25. Bainan hau dio Jaunak: Bada, indardunari khenduren zaio atzeman duena, eta itzuriko da hazkarrari khendua: aldiz nik juiaturen ditut zu juiatu zaituztenak, eta nik salbaturen ditut zure semeak.

26. Zure etsaiei janaraziko daroet ber-beren haragia, eta limurretaz bezala hordituko dira beren odolaz; eta jakinen du gizonak ni naizela Jauna zu salbatzen zaituena, eta zure berreroslea, Israelgo hazkarra.

### L. KAP.

1. Hau dio Jaunak: Non da zuen amaren ageria, zeinarekin igorri baitut? edo zein da ene hartzedurua, zeinari saldu baitzaituztet? Huna zuen gaizkien gatik salduak izan zaretela, eta zuen tzarkerien gatik igorri dudala zuen ama;

2. Zeren ethorri bainaiz, eta gizon bat ez dut aurkhitu; oiheu egin dut, eta nihor etzen entzuteko. Ene eskua laburtu eta ttipitu othe da, berresteko ahalik ez izateko? edo libratzeko indarririk ez othe dut? Huna non ene dixidu batez agorturen dudan itsasoa, leihor eginen ditut hibaiki; arrainak ur eskasez ustelduko eta egarriz hilen dira.

3. Zeruak ilhunbez itsuturen ditut, eta sakhu batez estaliren.

4. Jaunak eman darot mihi argitu bat akhitua denaren ene hitzaz hazkartzan jakiteko; goizetik ernatzen du, goizetik ernatzen ene beharria, entzun dezadantzat nausi bat bezala.

5. Jainko Jaunak ideki izan darot beharria; ni aldiz ez naiz enferratzen ez dut gibelerat egin.

6. Ene gorphutza utzi daroet jotzen zutenei, ene mathelak bizarra atheratzen zarotadenei, eta ene begithartea ez diotet aldaratu niri irain eta thu-egileei.

7. Jainko Jauna da ene laguntzailea; hargatik ez naiz ahalketan erori; hargatik agertu dut ene begithartea harri guziz gogor bat bezala, eta bada-ki ez naizela ahalketan eroriko.

8. Aldean da ni garbi atheratzen nauena; nor da jazarriren darotana? Biak ager gaitezen; nor da ene partida? hurbil bekitt.

9. Huna, Jainko Jauna ene laguntzailea dela; nork kondenaturen nau? Huna non guziak soineko bat bezala puskakaturen direla; biphieki janen dituzte.

10. Zein da zuetan Jaunaren beldur dena, haren zerbitzariaren mintzoa entzuten duena? Ilhunbeetan dabilanak eta argirik ez duenak, Jaunaren izenean ezar beza pheskiza berea, eta bore Jainkoaren gainean bedi berma.

11. Huna, zuek oro su-bizleak, garrez inguratuak, ibil zaitzte zuen suaren argitara eta biztu dituzuen garretara; ene eskutik egina zaitzue hori, oinhazetan lohakaturen zarete.

### LI. KAP.

1. Entzun nezazue, zuzentasunari jarraitzen zaretenak, eta Jauna bilhatzen duzenak, gogora ekhar zatzue harria zeintarik izan baitzarete ebakiak, eta hobi barrena, zeintarik ebakiak baitzarete.

2. Gogora ekhar zatzue Abraham zuen aita, eta Sara mundura eman zaituztena; gogora bekizue bakhar zenean deithu nuela Abraham, benedikatu nuela, eta ondore hainitz eman niozkiela.

3. Jaunak beraz gozakari emanen dio Sioni, gozakari emanen diote haren ondarrei; eta ezarriren du haren mortua atseginezko lekhu bat iduri, eta haren eremua Jaunaren baratze bat bezala; haren erdian aurkhituren dire bozkario goiheretasunak, esker onezko eta laudoriozko kantutak.

4. Zaudezkit atzarria, ene populua; ene leinua, adi nezazu; ezen ene ganik ilkhiren da legea eta ene justizia jarriko da populuen argi.

5. Ene prestua hurbil da; ilkhi da ene salbatzailea, eta ene besoek juiaturen dituzte jendaiak; iriak begira egonen dire, ene besoaren iguri.

6. Begiak zerura goiti zatzue, eta gain-behera lurrera begira zazue; ezen zeruak khea bezala urmariaturen dire, eta lurra soineko bat bezala xehakaturen, eta hango egoiliarrak hura bezala galduren dire; aldiz ene ganikako salbamendua bethirainokoa izanen da, eta ene justizia ez da ahituren.

7. Adi nezazue zuzena ezagutzen duzenek, ene populua, ene legea bihotzean dakhartzuna; ez izan gizonen ganikako laidoaren beldur, eta hekien burhoek ez bezaitzazte lotsa;



8. Ezen soineko bat nola, harrek hala janen dituzte; ilekia nola, zerrenek hala iretsiko dituzte; aldiz ene ganikako salbamendua bethirainokoa izanen da, eta ene justiziak menderen mendetan du iraunen.

9. Altxa zaitte, altxa, indarra jauntzazu, oi Jaunaren besoa; altxa zaitte hala-nola beihalako egunetan, mendeetako goizaldietan. Ez othe duzu zuk herrautsi hanpurutsua, sakhitu erainsugea?

10. Ez othe ditutzu zuk agortu itsasoa eta leze gaitzeko ura, eta bide bat egin itsasoaren zolan, handik iragan zitezen libratzen zintuenak?

11. Eta orai Jaunaz berrerosiak direnak bihurturen dira eta Sionera ethorriko laudoriozko kantutan, eta bethi iraunen duen bozkarioa izanen da hekien buruen gainean; idukiren dituzte goiheretasuna eta bozkarioa; oinhazea eta auhenak ihes goanen dira.

12. Nik, nik neronek emanen darotzut gozakari; nor zare zu beldur izateko gizon hilkizun, gizaseme belharra bezala ihartuko den baten beldur izateko?

13. Eta ahantzi duzu Jauna, zure egilea, zeruak hedatu dituen eta lurra asentatu; eta bethi, egun guzian beldurrez ibili zare hestutzen zintuenaren eta zu galdu beharrez zabilaren sephari iheska: non da orai zure hestutzailearen sepha?

14. Idekitzera heldu dena, laster ethorriren da; ez du hiltzeraino zaurtzen, eta haren ogiak ez du eskas egiten.

15. Ni naiz ezik zure Jainko Jauna, itsasoa nahasten dudana, eta jauzten dira haren uhinak; armadetako Jauna da ene izena.

16. Zure ahoan ezarri ditut ene hitzak, eta ene eskuko itsasoaren azpian gerizatu zaitut, zeruak jar zinetzan eta lurra asenta, eta Sioni erran zinezon: Zu zare ene populua.

17. Jaiki, jaiki; xuti, Jerusaleme, zeinak Jaunaren eskutik edan baituzu haren hasarrezko untzia; ondoraino hustu duzu loasmako untzia; edan ditutzu ondakinak eta oro.

18. Sorthu dituen ume guzietarik bat ez da hari laguntza emateko, eta hazi dituen ume guzietarik batek ez du hartzen eskutik.

19. Gainera bi izurri jautsi zaizkitzu; nor egonen da minez zure gainean? Desmasia, xahupenak, gosete, ezpatak; nork sosega zu?

20. Zure haurrak iraziak izan dira karrika buru guzietan etzanak daude, hala-nola oriz sarean eroria; Jaunaren gaitziduraren, zure Jainkoaren dixiduen azpian daude.

21. Hau adi zazu beraz, gaixottoa, eta hordia, ez arnoz.

22. Hau dio zure nausi Jaunak eta zure Jainkoak, bere populuarentzat gudukatuko denak: Huna non zure eskutik khendu dudan lo-asmako

untzia, ene gaitziduraren untziko ondakina: etzare gehiago hortarik eda-  
ntzia jarriko.

23. Eta ezarriren dut zu aphaldu zaituztenen eskuetan, eta zeinek erran baitiote zure arimari: Etzan hadi, iragan gaitezen; eta zuk ezarri duzu zure gorputza lur bat bezala eta bide bezala iragaileentzat.

## LII. KAP.

1. Jaiki zaitte, jaiki, zure indarrak jauntz zaitte, oi Sion; zure ospezko soinekoak jauntzatzu, oi Jerusaleme, zeren gaugereroz ez baita ingurebaki-gaberik eta khutsudunik zutan gaindi iragaitera abiatuko.

2. Higi zaitte herrautsetik; jaiki, jar zaitte, oi Jerusaleme; khen zazu lehoko lokharria, oi gathibu Siongo alaba!

3. Ezen hau dio Jaunak: Urrurik salduak izan zarete, eta dirurik gabe izanen zarete berrerosiak.

4. Hau dio ezen Jainko Jaunak; Hastean Egiptora jautsi izan da ene populua, arrotz han bizitzeko; eta ariarik batere gabe Asurrek ehoa iduki du.

5. Eta orai zer heldu zait egiteko, dio Jaunak, ene populua ariarik gabe eramana denaz geroz? Haren nausiak tzarki haritu dire, dio Jaunak, eta egun guzian ez dire baratu ene izenaren burhoztatzetik.

6. Horren gatik ene populuak halako egun batez jakinen du ene izena; ezik mintzo nintzen hura bera, huna non naizen.

7. Mendi gainean zeinen diren eder bakearen berriak ematen eta bakea predikatzen duenaren oinak; oneko berriak ematen eta salbamedua predikatzen duenarenak, erraten dioelarik Sioni: Erreginatzer a dihoa zure Jainkoa!

8. Adituren ditutzu zure begiralarien oihuak; oihuka abiatuko dire; laudorioak kantatuko dituzte guziek batean, zeren beren begiz ikhusiko baitute, Jaunak bihurraziko duenean Sion.

9. Bozkaria zaitzete Jerusalemgoko mortuak, eta batean kanta zatzue laudoriozko kantuak; zeren Jaunak ozakari eman baitio bere populuari eta berrerosi baitu Jerusaleme.

10. Jaunak agertu du bere beso saildua jendaki guzien begietara, eta lurreko eremu guziek ikhusiren dute gure Jainkoa ganikako salbatzailea.

11. Gibelerat! gibelerat! ilkhi zaitzete hortik, ez uki lohitu; Jaunaren untziak ekhartzen dituztenak, ilkhi zaitzete horren erditik, xahu zaitzete

12. Zeren ez baitzarete harramaskan ilkhiko, ez-eta eginahalka ihes goanen; ezik Jauna zuen aitzinean ibiliren da, eta Israelen Jainkoak bilduren zaitzete.



13. Huna non ene zerbitzaria adigarriz izanen den bethea; handi, goretsi, guziz ospetsu izanen da.

14. Nola izan baitzare haintzentsat baldigarri, hala ospegabekoa izanen da gizonen artean haren itxura, eta gizasemeen artean haren ara.

15. Asko jendaki urtzaturen ditu erregeek haren aitzinean idukiren dute beren ahoa; ezen haren berria izan ez dutenek ikhūsiren dute; eta hartazko aiphurik aditu ez dutenek, begira egonen zaizko.

### LIII. KAP.

1. Nork gure erranean hartu du sinheste, eta zeini agertua izan zaio Jaunaren besua?

2. Eta zuhamuxka bat bezala, eta lur agorretikako ondo bat bezala iganen da haren aitzinean; ez du itxurarik, ez edertasunik; eta ikhūsi dugu, eta etzen begikoa, eta haren irritsean gelditu gare.

3. Arbuigarri eta gizonetarik azkena, gizon oinhazetsu eta gaitzaren berri zakiena iduritu zaiku; eta haren begithartea estalia bezala zen eta arbuaiatua zen, eta hargatik ez dugu zerbaitentzat iduki.

4. Egiazki berak hartu ditu gure erkhidurak, eta gure oinhazeak ekharri; eta guk iduki dugu legentsu bat bezala, Jainkoak jo eta aphaudu duen bat bezala.

5. Hura aldiz gure tzarkerien gatik izan da zaurthua, gure gaixtake-rien gatik izan da phorrokatua; bakea ekharri behar zarokun gaztigua haren gainera da orori, eta haren uspelkadurak gaitu sendatu.

6. Gu guziak ardiak bezala errebelatu ginen, zein bere bidera zeihertu ginen; eta Jaunak gu guzien tzarkeria haren gainean ezarri du.

7. Sakrifiziotan eskainia izan da, berak hala nahi baitzuen, eta ez du ideki ahoa. Ardi bat bezala hiltzera eramama izanen da, eta bildotsa iduri moztailerean aitzinean ixilik eta ahoa ideki gabe egonen da.

8. Hesturaz hil da, eta juiamenduz. Nork aiphaturen du haren ganikako iraulgia? Ezen bizidunen lurretik izan da ebakia. Ene populuaren gaixtakeria gatik jo izan dut.

9. Eta emanen diozka gaixtaginak hobiaren ordain, eta aberatsa haren heriotzearen sari; zeren ez baitu gaixtakeriarik egin, eta zimarkhua ez baitzen haren ahoan.

10. Eta Jaunak nahi izan du bere herbalduran trenkatu; baldin bekhataurentzat eman izan badu bere bizia, mendeetan ikhūsiren du bere ondoregoa bizitzen; eta Jaunaren nahia haren eskuz eginen da.

11. Zer-ere haren arimak bilhatu baitu bere nekheaz, ikhūsiren du hura eta aseko da. Ene zerbitzari prestuak asko bere jakitatearen bidez prestu atheraturen ditu, eta berak ekharriren ditu hekien bekhatuak.

12. Hargatik bere zathitzat emanen diozkat hainitz gizon; eta hazkarrren buluzkinak bereziren ditu, zeren dioen heriotzeari eman bere bizia, eta izan den gaixtaginekin ekharria, eta jasan dituen hainitzen bekhatuak eta othoitz egin legea hausten zutenentzat.

### LIV. KAP.

1. Bozkaria zaitte, haurrik egiten ez duzun agorra; kanta zatzu laudorioak eta egizkitu bozkariozko oihuak, oi amatzen etzinen; zeren utzia denak haur asko izanen baitu, senharra duenak baino gehiago, dio Jaunak.

2. Zabal zazu zure olha-tokia, eta heda zatzu zure etxoletako larruak, ez guphidets; luza zatzu zure sokhak, eta gogor zure ziriak;

3. Ezen eskuin eta ezker hedatuko zare; zure ondoregoak populuak izanen ditu primantzeta eta betheko ditu egoiliarrez hiri mortu eginak.

4. Ez izan beldur, zeren ez baitzare ahalkatuko, ez-eta gorrituko; ezen ez duzu ahalkatzeikerik izanen, ahantziren baituzu zure gaztetasuneko ahalkizuna, eta ez baitzare gehiago orhoituren zure alharguntasuneko laidoaz.

5. Alabainan zu egin zaituena izanen da zure Jaun; haren izena da armadetako Jainkoa; eta zure berreroslea, Israelgo saindua, deithuren da lur guziko Jainkoa.

6. Jaunak deithu, zaitu emazteki bazterrerat utzi eta gogoko behardurak hirutzen duen bat bezala, eta emazte gazte danik irazi bat bezala, dio zure Jainkoak.

7. Apher bat, guti batentzat utzi zaitut, eta urrikalmendu handitan bilduren zaitut.

8. Gaitzidurazko ordu batez, apher bat baztertu dut ene begithartea zu ganik; eta bethirainoko urrikalmenduz urrikaldu natzaitzu, dio zure berrerosle Jaunak.

9. Hori da enetzat hala-nola Noeren egunetan; Noeri zin egin bainioen haren orduko bezalako urik ez nuela gehiago lurraren gainera erakharriren; orobat zin egin dut ez natzaitzula gehiago hasarreturen eta etzaitudala gaurgeroz azurriaturen.

10. Ezen dardaraturen dire mendiak, ikharaturen munhoak, bainan ene urrikalmendua ez da zutarik gibelaturen, eta ene bakezko patua ez da khordokaturen, dio zure Jaun urrikalmendutsuak.



11. Gaixottoa, phesiak anbildua, eta gozakaririk gabea; huna non lerroka xuxenduren ditudan zure harriak, eta zafirren gaínean jarriren ditut zure asentuak.

12. Jaspez eginen ditut zure hazkargailuak, harri zizelatuz zure atheak, eta harri hautaz zure inguru guzia.

13. Jaunak argituren ditu zure ume guziak, eta bakerik handienaz gozaturen dira zure semeak.

14. Zuzenaren gaínean jarriak izanen dira zure asentuak; urrun utziko ditutzu maltzurkeria zeinaren beldurrik ez baituzu izanen, eta izialdu-ra mina hurbilduren ez baitzaitzu.

15. Huna non ethorriren zaitzun egoiliar enekin etzena; beihala zuretzat arrotz zena, zuri eratzikiren da.

16. Huna, nik kreatua da ofizialea suan ikhatzei haizeka eta bere ofizioan tresna egiten hari dena; eta nik kreatu dut gizon-hiltzailea xahutzeko.

17. Edozein tresna zure kontra egina, ez da xuxen goanen; eta edozein mihi juiamendutan jazartzen darotzuna, zuk juiaturen duzu hura. Horra, Jaunaren zerbitzarien zathia, eta hekien zuzena ene baithan, dio Jaunak.

#### LV. KAP.

1. Egarri zareten guziak, zatozte uretara; eta dirurik ez duzuenek, laster egizue, eros eta jan zazue; zatozte, erosazue arno eta esne dirurik gabe eta trukadarik batere gabe.

2. Zertako igortzen duzue dirua, ez ogitan, eta zuen lana, ez asetzeko? Entzun nezazu eta adi; hazkurri ona har zazue, eta goritasunean zuen arimak gozo hartuko du.

3. Emadazue beharria, eta zatozte ene gana; adi zazue, eta biziko da zuen arima, eta zuekin joko dut bethiko patua, Dabidi agindu urrikal-menduaren zintzeko.

4. Huna non hura jendaiei eman diotedan lekhuko, buruzagi eta irakhasletzat.

5. Huna non deithuko duzun ezagutzen ez duzun jendaki bat, eta ezagutzen etzintuzten jendaiek zure gana laster eginen dute zure Jainko Jauna gatik, Israelgo saindua gatik, zeren zaituen ospatu.

6. Aurkhi daitekeeno, bilha zazue Jauna; dei egiozue, hurbil deno.

7. Gizon tzarrak utz beza bere bidea, eta gaixtaginak bere gogoetak, eta bihur bedi Jauna gana, eta urrikalduren zaio Jauna; eta gure Jainkoa gana itzul bedi, zeren den guziz barkhatiar.

8. Ezen, dio Jaunak, ene gogoetak ez dira zuen gogoetak, ene bideak ez dira zuen bideak.

9. Alabainan lurretik zenbat gora baitire zeruak, hanbat ene bideak zuen bideetarik gora daude, eta ene gogoetak zuen gogoetetarik.

10. Eta nola uria eta elhurra zerutik jausten baitire, eta harat ez baitire gehiago itzultzen, bainan lurra urztatzen eta horditzen baitute, eta eragiten baitiote, eta eraileari hazia eta jaleari ogia ematen;

11. Hala izanen da ene hitza, ene ahotik ilkhiko dena; ez da ene gana bihurturen hutsik, bainan eginen du nik nahi izan dudana guzia eta bereaz atheraturen da nik igortzen dudana gauzetan;

12. Ezen bozkariotan ilkhiko zarete, eta bakean izanen zarete bidatuak; mendiek eta aldapek zuen aitzinean laudorioak dituzte kantaturen, eta tokiko zuhamu guziak esku-zaflaka hariko dire.

13. Izaia ethorriren da belhar-xutaren orde, eta arraiana handituren hausinaren orde; eta Jauna deithua izanen da hala-nola khenduko ez den bethirainoko ezagutkari bat.

#### LVI. KAP.

1. Hau dio Jaunak: Zuzentasuna begira zazue, eta zuzenari emozue bere bidea; zeren ene ganikako salbamendua hurbil baita ethortzeko, eta ene justizia agertzeko.

2. Dohatsu gizona, hori egiten duena eta horri iratxikitzen dena giza-semea, larunbata begiraturaz, ez lohitzea gatik hura; bere eskuak begiraturaz, gaizkiaren ez egiteko

3. Eta Jaunari iratxiki den arrotz-semeak ez beza erran: Jaunak bereziz hastantzen nau bere populutik. Eta ebakiak ez beza erran: Huna zur ihar bat naizela.

4. Ezen hau dio Jaunak ebakientzat: Begiraten badute larunbata, eta nik nahi dudana hautatzen badira, eta idukitzen badute enekilako patua, 5. Emanen diotet ene etxean eta ene harrasien barnean lekhu bat, eta izen bat seme-alabak baino hobeak: bethiren bethiko izen bat emanen diotet, galduko ez dena.

6. Eta arrotz-semeak, Jaunari iratxikitzen direnak haren adoratzeko, eta haren izena maithatzen dutenak, haren zerbitzari jartzeraino; ene larunbata begiraturako duen edozein, ez haren lohitzeko, eta enekilako patua dadukana;

7. Hainak eramanen ditut ene mendi saindura, eta bozkarioz bethiko ditut ene othoitzeko etxean; hekien holokaustak eta bitimak ene alda-



rearen ganean gogaragari izanen zaizkit, zeren ene etxea deithua izanen baita populu guzientzateko othoitzeko etxea.

8. Dio Jainko Jaunak, Israeldik barriatuak zirenak biltzen dituenak: Bilduko ditut oraino Israelen gana hari batu nahiko direnak.

9. Larreko abereak, oihaneko abereak, zatozte guziak puskaren ireda.

10. Israelgo atalariak guziak dira itsuak, nihork ez daki deusere; zakhur mutuak dira, saingatzeko on ez direnak, iduripen alferrik baizik ikhusten ez dutenak, lo daudezenak, eta ametsak lakhet dituztenak.

11. Eta dira zakhur ahalkerik batere gabeak, asea ezagutzen ez dutenak; artzainek berek adimendua zer den ez dakite; guziak zeihertu dira zein bere alde, bakhotxa bere jaramankeriari jarraikiz, lehenbizikotik azkeneraino.

12. Zatozte, har dezagun arnoa, gaiten bethe horditu arteo, eta nola baita egun, bihar ere hala izanen da, eta hainitz gehiago.

#### LVII. KAP.

1. Prestua badihoa, eta nihork ez du bere bihotzean hortaz gogoetarik egiten; urrikalpenezko gizonak mundutik bilduak dire, nihor ez baita aditzadunik, ezen prestua maltzurren artetik bildua da.

2. Bakea ethor bekio; bere ohean phausa bedi, bere bide zuzenean ibili dena.

3. Bainen zuek hurbil zaitezte, emazelatari semeak, tzarkeriako gizonaren eta lilitxoaren ganikako iraulgia.

4. Noren ganean dostatu zarete? noren gainera ideki duzue ahoa eta arthiki mihia? Ez othe zarete ume gaixtagin batzu, iraulgi arnegatua,

5. Zuen gozakariak hartzen dituzuenak zuen jainkoen baithan, zuhaitz hostotsu guzien azpian, haurttoa erreketan eta gerenda gora guzien azpian imolatuz?

6. Erreketako pharteetan dun hire phartea, hura dun hire zathia; eta ixuri diozkan libazioneak, eskaini sakrifizioak; ez othe naiz horietaz gaitzituren?

7. Mendi xut eta gora baten ganean ezarri dun hire ohea, eta haratigan haiz bitimen imolatzeko.

8. Athe giblean, habearen giblean ezarri dun hire orhoitgailua; ene aitzinean altxatu dun hire estalgia eta hire ganat hartu lohikeriako gizona; zabaldu dun hire ohea; eta halakoekin egin dun batasun; hekien ohea maithatu dun, eta ez dun gorde.

9. Erregerentzat hire burua gantzugailuz aphaindu dun, eta usain gozoz bethe haiz; hire bidalkinak urrunera igorri ditun, eta aphaldu haiz ifernuetaraino.

10. Bidez-bide nekhatu haiz; ez dun erran: Phausatuko naiz; hire eginkariez aurkhitu dun bizitzekoa, eta ez dun othoitzik egin.

11. Zer grinak jorik beldurtu haiz? gezur egin baitun, ez baihaiz nitaz orhoitu, hire bihotzean gogoeta bat egin ez baitun? Ahantzi naun zeren nindagoen ixilik eta ikhusten ez banu bezala.

12. Nik orotan ezagutaraziren dinat hire zuzentasuna, eta etzaizkin baliatuko hire eginkariak.

13. Deihadar eginen dunanean, hire gana bilduak ditunanez athera behezate; eta haizeak eramanen ditu guziak, hats batek bolatuko ditu; aldiz ene baithan bere sinhestea duenak, izanen du lurreko primantza, eta goraturen du ene mendi saildua.

14. Eta erranen dut: Egizue bide, emazue bide, aldara zaitezte bidexkatik, poxeluaq khen zatzue ene populuaren bidetik.

15. Ezen hau dio Guziz-Gorak, bethian egoten den Jainko handiak, saildua deitzen denak, lekhu gora eta sailduan dagonak, eta bihotz hautsi eta aphalarekin, bihotz aphalari eta bihotz hautsiari biziaren emateko:

16. Ez naiz bethi gathaskan hariko eta ez naiz azkeneraino samurrean egonen; ezen nik khentzen dut bizia, nik ematen hatsa.

17. Ene populuak, bere jaramankeriaren tzarraz hasarrearazi nau, eta jo izan dut; gorde diot ene begithartea, eta gelditu naiz gaitziduran; eta hura goan da bere bihotzeko bideetan kurri.

18. Ikhusi ditut haren bideak, eta sendatu dut, eta gibelerat erakharri eta sosegua bihurtu diotet hari eta hura deithoratzen zutenei.

19. Eta nik atheratu dut bakea, ene ahoko fruitua, bakea urrun denari eta hurbil denari, dio Jaunak, eta sendatu dut haina.

20. Gaixtaginak dire ordean itsaso hasarre bat bezala, zeina jabal ez baititake, eta haren uhinak lohiari zaflaka hari dire.

21. Gaixtaginentzat ez da bakerik, dio Jainko Jaunak.

#### LVIII. KAP.

1. Oihu egizu, ez bara; turuta bezala altxa zazu boza; ene populuari ezagutaraz diozotzu bere tzarkeriak, eta Jakobon etxeari bere bekhatuak;

2. Ezik egunetik egunera bilhatzen naute, eta nahi dituzte ene bideak jakin, zuzenari bere bidea eman dioen, eta bere Jainkoaren legea utzi ez duen populu batek bezala; galdatzen darozkide zuzenaren erabakia eta Jainkoari nahi dute hurbildu.



3. Zergatik egin dugu barur, eta zuk ez begiratu? beheratu ditugu gure arimak, eta zuk ez jakinarena egin? Huna zuen barureko egunean aurkhitzen dela zuen oldea, eta bilhatzen dituzuela zuen zorduru guziak.

4. Huna barur egiten duzuela hauzi eta eskatima emateko eta ukharai-muloaz gogorki hari zarete joka. Ez egin barurik egungo eguna arteo bezala, zuen izkolak helaraziz gaineraino.

5. Nik nahi dudan barura hau othe da, gizonak egun bat idukitzea bere arima hestutua? burua pirrita bat bezala bihurrikatzea? zakhua eta hautsa bere gainean ezartzea? Hori deitzen duzue barura, eta Jainkoaren gogarako eguna?

6. Nik nahi dudan barura ez othe da hau hobeki? Hautsatzu tzarkeriaren estekak, khien haxe lehergarriak, libro igor uztarriaren azpian ehoak daudizenak, eta sortha guziak hauts.

7. Zure ogitik hautsozu gose denari; beharrak eta norat bil ez dutenak sarrarazkitzu zure etxean; norbait ikhusiko duzunean biluzik, estal zazu; ez erdeina zure haragia.

8. Orduan ilkhiren da zure argia hala-nola goiztiria; laster atheraturen da zure osagarria, eta zure zuzentasuna zure aitzinean da ibiliren, eta Jaunaren ospeak zaitu bilduren.

9. Orduan eginen diozu dei Jaunari, eta Jaunak entzunen du; oiher eginen duzu, eta erranen du: Huna non naizen. Zaphak khentzen badituztu zurekilakoen erditik, uzten dixiduzko erhi hedatzeak eta on ez diren hitz atheratzeak;

10. Gose denaren gainera ixuriko duzunean zure bihotza, eta atseka-betan den arima eskas duenaz betheko duzunean, zure argia ilkhiko da ilhunbeen erdian, eta ilhunbeak izanen dire hala-nola eguerdi bethea.

11. Eta Jaunak emanen darotzu phausua bethi, eta bere dirdirez betheko du zure arima, eta libratuere ditu zure hezurak; eta izanen zare baratze urztatu bat iduri, eta hala-nola ithurri bat, zeinaren urek ez baitute eskas eginen.

12. Eta zure tokietan asko mendez mortu egon lekhuak ethez dira betheko, asko mendez ahantzirikako asentua goitituen dituztu, eta deitua izanen zare hesi-berritzailea, bidexkei bake-bihurtzailea.

13. Baldin larunbat egunean bidaietarik begiratzen baduzu zure oina; begiratzen bazare ene egun sainduan zure nahikariaren egitetik; larunbata deitzen baduzu egungozo, Jaunaren egun saindu eta ospetsua, eta ospatzen baduzu, zure urhatsak ez ditutzularik erabiltzen, eta zure lehia ez delarik elheketako aurkhitzen:

14. Orduan gozo harturen duzu Jauna baithan, eta goraturen zaitu lurreko goratasunetarik goiti, eta haziren zaitu zure aita Jakoben primantzaz; ezen Jaunaren ahoa da mintzatu.

### LIX. KAP.

1. Huna non Jaunaren eskua ez den laburtua, salba ahal ez izateko; eta haren beharria ez da gortua, ez aditzeko.

2. Bainan zuen gaizkiek berezgoa bat egin dute zuen artean eta zuen Jainkoaren artean; eta zuen bekhatuek gorde darotzute haren begithartea, entzun ez dezantzat.

3. Alabainan khutsatuak dire zuen eskuak odolez, eta zuen erhiak tzarkeriaz; zuen ezpainak gezurrez mintzatu dire, eta zuen mihiak tzarkeria derasa.

4. Nihor ez da zuzenbideari dei egiten daroenik, ez-eta egiaren arbera juiatzen duenik; bainan ezdeuskerian dadukate beren sinhestea, eta hutsalkeriak dituzte erasten; gaitzaz ernaldtu, tzarkeriaz erdi dire.

5. Aspikaren arroltzeak atheratu eta armiarma-sareak eho dituzte; hilen da hekien arroltzeetarik janen duena; eta hekietarik xititzen bada, basilika sorthuko da.

6. Beren ehokina ez dute soineko izanen, eta ez dire beren lanetik estaliko; hekien lanak, lan alferrak dire, eta tzarkeriako eginkaria da hekien eskuetan.

7. Hekien oinek gaizkira laster egiten dute, eta odol hobengabearen ixurtzera higitzen dire; hekien asmuak, asmu alferrak; xahupen eta zaphatzeak dire hekien bideetan.

8. Ez dakite bakerako bidea, eta zuzentasuna ez da hekien urhatsetan; makhurkatuak dituzte beren bidexkak, eta bide hekien zaphatzen dabilanak ez daki zer den bakea.

9. Horren gatik, urrundu da gutarik zuzentasuna, eta zuzenbideak ez gaitu atzematen; argia igurikitzen, eta huna ilhunbeak; zohardura uste, eta ilhunbeetan gabiltza.

10. Harrasia ukitu dugu itsuak iduri, eta haztaka haritu gare begirik ez duena bezala; behaztopaka eguerditan haritu gare ilhunbeetan bezala; toki ilhunetan gare hilak bezala.

11. Guziak gaudez hartzak bezala marrumaz, usoak bezala kurrukaz; igurikitzen ginduen zuzenbidea, eta ez da ethorri; salbamendua, eta urrundu da gutarik.



12. Alabainan gure tzarkeriak murrukatu dire zure aitzinean, eta gure bekhatuek ihardetsi darokute; zeren gure gaixtakeriak gurekin baitire; eta ezagutzen ditugu gure tzarkeriak,

13. Jaunaren kontra egin bekhatu eta gezurrak; eta zehertu gare, gure Jainkoaren ondotik ez goateko, kalomnia eta legearen kontrako erauntsen erabiltzeko; gezurrezko solasak asmatu eta gure bihotzetik atheratu ditugu.

14. Eta adimenduak gibelerat egin du, eta zuzentasuna urrun baratu da; zeren egia erori baita karrikan, eta zuzentasuna ezin sarthu baita.

15. Eta egia ahantzia gelditu da, eta gaizkitik gibelatu dena, harrapariari agerian gelditu zaio; eta Jaunak ikhusi du, eta gaizkia haren begietara agertu da, zuzentasunik ez baita gehiago.

16. Eta gizonik ez dela ikhusi du; eta balditua nihor ez helduz, bere besoari dio laguntza galdatu, eta bere zuzentasunak indar eman dio.

17. Zuzentasuna jauntzi du erredola bezala, eta salbamenduko kaska haren buruan da; jauntzi ditu asperkundeko soinekoak, eta bere gaitziduraz estali da kapa batez bezala.

18. Aspertzera abian da, bere etsaiei hasarrezko sariaren ematera, bere ixterbegiei ordainaren egitera; irlei ordaina diote bihurturen.

19. Eta mendebalekoak Jaunaren izenaren beldur izanen dire, eta iguzki-sorthaldekoak haren ospearen, ethorriko denean hala-nola hibai muthiria, Jaunaren hatsak bolatzen duena;

20. Eta berrerrosle bat ethorriko zaiotenean Sioni, eta tzarkeriatik bihurtzen diren Jakoboen umeei, dio Jaunak.

21. Hau da hekiekin eginen dudan batasuna, dio Jaunak: Ene izpiritu zu baithan dena, eta ene hitz zure ahoan ezarri ditudanak, ez dire ilkhiko zure ahotik, ez-eta zure haurren ahotik, ez-etare zure haurren ganikako haurren ahotik, dio Jaunak, oraidanik eta bethi guziraino.

## LX. KAP.

1. Jaiki, oi Jerusaleme, argiz bethe zaitte, zeren ethorri baita zure argia, eta Jaunaren ospea ilkhi baita zure gainera.

2. Ezen huna non ilhunbeek estaliko duten lurra, eta gobelak populuak; zure gainera ordean Jauna da jaikiko, eta haren ospea zure erdian da agerturen.

3. Eta jendaiak zure argitara ibiliko dira, eta erregeak, zure gainera ilkhi distirara.

4. Begiak ingurura altxa zatzu, eta ikhusazu: horiek oro bildu dira, zure gana heldu dira; zure semeak urrundik ethorriko dira, eta zure alabak aldean jaikiko zaizkitzu.

5. Orduan ikhusiren duzu, eta gozoz betheko zare, eta zure bihotzak ederretsiko du eta zabalduren da; itsasotikako osteak zutara itzuliko direnean, zure gana ethorriren da jendaien indarra.

6. Kameluek, Madiango eta Ephako dromedarioek, uholdeak bezala zaituzte estaliren; Sabatik ethorriren dira guziak, urhea eta isentsua ekharitzen dituztelarik, eta orotan hedatzen Jaunaren laudorioak.

7. Zedarreko arthalde guziak bilduko dira zuretzat, Nabaiotheko ahariak zure zerbitzuko izanen dira; jabalpeneko ene aldarearen gainean eskainiren dituzte, eta ospaturen dut ene maiestatearen etxea.

8. Zein dira dihoazen horiek hedoiak iduri, eta usoak beren zirritutara bezala?

9. Ezen aspalditik ene iguri daude irlak eta itsasoko untziak, zure umeak urrundik erakhar detzadan, hekien urhe-zilharrak hekiekin, zure Jainko Jaunaren izenari, Israelgo sainduari, zeinak baitzaitu ospez bethe.

10. Arrotzen semeek altxaturen dituzte zure harrasiak, eta hekien erregeek zerbitzaturen zaituzte; ezik ene gaitziduran jo zaitut, eta bake-tzean urrikaldu naiz zutaz.

11. Eta zabalduak egonen dira bethi zure atheak; ez egunaz, ez gauaz ez dira hertsiko; ekhar dezazuten jendaien indarra, eta erakhar hekien erregeak.

12. Ezen zerbitzatuko etzaituzten jendakia eta erresuma galduko dira; eta mortu eginak izanen dira jendaki hekien lekhuak.

13. Libanen ospea ethorriko zaitzu; izaia, ezpela eta pinoa ethorriko dira ene saindutegiaren ederztatza; eta ospe emanen diot ene oinpeko lekhuari.

14. Eta zu aphaltu zaituztenen umeak gurthuz ethorriren zaizkitzu, eta zuretzat gaizki mintzo zirenek adoraturen dituzte zure oin-hatzak, eta deithuren zaituzte Jaunaren hiria, Israelgo sainduaren Sion.

15. Zeren izatu zaren utzia eta gaitzirizkotan idukia, eta nihor etzelakotz zutan gaindi iragaiten, eginen zaitut mendeetako lili, gizaldi guzieta-ko bozkariagarri.

16. Baaturen duzu jendaien esnea, eta edoskiren erregeen bulharra; eta jakinen duzu ni naizela Jauna, zure salbatzailea, eta zure berrerrosle Jakobon hazkarra.

17. Kobre orde, ekharriren darotzut urhea; eta burdina orde, ekharriren darotzut zilharra; kobrea zur orde, burdina harri orde; eta emanen darozkitzut artzain baketiarrak, eta zuzena maite duten kargudunak.



18. Ez dira gehiago entzunen zure lurrean gaixakeria, zaphatzehahutzeak zure mugen barnean; salbamendua jabetuko da zure harrasiez, eta laudorio-otsak izanen dira zure atheetan.

19. Ez duzu gehiago iguzkia izanen argi emateko egunaz, ez-eta ilhargiaren distiradura zure argitzeko; bainan Jauna izanen duzu bethiereko argitzat, eta zure Jainkoa zure ospetzat.

20. Zure iguzkia ez da gehiago etzanen, ez-eta ttipituko zure ilhargia; zeren Jauna izanen baituzu zure bethiereko argitzat, eta betheko baitira zure deithore egunak.

21. Zure populua, berriz, prestuzko populu bat izanen da, nik landatu gandoa, ospe atheratzeko egin dudana obra, bethi guziko lurra primantzetan izanen duena.

22. Aphurrena berhatuena da miletaraino, eta xumeena populu guziz hazkar batera: nik, Jaunak, ordua ethorri ditakeenean, bat-batean eginen dut hori.

### LXI. KAP.

1. Jaunaren izpiritua ene gainean da, zeren gantzutu bainau Jaunak; igorri nau emeei berri onaren ekhartzera, loth detzadan bihotz zaurthuak, gathibuei eman diozotedan graziaren berria, preso direnei librantzarena;

2. Oihu egin detzadan Jaunaren jabalpeneko urthea, eta gure Jainkoaren asperkundeko eguna; gozakari ekhar diozotedan nigarrez dau-dezen orori;

3. Sionen deithoretan daudezinei ezar diozotedan eta eman khoroa hautsaren orde, bozkarioaren olio nigarren orde, ospezko kapa atseka-bezko izpirituaren orde; eta Sionen deithuak izanen dire zuzenaren habeak, Jaunak landatuak hari ospe bihurtzeko.

4. Eta mende hartan mortu ziren lekhuak etxez betheko dituzte, eta eroriak altxatuko eta hiri mortu eginak, mende heketan urratuak, bertutuko dituzte.

5. Eta arrotzak ethorriren dire, eta alhatuaren dituzte zuen arthaldeak; eta arrotz-seeak izanen dire zuen lurren lantzeko eta zuen mahastizain.

6. Zuek, berriz, Jaunaren aphezak deithuak izanen zarezte: Gure Jainkoaren ministroak; erranen darotzuet: Jendaien ontasunetarik haziko zarezte, eta hekien ospetik atheraturen duzue lelo.

7. Zuen ahalkatze bikhun eta gorritzearen orde, bakhotxak bere zat-hiaz eginen du laudorio; horren gatik bere lurrean izanen du gozamen bikhuna, eta bethiraino iraunen du hekien bozkarioak.

8. Alabainan ni naiz Jauna zuzentasuna maite eta harrapakeriatikako holokausta higuin dudana, eta egiaren gainean finkaturen ditut ene populua egintzak, eta harekin joko dut bethirainoko batasun bat.

9. Eta jendaien erdian ezaguturen dute haren ganikako iraulgia, eta populuen erdian haren ganikako odola; ikhusiko dituzten guziek ezaguturen dituzte, zeren hekiek izanen baitire Jaunak benedikatu iraulgikoak.

10. Bozkario handitan bozturen naiz Jauna baithan, eta ene arima goiherez jauziren da ene Jainkoa baithan; zeren nauen jauntzi salbameduko soinekoz, eta zuzentasunezko jauntziaren nauen inguratu, hala-nola jaun espos khoroaz aphaindua; hala-nola andre espos bere urheriez berregindua.

11. Ezen nola lurak ekhartzen baitu ninika, nola baratzeak ninikarazten baitu hazia; hala Jainko Jaunak ere jendaki guzien aitzinean lorazten ditu bere zuzentasuna eta bere ospea.

### LXII. KAP.

1. Sionen kariaz ez naiz ixilduren; Jerusalemen kariaz ez dut phausurik hartuko, haren prestua ilkhi dadien arteo argi bat bezala, eta haren salbatzailea bitz dadien arteo zuzi bat bezala.

2. Jendaiek ikhusiren dute zure prestua, eta errege guziek zure salbatzaile ospetsua, eta deithuren zaituzte Jaunaren ahoak emanikako izen berri batez.

3. Eta izanen zare Jaunaren eskuan ospezko khoro bat, eta zure Jainkoaren eskuan errege diadema bat.

4. Etzare gehiago deithuko Bazterrat-utzia, eta zure lurra ez da gehiago deithuko Desmasiatua; bainan deithuko zare Ene-nahikarakoa, eta zure lurra Egoiliarduna; zeren Jaunak lakhet izan duen zure baithan, eta zure lurra egoiliarrez betheko baita.

5. Gizon-gaztea egonen da ezen neskatxa gaztearekin, eta zure umeak zu baithan egonen dira; eta senharrak bozkario izanen du bere andreaz, eta zure Jainkoak bozkario izanen du zutaz.

6. Zainak ezarri ditut, oi Jerusaleme, zure harrasien gainean; egun guzian eta gau guzian ez dira behinere ixilduren.

7. Oi zuek, Jaunaz orhoitzen zaitetzenak, ez bezaiztete ixil, ez bezazue ixilik utz, gogor dezan arteo Jerusaleme, eta lurrean ezar dezan laudagarri.

8. Jaunak zin egin du bere eskuinaz eta bere besoko indarrak: Ala! ematen badiotet gehiago zure ogia hazkurri zure etsaiei, eta arrotz-seekek edaten badute zure nekheetarikako arnoa!





9. Ezen ogia uzatzen dutenek, janen dute hura, laudatuz Jauna; eta arnoa egiten dutenek, edanen dute ene lorio sainduetan.

10. Iragan zaituzte, iragan atheetarik, bidea populuari aphain diozozuete, zelhai diozozuete bidea, khen harriak, eta populuei altxa ezagutkaria.

11. Huna Jaunak lurraren bazterretaraino adiarazi duela: Errozeu Siongo alabari: Huna zure salbatzailea heldu dela; huna bere saria berekin, eta bere eginkaria bere aitzinean.

12. Eta deithuko dituzte Populu saindua, Jaunak berrerrosia. Zu aldiz deithuko zaituzte: Hiri errekastatua, eta behinere ez Utzia.

### LXIII. KAP.

1. Zein da Edometik heldu den hau, Bofratik soineko thindatuekin; bere soinaren barnean eder den hau, bere indarraren handian ibiltzen delarik? Ni naiz zuzentasunezko hitzen errailea, eta salbatzekotzat gudu-katzen naizena.

2. Nolaz bada zure jauntzia gorria da, eta zure soinekoak, lakoan mahats lehertzen hari direnena iduri?

3. Bakharrik haritu naiz lakoan lehertzen, eta jendaietarik gizon bat etzen enekin; oinkatu ditut ene gaitziduran, eta lehertu ene hasarrean; eta hekien odola hedatu da ene soinekoetan, eta lohitu du ene jauntzia oro.

4. Ezen gogoan dut asperkundeko eguna, ethorri da ene berrerros-peneko urthea.

5. Ingurura begiratu dut, eta laguntzeko nihor etzen; bilhatu naiz, eta lagundu nauenik ez da izatu; baina aski zen ene besoa, eta ene gaitzidurak lagundu nau.

6. Ene irakiduran oinen azpian erabili ditut populuak; ene gaitziduran hordiarazi ditut, eta lurrerat arthiki hekien indarrak.

7. Orhoituren naiz Jaunaren urrikalmenduez; Jaunaren laudorioak kantaturen ditut Jaunak bihurtu darozkigun guzien gainean eta bere beraztasunaren eta urrikalpen handi guzian arabera Israelen etxeari egin diozkan nihonereko ongien gainean.

8. Eta erran du: Guzia gatik populu hau enea da, ukhatzen ez nauten umeak dire: eta hekien salbatzaile egin da.

9. Hekien hestura guzietan, ez du ukho egin, eta haren aitzineko aingeruak salbatu ditu; bere maithakundean eta bere beraztasunean berak ditu berrerrosi, eta soinean ekharri eta jasan ditu mendeko egun oroz.

10. Hekiek ordean hasarrera ekharri dute, eta atsekabe eman diote haren sainduaren izpirituari; eta hura etsai bihurtu zaiote, eta berak herrautsi ditu.

11. Eta orhoitu da Moisen mendeko egunez eta bere populuaz: Non da horiek itsasotik atheratu dituen bere arthaldeko artzainekin? non da horien erdian bere sainduaren izpiritua ezarri duena;

12. Zeinak bere beso ospetsuaz eskuin eraman baitu Moise; zeinak urratu baititu urak, bethiko gogortzea gatik bere izena;

13. Zeinak eraman baititu ondar-lezeak barna, hala-nola mortua gaindi zaldi bat behaztopatzen ez dena?

14. Zelhaiera jausten den zaldia iduri, eta Jaunaren izpiritua izatu da haren bidari; hala erakharri duzu zure populua, zure izena ospetsu egitea gatik.

15. Begira zazu zerutik, eta ikhasazu zure egoitza saindu eta zure ospaeren erditik; non dire zure kharra eta zure indarra, zure barne samuru eta urrikalmenduak oro? Baratu dire ene gainetik.

16. Alabainan zu zare gure aita; Abrahamek ez gaitu ezagutzen; Israellek ez daki nor garen: zu zare, Jauna, gure aita, gure berrerrostea, eta egundainotikakoa da zure izena.

17. Zergatik zeherrarazi gaituzu, Jauna, zure bideetarik; gogorrazazi duzu gure bihotza, ez gaitzen izan zure beldur? Bihur zaite zure zerbitzari, zure primantzako leinuen kariaz.

18. Gutti zitzaioten zure populu sainduaz nausi izatea; gure etsaiek zango-pean ibili dute oraino zure saindutegia.

19. Eginak gare hatsarrian ginen bezala, gure Jaun etzinenean oraino, eta zure izena gure gainera deitzen etzenean.

### LXIV. KAP.

1. Balin ba urraturen ditutzu zeruak eta jautsiko zare! Mendiak urth laizteke zure aitzinean.

2. Ihar laizteke suak erreak bezala, galgaran irakit lezakete urek, zure izena ezagutua izan dadien zure etsaien artean; zure aitzinean ikhara laizteke jendaiak.

3. Sendagailak egiten ditutzunean, ezin detzazkegu jasan: jautsi zare, eta zure aitzinean urmariatu dira mendiak.

4. Mendearen hastapenetik gizonak ez du entzun, beharriak ez du aditu, begiak ez du ikhusi, zutaz landan, oi Jainkoa, zer dadukazun aphaindurik zure iguri daudenentzat.

5. Bozkariotan denaren eta zuzenari bere bidea ematen dioenaren aitzinera atheratu zare; zure bideetan orhoituren dira zutaz: samurru zare; bekhatu egin ginduen; bethi bekhatuan ginen, eta salbaturen gare.



6. Gizon lohiak bezala eginak gare guziak, eta gure egintzak astagaidunaren oihalak bezala dira; eta guziak erori gare hostoa iduri, eta gure tzarkeriek haizeak bezala eraman gaituzte.

7. Nihor ez da zure izenari dei egiten daroenik, jaikitzen eta zuri irixikitzen denik; gorde darokuzu zure begithartea, eta zathikatu gaituzu gure tzarkerien indarraren azpian.

8. Eta orai, Jauna, zu zare gure aita; gu aldiz, lohi pozi bat; zu zare gure egilea, eta gu guziak zure eskuetako lanak.

9. Jauna, ez bezedi borthizkieei samur, eta ez orhoit gehiago gure gaixakeriez; huna, begira zazu, zure populua gare guziak.

10. Zure sailduaren hiria mortu egina da; Sion mortu egina da, Jerusalemeko deboilatua.

11. Gure sailduespeneko eta gure ospeko tenploa, zeintan gure arbasoek laudatu baitzaituzte su-garren ondar egina da, eta gure jauregi ederrak pusketan eroriak.

12. Horien gainean, zure burua idukiren othe duzu, Jauna? ixilik egonen othe zare? atsekabe gogorren utziren othe gaituzu?

### LXV. KAP.

1. Bilhatu naute nitaz lehenago galdatzen etzutene; atzeman naute bilhatu ez nautene; ene izenari dei egiten etzuen jendaki bati erran diot: Huna ni, huna.

2. Egun guzian eskuak hedatu diozkat populu sinhestegabeko bati, zeina baitabila bere asmuen ondolik bide ez onean.

3. Populu, samurtzera ene begien aitzinean tarrantzen nauena; baratzetan imolatzen, adrailuen gainean sakrifikatzen duena;

4. Egoitza hobietan, eta lo jainkordeen tenploetan egiten duena, urdekia jaten eta salda lohia bere untzietara ixurtzen duena;

5. Erraten duena: Urrunt hadi, ez niri hurbil, ez baihaiz xahua: hainak ene sephako orduan izanen dira khe, egun guzian erreko den su bat.

6. Iskribatua da ene aitzinean: ez naiz ixilik egonen, bainan eginen diotet ordaina, bulharretara sariztaturen ditut,

7. Dio Jaunak, hekien tzarkeriek, eta batean hekien arbaso mendien gainean sakrifikatzen eta munhoen gainean niri irain egiten haritu direnen tzarkeriak eta hekien egintza zaharraren saria pagaturen diotet bulharretara.

8. Hau dio Jaunak: Hala-nola bihi bat aurkitzen bada mahats-molkho batean, erraten baita: Ez xahu, Jaunaren benedizionetik delakotz; oro bat eginen dut ene zerbitzarien kariak, ez baitut Israel guzia xahutuko.

9. Eta Jakobean ganik eta Judatik eraikiren dut iraulgi bat, ene mendiak gozaturen dituen; eta ene hautetsiek primantzaz izanen dute lur hori, eta ene zerbitzariak hor izanen dute beren egoitza.

10. Eta ni bilhatzen nauen populuak izanen ditu zelhaiak arthaldeen hespiltzat eta Akorreko harana abereen heitzat.

11. Eta zuek, Jauna bazterrerat utzi duzuenak, ene mendi saildua ahantzi duzuenak, Zoriari mahaina aphaizten eta haren gainean libazio-neak egiten dituztenak,

12. Ezpataz khondutako zaituztet, eta oro sarraski batean eroriko zarete zeren nik deithu eta ez duzuen ihardetsi, ni mintzatu eta ez duzuen entzun, eta gaizkia ene begien aitzinean egiten zinduten, eta nik nahi ez nuena duzuen hautatu.

13. Hargatik, hau dio Jainko Jaunak: Huna non ene zerbitzariak janen duten, eta zuek gosez egonen zarete; huna ene zerbitzariak edanen dute, eta zuek egarriz egonen zarete.

14. Huna bozkariotan izanen direla ene zerbitzariak, eta zuek ahalkez urthuak; huna, ene zerbitzariak bihotzeko goiheretasunaren ariaz, laudoriozko kantikak kantatuko dituzte; eta zuek bihotzeko minez, oihuz egonen zarete, eta izpirituko hesturaren ariaz marrumaka hariko zarete.

15. Zuen izena burhozko hitz bat eginen duzue ene hautetsientzat; eta Jainko Jaunak hilen zaituztete, eta bere zerbitzariak bertze izen batez deithuko ditu.

16. Izen hartan benedikatua dena lurrean, egiazko Jainkoak izanen da benedikatua; era lurrean zin egiten duenak, egiazko Jainkoak zin eginen du; zeren leheneko atsekabeak ahantziak baitira, eta ene begietarik itzaliak.

17. Ezik huna non kreatzen ditudan zeru berriak eta lur berri bat; eta beihalakoak ez dira orhoitzapenetan izanen, eta ez dira gogorat izanen.

18. Banian bethi guziraino zare bozturen eta jauziren nik kreatzen ditudan aukiez; ezen huna non egiten dudan Jerusalemeko goiheretasunezko hiri bat eta hango populua bozkariozko populu bat.

19. Eta goihereturen naiz Jerusalem, eta bozkarieturen ene populuaren baithan; eta haren erditik ez da gehiago entzunen ez nigar-marraskarik, ez oihi deihadarrik.

20. Ez da handik goanen haur gazterik, ez-eta gizon-zahar bere urtheak bethe gabekorik; zeren haurra ehun urthetan hilen baita, eta ehun urthetako bekhatoarea madarikatua izanen da.

21. Eta etxeak eginen dituzte, eta hekietan egonen dira; eta mahastiak landatuko dituzte, eta hekien fruituak janen.



22. Eginen duten etxea ez da bertzeen egoitza izanen; landatuko duten mahastiko fruitua, ez dute bertzeek janen; ezen zuhaitzaren egunen araberakoak izanen dira ene populuaren egunak, eta haren eskuetakoa lanak iraupen handikoak izanen dira.

23. Ene hautetsiek ez dira alferretan hariko lanean, eta haurrak etzaizkote asalduen erdian sorthuko; zeren hura baita Jaunak benedikatu dituenen ganikako iraulgia, eta hekien ilobasoak hekiekin.

24. Eta gerthaturen da, oihu eginen duten baino lehen entzunen dudala; oraino mintzo direlarik, aditua dukedala.

25. Otsua eta bildotsa batean alhatuko dira, lehoinak eta idiak lastoa janen dute, eta herrautsa izanen da sugearen haskurria; ez dute kalterik eginen, ez-eta hilen ene mendi saindu guzian, dio Jaunak.

### LXVI. KAP.

1. Hau dio Jaunak: Zerua dut jarlekhu, lurra berriz oin-alkhi: nolakoa da niri altxatuko darotadazuen etxea? zer toki da ene phausa-lekhua?

2. Ene eskuak eginak dire horiek oro, eta horiek guziak eginak dire, dio Jaunak. Aldiz nori begiratuko diot, ez bada behar gaixoari, bihotz zaurthuari, ene hitzak ikharatzen duenari?

3. Idi bat imolatzen duena, gizon bat hiltzen duena bezala da; azien-da xuri bat sakrifikatzen duena, zakhur bati burua lehertuko dioena bezala; eskaintza bat eginen duena, urde odola eskaintzen duena bezala; isentsu erretzeaz orhoitzen dena, idolari esker ematen hari dena bezala. Horiek oro dituzte hautatu beren bideetan, eta hekien arimak gozo hartu du bere izgarrikerietan.

4. Aria hortaz ni ere hekiek bezala trufaz hautatuko naiz; eta zeren-ere beldurra baitzuten, hura erakharriren diotet gainera; nik deithu, eta nihor etzelakotz ihardesteko; ni mintzatu, eta ez dutelakotz entzun; eta gaizkia egin dutelakotz ene begien aitzinean, eta nik nahi ez nuenaz dire-lakotz hautatu.

5. Adi zazue Jaunaren solasa, haren hitzera ikharatzen zaretanak: zuen anaia gaitzerizkotan zaduzkatenek, eta ene izenaren ariaz irazitzen zaituztenek, erran dute: Jaunak ager beza bere ospea, eta gu ere sarthuko gare zuen bozkarioan. Hainak ordean ahalkearen azpira arthikiak izanen dire.

6. Hiritik populuaren oihua, tenplotik oihua; Jaunaren mintzoa, bere etsaiei merezitu saria bihurtzen duenarena.

7. Erdi-minak izan baino lehen, Sion erdi da; erditzeko muga baino lehen, seme batez erdi da.

8. Nork egundaino holakorik aditu du? nork ikhusi du holakorik? Lurrak egun bakhar batez ekharriren othe ditu gainean dituen fruituak? populu bat aldian sorthuren othe da osorik? ezen Sion minetan jarri eta betan sorthu ditu bere semeak.

9. Ni, bertzeak erdiarazten ditudana, ez othe naiz erdiko neroni? dio Jaunak; nik bertzeei ematen badiotet iraulgia, neroni agor izanen othe naiz? dio zure Jainko Jaunak.

10. Goihere zaitezte Jerusalemekin, atseginez jauz zaitezte harekin, hura maite duzuen guziak; bozkarioz harekin boz zaitezte, nigarrez haren gainean zaudeten guziak,

11. Edozki dezazuen eta ase zaitezten haren gozakarien bulharretik; hartarik edan dezazuen, eta haren nihonereko ospetik athera dezazuen gozo guzien nasaizia.

12. Ezen hau dio Jaunak. Huna non Jerusalemekin gainera jautsaraziren ditudan bakea hibai bat bezala, eta jendaien ospea, gaindika dihoan uharra iduri; hura edoskiren duzue; bulharrera ekharriak eta belhaunen gainean lausengatuak izanen zarete.

13. Nola ama batek lausengatzen baitu bere haurra, hala gozo emanen darotzuet, eta sosegu hartuko duzue Jerusalemekin galtzarrean.

14. Ikhusiko duzue, eta boztuko da zuen bihotza, eta zuen hezurak belharra bezala haziko dira; eta ageriko dira Jaunaren eskua haren zerbitzarien gainean, eta haren gaitzirizkoa etsaien gainean.

15. Ezen huna non ethorriko den Jauna suaren erdian, eta haren orga-lasterrak iduri du xirimola; bere hasarrearen irakiduran heldu da sari bihurtzera, su-garren erdian gaztigatzera;

16. Zeren Jaunak suarekin eta bere ezpatarekin arthikiren baitu bere juiamendua haragidun orenen gainera, eta Jaunak herrautsiren dituenak murruka izanen dire.

17. Sainduetsi nahi zirenak eta baratze barnetan athe-gibeian beren burua xahu uste zutenak, urdekia, gauza lohia eta arratoinkia jaten zituztelarik batean izanen dira xahutuak, dio Jaunak.

18. Ni ordean heldu naiz hekien egintza eta gogoeten ondoan; bilduko ditut lekhu guzietako eta mintzaia guzietako jendakiekin, eta ethorriko dire eta ikhusiko dute ene ospea.

19. Hekien erdian ezarriko dut ezagutkari bat; era hekietarik salbatuak ditazkeenak igorriko ditut itsasoa barna jendaietara, Afrikara, eta Lidiara, arranbela hedatzen dutenetara; Italiara eta Greziara, urrungo irl-etara, nitaz aditu eta ene ospea ikhusi ez dutenetara; eta jendaei ezagutaraziko diote ene ospea.



20. Eta jendaki guzietarik Jaunari emaitzetan erakharriren diozkate zuen anaia guziak zalditan, orga-lasterretan, soin-karrosetan, mandotan eta orgetan, Jerusalemeko ene mendi saildura, dio Jaunak, hala-nola Israelgo umeek untzi xahuan emaitza bat ekhartzen balute Jaunaren etxera.

21. Eta hekietarik hartuko ditut, dio Jaunak, aphezizat eta lebitar orde.

22. Ezen nola nik egin zeru berriak eta lur berria ene aitzinean egonen baitire bethi, dio Jaunak; hala egonen dire zuen ganikako iraulgia eta zuen izena.

23. Eta hilabethetik hilabethera, eta larunbatetik larunbatera izanen da, haragidun guziak ethorriko direla ene aitzinera ene adoratzera, dio Jaunak.

24. Eta ilkhiko dire eta hilak ikhusiko dituzte ene legea hautsi duten gizonak: hekien harra ez da hilen eta hekien sua ez da iraungiko, eta izanen dire bizi diren guzien hekien izigarri.

## JEREMIASEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Jeremiasen hitzak, Helziasen semearenak, Helzias baitzen Anathothen, Benjamingo lurrean egonen ziren aphezetarik.

2. Jaunaren hitza ethorri zitzaioen Josiasen, Amon, Judako erregeren semearen egunetan, hamahirugarren urthean errege zelarik.

3. Eta ethorri zitzaioen Judako errege Josiasen seme Joakinen egunetan, Sedeziasen hamekagarren urtheako ondarreraino, (Sedezias baitzen Judako errege Josiasen semea.) Jerusalemgo desherripeneraino, bortzgarren hilabethean.

4. Eta Jaunak egin zarodan solas, zioelarik:

5. Zure amaren sabelean egin zintzadan baino lehen, ezagutzen zintzudan; eta sabeletik ilkhi zaren baino lehen, sailduetsi zaitut eta profetatut eman jendaien artean.

6. Eta ihardetsi nuen: Ai! ai! ai! Jainko Jauna! Huna, ez dakit mintzaten, ezen haur gazte bat naiz oraino.

7. Eta Jaunak erran zarodan: Ez erran: Haur bat naiz; goanen zare ezen nik igorriko zaitudan toki guzietara; eta edozein gauza mana dezazudan, guziak erranen ditutzu.

8. Ez izan gizonen aitzinean beldur, zeren zurekin baino zure atheratzeko, dio Jaunak.

9. Eta Jaunak hedatu zuen eskua eta ukitu zuen ene ahoa; eta erran zuen Jaunak: Huna non eman ditudan ene hitzak zure ahoan;

10. Huna non ezarri zaitudan egun jendakien gainean eta erresumen gainean, errotik atheratzeko eta xahutzeko, galtzeko eta ezeztatzeko, altxatzeko eta landatzeko.

11. Eta Jauna mintzatu zitzaitan, zioelarik: Zer ikhusten duzu, Jeremias? Eta ihardetsi nuen: Atzarria dagoen zigor bat ikhusten dut.

12. Eta Jaunak erran zarodan: Ongi ikhusten duzu, ezen ni ene hitzaren gainean egonen naiz atzarria, haren bethetzeko.

13. Eta Jauna bigarren aldiko mintzatu zitzaitan, zioelarik: Zer ikhusten duzu? Eta ihardetsi nuen: Bertz bat ikhusten dut sutan, eta ipharretik dago itzulia.

14. Eta Jaunak erran zarodan: Ipharretik jauziko dira asturugaitzak lurreko egoiliar guzien gainera.



15. Ezen, dio Jaunak, huna non deitzera nohan ipharreko erresumetako jendaki guziak; eta ethorriko dire, eta ezarriren dute zeinek bere tronua Jerusalemeko athe-sartzeetan, eta hango harrasi guzien gainean inguru-inguru, eta Judako hiri guzietan.

16. Eta atheraturen ditut hekiekin ene juiamenduak, ni utzi, jainko arrotzei sakrifikatu eta beren eskuetako lana adoratu duten guzien maltzurkeriaren kontra.

17. Zuk beraz tinka zazu gerria, jaiki zaita eta erran diotzotzuet nik manatzen darozkitzudan guziak. Ez lotsa izan hekien aitzinera agertzeko, ezen nik eginen dut ez duzula hekien aitzinean beldurrik izanen.

18. Alabainan ezarri zaitut egun hiri hazkar bat bezala, burdinazko habe bat bezala, kobrezko harrasi bat bezala, lur guziaren gainean, Judako erregeen kontra, hango buruzagien eta lur hartako aphez eta populuaren kontra.

19. Eta zure kontra eginen dute gudu, eta ez dire nausituren; zeren zurekin bainaiz, dio Jaunak, zure libratzeko.

## II. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza atheratu zitzaitan, zioelarik:

2. Zoaz eta Jerusalemeko beharrietara oihu egiozu, erranez: Hau dio Jaunak: Orhoitu naiz zutaz, urrikalduz zure gaztetasunari eta zure ezkontzako amodioari, mortua barna, eraina etzen lurra gaindi niri jarraikitzen zinen or-duan.

3. Israel Jaunari saildu zitzaioen; hura zen haren fruituetako pikaina; hobendun jartzen dira hura iresten duten guziak; asturugaitzak eroriko dira hekien gainera, dio Jaunak.

4. Jakoben etxea, eta Israelen etxetikako ahaidego guziek adi zazue Jaunaren hitza.

5. Hau dio Jaunak: Zer bidegabekeria aurkhitu dute zuen arbasoek ene baitan, ene ganik urrundu baitira eta hutsalkeriaren ondotik ibili eta hutsal bilhakatu?

6. Eta ez dute erran: Non da Jauna, Egiptoko lurretik iganarazi gaituena, bidatu gaituena mortua gaindi, nihor ezin-egonezko eta ibilkizun ez den lurra barna, lur agor eta heriotzea iduri duenaren erditik, gizona ibili eta egon ez den lurra gaindi?

7. Eta erakharri zaituztet Karmel lur batera, jan zinetzaten hango fruitak eta goza hango onak; eta sarthu ondoan, khutsatu duzue ene lurra, eta hatsgarrikeria bat egin duzue ene primantzaz.

8. Aphezek ez dute erran: Non da Jauna? eta legezaiek ez naute eza-gutu; eta artzainek hautsi dute ene legea; eta profetek Baalen izenean profetisatu dute, eta idolei jarraiki dira.

9. Hargatik sarthuren naiz oraino zuekin juiamendutan, dio Jaunak, eta jazarriren dut zuen umeen kontra.

10. Zoazte Zethingo irletara eta ikhusazue; igorrazue Zedarrera; eta zorrozki begira zazue eta ikhusazue, hean gerthatu den han holakorik;

11. Hean populuak aldatu dituen bere jainkoak; eta-bada ez dira segurki hekiek jainko. Aldiz ene populuak bere ospea aldatu du idolarentzat.

12. Zeruak, harri zaitzete hortaz; zeruko atheak, minki deithora zazue, dio Jaunak.

13. Ezen bi gaizki egin ditu ene populuak; ni, ur biziaren ithurria, utzi nau bazterrerat, eta lurra zilhatu ditu urtegiak, urtegi hirrikatuak, urik ezin iduk dezaketanak.

14. Israel gathibua ala gathibu semea othe da? Zergatik da beraz harrapariaren puska bilhakatua?

15. Lehoinek orroaz jazarri diote eta marrumaka abiatu zaizko; lurra mortu eragin dute; erreka dira hango hiriak eta nihor ez da hekietan egoten.

16. Menphistar eta Taphnestar umeek ere izurritzatu zaituzte burukaskoraino.

17. Hori ez othe zaitzu gerthatu, bazterrerat utzi duzulakotz zure Jainko Jauna, noiz-eta-ere berak bidatzen baitzintuen bidean?

18. Eta orai zer nahi duzu Egiptoko bidetik, ur zikhin edatera goateko? eta zer duzu Asiriarren bidearekin, hango ibaiako uretik edatera goateko?

19. Zure maltzurkeriak jazarriren darotzu eta zure gibelteak erantzunen darotzu. Jakin zazu eta ikhus zeinen den gaizki eta uher zure Jainko Jauna bazterrerat utzi izatea, eta ene beldurra gehiago zure baitan ez izatea, dio armadetako Jainko Jaunak.

20. Hastetik phorroskatu duzu ene uztarria, hautsi ditu, zu ene lokharriak eta erran duzu: Ez dut zerbitzaturen. Ezen, munho gora guzien gainean, zuhaitz hostotsu guzien azpian etzaten zinen, lilitxoak.

21. Nik aldiz landatu zintudan mahasti hauta bat bezala, guzia landare onez. Nola beraz aldatu zaizkit tzarrera, oi mahasti arrotza?

22. Garbi bazindedi ere gatzuarekin eta borith belharrez bethe, zure bekatuetan nothatua geldi zintazke ene aitzinean, dio Jainko Jaunak.



23. Nolaz diozu: Ez naiz lohitua, ez naiz Baalen ondotik ibili? Ikhusatzu zure urhatsak haranean; jakizu zer egin duzun, lasterkari arina, bide zaphatzen zabiltzana.

24. Mortuan lakhet den basastoa, bere barneko zalekerian; giriaren usainak bildu du; nihork ez du makhurraziko; atzeman nahi dutenek ez dute hutseginen; bere hilabetheetako mugan atzemanen dute.

25. Begira zazu zure oina buluztasunetik, eta zure zintzurra egarririk. Eta erran duzu: Etsitu dut; ez dut egonen; alabainan arrotzak ditut mait-hatu, eta hekien ondotik naiz ibiliren.

26. Nola ahalkatzen baita ohoina, atzemanan denean, hala ahalketara erori dira Israelen etxea, bera eta bere errege, aphez eta profetak,

27. Zurari erranik: Hi haiz ene aita; eta harriari: Hik eman darotan bizia. Itzuli zaizkit gibelaz, eta ez aitzinaz; eta beren hesturako orduan erranen dute: Jaiki zaitte, eta libra gaitzatu.

28. Non dira zure jainko, zuretzat egin izan ditutzun hekiek? Jaiki beitez, eta zure hesturako orduan libra bezaitzate; ezen, oi Juda, zenbat baitziren zure hiriak, hanbat ziren zure jainkoak.

29. Zer nahi duzu enekin juiamendutan sarthurik? Orok utzi nauzue, dio Jaunak.

30. Alferretan jo ditut zuen haurrak, kridantza ez dute hartu; zuen ezpatak iretsi ditu zuen profetak, lehoin xahutzaille bat bezala da

31. Zuen ganikako iraulgia. Adi zazue Jaunaren hitza: Israelentzat bilhakatu othe naiz mortu bat, edo lur berantiar bat? Zergatik erran du beraz ene populuak: Gibelerat egin dugu, ez gare gehiago zure ganat ethorriko?

32. Neskaxa batek ahantziko othe du bere aphaindura, edo andre espos batek bere lephokoa? Ene populuak, bada, ahantzi nau khonda ezin ditakeen bezenbat egunez.

33. Zertan zabilta zure bidea ona erakhutsi beharrez, ene onhirizkora heldu nahiz, noiz-eta-ere zure tzarkerien gaineko, zure bide gaixtoen irakhasten haritu baitzare,

34. Eta zure petrailetan aurkhitu baita arima behar eta hobengabeen odola? Ez ditut hekiek atzeman zilhoetan luphean, bainan lehenago aip-hatu ditudan toki guzietan.

35. Eta erran duzu: Bekhaturik gabe eta garbi naiz, eta horren gatik zure hasarrea aldara bedi ni ganik. Huna non juiamendutan sartzera nohan zurekin, erran duzulakotz: Ez dut bekhatu egin.

36. Zeinen egin zaren erdeinagarri, zure bideetara itzuliz! Egiptotik atheratuko duzu hanbat ahalke, nola atheratu baituzu Asurretik;

37. Ezen handik ere ilkhiko zare, eta eskuak buruaren gainean izanen ditut; zeren Jaunak hautsiko baitu zure sinhestea duen habe, eta har-tarik ez baituzu deus onik izanen.

### III. KAP.

1. Erraten ohi da: Gizon batek uzten badu bere emaztea, eta hau, haren ganik urrundurik, ezkontzen bada bertze batekin; lehenbiziko sen-harra itzuliko othe da andre haren gana? emazteki hura ez othe da khutsatua eta lizundua? eta zu, lohitu zare zure asko galaiekin: bihur zaite halere ene gana, dio Jaunak, eta nik onhetsiren zaitut.

2. Altxa zatzu begiak goiti, eta ikhusazu hean non den tokia zeintan ez baituzu zure burua lohitu: bide-bazterretan jartzen ziren, galaien begira, ohoina mortuan bezala; eta lurra lohitu duzu zure lizunkeria eta maltzurkeriez.

3. Horren gatik debekatuak izan dire uri gozoak, eta udazkeneko uria ez da izatu: emazte lilitxoaren kopeta egin zaitzu, ez duzu nahi izan gorritu.

4. Orai bederen dei egin dizadazu erranez: Ene aita, garbi nintzanean bidatu nauzuna zu zare:

5. Samur egonen othe zare bethi, edo azkeneraino iraunen othe du zure hasarreak? Hola mintzatu, eta gaizki egiten haritu zare, eta egin duzu ahal bezenbat.

6. Eta Jaunak erran zarodan Josias erregearen egunetan: Ez duzu ikhusi zer egin duen Israel bihurriak? Goan da mendi gora guzietara eta zuhaitz hostotsu guzien azpira, eta han lohikeriari eman du bere burua.

7. Eta horiek guziak egin dituen ondoan, erran izan diot: Itzul zaitte ene gana. Eta ez da itzuli.

8. Eta horren ahizpa Juda lege-hausleak ikhusi du, Israel bihurria utzi nuela, bertzeekin khutsatu zelakotz; eta eman nioela uzteko ageria; eta haren ahizpa Juda lege-hauslea ez da lotsatu, bainan goan da, eta bera ere lohitu.

9. Eta lohikeriarako bere lerrakortasunaz likhistu du lurra, eta khutsatu da harriarekin eta zurarekin.

10. Eta horietan orotan haren ahizpa Juda lege-hauslea ez da ene ganat itzuli bere bihotz guziaz, bainan alegiaka, dio Jaunak.

11. Eta Jaunak erran zarodan: Israel bihurriak garbi egiten du, Juda lege-hauslearen aldean.

12. Zoaz eta solas haukiek oiuhu egizkitzu ipharralderat, eta errazu: Itzul zaitte, Israel bihurria, dio Jaunak, eta ez dut zuen ganik aldaraturen



ene begithartea; zeren saindu bainaiz, dio Jaunak, eta ez naiz bethi hasarre egonen.

13. Bainan ezagutazu zure gaizkia, ezen hautsi duzu zure Jainko Jaunaren legea; eta zure urhatsak jainko arrotzetara barraiatu ditutzu, zuhaitz hostotsu guzien azpian, eta ez duzu entzun ene mintzoa, dio Jaunak.

14. Itzul zaitetze, itzul, ene haurrak, dio Jaunak, zeren ni izanen bainaiz zuen senhar; eta hartuko zaituztet bat hiri batetik eta bia ahaidego batetik, eta sarraraziko zaituztet Sionen.

15. Eta emanen darozkitzuet ene bihotzaren arabera artzainak, eta hekiek haziko zaituztete jakitateaz eta irakhasmenaz.

16. Eta populatuko zaretenean eta lurraren gainean berhatuko egun hekietan, dio Jaunak, ez dute gehiago erranen: Jaunaren batasuneko arkha. Eta etzaitzue gehiago gogorat ethorriko, eta etzarete hartaz orhokutuko; eta nihor ez da haren ikhustera ethorriko eta ez da gehiago izanen.

17. Orduan Jerusaleme deithuren dute Jaunaren tronua, eta harat bilduren dira jendaki guziak Jaunaren izenera Jerulalemen, eta ez dira ibiliren haren bihotz galduko tzarkerien ondotik.

18. Egunduekietan Judako etxea hurbilduren zaio Israelgo etxeari, eta biak batean ethorriren dire ipharraldetik, nik zuen arbasoei emanikako lurrera.

19. Aldiz nik erran dut: Nola ezarriren zaitut ene umeen artean, eta emanen darotzut lur lehiagarria, jendaietako armaden primantza ederra? Eta erran dut: Deithuko nauzu aita, eta ene ondotik ibiltzetik etzare baratuko.

20. Bainan emazteki batek erdeina baleza bere maithatzailea, hala arbuiatu nau Israelgo etxeak, dio Jaunak.

21. Marraska bat entzun da bideetan, Israelgo umeen nigar eta orrobiak; zeren tzartu duten beren bidea, eta ahantzi beren Jainko Jauna.

22. Itzul zaitetze, haurrak, itzul, eta nik ezeztaturen ditut zuen gaizkiak. Huna non heldu garen zure gana; zu zare alabainan gure Jainko Jauna.

23. Egiatzki gezurtiak ziren munho eta mendi guziak; egiatzki gure Jainko Jauna baithan da Israelen salbamendua.

24. Gure hurtasunetik, ahalkagarrikeria batek iretzi ditu gure aiten lanak, hekien ardiak eta abereak, hekien seme-alabak.

25. Gure ahalkagarritasunean lo eginen dugu, eta gure laidoak estaliren gaitu; zeren gure Jainko Jaunaren kontra egin baitugu bekhatu, guk eta

gure arbasoek, gure hurtasunetik eta egun hau arteo; eta ez baitugu entzun gure Jainko Jaunaren mintzoa.

#### IV. KAP.

1. Itzultzen bazare, Israel, dio Jaunak, bihur zaite ene ganat; ene aitzinetik khentzen badituztu zure behaztopagailuak, etzare khordokaturen.

2. Eta egian, zuzentasunean eta zuzenbidean zin eginen duzu erranez: Bizi bedi Jauna! Eta jendaiek hura benedikaturen eta laudaturen dute.

3. Ezen Jaunak hau dio Judako eta Jerusalemeko gizonei: Lant zazue lur berri bat zuentzat, eta ez erain elhorrien gainera.

4. Jaunaren ingurephaitzaz ingurebak zaitetzete; bihotza ingurebakazue, Judako gizonak, eta Jerusalemeko egoiliarak; beldurrez-eta su bat iduri jauz eta khalda dadien ene gaitzidura, zuen asmuetakoko maltzurkeria gatik, eta nihor ez dadien izan haren hiltzeko.

5. Berriz heda zazue Judan eta adiaraz zazue Jerusalemen; mintza zaitetze eta bazterretan durrundaraz zazue turuta; oihu egizue hazkarki eta errazue: Bil zaitetze, hiri hazkartuetara sar gaiten.

6. Bandera altxa zazue Sionen; egizue indar, ez trika, zeren ipharretik erakhartzen baititut gaitza eta xahupen handia.

7. Bere etzan-lekhitik igan da lehoina, eta jaiki da jendakien larrutzailea; ilkhi da bere tokitik, zure lurraren mortu egiteko; xahutuak izanen dira zure hiriak, eta nihor gabe geldituko dira.

8. Hargatik jauntzatzue zurdatzak, deithore eta orrobria egizue; zeren Jaunaren hasarrearen irakidura ez baita gure gainetik aldaratua.

9. Eta izanen da egunduekietan hartan, dio Jaunak, urthuko direla erregeren bihotza Eta aitzindarien bihotza; aphezak harrituak eta profetak lurrerat eroriak geldituko direla.

10. Eta erran dut: Ai! ai! ai! Jainko Jauna Populu hau eta Jerusaleme enganatu othe ditutzu bada erranez: Bakea izanen duzue; eta huna arimaino heltzen hari dela ezpata?

11. Ordu hartan erranen diote populu humi eta Jerusalemeri: Haize erregarri batek jotzen du bideetan, ene populuko alabaren bideko mortuan direnetan, ez haizeztatzeko eta bihiaren garbitzeko.

12. Phesia gaitza handik heldu zait ene etsaien kontra; orai xurituko ditut ene erabakiak hekiekin.

13. Huna non populu bat heldu den hedoiak iduri, haren orga-lasterak phesia bezala dira, haren zaldiak arranoak baino zalhuago. Zorigaitz guri, xahutuak baikare



14. Oi Jerusaleme, salbatua izateko, maltzurkeriatik garbi zazu zure bihotza: noiz arteo gogoeta galgarriak egonen dira zure bihotzean?
15. Ezen huna Danetik berriak ekhartzen dituenaren mintzoa, eta Efraimgo menditik idolarenak ezagutarazten dituenarena.
16. Jendaiei errozute: Huna Jerusalemen entzun dela urrungo lurretik zainak heldu direla eta beren oihuak adiarazten dituztela Judako hirietan.
17. Landazainek bezala inguratua dadukate Jerusaleme, zeren hasarretzera tarritatu bainau, dio Jaunak.
18. Zure egitateek eta asmuek ekharri darozte hori; horra zure maltzurkeriaren ondoreak, zeren uherra baita hura, zeren jo baitu zure bihotza.
19. Barnetik, barnetik minez nago; ene bihotza nahasia da ene baitan, ez naiz ixilduko, zeren ene arimak aditu baititu turutaren durrunda eta guduko oihua.
20. Xahutzea xahutzearen gainera deithua izan da; desmasian ezarria da lurra oro; une etxolak terrepentean, ene larru-olhak bat-batean xahutuak izan dira.
21. Noiz arteo ikhusiren dut jendea ihes? adituren dut turutaren durrunda?
22. Horiek oro, ene populu zoroak ez nauelakotz ezagutu; ume adimendugabeak eta erroak dira; gaizkiaren egiteko jakintsun dira, aldiz ongiaren egiten ez dakite.
23. Begiratu dut lurrera, eta hara hutsa eta ezdeustua zela; begiratu dut zeruetara, eta argi bat etzen han ere.
24. Ikhusi ditut mendiak, eta khordokan zabiltzan; eta munho guziak ikharatuak dira.
25. Begia eman dut, eta nihon etzen gizon bat; eta hegastin guziak norapait egin zuten.
26. Begiratu dut, eta hara Karmela mortu egina, eta hango hiri guziak xuhutuak Jaunaren begithartearen aitzinean eta haren hasarrearen irakidurako hatsaz.
27. Ezen hau dio Jaunak: Lurra oro mortu izanen da; ez dut hargatik xahutze oso bat egingen.
28. Lurra nigarrez eta zeruak gainetik atsekabez egonen dira, nik erran dudana gatik; gogo hori hartu dut, eta etzait urrikitu, eta ez naiz hortarik aldaratu.
29. Zaldizkoaren eta gezi-igorlearen oihura ihez dihoa hiri guzia; leze gaitzetara sartzen dira, harkadietara igaiten; hiri guziak utziak dira, eta gizon bat ez da hekietan dagoenik.

30. Eta zu, Siongo alaba xahutua, zer hariko zare? Eskarlatazko soinak jauntz bazinetza ere, har urhezko edergailuak, eta antimonioz tinda zure bethondoak, alferretan aphaint zintazke; erdeinatu zaituzte zure galaiek, zure biziaren ondotik dabilta.

31. Ezen aditu ditut kuintak erditzen hari denarenak iduri, haurminetan denaren bezalako hesturak; Siongo alabaren mintzoa; hiltzen hari delarik eta besoak hedatuz erraten du: Zorigaitz niri, arimak egiten baitarot hiltzeketa haukien gatik!

## V. KAP.

1. Ingura zatzue Jerusalemeko karrikak; begira zazue, ikhusatzue bazterrak, bilha zaitzte horgo plazetan, hean aurkhituren duzuen gizon bat zuzenari bere bidea ematen dioena, zintasanari darraiona, eta hiriar barkhaturen diot.

2. Eta balira ere erraten dutenak: Ala Jauna! Zin hori halaber gezurka egin lezakete.

3. Zure begiak, Jauna, zintasanari begiratzen dire; jo dituzu, eta ez dute minik erakhutsi; xehakatu dituzu, eta gaztigua ez dute nahi izan onhetsi; harria bezala gogortu dituzte beharrak, eta ez dute nahi izan bihurtu.

4. Nik, berriz, erran dut: Erromesak dira beharbada eta zoroak, Jaunaren bidea eta beren Jainkoaren legea ez dakitenak.

5. Goanen naiz beraz handietara, eta mintzatuko natzaiote; hekiek ezen ezagutzen dituzte Jaunaren bidea eta beren Jainkoaren legea. Eta huna hekiek oraino hobeki batean hautsi dutela uztarria eta trenkatu lokharriak.

6. Horren gatik lehoinak oihanetik sarraskituren ditu, otsoak ilhuntean xahuturen ditu, lehoinabarra erne egonen da hekien hirien gainera; handik ilkhiko den guzia, harrapatua izanen da; zeren murrukatu baitire hekien lege-haustekak, eta gogortu baitire makhurrean.

7. Zertaz eztituko ahal natzaitzu? Zure semeek bazterrera naute, eta jainko ez direnez zin egiten dute; ase ditut eta bertzeen emazteekin khutsatu dire, eta lilitxoaren etxean lohikerian ibili.

8. Zaldi berotuak eta garainoak iduri bilhakatu dire; bakhotxa bere lagunaren emazteari irrintzinaz dago.

9. Tzarkeria horiek ikhartu gabe utziko othe ditut, dio Jaunak; eta holako jendakitik ez othe du ene arimak asperkunde atheratuko?





10. Igan zaitezte horren harrasien gainera eta urra zatzue; etzazuela hargatik arras xahu; errotik athera zatzue horren ganikako gandoak, zeren ez baitire Jaunarenak.

11. Alabainan Israelgo etxeak eta Judakoak gaixtoki hautsi dute ene legea, dio Jaunak.

12. Ukhatu dute Jauna, eta erran dute: Ez da Jainkoa, eta etzaiku asturugaitzik ethorriren; ez ditugu ikhusiren ezpata eta gosetea.

13. Airera mintzatu dire profetak, eta etzen hekietan Jainkoaren hitza. Hau gerthaturen zaiote beraz.

14. Hau dio armadetako Jainko Jaunak: Hitz hori atheratu duzuelakotz, huna non nik ere suzko ematen ditudan zure ahoan ene hitzak, eta populu hori ezartzen dut egur eta suak erreko du.

15. Huna non, Israelgo etxea, urrundaniak erakharriren dudan zuen gainera, jendaki bat, jendaki hazkar, jendaki zahar, jendaki bat, zeinaren mintzaia ez baituzu jakinen, eta ez baituzu adituko zer erraten duen, dio Jaunak.

16. Haren gezi-untzia hobi zabaldu bat bezala izanen da; haren gerlariak oro hazkarrak izanen dire.

17. Eta janen ditu zure bihiak eta zure ogia; iretsiko ditu zure semeek eta alabak; janen ditu zure ardiak eta idiak, zure mahatsak eta pikoak; eta ezpatarekin herrautsiko ditu zure hiri hazkarrak, zeinetan baitzinadukan zure sinhestea.

18. Halarik-ere, dio Jaunak, egun hekietan etzaitzuet alde bat xahuturen.

19. Erran balezate: Zertako gare Jainko Jaunak egin darozkigu haukiek guziak? ihardetsiren diozute: Nola bazterrerat utzi bainazue eta zuen lurrean zerbitzatu baituzue jainko arrotza, hala zerbitzaturen dituzte arrotzak zuena ez den lurrean.

20. Berri hau eramazue Jakob en etxeari, eta adiaraz zazue Judaren etxeari, erraten duzelarik:

21. Adi zak, populu zoro, bihotzik ez dukana; begiak izaki, eta ikhusiten, beharriak izaki, eta aditzen ez dukana.

22. Ez othe zarete bada ene beldur izanen, dio Jaunak; eta ez othe zarete lotsatuko ene aitzinean? Nik itsasoari eman diot legarra mugarri, bethikotzat lege hautsiko ez duena; eta tirainak jokhatuko dire eta ezin gaidituko dute; hantuko dire, bainan ez dute iraganen.

23. Populu horri ordean bihotz bat egin zaio sinhetsgogor eta bihurria; gibelerat egin dute eta goan dire.

24. Eta ez dute beren baitan erran: Beldur izan gaitezen gure Jainko Jaunarentzat, zeinak ematen baitaroku goizaroko eta berantaroko uria bere ordutan, zeinak urtheko usten nasaizia ematen baitu.

25. Zuen gaixtakeriek irakhurraziti dituzte horiek; eta zuen bekhatuek debekatu dute ongia zuen ganik;

26. Zeren ene populu khausitu baitire gaixtaginak xoriketariak bezala zelatan egoten direnak, arteak eta segadak hedatzen dituztenak gizonen atzemateko.

27. Sarea xoriz bethea den bezala, hekien etxeak betheak dire jokotriaka bildu gauzez; horreletan handi eta aberats egin dire.

28. Gizenduak eta gorituak dire gaixtoki bazterrerat ematen dituzte ene erranak; ez dute juiatu alhargunaren zuzenaren alde, ez dute umezur-tzaren zuzena bide onean bidatu, beharrei ez diote justizia bihurtu.

29. Gaixtakeria horiek ez othe ditut ikharturen, dio Jaunak, ala ene arima holako jendakiaren gainean aspertu gabe egonen da?

30. Harritzeko eta balditzeko gauzak egin dire lurraren gainean.

31. Profetek gezurrez profetisatzen zuten, eta aphezek eskuak jotzen zituzten, eta ene populuak holako gauzak ditu maithatu: zer gerthatuko zaio bada azkenean?

## VI. KAP.

1. Egizue bihotzez, Benjaminen umeak, Jerusalem en erdian; Thekuan durrundaraz zazue turuta, eta Bethakaremen gainean altxa zazue bandera; zeren ipharretik agertu baitira gaitz eta sarraski handiak.

2. Siongo alaba andre eder eta samur baten erkhide egin dut.

3. Haren gana ethorriren dira artzainak eta hekien arthaldeak; haren inguruan landatu dituzte olhak; baxhotxak manaturen ditu eskupean dituzkeenak.

4. Gerla sainduetsazue haren kontra; jaiki, igan gaitezen eguerdi bethean zorigaitz guri, zeren behehitu baita eguna, luzatu baitira arratseko itzalak.

5. Jaiki, izan gaitezen gabaz eta urra detzagun horgo etxeak;

6. Zeren hau baitio armadetako Jaunak: Ebakatzue haren oihanak eta trantxadaz ingura zazue Jerusalem en hori da ene asperkundeko hiria, zernahi gaixtakeria bada horren erdian.

7. Nola urtegiak hotzarazten baitu bere ura, hala Jerusalem en hoztasunean egiten du maltzurkeria; hor ez da gaixtakeriarik eta harrapakariarik baizik aditzen; hortik ukhaldi eta sarraski berriak ene aitzinera igaiten dira bethi.



8. Argi zaitezi, oi Jerusalem, beldurrez-eta zutaz egin dezadan mortu eta nihor ezin-egonezko toki bat.

9. Huna zer dioen armadetako Jaunak: Israelgo ondarrak hartuak izanen dira, hala-nola mahasti batean biltzen baita azken molkhoraino; mahats-biltzaileak saskira bezala, itzul zazu eskua.

10. Nori mintzaturen naiz? nor errekeituren dut adi nezan? Horra horien beharriak ingurebakigabeak direla, eta ezin dezakete adi; horra laidakizun egin zaiotela Jaunaren hitza, eta ez dute onhesten.

11. Horren gatik Jaunaren ariazko suminduraz bethea naiz; lan izan dut jasaiten; ixur zazu zure hasarrea haurren gainera karriketan eta batean gazte-multzoen gainera; ezen senharra emaztearekin hartua izanen da, zaharra zaharkituarekin.

12. Horien etxe, landa eta emazteak orobat bertze batzuen eskuetara goanen dira; zeren ene besoa lurreko egoiliarren gainera hedaturen baitut, dio Jaunak;

13. Ezen ttipienetik handieneraino, oro jaramankeriari emanak dira; eta profetatik aphezerraino, guziak zimarkhu egiten hari dira.

14. Eta beren laidotara gozutzen zuten ene populuko alabaren asaldua, erranez: Bakea, bakea. Eta bakerik etzen.

15. Ahalkearen azpian dira, hatsgarrikeria egin dutelakotz; edo hobeki errateko ahalkeak berak ez ditu ahalkatu, eta gorritzen ez dakite; horren gatik erortzen direnekin lurra joko dute, azurrialdiko egunean eroriko dira, dio Jaunak.

16. Hau dio Jaunak: Zaudetze bideen gainean; ikhusazue, eta galda zazue bidexka zaharrez, zein den bide ona, eta hartarik ibil zaitetzte, eta zuen arimentzat aurkhituren duzue phausua. Eta ihardetsi dute: Ez gare ibiliko.

17. Atalariak ezarri ditut zuen zain. Adi zazue turutaren otsa. Ez ihardetsi dute: Ez dugu adituko.

18. Horren gatik, adi zazue, jendaiak; ezagutazu, baldarna, zenbatekoak eginen diozkatedan.

19. Adi zak, lurra: Huna nik populu horren gainera erakharriren ditudan gaitzak, horren asmuen fruituak; zeren ez dituzten entzun ene hitzak eta hastandu duten ene legea.

20. Zertako ekhartzen daroztatzue Sabako isentsua eta urrungo lurretik khanabera usain gozokoa? Zuen holokaustak ez dira onhetsiak, eta zuen bitimik ez dira ene gogarako.

21. Aria hortaz, hau dio Jaunak: Xahupena igorriren dut populu horren gainera; burhasoak eroriko dira umeekin batean; hauzo eta hurko, guziak galduko dira.

22. Hau dio Jaunak: Hara non ipharreko lurretik ethorriko den populu bat; eta jendaia handi bat jaikiko da lurraren burutik.

23. Gezia eta ezpata hartuko ditu; odolkoia da eta urrikaltzen ez dena; haren bozak burrunba eginen du itsasoak bezala; iganen dira zaldietara, hala-nola gudurako aphaindu den gizona, zure kontra, Siongo alaba.

24. Aditu dugu haren omena eta gure eskuak ilhaunduak dira; hesturak eta oinhazeek hartu gaituzte, erditzen hari dena bezala.

25. Ez ilkhi landetara, ez jo bideari, zeren etsaiaren ezpatak bazterrak ikharan baitaduzkitza.

26. Ene populuko alaba, zurdatzu jauntzazu, hautsez estal zaitze; egizu nigar, deithore min, seme bakharrarentzat bezala; zeren terrepentean ethorriko baita xahutzailea gure gainera.

27. Frogatzaile hazkar zaitut ene populua gainean ezarri; eta jakinen eta frogaturen duzu horien bidea.

28. Aitzindari horiek orok makhurrera egin dute, zimarkhuz zimarkhu dabilta; kobre eta burdina dira; guziak galdu-zabartuak dira.

29. Hauskoa ethendu da, beruna suan iraungitu; urtzailea alferretan haritu da urtzen; ezen horien maltzurkeriak ez dira iraungitu.

30. Deith zatzu zilhar aizuna, zeren irazi baititu Jaunak.

## VII. KAP.

1. Jauna mintzatu zitzaioen Jeremiasi, zioelarik:

2. Zaude Jaunaren etxeko athean, eta han goraki athera zazu solas hau, eta errazu: Adi zazue Jaunaren hitza, Judako gizonak, athe haukiatarik sartzen zaretenak Jaunaren adoratzeko.

3. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: onerat ematzue zuzenbideak eta zuen lehiak, eta zuekin eginen dut ene egoitza lekhu huntan.

4. Ez fida gezurrezko elheetan diozuelarik: Jaunaren tenploa, Jaunaren tenploa, Jaunaren tenploa, da hau.

5. Ezen zuen bideak eta lehiak oneko alderat bidatzen badituzte; gizonaren eta bere lagunaren artean zuzenari bere bidea ematen badiozue;

6. Arrotzari, umezurtzari eta alhargunari ez badiozute bidegaberik egiten; odol hobengabea lekhu huntan ez baduzue ixurtzen, eta jainko arrotzen ondotik ez bazarete zerorren gaitzetan ibiltzen;



7. Ene egoitza zuekin eginen dut lekhu huntan, mendetik mendetako zuen arbasoei eman izan diotedan lurrean.

8. Huna ordean zuek ematen duzuela zuen sinhestea deusere baliatuko etzaizkitzuen elhe gezurrezkoetan:

9. Hari zarete ebasten, hiltzen, bertzeen emasteekin lohitzen, gezurrez zin egiten, Baali libazione egiten, eta jainko arrotz ezagutu ez dituzuenen ondotik zabiltzate.

10. Eta ethorri eta ene aitzinean jarri zarete etxe huntan, zeintan deitua izan baita ene izena; eta erran duzue: Salbatuak gare, tzarkeria horiek oro egin ditugun arren.

11. Ohoin zilho bat bilhakatua othe da bada etxe hori, zeintan deitua izan baita ene izena zuen aitzinean? Ni naiz, ni; nik ikhusi zaituztet, dio Jaunak.

12. Zoazte Silora, ene lekhura, ene izena hastetik egotu den tokira; eta ikhusazue zer egin diodan Israelgo ene popularen maltzurkeriaren ariaz.

13. Eta orai, lan horiek oro egin izan dituzuelako, dio Jaunak, goizetik jaikiz, eta mintzatuz, mintzatu natzaitzue, eta ez duzue entzun; nik deithu, eta ez duzue ihardetsi.

14. Etxe huni, zeintan deithua izan baita ene izena eta zeinaren gainean alhatzen baituzue zuen pheskiza, eta zuei eta zuen arbasoei eman darotzuedan lekhuari eginen diotet Silori egin izan diodana.

15. Eta ene aitzinetik iraziren zaituztet; zuen anaiak oro, Efraim ganikako iraulgi guzia irazi dudan bezala.

16. Zuk beraz ez egin othoitzik populu horren alde; horientzat ez erabil aheriarik ez-eta errekeirik; eta ez egin niri zeiherrik, zeren ez baitzaitut entzunen.

17. Ez othe duzu ikhusten zer egiten duten horiek Judako hirietan eta Jerusalemeko plazetan?

18. Haurrek egurrak biltzen dituzte, aitek sua bizten eta emaztekiek orhatzen dute irina urinarekin, ophilen egiteko zeru ko erreginari, jainko arrotzei sakrifizioen egiteko, eta ni hasarrera deitzeko.

19. Ni samurrazten othe naute? dio Jaunak; ala beren buruak begiharteko ahalkean ezartzen dituzte?

20. Hargatik hau dio Jainko Jaunak: Huna non ene irakidura eta ene gaitzidura su-garretan jartzen diren lekhu horren gainera, gizon, abere, lekhuko zuhaitz eta lurreko fruituen gainera, eta lothuko da sua aita ez da hilen.

21. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Zuen holokaustak ezar zatzue zuen bitimen gainera, aita jan zatzue haragiak;

22. Zeren ez baitut zuen arbasoekin holokaustez eta bitimez iharduki eta ez baitiozkatet manatu, Egiptoko lurretik erakharri ditudan egunean.

23. Baina hau da nik manatu diotedan gauza, niolarik: Entzun zazue ene hitza, eta ni izanen naiz zuen Jainkoa, eta zuek izanen zarete ene populu; eta ongi athera zaitezentzat, nik manatu bide guzietarik ibil zaitezte.

24. Eta ez dute entzun, aita ez dute beharria eman, bainau goan dira beren oldeetara, eta beren bihotz makhurreko tzarkerietara; gibelatu dira, aita ez aitzinatu,

25. Horien arbasoak Egiptoko lurretik ilkhi diren egunetik eta egun hau arteo. Eta zuen gana igorri ditut une zerbitzari profeta guziak, egun oroz, argi-hasteen jaikiz eta igorritz.

26. Eta ez naute entzun, eta ez dute eman beharria; baina burugogortu dira eta beren arbasoek baino tzarkiago egin dute.

27. Eta erranen diozkatzute solas haukiek oro, eta etzaituzte entzunen; deithuko ditutzu, aita ez darotzute ihardetsiko.

28. Eta erranen diozute: Hau da jendakia, bere Jainko Jaunaren mintzoa aditu ez duena, eta irakhasmena onhetsi ez duena; galdu da zintasuna eta haukien ahotik khendua da.

29. Murriz eta arthikazu zure ilea, aita goiti egizu deithore; zeren Jaunak hastandu eta utzi baitu begi hasarrez ikhusten duen iraulgia;

30. Ezen Judako umeek gaizkia egin dute ene begien aitzinean, dio Jaunak; behaztopagailuak ezarri dituzte ene izena deithua izan den etxean, haren lizuntzea gatik.

31. Tophethen, zeina Enomen semeen haranean baita, egin dituzte lekhu gorak, suan erretzeko beren semeak eta alabak, holakorik ez baitut manatu ez-eta ene gogoan iragan.

32. Horren gatik, dio Jaunak, huna non heldu diren egunak, eta ez da gehiago erranen Topheth eta Enomen umeen harana, baina Sarraskiko harana; aita hilak Tophethen ehortziko dituzte, bertze lekhurik ez izanez.

33. Eta populu hortarikako hilikia zeruko hegastinen eta lurreko basabereen bazka izanen, eta ez da izanen hekiek haizatuko dituenik.

34. Eta Judako hirietarik eta Jerusalemeko karriketarik geldiaraziko ditut atseginezko oihuak eta bozkariozko irrintzinak, jaun esposaren kantak eta andre esposarenak; ezen desmasian izanen da lurra.

## VIII. KAP.

1. Eta egun hekietan, dio Jaunak, beren hobietarik arthikiak izanen dire Judako erregeen hezurak, aita hango buruzagienak, eta aphezenak, aita profetenak, eta Jerusalemen egotu direnenak.



2. Eta hedatuko dituzte iguzkira, ilhargira eta zeruko izarrerria guzira, zeinak baitituzte maithatu eta zerbitzatu, zeinen ondotik baitire ibili, zeinak baitituzte bilhatu eta adoratu: eta ez dire bilduak aita ehortziak izanen; ongarri puska bat bezala lurraren gainean egonen dire.

3. Eta iraulgi guziz tzar hortarik gelditu ditazkeenak, oro nik barraiatu ditudan toki guzietan utziak direnak, herioaz hautatuko dire biziak baino lehen, dio armadetako Jaunak.

4. Eta erranen daroezu: Hau dio Jaunak: Erortzen dena ez othe da xutitzen? eta bidetik makhurtu dena ez othe da bihurtzen?

5. Zergatik beraz Jerusalemen populua makhurtu da hain hisia gaixtoan? Gezurrari iratxiki dire eta ez dute itzuli nahi.

6. Begia eman dut, eta eman dut beharria: nihor ez da ona den gauzaz mintzatzen; batek ez du bere bekhatuaz penitentzia egiten, erranez: Zer egin dut? Beren tarrapatari bihurtuak dohazi guziak, oldarrean gudurat egiten duen zaldia iduri.

7. Miruak zeruan ezagutzen du bere muga; usoak, ainharak, zikoinak idukitzen dute beren ethortzeko muga: ene populua ordean ez du eza-gutu Jaunaren erabakia.

8. Nolaz diozue: Zuhurrak gare, eta Jaunaren legea gurekin da? Egiatzki iskribauen esku gezurtiak gezurra iskribatu du.

9. Zuhurrak, ahalkez estaliak, izituak, atzemanak dire; ezen eragotzi dute Jaunaren hitza, eta zuhurtziarik hekien baithan ez da batere.

10. Hargatik emanen ditut bekien emazteak atzei, hekien landak bertze premu batzuei, zeren ttipienetik handieneraino guziak jaramankeriari jarraitzen baitire; profetatik aphezeraingo, oro gezurrez mintzo dire.

11. Eta beren laidotara gozatzen zuten ene populuko alabaren asaldua, erranez: Bakea, bakea; noiz-etare bakerik ez baitzen.

12. Ahalketan dire, tzarkeria egin dutelako; gehiago dena, ahalkeak ez ditu ahalkatu, eta gorritzen ez dakite. Horren gatik erortzen direnen artean eroriko dire, azurrialdiko egunean lurrera goanen dire, dio Jaunak.

13. Oro batera bilduko ditut, dio Jaunak: mahatsik ez da mahastian, pikorik ez da pikodian; hostoa erori da, eta nik eman naroezten guziak goan zaizkote.

14. Zertan gaude jarririk? Bil zaitetze, sar gaiten hiri hazkar batean, eta gauden han ixilik, ezen gure Jainko Jaunak ixilarazi gaitu, eta edatera eman daroku minarekilako ura; alabainan Jaunaren kontra egin dugu bekhatu.

15. Bakea iguriki dugu, eta deus etzen onik; gozoa uste, eta huna ikhara.

16. Danetik entzun da etsaiaren zaldien tarrapata; gudularien marrumek ikharatu du lur guzia; eta ethorri dire, eta iretsi dituzte lurra eta hartan zirenak oro, hiria eta hartako egoiliarak.

17. Ezen igorriko darozkitzuet suge basilikak, zeinen kontra xarmarik ez baita; eta asikiko zaituztete, dio Jaunak.

18. Ez da minik enea bezalakorik; bihotza hirutzen hari zain barnean.

19. Huna urrungo lurretik ene populuko alabaren marraska: Jauna ez othe da Sionen, edo ez othe da Sionen hango errege? Zertako samurraz naute bada beren jainkomolde eta hutsakeria arrotzez?

20. Uztaroa goan, uda akhabatu, eta gu ez gare salbatuak.

21. Ene populuko alabaren oinhazeak oinhazetan naduka; beltzik nago eta izialdurak josia.

22. Galaaden ez othe da sendakaririk, edo sendatzailerik? Zertako bada ene populuko alabaren zauria dago idekirik?

## IX. KAP.

1. Nork ezar ene buruan ura, eta nigarrezko ithurri bat ene begietan, gau eta egun nigarrez banindagoke ene populuko alabaren hilez?

2. Nork eman niri mortuan bideanten etxola bat, utz nintzazke ene herritarrak eta urrun nindaite hekien ganik? Ezen guziak bertzeen emazteekin khutsatuak, lege-hausle bilduma bat dira.

3. Mihia hedatzen dute arranbela bezala, gezurraren eta ez egiaren igortzeko; indar hartu dute lurrera, gaizkitik gaizkira iraganez, eta ez naute ezagutu, dio Jaunak.

4. Batbederak bere burua zain beza bere lagunaren ganik, eta ez bedi fida bere anaia edozeinen baithan; zeren anaia, anaia galdu beharrez baitabila eta adiskidea zimarkhuzko urhatsetan.

5. Bakhotxa bere anaiaz trufatzen da, eta ez du egarik erraten; ezen beren mihiei irakhatsi diote gezurrez mintzatzen; bidegabe egiten bermatu dira.

6. Zimarkhutsuen erdian da zure egoitza, eta beren zimarkhuen ariaz ez naute nahi izan ezagutu, dio Jaunak.

7. Horren gatik, hau dio armadetako Jaunak: Huna labean urthuko eta frogatuko ditudala; ezen bertzerik zer egingen dut ene populuko alabaren ariaz?

8. Hekien mihia, zilhatzen duen gezia da, maulazko solasak ditu; bakea dute ahoan adiskidearekin, eta ixilik zelatak hedatzen diozkate.

9. Horien gainean ez othe naiz ikhartuko? dio Jaunak; ala horrelako jendakiaz ez da aspertuko ene arima?



10. Mendiez nigar-marraskak arthikiren ditut, eta deithoratzen egonen naiz oihanetako lekhu ederrez; zeren erreak baitira, nihor ez baita gehiago handik iragaiten eta ez baitute entzuten jabearen mintzoa; zeruko hegastinetarik aberetaraino, handik oro aldatu eta urrundu dira.

11. Jerusalemez eginen ditut legar-metak eta erainsugeen ohantzeak, eta desmasiari arthikiren diozkat Judako hiriak, nihor ez baita hekietan egonen denik izanen.

12. Zein da gizon zuhurra hau ardiesten duena, eta zeinari adiaraz baitakioke Jaunaren ahoko hitza, bertzeei errateko zeren ariaz den galdua lur hau, eta den errea mortu bat bezala, nihor ez baita gehiago hemen gandi iragaiten?

13. Eta Jaunak erran du: Hori da zeren utzi duten nik eman legea, ez duten entzun ene mintzoa eta ez diren ene manamenduetan ibili;

14. Zeren goan diren beren bihotzeko tzarkeriaren ondotik eta Baalen ondotik, beren aitatarik ikhasi dutenaren arabera.

15. Hargatik hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Huna non populu hori haziko dudan zizari-belharrez, eta min-ura emanen diot edatera.

16. Ez horiek, ez horien arbasoek ezagutu ez dituzten jendaki batzuetan barraiaturen ditut; eta ezpata emanen daroet ondotik, xahutuak izan ditezen arteo.

17. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Begira zazue alde orotara; deith zatzue emazteki deithoratzaileak, eta ethor beitez; jakinak direnetara igorrazue, eta higi beitez.

18. Laster egin bezate eta deithorea gure gainean abia; gure begiek athera betzate nigarrak, eta uharretan urth beitez gure bethazalak;

19. Zeren oi hu min bat entzun baita Siondik: Nola erori gare desmasa eta ahalke gaitzaren azpira, utzi baitugu gure lurra eta eragotziak baitira gure olhak?

20. Emaztekiak, adi zazue beraz Jaunaren hitza, eta zuen beharriek ardiets bezate haren ahoko solasa; eta irakhatsozue zuen alabei deithore egiten, eta nork-berak bene hauzoari hil-khexuen egiten.

21. Zeren herioa gure leihoetarik igan eta gure etxeetan sarthu baita, xahutzekotzat haurrak karriketan eta gazteria plazetan.

22. Errozute: Huna zer dioen Jaunak: Eta lurraren gainera gizon hilak eroriko dira gorotza bezala eta belharra ephailearen gibelean bezala, eta nihor ez da izanen bilduko dituenik.

23. Hau dio Jaunak: Zuhurra bere zuhurtziaz ez bedi espanta, hazkarra bere indarraz, aberatsa bere aberastasunez.

24. Bainan huntaz sendagaila izan beza, ene ezagutzeaz, eta jakiteaz ni naizela Jauna, urrikalmendu hartzen dudada, zuzena eta zuzenbidea lurraren gainean bihurtzen ditudana; horiek dira ezen ene gogarako, dio Jaunak.

25. Huna egunak heldu direla, dio Jaunak; eta ikharketa eginen dut ingurebakiak diren guzien gainean;

26. Egiptoaren, Judaren, Edomen, Amonen semeen eta Moaben gainean, eta buru murriz, mortuan egoten diren guzien gainean; zeren jendaia guziak ingurebakigabeak baitira gorphutzez; aldiz Israelgo etxe guzia bihotzez.

## X. KAP.

1. Israelgo etxea, adi zazu Jaunak zure gainean erran duen hitza.

2. Hau dio Jaunak: Ez bezaitezte jakintsun egin jendaien bideez, eta jendaia izitzen dituzten zeruetako ikhuskarietzat ez beldur izan;

3. Ezen hutsalak dire populuen legeak: oihanetikako zura haizkorak ebaki, eta lanthu du ofizialeak;

4. Urhez eta zilharrez berregindu du; mailuarekin itzez josi du, ez dadientzat urra.

5. Halako idolak palmondoak iduri lanthuak dire, eta ez dire mintzatzzen; soinean eramaten dituzte, ez direlakotz ibiltzeko gai. Ez izan beraz hekien beldur, zeren ez baitezakete egin ez ongirik ez gaizkirik.

6. Zure idurikorik ez da, Jauna: handia zare, eta zure izena bere indarrean handi da.

7. Nor ez da zure beldur izanen, oi populuen errege? ezen zurea da ospea; populuetakozuhur guzien artean, eta erresuma guzietan, bat et da zu bezalakorik.

8. Zoro ergel batzu direla frogatuko zaiote, eta hekien froga zurpuska hura da.

9. Zilharra hostotan ekhartzen da Tharsisetik eta urhea Ophaztik; ofizialeak eta urheginak lantzen dituzte; moredinez eta purpurazkoa da hekien jauntzia; horiek oro ofizialearen lanak.

10. Jauna da ordean egiazko Jainkoa; hura da Jainko bizia eta bethiereko erregea; haren hasarreak ikharatzen du lurra, eta jendaiek ezin jasan dezakete haren larderia.

11. Hau erranen diozute beraz: Zeru-lurrak egin izan ez dituzten jainkoak gal beitez lurraren gainetik eta zeruaren azpitik.

12. Bere ahalaz lurra egin duenak, aphaindu du mundua bere zuhurtziaz eta zerua hedatu bere gurbiltasunaz.



13. Hitz batez zeruetarik jautsarazten ditu ur-uharrak, eta hedoiak altzarazten ditu lurraren bazterretarik: uriaren erdian egiten ditu ximistak, eta haizea ilkhiazten bere gordegailuetarik.

14. Gizona bere jakitateaz zoro bat egin da; ofizialea ahalketara art-hikia da bere jainkomoldeaz; gezurrezkoa eta bizirik gabea baita haren lana.

15. Lan ezdeus, lan irrigarriak dire; sunsituren dire Jaunak ikhusiko dituen egunean.

16. Ez da hekien iduriko Jainkoa, Jakoben zathia; harek berak egin ditu gauza guziak, eta Israel da haren primantzako gandoa; armadetako Jauna da haren izena.

17. Sethioko tokian hagoena, bazterretarik bil zatzik hire ahalketze-ko gauzak.

18. Ezen hau dio Jaunak: Oraikoa urrun arthikiren ditut lur huntako egoiliarak; eta hertsaturen ditut, atzemanak izan ditezen.

19. Ene dohakabea ene asturugaitzean! Ene zauria guziz da gaixtoa. Bainan nik erran dut: Neronek egin dut ene zurigaitza, eta neronek jasanen dut.

20. Ene olha eragotzia da, ene sokha guziak trenkatuak dire, ene semeak goan dire ene ganik eta hilak dire; nihor ez da gehiago ene olharen hedatzeko eta ene larruen altxatzeko.

21. Zeren artzainek zoroki egin duten, eta ez duten Jauna bilhatu; horren gatik ez dute aditzarik izan, eta barriatua da hekien arthalde guzia.

22. Huna non harramantz handi eta izialdura lazgarri bat heldu diren ipharreko lurretik, Judako hiriez egiteko mortu bat eta erainsugeen egoitza.

23. Jauna, badakit gizona ez dela bere bideaz nausi, eta gizonak ez duela bere eskuan ibiltzeko eta bere urhatsen bidatzeko ahala.

24. Azurria nezazu, Jauna, bainan zure zuzentasunean eta ez zure hasarrean, arras ezezta nezazun beldurrez.

25. Ixur zazu zure gaitzidura ezagutzen etzaituzten jendakien gainera, eta zure izenari dei egiten ez dioten herrialdeen gainera, zeren larrutu, iretsi, ahitu duten Jakob, eta suntsiarazi haren ospea.

## XI. KAP.

1. Jeremiasek izatu duen solasa Jaunaren ganik, zeinak erran baitio:

2. Adi zatzue patu huntako hitzak, eta mintza zaitzte Judako gizonen eta Jerusalemдарrei;

3. Eta errozute: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Madarikatu gizona adituko ez dituen patu huntako hitzak;

4. Zeinak manatu baitiozkate zuen arbasoei, Egiptotik, burdin-labetik atheratu nituen egunean, niotelarik: Adi zazue ene mintzoa eta egizkitzue nik manatzen darozkitzuetan guziak, eta zuek izanen zarete ene populua, eta ni zuen Jainkoa;

5. Obra dezadan zuen aitei egin zina, emanen niotela esnea eta ezta zarioen lurra, egungo egunean den bezala. Eta ihardetsi diot eta erran: Biz, Jauna.

6. Eta Jaunak erran izan darot: Oihu egizkitzu hitz haukiek guziak Judako hirietan eta Jerusalemeko bazterretan, erranez: Adi zatzue patu huntako hitzak, eta bethe zatzue;

7. Ezen hertsatuz errekeitu ditut zuen arbasoak, Egiptotik atheratu ditudan egunetik egungo eguna arteo; goizean jaikiz errekeitu ditut, eta erran diotet: Adi zazue ene mintzoa.

8. Eta ez dute aditu, eta ez dute eman beharria; bainan goan dire zein bere bihotz gaixtoko tzartasunean; eta nik bethetzeko manatu eta bethe ez duten patuko hitz guziak obretara atheratu ditut hekien gainera.

9. Eta Jaunak erran izan darot: Zin-hartze bat aurkitu da Judako gizonetan eta Jerusalemдарretan.

10. Ene hitzak aditu nahi izan ez dituzten beren arbaso zaharrenen gaixtakerietara itzuli dire; haukiek ere goan dire jainko arrotzen ondotik hekien zerbitzatzeko; Israelgo etxeak eta Judako etxeak alfer eragin dute horien arbasoekin egin nuen patua.

11. Horren gatik, hau dio Jaunak: Gainera arthikiren diozkate gaitz batzu, zeintarik ezin ilkhiko baitire; oihu eginen darotet, eta ez ditut entzuzten.

12. Eta Judako hiriak eta Jerusalemдарrak goanen dire, eta deihadar eginen diote jainkoei zeinei eginen baitiozkate sakrifizioak, eta hekiek ez dituzte hesturako orduan salbatuko.

13. Ezen, Juda, zenbat hiri, hanbat jainko bahintuen; eta hik, Jerusalem, zenbat karrika, hanbat ahalkapenezko aldare ezarri ditun, Baali sakrifizio egiteko aldareak.

14. Jeremias, ez beraz zuk othoitzik egin populu horrentzat; horrentzat ez abia ez aheriarik ez-eta errekeirik; zeren gor izanen bainaiz niri deihadar eginen darotedan orduan, beren hesturako mugan.

15. Nolz ene maiteak ene etxean ditu egin hanbat gaixtakeria? Haragi sainduetsiek garbituko othe zaituzte maltzurkerietarik, zeinetan baitzinen espantatzen?



16. Jaunak deithu zintuen olibondo gori, eder, fruitutsu, begikoa: harek erran hitz batera su handi bat biztu da olibondoan, eta erreak izan dire haren aldaskak.

17. Armadetako Jaunak, zeinak landatu baitzintuen, hitz batez igorri darotzu gaitza, Israelgo etxeak eta Judako etxeak, Baali sakrifikatuz ene samurrarazteko egin dituzten gaizkien gatik.

18. Zuk orduan, Jauna, argitu nauzu, eta ezagutza ethorri zait, eta orduan agertu daroztatatzu hekien asmuak.

19. Eta ni bitintzat daramaten bildots eme baten pare nintzen, eta ez nuen ezagutzen ene gainean atheratu zituztela asmuak, ziotelarik: Zotza ezar dezagun horren ogian, errotik khien dezagun bizien lurretik, eta horren izena ez bedi apha gehiago.

20. Oi bainan, armadetako Jauna, zuzenki juiatzen duzuna, bihotza eta barnea ikhartzten ditutzuna, egizu ikhus dezadan hekietarik atheratu-ko duzun asperkundera; ezen zure aitzinera agertu dut ene zuzena.

21. Horren gatik hau dio Jaunak Anathotheko gizonei, zeinek bilhartzten baitute ene bizia, eta erraten baitute: Ez bezak profetisa Jaunaren izenean, eta ez haiz gure eskutik hilen.

22. Horren gatik, hau dio armadetako Jaunak: Hara non goanen natzaioten ikhustera; ezpatak hilen ditu gazteak; hekien semeak eta alabak gosez hilen dire.

23. Eta hekietarik ez da ondarrik geldituren; ezik Anathotheko gizonen gainera erakharriren dut gaitza, hekien gatziguko orduan.

## XII. KAP.

1. Jauna, ihardukitzen badarotzut, ez etzarelaokan egiazki zuzena: guzia gatik eginen darozkitzut ene arrangura bidezkoak: Zertako gaixtagina ongi heltzen da bere bidean? Zertako dute zorion lege-hausleek eta gaizki-egileek?

2. Zuk landatu ditutzu, eta erroa egin dute; handitzen dira, eta fruitua atheratzen dute: hekien ahotik hurbil zare eta bihotzetik urrun.

3. Eta zuk, Jauna, ezagutu nauzu, ikhusi nauzu, frogatu duzu zurekialako dela ene bihotza; hekiek, berriz, bil zatzu hala-nola hil behar den art-halde bat, eta berez zatzu hiltzeko egunekotzat.

4. Noiz arteo lurra egonen da nigarrez, eta lekhuko belhar guzia ihartzten, han daudezenen maltzurkeriaren gatik? Ez da gehiago abererik, ez hegastinik, erran dutelako: Jaunak ez du ikhusiko gare akhabantza.

5. Oinezkoekin lasterka lanak izan badituztu, nola ihardukiko ahal diozute zaldiei? Bakezko lurra behar bazinduen deskantsuz bizitzeko, zer eginen duzu Jordanea fharrastan atherako denean?

6. Alabainan zure anaiak berak eta zure aitaren etxea zure kontra gudukatu dira, eta gibeletik haritu zaizkitzu oi-hu-marrumaka; ez detzatzula beraz sinhets solas onak emanen darozkitzutenean ere.

7. Utzi dut ene etxea, utzi dut ene primantza, bere etsaien eskuetara eman dut ene bihotzekoa.

8. Ene primantza jarri zait lehoina oihanean bezala; marruma egin du ene kontra: hargatik dut hastiatu.

9. Ene primantza ez othe da hegastin karantzakatu bat iduri? Ez othe da hegastin bat orotan karantzatua? Zatozte, bil zaitzte, lurreko basabere guziak, laster egizue irestera.

10. Artzain moltzo batek xahutu du ene mahastia, oinkatu dute ene zathia; ene primantza lehiagarritik egin dute mortu zigarri bat.

11. Xahutzera eman dute, eta nigarrez dago ene minez; desmasiaren desmasian da lur guzia, zeren nihork ez duen gogoeta on bat egiten.

12. Mortuko bide guzietarik heldu dira xahutzaileak, zeren Jaunaren ezpatak irestera baiterama buru batetik heltzera; bizi denarentzat ez da bakerik.

13. Ogia erran, eta elhorriak bildu dituzte; primantza hartu dute, eta etzaiote baliaturen; zuen fruituek ahalketara arthikiren zaituztete, Jaunaren hasarreko hatsaren ariaz.

14. Israelgo ene populuari zathitu diodan primantzari ukitzen duten ene hauzo gaixtagin guzien kontra hau dio Jaunak: Huna non beren lurretik iraziren ditudan nik, eta Judaren etxea ilkhiren dut hekien erditik.

15. Eta atheratu ondoan, bihurturen naiz, eta urrikalduren natzaiote, eta itzularaziren ditut, zein bere primantzara eta zein bere lurrera.

16. Eta baldin argiturik ikhasten badituzte ene populuaren, ideak, ene izenaz hula zin egiteko: Ala Jauna Ene populuari Baalez zin egiten irakhatsi dioten bezala; gerthaturen da ene populuaren erdian jarriak izanen direla.

17. Baldin ordean entzuten ez badute, iraziren dut jendaki hura erro-rik atheratuz eta xahutuz, dio Jaunak.

## XIII. KAP.

1. Hau derrat Jaunak: Zoaz, erosazu liho harizko gerriko bat, eta eza-rriko duzu gerrian, eta ez duzu urean garbituko.



2. Eta erosi dut gerrikoa, Jaunaren hitzaren arabera, eta ezarri dut gerrian.
3. Eta bigarren aldiko mintzatu zait Jauna, dioelarik:
4. Har zazu erosi duzun gerrikoa eta gerrian duzuna, eta jaikirik zoaz Ufratarara, han har zilho batean gorde zazu.
5. Eta goan naiz, eta gorde dut hura Ufratan, Jaunak manatu zardana bezala.
6. Eta gerthatu da asko egunen buruan, Jaunak erran darotala: Jaiki zaitte, zoaz Ufratarara, eta har zazu handik, nik han gordetzeko manatu darotzudan gerrikoa.
7. Eta goan naiz Ufratarara, zilhatu dut lurra, eta bere tokitik hartu dut nik han gorde nuen gerrikoa; eta hara gerrikoa hain usteldu zela, non ez baitzen deusetako.
8. Eta mintzatu zait Jauna, zioelarik:
9. Hau dio Jaunak: Horrela ustelaraziren ditut Judaren hanpuruskeria eta Jerusalemen hanpuruskeria handia:
10. Populu guziz tzar hori, ene hitzak aditu nahi izan ez dituen, bere bihotzeko tzarkerian dabilana, eta jainko arrotzen ondotik goan dena hekien zerbitzatzeko eta adoratzeko, deusetako ez den gerriko hori bezala izanen da.
11. Alabainan nola gerrikoa gizonaren gerriari lotzen baita, hala neroniri iratxiki ditut Israelgo etxe guzia eta Judako etxe guzia, dio Jaunak, izan zakizkidan ene populu, ene izen, ene laudorio eta ene lelo; eta ez dute entzun.
12. Zuk beraz solas hau erranen daroezu: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Gorgoilak arnoz betheko dire. Eta erranen darotzute: Ez othe dakigu gorgoila arnoz betheko dela?
13. Eta ihardetsiko diozute: Hau dio Jaunak: Huna non nik horditasunez betheko ditudan lur huntako egoiliar guziak, eta Dabiden odoleko erregeak, haren tronuan jartzen direnak, eta aphezak, eta profetak eta Jerusalem dar guziak.
14. Eta barraiaturen ditut, anaia anaiaren ganik urrunduz, eta burha-soak orobat beren haurren ganik, dio Jaunak; ez dut guphiderik izanen eta ez dut amor eginen, eta ez naiz urrikalduren hekien ez barraiatzera.
15. Adi zazue, eta emazue beharria ez bezaitezte hant, ezen Jauna da mintzatu.
16. Zuen Jainko Jaunari ospe bihur diozozue ilhundu baino lehen, zuen oinak mendi lanhotsuetan behaztopatu baino lehen: argia igurikiko duzue, eta Jaunak hura aldaturen du heriotzeko itzal eta ilhunbeetara.

17. Baldin hau ez baduzue entzuten, ene arimak ixilik nigar eginen du zuen hanpuruskeriaren gainean; nigarrari emanen da eta ene begiak nigar-uharrak ixuriren ditu, atzemana delakoz Jaunaren arthaldea.

18. Erregeri eta erreginari errozute: Aphal zaitezte lurreraino eta han jar, zeren burutik erori baitzaitzue zuen ospearen khoroa.

19. Hegoaldeko hiriak hertsia daude, eta ez da nork idek: Juda guzia alde bat eramana da atze-herritara.

20. Goiti zatzue begiak, eta ikhusazue, ipharretik heldu zaretenak: non da zuri emana izan zaitzun arthaldea, zure arthalde guziz ederra?

21. Zer erranen duzu Jauna ikhustera ethorriko zaitzunean? Ezen zerorrek argitu ditutzu etsaiak zure kontra, eta zure buruaren kontra jakintsun egin ditutzu: ez othe zaituzte oinhazeek harturen, erdi-minetan den emaztekoa iduri?

22. Zure bihotzean egiten baduzu Nola ethorri dire gaitz haukiek? Zure tzartasunaren handia gatik izan dire agertuak zure alderdi ahalkeorenak, lizunduak zure oin zolak.

23. Ethiopiarrek aida balin badezake bere larrua, edo lehoinabarrak bere karantzadurak; zuek ere ongia egin dezakezue, gaizkiaren egiten ikhasi duzuen ondoan.

24. Eta barraiaturen ditut, haizeak mortua barna daraman lastoa bezala.

25. Hori da hire zortheta, ene ganik izanen dunan zathiaren neurria, dio Jaunak; zeren ahantzi naunan, eta gezurraren gainean eman dunan hire sinhestea.

26. Hargatik buluzi ditinat hire ixterrak hekien gainera, eta agertu dire hire laidoa,

27. Hire lizunkeriak, hire irrintzinak eta hire khutsatze tzar guziak. Munhoen gainetan, landen erdian ikhusi ditinat hire izigarrikeriak. Zorigaitz hiri, Jerusalem! Niri jarraitzeko ez othe haiz xahuturen? noiz arteo oraino?

#### XIV. KAP.

1. Jaunak Jeremias agortearen gainean erran zioen hitza.
2. Judea nigarretan da; Jerusalemeko atheak erori dira eta beltzik daude lurrean; Jerusalemen marraska igan da.
3. Handienek urketa igorri dituzte berak baino aphalagoak; ithurrira ethorri, eta urik ez dute khausitu; untziak hutsik gibelerat eraman dituzte; ahalkez eta atsekabez, estali dituzte beren buruak





4. Lurraren desmasia gatik, zeren lurrera uririk ez baidathor, labora-riek ahalketan, estali dituzte beren buruak.
5. Orena ere larrean erdi da eta umea utzi du, belharrik ez baitzen.
6. Basastoak harkadietan baratu dira, hatsa aho zabalka bilduz erain-sugeek bezala; hekien begiak iraungi dira, belharrik ez baitzen.
7. Gure gaizkiak gure kontra mintzo badira, Jauna, zure izenaren ariaz egizu; ezen hainitzetan zehertu gare, bekhatu egin dugu zure kontra.
8. Oi Israelen igurikimena, haren salbatzailea hesturako orduan, zertako nahi duzu izan lur huntan arrotz bat bezala, trikatzeko hunat makhurtzen den bideant bat bezala?
9. Zertako izanen zare ibildaun bat iduri, edo ezin salba dezakeen gizon hazkar bat bezala? Zu ordean, Jauna, gure erdian zare; zure izena gure gainera deithua izan da; ez gaitzatzula utz bazterrerat.
10. Hau dio Jaunak populu horri, zeinak oinen higitzea lakhet baitu, nihon sesurik ez baitu eta Jaunaren gogara ez baitu egin: Jauna horien gaitxakeriez orai da orhoituren eta ikharturen ditu horien bekhatuak.
11. Eta niri Jaunak erran darot: Ez egin othoitzik populu horren onetan.
12. Barur eginen dutenean, ez ditut entzunen horien othoitzak; eta eskaintzen badituzte holokaustak eta bitimak, ez ditut onhetsiko; zeren ezpataz, goseteaz eta izurriteaz xahutuko baititut.
13. Eta ihardetsi diot: Ai! ai! ai! Jainko Jauna! Profetek erraten darote: Ez duzue ikhusiko ezpata, eta gosetea ez da zuetarako, bainan egiazko bakea emanen darotzue Jaunak toki huntan.
14. Eta Jaunak erran darot: Profetek gezurrez profetisatzen dute ene izenean ez ditut nik igorri, ez diotet mezurik eman, ez natzaiote mintzatu; gezurrezko ikhuspenak, asmaginkeriak, maulak eta beren bihotzeko lilurakeriak profetisatzen darozkitzute.
15. Aria hortaz hau dio Jaunak ene izenean mintzo diren profetez, zeinak ez baititut nik igorri erratera: Ezpata eta gosetea ez dire lur huntan izanen: Ezpata eta goseteak xahuturen dituzte profeta hekiek.
16. Gosetez eta ezpataz Jerusalemeko karriken erdian eroriko dire populuak, zeinei profetisatzen baitute, eta nihor ez da izanen ehorzteko hekiek, eta hekien emazte, seme eta alabak: egin duten gaizkia arthikiren daroet gainera.
17. Eta erranen diozute hitz hau: Nigarra gau eta egun ixur bezate ene begiek, eta ez beitez bara; zeren neskatxa, ene populuko alaba, desmasia handiaren, sarraski guziz gogorraren azpian ehoa izan baita.

18. Baldin bazterretara ilkhitzen banaiz, hara ezpatak hil dituenak; eta hirira sartzen banaiz, hara goseteak ahitu dituenak: profeta ere eta apheza goanak dira ezagutzen etzuten lur batera.

19. Jauna, aldebat irazi duzu Juda? Zure arimak bethiko hastiatu du Sion? Zertako jo gaituzu beraz, sendagarririk ez den bezala? Bakea iguriki dugu, eta deus onik ez da ageri; iguriki dugu sendatzeko eguna, eta huna nahasmendua.

20. Jauna, ezagutzen ditugu gure tzarkeriak eta gure arbasoen tzarkeriak, ezen bekhatu egin dugu zure kontra.

21. Zure izenaren ariaz ez begaitzatu arthik laidotara; ahalketara ez begaitzuzu arthik gu eta zure ospearen tronua; orhoit zaite, eta alferretara ez bihur gurekin egin izan duzun batasuna.

22. Jendaien jainkoaizunetan othe da uria egiten duenik, ala zeruek eman dezakete uria? Ez othe zare zu igurikitzen dugun Jainko Jauna? ezen zuk egiten ditutzu horiek oro.

## XV. KAP.

1. Eta Jaunak erran zarodan: Moise eta Samuel errekeika ene aitzinean jar baleitez ere, ene arima ez lizate populu horren alderat itzuliko: irazitzu ene aitzinetik eta ilkhi beitez.

2. Baldin erraten badarotzute: Norat eginen dugu? ihardetsiko daroezu: Hau dio Jaunak: Hiltzerako denak, hiltzera; ezpatarako denak, ezpatara; goseterako denak, gosetera; eta gathibutasunerako denak gathibutasunera.

3. Eta igorriko diozkatet gainera lau gaitz-mota, dio Jaunak: Ezpata hiltzeko, zakhurrak zirtzikatzeko, zeruko hegastinak eta lurreko basabeak iresteko eta xahutzeko.

4. Eta arthikiren ditut lurreko erresuma guzien errabiari, Manaseren gatik, Judako errege Ezekiasen semearen gatik, Jerusalemen erabili dituen tzarkeria guzien ariaz.

5. Nor urrikalduren zaitzu, oi Jerusaleme, edo nor egonen da zure minez, edo nor goanen da zuretzat othoiztera?

6. Hik utzi naun, dio Jaunak; gibelerat egin dun: eta nik eskua hedatuko dinat hire gainera, eta hilen haut: othoizka nekhatua naun.

7. Bahearekin haizatuko ditut lurraren bazterretaraino; hil eta xahutu dut ene populua, eta halere ez dira beren bideetarik bihurtu.

8. Itsasoan legar-izpi den baino alhargun gehiago egin zait hekien artean; eguerdi bethen erakharri diotet xahutzailea gizon-gaztearen amaren gainera; laztura bat-batean igorri dut hirien gainera.



9. Zazpitan erdi dena hebaindu da, ahitu da haren arima; harentzat iguzkia etzan da, egun argi zelarik oraino; ahalkatu eta gorritu da; eta haren ganik gelditu diren umeak, beren etsaien aitzinean emanen ditut ezpataren ahoari, dio Jaunak.

10. Zorigaitz niri, oi ene ama Zertako egin nauzu, oi khimeretako gizona, makhurretako gizona lur guziaren gainean? Lukuruzko mailegurik ez dut ez egin, ez hartu, eta orok madarikatzen naute.

11. Jaunak dio: Ala! Zutarik gelditzen direnek zorion izanen dutela, atsekabearen orduan laguntzera ethorriren natzaitzula, eta hesturako orduan zure etsaiaren kontra ilkhiren naizela.

12. Burdina eta kobrea ipharraldeko burdinari iratxikiren othe dire?

13. Zure bekhatu guzien gatik, harrapakara urrurik emanen ditut zure ontasun eta aberastasunak zure eremu guzietan.

14. Eta ezagutzen ez duzun lur batetarik erakharriren ditut zure etsaiak; zeren ene irakiduran sua biztu baita, eta zuen gainera garturen da.

15. Zuk ezagutzen nauzu, Jauna; orhoit zaitzete nitaz, eta ikhustera zatozkit, eta ondotik ditudan ixterbegietarik malda nezazu; ez izan nagi ene laguntzera; badakizu zure gatik jasaiten dudala laidoa.

16. Aurkhitu ditut zure hitzak eta hekiez hazi naiz; eta zure solasa egin da ene bihotzaren goiheregari eta bozkariagari; zeren ene gainera deithua izan baita zure izena, oi armadetako Jainko Jauna.

17. Ez naiz dostatzen zirenen bilkhuan jarri; ez dut espanturik atzeratu zure mandatarari naizelako: bakhartasunean jarri naiz, zeren dixiduz bethe baituzu ene ahoa.

18. Bethikoa zertako egin da ene oinhazea, eta zertako ene zauri etsigarriak ez du sendatu nahi? Enetzat bilhakatu da hala-nola gutien-ustean agor aurkhitzen den ura.

19. Aria hortaz, hau erran darot Jaunak: Itzultzen bazare, itzuliren zaitut, eta ene aitzinean khordokarik gabe egonen zare; eta balios dena putrus denetik berezten baduzu, izanen zare ene ahoa bezala; populua itzuliren da zure gana, eta ez zu populuaena gana.

20. Eta populu horri emanen zaitut kobrezko harrasi hazkar bat bezala; eta zure kontra eginen dute gerla, eta ez dira nausituko; zeren ni zurekin bainaiz zure salbatzeko eta zure libratzeko, dio Jaunak.

21. Eta libraturen zaitut gaixtaginen eskutik, eta hazkarren eskutik atheraturen zaitut.

## XVI. KAP.

1. Eta Jauna mintzatu zait, zioelarik:

2. Ez duzu emazterik hartuko, eta semerik ez alabarik ez duzu toki hortan izanen.

3. Ezen hau dio Jaunak toki huntan sortzen diren seme-alabez, eta hekiei bizia eman dioten amez, eta aitez, zeinen odoletik sorthu baitire lur huntan:

4. Eritasun hilgarritarik hilen dire; ez dire, ez deithoratuak, ez ehortziak izanen; gorotza bezala lurraren gainean egonen dire; ezpatak eta goseteak xahutuko dituzte; eta hekien hilikiak izanen dire zeruko hegastinen eta lurreko basabereen bazka.

5. Ezen hau dio Jaunak: Ez sar barazkari bat den etxean; ez goan deithoratzera, ez hangoei gozakari ematera; zeren populu hortarik khendu baititut ene bakea, ene urrikalpen eta urrikalkortasunak.

6. Eta handi-ttipiak hilen dire lur hortan; ez dire izanen ez ehortziak, ez deithoratuak, eta nihork ez du hekien gatik bere burua sarraskituko, ez eta ilea murriztuko.

7. Eta horien artean deithoratzaileri ez diote ogia hautsiren, hil denaz gozakari emateko, eta edatera ez diote emanen bere ait-amen minaren ezitzeke.

8. Ez sar barazkariko etxera, hangoekin jartzeko, jateko eta edateko;

9. Zeren hau baitio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Hara non zure egunetan, eta zure begien aitzinean toki hortarik kenduko ditudan atseginezko oihiak eta bozkariozko irrintzinak, jaun esposaren kantuak eta andre esposarenak.

10. Eta solas haukiek oro populu horri eramanen ditutzunean, eta ihardetsiko darotzutean: Zer ariaz Jaunak erabaki du gure gainera zorigaitz handi hori guzia? zer da gure gaizkia? zer da gure bekhatua, gure Jainko Jaunaren kontra egin dukeguna?

11. Erranen daroezu: Zuen aitek bazterrerat utzi bainaute, dio Jaunak; eta jainko arrotzen ondotik goan baitire, eta zerbitzatu eta adortatu baitituzte; eta ni utzi bainaute, eta ene legea ez baitute begiratu.

12. Bainan zuek gaizki gehiago egin duzue zuen aitek baino; ezen huna non batbedera dabilan bere bihotzeko tzartasunari jarraikiz, ni ez entzutea gatik.

13. Eta lur hortarik khenduko zaituztet zuek eta zuen aitek ezagutzen ez duzuen lur batera; eta han gau eta egun zerbitzatu dituzte jainko arrotzak, zeinek ez baitauzete phausurik emanen.

14. Horren gatik, dio Jaunak, hara non heldu diren egunak, eta ez da gehiago erranen: Bizi bedi Jauna, Israelgo umeak Egipetoko lurretik atzeratu dituen;



15. Bainan: Bizi bedi Jauna, Israelgo umeak atheratu dituen a ipharaldeko lurretik, eta lur guzietarik zeinetara irazi baitituzte; eta gibelerat erakharriren ditut beren lurrera, hekien arbasoei nik emanera.

16. Hara non igorriren ditudan nik arrantzari asko, dio Jaunak, eta hainek arrantzaturen dituzte; eta gero igorriren diozkatet ihiztari asko, eta hainek ihiztaturen dituzte mendi, munho, har-zilo guzietan.

17. Alabainan ene begiak hekien bide guzien gainean daude; ez dire enetzat gordeak, eta ene populuaren tzarkeriak ez dire ene begientzat izan estaliak.

18. Eta lehenbizikorik bihurturen diotet beren gaixakeria eta bekhatuen sari bikhuna; zeren duten khutsatu ene lurra beren idolentzat ixuri odolaz, eta izigarrikeriaz duten bethe ene primantza.

19. Jauna, ene sendotasuna, ene indarra, ene ihes-lekhua hesturako orduan; lurraren buruetarik zure gana ethorriko dire jendaiak, eta erranen dute: Egiazki gure arbasoak gezurraren, eta baliatu etzaioten hutsalkeria- ren jabe izatu dire.

20. Gizonak bere buruari egin othe dezoke jainkorik? halakoak ez dire jainkoak.

21. Horren gatik, huna non erakhutsiren diotedan oraikoan, erakhutsiren diozkatet ene eskua eta ene ahala; eta jakinen dute Jauna dela ene izena.

## XVII. KAP.

1. Judaren bekhatua burdin-xiriaz eta diamantaren mokoaz iskribatua da, hekien bihotzaren zabaltasunean eta hekien aldareetako adarretan ber-nuzatua.

2. Hekien semeak orhoituko direnean mendi goretako beren aldare, luku eta zuhaitz hostotsuez,

3. Bazterretan sakrifizioak egiten dituztelarik; harrapakara emanen ditinat hire bekhatuen gatik hire eremu guzietan hire ahal, aberastasun eta lekhu gorak.

4. Eta geldituen haiz nik eman primantzatik gabetua, eta hire etsaiak zerbitzaraziren darozkinat ezagutzen ez dunan lurrean; zeren ene hasarrearari eman dinonan su, bethi guzian hariko dun erretzen.

5. Hau dio Jaunak: Madarikatua gizona bere sinhestea gizonaren gainean duena, eta haragizko besoaren gainean bermatzen dena, eta zeinaren bihotzak Jauna ganik gibelerat egiten baitu.

6. Ezen mortuan tamariska bezala izanen da, eta ona ez du ikhasuren ethorriko denean; bainan mortuan egonen da agorrerian, gatz-lur nihor ezin-egonezkoan.

7. Dohatsu gizona Jaunaren baithan dadukana bere sinhestea! Jauna izanen da haren igurikitza.

8. Eta izanen da uren bazterrean landatzen den zuhamua iduri, zeinak hezetasuneko alderat hedatzen baititu erroak; eta beroa ethorriko denean, ez da haren beldur izanen. Haren hostoa berde egonen da; agorteko orduan ez da grinan izanen, eta ez da fruitu ekhartzetik behinere baratuko.

9. Gizonaren bihotza tzarra eta ezin-ikhartuzkoa da; nork ezagut hura?

10. Ni naiz Jauna, bihotz-ikharlea eta barneak frogatzen ditudana, batbederari bere bidearen eta bere asmuetak fruituen arabera emanen diodana.

11. Epherrak xitatzen ditu egin ez dituen arroltzeak: gizonak biltzen ditu aberastasunak, eta ez zuzenbidean; bere egunen erdian utziko ditu, eta haren azken orenean ageriko da haren erhokeria.

12. Ospearen tronua zero goretan da hastetik; hura da gure sainduespeneko lekhu.

13. Jauna, zu zare Israelen igurikimena; zu uzten zaituzten guziak ahalketara eroriko dira; zure ganik gibelerat egiten dutenak lurrean izanen dira iskribatuak, zeren duten utzi Jauna, ur bizien ithurria.

14. Senda nezazu, Jauna, eta sendaturen naiz; salba nezazu, eta salbatua izanen naiz, zeren zu baitzare ene leloa.

15. Huna non erraten darotedan: Non da Jaunaren hitza? Ager bedi.

16. Eta ni ez naiz nahasi, zuri, ene artzainari jarraikiz; eta nik ez dut, dakizuna agiantzatu gizonaren eguna. Ene ahotik ilkhia, zure aitzinean zuzena izatu da.

17. Ez izan lazgarri niri, zu, ene pheskiza atsekabeetako egunean.

18. Ahalketara eror beitez niri jazartzen darotatenak, eta neror ez benedi ahalka; hekiek ikhara beitez, eta ni ez benedi ikhara; erakhar diozozute gainera atsekabezko eguna, eta leher zatzu leherpen bikhunaz.

19. Hau erran darot Jaunak: Zoaz, eta zaude populuko umeen athean, zeintarik sartzen eta ilkhitzen baitira Judako erregeak; zoaz Jerusalemeko athe guzietara,

20. Eta errozute: Judako erregeak, Juda guzia, Jerusalem dar guziak, athe haukietarik sartzen zaretanak, adi zazue Jaunaren hitza.



21. Hau dio Jaunak: Zain zatzue zuen arimak, haxerik ez erabil larunbategan, haxerik ez ekhar Jerusalemeko atheak gaindi.

22. Zuen etxeetarik haxerik ez athera larunbategan, eta lanik batere ez egin; sailduetsazue larunbata, zuen arbasoei manatu diotedan bezala.

23. Eta ez dute entzun, eta ez dute eman beharria; bainan gogortu dituzte beren buruak, ni ez nahiz aditu eta ene irakhasmena ez nahiz onhetsi.

24. Eta hau gerthaturen da, dio Jaunak, baldin entzuten banauzue, haxerik ez ekhartzeko larunbategan hiri huntako atheetarik, eta baldin sailduesten baduzue larunbata, lanik batere ez eginez.

25. Hiri huntako atheetarik sarthuren dira erregeak eta buruzagiak, jartzten direlarik Dabiden tronuan eta igaiten orga-lasterren eta zaldien gainera, berak eta beren-peko aitzindariak, Judako gizonak eta Jerusalemeko egoiliarak; eta bethi guzian hiri huntan izanen dira jendeak.

26. Eta Judako hirietarik, eta Jerusalemeko inguruetarik, eta Benjamindik, eta zelhaietarik, eta mendietarik, eta hegoaldetik ethorriren dira holokausta, bitima, sakrifizio eta isentsu ekharleak, eta eskaintzak ekharriren dituzte Jaunaren etxera.

27. Baldin ordean ez banauzue entzuten larunbategan sailduesteko, eta haxerik ez erabiltzeko, eta Jerusalemeko atheetarik ez ekhartzeko larunbategan; horgo atheetan bizturen dut sua, eta erreko ditu Jerusalemeko etxeak, eta ez da hilen.

### XVIII. KAP.

1. Jaunak Jeremias erran hitza, zioelarik:
2. Jaiki zaite eta jauts baxeregilearen etxera, eta han adituren ditutzu ene solasak.
3. Eta jautsi naiz baxeregilearen etxera, eta hara non lanean hari zen hura bere pirritan.
4. Eta eskuz buztinetik egiten zuen untzia hautsi zen; eta itzulirik hartarik egin zuen bertze untzi bat, berak egin nahi zuen bezalakoa.
5. Eta Jauna mintzatu zitzaian huneletan:
6. Israelgo etxea, baxeregile horrek bezala, nahi dudana ez othe dut bada eginen zuetarik? dio Jaunak. Huna buztina baxeregilearen eskuan bezala, zuek ene eskuan zaretela, Israelgo etxea.
7. Bat-bategan mintzaturen naiz jendaki baten kontra eta erresuma baten kontra, errotik haren arthikitzeke, xahutzeke, eta urratzeke.

8. Jendaki hura bere gaizkiaz urrikitan jartzten bada, haren kontra mintzatu naizelako; niri ere urrikituren zait hari egiteko burutan hartu dudana gaizkia.

9. Eta bat-bategan jendaki batez eta erresuma batez mintzaturen naiz, haren altxatzeko eta gogortzeko.

10. Baldin gaizkia egin badu ene aitzinean, ez aditu nahiz ene hitza, urrikituren zait hari egiten diodala erran dudana ongia.

11. Orain beraz mintza zaite Judako gizonari eta Jerusalemдарrei, erraten daroezularik: Hau dio Jaunak: Huna non zuen kontra asturugaitz aphaizten eta asmu egiten hari naizela; nor-bera bere bide gaixtotik itzuli bedi; zuzen zatzue zuen bideak eta lehiak.

12. Eta haukiek ihardetsi dute: Etsitu dugu; gure gogoei jarraikiren gare, eta batbederak egiten dugu gure bihotz tzarrak agintzen daroen gaizkia.

13. Hau dio beraz Jaunak: Galda zazue jendaietan: Nork aditu du izigarrikeriarik Israelgo neskatxak egin duena bezalakorik?

14. Libango elhurra galduren othe da hango harri-muthurretarik, edo agorraz othe ditazke handik jausten diren ur-turrusta hotzak?

15. Eta ahantzi nau ene populuak, sakrifizio alferrak eginez, eta bere bideetan behaztopatuz, mendeko bidexketan, hekietarik ibili nahiz zehatua etzen bidez,

16. Beren lurra desmasian ezartzeko eta bethiko trufagailu bilhakarazteke. Edozein iragan dadien hortan gaindi, harrituren da, eta dardaratu du burua.

17. Haize erregarriak bezala barraiaturen ditut beren etsaiaren aitzinean gibela erakhutsiren diotet eta ez begithartea beren xahupeneko egunean.

18. Eta erran dute: Zatozte, eta asmu zerbait athera dezagun Jeremiasen kontra; ezen ez da galduko legea aphezaren ganik, umotasuna zuhurraren ganik, Jainkoaren hitza profetaren ganik zatozte jarraik gatzaitz gure mihiaz, eta horren elhe guziei ez gaitzen begira.

19. Jauna, ene gainera zaude atzarria, eta adi zatzu ene ixterbegien solasak.

20. Ongiarentzat gaizkia bihurtzen othe da? ezen ene biziari artea hedatu diote. Orhoit zaite zure aitzinean egotu naizela, horien onarentzat othoizka, eta horien gainetik aldaratu nahiz zure hasarrea.

21. Aria hortaz arthikatzen horien umeak goseteari, eta berak ezpataren azpira; horien emazteak egin beitez haurrak gabe eta alhargun; heriotzez



hilak izan beitez hekien senharrak; horietako gazteria guduan izan bedi ezpataz sakhitua.

22. Horien etxeatarik adi bedi marraska; ezen horien gainera terrepentean erakharriren duzu ohoina, zeren egin duten zilho bat ene atzemaleko, eta sareak gorde dituzten ene oinen aitzinean.

23. Zuk, berriz, Jauna, badakizkitzu horien heriozko asmuak ene kontra; ez jahal horien bekhatuari, eta horien bekhatua ez bedi ezezta zure aitzinetik lurrera bihoazi zure aitzinean, eta zure irakidurako egunean, asperkunde athera zazu horien gainean.

### XIX. KAP.

1. Hau dio Jaunak: Zoaz, eta baxereglearen ganik har zazu lurrezko untzi bat, populuko zaharrekin eta aphezetarikako zaharrekin batean;

2. Eta ilkhi zaite Enomen semearen haranera, zeina buztinezko athearen sartzean baita, eta han atheratuko ditutzu nik erranen darozkitzudan hitzak.

3. Eta erranen duzu: Judako erregeak eta Jerusalemarrak, adi zazue Jaunaren hitza: hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Huna non atsekabea erakharriren dudak lekhu hunen gainera; haletan non, adituko duten guziei beharriak hixtuka abiatuko baitzaizkote;

4. Zeren bazterrerat utzi binaute, eta bertzeei eman dioten lekhu hau; eta sakrifizioak egin dituzten hemen jainko arrotzei, berek, beren arbasoek eta Judako erregeek ezagutzen etzituztenei; eta lekhu hau bethe dute hobengabekoen odolez.

5. Eta Baali altxatu diozkate lekhu gorak, beren haurrak Baali holo-kaustetan erretzeko; holakorik ez baitut manatu, ez erran, eta ez baitzait gogorat ethorri.

6. Horren gatik, dio Jaunak, huna non heldu diren egunak, eta lekhu hau ez da gehiago deithuko Topheth eta Enomen semearen harana, bainan-bai Sarraskiko harana.

7. Eta toki huntan ezeztaturen ditut Judaren eta Jerusalemen asmuak, eta berak erorraraziren ditut beren etsaien aitzinean ezpataren azpira, eta hekien bizien ondotik dabilzanean eskuetara; eta hekien gorp-hutzak emanen diozkatet zeruko hegastinei eta lurreko basabereei jatera.

8. Eta ezarriren dut hiri hau guzien harrigarri eta irrigarri; hemendik iraganen diren guziak harrituko baitire eta hixtuz egonen hunen desmasia guziaren gainean.

9. Eta Jerusalemarrak haziko ditut beren semeen eta beren alaben haragiz; eta bakhotzak janen du bere adiskidearen haragitik sethioko egu-

netan, eta hesturan zeintan hertsiko baitituzte beren etsaiek eta hekien bizia beharrez dabilzaneanek.

10. Eta gero untzia lehertuko duzu zurekin goanen diren gizonen begietara.

11. Eta erranen daroezu: Hau dio armadetako Jaunak: Hola leherturen ditut populu hau eta hiri hau, nola lehertzen baita lurrezko untzi hau, zeina gehiago ezin osa baititake; eta hilak Tophethen ehortziko dire, ehortzeko bertze tokirik ez izanez.

12. Horrela eginen daroet toki huni eta hemengo egoiliarrei, dio Jaunak; eta hiri hau ezarriren dut Tophethen bardin.

13. Eta Jerusalemeko etxeak, eta Judako erregeen jauregiak, Tophetheko lekhu bezala, izanen dire lohi; eta halaber etxe guziak zeinen gainetan sakrifizioak egin baitituzte zeruko izarrerria guziari, eta libazio-neak eskaini jainko arrotzei.

14. Bada, Jeremias ethorri zen Tophethetik, zeinetara igorri baitzuen Jaunak profetisatzeko; eta jarri zen Jaunaren etxeko lorioan, eta erran zioen populu guziari:

15. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Huna non ekhartzera nohan hiri hunen gainera, eta hunenpeko hiri guzien gainera, hunen kontra erran ditudan asturugaitzak oro; zeren dituzten beren buruak gogortu, ene solasak ez nahiz entzun.

### XX. KAP.

1. Eta Phasur aphezak, Emerren semeak, zeina buruzagi Jaunaren etxean ezarria baitzen, aditu zuen Jeremias hitz horien profetisatzen.

2. Eta Phasurrek jo zuen Jeremias profeta eta ezarri zuen Benjaminen gaineko athean zen presondegian, Jaunaren etxean.

3. Biharamunean, argitu zuenean, Phasurrek atheratu zuen Jeremias presondegitik, eta Jeremiasek erran zaroen: Jaunak etzaitu gehiago deitzen Phasur, bainan Orotarik-beldur.

4. Ezen hau dio Jaunak: Huna non emanen zaituztedan beldurrari, hi, eta hire adiskide guziak; eta hekiek eroriko dira beren etsaien ezpataren azpira, eta hire begiek ikhusiko dute; eta Juda guzia arthikiren dut Babilonako erregeren eskuetara; eta harek eramanen ditu Babilonara eta ezpataz joko ditu.

5. Eta emanen ditut hiri huntako ontasunak oro, eta hunen lan guzia eta baliostasun guziak, eta Judako erregeen khutxetako aberastasunak oro; emanen ditut hekien etsaien aztaparretara; eta harrapaturen dituzte; eta hartuko eta Babilonara eramanen dituzte.



6. Hi berriz, Phasur, eta hire etxeko guziak, gathibu goanen zarete; eta goanen zarete Babilonara; eta hi eta hire adiskide guziak, zeinei gezurra profetisatu baitiotek, han hilen eta han ehortziko zarete.

7. Eskuratu nauzu, Jauna, eta ethorri natzaitzu; hazkarrago izan zare, eta nausitu zare; egun guzian irrigarri ibili naiz; orok eskarniatu haute;

8. Zeren aspaldidanik mintzo bainaiz, ixtakeriaz oihu, eta xahupenaz deihadar eginez; eta enetzat Jaunaren hitza bilhakatu da laido eta eskarnio bide egun guzian.

9. Eta erran dut: Ez naiz Jaunaz orhoituko, eta ez naiz gehiago haren izenean mintzaturen: eta ene bihotzean egin da hala-nola su bat erretzen duena, eta ene hezurretan sarthua; eta ezin jasanez, iraungi naiz.

10. Ezen aditu ditut hainitzen irainak, eta ikhusi laztura inguruan. Eta gizon guzietarik, enekin bakean bizi eta ene aldaketan zaudezenetarik, aditu dut: Egiozue ondotik eta jarraikiko gataizkio; hean nolazbait enganatuko den, hean nausituko aren horren kontra eta hortarik ardietsuko dugun asperkunde.

11. Jauna ordean enekin da, gerlari hazkar bat iduri; horren gatik hiri ondotik egiten darotatenak eroriko dira; hebain izanen dira; ahalke gaitzaz dira estaliko, zeren adimenduz ez baitute ardietsi nolakoa den bethirainoko laido behinere ezeztatzen ez dena.

12. Eta zuk, armadetako Jauna, prestuaren frogatzailea, bihotzak eta barneak ikhusten ditutzuna; egizu, othoi, ikhus dezadan zure asperkundera hekien gainean; ezen zure aitzinean agertu dut ene zuzena.

13. Jaunari kanta diotzotzue kantikak, lauda zazue Jauna, zeren gaixtaginen aztaparretik atheratu duen beharraren bizia.

14. Madarikatua ni sortu naizen eguna; ene amak mundurat eman nauen eguna ez bedi izan benedikatua.

15. Madarikatua gizona, ene aitari berria ekharri izan dioena, erranez: Muthiko bat sorthu zaitzu; eta bozkarioz bezala bethe duena.

16. Gizon hura izan bedi Jaunak xahutu dituen hiriak bezala, eta ez baitzaio urrikitu: Adi beza goizean marraska, eta eguerditan orrobia;

17. Zeren ez nauen amaren sabelean hil, ene amaren sabela izan zadientsat ene hobia, eta geldi zadien bethiraino izorra.

18. Zertako ilkhi naiz ene amaren sabeletik, nekhe eta oinhaze ikhus-teko, eta ahalkepean ene egunen higatzeko?

## XXI. KAP.

1. Jaunaren ganikako solasa Jeremias, Sedezias erregeak hunen gana igarri zituenean Phasur, Melkiasen semea, eta Sophonias apheza: Maasiaren semea, zioelarik:

2. Nola Nabukodonosor, Babilonako errege, gure kontra gudukatzen baita, galda diozozu Jaunari, hean gure alde ez duen eginen ohiko bere sendagaila guzian arabera, eta etsaia gutarik gibelatuko denez.

3. Eta Jeremiasek erran zioten: Hunela mintzatuko zarete Sedezias:

4. Hau dio Jaunak, Israelgo Jainkoak: Huna non bihurturen ditudan nik zuen eskuetan diren gerlako tresnak, zeinekin gudukatzen baitzarete Babilonako erregeren kontra, eta zuen harrasienguruan sethiatzen zaituzten Kaldearren kontra; eta harma horiek bilduko ditut hiri hunen erdira.

5. Eta nik gudukaturen zaituztet esku hedatuaz eta beso hazkarraz, ene irakiduran, ene gaitziduran eta ene hasarre handian.

6. Eta joko ditut hiri huntako egoilarrak; gizonak eta abereak izurrite gaitzaz hilen dire.

7. Eta horien ondotik, Jaunak dio: Arthikiren ditut Sedezias, Judako errege, eta haren zerbitzariak, eta haren populua, eta izurriteak, ezpatak eta goseteak utzi dituzketenak, Babilonako errege Nabukodonosorren eskura, eta beren etsaien eskura, eta bizia khendu nahiz darraizkotenen eskura; Nabukodonosorrek ezpataren ahotik iraganen ditu, eta ez da hautsiko, ez du guphidetsiko eta ez da urrikalduko.

8. Eta populuari hau errozu: Huna zer dioen Jaunak: Huna non ematen ditudan zuen aitzinean bizitzerako bidea eta heriotzerako bidea.

9. Hiri huntan egonen dena hilen da ezpatatik, gosetetik edo izurritetik ilkhiko dena, berriz, eta sethiatzen zaituztetenen Kaldearren gana ihes goanen dena, biziko da, eta bere bizia izanen du, gauza harrapatu bat bezala.

10. Ezen ene begiak hiri hunen gainean ezarri ditut gaixtorako, eta ez onerako, dio Jaunak; arthikia izanen da Babilonako erregeren eskura, eta harek suz erreko du.

11. Eta Judako erregeren etxeari errozu: Adi zazu Jaunaren hitza,

12. Dabiden etxea; hau dio Jaunak: Goizetik emozue zuzenari bere bidea, eta zaphatzailearen aztaparretik athera zazue zaphatua dena; ene gaitzidura ilkhi dadien beldurrez su bat bezala, eta garretan jar dadien, eta nihor hura iraungituren duenik izan ez dadien beldurrez, zuen asmuen maltzurria gatik.



13. Huna non heldu natzainan, haran hazkar eta zelhaiaren gainean hagoen hiria, dio Jaunak. Baderrazue: Nork gu jo, eta nor sar gure etxeetara?

14. Eta ni ethorriren natzaitzue zuen asmuen sariaren ematera, dio Jaunak Jerusalemgo oihanean bizturen dut sua, eta oro erreko ditu haren inguruan.

## XXII. KAP.

1. Hau dio Jaunak: Jauts zaite Judako erregeren etxera, eta han atheratuko duzu solas hau;

2. Erranen duzu: Judako errege, Dabiden tronuan jartzen zarena, adi zazue Jaunaren hitza zuk eta zure zerbitzariak, eta zure populuak, athe haukietarik sartzen zaretenek.

3. Hau dio Jaunak: Zuzenari emozue bere bidea, zuzentasunean ibil zaitezte, eta indarrak zaphatua dadukana zaphatzailearen eskutik athera zazue ez eman atsekaberik arrotzari, umezurtzari eta alhargunari, eta ez zapha bidegabezki, eta ez ixur toki huntan odol hobengabea.

4. Ezen baldin gauza hori egiten baduzue, etxe huntako atheetarik sarthuren dire Dabiden odoleko erregeak, haren tronuan jarriko, orgalaster eta zaldien gainera iganen direnak, berak eta beren zerbitzariak eta populua.

5. Baldin ez bazintuzte solas haukiek entzuten, ene buruaz zin egin dut, dio Jaunak, jauregi hau mortu izanen dela.

6. Ezen hau dio Jaunak Judako erregeren jauregiar: Ene aitzinean hintzen Galaad bezala, Libanen kaskoa bezala: ez bahaut mortu egiten... nihor egon ez daitekeen bezala ez baditut hiriak ezartzen...

7. Sainduetsiren ditut hire kontra hilka hariko den gizona eta haren harmak; arthikiko dituzte hire zedro hautak eta surat anbiduko.

8. Eta asko jendaki hiri huntarik iraganen dire, eta batak bertzeari erranen dio: Zergatik Jaunak egin dio hula hiri handi huni?

9. Eta ihardetsiko dute: Zeren utzi duten beren Jainko Jaunarekilako patua, eta jainko arrotzak dituzten adoratu eta zerbitzatu.

10. Hil denaren gainean nigarrak ez egin, haren gainean ez egin deithorerik; ilkhitzen denari egiozkitzue auhenak, zeren ez baita gehiago bihurturen, gehiago ez baitu bere sor-lekhua ikhusiren.

11. Ezen hau dio Jaunak Selumi, Josiasen seme Judako erregeri, bere aita Josiasen ondotik erreginatu denari, eta toki huntarik ilkhi denari: Ez da gaugergero hunai itzulirenen;

12. Bainan zein lekhitara ere eramanarazi baitut, han hilen da, eta lur hau ez du gehiago ikhusiko.

13. Zorigaitz bere etxea bidegabean eta bere selharuak makhurrean altxatzen dituenari; ariarik gabe bere adiskidea zaphatzen duenari, eta haren saria hari bihurtzen ez dioenari!

14. Dio: Altxaturen ditut etxe bat zabala eta selharu nasaiaik. Egiten ditu leiho asko, eta zedroz bobedak, eta eskarlataz gorritzen ditu.

15. Erreginaturen othe haiz, zedroz dukalakoak hire burua inguratzen? Hire aitak ez othe dik jan eta edan, zuzenari eman bere bidea eta zuzentasuna iduki, orotan orduan ongi atheratzen baitzen?

16. Bere onetan, beharraren eta buluzaren alde juiatu du; eta hori, ez othe ezagutzen ninduelakoak? dio Jaunak.

17. Hire begiak aldiz, jaramankeriara itzuliak dituk, hobengabeko odolaren ixurtzera, zaphaketara, eta gaixtakeriako urhatsetara.

18. Horren gatik hau dio Jaunak Judako errege Joakinez Josiasen semeaz: Ez dute deithoratuko, hunela mintzatuz: Zorigaitz! anaia; zorigaitz! arreba; zorigaitz! jauna; zorigaitz! gizon ospetsua.

19. Usteldua eta Jerusalemgo atheetarik kanporat arthikia, astoa ehorzten den bezala ehortziren dute.

20. Siongo alaba, igan hadi Liban gainera eta egizan deihadar: Basan guzian adiaraz zan hire marraska, iragaiten direnei egioten heiahora, zeren maite hindutenak xehakatuak baitire oro.

21. Mintzatu natzain hire nasaiziako egunetan, eta erran dun: Ez dut entzuten. Hori dun hire bidea hire gaztarotik, ez baitun nahi izan ene mintzoa aditu.

22. Haizez haziko ditun hire artzain guziak, eta hire maithatzaileak gathibu goanen; eta orduan ahalkatua geldituren haiz; gorriaraziko hau hire maltzurkeria guziak.

23. Libanen gainean jarria haizena, ohantzea zedroetan egiten duna, nolako intzirinak eginen ditunan ethorriko zaizkinean oinhazeak, erditzen hari denaren oinhazeak bezalakoak?

24. Zin egiten dut, dio Jaunak. Jekonias, Judako errege Joakinen semea, balitz ere erreztun bat ene esku eskuinean, khenduko dudala handik.

25. Eta arthikiren haut hire biziaren bilha dabilzanan eskuetara, eta hainen eskuetara zeinen begitharteak latzen baihu, eta Babilonako errege Nabukodonosorren eskuetara, eta Kaldearren eskuetara.

26. Eta igorriko zaituztet, hi eta hire ama bizia eman darokana, lur arrotz batera, zeinetan ez baitzarete sorthu, eta han hilen zarete.



27. Eta beren arimaz deitzen duten lurrera, harat bihurtu nahiz, ez dire behinere bihurturen.

28. Jekonias hori ez othe da lurrezko untzi hautsi bat? ez othe da deusetako on ez den utzi bat? Zertako dire iraziak hori eta horren ganikakoak ezagutzen etzuten lur batera?

29. Lurra, lurra, lurra, adi zazu Jaunaren hitza.

30. Hau dio Jaunak: Iskriba zazu gizon hori agor izanen dela, gizon bat bere bizian zorionik izanen ez duena; ezen horren ganik ez da atheratuko gizonik, Dabiden tronuan jarriko denik, eta Judean gehiago manamendua izanen duenik.

### XXIII. KAP.

1. Zorigaitz artzainei, zeinek galtzen eta xahutzen baitute ene alhapi-deko arthaldea! dio Jaunak.

2. Horren gatik, ene populua alhatzen duten artzainei hau diote Israelgo Jainko Jaunak: Barraiatu duzue ene arthaldea, irazi duzue, eta etzaizkote goan ikhustera; huna non ethorriko naizen ni zuen asmuen maltzurkeriaren ikhartzera, dio Jaunak.

3. Eta ene arthaldearen ondarrak bilduko ditut lur guzietarik, zeinetara irazi baititut; eta itzularaziko ditut beren landetara, eta berhatuz eta murrukatuz goanen dira.

4. Eta hekien gainera eraikiren ditut artzainak, eta alhaturen dituzte; ez dira gehiago izialduran eta ikharan izanen; eta moltzotik bat ez da bilhatu beharko, dio Jaunak.

5. Hara non heldu diren egunak, dio Jaunak, eta Dabidi eraikiren diot ondoko prestu bat; eta errege bat erreginauren da, eta zuhurra izanen da; eta lurraren gainean zuzenari emanen dio bere bidea eta zuzentasima begiratuko du.

6. Egun hekietan salbatua izanen da Juda, eta Israel deskantsu bethean egonen da; eta hau da errege hari emanen dioten izena: Jauna gure zuzena.

7. Horren gatik, huna, dio Jaunak, heldu dira egunak, eta ez da gehiagorik erranen: Bizi bedi Jauna, Israelgo umeak Egiptoko lurretik atheratu dituenak

8. Bainan: Bizi bedi Jauna, Israelen etxeko umeak atheratu eta erakharri dituenak ipharreko lurretik, eta lur guzietarik, zeinetara irazi bainituen! Eta beren lurrean egonen dira.

9. Profetei: Ene bihotza trenkatua da ene baithan; ikharatu dira ene hezurrak; egina naiz gizon hordi baten pare, eta arnoak nahasi duen gizona iduri, Jaunaren aitzinean eta haren hitz sailduen aitzinean.

10. Ezen lizunkeriak bethea da lurra; burhoen gatik nigarrez dago lurra, mortuko zelhaiak agor eginak dira; eta hekien urhatsa gaixtoa izan da eta hekien indarra behar ez-bezalakoa.

11. Ezen lohitu dira profeta eta apheza, eta hekien tzarkeriak aurkhitu ditut ene etxean, dio Jaunak.

12. Horren gatik hekien bidea izanen da linburtegi bat bezala ilhurban; ezen bulkhaturen dituzte eta han eroriko dira; asturugaitzak ezen ekharriren diozkatet gainera, ikhustera goanen natzaiotenean, dio Jaunak.

13. Eta Samariako profetetan ikhusi dut erhokeria; Baalen izenean profetisatzen, eta Israelgo ene populua enganatzen zuten.

14. Eta Jerusalemeko profetetan ikhusi ditut bertzeen emazteekin khutsatzen diren aztura berak eta gezurrerako urhatsak; eta gaixtaginen eskuak hazkartu dituzte, nihor etzadien bere gaixtakeriatik bihur: ene begietan guziak bilhakatu dira Sodoma iduri eta Jerusalem darrak Gomorha bezala.

15. Aria hortaz, dio armadetako Jaunak profetei: Huna non emanen diotedan zizari-belharra jatera, eta mina edatera; ezen Jerusalemgo profetarik galdukeria ilkhi da lur guziaren gainera.

16. Hau dio armadetako Jaunak: Zuei profetisatzen eta zuen enganatzen hari diren profeten solasak ez betzatzue entzun; erasten darozkitzue beren bihotzeko idurikeriak, eta ez Jaunaren ahotikako hitzak.

17. Ni burhoztatzen nautenei erraten diote: Jaunak erran du: Bakea izanen duzue; eta beren bihotzeko tzartasunean dabiltzanei, erran diote: Etzaitzue gaitza ethorriko gainera.

18. Bainan zein da Jaunaren kontseiluan izatu dena, eta ikhusi duena eta haren solasa aditu duena? Nork ikhusi du mintzatzen eta nork aditu du?

19. Hara non ilkhiko den Jaunaren hasarreko xirimola; eta phesiak, jauztean leher eginen du gaixtaginen buruaren gainera.

20. Jaunaren hats gogorak ez du gibelerat eginen, egin eta bethe dezan arteo haren bihotzeko asmua: azken egunetan ezaguturen duzue haren xedea.

21. Ez nituen nik igortzen profeta hekiek, berek laster egiten zuten; ez nintzaioten mintzatzen, berek profetisatzen zuten.

22. Baldin ene kontseiluan aurkhitu izan balire, eta baldin ene populuari ene hitzak ezagutarazi baliozkate, ilkhiaraziren nituen segurki beren bide tzarretik, eta beren gogoeta guziz gaixtoetarik.





23. Uste duzue Jainko naizela hurbiletik, dio Jaunak, eta ez naizela Jainko urrundik?

24. Gizona zokho itsuetan gordetzen bada, ez othe dut ikhusiko nik? dio Jaunak; nik ez othe ditut zeru-lurrak bethetzen? dio Jaunak.

25. Aditu ditut profeta hekiek erasi dituztenak, ene izenean gezurra profetisatuz, eta erranez: Amets egin dut, amets egin dut.

26. Noiz arteo holakoak izanen othe dira gezurra eta beren bihotze-ko liluramenduak profetisatzen dituzten profeten bihotzean?

27. Ene populuari hekiek ahantzarazi nahi diote ene izena beren amets ez, zeinak bakhotxak bere hurbilekoari erasten baitiozka; hala-nola Baalek hekien arbasoei ahantzarazi baitzaroeten ene izena.

28. Amets bat duen profeta, amets erraten hari bedi; eta ene hitza duenak, ene hitza zintasunean erran beza; lastoak zer ikhusteko du ogia-ekin? dio Jaunak.

29. Ene hitzak ez othe dire sua bezalakoak, dio Jaunak, eta harria xehakatzen duen mailu bat iduri?

30. Horren gatik, dio Jaunak, huna non bihurtzen natzaioten profetei, zeinek beren hurbilekoei estaltzen baitiozkate ene hitzak.

31. Huna non, dio Jaunak, bihurtzen natzaioten beren mihiak erabiltzen dituzten profetei, eta erraten dutenei: Jauna da mintzatu.

32. Huna non, dio Jaunak, bihurtzen natzaioten profeta gezur amesten hari direnei, hekien barraiatzen eta beren gezur eta sendagailez ene popularen zorazten hari direnei, nik igorri ez ditudalarik eta ez diotedalarik deusere manatu, eta zeinak ez baitire deusetako baliatu populu huni, dio Jaunak.

33. Baldin beraz populu horrek, edo profeta batek, edo aphez batek egiten badarotzu galde hau: Zer zaio Jaunari sorta? ihardetsiren diozute: Zuek zaizkote sorta: aria hortaz, dio Jaunak, iraziren zaituztet ene ganik.

34. Eta profeta, eta apheza, eta populua erranen duena: Jaunaren sorta, hainaren, eta haren etxearen ikhartzera goanen naiz.

35. Hau erranen diozute bakhotxak zuen lagunari eta zuen anaiari: Zer ihardetsi du Jaunak? zer erran du Jaunak?

36. Eta ez da gehiago aiphaturen Jaunaren sorta; zeren bakhotxak sortatzat izanen baitu bere solasa; eta gaizkirako baliatu baituzue Jainko biziaren, armadetako Jaunaren, gure Jainkoaren hitza.

37. Hau erranen diozu profetari: Zer ihardetsi du Jaunak? zer erran du Jaunak?

38. Erraten baduzue ordean: Jaunaren sorta; horren gatik, hau dio Jaunak: Erran duzelakotz hitz hau: Jaunaren sorta; nik zuetara igorri ondoan niolarik: Etzazuela erran Jaunaren sorta;

39. Aria hortaz, huna non eramanen zaituztedan sorta bat bezala, eta ene aitzinetik bazterrerat arthikiren zaituztet zuek eta hiria, zuei eta zuen arbasoei eman izan darotzuedana.

40. Eta ezarriko zaituztet bethiko laidotan, bethiko hidoi, orhoitza-penetik behinere ezeztaturen ez denean.

#### XXIV. KAP.

1. Jaunak eman zarodan ikhuspun bat; eta hara bi otharre pikoak betheak, Jaunaren tenplo aitzinean phausatuak, Nabukodonosorrek, Babilonako erregek, eramanez geroztik Jerusalemetik Babilonara Jekonias, Joakinen semea, Judako errege, eta haren-peko aitzindariak, eta ofiziale eta inginadoreak.

2. Otharre batek zituen piko hainitz onak, lehenbiziko aroko pikoak izaten ohi diren bezala; bertze otharreak zituen piko hainitz tzarrak, jan etzitazkeenak beren tzartasunaren ariaz.

3. Eta erran zarodan Jaunak: Zer ikhusten duzu, Jeremias? Eta ihardetsi nuen: Pikoak, piko onak, hainitz onak; eta piko tzarrak, hainitz tzarrak, jan ez ditazkeenak beren tzarrez.

4. Eta Jauna mintzatu zitzaitan, zioelarik:

5. Hau dio Jaunak, Israelgo Jainkoak: Piko haukiek onak diren bezala, ongitan ezaguturen ditut orobat Judako desherrituak, toki huntarik Kaldearren lurrera igorri ditudanak.

6. Eta ene begiak onez ezarriko ditut hekien gainean, eta bihurraraziko ditut toki huntara; eta hazkartuko ditut, eta ez xahutuko; eta landatuko ditut, eta ez atheratuko.

7. Eta emanen diotet bihotz bat ene ezagutzeko, ni Jauna bainaiz; eta izanen dire ene populu, eta ni izanen naiz horien Jainko; ezen ene gana bihurturen dire beren bihotz oroz.

8. Eta nola beren tzarrez jan ez baititazke bertze piko guziz tzar horiek, dio Jaunak; hala emanen ditut Sedezias, Judako errege, eta haren-peko aitzindariak, eta bertze Jerusalem dar hiri huntan gelditu direnak eta Egiptoko lurrean daudezenak.

9. Eta lurreko erresuma guziei emanen ditut jazar eta jasanaraz diozoten; laido, irribide, errankizun eta madarizionetan izanen dire lekhu guzietan, zeinetara nik baititut irazi.



10. Eta gainera igorriren diozkatet ezpata, gosetea eta izurritea xahutuak izan ditezen arteo hekiei eta hekien arbasoei eman izan diotedan lurretik.

### XXV. KAP.

1. Jeremiasi errana izan zaioen hitza Judako populu guziaz, Josiasen seme, Judako errege Joakinen laugarren urthean, hura baita Nabukodonosor Babilonako erregeren lehenbiziko urthea.

2. Jeremias profetak erran izan daroete hitz hura Judako populu guziari, eta Jerusalemgo egoiliarrei orori, zioelarik:

3. Amonen seme Josias, Judako erregeren hamahirugarren urthetik eta egungo eguna arteo, urthe hau hogoi eta hirugarrena da: ilkhi zait Jaunaren hitza, eta erran darotzuet, gauaz jaikiz eta mintzatuz, eta ez nauzue entzun.

4. Eta Jaunak igorri darozkitzue profeta bere zerbitzari guziak, goizik jaikiz eta bidaliz; eta ez duzue entzun, eta entzuteko ez dituzue beharriak makhurtu,

5. Zioenean: Batbedera itzul zaitzte zuen bide tzarretik eta zuen gogoeta gaixtoetarik; eta menderen mendetan egonen zarete Jaunak zuei eta zuen arbasoei eman lurrean.

6. Eta ez goan jainko arrotzen ondotik, hekien zerbitzatzeko eta adoratzeko; eta ez benezazue hasarretzera ekhar zuen eskuetako eginkariez, eta etzaituztet atsekabetan ezarriko.

7. Eta ez nauzue entzun, dio Jaunak, ni hasarretzera ekhartzeko zuen eskuetako eginkariez, zuen gaitzetan.

8. Aria hortaz dio armadetako Jaunak: Zeren ez ditutzuen entzun ene hitzak,

9. Huna non hartuko eta igorriko ditudan, dio Jaunak, ipharreko jendaki guziak, eta Nabukodonosor, Babilonako errege, ene zerbitzaria; eta erakharriren ditut lur hunen gainera, eta hemengo egoiliarren gainera, eta hunen inguruan diren jendaia guzien gainera, hilen ditut eta ezarriren haukiek guzien harrigarri eta irrigarri, eta bethikotzat mortu.

10. Eta horien ganik galaraziko ditut atseginezko oihuak eta bozkariozko irrintzinak, jaun esposaren kantua eta andre esposarena, ihararriaren harrabotsa eta kriseluaren argia.

11. Eta lur hau guzia izanen da mortu eta ororen lazgarri, eta jendaia horiek guziek hirur hogoi eta hamar urthez zerbitzaturen dute Babilonako errege.

12. Eta hirur hogoi eta hamar urtheak betheak ditazkeenean, begiak ekharriren ditut, dio Jaunak, Babilonako erregeren gainera, eta populu haren gainera, hekien gaixtakeriaren gainera, eta Kaldearren lurraren gainera; eta hura eginen dut bethikotzat mortu.

13. Eta lur haren gainera eraikiren ditut haren kontra erran ditudan hitz guziak eta liburu huntan iskribatua dena oro, Jeremiasek jendaian kontra profetisatu dituen guziak;

14. Alabainan jendaia asko eta errege handiak ziren arren, zerbitzatu dituzte Kaldearrak; eta bihurturen diotet beren eginkarien eta beren eskuetako lanen arabera.

15. Ezen han dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Ene eskutik har zazu ene hasarrearen arnoaz bethea den untzi hau; eta huntarik edanaraziren diozute jendaki guziei, zeinetara igorriko baitzaitut.

16. Eta edanen dute, eta nahasiko dira; eta hekien erdira igorriren dudan ezpataren aitzinean burutik jauziko dira.

17. Eta Jaunaren eskutik hartu nuen untzia, eta edanarazi nioten jendaia guziei, zeinetara igarri baininduen Jaunak;

18. Jerusalemmeri, Judako hiriei, hango errege eta buruzagiei; hekiek ezartzeko mortu eta guzien lazgarri, irrigarri eta madarikagarri, egungo egunean diren bezala;

19. Faraoni, Egiptoko erregeri, haren zerbitzari eta aitzindariari eta populu guziari;

20. Eta arrontean guziei; Ausit-herriko errege guziei, Filistin-herriko errege guziei, Askaloni, Gazari, Akaroni, eta Azotar ondarrei;

21. Idumeari, Moabi eta Amonen umeei;

22. Tirreko errege guziei, Sidongo errege guziei, eta itsasoz haindian diren irletako errege guziei;

23. Dedani, Themari, Buzi eta buruak murriztuak dituzten guziei;

24. Eta Arabiako errege guziei, eta mendebaleko errege mortuan egoten diren guziei;

25. Eta Zانبriko errege guziei, Elamgo errege guziei eta Mediarren errege guziei;

26. Ipharreko errege guziei ere, dela hurbilekoak, dela urrungoak, bakhotxari bere anaiaen kontra; eta lurraren gaineko errege guziei; eta Sesakeko erregek edanen du hekien ondotik.

27. Eta erranen daroezu: Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Edazue, eta hordi zaitzte, eta goiti egizue; eta eror zaitzte, eta ez jaiki, nik zuen erdira igorriko dudan ezpataren aitzinean.



28. Eta zure eskutik ez balute hartu nahi untzia edateko, erranen daroezu: Hau dio armadetako Jaunak: Zankaka edanen duzue;

29. Ezen huna non abiatuko dudan atsekabea ene izena deithua den hirian eta zuek, hobengabeak iduri, salbu zintazkete? Etzarete salbu izanen; ezen deitzen dut ezpata lurreko egoiliar guzien gainera, dio armadetako Jaunak.

30. Ela profetisaturen diozkatzute horiek oro, eta erranen diozute: Jaunak orroa eginen du zeru-gorarik, eta bere egoitza saindutik adiaraziko du bere mintzoa; orroaz abiatuko da bere ospeko tenploaren gainera; eta marruma bat, lakoko lehertzaileena iduri, jauziko da lurreko egoiliar guzien kontra.

31. Harrabotsa helduko da lurraren bazterretaraino, Jauna juiamendutan sartzen delakotz jendaiekin; berak juiatuko ditu gizon guziak. Ezpatari eman diozkat gaixtaginak, dio Jaunak.

32. Hau dio armadetako Jaunak: Huna non atsekabea atherako den jendaiatik jendaiara, eta xirimola gaitz bat ilkhiko da lurraren buruetarik.

33. Eta egun hartan Jaunaren hilak izanen dire lurraren buru batetik bertze bururaino; ez dire deithoratuak izanen, ez bilduak, ez ehortziak; gorotza bezala lurraren gainean etzanak egonen dire.

34. Artzainak, egizue oihu eta orrobia; arthaldeko buruzagiak, hautsez estal zaitezte; zeren betheak baitira zuen egunak, hilak izateko; betheak, zuen barriatzeko egunak; eta eroriko zarete hala-nola untzi balios baitzu.

35. Eta ihesbidea galduko da artzaintzat, itzulpidea arthaldeko buruzagientzat.

36. Artzainen deihadarra, arthaldeko buruzagien orrobia; zeren Jaunak xahutu dituen hekien alhapideak.

37. Bakezko landak ixil gelditu dire Jaunaren hasarreko irakiduraren aitzinean.

38. Lehoin batek bezala utzi du bere itzalpea; ezen usoaren hasarreak eta Jaunaren ephako irakidurak desmasian ezarri dute hekien lurra.

### XXVI. KAP.

1. Joakin, Josiasen semea, Judako errege, erreginatzen hasi zenean, Jaunak solas hau atheratu zarodan, zioelarik:

2. Hau dio Jaunak: Jar zaite Jaunaren etxeko lorioan, eta Judako hirietarik Jaunaren etxean adoratzera heldu diren guzietatik nik hekiei erreteaz manatu darozkitzudan solas guziak; hitz bakhar bat ez gorde;

3. Hean gerthakariz entzunen duten, eta itzuliko diren zein bere bide tzarrerrik; eta beren asmuetako maltzurkeriaren gatik hekiei egiteko burutan derabiladan gaizkia urriki dakidan.

4. Eta erranen daroezu: Hau dio Jaunak: Ez banauzue aditzen, ene lege eman darotzuedanean ibiltzeko;

5. Aditzeko ene zerbitzari profeten solasak, gauaz jaikiz eta bidatzuz igorri baitarozkitzuet, eta ez baititutzue entzun;

6. Silo bezala emanen dut etxe hau, eta hiri hau madarizionetan emanen diotet lurreko jendaia guzietan.

7. Eta aphezak, eta profetek, eta populu guziak aditu zuten Jeremias solas horien erraten Jaunaren etxean.

8. Eta Jeremiasek akhabatu zituen Jaunak populu guziari errateaz manatu ziozkanak oro, aphezak, profetak eta populu guzia lothu zitzaizkon, ziotelarik: Heriotzez hil bedi.

9. Zertako profetisatu du Jaunaren izenean, erranez: Etxe hau Silo bezala izanen da; eta hiri hau desmasiatua izanen da, egoiliar bat ez dukeen bezala? Eta populu guzia Jeremiasen kontra bildu zen Jaunaren etxera.

10. Eta Judako buruzagiek gauza horiek aditurik, erregeren etxetik Jaunaren tenplora igan ziren, eta jarri ziren Jaunaren tenploko athe berriaren sartzean.

11. Eta aphezak eta profetak buruzagiei eta populu guziari mintzatu ziren, ziotelarik: Heriotzezko juiamendua merezi du gizon hunek, zeren hiri hunen kontra profetisatu baitu, zuen beharrez aditu duzuen bezala.

12. Eta Jeremiasek, aitzindari guzietan eta populu guziari mintzatu, erran zuen: Jaunak igorri nau etxe huni eta hiri huni profetisatzera aditu ditutzuen hitzak oro.

13. Orain beraz ontzatzue zuen bideak eta zuen lehiak, eta entzun zazu zuen Jainko Jaunaren mintzoa; eta Jaunari urrikituren zaio zuen kontra dixidatu duen gaitza.

14. Ni aldiz, huna zuen eskuetan naiz; egizue zuen begietan ongi eta zuen dena.

15. Jakizue bizkitartean eta ezagutzue, ni hiltzen banauzue, hobengabeako odola emanen duzuela zuen buruen kontra, hiri hunen kontra eta huntan daudezenen kontra. Ezen egiazki Jaunak igorri nau zuen gana, zuen beharrietara heltzeko hitz haukiei oro.

16. Eta aitzindariak eta populu guziak erran zioten aphezei eta profetei: Gizon hau ez da heriotzezko juiamenduaz merezdun, zeren gure Jainko Jaunaren izenean mintzatu baitzaikigu.



17. Jaiki ziren beraz tokiko zaharretarik gizon batzu, eta populuko bilkhu guziari mintzatu, erran zuten:

18. Judako errege Ezekiasen egunetan, Mikeas Morasthikoa profeta zen, eta Judako populu guziari mintzatu zen, zioelarik: Hau dio armadetako Jaunak: Sion iraulia izanen da landa bat bezala, eta Jerusalemeharri murru bat izanen da, eta tenploko mendia oihan gora bat.

19. Heriotzera kondenatu othe zuten Judako errege Ezekiasen eta Juda guziak? ez othe ziren Jaunaren beldur izan, eta ez othe zuten Jaunaren begithartea errekeitu? eta Jaunari urrikitu zitzaioen hekien kontra atheratu zuen dixidua. Horreletan beraz guk gaizki handi bat egiten dugu gure arimen kontra.

20. Bazen bertze gizon bat ere, Urias, Semeiren semea, Kariathiarimgoa, Jaunaren izenean profetisatzen zuena. Profetisatu izan zuen hiri hunen eta lur hunen kontra, Jeremiasen hitz guzien arabera.

21. Joakin erregeak, eta handi guziek, eta haren-peko aitzindariak aditu izan zituzten solas hekiek; eta erregek bilhatu zuen haren hiltzea. Eta Uriasek aditu zuen, eta izitu zen; ihes egin zuen eta Egiptoan sarthu zen.

22. Eta Joakin erregeak gizonak igorri zituen Egiptora; Elnathan, Akoborren semea, eta gizonak harekin igorri zituen Egiptora.

23. Eta Egiptotik atheratu zuten Urias, eta Joakin erregearen aitzinera erakharri zuten; erregek sarthu zioen ezpata, eta arthikarazi zuen haren gorphutza jende xehearen hobietara.

24. Saphanen seme Ahikamen eskua Jeremiasen alde altxatu zen beraz, etzadientzat izan populuaren eskuetara emana, eta hila.

## XXVII. KAP.

1. Joakin, Josiasen semea, Judako errege, abiatu zenean erreginatzen, Jaunak hitz hau atheratu zaroen Jeremias, zioelarik:

2. Hau derrat Jaunak: Egizkitzu estekak eta gatheak, eta ezarriren ditutzu zure lephoan.

3. Eta igorriren ditutzu Edomgo erregeri, Moabeko erregeri, Amonen umeen erregeri, Tirreko erregeri eta Sidongo erregeri; Jerusalemehar, Judako errege Sedeziasen gana ethorri diren bidalkinen arartekoz.

4. Eta manaturen diozute erran diozoten beren nausiei: Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Hau erranen diozute zuen nausiei:

5. Nik egin ditut lurra, gizonak eta lurraren gainean diren abereak, ene indar handiaz eta ene beso hedatuaz; eta ene begien gogarako zenari eman izan diot lurra.

6. Eta hargatik orai lur haukiek oro ezarri ditut Nabukodonosor, Babilonako errege, ene zerbitzariaren eskuetan; bertzalde bazterretako abereak ere eman diozkat, zerbitza dezaten.

7. Eta jendaia guziek zerbitzatuko dute hura, eta haren semea, eta semearen semea, haren eguna eta haren lurraren eguna ethor dadien arteo; eta asko jendakik eta errege handik zerbitzatuko dute.

8. jendakia berriz, eta erresuma zerbitzatuko ez dutena Nabukodonosor, Babilonako errege, eta Babilonako erregeren uztarriaren azpira lephoa makhurtuko ez duten guziak, ezpataz, goseteaz eta izurriteaz ikhuskaturen dut jendaki hura, dio Jaunak, Nabukodonosorren eskuz iraungi dezadan arteo.

9. Zuek beraz ez entzun zuen azti, amets-egile, zelatari eta gaizkinak, zeinek erraten baitarotzute: Ez duzue zerbitzatuko Babilonako errege;

10. Ezen gezurra profetisatzen darotzute, zuen urruntzeko eta irairazarteko zuen lurretik eta zuen galarazteko.

11. Aldiz jendakia, zeinak burua beheitituko baitu Babilonako erregeren uztarriaren azpira, eta hura zerbitzatuko baitu, haina utziko dut, dio Jaunak, bere lurrean, eta lanthuko du eta hartan egonen da.

12. Judako errege Sedezias ere hitz horien ororen arabera mintzatu natzaio, erranez: Aphal zatzue lephoak Babilonako erregeren uztarriaren azpira, zerbitza zazue hura eta haren populua eta biziko zarete.

13. Zertako hilen zarete zu eta zure populua ezpataz, goseteaz eta izurriteaz, Jaunak erran duen bezala Babilonako errege zerbitzatu nahiko ez duen jendaiaz?

14. Ez entzun profeta erraten darotzutenak: Ez duzue zerbitzatuko Babilonako errege; ezen gezurrez mintzo zaizkitzue.

15. Ez ditut nik igorri, dio Jaunak, berak hari dira gezurrez ene izenean profetisatzen, zuen irairazarteko eta galarazteko, hala zuek nola zuei profetisatzen duten profetak.

16. Aphezei ere eta populu huni mintzatu natzaiote, niotelarik: Hau dio Jaunak: Ez entzun zuen profetak, zeinek profetisatzen baitarotzute, erranez: Huna non Jaunaren unzia bihurtuko diren orai laster Babilonatik; ezen gezurra profetisatzen darotzute.

17. Ez beraz entzun hekiek, baina zerbitza zazue Babilonako errege, bizi zaiteztentzat, zertako eman hiri hau mortu egitera?



18. Eta profetak balin badira hekiek, eta Jaunaren hitza hekien bait-han balin bada; armadetako Jaunari trebesera ilkhi bekizkio, ez ditezen Babilonara eramanak izan Jaunaren etxean eta Judako erregeren etxean utziak izan diren untziak.

19. Ezen hau diote armadetako Jaunak habeei, itsasoari, habe-oineri eta gainerako tresna hiri huntan gelditu direnei;

20. Zeinak ez baitzituen hartu Babilonako errege Nabukodonosorrek, Jerusalemdik Babilonara eraman zituenean Jekonias, Joakinen semea, Judako errege, eta Judako eta Jerusalemeko handiak;

21. Ezen hau erraten diote armadetako Jaun, Israelgo Jainkoak, Jaunaren etxean, Judako erregeren etxean eta Jerusalemen utziak izan diren tresnei:

22. Babilonara eramanak izanen dira eta han egonen dira beren ikharpeneko eguna arteo, dio Jaunak; eta gibelerat ekharraraziko eta toki huntan berriz ezarraraziko ditut.

### XXVIII. KAP.

1. Eta urthe hartan, Judako errege Sedeziasen erreinu-hastean, laugarren urthean, bortzgarren hilabetean gerthatu zen mintzatu zitzaitala Hananias, Azurren semea, Gabaondar profeta, Jaunaren etxean, aphezen eta populu guziaren aitzinean, zioelarik:

2. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Trenkatu dut Babilonako erregeren uztarria.

3. Oraino bi urthe, eta nik toki huntara bihurraraziko ditut Jaunaren etxeko untzi guziak, Nabukodonosor, Babilonako erregek lekhu huntarik hartu eta Babilonara eraman dituenak.

4. Eta Jekonias, Joakinen semea, Judako errege, eta Judako desherri-tu guziak, Babilonan sarthu direnak, nik lekhu huntara bihurraraziren ditut, dio Jaunak; trenkaturen dut ezik Babilonako erregeren uztarria.

5. Eta Jeremias profetak Hananias profetari ihardetsi zioen Jaunaren etxean zauden aphez eta populu guziaren aitzinean;

6. Eta Jeremias profetak erran zuen: Halabiz; hola egin beza Jaunak; Jaunak eraik betza zuk profetisatu hitzak, Babilonatik gibelerat lekhu huntara erakharriak izan ditezen untziak, eta desherritu guziak.

7. Guzia gatik adi zazu hitz hau, zure beharrietara eta populu guziaren beharrietara erraten dudana:

8. Zu eta ni baino lehen hastapenetik izatu diren profetek ere lur askorentzat eta erresuma handientzat profetisatu dituzte gudu, atsekabe eta izurriteak.

9. Bakea profetisatzen duen profeta, haren hitza bethetzen denean jakinen da hean den profeta, egiazki Jaunak igorria.

10. Eta Hananias profetak Jeremias profetaren lephotik hartu zuen gathea eta trenkatu zuen.

11. Eta Hananias profetak erran zuen populu guziaren aitzinean: Hau dio Jaunak: Bi urtheren buruan, jendaia guzien lephotik horrela trenkatu- ren dut Babilonako errege Nabukodonosorren uztarria.

12. Eta Jeremias profeta goan zen bere bidean. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaioen Jeremias, Hananias profetak Jeremias profetaren lephotik gathea hautsi zuen ondoan; eta erran zioen:

13. Zoaz eta errozu Hananias: Hau dio Jaunak: Hautsi dituk zurezko gatheak, eta horien ordain eginen dituk burdinazkoak.

14. Ezen hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Burdinazko uztarri bat ezarri dut jendaia horien ororen lephoan, zerbitza dezaten Nabukodonosor, Babilonako errege, eta zerbitzatuko dute: bertzalde oraino eman diozkat lurreko abereak.

15. Eta Jeremias profetak erran zioen Hananias profetari: Adi zazu, Hananias: Etzaitu Jaunak igorri zu, eta populu huni gezurrean harrarazi diozu sinheste.

16. Aria hortaz hau dio Jaunak: Huna non khenduko zaitudan lurraren gainetik; urthe huntan hilen zare, Jaunaren kontra zarelakoz mintzatu.

17. Eta Hananias profeta hil izan zen urthe hartan, zazpigarren hila- bethetan.

### XXIX. KAP.

1. Haukiek dira hitzak, Jeremias profetak Jerusalemdik igorri gutune- koak, desherrituen arteko zaharondarrei, aphezei eta profetei, eta Nabukodonosorrek Jerusalemdik Babilonara eraman zuen populu guziari;

2. Jekonias erregea, erregina, ebakiak, Judako eta Jerusalemgo aitzin- dariak, ofiziale eta inginadoreak Jerusalemdik ilkhi ziren ondoan.

3. Nabukodonosor, Babilonako erregeri, Judako errege Sedeziasen Babilonara igorri ziozkan Elasa, Saphanen semea, eta Gamarias, Helziasen semea, eta hekien eskuz Jeremiasek bidali gutunak zioen:

4. Hau dio Jaunak, Israelgo Jainkoak, desherritu guziei, Jerusalemdik Babilonara nik eramane:

5. Egizkitzue etxeak, eta hekietan zaudezte; egizkitzue baratzeak, eta jan zatzue hekietako fruituak.



6. Har zatzue emazteak, izan zatzue semeak eta alabak, zuen semeei emotzue emazteak, eta zuen alabei senharrak, eta izan betzazte semeak eta alabak; eta berha zaitzte hor, eta etzaitzela izan moltzo aphurra.

7. Eta bakea bilha zazue hiriarentzat, zeintara nik herraldatu baitzaitzuet; eta harentzat othoitz egiozue Jaunari, zeren haren bakean izanen baita zuen bakea.

8. Ezen hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Ez bezaitzazte eskura zuen profeta, zuen artean direnek, eta zuen aztiek, eta betzaitze begira egiten dituzuen ametsei;

9. Zeren gezurrez profetisatzen baitarozuete ene izenean zuen profetek, eta ez baititut nik igorri, dio Jaunak.

10. Alabainan hau dio Jaunak: Hirur hogoi eta hamar urthe bethetzen hasiko direnean Babilonan, ethorriko natzaitzue ikhustera; eta zuen gainera eraikiren dut ene hitz ona, zuen bihurrazteko lekhu huntara.

11. Ezen, dio Jaunak, nik badakizkit zuen gainean derabilzkadan asmuak, bakezko asmuak, eta ez atsekabezkoak, zuei emateko akhabantza eta jasangortasuna.

12. Eta dei eginen darotazue, eta herrira bihurturen zarete; othoitz eginen darotazue, eta nik entzunen zaitzuet.

13. Bilhaturen nauzue; eta atzemanen nauzue, zuen bihotz oroz bilhatuko nauzuenean.

14. Eta zuetaz aurkhitua izanen naiz, dio Jaunak; eta bihurraziren zaitzuet zuen gathibutasunetik, eta bilduren zaitzuet jendaia guzien arteik eta lekhu guzietarik, zeinetara irazi baitzaitzuet, dio Jaunak; eta bihurraziren zaitzuet herraldarazi zaitzutedan tokitik,

15. Zeren erran duzuen: Jaunak eraiki darozkigu profetak Babilonan.

16. Ezen hau dio Jaunak Dabiden tronuan jarria den erregeari, eta hiri huntan dagon populu guziari, zuen anaia zuekin herraldara ilkhi ez direnei:

17. Hau dio armadetako Jaunak: Huna non igorriren diozkatedan ezpata, gosetea, izurritea; eta tzarraren tzarrez jan ez ditazkeen piko gaixtoen pare ezarriren ditut.

18. Eta jarraikiren natzaiote ezpatarekin, gosetearekin eta izurriarekin; eta lureko erresuma guziei emanen diozkatet kalika erabiltzera; eta jendaia guziei, zeinetara irazi baititut, emanen diozkatet madarikagarri, lazgarri, trufagarri eta laidagarri;

19. Zeren ez duten entzun ene hitza, dio Jaunak, ene zerbitzari profetez igorri diotedana gauaz jaikiz eta bidaliz; eta ez baitute entzun, dio Jaunak.

20. Zuek beraz, Jerusalemdik Babilonara igorri zaitzutedan herraldatu guziek adi zazue Jaunaren hitza.

21. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak, Akabi, Koliasean semeari, eta Sedezias, Maasiasen semeari, zeinak gezurrez ene izenean profetisatzen baitarotzue: Huna non arthikiren ditudan Babilonako errege Nabukodonosorren eskuetara, eta harek hilaraziko ditu zuen begien aitzinean.

22. Eta Babilonan diren Judako desherritu guziek hekiatarik hartuko dute burho bat, erranez: Jaunak egin bezala Sedezias eta Akab bezala, zeinak suan kiskaildu baitzituen Babilonako errege;

23. Zeren erhokerian haritu ziren Israelen, eta khutsatu ziren beren adiskideen emazteekin, eta gezurrez ene izenean erran zuten nik manatu ez naroteten solasa: ni naiz juie eta lekhuko, dio Jaunak.

24. Eta erranen diozu Semeias Nehelamdarrari:

25. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Zeren gutunak hire izenean igorri ditukan Jerusalem den populu guziari, eta Maasiasen Seme Sophonias aphezari, eta aphez guziei, hiniolarik:

26. Jaunak ezarri zaitu aphez, Joiada aphezaren lekhu, Jaunaren etxean mana dezazun gizon jauzi eta profetisatzen duen edozeinen gainean, haren igortzeko burdinetara eta presondegira.

27. Eta orai zergatik ez duzu larderiatu Jeremias Anathotarra, zuei profetisatzen duena?

28. Ezen Babilonara igorri daroku solas hunen gainean, dioelarik: Luzez etzarete itzuliren: egizkitzue etxeak, eta hekiatan zaudezte; egizkitzue baratzeak, eta jan zatzue hekiatiko fruituak.

29. Sophonias aphezak beraz gutun hori irakurtu zuen Jeremias profetaren aitzinean:

30. Eta Jaunaren hitza Jeremias ilkhi zitzaioen, zioelarik:

31. Bidalazu desherritu guziei, erranez: Hau dio Jaunak Semeias Nehelamdarrari: Zeren Semeias profetisatu darotzueten, nik igorri gabe, eta gezurrean harrarazi darotzueten sinheste;

32. Hargatik hau dio Jaunak: Ikharturen dut Semeias Nehelamdarra eta haren ganikako odola; ez da gizonik haren ganik izanen populu hunen erdian jarriko denik, eta ez du ikhusiko nik ene populuari eginen diodan ongia, dio Jaunak; zeren gezurrez mintzatu den Jaunaren kontra.

### XXX. KAP.

1. Jaunak solas hau eman zaroen Jeremias, zioelarik:



2. Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Liburu batean iskriba zatzu nik erran darozkitzudan hitz guziak.
3. Ezen, dio Jaunak, huna non heldu diren egunak; eta bihurraziren dut Israelgo eta Judako ene populua, dio Jaunak, eta bihurraziren ditut hekien arbasoei eman izan diotedan lurrera, eta hartaz gozaturen dire.
4. Eta haukiek dire hitzak Jaunak Israeli eta Judari erran daroeztenak:
5. Ezen hau dio Jaunak: Entzun dugu izialdurazko deihadarra: laz-dura da, eta ez bakea.
6. Galda eta ikhusazue hean gizona erditzen den; zertako, bada, ikhusten ditut, erdi-minetan dena bezala, beren sahetsei lothuak, eta begitharte guziak ubeldurara itzuliak?
7. Zorigaitz! Ezen handia da egun hura, eta haren idurikorik ez da; eta da Jakob en hesturako eguna, eta hartarik ere salbaturen da.
8. Eta hau izanen da egun hartan, dio armadetako Jaunak: zathikatur dut zuen lephotik etsaien uztarria, eta trenkaturen ditut haren estekak, eta arrotz ez da gehiago zuen gainean nausi izanen.
9. Bainan zerbitzaturen dute beren Jainko Jauna, eta Dabid, beren erregea, nik orduan eraikiren diotedana.
10. Ez beraz beldur izan zu, Jakob, ene zerbitzaria, dio Jaunak; ez izi, Israel; ezen huna nik atheraturen zaitudala urrungo lurretik, eta zure umeak ere beren gathibutasuneko lurretik; eta Jakob itzuliren da; phausaturen da, eta ontasun guzien erdian izanen da igeri, eta nihor ez da izanen haren izitzeko;
11. Zeren, dio Jaunak, zurekin bainaiz zure salbatzeko; ezik xahuturen ditut jendaia guziak, zeinen erdian barraiatu baitzaitut; zu ordean etzaitut xahuturen; bainan azurriaturen zaitut zuzentasunean, uste izan ez dezazun hobengabe zarea.
12. Ezen hau dio Jaunak: Zure hauskura ezin-sendatuzkoa da, zure zauria guziz gaixtoa.
13. Haren behar-bezala lotzen nihork ez daki; sendakariak zuretzat indarrak ez dute.
14. Maite zintuztenek ahantzi zaituzte guziek, eta etzaituzte gehiago bilhatzen; alabainan etsai baten sakhiak, gaztigu gogorraz jo zaitut; zure tzarkeria nihonerekoen gatik, gogor egin dira zure bekhatuak.
15. Zertan zaude arhumaka zure phorrokaduraz? Ezin-sendatuzkoa da zure oinhazea: zure tzarkeria nihonerekoen gatik, zure bekhatu gaitzen ariaz egin darotzut hori.

16. Hargatik jaten hari zaituzten guziak iretsiak izanen dira, eta zure etsaiak oro gathibu eramank; zu desmasiatzen zaituztenak desmasiatuak izanen dira; eta zure larrutzaile guziak larrutzerara emanen ditut.

17. Ezen hertsiko dut zure orbaina, eta sendatuko zaitut zure zaurietarik, dio Jaunak; zeren deithu zaituzten irazia, oi Sion, diotelarik: Hori da nihork bilhatzen ez duen hura.

18. Hau dio Jaunak: Huna gibelerat erakharriren ditudala nik Jakob en olhetako desherrituak, eta urrikalduren natzaiote haren atherbeei, eta hiria berriz izanen da altxatua bere mendiaren gainean, eta tenploa asentatua lehen zen bezala.

19. Hekien ahoetarik ilkhiko dira laudoriozko eta bozkariozko kantuak; eta behaturen ditut, eta ez dira gutituko; eta goretziren ditut, eta ez dira aphurtuko.

20. Eta Jakob en umeak hastetik bezala izanen dire, eta haren bilkuak iraunen du ene aitzinean; eta ni bilhaturen naiz haren hertsari guzien kontra.

21. Eta haren buruzagia haren ganikakoa izanen da; eta deithuren dut, eta hurbilduko da ene gana; ezen zein da hura, niri hurbiltzeari bere bihotza demana? dio Jaunak.

22. Eta ene populua izanen zarete, eta ni zuen Jainkoa izanen naiz.

23. Huna Jaunaren xirimola, hasarre jauzten dena, phesia iraultzen dena, jausten dela gaixtaginen buruaren gainera.

24. Jaunak ez du aldaratuko bere hasarrearen hatsa, egin eta bethe detzan arteo bere bihotzeko xedeak: azken egunean ardietsiren dituzue.

### XXXI. KAP.

1. Orduko egun batez, Jaunak erran zuen: Israelgo ahaidego guzien Jainkoa izanen naiz, eta hekiek izanen dire ene populua.

2. Hau dio Jaunak: Mortuan grazia aurkhitu du ezpatari itzuri zen populuak; Israel goanen da bere phausuko lekhura.

3. Jauna agertzen zait aspaldidanik. Eta bethiko amodioz zaitut maitatu; hargatik, zutaz urrikalduz, bildu zaitut ene gana.

4. Eta berriz altxaturen zaitut, eta altxatua izanen zare, oi Israelgo neskatxa; agerturen zare oraino zure atabalekin eta ilkhiko zare musikarrien erdian.

5. Landaturen ditutzu oraino mahastiak Samariako mendietan; landatzen hariko dire, bainan mahatsik ez dute bilduko, ordua ethorri arteo;



6. Ezik egun bat izanen da, zeintan zainek Efraimgo mendian oihu egingen baitute: Xuti zaitezte eta Sionera igan gaitezen gure Jainko Jaunaren gana.

7. Ezen hau dio Jaunak: Bozkarioz jauz zaitezte, Jakob en umeak; irrintzinak egizkitzue jendaien aitzinean; egizue harramantz, kanta zazue eta errazue: Salba zazu, Jauna, zure populua, Israelgo ondarrak.

8. Huna non erakharriren ditudan ipharreko lurretik, eta bilduren ditut lurraren buruetarik; hekien artean izanen dire itsua eta maingua, izorra eta erditzen dena elkharrekin, hunat bihurtzen direnen bilkhu handia.

9. Nigarrez ethorriko dire, eta ene urrikalmenduan erakharriko ditut gibelerat; ur-errekak gaindi bide zuzenaz erakharriko ditut, eta ez dire hartan behaztopatuko, zeren Israelen aita bilhakatu bainaiz, eta Efraim baita ene ume lehena.

10. Jendaiak, adi zazue Jaunaren hitza, eta berria eremozueten urrun-go irlei, eta errozueten: Israel barraiatu duenak bildu du, eta zainduko du, artzainak bere arthaldea bezala.

11. Alabainan Jaunak berrerosi du Jakob, eta atheratu du hazkarragoaren eskutik.

12. Eta ethorriko dire, eta laudorioak kantatuko dituzte Siongo mendian; eta alde orotarik bilduko dire Jaunaren ontasunetara, ogi, arno, olio, arthaldeen eta abereen umeen erdira; eta hekien arima izanen da baratze urztatu bat iduri, eta ez dute gehiago ikhusiren gosea.

13. Orduan neskatxa bozturen da dantzetan, gizon-gaztea eta zaharra elkharrekin; hekien nigarra bozkariotara dut aldaturen; eta gozakari, eta atsekabetik lekhora bozkario diotzatet emanen.

14. Nasaiziaz hordituren dut aphezen arima, eta ene onthasunez bethea izanen da ene populua, dio Jaunak.

15. Hau dio Jaunak: Mendian entzun da deihadar bat, marraska, deit-hore eta nigarrezkoa, Errakelen ganik, zeina nigarrez baitago bere semeen gainean, eta hekietaz gozakaririk ez du nahi, zeren ez diren gehiagoko.

16. Hau dio Jaunak: Bara beitez zure ahoa auhenetik eta zure begiak nigarretarik; zeren izanen baitu zure nekheak bere saria, dio Jaunak; eta etsai-lurretik bihurturen baitire zure umeak.

17. Azkenean betheko da zure igurikitza, dio Jaunak; eta zure semeak bihurturen dire beren aurkhintzetara.

18. Entzun, aditu dut Efraim herraldatzean, zioela: Azurriatu nauzu, eta irakhatsia naiz hala-nola ergi hezgaitza: bihurturaz nezazu, eta bihurturen naiz zeren zu baitzare ene Jainko Jauna.

19. Ezen bihurturazi nauzun ondoan, egin dut penitentzia; eta argitu nauzun ondoan, jo dut ene ixterra. Ahalkatu eta gorritu naiz, zeren jasan behar izan baitut ene gaztetasuneko laidoa.

20. Efraim ez othe da ene seme ohoragarri, ene ume maitea? Hargatik haren kontra mintzatu izan naizen arren, orhoituko naiz hartaz oraino. Aria hortaz ene barnea grinatu da haren gainean; urrikalduz urrikalduren natzai, dio Jaunak.

21. Jar zaite atalai batean, hekien aitzinean har zatzu zure uherdurak; lehen ibili zaren bide zuzenean bida zazu zure bihotza: bihur zaite, Israelgo alaba, bihur zure hiri haukietara.

22. Noiz arteo atsegin-pean barraiatuko zare, neskatxa sesu gabea? Ezen Jaunak lurraren gainean egin du sendagaila berri bat: Emazteki batek inguraturen du gizon bat.

23. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Hitz hau erranen dute oraino Judako lurrean eta hango hirietan, bihurturaziko ditudanean hango gathibuak: Jaunak benedika bezaitza, mendi saildua, zuzentasunez argitzen duzuna.

24. Eta Judak eta hango hiriek batean, lurra lantzen dutenek eta art-haldeak alhatzen dituztenek, han egingen dute beren egoitza.

25. Ezen horditu dut egarriz zagoena, eta ase gosez zagoena.

26. Hortan iratzarri naiz lotarik bezala; eta argitu ditut begiak, eta gozo izan zait ene loa.

27. Huna non heldu diren egunak, dio Jaunak; eta hazia arthikiren dut, gizon-hazia eta azienda-hazia, Israelgo etxearen eta Judako etxearen gainera.

28. Eta nola hekien gainera egotu bainaiz atzarria atheratzeko, urratzeko, barraiatzeko, xahutzeko eta atsekabeztatzeko; hala egonen naiz hekien gainera atzarria altxatzeko eta landatzeko, dio Jaunak.

29. Ordu hekietan ez da gehiago erranen: Aitek mahats minkhorrak dituzte jan, eta semeen hortzak hoskindu dire.

30. Batbedera ordean bere tzarkerian hilen da; mahats minkhorra janen dutenen hortzak dire hoskinduren.

31. Huna non heldu diren egunak, dio Jaunak; eta batasun berri bat egingen dut Israelgo etxearekin eta Judako etxearekin;

32. Ez horien arbasoekin egin nuen patuaren arabera, eskua hartu niotenean Egiptoko lurretik hekien erakhartzeko: patu hura alferatu dute, eta hezi ditut, dio Jaunak.

33. Bainan hau izanen da Israelgo etxearekin joko dudana patua egun haukien ondotik, dio Jaunak: Horien barnean sarthuko dut ene legea, eta





bihotzean iskribatuko daroet; eta ni izanen naiz horien Jainkoa, eta horiek ene populua.

34. Eta gizonak ez du gehiago argituko ez bere laguna, ez bere anaia, erranez: Ezagut zazu Jauna; ezen guziek ezagutuko naute, horietarik ttipienetik handieneraino, dio Jaunak; ezen jabalduko natzaio horien gaizkiari, eta horien bekhatuaz ez naiz gehiago orhoituko.

35. Hau dio Jaunak, ematen dituenak egun argitzat iguzkia, eta gau argitzat ilhargia eta izarrak; itsasoa jauzika eta haren tirainak burrunbaka erabiltzen dituenak, armadetako Jauna deitzen denak:

36. Baldin lege horiek urmariatzen badira ene aitzinean, dio Jaunak, orduan Israel ganikako iraulgia ere urmariaturen da, ez dadientzat nihoizko egunetan populu bat izan ene aitzinean.

37. Hau dio Jaunak: Baldin zeruak neur baditazke gainean, eta lurra-  
ren asentuak ikhar behean; nik ere hastanduren dut Israel ganikako iraulgi guzia, egin dituzten guzien gatik, dio Jaunak.

38. Huna non dathortzen egunak, dio Jaunak; eta hiri hau Jaunarentzat izanen da berritua Hananeelgo dorretik Izkinako atheraino.

39. Eta neurtzeko haria ilkhiko da oraino haren aitzinean Garebeko munho gainera, eta inguratuko ditu Goatha,

40. Hilen eta hautsaren haran guzia, eta herioaren ephaitza guzia Zedrongo errekaraino, eta zaldien iguzki-aldeko athe izkinaraino, Jaunaren lekhu sainduetsia; eta ez da gehiago behinere izanen eragotzia eta xahutua.

### XXXII. KAP.

1. Jaunak Jeremias erran zaroen hitza, Judako errege Sedeziasen hamargarren urthean, hura baita Nabukodonosorren hemezortzigarren urthea.

2. Babilonako erregek sethiatzen zuen orduan Jerusaleme; eta Judako erregeren etxean den presondegiko lorioan hertsia zen Jeremias profeta.

3. Alabainan Sedeziasek, Judako erregek hertsia zuen, zioelarik: Zertako profetisatzen duzu, erranez: Hau dio Jaunak: Huna hiri hunen ematera nola-hala Babilonako erregeren eskuetara, eta harek hartuko du;

4. Eta Sedezias Judako errege ezin itzuriko zaio Kaldearren eskuari, bainan Babilonako erregeren eskuetara arthikia izanen da, eta ahoz aho da hari mintzaturen eta begiz begi du hura ikhusingen;

5. Eta Nabukodonosorrek Babilonara eramanen du Sedezias, eta hau han egonen da, ikhustera goan nakioen arteo, dio Jaunak; baldin beraz Kaldearren kontra gudukatzen bazarete, deus onik etzaitzue helduko.

6. Eta Jeremiasek erran zuen: Jaunaren hitza ethorri zait, zioena:

7. Huna ethorriko zaitzula Hanameel, Selumen semea, aita-aldeko zure kusi propia, dioelarik: Eros dizadazu ene landa Anathothen dena; ezen hurkotasunez zuri dagokizu haren erostea.

8. Eta Jaunaren hitzaren arabera, Hanameel, ene osabaren semea, ethorri zitzaitan presondegiko sartzera, eta erran zarodan: Har zazu ene landa, Anathothen dena, Benjamingo lurra, zuri dagokizulakoz ondo-  
retasuna, eta ahaide hurbilena zarelakoz haren gozatzeko. Ezagutu nuen bada Jaunaren hitza zabilala.

9. Eta ene osabaren seme Hanameelen ganik erosi nuen Anathothen zen landa; eta phisatu nioen dirua, zazpi estatara eta hamar zilharrezko.

10. Eta iskribatu nuen agerian eta sinatu, eta lekhukoak egin nituen, eta balantzetan dirua phisatu.

11. Eta hartu nuen erospeneo ageria, sinatua, legeak eta ohitzak manatzen zuten bezala, eta zigiluz kanpotik joa.

12. Eta erospeneo ageria eman nioen Baruki, Neriren semeari, Maasiasen arresemeari, ene kusi Hanameelen, eta erospeneo agerian iskribatuak ziren lekhukoen, eta presondegiko lorioan jarriak zauden Judu guzien aitzinean.

13. Eta Baruk hekien aitzinean manatu nuen, nioelarik:

14. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Har zatzu ageri haukiek, erospeneo ageri idekia den hau, eta zigilatua den bertze hau; eta lurrezko untzi batean ezar zatzu, luzez iraun ahal dezatentzat.

15. Alabainan hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Etxe, landa, mahasti erosteak izanen dire oraino lur huntan.

16. Eta erospeneo ageria erran ondoan Baruki, Neriren semeari, Jaunari othoitzean jarri nintzaioen, nioelarik:

17. Ai! ai! ai! Jainko Jauna, huna zuk egin ditutzu zeru-lurra zure ahal handi eta zure beso hedatuaz; zuri etzaitzu deusere gaitzik;

18. Zuk urrikalmendu harmen duzu mila gizaldiren buruan, eta aiten gaixtakeria bihurtzen duzu hekien ondolik semeen gainera; oi Jainko guziz hazkar, handi, botheretsua, armadetako Jauna da zure izena.

19. Handi zare zure kontseiluan, ezin-ardietsizkoa zure gogoetan; zure begiak idekiak daude Adamen semeen urhats guzien gainean, batbederari bihurtzeko bere bideen arabera eta bere asmuen fruituen arabera.



20. Egungo eguna arteo zuk egin ditutzu ezagutkari eta sendagailak Egiptoko lurrean, eta Israelen, eta gizonen erdian, eta zure izena egin duzu egun den bezalako.

21. Eta Israelgo zure populua Egiptoko lurretik erakharri duzu eza-gutkariz, sendagailaz, zure esku hazkar eta beso hedatuaz, eta larderia gaitzaz.

22. Eta lur hau eman diozute, haukien arbasoei zin egin zinaroeten bezala, emanen zinaroetela lur bat esne eta ezti zariona.

23. Eta huntan sarthu dire, eta gozatu dute; eta zure hitzari ez dire ethordun izatu, ez zure legean ez dire ibili: ez dituzte egin zuk manatu zinaroetzen guziak, eta gaitz haukiek oro gerthatu zaizkote.

24. Horra hazkargailuak hiriaren kontra altxatuak, hunen hartzeko; eta hiria emana da Kaldearren eskura; gudukatzen dute ezpataz, gosete eta izurriteaz; eta zuk erran guziak gertatu dire, zerorrek ikhusten duzun bezala.

25. Eta zuk, Jainko Jauna, derratazu: Landa bat dirutan erosazu, eta lekhukoak har zatzu; noiz-etare hiria Kaldearren eskura emana baita.

26. Eta Jeremiasi ilkhi zitzaioen Jaunaren hitza, zioena:

27. Huna ni gizon guzien Jainko Jauna; othe da deusere enetzat gaitz izanen denik?

28. Hargatik hau dio Jaunak: Huna non hiri hunen arthikitza nohan Kaldearren eskuetara eta Babilonako erregeren eskura, eta hartuko dute.

29. Eta gudukatuz Kaldearrak ethorriko dire hiri hunen kontra, eta su emanen diote, eta erreko dituzte hau eta huntako etxeak zeinen gainean sakrifizioak eta libazioneak egiten baitzituzten Baali, ni samurraz-tekotzat.

30. Ezen beren gaztetasunetik, baratu gabe ene begien aitzinean gaizki egiten hari ziren Israelgo eta Judako umeak; Israelgo umeak, zeinek orai arteo beren eskuetako eginkariez sumintarazi bainaute, dio Jaunak.

31. Alabainan ene hasarrearen eta gaitziduraren jauzgarri bilhakatu da hiri hori, egina izan den egunetik, eta ene aitzinetik khendua izanen den egun hau arteo,

32. Israelgo umeek eta Judako umeek, ni hasarretzera deithuz, berek eta beren errege, beren aitzindari, beren aphez, beren profetek, Judako gizonek eta Jerusalemдарrek erabili duten gaixtakeriaren ariaz.

33. Eta gibela itzuli zaizkit, eta ez begithartez, noiz-eta-ere goiz-goi-zetik irakhasen eta argitzen baintuen, eta kridantzaren onhesterik ez baitzuten entzun nahi.

34. Eta beren jainkomoldeak ezarri dituzte ene izena deithua zen etxean, haren lohitzekotzat.

35. Eta lekhu gorak Baali egin diozkate Enomen semeen haranean, Moloki beren seme, alaben imolatzeko; nik ez diotet holakorik manatu, eta etzait gogorat ere ethorri, holako izigarrikeriarik egin eta Juda bekhatura erorraraz zezaten.

36. Eta orai horien gatik, hau dio Israelgo Jainko Jaunak hiri huni, zeintaz baitiozue, arthikia izanen dela Babilonako erregeri, ezpatari, gosete eta izurriteari:

37. Hara nik bilduko ditudala lur guzietarik, zeinetara irazi baititut ene irakiduran, ene hasarrean eta gaitzidura handian, eta gibelerat erakharriren ditut lekhu huntara, eta hemen egonaraziren ditut deskantsu gozoan.

38. Eta izanen dire ene populua, eta ni izanen naiz horien Jainkoa.

39. Eta bihotz bat eta bide bat emanen diozkatet, egun oroz izan ditezen ene beldur, eta ongi hel dakioten berei eta beren umei beren ondotik.

40. Eta horiekin joko dut bethirainoko patua, eta ez naiz baratuko horiei ongi egitetik; eta ene beldurra emanen diotet horien bihotzei, ez dezaten gibelerat egin ene ganik.

41. Eta horien baithan bozturen naiz, horiei ongi eginez, eta lur huntan gogorturen ditut zintasunean, ene bihotz oroz eta grima guziaz;

42. Ezen hau dio Jaunak: Nola populu horren gainera erakharri baitut ondiko handi hau guzia, hala erakharriren ditut agintzen diozkatedan ongiak oro.

43. Eta landa-erosteak izanen dire lur huntan, zeintaz baiterrazue mortu egina dela, zeren ez den huntan ez gizon, ez aziendarik gelditu, eta zeren emana den Kaldearren eskuetara.

44. Landak dirutan erosiko dire; ageriak iskribatuko dire, eta zigiluaz joko; eta lekhukoak hartuko dire Benjamingo lurrean, Jerusalemgo inguruan, Judako hirietan, mendietako eta zelhaletako hirietan, eta hegoalde-dera direnetan, zeren itzularaziren baititut hekietarikako gathibuak, dio Jaunak.

### XXXIII. KAP.

1. Eta Jeremias presondegiko lorioan hertsia zelarik oraino, Jaunaren hitza bigarren aldiko egin zitzaioen, zioelarik:

2. Hau dio Jaunak, zeinak derrana eginen, moldatuko eta aphainduko baitu, eta Jauna baita haren izena.



3. Ene ganat egizu deihadar eta entzunen zaitut, eta ezagutaraziko darozkitzut zuk ez dakizkitzun gauza handi eta segurak.

4. Ezen hau derrote Israelgo Jainko Jaunak hiri huntako etxe, eta Judako erregeen etxe, urratuak direnei, eta hazkargailuei eta ezpatari,

5. Zeina baitaxharte heldu direnek Kaldearren gudukatzero, eta etxeen bethetzera jo ditudan gorphutzez ene hasarre eta gaitziduran, ene begitharte gordez hiri huni, horien tzarkeria guzien gatik.

6. Huna nik hertsiko eta orbainduko ditudala horien zauriak, eta sendatuko ditut berak; eta emanen diotet galdatu bakea eta zintasuna.

7. Bihurraziren ditut Judako eta Jerusalemgo desherrituak; eta antolaturen ditut hastapenetik bezala.

8. Eta garbituren ditut beren tzarkeria guzietarik, zeintaz ene kontra egin baitute bekhatu; eta jabalduren natzaiote gaizki guziei, zeinetaz bazterrerat utzi eta erdeinatu bainaute.

9. Eta horrek barraiatuere ditu ene izena, eta bozkario, kantu eta jauziak lurreko jendaia guzietan zeinek adituko baitituzte nik horiei egonen daroetzedan ongiak; eta horiei emanen daroetzedan bake handi eta ontasun guziek lotsaturen eta nahasiren dituzte hekiek.

10. Hau dio Jaunak: Lekhu hortan, zeina mortu baiterrazue, ez delakotz hor ez gizonik, ez abererik; Judako hiri eta Jerusalemeko inguru, egoiliarrik eta aziendarik gabe larrutuak daudezenetan entzunen dire oraino

11. Atseginezko eta bozkariozko oihuak, jaun esposaren eta andre esposaren kantuak, eta erranen dutenak: Aithor diozogun bihur armadetako Jaunari, zeren ona den Jauna, zeren bethi guzian dirauen haren urrikalmenduak; entzunen dire, botuzko eskaintzak Jaunaren etxera ekharriko dituztenen oihuak; ezen lur huntako desherrituak gibelerat ekharriren ditut eta jarriren ditut hastapenean ziren bezala, dio Jaunak.

12. Hau dio armadetako Jaunak: Mortu, gizon eta abere gabe den lekhu huntan, eta huntako hirietan izanen da oraino arthaldeak phausaraziko dituzten artzainen egoitza.

13. Mendietako eta zelhaitako hirietan eta hegoalderat diren hirietan, Benjaminen lurrean, Jerusalemeko inguruan eta Judako hirietan, artaldeak iraganen dire oraino khondatzaileen eskuen azpian, dio Jaunak.

14. Huna non heldu diren egunak, dio Jaunak, eta betheko dut Israelgo etxeari eta Judako etxeari eman izan diotedan hitz ona.

15. Egun hekietan eta ordu hartan, Dabiden ganik ilkhiazaziko dut zuzentasuneko gandoa, eta lurraren gainean zuzenari zuzentasunean emanen dio bere bidea.

16. Eta egun hekietan Juda salbatua izanen da, eta Jerusaleme deskantsu bethean egonen da; eta izen huntaz deithuko dute haina: Gure Jaun zuzena.

17. Ezen hau dio Jaunak: Ez da Dabiden ganik eskasturen gizona, Israelgo etxeko tronuaren gainean jarriko dena;

18. Eta aphezetarik eta lebitarretarik ez da ene aitzinean eskasturen gizona, holokaustak eskainiko, sakrifizioa erreko eta bitimak hilen dituen menderen mendetan.

19. Eta Jeremiasi mintzatu zitzaioen Jauna, zioelarik:

20. Hau dio Jaunak: Alfer bilhakaraz balin badaite egunarekilako ene patua, eta gauarekilako ene patua, eguna eta gaua ez ditezentzat izan, zein bere orduan;

21. Dabid ene zerbitzariarekilako patua ere alfer izanen ahal da, haren ganik ez dadien ilkhi seme bat, haren tronuan erreginatuko dena, ez-eta lebitar eta aphezik ni zerbitzatuko nautenik izan ez dadien.

22. Nola ez baititazke khonda zeruko izarrak, ez-eta neur itsasoko legarra; hala berhatuere ditut Dabid ene zerbitzariaren ganikako iraulgia, eta lebitarrak, eta aphezak ene ministroak.

23. Eta Jeremiasi mintzatu zitzaioen Jauna, zioelarik:

24. Ez othe duzu ikhusi zer zerasan populu horrek, erraten zuenean: Jaunak hautatu zituen bi ahaidegoak hastanduak dire, eta erdeinatu dute ene populua, etzelakoan gehiago jendaia bat hekien begira?

25. Hau dio Jaunak: Ene patua egunarekin eta gauarekin, eta zeruari eta lurrari eman daroetzedan legeak ez badaude sendo;

26. Orduan hastanduren dut Jakobene eta Dabid ene zerbitzariaren odola, ez hartzeko hunen odoletik Abrahamen, Isaaken eta Jakobene errotikako buruzagirik; ezen bihurraziren ditut hekien desherrituak eta urrikalduren natzaiote.

#### XXXIV. KAP.

1. Nabukodonosor, Babilonako errege, eta haren armada guzia, eta lurreko erresuma haren eskupeko ziren guziak, eta populuak oro gerlan hari zirenean Jerusalemeren kontra eta haren hiri guzien kontra, Jeremiasi ilkhi zitzaioen Jaunaren hitza, zerrana:

2. Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Zoaz eta mintza zakizkio Sedezias, Judako erregeri, eta erranen diozu: Hau dio Jaunak: Huna non hiri hunen ematera nohan Babilonako erregeren eskuetara, eta suz erreko du.

3. Eta herori ez haiz itzuriko haren eskuari; bainan atzemanik eta harturik, haren eskuetara emanen haute; eta bekhoz bekho ikhusiren duk



Babilonako errege, eta ahotik ahora mintzaturen hatzaio, eta Babilonan sarthuko haiz.

4. Guzia gatik adi zazu Jaunaren hitza, Sedezias, Judako errege: Hau derrazu Jaunak: Ez haiz ezpatatik hilen,

5. Bainan bakean hilen haiz, eta hire arbaso hire aitzinean errege izatu direntzat egin diren errepenen arabera, orobat eginen dute hiretzat; eta deithoraturen haute, ai Jaunka hariz; nik erran baitut hori, dio Jaunak.

6. Eta Jeremias profetak hitz horiek guziak erran ziozkan Sedezias, Judako erregeri, Jerusalem.

7. Eta Babilonako erregeren armada gudukatzen zen Jerusalemen kontra, eta Judako hiri gelditzen ziren guzien kontra, Lakisen eta Azekaren kontra; ezen Judako hirietarik, haukiek ziren, hiri hazkar gelditzen zirenak.

8. Jaunaren ganik Jeremias ethorri hitza, Sedezias erregeak Jerusalemen populu guziarekin patu jo ondoan, oiuhu eginarazten zuelarik,

9. Batbederak bere sehiak, Hebrear muthil eta neskatoak, librorik igor zetan; eta etzezaten behinere hekien gainean jauntasunik erabil, erran nahi da gainean jauntasunik eta bere anaiaren gainean.

10. Beraz aitzindariak orok eta populu guziak entzun zuten eta patu bat egin, batbederak librorik igortzeko bere muthila eta bere neskatoa, eta gehiago hekien gainean ez erabiltzeko nausitasunik: aditu zuten beraz eta sehiak librorik igorri.

11. Bainan bihurtu ziren gero; libro utzi zituzten muthil, neskatoak, berriz hartu eta sehitasunera bortxatu zituzten.

12. Eta Jeremias mintzatu zitzaioen Jauna, zioelarik:

13. Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Nik zuen arbasoekin batasun egin izan dut, Egiptoko lurretik, gathibusuneko etxetik atheratu zaituztedan egunean, nioelarik:

14. Zazpi urthe betheko direnean, batbederak utz beza bere anaia Hebrearra, saldua izan zaiouena; eta sei urthez zerbitzaturen zaitu, eta gero zure ganik igorriren duzu libro; eta zuen arbasoek ez naute entzun, eta ez dute makhurtu beren beharria.

15. Eta zuek bihurtu zineten egun, eta egin zinduten ene begietan zuden dena, bakhotxak libertate oiuhu eginez bere adiskidearentzat; eta ene aitzinean egin zinduten patua, ene izenaz deithua den etxean.

16. Eta gibelerat egin, eta ene izena laidatu duzue; eta bihurrarazi dituzue, zeinek zuen muthila, zeinek zuen neskatoa, libro eta beren buruen nausi igorri zintuzten ondoan; eta azpikotu dituzue, zuen muthil eta neskato izan ditezen.

17. Aria hortaz hau dio Jaunak: Ez nauzue entzun, zeinek bere anaiari, zeinek bere adiskideari libertatearen emateko; huna non ematen darotzuedan nik zuen libertatea ezpataren, izurrite eta gosetearen azpian erortzekoa, dio Jaunak; eta lurreko erresuma guziei emanen zaituztet, asaldutan biziaraz zaitzaztet.

18. Eta emanen ditut gizonak, enekilako batasuna hautsi dutenak, eta begiratu ez dituztenak patuko hitzak, zeinetaz hitzartuak baitziren ene aitzinean, hala-nola bi erdi egin duten ergia eta zeinaren zathien artetik iragan baitire;

19. Judako buruzagiak eta Jerusalemgoak, ebakiak eta aphezak eta lurreko populu guzia, ergiaren bi erdien artetik iragan direnak;

20. Eta arthikiren ditut beren etsaien eskuetara, bizia khendu nahiz bilhatzen dituztenen eskuetara; eta hekien gorphutzak izanen dire zeruko hegastinen eta lurreko basabereen hazkurri.

21. Eta Sedezias, Judako errege, eta haren azpiko aitzindariak emanen ditut beren etsaien eskuetara, bizia khendu nahiz bilhatzen dituztenen eskuetara, eta Babilonako erregeren armaden eskuetara, zeinek zuen ganik gibelerat egin baitzuten.

22. Huna nik manatzen dudala, dio Jaunak; eta nik bihurraraziren ditut armada hekiek hiri huntara, hunen kontra dire gudukaturen; hartuko dute eta suz erreko; eta Judako hiriak mortu eginen ditut, ez baita nihor egonen horietan.

### XXXV. KAP.

1. Joakin, Josiasen seme, Judako erregeren egunetan Jeremias ethorri zitzaioen hitza Jauna ganik, erranez:

2. Zoaz Errekabarren etxera; mintza zakiozkite, eta sarraraz zatu Jaunaren etxean, khutxategiko salha batera, eta emanen diozute arnoa edatera.

3. Eta hartu nituen Jezonias, Jeremiasen seme, Habsaniasen arresemea, eta haren anaiak, eta haren seme guziak, eta Errekabarren etxea oro;

4. Eta sarrarazi nituen Jaunaren etxean, Hananen semeen khutxategira, (Nanan baitzen Jeiedebasen, Jainkoaren gizonaren semea); eta salha hura zen buruzagiaren khutxategiaren aldean, eta Selumen seme Maasiasen khutxategiaren gainean; Maasias baitzen ezkaratzaina.

5. Eta Errekabarren etxeko umeen aitzinean ezarri nituen xatak eta basoak arnoz betherik, eta erran nioten: Edan zazue arnoa.



6. Ihardetsi zuten: Ez dugu arnorik edanen, zeren Jonadabek, Errekaben semeak, gure aitak, manatu baikaitu, zioelarik: Ez zuek, ez zuen umeek ez duzue arnorik edanen egun-eta-iguzki;

7. Ez duzue, ez etxerik eginen, ez hazirik erainen, ez mahastirik landatuko, ez-eta izanen; bainan zuen bizi guzian olhetan izanen duzue zuen egoitza, luzez bizi zaitezten zuen erromeria daramazuen lurtean.

8. Gure aita Jonadab Errekaben semearen hitzari ethordun izatu gare beraz manatu darozkigun gauza guzietan, haletan non ez baitugu arnorik edan gure bizi guzian, ez guk, ez gure emazteek, ez gure seme-alabek.

9. Eta etxerik ez dugu egin egoteko; eta ez dugu izatu ez mahasti, ez landa, ez eraintzarik;

10. Bainan egotu gare olhetan, eta gure aita Jonadabek manatu darozkigun guzietan ethordun izan gare.

11. Nabukodonosor, Babilonak errege, igan denean ordean gure lurrera, erran izan dugu: Zatozte, sar gaitzen Jerusalem, Kaldearren armadaren eta Siriako armadaren ihes; eta Jerusalem gaudezi.

12. Eta Jaunaren hitza Jeremiasil ilkhi zitzaioen, zioelarik:

13. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Zoaz eta errozute Judako gizonei eta Jerusalemdarrei. Ez othe duzue behinere kridantza onhetsiren, ene hitzei ethordun izateko? dio Jaunak.

14. Jonadab, Errekabek semearen solasak garai atheratu dire: bere semei manatu zioten etzezaten arnorik edan; eta orai arteo ez dute edan, zeren ethordun izan baitire beren aitaren manuari; ni berriz, mintzatu natzaitzue, goizetik jaikiz eta mintzatu, eta etzaizkidate ethordun izatu.

15. Eta igorri darozkitzuet ene zerbitzari guziak, profetak, goizetik jaikiz, bidaliz eta erranez: Bihur zaitezte, zein zuen bide tzarretik; ontzatzue zuen lehiak, ez jarraik jainko arrotzei, eta ez bezatzue zerbitza; eta egonen zarete, zuei eta zuen arbasoei eman darotzuedan lurtean; eta ez duzue eman beharria, eta ez nauzue entzun.

16. Jonadaben, Errekabek semearen umeek gothorki begiratu dute beraz beren aitak manatu ziotena; aldiz populu hori etzait ethordun izatu.

17. Aria hortaz dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Huna non Judaren eta Jerusalemdar guzien gainera erakharriren dudan, hekien kontra erran dudan atsekabe guzia; zeren mintzatu bainatzaiote, eta ez baitute entzun; deithu baititut, eta ez baitute ihardetsi.

18. Errekabarren etxeari berriz, erran zaroen Jeremiasek: Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo erregek: Zuen aita Jonadaben manamenduari ethordun izatu zaretelakotz, eta haren manu guzia begiratu, eta harek manatu guziak egin dituzuelakotz;

19. Aria hortaz hau dio Jaunak, armadetako Jainkoak: Errekaben seme Jonadaben errotik ez da nihoizko egunetan eskasturen gizona, ene aitzinean egonen dena.

### XXXVI. KAP.

1. Eta Joakin, Josiasen seme, Judako erregeren laugarren urtean, gerthatu zen Jeremiasil ilkhi zitzaioela Jauna ganik hitza hau, zioelarik:

2. Har zazu liburu bat, eta hartan iskriba zatzu nik zuri Israelen kontra, Judaren kontra eta jendaki guzien kontra erran izan darozkitzudan hitz guziak, ni mintzatu natzaitzun egunetik, Josiasen egunetarik eta egun-eguna arteo;

3. Hean, Judako etxeak aditurik hekiei egin gogo diozkatedan gaizki guziak, norbera itzuliko den bere bide guziz tzarretik, eta ene begithartea ontziodedan hekien gaixtakeriari eta bekhatuari.

4. Jeremiasek deithu zuen beraz Baruk, Neriasen semea; eta Barukek liburu batean iskribatu zituen Jeremiasen ahotik, Jaunak hari erran solas guziak.

5. Eta Jeremiasek manatu zuen Baruk, erraten zioelarik: Ni hertsia naiz eta ez naiteke sar Jaunaren etxean.

6. Sar zaite zu beraz eta liburutik irakur zatzu ene ahotik iskribatu dituzun Jaunaren hitzak, populuak aditzen duelarik Jaunaren etxean, barur egun batez; bertzalde, Juda guziak aditzen duelarik, irakur zatzu hango hirietarik ethorriko direnei;

7. Hean othoitz bat hekien ahotik eroriko den Jaunaren aitzinean, eta batbedera itzuliko den bere bide guziz tzarretik; zeren gaitzak baitira irakidura eta sepha, zeinekin Jauna mintzatu baita populu horren kontra.

8. Eta Barukek, Neriasen semeak, egin zuen Jeremias profetak manatu guzien arabera, Jaunaren etxean liburutik irakurtuz Jaunaren hitzak.

9. Bada, Joakin, Josiasen semea, Judako erregeren bortzgarren urtean, bederatzigarren hilabetean, gerthatu zen barur bat oihu egin zutela Jaunaren aitzinean Jerusalem populu guziari, eta Judako hirietarik Jerusalemera murruka ethorri zen oste guziari.

10. Eta Barukek liburutik irakurtu zituen Jeremiasen hitzak Jaunaren etxean, Saphanen seme Gamarias iskribauaren khutxategian, gaineko ezkaratzean, Jaunaren etxeko athe berriko sartzean, populu guziak aditzen zuelarik.

11. Eta Mikeasek, Gamariasen seme Saphanen arresemeak, aditu zituenean liburutik Jaunaren hitz guziak,



12. Jautsi zen errege-etxera, iskribauaren khutxategira; eta hara buruzagi guziak han zaudela jarriak: Elisama iskribaua; Dalaias, Semeiasen semea; Elnathan, Akoborren semea; Gamarias, Saphanen semea; Sedezias, Hananiasen semea, eta aitzindari guziak.

13. Eta Mikeasek erran zaroezten aditu zituen solas guziak, Barukek liburutik irakurtzen zituenean populuaren beharrietara.

14. Hargatik buruzagi guziek Baruki igorri zioten Judi, Nathaniasen semea, (Nathanias baitzen Selemiasen semea, eta Selemias Kusirena), zio-telarik: Har zazu eskuan liburua, zeintarik irakurtzen haritu baitzare populuaren aitzinean, eta zato. Barukek, Neriasen semeak, liburua hartu zuen beraz eskuan, eta goan zen hekien gana.

15. Eta hekiek erran zaroten: Jar zaite, eta irakur zatzu horiek gure aitzinean. Eta Barukek irakurtu ziozkaten.

16. Aditu zituztenean beraz hitz guziak, harrituak elkharri gelditu ziren, eta erran zioten Baruki: Erregeri ezagutarazi behar diozkagu solas horiek oro.

17. Eta galdeka haritu zitzaizkoten, ziotelarik: Erraguzu nola iskribatu dituzun haren ahotik solas horiek oro.

18. Barukek aldiz ihardetsi zioten: Ahoz, irakurtzen balitu bezala, erraten zarozkidan hitz horiek guziak, eta nik thinduz iskribatzen nituen.

19. Eta aitzindariak erran zioten Baruki: Zoaz, eta gorde zaitezte zu eta Jeremias, eta nihork ez beza jakin non zaretan.

20. Eta loriora sarthu ziren erregeren gana. Bada, liburua phausatu zuten Elisama iskribauaren khutxategian; eta erregeren aitzinera ekharri zuten solas horien berria.

21. Erregek igorri zuen Judi liburuaren hartzera. Hunek hura ekharriarik Elisama iskribauaren khutxategitik, irakurtu zuen erregeren eta haren inguruan xutik zauden aitzindari guzien aitzinean.

22. Errege berriz, jarria zen bere negu-etxean, bederatzigarren hila-bethean; eta su-untzi bat ikhatzez bethea phausatua zen haren aitzinean.

23. Eta Judik irakurtu zituenean hirur edo laur plama, erregek ebaki zuen liburua iskribauaren kanisaz eta su-untziko sura arthiki zuen, untzian zuen suan erre arteo liburu guzia.

24. Eta errege eta haren zerbitzari guziak, solas hekiek oro aditu zituztenak, etziren lotsatu eta etzituzten beren soinekoak phorrokatu.

25. Guzia gatik Elnathanek, Dalaiasek eta Gamariasek zeisher egin zioten erregeri, liburua etzezan erre; eta harek etzituen entzun.

26. Eta erregek manatu zituen Jeremiel, Ameleken semea; Saraias, Ezrielen semea, eta Selemias, Abdeelen semea, har zetzazten Baruk iskribaua eta Jeremias profeta; baina Jaunak gorde zituen.

27. Eta erregek erre zuen ondoan liburua eta Barukek Jeremiasen ahotik iskribatu solasak, Jaunak hitz egin zaroen Jeremias profetari, zioelarik:

28. Har zazu berriz bertze liburu bat, eta iskriba zatzu hartan aitzineko solas guziak, Joakinek, Judako erregek erre duen lehenbiziko liburuan zirenak.

29. Eta Joakini, Judako erregeri, erranen diozu: Hau dio Jaunak: Hik erre duk liburu hura, hiniolarik Zertako iskribatu duzu hortan berri hau: Babilonako errege zalhuki ethorriren da, eta lur hau xahuturen du, eta huntarik geldiaraziren ditu gizona eta azienda?

30. Aria hortaz, hau dio Jaunak Judako errege Joakinen kontra: Dabiden tronua gainean ez da izanen horren ganik ilkhiko denik, eta horren hilikia arthikia egonen da egunaz beroari eta gabaz hormari.

31. Horren gaixakeriak bilhaturen ditut horren kontra, horren ganikako umeen kontra eta horren zerbitzarien kontra; eta hekien gainera, eta Jerusalemдарren gainera, eta Judako gizonen gainera erakharriren ditut, entzun nahi ez nindutelarik agindu diozkatedan gaitz guziak.

32. Jeremiasek hartu zuen beraz bertze liburu bat, eta eman zaroen Baruki, Neriasen seme iskribauari, zeinak hartan Jeremiasen ahotik iskribatu baitzituen, Joakinek, Judako erregek, suan erre zuen liburuko hitz guziak; eta bertzalde berhatuak izan ziren bertze asko solas lehenago iskribatuak izan etzirenak.

### XXXVII. KAP.

1. Sedezias erregea, Josiasen semea, erreginatu zen, Jekonias, Joakinen semearen orde; Nabukodonosorrek, Babilonako erregek, hura ezarri baitzuen Judako lurrean errege.

2. Eta, ez hura, ez haren zerbitzariak, ez lurreko populua, etziren ethordun izatu, Jaunak, Jeremias profetaren arartekoz, erran ziozkaten solasei.

3. Eta Sedezias erregeak bidali zituen Jukal, Selemiasen semea, eta Sophonias, apheza, Maasiasen semea, Jeremias profeta gana, zioelarik: Guretzat othoitzazu gure Jainko Jauna.

4. Bada, Jeremias libroki zabilan populuaren erdian, ezik etzuten oraino preso ezarri. Beraz, Faraonen armada ilkhi zen Egipotik; eta hola-



ko berria aditzearekin, Jerusaleme sethiatzen zuten Kaldearrak goan ziren Jerusalemetik.

5. Eta Jaunaren hitza Jeremias profetari ilkhi zitzaioen, zioelarik:

6. Hau dio Israelgo Jainko Jaunak Hau erranen diozue Judako erregeri, zeinak niri galdeka igorri baitzaituztete: Huna Faraonen armada, zuei laguntza egitera ilkhi dena, Egiptora bere lurrera bihurtuko dela.

7. Eta Kaldearrak itzuliko eta gudukatuko dira hiri hunen kontra, eta hartuko eta suz erreko dute.

8. Hau dio Jaunak: Ez betzatzue zuen buruak engana, erranez: Kaldearrak goanen dira eta gutarik gibelerat egingen dute; ezen ez dira goanen.

9. Bainan jo bazinezate ere zuen kontra gudukatzen den Kaldearren armada guzia, eta hekietarik ez baleitez geldi ere sarraskiz estalirikako bakhar batzu baizen; batbedera ilkhi laiteke bere olhatik, eta hiri hau suz erre lezakete.

10. Kaldearren armadak Jerusalemetik gibelerat egin zuenean beraz, Faraonen armadaren ariaz,

11. Jeremias ilkhi zen Jerusalemetik, Benjamingo lurrera goateko, han bere ontasunaren zathitzera hiriko gizonen aitzinean.

12. Eta Benjamingo athera heldu izan zenean, han bere aldian athezain zagoena deitzen zen Jerias, Selemiasen semea, Hananiasen arresemea, eta hartu zuen Jeremias profeta, erraten zioelarik: Kaldearren gana hoa ihes.

13. Eta Jeremiasek ihardetsi zuen: Ez da hala; ez noha Kaldearren gana ihes. Eta Jeriasek etzuen entzun bainan Jeremias hartu eta aitzindarietara eraman zuen.

14. Aria hortaz aitzindariak, samurrean Jeremiasen kontra, jorik igorri zuten Jonathan iskribauaren etxean zen presondegira; ezen Jonathanek zuen presondegiko kargua.

15. Jeremias sarthua izan zen beraz zupu-zilhoan eta burdinetan; eta Jeremias han egotu zen asko egun.

16. Bada, Sedezias erregeak igorriarik, ilkhiazi zuen, eta ixilik bere etxean galdeka haritu zitzaioen, zioelarik: Uste duzu baden Jauna ganikako solasik? Eta Jeremiasek ihardetsi zuen: Bai bada. Eta erran zioen: Babilonako erregeren eskuetara arthikia izanen zare.

17. Eta Jeremiasek erran zioen Sedezias erregeari: Zer hoben egin darotzuet zuri, zure zerbitzariari eta zure populuari, preso ene ezartzeko?

18. Non dira zuen profeta, profetisatzen zarotzuetenak, eta erraten zutenak: Ez da ethorriko Babilonako errege gure kontra eta lur hunen kontra?

19. Orai beraz entzun zazu, othoi, errege ene Jauna: Balia bedi ene othoizta zure aitzinean, eta ez benezazu bihurraz Jonathan iskribauaren etxera, han hil nadien beldurrez.

20. Sedezias erregeak manatu zuen beraz ezar zezaten Jeremias ezkaratzeko presondegian, eta egun oroz eman ziozoten ogi ophil bat eta jakia bertzalde, hiriko ogi guziak akhaba zitezen arteo; eta Jeremias gelditu zen ezkaratzeko presondegian.

### XXXVIII. KAP.

1. Bada, Saphatiasek, Mathanen semeak, eta Jedeliasek, Phasurren semeak, eta Jukalek, Selemiasen semeak, eta Phasurrek, Melkiasen semeak, aditu zituzten Jeremiasek populu guziari erran ziozkan solasak, zioenean:

2. Hau dio Jaunak: Nor-ere hiri huntan egonen baita, hilen da ezpatatik, gosete edo izurritetik; aldiz Kaldearren gana ihes egingen duena biziko da eta bere burua izanen du oso eta bizirik.

3. Hau dio Jaunak: Hiri hau arthikia izanen da Babilonako erregeren eskuetara, eta hartuko du.

4. Eta buruzagiek erran zioten erregeri: Othoizten zaitugu hilaraz dezazun gizon hori; ezen berariaz hari da besoen haustera, hiri huntan gelditu diren perla-gizonei eta populu guziari, horrelako solasak horiei erranez: Gizon horrek egiazki ez du bilhatzen populu hunen ona, bainan hunen gaitza.

5. Eta Sedezias erregeak ihardetsi zuen: Horra zuen eskuetan da; ez da zuzen erregek zerbaitetan ezik eman dezazuen.

6. Hartu zuten beraz Jeremias, eta arthiki zuten, Melkias, Ameleken semearen putzura, zeina baitzen presondegiko ezkaratzean; eta sokhaz lothu zuten Jeremias putzuan, zeintan urik ez baitzen, bainan lohia: aria hortaz Jeremias jautsi zen itxilera.

7. Bada, Abdemelek, ebaki Ethiopiar, erregeren etxean zenak, aditu zuen Jeremias ezarri zutela putzuan; arren, errege Benjamingo athean jarria zagoen.

8. Eta Abdemelek ilkhi zen erregeetxetik, eta erregeri mintzatu zen, zioelarik:



9. Errege, ene jauna, gizon horiek Jeremias profetaren kontra egin dituzten guziak, hura putzu batean ezarriz, han gosez hil dadientzat, hainitz gaizki egin dituzte; ez da ezen gehiago hirian ogirik.

10. Hargatik erregek manatu zuen Abdemelek Ethiopiarra, zioelarik: Har zatzik hirekin hemendik hogoi eta hamar gizon, eta putzutik athera zak Jeremias profeta, hil dadien baino lehen.

11. Berekin gizonak harturik beraz, Abdemelek sarthu zen errege-etxean, khutxategiaren azpiko aldean zen toki batean; hartu zituen handik philda zahar ustelduak ziren batzu, eta sokhaz putzura jautsi ziozkan Jeremias.

12. Eta Abdemelek Ethiopiarrek Jeremias erran zioen: Ezar zatzu philda zahar, eta puska hautsi, ustel horiek galtzar-azpietan eta sokhen gainean. Jeremiasek hala egin zuen beraz.

13. Eta sokhetan goititu zuten Jeremias ere putzutik atheratu zuten: bada, Jeremias presondegiko ezkaratzean egotu zen.

14. Eta errege Sedeziasek norbait igorri zuen, eta ekharrarazi zuen Jeremias profeta Jaunaren etxeko hirugarren athera; eta erregek erran zioen Jeremias: Gauza bat galdegiten darotzut; ez biazazu deusere gorde.

15. Jeremiasek berriz, erregeri ihardetsi zioen: Baldin erraten bada-rotzut, ez nauzu hilen? eta kontseilu bat eman banezazu, ez nindeza kezku entzun.

16. Sedeziasek erregek Jeremias zin egin zaroen beraz ixilik, erranez: Ala Jauna, arma hau gutan egin duena, hiltzen bazaitut, eta zure bizia bilhatzen duten gizon horien eskuetan ezartzen bazaitut!

17. Eta Jeremiasek erran zioen Sedeziasek: Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Baldin jaikirik ilkhitzen bazare Babilonako erregeren aitzindarietara, zure arima biziko da, eta hiri hau ez da suz errea izanen; eta zu, eta zure etxea, salbatuak izanen zarete.

18. Ez bazare ordean Babilonako erregeren aitzindarietara ilkhitzen, hiri hau emana izanen da Kaldearren eskuetara, eta suz erreko dute; eta zu, etzare hekien eskuei itzuriko.

19. Eta Sedeziasek erregek Jeremias erran zaroen: Kaldearren alderat iragan diren Juduen gatik naiz gogoan behar; ez nadien bedere emana izan hekien eskuetara, eta nitaz dosta ez ditezen.

20. Jeremiasek berriz, ihardetsi zuen: Etzare emana izanen: adi zazu, othoi, Jaunaren hitza, nik erraten darotzudana, eta ongi helduko zaitzu, eta biziko da zure arima.

21. Baldin ez baduzu ilkhi nahi, huna zer erakhutsi darotan Jaunak:

22. Huna, Judako erregeren etxean gelditu diren emazteki guziak eramanak izanen dire Babilonako erregeren aitzindarietara, eta erranen dute: Tutulikatu zaituzte, eta zure kontra nausitu dire zure gizon bake-agintzaile hekiek; lohian eta itxilean sarthu dituzte zure zangoak, eta gero zure ganik gibelerat egin dute.

23. Eta zure emazteak, eta zure haurrak Kaldearretara eramanak izanen dire; eta zeroni etzare hekien eskuei itzuriko; bainan Babilonako erregeren eskuak harrapatuko zaitu, eta suz erreko du hiri hau.

24. Sedeziasek erran zioen beraz Jeremias: Nihork ez betza jakin solas haukiek, eta etzare hilen.

25. Aitzindariak ordean adi balezate zurekin mintzatu naizela, eta ethor baleitez zure gana, eta erran balezazute: Erraguzu zer erran diozun erregeri eta zer erran darotzun erregek; ez gorde guri, eta etzaitugu hilen;

26. Erranen daroezu: Ene othoitzak ezarri ditut erregeren oinetan, etzezan mana bihurtua izan nindadien Jonathanen etxera, eta han hil ez nadien.

27. Aitzindari guziak ethorri ziren beraz Jeremiasen gana, eta galdeka haritu zitzaizkon; eta Jeremias mintzatu zitzaioten erregek manatu solas guzien arabera; eta baratu ziren haren ganik; ezen etzen deusere izan aditurik.

28. Jeremias berriz, presondegiko ezkaratzean egotu zen, Jerusaleme hartu izan zen eguneraino; eta gerthatu zen Jerusaleme hartua izan zela.

### XXXIX. KAP.

1. Sedeziasek, Judako erregeren bederatzigarren urthean, hamargarren hilabethean, Nabukodonosor, Babilonako errege, eta haren armada guzia ethorri ziren Jerusalemera, eta sethiatu zuten.

2. Berriz, Sedeziasek hamekargarren urthean, laugarren hilabethean, hilabethearen bortzean, hiria idekia izan zen.

3. Eta sarthu eta arteko atxean jarri ziren Babilonako erregeren aitzindariak oro, Nereiel, Sereser, Semegarnabu, Sarsakim, Errabsares, Nereiel, Sereser, Errebmag, eta Babilonako erregeren bene aitzindari guziak.

4. Sedeziasek, Judako erregek, eta gerlako gizon guziek ikhusi zituztenean, ihesari eman zuten; ilkhi ziren gabaz erregeren baratzeko bideaz, bi harrasiarte arteko atletik, eta jo zuten mortuko bidera.

5. Kaldearren armada berriz, goan zitzaioten ondotik; atzeman zuten Sedeziasek Jerikoko mortuko zelhaian, eta harturik erakharri zioten





Nabukodonosorri, Babilonako erregeri, Erreblathara, zeina Ematheko lurrean baita; eta Nabukodonosorrek eman zioen bere erabakia.

6. Babilonako erregek Erreblathan hil zituen Sedeziasen semeak haren begien aitzinean; eta Babilonako erregek hil zituen Judako handi-mandi guziak.

7. Sedeziasi halaber iragazi ziozkan begiak; eta burdinaz lotharazi zuen Babilonara eramana izan zadientsat.

8. Kaldearrek erre zituzten halaber erregeren jauregia eta populua- ren etxeak, eta eragotzi zuten Jerusalemgo harrasia.

9. Nabuzardan, soldadoen buruzagiak, Babilonara eraman zituen hirian gelditu populu ondarrak, eta ihes, haren gana iragan zirenak, eta gainerako gelditu zen jende xehea.

10. Eta populuko erromesetarik, deusere etzutenak, Judako lurrean utzi zituen Nabuzardanek, soldadoen buruzagiak; eta egun hartan eman zaroezten hekiei mahastiak eta urtegiak.

11. Bada, Nabukodonosor, Babilonako erregek, Jeremiasez manatu zuen Nabuzardan, soldadoen buruzagia, zioelarik:

12. Har zazu, begiak ezar zatzu haren gainean, eta ez hari egin gaiz- kirik den-gutiena; baina egiozu berak nahi duen bezala.

13. Beraz Nabuzardanek, soldadoen buruzagiak, eta Nabusezbanek, Errabsaresek, Nereielek, Sereserrek, Errebmagek eta Babilonako errege- ren handi guziek

14. Igorririk gizonak, atheratu zuten Jeremias presondegiko ezkaratze- tik, eta eman zioten Godoliasi, Ahikamen seme, Saphanen arresemeari, sarraraz zezan Jeremias etxe batean, populua- ren erdian egoteko.

15. Bada, presondegiko ezkaratzean hertsia zenean oraino, Jeremias ilkhi zitzaioen Jaunaren hitza, zerralarik:

16. Zoaz, eta mintza zazu Abdemelek Ethiopiarra, diozularik: Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Huna beraz non bethetzera daramatzadan ene hitzak hiri hunen gainera, gaitzetan eta ez onetan; eta egun huntan gerthaturen dire zure begien azpian.

17. Eta egun libratu- ren zaitut, dio Jaunak, eta lazten zaituzten gizo- nen eskuetara etzare emana izanen.

18. Baina itzurraziz libratu- ren zaitut, eta etzare ezpataren azpira eroriko; baina segurean izanen da zure bizia, zeren ene baithan izan duzun sinheste, dio Jaunak.

## XL. KAP.

1. Jauna ganik Jeremias ethorri zitzaioen solasa, Erramatik libro igo- rria izan zen ondoan Nabuzardanez, soldadoen buruzagiaz, burdinaz lot- hua hartu zuenean, Jerusalem- dik eta Judatik herraldatzen eta Babilonara eramaten zirenen guzien erdian.

2. Soldadoen buruzagiak harturik beraz Jeremias, erran zioen: Lekhu hunen kontra zure Jainko Jaunak zorigaitz hau erran du.

3. Eta erakharri, eta Jaunak erran zuen bezala egin du, zeren Jaunaren kontra egin duzuen bekhatu, eta ez duzuen entzun haren sola- sa; eta bethe da haren hitza zuen gainean.

4. Orain beraz libratu zaitut eskuetan zintuen burdinetarik; eta zure gogoko balin bada enekin Babilonara ethortzea, zato, eta ezarriko ditut ene begiak zure gainean; ordea zure desgogara bada enekin Babilonara ethortzea, zaude: huna, zure aitzinean da lurra oro: zer-ere hautatuko bai- tuzu, eta norat-ere goateko gogoa baituzu, zoaz harat.

5. Ez ethor enekin; baina, zaude Godoliasekin, Ahikamen seme, Saphanen arresemearekin, zeina Judako hirien buruzagi ezarri baitu Babilonako erregek; zaude beraz harekin populua- ren erdian, edo zoaz goateko gogoa dukezun edozein tokitara. Soldadoetako buruzagiak eman ziozkan halaber jatekoak eta emaitzak, eta igorri zuen.

6. Jeremias berriz, Godoliasen gana, Ahikamen semearen gana, etho- rri zen Masphathera, eta lekhuaren gainean utzia izan zen populua- ren erdian egotu zen.

7. Eta bazterretan barraiatuak izan ziren armadako aitzindari guziek, berek eta beren lagunek aditu zutenean, Babilonako erregek lekhuko buruzagi egin zuela Godolias, Ahikamen semea, eta haren gomendioko utzi zituela gizon, emazteki, haur eta tokiko erromesetarik Babilonara era- manak izan etzirenak;

8. Godoliasen gana ethorri ziren Masphathera, eta Ismahel, Nathaniasen semea, eta Johanan, eta Jonathan, Kareeren semeak, eta Sareas Thanehumethen semea, eta Ophiren semeak, zeinak Netophathiko baitziren, eta Jezonias, Maakathiren semea, berak eta beren gizonak.

9. Eta Godoliasekin, Ahikamen semeak, Saphanen arresemeak, zin egin zioten hekiei eta hekien lagunei, zioelarik: Ez izan Kaldearren zerbi- tzatzeko lotsa; zaudezte tokiaren gainean, zerbitza zazue Babilonako erre- ge, eta ongi helduko zaitzue.

10. Huna ni Masphathen nagoela Kaldearrek gure gana igortzen dituzten manuei ihardesteko: zuek aldiz, bil zatzue mahatsak, bihiak,



olioa; ezar zatzue zuen untzietan, eta zaudezte daduzkatzuen zuen hirietan.

11. Eta Moaben, eta Amonen semeetan, eta Idumean, eta toki guzietan ziren Juduek ere aditurik Babilonako erregek Judean eman zituela populu ondarrak, eta hekien gaineko buruzagi ezarri zuela Godolias, Ahikamen semea, Saphanen arresemea;

12. Itzuli ziren, diot, Judu guziak, ihes egin zuten bazter guzietarik, eta ethorri ziren Judako lurrera Godoliasen gana Masphathera; eta bildu zuten arno eta bihi hainitz.

13. Johanan, Kareeren semea, eta armadako aitzindari, bazterretan barraiatuak ziren guziak, Masphathera ethorri ziren beraz Godoliasen gana.

14. Eta erran zaroten: Jakizu Baalisek, Amontarren erregek, igorri duela Ismahel, Nathaniasen semea, zure hiltzera. Eta Godoliasek, Ahikamen semeak, etzituen sinhetsi.

15. Berriz, Johananeke, Kareeren semeak Godoliasi ixilik erran zioen: Goanen naiz, eta joko dut Ismahel, Nathaniasen semea, nihork jakin gabe, beldurrezeta khen dezazun bizia, eta barraiatuak izan ditezen zure gana bilduak diren Judu guziak, eta gal ditezen Judako ondarrak.

16. Eta Godoliasek, Ahikamen semeak ihardetsi zioen Johanani, Kareeren semeari: Berautzu holakorik egin; ezen zuk Ismahelez diozuna ez da egia.

### XLI. KAP.

1. Eta zazpigarren hilabethean, gerthatu zen Ismahel, Nathaniasen semea, Elisamaren arresemea, errege odoletikakoa, eta harekin erregerekilako handiak eta hamar gizon Masphathera ethorri zirela Godolias, Ahikamen semea gana; eta Masphathen elkharrekin jan zuten.

2. Bada, Ismahel, Nathaniasen semea, eta harekin ziren hamar gizonak xutitu ziren, eta ezpataz jo zuten Godolias, Ahikamen semea, Saphanen arresemea, eta hil zuten Babilonako erregek lurreko buruzagi ezarri zuena.

3. Ismahelek jo zituen halaber Godoliasekin Masphathen ziren Judu guziak, han khausitu ziren Kaldearrak eta gerlako gizonak.

4. Berriz, Godolias hil zuenetik biharamunagoan, nihork etzakielarik oraino,

5. Sikemdik, Silotik eta Samariatik ethorri ziren laur hogoi gizon, bizarrak moztuak, soinekoak phorroskatuak, hautsez estaliak; eta eskuan bazituzten emaitzak eta isentsua Jaunaren etxean eskaintzeko.

6. Ismahel, Nathaniasen semea, ilkhi zitzaieten beraz aitzinera, eta bidean zihoan nigarrez; eta buruz buru egin zituenean, erran zioeten: Zatozte Godolias, Ahikamen semea gana.

7. Haukiek hiriaren erdira heldu izan zirenean, Ismahelek, Nathaniasen semeak, eta harekin ziren hamar gizon hil zituzten erreka baten erditik hurbil.

8. Bada, hekien artean khausitu ziren hamar gizon Ismaheli erran ziotenak: Ez gaitzatzula hil, zeren gure lurretan baititugu ogizko, garagarrezko, oliozko eta eztizko ontasuntzeak. Eta Ismahel gelditu zen eta etzitzen hil beren anaiekin.

9. Erreka berriz, zeinetara Ismahelek arthiki baitzituen Godoliasen gatik jo zituen gizonen gorphutzak, hura zen Asa erregeak egin zuen bera, Baasa, Israelgo erregeren ariaz: Ismahel, Nathaniasen semeak hilez bethe zuen hura.

10. Eta Ismahelek preso eraman zituen Masphathen ziren populuko ondarrak guziak, erregeren alabak eta Masphathen gelditu populua oro; zeinak Godoliasen, Ahikamen semearen gomendioko ezarri baitzituen Nabuzardanek, soldadoen buruzagiak. Eta Ismahelek, Nathaniasen semeak, hartu zituen eta goan zen, Amonen semeetara iragaiteko.

11. Bada, Johananeke, Kareeren semeak, eta harekin ziren soldado aitzindari guziek, aditu zuten Ismahel, Nathaniasen semeak egin gaixtakeria guzia.

12. Eta harturik gizon guziak, goan ziren gudu ematera Ismaheli, Nathaniasen semeari; eta atzeman zuten Gabaongo ur handien aldean.

13. Ismahelekin zen populua ikhusi zituenean Johanan, Kareeren semea, eta harekin ziren soldado aitzindari guziak, bozkariotan sarthu zen.

14. Eta Ismahelek Masphathen hartu populua oro itzuli zen; eta bihurturik goan zen Johanan, Kareeren semea gana.

15. Ismahelek berriz, Nathaniasen semeak, Johananeke aitzinetik ihes egin zuen zortzi gizonekin, eta Amontarretara goan zen.

16. Johananeke beraz, Kareeren semeak, eta harekin ziren soldado aitzindari guziek hartu zituzten populu ondarrak oro, Ismahel Nathaniasen semearen eskuetarik atheratu zituztenak, hunek Masphathik zaramatzalarik, hil zuen ondoan Godolias, Ahikamen semea; hartu zituzten gerlako on ziren gizonak, emaztekiak, haurrak, ebakiak, eta bihurrazituzten Gabaondik.

17. Eta goan ziren, eta bidean trikatu ziren Kamaamen, zeina Bethlehemo ondoan baita, aitzina goateko, eta Egipton sartzeko gogoz,



18. Kaldearren ihes; ezen hekien beldur ziren, Ismahelek, Nathanasen semeak, hil zuelakoz Godolias, Ahikamen semea, Babilonako erregek Judako lurreen buruzagi ezarri zuena.

## XLII. KAP.

1. Eta soldado aitzindari guziak, eta Johanan Kareeren semea, eta Jezonias, Osaiasen semea, eta gainerako jende xehea, ttipi-handiak, hur-bildu ziren,

2. Eta erran zioten Jeremias profetari: Gure othoitz zure aitzinera eror bedi: zure Jainko Jaunari guretzat othoitz egiozu, ondar haukientzat guzientzat; ezen hainizetarik guti gare gelditu, zure begiek ikhusten gaituzten bezala;

3. Zure Jainko Jaunak ezagutaraz diazagun zer bidez ibili behar garen, eta zer egin behar dugun.

4. Aldiz, Jeremias profetak ihardetsi zioten: Aditu dut; huna non zuen Jainko Jaunari othoitz egiten diodan zuen erranaren arabera; edozein gauza ihardets diazadan, erranen darotzuet, eta ez darotzuet deusere gordeko.

5. Eta Jeremias erran zioten: Gure artean Jauna izan bedi egiaren eta zintasunaren lekhuko, zure Jainko Jaunak zure arartekoz igorriko darokun nolana hiko hitzaren arabera ez badugu egiten.

6. Izan dadien ona, izan dadien txarra, ethordun izanen gare igortzen zaitugun gure Jainko Jaunaren hitzari; ongi hel dakigun, gure Jainko Jaunaren hitza entzunik.

7. Bada, hamar egun bethe zirenean, Jaunaren hitza ilkhi zitzaioen Jeremias.

8. Eta Jeremiasek deithu zituen Johanan, Kareeren semea, eta harekin ziren soldado aitzindariak, eta ttipi eta handi, populu guzia.

9. Eta erran zaroeten: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak, zeinaren gana igorri bainauzu, haren oinetan zuen othoitzzen ezartzera:

10. Baldin soseguz gelditzen bazarete lur huntan, altxaturen zaituztet, eta ez eragotziko; landaturen zaituztet, eta ez errotik atherako; ezen jadanik egin darotzuedan gaizkiaz jabaldua naiz.

11. Ez izan beldur zuek ikharan ezartzen zaituzten Babilonako erregeren begithartearentzat; ez izan haren lotsa, dio Jaunak; zeren zuekin bainaiz, zuen salbatzeko; eta haren eskuetarik atheratuko zaituztet.

12. Ene urrikalmendua ixuriko dut zuen gainera; urrikalduko natzaitzue, eta lur huntan egonaraziko zaituztet.

13. Erran balin bazinezate ordean: Ez gure lur huntan egonen, ez dugu entzunen gure Jainko Jaunaren hitza,

14. Diozuelarik: Ez holakorik, bainan Egiptoko lurrera eginen dugu; han ez dugu gerlarik ikhusiko, ez turuta durrundarrrik adituko, ez-eta goseterik jasanen; eta han egonen gare:

15. Aria hortaz, adi zazue orai Jaunaren hitza, Judako ondarrak: Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Baldin itzultzen baduzue zuen begithartea Egiptoan sartzeko, eta sartzen bazarete, han egoteko;

16. Zuek izitzen zaituzteten ezpatak, han, Egiptoko lurreen atzemenen zaituztete; eta gosetea, zeinaren grina baituzue, Egipton lothuko zaitzue, eta han hilen zarete.

17. Eta beren begitharteak itzuliko dituzten guziak Egiptoan sartzeko, han egoteko gogoz, hilen dira ezpatatik, gosete eta izurritetik; hekietarik bat ez da geldituko, ez-eta nik hekien gainera erakharriren dudan gaitzari itzuriko.

18. Alabainan hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Nola ene hasarrea eta gaitzidura biztu baitira Jerusalemdarren kontra, orobat biztuko da ene gaitzidura zuen kontra, Egipton sarthu zaitezketenean, eta izanen zarete burhoztagarri eta lotsagarri, madarizionetan eta laidotan; eta ez duzue gehiago ikhusiren lur hau.

19. Huna Jaunaren hitza zuen gainean, Judako ondarrak: Egiptorat ez sar; jakizue ongi, egun lekhukotasun egin darotzuedala,

20. Zuen buruak ditutzuela enganatu; ezen bidali nauzue gure Jainko Jauna gana diozuelarik: Guretzat othoitz egiozu gure Jainko Jaunari, eta edozein gauza erran dezazun gure Jainko Jaunak, hala-hala erraguzu guzia, eta eginen dugu.

21. Eta erran darotzuet egun, eta ez duzue entzun zuen Jainko Jaunaren mintzoa, zuen gana igorri nauen gauza guzien gainean.

22. Orai beraz jakinen duzue ongi, ezpatatik, gosete eta izurritik hilen zaretela, egoteko gogoz sarthu nahi izan duzuen tokian.

## XLIII. KAP.

1. Bada, hau gerthatu zen, Jeremiasek akhabatu zituenean Jainko Jaunaren solas guziak, zeinen ariaz hekien gana bidali baitzuen hekien Jainko Jaunak:

2. Azarias, Osaiasen semeak, eta Johanan Kareeren semeak, eta gizon hantustedun guziek erran zuten, Jeremias mintzatuz: Gezurra diok; ez hau gure Jainko Jaunak bidali erratera: Egipton ez sar han egoteko gogoz.



3. Bainan Barukek, Neriasen semek, herabilka gure kontra, gu Kaldearren eskuetara arthiki beharrez, hil gaitzaten, eta gu Babilonara desherriarazi nahiz.

4. Eta Johaneanek, Kareeren semeak, eta soldado aitzindari guziek, eta populu guziak etzuten entzun Jaunaren hitza, Judako lurlean egoteko.

5. Bainan Johaneanek, Kareeren semeak, eta soldado aitzindariak hariturik Judako ondar guziak, jendaia guzietarik, zeinetan barraiatuak baitziren, itzuli zirenak, Judako lurlean egoteko;

6. Gizonak, emaztekiak, haurrak, erregeren alabak, eta Nabuzardanek soldadoen buruzagiak Godoliasekin, Ahikamen seme Saphanen arresemearekin, utzi zituenak, eta Jeremias profeta, eta Baruk Neriasen semea;

7. Sarthu ziren Egiptoko lurlean, ez baitziren Jaunaren hitzari ethor-dun izatu; eta heldu izan ziren Taphniseraino.

8. Eta Taphnisen Jeremias ilkhi zitzaioen Jaunaren hitza, zerralarik:

9. Eskuan har zatu harri handi batzu eta gorde zatzu adrailuzko harrasiaren azpian den bobedan, Faraonen jauregiko athean, Taphnisen, Judu-gizonak ikhusten dutelarik;

10. Eta erranen daroezu: Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Huna non hartuko dudan Nabukodonosor, Babilonako errege, ene zerbitzaria; eta igorriko dut; eta gorde ditudan harri horien gainean ezarriko dut haren tronua, eta harek harri horien gainean ezarriko du bere jarlekhoa.

11. Eta ethorrik joko du Egiptoko lurra; hiltzeko direnak hilez, gathibu eramatekoak gathibu eramanez, ezpatarentzatekoak ezpatan iraganez.

12. Sua biztuko du Egiptoko jainkoen tenploetan, eta erreko ditu, eta jainkoak eramanen ditu gathibu; eta Egiptoko lurra erabiliko du, artzainak bere kapa soinean bezala; eta bakean ilkhiko da hemendik.

13. Eta xehakatuko ditu iguzkiaren tenploko jainkomolde Egiptoko lurlean direnak; eta Egiptoko jainkoen tenploak suz erreko ditu.

#### XLIV. KAP.

1. Jeremias ek egin solasa Egiptoko lurlean egoten ziren Judu guziei; Magdalon, Taphnisen, Menphisen eta Phaturesgo lurlean zaudezenei, zerralarik:

2. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Ikhusten duzue zuek Jerusalemaren gainera eta Judako hiri guzien gainera jautsarazi dudan zorigaitz hau guzia; eta hara egun non dauden mortu, eta egoiliar bat ez da hekietan;

3. Egin duten tzarkeriaren ariaz, ni hasarreazteko, eta ez hekiek, ez zuek, ez zuen arbasoek ezagutzen etzintuzten jainko arrotzei sakrifikatze-ko eta hekien adoratzeko.

4. Eta zuen gana bidali ditut profeta ene zerbitzari guziak, gauaz jai-kiz, igorritz, eta erranez: Hastio dudan horrelako izigarrikeriarik ez egin.

5. Eta ez dute entzun, ez dute beharria makhurtu, beren gaizkietarik bihurtzeko, eta jainko arrotzei ez sakrifikatze-ko.

6. Eta biztu dira ene gaitzidura eta ene irakidura; eta gartu dira Judako hirietan eta Jerusalemeko karriketan; eta haukiek bihurtu dira mortu eta desmasietara, egun ageri den bezala.

7. Eta orai dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Zertako egiten duzue gaizki handi hau zuen buruen kontra, xahuarazteko Judaren erditik zuetarikako gizon, emazteki, haur eta bulharrean dena, eta zuetarik ez dadien geldi ondar bat ere;

8. Tarritatzen nauzelarik zuen eskuetako eginkariez, jainko arrotzei sakrifikatuz Egiptoko lurlean, zeintara sarthu baitzarete hemen egoteko, eta galtzeko, eta lurreko jendaia guzien madarikagarri eta laidakizun izateteko?

9. Ahantzi othe ditutzue zuen arbasoen gaizkiak, eta Judako erregeen gaizkiak, eta hekien emazteen gaizkiak; eta zeronen gaizkiak, eta zuen emazteen gaizkiak, Judako lurlean eta Jerusalemeko eremuetan eginak?

10. Egun huntaraino nihor ez da garbiturik; eta ez dire beldurtu, eta ez dire ibili Jaunaren legean, eta zuen aitzinean eta zuen arbasoen aitzinean eman ditudan ene manamenduetan.

11. Hargatik hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Huna non zuetara itzuliko dudana ene begithartea aldegaitez, eta xahutuko dut Juda guzia.

12. Eta hartuko ditut Judako ondarrak, beren begitharteak itzuli dituztenak Egiptoko lurlean sartzeko eta han egoteko, eta oro Egiptoko lurlean xahutuak izanen dire; ezpataren eta gosetearen azpian eroriko dire, eta ttipienetik handieneraino xahutuak; ezpatatik eta gosetetik hilen dire, eta izanen dire burhotan, eta sendagailetan, eta madarizionetan, eta laidotan.

13. Eta Egiptoarren ikhustera goanen naiz, Jerusalemaren ikhusten izatu naizen bezala, ezpataz, gosete eta izurriteaz.

14. Eta Egiptoko lurrera egotera dihoazinetarik nihor ez da itzuriko, eta Judu-ondarretarik bat ez da geldituko, ez-eta itzuliko Judako lurrera, zeinaren alderat altxatzen baitire hekien arimak, han egoteko irritsez: ez da itzuliko ihes egiten duena baizik.



15. Bada, gizonek, zeinek baitzakiten hekien emazteek sakrifikatzen zutela jainko arrotzei, eta emazteki guziek, zeinetarik han moltzo handi bat baitzen, eta Phaturesen Egiptoko lurtean egoten zirenen populuak, orok ihardetsi zaroten Jeremias, ziotelarik:

16. Ez dugu zure ganik entzunen Jaunaren izenean erasi darokuzun solasa;

17. Bainan betheko dugu gure ahotik ilkhiko den hitza, zeruko erregerinari sakrifizioen eta libazioneen egiteko, guk eta gure aitek, gure erregeek eta buruzagiek Judako hirietan eta Jerusalemeko plazetan egin izan dugun bezala; eta orduan asetzen ginen ogiz, eta oro ongi heltzen zitaizkigun, eta ez ginduen ikhusi zorigaitza.

18. Aldiz gelditu garen ordutik sakrifizioen eta libazioneen egitetik zeruko erregerinari, orotaz eskasia dugu; ezpatak eta goseak xahutzen hari gaitu.

19. Eta baldin sakrifizioak eta libazioneak zeruko erregerinari eskaintzen badiozkagu, gure senharren nahia gabe egiten othe ditugu ophilak haren ohoratzeko, eta libazioneak hari eskaintzeko?

20. Eta Jeremiasek ihardetsi zioen populu guziari, gizonen kontra, eta emaztekien kontra, eta populu guziaren kontra, zeinek solas hori ihardetsi baitzioten, zerralarik:

21. Judako hirietan eta Jerusalemeko plazetan, zuek, eta zuen aitek, zuen errege eta buruzagiek, eta lurreko populuak eskaini sakrifizioez ez othe da orhoitu Jauna, eta ez othe zaizkio bihotzaren gainera igan?

22. Eta Jaunak etzezakeen gehiago iharduk zuen lehien tzartasuna gatik, eta egiten zintuzten hatsgarrikerien gatik; eta zuen lurra arthikia izan da desmasietara, guzien lazgarri eta madarikagarri, holetan non ez baita han nihor egoten, egun huntan den bezala.

23. Zeren jainkomoldeei duzuen sakrifikatu, Jaunaren kontra bekhatu egin; Jaunaren mintzoa ez entzun, eta etzaretzen haren lege, manamendu eta erabaketan ibili; horien gatik gerthatu zaizkitzue ondiko haukiek, egun huntan den bezala.

24. Bada, Jeremiasek erran zioten populu guziari eta emazteki guziei: Adi zazue Jaunaren hitza, Judatik Egiptoko lurtean zaretzen guziek:

25. Hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Zuek eta zuen emazteak mintzatu zarete zuen ahoz, eta zuen eskuz obratu ditutzue zuen hitzak, zinerratarik: Zeruko erregerinari sakriskatzeko eta libazioneen eskaintzeko egin ditugun botuak bethe detzagun. Bethe ditutzue zuen botuak, eta obratzue obratu.

26. Horren gatik adi zazue Jaunaren hitza, Judatik Egiptoko lurtean zaretzen guziek: Huna non zin egin dudan nik ene izen handiaz, dio Jaunak, Egiptoko lur guzian ene izena ez dela gehiago deithua izanen zein-nahi gizon Juduren ahotik, erranez: Bizi bedi Jainko Jauna!

27. Huna non hekien gainera atzarria egonen naizen ni gaizkiko eta ez oneko; eta Egiptoko lurtean diren Judu-gizonak oro xahutuak izanen dire ezpatak eta goseteaz, arras xahu ditezen arteo.

28. Eta ezpatari itzuriko diren gizon bakharrak, Egiptoko lurretik bihurturen dire Judako lurrera; eta Egiptoko lurrera, han egoteko gogoz sarthu diren Judako ondar guziek jakinen dute noren hitza den betheko, ala enea, ala hekiena.

29. Eta hau izanen duzue ezagutkari, dio Jaunak, zuen gainean ikharaturen naizela toki huntan, jakin dezazuen ene hitzak egiazki betheko direla zuen zorigaitzetan.

30. Hau dio Jaunak: Huna non arthikiko dudan Faraon Efree, Egiptoko errege bere etsaien eskuetara, eta haren biziaren ondoan dabilzanen eskura; Sedezias, Judako errege, arthiki dudan bezala bere etsai Nabukodonosor, Babilonako erregeren eskura, zeinak bilhatzen baitzuen haren bizia.

#### XLV. KAP.

1. Baruki, Neriazen semeari, Jeremias profetak erran zioen hitza, Jeremiasen ahotik solas horiek liburu batean iskribatu zituenean, Judako errege Joakin, Josiasen semearen laugarren urthean. Jeremiasek erran zioen:

2. Israelgo Jainko Jaunak hau derrazu, Baruk:

3. Erran duzu: Ene dohakabea! Zeren Jaunak oinhazea berhatu baitu ene oinhazearen gainera; ethendu naiz auhenez, eta phausua ez dut aurk-hitu.

4. Hau dio Jaunak: Hunela erranen diozu: Huna non altxatu ditudanen eragoztera nohan; landatu ditudanen, errotik atheratzera, eta lur hunen guziaren xahutzera.

5. Eta zu, gauza handiketa zabilta zuretzat? Ez bilha; ezen huna non gaitza erakarriren dudan nik haragidun ororen gainera, dio Jaunak; eta zuri begiraturen darotzut bizia, goanen zaren toki guzietan.

#### XLVI. KAP.

1. Zer solas iduki zaroen Jaunak Jeremias profetari jendaian kontra,



2. Egiptoaren gainean, Faraon Nekao Egiptoko erregeren armada-  
ren kontra, Nekao baitzen Ufratako ur-hegian, Karkamisen, eta  
Nabukodonosorrek, Babilonako erregeek jo baitzuen, Judako errege,  
Joakin, Josiasen semearen laugarren urthean:

3. Xuxent zatzue harmak eta erredolak, eta abia zaitzte gerlara.

4. Zaldizkoak, uztar zatzue zaldiak, eta igan zaitzte; jauntzatzue kas-  
kak, dirdiraraz lantzak, soinera gerruntzeak.

5. Bainan zer! Ikhusten ditut ikharatuak, eta gibelaz itzultzean, hekie-  
tarik hazkarrenak hilak; herresakan ihes egin dute eta ez dute gibelerat  
begiratu; alde orotarik izialdura, dio Jaunak.

6. Zalhuak ez beza ihesari jo, eta hazkarrak ez beza izan itzurtzeko  
usterik; ipharraldean, Ufratako ur-hegian izan dire garhaituak eta jo dute  
lurra.

7. Zein da, ibaia bezala eta ibaietako turrustak hantzen diren bezala,  
igaiten den hori?

8. Egiptoa igaiten da ibaia iduri; ibaiek bezala daramazki bere uhinak,  
eta erraten du: Iganez estaliren dut lurra, galduko ditut hiria eta hiritarrak.

9. Igan zaitzte zaldietara, jauz orga-lasterretara; aitzina, hazkarrak,  
Ethiopiarrak, Libiar erredoladunak, eta Lidiar, gezi hartzen eta arthikitzen  
dakizuenak.

10. Egun hau ordean armadetako Jainko Jaunaren eguna da, asper-  
kunde eguna, bere etsaietarik asperkunde hartzekoa; ezpatak iretsiko  
ditu, aseko eta hordituko da hekien odolez; ezen armadetako Jainko  
Jaunaren bitima ipharraldeko lurtean da, Ufratako ur-hegian.

11. Galaadera igan hadi eta har zan balsamua, Egiptoar neskatxa  
gaztea; alferretan erabiliren ditun asko sendakari; sendatzerik hiretzat ez  
dun.

12. Jendaiek entzun dine hire laidoa, eta hire orrobiek bethe dine  
lurra; zeren hazkarrak hazkarrari jazarri baitio eta biek batean jo baitute  
lurra.

13. Jaunak Jeremias profetari erran solasa, noletan Nabukodonosor,  
Babilonako errege, ethortzekoa zen eta jo behar zuen Egiptoko lurra.

14. Ere mozue Egiptoari berria, adiaraz zazue Magdalon, eta entzu-  
naraz Menphisen eta Faphnisen eta errazue: Ilkhi hadi eta buruz jar, zeren  
ezpatak iretsi baititu hire inguruan oro.

15. Zergatik usteldu da hire hazkarra? ezin ihardetsi du, Jaunak era-  
gotzi baitu.

16. Murruka eragotzi ditu; gizona erori da bere lagunaren aldean, eta  
erran dute: Jaiki, eta bihur gaitezen gure herritarretara, gure sort-lekhura,  
usoaren ezpataren aitzinetik.

17. Izen hau emozue Faraoni, Egiptoko erregeri: Denborak-asaldu.

18. Ala ni! (Dio erregeek, armadetako Jauna baita haren izena),  
Nabukodonosor ethorriren dela Thabor iduri mendien artean, Karmel  
itsasoaren aitzinean bezala.

19. Egiptoan hagoen neskatxa, xuxent zatzin herraldatzeko puska;  
ezen Menphis mortu eginen dun, utzia eta ezin-egonezko toki bat bilha-  
katuren dun.

20. Egiptoak iduri du miga propi, lerdena; akhulatzaila ipharretik  
ethorriren zaiio.

21. Haren sarizaleak ere, haren erdian zatzanak, aratxe gizenduak  
bezala bilhakatu dira; batean ihes egin dute; buru ezin egin dute; zeren  
ethorri baita hekien hiltzeko, hekien ikharpeneko eguna.

22. Etsaien oihuak durrundatzen du hala-nola kobrezko turutak;  
ezen harmetan laster eginen dute, eta haizkorekin ethorriko dira, egur-  
ephaileak iduri.

23. Ezin-khondatuzkoak dire, dio Jaunak; ebakiren dute haren oiha-  
na; xartalak bezala dire berhatu, eta nihork ez derrake zenbat diren.

24. Ahalkez urthua da Egiptoko alaba, eta ipharreko populuaren  
eskuetara arthikia da.

25. Armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak erran du: Nik ikharturen  
ditut Alexandriako biahorea, eta Faraon, eta Egiptoa, eta haren jainkoak,  
eta haren erregeak, Faraon eta haren gainean sinheste dadukatenak.

26. Eta arthikiren ditut hekien bizien ondotik dabiltzanen eskuetara,  
Babilonako errege Nabukodonosorren eta haren zerbitzarien eskuetara;  
eta gero Egiptoa egoiliarrez betheko da beihalako egunetan bezala, dio  
Jaunak.

27. Eta zu, Jakob, ene zerbitzaria, ez izi; eta zu, Israel, ez lotsa; ezen  
huna non atheratuko zaitudan urrungo tokitarik, eta erakharriren ditudan  
zure umeak beren gathibutasuneko lurretik; eta Jakob itzuliko da, eta  
phausatuko, eta onduz goanen da; eta nihor ez da izanen hura izituko  
duenik.

28. Eta zu, Jakob, ene zerbitzaria, ez izi, dio Jaunak; zeren zurekin  
bainaz ni, zeren nik xahutuko baititut populu guziak, zeinetara irazi bai-  
tzaitut: zu aldiz, etzaitut xahutuko, bainan zuzenki azurriaturen zaitut, eta  
garbi bazine bezala guphidetsi gabe.



### XLVII. KAP.

1. Jaunak zer solas iduki zioen Jeremias profetari Palestindarren kontra, Faraonek Gaza hartu aitzinean:

2. Hau dio Jaunak: Huna non ipharretik igaiten diren urak, eta orotara hedatzen diren uharrak bezala izanen dire, eta estaliren dituzte lurra eta haren zabaltasuna, hiria eta hiritarrak. Gizonek oihu eginen dute; orrobiaka egonen dire lurrean daudezenak oro;

3. Harmen eta etsaiaren gerlarien harramantz ozenaren ariaz, haren orga-lasterren ariaz, haren arroden elemeniaren ariaz. Aitek beren haurrei ez diote begiratu, besoak ethenduak izanez,

4. Ethorri baita eguna, zeintan larrutuak izanen baitira Filistindar guziak, eta xahutuak Tir eta Sidon, beren laguntza ondar guziekin; ezen Jaunak xahutu ditu Palestindarrak eta Kapadoziako irlako ondarrak.

5. Gaza khartzoildu, Askalon eta haren haraneko ondarrak ixildu dire. Noiz arteo hariko haiz hire buruaren sarraskitzen?

6. Oi Jaunaren marrauza, noiz arteo etzare geldituren? Bihur zaite zure maginara; hotz eta geldi zaite.

7. Nola dagoke geldirik, Jaunak manatu duenaz geroztik Askalonen kontra, eta haren aurkhirtza itsas-bazterrekoen kontra, eta han eman dioenaz geroztik bere lana?

### XLVIII. KAP.

1. Moabi hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Zorigaitz Naboren gainean, zeren larrutua eta ahalketara arthikia baita! Hartua da Kariathaim; ahalketan da hiri hazkarra, eta ikharatu da.

2. Hefebonez ez da gehiago Moaben kherik izanen. Etsaiek asmu egin dute haren gaitzetan: Zatozte, zioten, xahu dezagun populuen erditik. Ixilik beharko zare beraz gelditu, eta ezpata jarraikiren zaitzu ondotik.

3. Deihadar-otsak Oronaimdik: xahutze eta hiltzeketa handiak!

4. Herrautsia da Moab; marraska egiten irakhats diozozuete haren haurrei;

5. Ezen Luitheko patarra gora, nigarrez eta marraskaz igan da, zeren etsaiek Oronaimgo jaustean aditu baitituzte xahupeneko orrobiak.

6. Ihes! Salba zuen biziak! Tamariskak mortuan bezala izanen zarete.

7. Zeren zure sinhestea duzun iduki zure hazkargailu eta aberastasunetan, zu ere hartua izanen zare; eta Kamos goanen da atze-herrira; eta batean haren aphezak eta aitzindariak.

8. Eta harrapakaria hiri orotara da ethorriren, eta hiri bat bakharra ez da itzuriren; eta haranak galduko eta zelhaiak xahutuko dire; ezen Jaunak erran du.

9. Loreak emotzue Moabi, lorez estalirik goan dadien; eta haren hiriak mortu eta nihor ezin-egonezkoak izanen dire.

10. Madarikatua, Jaunaren lana zimarkhuka daramana! Madarikatua, bere ezpata odoletik gibelatzen duena

11. Gaztedanik gori izan da Moab, eta bere laparen gainean phausatu da; ez da untzi batetik bertzera aldaratua izan, eta ez da goan gathibu; hargatik gelditu zaio bere gozoa, eta etzaio aldatu bere usaina.

12. Aria hortaz, huna non dathortzen egunak, dio Jaunak; eta igorriko diozkat gorgoila xuxentzaileak eta antolatzaileak; eta lurrerat arthikiko dute, eta hustuko dituzte haren untziak, eta gorgoilak xehakatuko.

13. Eta Kamosek ahalkea emanen dio Moabi, hala-nola Israelgo etxeari eman izan baitio Bethelek, zeintan baitzuen bere sinhestea.

14. Nolaz diozue: Hazkarrak gare eta gudukatzeko gizon sendoak?

15. Moab xahutua, eta haren hiriak erreak, eta haren gizon-gazte hautak heriotzearen azpira jautsiak dire, dio erregek, armadetako Jauna deitzen denak.

16. Heldu da, hurbil da Moaben xahupena; laster handitan dathor haren desmasia.

17. Gozakari emozue, haren ingurutan zareten guziek; eta haren izena dakizuen guziek errazue: Nola haute da horren zigor hazkarra, horren makhila lelo handikoa?

18. Jauts hadi hire ospetik, eta egarrian jar hadi, Dibongo alabaren egoitza; ezen Moaben xahutzailea igaiten hari dun hire gana eta urratuko ditu hire hazkargailuak.

19. Aroertarra, jar hadi bidean eta begira zak; ihes dihoanari galdegiok eta itzurtzen denari errok: Zer gerthatu da?

20. Ahalkearen azpian da Moab, zeren garhaitua izan baita: egizue orrobia eta heiagora; Arnongo bazterretan heda zazue berria, xahutua dela Moab.

21. Erabakia jautsi da lur zelhaierat Helonen, Jafaren eta Mephaathen gainera;

22. Dibonen, Naboren eta Deblathaimgo etxearen gainera;

23. Kariathaimen, Bethgamulen eta Bethmaonen gainera;

24. Kariothen, Bofraren eta Moaben lurreko hiri, urrungo edo hurbileko guzien gainera.



25. Hautsia izan da Moaben adarra, eta trenkatua haren besoa, dio Jaunak.

26. Hordiaraz zazue hura, zeren Jaunaren kontra jaiki den; eta Moabek zainhartaturen du eskua bere goiti eginaren gainean, eta bere guzien irrigarri izanen da.

27. Ezen hire irrigarri erabili duk Israel, ohoinen artean atzeman bahu bezala; eta haren kontra atheratu ditukan elheen ariaz, gathibu izanen haiz eramana.

28. Utzatzue hiriak; harkadiak izan betzatzue egoitza, Moabitarrak; eta izan zaitezte usoa iduri, zeinak bere ohantzea egiten baitu zilho goretako ahoan.

29. Adituak gare Moaben hanpuruskeria; hainitz da hanpurutsu; eza gutzen ditugu haren burgoitasuna eta bihotzeko ausartzia, hanpurustasun eta harrokeriak.

30. Nik badakizkit haren kheak, dio Jaunak; eta haren indarra ez dela hekien arabera, eta haren ahala xit-tzen zuten gauzak egin beharrez erabili dituela asko borroka.

31. Hargatik auhendatuko naiz Moaben gainean, oihuz egonen natzaio-te Moab guziari, adrailuzko harrasietako gizon deithoretan daudezenei.

32. Sabamako mahastia, deithoratuko zaitut, Jazer deithoratu dudan bezala; zure gandoek iragan dute itsasoa; Jazerreko itsasoraino heldu izan dire; ohoina jauzi da zure uzta eta mahatsen gainera.

33. Jauzi, bozkarioak khenduak dire Karmeldik eta Moaben lurretik, eta lakoetarik geldiarazi dut arnoa; mahats-lehertzaileak ez du kantatuko ohiko kantua.

34. Hefebondik deihadarra aditu da Elealera eta Jafaraino; beren marraska entzunarazi dute Segordik Oronaimera, hirur urthetako migak bezala; Nemrimgo urak ere tzartuko dire.

35. Eta Moabetik, dio Jaunak, khenduko ditut lekhu goretan eskaintzen duena, eta bere jainkoei sakrifikatzen hari dena.

36. Horren gatik ene bihotza kuintaz egonen da Moaben gainean, xirola bat iduri; ene bihotzak xirolaren ots minak emanen ditu adrailuzko harrasiko gizonen gainera: zeren egin duten ahal zuten baino gehiago, hargatik dire galdu.

37. Izanen dire buru guziak khartzoil, bizar guziak murriz, esku guzietan lokharriak, bizkar orotan zurdatzak.

38. Moaben hegatzegi guzietan eta haren karriketan ez da deithorerik baizik, zeren deusetako ez den untzi bat bezala phorroskatu baitut Moab, dio Jaunak.

39. Nola izan da garhaitua Moaben hiria, eta orrobiaka dire egotu? Moabek nola du burua aphaldu, eta ahalketan da gelditu? eta Moab izanen da irrigarri eta ikhugarri guzientzat bere inguruan.

40. Hau dio Jaunak: Etsaia, arranoa iduri, hegaldaturen da, eta bere hegalak Moaben gainera hedaturen ditu.

41. Karioth hartua da, hartuak dire haren hazkargailuak; eta egun hartan Moabeko hazkarren bihotza izanen da erditzen hari den emaztekiaren bihotza iduri.

42. Eta Moab ez da gehiago izanen populu bat, zeren Jaunaren kontra den handitu.

43. Ikhara, zilhoa eta artea daude hire gainean, oi Moabitarra, dio Jaunak.

44. Beldurrak ihes igorriko duena, zilhora da eroriko; eta zilhotik ilkhiko dena, artean izanen da atzema; ezen Moaben gainera erakharriko dut haren ikharpeneko urthea, dio Jaunak.

45. Artetik ihes zihoazenak, Hefebonen itzalean dire baratu; bainan sua da ilkhi Hefebondik, eta garra Sehonon erditik; eta iretsi ditu Moaben zathi bat eta haren ume harramantz egileetarik lehenbizikoak.

46. Zorigaitz hiri, Moab! Galdua haiz, Kamosen populua; ezen hire seme-alabak gathibu dituk eramana.

47. Eta azken egunetan, dio Jaunak, bihurraziren ditut horren gathibuak. Hunaraino dire Moaben gainera erabakiak.

#### XLIX. KAP.

1. Amonen semeentzat. Hau dio Jaunak: Israelek ez othe du haurrik? ez othe du ondorerik? Zergatik beraz Melkom jabetu da Gadez, ondorego batez bezala, eta jarri da haren populua Gaden hirietan?

2. Aria hortaz, dio Jaunak, ethorriko dire egunak, eta Amonen semeen Errabathen gainera adiaraziko dut gudueta harramantza, eta tarrapata hartan urratua izanen da, eta haren alabak suan erreak izanen dire, eta Israel nausituko da oraiko bere nausiei, dio Jaunak.

3. Hefebon, egizan orrobia, zeren Hai xahutua baita; Errabatheko alabak, egizue marraska, jauntzatzue zurdatzak, deithora zaitezte, zoazte inguruka berroak gandi; zeren Melkom gathibu izanen baita eramana, eta harekin batean haren aphez eta buruzagiak.

4. Zertako hindabilan handirik hire haranetan? Urthu dun hire harana, neskaxa minbera, hire aberastasunetan fida hintzena, erraten huellarik: Nor niri hurbil?





5. Huna non izialdura jautsaraziren dudan hire gainera, hire inguruan dioen guzien ganik, dio armadetako Jainko Jaunak; eta bat bertzearen ganik oro barraiatuak izanen zarete, eta ez da izanen ihesliarren bilarazteko nihor.

6. Eta horien ondoan, gibelerat itzularaziren ditut Amonen umeetarikako gathibuak, dio Jaunak.

7. Idumearentzat. Hau dio armadetako Jaunak: Zuhurtziarik Themanen ez othe da gehiago? Kontseilua galdu da hango semeetarik, alfer bilhakatu da hekien zuhurtzia.

8. Ihes, Dedandarrak! Itzul gibelaz, eta lezera jauts zaitezte; ezen Esauren gainera erakharri ditut haren galpena, haren ikhartzeko eguna.

9. Mahats-ebasleak ethorri balire hire gainera, ez othe lezakete utz zenbait molkho? Ohoinak ethorri balire gabaz, beren doia eraman zuketen.

10. Nik ordean agerian ezarri dut Esau; gordeak zituenak agertu ditut, eta ezin itzaliren ditu; larrutuak dire haren umeak, haren anaiak eta hauzoak, eta bera ez da gehiago izanen.

11. Utzatzik hire umezurtzak, nik biziartzeko ditut; eta hire alhargunek ene baithan izanen dute beren pheskiza.

12. Ezen hau dio Jaunak: Huna non uhertasuneko untzitik edatera juiatuak etzirenek, hartarik edanen duten nasai; eta hi, garbi bahintz bezala, utzia izanen othe haiz? ez haiz hobengabea bezala geldituko, bainan edanen dun hazkarki;

13. Ezen ene buruaz zin egin dut, dio Jaunak, Bofra mortu eta eremu izanen dela, laidotan eta madarizionetan; eta behin-bethiko mortu izanen dire hango hiri guziak.

14. Aditu dut Jauna mintzatzen, eta jendaiei igorria izan zaiote bidalkin bat erratera: Bil zaitezte, eta zatozte haren kontra, eta goazen gudura.

15. Ezen huna non ttipi egin hautan jendaian artean eta nardagarri gizonen erdian.

16. Hire burgoikeria eta hanpurustasunak zoratu haute, har-zilhoetan hagoena, eta eginahalak badabilzkak munho gainaren ardiesteko; altxa baheza ere arranoak bezala hire ohantzea, khen nezakek handik, dio Jaunak.

17. Eta mortu izanen da Idumea; hartan gaindi iraganen direnak harrituko dire, eta xixtu egingen dute haren zauriez.

18. Eragotzia izanen da Sodoma, Gomorha eta hekien inguruko hiriak bezala, dio Jaunak; ez du gizonak han egingen bere egoitza, eta ez da gizasemerik han egonen denik.

19. Huna non etsaia izanen den lehoina iduri, Jordane-muthiritik lekhu eder eta hazkarraren kontra; ezen batbatean jauzaraziko dut haren gainera; eta zein da gerlari hauta buruz igorriko diodana? Ezik zein da ene idurikorik? eta nork jasanen du ene oldarra? eta zein da ene begitharteari ihardetsiko dioen artzain hura?

20. Aria hortaz adi zatzue Jaunak Edomen kontra atheratu duen asmua, eta Themandarren kontra egin dituen gogoetak: Ala! Osteko xumeenek ihes igorriko, eta xahuko dituztela berak eta beren egoitzak.

21. Hekien eragozpeneko harrabotsak ikharatu du lurra, hekien orroak entzun dire itsaso Gorrian.

22. Huna non etsaia igaitera dohan arranoa iduri, hegaldatuko da eta bere hegalak Bofraren gainean hedatuko ditu; eta egun hartan Idumeako hazkarraren bihotza izanen da erditzen hari den emaztekiarena iduri.

23. Damasentzat. Asaldutan dira Emath eta Arphad, zeren berri gaixto bat aditu baitute: itsasoan, nahasiak dire, grinaren ariaz ezin izan dute phausurik.

24. Damas erkhitu da, ihesari jo du, ikhara lothu zai; hesturak eta oinhazeek dadukate erdi-minetan dena bezala.

25. Nola utzi dute hiri ederresgarri, hiri bozkariozkoa?

26. Hango gizon-gazteak eroriko dire hango plazetan, eta gudutako gizon guziak ixilduko dire egun hartan, dio armadetako Jaunak:

27. Eta Damasko harrasiari su emanen diot eta Benadadeko harrasiak iretsiko ditu.

28. Zedarrentzat eta Asorgo erresumentzat, zeinak jo baititu Nabukodonosorrek, Babilonako erregek. Hau dio Jaunak: Jaiki eta igan zaitezte Zedarrera, eta larru zatzue iguzki-aldeko umeak.

29. Harturen diozkate beren olhak eta arthaldeak; eramanen dituzte berentzat hekien larru-olhak, eta puska guziak, eta kameluak, eta inguruan hekien gainera deithuko dute izialdura.

30. Ihes! Laster egizue, lezeetan gorde zaitezte, Asotarrak, dio Jaunak; ezen Nabukodonosorrek, Babilonako erregek, zuen kontra asmu egin du, zuen kontrako xedeak burutan hartuak ditu.

31. Jaiki zaitezte, dio Jaunak; deskantsu gozo eta zabalean bizi den populu horren kontra igan zaitezte; ez dute ez atherik, ez hagarik; bakharrik daude.

32. Hurapariaren puska izanen dire hekien kamelu eta abere-elementuak; eta haize guzietara barraiatuak ditut buru murriz horiek, eta beren muga guzietarik jauzaraziren diotet herioa gainera, dio Jaunak.



33. Eta Asor izanen da erainsugeen egoitza, mortu izanen da bethi guziko; han ez da gizonik geldituren, eta gizasemerik ez da han egotera ethorriko denik.

34. Zer solas iduki zioen Jaunak Jeremias profetari Elamen kontra, Sedezias, Judako errege, hasi zenean erreginatzen.

35. Hau dio armadetako Jaunak: Huna non hautsiko ditudan Elamen arranbela eta haren indar handia.

36. Lau haizeak zeruko lau izkinetarik erakharriko ditut Elamen kontra, eta haizatuko ditut haize guzietara, eta jendaiarik ez da izanen zeineta-tara helduko ez baitire Elamgo ihesliarrak.

37. Ikharan ezarriko dut Elam bere etsaien aitzinean eta Elamdarren biziak bilhatzen dituztenen aitzinean; eta hekien gainera jautsaraziko dut zorigaitza, ene hasarrearen hatsa, dio Jaunak, eta hekien ondotik igorriko dut ezpata, oro xahu detzadan arteo.

38. Eta ene tronua jarriko dut Elamen; eta handik xahutuko ditut erregeak eta buruzagiak, dio Jaunak.

39. Azken egunetan berriz, dio Jaunak, gibelerat itzularaziko ditut Elamgo gathibuak.

#### L. KAP.

1. Babilonaz eta Kaldearren lurraz, Jeremias profetaren arartekoz Jaunak erran solasa.

2. Jendaietan berria heda eta adiaraz zazue; altxa zazue bandera; goraki errazue, eta ez gorde; errazue: Hartua da Babilona; Bel ahalkearen azpian da, garhaitua da Merodak; hekien itxura zizelatuak ahalketan dire, hekien idolak garhaituak.

3. Ezen ipharretik Babilonaren kontra igaiten da jendaki bat, haren lurra mortu eginen duena; eta gizonetik aziendaraino ez da izanen hartan egonen denik; izitu eta goan dire.

4. Egun hekietan eta ordu hartan, dio Jaunak, ethorriko dire Israelgo semeak, berak eta hekiekin batean Judako umeak; eta bidean nigarrez higituko dire, eta bilhatuko dute beren Jainko Jauna.

5. Siongo bidea galdatuko dute; harat egonen dire hekien begithar-teak. Ethorriko dire eta Jaunari iratxikiko bethirainoko batasun batez, ahanzpenik ez baita izanen hura ezeztatuko duenik.

6. Ene populua arthalde galdu bat egina da; beren artzainek errebe-larazi dituzte; erabili dituzte mendiz mendi; menditik munhora jautsi dire, ahanzi dute beren etzan-lekhua.

7. Atzeman dituzten guziak iretsi dituzte, eta hekien etsaiek erran dute: Ez gare hobendun bilhakatu, zeren bekhatu egin baitute Jaunaren alderat, zeina baita zuzenbidearen edertasuna, hekien arbasoen iguriki-mena.

8. Ilkhi zaitzte Babilonaren erditik, ilkhi Kaldearren lurretarik, eta zoazte pittikak arthaldearen aitzinean bezala.

9. Ezen huna non ipharreko lurretik eraikhitzen dudan eta Babilonaren gainera erakharriko dudan populu handizko bilkhu bat; eta haren kontra eginbidetan jarriko dire, eta horreletan hartua izanen da; hekien geziak izanen dire gizon hazkarren eskutik dihoan eta huts egiten ez duen gezia bezala.

10. Eta Kaldea nork larru egonen da; haren larrutzaile guziak buluz-kinez betheko dire, dio Jaunak.

11. Zeren bozez etzinauzketen eta hanpurutsuki zaretan mintzatu ene primantzaren larrutzean; zeren ergiak sorhoan bezala zaretan barraiatu, eta zezanak bezala orroaz egon zaretan;

12. Zuen ama ahalke handitara eroriko da, eta herrautsarekin bardin ezarria izanen da zuei bizia eman izan darotzuen; huna non jendaietan azkena izanen den, mortu, biderik gabe eta agor.

13. Jaunaren hasarreak egoiliarrez gabeturen, eta guzia mortu eraginen du: nor-nahi iragan dadien Babilonatik, harrituko da eta xixtu eginen du horren zaurien gaiean.

14. Arranbela hedatzen duzuen guziak, Babilonaren kontra jar zaitzte inguruan; guduka zazue, ez guphidets geziak, zeren Jaunaren kontra egin baitu bekhatu.

15. Marruma egizue haren kontra: alde orotara hedatzen ditu eskuak; haren asentuak lurrera dihoazi, urratuak dire haren harrasiak, ezen Jaunaren asperkundera dabila; asperkunde har zazue Babilonaz; nola egin baitu berak, hala egiozue.

16. Babilonatik xahu zatzue erailea eta uztaroan ihitegia idukitzen duena; usoaren ezpataren aitzinean bakhotxa bere populara bihurturen da, bakhotxak bere lurrera ihes eginen du.

17. Arthalde barraiatu bat da Israel; lehoinek irazi dute; Asurgo erregek iretsi du lehenbizikorik; azken horrek, Nabukodonosor Babilonako erregek hautsi diozka hezurak.

18. Aria hortaz, dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak, huna non ikhuskaturen ditudan Babilonako errege eta haren lurra, hala-nola egin baitut Asurgo errege;



19. Eta bihurraziren dut Israel bere egoitzara; eta alhaturen da Karmelen eta Basanen; eta Efraimgo mendian eta Galaaden aseko da haren arima.

20. Egun hekietan eta ordu hartan, dio Jaunak, bilhatuko da Israelen gaizkia, eta ez da ageriko; bilhatuko da Judaren bekhatua, eta ez da atzemanen; zeren begithartez jarriko bainatzaiozte utzi ditukedanei.

21. Igan zaite nausien lurrera eta ikhar zatzu hango egoilarrak; haiza eta hil zatzu hekiei jarraikitzen direnak, dio Jaunak; eta egizu manatu darozkitzudan guzien arabera.

22. Gerla-harrabotsak lurrean eta xahutze handiak

23. Nola izatu da zathikatua eta herrautsia lur guziko mailua? nola jendaian artean mortu egina izan da Babilona?

24. Artean sarthu eta atzeman haut, Babilona, eta ez hintzen ohartzen; atzema eta harrapatua izan haiz, tarritatu dunalakotz Jauna.

25. Jaunak ideki du bere harmategia eta atheratu ditu bere hasarrearen harmak, zeren armadetako Jainko Jaunak hekien beharra baitu Kaldearren lurraren kontra.

26. Zatozte haren kontra lurraren bazterretarik; idek, ilkhi ditezen hura oinpean lehertu behar dutenak; khen zatzue bidetik harriak eta metaka ezar zatzue; hil zatzue guziak han, ez dadien bat geldi bizirik.

27. Xahu zatzue hango gizon hazkarrak oro, jauts beitez herioaren azpira; zorigaitz hekiei Zeren ethorri baita hekien eguna, hekien ikharpeneko ordua.

28. Ihesliarren oihuak, eta Babilonako lurretik itzuri direnenak, Sioni ekhartzeko gure Jainko Jaunaren asperkundearen berria, tenploaren ariazko asperkundearena.

29. Arranbela hedatzen duten guziei albiste emozuete moltzo handitan ethor ditezen Babilonara; haren kontra jar zaitezte inguruan; eta nihor ez, bedi itzur: bihur diozue bere egintzen arabera; egin dituen guzien arabera egiozue, zeren Jaunaren kontra den jaiki, Israelgo sainduaren kontra.

30. Horren gatik hango gizon-gazteak hango plazetan eroriko dire; eta gerlari guziak ixilduren dire egun hartan, dio Jaunak.

31. Huna non heldu natzaian, hanpurutsua, dio Jaunak, armadetako Jainkoak; zeren ethorri baita hire eguna, hire ikharpeneko ordua.

32. Eta eroriko da hanpurutsua, eta joko du lurra, eta nihor ez da izanen haren altxatzeko, eta haren hirietan biztuko dut sua eta erreko ditu haren inguruko gauza guziak.

33. Hau dio armadetako Jaunak: Bidegabea jasaiten dute Israelgo semeek eta Judako umeek batean: hartu dituzten guziek idukitzen dituzte, eta ez dituzte utzi nahi.

34. Indarduna da hekien berreroslea; haren izena da armadetako Jauna; juiatzean jabeturen da hekien zuzenaz, lurraren ikharatzeko eta Babilondarren arthikitzeo asaldura.

35. Ezpata Kaldearentzat, dio Jaunak, eta Babilondarrentzat, eta hekien buruzagi eta zuhurrentzat;

36. Ezpata haren aztientzat, zeinak zoro agertuko baitire; ezpata haren gizon hazkarrentzat, zeinak ikharan egonen baitire;

37. Ezpata haren zaldi eta orga-lasterrentzat, eta haren erdian den jende xehe guziarentzat, eta emaztekiak bezala izanen dire, ezpata haren aberastasunentzat, eta harrapaka eramanak izanen dire.

38. Agortea jautsiko da haren uren gainera, eta agortuko dire; zeren den lur hura jainkomoldeena, eta izigarrikerietan lakhet diren.

39. Hargatik han eginen dute beren egoitza erainsugeek fauno piko-jaleekin, eta han egonen dire ostrukak; eta ez da gehiago han nihor egonen bethi guziraino, eta ez da berritua izanen menderen mendetan.

40. Herrautsiren dut, dio Jaunak, hala-nola Jaunak herrautsi baititu Sodoma eta Gomorha eta hekien hauzo hiriak; ez da han gizonik egonen, eta gizasemerik ez da han egoitza eginen duenik.

41. Huna non ipharretik heldu den populu bat, eta jendaia handi bat, eta errege asko jaikiko dire lurraren buruetarik.

42. Hartuko dituzte arranbela eta erredola; odolkoikiak dire eta urrikalmendugabeak; hekien mintzoak iduriko du itsasoaren orroa, eta zaldietara iganen dire, hala-nola hire kontra gudurat abian den gizona, oi Babilonako alaba.

43. Babilonako erregek aditu du hekien omena, eta erkhitu dire haren besoak; hesturak hartu du, eta oinhazeak erditzen hari dena bezala.

44. Huna non lehoina iduri etsaia iganen den Jordane-muthiritik lekhu eder eta hazkarraren kontra; ezen bat-batean jauzaraziko dut haren gainera; eta zein da gerlari hauta buruz igorriko diodana? Ezen nor da ni bezalakorik? eta nork jasan ene oldarra? eta zein da ene begitharteari ihar-detsiko dioen artzaina?

45. Aria hortaz, adi zazue Jaunaren asmua, Babilonaren kontra gogotan hartu duena; adi zatzue Kaldearren lurraren kontra buruan hartu dituen xedeak: Ala! Osteko ttipienek ihes igorriko dituztela, eta hekiekin hekien hiria xahutuko dutela.



46. Babilonaren gathibutasunaren berriak ikharatu du lurra, eta heia-gora entzun da jendaian artean.

### LI. KAP.

1. Hau dio Jaunak: Huna non Babilona eta Babilondar, ene kontra altxatu direnen gainera jauzaraziko dudan izurritziko haize bat bezala.

2. Eta Babilonara igorriko ditut bahatzaileak; eta bahatuko dute hura eta xahutuko dute haren lurra, zeren alde orotarik gainera ethorriko baitzaizko bere atsekabetako egunean.

3. Arranbela hedatzen duenak ez beza heda, eta gerruntzeduna ez bedi igan: ez guphidets hango gazteak; hil zatzue hango gerlari guziak.

4. Eta hilak eroriko dire Kaldearren lurtean, eta sakhituak hango ephaitzetan;

5. Zeren Israel eta Juda ez baitire alhargundu beren Jainkoaz, armadetako Jaunaz, eta hekien lurra bethea izan baita Israelgo sailduaren kontrako bekhatuz.

6. Ihes egizue Babilonaren erditik, eta bakhotxak bere biziaren salbatzera egin beza; ez utz ixilean haren gaixtakeria; zeren Jaunaren asperkundero ordua baita, eta berak bihurturen dio ordaina.

7. Babilona Jaunaren eskuan da urhezko unti bat, lurra oro horditzen duena; haren arnotik edan dute jendaiek, eta hargatik khordokan dabilta.

8. Tupustean erori da Babilona, eta xehakatu da; orrobia egizue haren gainean; har zazue balsamua haren oinhazearentzat, hean senda daitekeen.

9. Lothu dugu Babilona, eta ez da sendatu; utz dezagun eta goazen zein gure lurrera; zeren haren gaineko erabakia heldu baita zeruetaraino, eta igan baita hedoietaraino.

10. Jaunak altxatu ditu gure zuzenak: zatozte, eta Sionen erdian erran detzagun gure Jainko Jaunaren egintzak.

11. Zorrotz geziak, bethe gezi-untziak: Jaunak eraiki du Mediarren erregeen izpiritua; haren gogoa Babilonaren kontra jarri da, haren galtzeko; ezen Jaunaren asperkundera dabila, tenploaren gatikako asperkundera.

12. Bandera goiti zazue Babilonako harrasien gainean; berha zatzue zainak, ezar begiratzailleak, heda zelatak; zeren Jaunak gogo bat hartu baitu, eta eginen baititu Babilondarren kontra erran dituen guziak.

13. Hi, ur handien gainean hagoena, aberastasunez okhatua, ethorri dun hire akhabantza, errotik ebakia izanen haizen ordua.

14. Armadetako Jaunak bere buruaren gainean egin du zin hau: Ala Gizonez estaliren haudala brukoz bezala, eta guduko kantua kantatua izanen dela hire gainean.

15. Jaunak bere ahalaz egin du lurra, bere zuhurtziaz xuxendu du mundua, eta bere antzeaz hedatu ditu zeruak.

16. Haren hitz batera, urak biltzen dira zerura; harek altzarazten ditu hedoiak lurraren bertze burutik, ximistetarik egiten du uria, eta haizea atheratzen du bere khutxetarik.

17. Jakitateak zoro bilhakatu du gizona; idolak bere urtzaillea ahalke-tara arthiki du, zeren gezurrezkoa baita haren lana, eta bizia ez baita hala-koetan.

18. Lan hutsal eta irrigarriak dira; ikharpeneko egunean galduko dira.

19. Jakobon zathia ez da hekien iduriko; ezen hura da gauza guzien egilea, eta Israel da haren primantzako makhila; armadetako Jauna da haren izena.

20. Gerlako tresnak hausten daroztatzu, eta nik zutaz hautsiko ditut jendaia, zutaz xahutuko ditut erresumak;

21. Eta zutaz phorroskatuko ditut zaldia eta zaldi gainekoa; eta zutaz phorroskatuko ditut orga-lasterra eta haren gainekoa;

22. Eta zutaz zathikatuko ditut gizona eta emaztekoa; eta zutaz zathikatuko ditut gizon-zaharra eta haurra; eta zutaz zathikatuko ditut muthila eta neskatxa;

23. Eta zutaz xehakatuko ditut artzaina eta haren arthaldea; eta zutaz xehakatuko ditut laboraria eta haren uztarriko idiak; eta zutaz xehakatuko ditut buruzagiak eta kargudunak.

24. Eta zuen begien aitzinean bihurtuko diotet Babilonari eta Kaldear guziei berek Sionen egin duten gaizkia oro, dio Jaunak.

25. Huna heldu natzaikala mendi izurri-emailea, lur guzia izurritzatzen dukana, dio Jaunak; eta hedatuko diat hire gainera ene eskua, eta jauzaraziko haut harkadien artetik, eta hitarik eginen diat erretzen hari den mendi bat.

26. Eta hitarik ez die altxatuko ez izkina-harririk, ez asentu-harririk; bainan behin-bethiko izanen haiz galdua, dio Jaunak.

27. Lurraren gainean heda zazue bandera, jendaietan durrundaraz zazue turuta; Babilonaren kontra sailduets zatzue populuak; deith zatzue haren kontra Ararateko, Meniko eta Aszenezeko erregeak; haren kontra bil zazue Taphsar, erakhar zatzue zaldiak, bruko eztendunak bezala.

28. Haren kontra sailduets zatzue jendaia, Mediako erregeak, aitzindariak eta kargudun guziak, eta harenpeko lur guzia.



29. Eta lurra lastuko eta ikharatuko da, zeren Jaunaren gogoia atzarrria baita Babilonaren kontra, ezartzekotzat Babilonako lurra mortu eta ezin-egonezko lekhu bat.

30. Babilonako hazkarrek utzi dute gudua, hazkargailuetan daude; ahuldua da hekien indarra, eta emaztekin iduriko egin dire; erreak dire hekien olhak; hekien habeak kraskatuak dira.

31. Lasterkaria lasterkariari, berriketaria berriketariari bidera goanen zaio, Babilonako erregeri berriaren eramateko, haren hiria alderen-bertze hartua dela;

32. Hubiak hartuak direla, aintzirak suz erreak, eta gerlako gizonak asaldu gorrian.

33. Ezen hau dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak: Babilonako alaba larrain bat bezala da; huna haren oinkatzeko ordua; oraino aphur bat, eta haren uztatzeko eguna heldu da.

34. Jan, iretsi nau Nabukodonosorrek, Babilonako erregek; untzi huts bat bezala egin nau; erainsugeak bezala iretsi nau; ene haragi samurrenetik bethe du bere sabela, eta irazi nau.

35. Ene gainean egin gaizkia eta sarraskia Babilonaren gain! Dio Siongo alabak; ene odola Kaldearren gain! Dio Jerusalemek.

36. Hargatik hau dio Jaunak: Huna nik emanen diodala zure zuzenari bere bidea, nik atheratuko dut asperkunde zuretzat; eta mortu eginen dut haren itsasoa eta agortuko ditut haren urak.

37. Eta Babilona harri-murru bat izanen da, erainsugeen egoitzi, guzien harrigarri eta trufagarri, ez duetakotz egoiliar bat gehiago.

38. Batean orroa eginen dute lehoinek bezala, lehoinkumeek bezala ihanusiren dituzte ilaiak.

39. Beren khalidan emanen diotet edatekoa, eta hordituren ditut, khumara eror eta bethiko loan sar ditezen, eta gehiago ez iratzar, dio Jaunak.

40. Eramanen ditut bildotsak bitimatzat bezala, ahariak pittikekin bezala.

41. Nola hartua izan da Sesak? nola izan da hartua lur guziko hiririk ederrena? nola Babilona bilhakatu da jendaien artean guzien harrigarri?

42. Babilonaren gainera igan da itsasoa, uharka estali dute haren uhinek.

43. Lazgarri egin dira hango hiriak, nihor ezin-egonezko toki eta mortu hango lurra, lur-egoiliarrik gabe egonen dena, eta zeintan gaindi gizasemerik ez baita iraganen.

44. Eta Babilonan ikharturen dut Bel, eta iretsi zuena atheratuko diot ahotik, eta ez dire gehiago alde orotarik haren gana jendaiak ethorriko, ezen lehertuko dire Babilonako harrasiak.

45. Ene populua, ilkhi zaitte haren erditik; bakhotxak bere bizia salba dezan Jaunaren hasarrearen hatsetik.

46. Eta zuen bihotzak amorrik egin ez beza, eta ez lotsa lurrean adituko den haroaz; urthe batez izanen da haro bat, bertze urthean bertze haro bat; gaixtakeria lurraren gainean izanen da, nausia nusiaren gainean.

47. Hargatik huna non heldu diren egunak, eta ikharturen ditut Babilonako jainkomoldeak; eta hango lur guzia nahasturan izanen da, eta hango umeak hilak eroriko dire haren erdian.

48. Eta zeru-lurrek, eta hekietan diren guziek laudoriozko kantuak atheratuko dituzte Babilonaren gainean, zeren ipharretik ethorriko zaizkon larrutzaileak, dio Jaunak.

49. Eta nola Babilonak hilak erorrarazi baititu Israelen, hala Babilonatik hilak eroriko dire lur guzian.

50. Ezpataren ihes zihoaztenak, zatozte, ez geldi; urrundik orhoit zaitzete Jaunaz, eta Jerusalem igan bekizue bihotzera.

51. Ahalkearen azpian gare, entzun dugulakoz laidoa; hidoiak estali ditu, zeren arrotza igan baita jaunaren etxeko saildegiaren gainera.

52. Aria hortaz huna non heldu diren egunak, dio Jaunak, eta ikharturen ditut Babilonako jainkomoldeak, eta hango lur guzian marrumaz egonen dire gizon sakhituak.

53. Babilona igan balitz ere zeruraino, eta gain gainean gogortu balu bere indarra; ene ganik jautsiko dire haren xahutzaileak, dio Jaunak.

54. Babilonatik deihadar-otsak! Kaldearren lurretik lehertze handi bateko harrabotsa!

55. Ezen Jaunak xahutu du Babilona, eta handik ixilarazi du jendeen haro handia. Etsaien builek harramantz egiten dute ur handiek bezala; adiarazi dute beren mintzoa;

56. Ezen haren gainera, Babilonaren gainera heldu da xahutzailea; hango hazkarrak hartuak dire; ethendu da hekien arranbela, zeren Jaunak, aspertzaille hazkarrak bihurturen baitio merezitu saria.

57. Eta hordituren ditut hartako buruzagi, zuhur, aitzindari, kargudun eta hazkarrak, eta lokharturen dire bethiko loaz, eta ez dire iratzariren dio erregek, armadetako Jauna baita haren izena.

58. Hau dio armadetako Jaunak: Babilonako harrasi zabal hori azpitik eragotzia, eta horgo athe gorak suz erreak, eta populuen eta jendaien lanak ezdeusetara ekharriak izanen dire, eta sunsituren dire.

59. Jeremias profetak eman manua Saraiasi, Neriasen semeari, Maasiaren arresemeri, Sedeziar erregearekin Babilonara zihoalarik,



Sedeziasen erregetasuneko laugarren urthean. Bada, Saraias zen profetetan lehenbizikoetarik.

**60.** Jeremiasek liburu batean iskribatu zituen Babilonaren gainera ethortzekoak ziren zorigaitz guziak, Babilonaren kontra iskribatuak diren solas haukiek oro.

**61.** Eta Jeremiasek erran zioen Saraiasi: Heldu zaretekeenean Babilonara, eta ikhusi, eta irakurtu dituzketzunean solas haukiek guziak,

**62.** Erranen duzu: Jauna, zu zare mintzatu toki hunen kontra, hunen xahutzeko, izan ez dadien ez gizon ez azienda huntan egonen denik, eta hau behin-bethiko izan dadien mortu.

**63.** Eta liburu hau irakurtzen akhabatu dukezunean, estekatuko diozu harri bat, eta Ufrataren erdira arthikiko duzu;

**64.** Eta erranen duzu: Horrela ithoko da Babilona, eta nik horren gainera jautsaraziko dudan desmasiatik ez da ilkhiko. Hunaraino dire Jeremiasen hitzak.

### LII. KAP.

**1.** Hogoi eta bat urthetako gizon-gaztea zen Sedezias, erreginatzen hasi zenean; eta hameka urthez erreginatu zen Jerusalem. Haren ama, Jeremias Lobnakoaren alaba, deitzen zen Amital.

**2.** Eta gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean, Joakinek egin izan zituen guzien arara.

**3.** Hargatik zen Jaunaren hasarrea Jerusalemerean eta Judaren gainean, irazi zituen arteo bere aitzinetik; eta Sedezias gibelatu zen Babilonako erregeren ganik.

**4.** Bada, haren erregetasuneko bederatzigarren urthean, hamargarren hilabetearen, hilabetearen hamarrean, Nabukodonosor, Babilonako errege, bera eta bere armada guzia, ethorri ziren Jerusalemerean kontra; sethiatu zuten, eta inguruan hazkargailuak altxatu zituzten haren kontra.

**5.** Hiria sethiatua egon zen Sedezias erregearen hamekagarren urthea arteo.

**6.** Bainan laugarren hilabetearen, hilabetearen bederatzian, gosetean jabetu zen hiriaz, eta hango populuak etzuen jatekorik.

**7.** Hiriko harrasia urratua izan zen; gerlako gizon guziek ihes egin zuten; hiritik ilkhi ziren gabaz bi harrasien artean zen atheko bidez, zeinak baiterama erregeren baratzera; eta goan ziren mortura daraman bidez, Kaldearrek hiria inguruan sethiatzen zutelarik.

**8.** Kaldearren armada berriz, erregeri ondotik jarraiki zitzaion; eta Jerikoko ondoan den mortuan atzeman zuten Sedezias; eta haren lagun guziek ihes egin zuten haren ganik.

**9.** Eta errege atzeman zutenean, eraman zuten Babilonako erregeren aitzinera, Erreblathara, zeina Ematheko lurtean baita; eta Nabukodonosorrek eman zioen bere erabakia.

**10.** Babilonako erregek hilarazi zituen Sedeziasen semeak haren begien aitzinean; Judako aitzindariak ere, oro hilarazi zituen Erreblathan.

**11.** Sedezias atheratu ziozkien begiak, eta burdinaztaturik Babilonako erregek Babilonara eraman zuen, eta presondegiko etxean ezarri zuen bere heriotzeko eguna arteo.

**12.** Aldiz, bortzgarren hilabetearen, hilabetearen hamarrean, hura baitzen Nabukodonosor, Babilonako erregeren hemeretzigarren urthea; Nabuzardan, armadako buruzagia, zeina egoten baitzen Babilonako erregeren aitzinean, ethorri zen Jerusalemerean.

**13.** Su eman zioten Jaunaren tenploari eta erregeren jauregiari, eta erre zituen Jerusalemeko etxe guziak, eta sua ezarri zuen etxe handi guzietan.

**14.** Eta buruzagiarekin zen Kaldear armada guziak inguruan eragotzi zuen Jerusalemeko harrasia oro.

**15.** Nabuzardanek, armadako buruzagiak, eraman zituen berekin populuko beharretarik eta gainerako jende xeheetarik hirian gelditu zirenak; eta ihesliarretarik Babilonako erregeren gana iragan zirenak, eta gainerako populua.

**16.** Beharretarik aldiz, Nabuzardanek, armadako buruzagiak, utzi zituen mahastizainak eta laborariak.

**17.** Kaldearrek halaber haute zituzten Jaunaren etxean ziren kobrezko habeak eta oinak, eta kobrezko itsasoa, Jaunaren etxean zena, eta Babilonara eraman zuten hekietarikako kobre guzia.

**18.** Eta eraman zituzten bertz, zartagina, maniorra, xata, xurrutto eta Jaunaren zerbitzuko untzi kobrezko guziak; eta

**19.** Armadako buruzagiak eraman zituen pegarrak, isentsuntziak, gorgoilak, azpilak, gainerailuak, xurruak eta xatak; urhezkoak baziren, urhezkoak; zilharrezkoak baziren, zilharrezkoak.

**20.** Eta hartu zituen bi habeak, itsasoa eta haren azpiko hamabi idi kobrezkoak, Salomon erregeak Jaunaren etxean eginarazi zituenak: ezin jo zitakeen untzi hekietarik orotarikako kobrearen hazta.

**21.** Habeetarik bakharrak bazituen bada, hemezortzi beso gora, eta inguratua zen hamabi besoko sokha batez; lodi zen, berriz, lau erhiz, eta barnez hutsa zen.



22. Bi habeen gainean baziren kobrezko buruak; buru bakharraren goratasuna bortz besokoa zen; eta sareak eta mingranak inguruan khoroaren gainean, oro kobrezkoak ziren. Bigarren habearenak eta mingranak orobat ziren.

23. Laur hogoi eta hamasei mingrana zauden dilindaka; eta mingranak, sarek inguratuak, ehun ziren.

24. Armadako buruzagiak hartu zituen Saraias, lehenbiziko apheza, Sophonias, bigarren apheza, eta tenplo-sartzeko hirur zainak.

25. Eta hiritik eraman zituen, gerlako gizonak manatzen zituen ebaki bat; eta zazpi gizon, erregeren begithartea ikhusten zutenetik, zeinak hirian atzemanak izan baitziren; eta soldadoetako aitzindari iskribaua, soldado berriak frogatzen zituen; eta hango populutikako hirur hogoi gizon, hiriaren erdian atzemanak izan zirenak.

26. Bada, Nabuzardanek, armadako buruzagiak, hartu eta eraman zituen Babilonako erregeren aitzinera, Erreblathara.

27. Eta Babilonako erregek jo eta hilarazi zituen Erreblathan, Ematheko lurrian; eta Juda eramana izan zen bere lurretik.

28. Hau da Nabukodonosorrek desherritu zuen populutzea: Zazpigarren urthean hirur mila hogoi eta hirur Judu

29. Hemezortzigarren urthean, Nabukodonosorrek eraman zituen Jerusalemdik zortzi ehun hogoi eta hamabi arima.

30. Nabukodonosorren hogoi eta hirugarren urthean, Nabuzardanek, armadako buruzagiak eraman zituen zazpi ehun berrogoi eta bortz Judu. Beraz eramanak izan ziren guziak heltzen ziren lau mila eta sei ehun arimetara.

31. Eta gerthatu zen, Joakin, Judako errege, herraldatua izan zenetik hogoi eta hamazazpigarren urthean, hamabigarren hilabethean, hilabethearen hogoi eta bortzean, Babilonako errege Ebilmerodakek, erregetu zen urthe berean, burua altxarazi zioela Joakini, Judako erregeri, eta ilkhiaz zuela presondegiko etxetik.

32. Eta eman ziozkan solas gozoak, eta ezarrarazi zuen haren tronua, Babilonan bere ondotik zituen erregeen tronuen gaineko aldean.

33. Aldarazi ziozkan presondegiko soinekoak eta bere aitzinean janarazi zioen bethi bizi izan zeno.

34. Babilonako erregek ematen ziozkan bethi jatekoak egun bakhotxekotzat esleituak, haren hiltzeko eguneraino haren biziko egun oroz.

## JEREMIAS PROFETAREN DEITHOREAK

Israel gathibu eramana eta Jerusalem mortu egina izan ziren ondolan, Jeremias profeta jarri zen nigarrez eta deithore hau egin zuen Jerusalemaren gainean; eta arima uherrik, hasperen eta auhenka erran zuen:

### I. KAP.

**ALEPH. 1.** Nolaz dago bakharrik jarria populuz bethea zen hiria jendaietako erregina alhargun bat iduri egina da; herrialdeen burua zergaren azpian da.

**BETH. 2.** Nigarrez urthu da gauaz, eta nigarrak dihoazko mathelak behera; maite zituen guzietarik batek ez dio ematen gozakaririk; bere adis-kide guziak eskarniatu dute, eta etsai egin zaizkio.

**GHIMEL. 3.** Juda bertzetara goan da atsekabearen handiz, hesturaren gaitzez; jarri da jendaien artean eta ez du phausirik aurkhitu; bere jazarle guziak lothu zaizko bere oinhazeen erdian.

**DALETH. 4.** Nigarrez daude Siongo bideak, zeren nihor ez den heldu haren bestetara; haren athe guziak urratuak daude, aphezak auhenetan, neskatzak hautsez estaliak, eta bera uhertasun minean.

**HE. 5.** Bere etsaiek buruaren gainean jarri zaizko; hari jazartzen zio-etenak aberastu dire; zeren Jauna baita haren kontra mintzatu haren tzarkerien elementia gatik; haren haurttoak gathibu eramana izan dire hertsatzailearen aitzinean.

**VAU. 6.** Siongo alabari goan zaio bere edertasun guzia; haren buruzagiak bilhakatu dire alhapiderik khausitzen ez duten ahariak bezala, eta ahituak goan dire eragilearen aitzinean.

**ZAIN. 7.** Jerusalem orhoitu da bere atsekabezko egunez eta beihalako egunetarik zituen ontasan guzien narriapenaz, haren populua etsaiaren eskua azpian erortzen zenean eta nihork etzuenean laguntzen: ikhusi dute etsaiek, eta haren larunbatez irriz egotu dire.

**HETH. 8.** Bekhatu beltzaz hobendun egin da Jerusalem, hargatik erorkor bilhakatu da: espantatzen zuten guziek arbuiatu dute, zeren ikhusi baitute haren laidoa; berak aldiz, auhenetan gibelerat egin du.

**TETH. 9.** Oinen gainean ditu bere lohikeriak, eta ez da bere akhabantzaz orhoitu; muthiriki eragotzia izan da, gozakari-emalerik gabe. Jauna, ikhusazu ene atsekabea, zeren goititu den etsaia.



**JOD. 10.** Haren gauza lehiagarri guzien gainera etsaiek ekharri dute beren eskua; ezen lekhu sainduan ikhusi ditu sartzen jendaiak, zeinetaz manatu baitzinen etzitezela sar zure baldarnan.

**CAPH. 11.** Haren populu guzia auhenez eta ogi eske dabila; eman dituzte gauza balios guziak jateko truk, beren biziaren mantenatzeko: ikhusazu, Jauna, eta begiets zenbat naizen putrustua.

**LAMED. 12.** Oi zuek bidean iragaiten zareten guziak, ohartemazue eta begira zazue hean baden atsekaberik enea bezalakorik; ezen nola Jaunak erran, hala biluzi bainau bere hasarreko egunean.

**MEM. 13.** Su bat igorri du gainetik enee hezurretara, eta azurriatu nau; sarea hedatu diote enee oinei, eta gibelerat erorrarazi nau; egun guzian inkoniata eta atsekabez hiratua ezarri nau.

**NUN. 14.** Erne egotu da enee gaixtakerietako uztarria; haren eskuan inguratuak eta enee lephoaren gainean ezarriak dire; ethendua da enee indarra Jaunak ezarri nau esku batean, zeintarik ezin ilkhiko bainaiz.

**SAMECH. 15.** Jaunak enee erditik khendu ditu enee gizon hazkar guziak; enee kontra deithu du ordu gaitza, enee gizon hauten xahutzeko; Jaunak lakoa oinkatu dio Judako alaba gazteari.

**AIN. 16.** Hargatik nago nigarrez, eta uharrak ixurtzen dituzte enee begiek zeren enee ganik urrundu baita, bizia bihurtzen zarodan gozakari-emaillea galduak dira enee umeak, nausitu delakotz etsaia.

**PHE. 17.** Sionek hedatu ditu eskuak; ez du gozakari-emailerik; Jaunak Jakobek kontra manatu ditu inguruan haren etsaiek; Jerusalemekiekien artean egin da astagaitzez lohitua dena bezala.

**SADE. 18.** Jauna zuzena da, ezen hasarretzera ekharri dut haren ahoa adi zazue othoi populu guziek, eta ikhusazue enee atsekabea; gathibu goan dire enee neskatxa eta gizon-gazteak.

**COPH. 19.** Deithu ditut enee adiskideak, eta berek enganatu naute; enee aphezak eta zaharrak hirian iraungitu dire, jateko zerbait bilhatzen zutelarik beren bizien mantenatzeko.

**RES. 20.** Ikhusazu, Jauna, zer hesturak nabilan; enee barnea nahasia, enee bihotza enee baithan iraulia da; zeren uherduraz bethea bainaiz; kanpoan ezpatak hiltzen du, eta barnean heriotzeak atzematen du orobat.

**SIN. 21.** Aditu dute auhenetan nagoela, eta nihor ez da niri gozakari emateko; enee etsai guziek aditu dute enee zorigaitza; boztu dire, zuk egin duzulakotz; bainan erakharriren duzu gozakarietako eguna, eta hekiek bilhakaturen dire ni bezala.

**THAU. 22.** Hekien gaizki guziak zure aitzinera ager beitez; larru zatzu mahasti bat bezala, hala-nola larrutu bainauzu enee tzarkerien gatik; ezen auhen hainitz dut arthikitzen, eta minez dago enee bihotza.

## II. KAP.

**ALEPH. 1.** Nola Jaunak bere hasarrean hedoi batez estali du Siongo alaba? nola zerutik lurrera arthiki du Israelgo alaba ederresgarria, eta bere hasarrean ez da gehiago orhoitu bere oinetako alkhiatz?

**BETH. 2.** Jaunak eragotzi ditu eta ez guphidetsi Jakobek edergailu guziak; bere irakiduran, urratu eta lurrerat arthiki ditu Judako alabaren hazkargailuak; arrotzen eskuetara arthiki ditu erresuma eta hartako buruzagiak.

**GHIMEL. 3.** Bere hasarrearen sephan phorrokatu du Israelen adarra; etsaiaren aitzinetik gibelerat eraman du bere eskuina, eta Jakobek baithan biztu du garrezko su bat bezala, oro inguruan erretzen dituen.

**DALETH. 4.** Bere arrarbela hedatu du etsaiak bezala; etsaiak bezala gogortu du bere eskuina, eta xahutu ditu Siongo alabaren olhan ziren gauza ederrak oro: sua bezala hedatu du bere gaitzidura.

**HE. 5.** Jauna bilhakatu da etsai bat bezala; eragotzi du Israel; eragotzi ditu haren harrasi guziak, urratu ditu haren hazkargailuak; eta Judako alabaren baithan aphaletsi ditu gizona eta emazteak.

**VAU. 6.** Biluzi du bere tabernaklea, larrutzen den baratze bat bezala; urratu du bere tabernaklea; Jaunak ahanzpenera eman ditu Sionen bestak eta larunbatak, eta laidoaren eta bere gaitzidurako sepharen azpira arthiki ditu errege eta apheza.

**ZAIN. 7.** Jaunak hastandu du bere aldarea eta madarikatu bere saindutezia; hartako dorreen harrasiak arthiki ditu etsaien eskuetara; eta Jaunaren etxean bozkariozko oihutan ibili dira, hala-nola bertze ordutz besta-egunetan.

**HETH. 8.** Jaunak burutan hartu du Siongo alabaren harrasiaren urratzea; hedatu du bere haria, eta xahutu arteo ez du gibelatu bere eskua; karraskan erori da aitzin-harrasia, eta harrasia orobat urratua da.

**TETH. 9.** Luphean sarthuak dire hango atheak; kraskatu eta xahutu ditu hango hagak; hango errege eta buruzagiak barraiatu ditu jendaien erdian; ez da gehiago legerik eta hango profetek ez dute gehiago Jaunaren ganik agerpenik izatu.

**JOD. 10.** Siongo alabaren zaharrak lurrean jarri eta ixilik baratu dira; hautsez estali dituzte beren buruak eta jauntzi dituzte zurdatzak; Jerusalemeko neskatxek lurrerat arthiki dituzte beren buruak.





**CAPH. 11.** Nigar eginaren eginez iraungitu dire ene begiak; ene barnea ikharatu, ene gibel-erriak lurrera ixuri dire, ikhustean ene populuko alabaren desmasia, haur xumeak eta bulharrekoak hiriko karriketetan iraungitzen.

**LAMED. 12.** Beren amei zerraten: Non dire ogia eta arnoa? hiriko karriketetan sakhituak izan balire bezala erortzen zirenean, eta arimak egiten ziotenean beren amen altzoan.

**MEM. 13.** Nori erkhaturen, edo noren iduriko aiphaturen zaitut, Jerusalemeko alaba? noren bardin ezarriren zaitut eta zer gozakari emanen darotzut, Siongo alaba garbia? ezen zure mina itsasoa bezain handi da; nork dezake senda?

**NUN. 14.** Zure profetek zuretzat izan dituzte ikhusten gezurrezkoak eta zoroak; etzarotzuten zure gaizkia agertzen, urrikitara zure deitzeko; baina zuretzat ikhusten zituzten gezurrezko garhaiziak eta etsai-iraitzak.

**SAMECH. 15.** Zure kontra eskuak jo dituzte bideko iragaile guziek; hixtuka haritu dire, eta Jerusalemeko alabaren kontra dardaratu dute burua, ziotelarik: Hori othe da edertasun osoko hiri hura, lur guziko bozkarioa zena?

**PHE. 16.** Zure etsai guziek zure kontra ideki dute ahoa; hixtuka hari-tu dire, karraskatu dituzte hortzak eta erran dute: Iretsiko dugu; huna guk iguriki dugun egun hura; aurkhitu dugu, ikhusi dugu.

**AIN. 17.** Jaunak egin du buruan hartu zuena; azpaldidanik eman zuen erabakia obratu du; xahutu du eta ez guphidetsi; etsaia bozkariatu du zure gainean; eta goratu du zure etsaien adarra.

**SADE. 18.** Hekien bihotzak Jaunari oihu egin dio Siongo alabaren harrasien kontra: gau eta egun nigarrak ixur zatzu uharra bezala; ez eman zure buruari phausurik, eta ez bedi ixil zure begi-ninia.

**COPH. 19.** Jaiki zaite, deithora zaite gau lehenetik; ura bezala ixur zazu zure bihotza Jaunaren aitazinean; haren ganat altxa zatzu eskuak karrika-buru guzietan gosez hil diren zure haur xumeen arimentzat.

**RES. 20.** Ikhusazu, Jauna, eta begira nor larrutu duzun horrela; emaztekiek janen othe dituzte bada beren fruituak, ukhumiloa bezalako haurrak? apheza eta profeta hilak izanen othe dire Jaunaren saildutegian?

**SIN. 21.** Haurra eta gizon-zaharra kanpoan etzanak daude lurraren gainean; ene neskatxa eta gizon-gazteak erori dire ezpataren azpira; hil dituztu zure irakidurako egunean; jo dituztu, eta etzare urrikaldu.

**THAU. 22.** Besta batera bezala deithu dituztu etsaiak alde orotarik ene izitzera; eta Jaunaren hasarreko egunean ez da izan itzuri eta gelditu denik; etsaiak iretsi ditu hazi eta altxatu ditudan haurrak.

### III. KAP.

**ALEPH. 1.** Ni naiz gizon bat, ene lazeria ikhusten dudana Jaunaren hasarreko zigorraren azpian.

**ALEPH. 2.** Eragin darot eta eraman nau ilhunbeak barna, eta ez argitik.

**ALEPH. 3.** Egun guzian ez du bertzerik egin bere eskua ene gainera itzultzea eta arreitultzea baizik.

**BETH. 4.** Zaharrarazi ditut ene larrua eta haragia, eta hautsi ditu ene hezurak.

**BETH. 5.** Hertsi nau alde orotarik harrasiz, eta inguratu nau minez eta nekhez.

**BETH. 6.** Toki ilhunetan ezarri nau, bethikotzat hilak direnak bezala.

**GHIMEL. 7.** Inguruan harrasi bat egin du ene kontra, ilkhi ez nadien-tzat; dorphetu ditut ene oinetako burdinak.

**GHIMEL. 8.** Deihadar eta othoitz egiten nuelarik ere, arbiuatu du ene othoitz.

**GHIMEL. 9.** Harri pikatuz hertsi ditu ene bideak, eta ene bidexkak hautsi ditu.

**DALETH. 10.** Enetzat bilhakatu da zelatan jarria den hartz bat, gordegailuetarik dagoen lehoin bat.

**DALETH. 11.** Hautsi ditu ene bidexkak eta phorrokatu nau neroni, inkoniata ezarri nau.

**DALETH. 12.** Hedatu du bere arranbela, eta gezien xedetzat hartu nau.

**HE. 13.** Ene sahetsetan sarthu ditu bere gezi-untziko alabak.

**HE. 14.** Ene herritar guzientzat irrigarri bilhakatu naiz eta hekien kantagailu egun guzian.

**HE. 15.** Uhertasunez bethe, zizari-belharrez horditu nau.

**VAU. 16.** Eta hortz guziak arront hautsi darozkit, eta hautsez hazi nau.

**VAU. 17.** Eta baketik khendua izan da ene arima; zer den ona ahan-zia naiz.

**VAU. 18.** Eta erran dut: Eneak egin du; akhabo da Jaunaren baithan nuen igurikimena.

**ZAIN. 19.** Orhoit zaite ene lazeriaz, nola naizen ehoa eta zizari-belharrez eta minez bethea.

**ZAIN. 20.** Orhoituko naiz orhoituko, eta ene arima ene baithan ihar-tuko da.



**ZAIN. 21.** Horiek iraganen ditut ene bihotzean eta horrek emanen darot pheskiza.

**HETH. 22.** Jaunaren urrikalmenduei esker, ez gare alde bat xahutuak izan, zeren haren urrikalpenak ez baitira ahituak.

**HETH. 23.** Goizetik ezagutu dut, handia dela zure zintasuna.

**HETH. 24.** Jauna da ene zathia, dio ene arimak, hargatik igurikiren dut.

**TETH. 25.** Jauna ona da haren baithan dadukatenentzat beren igurikimena, hura bilhatzen duen arimarentzat.

**TETH. 26.** Zorion Jaunaren ganikako salbamendua ixiltasunean igurikitzen duenarentzat.

**TETH. 27.** Zorion gaztedanik uztarria ekhartzen duenarentzat.

**JOD. 28.** Jarriko da bakharrik eta ixilik egonen da, zeren bere gainean ezarri baitu uztarri hura.

**JOD. 29.** Herrautsean ezarriko du bere ahoa, gothor baitago haren igurikimena.

**JOD. 30.** Jotzen duenari hedatuko dio mathela; iretsiko ditu laidoak.

**CAPH. 31.** Jaunak ez du nihor bethikotzat hastantzen.

**CAPH. 32.** Hastandu bagaitu, urrikalduren da bere urrikalpen handien arabera;

**CAPH. 33.** Ezen ez ditu aphaldu eta irazi gizonen semeak bihotzeko oldez:

**LAMED. 34.** Lurreko gathibuen oinpean lehertzen,

**LAMED. 35.** Gizonari zuzenbidearen khentzen Guviz-Goraren begien aitzinean,

**LAMED. 36.** Bere zuzenean gizon baten galtzen, horrelakorik ez daki Jaunak.

**MEM. 37.** Zein da, Jaunak manatu gabe erran duena, gauza bat egin zadien?

**MEM. 38.** On-gaitzak ez othe dire Guviz-Goraren ahotik ilkhitzen?

**MEM. 39.** Zertako gurguriatzen du gizon biziak, bere bekhatuentzat azurriatua den gizonak?

**NUN. 40.** Ikhar detzagun gure bideak; bilha gaitezen, eta Jaunaren gana bihur.

**NUN. 41.** Goiti detzagun bihotzak eskuekin Jauna gana zeruetara.

**NUN. 42.** Tzarkerian ibili gare, eta hasarretzera deithu zaitugu; hargatik zaude zu gogorretik.

**SAMECH. 43.** Zure hasarreaz inguratu zare, eta jo gaituzu; hilka hari-tu zaizkigu, eta ez gaituzu guphidetsi.

**SAMECH. 44.** Hedoi bat ezarri duzu zure aitzinean, othoitza etzadien iragan.

**SAMECH. 45.** Errotik atheratua eta arthikia utzi nauzu populuen erdian.

**PHE. 46.** Gure etsai guziek gure kontra ideki dute ahoa.

**PHE. 47.** Profesia bilhakatu da gure izialdura, gure artea eta xahupena.

**PHE. 48.** Nigar-uharrak ixuri ditu ene begiak ene populuko alabaren xahupenaren gainean.

**AIN. 49.** Ene begia atsekabetan egotu da eta ez da ixildu, phausurik ez baitzen,

**AIN. 50.** Jaunak zeruetarik begira eta ikhus zezan arteo.

**AIN. 51.** Ene begiak xahutu du ene bizia, ene hiriko alaba guzien ariaz.

**SADE. 52.** Aria gabeko ene etsaiek hartu naute xori bat ihizian bezala.

**SADE. 53.** Putzura erori da ene bizia, eta harri bat ezarri dute ene gainean.

**SADE. 54.** Ur-uharrak erori dire ene buruaren gainera, eta erran dut: Galdua naiz.

**COPH. 55.** Zure izenari dei egin diot, Jauna, putzuaren ondotik.

**COPH. 56.** Aditu duzu ene mintzoa, ez urrunt zure beharria ene kuin-ta eta marrasketarik.

**COPH. 57.** Hurbildu zare, dei egin darotzudan egunean; erran duzu: Ez izan beldur.

**RES. 58.** Juiatu duzu ene arimaren zuzena, oi Jauna, ene biziaren berberoslea.

**RES. 59.** Oi Jauna, ikhusi duzu hekien gaixtakeria ene alderat; jua zazu ene zuzena.

**RES. 60.** Ikhusi dituzu hekien sepha, hekien asmu guziak ene kontra.

**SIN. 61.** Aditu dituzu, Jauna, hekien irain, hekien asmu guziak ene kontra;

**SIN. 62.** Jazartzen zarotadenen ahapaldi eta gogoetak egun guzian elle kontra.

**SIN. 63.** Ikhusatzu hekien jartze xutitzeak: ni naiz hekien kantagailu.

**THAU. 64.** Jauna, ordaina bihurturen daroezu beren eskuetako egintzen arabera.

**THAU. 65.** Oinhazez hestuturen duzu hekien bihotza erredola batez bezala.

**THAU. 66.** Jarraikiren zatzaizkote zure sephan, Jauna, eta xahuturen dituzu zeruen azpitik.



#### IV. KAP.

**ALEPH. 1.** Nola gobeldu da urhea? nola da aldatu haren argidura ederrera? saindutegiko harriak nola dire karrika-buru guzietan barraiatuak?

**BETH. 2.** Siongo umeak eder ziren, urhe lehenezko edergailuak sionean: nola izan dire erabiliak baxeregileak egin duen lurrezko untzia iduri?

**GHIMEL. 3.** Lamiak berek dithia agertu dute eta esnea eman diote beren umei: ene populuko alaba gogorra da mortuko ostruka bezala.

**DALETH. 4.** Bulharreko haurren mihia aho gainari lothu da egarritz; haur ttipiek galdatu dute ogia eta emailerik etzen.

**HE. 5.** Gozokerietan bizi zirenak, karrika-bazterretan hil dire; purpuren erdian bizi zirenek, zikhinkeria besarkatu dute.

**VAU. 6.** Ene populuko alabaren tzartasuna gaitzagoa egin da Sodomaren bekhatua baino, Sodoma, zeina aphur batez herrautsia izan baitzen, eta gizonaren eskurik etzen haren xahutzean.

**ZAIN. 7.** Haren Nazarearrak, esnea baino, elhurra baino xuriagoak ziren, boli zaharra baino gorriagoak, zafirra baino ederragoak.

**HETH. 8.** Orai hekien begithartea ikhatza baino beltzagoa egina da, eta plazetan ez dire ezagutzen; larrua hezurrei josia dute; idortu eta zura bezala egin da.

**TETH. 9.** Zori hobea izatu dute ezpatatik hil direnek, gosetik goan direnek baino; zeren haukiek ihartu baitira lurraren agortasunaren ariaz.

**JOD. 10.** Bihotz samurrako emaztekiek errearazi dituzte beren haurrak; haurrak izan dire amen janhari ene populuko alabaren desmasian.

**CAPH. 11.** Jaunak ase du bere sepha, ixuri du bere hasarrearen sumindura, eta Sionen biztu du su bat asentuetaraino erre duena.

**LAMED. 12.** Lurreko erregeek eta munduko egoiliar guziek, etzuten usteko etsaiak Jerusalemeko atheetarik sarthuko zirela.

**MEM. 13.** Egin dire, haren profeten bekhatuen gatik, eta haren aphezen tzarkerien gatik, hekiek prestuen odola hiriaren erdian baitute ixuri.

**NUN. 14.** Itsuak bezala ibili dire karriketan gaindi; odolean zikhindu dire; eta ezin iragan zitazkeenean, goititzen zituzten beren petrailak.

**SAMECH. 15.** Eta oiuhu egiten zaroeten: Gibelerat! Zoazte gibelerat, lohiak; ez uki gu! Ezen aharratu dire, eta nahasturan jarri, eta jendaien artean erran dute: Jauna ez da gehiago hurbilduren, horiekin egoteko.

**PHE. 16.** Jaunaren begitharteak barraiatu ditu; ez da hurbilduren horiei begiratzeko; aphezen begitharteentzat ez dute ahalkerik, ez-eta zaharrentzat urrikalmendurik.

**AIN. 17.** Irauten ginduenean oraino, gure begiak ahitu dire laguntza alfer bati iguri, ezin salba gintzazken jendaia bati arduratsuki begira ginaudenezean.

**SADE. 18.** Gure oinak lerratu dire gure karriken gainean, hurbildu da gure akhabantza; betheak dire gure egunak, ezen heldu da gure azken orena.

**COPH. 19.** Ondotik jarraitzen zitzaizkigunak, zeruko arranoak baino zalhuago izan dire; mendietara jarraiki zaizkigu, mortuan zelatak hedatu darozkigute.

**RES. 20.** Gure ahoko hatsa, Kristo Jauna, hartua zan da gure bekhatuen gatik; erran izan ginaren: Zure itzalean biziko gare jendaien artean.

**SIN. 21.** Boz eta jauz hadi Edomen alaba, Huseko lurrean hagoena, hiri ere ethorriko zain kharmindurako untzia; horditua eta biluzia izanen haiz.

**THAU. 22.** Iraungitua da zure gaizkia, oi Siongo alaba; Jauna ez da gehiago abiaturen zure desherritzera: bainan ikhartu ditin hire tzarkeriak, Edomen alaba, agertu ditin hire bekhatuak.

#### JEREMIAS PROFETAREN OTHOITZA

##### V. KAP.

1. Orhoit zaite, Jauna, guri gerthatu zarokunaz; begira zazu eta ikhus gure laidoa.

2. Gure primantza arrotzetara, gure etxeak atzeetara dire iragan.

3. Umezurtz, aitarik gabe direnak bezala eginak gare, eta gure amak alhargunak iduri.

4. Dirutan edaten dugu gure ura; erosiz dugu gure egurra.

5. Dixiduka aitzinean eraman gaituzte; nekhatuentzat phausatzerik etzen.

6. Egiptoarrei eta Asiriarrei hedatu diotegu eskua, ogiz bethetzea gatik sabela.

7. Gure aitek bekhatu egin dute, eta ez dire gehiago; eta guk jasan ditugu hekien gaizkiak.

8. Gathibuak nausitu zaizkigu, eta nihor etzen hekien eskuetarik gure libratzeko.

9. Gure bizien menturan, ezpaten artetik gure ogia hartzen ginduen mortuan.

10. Gosearen hesturek khaldatu dute gure larrua labe bat bezala.



11. Ahalkea eman diote Sionen emaztekiei, eta neskatxei Judako hirietan.
12. Beren eskuz urkhatu dituzte buruzagiak, zaharren begitharteak ez ditu ahalkatu.
13. Lohikeriako erabili dituzte gizon-gazteak, eta haurrak makhilaren azpian erori dire.
14. Zaharrak galdu dire atheetarik, eta gizon-gazteak eresia kantatzai-leetarik.
15. Suntsitu da gure bihotzeko bozkarioa, eta deithoretara bihurtu dire gure kantuak.
16. Gure burutik erori da khoroa; zorigaitz guri, zeren egin dugun bekhatu!
17. Aria hortaz gobeldu da gure bihotza, ilhundu gure begia;
18. Ezen herrautsia da Siongo mendia eta han dabilta hazeriak.
19. Zuk ordean, Jauna, egundainotik badirauzu, eta menderen mendetan iraunen du zure tronuak.
20. Zergatik ahantziren gaituzu bethiko, eta bazterrerat utziren gaituzu mendeen luzetasunean?
21. Zure gana bihurraz gaitzatu, Jauna, eta bihurturen gare; berri zatzu gure egunak, hastetik ziren bezala.
22. Bainan hastandu eta irazi gaituzu; hasarre gaitzean sarthu zare gure kontra.

## BARUKEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Haukiek dire Barukek Babilonan iskribatu liburuko hitzak, (Baruk baitzen Neriasen semea, Nerias Maasiasena, Maasias Sedeziasena, Sedezias Sedeirena, Sedei Helziasena),
2. Bortzgarren urtheko hilabethearen zazpigarren egunean, Kaldearrek Jerusalem hartu eta erre zuten mugatik.
3. Barukek irakurtu zituen liburu huntako hitzak Judako errege Jekonias, Joakinen semearen aitzinean, eta populu guziaren aitzinean, zeina ethortzen baitzen liburuaren aditzera;
4. Handien aitzinean, erregeen semeen, zaharren eta populuaren aitzinean, ttipitik handiraino, Sodiko ur-hegian, Babilonan egoten ziren guzien aitzinean.
5. Eta aditzean, egiten zuten nigar, barur eta othoitz Jaunaren aitzinean.
6. Eta bildu zuten diru zerbait, batbederak zuen ahalaren arabera;
7. Eta Jerusalemara igorri zuten Joakini, Helziasen seme Salomen arresemeari, eta aphezei, eta harekin Jerusalemen khausitzen zen populu guziari;
8. Sibango hilabethearen hamargarren egunean, noiz-etare izaten baitzitu, Judako lurrera bihurtzeko, Jaunaren tenploko untziak, tenploitik eramanak izan zirenak, Judako errege Sedezias Josiasen semeak egin zituen zilharrezko untziak,
9. Babilonako errege Nabukodonosorrek Jerusalemetik hartu eta Babilonara estekaturik eraman zituen ondoan Jekonias, buruzagiak, handi guziak eta lekhuko populua.
10. Eta hau gaztiatu zuten: Huna non igorri darozkitzuegun diruak, zeinetarik erosatzue holokaustak eta isentsua, egizkitzue sakrifizioak eta bekhatuarentzateko eskaintzak gure Jainko Jaunaren aldarean;
11. Eta othoitz egizue Babilonako errege Nabukodonosorren biziarentzat, eta haren seme Baltasarren biziarentzat, hekien egunak lurraren gainean izan ditezen zeruko egunak bezala;
12. Eta Jaunak eman dezagun indarra, eta argi detzan gure begiak, bizi gaitzentzat Babilonako errege Nabukodonosorren itzalaren azpian, eta haren seme Baltasarren itzalaren azpian, zerbitza detzagun egun luzez, eta begitharte aurki dezagun hekien aitzinean.



13. Eta guretzat ere othoitz zazue gure Jainko Jauna, zeren gure Jainko Jaunaren kontra egin baitugu bekhatu, eta haren hasarrea gure gainetik ez baita aldaratu egungo eguneraino.

14. Eta irakur zazue liburu hau, zeina igorri baitarotzuegu irakurtua izan dadien Jaunaren tenploan besta-buru batez eta muga onean;

15. Eta erranen duzue: Gure Jainko Jaunari zuzentasuna, guri aldiz begitharteko ahalkea, egungo egunean ageri den bezala Juda guziaren eta Jerusalemarren baithan,

16. Gure erregeen, gure buruzagien, gure aphezen, gure profeten, eta gure aiten baithan.

17. Gure Jainko Jaunaren aitzinean egin dugu bekhatu, eta ez dugu sinheterik izan, hartaz mesfidatuz.

18. Eta ez gatzazkio ethordun izatu, eta ez dugu entzun gure Jainko Jaunaren mintzoa, eman zarozkigun manamenduetan ibiltzeko.

19. Gure arbasoak Egiptoko lurretik erakharri zituen egunetik eta orai arteo, sinhets-gogor ginen gure Jainko Jaunaren alderat; eta gure gogo haizatuak gibelerat egin dute, haren mintzoaren ez aditzea gatik.

20. Eta iratxiki zaizkigu asko gaitz eta madarizione, Jaunak ezarri zituenak bere zerbitzari Moisen ahoan, Moise, zeinak erakharri baitzituen gure arbasoak Egiptoko lurretik, hekiei ematekotzat esne eta ezti zarioen lurra, orai ere ageri den bezala.

21. Eta ez dugu entzun gure Jainko Jaunaren mintzoa, igorri izan darozkigun profeten hitz guzien arabera:

22. Eta zein gure bihotz galduko oldera ibili gare, jainko arrotzen zerbitzatzeko, gure Jainko Jaunaren aitzinean gaizkia eginez.

## II. KAP.

1. Aria hortaz gure Jainko Jaunak, guri, eta gure juie Israel juiatu dutenei, gure erregeei eta buruzagiei, Israel guziari eta Judari erran zarotenen hitza frogetan ezarri du,

2. Jaunak gure gainera erakharriko zituela hanbateko zorigaitzak, non halakorik ez baitzen zeruaren azpian gerthatu, (hala gerthatu den bezala Jerusalem, Moisen legean iskribatua denaren arabera);

3. Gizonak janen zuela bere semearen eta bere alabaren haragitik.

4. Eta Jaunak arthiki ditu, gure inguruan diren errege guzien eskue-tara, laido eta desmasietan populu guzietan, zeinen erdian barraiatu baikaitu Jaunak.

5. Eta eginak izan gure azpiko eta ez gaineko, zeren dugun bekhatu egin gure Jainko Jaunaren kontra, haren erranari ethordun ez izanez.

6. Gure Jainko Jaunari zuzentasuna; guri aldiz, eta gure arbasoei, begitharteko ahalkea; egun gerthutzen den bezala.

7. Alabainan Jaunak aitzinetik erran zituen gure kontra, gainera ethorri zaizkigun gaitz horiek oro;

8. Eta ez dugu othoitzu gure Jainko Jaunaren begithartea, batbederak gibelerat egin ginezan gure bide guziz tzarretarik.

9. Eta Jauna atzarria egotu da gaitz horiei eta gure gainera arthiki ditu; ezen Jauna zuzena da guri manatu darozkigun bere manamendu guzietan;

10. Eta guk ez dugu entzun haren errana, ibil gintezen gure aitzinean eman zituen manamenduetan.

11. Eta orai, Israelgo Jainko Jauna, zure populua Egiptoko lurretik atheratu duzuna zure esku hazkarras, ezagutkariz eta sendagailaz, zure indar handiaz eta beso goraz, eta zure buruari izen bat eman diozuna egun den bezalako;

12. Bekhatu egin dugu, gaizki ibili eta tzarkerian haritu gare, gure Jainko Jauna, zure erabaki guzien kontra.

13. Gure ganik aldara bedi zure hasarrea, zeren garen bazterrerat utziak eta guti jendaien artean, zeinetan barraiatu baikaituzu.

14. Entzun zatzu, Jauna, gure othoitzak eta errekeiak; eta athera gaitzatzu zure izenaren ariaz; eta iguzu begitharte aurkhi dezagun hunat erakharri gaituztenen aitzinean;

15. Lur guziak jakin dezan zu zarela gure Jainko Jauna, eta zure izena deithua dela Israelen eta haren ganikako iraulgiaren gainera.

16. Begira zazu, Jauna, zure egoitza saindutik gure gainera; makhur zazu zure beharria eta entzun gaitzatzu.

17. Zabal zatzu begiak eta ikhusazu; ezen hilak, hobian direnak eta zeinen izpiritua berezia izan baita gorphutzetik, ez dira hariko ohore eta aithor bihurtzen Jaunari;

18. Bainan gaitzaren handiz ilhunik dagoen gizonak, makhurtua eta hebaindua dabilanak, begiak iraungiak dituenak eta goseak iragana denak, bihurturen darozkitzu aithor eta ospe.

19. Ezen ez ditugu gure aiten zuzentasunaren ariaz ixurtzen othoitzak, ez-eta urrikalmendu eskatzen zure aitzinean, oi gure Jainko Jauna;

20. Bainan-bai zeren igorri dituzun zure hasarrea eta sumindura gure gainera, zure zerbitzari profeten arartekoz erran zinuen bezala, ziniolarik:



21. Hunela mintzo da Jauna: Aphal zatzue zuen soina eta zuen burua, eta lanean hari zaitzte Babilonako erregerentzat, eta jarriak geldituko zarete zuen arbasoei eman diotedan lurrean.

22. Baldin ez baduzue entzuten zuen Jainko Jaunaren errana, lanean hari zaitzela Babilonako erregerentzat, ilkhiaraziren zaitzitet Judako hirietarik eta Jerusalemetik kanporat;

23. Eta khenduren ditut zuen erditik atseginezko eta bozkariozko otsak, jaun esposaren eta andre esposaren kantauak, eta egoiliar-hatzik ez da izanen zuen lur guzian.

24. Eta ez dute entzun zuk errana, lanean hari zitezela Babilonako erregerentzat; eta zuk obratu duzu zure zerbitzari profeten arartekoz erran zinduen hitza, gure errege eta gure arbasoen hezurak khenduak izanen zirela beren tokitik;

25. Eta hara non izan diren arthikiak iguzkiaren khaldari eta gauazko hotzari; eta gure aitak hil dira oinhazerik gaitzenetan gosetetik, ezpatatik eta desherripenetik.

26. Eta tenploa, zeintan deithua izan baita zure izena, ezarri duzu egun den bezala, Israelgo etxearen eta Judako etxearen tzarkeria gatik.

27. Eta gure gainean egin duzu, oi gure Jainko Jauna, zure ontasun guziaren arabera, eta zure urrikalpen handi horren guziaren arabera;

28. Erran izan zinduen bezala zure zerbitzari Moisen arartekoz, manatu zinaren egunean iskriba zezan legea Israelgo umeen aitzinean,

29. Zinioelarik: Baldin ene mintzoa entzuten ez baduzue, oste handi hori xume batera bihurraziren dut, barraiaturen zaituztedan jendairen artean;

30. Badakit alabainan populuak ez nauela entzuten, populu buru gogorrekoa delakoz; eta bere baithara gathibutasuneko lurrean da itzaliko;

31. Eta jakinen dute ni naizela horien Jainko Jauna; eta bihotz bat emanen daroet, eta ezagutza izanen dute; beharriak emanen daroztet, eta adituko dute.

32. Eta laudaturen naute beren gathibutasuneko lurrean, eta ene ize naz orhoit izanen dire.

33. Eta urrunden dire bere buru-gogortasunetik eta beren tzarkerietarik; ezen beren aita, ene kontra bekhatu egin dutenen bidez orhoituren dire.

34. Eta horien aitei, Abrahami, Isaaki eta Jakobi, zin eginez agindu nioten lurrera bihurraziren ditut; eta han nausituren dire; eta berhaturren ditut, eta ez dire aphurtuko.

35. Eta horiekin eginen dut bethiko bertze batasun bat, ni horien Jainkoa izateko eta horiek ene populua; eta ez dut gehiago higituko ene populua, Israelen umeak, eman diotedan lurretik.

### III. KAP.

1. Eta orai, Jaun guziz-ahalduna, Israelgo Jainkoa, arima batek hes-turetan, gogo behartu batek oihu egiten darotzu:

2. Adi zazu, Jauna, eta urrikal zaite, Jainko urrikalkor bat zarelakotz; urrikal zakizkigu, zeren egin baitugu zure aitzinean bekhatu.

3. Ezen zu bethiaren gainean zare jarria, eta gu gure mende xedatuan galdu behar othe gare?

4. Jaun guziz-ahalduna, Israelgo Jainkoa, adi zazu orai Israelgo hilen eta zure aitzinean bekhatu egin dutenen semeen othoitz; gure aitek ez dute entzun beren Jainko Jaunaren mintzoa, eta guri iratxiki zaizkigu asturugaitzak.

5. Ez orhoit gure aiten tzarkeriaz; bainan ordu huntan zure eskuaz eta zure izenaz orhoit zaite.

6. Zu zare alabainan gure Jainko Jauna, eta zu zaitugu laudaturen, Jauna,

7. Ezen zure beldurra gure bihotzetan hortako eman duzu, eta zure izenari dei egin diozoguntzat, eta lauda zaitzagun gure gathibutasunean; zeren gure aita, zure aitzinean bekhatu egin dutenen gaixtakeriatik baikare bihurtzen.

8. Eta huna non garen egun gure gathibutasunean, zeintan barraiatu baikaituzu, laido, madarizione eta tzarkeriaren meioriako, oi gure Jainko Jauna, gure aita, zure ganik gibelerat egin zutenen gaixtakerien arabera.

9. Israel, adi zatzu bizitzeko manamenduak; beharriaz har zatzu, gurbiltasunaren ikhasteko.

10. Nolaz, Israel, aurkhitzen zare etsaien lurrean?

11. Lur arrotzean zahartzen, hilekin khutsatzen, eta hobira jausten direnekilako begiratua zare.

12. Zuhurtziaren ithurria utzi duzu;

13. Ezen baldin Jainkoaren bidean ibili bazine, bethiko bakean egotu zintazkeen segur.

14. Ikhasazu non datzan umotasuna, non datzan indarra, non datzan adimendua jakin dezazun halaber non dauntzan biziaren luzetasuna eta bizitzekoa, non dauntzan begietako argia eta bakea.

15. Nork aurkhitu du zuhurtziaren egoitza, eta nor sarthu da haren khutzategian?



16. Non dire jendaietako buruzagiak, lurrean diren basabereen gainean nausitasuna zerabilkatenak,
17. Zeruko hegastinez dostatzen zirenak,
18. Murruka biltzen zituztenak urhea eta zilharra, zeinetan baitute gizonek beren sinhestea, eta zeinetarik ez baitute behinere aski bildurik? Non dire zilharra lantzen zutenak antze handirekin, eta hartarik nihone-reko obra ederrak egiten zituztenak?
19. Xahutuak dire, eta jautsi dire ifernuetara, eta bertze batzu jaiki dire hekien orde.
20. Gizon-gazteek ikhusi dute argia, eta lurraren gainean egotu izan dire; ez dire ordean zuhurtziaren bideaz izan jakintsun.
21. Ez dituzte ezagutu haren bidexkak; hekien semeek ez dute hura hartu, eta hura hekien ganik urrun gelditu da.
22. Hartaz ez da Kanaango lurrean entzuterik izan, eta Themanen nihork ez du ikhusi.
23. Halaber Agarren semeek, lurretikako gurbiltasun baten bilha dabiltzanek, eta Merhako eta Themango tratulariek, eta khondera-egileek, eta gurbiltasun eta argi-bilhatzaileek, ez dute ordean ezagutu zuhurtziaren bidea, ez-eta atzeman haren bidexkak.
24. Oi Israel, zeinen den handia Jainkoaren etxea, eta zeinen zabal haren nausitasuneko lekhuak
25. Zabalak eta mugarrigabeak, gorak eta gaitzak dire.
26. Han izatu dire digante aiphatu, hastapenean ziren hekiek, digante gaitz eta gerlan ikhasi hekiek.
27. Etzituen hekiek hautatu Jaunak, eta etzuten aurkhitu zuhurtziaren bidea, hargatik galdu ziren.
28. Eta nola ez baitziren zuhurtziaren jabe, beren zorokeriak hilara-zi zituen.
29. Nor igan da zerura, eta han zuhurtzia hartu, eta hedoiatarik jautsara-zi du?
30. Nork itsasoa iragan eta aurkhitu du hura, eta ekharri du, urhe hauta baino nahiagoz?
31. Nihor ez da haren bideak jakin detzazkeenik, eta haren bidexkak bilhatzen dituenik.
32. Bainan ezagutzen du, eta bere gurbiltasunaz aurkhitu du gauza guziak dakizkienak, lurra bethikotzat aphaindu eta abere orotaz bethe duenak;
33. Harek bidaltzen du argia, eta badoha; deitzen du, eta ikharan bihurtzen da.

34. Izarrek berriz, eman dute beren argia, zeinek beren aldietan, eta boztu dira;
35. Jainkoak deithu ditu, eta erran dute: Huna gu; eta goihererik dir-diratu dute beren egilearentzat.
36. Hura da gure Jainkoa; eta haren aitzinean ez da bertzerik jainkotzat hartuko.
37. Harek aurkhitu ditu zuhurtziaren bide guziak, eta eman izan du hura gure aita Jakob bere zerbitzariari eta Israel bere hautetsiari.
38. Horiez geroz, ikhusia izan da lurrean, eta solas egin du gizonekin.

#### IV. KAP.

1. Hau da Jainkoaren manamenduen liburua, eta egundainotik den legea; bizitzera helduko dire hau begiratzen dutenak; heriotzera aldiz, hau bazterrerat utziko dutenak.
2. Bihur zaite, Jakob, eta besarka zazu legea; hunen bidean ibil zaite hunen distiren argitara.
3. Bertze bati ez utz zure ospea, jendaki arrotz bati zure goihendea.
4. Dohatsu gare, Israel, zeren agertuak baitzaizkigu Jainkoaren gogarako diren gauzak.
5. Ez grina, Jainkoaren populua, Israelen orhoitgarria.
6. Jendaiei salduak zarete, ez xahutuak izateko; bainan zeren sumindu duzuen Jainkoaren hasarrea emanak izan zarete zuen etsaien eskuetara.
7. Gaizkuratu duzue alabainan zuen egilea, Jainko bethierekoa, debruei imolatuz, eta ez Jainkoari.
8. Ezen ahantzi duzue hazi zaituzteten Jainkoa, eta zaurthu Jerusaleme, zuen unhidea.
9. Ikhusi du hasarrea Jauna ganik zuen gainera jausten, eta erran du: Adi zazue, Siongo ingurukoek, Jainkoak igorri baitarot atsekabe handia.
10. Ikhusi dut ezen Bethierekoak ene populua, ene seme-alaben gainera igorri duen gathibutasuna.
11. Hazi nituen gozoki eta utzi ditut nigar eta bihozminekin.
12. Nihor ez bedi boz ni ikhustez alhargun eta inkoniatusa; populu handiak utzi nau ene umeen bekhatusen ariaz, Jainkoaren legetik zeihertu direlakotz.
13. Haren erabaki zuzenak berriz, ez dituzte ezagutu; ez dira Jainkoaren manamenduetako bideez ibili, eta haren egiaren bidexketan ez dira zintasanekin sarthu.
14. Siongo ingurukoak ethor beitez, eta burutan iragan bezate Bethierekoak ene seme-alaben gainera ekharri duen gathibutasuna;



15. Ezen hekien gainera urrundik erakharri du jendaki bat, jendaki gaixto eta bertze mintzaia batekoa,

16. Zeinak ez baitu izan zaharrentzat heraberik, ez-eta haurrentzat urrikalmendurik; eta eraman dituzte alhargunaren seme maiteak, eta inkoniamendutan zurtz ezarri dute alabarik gabe.

17. Nik ordean zer laguntza egin dezakezuet?

18. Alabainan gaitz horiek zuen gainera jautsarazi dituenak berak atheraturen zaituztete zuen etsaien eskuetarik.

19. Ibil zaitezte, ibil, ene haurrak; ezen ni bakharrik naiz utzia.

20. Biluzi naiz bakezko egunetako soinetarik; jauntzi dut errekeipe-neko zakhua, eta bizi guzian deihadar eginen diot Guziz-Gorari.

21. Ez grina, ene haurrak; Jaunari oihu egiozue, eta atheraturen zaituztete etsaietako aitzindarien eskuetarik.

22. Ezen nik zuen salbamendua igurikitzen dut bethi eta niri saindua ganik dathorkit bozkarioa, zuei gure salbatzaile bethierekoa ganik ethorriren zaitzuen urrikalpenaren ariaz.

23. Alabainan utzi zaituztet nigar eta auhenekin, eta Jaunak ene gana bethiko bozkario eta gozoan bihurraziren zaituztete.

24. Ezen nola Sionen hauzoek ikhusi baitute Jainkoa ganik ethorri zaitzuen gathibusasuna, orobat ikhusiko dute, eta laster, Jainkoa ganik ethorriren zaitzuen salbamendua, ohore handi eta bethiko distirarekin.

25. Ene haurrak, jasanorki egar zazue zuen gainera jautsi den hasarrea ezen jazarri darotzute zuen etsaiak bainan laster ikhusiren duzue galtzen, eta haren buruaren gainera izanen zarete.

26. Ene ume minberak bide malkharrak gaindi ibili dire; alabainan etsaiak harrapatuak arthalde bat iduri izan dire eramanak.

27. Ez gogoan-behar, ene haurrak, eta Jaunari egiozue oihu; ezen zuen eramailea zuetaz orhoituren da.

28. Alabainan nola zuen gogoak Jainkoa ganik baitzaituzte zeiherrarazi; hala, berriz itzulirik, hamarretan suharkiago duzue bilhaturen;

29. Ezik zuei gaitz horiek erakharri darozkitzuenak, berak erakharriren darotzute zuen salbamenduarekin bethirainoko gozoa.

30. Ez gogoan-behar, Jerusaleme alabainan zure izena eman darotzuna da zu hertzatzen zaituena.

31. Zuri jazarri darotzuten bidegabe egileak galduko dire; eta zure xahupenaz bostu direnak, izanen dire gaztigatuak.

32. Zure umeek zerbitzatu dituzten hiriak eta zure umeek hartu dituztenak, gaztigatuak izanen dire.

33. Ezen nola atseginez egon baitira zure xahutzeaz, eta bozkariatu zure erortzeaz, hala-hala atsekabez egonen dire beren desmasian.

34. Eta osteari khenduko zaizkio bere irrintzinak, eta bozkarioak deithoretara bihurturen dire.

35. Ezen sua egun luzez Bethierekoa ganik eroriko da haren gainera, eta mendez eta mendez izanen da debruen egon-lekhua.

36. Oi Jerusaleme, begiak inguruan iguzki-aldera itzul zatzu, eta ikhusazu Jainkoa ganik heldu zaitzun gozoa.

37. Ezen hunan non heldu diren zure seme, barriatuak utzi zintuenak; moltoan heldu dire iguzki-aldetik mendebalera, sainduaren hitzera, bozkariotan Jainkoari ospe bihurtuz.

## V. KAP.

1. Erauntzazu, Jerusaleme, zure deithoreko eta atsekabeetako soina, eta jauntzatu Jainkoa ganik duzun bethiko ospearen dirdira eta ohorea.

2. Jainkoak inguraturen zaitu zuzentasunaren kapaz, eta bethiko ohorearen khoroa ezarriren du zure buruaren gainean.

3. Jainkoak alabainan zeruen azpian diren guziei zure baithan erakhusiren diote bere distiradura.

4. Ezen hau da bethikotzat Jainkoak emanen darotzun izena: Zuzenbidearen bakea, eta jainkotiartasunaren ohorea.

5. Jaiki, Jerusaleme, eta jar zaite gain batean; begiak inguruan ematzu iguzkialdera, eta zure semeak ikhusatzu, iguzki-aldetik mendebaleraino bilduak, sainduaren hitzera, Jainkoaren orhoitzapenez bozkarioz betherik.

6. Zure barnetik ilkhi ziren oinez, etsaiak eramaten zituela; Jaunak erakharriren ditu ordean, ohorerekin ekhartzen dituztela errege-semeak iduri.

7. Ezen Jainkoak gogoan hartu du, mendi gora guziak eta egundainotikako gerendak aphaltzea, eta haranak lurraren bardinera bethetzea, Israelek laster egin dezan Jainkoaren ohoretan.

8. Oihanek ere eta zuhamu usain oneko guziek, Jainkoaren manuz Israeli itzal eginen diote.

9. Alabainan Jainkoak erakharriren du Israel bozkariotan bere maiesatearen argitara, haren ganik dathortzen urrikalmendu eta zuzentasunarekin.

## VI. KAP.

1. Babilonan gathibu ziren Juduei Jeremiasek bidali gutuna, zeinetan urruntzen baititu idolen adoratzetik. Erakhusen du idolen hutsaltasuna.





Jainkoaren aitzinean egin dituzten bekhatuen gatik, Nabukodonosor Babilondarren erregek gathibu eramanen zaituztete Babilonara.

2. Hargatik Babilonan sarthu-eta, han izanen zarete asko urthez eta denbora luzez, zazpi gizamendetaraino; gero berriz, bakean handik erak-harriren zaituztet.

3. Bainan orai Babilon ikhusingen dituzte jainko urhezkoak, zilharrezkoak, harrizkoak eta zurezkoak, soin gainetan erabiltzen, jendaiei bel-durraren emateko.

4. Begira zaitzete beraz arrotz hekien iduriko bilhakatzetik, eta lotsatzetik, eta jainkoazun hekien beldurraren hartzetik.

5. Hargatik ostea aitzinetik eta gibeletik adoratzeko ikhustean, zuen bihotzetan errazue: Zu behar zare adoratu, Jauna.

6. Ezen ene aingerua zuekin da, eta neronek hartuko dut zuen biziez artha.

7. Alabainan idola bekien mihia ofizialeak legundua da; urhezkoak eta zilharrezkoak ere jainkoazunak dire, eta ez ditazke mintza.

8. Eta nola edergailuak maite dituen neskatxari, hala egiten diozkate idolei urrezko edergailuak.

9. Hekien jainkoek urhezko khorok badituzte butuari; handik aphez-ek khentzen diote urhea eta zilharra eta hartaz jabetzen dire.

10. Hartarik aldiz, putei ematen diote, eta hartaz aphaintzen dituzte lilitxoak; eta hura berriz izaten dutenean lilitxoetarik, aphaintzen dituzte beren jainkoak.

11. Jainko hekiek ordean beren buruak ezin zaint detzazkete herdoi-letik eta biphietarik.

12. Jaunten diote, berriz, urhezko soin bat, eta begithartea garbitzen diote, hekien etxean den herrauts handiaren gatik.

13. Batek berriz, badaduka gizon batek bezala manamenduko mak-hila, tokiko juiea iduri, zeinak ezin hilaraz baitezake huts egiten dioena.

14. Bertze batek ere badaduzka ezpata eta haizkora; bainan ez du bere burua zaintzen gerlan eta ohoinetarik; hortarik ezagutzeko ez direla jainkoak.

15. Ez izan beraz hekien beldur; ezen nola untzi hautsi bat gizonarentzat deusetako ez baita, hala-hala dire jendaiei Jainkoak ere.

16. Etxe batean ezarriak direnean, begiak betheak dituzte sartzen direnen zangoetako herrautsaz.

17. Eta nola erregeri hutsegin duen bati atheak inguruan hersten baitzazko, edo nola hersten baita hobirat eraman hila; hala-hala aphez-ek

seguratzeko dituzte atheak hagaz eta zerrapoz, beldurrez-eta ohoinek ebatsi jainkoak.

18. Kriseluak bizten diozkate, eta hainitz, ere segurki; hekiatarik bate-ere ezin ikhus baitezakete; ezen etxean dire lazak iduri.

19. Diote berriz, lurretikako suge batzuek milikatzen diozkate lahiotzak, noiz-etare jaten baitituzte berak eta beren soinekoak, eta ez baitute hautematen.

20. Hekien etxean den kheak belzten diozkate musuak.

21. Hekien gorphutzaren eta buruaren gainetik dabilza huntz, ainhara eta bertze xoriak eta orobat gathuak.

22. Hortarik jakizue ez direla jainko; ez izan beraz hekien beldur.

23. Hekiek duten urhea ere, itxurarentzat da; nihork khen ez balezote herdoila, ez lezakete argi; eta urtzen dituztenean, ez dute hautematen.

24. Zer-nahi pagatuz erosiak dire bizigabeko molde hekiek.

25. Zangorik ez izanez, soin gainean erabiltzen dituzte, gizonei horrela erakhutsiz beren ahalgabetasun itsusia; ahalkez estal beitez hekiek adoratzeko dituztenak.

26. Lurrerat erortzen badire, berak ez dire jaikiko; eta norbaitek xuxen ezartzen baditu, ez dire berak xutik egonen; bainan hilei bezala ekhartzen zaizkote emaitzak.

27. Hekien aphez-ek saltzen dituzte hekiatzateko bitimak, eta nahi dutena egiten dute; aphezen emazteek ere hartzen dute hekiatarik, eriari eta eskalari batere eman gabe.

28. Izorra eta astagaizdun direlarik hekien sakrifizioetarik ukitzen dute: Horiatarik dakizuenaz geroz ez direla jainko, ez izan hekien beldur.

29. Nondik ezen deitzen dituzte jainko? Zeren emazteak ematen baitiozkate zilharrezko, urhezko eta zurezko jainko hekiei;

30. Eta hekien etxeetan aphez-ek jarriak daudelakoz, soin urratuekin, ileak eta bizarrak murrizturik eta buru has.

31. Orroaz egoten dire, berriz, beren jainkoen aitzinean, hala-nola hiletzateko onthuruntzetan.

32. Aphez-ek khentzen diozkate beren soinekoak, eta ematen beren emazte eta hurrei.

33. Edo gaizki zerbait jasan dezaten norbaiten ganik, edo zerbait onik, saririk ezin bihur dezakete; ez dezakete errege bat ez ezar, ez khen.

34. Halaber ez dezakete ez ontasunik eman, ez gaizkirik bihur; norbaitek botu bat egin badiote, eta ez bihurtu, hartaz ere ez dute bilhatuko.

35. Ez dute gizon bat heriotzeari itzurraziko, ez-eta herbal bat hazkarragoaren eskutik atheratuko.



36. Itsuaren begiari ez diote argia bihurturen; ez-eta gizona behartasunik atheraturen.
37. Ez dire urrikalduko alhargunari, eta ongirik ez diote eginen umezurtzei.
38. Hekien jainkoak menditikako harrien iduriko dire, zurezkoak, harrizkoak, urhezkoak, zilharrezkoak: hekiek adoratzen dituztenak, berriz, ahalkearen azpira eroriko dire.
39. Nola beraz jainkotzat har, edo jainko deith ditazke?
40. Ezen oraino Kaldearrek berek ez dituzte ohoratzen; aditzen dutenean mutu bat ez ditakeela mintza, haren eskaintza egiten baitiote Beli, mintzaraz dezan galdatuz;
41. Higitzeko ahala ez dutenek, hautemateko ahala balute bezala: eta ezagutuko dituztenean utziko dituzte; alabainan hekien jainkoek usnarik ez dute.
42. Emazteki batzu, berriz, sokhaz tinkaturik, bide gainetan jarriak egoten dire, oliba-hexur erretzen.
43. Aldiz, iragaile norbaitek bildurik, hekietarik batek harekin lo egin dukeenean, iroi egiten dio bere lagunari, hura ez delakoan doitzat idukia izan, bera bezala, eta haren sokha ez delakoan izan hautsia.
44. Jainko hekiei egiten zaizkoten guziak, berriz, gezurrezkoak dire: nola uste izan edo erran jainko direla?
45. Zurginek eta urheginen eginak dire, eta deus ez dire bertzerik, aphezek nahi dutena baizik.
46. Hekiek egiten dituzten ofizialeak ez dire egun luzerentzat; hekien eskuetako lanak izan othe ditazke beraz jainko?
47. Ondotik ethorriko direnei ez dute uzten gezur eta laido baizik.
48. Halabadore gudu bat eta asturugaitzak gerthatzera heldu direnean, aphezak beren baithan egoten dire non gordeko othe diren beren jainkoekin.
49. Nola beraz har ditazke jainkotzat, gerlatik salba eta asturugaitzetarik ezin itzur ditazkeen hekiek?
50. Alabainan nola zur urheztatuz eta zilharreztatuz baitire, jendaia eta errege guziek gerorat ezagutuko dute gezurrezkoak direla; ageri baita ez direla jainko, bainan-bai gizonen eskuetako lanak, eta hekietan deuse-re ez dela jainkozkorik.
51. Hortarik beraz ezagun da ez direla jainko, bainan gizonen eskuetako lanak, eta hekietan ez dela deusere jainkozkorik.
52. Erregerik ez diote erresuma bati ematen, ez-eta uririk gizonei.

53. Zuzenari ez diote bere bidea ematen, eta ez dituzte erresumak bidegabeetarik libratzen; zeren deus ez baitezakete, zeruaren eta luraren artean dabiltzan belatxak iduri.
54. Ezen zurezko, zilharrezko eta urhezko jainkoen etxeari su lothu-ko denean, hekien aphezek ihes eginen dute, itzuriko dire; hekiek ordean, lazak bezala erdi-erdian erreko dire.
55. Errege bati berriz, eta gerlari ez diote buru eginen; nola beraz uste izan eta har ditake jainko direla?
56. Jainko zurezko, harrizko, urhezko eta zilharrezkoak ez dire itzuriko ohoin eta ebasleei, zeinak hazkarrago baitire;
57. Jainkoei eramanen diozkate soineko, urhe, zilhar, eta jauntzia, eta goanen dire, eta jainkoek ez dituzte beren buruak lagunduko.
58. Jainkoazun baino hobe da beraz izatea bere ahala erakusten duen errege bat, edo etxean zerbaitetako on den untzi bat, haren jabeak hartaz espantu baituke, edo etxe batean athe bat, harek barneko gauzak zaintzen baititu.
59. Iguzkia, ilhargia eta izarrak, zeinek argitzen baitute eta beren premiatasuna gatik ezarriak baitire, Jainkoaren manuari dire ethordun.
60. Halaber simista ere ageri da argitzen duenean; haizeak berriz, toki guzietan buhatzen du.
61. Eta hedoiek, Jainkoak manatzen diotenean mundu guzia gaindi ibiltzea, manatua zaiotena egiten dute.
62. Suak ere, mendien eta oihanen erretzera ginetik igorriak, manatua egiten du; jainkoazunak ordean, ez edertasunez, ez indarrez, ez dire horietarik baten bethe.
63. Aria hortaz, ez da beraz uste izateko, ez-eta errateko jainko direla, ez dezaketenaz geroztik ez zuzena juia, ez-eta deusere gizonei egin.
64. Horreletan jakinez geroztik ez direla jainko, ez izan hekien beldurrik.
65. Ezen ez diote erregeri ekharriko ez onik, ez gaitzik.
66. Halaber populuei ez diote zeruan ezagutkaririk erakhutsiko; ez dute iguzkiak bezala dirdiratuko, ez-eta ilhargiak bezala argituko.
67. Abereak hekiek baino gehiago dire, leihorrera ihes egin eta behar dutena bilha dezaketenaz geroz.
68. Ez da beraz nihondik-ere guretzat ageri jainko direla; horren gatik ez izan hekien beldur.
69. Alabainan nola konkondre eraintza batean marika batek deus ez baitu zaintzen, hala-hala dire hekien jainko zurezkoak, zilharrezkoak eta urhezkoak.



70. Nola baita baratzean elhorri xuria, zeinaren gainean kokatzen baita xoria, nola baita hila ilhunbe batera arthikitzen dena, hekien iduriko dire zurezko, zilharrezko eta urrezko jainkoak.

71. Hekien bizkarrean biphiatzen diren purpura eta eskarlatatik ere jakizue ez direla jainko; berak ere azkenekotz janak eta tokiko laido izanen dire.

72. Hobe da gizon prestua, jainkomolderik ez duena; ezen laidotarik urrun izanen da.

## EZEKIELEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Eta gerthatu zen hogoi eta hamargarren urthean, laugarren hila-betheko bortzgarren egunean, gathibuen erdian Kobarreko ibaiaren bazterrean nintzelarik, zeruak ideki zirela, eta ikhusi nituen Jainkoa ganikako ikhuspenak.

2. Hilabetheko bortzean, Joakin erregearen desherripenetik bortzgarren urthean,

3. Jauna mintzatu zitzaioen Ezekiel aphezari, Buziren semeari, Kaldearren lurrean, Kobarreko ur-hegian, eta han Jaunaren eskua jarri zen Ezekielen gainean.

4. Eta ikhusi nuen, eta hara haize xirimola bat heldu zela ipharretik, eta hedoi handi bat, eta su bat trunbilka, eta haren inguruan dirdira bat, elektroa iduri suaren erditik;

5. Eta suaren erdian lau abere-itxura; eta begira, gizon-iduria zuten.

6. Bakharrak bazituen lau ahurpegi eta lau hegal.

7. Zangoak xuxenak zituzten, eta oin-azpiak aratxearenak bezalakoak, eta izarniatzen zuten kobre argiak bezala.

8. Eta lau aldetan hegatsen azpian bazituzten gizon-eskuak; eta lau aldetan bazituzten hegatsak eta begitharteak.

9. Hegalez ukitzen zuten batak bertzea; etziren itzultzen ibiltzean, bainan bakhotxa aitzinaz zihoan.

10. Hekien begithartean itxura zen, gizon itxura bat, eta lauek eskui-netik lehoin itxura bat, eta lauek ezkerretik idi itxura bat, eta lauek gora-go arrano itxura bat.

11. Hekien begitharteak eta hegalak goiti zauden; bi hegalez elkhar ukitzen zuten, eta bertze biez beren gorphutzak estaltzen.

12. Eta hekietarik bakhotxa aitzinaz zihoan; non-ere baitzen izpirituaren oldarra, harat zihoazen; eta ibiltzean etziren itzultzen.

13. Eta abere-iduri hekien itxura zen ikhartz gorriena eta zuzi biziarena bezalakoa. Ikhuspen bat bazabilan abereen erdian, suzko argidura bat, eta sutik simista atheratzen zen bat.

14. Eta abereak harat eta hunat bazabiltzan, dirdiratzten duen simista iduri.

15. Eta abereei begira nindagoelarik, lurrean agertu zen pirrita bat abereen ondoan eta bazituen lau aurkhi.



16. Eta pirriten itxura eta hekien egindura, itsasoaren ikhuspen bat bezala ziren, eta lauek iduri bera zuten; eta hekien itxurak eta egindurak ziren, pirrita bat bertzearen barnean balitz bezala.

17. Lauak bazabiltzan zein bere aldera; eta ibiltzen zirenean, etziren bihurtzen.

18. Pirritak zabal eta handiak ziren eta ikhusteko izigarriak, eta lauek konpasu guzia zuten inguruan begiz bethea.

19. Abereak ibiltzen zirenean, pirritak ere orobat bazabiltzan hekien ondoan; eta abereak altxatzen zirenean lurretik, pirritak ere batean altxatzen ziren.

20. Nora-nahi goan zedin izpiritua, non-nahi altxa zedin, pirritak ere orobat altxatzen ziren, hari jarraikiz; ezen biziko izpiritua pirritetan zatzen.

21. Abereak ibiltzean, pirritak bazabiltzan; abereak gelditzean, pirritak gelditzen ziren; abereak lurretik altxatzean, pirritak ere altxatzen ziren orobat, hekiei jarraikiz; zeren biziko izpiritua pirritetan baitzen.

22. Abereen buruen gaineko aldean bazen ortzia bezalako bat, begira iduri baitzuen kristail ikharagarri bat, hekien buruen gainean hedatua.

23. Ortziaren azpian berriz, hekien hegaiak xutuak zauden bata bertzearen parrean; batek bi hegalez estaltzen zuen bere gorphutza, eta bertzea ere orobat estalia zagoen.

24. Eta aditzen nuen hegalean harrabotsa, ur-uhar gaitzen harrabotsa iduri, Jainkoak gain-behera egiten duen harrabotsa bezala; ibiltzean harrabots egiten zuten oste batek bezala, armada batek bezala; eta gelditzen zirenean, beheitzen zituzten hegalak.

25. Ezen hekien buruen gaineko ortzian harrabots egiten zenean, baratzen ziren eta beheitzen zituzten hegalak.

26. Eta hekien buruen gaineko aldean zen ortzian bazen tronua bezalako bat, zafir harrizkoa iduri; eta tronua itxura haren gainean bazen gizona bezalako bat.

27. Eta haren barnean inguruan ikhusi nuen elektroa bezalako bat, sua iduri baitzuen; haren gerritik goiti eta gerritik beheiti, ikhusi nuen sua bezalako bat, inguruan argitzen zuena,

28. Iduri ortzadarra, hedoi batean egiten denean uria den egun batez. Halakoa zen inguruko argiduraren itxura.

## II. KAP.

1. Horra nolakoa zen Jaunaren ospearen itxura. Eta ikhusi nuen, eta erori nintzen ahuspez, eta aditu nuen boz bat mintzatzen. Eta erran zarotan: Gizasemea, jaiki zaite oinen gainera, eta mintzaturen naiz zurekin.

2. Eta izpiritua mintzatu zitzaitan ondoan, sarthu zen ene baithan, eta xutitu ninduen ene zangoen gainera, eta aditu nuen niri mintzatzen,

3. Eta erraten: Gizasemea, bidaltzen zaitut Israelgo umeetara, populu arnegatu, ene ganik gibelatu denaren gana; egungo eguna arteo berek eta beren auek hautsi dute enekilako patua.

4. Bekhoki gogorreko eta bihotz hezgaitezko umeak dire hainak zeinen gana bidaltzen baitzaitut, eta erranen daroezu: Hau dio Jainko Jaunak:

5. Hean entzunen othe duten, hean baratuko othe diren, ezen jendaki khexagarria da; jakinen dute bederen profeta bat izatu dutela beren erdian.

6. Zu beraz, gizasemea, ez izan hekien beldur, eta hekien solasek ez bezaitzate lotsa; zeren sinhets-gogorak eta makhurrak baitire zurekin, eta harrobiekin baituzu zure egoitza. Ez izi hekien solasez, ez bezaitza ikhara hekien begitharteak, zeren jendaki khexagarri bat baita.

7. Erranen daroeztetu beraz ene hitzak, hean entzunen duten eta baratuko diren, ezen sumingarriak dire.

8. Zuk ordean, gizasemea, adi zatzu nik erraten darozkitzudan guziak, eta ez izan khexagarri, jendaki khexagarri horren iduriko; idekazu ahoa eta jan zatzu nik ematen darozkitzudan guziak.

9. Eta ikhusi nuen, eta hara hurbildu zitzaitala esku bat, zeintan baitzen liburu bat biribilkatua; iskribatua zen barnetik eta kanpotik, eta hedatu zuen ene aitzinean; eta hartan baziren iskribatuak khexuak, arrangurak eta dixiduak.

## III. KAP.

1. Eta Jaunak erran zarotan: Gizasemea, atzeman guzia jan zazu; jan zazu liburu hau, eta goanik mintza zakizkiote Israelgo umeei.

2. Eta ideki nuen ahoa, eta janarazi zarotan liburu hura,

3. Eta erran zarotan: Gizasemea, ematen darotzudan liburu hau iretsiko du zure sabelak eta hunek betheko du zure barnea. Eta jan nuen, eta ene ahoan egin zen ezia bezain gozo.

4. Eta Jaunak erran zarotan: Gizasemea, zoaz Israelgo umeen gana, eta erran diotzotzueite ene hitzak.

5. Ezen igorria zare, Israelgo umeetara, ez populu mintzaia gaitz eta hizkuntza ezagutugabeko baten gana,

6. Ez-eta asko populu mintzaia gaitz eta hizkuntza ezagutugabekoe-tara, zeinen solasak ezin adi baitzinetzazke; eta halakoetara igorria bazina ere, entzun zintzazkete.



7. Israelgo umeek ordean etzaituzte entzun nahi, ni entzun nahi ez nautelakotz; ezen kopeta ahalkegabekoa eta bihotz gogorrekoa da Israelgo etxe guzia.

8. Huna non egin dudan zure begithartea hekienak baino hazkarra-go eta zure belharra hekienak baino gogorreko.

9. Egin dut zure belharra diamanta bezala eta harria bezala: ez izan hekien beldur, eta ez lotza hekien aitzinean, zeren ume khexagarri batzu baitire.

10. Eta erran zarotan oraino: Gizasemea, beharrez har eta bihotzean sar zatzu nik erraten darozkitzudan solas guziak.

11. Eta zoaz, sar zaitte gathibuen erdira, zure herriko umeetara; mintza zakizkiote, eta errozute: Hau dio Jainko Jaunak; hean entzunen duten eta geldituko diren.

12. Eta izpirituak hartu nituen, eta ene gibeletik aditu nuen harrabots handiko mintzo bat: Benedikatua Jaunaren ospea bere lekhutik.

13. Eta aditu nuen abereen harrabotsa, hegalak elkharri joz egiten zutena, eta pirrita abereei jarraitzen zirenen harrabotsa, eta iharrosdura handi bateko harrabotsa.

14. Izpirituak halaber altxatu eta eraman ninduen, eta goan nintzen uherrik ene izpirituko gaitziduran; alabainan Jaunaren eskua enekin zen, hazkartzen ninduelarik.

15. Eta ethorri nintzen gathibuen gana, uzta berrietako metara, Kobarreko hibai-bazterrean egoten zirenen gana; eta jarri nintzen hekiek jarriak zauden tokian, eta han egotu nintzen zazpi egunez atsekabetan.

16. Zazpi egunak iragan ondoan berriz, Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

17. Gizasemea, atalaritzat eman zaitut Israelgo etxeari; eta entzunen duzu ene ahotikako hitza, eta erranen daroezu ene izenean.

18. Nik erraten dudanean gaixtaginari: Heriotzez hilen haiz, zuk ez badiozu ezagutarazten, eta ez bazaizkio mintzatzen, bere bide gaixtotik aldarazteko, hura bere tzarkerian hilen da; bainan zure eskuan bilhaturen dut haren odola.

19. Aldiz, ezagutarazten badiozu gaixtaginari, eta hura ez bada bihurtzen bere gaixtakeriatik eta bere bide tzarretik, haina bere tzarkerian hilen da; zuk ordean libratu dukezu zure arima.

20. Berriz, baldin prestua bere prestutasunetik makhurturik, tzarkeriari lotzen bada, behaztopagailu bat ezarriren dut haren aitzinean; hura hilen da, ez diozulakoz ezagutarazi ene hitza; hura bere bekhatuan hilen

da eta haren egintza prestuez orhoitzapenik ez da izanen; bainan zure eskuan bilhaturen dut haren odola.

21. Prestuari ordean argitasuna eman balin badiozu, ez dadientzat prestua bekhatura eror, eta hura ez bada erori, egiazko bizitzeaz da biziko, eta zuk libratu dukezu zure arima.

22. Eta Jaunaren eskua jarri zen ene gainean, eta erran zarotan: Jaikirik ilkhi zaitte bazterretara, eta han mintzatuko naiz zurekin.

23. Eta jaikirik ilkhi nintzen bazterretara; eta hara Jaunaren ospea han zagoela, Kobarreko ur-hegian ikhusi nuen bezala, eta erori nintzen ahuspeka.

24. Eta izpiritua sarthu zen ene baithan, eta xutiarazi ninduen ene zangoen gainera, eta mintzatu zen enekin, eta erran zarotan: Sar eta herts zaitte zure etxearen erdian.

25. Eta zu, gizasemea, huna non burdinak emanak diren zure gainera, eta hekietan estekaturen zaituzte, eta etzare ilkhiren hekien erditik.

26. Eta zure aho gainari lotharaziren dut zure mihia; eta izanen zare mutu, eta ez azurriatzen duen gizona bezala; ezen Israelgo etxea ene sumintarazten hari da.

27. Bainan mintzatu nakikezunean, idekiren dut zure ahoa, eta erranen daroezu: Hau dio Jainko Jaunak: Entzuten duenak entzun beza, eta phausuan dagoena phausa beza, ezen Israelgo etxea ene sumintarazten hari da.

#### IV. KAP.

1. Eta zuk, gizasemea, har zazu adrailu bat, ezar zazu aitzinean, eta haren gainean egizu Jerusalemeren itxura.

2. Eta haren kontra xuxenduko duzu sethioa, altxatuko hazkargailuak, eginen hertsgailuak, jarriko kanpak, eta inguruan ezarriko ahariak.

3. Eta zuk har zazu burdinazko padera bat, eta ezar zazu hura zure artean eta hiriaren artean burdinazko harrasi bat bezala; eta hiriaren kontra gogortuko duzu begia, eta sethiotan izanen da, eta inguratuko duzu. Hori da Israelgo etxearentzat ezagutkari bat.

4. Eta zuk lo eginen duzu ezkerreko sahetsaren gainera, eta alderdi hartan ezarriko ditutzu Israelgo etxearen bekhatuak, haren gainera lo eginen duzun egun guziez, eta zure gain hartuko duzu hekien gaizkia.

5. Nik berriz, hekien bekhatuen urtheentzat eman darozkitzut hirur ehun laur hogoi eta hamar egun; eta jasanen duzu Israelgo etxearen gaizkia.



6. Eta hori egin dukezuean, lo eginen duzu berriz eskuineko sahetsaren gainera, eta jasanen duzu Judako etxearen gaizkia berrogoi egunez, eguna urtheke, diot, eguna eman darotzudala urtheke.

7. Eta itzuliren duzu begithartea Jerusalemgo sethioko alderat, eta hedatuko duzu besoa eta profetisatuko duzu Jerusalemereen kontra.

8. Huna non burdinaz inguratu zaitudan, eta etzare itzuliko sahets baten gagnetik bertzera, bethe detzatzun arteo zure sethioko egunak.

9. Eta har zatzu ogia, garagarra, baba, dilista, artho-xehea eta xingila; ezarriko ditutzu untzi batean, eta zuretzat eginen ditutzu ogiak, sahetsaren gainera lo eginen duzun egunetako; janen ditutzu hirur ehun laur hogoi eta hamar egunez.

10. Aldiz janen duzun hazkurriak, egunean izanen du hogoi estateren hazta; janen duzu muga batetik bertzeraino.

11. Eta ura edanen duzu neurtuz, hin baten seigarrena; hura edanen duzu muga batetik bertzeraino.

12. Eta zure laborea janen duzu hautsean errerikako garagar-ogia bezala; eta jende ongarriz estaliko duzu hura populareen aitzinean.

13. Eta Jaunak erran zuen: Beren ogia horrela janen dute zikhindurik Israelgo umeek, nik iraziko ditudan jendaien artean.

14. Eta erran nuen: Ai! ai! ai! Jainko Jauna, huna ene arima khutsatu izan gabea dela; haurretik orai arteo ez dut jan haragi bera hilik ez-eta basabereek xehakaturik; haragi lohirik batere ez da ene ahoan sarthu.

15. Eta ihardetsi zarotan: Huna non ematen darotzudan idi-gorotza jende ongarraren orde, eta hartan erreko duzu zure ogia.

16. Eta erran zarotan: Gizasemea, huna non hautsiko dudan Jerusalemen ogiaren makhila; ogia phisatuz eta asaldutan janen dute, eta ura edanen dute neurtuz eta hesturetan;

17. Haletan non, ogi eta ur eskasez batbedera eroriko baita bere anaiaren gainera, eta beren tzarkerian iharturen dire.

## V. KAP.

1. Eta zuk, gizasemea, har zazu nabala zorrotz bat, ileak ebakitzen dituen; hartuko duzu eta iraganen zure burutik eta bizarretik; eta hartuko duzu hekien phisatzeko balantza bat, eta hirur zathitan ezarriko ditutzu.

2. Heren bat suz erreko duzu hiriaren erdian, sethioko egunak bethetzen diren arabera; bertze heren bat hartuko duzu eta ezpatarekin ebakiko hiriaren inguruan; azken herena berriz, haizeari emanen diozu, eta nik ezpata biluziren dut hekian ondotik.

3. Eta hekietarik guti bat hartu eta zure kaparen izkinan estekatuko duzu.

4. Eta haukietarik hartuko ditutzu berriz zenbait eta suan erreko, eta handik ilkhiko da su bat Israelgo etxe guziaren gainera.

5. Hau dio Jainko Jaunak: Hori da Jerusalem; ezarri dut jendaien erdian, eta lurak haren inguruan.

6. Eta erdeinatu ditu ene erabakiak, jendaiak baino tzarrago bilhakatzeraino; eta ene manamenduak, haren inguruan diren lurrek baino gehiago; ezen ostikatu ditu ene erabakiak, eta ez da ene manamenduetan

7. Aria hortaz, hau dio Jainko Jaunak: Zeren gaintu dituzten zuen inguruko jendaiak, eta etzaretan ene mandamenduetan eta ez dituzten ene erabakiak bethe, eta ez duzen egin zuen inguruan diren jendaiak ere bezain zuzenki;

8. Hau dio beraz Jainko Jaunak: Jerusalem, huna non heldu natzainan, eta neronek hire erdian obraturen ditinat ene erabakiak jendaien begietan.

9. Eta hire izigarrikeria guzien ariaz, hire baithan eginen dinat egundaino egin ez dudana eta halakorik ez baitut eginen gehiago.

10. Aitek beraz janen ditine hire erdian beren semeak, eta semeek beren aitak; ene erabakiak betheko ditinat hire baithan, eta haize guziatarra barraiatuaren ditinat hire ondarrak.

11. Horren gatik, dio Jainko Jaunak: Ala ni! zeren lohitu dunan ene saindutezia hire tzarkeria guzietan eta izigarrikeria guzietan, ez bahaut nik ere phorroskatzen; eta ez hau guphidetsiko ene begiak, eta ez naun urrikalduko.

12. Hire hiruretarik bat hilen dun izurritetik, eta goseteak iharraraziko din hire erdian; bertze hirugarrena ezpataren azpira eroriko dun hire inguruan; bertze hirugarrena berriz, haize guziatarra barraiatuko dinat, eta ezpata biluziko dinat hekien gibeletik.

13. Eta ene sepha betheko eta ene gaitzidura aseko dut hekien gainean, eta hartuko dut sosegu; eta ene irakidura askietsi dukedanean hekien gainean, jakinen dute ni naizela Jauna, ene kharrean mintzatu naizena.

14. Eta ezarriko haut mortu, eta hire inguruan diren jendaien laidagarri, iragarle guzien aitzinean.

15. Eta izanen haiz laidagarri eta burhoztagarri, ikhusgarri eta lazgarri hire inguruan diren jendaietan, ene erabakiak obratu ditukedanean, ene sepha, ene gaitzidura eta ene hasarrearen jazarraldietan.



16. Ni Jauna mintzatu naiz, erran dudanean hekien gainera igorriko ditudala gosetearen gezi guziz gaixto, hilgarriak izanen direnak, zeinak igorriko baititut zuen xahutzekotzat; eta gosetea bilduko dut zuen gainera, eta hautsiko dut zuetan ogiaren makhila.

17. Eta zuetara igorriren ditut gosetea eta basabere gaixtoenak, zuek hilarazi arteo; eta izurritea eta odola hire gaisetir iraganen ditun, eta ezpata erakharriren dinat hire gainera. Ni Jauna naiz mintzatu.

## VI. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:
2. Gizasemea, begithartea ezar zazu Israelgo mendietara, eta profetisa diozozute,
3. Eta errozute: Israelgo mendiak, adi zazue Jainko Jaunaren hitza. Jainko Jaunak hau diote mendiei eta munhoei, harkadiei eta haranei: Huna non erakharriren dudana ezpata zuen gainera, eta herrautsiren ditut zuen lekhu gorak;
4. Eta urraturen ditut zuen aldareak, eta xehakaturen zuen jainkomoldeak, eta zuen hilak arthikiren zuen idolen aitzinean.
5. Eta Israelgo umeen hilikiak ezarriren ditut zuen jainkomoldeen aitzinean, eta zuen hezurak barriaturen ditut zuen aldareen inguruan;
6. Zuen egon-lekhu guzietan hiriak mortu izanen dire, lekhu gorak urratuak eta herrautsiak izanen dire, zuen aldareak eroriko eta phorroskatuko dire; zuen idolak ezeztatuak, zuen tenploak lehertuak, eta zuen lanak xahutuak izanen dire.
7. Zuen erdian eroriko dire hilak, eta jakinen duzue ni naizela Jauna.
8. Zuetarik utziko ditut jendaien artean ezpatari itzuri ditazkeenak, barriatuko zaituztedanean bazterretan.
9. Eta zuetarik libratuak nitaz orhoituren dire jendaien artean, zeinetara gathibu eramanak baititazke; zeren nik hautsiko baitut hekien bihotz lohitu eta ene ganik urrundua, eta idekiko ditut hekien begi jainkomoldeekin lohituak; eta beren izigarrikeria guzietan egin dituzten gaizkien gainean berek harturen dute beren buruentzat gaitzirizko.
10. Eta jakinen dute, nik Jaunak, ez nuela alferretan erran gaitz horiek eginen naroeztela.
11. Hau dio Jainko Jaunak: Jo zazu eskuaz, jo zazu zangoaz, eta errazu: Zorigaitz Israelgo etxearen gaizkien izigarrikeria guzientzat! Zeren ezpataz gosete eta izurriteaz xahutzera baitoha.

12. Urrun dena, izurritik hilen da; hurbil dena berriz, ezpatak arthikiren du; eta gelditua eta sethiatua dena, goseak hilen du; eta aseko dut ene hasarrea hekien gainean.

13. Eta ni naizela Jauna jakinen duzue, zuen hilak izanen direnean zuen jainkomoldeen erdian, zuen aldareen inguruan, munho gora guzien gainean, eta mendi-kasko guzietan, eta zuhaitz adartsu guzien azpian, eta haritz hostotsu guzien azpian, zuen idolentzat isentsu usaina igan izan den lekhuetan.

14. Eta hekien gainera hedaturen dut ene eskua; eta hekien egon-lekhu guzietan, Deblathako mortutik hasirik, lurra desmasian eta larrutua ezarriren dut; eta jakinen dute ni naizela Jauna.

## VII. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:
2. Eta zu, gizasemea, huna zer dioen Jaunak, Israelgo lurreko Jainkoak: Heldu da akhabantza, akhabantza heldu da lurraren lau aurk-hintzen gainean.
3. Huna orai akhabantza hire gainean hire gainera ixuriko dinat ene hasarrea, eta juiatuko haut hire bideen arabera, eta jazarriko darozkinat hire izigarrikeria guziak.
4. Eta ez hau guphidetsiko ene begiak, eta ez naun urrikalduko; baina hire gainera erorraziko ditinat hire gaixtakeriak, eta hire itsuskeriak hire erdian geldituko ditun; eta jakinen duzue ni naizela Jauna.
5. Hau dio Jainko Jaunak: Hestura bat, huna non heldu den hestura bat.
6. Akhabantza heldu da, heldu da akhabantza; atzarria egotu dun hire kontra; huna non dathorren.
7. Xahupena gainera heldu zaik, oi lur hortako egoiliarra; heldu duk ordua, hurbil duk sarraskiko eguna, eta-ez mendien ospekoa.
8. Oi lurra, orai hurbildik hire gainera ixuriren dinat ene hasarrea, eta ene sepha aseko dinat hire gainean; eta hire bideen arabera haut juiaturen, eta hire gaixtakeria guziak darozkinat gainera emanen;
9. Eta ene begiak ez din guphiderik izanen, eta ez naun urrikalduren; baina hire tzarkeria guziak hire gainean ezarriren ditinat, eta hire erdian egonen ditun hire itsuskeria guziak; eta jakinen duzue ni naizela jotzen dudana Jauna.
10. Huna eguna, huna non heldu den ilkhi da xahupena, zigorra loratu da, muskildu da hanpuruskeria;



11. Gaixtakeria tzartasunaren zigorraren gainean jaiki da; ez hekieta-rik, ez populutik, ez-eta hekien harramantzetik; eta hekien baithan ez da phausurik izanen.

12. Ethorri da muga, hurbildu da eguna: eroslea ez bedi boz, saltzaila ez bedi uher, zeren sepha horgo populu guziaren gainera hedaturen baita.

13. Ezen saltzailari, oraino bizi balitz ere, etzaio saldu duen gauza bihurturen alabainan ikhuspen populu guziarentzateko hau, ez da alferrik bihurturen, eta gizona ez da hazkarturen bere bizitzeko tzartasunean.

14. Jo zazue turuta, phara zaitezte oro; eta ez da nihor gudura goanen ezik horgo populu guziaren gainean da ene hasarrea.

15. Ezpata kanpoan, izurritea eta gosetea barnean; landan dena, ezpatatik hilen da; hirian direnak izurriteaz eta goseteaz izanen dire iretsiak.

16. Hekien ganik ihes eginen dutenak, salbatuak izanen dire; eta mendietan egonen dire, haranetako usoak iduri, oro ikharan, batbedera bere bekhatuan.

17. Esku guziak erkhituko eta belhaun guziak ura bezala itzuriko dire.

18. Eta jauntziko dituzte zurdatzak, eta izialdurak estaliko ditu, eta ahalkea izanen da begitharte guzietan eta khartzoildura buru guzien gainean.

19. Hekien zilharra kanporat arthikia, eta hekien urhea ongarrria bezala izanen da. Hekien zilharra eta urhea ez dire baliaturen hekien libratzeko Jaunaren hasarreko egunean. Ez dute aseko beren barnea, hekien sabelak ez dire betheko, zeren dirua izanen den hekientzat gaizkirako behaztopagailu.

20. Beren lephoko gatheen edergailua hanpuruskeriako baliatu dute; hartarik egin dituzte beren tzarkerietako itxura eta moldeak; horren gatik egin dut hartarik gauza lohi bat;

21. Eta hura esku arrotzei emanen diotet harrapakara, eta hura eginen dut lurreko gaixtaginen puska, eta lohituren dute.

22. Eta begithartea itzuliren dut hekien ganik; bortxaturen dute ene saindutegiko lekhu gordea; ohoinak hartan sarthuren dire, eta lohituren dute.

23. Akhabantza bat athera zazu, zeren lurra odolezko juiamenduz eta hiria tzarkeriaz betheak baitire.

24. Eta erakharriren ditut jendaietarik gaixtoenak, eta jabeturen dire hekien etxeez; eta ixilaraziren dut botheretsuen hanpurustasuna, eta etsaia nausituren da hekien saindutegiez.

25. Hestura jaustean, bilhaturen dute bakea, eta bakerik ez da izanen.

26. Afaldua asalduaren gainera ethorriko da, haroa haroaren gainera; eta profeten ikhuspen bilha ibiliko dire, eta legea galduko da aphezaren baitharik eta kontseilua zaharretarik.

27. Errege auhenez egonen da, atsekabeak inguratuko du buruzagia, eta ikharan izanen dire populuaren eskuak. Eginen daroet egin dutenaren arabera, juiaturen ditut juiatu dutenaren arabera, eta jakinen dute ni nai-zela Jauna.

## VIII. KAP.

1. Eta seigarren urthean, seigarren hilabeteke, bortzgarren egunean, jarria nintzen ene etxean, eta Judako zaharrak jarriak zauden ene aitzinean, eta han Jainko Jaunaren eskua erori zen ene gainera.

2. Eta ikhusi nuen, eta hara itxura bat suaren iduria bezala; gerritik beheiti sua zuen iduri, eta gerritik goiti iduri zuen argidura bat, elektroa ikhusten balitz bezala.

3. Eta eskua bezalako bat hedatu zen eta lothu zitzaitan buru-khartzetatik; eta izpirituak altxatu ninduen zeruaren eta lurraren artera, eta Jainkoaren ganikako ikhuspen batean eraman ninduen Jerusalemara, ipharrera begira zagoen barneko athearen ondora, non baitzagoen xutik bekhazgoko idola, bekhazgoaren jauzarazteko.

4. Eta hara Israelgo Jainkoaren ospea han agertu zitzaitala, landan izatu nuen ikhuspena bezala.

5. Eta Jaunak erran zarotan: Gizasemea, altxa zatzu begiak ipharreko alderat. Eta ipharreko alderat altxatu nituen begiak, eta hara aldareko athearen ipharretik, sartzean berean zagoela bekhazgoko idola.

6. Eta erran zarotan Jaunak: Gizasemea, baduzu uste? ikhusten duzu zer hari diren horiek, Israelgo etxeak hor egiten dituen izigarrikeria gaitzak, ni ene saindutegitik urruntarazi beharrez? Eta oraino itzuliz ikhusiren dituztu izigarrikeria handiagoak.

7. Eta eraman ninduen lorio-sartzera; eta ikhusi nuen xilo bat bazela harrasian.

8. Eta erran zarotan: Gizasemea, zilha zazu harrasia. Eta harrasia zilhatu nuenean, agertu zen athe bat.

9. Eta erran zarotan: Jar zaite eta ikhusatzu horiek hor egiten dituzten izigarrikeria guziz tzarrak.

10. Eta sarthurik ikhusi nuen, eta hara zer-nahi zierpe eta abere itxura, izigarrikeria eta Israelgo etxearen idola guziak thindatuak zirela inguruan harrasi guzian.





11. Eta itxura hekien aitzinean zauden Israelgo etxeko zaharretarik hirur hogoi eta hamar gizon, eta haukien erdian Jezonias, Saphanen semea; eta bazuten bakhotxak isentsuntzi bana eskuan, eta isentsutik altxatzen zen lanhozko bafada.

12. Eta Jaunak erran zarotan: Gizasemea, ikhusten duzu ongi, ilhun-beetan zer egiten duten Israelgo etxeko zaharrek, batbederak zer egiten duen bere gela zokhoan; ezen diote: Jaunak ez gaitu ikhusten, Jaunak utzi du lurra.

13. Eta erran zarotan: Oraino itzuliz ikhusiren ditutzu, horiek egiten dituzten izigarrikeria handiagoak.

14. Eta sarrarazi ninduen Jaunaren athe-sartze, ipharrera begiraten duenetatik; eta hara emazteki batzu han jarriak Adonisen deithorutzen.

15. Eta erran zarotan: Ikhusi duzu ongi, gizasemea; eta oraino itzuliz ikhusiren ditutzu horiek baino izigarrikeria handiagoak.

16. Eta sarrarazi ninduen Jaunaren etxeko lorio barnekoan; eta hara Jaunaren tenplo sartzean, ezkaratzaren eta aldarearen artean, hogoi eta bortz gizon bezala, gibelaz Jaunaren tenploko harrasiari zaudela, eta aitzinaz iguzki-sorthaldera; eta iguzki-ilkhitzea adoratzan zuten.

17. Eta erran zarotan: Ikhusi duzu ongi, gizasemea; hori guti othe da Judako etxearentzat hor egin dituzten izigarrikeria horien egitea; ezen lurra gaixakeriaz bethez, itzuli dire ene sumintaraztera? Eta horra non adar bat hurbiltzen duten beren sudurretara.

18. Ni ere beraz hariko naiz ene sephan; ene begiak ez du guphidetsiren, ez naiz urrikalduko; eta oihuka deihadar eginen dutenean ene beharrietara, ez ditut entzunen.

### IX. KAP.

1. Eta hazkarki oihu egin zuen ene beharrietara, zioelarik: Hurbil dire hiriaren ikharleak, eta bakhotxak eskuan daduka hilkako tresna bat.

2. Eta hara sei gizon heldu zirela ipharrera dagoen gaineko atheko bideaz, eta bakhotxaren eskuan bazen hilkako tresna; hekien erdian ere bazen gizon bat liho-oihalez jauntzia, eta thinduntzi bat bazuen gerrian; eta sarthu, eta xutik jarri ziren kobrezko aldarearen ondoan.

3. Eta Israelgo Jaunaren ospea ilkhi zen kerubinetik, zeinaren gainean baitzagoen tenplo-sartzean; eta deithu zuen lihoz jauntzia zen gizona, thinduntzia gerrian zuena.

4. Eta Jaunak erran zaroen: Iragan zaite hiria barna Jerusalemaren erditik, eta horren erdian egiten diren izigarrikeria guziez auhen eta atsekabetan dauden gizonen beharretan egizu thau baten hatza.

5. Eta bertzeei erran zaroeten, nik aditzen nuelarik: Huni jarraikiz iragan zaitezte hiria gaindi; eta jo zatzue jendeak; zuen begiak ez betza izan guphide, ez bezaitezte urrikal.

6. Zaharra, muthil eta neskatxa gazte, haur eta emazteki, oro heriotzez hil zatzue; bainan thaua ikhusiko diozuenetarik nihor ez hil; eta has zaitezte ene saindutegitik. Hasi ziren beraz tenploaren aitzinean ziren gizon-zaharretarik.

7. Eta erran zaroeten: Lohi zazue tenploa, eta hilez bethe zatzue lorioak; ilkhi zaitezte. Eta ilkhi ziren eta jotzen zituzten hirian zirenak.

8. Eta sarraskia akhabatu zenean, ni gelditu nintzen han; eta erori nintzen ahuspez, marraskaka niolarik: Ai! ai! ai! Jainko Jauna; xahuturen othe ditutzu bada Israelgo ondarrak oro, zure sepha ixuriz Jerusalemaren gainera?

9. Eta ihardetsi zarotan: Israelgo eta Judako etxearen gaizkia hainitz da handiegia; lurra odolez bethea dago eta hiria bihurrikeriaz; erran dute ezen: Jaunak utzi du lurra, eta Jaunak ez du ikhusten.

10. Ez du beraz ene begiak guphiderik izanen, eta ez naiz urrikalduko; bihurtuko diotet beren bidearen arabera.

11. Eta huna lihoz jauntzia zen gizonak, thinduntzia gerrian zuenak, hitz hau ihardetsi zuen zioelarik: Manatu darotazun bezala egin dut.

### X. KAP.

1. Eta ikhusi nuen, eta hara kerubinen gainean zen ortzian, hekien gainean agertu zela zafir harria bezalako bat, tronua iduri zuen itxura bat.

2. Eta mintzatu zen lihoz jauntzia zen gizonari, eta erran zioen: Kerubinen azpian diren pirriten artera sar zaite, eta kerubinen erdian diren ikhatz bizietarik bethe zazu eskua, eta ixuratzu hiriaren gainera. Eta sarthu zen ene aitzinean.

3. Bada, kerubinak etxearen eskuinetarik zauden goan zenean gizona; eta hedoi batek bethe zuen lorio-barnea.

4. Eta Jaunaren ospea kerubinen gainetik ilkhi zen tenploko sartzera; eta hedoiak bethe zuen etxea, eta Jaunaren ospearen dirdirak bethe zuen lorioa.

5. Eta kerubinen hegalean harrabotsa aditzen zen kanpoko lorioraino, iduri Jainko ahalorotakoaren mintzoaren otsa.

6. Eta liho-oihalez jauntzia zen gizona manatu zuenean, erranez: Kerubinen erdian diren pirriten artetik har zazu sua; sarthu zen eta gelditu zen pirrita baten ondoan.



7. Eta kerubin batek kerubinen erditik hedatu zuen eskua kerubinen artean zen sura; eta hartarik hartu eta eman zuen lihoz jauntzia zenaren eskura; hunek hartu zuen eta ilkhi zen.

8. Eta kerubinetan agertu zen gizon-eskua bezalako bat hekien hegalean azpian.

9. Eta ikhusi nuen; eta hara lau pirrita kerubinen ondoan; pirrita bat kerubin baten ondoan, bertzea bertze erubinarene ondoan; pirriten itxura berriz, krisolit harriarena bezalako zen.

10. Eta lauek bat iduri zuten, pirrita pirritaren barnean izan balitz bezala.

11. Eta ibiltzen zirenean, lauak lau aldetara zabiltzan; eta ibiltzean etziren gibelerat bihurtzen; bainan lehenbiziko zenak lekhu batera egiten zuenean, bertzeak ere jarraitzen ziren eta ez bihurtzen.

12. Eta hekien gorphutz guzia, lephoak, eskuak, hegalak eta usteiak begiz betheak ziren lau pirriten inguruan.

13. Eta nik aditzen nuelarik, pirrita hekiek deithu zituen zalhuak.

14. Bakharrak berriz, bazituen lau begitharte; begitharte bat, kerubin-begithartea; bigarren begithartea, gizon-begithartea; hirugarren begithartea, lehoin-begithartea; eta laugarrena, arrano-begithartea.

15. Eta kerubinak goititu ziren; hekiek ziren Kobarreko ur-hegian ikhusi nituen abere berak.

16. Kerubinak ibiltzen zirenean, pirritak ere orobat ibiltzen ziren hekien aldean; eta kerubinek hegalak altxatzen zituztenean lurretik goititzeko, pirritak etziren egoten, bainan hekiek ere kerubinen aldean izaten ziren.

17. Gelditzen ziren, kerubinak gelditzean; eta goititzen ziren, hekiek goititzean; ezen bizitzeko izpiritua hekietan zen.

18. Eta Jaunaren ospea tenploko sartzetik ilkhirik, jarri zen kerubinean gainean.

19. Eta kerubinek hedaturik beren hegalak, lurretik altxatu ziren ene aitzinean; eta hekiek goatearekin, pirritak ere jarraiki ziren; eta baratu ziren Jaunaren etxeko athe iguzki-aldekoaren sartzean; eta Israelgo Jainkoaren ospea hekien gainean zen.

20. Kobarreko ur-hegian Israelgo Jainkoaren azpian ikhusi nituen abere berak ziren, eta ezagutu nuen kerubinak zirela.

21. Bakharrak bazituen lau begitharte eta lau hegal; eta gizon-eskua bezalako bat bazen hekien hegalean azpian.

22. Hekien begitharteetako itxura, eta begiratzea eta bakhotxaren oldarra aitzinerat egiteko, Kobarreko ur-hegian ikhusi nituen ber-berak ziren.

## XI. KAP.

1. Eta izpiritua altxatu nituen eta eraman Jaunaren etxeko athe iguzki-aldekora, zeina iguzki-sortzeari baitago; eta hara athe-sartzean hogoi eta bortz gizon; eta hekien erdian ikhusi nituen Jezonias Azurren semea eta Pheltia Banaiasen semea, populuaren buruzagiak.

2. Eta erran zarotan: Gizasemea, horiek dire gaizkia asmatzen dutenak, eta hiri huntan asmurik tzarrenak derabilzkatena,

3. Diotelarik: Gure etxeak ez othe dire aspaldi eginak? hiria da bertza, gu berriz, haragiak.

4. Aria hortaz profetisa zazu horien gainean, gizasemea, profetisa zazu.

5. Eta Jaunaren izpiritua ene gainera jauzi zen eta erran zarotan: Mintza zaitte: Hau dio Jaunak: Horrela mintzatu haiz, Israelgo etxea, eta ezagutzen ditut zuen bihotzeko gogoetak.

6. Asko hil dituzte hiri huntan, eta hilez bethe dituzte hemengo karrikak.

7. Hargatik hau dio Jainko Jaunak: Zuek hil eta hiriaren erdian hedatu dituztenak, hekiek dire haragiak, eta hau bertza da; eta zuek hunen erditik khenduko zaituztet.

8. Ezpataren beldur zarete, eta ezpata erakharriren dut zuen gainera, dio Jainko Jaunak.

9. Eta iraziren zaituztet hiri hunen erditik, eta emanen zaituztet etsaien eskuetara, eta zuen gainean obraturen ditut ene erabakiak.

10. Ezpataren azpira eroriko zarete; Israelgo mugetan juiatuko zaituztet, eta jakinen duzue ni naizela Jauna.

11. Hiri hau ez da zuentzat izanen bertz, eta zuek etzarete hunen erdian izanen haragi: Israelgo mugetan zaituztet juiaturen.

12. Eta jakinen duzue ni naizela Jauna; zeren ez baitzarete ene manamenduetan ibili, eta ene legea ez baituzte bethe, bainan egin baituzte zuen inguruko jendaien legeen arabera.

13. Eta gerthatu zen, profetisatzen hari nintzelarik, hil zela Pheltia, Banaiasen semea. Eta ahuspez erori nintzen, oiuhu handi bat egiten nuelarik, eta erran nuen: Ai! ai! ai! Jainko Jauna; Israelgo ondarraren xahutzen hari othe zare?

14. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

15. Gizasemea, zure anaiak, zure anaiak, zure ahaideak eta Israelgo etxea oro, guziak zeinei Jerusalemдарrek erran baitiote: Jaunaren ganik zoazte urrun; guri daroku lurra gozamenetan eman.



16. Hargatik, hau dio Jainko Jaunak: Zeren jendaietan urrun ezarri eta bazterretara barraiatu ditudan; saildutegi xume bat izanen naiz hekieztat goan diren lurretan.

17. Aria hortaz errozute: Hau dio Jainko Jaunak: Populuaren artetik bilduko zaituztet, eta bateratuko zaituztet barraiatuak zareten lurretarik, eta emanen darotzuet Israelgo lurra.

18. Eta hartara sarthuko dire, eta hartarik khenduko dituzte hango behaztopagailu eta izigarrikeria guziak.

19. Eta emanen diotet bihotz bakhar bat, eta izpiritu berri bat ezarriren dut hekien barnean, eta hekien haragitik khenduren dut harrizko bihotza, eta emanen diotet bihotz haragizkoa;

20. Ibil ditezen ene manamenduetan, eta zaint eta bethe detzaten ene erabakiak; eta izan ditezen ene populu, eta ni izan nadien hekien Jainko.

21. Zeinen bihotza behaztopagailuen eta beren izigarrikerien ondolik baitabila, hain beren buruaren gainera ezarriko daroet beren bidea, dio Jainko Jaunak.

22. Eta kerubinek goititu zituzten hegalak, eta pirritak altxatu ziren hekiekin batean, eta hekien gainean zen Israelgo Jainkoaren ospea.

23. Eta hiriaren erditik Jaunaren ospea igan zen eta baratu hiriaren iguzki-aldean den mendia gainean.

24. Eta izpirituak altxatu eta erakharri ninduen Kaldeara gathibuen gana, ikhuspenez eta Jainkoaren izpirituaren ahalez; eta izatu nuen ikhuspena suntsitu zen ene ganik.

25. Eta gathibuei erran niozkaten Jaunak erakhutsi zarozkitan gauza guziak.

## XII. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

2. Gizasemea, populu khexagarri baten erdian egoten zare; horiek badiutze begiak ikhusteko, eta ez dute ikhusten; beharriak badiutze aditzeko, eta ez dute aditzen; zeren populu sumintarazle bat baita.

3. Zuk beraz, gizasemea, egizkitzu desherritzeko behar dituzun tresnak, eta desherrituko zare egunaz horien aitzinean; desherrituko zare, berriz, lekhu batetarik bertzera, ikhusten zaituztelarik, hean bederen begiratuko duten, ezen jendaki khexagarri bat da.

4. Eta kanporat atheratuko dituzu zure tresnak, desherripenerako tresnak bezala, egunaz, hekien aitzinean; zu berriz, arratsean ilkhiko zare hekien aitzinean, desherritzen dena ilkhitzen den bezala.

5. Hekien begien aitzinean zilha zazu zure etxeko harrasia eta handik athera zaite.

6. Hekien aitzinean gain gainetan eramana izanen zare, ilhun nabarrean eramane zaituzte; estaliko duzu zure begithartea, eta ez duzu ikhusiko lurra; ezen ezagutkarizat eman zaitut Israelgo etxeari.

7. Egin nuen beraz Jaunak manatu izan zarotan bezala; egunaz atheratu nituen ene puskak desherritzen denaren puskak bezala; arratsean ene eskuz zilhatu nuen ene etxeko harrasia, eta ilhun nabarrean ilkhi nintzen, soin gainetan eramana, populuaren aitzinean.

8. Eta goizean Jauna mintzatu zitzaitan, zerralarik:

9. Gizasemea, Israelgo etxeak, etxe khexagarri horrek ez othe darotzu erran: Zer hari zare?

10. Errozute: Hau dio Jainko Jaunak: Zorigaitzezko profezia hau, Jerusalem den buruzagiarentzat, eta hekien erdian den Israelgo etxe guziarentzat.

11. Errazu: Ni naiz zuentzateko ezagutkaria: nola nik egin baitut, hala gerthaturen zaiote hekiei; desherrituak izanen eta gathibu goanen dire.

12. Eta hekien erdian den buruzagia, soin gainetan eramana izanen da, ilhunbean ilkhiko da; harrasia zilhatuko dute haren eramateko; haren begithartea estalia izanen da, begiz ez dezan ikhus lurra.

13. Eta arthikiren dut ene sarea haren gainera, eta ene artean harapatua izanen da; eta eramane dut Babilonara, Kaldearren lurrera; eta ez du hura ikhusiko, eta han hilen da.

14. Eta haren inguruan diren guziak, haren zainak eta haren soldadoak, barraiaturiko ditut atde orotara; eta biluziko dut ezpata hekien ondolik.

15. Eta jendaietan barraiatu eta lurretan barbanakatu ditukedanean, ezaguturen dute ni naizela Jauna.

16. Eta hekietarik gizon bakhar batzu ezpatari, gosete eta izurriteari itzurraziren ditut, hekien gaixakeria guziak erran detzazten sarthuko diren jendaietan, eta ezagut dezaten ni naizela Jauna.

17. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

18. Gizasemea, ikharan jan zazu zure ogia, eta ura ere herresaka eta atsekaberekin edan zazu.

19. Eta erranen diozu lurreko populuari: Hau derrote Jainko Jaunak, Jerusalem, Israelgo lurrean egoten direnei: Asaldutan janen dute beren ogia, eta inkoniamendutan edanen dute beren ura, lurra bere ostetik gabe dadientzat, hartan egoten diren guzien gaixakeriaren gatik.

20. Eta orai jendez betheak diren hiriak hustuak, eta lurra mortu izanen dire; eta jakinen duzue ni naizela Jauna.



21. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

22. Gizasemea, zer duzue Israelgo lurrean derasazuen erran hau: Egunak urrun daude, eta ikhuspen guziak iraungiko dire?

23. Errozute beraz: Hau dio Jainko Jaunak: Ixilaraziko dut erran hori; eta Israelen ez du gehiago jendeak aiphatuko. Eta errozute, hurbil direla eguna eta ikhuspen guzien obratzeak.

24. Ezen ez da gehiago ikhuspen alferrik eta profezia gerthugabekorik izanen Israelgo semeen artean;

25. Zeren ni naiz mintzo Jauna; eta edozein gauza erran dezadan, gerthaturen da, eta ez da gehiago luzatzerik izanen; bainan zuen egunetan, populu khexagarria, erranen dut gauza bat, eta hura eginen dut, dio Jainko Jaunak.

26. Eta ilkhi zitzaitan Jaunaren hitza, zerralarik:

27. Gizasemea, huna non Israelgo etxeak dioen: Hunek ikhusten duen ikhuspena, egun askoren burukotzat da, eta ephe luze baten gero-kotzat profetisatzen du hunek.

28. Aria hortaz, errozute: Hau dio Jainko Jaunak: Ene edozein hitz ez da gehiago luzamendutan goanen; nik atheratu solasa, obraturen da, dio Jainko Jaunak.

### XIII. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

2. Gizasemea, profetisa diozute Israelgo profeta profetisatzen hari direnei; eta beren baitharik profetisatzen dutenei errozute: Adi zazue Jaunaren hitza;

3. Hau dio Jainko Jaunak: Zorigaitz profeta zoro, beren izpirituari jarraikitzen, eta deusere ikhusten ez dutenei

4. Oi Israel, hire profetak dituk mortuko hazeriak iduri.

5. Etzarete igan etsaiaren kontra, ez duzue harrasi bat zeiherrera altxatu Israelgo etxearen alde, guduan gogor egiteko Jaunaren egunean.

6. Hutsalkeriak dituzte ikhusten eta gezurrezko asmuak atheratzen, erranez: Jaunak erran du, noiz-eta-ere Jaunak ez baititu igorri; eta thematzen dire beren hitzean.

7. Zuen ikhuspenak ez othe ziren hutsalak, eta zuek egin profeziak gezurrezkoak? eta diozue: Jaunak erran du, ni ez naizelarik mintzatu.

8. Aria hortaz, hau dio Jainko Jaunak: Zeren hutsalkeriak dituztuen erran, eta gezurrezko ikhuspenak izatu, eta horren gatik huna non heldu natzaitzuen, dio Jainko Jaunak.

9. Eta ene eskua izanen da profeta hutsalkeria ikhusle eta gezur-asmatazileen gainean; ez dire ene populuaren baldarnan izanen, ez-eta Israelgo etxeko liburuan iskribatuak, eta ez dire Israelgo lurrean sarthuren, eta jakinen duzue ni naizela Jainko Jauna;

10. Zeren enganatu duten ene populua, erranez: Bakea, eta bakerik etzen; eta populuak egiten zuen harrasi bat; hekiek ordean lurrez enbokatzen zuten lastorik gabe.

11. Errozute enbokatzen nahastekarik gabe hari direnei, harrasia eroriko dela; ezen izanen da uria erauntsiaka, eta igorriren ditut harri gaitzak, oldarrean jautsiko direnak, eta haize-phia oro urratuko duena.

12. Eta harrasia erori balin bada, ez othe darotzueten erranen: Non da zuek egin enbokadura?

13. Aria hortaz, hau dio Jainko Jaunak: Ene gaitziduran jauzaraziko dut haize-phia, eta ene irakiduran uri-erauntsia, eta ene hasarrean harri handiak oro ahitzeraino.

14. Eta nahastekarik gabe enbokatu duzuen harrasia urratuko eta lurraren bardin ezarriko dut, eta agertuko da haren asentua; eta enbokatazalea eroriko eta xahutuko da haren erdian; eta jakinen duzue ni naizela Jauna.

15. Eta askiestera emanen diot ene sephari harrasiaren gainean, eta hura nahastekarik gabe enbokatzen dutenen gainean, eta erranen darotzuet: Ez da gehiago harrasia, haren enbokatazaleak ere ez dire.

16. Ez dire gehiago Israelgo profeta hekiek, Jerusalemeri profetisatzen hari zirenak eta bakezko ikhuspenak harentzat ikhusten zituztenak; eta bakerik ez da, dio Jainko Jaunak.

17. Eta zuk, gizasemea, itzul zazu begithartea beren baitharik profetisatzen hari diren zure populuko alaben kontra; profetisa zazu hekien gainean,

18. Eta errozu: Hau dio Jainko Jaunak: Zorigaitz hainei, zeinak ukhondo guzien azpiko hari baitire ukhondopeko egiten, eta bururdi egiten adin orotako buruen azpiko, arimen harrapatzea gatik; eta ene populuko arimak harrapatu dituztenean, baiterrote bizia eman diotela

19. Eta narriatzen zuten ene hitza ene populuaren beharrietan ahur bat garagarrentzat eta ogi puska batentzat, hilarazi nahiz bizi ziren arimak, eta biziari nahiz hilak zirenak, gezurrez mintzatuz ene populu gezur-sinhesteari.

20. Aria hortaz, hau dio Jainko Jaunak: Huna non goanen naizen zuen ukhondopekoetara, zeinen bidez harrapatzen baitituzte hegaldaka



dabiltzan arimak, eta phorroskaturren ditut zuen besoetan, eta libraturren ditut zuek harrapatu arimak, arima hegaldaka ibiltzeko direnak.

21. Eta xehakaturen ditut zuen bururdiak, eta zuen eskuetarik libraturren dut ene populua, eta ez da gehiago harrapakara zuen eskuetan izanen; eta jakinen duzue ni naizela Jauna.

22. Zeren zuen gezurrez diozuen eman atsekabe nik behartu ez nuen prestuaren bihotzari, eta ditutzuen hazkartu gaixtaginaren eskuak, etzezan gibelerat egin bere bide gaixtotik, eta etzadien bizi;

23. Aria hortaz ez duzue izanen gehiago zuen ikhuspen hutsaletarik eta ez duzue deusere atheratuko zuen aztikerietarik, eta ilkhiko dut populua zuen aztaparretik; eta jakinen duzue ni naizela Jauna.

#### XIV. KAP.

1. Eta ene gana ethorri ziren Israelgo zaharrak, eta jarri ziren ene aitzinean.

2. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

3. Gizasemea, gizon horiek beren bihotzetan sarthu dituzte beren lohikeriak, eta beren aitzinean ezarri dute beren tzartasuneko gaizbidea; eta horiek niri galda, eta nik ihardetsiko othe diotet?

4. Horren gatik mintza zakizkiote eta errozute: Hau dio Jainko Jaunak: Gizona, Israelgo etxetikako gizona, zeinak bere lohikeriak bere bihotzean sarthu eta bere tzartasuneko gaizbidea bere aitzinean ezarri baitu, eta profetaren gana ethorriko baita haren arartekoz niri zerbaiten galdatzera, hainari nik Jaunak ihardetsiko diot bere lohikerien murruren arabera;

5. Israelgo etxea izan dadientzat atzemana, ene ganik bere idola guzietara gibelarazi duen bere bihotzean.

6. Hargatik errozu Israelgo etxeari: Hau dio Jainko Jaunak: Bihur eta gibela zaitezte zuen idoletarik, eta zuen khutsapen guzietarik aldara zatzue zuen begitharteak.

7. Ezen baldin gizona, Israelgo etxetikako gizona, edo zein-nahi arrotz proselitetarik Israelen zagoena, atzetu balitzait, eta bere idolak bere bihotzean ezarri, eta bere tzartasuneko gaizbidea bere aitzinean jarri balu, eta profetaren gana heldu balitz, haren arartekoz niri galde baten egitera; nik Jaunak neronek ihardetsiren diot.

8. Eta gizon haren kontra itzuliren dut ene begitharte eta emanen dut ikhukizun eta errankizunetan, eta xahuturren dut ene populua erditik; eta jakinen duzue Jauna ni naizela.

9. Eta profeta bat mukhur mintzatuko denean, nik Jaunak enganatu duket profeta hura; eta eskua hedaturen dut haren gainera, eta xahuko dut Israelgo ene populua erditik.

10. Eta biek jasanen dute beren tzarkeria; nolakoa galdegilearen tzarkeria, profetaren tzarkeria halakoa izanen da;

11. Israelgo etxea ez dadientzat gehiago zeihar ene ganik, ez-eta lohi ene legearen hauspen egiten dituen guziez; bainan izan dadien ene populua eta ni izan nadiantzat haren Jainkoa, dio armadetako Jaunak.

12. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

13. Gizasemea, lur batek ene alderat bekhatu egin dukeenean, ene legea gaixtoki hautsiz, eskua hedaturen dut haren gainera, khenduren diot ogiaren laguntza, harat igorriren dut gosetea, eta hilen ditut hango gizon eta aziendak.

14. Eta hartan balire hirur gizon haukiek, Noe, Daniel eta Job, beren prestutasunaz athera letzazkete beren biziak, dio armadetako Jaunak.

15. Eta abere basa gaixtoak lur hartara igor banetza haren xahutzera, eta ezin-hurbilduzkoa egin baledi, nihor ez delakoz hartan gandi iragaiten basabereen gatik;

16. Hirur gizon horiek han balire; ala ni! dio Jainko Jaunak, ez lezaketela libraturren ez seme, ez alabarik, bainan berak bakharrik libratuak izan litazkeela; lurra ordean desmasiatua lizate.

17. Edo lur hartara ezpata bidal baneza, eta erran banezo ezpatari: Hoa lur hortan gandi, eta hilen ditiat horgo gizon eta aziendak;

18. Eta hirur gizon horiek haren erdian balire, ala ni! dio Jainko Jaunak, ez lezaketela libra ez semerik, ez alabarik, bainan berak bakharrik izan litazkeela libratuak.

19. Baldin ordean izurritea igor baneza lur hartara, eta ene gaitzidura haren gainera ixur baneza odoletan, hartarik ezeztatzeko gizon eta aziendak;

20. Eta haren erdian balire ere Noe, Daniel eta Job; ala ni! dio Jainko Jaunak, ez lezaketela libra ez semerik, ez alabarik, bainan beren prestutasunaz beren buruak libra letzazketela.

21. Halere Jainko Jaunak hau dio: Baldin arthik banetza ere Jerusalemaren gainera lau erabaki guziz gaitz horiek, ezpata, gosetea, basabereak, izurritea, hango gizon eta azienden hiltzeko;

22. Guzia gatik hartan geldi litazke zenbait salbaturik, athera letzazketenak beren seme-alabak. Hara non hainak zuen gana ilkhiko diren, eta ikhusiko ditutzue hekien bidea eta hekien asmuak, eta gozakari hartuko



duzue, nik Jerusalemeren gainera erakharri gaitzaz, nik haren gainean manatu gauza guzietan.

23. Eta gozakari izanen duzue, ikhüsiren ditutzuenean hekien bidea eta hekien asmuak; eta ezaguturen duzue ez ditudala alferretan egin nik Jerusalemen egin ditudan guziak, dio Jainko Jaunak.

### XV. KAP.

1. Eta Jauna mintzatu zitzaitan, zioelarik:
2. Gizasemea, zertako da mahatsaren zura, oihanetako zuhamu guzien aldean?
3. Hartarik hartuko othe da lan zerbaiten egiteko geia, edo hartarik eginen othe da tresna zerbaiten dilindan ezartzeko ziria?
4. Suari jatera ematen zaio; suak erretzen diozka bi muthurrak, eta erdia ikhazten da; zerbait lanetako on othe da?
5. Oso zenean ere, deusetako etzen; zenbat gutiago suak iretsi eta erre ondoan, hartarik lan zerbait eginen da?
6. Aria hortaz, dio Jainko Jaunak: Nola oihanetako zuhamuen artean mahats-zura baita suari eman dudana, hala emanen ditut Jerusalemdarrak.
7. Itzuliren dut hekien kontra ene begithartea; sutik ilkhiko dire, eta suak erreko ditu; eta jakinen duzue ni naizela Jauna, hekien kontra begithartea itzuli dudana;
8. Eta nik egin dudala lurra ezin-hurbilduzkoa eta desmasiatua, ene legearen hausleak direlako, dio Jainko Jaunak.

### XVI. KAP.

1. Eta Jauna mintzatu zitzaitan, zerralarik:
2. Gizasemea, Jerusalemeri bere izigarrikeriak ezagutaraz diozotzu.
3. Eta errozu: Hau dio Jainko Jaunak Jerusalemeri: Hire erro eta ethorkiak Kanaango lurretikakoak ditun; aita Amorhearra eta ama Zethearra hintuen.
4. Sorthu haizen egunean, hire sort-egunean, ez daine xilkhoa ebaki; ez haute hire salbamendutan urez garbitu, ez gatzaz gazitu, ez xatharrez inguratu.
5. Begiak ez hau guphide izan, horietarik bat egiteko hiri, ez haute izan urrikari; bainan hire sort-egunean, lurraren gainera arthiki haute, hire biziaren axolagabez.
6. Nik ordean, hire ondolik iragaitean, oin-pean ostikatua ikhusi hindutan hire odolean; eta erran nainan, hire odolean hindagoelarik: Bizi hadi! diot hiri erran naunala: Hire odolean haizen arren, bizi hadi!

7. Handiarazi haut sorhoetako belharra bezala, eta handitu eta larritu haiz, adinetara heldu izan haiz eta emaztekiek lerrora; hanpatu dire hire bulharrak eta ilea sorthu zain, eta buluza eta ahalkez estalia hintzen.

8. Eta iragan nintzen hire aldetik, eta ikhusi hintudan; eta hara hire adina, galai adina zunala, eta hire gainera hedatu ninan ene soinekoa, eta estali ninan hire laidoa, eta zin egin nainan, eta patutan sarthu nindunan hirekin, dio Jainko Jaunak, eta egin hintzan enea.

9. Eta urez garbitu hindutan, eta gainetik xahutu nainan hire odola, eta olioaz gantzutu hindutan.

10. Jauntzi hindutan soineko karantzatzu eta gorrimorezko oinetakoz; tinkatu hindutan liho hautazko gerrikoz, eta estali soineko finenez.

11. Aphaindu hindutan edergailuz; eskuetan ezarri narozkinan esku-muthurretakoak, eta lephoan gathea.

12. Urrezko usteia ezarri nainan begithartean, beharrietakoak beharrietan, eta khoro ederra buruan.

13. Urhez eta zilharrez izatu haiz aphaindua, liho hauta lorekatuz eta karantzatzu jauntzia; hazi haiz irin-lorez, eztiz eta olioaz; ederra egin haiz ororen gainetik, eta igan haiz tronura.

14. Jendakien artera ilkhi izan dun hire izena hire begitharteko distiraren ariaz, zeren osoki baihintzen ederra, nik hire baithan ezarri nuen edertasunean, dio Jainko Jaunak.

15. Eta hire edertasunaz hanturik, lohitu dun hire izena; eta hire lohi-keria erakhutsi dioten iragaile guziei, hekiena bilhakatzea gatik.

16. Eta hire soinekoetarik hartuz, hekietarik hiretzat josi ditun lizun-keriako itzalpeak, eta han lohitu haiz egundaino nihor egin eta eginen ez den bezala.

17. Eta hartu ditun ene urhe eta zilharretikako edergailu nik emanak, eta egin ditun gizon-itxurak eta lohitu haiz hekiekin.

18. Eta hekiek estali ditun harturik hire soineko karantzatuak; eta ene olio eta ene usain gozoak ezarri ditun hekien aitzinean.

19. Eta ene ogi eman naronana, irin-lorea, olio eta eztia zeinetaz baihaut hazi, ezarri ditun usain gozotan hekien aitzinean; eta egin ditun horiek oro, dio Jainko Jaunak.

20. Eta hartu ditun hire seme eta alaba enetzat egin hintuenak; eta iresteko imolatu diozkat. Hire lohitzea ez othe da guziz tzarra?

21. Hire umeak ditun imolatu eta eman, hekiei kontsekratuz.

22. Eta izigarrikeria eta lohitze horien guzien ondoan, ez haiz orhoitu hire gatzetasuneko egunez, noiz baihintzen buluz, ahalkeaz estalia, hire odolean ostikatua.



23. Eta gerthatu dun hire tzarkeria guzien buru, (zorigaitz! zorigaitz hiri! dio Jainko Jaunak).

24. Hiretzat altxatu dunala lizuntegi bat, eta plaza guzietan egin ditunala lohikeriako tokiak.

25. Eta karrika-buru guzietan ezarri dun lizunkeriako ezagutkaria; gohaingarri egin dun hire edertasuna; zangoak zabaldu diozkan edozein iragaileri, eta murrukatu ditun hire lohialdiak.

26. Haragi handitako hauzoekin, Egiptoko umeekin khutsatu haiz; eta ni hasarrearazteko egin dun lohikeria lohikeriaren gainean.

27. Huna non hire gainera hedatuko dinatan ene esku, eta khenduko dainat hire laguntza guzia; hi hastio hauten eta hire urhats gaixtoez ahalkatzen diren palestindar neskatxen aiherrari utziko haut.

28. Eta lohitu haiz Asiriarren muthilekin, ez baihintzen oraino asea; eta lohitu ondoan; ez hintzen hala ere asea.

29. Eta lohikeriaz lohikeria ibili haiz Kanaango lurrean Kaldearrekin; eta hala ere ez hintzen asea.

30. Nola xahutuko dinat hire bihotza, dio Jainko Jaunak, emazteki lilitxo eta ahalkegabe baten egintza guziak egiten ditunanean?

31. Ezen lizuntegiak hiretzat egin ditun karrika-buru guzietan, eta lohikeriako itzalpeak plaza guzietan; eskainiaz nardatuz bere saria handitzen duen lilitxoaren iduriko ez haiz bilhakatu;

32. Bainan-bai hala-nola bere senharraz bertzalde atzeak biltzen dituen emazte lohia.

33. Lilitxo guziei ematen zaiote beren saria; hik ordean herorrek ematen hiotzaten sariak hire galai guziei; emaitzak egiten hiotzaten, alde orotarik ethor zitezen hirekin lohitzera.

34. Hire lohikerietan gerthatu zain emaztekiei ohi ez bezala, eta hire lohitzea bezalakorik ez dun; ezen saria emanez eta ez hartuz, hire baithan gerthatu dun nihon ez bezala.

35. Hargatik, lilitxoa, adi zan Jaunaren hitza.

36. Hau zion Jainko Jaunak: Zeren izan diren hire dirua xahutua eta hire laidoa agertua hire galaiekilako lohitzeean, eta idolekilako izigarrikerietan, hire haurren odolean, hire haurrak emanez idolei;

37. Huna non bilduko ditudan hire galai guziak, zeinekin baihaiz khutsatu, eta maithatu ditunan guziak gaitzetsi ditunaneekin; eta alde orotarik bilduko ditinat hire gana; eta hekien aitzinean artuko dinat hire laidoa, eta orok ikhusiko dine hire gohaingarrikeria guzia.

38. Juiaturen haut emazte lohik bezala eta odola ixuri dutenak bezala; eta ene hasarrean eta kharrean ixuraraziren dinat hire odola.

39. Arthikiren haut hire etsaien aztaparretara, eta urraturen dine hire lizuntegia eta ezeztaturen hire lohikeriako itzalpea; biluziren haute hire soinekoetarik eta eramanen ditine hire aphaintzeko edergailuak, eta utziko haute buluzik eta laidoz bethea.

40. Oste bat erakharriko dine hire gainera, eta harriekin harrikatuko haute eta ezpatekin sarraskituko.

41. Eta suz erreko ditine hire etxeak, hire kontrako erabakiak betheko ditine hire gainean hainitz emaztekiren begien azpian, eta baratuko haiz hire lohitzeeatarik, eta ez dun gehiago saririk emanen.

42. Gero baratuko dun hire alderateko ene sumindura; khenduko dinat hire gainetik ene kharra, jabalduko naun eta gehiago ez hasarretuko.

43. Zeren ez haizen orhoitu hire gaztetasuneko egunez, eta horietaz orotaz naunan tarritatu; aria hortaz nik ere hire buruaren gainera ditinat hire egintzak erorrarazi, dio Jainko Jaunak, eta oraino ez dainat egin hire gaixtakerien eredura hire izigarrikeria guzietan.

44. Errana dun: Nolako ama, halako alaba. Huna non guziek hiretzat hartuko duten errankizun hori.

45. Hi haiz bere senharra eta haurrak utzi dituen amaren alaba; eta beren senharra eta haurrak utzi dituzten ahizpen ahizpa haiz hi; Zethearra zunan hire ama eta Amorhearra hire aita.

46. Hire ahizpa zaharrena dun Samaria bere alabekin, zeinak hire ezkerrean baitaude; hire ahizpa gazteena berriz, hire eskuinean dagoena, Sodoma dun bere alabekin.

47. Eta ez-ezik ibili haiz hekien urhatsetan, eta ez dun hekiek baino gaixtakeria gutixago egin; hekien tzarkeria guzietan egin ditun hurran hekiek baino tzarragoak.

48. Ala ni! dio Jainko Jaunak, hire ahizpa Sodomak, berak eta bere alabek ez dutela egin, hik eta hire alabek egin duzuen bezenbat.

49. Hau izatu dun hire ahizpa Sodomaren gaizkia; hanpurustasuna, janean asea, ontasunetan gaindia, eta bere alfertasuna eta bere alabena; eta etziotenan beharrari eta erromesari eskua hedatzen.

50. Eta hantu zitunan eta izigarrikeriak egin zituzten ene aitzinean; eta xahutu ditinat ikhusi dunan bezala.

51. Samariak ere ez din egin hire gaizkien erdia; bainan biak gainditu ditun hire gaixtakeriez; eta erabili ditunan izigarrikeria guziez, garbi agerarrazi ditun hekiek.

52. Beraz jasan zan hire ahalkea hik ere, zeinak hire bekhatez gaina eraman baitioten hire ahizpei, hekiek baino tzarkiago eginez; ezen garbi



atheratuak ditun hitaz; hi ere beraz ahalkez urth hadi, eta jasan zan hire laidoa hik, zeinak garbi atheratu baititun hire ahizpak.

53. Eta berriz jarriko ditut beren lekhuetan gibelerat itzularaziz Sodomaren eta haren alaben gathibuak, Samariaren eta haren alaben gathibuak: eta hire gathibuak ere bihurraziko ditinat hekien erdira;

54. Jasan dezanan hire laidoa, eta ahalkez urth hadien hekiei gozakari emateko egin ditunan guziez.

55. Eta Sodoma, hire ahizpa, eta bere alabak bihurturen dire beren beihalako heinera; eta Samaria eta bere alabak bihurturen dire beren beihalako heinera; eta hi eta hire alabak bihurturen zarete zuen beihalako heinera.

56. Hire ahizpa Sodomaren aiphua etzunan hire ahoan entzuten, hire hanpurustasuneko egunetan,

57. Hire gaixtakeria ager zadien aitzinean; hala-nola egin baita ordu huntan, Siriako alaben eta hire inguruan Palestinako alaba alde orotarik itzulia ditunan guzien laidagarri bilhakatu haizenean.

58. Jasan ditun hire gaixtakeria eta hire laidoa, dio Jainko Jaunak.

59. Ezen Jainko Jaunak hau dio: Eta eginen dainat, zina arbiatu dunanan erdura, patua alfer eragitea gatik;

60. Eta ni orhoituren naun ene patu hirekin eginaz hire gaztaroko egunetan; eta hirekin eginen dinat bethiko patu bat.

61. Eta orhoituren haiz hire urhats gaixtoez eta ahalkaturen haiz ethorriko zaizkinean hire ahizpa hitaz zaharragoak gazteagoekin; eta emanen darozkinat alabatza, bainan ez hire ganikako patu baten ariaz.

62. Eta orduan eginen dinat hirekin ene patua, eta jakinen dun ni naitzela Jauna;

63. Orhoit hadien eta ahalka, eta ez dagokinan gehiago ahoaren idetkitzea ahalkearen ahalkez, jabaldua izanen naizenean hire alderat, nik egin ditunan gauza guzien gainean, dio Jainko Jaunak.

## XVII. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

2. Gizasemea, asmakari bat eta parabola bat athera diozotzu Israelgo etxeari,

3. Eta errozu: Hau dio Jainko Jaunak: Arrano bat gaitza, hegal handi batzuekin, eta irazki luze batekin, hegats hainitz eta karantzatuak zituen, ethorri zen Libanera, eta eraman zuen zedro baten bihotza.

4. Khendu ziozkan adar-mokoak, eta eraman zituen Kanaango lurrera eta ezarri tratulari hiri batean.

5. Eta hartu zuen hango hazitik, eta lurreen ezarri zuen eraintzatzat, erroaren lotharazteko ur handien gainean; lurraren axalean ezarri zuen.

6. Eta muskildu zenean, zabaldu zen mahats-ondo apha bat, zeinaren adarrak baitzauden arranoari begira, eta erroak hunen azpian baitziren. Mahastu zenean beraz, fruituak atheratu zituen aihenetan, eta aldaskak arthiki zituen.

7. Eta agertu zen bertze arrano bat, hegal handi batzuekin eta hainitz hegatsekin; eta hara non mahats-ondo harek, iduri erroak haren alderat hedatzen zituela, bere adarrak haren ganat zabaldu zituen, urzta zezan bere ur gizenetarik.

8. Landatua zen lur onean, ur hainitzen lekhuana, ekhar zezan hostoila eta fruitu, eta egin zadien mahats-ondo handi bat.

9. Errazu: Hau dio Jainko Jaunak: Ongi atheratuko othe da bada? Lehenbiziko arranoak ez othe diozka iraziko erroak eta eragotziko fruituak, eta idorraziko gandoak, eta ez othe du iharraraziko; behartu gabe bere indarraren handitasuna eta gizon oste bat, errotik haren atheratzeko?

10. Horra non den landatua; ongi atherako othe da? Haize erregariak ukituko duenean, ez othe da ihartuko, eta muskilarazten zuten urerrekin ez othe da idortuko?

11. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

12. Errozu populu khexagarri horri: Ez dakizue zer erran nahi duen horrek? Errozu: Hara non heldu den Babilonako errege Jerusalemera, eta hartuko ditu errege eta harekilako aitzindariak, eta bere ganat eramanen ditu Babilonara.

13. Eta errege odoletik hartuko du buruzagi berri bat, eta harekin joko du patu bat, eta zina hartuko du haren ganik; bainan lurreko gizon hazkarrak eramanen ditu,

14. Erresuma geldi dadien apha eta ez dadien goiti, bainan iduk eta zerbitza dezan harekilako patua.

15. Errege berriak, haren ganik urrundurik, bidalkinak igorri ditu Egiptora, eman diotzotenzat zaldiak eta armada handi bat. Horien egilea ongi atheraturen othe da, edo salbatzera helduren othe da? eta bere patua hautsi duena itzuriren othe da?

16. Ala ni! dio Jainko Jaunak, hilen dela Babilonaren erdian, errege egin duenaren lekhuana, eta zeinaren zina hutsaldu, eta zeinarekilako patua hautsi baitu.

17. Eta Faraon ez da Babilonako erregeren kontra armada handi eta populuketa gaitz batekin abiatuko gudura, ez hertsgailu altxatzera eta trantzada egitera, jende hainitzen hiltzeko.





18. Ezen errege berriak arbuia du zina patuaren hausteko, eta etsaiari eman dio eskua; eta horiek oro egin ondoan, ez da itzuriko.

19. Aria hortaz, dio Jainko Jaunak: Ala ni! haren buruaren gainean ezarriren ditudala arbuia duen zina eta hautsi duen patua.

20. Eta hedaturen diot ene artea eta atzemanen dut ene sarean; eramanen dut Babilonara, eta han juiaturen dut patu hauspenaz, zeintaz bainau arbuia.

21. Eta haren alderat iragan direnak oro haren armada guziarekin ezpataren azpira dire eroriko; ondarrak berriz, haize guzietara dire barraiatuko, eta jakinen duzue, ni Jauna naizela mintzatu.

22. Hau dio Jainko Jaunak: Eta zedro handienaren bihotzetik hartuko eta landatuko dut; haren adaburuaren kapetatik bereziko dut gando guri bat, eta landatuko dut mendi gora eta alde orotarik ageri den baten gainean.

23. Israelgo mendirik gorenean landatuko dut hura, eta muskilduko da, eta emanen du fruitua, eta zedro handi bat da ilkhiko; eta haren azpian egonen dire hegastin guziak, eta haren hostaiaren itzalean ohantzeak eginen dituzte xori guziek.

24. Eta aurkhintzako zuhamu guziek jakinen dute, nik Jaunak apha-du dudala zuhaitz gora, eta goratu zuhaitz aphala; iharrarazi dudala zuhaitz hostoduna, eta hostarazi zuhaitz iharra. Ni Jauna naiz mintzatu, eta nik dut egin.

### XVIII. KAP.

1. Eta ilkhi zitzaitan Jaunaren hitza, zerralarik:

2. Nolaz zuen artean parabola erran-zahar huntara bihurtuz, erraten duzue Israelgo lurtean: Aitek jan dute mahats minkhorra, eta semeeci hoskindu zaizkote hortzak?

3. Ala ni! dio Jainko Jaunak, parabola hori erran-zaharretan izaten baduzue gehiago Israelen.

4. Huna, arima guziak eneak dire; aitaren arima bezala, semearen arima ere enea da: bekhatura eroriko den arima, hura bera da hilen.

5. Eta gizon bat izaten bada zuzena; zuzenean eta zuzentasunean ibiltzen bada;

6. Mendietan jaten ez badu, eta begiak altxatzen ez baditu Israelgo jainkomoldeetara; bortxatzen ez badu bere lagunaren emaztea, eta astagaizdunari hurbiltzen ez bazaio;

7. Nahigaberik gizonari ematen ez badio; zorduruari bahia badio bihurtzen; bortxaren bidez deusik eramaten ez badu; bere ogitik gose denari badio ematen, eta buluza estaltzen badu;

8. Ez badu lukurutan maileguz ematen, eta emana baino gehiago ez badu gibelerat hartzen; gaixtakeriatik aldaratzen badu bere eskua, eta bi gizonen artean erabaki zuzena badu ematen;

9. Ene manamenduetan ibiltzen bada, eta ene legea begiratzen badu, zintasunari bere bidearen emateko; haina prestua da, zinezko biziaz da biziko, dio Jainko Jaunak.

10. Seme bat izaten badu ohoina, odol-ixurlea eta gaizki horietarik zerbaiten egilea;

11. Horiek oro ez baditu egiten ere, bainan mendietan jaten badu, eta lagunaren emaztea lohitzen,

12. Beharrari eta erromesari atsekabe ematen, ohorgoak egiten, bahiak ez bihurtzen, jainkomoldeetara begiak goititzen, izigarrikeria egiten,

13. Lukurutan ematen, eman baino gehiago gibelerat hartzen; haina biziko othe da? Gaitzesgarrikeria horiek oro egin dituenean, ez da biziko; heriotzez hilen da, eta haren odola, haren gain izanen da.

14. Hainak izaten badu seme bat, zeinak ikhustenez bere aitaren bekhatu guziak, izialdura hartzen badu, eta halakorik ez egiten,

15. Mendien gainean ez jaten, Israelgo etxearen jainkomoldeetara begirik ez goititzen, lagunaren emaztea ez bortxatzen,

16. Gizonari atsekaberik ez ematen, bahirik ez idukitzen, ohointzarik ez egiten, bere ogitik goseari ematen, buluza estaltzen,

17. Beharraren alderako bidegabetik eskua urruntzen, lukururik eta emana baino gehiagokorik gibelerat ez hartzen, ene legea bethetzen, eta ene manamenduetan ibiltzen; haina ez da bere aitaren tzartasuna gatik hilen, bainan egiazko biziaz da biziko.

18. Haren aita, zeren zen bidegabezi mintzatu, zeren egin zuen bere anaiari bortxa, eta bere herritarren erdian gaizkia, hara non hil den bere bekhatuan.

19. Eta diozue: Zergatik semeak ez du jasan aitaren gaizkia? Zeren semea zuzenean eta zuzentasunean den ibili, ene manamenduak dituen begiratu eta bethe, aria hortaz da egiazko biziaz biziko.

20. Nork-ere eginen baitu bekhatu, haina da hilen; semeak ez du jasanen aitaren bekhatua, ez-eta aitik semearena; prestuaren prestutasuna haren gainean da izanen, eta gaixtoaren gaixtakeria haren gainean izanen da.



21. Gaixtagina berriz, egin dituen bekhatu guziez urrikitan sartzen bada, eta begiratzen baditu ene manamendu guziak, zuzenean eta zuzentasunean ibiltzen bada, egiazko biziaz da biziko eta ez da hilen.

22. Ez naiz orhoituko egin dituen gaizki guziez; egin dituen zuzentasuneko obretan biziko da.

23. Ene nahitikakoa othe da gaixtaginaren heriotzea, dio Jainko Jaunak; eta ene nahia ez othe da bihur dadien bere bide galduetarik, eta bizi dadien?

24. Baldin ordean prestua bere prestutasunetik makhurtzen bada, eta gaixtaginak egiten ohi dituen izigarrikeria guzien arabera egiten badu gaizkia, biziko othe da? Egin dituen obra on guzien orhoitzapenik ez da izanen; bere lege-hauspenetan eta egin dituen bekhatuetan, hekietan hilen da.

25. Eta diozue: Jaunaren bidea ez da zuzena. Israelgo etxea, adi zazu beraz: Ene bidea ez othe da zuzena; eta lehenago, zuenak ez othe dire tzarrak?

26. Alabainan prestua bere prestutasunetik makhurtu ditakeenean, gaizki egin dukeenean, eta hala hil ditakeenean; egin duen tzarkerian hilen da.

27. Eta gaixtagina aldaratu ditakeenean egin izan duen gaixtakeriatik, eta zuzena zuzentasunean egin dukeenean; hainak bizia bihurturen dio bere arimari.

28. Alabainan gogoetak egin dituen ondoan, eta urrundu denean egin dituen gaizkietarik, egiazko bizitzez da biziko eta ez da hilen.

29. Eta Israelgo semeek derrate: Jauna ez dabila zuzen. Israelgo etxea, ez othe dire zuzenak ene bideak; eta lehenago, zuenak ez othe dire tzarrak?

30. Aria horiez, oi Israelgo etxea, nor bere bideen arabera juiaturen dut, dio Jainko Jaunak. Bihur zaitezte eta sar zuen tzarkeria guziez urrikitan, eta zuen gaizkia ez da zuen galgarri izanen.

31. Hastan zatzue zuen ganik zuen lege-hauspenak, zeinetaz egin baitzarete hobendun, eta zuen baithan egizue bihotz bat berria eta izpitu berri bat: ezen zertako hil, oi Israelgo etxea?

32. Alabainan ez dut nahi hiltzen denaren heriotzea, dio Jainko Jaunak; bihur zaitezte eta bizi.

### XIX. KAP.

1. Eta zuk, abia zazu Israelgo buruzagien gaineko deithorea,
2. Eta errazu: Zure ama lehoinaren urrixa zertako da lehoinen artean etzan, eta bere umeak zertako ditu hazi lehoinkumeen erdian?

3. Bere lehoinkumeetarik bat erakharri du, eta lehoin bilhakatu da; eta ikhasi du harrapakinaren atzematen eta gizon iresten.

4. Eta jendeek hartaz entzun dute, eta atzeman dute, ez sakhirik izan gabe; eta burdinaztaturik eraman dute Egiptoko lurrera.

5. Amak bere burua ikhusirik hebaindua, eta galdua zuela bere igurikitza, bere umeetarik hartu zuen bertze bat, eta ezarri zuen lehoin.

6. Hau lehoinekin zabilan eta bilhakatu zen lehoin; ikhasi zuen harrapakin atzematen eta gizon iresten.

7. Ikhasi zuen alhargun egiten, eta hirien mortu bilhakarazten; eta haren marrumetara, desmasian zaudezen lurra eta lurrekoak.

8. Eta herrialde orotarik jendaiak bildu ziren haren kontra, eta sarea arthiki zioten gainera, eta harrapatua izan zen, ez sakhirik hekiei egin gabe.

9. Eta kaiola batean ezarri zuten; burdinaztaturik eraman zioten Babilonako erregeri, eta presondegi batean ezarri zuten, haren marruma entzun etzadien gehiago Israelgo mendietan.

10. Zure ama, hala-nola aihen bat zure odolean, ur-hegian landatua zen; fruituak eta gandoak ilkhi ziren ur nasaietarik.

11. Haren adar hazkarrak bilhakatu ziren buruzagi makhila, eta adarren artean goratu zen haren irazkia, eta bere goratasuna ikhusi zuen bere gandoen ostearen erdian.

12. Eta hasarrean errotik atheratua eta lurrerat arthikia izan da, eta haize erregarriak idortu du haren fruitua; haren adar hazkarrak erkhitu eta ihartu dire; suak iretsi du.

13. Eta orai berriz landatua da mortuan, lur agor eta ezin-hurbilduzkoan.

14. Eta haren aihenetako zuretik ilkhi da sua, eta suak iretsi du haren fruitua; eta haren baithan ez da gehiago izatu adar hazkarrik buruzagi makhiletako. Hau da deithorea, eta deithoratzeko behartuko da.

### XX. KAP.

1. Eta zazpigarren urthean, bortzgarren hilabetheko hamargarren egunean gerthatu zen hau: Israelgo zaharretarik ethorri ziren gizonak Jaunari galde egitera, eta jarri ziren ene aitzinean.

2. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

3. Gizasemea, mintza zakizkiote Israelgo zaharrei eta errozute: Hau dio Jainko Jaunak: Niri galdeka haritzera ethorri othe zare? Ala ni! ez darotzuedala ihardetsiren, dio Jainko Jaunak.



4. Juiatzen badituzu, juiatzen, gizasemea, erakhuts diotzotzueten beren aiten izigarrikeriak;
5. Eta errozute: Hau dio Jainko Jaunak: Israel hautatu nuen egunean, Jakoben etxetikako iraulgiaren alde altxatu nuenean eskua, Egiptoko lurrean agertu nintzaiotenean, eta hekien alde goititu nuenean eskua, nerralarik: Ni naiz zuen Jainko Jauna;
6. Egun hartan goratu nuen eskua hekiek, hekien erakhartzeko Egiptoko lurretik hautatu nioten lur batera, zeinari esne eta ezti baitzaron, zeina lur guzian artean hauta baita.
7. Eta erran nioten: Nork bere begietarik khien betza behaztopagailuak, eta berautzue Egiptoko idoletan khutsa; ni naiz zuen Jainko Jauna.
8. Eta sumindu naute, eta ez naute entzun nahi izan; batbederak izigarrikeriak bere begietarik ez ditu khendu, eta ez dituzte utzi Egiptoko jainkomoldeak. Eta erran nuen ene gaitzidura hekien gainera ixuriko nuela, eta ene hasarrea Egiptoko lurrean askietsiren nuela hekien gainean.
9. Eta egin dudana egin dut ene izenaren ariaz, ene izenak etzezan arbuiorik izan jendaien aitzinean zeinen erdian baitziren, eta zeinen artean agertu bainitzaioten Egiptoko lurretik ilkhiazteko.
10. Atheratu ditut beraz Egiptoko lurretik, eta eramane ditut mortura.
11. Eta eman diozkatet ene manamenduak eta erakhutsi ene erabakiak, zeinak bethez gizona biziko baita hekien bidez.
12. Bertzalde eman diozkatet ene larunbatak, hekien eta ene arteko ezagutkari izateko, eta jakin zezaten ni naizela hekiek sainduesten nituen Jauna.
13. Eta Israelgo umeek sumindu naute mortuan; ez dire ene manamenduetan ibili; eta hastandu dituzte ene erabakiak, zeinak bethez gizona biziko baita hekien bidez; eta bihurriki hautsi dituzte ene larunbatak. Erran dut beraz ene irakidura mortuan ixuriko nuela hekien gainera eta xahutuko nituela.
14. Eta egin dudana egin dut ene izenaren ariaz, arbuiorik etzezan izan jendaien aitzinean, zeinen erditik eta zeinen begien azpian ilkhiazteko.
15. Eskua hekien gainera goratu dut beraz mortuan, ez netzan sarraraz eman nioten lurrean, esne eta ezti zarioen lur, bertze guzian bitorean;
16. Hastandu zituztelakotz ene erabakiak, ene manamenduetan etzirelakotz ibili eta hautsi zituztelakotz ene larunbatak; ezen jainkomoldeen ondotik zabilan hekien bihotza.
17. Eta ene begiak hekien gainean guphide hartu du, ez netzan hil, eta mortuan ez ditut xahutu.

18. Hekien semeek aldiz erran diotet mortuan: Ez ibil zuen aiten irakidura, ez iduk hekien azturak, ez bezaitezte khutsa hekien idoletan.
19. Ni naiz zuen Jainko Jauna; ibil zaitezte ene manamenduetan, iduk eta bethe zatzue ene erabakiak.
20. Sainduets zatzue ene larunbatak, zuen eta ene arteko ezagutkari izan ditezen, eta jakin dezazuen ni naizela zuen Jainko Jauna.
21. Eta semeek sumintarazi naute; ene manamenduetan ez dire ibili; ene erabakiak ez dituzte iduki, hekien bethetzeko, (hekiek bethez gizona biziko baita hekien bidez), eta hautsi dituzte ene larunbatak. Eta dixidatu ditut ene irakidura ixuriko niotela gainera, eta mortuan ene hasarrea askietsiko nuela hekien gainean.
22. Aldaratu dut ordean ene eskua, eta egin dudana egin dut ene izenaren ariaz, arbuiorik etzezan izan jendaien aitzinean, zeinen erditik eta zeinen begien azpian atheratu baititut.
23. Eta mortuan berriz goratu dut eskua hekien gainera, jendaietan hekien barriatzeko, eta lurretan haizatzeko;
24. Zeren etzituzten ene erabakiak bethe, arbiatu zituzten ene manamenduak, eta hautsi ene larunbatak, eta hekien begiak aiten idolei zirelakotz iratxiki.
25. Nik ere beraz eman diozkatet manamendu ez onak, eta erabaki batzu, zeinen bidez ez baitziren biziko.
26. Eta lohitu ditut beren emaitzetan, beren bekhautentzat eskaintzen zutenean ume-untzia lehen aldiko idekitzen duen guzia; eta jakinen dute ni naizela Jainko Jauna.
27. Hargatik, gizasemea, mintza zakizkio Israelgo etxeari eta errozu: Hau dio Jainko Jaunak: Oraino eta hortan burhoztatu naute zuen arbasoek, irain eginez arbiatu nautenean,
28. Eta sarrarazi nituen ondoan lur huntan, zeintaz eskua altxatu bainuen emanen niotela; tzarkerian ikhusi dituzte munho gora guziak eta zuhaitz adartsuak, eta han imolatu dituzte beren bitimak, han sumindu naute beren eskaintzez, han erre dituzte beren baltsamu gozoenak eta ixuri beren libazioenak.
29. Eta erran diotet: Zer da zuek zohazten lekhu gora hori? Eta lekhu goraren izenaz deithua izan da egungo eguna arteo.
30. Hargatik errozu Israelgo etxeari: Hau dio Jainko Jaunak: Zuen arbasoen bidean linburtzen zarete, eta hekien behaztopagailuetan behaztopatzen;
31. Eta zuen emaitzen eskeintzan, zuen haurrak sutik iraganaraztean, egungo eguna arteo zuen jainkomolde guzietan lohitzten zarete; eta nik ihar-



dets nezakezue, Israelgo umeak? Ala ni! dio Jainko Jaunak, ez darotzuedala ihardetsiren.

32. Eta ez da eginen zuen gogoak derabilkana, diozuenean: Jendaiak bezala eta lurreko populuak bezala izanen gare, zuren eta harrien adoratzeko.

33. Ala ni! dio Jainko Jaunak, esku hazkarraz, eta beso hedatuaz eta ene sepha ixuriz erreginaturen naizela zuen gainean.

34. Eta atheraturen zaituztet populuatarik, eta bilduren zaituztet barraiatuak zaretan lurretarik; eta esku hazkarraz, eta beso hedatuaz, eta ene sepha ixuriz erreginaturen naiz zuen gainean.

35. Eta eramanen zaituztet populu gabeko mortura, eta han bekhoz bekho zuekin juiamendutan sarthuko naiz.

36. Nola juiamendutan zuen arbasoekin sarthu bainaiz Egiptoko lurreko mortuan, hala juiatuko zaituztet, dio Jainko Jaunak.

37. Ezarriren zaituztet ene manamenduko makhilaren azpian eta ene batasunaren estekan.

38. Eta zuetarik bereziko ditut lege-hausleak eta gaixtaginak; khenduko ditut beren egoitzako lurretik, eta Israelen lurrean ez dire sarthuko; eta jakinen duzue ni naizela Jauna.

39. Eta zuek, Israelen umeak, hau dio Jainko Jaunak, zoazte zein zuen idolen ondotik eta zerbitza zatzue. Hortan ere ez banauzue entzuten, eta zuen emaitzez eta zuen jainkomoldeez likhisten baduzue gehiago ene izena;

40. Ene mendi sainduan, Israelgo mendi goran, dio Jainko Jaunak, han zerbitzaturen nau Israelgo etxe guziak; orok, diot, ene gogarako izanen diren lurrean; eta han onhetsiren ditut zuen sainduespen guzietan zuen pikainak eta zuen hamarrenen eskaintza.

41. Usain gozotan hartuko zaituztet, populuatarik erakharri eta barraiatuak zaretan lurretarik bildu zaituztekedanean, eta zuen erdian sainduetsia izanen naiz jendaien aitzinean.

42. Eta jakinen duzue ni naizela Jauna, noiz-eta-ere eraman baitzaituzteket Israelgo lurrera, lur hartara zeina gatik altxatu baitut eskua zuen arbasoei emanen niotela.

43. Eta han orhoituren zarete zuen bide eta zuen gaixtakeria guziez, zeinetaz baitzarete lohitu; eta zuen buruak etzaizkitzue zuen begietan eder izanen, egin dituzuen tzarkeria guzien ariaz.

44. Eta, Israelgo etxea, jakinen duzue ni naizela Jauna, benedikatu zaituztekedanean ene izenaren arietan, eta ez zuen bide tzar eta zuen gaixtakeria ezin-gehiagokoen arabera, dio Jainko Jaunak.

45. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

46. Gizasemea, hegoarat itzul zazu begithartea, eta Afrikako haizearen alderat igor zatu zure hitzak, eta hegoaldeko oihanerat profetisa zazu.

47. Eta errozu hegoaldeko oihanari: Adi zan Jaunaren hitza; hau dio Jainko Jaunak: Huna non bizturen dinatan sua nik hire erdian; eta hire zuhaitzak, ala hostodunak, ala iharrak, erreren ditinat guziak; suko garra ez da iraungiko, eta hegoatik ipharrera begitharte guziak hartan kiskailduko dire.

48. Eta bizi direnek orok ikhusiren dute, nik Jaunak biztu dudala hura, eta nihork ez du hilen.

49. Eta erran nuen: Ai! ai! ai! Jainko Jauna; haukiek nitaz erraten dute: Ez othe zaiku bethi paraboletan mintzo?

## XXI. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

2. Gizasemea, Jerusalemgo alderat emazu begithartea, eta saindute-giko alderat igor zazu zure hitzak, eta Israelgo lurraren kontra profetisa zazu.

3. Eta errozu Israelgo lurrari: Hau dio Jainko Jaunak: Huna non heldu natzainan ni, eta ene ezpata ilkhiko dinat bere maginatik, eta hire erdian hilen ditinat prestua eta gaixtagina.

4. Eta nola hiltzera baitaramatzat hire erdian prestua eta gaixtagina, hargatik ilkhiko dun ene ezpata bere maginatik gizon guzien kontra hegoatik ipharrera;

5. Orok jakin dezaten, nik Jaunak atheratu dudala bere maginatik ene ezin-bihurrazizko ezpata.

6. Eta zu, gizasemea, lehertzeraino auhenda zaitte, eta uherdura guzietan auhenda zaitte hekien aitzinean.

7. Eta erranen darotzutenean: Zergatik zare auhendatzen? ihardetsiko duzu: Aditzen baitut heldu dela; eta bihotz guziak ihartuko, eta besoak erkhituko, eta izpirituak hutsalduko, eta belhaun guzietarik urak jautsiko dire; huna non heldu den, eta hori gerthatzera dihoa, dio Jainko Jaunak.

8. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

9. Gizasemea, profetisa eta erran zazu: Hau dio Jainko Jaunak: Errazu: Ezpata, ezpata zorroztua eta legundua da,

10. Bitima hiltzeko zorroztua da; legundua da argi dezan; oi ene semeari manamenduko makhila khentzen diozuna, zuk ebaki ditutzu zuhaitzak oro.



11. Mehatzera eman dut, eskua loth dakioen; zorroztua da ezpata hori, legundua da, hiltzaileak har dezan eskura.
12. Oihu eta orrobia egizu, gizasemea, zeren ezpata hori emana baita ene popularen gainera, Israelgo aitzindari ihesegin zuten guzien gainera; ene popularekin ezpatari emanak dire; jo zazu beraz ixterra,
13. Zeren den oneritsia; eta hori, hausten ere duenean manamenduko makhila, eta makhila ez da gehiago izanen, dio Jainko Jaunak.
14. Zuk beraz, gizasemea, profetisa zazu, eta eskuak jo zatu elkharri; eta bikhunduko eta hirurkhunduko da hiltzaileen ezpata; hori da sarraski handiko ezpata, hekiek harrituko dituen,
15. Bihotzak iharraraziko eta xahupenak xahupenaren gainean ezarriko dituen. Hekien athe guzietan ezarri dut ezpata zorrotzaren ikhara, ezpata argitzeko legundua eta sarraskitzeko mehatua denarena.
16. Ezpata, zorrotz hadi; habil eskuin edo ezker, hire lehiak haraman edozein aldetara.
17. Eta nik eskuak joko ditut bata bertzeari, eta aseko dut ene hasarrea; ni Jauna naiz mintzatu.
18. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:
19. Eta zuk, gizasemea, gogoan har zatu bi bide; Babilonako erregeren ezpata ethor dadien; lekhu beretik ilkhiko dire biak; eta erregek atheratuko du zortha; hiriko bide buruan arthikiko du zortha.
20. Bide bat ezarriko duzu, ezpata ethor dadien Amonen semeen Errabathera, eta bide bat Judeara, Jerusaleme guziz hazkarrera.
21. Ezen Babilonako errege gelditua da bide-juntan, bi bideen buruan, asmagintzan eta gezi nahasten hari delarik; idolei galdeka eta bitima-barneen ikhartzen haritu da.
22. Zortha eskuinerat erori da Jerusalemeren gainera, ezar detzan ahariak, haren ahoak mana dezan sarraskia, guduko orroetan altxa dezan mintzoa, ahariak ezarraraz detzan atheen kontra, eginaraz detzan herts-gailuak eta hazkargailuak.
23. Eta Jerusalemdarren begietan, hura izanen da orakleketa alferretan dabilana bezala, eta larunbatetako phausua imitatzen duena iduri; hura ordean atzematuko orhoituren da tzarkeriaz.
24. Hargatik hau dio Jainko Jaunak: Zeren orhoitu zaretan zuen gaixakeriaz, eta agertu ditutzuen zuen lege-hausteak, eta zuen gogoeta guzietan agertu diren zuen tzarkeriak; diot, zeren zaretan orhoitu, etsaien aztaparraz atzemanak izanen zarete.
25. Hi berriz, profanoa, Israelgo buruzagi gaixtoa, zeinaren eguna muga berezian ethorri baita tzarkerien akhabantzarako;

26. Hau ziok Jainko Jaunak: Khen zak burukoa, khen khoroa: ez othe da khoro hori, aphala goratu eta gora zena aphaldu duena?
27. Erakhutsiko dut haren tzar, tzar, tzartasuna; eta hori ez da gertatuko ethorri arteo haina zeinari baitagokio erabakia, eta hari emanen diot.
28. Eta zuk, gizasemea, profetisa zazu eta errazu: Hau dio Jainko Jaunak Amonen umeentzat eta hekien laidotan; eta oihu eginen duzu: Marrauz, marrauz, hiltzeko ilkhi hadi maginatik; legunt hadi sarraskitzeko eta dirdiratzeko,
29. Ikhuspen hutsalik eta gezurrezko asmagintzarik baizik hitaz ez duten orduan; arthikia izan hadien gaixtagin sarraskituen lephoetara, berezi mukan ethorri baita eguna tzarkerien akhabantzarako.
30. Bihur hadi hire maginara, egina izan haizen tokira; hire sor-lekuan haut juiatuko,
31. Eta hire gainera ixuriko diat ene gaitzidura; ene irakidurako suan haize eginen diat hire gainera; eta arthikiko haut gizon zoro eta heriotze-egileen eskuetara.
32. Izanen haiz suaren hazkurri, hire odola egonen duk lurraren gainean, ahantzpenari emana izanen haiz; ezen ni Jauna naiz mintzatu.

## XXII. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:
2. Eta zuk, gizasemea, ez othe duzu juiatuko, ez othe duzu juiatuko, hiri odolkoia?
3. Eta erakhutsiko diozkatzu bere izigarrikeria guziak, eta erranen diozu: Hau derra Jainko Jaunak: Horra hiria, odola bere erdian, ixurtzen duena, ethor dakioen bere ordua; eta lohikerian ibiltzeko, jainkomoldeak egin dituen bere buruaren kontra.
4. Hire odol, hitaz ixuria izan denaz hobendun egin haiz; egin dituan hire idolez lohitu haiz; eta hurbilarazi ditun hire egunak, eta erakharri dun hire urtheen azken ordua: horren gatik jendaiei laidagarri, lur guziari irrigarri haut arthiki.
5. Hire aldean direnek eta hitarik urrungoek lelo atheratuko dine hire gainean, lohia, hire tzarkeriez aiphatua, eragozpen lazgarriko hiria.
6. Horra Israelgo buruzagiak beren besoaren gainean bermatu direla, hire erdian odolaren ixurtzeko.
7. Hire erdian irainez erdiratuak izan ditun aita eta ama, hire erdian jarzari zioten arrotzari, hire erdian atsekabe eman alhargunari eta umezurtzari.



8. Arbuiatu dun ene saindutezia eta lohitu ditun ene larunbatak.
9. Mihi gaixtoko gizonak izan ditun hire erdian odolaren ixurtzeko; eta mendien gainean jan dine hire erdian; gaixtakeria hire erdian egin dine.
10. Aitaren ahalkagarrikeria agertu dine hire erdian; astagaizdunaren lohtasuna ahalkatu dine hire erdian.
11. Eta hire erdian baxhotzak tzarkeria egin din bere lagunaren emaztearen gainean, eta aitagarrikeria itsuski lohitu din bere erreina; anaia bere arreba, bere aitaren alaba, bortxatu din hire erdian.
12. Hire erdian emaitzak hartu ditine odolaren ixurtzeko; hartu dun lukurua, gibelerat hartu dun eman huen baino gehiago; diru-irritsez bidegabe ekharri dioten hire lagunei; eta ahantzi naun ni, dio Jainko Jaunak.
13. Hara nik eskuak ekharri jo ditut hik erabili dunan jaramankeria-  
ren gainean, eta hire erdian ixuria izan den odolaren gainean.
14. Hire bihotzak ihardetsiren othe du, eta hire besoak nausituen othe dire, nik eginen darozkinatan egunetan? Ni Jauna naiz mintzatu, eta nik eginen dut.
15. Eta jendaiaetan barraiatu eta lurren hedadura haut haizaturen, eta hire ganik galaraziren dinat hire lohikeria.
16. Eta jendaian aitzinean hire nausi jarriko naun; eta jakinen dun ni naizela Jauna.
17. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:
18. Gizasemea, zephetara bihurtu zait Israelgo etxea; horiek orok iduri dute kobrea, ezteinua, burdina eta beruna labearen erdian; zilharzepha dire bilhakatu.
19. Aria hortaz, hau dio Jainko Jaunak: Zephetara zaretelakoz bihurtu guziak, horren gatik hara non bilduko zaituztedan nik Jerusalemaren erdira,
20. Zilharra, kobrea, ezteinua, burdina eta beruna biltzen diren bezala labearen erdira; hartan bitz dezadan sua zuen urtharazteko. Horrela bilduko zaituztet ene suminduran eta ene hasarrean, eta askietsiko dut ene burua, eta urtharaziko zaituztet.
21. Eta bilduko zaituztet, eta khaldatuko zarete ene hasarrearen suan, eta urthuko zarete haren erdian.
22. Nola baita zilharra labearen erdian, hala izanen zarete Jerusalemaren erdian; eta jakinen duzue ni naizela Jauna, zuen gainera ixuri dukedanean ene sumindura.
23. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:
24. Gizasemea, errozu Jerusalemari: Lur lohia haiz, eta uriak hezatu gabea ene sumindurako egunean.

25. Profetek zinhartu dute horren erdian; lehoin, marrumaka harrapakina daramana iduri, arimak dituzte iretsi, ontasunak eta saria hartu, eta horren erdian alhargunak berhatu.

26. Horgo aphezek erdeinatu dute ene legea eta lohitu ene saindutezia; saindutik profanora arterik ez dute izatu; lohiaren eta xahuaren artean berezkuntzarik ez dute ezagutu; ene larunbatetarik baztertu dituzte begiak, eta desohoratu nintzen hekien erdian.

27. Jerusalemgo aitzindariak haren erdian ziren harrapakina daramaten otsoak iduri, odolaren ixurtzeko, arimen galtzeko, eta jaramankeriaz irabazien ondoan ibiltzeko.

28. Hango profetek harrasiak enbokatzen zituzten nahastekarik gabe, beren ikhuspen hutsal eta gezurrezko asmagintekin, zerratelarik: Hau dio Jainko Jaunak; noiz-eta-ere Jauna ez baitzen mintzatu.

29. Lurreko populuak bidegabe egiten hari ziren; bertzerena bortxaz zaramaten; atsekabe ematen zaroeten beharrari eta erromesari, eta arrotza zaphatzen zuten bidegabezi eta zuzenik gabe.

30. Eta hekietan bilhatu dut gizon bat, lur horren eta ene artean trabak ezarriko zituena; eta horren alde, ez nezan xahu, zeiherrera atherako zitzaizana; eta ez dut khausitu.

31. Eta ixuri dut ene gaitzidura horien gainera; erre ditut ene hasarrearen suan, eta beren buruen gainera bihurtu diozkatet beren egintzak, dio Jainko Jaunak.

### XXIII. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:
2. Gizasemea, baziren bi emazteki, ama baten alabak,
3. Eta Egipton lohitu ziren; lohitu ziren beren gaztaroan; hekien bulharrak zaphatuak eta hekien loreak histuak izan ziren.
4. Bada, zaharrena Oola deitzen zen, eta ahizpa gazteena Ooliba; eta biak izatu nituen, eta eman zarozkidaten semeak eta alabak. Bada, Oola deitzen zena, Samaria da; eta Ooliba, Jerusalem.
5. Oola lohitu da nitaz bertzerekin; erhotu da bere galai, Asiriaren huzokoen gainean,
6. Zeinak baitziren moredinez jauntziak, aitzindari eta buruzagiak, gazte lehiagarriak, oro zaldunak, eta zaldia ederki zerabilatenak.
7. Eta bere besarkaldi lohiak, gizon hautatu, Asiariarren seme hekientzat guzientzat zituen, eta erhotuki maithatu zituen; hekien orenen likhiskerietan khutsatu du bere burua.



8. Hortaz bertzalde, etzituen utzi Egipton erabili zituen lohikeriak; ezen Egiptoarrek ere harekin lo egin dute haren gaztaroan, eta haren lorea histu, eta harekin atsegin hartu izan dute.

9. Aria hortaz arthiki dut bere galaien eskuetara, Asurren semeen eskuetara, zeinen gainean erhoarazi baitzuen likhiskeriak.

10. Hekiek agertu dute haren laidoa, eraman dituzte haren semeak eta alabak, eta bera hil dute ezpataz; eta orotan aiphatua izan da haren asturugaitza, eta erabaki zuzenak bethe dituzte haren gainean.

11. Hori ikhusi ondoan, Ooliba haren ahizpa, hura baino gehiago erhotu da oraino bere lohikerian; eta bere ahizpak baino lizunkeria handiagoak,

12. Ahalkerik gabe eskaini daroezte Asiriarren semeei, haren ganat soineko karantzatuekin heldu ziren aitzindari eta kargudunei, zaldiz heldu ziren zaldunei, eta gizon-gazte eder guziei.

13. Eta ikhusi dut bide lohi batez zihoazela biak.

14. Eta berhatu ditu oraino bere likhiskeriak; eta ikhusi dituean gizonak harrasietan thindatuak, Kaldearren itxurak karantzekin atheratuak,

15. Ezpata-uhalak gerrian, buruko thindatuak buruan, guziek iduri aitzindariak, Babilonako eta Kaldearren lurreko umeak, sortzez hangoak baitziren,

16. Bere begi gutizitsuek erhotu dute hekien gainean, eta hekiei Kaldeara igorri diozkate bidalkinak.

17. Eta Babilonako umeak haren gana ethorri zirenean lohikeriako ohera, lizundu zuten beren ukiez, eta hekiez lizundua izan zen eta haren arima hekiez izan zen ase.

18. Agerian ezarri ditu bere lohikeriak, eta agertu du bere laidoa; eta ene arimak urrun egin du haren ganik, haren ahizparen ganik urrundu zen bezala;

19. Alabainan lohikeria lohikeriaren gainean ezarri du, orhoituz bere gaztaroko egunez, zeinetan lizundu baitzuen bere burua Egiptoko lurrean.

20. Eta bere likhiskerietan erhotu da hekien besharkaldientzat, hekien haragiak baitire astoenak iduri eta hekien zirristak zaldienak bezalakoak.

21. Eta berritu ditun hire gaztaroko tzarkeriak, hire bulharrak Egipton zaphatuak, eta hire lorea histua izan zirenekoak.

22. Aria hortaz, Ooliba, hau zion Jainko Jaunak: Huna non hire kontra jauzaraziren ditudan hire galai guziak, zeinetaz ase baita hire arima, eta hire kontra iguruan bilduren ditinat oro,

23. Babilonako umeak, eta Kaldear guziak, aitorensemeak, erregeak eta buruzagiak, Asiriako ume guziak, irazki ederreko gizon-gazteak, aitzindariak eta kargudun guziak, aitzindarien buruzagiak eta zaldun aiphatuak.

24. Eta populu oste handia ethorriren zain orga-laster eta arrodekin; alde orotarik hire kontra harturen ditine gerruntzeak, erredolak eta kaskak; eta ahala emanen ziotenat hire gainean, eta berei zaioten bezala haute juiaturen.

25. Eta ezarriren dinat hire kontra ene kharra, zeinari errabian emanen baitiote hire gainean bide; ebakiren darozkine sudurra eta beharriak; eta hitarik gelditzen dena arthikiren dine ezpataren azpira; harturen ditine hire seme-alabak; eta suaz iretsiak izanen dire hire azken ondarrak.

26. Biluziren haute hire soinekoetarik, eta eramanen ditine hire sendagailazko edergailuak.

27. Eta hire ganik geldiaraziren ditinat hire tzarkeria, eta Egiptoko lurretikako hire lohikeriak; eta ez ditun gehiago hekien gainera goitituren hire begiak, eta ez haiz gehiago Egiptoaz orhoituren.

28. Ezen hau dio Jainko Jaunak Huna non arthikitzaera hoatan higuin ditunanen eskuetara, hainen eskuetara, zeinetaz ase baita hire arima.

29. Eta gaitzirizkorekin lothuko zaizkin, eta eramanen ditine hire onak, eta igorriren haute buluzik eta laidoz estalia; eta agertuak izanen ditun hire lohikeria ahalkagarriak, hire tzarkeria eta hire lizunkeriak.

30. Hori eginen daire, zeren haizen lohitu jendaien arara, zeinen erdian hire burua khutsatu baitun hekien jainkomoldeetan.

31. Hire ahizparen bideaz haiz eta haren edateko untzia dainat eskuera emanen.

32. Hau zion Jainko Jaunak: Hire ahizparen untzi zabal eta barnatik dun edanen; irrigarri eta erdeinagarri ibiliko haiz; ezen gaitza dun untzia.

33. Hordituren haiz eta oinhazez betheko, atsekabezko eta hiradurazko untzitik, hire ahizpa Samariaren untzitik.

34. Eta hartarik edanen dun, eta ondakineraino hustuko dun, eta iretsiko ditun haren puskak, eta aztaparka larrutuko ditun hire bulharrak; ezen ni naun mintzatu, dio Jainko Jaunak.

35. Aria hortaz hau zion Jainko Jaunak: Zeren ahantzi naunan eta hire gibelerat arthiki, hik ere jasantzan hire tzarkeria eta hire lohikeriak.

36. Eta Jaunak hau erran zarodan: Gizasemea, ez othe dituzu juiaturen Oola eta Ooliba, eta ez othe diozkatzute erranen beren tzarkeriak?

37. Ezen bertzeekin khutsatu dire, odola badute eskuetan, eta jainkomoldeekin lohitu dire; eta gehiago dena, enetzat egin zituzten haurrak hekiei eskaini diozkate iresteko.



38. Hau ere egin darotade oraino: egun hartan lohitu dute ene saindutegia eta profanatu ene larunbatak.

39. Eta beren jainkomoldeei imolatzen zituztenean beren haurrak, eta ene saindutegian, haren lohitzeko sartzen ziren egun hartan, hau ere egin darotade ene tenploaren erdian:

40. Bilharazi dituzte urrundarik heldu ziren gizon hekiek, zeinei igorri baitzaroezten bidalkinak. Hara beraz ethorri direla; hekien ariaz garbitu haiz, antimonioz thindatu ditun hire bethondoak, eta aphaindu haiz hire edergailu guziez.

41. Ohe guziz ederrean jarri haiz, eta mahain berregindua hire aitzinean; ene balsamu eta usain gozoak ezarri ditun hekien aitzinean.

42. Eta han ageri zen bozkariotan zen ostearen haroa; eta mortutik heldu eta osetetik erakharriak ziren gizonei ematen zaroezten eskuetan eskumuthurrekoak eta buruan khoru ederrak.

43. Eta bertzeekin lohikerian higatua zen emazteki hari erran nioen: Hori ere bere lizunkerian lizunduren da oraino!

44. Eta haren gana sarthu dire hala-nola emazteki lilitxoaren gana; horrela sartzen ziren, Oola eta Ooliba emazte galdu horien gana.

45. Zuzenaren aldeko gizonak dire beraz; hekiek emanen daroete emazte lohituen juiamendua eta odol-ixurleen juiamendua; zeren lohitu baitire eta odola baitute eskuetan.

46. Hau dio ezen Jainko Jaunak: Oste bat erakhar diozozute gainera, eta arthikatzu builari eta harrapakari..

47. Populuak harriekin harrika betzazte, eta ezpatez jo alderen-bertze; hil betzazte horien semeak eta alabak eta suz erre etxeak.

48. Eta lurretik iraiziren dut gaixtakeria, eta emazteki guziek ikhasiren dute egiten, ez horien tzarkeriaren arabera.

49. Eta zuen gaixtakeria eroriko da zuen gainera, eta jasanen duzue zuen jainkomoldeen gatikako bekhatua; eta jakinen duzue ni naizela Jainko Jauna.

#### XXIV. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan bederatzigarren urthean, hamargarren hilabeteheko, hamargarren egunean, zerralarik:

2. Gizasemea, iskriba zazu egun hunen izena, Babilonako errege egun gogortu baita Jerusalemaren kontra.

3. Eta itxurapenetan parabola bat erranen diozu etxe khexagarri horri, eta hula mintzaturen zatzaio: Hau dio Jainko Jaunak: dughina bat ezar zazu suan; ezar zazu, diot, eta emozu ura barnera.

4. Bethe zazu haragiz; ezar zazu aurkhintza hoberen guziak, azpia, sorbalda, puska hauta eta hezurtsuak.

5. Azienda gorienetik har zazu; hezurak moltzoan xuxen zazu dughinaren zolan. Irakitu du, eta hezurak egosi dire haren erdian.

6. Aria hortaz, hau dio Jainko Jaunak: Zorigaitz hiri odolkoari, dughina herdoila barnean duenari eta zeintarik herdoila ez baita ilkhi! Hartako haragiak arthikatzu puska puska kanporat; ez da haren gainean zortherik atheratu.

7. Haren odola haren erdian dago; harri legunenen gainera ixuri du; ez du lurrera ixuri, herrautsak estal ahal zezan.

8. Ene gaitzidura haren gainera erorrarazteko eta asperkandez asperzteko, haren odola ixuri dut harri legunen gainera, estal ez dadientzat.

9. Hargatik hau dio Jainko Jaunak: Zorigaitz hiri odolkoari, zeinaren erretzeko egur-meta eginen baitut handia!

10. Egizu hezur murru bat, zeina nik erreko baitut; haragiak ahituko dire, puska guziak erreko eta hezurak iraungiko.

11. Ezar zazu halaber dughina hutsa ikhatzen gainean, khalda dadien, urth ditezen hartako kobrea eta zolda, eta erre herdoila.

12. Nekhe handirekin haritu dire haren garbitzen, eta herdoil gaitzegia ez da ilkhi, ez-eta suan ere.

13. Gorrotagarria dun hire lohitasuna, zeren nik garbitu nahi hi, eta hi ez baihaiz hire zikhinetarik garbitu; bainan ez haiz garbituren nik hire gainera ene gaitzidura jautsaraz dezadan baino lehen.

14. Ni Jauna naiz mintzatu: Ethorriren da ordua; eta abiatzera noha; ez naiz goanen, ez dut guphiderik izanen, ez naiz jabalduko; juiaturen haut hire bideen eta hire asmuen arabera, dio Jaunak.

15. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

16. Gizasemea, huna non khentzen darotzudan zure begientzat lehigarri dena, eta zauritara dudan bihurtzen; eta zu etzare deithoraturen, ez duzu nigarrrik eginen, ez duzu nigarrrik ixuriko.

17. Ixilik auhenda zaite, ez duzu hil otsik eginen; zure khoroa buruari eratxikia egon bedi, eta zure oinetakoak oinetan izanen dire, ez duzu begithartea estaliko, ez-eta deithoratzailen arako hazkurririk janen.

18. Mintzatu nintzen beraz goizean populuari, eta arratsean hil zen ene emaztea; eta biharamun goizean egin nuen Jaunak manatu zarotana.

19. Eta populuak erran zarotan: Zergatik ez darokuzu agertzen zer erran nahi duten zuk eginen dituzun horiek?

20. Eta ihardetsi nioten: Jaunaren hitza ilkhi zait, zerralarik:





21. Errozu Israelgo etxeari: Hau dio Jainko Jaunak: Huna non nerorek lizuntaraziko dudanez saindutegia, zuen erresumako leloa, zuen begien lehiagarria, eta zeinaren gainean beldurtzen baita zuen arima; zuen seme-alaba, utzi ditutzuenak, ezpataren azpira dire eroriko.

22. Eta eginen duzue nik egin dudana: Begitharteak ez ditutzue estaliko eta ez duzue janen deithoretan daudezenen hazkurrik.

23. Khorook izanen ditutzue buruan, eta oinetakoak oinetan; etzarete deithoratuko eta ez duzue nigarririk eginen; bainan egonen zarete zuen tzarkerietan ihartzan, eta auhenez, nork bere anaia ikhustean.

24. Eta Ezekiel izanen duzue ezagutkaritzat; hunek egin duen guzia eginen duzue, ethorri ditakeenean ordua; eta jakinen duzue ni naizela Jainko Jauna.

25. Eta zu, gizasemea, huna, beren indarra, beren goihendeko bozkarioa, eta beren begien lehiagarria, zeinaren gainean phausatzen baitire hekien arimak, eta beren seme-alabak khenduko diozkatedan egunean;

26. Egun hartan ihesliar bat ethorriko zaitzunean berrien ematera;

27. Egun hartan, diot, zure ahoa ihesliarrari idekiko zaio; mintzatu-zare, eta etzare gehiago ixilik egonen; eta izanen zare ezagutkaritzat, eta jakinen duzue ni naizela Jauna.

## XXV. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

2. Gizasemea, Amontarren alderat itzul zazu begithartea, eta profetisatuko duzu hekien gainean;

3. Eta erranen diozu Amoni: Adi zazue Jainko Jaunaren hitza. Hau dio Jainko Jaunak: Zeren erran duzuen: Hola! hola! ene saindutiaren kontra, lohitua zelakoz; Israelgo lurraren kontra, desmasiatua zelakoz; Judako etxearen kontra, gathibu zirelakoz eramanak;

4. Aria hortaz, gozatzeraz emanen haut iguzki-aldeko umei; hire erdian ezarriko dituzte beren hespilak; hire erdian altxatuko dituzte beren olhak; hekiek janen dituzte hire fruituak; hekiek edanen dute hire esnea.

5. Eta kamelutegitzat emanen dut Errabath, eta Amonen lurra art-haldeen etzauntzatzat; eta jakinen duzue ni naizela Jauna.

6. Ezen hau dio Jainko Jaunak: Esku-zaflaka haritu haizelakoz eta zangoz joka, eta hire gogo guziaz boztu haizelakoz Israelgo lurraren gaitzaz;

7. Aria hortaz, huna non eskua hedaturen dudanez hire gainera, eta jendaiei emanen haut larrutzeraz, eta populuei hiltzeraz, eta lurretik galarez ziren eta ezeztaturen haut; eta jakinen dun ni naizela Jauna.

8. Ezen hau dio Jainko Jaunak: Moabek eta Seirrek erran dutelakoz: Horra bertze jendaia guziak bezala dela Judako etxea;

9. Hargatik huna nik Moabi agerturen diodala sorbalda; idekiren ditut haren hiririk, haren hiririk, diot, eta haren eremurik, lekhuko aiphatuenak, Bethiesimoth, eta Beelmeon eta Hariathaim,

10. Iguzki-aldeko umei; eta hanbatean Amonen semeen lurra, eta hau emanen dut primantzetan, ez dadien gehiago izan Amonen semeen aiphurik jendaietan.

11. Eta atheraturen ditut ene erabakiak Moaben gainean, eta jakinen du ni naizela Jauna.

12. Hau dio Jainko Jaunak: Idumeak asperkunde atheratu duelakoz, Judako semeen ganik aspertzeko, eta gaizki handira erori delakoz, eta asperkunde egarri izan delakoz;

13. Aria hortaz, hau dio Jainko Jaunak: Idumearen gainera hedaturen dut ene eskua, eta handik ezeztaturen ditut gizonak eta abereak, eta hura hegoaldetik eginen dut mortu, eta Dedanen direnak eroriko dire ezpataren azpira.

14. Eta Idumearen gainean atherako dut ene asperkundera Israelgo ene popularen eskuz; eta Edomi eginen diote ene hasarrearen eta ene irakiduraren arabera; eta ezaguturen dute ene asperkundera, dio Jainko Jaunak.

15. Hau dio Jainko Jaunak: Zeren Palestindarrek asperkunde duten atheratu, eta beren bihotz oroz diren aspertu, hilez, eta beren aiherrari bide emanez;

16. Aria hortaz, dio Jainko Jaunak: Huna non hedaturen dudanez eskua Palestindarren gainera, eta hilen ditut hiltzaileak, eta xahuturen ditut itsas-ephaitzetako ondarrak.

17. Eta jazarritzat ene suminduran, asperkunde handiak atherako ditut; eta ene asperkundera atheratu dukedanean hekien gainean, jakinen dute ni naizela Jauna.

## XXVI. KAP.

1. Eta hamekagarren urthean, hilabethearen lehenean, gerthatu zen Jaunaren hitza ilkhi zitzaitala, zerralarik:

2. Gizasemea, zeren Tirrek erran duen Jerusalem: Hola! hautsiak dire populuen atheak, itzuli da ene alderat; betheko naiz, hura mortu eginga baita;



3. Hargatik, hau dio Jainko Jaunak: Huna non heldu natzainan, Tir; eta hire kontra iganaraziren ditinat asko jendaki, itsasoak tirainak iganarazten dituen bezala.

4. Eta urraturen dituzte Tirreko harrasiak, eta arthikiren dituzte hango dorreak; eta hartarik haizaturen dut hango herrautseraino, eta hura eginen dut harri legunena bezain biphil.

5. Itsasoaren erdian izanen da sare idorlekhu, zeren ni bainaiz mintzatu, dio Jainko Jaunak; eta jendaiek izanen dute zeinek larru.

6. Haren alaba, landetan direnak ere, ezpataz hilak izanen dire; eta jakinen dute ni naizela Jauna.

7. Ezen hau dio Jainko Jaunak: Hara non ipharretik erakharriren dudan nik Nabukodonosor, Babilonako errege, erregeen erregea, zaldiekin eta orga-lasterrekin, eta zaldizkoekin, oste eta populu gaitzarekin.

8. Hire alaba landetan direnak hilen ditin ezpataz; inguraturen hau hazkargailuz, eta itzulian eginen din hertsgailu bat, eta hire kontra altxaturen din erredola.

9. Zurgerizak eta ahariak jokharaziren ditin hire harrasien kontra, eta bere tresnez eragotziren ditin hire dorreak.

10. Haren zaldi ostearen herrautsak estaliko hau; zaldizkoen, arroden eta orga-lasterren tarrapatak ikharaturen ditin hire harrasiak, hire atheetarik sarthuko denean, hiri eragotzi bateko urraduratik bezala.

11. Haren zaldien behatzek oinkaturen ditine hire plaza guziak; ezpatatik iraganen din hire populua, eta lurra joko dine hire gizamolde eder guziek.

12. Larruteren haute hire aberastasunetarik, harrapaka eramanen ditine hire tratuko gauzak, urraturen hire harrasiak, eragotziren hire etxe ederrak, eta uraren erdian ezarriren hire harri, zur, herrautsak.

13. Xilaraziren ditinat hire kantu-errepikak; eta ez da gehiago entzunen hire gitarren otsa.

14. Ezarriren haut harri legunena bezala, zare idor-lekhu izanen haiz, eta ez haiz gehiago berrituen, zeren ni bainaiz mintzatu, dio Jainko Jaunak.

15. Tirreri hau dio Jainko Jaunak: Irlak ez othe dire lasturen hire eragozpeneko harrabotsera eta hire erdian hilen dituztenen marraskara?

16. Eta itsasoko buruzagi guziak jautsiko dire beren jarlekhuetarik; eta khenduko dituzte beren aphaingailuak, eta erauntziko beren soineko karantzatuak, eta lasturaz jauntziko dire, jarriko dire lurreen; eta hire terrepenteko eragozpenaz harrituak, miresten egonen dire.

17. Eta hire gainean deithorea hasirik, erranen deraine: Nola zare galdu, zu, itsasoan zinaudezena, hiri aiphatu, itsasoan hazkar zinena zure egoiliarrekin, zeinen beldur baitziren guziak?

18. Orai untziak harrituren ditun hire lasturako egunean, eta itsasoko irlak asalduan izanen ditun, nihor ez delakoz hitarik ilkhitzen.

19. Ezen hau dio Jainko Jaunak: Hiri desmasiatu bat eginen hautanean, egoiliarrik ez duten hiriak bezala; ondar-lezea hire gainera erakharriko dudanean eta ur-uharrek estaliko hautanean;

20. Putzura, bethiko populura jausten direnekin anbiduko hautanean; eta putzura jausten direnekin luphe beherenetan mortu zaharrak bezala ezarriko hautanean, ez dezanan gehiago egoiliarrik izan; ene ospea berriz, bizidunen lurraren gainean hedatu dukedanean,

21. Ezeztaturen haut, eta ez haiz gehiago izanen; eta bilhaturen haute, eta ez haute nihoiz-ere gehiago aurkhituren, dio Jainko Jaunak.

## XXVII. KAP.

1. Eta ilkhi zitzaitan Jaunaren hitza, zerralarik:

2. Zuk beraz, gizasemea, Tirren gainean abia zazu deithorea;

3. Eta erranen diozu Tirreri, itsaso-sartzean dagoenari, asko irletara populuekin tratu egiten dabilanari: Hau dio Jainko Jaunak: Oi Tir, hik erran izan dun: Osoki naiz ederra

4. Eta itsasoaren erdian jarria. Hi altxatu hauten hire mugakideek, edertasunez haute bethe.

5. Sanirgo izaikiz egin haute untziko selharu guziekin; Libandik hartu dine zedro bat hiri masta baten egiteko.

6. Basango haritza aphaindu dine hire arrautzat; Indietako boliz egin ditine hire alkhiak, eta Italiako irletako zurez hire gelak.

7. Egiptoko liho fin karantzatua dun ehoa hire belatzat, mastan ezarzteko; hire itzalkaria egin dun moredinez eta Elisako irletako purpuraz.

8. Sidondarrak eta Aradarrak hituen arraulari; hire gizon zuhurrak, oi Tir, egin dire hire lemazain.

9. Giblostar zaharrek eta hango gizon antzetsuek izatu dituzte itsasturuak hire tresna guzien erabiltzeko; itsasoko untziak oro eta hekietako itsasturuak baliatu ditun hire tratuko.

10. Persiarrak, Lidiarrak eta Libiarrak hire armadan ziren hire gerlari; erredola eta kaska hire erdian ezarri ditine dilindan hire edergailu.

11. Aradar gazteak hire armadarekin ziren inguruan hire harrasien gainean; hire dorreetan ziren Pigmearek ere beren gezi-untziak dilindan



ezarri dituzte inguruan hire harrasietarik; hekiek osatu dute hire edertza-pena.

12. Hire tratulari Kartagotarrek gaindika bethe dituzte hire merkhatuak aberastasun guzietz, zilhar, burdina, ezteinu eta berunez.

13. Grezia, Thubal eta Mosok zabilizan hire tratuko muthil, eta hire populuari ekhartzen ziozkatenan gathibuak eta kobrezko tresnak.

14. Thogormako lurretik hire plazetara erakhartzen ziztenan zaldiak eta zaldizkoak eta mandoak.

15. Dedango umeak hirekilako tratulariak ziren; asko irla sartzen ziren hire tratuan; hire sariarentzat ematen zarozkitenan boli-hortzak eta zurbeltzezkoak.

16. Sirierra huen tratukhide, hire salerosi handien ariaz, eta hire merkhatuetara atheratu ditin harri baliosa, purpura, oihal lorekatuak, liho ederrenak, seda eta gauza balios mota guzia.

17. Juda eta Israelgo lurra ere hire tratukhide zitunan; ogi ederrena, baltsamua, eztea, olio eta arraxina atheratu ditine hire merkhatuetara.

18. Damas zunan hirekin tratuan hire nihonereko obretan, nihonereko aberastasun askotan, arno gozoan, ile karantza ederrenekoetan.

19. Danek, Greziak eta Moselek atheratu ditine burdina lanthuak hire merkhatuetara, estaktea eta khanabera usainduna hirekilako tratua.

20. Dedanarrak hire tratukhide zitunan jartzeko saihaletan.

21. Arabia eta Zedarreko aitzindari guziak, hire eskuko tratulariak hintuen; bildotsekin, ahariekin eta pittikekin heldu ziren hire gana hire tratulariak.

22. Sabako eta Erreemako saltzaileak hire tratulariak zitunan, beren usain gozo hautekin, beren harri balioekin eta urhearekin, zeina hire merkhatuetara atheratzen baitzuten.

23. Haran, Kene eta Eden hire tratulariak ziren; Saba, Asur eta Kelmad hire saltzaileak ziren.

24. Hekiek hire tratulariak zitunan beren moredin-sakhekin, beren oihal lorekatu eta tresna balioekin, zeinak estalgiz inguratuak eta sokhaz estekatuak baitziren; zedroak ere bazituzten hire tratuetan.

25. Itsasoko untziek zerabilaten hire tratua nausia; ontasunez eta ospe handiz izatu haiz bethea itsasoaren bihotzean.

26. Ur handietara eraman haute hire arraulariek; hegoak hau phorrokatu itsasoaren erdian.

27. Hire aberastasun, dirutze eta nihonereko gauza ederrak, hire ontasanak erabiltzen eta hire populuari manatzen zioten itsasturu eta

lemazainak, hire barnean hituen gerlariak ere, hire erdian den oste guzia-ekin, itsaspera eroriko ditun hire eragozpeneko egunean.

28. Hire lemazainen oihu-marraskak lasturen ditin untzidiak.

29. Arraua zadukaten guziak jautsiko dire beren untzietarik; itsasturuak eta itsasoko lemazainak lurrean egonen dire.

30. Marrumaz egonen dire hitaz; oihu minak eginen dituzte; herrautsa arthikiren dute beren buruen gainera, eta hautsez estaliko dire.

31. Hire gatik murriguren dituzte ileak; jauntziren dituzte zurdatzak; eta beren arimako uherduran, hire gainean nigarrez egonen dire, nigarrak minenetan.

32. Hire gainean abiatuko dute khexuetako kantua, eta deithoraturen haute, erranez: Zein izan da Tirren, itsasoaren erdian mututu denaren pare?

33. Hire tratuak erabiliz itsasoa gaindi, ontasunez bethe ditun asko populu; hire aberastasun handiez eta hire populuketa gaitzaz aberastu ditun lurreko erregeak.

34. Eta orai itsasoak xahutu hau; eta uren zolara erori ditun hire ontasanak eta hire erdian zen oste guzia.

35. Irletako egoliarrak oro harritu ditun hire gainean; eta phesiak jorik, hango erregeei ifrentziatu zaiote begithartea.

36. Populuetako tratulariek xixtu egin dine hire gainean; ezdeusetara ekharria haiz, eta ez haiz izanen gehiago eguneta-iguzki.

## XXVIII. KAP.

1. Eta ilkhi zitzaitan Jaunaren hitza, zerralarik:

2. Gizasemea, errozu Tirreko buruzagiari: Hau dio Jainko Jaunak: Hantu delakoz hire bihotza, eta erran izan baituk: Jainko naiz ni; eta Jainkoaren jarlekhuari jarri baihaiz itsasoaren erdian, gizon bat haizelarik, eta ez Jainkoa; eta hire bihotzari eragin baitiok, Jainkoaren bihotza balitz bezala;

3. Huna non Daniel baino zuhurrago haizen; ez duk hiretzat gauza gorderik;

4. Hire zuhurtziaz eta umotasunaz egin duk hire indarra; bildu izan duk urhe eta zilhar hire khutxetara,

5. Hire zuhurtziaren handiz eta hire tratuz berhatu duk hire indarra, eta hire bihotza hantua duk hire indarrak.

6. Aria hortaz, hau dio Jainko Jaunak: Hantu delakoz hire bihotza, Jainkoaren bihotza izan balitz bezala;



7. Horren gatik, huna non erakharriren ditudan nik hire gainera arrotzak, jendaietarik hazkarrenak; eta biluziren dituzte beren ezpatak hire zuhurtziaren edertasunaren gainera, eta lohituren die hire edertasuna.

8. Hilen eta herrestaturen haute, eta sarraskituen heriotzez hilen haiz itsasoaren erdian.

9. Hire hiltzaileen aitzinean erranen othe duk oraino: Jainko naiz; gizon bat haizelarik, eta ez Jainko, hire sarraskitzaileen eskuan.

10. Arrotzen eskutik, ingurebakigabeen heriotzez hilen haiz, ni bainaz mintzatu, dio Jainko Jaunak.

11. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik: Gizasemea, deithore bat altxa zazu Tirreko erregeren gainean;

12. Eta erranen diozu: Hau dio Jainko Jaunak: Hi hintzen iduriaren zigilua, zuhurtziaz bethea eta osoki ederra;

13. Jainkoaren pharabisuko gozoen erdian izatu haiz; harri balios guziez estalia hintzen; sardioa, topaza, jaspea, krisolita, oniza, beriloa, zafirra, eskarbukla, esmeralda, urhea, ziren hire edertasunaren berregingarri; eta xirolak aphainduak ziren hi sorthu haizen eguneko.

14. Hegalak hedatuak daduzkan eta gerizatzen dagoen kerubin bat hintzen; ezarri izan haut Jainkoaren mendi sainduan; suak bezala argitzen zuten harrien erdian ibili haiz.

15. Itzalgabea hintzen hire bideetan, eгина izatu haizen egunetik, gaixtakeria hire baithan aurkhitua izan den arteo.

16. Hire tratuketa handian, hire barnea bethe dik tzarkeriak, eta behatu egin duk; eta irazi haut Jainkoaren menditik, eta galdu haut, oi kerubin gerizatzailea, haran dirdiragarrien erditik.

17. Hire bihotza hantu duk hire edertasunean; hire edertasunean galdu duk zuhurtzia; arthiki haut lurrera, eta ezarri haut erregeen aitzinean begira ziazaiaten.

18. Lohitu duk hire saindutasuna hire gaixtakerien osteaz eta hire truetako tzarkeriaz. Hire erditik atherako diat beraz su bat, iretsiko haue-na; eta hautsetan ezarriren haut lurraren gainean, ikhusten hauten guzien aitzinean.

19. Jendaietarik ikhusiko hauten guziak harrituak egonen dituk hire gainean; ezdeusetara haiz ekharria, eta egun-eta-iguzki ez haiz gehiago izanen.

20. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

21. Gizasemea, itzul zazu begithartea Sidongo aldera, eta profetisa zazu haren gainean,

22. Eta erran zazu: Hau dio Jainko Jaunak: Huna non heldu natzainan, oi Sidon, eta goretsia izanen naun hire erdian; eta hor zuzen dena egin eta ene saindutasuna argiarazi dukedanean, jakinen dute ni naizela Jauna.

23. Eta izurritea eta sarraskia igorriren ditut horgo plazetara; eta inguruan ezpatak hilik horren erdian eroriko dire; eta jakinen dute ni naizela Jauna.

24. Eta Sidon ez da gehiago Israelgo etxearentzat izanen uhertasunezko behaztopagailu bat, eta alde orotarik oinhazea ematen duen arrantze bat zeiber egiten diotenen inguruan; eta jakinen dute ni naizela Jainko Jauna.

25. Hau dio Jainko Jaunak: Bilarazi ditukedanean Israelgo umeak populuetarik zeinen erdian barriatuak baitire, hekien baithan sainduetsia izanen naiz jendaien begien aitzinean; eta beren lurrean, Jakob ene zerbizariari eman izan diotan lurrean eginen dute beren egoitza.

26. Eta han egonen dire beldurrik gabe; eginen dituzte etxeak, landatuko mahastiak, eta gogoia zabalik egonen dire, ene juiamenduak bethe ditukedanean, hekien kontra inguruan atheratzen diren guzien gainean; eta jakinen dute ni naizela hekien Jainko Jauna.

## XXIX. KAP.

1. Hamargarren urthean, hamargarren hilabeteke hamekagarren egunean, Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

2. Gizasemea, emazu begithartea Egiptoko errege Faraonen kontra, eta profetisa zazu hartaz eta Egipto guziaz.

3. Mintza zaite eta errazu: Hau dio Jainko Jaunak: Huna non heldu natzaikan Faraon, Egiptoko errege, erainsuge handi, hire ibaien erdian etzaten haizena, eta diokana: Enea da ibaia, eta neronek egin dut ene burua.

4. Muthurreko bat ezarriko diat hire ahoan; eta hire ezkatari iraxkiren ditiat hire ibaietako arrainak; eta atheraturen haut hire ibaien erditik, eta hire arrain guziak hire ezkatari lothuak egonen dituk.

5. Eta mortura arthikiren zaituztet hi eta hire ibaieko arrain guziak; lurraren gainera eroriko haiz; ez haute altxatuko ez-eta ehortziko; lurreko basabereei eta zeruko hegastinei jatera eman haut.

6. Eta Egipton daudezen guziek jakinen die, ni naizela Jauna; zeren khanaberazko makhila bat izatu haizen Israelgo etxearentzat.



7. Eskuz hiri lothu direnean, hautsi haiz, eta sarraskitu diotek sorbalda guzia; eta noiz-etare hire gainean bermatu baitire, pusketan goan haiz, eta ethendu diozkatek gerruntzeak.

8. Horren gatik zioek Jainko Jaunak: Huna non nik hire gainera erak-harriren dudan ezpata, eta hitarik hilen ditiat gizonak eta abereak.

9. Eta Egiptoko lurra izanen duk mortu eta eremu; eta jakinen die ni naizela Jauna, zeren erran dukan: Ibaia enea da, eta nik egin dut hau.

10. Aria hortaz, huna non heldu naizen hire gana eta hire ibaietara; eta ezpatak xahutu dukeen ondoan Egiptoko lurra, hura eginen dut mortu Siensko dorretik eta Ethiopiako mugetaraino.

11. Gizonaren oina ez da han iraganen, eta aberearen oina ez da han ibiliren, eta berrogoi urthez ez du egoiliarrik izanen.

12. Mortu ezarriren dut Egiptoko lurra lur mortuen erdian, eta hango hiriak hiri eragotzien erdian; eta desmasiatuak egonen dire berrogoi urthez; eta jendaietara barriaturen ditut Egiptoarrak, eta haizaturen ditut lurretara.

13. Ezen hau dio Jainko Jaunak: Berrogoi urtheak bethe ondoan, Egiptoarrak bilduko ditut populuatarik zeinetan barriatuak izan baitziren.

14. Eta bihurraziko ditut Egiptoko gathibuak, eta ezarriko ditut Phaturesgo lurrean, haren sortzeko lurrean, eta han izanen dire erresuma xume bat.

15. Eta bertze erresumen artean xumeena izanen da, eta ez da gehiagoraturen jendaien artean, eta aphurturen ditut, ez diozoten jendaiei mana.

16. Eta ez dire gehiago sinhestetan izanen Israelgo etxean, gaizkia irakhatsiz, ihes egin diazatedan niri, eta jarraik hekiei; eta jakinen dute ni naizela Jainko Jauna.

17. Eta hogoi eta zazpigarren urthean, lehenbiziko hilabethearen lehen egunean, ilkhi zitzaitan Jaunaren hitza, zerralarik:

18. Gizasemea, Nabukodonosor, Babilonako erregek zerbitzu handian erabili du bere armada Tirren kontra; buru guziak khartzoildu, sorbalda guziak ilegabetu dire; eta ez hari, ez haren armadari, etzaiote Tirren ariatik saririk bihurtu izan, haren kontra egin darotedan zerbitzuarentzat.

19. Horren gatik, hau dio Jainko Jaunak: Huna non nik emanen diodan Egiptoko lurra Nabukodonosorri, Babilonako erregeri; eta jabeturen da osteaz, eta harturen ditu haren puskek eta eramanen haren buluzkinak; eta hola izanen da sariztatua armada,

20. Eta harek egin zerbitzua Tirren kontra; eman diot Egiptoko lurra enetzat haritu delakoz lanean, dio Jainko Jaunak.

21. Egun hartan muskilduren da Israelgo etxearen adarra, eta ahoa idekiren darotzut hekien erdian; eta jakinen dute ni naizela Jauna.

### XXX. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

2. Gizasemea, profetisa zazu, eta errazu: Hau dio Jainko Jaunak: Egizue orrobia: Zorigaitz! zorigaitz egun huni!

3. Ezen aldean da eguna, eta hurbiltzen hari da Jaunaren eguna: hura izanen da hedoi en eguna, jendaien ordua.

4. Eta ezpata jautsiko da Egiptoaren gainera, eta Ethiopian izanen da izialdura, sarraskituak Egipton eroriko direnean, eta hango ostea gathibu eramana eta haren asentuak urratuak izanen direnean.

5. Hekiekin ezpataren azpira eroriko dire Ethiopia, Libia, Lidiarrak, eta gainerako populu xehe guzia, Khub eta batasuneko lurreko umeak.

6. Hau dio Jainko Jaunak: Eta eroriko dire Egiptoaren laguntzaileak, eta haren erreinuko hanpurustasuna ezeztatua izanen da; Siensgo dorretik hasirik, han eroriko dire ezpataren azpira, dio armadetako Jainko Jaunak.

7. Eta hango lurak ezarriak izanen dire lur desmasiatuen arteko, eta hango hiriak, hiri mortu eginen arteko.

8. Eta jakinen dute ni naizela Jauna, sua ezarri dukedanean Egipton, eta xehakatuak izanen direnean haren laguntzaileak.

9. Egun hartan mandatariak ilkhiko dire ene aitzinetik untzitan, lehertzeko Ethiopiaren gogo sendoa; eta izialdura Ethiopiarretan izanen da Egiptoaren egunean; ezen segurki ethorriko da hura.

10. Hau dio Jainko Jaunak: Babilonako errege Nabukodonosorren eskuz galaraziren dut Egiptoko jende-ostea.

11. Hura eta haren populua harekin, jendaiarik hazkarrenak, erakharriak izanen dire lurraren xahutzerak; ezpatak biluziren dituzte Egiptoaren gainera, eta hilez betheko dute lurra.

12. Eta agorraziko ditut ibaien errekek, eta arthikiko dut lurra gizon gaixtoenen eskuetara; eta arrotzen eskuz xahutuko dut lurra eta hartan direnak oro. Ni Jauna naiz mintzatu.

13. Hau dio Jainko Jaunak! Xahuturen ditut jainkomoldeak, eta Menphistik galaraziren ditut idolak, eta Egiptoko lurretik ez da gehiago buruzagirik izanen, eta lastura ezarriren dut Egiptoko lurrean.

14. Eta xahuturen dut Phaturesgo lurra, eta sua ezarriren dut Taphnisen, eta ene erabakiak betheko ditut Alexandrian.



15. Eta ene gaitzidura ixuriko dut Pelusioaren, Egiptoko idarraren gainera, eta hilen dut Alexandriako jende ostea,

16. Eta sua ezarriko dut Egiptoan; erditzen hari denak bezala, Pelusioak eginen du intzirin, eta Alexandria ezeztatua izanen da, eta Memphis egun oroz hesturan.

17. Heliopoliseko eta Bubastoko gizon-gazteak ezpataren azpira eroriko dire, eta neskatxak gathibu eramanak izanen.

18. Eta Taphnisen ilhunduko da eguna, han hautsiko dudanean Egiptoaren manamenduko makhila, eta han iraungiko denean haren ahalaren hanpurustasuna; hedoi batek estaliko du hura; hango neskatxak berriz, gathibu eramanak izanen dire.

19. Eta Egipton betheko ditut ene erabakiak; eta jakinen dute ni naizela Jauna.

20. Eta hamekagarren urthean, lehenbiziko hilabethearen zazpigarren egunean, gerthatu zen ilkhi zitzaiala Jaunaren hitza, zerralarik:

21. Gizasemea, Egiptoko errege Faraonen besoa hautsi dut; eta hara ez dela lothua osagarriaren bihurrazteko; ez da xerrendaz izan tinkatua, ez-eta oihalez inguratua, indarra bihurturik iduk ahal dezan ezpata.

22. Horren gatik, hau dio Jainko Jaunak: Huna banohakiola Egiptoko errege Faraoni, eta phorroskaturen dut haren besoa hazkarra, bainan hautsia; eta ezpata khenduko dut haren eskutik.

23. Eta Egiptoarrak ditut jendaietan barraiatuko eta lurretan haizatuko.

24. Eta hazkarturen ditut Babilonako erregeren besoak, eta ene ezpata ezarriren dut haren eskuan; eta hautsiko ditut Faraonen besoak, eta heiagoraka hariko dire haren aitzinean hilak izanen direnak.

25. Eta hazkarturen ditut Babilonako erregeren besoak, eta Faraonenak eroriko dire; eta jakinen dute ni naizela Jauna, ene ezpata eman dukedanean Babilonako erregeren eskuan, eta hura luzatuko denean Egiptoko lurraren gainera.

26. Eta Egiptoarrak barraiaturen ditut jendaietan, eta lurretan haizaturen ditut; eta jakinen dute ni naizela Jauna.

### XXXI. KAP.

1. Eta hamekagarren urthean, hirugarren hilabethearen lehenbiziko egunean, gerthatu zen ilkhi zitzaiala Jaunaren hitza, zerralarik:

2. Gizasemea, errozute Faraoni eta haren populuari: Noren iduriko egin haiz hire handitasunean?

3. Hara Asur; iduri zuen Libango zedroa, adarrez ederra, hostoz itsutua, ondoa gora, eta adar lodien erdian gora heltzen zen haren kaskoa.

4. Urek hazi zuten; lupheko indarrak goitiaz zuten; haren ibaiek bazarioten haren erroen inguruan, eta bere xirripak igortzen zaroezten aurkhintzako zuhamu guziei.

5. Horren gatik haren goratasuna altxatu zen aurkhintzako zuhamu guzien gainetik; eta berhatu ziren haren aldaskak eta handitu ziren haren adarrak uren nasaiziaren ariaz.

6. Eta hedatu zuenean bere itzala, zeruko hegastin guziek haren adarretan egin zituzten ohantzeak, eta oihaneko basabereek haren hostopean egin zituzten umeak, eta haren itzalpean egoten ziren jendaki asko.

7. Eta guziz ederra zen bere handitasunean, eta bere gandoen hedaduran; ezen haren erroa ur hainitzen aldean zen.

8. Zedroak, Jainkoaren baratzean, etziren hura baino handiagoak izatu; alboak etziren haren kaskoaren bardinera; Jainkoaren baratzeoko zuhamurik etzen haren idurikorik, eta haren edertasunekorik.

9. Zeren egin nuen ederra, eta adaburu handi eta usuarekin, hartaz bekhaiztu ziren Jainkoaren baratzean ziren zuhamu atseginezko guziak.

10. Hargatik, hau erran zuen Jainko Jaunak: Zeren hantu den bere goratasunaz, eta goititu dunen bere kasko berde eta lodia, eta bere goratasunaz harrotu zaioen bihotza;

11. Arthiki dut jendaietarik hazkarrena denaren eskura, zeinak gogorki baitu erabiliko: bere tzartasunaren arabera dut hastandu.

12. Arrotzek eta jendakirik gogorrenek ebakiren dute, eta mendia behera arthikiren, eta haran guziak barna eroriko dire haren adarrak; eta haren gandoak hautsiko dire lurreko harkadi guzien gainean; eta lurreko populu guziak goanen dire haren itzalpetik eta han utziko dute.

13. Zeruko hegastin guziak haren pusketan egonen dire, eta aurkhintzako basabereak haren adarretan.

14. Aria hortaz, uretako zuhaitzak ez dire gehiago haziko beren goratasunean, eta ez dute harrotuko beren kaskoa adaburu lodi eta usuaren erdian; urez hezatuak diren guziak ez dire burgoi egonen beren goratasunean; zeren heriotzeari arthikiak baitire guziak lurraren ondarrean, giza-semeen erdian, putzura jausten direnetara.

15. Hau dio Jainko Jaunak: Ifernuetara jautsi den egunean, ezarri dut deithorea; lezeaz estali dut; debekatu ditut haren ibaiak eta bortxatu ur handiak; Liban atsekabetan sarthu da haren gainean, eta zuhaitz guziak ikharatu dire.

16. Haren eragozpeneko harrabotsaz laztu ditut jendaia guziak, ifernuetara baneramanean putzura jausten zirenekin; eta luphean gozakari



hartu dute zuhaitz atseginezko guziek, Libango zuhaitz handi eta ederrek, urez hezatzten ziren guziek.

17. Ezen hekiek ere harekin ifernuetara jautsiko dire, ezpataz hilak izan direnen gana; eta bakhotxaren besoa haren itzalpean jarriko da jendaien erdian.

18. Zeinen iduriko haiz, oi atseginezko zuhaitzetarik aipatuena eta gorena? Huna non luphera eramana haizen atseginezko zuhaitzekin; ingurebakigabeen erdian lo eginen duk, ezpataz hilak izan direnekin: haina da Faraon eta haren populu guzia, dio Jainko Jaunak.

### XXXII. KAP.

1. Eta hamabigarren urthean, hamabigarren hilabethearen lehenbiziko egunean, gerthatu zen ilkhi zitzaitala Jaunaren hitza, zerralarik:

2. Gizasemea, deithorea abia zazu Faraon Egiptoko erregeren gainean, eta errozu: Iduri huen jendaietako lehoina eta itsasoan den erainsugea, eta firrindatzen huen adarra hire hibaietan, eta urak nahasten hituen hire zangoez, eta oinkatzen hituen hibaiak.

3. Hargatik hau zioek Jainko Jaunak: Jendaia asko bildurik, sarea art-hikiko diat hire gainera, eta hartaz atheratuko haut.

4. Eta lurrera arthikiko, eta landen erdira egotziko haut; hire gainean egonaraziko ditiat zeruko hegastin guziak, eta hitaz aseko ditiat lur guziko basabereak.

5. Eta hire haragiak hedatuko ditiat mendietan, eta hire munhoak betheko hire lertzoaz.

6. Eta mendien gainean bustiko diat lurra hire odol usainduaz, eta hire puskez betheko dituk haranak.

7. Eta iraungitua izanen haizenean, estaliko diat zerua, ilhunaraziko ditiat hango izarrak, hedoi batez itsutuko diat iguzkia, eta ilhargiak ez dik emanen bere argia.

8. Zeruko argizagi guziak jarraraziko ditiat hire minduru; eta ilhunbeak hedatuko ditiat hire lurraren gainera, zioek Jainko Jaunak, hire gizonak sarraskitua eroriko direnean lurraren erdian, zioek Jainko Jaunak.

9. Laztuko diat asko populuren bihotza, jakinaraziko dudanean hire xahupena jendaietan, ezagutzen ez ditukan lurretan.

10. Eta hire gainean harriaraziko ditiat asko populu; eta hekien erregeak izialdura gaitzaz ikharatuko dituk hire gainean, ene ezpata firrindatzen abiatuko denean hekien buruen gainetik; eta bakhotxa batbatean bere biziarantz ikharan jarriko duk hire eragozpeneko egunean.

11. Ezen hau zioek Jainko Jaunak: Babilonako erregeren ezpata ethorriren zaik;

12. Arthikiren diat hire ostea hazkarren ezpaten azpira; ezin-garhaituzkoak dituk jendaia hekiek oro; xahutuko die Egiptoaren hanpurustasuna, eta suntsiaraziko hango ostea.

13. Eta galaraziren dituk hango azienda, ur handien bazterretan ziren guziak; eta gizonaren oinak ez ditu gehiago ur hekiek nahasiko, ez-etare azienden behatzak uhartuko.

14. Orduan guziz garbi eginen dituk hekien urak eta olioaren pare hekien hibaiak, dio Jainko Jaunak,

15. Desmasian ezarri dukedanean Egiptoko lurra; lurra berriz, daduzkan guzietarik gabetua izanen da, jo ditukedanean hango egoiliarrak oro; eta jakinen dute ni naizela Jauna.

16. Horra deithorea, eta deithore hori eginen dute; jendaietako alabek kantatuko dute; deithore hori eginen dute Egiptoaren eta hango ostearen gainean, dio Jainko Jaunak.

17. Eta hamabigarren urthean, hilabethearen hamabortzgarrenean, gerthatu zen ilkhi zitzaitala Jaunaren hitza, zerralarik:

18. Gizasemea, deithorea kanta zazu Egiptoko ostearen gainera; eta hura eta jendaki hazkarrenen alabak, putzura jausten direnekin, eragotz zatu luphe beherera.

19. Nolaz haiz ederrago? Jauts hadi eta egik lo ingurebakigabeekin.

20. Ezpatak erorraziren ditu bilen erdira; igorria da ezpata; Egiptoak eta hango populu guziek joko dute lurra.

21. Ifernuaren erditik Faraoni mintzaturen zaizko hazkarretarik botheretsuenak, zeinak haren laguntzaileekin jautsi, eta ezpatak jorik, ingurebakigabe lokhartu baitire.

22. Han daude Asur eta haren populu guzia; inguruan ditu bere hobiak; oro hilak dire; ezpataren azpira dire erori.

23. Putzuaren ondarretan ezarriak dire hekien hobiak; Asurren hobiaren inguruan da etzana haren populua, oro hilak, ezpataren azpira eroriak, beihala bizidunen lurrean larderia eman izan zutenak.

24. Han da Elam, eta haren hobiaren inguruan haren populu guzia; haukiek oro hilak eta ezpataren azpira eroriak; luphe beherera ingurebakigabe jautsiak; bizidunen lurrean beren larderia ezarri zutenak, eta beren laidoa eraman dutenak putzura jausten direnekin.

25. Hilan erdian ezarri dute haren etzauntza haren populu guzien erdian; haren inguruan dute hobia; hekiek oro ingurebakigabeak, eta ezpataren azpira erori direnak; ezen beren larderia eman dute bizidunen



lurrean, eta eraman dute beren laidoa putzura jausten direnekin; hilen erdian daude etzanak.

26. Han dire Mosok eta Thubal eta beren populu guziak, beren inguruan hekien hobiak; hekiek oro ingurebakigabeak, hilak eta ezpataren azpira eroriak, zeren eman zuten beren beldurra bizidunen lurraren gainean.

27. Eta ez dire etzanak izanen hazkarrekin, erori direnekin, ingurebakigabeekin, ifernura beren harmekin jautsi direnekin eta zeinak beren ezpatak beren buruen azpian ezarri baitituzte; eta beren gaixtakeriak hezurretan barna baitzituzten sarthuak; zeren bizidunen lurrean ziren hazkarren lazgarri bilhakatu.

28. Eta hi beraz ingurebakigabeen erdian izanen haiz zathikatua, eta ezpataz hilak direnekin eginen duk lo.

29. Han daude Idumea, bere errege eta aitzindari guziak, zeinak beren armadarekin ezarriak baitire ezpatak hil dituenekin, eta etzanak baitaude ingurebakigabeekin eta putzura jausten direnekin.

30. Han dire ipharreko buruzagi guziak, eta ihiztari guziak, zeinak ikharan eta beren indarrean ahalkatuak, eramanak izan baitire hilak izan direnekin; ingurebakigabe lokhartu dire ezpatak hil dituenekin, eta beren ahalkea eraman dute putzura jausten direnekin.

31. Faraonek ikhusi ditu, eta sosegatu da bere oste, ezpatak hil dioen guziaz, Faraon eta bere armada guzia, dio Jainko Jaunak;

32. Zeren lastura ezarri baitut bizidunen lurrean; eta Faraon eta bere populu guzia, ingurebakigabeen erdian eta ezpatak hil dituenekin lokhartu dire, dio Jainko Jaunak.

### XXXIII. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

2. Gizasemea, mintza zaite zure populuko umei eta erraten daroezu: Erakharriren dudanean ezpata lur baten gainera, eta lur hartako populuak hartu dukeanean gizon bat aphalenetarik eta ezarri bere zaintzeko begiralari;

3. Eta hunek ezpata ikhusirik lurraren gainean heldu dela, turuta jo badu eta populuari albistea eman;

4. Turutaren durrunda entzuten duena, nor-nahi izan dadien, ez badago erne; eta ezpata ethorririk, eramaten badu, haren odola haren buruaren gain izanen da.

5. Aditu du turutaren durrunda, eta ez da erne egotu: bere odola bere gain izanen du; ordean erne egotu bada, atheraturen du bere bizia.

6. Baldin begiralariak ikhusten badu ezpata ethortzen, eta turuta jo ez badu; eta populuak ez badu zaindu bere burua; eta ezpata heldu bada, eta bizia khentzen badio populuari; hau atzeman da bere bekhatuan; bainan hunen odola begilariaren eskuan dut bilhatuko.

7. Eta zu, gizasemea, begilaritzat eman zaitut Israelgo etxeari: beraz ene ahotik entzunik hitza, eramozute ene ganik hekiei.

8. Nik gaixtaginarentzat erraten badut: Gaixtagina, heriotzez hilen haiz eta zu ez bazare mintzaten, gaixtagina begira dadien bere bidetik; gaixtagin hura hilen da bere tzartasunean bainan haren odola zure eskuan dut bilhatuko.

9. Zuk ordean gaixtaginari atzar emanik, bere bideetarik bihur dadien, hau ez bada bihurtzen, bere tzartasunean hilen da; eta zuk libratu dukezu zure arima.

10. Zuk beraz, gizasemea, errozu Israelgo etxeari: Hunela zarete mintzatu, derrazuelarik: Gure gaizkiak eta gure bekhatuak gure gainean dire, eta hekietan ihartzen hari gare; nola beraz biziko ahal gare?

11. Zuk errozute: Ala ni! dio Jainko Jaunak, ez dudala nahi gaixtaginaren heriotzea, bainan gaixtagina bere bidetik bihur eta bizi dadien. Bihur zaitetze beraz, bihur zuen bide guziz tzarretarik; zertako zare hilen, Israelgo etxea?

12. Hargatik zuk, gizasemea, errozute zure populuko umei: Prestutasunak ez du prestua atherako, edozein egunez bekhatu egiten badu; eta gaixtakeriak ez dio gaixtaginari hobekharriren, edozein egunez bihur dadien bere tzarkeriatik; eta prestua bere prestutasunean ezin da biziko, edozein egunez egin dezan bekhatu.

13. Erran banezo ere prestuari biziko dela; eta hura bere prestutasunari fidaturik, eror baledi bekhatura; haren eginkari prestu guziak ahanztera utziak litazke, eta egin duen tzarkerian hil laiteke.

14. Nik ordean gaixtaginari erran banezo: Heriotzez hilen haiz; eta hura bere bekhatuaz urrikitan sar baledi, eta zuzentasuneko eta prestutasuneko eginkariak egin baletza;

15. Eta gaixtagin haren bahia bihur, eta ebatsia itzul baletza; eta bizitzerako manamenduetan ibil baledi, eta bidegabekeriarik batere egin ez baleza; bizitzez bizi laiteke, eta ez laiteke hil.

16. Egin izan dituen bekhatu guziez etzaio jazarriko; zuzentasunezko eta prestutasunezko eginkariak ditu erabili, eta bizitzez da biziko.

17. Eta zure populuko umeek ihardetsi dute: Ez da zuzena Jaunaren bidea; eta beren bidea dute makhurra.





18. Alabainan prestua bere prestutasunetik gibelatu ditakeenean, eta egin ditukeenean gaixtakeriak, hekietan hilen da.

19. Eta gaixtagina bere gaixtotasunetik gibelatu ditakeenean, eta zuzentasunezko eta prestutasunezko eginkariak egin ditukeenean, hekiez da biziko.

20. Eta diozue: Jaunaren bidea ez da zuzena. Israelgo etxea, zuetarik batbedera bere bideen arabera dut juiaturen.

21. Eta gure desherripeneko hamabigarren urthean, hamargarren hilabeteheko bortzgarren egunean, gerthatu zen Jerusalemdik itzuri zen gizon bat ethorri zitzaiala, zioelarik: Xahutua da hiria.

22. Bada, Jaunaren eskua arratsean jarri zen ene gainean, itzurlea ethor zadien baino lehen; eta hau goizean ethorri zeneko, ideki zarotan ahoa; eta ene ahoa idekia izan eta ez nintzen ixilik egotu gehiago.

23. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

24. Gizasemea, etxe urratu hekietan egoten direnak Israelgo lurtean mintzo dire, erranez: Bakharra zen Abraham, eta primantzaz gozatu du lur hau: gu berriz, hainitz gare; gozatzera guri emana da lurra.

25. Hargatik erranen daroezu: Hau dio Jainko Jaunak: Haragiak odolarekin jaten ditutzuenek eta begiak zuen zikhinkerietara altxatzen, eta odola ixurtzen, primantzaz gozaturen othe duzue lurra?

26. Ezpatak eskuetan zinaudezten, izigarrikeriak egin ditutzue, eta zeinek bere lagunaren emaztea lohitu; eta lurra gozaturen duzue primantzaz?

27. Hau erranen daroezu: Hunela dio Jainko Jaunak: Ala ni! etxe urratuetan daudezenak ezpataren azpira direla eroriko; eta basabereei irestera emana izanen dela bazterretan dena; hazkargailuetan eta har-zilodetan direnak berriz, izurritetik hilen dire.

28. Eta lurra ezarriren dut eremu eta mortu; eta hango indar hanpurrutsua iraungiren da; eta inkoniaturen dire Israelgo mendiak, nihor ez delakoz gehiago hekietan gaindi iragaiten.

29. Eta jakinen dute ni naizela Jauna, lurra ezarri dukedanean desmasian eta mortutan, erabili dituzten izigarrikeria guzieren gatik.

30. Eta zu, gizasemea, zure populuko ume, zutaz harrasi-ondoetan eta etxeetako atheetan mintzo direnek batak bertzeari eta lagunak lagunari erratan dute: Zatozte, eta dugun adi zerika den Jauna ganik ilkhitzen den solasa.

31. Eta heldu zaizkitzu, oste bat sartzen denean bezala; eta zure aitzinean jartzen dire ene populua balire bezala; eta aditzen dituzte zure sola-

sak, eta ez dute hekien arabera egiten, zeren hekien ahoak kopletara itzultzen baititu, eta hekien bihotza bere jaramantasunari jarraitzen baita.

32. Eta zu hekientzat zare hala-nola musikako kantu, aire ezti eta gozoan kantatzen dena: aditzen dituzte zure solasak, eta ez obratzen.

33. Eta profetisatua dena gerthatuko denean (ezen huna non gerthatzera dohan), orduan ezagutuko dute, hekien artean profeta bat bazela.

#### XXXIV. KAP.

1. Eta Jaunaten hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

2. Gizasemea, Israelgo artzainez profetisa zazu; profetisa zazu, eta erranen daroezu: Hau dio Jainko Jaunak: Zorigaitz Israelgo artzainek, beren buruak alhatzen dituztenei! Artzainek ez othe dituzte arthaldeak alhatzen?

3. Esnea jaten zinduten eta ileaz estaltzen zineten, eta gizen zena hiltzen zinduten; etzinduten ordean ene arthaldea alhatzen.

4. Herbal zena, ez duzue hazkarrarazi; eta eri zena, ez duzue sendarazi; hauskura zuena, ez duzue lothu; eroria, ez altxatu; galdua, ez bilhatu; bainan garrazki eta larderiarekin manatzen zinaroeten.

5. Eta barraiatuak izan dire ene ardiak, artzainik etzelakoz; eta larretako basabere guzieren puska bilhakatu dire, eta barraiatuak dire.

6. Ene arthaldeak basatu dire mendi guziak gaindi eta munho gora guzietan; eta lurraren hedadura guzian barraiatuak ziren ene arthaldeak, eta nihor etzen bilhatzen; etzen, diot, nihor bilhatzen.

7. Hargatik, artzainak, adi zazue Jaunaren hitza:

8. Ala ni! dio Jainko Jaunak; ene arthaldeak harrapakara utziak izan direlakoz, eta ene ardiak larreko basabereen puska, zeren ez baitzen artzainik; eta ene artzainek ezen ez dutelakoz bilhatu ene arthaldea; bainan beren buruak dituztelakoz alhatu, eta ez ene arthaldeak;

9. Aria horietaz, artzainak, adi zazue Jaunaren hitza:

10. Hau dio Jainko Jaunak: Huna non neroni heldu naizen artzainen gainera; bilhaturen dut ene arthaldea hekien eskuetarik, eta khenduko diotet kargua, arthaldea ez dezaten alha gehiago, eta ez detzazten alha beren buruak; eta atherako diotet ene arthaldea hortzetarik, eta ez da gehiago hekien hazkurri izanen;

11. Ezen hau dio Jainko Jaunak: Huna non bilhaturen ditudan neronek ene ardiak, eta goanen natzaiote ikhustera.

12. Nola artzain batek ikhartzen baitu bere arthaldea, bere ardi barraiatuen erdian izaten den egunean; hala ikharturen ditut ene ardiak,



eta lanhozko eta gobeletzko egunean barriatu diren lekhu guzietarik athe-rako ditut.

13. Eta eramanen ditut populetarik, eta bilduko ditut lurretarik, eta erakharriren ditut beren lurrera; eta alhatuko ditut Israelgo mendietan, urbegietan eta lurreko hespil-toki guzietan.

14. Alhaturen ditut alhapide gorienetan, eta Israelgo mendi goretan izanen dire hekien alhapideak; han deskantsaturen dire belhar berdeetan, eta alhaturen dire alhapide gizenetan Israelgo mendien gainean.

15. Neronek alhaturen ditut ene ardiak, eta neronek bilduren ditut hespilera, dio Jainko Jaunak.

16. Galdua bilhaturen dut, eroria altxaturen, hauskura duena lothuren, herbalari indar emanen, gizena eta hazkarra begiraturen, eta alhaturen ditut zuzentasunean.

17. Zuek berriz, ene arthaldeak, hau dio Jainko Jaunak: Huna non neroni nathorren juiatzera aziendaren eta aziendaren artean, aharien eta akherren artean.

18. Ez othe zen zuentzat aski alhapide onak alhatzea? hortaz bertzalde, zuen oinez oinkatzen zintutzen zuen gainerako alhapideak, eta ur garbientetik edan ondoan, gainerakoa zuen oinez nahasten zinduten.

19. Eta ene ardiek, zuek oinez oinkatua alhatzen zuten, eta zuek nahasia edaten.

20. Hargatik, hau derrazue Jainko Jaunak: Huna non juiatzera daramadana azienda gizenaren eta mehearen artean;

21. Zeren sorka eta soinka jotzen zintuzten azienda herbal guziak, eta zuen adarrez haizatzen, kanpoan barriatuak izan zitezten arteo.

22. Salbaturen dut ene arthaldea, eta ez da gehiago egonen harraparien meiorian, eta juiaturen dut aziendaren eta aziendaren artean.

23. Eta hekien gainera eraikiren dut artzain bakhar alhatuko dituen, Dabid ene zerbitzaria; harek alhatuko ditu eta hura izanen dute artzain.

24. Ni berriz, Jauna, izanen naiz hekien Jainkoa, eta Dabid ene zerbitzaria hekien erdian buruzagi: ni Jauna naiz, mintzatu.

25. Eta hekiekin eginen dut bakezko patua, eta lurretik geldiaraziren ditut basabere guziz gaixtoak; eta mortuan egoten direnek, beldurrik gabe eginen dute lo.

26. Eta benedizionetan ezarriren ditut ene munhoaren inguruan; eta uria erakharriren dut bere mugan; uriak benedizioezkoak izanen dire.

27. Eta bazterretako zuhaitzak emanen du bere fruitua, eta lurrak emanen du: bere muskila; eta ene ardiak beldurrik gabe izanen dire beren lurrean; eta jakinen dute ni naizela Jauna, hautsi dituzkedanean hekien

uztarriko gatheak, eta atheratu dituzkedanean berak, gogorki manatzen diotenen eskutik.

28. Eta ez dire gehiago jendaien meiorian nork harrapa izanen; eta lurreko basabereek ez dituzte iretsiko; bainan beren egoitzetan izanen dire gogoa zabalik eta beldurrik batere gabe.

29. Eta ilkhiaraziren diotet aiphu handitako belhar bat; eta goseteak ez ditu gehiago lurrean gutituko, eta ez dute gehiago jasanen jendaien laidoa.

30. Eta jakinen dute hekiekin naizela ni, hekien Jainko Jauna, eta berak direla ene populu Israelgo etxea, dio Jainko Jaunak.

31. Zuek berriz, oi ene arthaldeak, ene alhapidetako arthaldeak, gizonak zarete; eta zuen Jainko Jauna naiz ni, dio Jainko Jaunak.

### XXXV. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

2. Gizasemea, begithartea itzul zazu Seirgo mendiaren kontra, eta profetisatuko duzu haren gainean, eta erranen diozu:

3. Hau dio Jainko Jaunak: Huna non heldu natzaikan, Seirgo mendia, eta ene eskua hire gainera diat hedaturen, eta ezarriren haut desmasian eta mortutan.

4. Hire hiriak ditiat urraturen, eta hi izanen haiz mortu; eta jakinen duk ni naizela Jauna.

5. Zeren izatu haizen Israelgo umeen egundainoko etsaia, eta ezpatat ditukan hertsatu beren hesturako orduan, tzarkeria gaitzeneko mugan;

6. Aria hortaz, ala ni! dio Jainko Jaunak, sarraskiari haudala arthikiren, eta odola jarraikiren zaikala; eta odola hastio izan dukalako, odolak dauk ondotik jazarriko.

7. Desmasian eta mortu ezarriren dut Eszirgo mendia; eta handik khenduren ditut haran eta hunat zabiltzanak.

8. Eta hilez betheko ditut hango mendiak: eta hire munho, haran eta erreketan hilak ezpataren azpira dire eroriko.

9. Bethi guziki ezarriren haut mortu, eta nihor ez duk egonen hire hirietan; eta jakinen duzue Jainko Jauna naizela ni.

10. Erran dukalako: Bi jendaiak eta bi lurak eneak dire, eta primantzaz gozaturen ditut; noiz-etare Jauna han baitzen;

11. Aria hortaz, ala ni! dio Jainko Jaunak, hariko naizela hire sepha eta hire bekaizgoaren arabera, zeinei bide eman baitiotek, Israelgo umei ekhartzen hioten gaitziriko; eta juiatuko hautanean, ezagutaraziko diat hekietaz ene burua.



12. Eta jakinen duk, nik Jaunak aditu ditudala Israelgo mendiez erabili ditukan elhe laidotsu guziak, erranez: Mortu eginik irestera emanak zaizkigu.

13. Zuen ahoaz jaiki zarete ene kontra, eta zuen solasez erasi duzue ene kontra; aditu dut nik.

14. Hau dio Jainko Jaunak: Lurra oro bozkariotan izanen delarik, hi mortu haut egingen.

15. Nola boztu baihaiz Israelgo primantzaren gainean, xahutu izan delakoz; hala egingen daiat hiri ere; xahutuak izanen zarete, Seirgo mendia eta Idumea guzia; eta jakinen duzue ni naizela Jauna.

### XXXVI. KAP.

1. Zuk berriz, gizasemea, profetisa zazu Israelgo mendien gainean, eta erranen daroezu: Israelgo mendiak, adi zazue Jaunaren hitza:

2. Hau dio Jainko Jaunak: Etsaiak zuetaz erran izan duelakoz: Hola! Bethiko bizkarrak primantzaz emanak zaizkigu;

3. Hargatik errazu: Hau dio Jainko Jaunak: Zeren zareten desmasan, eta inguruan zango-petan erabiliak, eta bertze jendakien primantza bilhakuak, eta zareten aho-mihitan erabiliak eta populuen laidagarri;

4. Hargatik, Israelgo mendiak, adi zazue Jainko Jaunaren hitza: Jainko Jaunak hau diote mendiei eta munhoei, errekei, haranei eta mortuei, harrasi urratu eta hiri hustu, bertze jendaiak inguruan desmasatu eta eskarniatu dituztenei;

5. Aria hortaz, hau dio Jainko Jaunak: Nola ene kharraren suan mintzatu bainaiz bertze jendaien eta Idumea guziaren kontra, zeinek ene lurra beren buruari primantzetan eman baitiote bozkariorekin, eta bihotz eta arima guziz; eta haren larrutzeke, egoiliarrak irazi baitituzte;

6. Hargatik profetisa zazu Israelgo mendien gainean, eta erranen diozute mendi, munho, bizkar, haranei: Hau dio Jainko Jaunak: Huna non ene kharrean eta irakiduran mintzatu naizen ni, jasan behar izan duzuelakoz jendaien ganik ahalkea.

7. Hau dio beraz Jainko Jaunak: Nik goititu dut ene eskua, inguruan diren jendaiak berek jasan dezaten beren ahalkea.

8. Zuek aldiz, Israelgo mendiak, egizkitzue zuen adarrak eta Israelgo ene populuari ekharrozue zuen fruitua; ezen hurbil da ethorriko den ordua;

9. Alabainan huna non heldu natzaitzuen, eta bihurturen naiz zuetara, eta irauliak izanen zarete, eta hartuko duzue hazia.

10. Eta zuen gainean berhaturen ditut gizonak eta Israelgo etxe guzia; hiriak egoiliarrez betheko dire, eta urratuak berrituko.

11. Eta betheko zaituztet gizon eta aziendaz, eta ostetan iganen eta berhaturen dire; eta hastetik bezala egoiliarrez betheko zaituztet, eta hastetik izan dituztuen baino ontasun handiagoak emanen darozkitzuet; eta jakinen duzue ni naizela Jauna.

12. Eta zuen gainera erakharriren ditut gizonak, Israelgo ene populua, eta primantzaz gozaturen zaituztete, eta izanen zarete hekien primantza, eta etzarete gehiago egonen hekietaz gabeturik.

13. Hau dio Jainko Jaunak: Zeren dioten zuetaz: Lur gizon-ireslea haiz, eta hire jendearen ithotzailea;

14. Hargatik ez duzu gehiago gizonik janen, eta ez duzu gehiago hilen zure populua, dio Jainko Jaunak.

15. Eta ez dut gehiago zure erdian adiaraziren jendaien ganikako ahalkeria, eta ez duzu jasanen populuen ganikako laidoa, eta ez duzu gehiago galduren zure jendea, dio Jainko Jaunak.

16. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

17. Gizasemea, Israelgo umeak beren lurrean egotu dire, eta hura lohitu dute beren egintzez eta lehiez; hekien bidea ene aitzinean egina da astagaizdunaren lohikeriaren iduriko.

18. Eta hekien gainera ixuri dut ene hasarrea, lurraren gainera ixuri duten odolaren ariaz, eta beren idolez lizundu dutelakoz lurra.

19. Eta jendaietan barraiatu eta lurretan haizatu ditut; juiatu ditut beren egintza eta asmuen arabera.

20. Eta goan dire jendaietara, eta sarthu dire, eta ene izen sainduaren laidagarri ziren, hekiez erraten zenean: Hori da Jaunaren populua, eta ilkhi dire haren lurretik.

21. Eta guphidetsi dut ene izen saindua, zeinaren laidagarri baitziren Israelgo umeak, sarthu ziren jendaien erdian.

22. Aria hortaz, erranen diozu Israelgo etxeari: Hau dio Jainko Jaunak: Nik ez dut zuen gatik egingen, Israelgo etxea, bainan-bai ene izen saindua gatik, zeinaren laidagarri izatu baitzarete sarthu zareten jendaietan.

23. Eta sainduetsiren dut ene izen handia, zeina laidatua baita jendaien artean, zeina laidatu baituzue hekien erdian; jendaiak jakin dezaten, dio armadetako Jaunak, ni naizela Jauna, zuen baithan sainduetsia izanen naizenean hekien aitzinean.

24. Ezen atheratuko zaituztet jendaietarik, eta bilduko lur guzietarik, eta erakharriko zuen lurrera.



25. Eta ur garbia lohuriko dut zuen gainera, eta garbituak izanen zarete zuen khutsapen guzietarik, eta garbituko zaituztet zuen idola guzietarik.

26. Eta bihotz berri bat emanen darotzuet, eta izpiritu berri bat ezarriren dut zuetan; eta harrizko bihotza khenduren dut zuen haragitik, eta emanen darotzuet haragizko bihotza.

27. Eta ene izpiritua ezarriren dut zuen erdian, eta eginen dut ibiliko zarete ene manamenduetan, zainduko eta betheko dituzuela ene erabakiak.

28. Eta zuen egoitza eginen duzue nik zuen arbasoei eman izan diotetan lurreen; eta zuek izanen zarete ene populua, eta ni izanen naiz zuen Jainkoa.

29. Eta atheratuko zaituztet zuen khutsapen guzietarik; eta ogia deithuko eta ilkhiaziko dut murruka; eta ez darotzuet gainera igorriko gosetea.

30. Eta zuhaitzak brokaturren ditut fruituz, eta landak uztaz, eta ez duzue gehiago jendaletan jasanen gosearen laidoa.

31. Eta orhoituren zarete zuen bide guziz tzarrez eta zuen lehia gaixtoez; eta zuen desgogarako izanen dire zuen tzarkeriak eta zuen gaixtakeriak.

32. Ez dut hori zuen gatik eginen, dio Jainko Jaunak, jakizue: ahalka eta gorri hadi hire bideez, Israelgo etxea.

33. Hau dio Jainko Jaunak: Egun hartan zeintan xahutuko baitzaituztet zuen gaizki guzietarik, eta hirietan eginaraziko baitarotzuet zuen egoitza, eta berrituko baititut lekhu eragotziak;

34. Eta lur mortu egina, bertze orduz desmasian zagoena bideant guzien begietan, berriz lanthua izanen denean;

35. Erranen dute: Lur larre goan hori, atseginezko baratze bat iduri egina da; eta hiri mortu eginak, jendez gabetuak eta urratuak, hazkargailuz berriz inguratu dire.

36. Eta zuen inguruko jendaia gelditu ditazkeen guziek ezaguturren dute, ni naizela Jauna, urratua altxatu eta larre goana lanthu ditudana, ni naizela Jauna, mintzatu naizena eta egin dudana.

37. Hau dio Jainko Jaunak: Huntan oraino Israelgo umeek atzemanen naute hekie egitera ekharria: Berhaturren ditut gizonetzko arthalde bat bezala,

38. Hala-nola arthalde saindua, Jerusalemgo arthaldea hango bestaburuetan: hiri mortu eginak horrela izanen dire gizonetzko arthaldez betheak, eta jakinen dute ni naizela Jauna.

## XXXVII. KAP.

1. Jaunaren eskua jarri zen ene gainean; eta Jaunaren izpirituak eraman ninduen, eta utzi ninduen, hezurrez bethea zen zelhai batean;

2. Eta eraman ninduen hekietan gaindi inguruan: bada, hainitz ziren zelhaiaren hedaduran eta arras idortuak.

3. Eta erran zarotan: Gizasemea, uste duzu hezur horiek bizi direla? Eta ihardetsi nuen: Zuk dakizu, Jainko Jauna.

4. Eta erran zarotan: Profetisa zazu hezur horien gainean, eta erranen diozute: Hezur iharrak, adi zazue Jaunaren hitza.

5. Hezur horiei hau derrote Jainko Jaunak: Huna zuetan izpirituaren sartzera nohala, eta biziko zarete.

6. Eta zainak emanen ditut zuen gainean, eta sorraraziko ditut zuen gainean haragiak, eta zuen gainean hedatuko dut larrua; eta emanen darotzuet izpiritua, eta biziko zarete, eta jakinen duzue ni naizela Jauna.

7. Eta manatu zarotan bezala profetisatu nuen; bada, nik profetisatzearekin, harrabots bat egin zen; eta hara higidura bat; eta hurbildu ziren hezurak hezurrei, eta zein bere giltzari.

8. Eta ikhusi nuen, eta hara hekien gainean jarri zirela zainak eta haragiak; eta hekietan gainetik hedatu zen larrua, eta izpiritua etzuten.

9. Eta Jaunak erran zarotan: Izpirituari profetisa diozozu, profetisa, gizasemea, eta erranen diozu izpirituari: Hau dio Jainko Jaunak: Lau haizeetarik athor, izpiritua, eta hil horien gainera buha zak, eta berriz bitz beitez.

10. Eta profetisatu nuen manatu zarotan bezala; eta hezurretan sartu zen izpiritua, eta biztu ziren; eta jarri ziren oinen gainean armada bat ikharagarri handia.

11. Eta Jaunak erran zarotan: Gizasemea, hezur horiek guziak Israelgo umeak dire; haukiek diote: Gure hezurak ihartu dire; galdu da gure igurikitza, eta ebakiak gare.

12. Horren gatik profetisa zazu, eta erranen daroezu: Hau dio Jainko Jaunak: Ene populua, huna nik idekiren ditudala zuen hobiak, eta atheraturen zaituztedala zuen ehorts-lekhuetarik, eta erakharriren zaituztet Israelgo lurrera.

13. Eta ezaguturren duzue ni naizela Jauna idekiko ditudanean zuen hobiak eta ilkhiaziko zaituztedanean zuen ehorts-lekhuetarik, oi ene populua;

14. Eta ene izpiritua ezarriko dudanean zuetan, eta biztu zaitzeketean, eta phausu harraraziko darotzuedanean zuen lurreen; eta jakinen



duzue orduan ni naizela Jauna, mintzatu naizena eta egin dudana, dio Jainko Jaunak.

15. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

16. Eta zuku, gizasemea, har zazu zur puska bat, eta haren gainean iskriba zazu: Judarena, eta haren lagun Israelgo semeena. Eta har zazu bertze zur bat, eta haren gainean iskriba zazu: Josepen, Efraimen eta hekien lagun Israelgo etxe guziaren zura.

17. Eta bata bertzeari iratxik zatzu zur puska baten egiteko; eta zure eskuan batuak izanen dire.

18. Zure populuko umeek berriz, erranen darotzutenean: Ez darokuzu erakusten zer erran nahi duzun horietaz?

19. Erranen daroezu: Hau dio Jainko Jaunak: Josepen zura, Efraimen eskuan dena, eta Israelgo leinu hari iratxikiak direnak hartuko ditut; eta oro batean ezarriko ditut Judaren zurarekin, eta zur bat eginen dut biez; eta bat izanen da hunen eskuan.

20. Zur hekiek berriz, zeinen gainean iskribatu baituzuke, eskuan idukiko ditutzu hekien aitzinean;

21. Eta erranen daroezu: Hau dio Jainko Jaunak: Huna non hartuko ditudan Israelgo umeak jendaian erditik, zeinetara goanak baitire; eta alde orotarik bilduko ditut eta beren lurrera erakharriko.

22. Eta populu bakhar bat eginen dut hekiez beren lurrean, Israelgo mendietan; eta errege bakhar bat izanen da, orori manatuko duena; eta ez dire gehiago izanen bi populu, eta ez dire gehiago bi erresumetan bereziko.

23. Eta ez dire gehiago lohituko beren idolez, beren gaitzigarrikeria eta tzarkeriez; eta atheratuko ditut toki guzietarik, zeinetan egin baitute bekhatu, eta xahutuko ditut; eta izanen dire ene populua, eta ni izanen naiz hekien Jainkoa.

24. Eta Dabid ene zerbitzaria izanen da hekien gainean errege; eta artzain bakhar bat izanen da hekien guzientzat; ene erabakietan ibiliko dire, eta ene manamenduak dituzte zainduko eta betheko.

25. Eta beren egoitza eginen dute ene zerbitzari Jakobi eman izan diodan lurrean, zeintan egotu baitire zuen arbasoak; eta hartan eginen dute beren egoitza berek eta beren umeek eta umeen umeek bethi guzira; eta Dabid ene zerbitzaria izanen da hekien buruzagi behin-bethiko.

26. Eta hekiekin eginen dut bakezko batasuna; hekientzat izanen da bethirainoko patua; eta asentaturen eta berthaturen ditut, eta mendeetako ezarriren dut hekien erdian ene saindutegia.

27. Eta ene tabernaklea hekien erdian izanen da; eta ni izanen naiz hekien Jainkoa, eta hekiek ene populua.

28. Eta jendaiek jakinen dute ni naizela Jauna, Israelen saindueslea, ene saindutegia hekien erdian izanen denean behin-bethiko.

### XXXVIII. KAP.

1. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

2. Gizasemea, begithartea itzul zazu Gogen alderat, Magogen lurreko alderat, Mosoken eta Thubalen buruko aitzindariaren alderat; eta haren gainean profetisa zazu,

3. Eta erranen darozu: Hau dio Jainko Jaunak: Huna non heldu natzaikan, Gog, Mosoken eta Thubalen buruko aitzindaria;

4. Eta itzulika erabiliren haut, eta muthurreko bat ezarriren diat hire ahoan; eta ilkhiaraziren haut, hi eta hire armada guzia, zaldiak eta zaldizkoak, oro gerruntzeak soinean, lantza, erredola eta ezpata darabilkatenen oste gaitza.

5. Persiarrak, Ethiopiarak eta Libiarrak hekiekin izanen dire, oro gerruntzeekin eta kaskekin.

6. Gomer eta bere armada guzia, Thogormaren etxea ipharraldetik eta haren indar guzia, eta populu asko hirekin izanen dire.

7. Xuxent hadi, antola hadi, hi eta hire gana murruka bildua den oste guzia; eta izan hadi hekien buruzagi.

8. Asko eta asko egunen buruan izanen haiz ikhartua: urtheen ondarean ethorriren haiz ezpatatik begiratua izan den lur batera, asko populuren artetik bildua izan dena Israelgo mendi, egundainotik mortu zirenetara: hau izan da populuatarik atheratua, eta hartan guziak deskantsuz dire egonen.

9. Aldiz, hi eta hire armada guziak eta asko populu hirekin, iganez ethorriko zarete phesia bezala eta hedoiak iduri, lurraren estaltzeko.

10. Hau dio Jainko Jaunak: Gogoetak egun hartan ethorriko zaizkik bihotzera, eta asmu bat eginen duk guziz tzarra;

11. Eta erranen duk: Iganen naiz harrasi gabeko lurrera; goanen naiz, phausuan eta beldurrik gabe bizi direnetara; horiek oro harrasirik gabe bizi dire; ez dute ez hagarik, ez atherik.

12. Burutan izanen duk buluzkin atzimatea, harrapakinari jauzte, eta hire eskua ezartzea, behin utziak izan eta gero berriz altxatuak direnen gainera, eta jendaiatarik bildua izan den populuaren gainera, zeina hasi baita gozaten eta lurraren erdian egoten.

13. Sabak, Dedanek, Tharsisgo tratulariek eta hango lehoin guziek erranen daie: Ez othe haiz buluzkinketa heldu? Huna non hire ostea bildu



dukan harrapakin egiteko, urhe-zilharren hartzeko, puska eta gauzen eramateko, eta nihonereko buluzkinen atzemateko.

14. Aria hortaz, profetisa zazu, gizasemea, eta erranen diozu Gogi: Hau ederra Jainko Jaunak: Egun hartan ez othe haiz jakintsun izanen, deskantsuan bizi dela Israelgo ene populua?

15. Eta hire lekhuetatik, ipharraldetik, ethorriko haiz hi eta asko populu hirekin, oro zaldiz, oste handi bat, eta armada muthiria.

16. Eta jauziko haiz Israelgo ene populuaren gainera, hedoiak bezala, lurraren estaltzeko. Azken egunetan izanen haiz, eta ene lurraren gainera erakharriren haut, jendaiek ezagut nezaten, ene ahala hire baithan erakhutsi dukedanean, oi Gog, hekien begien aitzinean.

17. Hau dio Jainko Jaunak: Hi haiz beraz nik beihalako egunetan aiphatu dudana, ene zerbitzari Israelgo profeten arartekoz, zeinek orduko egunetan profetisatu baitute, hekien gainera erakharriko hindudala.

18. Eta egun hartan, Gog Israelgo lurrera ethorriko den egunean, ene aitzidura errabiaraino iganen da, dio Jainko Jaunak.

19. Eta mintzaturen naiz ene kharrean eta ene hasarrearen suan, zeren egun hartan asaldu handi bat izanen baita Israelgo lurrean.

20. Eta itsasoko arrainak, zeruko hegastinak, larreko basabereak, lurraren gainean higitzen diren zierpeak oro eta lurraren gainean diren gizon guziak lastuko dire ene begithartearen aitzinean; eta gainazpikaturen dire mendiak, eroriko hesiak eta lehertuko harrasiak.

21. Eta mendi guzietan Gogen kontra deithuko dut ezpata, dio Jainko Jaunak; bakhotxak bere anaiaren kontra bihurturen du ezpata.

22. Eta juiaturen dut Gog izurriteaz, sarraskiaz, uri muthiriez eta harri mokhor gaitzez; suzko eta sufrezko uria eginen dut haren gainera, haren armadaren eta harekilako populu guzien gainera.

23. Eta handietsiren eta sainduetsiren dut ene burua; eta ezagutua izanen naiz jendaia hainitzen begietan, eta jakinen dute ni naizela Jauna.

### XXXIX. KAP.

1. Zuk aldiz, gizasemea, profetisa zazu Gogen kontra, eta erranen diozu: Hau derra Jainko Jaunak: Huna non heldu natzaikan gainera, Gog, Mosoken eta Thubalen buruko aitzindaria;

2. Eta inguruka erabiliren, eta eramanen, eta ipharraldetik iganaraziren haut; eta erakharriren haut; Israelgo mendien gainera.

3. Eta hire esku ezkerrean trenkaturen diat hire arranbela, eta hire esku eskuinetik arthikiren ditiat hire geziak.

4. Israelgo mendien gainean eroriko zarete, hi eta hire armada guziak eta hirekin diren populuak; basabereei, xoriei eta hegastin guziei, eta lurreko ihiziei eman haut jatera.

5. Lurraren gainera haiz eroriko; zeren ni bainaiz mintzatu, dio Jainko Jaunak.

6. Eta sua igorriren dut Magogen gainera, eta irletan gogoa zabalik beren egoitza egiten dutenen gainera; eta jakinen dute ni naizela Jauna.

7. Eta ezagutaraziren dut ene izen saindua Israelgo ene populuaren erdian, eta ez dut gehiago utziren laidoztatzera ene izen saindua; eta jendaiek jakinen dute ni naizela Jauna, Israelgo saindua.

8. Huna, heldu da: egina da, dio Jainko Jaunak; hau da nik aiphatu dudana eguna.

9. Eta Israelgo hirietarik atheraturen dire egoiliarak, eta sutan ezarriren dituzte eta herrautsiren harmak, erredola eta lantza, arranbela eta geziak, eskuetako makhilak eta sastakaiak, eta zazpi urthez bekietaz eginen dute su.

10. Eta bazterretarik ez dute ekharriren egurrik, eta ez dute ebakiren oihanetarik; zeren harmez eginen baitute sua; eta larruturen dituzte beren larrutzaileak, eta biluziren dituzte beren biluztaileak, dio Jainko Jaunak.

11. Eta egun hartan hau izanen da: Gogi Israelen emanen diot ehortz-lekhu aiphatu bat, itsasotik iguzki-alderat Iragaileen harana, zeinak harriaraziren baititu han iraganen direnak; eta han ehortziren dituzte Gog eta bore oste guzia, eta lekhu deithuko da Gogen ostearen harana.

12. Israelgo etxeak ehortziko ditu zazpi hilabetez, lurraren xahutzeko.

13. Eta lekhuo populu guziak ehortziko du Gog; eta eguna, zeintan ospaturen bainaiz, aiphu handitakoa izanen da hekien artean, dio Jainko Jaunak.

14. Eta ezarriko dituzte gizonak lekhuen ikhartzeko, lurraren gainean geldituen bilhatzeko eta ehortzeko, lurraren xahutzea gatik; eta zazpi hilabetheren buruan abiatuko dire bilhatzen.

15. Eta inguratuko dute kurrituz lurra; eta gizon hezur bat ikhusi duketenean, haren aldean landatuko dute ohartgailu bat, ehortzleek hura ehortz dezaten arteo Gogen ostearen haranean.

16. Hiriaren izena berriz, izanen da Amona, eta xahutuko dute lurra.

17. Hau da bada, gizasemea, Jainko Jaunak dioena: Errozute hegastin eta xori guziei, eta bazterretako basabere guziei: Hunat oro, higi zaitetze, laster egizue alde orotarik, ene bitima zuentzat imolatzan dudanera, Israelgo mendien gaineko bitima handira; jan dezazuen haragia eta edan odola.



18. Janen ditutzue hazkarren haragiak, eta edanen lurreko buruzagien odola; aharienak, bildotsenak, akherrenak, zezenenak, oiloenak eta azien- da gizen guzienak.

19. Eta nik zuentzat imolatuko dudan bitimatik janen duzue bilgorra ase arteo, eta odola edanen horditu arteo;

20. Eta ene mahainean aseko zarete zalditik eta zaldizko hazkarretik eta gerlako gizon guzietarik, dio Jainko Jaunak.

21. Eta jendaietan ezarriren dut ene ospea; eta jendaia guziek ikhusi- ren dute hekien gainean bethe dudan juiamendua, eta hekien gainean phausatu dudan eskua.

22. Eta Israelgo umeek jakinen dute ni naizela egun hartarik eta gero- rat hekien Jainko Jauna.

23. Eta jendaiek jakinen dute Israelgo umeak gathibu izan direla beren tzarkeria gatik, zeren bazterrerat utzi izan nauten, eta hekien ganik gorde izan dudan ene begithartea, eta arthiki ditudan etsaien eskura, eta guziak erori diren ezpataren azpira.

24. Egin izan diotet beren lohitasunaren eta beren gaixtakeriaren ara- bera, eta hekien ganik gorde dut ene begithartea.

25. Aria hortaz, hau dio Jainko Jaunak: Orai bihurraziren ditut Jakob en gathibuak, eta urrikalduren natzaio Israelgo etxe guziari; eta har- turen nau ene izen sainduarentzateko kharrak.

26. Eta jasanen dute beren ahalkea eta lege-hauste guziak, zeinetaz ene alderat hobendun egin baitire, beren lurrean egonen direnean des- kantsuz, nihoren beldurrik gabe;

27. Bihurraziti ditukedanean populuatarik, eta bilarazi beren etsaien lurretarik, eta hekien erdian sainduetsia izanen naizean, asko jendaien begietara.

28. Eta jakinen dute ni naizela hekien Jainko Jauna, zeren desherritu ditudan jendaietara, eta gero bildu beren lurrera, hekietarik han bat bak- harra utzi gabe.

29. Eta ez daroet gehiago ene begithartea gordeko, zeren Israelgo etxe guziaren gainera ixuriko baitut ene izpiritua, dio Jainko Jaunak.

## **XL. KAP.**

1. Gure desherripeneko hogoi eta bortzgarren urthean, urthe-has- tean, hilabethearen hamarrean, hiria eragotzia izan zenetik hamalagarren urthean; egun hartan berean Jaunaren eskua jarri zen ene gainean, eta eramane ninduen Jerusalemara.

2. Jainkoa ganikako ikhuspenez eramane ninduen Israelgo lurrera, eta utzi ninduen mendi guziz gora baten gainean, zeinaren gainean baitzen hiri molde bat bezala, hegoarat hedatzen zena.

3. Eta hartara sarrarazi ninduen; eta hara non zen gizon bat zeinaren begithartea argitzen baitzuen kobreak bezala; eta lihozko sokha bat bazuen esku batean, eta neurtzeko haga bat bertzean: eta athean zagoen xutik.

4. Eta gizon harek erran zarotan: Gizasemea, ikhusazu zure begiz eta adi zure beharritz, eta ezar zazu zure bihotza nik erakhutsiko darozkitzu- dan guzietan; zeren hunat erakharria izan baitzare, haukien zuri erakhus- teko: ikhusten ditutzun guziez jakintsun egizu Israelgo etxea.

5. Eta hara etxearen inguru guzian harrasi bat kanpoko aldetik; eta gizonak eskuan zadukan neurtzeko haga bat, sei beso eta zehe bat luze zena; eta neurtu zuen harrasiaren zabaltasuna, zeina baitzen haga bat, eta goratasuna ere haga bat.

6. Eta ethorri zen iguzki-aldera begiratzen zuen athera, eta hango mailetan gora igan zen; eta neurtu zuen athelasaren zabaltasuna haga bat, erran nahi da athelasak haga baten zabaltasuna zuela.

7. Eta neurtu zituen gelak haga bat luzara, eta haga bat zabalera; eta gelen artean bortz beso.

8. Eta arthelasak, etxe-sartzean, athearen barneko aldean, haga bat zuen.

9. Eta athe ondoko sartzea neurtu zuen zortzi beso, eta aitzinaldeak bi haga zituen; atheko sartzea berriz, barneko aldean zen.

10. Bada, atheko gelak iguzki-alderat, hirur ziren alde batetik eta hirur bertetik; eta neurri bat zuten hirurek, eta neurri bat aitzinaldeek, athearen bi aldeetan.

11. Eta neurtu zuen athelasaren zabaltasuna, hamar beso; eta athea- ren luzetasuna, hamahirur beso.

12. Eta gelen aitzinean neurtu zuen hegia, beso bat; eta beso bat zuen akhabantzak bi buruetan; gelak berriz, sei besokoak ziren bi aldeetara.

13. Eta neurtu zuen athea gela baten hegaztegitik bertzearen hegaz- tegiraino, hogoi eta bortz beso zabalera: athea athearen parrean zen.

14. Eta aitzinaldeak neurtu zituen hirur hogoi beso; eta aitzinalderat atheko lorioa atde orotarik inguruan.

15. Eta athe aitzinetik barneko athe-sartzearen aitzinera baziren berrogoi eta hamar beso.

16. Eta baziren getetan eta hekien aitzinaldeetan leiho zeherrak, zei- nak baitziren atheaz barnean alde orotarik inguruan; sartzeetan ere bazi-



ren orobat barnean leihoak inguruan, eta aitzinaldeetan palma-itxurak thinduz.

17. Eta eraman ninduen kanpoko ezkaratzera, eta hara gela batzu, eta harrizko lauzada bat lorioan inguru guzian; hogoi eta hamar gela ziren lauzadaren inguruan.

18. Eta lauzada athe aitzinetan beherago zen athren luzetasunaren arabera.

19. Eta neurtu zuen kanpotik zabaltasuna beheko athe aitzinetik, barneko ezkaratz aitzineraino, ehun beso iguzki-aldera eta ipharrera.

20. Kanpoko ezkaratzeko athea ipharrerat zagoena neurtu zuen halaber, bai luzara, bai-eta zabalera;

21. Eta hartako gelak, hirur alde batetik eta hirur bertzetik; eta haren aitzinaldea lehenbiziko athearen neurriaren arabera; eta haren berrogoi eta hamar beso luzara, eta hogoi eta borts zabalera.

22. Hartako leihoak berriz, eta sartzea eta bernuzadurak, iguzki-alderat zagoen athearen neurrikoak ziren; eta baziren zazpi mail haran igaiteko eta sartze bat aitzinean.

23. Eta barneko ezkaratzaren athea zen ipharreko athearen eta iguzki-aldekoaren parrean; eta neurtu zituen athe batetik bertze atheraino, ehun beso.

24. Eta eraman ninduen ipharreko aldera; eta hara athe bat hegoara zagoena, eta neurtu zituen haren aitzina eta haren sartzea goragoko neurrien arabera;

25. Eta haren leihoak eta sartzeak inguruan bertze leihoak bezala, berrogoi eta hamar beso luzara, eta hogoi eta borts beso zabalera.

26. Eta harat igaiteko baziren zazpi mail, eta sartzea athearen aitzinean zen; eta haren aitzinaldean baziren palma bernuzatuak, bat atde batetik, eta bertze bat bertzetik.

27. Eta barneko ezkaratzeko athea hegoarat zagoen; eta neurtu zuen athetik hegoaldeko athera, ehun beso.

28. Eta sarrarazi ninduen barneko ezkaratzean hegoaldeko athera; eta neurtu zuen athea, zeina baitzen goragokoen neurrien arabera.

29. Neurtu zituen hango gela, haren aitzinaldea eta sartzea, haren leihoak eta sartzea inguruan, zeinek baitzituzten neurri berak, berrogoi eta hamar beso luzara, eta hogoi eta borts beso zabalera.

30. Eta sartzeak inguruan hogoi eta borts beso zituen luzara eta borts beso zabalera.

31. Eta sartzea zihonan kanpoko ezkaratzera, eta palmak bazituen aitzinaldean, eta baziren zortzi mail harat igaiteko.

32. Eta barneko ezkaratzera sarrarazi ninduen iguzki-aldetik; eta neurtu zuen athea leheneko neurri beretan;

33. Gela, aitzinaldea eta sartzea, gorago bezala; leihoak eta sartzeak inguruan berrogoi eta hamar beso luzara, eta hogoi eta borts beso zabalera.

34. Eta neurtu zuen hango sartzea, erran nahi da kanpoko ezkaratzekoa; eta baziren palma bernuzatuak haren aitzinaldean, alde batetik eta bertzetik; eta harat igaiteko baziren zortzi mail.

35. Eta sarrarazi ninduen ipharrari begiratzen zuen athera, eta neurtu zuen, aitzinean erran diren neurri beretan.

36. Hango gelak, aitzinaldeak, sartzeak eta leihoek inguruan, berrogoi eta hamar beso zituzten luzara eta hogoi eta borts beso zabalera.

37. Eta hango sartzea kanpoko ezkaratzari zagoen; eta palma bernuzatuak baziren haren aitzinean alde batetik eta bertzetik, eta zortzi mail harat igaiteko.

38. Eta khutxategiko gelek aitzinaldean bazuten athe bana; han garbitzen ziren holokaustak.

39. Eta athe-sartzean baziren bi mahain, bat alde batetik eta bertze bertzetik, hekien gainean imolatzeko holokausta eta bekhatuarentzateko eta hobenarentzateko bitimak.

40. Eta kanpoko aldean, zeina igitzen baitzen ipharrerat dagoen athera, baziren bi mahain; eta bertze alderdian athe-sartzearen aitzinean, bertze bi mahain;

41. Lau mahain atde batean eta lau bertzean; athearen sahetsetan zortzi mahain, zeinen gainean imolatzeko baitzen.

42. Holokaustarentzateko lau mahainak berriz, lau izkinetako harriz ziren eginak; beso bat eta erdi luzara, beso bat eta erdi zabalera eta beso bat gorara zuten; eta hekien gainean ematen ziren holokausten eta bitimen imolatzeko tresnak.

43. Eta zehe batekoak ziren hekien ezpainak, inguruan barnera bilduak; eskaintzako haragiak berriz, mahainen gainean ezartzen ziren.

44. Eta barneko athearen kanpoko aldean ziren kantarien gelak barneko ezkaratzean, zeina baitzen ipharrera begiratzen zuen athearen sahetsean; eta hekien aitzina hegoara zagoen; iguzki-aldeko athearen sahetsetik batek ipharrari begiratzen zioen.

45. Eta gizonak erran zarodan: Hegoara dagoen gela hori da, tenplozain beilatzen egonen diren aphezena.

46. Ipharrera dagoen gela berriz, aldareko zerbitzuan dauden aphezentzat izanen da; horiek dire Sadoken semeak, Lebiren umeetarik Jaunaren gana hurbiltzen direnak, haren zerbitzatzeko.





47. Eta neurtu zuen ezkaratza ehun beso lusara eta ehun beso zabalera lau aldeatarik; eta aldarea tenploaren aitzinean.

48. Eta sarrarazi ninduen tenplo-sartzera, eta neurtu zuen sartzea bortz beso alde batera eta bortz beso bertzera, eta athearen zabaltasuna hirur beso alde batera eta hirur beso bertzera.

49. Lorioak berriz, hogoi beso zituen luzara eta hameka zabalera, eta zortzi mail gora igaiten zen hartara. Eta aitzinaldean baziren habeak, bat alde batetik, eta bertze bat bertzetik.

### XLI. KAP.

1. Eta sarrarazi ninduen tenploan, eta neurtu zituen aitzinak, zabale-  
ra sei beso alde batean eta sei beso bertzean, tabernaklearen zabaltasuna.

2. Eta athearen zabaltasuna zen hamar beso, eta athe-sahetsek bortz beso zituzten alde batean eta bortz beso bertzean. Eta neurtu zituen hango luzetasuna berrogoi beso eta zabaltasuna hogoi beso.

3. Eta barrera sarthurik neurtu zituen bi beso athe aitzinean, eta sei beso athearen goratasuna, eta zazpi beso zabaltasuna.

4. Eta neurtu zituen hango luzetasuna hogoi beso, eta hango zabaltasuna hogoi beso, tenploaren aitzinaldean; eta erran zarotan: Hau da sailduren saildua.

5. Eta neurtu zituen tenploaren harrasia sei beso, eta sahetsaren zabaltasuna lau beso alde orotarik tenploaren inguruan.

6. Sahetsak berriz, zauden sahetsez sahets, bi aldiz hogoi eta hamahirur; eta baziren muthur batzu tenploko harrasitik sahetsetara inguruan sartzen zirenak, hekien jasaiteko, tenploko harrasiari lothu gabe.

7. Eta lekhu bat bazen birundaka, goiti igaiten zena karakoilka mail bat gora, eta inguruka eramaten zuen tenploko salhara; hargatik tenploa zabalago zen gainez; eta horrela beheretik gainera igaiten zen arteko selharua gaindi.

8. Eta ikhusi nuen tenploraren gainaldea inguruan: sahetsen asentuek bazuten sei besotako haga baten neurria.

9. Eta kanpoko harrasiaren zabaltasuna sahets guzietan bortz besokoa zen, eta barneko etxea, etxe-sahetsen barnean zen.

10. Eta tenploaren inguruan alde orotarik eta gelen artean bazen hogoi besoren zabaltasuna.

11. Eta sahetsen atheak othoitzeko lekhuza zauden, batzu ipharrera eta bertzeak hegoara; eta othoitzeko lekhuaren zabaltasuna bortz besokoa zen inguruan.

12. Eta leihor bereziak, itsas-alderako bideari zagoenak, bazituen hirur hogoi eta hamar beso zabalera; leihorraren inguruko harrasiak berriz, bortz beso zituen zabalera, eta lau hogoi eta hamar beso luzara.

13. Eta neurtu zuen etxearen luzetasuna ehun beso; eta berezia zen leihorrek eta haren harrasiek ehun beso zituzten luzara.

14. Tenploaren aitzinean berriz, eta leihor berezaren aitzinean, iguzki-alderat, zabaltasuna ehun beso zen.

15. Eta neurtu zituen tenploaren luzetasuna, gibeletik zuen leihor berezaren parrean, kanpoko lorioak, barneko tenploa eta ezkaratz-sartzeak, ehun beso.

16. Neurtu zituen atheak, leiho zeherrak, eta inguruan hirur alderarik ziren lorioak, athe bakhotxaren parrean eta inguruan zurez dornatua zen guzia. Lurra berriz, leihoetaraino zihoan, eta atheen gaineko aldean leihoak hertsia ziren;

17. Eta barneko etxeraino eta kanpoko harrasi guzian inguruan barretik eta kanpotik, oro neurri berean.

18. Eta baziren kerubin eta palma lanthuak, palma kerubin bakhotxaren artean, eta kerubin bakhotxak bi begitharte zituen.

19. Alde batetik gizon begitharte bat palmara itzulia, eta bertzetik lehoin begitharte bat bertze palmari buruz, eta hori etxe guzian inguru-inguru.

20. Kerubinak eta palmak tenploko harrasian bernuzatuak ziren lurretik athe gainen heineraino.

21. Tenploko athea kadroa zen; eta saildutegiaren aitzindegia parrez par tenploaren aitzindegiarekin.

22. Zurezko aldaeraren goratasuna zen hirur beso, luzetasuna bi beso; haren izkinak, gaina eta alderdiak zurezkoak ziren. Eta gizonak erran zarotan: Hau da Jaunaren aitzineko mahaina.

23. Eta athe bikhunak ziren tenploan eta saildutegian.

24. Eta bi atherdiek bazituzten alde bakhotxean atherdie bikhunak, zeinen alderdiak bata bertzearen gainera hersten baitziren, ezen bikhunak ziren atherdie bakhotxeko atherdieak.

25. Eta tenploko atheetan beretan baziren kerubinak, eta palma bernuzatuak ere, harrasietan bezala; hargatik lodiagoak ziren zurak lorio aitzinean kanpoko aldetik.

26. Hekien gaineko aldean ziren leiho zeherrak; eta palma-itxurak alde bakhotxetik lorioko habeetan, hala-nola tenploaren sahetsetan eta harrasien hedaduran.



## XLII. KAP.

1. Eta gizonak eraman ninduen kanpoko ezkaratzera, ipharrera darman bideaz, eta sarrarazi ninduen khutxategian, zeina baita leihor berezaren parrean, eta ipharrera dagoen etxearen parrean.

2. Aitzinaldean bazuen, ipharreko atletik hasirik, ehun besoren luzetasuna; eta zabaltasuna zuen berrogoi eta hamar beso.

3. Barneko lorio hogoi besotakoaren parrean zen eta kanpoko ezkaratz harriz lauzatuaren parrean, zeintan baitzen lorio, bertze hirur lorioei iratxikitzen zena.

4. Eta gelen aitzinean bazen hamar beso zabal zen ibiltoki bat, barneetara zagoena, beso bateko bide bati buruz, eta hekien atheek ipharrari begiratzen zioten.

5. Gelak ziren tokian, gainekoak ziren aphalenak, jasanak zirelako lorioez, zeinek hekietarik kanporat egiten baitzuten, behereko eta arteko selharuetarik iraganez.

6. Ezik baziren hirur selharu, eta etzuten lorioek bezalako haberik; aria hortaz habeak igaiten ziren behereko eta arteko selharuak gaindi, lurretik berrogoi eta hamar beso gora.

7. Eta kanpoko ezkaratzera begira zauden gelen inguruko herskura kanpokoak, gelen aitzinean bazuen berrogoi eta hamar besoren luzetasuna;

8. Zeren kanpoko ezkaratzeko gelen luzetasuna berrogoi eta hamar beso baitzen; eta luzetasuna ehun beso zen tenploaren aitzinean.

9. Eta gela hekien azpian bazen iguzki-aldeetik sartze bat, kanpoko ezkaratzetik harat sartzen zirentzat.

10. Iguzki-aldeko bidearen parrean zen ezkaratzeko herskuraren zabaltasunean baziren gelak, leihor berezaren aitzinean, eta leihorraren aitzinean.

11. Eta hekien aitzinean bazen bide bat, ipharreko alderdiko gelek zuten bezala; luzetasun bera zuten bezala, zabaltasuna ere bardina zuten, eta sartzeak ere, eta moldeak, eta atheek.

12. Hegoara zagoen bidearen gainean ziren geletako atheen iduriko athe bat bazen bide buruai, sartze bereziaren aitzinean baitzen bide hura, iguzki-aldeko bidetik sartzen zirentzat.

13. Eta gizonak erran zarotan: Leihor berezaren aitzinean diren ipharreko gelak eta hegoako gelak, horiek dire gela sailduak, zeinetan janen baitute, saildutegian Jaunari hurbiltzen diren aphezek; hor ezarriren dituzte sailduren saildua, eta bekhatuarentzateko eskaintza eta hobearantzatekoa; ezen lekhu saildua da.

14. Aphezak berriz, sarthu ditazkeenean, ez dire kanpoko ezkaratzera ilkhiko lekhu saildutik, eta han utziko dituzte soinekoak, zeinekin egiten baitute beren zerbitzua, saildu direlako; eta jauntziko dituzte bertze soinekoak, eta hala atherako dire populuaren gana.

15. Eta gizonak akhabatu zuenean barneko etxearen neurtzea, ilkhiaz ninduen iguzki-alderat zagoen ateko bideaz, eta hura neurtu zuen atde orotarik inguruan.

16. Neurtzeko hazag neurtu zuen beraz iguzki-haizera zagoen alderdia, bortz ehun haga, neurtzeko hazag inguruan.

17. Eta neurtu zuen ipharrerat zagoen aldea, bortz ehun haga, neurtzeko hazag inguruan.

18. Eta neurtu zuen hegoara zagoen aldea, bortz ehun haga, neurtzeko hazag inguruan.

19. Eta neurtu zuen mendebalera zagoen aldea, bortz ehun haga, neurtzeko hazag inguruan.

20. Lau haizeetarik neurtu zuen haren harrasia alde orotarik inguruan, bortz ehun beso luzara, eta bortz ehun beso zabalera; harrasi hura baitzen saildutegia berezten zuena populuarentzateko lekhitik.

## XLIII. KAP.

1. Eta eraman ninduen iguzki-alderat zagoen athera;

2. Eta hara Israelgo Jainkoaren ospea iguzki-aldeetik sartzen zela; eta haren harrabotsa zen ur-uharren harrabotsa bezala, eta lurra argitua zen haren maiestateaz.

3. Eta hiriaren xahutzera ethorri zenean bezalako ikhuspen bat izatu nuen, eta Koborreko hibaiaren bazterrean ikhusi bezalakoa; eta ahuspeka erori nintzen.

4. Eta Jaunaren maiestatea tenploan sarthu zen iguzki-alderako atletik.

5. Eta izpirituak altxatu ninduen eta barneko ezkaratzean sarrarazi; eta hara etxe guzian Jaunaren ospez bethea zela.

6. Eta aditu nuen niri etxetik mintzatzin; eta ene aldean xutik zen gizonak

7. Erran zarotan: Gizasemea, hau da ene tronuaren lekhu, eta ene oinetako hatzen tokia, zeintan egonen bainaiz bethi guzian Israelgo umeen erdian; eta Israelgo etxeak ez du gehiago lohituko ene izen saildua, ez berak ez-eta beren erregeek beren khutsapenez, eta beren erregeen gorputz hilez, eta beren lekhu gorez.

8. Hekiek beren athea egin dituzte ene athearen ondoan, eta beren habeak ene haben aldean; eta harrasi bat zen hekien eta ene artean; eta



ene izen saildua lohitu dute egin dituzten izigarrikeriez; aria hortaz xahutu ditut ene hasarrean.

9. Orai beraz ene ganik urrun hastan betzazte beren khutsapenak eta beren erregeen gorphutzak, eta hekien erdian eginen dut bethi ene egoitza.

10. Zuk berriz, gizasemea, Israelgo etxeari erakhotsozu tenploa; eta ahalka beitez beren gaizkiez, eta har betzazte hunen moldearen neurriak.

11. Eta gorri beitez egin dituzten guziez. Eta erakhotsotzute etxearen itxura eta moldea, sar-ilkhiak eta xehetasun guzia, eta arrimuak oro, eta huntako legeak; eta iskriba zatzu hekien aitzinean, begira detzazten eta obra huntako xehatzapen eta manamenduak.

12. Hau da mendi gaineko tenploaren legea: hunen eremu guzia inguruan guziz saildu izanen da; hori da beraz etxearentzateko legea.

13. Bada, huna aldarearen neurriak neurri zinenaz, zeinak baitzuen beso bat eta zehe bat: haren sabelak bazuen beso bat, eta zabal zen beso batez, eta akhabantzak ezpaineraino eta inguruan bazuen zehe bat. Horra beraz nolakoa zen aldarearen erreka.

14. Eta behereko lurretik bazter aphileneraino bi beso, eta zabalatsuna beso bat; eta bazter xumeenetik handieneraino lau beso, eta zabalatsuna beso bat.

15. Arielek berriz, berak bazituen lau beso; Arieletik goiti baziren lau adar.

16. Arielek bazituen hamabi beso luzara eta hamabi beso zabalera; lau izkinetakoa zen sahets bardinekin.

17. Haren hegiak bazituen hamalau beso luzara, eta hamalau beso zabalera lau izkinetan; eta khoroak inguruan bazuen beso erdi bat, eta haren sabelak beso bat inguruan. Hartako mailak berriz, iguzki-aldera ziren itzuliak.

18. Eta gizonak erran zarotan: Gizasemea, hau dio Jainko Jaunak: Edozein egunez egin dadien aldarea, huna hortako zeremoniak, horren gainean holokausta izan dadien eskainia eta odola ixuria.

19. Eta emanen daroetzetzu Sadoken odoletikako aphez eta lebitar ene gana hurbiltzen direnei, arthaldetikako aratxe bat eskain diazatedan bekhatuarentzat.

20. Eta haren odoletik harturik, ezarriko duzu aldarearen lau adarretan, eta bazterraren lau izkinetan, eta khoroaren gainean inguruan, eta xahutuko eta sailduetsiko duzu aldarea.

21. Eta eramanen duzu bekhatuarentzat eskainirikako aratxea, eta erreko duzu saildutegitik kanpo, tenploko lekhu berezi batean.

22. Eta bigarren egunean eskainiko duzu bekhatuarentzat akher bat narriogabea; eta xahutuko dute aldarea, aratxeaz xahutua izan den bezala.

23. Eta xahupena akhabatu dukezunean, eskainiren ditutzu abereetarikako aratxe narriogabe bat eta arthaldetikako ahari narriogabe bat.

24. Eta hekiek eskainiren ditutzu Jaunaren aitzinean; eta aphezek gainera ixuriko diote gatza, eta Jaunari eskainiko diozkate holokaustetan.

25. Zazpi egunez, egun oro bekhatuarentzat eskainiko duzu akherria; eta abereetarik aratxea eta ardiatarik aharia eskainiko dituzte narriogabeak.

26. Zazpi egunez xahutuko eta garbituko dute aldarea, eta eskaintzaz estaliko dute.

27. Berriz, zazpi egunak bethe ondoan, zortzigarrenean eta handik harat, aphezek aldarearen gainean eginen dituzte zuen holokaustak, eta bakearentzat eskaintzen diren bitimak; eta jabaldua izanen naiz zuen alderat, dio Jainko Jaunak.

#### XLIV. KAP.

1. Eta itzularazi ninduen kanpoko saildutegiko athearen alderat, zeina iguzki-haizerat baitzagoen eta hertsia baitzen.

2. Eta Jaunak erran zarotan: Athe hori hertsia egonen da; ez da idekiko, eta nihor ez da hortarik iraganen; zeren hortarik den sarthu Israelgo Jainko Jauna, eta hertsia egonen da

3. Printzearentzat. Printzea hortan jarriko da, Jaunaren aitzinean ogiaren jateko; lorioko atheko bidez sarthuko eta hartaz beraz ilkhiko da.

4. Eta eraman ninduen ipharreko atheko bidez tenploaren aitzinera; eta ikhusi nuen, eta hara Jaunaren ospreak bethe zuela Jaunaren etxea; eta erori nintzen ahuspeka.

5. Eta Jaunak erran zarotan: Gizasemea, emazu bihotza, eta ikhusazu zure begiez, eta zure beharriez entzun zazu nik erraten darotzudan guzia Jaunaren etxeko zeremonia guziez eta lege guziez; eta emazu zure bihotz guzia tenploko bideetan eta saildutegitikako ilkhitzeetan.

6. Eta ene samurrazten hari den Israelgo etxeari errozu: Hau dio Jainko Jaunak: Israelgo etxea, zuen gaizki guziak aski izan bekizkitzue;

7. Ezen sarrarazi ditutzue arrotzak, bihotzez eta haragiz ingurebakigabeak, egon zitezene ene saildutegian eta lohi zezaten ene etxea; eta eskaintzen ditutzue ene ogiak, bilgorra eta odola, eta zuen tzarkeria guziez hausten duzue enekilako patua.



8. Eta ez ditutzue begirutzen ene saindute-giko manamenduak, eta ene saindute-gian begiratzeko eman ditudan legeen zainak ezarri ditutzue zuen burutarik.

9. Hau dio Jainko Jaunak: Edozein arrotz, bihotzez eta haragiz ingurubakigabea denik; edozein arrotz seme, Israelgo umeen artean dagoenik, ez da ene saindute-gian sarthuren.

10. Lebitarrak ere, ene ganik urrundu direnak Israelgo umeen mak-hurrean, eta ene ganik zeihertu direnak beren jainkomoldeen ondotik, eta beren gaizkia jasan dutenak,

11. Ene saindute-gian izanen dire khutzazain, athalzain, eta etxeko zerbitzari; hekiek hilen dituzte holokaustetako abereak eta populua-ren bitimak; eta populua-ren aitzinean egonen dire, haren zerbitzatzeko.

12. Hura zerbitzatu dutelako bere jainkomoldeen aitzinean, eta Israelgo etxearentzat egin direlako gaizkirako behaztopagailu, hargatik altxatu dut ene eskua hekien gainera, dio Jainko Jaunak, eta jasanen dute beren gaizkia.

13. Eta ez dire ene gana hurbilduren aphez-tasuneko eginbideen niri bihurtzeko, eta sailduren sailduaren ondoan diren ene saildute-gie-i ez dire hurbilduren; baina jasanen dituzte beren ahalkea eta egin dituzten tzarkeriak.

14. Eta emanen ditut tenploko athalzain, tenploko zerbitzu guzietan eta han egiten diren orotan.

15. Aldiz, aphez eta lebitar Sadoken umeak, ene saindute-giko zere-moniak begiratu dituztenak, noiz-etare Israelgo semeak ene ganik mak-hurtzen baitziren, hekiek hurbilduren dire ene gana, ene zerbitzatzeko; eta ene aitzinean egonen dire, bilgorraren eta odolaren niri eskaintzeko, dio Jainko Jaunak.

16. Hekiek sarthuko dire ene saindute-gian, eta hekiek hurbilduko dire ene mahainetik ene zerbitzatzeko eta ene zeremonien begiratzeko.

17. Eta barneko ezkaratzeko atheetan sarthuko direnean, lihozko soi-nekoak jauntziko dituzte; eta ilezkorik ez dute batere ezarriko, barneko ezkaratzeko atheetan eta barnean zerbitzua egitean.

18. Lihozko xerrendak izanen dituzte buruan, eta lihozko galtzak soi-nean, eta ez dute izertzeko jaunzkurarik izanen.

19. Eta kanpoko ezkaratzera populua-ren gana ilkhiko direnean, aldatuko dituzte soinekoak zeinekin zerbitzatu baitute, eta utziko dituzte saildute-giko khutzategian, eta bertze soinekoak jauntziko dituzte, eta ez dute populua sailduetsiko beren barneko soinekoekin.

20. Burua berriz, ez dute murriztuko, ez-eta ile guzia haziko; baina noizetik noizera laburtuko dute.

21. Eta aphezetarik nihork ez du arnorik edanen barneko ezkaratzera sartzekoa denean.

22. Eta ez dute ez alhargunik, ez bertzeek utzi emazterik hartuko, baina-bai Israelgo etxeko odoletikako neskatxa gazteak; har dezakete ordean aphez baten ganik alhargundua den alharguna.

23. Eta ene populuari irakhatsiko diote zer den saildu eta zer khutsatu; eta erakhutsiko diote zer den xahu eta zer lohi.

24. Eta zerbait makhur izanen denean, begiratu dire ene juiamen-duei eta juiatuko dute. Ene legeak eta manamenduak idukiko dituzte ene besta-buru guzietan, eta sailduetsiko dituzte ene larunbatak.

25. Ez dire sarthuko gizon hil bat den tokira, lohi ditezen beldurrez, non ez duten aita edo ama, semea edo alaba, anaia edo arreba bigarren senharrik izan ez dukeena; bertzela khutsa laizteke.

26. Eta sarthu dena xahutu den ondoan, khondatuko diozkate zazpi egun.

27. Eta ene saindute-gian barneko ezkaratzera sarthuko den egunean, ene zerbitzatzeko saildute-gian, eskaintza bat bere bekhatuarentzat eginen du, dio Jainko Jaunak.

28. Berriz, ez dute primantzarik izanen, ni naiz hekien primantza; eta ontasunik ez diozute emanen Israelen, ezen ni haiz hekien ontasuna.

29. Bekhatuarentzateko bitima eta hobenarentzatekoa janen dituzte, eta Israelen egiten diren botu guziak hekientzat izanen dire.

30. Lehen-sorthu guzien pikainak, eta egiten diren eskaintza guzietarik libazioneak aphezentzat izanen dire; eta zuen jatekoen pikainak ere aphezari emanen diozkatzue, benedizioea jautsaraz dezan zuen etxeen gainera.

31. Ez hilikitik, ez ihiziek atzeman hegastin edo aberetik batere ez dute janen aphezek.

#### XLV. KAP.

1. Eta zorthera lurraren phartitzen hasiko zaretenean, berez diozotzue Jaunari pikainak, lurretik lekhu sailduetsi bat, hogoi eta bortz mila haga luzara eta hamar mila zabalera; sailduetsia izanen da bere eremu guzian inguru inguru.

2. Eta aurkhintza guzitik sailduetsia izanen da zathi bat, bortz ehun haga lau aldeetara izanen dituena inguruan, eta berrogoi eta hamar beso hiripeentzat itzulian.



3. Neurri hortaz neurtuko ditutzu hogoi eta bortz mila hagaren luzetasuna eta hamar milen zabaltasuna, eta han izanen dire tenploa eta sainduren saildua.

4. Lurretik sailduetsi eremua izanen da saildutegian zerbitzatzen eta Jauna gana hurbiltzen diren aphezentzat; eta lekhu hura hekien etxeentzat eta saildutegiarentzat izanen da.

5. Berriz, tenploan zerbitzatzen diren lebitarrentzat izanen da hogoi eta bortz mila hagaren luzetasuna eta hamar milen zabaltasuna; hekiek izanen dituzte tenploan hogoi gela.

6. Eta hiriaren eremua ezarriko duzue, bortz mila haga zabal eta hogoi eta bortz mila luze, saildutegiarentzateko berezkuntzaren arabera, Israelgo etxe guziarentzat.

7. Printzearentzat ere ezarriko duzue zathia buru batean eta ber-tzean, saildutegiarentzateko berezkuntzaren eta hiritokiaren bazterraz, saildutegiarentzateko berezkuntzaren eta hiri-tokiaren parrean, itsas hegi batetik bertzera, eta iguzki-aldeetik iguzki-aldera; haren zathiaren luzetasuna berriz, bertze zathi bakhoxaren arabera, mendebaleko mugatik iguzki-aldeko mugara.

8. Israelen izanen du lurretik bere zathia; eta printzeek ez dute gehi-go larruturen ene populua, bainan lurra emanen diote Israelgo etxeari, zeini bere leinuaren arabera.

9. Hau dio Jainko Jaunak: Aski izan bekizue, Israelgo printzeak; uzkitzue zuen tzarkeria eta harrapakeriak; zuzentasunean eta zuzenbidean ibil zaitezte; berez zatzue zuen eremuak ene populua lurretarik, dio Jainko Jaunak.

10. Zuen balantza, ephia eta batoa zuzenak izanen dire.

11. Ephia eta batoa bardinak eta neurri batekoak izanen dire; batoak iduk dezan koroaren hamargarrena, eta ephiak halaber koroaren hamargarrena; koroaren neurriaren arabera bardina izanen da hekien hazta.

12. Sikloak berriz, hogoi obola ditu. Bada, hogoi siklok, eta hogoi eta bortz siklok, eta hamabortz siklok mina bat egiten dute.

13. Haukiek dire ekharriko dituzten pikainak: ephiaren seigarrena koro ogitik, eta ephiaren seigarrena koro garagarretik.

14. Olioaren neurria ere, bato olio, koroaren hamargarrena da; eta hamar batok koro bat egiten dute, zeren hamar batok koroa bethetzen baitute.

15. Eta ahari bat emanen da berrehun burutako arthaldetik, Israeliek hazten dituenetarik, sakrifizioko, holokaustako eta bakezko bitimetako, Israelgo etxearentzat garbitzeko bekhatua, dio Jaunak.

16. Lurreko populu guziak pikain horiek zor izanen diozka Israelgo buruzagiari.

17. Eta buruzagiaten gain izanen dire holokausta, sakrifizio, libazio-neak besta-buruetan, hilabete-lehenetan, larunbatetan eta Israelgo etxearen besta-buru guzietan; berak eskainiko ditu bekhatuarentzat sakrifizioa; holokausta eta bitima bakezkoak, Israelgo etxearentzat xahupenaren egiteko.

18. Hau dio Jainko Jaunak: Lehenbiziko hilabetean, lehengo egunean, aratxe narriogabe bat hartuko duzue arthaldetik, eta xahutuko duzue saildutegia.

19. Eta aphezak hartuko du bekhatuarentzat izanen den odoletik, eta ezarriko tenploko atheen habeetan, aldareko bazterren lau izkinetan, eta barneko ezkaratzeko athearen habeetan.

20. Eta orobat eginen duzue hilabetearen zazpian, jakin gabez edo enganaturik huts egin duenarentzat, eta eginen duzue tenploaren xahupena.

21. Lehenbiziko hilabetean, eta hamalagarren egunean izanen duzue Bazko-besta; airisak janen dire zazpi egunez.

22. Eta egun hartan buruzagiak eginen du beretzat eta lurreko populu guziarentzat aratxe baten sakrifizioa bekhatuarentzat.

23. Eta zazpi egunetako besta-buruan, Jaunari eskainiren diozka holokaustetan zazpi aratxe eta zazpi ahari narriogabeak, egun oroz zazpi egunez; eta bekhatuarentzat akher bat egun oroz.

24. Eta aratxe bakhoxka eskainiren du ephi bat irin, eta bertze ephi bat ahari bakhoxka, eta hin bat olio ephi bakhoxka.

25. Zazpigarren hilabetean, hamabortzgarren egunean, besta-buruan, zazpi egunez eginen ditu gorago erranak, hala bekhatuarentzat, nola holokaustarentzat, sakrifizioarentzat eta olioarentzat.

#### XLVI. KAP.

1. Hau dio Jainko Jaunak: Barneko ezkaratzeko athe iguzki-aldera dagoena hertsia egonen da laneko sei egunetan, bainan idekiko da larunbatetan; eta hilabete-lehenetan ere idekiko da.

2. Eta kanpoko ateko sartzetik ethorriren da printzea, eta athelasean da geldituren; eta aphezak harentzat eskainiren dituzte holokausta eta bakezko bitimak; eta athelasean egonen da adoran, eta ilkhiren da; athea berriz, arratseraino ez da hertsiren.

3. Eta lurreko populuak ere athe haren aitzinean adoretaren du Jauna larunbatetan eta hilabete-lehenetan.



4. Printzeak berriz, holokausta hau eskainiren dio Jaunari: larunbatan, sei bildots narriogabe, eta ahari narriogabe bat,
5. Eta ephiaren eskaintza ahariko; bildotsentzat berriz, berari iduritzen zaioena, eta hin bat olio ephi baxhotxarentzat.
6. Aldiz, hilabete-lehenetan, izanen dire abereetarik aratxe bat not-hagabea, eta sei bildots, eta sei ahari narriogabe;
7. Eta eginen du ephi baten eskaintza aratxeko, eta ephi batena halaber ahariko; bildotseko berriz, eskura heldu zaioena, eta hin bat olio ephiko.
8. Eta printzea ethortzekoa denean, sar bedi iguzki-aldeko athe-sartzetik, eta handik beretik ilkhi.
9. Eta besta-buruetan, lurreko populua Jaunaren aitzinera ethorriko denean, adoratzera ipharreko athetik sartzen dena, ilkhi bedi hegoako athetik; berriz, hegoako athetik sartzen dena, ilkhi bedi ipharraldeko athetik; ez bedi bihur sarthu den atheko bidez, baina haren parrekoaz ilkhi bedi.
10. Printzea berriz, hekien erdian, sartzen direnekin sarthuko da, eta ilkhitzen direnekin ilkhiko.
11. Eta ferietan eta besta-buruetan, eginen da ephi baten eskaintza aratxeko eta ephi batena ahariko; bildotseko berriz, eskaintza izanen da eskura heldu dena; eta hin bat olio ephiko.
12. Aldiz, printzeak bere oldetara Jaunari eskainiko dituenean holokausta edo bakezko bitimak, idekiko zaio iguzki-aldera. dagoen athea; eskainiko ditu bere holokausta eta bakezko bitimak, larunbat-egunean egiten ohi diren bezala; eta ilkhiko da, eta ilkhi den ondoan athea hertsiko da.
13. Eta Jaunari egun oroz eginen dio urthe bereko bildots narriogabe baten eskaintza; hori goizean eginen du bethi.
14. Eta bildotsarekilako, goiz oroz eginen du ephi baten seigarrenaren eskaintza, eta oliotik hinaren hirugarrena, irinarekin nahastekatzeko; hori da Jaunari zor zaioen egun orozko eta bethirainoko sakrifizioa.
15. Eskainiren ditu beraz bildotsa, sakrifizioa eta olio goiz oroz, bethirainoko holokausta.
16. Hau dio Jainko Jaunak: Printzeak bere semeetarik bati egiten badio emaitza bat, hunentzat eta hunen semeentzat izanen da primantzetan, eta ondoregoz gozaturen dute.
17. Emaitza ordean, bere primantzatik egiten badu bere zerbitzarietarik bati, hainarena izanen da bihurpeneko urthea dino, eta printzeari bihurturen zaio; hunen ondoregoa berriz, hunen haurrena izanen da.

18. Buruzagiak ez du bortxaka populuaren primantzatik eta izanetik hartuko; baina bere izanetik primantzak eginen daroezte bere semeei, ene populuan nihor izan ez dadien bere ontasunetik khendua.

19. Eta athearen aldean zen sarbide batetik sarrarazi ninduen saildu-tegiko aphezen gela, ipharrari zaudenetara; eta han bazen toki bat men-debalerat itzulia.

20. Eta erran zarotan: Hau da tokia zeintan aphezek erreko baitituzte bekhatuarentzateko eta hobenarentzateko bitimak; zeintan erretzen baitute sakrifizioa, ez detzaten eraman kanpoko ezkaratzera, eta populua ez dadien sailduets.

21. Eta eraman ninduen kanpoko ezkaratzera, eta ingurarazi zarozkidan ezkaratzaren lau zokhoak; eta hara ezkaratz zokhoan bazela ezkaratzto bat, ezkaratzto baxhotxa ezkaratz zokho baxhotxean.

22. Lau ezkaratz zokhoetan xuxenduak ziren ezkaratztoek bazuten berrogoi beso luzara eta hogoi eta hamar zabalera; lauak neurri batekoak ziren.

23. Eta bazen harrasi bat lau ezkaratztoak inguratzen zituena birundan; eta sukhaldeak baziren lorio-azpitan eginak inguruan.

24. Eta erran zarotan: Hau da sukhaldegia zeintan Jaunaren etxeko zerbitzariak errearaziko baitituzte populuaren bitimak.

#### XLVII. KAP.

1. Eta bihurrazazi ninduen tenploko athera, eta hara ur batzu ilkhitzen zirela etxeko athelasaren-petik iguzki-aldera; ezen etxe aitzinak iguzki-sortzeari begiratzen zioen. Urak berriz, tenploaren eskuineko alderdira jausten ziren, aldarearen hegoaldera.

2. Eta ipharreko athetik ilkhiazazi ninduen eta itzularazi ninduen kanpoko athetik haratago zen bidez iguzki-aldeari begira zagoen bidera; eta hara eskuineko alderditik urak fharrastan heldu zirela.

3. Gizonak, iguzki-aldera goatean, eskuan bazuen sokha bat, eta neurtu zituen mila beso; eta eraman ninduen ura gaindi, zeina bainuen haxoineraino.

4. Eta neurtu zituen berriz, mila beso, eta eraman ninduen ura gaindi, zeina bainuen belhauneraino.

5. Eta neurtu zituen bertze mila beso, eta eraman ninduen ura gaindi, zeina bainuen gerriraino. Eta neurtu zituen oraino mila beso, uhar bat ezin iragan nuena, zeren urak hantu baitziren uhar barna hartan, ezin iragan baitzitakeen oinez.



6. Eta erran zarotan: Gizasemea, ongi ikhusi duzu. Eta eraman eta uharraren bazterrera bihurrarazi ninduen.

7. Eta itzuli nintzenean, hara uharraren hegian bi aldeetarik nihone-reko zuhamuketa.

8. Eta erran zarotan: Iguzki-aldeko legar-murruetara ilkhitzen eta mortuko zelhaietara jausten diren ur horiek itsasoan sarthuko dire, eta ilkhiko dire, eta urak gezatuak izanen dire.

9. Eta nora-nahi goan dadien uharra, edozein azienda bizi herrestatzen denik, biziko da, eta ur horiek sartzen diren tokietan izanen da arrain asko, eta uharra ethortzen zaioten guziak sasualduko eta biziko dire.

10. Eta arrantzariak ur horien gainean egonen dire; Engaditik Engalimera zare idorlekhu bat izanen da. Asko arrain mota izanen da elemeniaka, itsaso handian bezala.

11. Bainan horren bazterretan eta aintziretan, urak ez dire gezatuko, zeren gaztegitzat emanak izanen baitire.

12. Eta uharraren hegieta bi aldeetarik sorthuko da zer-nahi zuhaitz fruitudun; hekien hostoa ez da eroriko, eta fruitua etzaiote eskastuko; hilabete oroz ekharriko dute berria, zeren horgo urak saildutegitik ilkhitzen baitire; eta hekien fruituak izanen dire hazkurritzat eta hostoak sendakaritzat.

13. Hau dio Jainko Jaunak: Hori da muga zeinaren barnean Israelgo hamabi leinuek gozatuko baituzue lurra; ezen Josepek zathi bikhuna du.

14. Bada, gozatuko duzue, baxhotxak bardin bere anaiak bezala, lur hori zeinaren gainean altxatu baitut eskua, zuen arbasoei emanen niotela; eta lur hori eroriko zaitzue gozamenetara.

15. Haukiek dire, berriz, lur hortako mugak: ipharreko ephaitzara, itsaso handitik Hethalongo bidea, Sedadara goatean,

16. Emathera, Berothara, Sabarimera, zeina baita Damasko mugaren gainean eta Ematheko mugakide, Tikongo etxera, zeina baita Aurango mugaren ondoan.

17. Eta muga izanen da itsasotik Enongo korralera, zeina baita Damasko muga; eta ipharretik ipharrera, Emath izanen da muga ipharreko aurkhintzan.

18. Aldiz iguzki-aldeko alderdia izanen da Aurango erditik, Damasko erditik, Galaadeko erditik eta Israelgo lurraren erditik, Jordanea delarik muga iguzki-aldeko itsasoraino: neurtuko duzue halaber iguzki-aldeko aurkhintza.

19. Hegoaldeko aurkhintza berriz, izanen da Thamarretik Kadeseke Jazargoako uretaraino, eta errekez itsaso handiraino; eta hori da hegoarik hegoaldeko aurkhintza.

20. Eta itsasoko aurkhintza izanen da itsaso handia xuxenka buru batetik Emathera ethorri arteo; hori da itsasoko aurkhintza.

21. Eta lur hori zuen arthean zathituko duzue, Israelgo leinuen arbera;

22. Eta primantzetan hartuko duzue zuentzat, eta zuetara bilduko eta zuen artean haurrak izanen dituzten arrotzentzat; eta haukiek izanen zaizkitzue hala-nola tokikoak Israelgo umeen artean; zuekin zathituko dute lurra Israelgo leinuen erdian.

23. Aldiz, edozein leinutan gertha dadien arrotza, han emanen diozue, bere zathia, dio Jainko Jaunak.

### XLVIII. KAP.

1. Haukiek dire leinuen izenak ipharreko mugetarik, Hethalongo bidez Emathera goatean; Enango korrala izanen da Damasko muga ipharrerat Ematherako bidez; eta handik iguzki-aldeetikako aurkhintza itsasoraino izanen da lehenbiziko zathia, Danentzat.

2. Bertze zathi bat Danen muga gainean, iguzki-aldeetikako aurkhintzatik itsasoko aurkhintzaraino, Aserrentzat.

3. Bertze zathi bat Aserren muga gainean, iguzki-aldeetikako aurkhintzatik itsasoko aurkhintzaraino, Nefthalirentzat.

4. Bertze zathi bat Nefthaliren muga gainean, iguzki-aldeetikako aurkhintzatik itsasoko aurkhintzaraino, Manaserentzat.

5. Bertze zathi bat Manaseren muga gainean, iguzki-aldeetikako aurkhintzatik itsasoko aurkhintzaraino, Efraimentzat.

6. Bertze zathi bat Efraimen muga gainean, iguzki-aldeetikako aurkhintzatik itsasoko aurkhintzaraino, Errubenentzat.

7. Bertze zathi bat Errubenen muga gainean, iguzki-aldeetikako aurkhintzatik itsasoko aurkhintzaraino, Judarentzat.

8. Eta Judaren muga gainean, iguzki-aldeetikako aurkhintzatik itsasoko aurkhintzaraino izanen dire pikainak, zeinak bereziko baitituzte hogoi eta bortz milaren luzetasunean eta zabaltasunean, bertze zathi guziak bezala iguzki-aldeetikako aurkhintzatik itsasoko aurkhintzaraino, eta saildutegia zathi haren erdian izanen da.

9. Jaunarentzat bereziko dituzten pikainek izanen dute hogoi eta bortz mila luzara eta hamar mila zabalera.



10. Berriz, aphezen saildutegiarentzateko pikain horiek izanen dire ipharrerat hogoi eta bortz mila luze, eta itsasorat hamar mila zabal, eta iguzki-alderat ere hamar mila zabal, eta hegoarat hogoi eta bortz mila luze; eta Jaunaren saildutegia zathi horren erdian izanen da.

11. Saildutegia izanen da Sadoken semeen ganikako aphezentzat, zeinek begiratu baitituzte ene zeremoniak, eta ez baitire zehertu, Israelgo umeak zehertu direnean, hala-nola lebitarrak berak zehertu izan baitire.

12. Eta lurreko pikainetarik, lebitarren mugaren aldean izanen dute sailduren saildua pikain.

13. Lebitarrek ere orobat izanen dituzte aphezen mugen aldean hogoi eta bortz mila luzara eta hamar mila zabalera. Luzetasun guzia hogoi eta bortz mila, eta zabaltasuna hamar mila.

14. Eta hartarik ez dute ez salduko, ez aldakuntzarik eginen, eta lurreko pikainak ez dire bertzetaratuko, zeren Jaunari baitire sailduetsiak.

15. Zabalerak gelditzen diren bortz milak berriz, eta luzara hogoi eta bortz milak, arroteko izanen dire, hiriko egon lekhurentzat eta hiri-peentzat; eta hiria erdian izanen da.

16. Eta haukiek dire haren neurriak: ipharraldeko aurkhintzara, lau mila eta bortz ehun; hegoakora, lau mila eta bortz ehun; iguzki-aldeko aurkhintzara, lau mila eta bortz ehun; eta mendebalekora, lau mila eta bortz ehun.

17. Hiriko hiripeek berriz, ipharrerat izanen dituzte hamabitan hogoi eta hamar haga; hegoarat, hamabitan hogoi eta hamar haga; iguzki-alderat, hamabitan hogoi eta hamar haga; eta mendebalerat, hamabitan hogoi eta hamar haga.

18. Berriz, saildutegiko pikainen aldean geldituko dena, hamar mila iguzki-alderat eta hamar mila mendebalerat, saildutegiko pikainak bezala izanen dire; eta hekietarikako fruituak ogitako izanen dire hiria zerbitzatzuten dutenentzat.

19. Aldiz, Israelgo leinu guzietarik izanen dire hiria zerbitzatzuko duten gizonak.

20. Hogoi eta bortz milako pikain guziak, hogoi eta bortz mila lau aldeetara dutenak bereziak izanen dire saildutegiarentzateko pikaintzat eta hiriarentzateko gozamentzat.

21. Geldituko dena berriz, printzearentzat izanen da saildutegiko pikainen eta hiriaren onen alderdi guzietan, hogoi eta bortz mila haga pikainen parretik iguzki-aldeko mugaraino; eta oraino itsas-alderat, hogoi eta bortz milen parretik itsas-mugaraino, printzearen zathi izanen dire

halaber; eta saildutegiko pikainak eta tenploko lekhu saildua erdian izanen dire.

22. Lebitarren gozamenaz eta hiriaren gozamenaz bertzalde, erdian geldituko dena, berriz, printzearena izanen da, Judaren mugaren eta Benjaminen mugaren artean, eta printzea izanen da haren jabe.

23. Eta gainerako leinuentzat, iguzki-aldeko aurkhintzatik mendebaleko aurkhintzaraino, zathi bat Benjaminentzat.

24. Eta Benjaminen mugaren aldean, iguzki-aldeko aurkhintzatik mendebaleko aurkhintzaraino, zathi bat Simeonentzat.

25. Eta Simeonen muga gainean, iguzki-aldeko aurkhintzatik mendebaleko aurkhintzaraino, zathi bat Isakarrentzat.

26. Eta Isakarren muga gainean, iguzki-aldeko aurkhintzatik mendebaleko aurkhintzaraino, zathi bat Zabulonentzat.

27. Eta Zabulononen muga gainean, iguzki-aldeko aurkhintzatik mendebaleko aurkhintzaraino, zathi bat Gadentzat.

28. Eta Gaden muga gainean hegoako aurkhintzara, hegoaldean izanen da akhabantza, Thamarretik Kadeseko Jazargoako uretaraino: primantza itsaso handiaren parrean izanen da.

29. Hari da lurra, Israelgo leinuei zorthera emanen diozuen, eta horiek dire hekien berezpenak, dio Jainko Jaunak.

30. Eta haukiek dire hiriko ilkhibideak: ipharraldeko aurkhintzan neurtuko ditutzu lau mila eta bortz ehun haga.

31. Eta hiriko atheak deithuko dire Israelgo leinuen izenotarik; hirur athe ipharrerat, Errubenen athea bat, Judaren athea bertze bat, Lebiren athea bertze bat.

32. Eta iguzki-alderat lau mila eta bortz ehun haga, eta hirur athe, Josepen athea bat, Benjaminen athea bertze bat, Danen athea bertze bat.

33. Eta hegoaldeko aurkhintzarat lau mila eta bortz ehun haga neurtuko ditutzu; eta izanen dire hirur athe, Simeonen athea bat, Isakarren athea bertze bat, Zabulononen athea bertze bat.

34. Eta mendebaleko aurkhintzarat lau mila eta bortz ehun haga, eta hirur athe han: Gaden athea bat, Aserren athea bertze bat, Nefthaliren athea bertze bat.

35. Inguruan, izanen dire hemezortzi mila haga; eta egun hartarik hiriaren izena izanen da: Hor da Jauna.





## DANIELEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Udako errege Joakinen erregetasuneko hirugarren urthean, Nabukodonosor, Babilonako errege, ethorri zen Jerusalemara, eta sethiatu zuen.

2. Eta Jaunak haren eskuetara arthiki zituen Joakin Judako errege eta Jainkoaren etxeko untzietarik pharte; eta Nabukodonosorrek eraman zituen Senaarreko lurrera, bere jainkoaren etxera, eta ezarri zituen bere jainkoaren etxeko khutxategian.

3. Eta erregek erran zioen Asphenezi, ebakiez kargutua zenari, erakhar zetzan Israelgo umeetarik, erregeen eta buruzagien odoletikako

4. Gizon-gazte zenbait, estakururik batere gabeak, gorphutzez ederrak, zuhurtzian argituak, antzeetan trebeak eta jakitateetan ikhasiak, eta erregeren jauregian egon zitazkeenak, hekiei irakhastekotzat kaldearaz iskribatzen eta mintzatzen.

5. Eta erregek eman zaroeten egun bakhotxeko bizigarria bere jatekoetarik eta berak edaten zuen arnotik, arren-eta hirur urthez haziak izan ondoan, gero egon zitezentzat erregeren aitzinean.

6. Beraz, hekietan gerthatu ziren Judako umeetarik, Daniel, Ananias, Misael eta Azarias.

7. Eta ebakien buruzagiak eman zaroezten izenak, Danieli Baltasarrena, Ananiasi Sidrakena, Misaeli Misakena, eta Azariasi Abdenagorena.

8. Bada, Danielek bere baithan gogo hartu zuen, etzela lohitu behar erregeren mahaineko jatekoek eta harek edaten zuen arnoaz, eta othoiztu zuen ebakien buruzagia utz zezan khutsutik bere buruaren begiratzera.

9. Jainkoak berriz, Danieli eman ziozkan ebakien buruzagiaren begithartea eta esker ederra.

10. Eta ebakien buruzagiak erran zioen Danieli: Beldur naiz ni ene errege jaunarentzat, zeinak berezi baitarozkitzue jatekoa eta edatekoa; harek ikhusten baditu zuen begitharteak meheago zuen adineko bertze gizon-gazteenak baino, erregeri emanen diozue ene burua.

11. Eta Danielek erran zioen Malasarri, zeina Danielez, Ananias ez, Misaelez eta Azariasez kargutu baitzuen ebakien buruzagiak:

12. Froga gaitzatu, othoi, gu zure zerbitzariak hamar egunez, eta eman bekizkigu baratzekariak jatera eta ura edatera;

13. Eta gero begira diozute gure begitharteei eta erregeren jatekotik hazten diren bertze gizon-gazteenei; eta ikhusten duzunaren arabera egiten duzu zure zerbitzariekin.

14. Hunek horrelako solasak entzunik, frogatu zituen hamar egunez.

15. Hamar egunen buruan berriz, hekien begitharteak agertu ziren hobeak eta gizenagoak erregeren jatekotik hazten ziren bertze gizon-gazte guzianak baino.

16. Malasarrek eramaten zituen beraz hekien jatekoak eta edateko arnoa, eta ematen ziozkatzen baratzekariak.

17. Jainkoak berriz, gizon-gazte hekiei eman ziozkatzen jakitatea eta argitasuna liburu guzietan eta zuhurtzian; Danieli aldiz eman zioen ikhuppen eta ametsen adigarria.

18. Bethe zirenean egunak zeinen buruan erregeren aitzinera, harek erran bezala, sarthu behar baitziren gizon-gazteak, ebakien buruzagiak agerrarazi zituen Nabukodonosorren aitzinera.

19. Eta mintzatu zitzaionten errege, bertze guzietan etzen khausitu Daniel, Ananias, Misael eta Azarias bezalakorik; eta erregeren aitzinean egotu ziren.

20. Eta edozein gauza galda ziozoten zuhurtziaren eta adimenduaren gainean, erregek hekien baithan atzeman zuen hamarretan argitasun gehiago, bere erreinu guzian zituen azti eta magoetan baino.

21. Bada, Daniel han egotu zen Ziro erregearen lehenbiziko urthea arteo.

### II. KAP.

1. Nabukodonosorren erregetasuneko bigarren urthean, Nabukodonosorrek izatu zuen amets bat eta lastu zen haren izpiritua, eta burutik goan zitzaion bere ametsa.

2. Bada, erregek manatu zuen, bilaraz zetzazten aztiak, magoak, gaizkinak eta Kaldearrak, erregeri errateko zer amets izan zuen. Haukiek ethorri zirenean, agertu ziren erregeren aitzinera.

3. Eta erregek erran zaroten: Ikhusi dut amets bat, eta izpiritua nahasia izanez, ez dakit zer ikhusi dudana.

4. Eta Kaldearrek siriarez ihardetsi zioten erregeri: Oi errege, menderen mendez bizi zaite; zure zerbitzariari errozute zure ametsa, eta emanen dugu haren argipena.

5. Eta ihardestean erregek erran zioten Kaldearrei: Gauza burutik goan zait; baldin ez badarotazue erraten zer amets izan dudana eta zer



erran nahi duen, galduko duzue bizia, eta zuen etxeak saltzeko oihi eginak izanen dire.

**6.** Baldin ordean erraten badarotzue ametsa eta harek erran nahi duena, ene ganik izanen ditutzue sari, emaitza eta ohore handiak: erran dizadatzue beraz ametsa eta haren argitasuna.

**7.** Kaldearrek bigarren aldiko ihardetsi zuten, eta erran: Erregek bere zerbitzariari erran biozote ametsa, eta guk emanen dugu haren argitasuna.

**8.** Erregek ihardetsi eta erran zuen: Ezagutzen dut ongi luzamenketa zabiltzate, burutik goan zaitalakotz ametsa.

**9.** Baldin beraz ez baduzue erraten ametsa, gauza bat da zuetaz uste izateko, gezurrezko eta enganioz betherikako argipen zerbait xuxenduko duzuela, niri elhe xuritzen haritzeko denbora goan dadien arteo. Erradazue, bada, ametsa, jakin dezadan hean egiazkoa emanen duzuen haren argitasuna.

**10.** Kaldearrek beraz erregeren aitzinean ihardestean, erran zuten: Errege, lurraren gainean ez da gizonik, zuk galdatzen duzuna egin dezakeenik, ez-etare erregeetan hain handi eta ahaltsurik horrelako gauza egundaino galdatu duenik azti, mago edo Kaldear bati;

**11.** Alabainan, errege, zuk galdegiten duzuna gaitza da, eta ez da khausituko gizonik hori erregeren aitzinean erranen duenik, lekhat jainkoek, zeinek gizonekin ez baitute iharduk-mendurik.

**12.** Hari aditurik, errege sulian sarthu zen, eta bere hasarre handian manatu zuen hilaraz zetzazten Babilonako zuhurrak oro.

**13.** Eta erabakia ilkhi zen ondoan, hiltzen hari zituzten zuhurrak, eta galduak izateko bilhatzen zituzten Daniel eta bere lagunak.

**14.** Orduan Danielek lege eta erabaki hori zer ziren galdatu zaroen Arioki, armadako buruzagari, zeina ilkhia baitzen Babilonako zuhurren hilaraztera.

**15.** Eta hura baitzen erregeren ganik esku hori izatu zuena, Danielek galdegin zaroen zer ariaz erregeren ahotik ilkhi zitakeen erabaki bat horrenbat dorphea. Beraz Ariokek Danieli erran zionean gauza,

**16.** Daniel agertu zen erregeren aitzinera, eta othoiztu zuen eman ziozon astia argitasunaren egiteko.

**17.** Eta bere etxera sarthurik, egitekoa erran zioten bere lagunei, Ananiasi, Misaeli eta Azariasi,

**18.** Zeruko Jainkoaren ganik urrikalpen eskatzeko gauza itsu horren gainean, eta Daniel eta bere lagunak etzitezten gal Babilonako bertze zuhurrekin.

**19.** Orduan misterio hori gauaz agertua izan zitzaioen Danieli ikhusten batez; eta Danielek benedikatu zuen zeruko Jainkoa,

**20.** Eta hunela mintzatu zen: Benedikatua izan bedi Jaunaren izena egundainotik eta egundainora, zeren zuhurtzia eta indarra harenak baitire.

**21.** Harek aldatzen ditu denborak eta mendeak, khentzen eta ezartzen erresumak, zuhurrei ematen zuhurtzia, eta argituak direnei jakitate.

**22.** Harek agertzen ditu gauza barrenak eta gordeak, eta ezagutzen ilhunbeetan daudezenak, eta harekin da argia.

**23.** Zuri, gure arbasoen Jainkoa, darotzut aithor bihurtzen, eta laudatzen zaitut, zeren daroztatzun eman zuhurtzia eta indarra, eta orai daroztatzun erakhutsi galdatu darozkitzugunak, ezen agertu darokuzu erregek nahi duen gauza.

**24.** Gero Daniel goan zen Arioken gana, zeina Babilonako zuhurren galarazteko manatua baitzen erregez, eta hunela mintzatu zitzaioen: Ez betzatu gal Babilonako zuhurrak; sarraraz nezazu erregeren aitzinera, eta nik erregeri emanen diot bilhatzen duen argitasuna.

**25.** Orduan berehala Ariokek sarrarazi zuen Daniel erregeren aitzinera, eta erran zioen erregeri: Aurkhitu dut gizon bat Judako gathibuen umeetarik, erregeri behar den argitasuna emanen dioena.

**26.** Erregek ihardetsi zuen, eta erran zioen Danieli, zeina deitzen baitzuten Baltasar: Uste duzue egiazki erran ahal ditzakezudala ikhusi duan ametsa eta haren argitasuna?

**27.** Eta erregeren aitzinean ihardestean, Danielek erran zuen: Zuhurrek, magoek, aztiak, usnaginek ezin ager diozokete erregeri erregek galdatzen duen misterioa.

**28.** Bainan zeruan bada Jainko bat, misterioak agertzen dituena, zeinak zuri, errege Nabukodonosor, erakhutsi baitarozkitzu azken denboretan ethortzekoak diren gauzak. Hunelakoak dire zure ametsa eta zure buruko ikhusten ohean izan dituzunak:

**29.** Zu, oi errege, zure ohean gogoeta abiatu zare, oraiko gauza haukien ondoan zer den gerthatuko; eta misterioak agertzen dituenak erakhutsi darozkitzu ethortzekoak diren gauzak.

**30.** Niri ere segretu hori agertua izan zait, ez zuhurtziaz, hura ene baithan handi goa delakoan bizi diren bertze guzietan baino; bainan segretu horren argitzapena, gauza ageria egin dadien erregerentzat, eta ezagut detzatzun zure izpirituko asmuak.

**31.** Zuk, oi errege, ikhusten zinduen, eta hara gizamolde handi bat bezala; gizamolde handi eta irazki gaitzeko hura xutik zagoen zure aitzinean, eta lazgarria zen haren begiratzea.



32. Gizamolde haren burua zen urhe ederrenetik; bulharrak berriz eta besoak zilharrez; aldiz, sabela eta ixterrak kobrez;

33. Zangarrak berriz, burdinaz; oinen pharte bat zen burdinaz, bertze bat berriz, buztinez.

34. Horrela ikhusten zinduen, harri bat menditik anbildu zen arteo nihoren eskuak igorri gabe; eta gizamoldea jo zuen burdinazko eta buztinezko oinetan, eta xehakatu zituen.

35. Orduan bardin phorroskatuak izan ziren burdina, buztina, kobrea, zilharra eta urhea, eta herraustuak lastoa udan larrainean bezala; haizeak eraman zituen eta nihon etzen khausitu hekiatarik; gizamoldea jo zuen harria mendi handi bat bilhakatu zen, eta bethe zuen lurra oro,

36. Hori da ametsa; argipena ere erranen dugu zure aitzinean, oi errege.

37. Zu zare erregeen errege; eta zeruko Jainkoak eman izan darozkitzu erresuma, indarra, nausitasuna eta ospea,

38. Eta gizonen umeak eta lurreko abereak daudezen toki guziak; zeruko hegastinak ere eskura eman darozkitzu, eta zure nausitasunaren azpian ezarri ditu gauza guziak: zu zare beraz urhezko burua.

39. Eta zure ondotik jaikiko dire bertze erresuma bat, zurea baino xumeagoa, zilharrezkoa; eta hirugarren erre-suma bat, kobrezkoa, lur guziari manatuko duena.

40. Eta laugarren erresuma bat izanen da burdina iduri. Nola burdinak oro xehatzen eta zebatzen baititu, hala xehaturen eta herrausturen ditu guziak.

41. Bada, ikhusi ditutzun bezala oinak eta erhiak, pharte baxera lurrez eta pharte burdinaz; erresuma ere erdizkako izanen da, nahiz burdin ethorkitik den ilkhitzen, ikhusi duzunaren arabera burdina, baxera lurrarekin nahasia.

42. Eta ikhusi ditutzun bezala oinetako erhiak, pharte burdinaz eta pharte baxeraz; erresuma ere izanen da pharte gothorra eta pharte hauskorra.

43. Eta nola ikhusi baituzu burdina baxera lurrarekin nahasia, erresumak ere elkharri loturen dire gizonen arteko arrimuz; bainan ez dire elkharri iratxikiren, burdina baxerakiaren ezin nahasteka ditakeen bezala.

44. Zeruko Jainkoak berriz, erresuma hekien egunetan eraikiren du erreinu bat, nihoiz-ere xahutuko ez dena, eta haren erresuma ez da bertze populu bati izanen emana; aldiz, herraustuko eta ezeztatuko ditu erresuma horiek oro, eta berak du menderen mendetan iraunen.

45. Ikhusi duzunaren arabera, harri bat izan baita menditik eskuaren laguntza gabe iraulia, eta phorrastatu baititu baxera, burdina, kobrea, zil-

harra eta urhea, Jainko handiak erregeri erakhutsi izan diozka, gerorat gerthatu behar direnak; eta ametsa egiazkoa da eta haren argipena zina.

46. Orduan Nabukodonosor erregea erori zen ahuspeka, eta adoratu zuen Daniel, eta manatu zituen bitimak eta isentsua, hari sakrifika ziozotzentzat.

47. Beraz Danieli mintzatuz erran zaroen: Zure Jainkoa egiazki jainkoen Jainkoa da, eta erregeen Jauna, eta misterioen argitzailea, segretu hori agertu ahal izan duzunaz geroztik.

48. Orduan erregek altxatu zuen Daniel kargurik gorenera, eta egin ziozkan emaitza handiak eta hainitz; ezarri zuen Babilonako herrialde guzien gainean buruzagi, eta aitzindarien aitzindari Babilonako zuhur guzien gainean.

49. Danielek berriz, erregeri galdaturik, erregek eman zaroten Sidraki, Misaki eta Abdenagori Babilonako herrialdeko egitekoen kargua; aldiz, Daniel bera zen erregeren athean.

### III. KAP.

1. Nabukodonosor erregeak egin zuen gizamolde bat urhezkoa, hirur hogoi beso gora eta sei beso zabal zena; eta ezarri zuen Durako zelhaiean, Babilonako herrialdean.

2. Nabukodonosor erregeak beraz igorri zuen satrapen, kargudunen, juieen, tropetako buruzagien, herrialdetako buruzagi eta aitzindarien, eta erresumako handien bilaraztera, ethor zitezentzat guziak, errege Nabukodonosorrek altxatu gizamoldearen dedikazionera.

3. Orduan bildu ziren satrapak, kargudunak, juieak, tropetako buruzagiak eta herrialdetako aitzindariak, kargutan ezarriak ziren jaunak eta erresumako handimandiak oro, ethortzeko errege Nabukodonosorrek altxatu gizamoldearen dedikazionera. Jarri ziren beraz, errege Nabukodonosorrek altxatu gizamoldearen aitzinean.

4. Eta erantzuleak hazkarki oiuhu egiten zuen: Populu, leinu eta mintzaia guzietako gizonei erraten zaitzue,

5. Turuta, xirola, gitarra, sanbuka, maniuerra, tuntuna eta musika mots guzien otsa adituko duzuen orduan, lurrerat eroriz adora zazue Nabukodonosor erregeak altxatu duen urhezko gizamoldea.

6. Aldiz, baldin norbaitek ez badu, lurrerat eroriz adoratzan, ordu berean izanen da labe gorritu batera arthikia.

7. Gero beraz populu guziek aditu zuten bezain laster turuta, xirola, gitarra, sanbuka, maniuerra, tuntuna eta musika mota guzien otsa, populu,



leinu eta mintzaia guzietako gizonek adoratu zuren Nabukodonosor erregeak ezarri zuen urhezko gizamoldea.

**8.** Eta orduan berean Kaldear gizon batzuek, berehala hurbildurik, jazarri zuten Juduen kontra;

**9.** Eta Nabukodonosor erregeari erran zaroten: Oi errege, menderen mendez bizi zaite.

**10.** Zuk erabakia eman duzu, oi errege, gizon guziak lurrerat eroriko zirela adituko zutenean turuta, xirola, gitarra, sanbuka, maniurra, tuntuna eta musika mota guzien ota, eta adoratuko zutela urhezko gizamoldea;

**11.** Aldiz, baldin norbaitek ez bazuen lurrerat eroririk adoratzeko, labe gorritura izan zadien arthikia.

**12.** Badire beraz Judu gizon batzu, zeinei eman baitiozute Babilonako herrialdeko egitekoen kargua, Sidrak, Misak eta Abdenago; gizon horiek erdeinatu dute, oi errege, zure erabakia; ez dituzte ohoratzen zure jainkoak, eta ez dute adoratzeko altxatu duzun urhezko gizamoldea.

**13.** Orduan, hasarrez eta irakiduraz betherik, Nabukodonosorrek manatu zuen erakhar zetzazten Sidrak, Misak eta Abdenago, zeinak izan baitziren berehala erregeren aitzinera erakharriak.

**14.** Eta Nabukodonosor erregeak, hunela mintzatuz erran zaroeten: Sidrak, Misak eta Abdenago, egia othe da ez dituzuela ohoratzen ene jainkoak eta ez duzuela adoratzeko nik ezarri dudana gizamoldea?

**15.** Orain beraz ene manuren bethetzera balin bazaudezte, adituko duzuen bezain sarri turuta, xirola, gitarra, sanbuka, maniurra, tuntuna eta musika nola guzien ota, lurrerat eror zaitezte, eta adora zazue nik egin dudana gizamoldea; baldin ez baduzue adoratzeko ordu berean izanen zarete labe gorritura arthikiak. Eta zein da jainkoa ene eskutik atherako zaituztetena?

**16.** Sidrakek, Misakek eta Abdenagok ihardestean erran zioten Nabukodonosor erregeari: Gauza hortaz ihardets dezazugun ez da premia;

**17.** Alabainan huna, oi errege, gure Jainko ohoratzen dugunak, athera gaitzazke labe gorritutik, eta libra zure eskuetarik.

**18.** Baldin ez balu ere nahi, jakizu, oi errege ez ditugula ohoratzen zure jainkoak, ez-eta adoratzeko altxatu duzun urhezko gizamoldea.

**19.** Orduan Nabukodonosor errabiaz bethe zen, eta haren begitharteko itxura ifrentziatu zen Sidraken, Misaken, eta Abdenagoren gainean, eta manatu zuen bero zezaten labea, berotzen ohi zenetik zarpitan gehiago.

**20.** Eta bere armadako gizonik hazkarrenei manatu zioten, arthik zetzazten Sidrak, Misak eta Abdenago, zangoak estekaturik labe gorritura.

**21.** Eta berehala gizon horiek labe gorritura arthikiak izan ziren beren galtza, buruko, oinetako eta soinekoekin;

**22.** Ezen premiakorra zen erregeren manua; labea berriz, gogorki zen khaldatua. Hargatik Sidrak, Misak eta Abdenago arthiki zituzten gizon hekiek, hilak izan ziren suko garraz.

**23.** Hirur gizon hauiek berriz, erran nahi da Sidrak, Misak eta Abdenago, estekatuak erori ziren labe gorrituaren erdira.

**24.** Eta garraren erdian bazabiltzan, Jainkoa laudatuz eta benedikatzeko zutelarik Jauna.

**25.** Azariasek berriz, xutik gelditurik, hunela othoitz egin zuen, eta suaren erdian ahoa idekirik erran zuen:

**26.** Benedikatua zare, gure arbasoen Jainko Jauna, eta zure izena laudagarria eta ospetsua da menderen mendetan;

**27.** Zeren zuzena baitzare guri egin darozkigutzun guzietan, eta zinak baitire zure egintza guziak, eta zuzenak zure bideak, eta egiazkoak zure erabakiak oro.

**28.** Alabainan erabaki bidezkoak bethe ditutzu, gure gainera eta gure arbasoen hiri saildu Jerusalemaren gainera jautsarazi dituzun gaitz guzietan; ezen egian eta zuzenbidean erakharri ditutzu hekiek oro gure bekhatuen ariaz.

**29.** Alabainan bekhatu egin dugu, eta tzarki ibili gare zure ganik urrunduz, eta orotan huts egin dugu;

**30.** Eta zure manamenduak ez ditugu entzun, ez-eta begiratu, ez-eta bethe, manatu zinarokun bezala, guretzat izan zadien ongi.

**31.** Gure gainera jautsarazi dituzun gaitz guziak beraz, eta guri egin darozkigutzunak oro, egiazki zuzenbidean egin ditutzu,

**32.** Eta arthiki gaituzu gure etsai gaixto, guziz tzar eta lege-hausleen eskuetara, eta lur guziaren gainean den erregerik makhurrenaren eta gaixtoenaren eskuetara.

**33.** Eta orain ezin idek dezakegu ahoa, eta bilhakatu gare zure zerbitzarien eta adoratzeko zaituztenen ahalkea eta laidoa.

**34.** Othoi, zure izenaren ariaz ez begaitzatzu etsaiari bethikotzat arthik, eta ez urra zurekilako batasuna.

**35.** Gutarik ez khen zure urrikalmendua Abraham zure maitea gatik, Isaak zure zerbitzaria gatik eta Israel zure saildua gatik,

**36.** Zeinei mintzatu baitzare aginduz hekien umeak behatzen zintuela zeruko izarrak bezala eta itsas-bazterrean den legarra iduri;

**37.** Ezen, Jauna, jendaia guziak baino gutituagoak gare, eta egun lur guzian beharatuak gare gure bekhatuen ariaz.



38. Eta egungo egunean ez da ez buruzagi, ez aitzindari, ez profeta, ez holokausta, ez sakrifizio, ez eskaintza, ez isentsu, ez zure aitzinean pikainen lekhurik,

39. Ardiets ahal dezaguntzat zure urrikalmendua; bainan onhetsiak izan begaitez gure arimako urrikian eta izpirituko beheramenduan.

40. Nola aharien eta zezenen holokaustan, nola mila bildots gizenen holokaustan, hala egin bedi egun gure buruen sakrifizioa zure aitzinean, izan dadientzat zure gogarako, zeren ahalkamendurik ez baita zure gaineko sinhestean bizi direntzat.

41. Eta orai bihotz oroz zuri jarraikitzen eta zure beldur gare eta zure begithartea bilhatzen dugu.

42. Ez begaitzatu ahalketaratz utz; bainan gure alderat egizu zure eztitasunaren eta zure nihonereko urrikalmenduaren arabera.

43. Eta athera gaitzatu zure sendagailez, eta zure izenari ospe eman biozozu, Jauna.

44. Eta zure zerbitzariari ordu gaitzak erakhesten diozkatena, ahal-ketara izan beitez arthikiak, zure ahal guziaz izan beitez urmariatuak, eta hautsia izan bedi hekien indarra;

45. Eta jakin bezate zu zarela bakharririk Jainko Jauna eta ospeduna lurraren hedadura guzian.

46. Eta erregeren zerbitzariak, hekiek surat arthiki zituztenak, etziren baratzen labearen khaldatzetik naslikaz, arkolaz, bikhez eta aihenez;

47. Eta garra labetik goiti igaiten zen berrogoi eta bederatz beso;

48. Eta bazterretara jauzi zen, eta erre zituen labearen ondoan atze-man zituen Kaldearrak.

49. Bada, Jaunaren aingerua labera jautsi zen Asariasen eta haren lagunen gana, eta aldaratu zuen labeko suaren garra,

50. Eta labearen erdia egin zuen ihintz-haizeak ematen bazioen bezala; eta suak etzitzen batere ukitu eta etzioten minik egin, ez-eta den-gutieneko bidegaberik ekharri.

51. Urduan ekiek hirurak aho bakhar batez bezala labean laudatzen, gordien eta benedikatzen zuten Jainkoa, zerratelarik:

52. Benedikatua zare, gure arbasoen Jainko Jauna; laudagarria eta ospetsua, eta ooren gainetik goretsia zare mendeetan; benedikatua da zure ospearen izen saildua; laudagarria da eta ooren gainetik goretsia mende guzietan.

53. Benedikatua zare zure ospearen tenplo sailduan; oroz gainetik laudagarria, oroz gainetik goretsia mendeetan.

54. Benedikatua zare zure erresumako tronuan; oroz gainetik laudagarria, oroz gainetik goretsia mendeetan.

55. Benedikatua zare, ondar-lezeak ikhusten ditutzuna, eta kerubinen gainean jarria zarena; oroz gainetik laudagarria, oroz gainetik goretsia mendeetan.

56. Benedikatua zare zeruko ortzian, eta laudagarria eta ospagarria mendeetan.

57. Jaunaren lan guziek benedika zazue Jauna; lauda eta gorets zazue oroz gainetik mendeetan.

58. Jaunaren aingeruak, benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

59. Zeruko, benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

60. Zeruen gainean zaretan ur guziek benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

61. Jaunaren berthute guziek benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

62. Iguzki-ilhargiek benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

63. Zeruko izarrek benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

64. Uri eta ihintz guziek benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

65. Jainkoaren haize guziek benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

66. Suak eta beroak benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

67. Hotz-beroek benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

68. Ihintz-izotzek benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

69. Hormate eta hotsak benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

70. Horma-elhurrek benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

71. Gau-egunek benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.

72. Argiak eta ilhunbeek benedika zazue Jauna; lauda eta ooren gainetik gorets zazue mendeetan.



73. Simista-hedoiek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
74. Lurrak benedika beza Jauna; lauda eta oroz gainetik gorets beza mendeetan.
75. Mendi-munhoek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
76. Lurrean ninikatzzen zaretan guziek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
77. Ithurriek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
78. Itsaso-hibaiek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
79. Bale eta uretan higitzen zaretan guziek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
80. Zeruko hegastin guziek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
81. Basabere eta azienda guziek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
82. Gizasemeek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
83. Israelek benedika beza Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets beza mendeetan.
84. Jaunaren aphezek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
85. Jaunaren zerbitzariak benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
86. Prestuen izpiritu-arimek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
87. Saindu eta bihotzez aphalek benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan.
88. Ananias, Azarias, Misael, benedika zazue Jauna; lauda eta orenen gainetik gorets zazue mendeetan; Zeren gaituen hobitik atheratu, herioaren eskuetarik salbatu, gar bizietarik libratu eta suaren erditik ilkhi.
89. Aithor bihur diozogun Jaunari, zeren den ona, zeren haren urrikalmenuak dirauen menderen mendetan.
90. Jainkotiarak zaretan guziek benedika zazue jainkoen Jainko Jauna; lauda zazue eta aithor diozozuen bihur, zeren mende guzietan dirauen haren urrikalkortasunak.

91. Orduan Nabukodonosor erregea harritu zen, eta brastakoan xutitu zen, eta bere handi-mandiei erran zaroten: Ez ditugu surat arthiki hirur gizon estekatuak? Haukiek erregeri ihardestean, erran zioten: Egia da, errege.

92. Eta ihardetsi eta erran zaroeten: Hara, nik ikhusten ditut lau gizon lokharririk gabe, eta suaren erdian dabiltzala, eta andeamendurik batere ez da horietan, eta laugarrenaren itxurak iduri du Jainkoaren semearena.

93. Orduan Nabukodonosor hurbildu zen labe gorrituaren athera, eta erran zuen: Sidrak, Misak eta Abdenago, Jainko goraren zerbitzariak, ilkhi zaitezte eta zatozte. Eta berehala Sidrak, Misak eta Abdenago atheratu ziren suaren erditik;

94. Eta satrapak, kargudunak, juieak eta erresumako handi-mandiak, bilduak begira zauden gizon hekiei, zeren suak etzuen izan hekien gorp-hutzen gainean deusere indarrik, eta hekien buruko ile bat etzen ererrik, hekien soinekoek etzuten ganbiorik, eta suaren usaina bera etzen hekie-tan iragan.

95. Orduan, bere baitharik jauzirik, Nabukodonosorrek erran zuen: Benedikatua izan bedi horien Jainkoa, erran nahi da Sidrakena, Misakena eta Abdenagorena, zeinak igorri baitu bere aingerua eta libratu baititu bere zerbitzariak, haukiek izan dutelako zaren baithan sinheste, gogor egin diotelako erregeren hitzari, eta beren gorphutzak eman dituztelako, ez zerbitzatzea gatik eta ez adoratzea gatik bertze jainkorik batere beren Jainkoa baizik.

96. Nik ezarri dut beraz erabaki hau: Edozein populu, leinu eta mintzaietako gizon, burho bat athiki dukeena Sidraken, Misaken eta Abdenagoren Jainkoaren kontra, galdua izan bedi, eta hainaren etxea xahutua, ezen ez da bertze Jainkorik hola salba dezakeenik.

97. Orduan erregek kargutan aitzinatu zituen Sidrak, Misak eta Abdenago Babilonako herrialdean.

98. Nabukodonosor erregea, lur guziaren gainean egoten diren populu, jendaia eta mintzaia orotako gizonen: Berha bekizue bakea.

99. Jainko guziz gorak ene aitzinean egin ditu ezagutkariak eta sendagailak. Ene gogarako izatu da beraz erantzutea

100. Haren ezagutkariak, zeren handiak baitire, eta haren sendagailak, zeren gaitzak baitire; eta haren erreinua, bethirainoko erreinua da, eta haren ahala gizaldietarik gizaldietara hedatzen dena.



#### IV. KAP.

1. Ni Nabukodonosor, deskantsuz nindagoen ene etxean, eta zorionean ene jauregian:

2. Izatu dut lastu nauen amets bat; eta ene gogoetek ene ohean, eta ene buruko ikhuspenek nahasi izan naute.

3. Eta erabaki bat ezarri izan dut, ene aitzinera ager zitezen Babilonako zuhur guziak, eta niri eman zezatedan ametsaren argitasuna.

4. Orduan sarthu dire aztiak, magoak, Kaldearrak eta usnaginak; erran diotet ene ametsa, eta ez darotade eman haren argitasuna,

5. Ene aitzinera sar zadien arteo Daniel ene laguna, zeina Baltasar deitzen baita ene Jainkoaren izenaren arabera, eta zeinak bere baithan baitu jainko sailduen izpiritua; eta haren aitzinean erran dut ametsa.

6. Baltasar, asmaginen buruzagia, nola baitakit nik zure baithan duzula jainko sailduen izpiritua, eta zuretzat ez dela ezin-barrenduzko segreturik; erradazu zer diren nik ametsetan ikhushi ditudan ikhuspenak, eta zer erran nahi duten.

7. Ene buruko iduripena ene ohean: Ikhusten nuen, eta hara zuhaitz bat lurraren erdian, eta gaitza zen haren goratasuna.

8. Zuhaitza handia eta hazkarra zen, eta haren luzetasunak ukitzen zuen zerua, eta iduri zuen hedatzen zela lur guziko bazterretaraino.

9. Hostoak zituen guziz ederrak, eta fruituz estalia zen; orok jatekoa aurkhitzen zuten hartan; haren azpian egoten ziren aziendak eta lar-abereak, eta haren adarretan zauden zeruko hegastinak, eta hartarik hazten ziren haragidun guziak.

10. Ene izpirituko ikhuspenean ikhusten nuen ene ohearen gainean; eta hara begirale bat, saildu bat jautsi zela.

11. Hazkarki oihu egin zuen eta hunela mintzatu zen: Ebakazue zuhaitza eta motzatzue horren adarrak; iharrosatzue horren hostoak eta barraia fruituak; horren azpian diren abereek ihes egin bezate, eta adarretarik hegastinak itzur beitez.

12. Guziagatik, lurrean utzozue horren erroei hazteko zaina; burdinazko eta kobrezko lokharriz izan bedi amarratua, bazterretan diren belharren erdian, eta zeruko ihintzaz izan bedi bustia, eta basabereekin izanen du lurreko belharra bere hazkurri.

13. Khen bekio bere gizon-bihotza, eta abere-bihotza eman bekio; eta zazpi ephe iragan beitez horren gainetik.

14. Hori begiraleen erabakian da manatua, hori da sailduen hitza eta galdea, bizidunek ezagut dezaten arteo Guziz-Gora dela nausi gizonen

erresuman; nahi duenari ematen dioela hura, eta gizonik ahalena ezarriko duela nahi badu haren gainean errege.

15. Nik, Nabukodonosor erregeak izatu dut amets hori: zuk beraz, Baltasar, laster emadazu horren argitasuna; ezen ene erresumako zuhur guziak ezin eman diazaketet garbitasunik; zuk ordean ahala baduzu, zure baithan delakoz jainko sailduen izpiritua.

16. Orduan Daniel, zeina deitzen baitzuten Baltasar, ixil-ixila abiatu zen bere baithan gogoetaka, oren baten heina bezala; eta bere gogoetek nahasten zuten. Aldiz erregek erran zaroen: Baltasar, ametsak eta horren argitzeak ez bezaitzate nahas. Baltasarrek ihardetsi eta erran zuen: Ene Jauna, ametsa gaitzirizkotan zaduzkatenen gainera, eta horren argitasuna zure etsaien gainera bihur beitez.

17. Zuhaitz handi eta hazkar ikhushi duzuna, zeinaren goratasuna heltzen baitzen zeruraino, eta zeinak iduri baitzuen lur guziaren gainera hedatzen zela;

18. Eta haren hostoak guziz ederrak, eta fruituak mulkhoka baitziren, eta orok hartan aurkhitzen baitzuten jatekoa, haren azpian egoten zirelarik bazterretako basabereak, eta haren azpian zaudezelarik zeruko hegastinak;

19. Errege, zu zare hura, zu handitu eta orotan nausitu zarena; eta zure handitasuna berhatuz goan da, eta heldu izan da zeruraino, eta zure ahala hedatu izan da lur guziaren bazterretara,

20. Gero erregek ikhushi duena, begirale bat, saildu bat jausten zerutik eta erraten: Ebak eta urra zazue zuhaitza; guzia gatik lurrean utzazue horren erroko zaina; burdinaz eta kobrez izan bedi amarratua kanpoko belharretan, eta zeruko ihintzaz izan bedi bustia, eta basabereekin alha bedi, zazpi ephe horren gainean aida ditezen arteo;

21. Hau da Guziz-Gorak ene errege jaunaren gainera arthiki erabakiaren garbitasuna:

22. Gizonen artetik iraziren zaituzte, eta aziendekin eta basabereekin izanen da zure egoitza, eta idiak bezala janen duzu belharra, eta zeruko ihintzaz bustiko zare; zazpi ephe halaber aldatuko dire zure gainean, ezagut dezazun arteo Guziz-Gora dela gizonen erresumaren gainean nausi, eta nahi dukeenari ematen duela hura.

23. Aldiz manatua izan dena, lurrean utzia izan dadiela haren erroetako zaina, erran nahi da zuhaitzarena; hori da zure erresuma geldituko zaitzula, ezagutu dukezun ondoan, zerutikakoa dela ahala.

24. Aria hortaz, errege, zure gogarako izan bedi ene errana: amoinez berreros zatzu zure bekhatuak, eta beharren alderako urrikalpenez zure gaizkiak; Jainkoak beharbada barkhaturen darozkitzu zure hobenak.



25. Horiek oro gerthatu zitzaizkon Nabukodonosor erregeari.
26. Hamabi hilabetheren buruan, pasaieta zabilan Babilonako jauregian,
27. Eta erraten abiatu zen: Ez othe da hau Babilona handia, nik egin dudana ene erresumako jar-lekhutzat, ene ahalaren indarrean eta ene ospaeren distiragarri?
28. Eta hitza oraino erregeren ahoan zelarik, mintzo bat jautsi zen zerutik: Nabukodonosor erregea, hau zaik erraten: Hire erresuma bertze baten burura iraganen duk hire ganik.
29. Eta gizonen artetik iraziren haute, eta aziendekin eta basabereekin izanen duk hire egoitza, eta idiak bezala janen duk belharrak; eta zazpi ephe aldaturen dituk hire gainean, ezagut dezakan arteo, Guziz-Gora dela gizonen erresuman nausi, eta berak nahi duenari emanen dioela hura.
30. Oren berean hitza bethe zen Nabukodonosorren gainean; eta gizonen artetik irazia izan zen, eta belharrak jan zuen idiak bezala, eta zeruko ihintza zarioen haren gorphutzari, luzatu zitzaizkioen arteo ileak arrano-hegatsak bezala eta behatzak hegastinenak iduri.
31. Egunak iragan ziren ondoan beraz, nik Nabukodonosorrek goititu nituen begiak zerura, eta bihurtua izan zitzaitan adimendua: eta benedikatu nuen Guziz-Gora, eta laudatu eta ospatu nuen bethi eta bethi bizi dena, zeren bethirainoko baita haren ahala eta gizamendeatarik gizamendeetara hedatzen baita haren erregetasuna.
32. Eta lurrean bizi diren guziak ezdeusentzat idukiak dire haren aitzinean; ezen bere nahiaren arabera egiten du, hala zeruko berthuteen gainean, nola lurrean bizi direnen gainean; eta ez da haren eskuari ihardetsiko dioenik, ez-eta erranen dioenik: Zertako egin duzu hori?
33. Orduan berean itzuli zitzaitan adimendua, eta berriz heldu nintzen ene erregetasuneko ohore eta ospera; eta bihurtu zait lehengo ene itxura; eta handiek eta kargudunek bilhatu naute, eta berriz jarria naiz ene erregetasunean, eta lehengo handitasuna berhatu zait.
34. Orai beraz, nik Nabukodonosor erregeak laudatzen, handiesten eta goresten dut zeruko errege; zeren haren egintza guziak zinak, haren bide guziak zuzenak baitire; eta ahal baitetzazke hanpuruskerian dabiltzanak.

## V. KAP.

1. Baltasar erregeak barazkari handi bat eman zioten bere handimandietarik milari, eta bakhotxak edan zuen bere adinaren arabera.
2. Erregek beraz (ordukoz arnotua zen) manatu zuen ekhar zetzazten, Jerusalem izan zen tenplotik haren aita Nabukodonosorrek ekha-

rri urhezko eta zilharrezko untziak, erregek eta haren emazteek eta ohai-deek hekietan edateko.

3. Orduan ekharri zituzten, Jerusalem izan zen tenplotik hartu urhezko eta zilharrezko untziak; eta hekietan edan zuten erregek eta haren handi-mandiek eta haren emazte eta ohaideek.

4. Arnoa edaten zuten, eta beren jainko urhezko, zilharrezko, kobrezko, burdinazko, zurezko eta harrizkoak laudatzen zituzten.

5. Oren berean agertu ziren erhi batzu, errege-salhako harrasian, ganderailuaren parrean iskribatzen zuen gizon baten eskua iduri; eta errege begira zagoen iskribatzen hari zen eskuko erhie.

6. Orduan erregeren begithartea itxuragaiztu zen, eta bere gogoetak asaldutan ezartzen zuten; eta haren gerruntzeko giltzak malgutzen ziren, eta haren belhaunak ekharri joka hari ziren.

7. Hargatik erregek hazkarki oihu egin zuen sarraraz zetzazten magoak, Kaldearrak eta usnaginak. Eta Babilonako zuhurrei mintzatu, erregek erran zuen: Edozeinek irakur dezazuen iskribu hori eta eman diazadan horren argitasuna, purpuraz jauntziko da, urhezko gathe bat izanen du lephoan, eta hirugarren izanen da ene erresuman.

8. Orduan erregeren zuhur sarthuak ziren guziek ezin irakurtu zuten iskribua, eta erregeri ezin eman zioten argitasunik.

9. Horrek gehiago nahasi zuen Baltasar erregea, eta aldatu zitzaioen begithartea, eta harekilako handiak ere nahasten hari ziren.

10. Erregina berriz, erregeri eta harekilako handiei gerthatu zitzaio-tenaren ariaz, sarthu zen barazkariko salhara, eta erran zuen: Errege, bizi zaite bethi; zure gogoetak ez beitez nahas, eta zure begithartea ez bedi desegin.

11. Zure erresuman bada gizon bat, jainko sainduen izpiritua berekin duena; eta zure aitaren egunetan, jakitatea eta zuhurtzia aurkhitu dire haren baithan; ezen Nabukodonosor erregeak, zure aitak, ezarri ere zuen magoen, xarmatzaileen, Kaldearren eta usnaginen buruzagi; zure aitak, diot, oi errege;

12. Zeren izpiritu hedatuagoa, gurbiltasuna, adigarria, ametsen argitzeko antzea, segretuen agertzekoa, gauza koropilatuak zabaltzekoa atzeman baitziren haren baithan, erran nahi da Danielen baithan, zeinari erregek eman baitzaroen Baltasarren izena. Hargatik orai Daniel deithua izan bedi, eta harek emanen du argitasuna.

13. Beraz erregeren aitzinera sarrarazi zuten Daniel. Erregek erran zioen lehenik: Zu zare Daniel Judako ume gathibuetarikakoa, ene aita erregek Judeatik hunat ekharria?





14. Zutaz aditua naiz, jainkoen izpiritua baduzula; eta jakitatea, aditza eta zuhurtzia zutan bertzeetan baino hedatuagoak aurkhitu direla.

15. Eta orai ene aitzinera sarrarazi dituzte mago jakintsunak, iskribu horren irakurtzera eta horren argitasunaren ematera niri; eta hitz horien garbitasunik ezin atheratu dute.

16. Bainan zutaz aditu dut gauzaitsuak argi eta koropilatuena zabal detzazketzula; baldin beraz gai bazare iskribu horren irakurtzeko eta horren garbitasunaren niri emateko, purpuraz jauntziko zare, eta urhezko gathe bat izanen duzu lephoan, eta ene erresuman hirugarren aitzindari izanen zare.

17. Solas horie ihardestean, Danielek erran zuen erregeren aitzinean: Zure emaitzak zuretzat, eta bertze bati emotzu zure etxeko onak; guzia gatik irakurtuko darotzut iskribu hori, errege, eta erakhutsiko darotzut zer erran nahi duen.

18. Oi errege, Jainko guziz gorak zure aita Nabukodonosorri eman ziozkan erregetasuna, handitasuna, ospea eta ohorea;

19. Eta hari erran zioen ahal handia gatik, populu, leinu eta mintzaia orotako gizonak ikharan eta haren beldurrez zauden; hilarazten zituen nahi zituenak, nahi zituenak jotzen, altxatzen nahi zituenak, nahi zituenak aphaltzen.

20. Bainan haren bihotza hantu zenean, eta haren izpiritua hanpuruskeriari erran, khendua izan zen bere erresumako tronutik eta irazi zitzaioen bere ospea;

21. Eta gizasemeen artetik khendua izan zen; haren bihotza ere larabereekilako ezarria izan zen, eta basastoekin zuen bere egoitza; belharra halaber idiak bezala jaten zuen, eta haren gorphutzari zeruko ihintza zarion, ezagutu zuen arteo Guziz-Gorak duela ahala gizonen erresuman, eta nahi duena eraikitzen duela haren gainera.

22. Zuk ere, Baltasar, haren semeak, ez duzu beheratu zure bihotza, horiek oro zinazkien arren;

23. Bainan zeruko nausiaren kontra altxatu zare; eta haren tenpleko untziak zure aitzinera ekharriak izan dire, eta hekietan edan duzue arnoa, zuk, zure handiek, zure emazte eta ohaideek; laudatu ditutzu halaber zure jainko zilharrezko, urhezko, kobrezko, burdinazko, zurezko eta harrizkoak, zeinek ez baitute ez ikhusten, ez aditzen, ez hautematen; ez diozu, berriz, ospe bihurtu Jainkoari, zeinak bere eskuan baitaduzka zure hatsa eta zure bide guziak.

24. Hargatik harek igorri du eskua zeinaren erhiak iskribatu baitu hatz horietan dena.

25. Hau da, berriz, hor xuxendua den iskribua: MANE, THECEL, PHARES.

26. Eta huna hitz horien argipena: MANE: Jainkoak khondatau dituzte erregetasuneko egunak, eta azkena bethe da.

27. THECEL: Balantzan ezarria izan zare eta phisuz eskas atzema-na.

28. PHARES: Zure erresuma bi zathi egina, Mediarrei eta Persiarrei emana da.

29. Orduan, erregeren manuz, Daniel purpuraz jauntzia izan zen, urhezko gathe bat inguratu zioten lephoan, eta oi hu egina izan zen, harek zuela erresuman hirugarren aitzindariaren eskua.

30. Gau berean hila izan zen Baltasar Kaldearren errege.

31. Eta erresuman haren ondoko izan zen Dario Mediarra, zeinak baitzituen hirur hogoi eta bi urthe.

## VI. KAP.

1. Dariok bere erresuman nahi izan eta ezarri zituen sei hogoi satrapa, erresuma guziaren gainean manatzeko.

2. Eta hekien gaineko ezarri zituen hirur buruzagi, zeinetarik bat baitzen Daniel, satrapek hekiei emateko beren ariak, eta erregek etzezan izan gogobehardurarik jasaiteko.

3. Danielek, bada, satrapa eta buruzagi guziak xitzen zituen, zeren Jainkoaren izpiritua nasaia go baitzen haren baithan.

4. Bada, erregek burutan zerabilan hura erresuma guziaren gainean ezartzea; hargatik buruzagiak eta satrapek ariaketa zabiltzan, Danielentzat zerbait estakuru atzeman beharrez erregeren alderako eginbideetan; eta ezin aurkhitu ahal izan zuten ez ariarik, ez-eta nabarmentzeko biderik batere, fidela zelakoz, eta den-gutieneko hutsik, ez-eta hutsaren aiherurik etzelakoz haren baithan atzematen.

5. Gizon hekiek erran zuten: Daniel horri ez diogu zerbait aitzakia khausituko, non-ez beharbada horren Jainkoaren legean.

6. Orduan buruzagiek eta satrapek maltzurki amainatu zuten errege, eta hunela mintzatu zitzaizkon: Dario erregea, menderen mendez bizi zaite.

7. Batzarre iduki dugu zure erresumako aitzindari guziek, kargudunek, satrapek, biltzarrekoek eta juieek, athera dadienzat erregeren ize-nean erabaki eta manamendu bat, nor-nahik egiten badu zerbait galde hogoi eta hamar egunik barnean edozein jainko edo gizoni, zuri ez bada, oi errege, lehoinen zilhora izan dadien arthikia.



8. Hargatik orai gogor zazu erabaki hori, eta iskriba zazu manamendua, arren-eta Mediarrek eta Persiarrek ezarri legea ez dadien izan aldatua, eta norinahiri haustea ez dakioen izan haizua.

9. Beraz Dario erregeak ezarri eta atheratu zuen erabakia.

10. Danielek hori jakin zuen ondoan, erran nahi da lege ezarria zena, sarthu zen bere etxerat, eta bere salhako leihoak Jerusalemeko alderat idekirik, egunean hirur aldiz, belhaunikatzen zen, adoratzan zuen bere Jainkoa eta aithor bihurtzen zuen haren aitzinean, lehen egiten ohi zuen bezala.

11. Beraz, ardurarekin bilhatzen ziren gizon horiek atzeman zuten Daniel bere Jainkoari hari zitzaioela othoizka eta errekeika.

12. Eta erregeren gana iganik, bere erabakiaren gainean erran zioten: Oi errege, ez othe duzu manatu edozein gizonen othoitz dezan jainkoetarik edo gizonetarik norbait hogoi eta hamar egunik barnean, zu ez bada, oi errege, arthikia izanen dela lehoinen zilhora? Hekiei ihardestean, erregek erran zuen: Solas hori egia da Mediarren eta Persiarren erabakiaren arabera, zeina haustea ez baita zilhegi.

13. Orduan ibardetsiz, erran zuten erregeren aitzinean: Judako gathibuen umeetarik batek, Danielek, ez du axolarik iduki zure legeaz eta atheratu duzun erabakiaz, bainan egunean hiruretan egoten da othoitzean.

14. Solas hori aditu zuenean, erregek atsekabe handia izan zuen; eta Danielen alde ezarri zuen bihotza, haren salbatzeko, eta iguzkia sarthu arteo haritu zen hura atheratu beharrez.

15. Bainan gizon hekiek ezagutzen baitzuten erregeren gogoa, erran zaroten: Jakizu, errege, Mediarretan eta Persiarretan lege dela, erregek atheratu erabaki baten mudatzea ez dela zilhegi.

16. Orduan erregek manatu, eta erakharri zuten Daniel, eta lehoinen zilhora arthiki zuten. Eta Danieli erran zioen erregek: Zure Jainko bethi adoratzan duzunak, berak libratuaren zaitu.

17. Eta ekharri zuten harri bat, eta ezarri zuten zilhoaren gainean, eta erregek bere zigiluaz eta bere handien zigiluaz jo zuen, etzedintzat Danielen kontra deusere egin.

18. Eta errege goan zen bere etxerat, eta etzan zen afaldu gabe; haren aitzinera jatekorik etzuten ekharri, eta bertzalde loak ihes egin zioen.

19. Orduan errege, argiaren lehenbiziko zirrintan jaikirik, zalhurik goan zen lehoin-zilhora.

20. Eta zilhora hurbiltzean, doiamenezko mintzo batekin oihu egin zuen, eta Danieli mintzatu zitzaioen: Daniel, Jainko biziaren zerbitzaria,

zure Jainko bethi zerbitzatzen duzunak atheratu ahal othe izan zaitu lehoinen hortzetarik?

21. Eta Danielek erregeri ihardestean, erran zuen: Oi errege, menderen mendez bizi zaita.

22. Ene Jainkoak igorri du bere aingerua, hertsu dituen lehoinen ahoak, eta ez darotade minik egin; zeren haren aitzinean zuzentasuna aurkhitu baita ene baithan; eta zure aitzinean ere, oi errege, gaizkirik ez dut egin.

23. Orduan errege bozkario handitan sarthu zen horren ariaz, eta manatu zuen, zilhotik athera zezaten Daniel; eta Daniel atheratua izan zen zilhotik, eta dainurik batere etzen haren baithan aurkhitu izan, sinheste izan zuelakoz bere Jainkoaren gainean.

24. Aldiz, erregek manaturik, erakharri zituzten Danieli jarzari zioten gizon hekiek; eta lehoinen zilhora arthikiak izan ziren berak eta beren haur eta emazteak; eta zilho-behereraino utzi gabe, lehoinek harrapatu zituzten, eta xhakatu zituzten hekien hezur guziak.

25. Orduan Dario erregeak iskribatu zioten haren erresuma guzian egoten ziren populu, leinu eta mintzaia guzietako gizonen: Bakea berha eta berha bekizue.

26. Nik emana da erabakia, ene erre-suma eta manamenduko lurretan oro bizi ditezen Danielen Jainkoaren ikharan eta beldurrean. Hura da ezen Jainko bizia eta bethierekoa menderen mendetan; eta haren erregetasuna ez da ezeztaturen eta haren ahalak iraunen du bethiraino.

27. Hura da libratzailea eta salbatzailea, ezagutkariak eta sendagailak zeruan eta lurtean egiten dituen, lehoin-zilhotik Daniel libratu duena.

28. Bada, Danielek kargutan iraun zuen Darioren erregetasunak bezenbat eta Ziro Persiarra erregatu arteo.

## VII. KAP.

1. Babilonako errege Baltasarren lehenbiziko urtean, Danielek izatu zuen amets bat; eta bere ohean ilkhi zitzaioen bere buruko ikhuspene; eta ametsa iskribatzean, hitz gutitan ezarri zuen, eta laburzki hertsiz, erran zuen:

2. Gabaz ene ikhuspenean ikhusten nuen, eta hara zeruko lau hai-zeak itsaso handian gudukatzen zirela.

3. Eta lau basabere handi, bata bertzea-ez-bezalakoa, igaiten ziren itsasotik.

4. Lehenbizikoak lehoin urrixa bat zuen iduri, eta bazituen arrano-hegalak. Begira egon nintzaioen, hegalak atheratuak izan zatzaizkoenerai-



no; eta jaiki zen lurretik, eta gizona bezala oinen gainera jarri zen, eta eman zioten gizon-bihotza.

5. Eta hara bertze basabere bat, hartza iduri, aldean jarri zela; eta haren ahoan eta hortzetan hirur lerro ziren; eta hula erraten zioten: Jaik hadi eta jan zak haragi hainitz.

6. Gero begira nindagoen, eta bara bertze bat lehoinabarra iduri, eta hegala bazituen hegastinak bezala, lau gaineko aldetik; eta basabere hartan baziren lau buru, eta ahala emana izan zitzaioen.

7. Gero begira nindagoen gabazko ikhuspen hortan, eta hara laugarren basabere bat, ikharagarria, harrigarria eta indar gaitzekoa; burdinazko hortz handi batzu bazituen; jaten zuen eta phorroskatzen, eta ondarrak zangoen azpian oinkatzen zituen; hura baino lehen ikhusi nituen bertze basabereak ez-bezalakoa zen, eta bazituen hamar adar.

8. Adarrei begira nindagoen, eta hara hekien erditik bertze adar ttipi bat sorthu zela; eta lehenbiziko adarretarik hirur atheratuak izan zitzaizkon aitzinetik eta hara adar hartan bazirela begiak, gizon-begiak iduri, eta aho bat gauza handiak erraten zituena.

9. Begira nindagoen, tronuak ezarri zituzten arteraino; eta egunetako zaharra jarri zen; haren jauntzia xuria zen elhurra bezala, eta haren buruko ileak ardi-ile garbiena bezala; su garrezkoa zen haren tronua, eta hartako arrodak su khaldatuzkoak.

10. Suzko hibai bat fharrastaka ilkhitzen zen haren begithartetik; aingeruek miliunka zerbitzatzen zuten, eta hamar ehun miliunka zauden haren aitzinean juiea alkhan jarri zen, eta liburuak idekiak izan ziren.

11. Begira nindagoen adar harek erraten zituen solas handiak gatik, eta ikhusi nuen basaberea hila izan zela, eta haren gorputza xahutua eta surat arthikia zela errea izateko;

12. Bertze basabereen ahala ere khendua zela, eta hekien biziko iraupena xedatua zela ephe batera eta ephe bateraino.

13. Gabazko ikhuspen batean nindagoen beraz begira, eta hara gizonaren semea bezala zathorla zeruko hedoeikin, eta egunetako zaharraren gana heldu izan zen; eta haren aitzinera erakharri zuten.

14. Eta egunetako zaharrak eman ziozkan ahala, ohorea eta erregetasuna; eta populu guziek, leinu eta mintzaia guzietako gizonak zerbitzatuaren dute; haren ahala da bethirainoko ahala, eta khendua izanen etzaiona; eta haren erregetasuna ez da galduko.

15. Laztu zen ene barnea; ni, Daniel, izitu nintzen horietaz, eta nahasi ninduten ene buruko ikhuspenek.

16. Han zaudenarik baten gana hurbildu nintzen, eta haren ganik egja jakin nahi nuen horien guzien gainean. Harek erran zarotan zer erran nahi zuten gauza horiek eta argitu ninduen:

17. Lau basabere handi horiek dire lau erresuma, lurraren gainean altxatuko direnak.

18. Bainan Jainko guziz goraren sainduak hartuko dute nausitasuna; eta menderaino eta mendeetako menderaino ardietsiren dute erregetasuna.

19. Gero nahi izan nuen ardurarekin argitu laugarren basabereaz, zeina baitien arras bertzeak- ez-bezalakoa eta guziz lazgarria; burdinazko hortzak eta aztaparrak zituen; jaten eta phorroskatzen eta ondarrak zangoen azpian ostikatzen zituen.

20. Eta nahi izan nuen argitu buruan zituen hamar adarrez, eta sorthu zitzaion bertzeaz, zeinaren aitzinean erori baitziren hirur adar; eta begiak eta aho gauza handi errailea zituen adar hartaz, zeina bertzeak baino handiagoa baitzen.

21. Begira nindagoen, eta hara adar harek sainduen kontra gerla egiten zuela eta nausitzen zitzaioletela,

22. Egunetako zaharra ethorri izan zen arteo; eta Guziz-Goraren sainduen alde erabakia eman zuen; eta ethorri zen muga, eta sainduak ardietsi zuten nausitasuna.

23. Eta hunela mintzatu zen: Laugarren basaberea, lurraren gainean izanen den laugarren erresuma da, erresuma guziak baino handiagoa izanen dena; eta lur guzia iretsiko, eta ostikatuko, eta xehakatuko du.

24. Aldiz, erresuma haren hamar adarrak, hamar errege izanen dire; eta hekien ondotik jaikiko da bertze bat, eta hura ahaldunagoa izanen da lehenekoak baino, eta aphalduko ditu hirur errege.

25. Eta Guziz-Goraren kontra mintzatu da hanpurutsuki, eta xahutuko ditu Guziz-Goraren sainduak, eta usteko du aida detzazkeela denborak eta legeak; eta haren eskura emanak izanen dire ephe bateraino, bi ephe eta ephe baten erdia.

26. Eta juiea jarriko da hari ahalaren khentzeko, eta hura xahutua eta galdua izan dadien akhabantzaraino;

27. Aldiz, erregetasuna, ahala eta zeru guziaren azpian den erresumaren handitasuna emanak izan dakizkion Guziz-Goraren sainduen populuari; zeinaren erregetasuna bethikoa baita; eta errege guziek zerbitzatu dute, eta ethordun izanen zaizkio.

28. Huntan akhabatu zen solasa. Ni Daniel hainitz nahasten ninduten ene gogoetek, eta ene begithartea ganbiatu zen ene baithan; bainan solasa begiratu nuen ene bihotzean.



### VIII. KAP.

1. Baltasar erregearen erregetasuneko hirugarren urthean, niri ager-tu zitzaitan ikhuspen bat, nik Danielek hastean izan nuenaz geroztik.
2. Ikhusi izan nuen ene ikhuspenean, Susako kanpan nintzelarik, Elamgo herrialdean baita hura; ikhusi nuen beraz ene ikhuspenean Ulaiko athean nintzela.
3. Eta goititu nituen begiak, eta ikhusi nuen, eta hara ahari bat aintzi-  
ra baten aitzinean zagoela; bazituen adar handi batzu, eta bat bertzea baino  
handiagoa eta handituz zihoana zen. Gero
4. Ikhusi nuen aharia, mendebalerat, ipharrerat eta hegoarat adar-  
ukhaldika hari zela; eta basabere guziek ezin ziozoketen buru egin, ez-eta  
haren ganik itzur beren buruak; eta nahi zuena egin zuen, eta handi bil-  
hakatu zen.
5. Eta ni ernerik nindagoen: hara berriz, ahuntzetarikako akher bat  
mendebaletik heldu zela lurraren hedadura guzian, eta etzuen ukitzen  
lurra; bada, akherrak bazuen bi begien artean adar bat gaitza.
6. Eta athean xutik ikhusi nuen ahari adarduneraino ethorri zen, eta  
gainera laster egin zioen bere indarraren oldarrean.
7. Eta ahariari hurbildu zenean, jauzi zitzaioen gainera, jo zuen eta  
hautsi ziozkan bi adarrak, eta ahariak ezin ihardets ziozokeen; eta lurrerat  
arthiki zuenean, ostikatu zuen, eta nihork etzezakeen haren azpitik athera.
8. Akherra berriz, ikharagarri handi egin zen; eta hala handitu  
zenean, hautsi zen haren adarra, eta haren azpitik ilkhi ziren lau adar,  
zeruko lau haizeetara zaudezenak.
9. Aldiz, hekietarik batetarik ilkhi zen adar xume bat, eta handitu zen  
hegoalderat eta iguzki-alderat eta indarraren kontra;
10. Eta altxatu zen zeruetako armadaraino; eta armadatik eta izarre-  
tarik asko arthiki eta oin-pean erabili zituen.
11. Eta armadako buruzagiraino altxatu zen eta khendu zaroen bere  
egundainoko sakrifizioa eta eragotzi bere sailduespeneko tokia.
12. Berriz, indarra emana zaio bethiko sakrifizioaren kontra bekha-  
tuen ariaz, eta egia lurrerat arthikia izanen da. Eginen du nahi duena eta  
ongi atheratuko zaio.
13. Eta aditu nuen mintzatzen sailduetarik bat; eta saildu batek  
erran zaroen bertze mintzo zen bati, ez dakit zeini: Noiz arteo egonen  
dire hola ikhuspen hau, bethiko sakrifizioa eta egin den inkoniamendu-  
aren bekhatua? noiz arteo oin-petan erabiliko dire saildutegia eta  
Jainkoaren armada?

14. Eta ihardetsi zaroen: Arratseraino eta goizeraino, bi mila eta hirur  
ehun egunez, eta gero saildutegia izanen da garbitua.

15. Nik berriz, Danielek ikhusten nuelarik ikhuspen hori, eta bilhatzen  
nintzelarik zer erran nahi zuen, hara gizon itxura bat bezala jarri zela xutik  
ene aitzinean.

16. Eta aditu nuen Ulai erditik gizon mintzo bat, eta oiuhu egin zuen  
eta erran: Gabriel, ardietsaraz diozozu ikhuspen hau.

17. Eta ethorri zen, eta ni nintzen tokiaren ondoan jarri zen; eta  
ethorri zenean, ahuspez erori nintzen ikharan; eta erran zarotan: Adi  
zazu, gizasemea, zeren ephearen buruan betheko baita ikhuspen hau.

18. Eta niri mintzo zelarik, erori nintzen ahuspez lurrera; eta ukitu  
ninduen eta xutik ezarri ene oinen gainean.

19. Eta erran zarotan: Nik erakhutsiren darozkitzut madarizonearen  
buruan gerthatzekoak direnak; ezen epheak badu bere akhabantza.

20. Adarrak zituela ikhusi duzun aharia, Mediarren eta Persiarren  
errege da.

21. Akherra berriz, Greziarren errege da; eta haren begien artean zen  
adar handia, lehenbiziko erregea da.

22. Aldiz, adar hura hautsi den ondoan, haren orde ilkhi dire lau; lau  
errege ilkhiko dire haren jendakitik, bainan ez haren indarrarekin.

23. Eta hekiek erreginatua ondoan, tzarkeriak berhatu ditazkeenean,  
jaikiko da errege bat, begithartez ahalkegabea eta gauza gordeak aditzen  
dituena.

24. Eta haren ahala hazkarturen da, bainan ez haren indarrei esker:  
eta sinhets ditakeenez gairi, xahuturen ditu bazter guziak; eta gurenduz  
goanen da, eta nahi duena eginen du. Eta hilen ditu hazkarrak eta sail-  
duen populua

25. Nahi duenaren arabera. Eta haren eskuan zimarkhua berearekin  
atheratuko da; eta hantuko zaio bihotza; eta gauza guzien nasaizian, hilen  
ditu asko; eta altxaturen da buruzagien buruzagiaren kontra; eta gizon-  
aren eskua gabe, lehertua izanen da.

26. Eta errana den goizeko eta arratseko ikhuspenean, egia da; zuk beraz  
zigila zazu ikhuspenean, asko egunen buruan gerthatu beharra delakoz.

27. Eta ni Daniel, hiratu eta asko egunez eri egon nintzen; eta jaiki  
ondoan, egiten nituen erregeren lanak; eta harritzen nintzen ikhuspen  
hortaz; eta nihor etzen horren argitzeko gai.



## IX. KAP.

1. Darioren lehenbiziko urthean, Dario baitzen Asueroren semea, Mediarren odoletikakoa, eta erreginatu baitzen Kaldearren erresumaren gainean;

2. Haren erregetasuneko lehen urthean, nik Danielek liburuetan ardietsi nuen zenbat ziren urtheak, Jaunak Jeremias profetari aiphatu zituenak, Jerusalemeren inkoniamenduko hirur hogoi eta hamar urtheen bethetzeko.

3. Eta ene Jainko Jaunaren alderat itzuli nuen ene begithartea othoizteko eta errekeitzeko baruretan, zakhuan eta hautsean.

4. Eta othoiztu nuen ene Jainko Jauna, eta aithortu nituen ene bekhatuak, eta erran nuen: Zuri nago othoizka, Jainko Jaun handi eta ikhara-garria, batasuna eta urrikalmendua begiratzen daroeztetzuna maite zaituztenei eta zure manamenduak zaintzen dituztenei.

5. Bekhatu egin dugu, gaixtakeria egin dugu, tzarki ibili gare, zure ganik gibelatu, eta zure manamendu eta erabakietarik zeihertu gare.

6. Ez gatzazkiote ethordun izatu zure zerbitzari profetei, zeinak zure izenean mintzatu baitire gure erregeei, gure buruzagiei, gure aitei eta lurreko populu guzian.

7. Zuri, Jauna, zuzentasuna; guri aldiz, begitharteko ahalkea, egun gerthatzen zaioten bezala Judako gizonari, Jerusalemdarrei eta Israel guzian; hurbil direnei eta urrun direnei toki guzietan zeinetara irazi baitituzu, beren gaixtakeria, zure alderat hobendun jarri dituztenen gatik.

8. Jauna, ahalkea gure begitharteari, gure errege, buruzagi eta aita bekhatu-egileei.

9. Zuri aldiz, gure Jainko Jauna urrikalmendua eta barkhatiartasuna, zeren zu ganik baikare gibelatu.

10. Eta ez dugu entzun gure Jainko Jaunaren mintzoa, ibiltzeko haren legean, bere zerbitzari profeten arartekoz eman izan darokunean.

11. Eta Israel guziak hautsi du zure legea, eta zeihertu da, zure mintzoa ez aditu nahiz, eta Jainkoaren zerbitzari Moisen liburuan iskribatuak diren madarizioa eta hatsgarritasuna erori dire gure gainera, Jaunaren kontra egin dugulakoz bekhatu.

12. Eta obratu ditu, gure gainean eta juiatu gaituzten buruzagien gainean erran zituen hitzak, gure gainera erakharriren zuela gaitz handi bat, nolakorik egundaino ez baitzen ikhusi zeruaren azpian, Jerusalemen gert-hatu den bezala.

13. Moisen liburuan iskribatua denaren arabera, gaitz hori guzia ethorri da gure gainera; eta ez dugu othoiztu zure begithartea, gure Jainko

Jauna, bihur gintezentzat gure tzarkerietarik, eta gogoan erabil gindezan zure egia.

14. Eta Jauna atzarria egotu zaio tzarkeriari, eta bihurraz du gure gainera. Zuzena da gure Jainko Jauna erabili dituen egintza guzietan, ezen ez dugu entzun haren mintzoa.

15. Eta orai, gure Jainko Jauna, zure populua Egiptoko lurretik zure esku hazkarraz erakharri duzuna, eta zure izena egun den bezalakoa egin duzuna, bekhatu egin dugu, gaixtakerian haritu gare.

16. Jauna, zure zuzentasun guziaz othoizten zaitut, aldara beitez zure hasarrea eta zure irakidura Jerusalengo zure hiriaren eta zure mendi sainduaren gainetik; ezen gure bekhatuen gatik eta gure aiten tzarkerien gatik, Jerusaleme eta zure populua laidotan dire guzien aitzinean gure inguruan.

17. Orai beraz, gure Jainkoa, entzun zazu zure zerbitzariaren othoizt-errekeiak; eta zure buruaren ariaz, erakhutsazu zure begithartea zure saildutegi mortu dagoenaren gainera.

18. Makhur zazu, ene Jainkoa, zure beharria, eta entzun zazu; idekatzu begiak, eta ikhusatzu gure inkoniamendua eta hiria zeinaren gainera deithua izan baita zure izena; ez ditugu ezen gure othoitzak zure oinetan ixurtzen gare zuzenen bidez, bainan-bai zure urrikalkortasun nihonerekoaren ariaz.

19. Entzun gaitzatzu, Jauna; jabal zaite, Jauna; begira zazu, eta egizu; ez luza zure buruaren ariaz, ene Jainkoa, zeren zure izena deithua izan baita zure hiriaren eta zure populuaren gainera.

20. Eta oraino mintzo nintzelarik eta othoizka nindagoelarik, eta aithortzen nituelarik ene bekhatuak eta Israelgo ene herritarren bekhatuak, eta ene Jainkoaren aitzinean haren oinetara ixurtzen nituelarik ene othoitzak ene Jainkoaren mendi sailduarentzat;

21. Oraino othoiztean mintzo nintzelarik, hara Gabriel, gizon-itxuran hastetik ikhuspenetan ikhusi izan nuena, batbatean hegaldaka ethoririk, ukitu ninduen arratseko sakrifizioaren tenorean.

22. Eta irakhatsi ninduen, eta mintzatu zitzaitan, eta erran zarotan: Daniel, orai ilkhi naiz zuri irakhasteko, eta adigarria dezazun ardiets.

23. Zure othoizten hastetik ilkhi da manua; ni berriz, zure argitzera heldu naiz, lehietako gizona zarelakoz; zaude beraz solasari erne, eta adi zazu ikhuspena.

24. Hirur hogoi eta hamar asteak laburtuak dire zure herritarren eta hiri sailduaren gainean, gal dadienzat lege-hauspena, akhaba bekhatua, eta ezeza tzakeria; ethor dadien zuzentasun bethierekoa, bethe ditezen ikhuspen eta profeziak, eta sailduren saildua izan dadien gantzutua.



25. Jakizu beraz eta ohartemazu: Jerusalemeren berritzeko manua ilkhi denetik, Kristo buruzagiraino izanen dire zazpi aste eta hirur hogoi eta bi aste; eta denboretako hesturen erdian berrituak izanen dire plaza eta harrasiak.

26. Eta hirur hogoi eta bi asteren buruan, hilen dute Kristo; eta hura ukhatu behar duen populua, ez da gehiago haren populua izanen. Eta populu batek, ethortzekoa den buruzagi batekin, urraturen ditu hiria eta saildutegia; eta xahupena izanen eta gerla akhabatu ondoan izanen da erabakia den desmasia.

27. Aste batez Kristok askorekin gogorturen du bere batasuna; eta astearen erdian galduren dire bitimak eta sakrifizioa; eta desmasiaren hatsgarrikeria izanen da tenploan; eta akhipeneraino eta akhabantzaraino iraunen du desmasiak.

### X. KAP.

1. Persiarren erregre Zioren hirugarren urthean, Danieli, izengoitiaz Baltasari, agertua izan zitzaioen solas bat, solas egiazko eta indar handikoa. Eta ardietsi zuen solasa, ezen ikhuspenean aditza behar da.

2. Egun hekietan, ni Daniel nigarrez egon nintzen hirur astez.

3. Ez nuen jan gozoa zuen ogirik; eta etzen ez haragirik ez arnorik ene ahoan sarthu, eta gantzugailuz ere ez nintzen gantzutu, hirur asteetako egunak bethe arteo.

4. Bada lehen hilabetheko hogoi eta laugarren egunean, Tigrisa deitzen den hibai handiaren bazterrean nintzen.

5. Eta begiak goititu, eta ikhusi nuen: eta hara gizon bat liho-oihalez jauntzia, eta urhe ederrenetikako gerriko batez tinkatua zuen gerria.

6. Eta haren gorphutza krisolita bezalakoa zen, eta haren begitharteak simistaren itxura zuen, eta haren begiek argi bizia iduri zuten; eta haren beloek eta beheiti oinetarainokoe kobre khaldatuaren itxura bezala zuten; eta haren hitzetako mintzoak iduri zuen oste baten burrunba.

7. Bada, nik Danielek bakharrik ikhusi nuen ikhuspenean; enekin ziren gizonak berriz, etzuten ikhusi, bainan laztura gaitza jauzi zitzaioten, eta gordegailu batera ihes egin zuten.

8. Ni aldiz, bakharrik utzi ninduten, eta ikhusi nuen ikhuspene handi hura; eta etzen ene baithan indarririk gelditu, eta ene begithartea ere itxuragaiztu ene baithan, eta alditxartu nintzen, eta ez nuen indarririk den gutiena.

9. Eta aditu nuen haren solasetako mintzoa, eta aditzearekin, lurrera ahuspeka eroria nindagoen, eta ene begithartea lurrari josia zen.

10. Eta hara esku batek ukitu ninduela, eta jaiki ninduen ene belhauen eta eskuen gainera.

11. Eta erran izan zarotan: Daniel, lehietako gizona, ardietsatzu nik erraten darozkitzudan hitzak, eta zaude xutik; ezen orai zure gana igorria naiz. Eta solas hori erran zarotanean, xutitu nintzen ikharan.

12. Eta erran zarotan: Ez izi, Daniel; zeren lehenbiziko egunetik, zeintarik zure bihotza aditzeari eman baituzu, zure Jainkoaren aitzinean atsekabetan sarthuz, entzunak izan dire zure hitzak, eta zure solasen gatik naiz ethorria.

13. Bada Persiarren erresumako buruzagiak gogor egin darot, hogoi eta bat egunez; eta hara Mixel, lehenbiziko aitzindarietarik bat, ethorri dela ene laguntzera; eta ni hor gelditu naiz Persiarren erregearen aldean.

14. Ethorri naiz, berriz, zure argitzera zure populuari azken egunetan gerthatu behar zaioenaz; ezen ikhuspene hau oraino urrungo egunentzat da.

15. Eta horrelako solasak erraten zarozkidanean, begithartea lurrari erran nioen, eta ixilik nindagoen.

16. Eta hara gizaseme-itxurak ukitu zituela ene ezpainak; eta ahoa idekiz, mintzatu nintzen, eta ene aldean zagoenari erran nioen: Ene Jauna, zu ikhustearekin ene zainek amor egin dute eta ene baithan ez da indarririk batere gelditu.

17. Eta nola ene Jaunaren zerbitzaria mintzaturen ahal da ene Jaunarekin? ezen ez da ene baithan gelditu indarririk batere, eta hatsa ere ithotzen hari zait zintzurtean.

18. Berriz ukitu ninduen beraz gizon-itxura bezalako harek, eta hazkartu ninduen,

19. Eta erran zarotan: Lehietako gizona, ez izi; bakea zuri; indar har zazu, eta izan zaite hazkar. Eta enekin mintzo zelarik, bizkortu nintzen, eta erran naroen: Mintza zaite, ene Jauna, zeren hazkartu bainauzu.

20. Eta ihardetsi zarotan: Ez othe dakizu zertara ethorri naizen zure gana? Eta orai itzuliko naiz Persiarren erregearen kontra gudukatzen. Ilkhitzen nintzelarik agertu zait Greziarren buruzagia bidean heldu dela.

21. Guzia gatik ezagutaraziren darotzut zer den xedatua egiazko iskribuan; eta horietan orotan nihor ez da ene laguntzaile, baizik-ere Mixel, zuen aitzindaria.

### XI. KAP.

1. Bada, ni, Dario Mediarraren lehenbiziko urthetik, banindagoen laguntzen, haren gogortzeko eta hazkartzeko.



2. Eta orai ezagutaraziren darotzut egia. Hara hirur errege jarriko direla oraino Persian, eta laugarrenak bilduko ditu guzien gainetik aberastasun gaitzak; eta bere aberastasunez garai izanen denean, subermaturen ditu guziak Greziarren erresumaren kontra.

3. Baina jaikiren da errege bat hazkarra, eta bothere handirekin nausituren da, eta gogarako dituenak eginen ditu.

4. Eta noiz-etare nausi jarriren baita, urratua izanen da haren erresuma eta lau haizeetara berezia, baina ez haren ganikako ondoreentzat, ez-etare nausi egon deneko bere botherearen arabera; ezen haren erresuma zathikatua izanen da atzeen artean ere, aiphatuez landa.

5. Eta hegoaldeko erregea hazkarturen da, eta hunen garai izanen da haren azpiko aitzindariarik bat, eta botherez gehiago izanen da; ezen haren nausitasuna hedadura gaitzekoa izanen da.

6. Eta zenbait urtheren buruan batasun eginen dute; eta hegoaldeko erregeren alaba ethorriko da ipharreko erregearekin ezkontzera, eta ez du ardietsiko besoko hazkartasuna, eta haren odolak ez du iraunen; eta bera, eta bera erakharri zuten eta berari ordu arteo indar ematen zioten berarekilako gizon-gazteak, etsaien eskuetara izanen dire arthikiak.

7. Eta haren erroetarik ilkhiko da gando bat; eta armada batekin ethorriren da, eta ipharreko erregeren lurretan sarthuren da; eta hekiei nahi duena eginen diote, eta nausituren da.

8. Eta bertzalde Egiptora preso eramanen ditu hango jainkoak eta gizamoldeak, eta zilharrezko eta urhezko untzi baliosak ere: hura gaihenduren zaio ipharreko erregeari.

9. Eta hegoaldeko erregea sarthuren da erresuman, eta bere lurrera bihurturen da.

10. Berriz, ipharreko erregearen semeak suminduren dire; eta osteka bilduko dituzte asko armada; eta hura laster eginez ethorriren da, eta bazter guziak estaliz; eta itzuliren eta suharturen da, eta gudutan lothuren da haren armadarekin.

11. Eta hegoaldeko erregea hizitua ilkhiko da, eta gudu emanen dio ipharreko erregeari; eta xuxenduko du armada bat gaitza, eta oste handi bat arthikia izanen da haren eskuetara.

12. Eta ostea hartuko du, eta hantuko zaio bihotza, eta asko mila erorraraziko ditu ezpataren azpira; baina ez da nausituko.

13. Ezen itzuliren da ipharreko errege, eta xuxenduren du oste bat, lehenekoa baino hainitz handiagoa; eta epheen eta urtheen buruan laster eginen du armada handiarekin eta dirutze gaitzekin.

14. Eta egun hekietan asko dire jaikiren hegoaldeko erregearen kontra; zure populuko lege-hausleen semeak ere altxaturen dire, bethe dadientzat profetia, eta eroriko dire.

15. Eta ethorriren da ipharreko erregea; eginen ditu trantxadak eta hartuko hiririk hazkarrenak; eta hegoaldeko besoek ezin jasanen dute, eta hango hautak jaikiko dire, buru egiteko, eta ez dute indarrik izanen.

16. Eta ipharreko erregeak hegoaldekoaren ganean eginen du atsegin dukeena, eta hari buru eginen dioenik ez da izanen, eta jarriren da lur ospatuan, zeina iretsia izanen baita haren eskuaren azpian.

17. Eta harek begithartea itzuliren du hegoaldeko erregearen erresuma guziaz jabetzeko; eta zuzentasuneko itxurak erabiliren ditu harekin; eta bere alabarik ederrena emanen dio ezkontzaz, haren erresumaren eragozteko gogoz; baina ez da bere xedeetara helduren, eta alaba ez du atde izanen.

18. Eta irlen kontra itzuliren du begithartea, eta harturen ditu asko; eta geldiaraziren du ahalkea ematen zion aitzindaria; eta bere gainera bihurturen zaio lehen bertzei ematen zioten ahalkea.

19. Eta itzuliren du begithartea bere erresumako lurrera; eta behaztopaturen da, eta eroriko da, eta ez da gehiago aurkhituren.

20. Eta haren orde jarriren da gizonik putrusena, eta erregetasuneko ohoreari gutienik egokia; eta egun laburrik barnean xahutua izanen da, eta ez gerlako suan ez-eta gudutan.

21. Haren orde jarriren da gizon erdeinatu bat, eta ez diote emanen erregetasuneko ohorea; baina ethorriren da izilka, eta zimarkhuz ardietsiren du erregetasuna.

22. Eta haren kontra gudukatuko denaren besoak, haren aitzinean izanen dire garhaituak eta trenkatuak, eta oraino batasuneko buruzagia ere bai.

23. Eta adiskidantzak egin ondoan, zimarkhua erabiliren du haren kontra; eta iganen da, eta armada xumearekin garhaituren du.

24. Eta hiririk aberatsenetan eta gorienetan sarthuren da, eta eginen du haren aitek eta aiten aitek egin izan ez dutena; eramanen ditu hango harrapakin, buluzkin, aberastasunak; hiri hazkarrenen kontra erabiliren ditu bere asmuak, eta hori muga bateraino.

25. Eta haren indarra eta haren bihotza hegoaldeko erregearen kontra bizturen dire armada handi batekin; eta asko laguntzaz eta hainitz hazkarrez gerlara hizitua izanen da hegoaldeko erregea; eta ez dire gogoretik egonen, zeren asmuak erabiliko baitire haren kontra.



26. Eta harekin ogia jaten dutenek xahuturen dute, eta haren armada lehertua izanen da, eta asko hilak dire eroriren.

27. Bi erregeen bihotza ere gaizki egitera atzarria izanen da; eta mahain berean mintzaturen dire gezurka, eta ez dire baliaturen, zeren akhabantza oraino bertze muga bateko izanen baita.

28. Eta ipharraldeko erregea bere lurrera aberastasun handiekin bihurturen da; eta haren bihotza lege sailduaren kontra izanen da; eta eginen du bidegabe, eta bere lurrera itzuliren da.

29. Eta muga berezian bihurtuko eta hegoaldera ethorriko da; eta azken aldia ez da lehenbizikoa iduri izanen.

30. Eta haren gainera ethorriko dire untziak eta Erromarrak; eta joa izanen da, eta bihurtuko da, eta gaitzirizkotan sarthuko da saildutegiko legearen kontra, eta eginen du bidegabe; eta itzuliko da, eta asmuketa hariko da saildutegiko legea utzi dutenen kontra.

31. Eta haren ganik ethorriko dire gizonak eta lohituko dute Jainko hazkarraren saildutegia; eta khenduko dute bethiko sakrifizioa eta ezarriko desmasiako hatsgarrikeria.

32. Inpioek maulaz erabiliren dituzte alegiak legearen gainean: ordean bere Jainkoa ezagutzen duen populuak legea idukiren eta haren arabera eginen du.

33. Eta populuaren arteko gizon argituek argituren dituzte bertze asko, eta eroriren dire ezpataren, garraren, gathibusunaren eta orduko harrapakieren azpira.

34. Eta erori ondoan, altxaturen dire laguntza xume baten bidez, eta asko hekiei maltzurkerian iratxikiren dire.

35. Eta argituetarik izanen dire eroriko direnak suan garbi ditezentzat; hauts bilhaka, eta xuri ditezen muga berezia ethorri artean, zeren oraino bertze ordu bat izanen baita.

36. Eta erregek nahi duena eginen du; eta goitituren eta jainko guzien kontra altxaturen da; eta buruiopez mintzaturen da jainkoen Jainkoaren kontra; bere asmuetan aitzinatuz goanen da, Jainkoaren hasarrea bethe dadien arteo; erabakia ezen emana da.

37. Eta bere arbasoen Jainkoarentzat ez du ikhustaterik izanen; eta emakoitasunean sarthua egonen da, eta edozein jainkoz axolarik ez du izanen; ezen gauza guzien kontra altxatuko da.

38. Aldiz, agur ekharriren dio Maozim jainkoari bere tokian; eta urheaz, zilharraz, harri eta gauza baliosez ohore emanen dio haren arba-soek ezagutu ez duten jainko bati.

39. Eta hariko da Moazimi indar ematen ezagutu duen jainko arrotzarekin; eta hura adoratzen dutenen ospea berhaturen du, eta esku emanen diote haintzen gainean, eta urrurik bereziren diote lurra.

40. Eta ordu esleituan haren kontra gudukaturen da hegoaldeko erregea; eta ipharrekoa phesia bezala goanen zaio kontra orga-lasterrekin, zaldizkoekin eta untziketa handi batekin; eta haren lurretan sarthuren da, eta oro xahutuz iraganen da.

41. Eta ospezko lurrean sarthuren da, eta lur haintz izanen dire herrautsiak; aldiz haren eskuari itzuriko diren bakharrak, Edom, Moab eta Amonen semeen buruzagien lurak izanen dire.

42. Eta eskua hedaturen du lurren gainera, eta Egiptoko lurra ez da itzuriren.

43. Eta urhe eta zilhar murruez eta Egiptoko gauza balios guziez nausi eginen da, eta Libia eta Ethiopia gaindi ere iraganen da.

44. Eta iguzki-aldetik eta ipharretik berriek asaldutan emanen dute; eta oste handi batekin ethorriren da, oro xahutu eta asko hil beharrez.

45. Eta bere olha landaturen du Apadnon itsasoen artean, mendi ospedun eta sailduaren gainean; eta izanen da mendi gainera, eta nihork ez baitio laguntzarik emanen.

## XII. KAP.

1. Ordu hartan berriz, jaikiko da Mixel, buruzagi handia, zure populuko umeen begiratzeko dena; eta ethorriren da ordu bat halakorik ez baita izatu jendakiak izaten hasi diren denbora hartarik hunat. Eta ordu hartan salbaturen da zure populua, liburuan iskribatua atzemanen den guzia.

2. Eta lurreko herrautsean lo daudezen haintz iratzarriren dire, batzu bethirainoko bizitzerako, eta bertzeak laidorako, hura ikhus dezaten bethi.

3. Argituak izatu direnek aldiz, distiraturen dute ortziko dirdiradurak bezala; eta zeinek-ere zuzenaren bidean ibiltzen irakhatsi baitiote askori, hainek izarrek bezala dute bethiko mendeetan izarniaturen.

4. Zuk berriz, Daniel, hertsatzu hitz haukiek, eta liburua zigilatua idukazu ordu esleituraino; askok ikharturen dute eta jakitate handiak izanen dire.

5. Eta nik Danielek ikhusi nuen, eta hara iduri bertze bi gizon xutik, bat hunainditik ur-hegian, eta bertzea hainditik bertze ur-hegian.

6. Eta erran nioen liho-oihalez jauntzia zen gizonari, zeina hibaiko uren gainean baitzagoen: Noiz izanen da sendagaila haukien akhabantza?





7. Eta aditu nuen lihoz jauntzia zen gizona, hibaiko uren gainean xutik zagoena, esku eskuina eta ezkerre zerura goitituz eta bethi bizi denaz zin eginez erraten, ephe baten buruan eta bi epheren eta ephe baten erdiaren buruan izanen zela. Eta populu sainduaren baldarna osoki izanen denean barraiatua, betheko dire haukiek oro.

8. Eta nik aditu nuen, eta ez ardietsi. Eta erran nuen: Ene Jauna, zer izanen da gero?

9. Eta ihardetsi zuen: Zoaz, Daniel; zeren solas haukiek hertsia eta ordu esleituraino zigilatua baitire.

10. Eta hainitzak izanen dire hautatuak, eta xuri eginak eta suaz bezala frogatuak; eta gaixtaginak gaixtakerian hariko dire; eta gaixtagin guzietan ez dute adituko; bainan prestuek adituko dute.

11. Eta bethiko sakrifizioa khendua eta demasiako hatsgarrikeria ezarria izanen diren ordutik, goanen dire hamabi ehun lau hogoi eta hamar egun.

12. Dohatsu iduri dagoena, eta hamahirur ehun hogoi eta hamabortz egunetaraino heltzen dena!

13. Zu aldiz, zoaz muga bereziraino, eta phausua izanen duzu, eta zure heinean egonen zare zure egunen akhabantzaraino.

### XIII. KAP.

1. Bazen gizon bat Babilonan zagoena, eta Joakin zen haren izena.

2. Eta emazte bat hartu zuen Susana deitzen zena, Helziasen alaba, osoki ederra eta Jainkoaren beldur zena.

3. Alabainan haren burhasoak prestuak baitziren, Moisen legearen arabera irakhatsi izan zuten beren alaba.

4. Bada, Joakin hainitz aberatsa zen, eta sagardi bat bazuen bere etxearen aldean; eta Juduak haren gana biltzen ziren, orotarik aiphatuena zelakoz.

5. Eta urthe hartan populutik juietat ezarri zituzten bi gizon-zahar, zeinetaz Jaunak erran baitzuen: Tzarkeria Babilonatik ilkhi zela jui zeharretarik, populuari hotsematen zaroetela iduri zutenetarik.

6. Zahar hekiek ardura ziren Joakinen etxean; eta zerbait juiamenduren beharretan ziren guziak, hekien gana zathortzen.

7. Eta eguerdi gainera populua gibelerat goaten zenean, Susana sartzen eta bere senharraren sagardian ibiltzen zen.

8. Eta zaharrak egun oroz ikhusten zuten sartzen eta ibiltzen, eta haren ganako zalekeriak sutan ezarri zituen.

9. Eta tentutik jauzi ziren, eta begiak makhurtu zituzten, zeruaren ez ikhusteko, eta erabaki zuzenez ez orhoitzeko.

10. Biak beraz haren ganako maitekeriaz zaurthuak ziren, eta etzuten beren mina elkharrri salhatu.

11. Alabainan biek harekin etzan nahi, eta ahalke ziren elkharrri aithortzeko beren zalekeria.

12. Eta egun oroz ardura gehiagorekin bilhatzen zuten haren ikhustea. Eta batak bertzeari erran zioen:

13. Goazen etxerat, zeren jateko tenorea baita. Eta ilkhirik, elkhar ganik berezi ziren.

14. Bainan gibelerat itzulirik, batera jo zuten berriz; eta elkharrri galdatz horren aria, beren zalekeria aithortu zuten, eta orduan elkharrekin hitzartu ziren Susana bakharrik atzeman zezaketen arteaz.

15. Eta behar bezalako egun baten bilhatzen hari zirelarik, gerthatu zen Susana sarthu zela, bezperan eta bezperagoan bezala, bi neskatxa bakharrekin, eta nahi izan zuen sagardian bere burua garbitu, ezik bero hari zen.

16. Eta han etzen nihor bi gizon-zaharrak baizik, gordeak eta hari begira zaudenak.

17. Erran zioten beraz neskatxei: Ekhar dizadatzue olioia eta xahugailuak, eta hertsatzue sagardiko atheak, garbi nadien.

18. Eta manatu zuen bezala egin zuten; hertsia zituzten sagardiko atheak, eta gibekeko athetik ilkhi ziren, harek manatu gauzen ekhartzeko; eta etzakiten bi zaharrak barnean gordeak zirela.

19. Neskatxak ordean ilkhi zirenean, bi zaharrak jaiki ziren, Susanaren gana laster egin zuten, eta erran zaroten:

20. Huna, sagardiko atheak hertsia dire, eta nihork ez gaitu ikhusten, eta gu zure gutiziaz hartuak gare; hargatik eror zaite gure nahira, eta egizu gurekilakoa.

21. Baldin ez bazindu nahi, lekhukotasun atheratuko dugu zure kontra zurekin bazela gizon-gazte bat, eta aria hortaz zure ganik igorri dituzula neskatxak.

22. Susanak auhenekin erran zuen: Athekak ditut alde orotarik; ezen hori eginen badut, heriotzea da enetzat; egitea ez badut berriz, ez naiz zuen eskuei itzuriko.

23. Bainan enetzat hobe da, gaizkirik egin gabe zuen eskuetar erortzea, Jaunaren aitzinean bekhatu egitea baino.

24. Eta Susanak deihadar egin zuen: aldiz zaharrek ere haren kontra oihu egin zuten.



25. Eta batek laster egin zuen sagardiko athera, eta ideki zuen.
26. Etxeko sehiak beraz oihua aditu zutenean sagardian, gibelego athetik lasterka sarthu ziren, zer zen ikhusteko.
27. Bainan zaharrak mintzatu zirenean, sehiak harrituak gelditu ziren, zeren ez baitzen egundaino horrelako solasik Susanaz aipatu. Eta egin zen biharamuna.
28. Eta populua Joakinen, haren senharraren etxera ethorri zenean, bi zaharrak ere ethorri ziren, Susanaren kontra asmu tzarrez betheak, haren hilarazteko.
29. Eta populua aitzinean erran zuen: Igorrazue Susanaren, Helziasen alabaren, Joakinen emaztearen bilha. Eta igorri zuten berehala.
30. Eta ethorri zen bere burhaso, haur eta ahaide guziekin.
31. Bada, Susana hainitz zen pintza eta begithartez ederra.
32. Eta gizatza hekiek manatu zuten ager zezan begithartea (ezik estalia zadukan), hala bederen ale zitezen haren edertasunaz.
33. Haren ahaide eta ezagun guziak nigarrez zauden beraz.
34. Xutiturik, berriz, populua erdian, bi zaharrek eskuak ezarri zituzten haren buruaren gainean.
35. Harek nigarrez begiratu zuen zerurat; ezen haren bihotzak Jauna baithan zadukan bere ustea.
36. Eta zaharrek erran zuten: Sagardian ginabiltzalarik bakharrik, hau sarthu da bi neskatxekin; hertsu ditu atheak, eta bere ganik igorri ditu neskatxak.
37. Eta gordea zagoen muthil gazte bat ethorri zaio, eta hunekin etzan da.
38. Gu berriz, nola sagardi zokho batean baikinen, ikhusirik tzarkeria, gainera laster egin diotegu, eta ikhusi ditugu elkharrekin khutsatzen.
39. Eta ezin iduki dugu muthila, gu baino hazkarragoa zelakoz; eta atheak idekirik, kanporat jauzi da.
40. Huni ordean, atzeman dugunean galdatu diogu, nor zen muthil hura, eta ez daroku erran nahi izan: gauza hortaz lekhuko gare.
41. Zaharrak eta populua juiak ziren bezala, osteak sinhetsi zituen, eta hiltzera kondenatu zuten Susana.
42. Susanak berriz, goraki oihu egin eta erran zuen: Jainko bethierekoa, gauza gorde guzien ezagutlea, egin ditezen baino lehen gauza oroz jakintsun zarena;
43. Zuk badakizu gezurrezko lekhukotasuna ekharri dutela ene kontra; eta huna non hiltzen naizen, haukiek ene kontra gaixtoki asmatu dituztenetarik deusere egin ez dudan arren.

44. Jaunak aldiz entzun zuen haren mintzoa.
45. Eta hiltzera zaramatelarik, Jaunak eraiki zuen Daniel deitzen zen haur gazte baten izpiritu saildua.
46. Eta Danielek goraki oihu egin zuen: Ni garbi naiz hunen odolaz.
47. Eta haren ganat itzulirik, populu guziak erran zuen: Zer da atheratu duzun solas hori?
48. Eta Danielek, hekien erdian xutik, erran zuen: Israelgo semeak, hunen zoro othe zarete, non, ardietsi eta ezagutu gabe egirik zer den, kondenatu baituzue Israelgo alaba bat?
49. Juiamendutara bihur zaitezte, zeren gezurrezko lekhukotasuna ekharri baitute hunen kontra.
50. Populua herresakan itzuli zen beraz, eta zaharrek erran zioten Danieli: Zato, jar zaite gure erdian, eta argi gaitzatzu; ezen Jainkoak eman darotzu zahartasunaren ohorea.
51. Eta Danielek erran zioten: Berez zatzue horiek elkharren ganik urrun, eta juiatuko ditut nik.
52. Bata bertzea ganik berezi zituztenean beraz, deithu zuen hekietarik bat, eta erran zioen: Tzarkerian zahartu gaixtagina, orai gainera heldu zaizkik aitzinean egitea hituen bekhatuak,
53. Bidegabekeriazko erabakiak atheratuz, hobenik etzutenak zaphatuz eta hobendunak librorik igorritz, noiz-etare Jaunak baitio: Ez duzu hilen hobengabea eta prestua.
54. Orai beraz emazteki hau ikhusi balin baduk, errak zer zuhamuren azpian muthilarekin solasean ikhusi ditukan. Harek ihardetsi zuen: Lentisko baten azpian.
55. Danielek berriz, erran zioen: Bidezki arthiki duk gezurra hire buruaren gain; ezen huna Jainkoaren aingeruak, haren eskutik erabakia harturik, bi erdi zathituren hauela.
56. Eta urruntarazirik zaharra, manatu zuen ethor zadien bertzea, eta erran zioen: Kanaandar hazia, eta ez Judatikakoa, edertasunak zoratu hau eta zalekeriak galdu dik hire bihotza.
57. Horrela egiten zineroeten Israelgo alabei; eta hekiek, beldurrak idukitzen zituen zuekin solasean; bainan Judako alabak ez du jasan zuen tzarkeria.
58. Orai erradak zer zuhamuren azpian atzeman ditukan elkharrekin mintzatzen. Harek ihardetsi zuen: Haritz baten azpian.
59. Danielek berriz, erran zioen: Ederki hik ere arthiki duk gezurra hire buruaren gain; ezen Jaunaren aingerua xutik zagok, ezpata eskuan, erditik hire urratzeko, eta zuen bien hiltzeko.



60. Hargatik baldarna guzia oihuka abiatu zen, eta benedikatu zuten Jainkoa, haren baithan igurikimena dadukatenak salbatzen dituena.

61. Eta batean jaiki ziren bi zaharren kontra, (ezen Danielek beren ahotik atzeman zituen gezurrezko lekhukotasuna erran zutela); eta berek beren lagunari egin nahi izan zioten gaizkia jasanarazi zaroeten,

62. Moiseren legearen arabera egiteko; eta hil zituzten, eta odol hobengabea egun hartan salbatua izan zen.

63. Beren alaba Susanaren ariaz berriz, laudatu zuen Jainkoa Helziasek eta bere emazteak, Joakin Susanaren senharrarekin, eta haren ahaide guziekin, zeren haren baithan etzen gauza itsusirik aurkhitu.

64. Daniel aldiz handi bilhakatu zen populuaren aitzinean egun har-tarik eta aitzinat.

65. Eta errege Astiaies batu zen bere arbasoekin, eta Zirok hartu zuen Persiarren erregetasuna.

#### XIV. KAP.

1. Bada, Danielek erregeren mahainean jaten zuen, eta ohoretan zen haren adiskide guzien gainetik.

2. Babilondarretan ere bazen jainkomolde bat, Bel deitzen zena, eta zeinari egun oroz eskaintzen baitzaroezten hamabi artaba irin-lore, berrogoi ardi eta sei pitxer arno.

3. Erregek ohoratzen zuen halaber, eta egun oroz bazohan haren adoratzera. Bainan Danielek bere Jainkoa adoratzeko zuen; eta erregek erran zioen: Zeren gatik ez duzu adoratzeko Bel.

4. Hunek ihardestean erran zioen: Zeren ez baitut eskuz eginikako idolarik adoratzeko, bainan-bai Jainko bizia, zeru-lurrak egin dituena, eta haragidun guzien gainean esku duena.

5. Eta erregek erran zioen: Ez othe zaitzu bada iduri Bel jainko bizia dela? ala ez othe duzu ikhusten zenbat jaten eta edaten duen egun oroz?

6. Eta Danielek irri batekin ihardetsi zuen: Oi errege, berautzu engana; ezik Bel barnetik lohizkoa eta kanpotik kobrezkoa da, eta ez du horrek jan egundaino.

7. Eta samurturik erregek deithu zituen Belen aphezak, eta erran zaroeten: Ez badarotazue erraten nork jaten dituen Belentzat ematen direnak, hilen zarete.

8. Aldiz erakhusten badarotazue Belek jaten dituela, Daniel hilen da, burho arthiki dioelako Beli. Eta Danielek erran zioen erregeri: Zure hitzaren arabera egin izan bedi.

9. Bada, hirur hogoi eta hamar ziren Belen aphezak, emazteak eta haur ttipi-handiak bertzalde. Eta errege Danielekin goan zen Belen tenplora.

10. Eta Belen aphezak erran zuten: Huna non gu ilkhiko garen kanporat; eta zuk, errege, ezarriren ditutzu jatekoak, eta nahasazu arnoa; athea hertsazu eta jo zure zigiluaz.

11. Eta bihar goizean sarthuko zarenean, oro Belek janak atzematen ez badituzu, heriotzez hilen gare; edo bertzela Daniel, gure kontra geuzuz mintzatu dena.

12. Bada, etziren khexu, zeren mahain-azpian baitzuten sarbide gorde bat egina, eta handik sartzen ziren bethi, eta iresten zituzten jatekoak.

13. Beraz, hekiek ilkhi ondoan, erregek ezarri zituen jatekoak Belen aitzinean; Danielek bere muthilei manatu zioten hautsa ekhar zezaten, eta erregeren aitzinean bahatu zuen tenplo guzia gaindi; eta ilkhi ondoan, athea hertsitu zuten, eta hura erregeren erreztunaz zigilatutako goan ziren.

14. Aphezak berriz, hekien emazte eta haurrak gabaz ohi bezala sartu ziren, eta oro jan eta edan zituzten.

15. Aldiz errege jaiki zen lehenbiziko argi-zirrintan, eta Daniel harekin.

16. Eta erregek erran zuten: Daniel, oso dire zigiluak? Eta hunek ihardetsi zuen: Oso dire, errege.

17. Eta erregek, athea ideki bezain laster, begiratu zuen mahainera, eta goraki oiher egin zuten: Handia zare, Bel, eta zutan ez da den-gutiengo jokotriarik.

18. Eta Danielek irri egin zuen, eta iduki zuen errege, etzadien barneratago ibil, eta erran zuten: Huna lauzadura; ohart zaite norenak othe diren hatz hauek.

19. Eta erregek erran zuten: Ikhusten ditut gizon, emazteki eta haur hatzak. Eta errege hasarretu zen.

20. Orduan hartu zituen aphezak beren emazte eta haurrekin, eta hekiek erakutsi ziozkaten ahetto gorde batzu, zeintarik sartzen baitziren, mahain gainean izaten zirenen jatera.

21. Erregek beraz hilarazi zituen, eta Bel eskura eman zioen Danieli, zeinak lurrerat arthikarazi baitzituen hura eta haren tenploa.

22. Eta toki hartan bazen erainsuge handi bat, eta Babilondarrek adoratzeko zuten.

23. Eta erregek erran zioen Danieli: Huna orai ez dezakezu erran, hau ez dela jainko bizia; adora zazu beraz.



24. Eta Danieiek ihardetsi zioen: Ene Jainko Jauna adoratzen dut, zeren hura baita Jainko bizia; hori ordean ez da Jainko bizia.
25. Zuk aldiz, errege, emadazu eskua, eta nik erainsuge hori hilen dut ezpatarik eta makhilarik gabe. Eta erregek erran zioen: Ematen darotzut.
26. Danieiek hartu zituen beraz bikhea, bilgorra eta ileak, eta urtharazi zituen batean, eta mokhor batzu egin eta erainsugeari arthiki ziozkan ahora, eta erainsugeak leher egin zuen. Eta Danieiek erran zuen: Horra zuek adoratzen zindutena.
27. Babilondarrek aditu zutenean hori sumindu ziren biziki; eta erregeren kontra bildurik, erran zuten: Judu bilhakatu da errege; zathikatu du Bel, leher eginarazi dio erainsugeari, eta aphezak hil ditu.
28. Eta erregeren gana ethorri zirenean, erran zioten: Eskuetara iguzu Daniel; bertzela hilen zaituztegu zu eta zure etxea.
29. Erregek ikhusi zuen beraz, muthiriki oldartzen zitzaizkola; eta ezinbertzeak hartaraturik, eskuetara eman zioten Daniel.
30. Hekiek arthiki zuten lehoinen zilhora, eta han egotu zen sei egun.
31. Bada, zilhoan baziren zazpi lehoin, eta egun oroz ematen ziozkaten bi gorphutz eta bi ardi; eta etziozkaten orduan eman, arren-eta jan zezaten Daniel.
32. Bada, Habakuk profeta Judean zen, eta egosarazi zuen jakia; ogiak xehatu zituen untzi batera, eta landara zihuan, uztazaileei eramatera.
33. Eta Jainkoaren aingeruak erran zioen Habakuki: Eskuan duzun barazkaria Babilonara eremozu Danieli, zeina lehoin-zilhoan baita.
34. Eta Habakukek ihardetsi zuen: Jauna, ez dut egundaino ikhusi Babilona, eta ez dut ezagutzen lehoin-zilhoa.
35. Eta Jaunaren aingeruak hartu zuen buru gainetik, eta iletik eraman eta Babilonan ezarri zuen lehoin-zilhoaren gainean bere izpirituaren oldarrean.
36. Eta Habakukek oihi egin zuen, zioelarik: Daniel, Jainkoaren zerbitzaria, har zazu Jainkoak bidali darotzun barazkaria.
37. Eta Danieiek erran zuen: Jainkoa, orhoitu zare nitaz, eta ez ditutzu maite zaituztenak bazterrerat utzi.
38. Eta jaikirik, Danieiek jan zuen. Berriz, Jaunaren aingeruak berehala bihurtu zuen Habakuk bere tokira.
39. Zazpigarren egunean beraz, errege ethorri zen Danielen deithoratzera; eta zilhora goan, eta barnera begiratu zuen; eta hara Daniel jarria zagoela lehoinen erdian.
40. Eta erregek oihi min bat egin zuen, zerralarik: Handia zare, Danielen Jainko Jauna. Eta lehoin-zilhotik atheratu zuen.

41. Aldiz, zilhora arthikarazi zituen Daniel galdu nahi izan zutenak, eta aphur batez iretsiak izan ziren haren aitzinean.
42. Orduan erregek erran zuen: Lurraren orenen gainean egoten direnak Danielen Jainkoaren beldur izan beitez; zeren hura baita salbatzailea, lurraren gainean ezagutkariak eta sendagailak egiten dituen, eta Daniel lehoinen zilhotik libratu duena.



## OSEEREN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Jaunak egin solasak Oseeri, Beeriren semeari, Oziasen, Joathanen, Akazen, Ezekielen, Judako errege zirenen egunetan, eta Israelgo errege Jeroboamen Joasen semearen egunetan.

2. Jaunak Oseeren bidez erran zituenen hastapena: eta Jaunak erran zioen Oseeri: Zoaz, har zazu galdukerietako emazte bat, eta izan zatzu galdukerietako haurrak; zeren galdukerian sarthuz, Jauna ganik urrunduren baita lurra.

3. Eta goan zen Osee, eta emaztetzat hartu zuen Gomer, Debelaimen alaba; eta Gomer izorra gerthatu zen, eta eman zioen seme bat.

4. Eta Jaunak erran zioen: Deith zazu Jezrahel; zeren aphur bat oraino, eta Jehuren etxean bilhaturen baitut Jezrahelen ixuri odola, eta galareziren dut Israelgo etxearen erregetasuna.

5. Eta egun hartan Jezrahelgo haranean kraskaturen dut Israelen arranela.

6. Eta Gomer izorra gerthatu zen oraino, eta alaba batez erdi zen. Eta Jaunak erran zioen Oseeri: Deith zazu Urrikarigabea; zeren ez baintzaio gehiago urrikalduren Israelgo etxeari, bainan ahanzpenez baitut ahantziren.

7. Eta Judako etxeari urrikalduren natzaio, eta salbaturen ditut beren Jainko Jaunaz, eta ez arranbelaz, ezpataz eta gerlaz, ez-etare zaldiez eta zaldizkoez.

8. Eta Oseek bulharretik higuindu zuen bere alaba, Urrikargabea deitzen zena. Eta amatu eta seme batez erdi zen.

9. Eta Jaunak erran zioen Oseeri: Deith zazu Ez-ene-populua; zeren ez baitzarete gehiago izanen ene populua, ez-eta ni ere zuen Jainkoa.

10. Eta Israelgo umeen nonbrea izanen da itsasoko legarra bezala, zeina ez baititake ez neurt, ez khonda. Eta non-ere erran baitzaiote: Etzarete zuek ene populua; erranen zaiote: Jainko bizi aren umeak zarete.

11. Eta Judako eta Israelgo umeak batera bilduren dire; eta beren gainean buruzagi bakhar bat ezarriren dute, eta lurretik altxaturen dire; zeren handia baita Jezrahelgo eguna.

### II. KAP.

1. Errozuete zuen anaiei: Ene populua; eta zuen arrebari: Urrikalpen ardietsia.

2. Juia zazue, juia zuen ama; zeren ez baita hura ene emaztea gehiago, ez-eta ni ere haren senharra. Bere begithartetik khien betza bere lohi-keriak, eta bertzerakilako khutsapenak bere bulharren erditik;

3. Beldurrez-eta larruraino biluz, eta bere sort-egunean bezala ezar dezadan; eta egin dezadan mortua eta biderik gabeko lurra iduri, eta hilarraz dezadan egarriz.

4. Haren semeei ez natzaiote urrikalduren, galdukeriaren umeak direlako.

5. Hekien ama bertzerekin khutsatu baita, hekiez amatu dena ahalkez estalia da, zeren erran izan duen: Ene ogia, ene ura, ene ilea, ene lihoa, ene olioia, ene edaria ematen darotedan ene galaien ondotik goanen naiz.

6. Aria hortaz, huna non nik elhorriz hertsiren diodan bere bidea, eta harrasiz hertsiren diot, eta bere bidexkak ez ditu aurkhituren.

7. Eta jarraikiren da bere galaiei, eta ez ditu atzemanen; eta bilhaturen ditu eta ez ditu khausituren, eta erranen du: Goanen naiz, eta bihurturen naiz ene lehenbiziko gizona ganat; zeren ongi bainintzen orduan, orai baino hobeki.

8. Eta ez du jakin hau, nik eman niozkiela ogia, arnoa eta olioia; eta nik aberastu dudala zilharraz eta urheaz, zeinetarik egin izan baitute Baal.

9. Hargatik, bertzela egingen dut; harturen dut ene ogia bere mugan, eta ene arnoa bere mugan; eta atheraturen ditut ene ilea eta ene lihoa, haren itsuseria estaltzen dutenak.

10. Eta orai haren galaien begietara agerturen dut haren zorokeria, eta gizonak ez du ene eskutik atheratuko.

11. Eta geldiaraziko ditut haren bozkario besta-buru, ilhargi berriko egun, larunbat, besta eta muga hartu guziak.

12. Eta galaraziko ditut haren mahastiak eta pikoak, zeinetaz erran izan baitu: Haukiek dire ene sariak, ene galaiek eman izan darozkidatenak. Eta bera ezarriren dut oihanetan, eta lar-abereek iretsiko dute.

13. Eta haren baithan bilhaturen ditut Baalen egunak, zeinetan igaiten baitzen isentsua, eta ezartzen baitzituene bere beharrietakoak eta lephoko gatheak, eta goaten baitzen bere galaien ondotik, eta ahanzten baininduen ni, dio Jaunak.

14. Bainan bere urrikizko solasa gatik, huna nik bilduren dudala ezteki, eta eramanen dut bakhartasunera, eta mintzaturen natzaio bihotzera.



15. Eta emanen diozkat bere mahastizainak tokitik beretik, eta Akorreko harana, pheskizari bidea idekitzeko: eta han kantaturen du bere gaztetasuneko egunetan bezala, eta Egiptoko lurretik igan zen egunetan bezala.

16. Eta egun hartan gerthatuko da, dio Jaunak, deithuko nauela: Ene senharra; eta ez nau gehiago deithuko Baali.

17. Eta haren ahotik khenduko dut Baalen izena, eta ez da gehiago haren izenaz orhoituko.

18. Eta egun hartan adiskidantzak eraginen diozkatet hekiei lar-abere, zeruko hegastin eta lurreko zierpeekin; eta lurreuk khenduko ditut arran-bela, eta ezpata, eta perla; eta deskantsu zabalean eginaraziko diotet lo.

19. Eta emaztetzat hartuko zaitut behin-bethiko; eta ene emazte eginen zaitut zuzenaz eta zuzenbideaz, urrikalkortasunaz eta urrikalmen-duaz.

20. Eta fedez eginen zaitut ene emazte, eta jakinen duzu ni naizela Jauna.

21. Eta han egun hartan gerthatuko da: Entzunen ditut, dio Jaunak, entzunen zeruak, eta zeruek entzunen dute lurra.

22. Eta lurrak entzunen ditu ogia eta arnoa, eta olioia; eta hekiek entzunen dute Jezrahel.

23. Eta lurrean enetzat erainen dut hura, eta urrikalduren natzaio Urrikarigabea deithua izan denari.

24. Eta Ez-ene-populua zenari erranen diot: Ene populua zare zu; eta berak erranen darot: Zu zare ene Jainkoa.

### III KAP.

1. Eta Jaunak erran izan zarotan: Zoaz oraino, eta maitha zazu emazteki bat adiskide batez maithatua eta senharraz bertzerekin khutsatua; hala-nola Jaunak maite baititu Israelgo umeak, eta hekiek jainko arrotzei begiratzen baitiote, eta mahatsetan lapa baitute maite.

2. Eta emaztea erosi nuen hamabortz zilharrezkotan, eta koro bat eta erdi garagarretan.

3. Eta erran nioen: Askok egunez igurikiren nauzu, eta etzare lizunduren, ez-eta gizonkiarekin khutsaturen; aldiz nik ere igurikiren zaitut.

4. Ezen Israelgo semeak asko egunez izanen dire erregerik eta buruzagirik gabe, sakrifiziorik eta aldarerik gabe, ephodorik eta theraphimik gabe.

5. Eta gero Israelgo umeak itzuliren dire, eta bilhaturen dituzte beren Jainko Jauna eta Dabid beren erregea; eta egunen ondarrean ikhararekin begiraturen diote Jaunari, eta haren ganikako ongiari.

### IV. KAP.

1. Adi zazue Jaunaren hitza, Israelgo umeak; zeren Jauna juiamendutan sartzera baitoha lurreko egoiliarrekin; ezen lurrean ez da ez egirik, ez urrikalmendurik, ez Jainkoaren ezagutzarik.

2. Burho, gezur, gizon-hiltze, ohointza, lohikeriek estali dute, eta odolak jo du odolera.

3. Hargatik nigarrez egonen da lurra, eta iraungiren dire hartan dau-dezen guziak, lar-abereetaraino eta zeruko hegastinetaraino; eta arrainak ere hilen dire.

4. Ez bedi halere nihor abia azurriatzen; nihor ez bedi has erantzuki egiten; zeren aphezari jazartzen daroetenen iduriko baita zure populua.

5. Egun eroriko zare, eta profetak ere zurekin joko du lurra; gau latzaz ixilarazi dut zure ama.

6. Ixildu du ene populua, jakintasunik ez duelakoz izatu. Zeren duzun jakitatea arbuia, nik ere arbuia zaitut, apheztasuneko egin-biderik ez dizadazun bethe; ahantzi duzu zure Jainkoaren legea, eta nik ere ahantziren ditut zure haurrak.

7. Berhatu direnaren arabera, ene kontra berhatu dituzte beren bekhatuak; laidotara aldaturen dut hekien ospea.

8. Jaten dituzte ene populuaren bekhatuentzat eskaini bitimak, eta haren bekhatuez hazten dituzte beren biziak.

9. Eta izanen da, nola populua, hala apheza; eta haren baithan bilhaturen ditut haren bideak, eta haren asmuak bihurraziren ditut haren gainera.

10. Eta janen dute, eta ez dire aseko; erori dire lohikeriara, eta ez dire baratu; zeren utzi baitute Jauna, ez begiratu haren legea.

11. Lohikeriak, arno eta hordikeriak khentzen dute adimendua.

12. Ene populuak zurari galdatu dio ethorkizunaz, eta bere makhilak erran dio geroa: alabainan lohikeriako izpirituak enganatu ditu, eta beren Jainkoa utzirik, bertzeekin khutsatu dire.

13. Mendi-kaskoetan egiten zituzten sakrifizioak, eta isentsua erretzen zuten munho gainetan, haritzen, zurxurien eta tirrimintinen azpian, zeren gozo baitzitzaioten hekien itzala: horren gatik lohikerian ibiliko dire zuen alabak, eta bertzeekin khutsatuko dire zuen emazteak.



14. Ez naiz bilhaturen zuen alaben ganean, lohikerian sarthu ditazkeenean, ez-eta zuen emazteen ganean bertzeekin khutsatu ditazkeenean; zeren zerorrek lilitxoekin baltsatzen, eta emagizonekin sakrifizio egiten hari baitzarete. Populu burugabea, zafratua izanen da.

15. Zu, Israel, lohikerian ibiltzen bazare, Juda bederen ez bedi linbur; ez goan Galgalara, ez igan Bethabenera, eta ez zin egin: Ala Jauna!

16. Zeren Israel, behi susara bezala zehertu baita; orai Jaunak utziko ditu, bildotsa bazter zabaletan bezala alhatzera.

17. Efraim idolekin khutsatzen da: bego bazterrerat.

18. Hekien barazkaria bereza da; lizunkerian pulunpatu dire; haren gerizatzeko zirenek lakhet izan dute hura laidoz estaltzea.

19. Haizeak bere hegalean ganean estekatu du, eta beren sakrifizioak izanen dituzte beren ahalkagarri.

### V. KAP.

1. Hau adi zazue, aphezak; Israelgo etxea, zaude erne; erregeren etxea, emazu beharria; zeren juiamenduko ordua baita zuentzat, zaindu behar zintuztenentzat bilhakatu baitzarete arte bat, eta Thabor ganean sare hedatu bat.

2. Eta bitimak aldaratu ditutzue lezera: eta ni nintzen hekien guzien irakhaslea.

3. Ezagutzen dut Efraim, eta Israel ez da enetzat gordea; ezen Efraim lohikerian sarthua da orai; khutsatua da Israel.

4. Ez dituzte beren gogoetak emanen beren Jainkoa gana bihurtzeari; zeren lohikeriako izpiritua hekien erdian baita, eta ez baitute Jauna eza-gutu.

5. Israelen ozartasuna haren begithartean agerturen da; eta Israel eta Efraim, biak eroriko dire beren bekhatuaz: Juda ere hekiekin eroriko da.

6. Beren ardiak eta abereak sakrifikatuz hariko dire Jaunaren bilhatzen; eta ez dute aurkhituren: urrundua da hekien ganik.

7. Hautsi dute Jaunaren legea; zeren ume arrotzez baitire aitatu: orai hilabete batek iretsiren ditu beren izantzekin.

8. Adarra jo zazue Gabaan, turuta Erraman; orrobia egizue Bethabenen, zure gibeletan, oi Benjamin.

9. Efraim inkoniamendutan izanen da azurrialdiko egunean: ene zintasuna erakhutsi dut Israelgo leinuetan.

10. Judako buruzagiak bilhakatu dire mugarría atheratzen dutenak iduri: hekien gainera ura bezala ixuriko dut ene hasarrea.

11. Gaitza jasaiten du Efraimek, juiamenduak hautsi du; zeren zikhinkerien ondotik abiatu baita.

12. Eta ni, biphia bezala naiz Efraimentzat, eta usteldura bezala Judako etxearentzat.

13. Eta Efraimek ikhusi du bere erkhidura, eta Judak bere esteka; eta Efraim goan da Asurren gana, eta bidali du errege aspertzalearen gana; eta harek ezin sendaturen zaituztete, eta ezin urraturen darotzuetek esteka;

14. Zeren ni lehoin urrixa bat bezala izanen bainatzaio Efraimi, eta lehoinkume bat bezala Judako etxeari: nik, nik harrapaturen ditut, eta goanen naiz; nik harturen ditut, eta nihork ezin khenduko darozkit.

15. Goanen naiz, itzuliren naiz ene egon-lekhura, ahi zaitetzen eta ene begithartea bilha dezazuen arteo.

### VI. KAP.

1. Beren hesturan goizetik ene ganat ernaturen dire, diotelarik: Goazen eta itzul gaiten Jaunaren gana;

2. Zeren berak hartu eta berak libraturen baikaitu; berak jo, eta berak sendaturen gaitu.

3. Bizia emanen daroku bi egunen buruan, eta hirugarrenean eraikiren gaitu, eta haren aitzinean biziko gare. Hartaz jakintsun egin gare, eta jarraikiren gatzaizkio, ezagut dezaguntzat Jauna. Haren ilkhitzea, argi-urratzea bezala aphaindua dago, eta etorriren zaiku hala-nola uri goiztiarra, eta uri berantiarra lurrari bezala.

4. Zer eginen darotzut, Efraim? zer eginen darotzut, Juda? Zuen urrikalkortasunak goizeko lanhoa du iduri, goizeko ihintz iragankorra bezala da.

5. Aria hortaz azurriatu zaituztet ene profetez, heriotzez dixidatu zaituztet ene ahoko hitzetan; eta zuen gaineko erabakiak, argia iduri dire ilkhiko;

6. Zeren nahi izan baitut urrikalmendua, eta ez sakrifizioa; eta Jainkoaren ezagutza, holokausta baino gehiago.

7. Hekiek ordean, Adamek bezala hautsi dute batasuna, han arnegatu dute ene legea.

8. Galaad da idola-egileen hiria, odolak ithoa.

9. Eta ohoin-zilhoa iduri, phartedun da aphezekin; Sikemen gaindi goaten direnak bidean hiltzen dituzten ohoinen zilhoak bezala da; ezen gaixtakerian bizi dire.

10. Lazteko gauza ikhusi dut Israelgo etxean; han ikhusi ditut Efraimen lohikeriak; khutsatua da Israel.



11. Eta zuk ere, Juda, uzta zuretzat egizu, ene populuko gathibuak bihurrazaziko ditudan artean.

### VII. KAP.

1. Noiz-etare nahi bainuen sendatu Israel, Efraimen tzarkeria eta Samariaren maltzurkeria agertu dire; ezen gezurrezko lanak egin dituzte; eta ohoinak sarthu zaizkote biluztera, eta harrapakariek larrutu dituzte kanpoan.

2. Eta beren bihotzetan erran ez bezate, gogoan daduzkadala hekien gaixakeria guziak: oraiko beren asmuek dituzte hertsatzen; ene aitzinean dire eginak.

3. Beren tzarkeriaz boztu dute errege, eta beren gezurrez beren buruzagiak.

4. Oro lohikerian hari ziren, okhinak khaldatzen duen labea iduri; aphur bat phausatu da hiria, altxagarria nahasia izan denetik orhe guzia altxatu arteo.

5. Hau da gure erregeren eguna; arnoak abiatu ditu buruzagiak erhoztzen; errege zoroekin nahasi ditu eskuak.

6. Ezen noiz-etare hekiei arte hedatzen hari baitzen, beren bihotza iratxiki diote labe bat bezala; hekiek erretzen zituelarik lo egin du gau guzia, eta bera goizeko su-garra bezala khaldatua zen.

7. Labea bezala khaldatu dire guziak, eta iretsi dituzte beren juieak; hekien errege guziak erori dire; hekietan ez da ene gana deihadar egin duenik.

8. Efraim bera populuekin nahastekatzen zen; Efraim bilhakatu da itzultzen ez den hautspeko ogi bat.

9. Arrotzek iretsi dute haren indarra; eta berak ez du ezagutu; ile zuriak ere hedatu dire haren baithan, eta ez da ohartu.

10. Eta Israelek bere burgoikeria izanen du bere begien aitzinean beheititua; eta horien guzien gatik, ez dire beren Jainko Jauna gana bihurtu, eta ez dute hura bilhatu.

11. Efraim bilhakatu da uso xoro, bihotzgabe baten iduriko: deithu du Egiptoia, Asiriarretara goan da.

12. Eta goan direneko, hekien gainera hedaturen dut ene sarea; eragotziren ditut zeruko xori bat bezala; joko ditut, hekien baldarnak aditu dixiduen arabera.

13. Zorigaitz hekiei, zeren urrundu diren ene ganik; larrutuak izanen dire, zeren ene kontra egin baitute bekhatu; eta nik berrerosi ditut; eta hekiek, gezurrak erabili dituzte ene kontra.

14. Ez dute ene gana oihi egin beren bihotzean, bainan orroaz zauden beren oheetan: Arnoz eta ogiz zuten amets, urrundu dire ene ganik.

15. Eta nik argitu ditut, eta besoak hazkartu diozkatet; eta ene alde-rat maltzurkeriazko gogoetak erabili dituzte.

16. Itzuli dire uztarririk gabe nahi izatera; eta egin dire enganatzeko baizik ez den arranbela iduri; ezpataren azpira eroriko dire hekien buruzagiak, beren mihiko errabia gaixtoa gatik. Hori izanen da hekien burlabide Egiptoko lurtean.

### VIII. KAP.

1. Turuta izan bedi zure ahoan arranoak bezala Jaunaren etxearen gainean; zeren hautsi baitute enekilako patua, eta hautsi baitute ene legea.

2. Dei eginen darotade, erranez: Ene Jainkoa, ezagutzen zaitugu, guk, Israelgo umeeak.

3. Israelek arbuiatu du ona; etsaia jarraikiren zai ondolik.

4. Berez bere dire erreginatut, eta ez ene bidez; buruzagi egotu dire, eta ez naiz ohartu; beren urhe-zillarretarik egin dituzte idolak, beren hilgarri.

5. Samaria, lurra jo din hire aratxeak; ene hasarrea biztu da horien gainera. Noiz arteo egonen ahal dire garbitu gabe?

6. Israelen ganikako asmua da idola hori; ofizialeak egina da, eta ez da Jainko; ezen Samariako aratxea armiarma sareen pare izanen da.

7. Erain dute haizea, bilduko dute phesia: ogi lasto bat han ez da xutik izanen; bihiak ez du irinik emanen; eta ematen badu, arrotzek janen dute.

8. Israel iretsia da; orai jendaien erdian egina da untzi lohi bat bezala.

9. Ezen goan dire, Asurren gana baxharrik bizi den basasto haren gana: Efraimek sariak eman diozkate bere galaiei.

10. Bainan noiz-ere saritan erakharri baitituzte jendaiak, bilduko ditut orai, eta aphur batentzak khenduko diotet erregeren eta buruzagien zerga.

11. Alabainan Efraimek orotan altxatu ditu bekhatu egiteko aldareak; aldare hekiek hobenetan jazarriak zaizko.

12. Hekientzat iskribatu ditut asko lege, zeinei begiratu baitiote berzteentzat balire bezala.

13. Eskainiko dituzte bitimak, imolatuko eta janen haragiak, eta Jaunak ez ditu onhetsiren hekien sakrifizioak; orai orhoituren da hekien tzarkeriaz, eta ikharturen ditu hekien bekhatuak; hekiek Egiptora bihurturen dire.





14. Israelek ahantzi du bere egilea, eta altxatu dute tenploak; eta Juda haritu da asko hiriren hazkartzan. Eta nik igorriren dut sua haren hirieta-  
ra; eta suak iretsiko ditu Israelen etxeak.

### IX. KAP.

1. Ez boz, Israel; ez jauz populuak bezala; zeren lohikeriak urrundu baitzaitu zure Jainkoaren ganik; sariaren irritsak erabili zaitu, zure larrai-  
nak gaindituren zirelakoan ogiz.

2. Larrainak eta lakoak ez dituzte haziko, eta getur eginen diote arnoak.

3. Ez dire Jaunaren lurrean egonen: Egiptora itzuli da Efraim; eta Asiriarren erdian janen ditu haragi lohiak.

4. Jaunari ez diote arnozko libazionerik eginen, eta ez dire haren gogarako izanen; hekien sakrifizioak izanen dire deithorazaleen ogia iduri; hartarik janen duten guziak khutsutan sarthuko baitire; ezen bizitzeko dute beren ogia eta hartarik ez da Jaunaren etxean sarthuren.

5. Zer eginen duzue besta-buru egunean, Jaunaren besta-egunean?

6. Ezen huna non desmasiaren ihes goan diren; Egiptoak bilduko ditu, Menphisek ehortziko; hain lehiagarri zitzaioten zillharra, hausinentzat geldituren da; kharlotxak nausituren dire hekien etxeetan.

7. Ethorri dire ikharpeneko egunak; sari bihurtzeko egunak ethorri dire. Jakizu, oi Israel, zoratuak direla zure profetak, burutik jauziak zure gizon argituak, zure tzarkerien elementia gatik eta zure erhokeriaren gaiz-  
tasunagatik.

8. Profetak Efraimen ene Jainkoaren begiralari izan behar zitazkeen-  
ean, galpeneko arte bilhakatu dire hango bide guzietan, erhokeriara hizi-  
tagarri beren jainkoaren tenploan.

9. Bekhatu latzera erori dire, Gabaako egunetan bezala: hekien tzar-  
keriaz orhoituren da Jauna; ikharturen ditu hekien bekhatuak.

10. Aurkhitu nuen Israel hala-nola mahatsak mortuan, hala-nola lehenbiziko fruituak pikoaren adar-mokoetan; hekiek ordean Beelphegorren gana goan dire; ene ganik atzetu dire beren ahalkamendu-  
tan, eta hatsgarri egin dire, maithatu dituzten gauzak bezala.

11. Efraimen ospea goan da xori bat hegaldaka bezala; galdu da sort-  
hu bezain laster, amaren sabeletik, sabelean gatzatu denetik:

12. Eta beren umeak hazi balituzte ere, haurrik gabe ezarriren ditut gizonen erdian; eta oraino zorigaitz hekiei, hekien ganik gibelatu naite-  
keenean.

13. Efraim zen, ikhusi dudan bezala, Tir bigarrena, bere edertasuna-  
ren gainean jarria; eta Efraimek eramanen ditu bere semeak hilen ditue-  
naren eskuetara.

14. Emozute, Jauna. Zer emanen daroezu? Emotzute ume-untzia haurrik gabe, eta bulhar agorrak.

15. Galgalan agertu da hekien tzartasun guzia; hargatik han hartu ditut gaitzirizkotan; beren asmuetako maltzurkeriaren gatik, iraziren ditut ene etxetik; ez ditut gehiago maithaturen; hekien buruzagi guziak ene ganik gibelatzen hari dire.

16. Joa da Efraim; ihartua da hekien erroa; ez du gehiago fruiturik emanen. Ekhar baletzate ere, hil netzazke hekien sabeleko fruitu maite-  
nak.

17. Ene Jainkoak iraziren ditu, zeren ez duten entzun; eta jendaien erdian ibildaun dire izanen.

### X. KAP.

1. Aihen ederretako mahasti bat zen Israel; adarren bardin, bethe-  
tzen zen mahatsez; bere fruituketa gaitzaren arabera, bethe da aldarez; bere lurreko goritasunaren neurria, goritu da jainkomoldez.

2. Erdizkatua da hekien bihotza; orai dire galduko. Jaunak xehakatu-  
ren ditu hekien jainkomoldeak; eragotziren ditu hekien aldareak.

3. Orai erranen dute: Erregerik ez dugu; ez gare ezen Jaunaren bel-  
dur izatu; eta zer eginen daroku errege batek?

4. Erabil zatzue ikhuspen alfer batzuetako solasak, eta patuak jo zatzue: Jaunaren juiamendua zuen landetako hildoetan ilkhiko da belhar kharatsa bezala.

5. Samariarrek adoratu dute Bethabengo behia; populua nigarrez gelditu da bere behiaren minez, zeren haren ganik bertzetara duten era-  
man behi hura, zeinaren gainean bozten baitziren haren zaintzaileak, harek zuen ospea gatik.

6. Ezen Asiriara eramana izan da hura, errege aspertzaileri emaitze-  
tan; ahalkeak atzemanen du Efraim, eta Israelek ahalke gorria atheraturen du bere nahikerietarik.

7. Samariak suntsiarazi du bere erregea, harrapoa uraren gainean bezala.

8. Eta xahutuak izanen dire idolentzateko lekhu gorak, Israelen bek-  
hatua. Kharlotxak eta astakharloak iganen dire hekien aldare gainetan, eta berek erranen diote mendiei: Estal gaitzatzue; eta munhoi: Eror zaitetze gure gainera.



9. Gabaako egunetarik, bekhatuan ibili da Israel; han gelditu dire: ez da, Gabaan egin zen bezala, gudua eroriko tzarkeriako umeen gainera.

10. Azurriaturen ditut ene lehien arabera; populuak bilduko dire hekien kontra, noiz-etare azurriatuak izanen baitire beren bi gaixtakerien gatik.

11. Efraim da miga bat jakinki bihi jotzen lakhet duena; eta nik eskua ezarri dut haren lepho ederraren gainean; iganen naiz Efraimen gainera; Juda iraultzen hariko da, eta Jakob mokhor jotzen.

12. Zuzenbidean egizkitzue zuen eraintzak, eta urrikalpeneko bidean zuen uztak; aphain zatzue zuen lur berriak; aldiz Jaunaren bilhatzeko ordua izanen da, zuzentasuna irakhatsiko darotzuena ethorriren denean.

13. Lanthu duzue tzartasuna, bildu duzue tzarkeria; jan duzue gezuraren fruitua; zeren fidatu baitzarete zuen bideetan, zuen gerlarien ostearen gainean.

14. Biahorea jauziko da zure populuaren erdian, eta xahutuak izanen dire zure hazkargailu guziak, hala-nola xahutua izan baitzen Salmana hainaren armadaz, zeina aspertu baitzen Baalez guduko egunean, ama bere umeen gainean zathikatu zuenean.

15. Horrela eginen darotzue Bethelek zuen gaixtakerien tzartasunaren ariaz.

### XI. KAP.

1. Nola iragaiten baita goiza, hala iraganen da Israelgo errege. Haurra zen Israel, eta maithatu izan dut; eta Egiptotik deithu dut ene semea.

2. Zenbatenaz deitzen, hanbatenaz urruntzen ziren; Baali imolatzen eta jainkomoldeei sakrifikatzen zuten.

3. Eta ni Efraimen unhidaita bezala nintzen; ene besoetan erabiltzen nituen, eta ez dute ezagutu nik nuela hekiez artha.

4. Ene gana biltzen nituen Adamen lokharriez, amodioaren estekez, eta ni hekientzat izatu naiz ustarría eta ahotik muthurrekoak khentzen duena bezala; eta makhurtu naiz hekiei jatera emateko.

5. Ez dire Egiptoko lurrera bihurturen, eta Asur bera izanen dute errege; zeren ez duten nahi izan ene ganat itzuli.

6. Ezpata abiatu da hekien hirietan; iretsiko ditu hekien gizon hautak, eta xahutuko hekien buruzagiak.

7. Ene populua ene itzulpenari begira egonen zaio; bainan guziei batean gainera ezarria izanen zaiote uztarri bat, kendua izanen etzaiotena.

8. Nola ezarriren zaitut, Efraim? ene gerizaren azpira harturen othe zaitut, Israel? Ezarriren othe zaitut hala-nola Adama? emanen othe

Seboin bezala? Ene bihotza urrikitu da ene baithan, ene urrikalkortasuna ere iharrosia da.

9. Ez dut eginen ene hasarrearen irakiduraren arabera; ez naiz bihurturen Efraimen galtzera, Jainkoa naizelako eta ez gizona; ni naiz zure erdian egotu saildua, eta ez naiz hirira sarthuren.

10. Jaunaren ondotik ibiliren dire; Jaunak, lehoinak bezala orroa eginen du; berak eginen du orroa, eta itsasoaren semeak lastuko dire.

11. Xoria bezala Egiptotik, eta usoa bezala Asiriarren lurretik hegaldaka dire goanen; eta beren etxeetan ezarriren ditut, dio Jaunak.

12. Efraimek ukhoak, Israelek zimarkhuak ezarri dituzte ene inguruan; Juda ordean, lekhuko zin gelditu da Jainkoaren eta haren sailduen aitzinean.

### XII. KAP.

1. Haizez hazten da Efraim, eta beroari darraikio; egun guzian gezurak eta desmasiak ditu murrukatzen; Asiriarrekin patu egin du, eta Egiptora eramaten zuen olioia.

2. Jauna juiamendutan sartzera dihoa beraz Judarekin, eta Jakobean gainean bere ikharpenaren egitera: bihurturen dio bere bide eta bere asmuen arabera.

3. Sortzetik bere anaiari hartu zioen urhatsa; eta bere indarraz aingeruari borrokan egin zioen.

4. Eta aingeruari nausitu zitzaion, eta gaina hartu zioen: gero nigar egin zuen eta oithoiztu zuen benedikak zezan: Bethelen aurkhitu zuen, eta han mintzatu zen gurekin.

5. Eta armadetako Jainko Jauna izan zen geroztik haren orhoitzapeneko Jauna.

6. Eta zu, itzul zaite zure Jainkoa gana; begira zatzu urrikalkortasuna eta zuzentasuna, eta idukazu bethi zure pheskiza zure Jainkoaren baithan.

7. Kanaanek eskuan enganatzeko balantza daduka; bidegabekeria da lakhet.

8. Eta Efraimek erran izan du: Orogen gatik aberastu naiz ni, atzeman dut nahi nuen idola: ene lan guzietan ez da aurkhituren nik egin dudalako tzarkeria bat.

9. Eta ni naiz zure Jainko Jauna, Egiptoko lurretik atheratu zaitudana; jarraraziren zaitut oraino etxolen itzalean, tabernakletako besta-egunetan bezala.

10. Eta ni mintzatu izan naiz profetei, eta nik igorri daroztet ikhushpen asko, eta nik erakhutsi dut ene burua profeten bidez.



11. Galaadeko idola, idola alfer bat balin bazen, alferretan hari ziren Galgalako idiei imolatzen; ezen hekien aldareak ere dire hala-nola harri-metak landetako hildoen gainean.

12. Jakobek ihes egin izan du Siriako aurkhintzara, eta Israel egotu da sehi emazte baten izateko; eta ardi zaintzen bertzearen izateko.

13. Aldiz, profeta baten bidez Jainkoak atheratu du Israel Egiptotik; eta profeta baten bidez zaindu izan du.

14. Efraimek hasarretzera ekharri nau eman darozkidan uherdurez; eta gainera jautsiko zaio ixuri duen odola, eta bere Jaunak bihurturen dio bere laidoa.

### XIII. KAP.

1. Efraimien solasera, lazturak hartu du Israel, eta Baalen baithan egin du bekhatu, eta hil izan da.

2. Eta orai bekhatua bekhatuaren gainera egin dute, eta beren zilharrekin urthu dute idolen itxurako molde bat, guzia ofizialeen lana: eta populuari erraten diote: Aratxe-adoratzaileak, imola zatzue gizonak.

3. Hargatik izanen dire goizeko lanhoaren eta goizean suntsitzen den ihintzaren iduriko; xirimolak larrainetik eramaten duen herrautsaren, eta khezilhotik daraman khearen pare.

4. Ni naiz ordean zure Jainko Jauna, Egiptoko lurretik atheratu zaitudana; eta nitaz bertze Jainkorik ez duzu ezaguturen, eta salbatzailerik nitaz landan ez da.

5. Nik ezagutu zaitut mortuan, eremuko lurrean.

6. Beren alhapidetako goritasunaren arabera bethe dire, eta ase dire; eta hartu zaiote bihotza, eta ahantzi naute.

7. Eta ni izanen natzaiote lehoin urrixa bezala, Asiriako bidean lehoi-nabarra iduri.

8. Goanen natzaiote, umeak galdu dituen hartz ama iduri; eta phorroskaturen diozkatet gibel-erraiak; eta iretsiren ditut lehoinak bezala, eta basabereek zathikaturen dituzte.

9. Zure galtzea, Israel, zerorren ganik dathor; bakharrik ene baithan da zure laguntza.

10. Non da zure errege? garaitiarki orai zure hiri guziekin salba bezaitza; non dire zure juieak, zeinetaz erran baituzu: Errege bat eta aitzindariak igutzu?

11. Errege bat emanen darotzut ene sephan, eta khenduko darotzut ene gaitziduran.

12. Efraimen gaixtakeriak lokharriz batean bilduak eta haren bekhatuak altxatuak dire.

13. Erditzen hari denaren minak ethorriren zaizko: haur bat da zuhurtzia gabea; orai ezik ez du iraunen bere umeen sarraskiaren erdian.

14. Herioaren eskutik atheraturen ditut; heriotzetik berrerosiren ditut. Oi herioa, ni izanen nauk hire heriotzea; oi ifernua, ni izanen nauk hire asikia: bainan gozakaria oraino ene begietarik gordea dago.

15. Ezen berak berezten ditu anaiak beren artean. Jaunak erakharriren du, mortutik izanen den haize erregarria; eta idorturen ditu haren zainak eta agorturen haren ithurriak, eta berak larruturen du haren untzi balios guzien bildegia.

### XIV. KAP.

1. Honda bedi Samaria, zeren uhertzera ekharri duen bere Jainkoa; ezpatatik goan beitez Samariarrak, lehertuak izan beitez hekien haur xumeak, eta urratuak emazte izorrak.

2. Oi Israel, bihur zaite zure Jainko Jaunaren gana, zure tzarkeriak erorrarazi zaituenaz geroztik.

3. Eremotzue zuen hitzak, bihur zaitezte Jaunaren gana eta errozue: Ezeza zazu gaizkia oro, onhets ongia, eta guk bihurturen darozkitzugu aratxeak, gure ezpainetako eskainuak.

4. Asurrek ez gaitu salbaturen, zaldien gainera ez gare izanen, eta ez dugu erranen gehiago: Gure eskuetako lanak dire gure jainkoak; zeren urrikalduren baitzare zuri diagozun umezurtzari.

5. Sendaturen ditut horien sakhiak, ene ariatik maithaturen ditut; ezen horien gainetik aldaratu da ene hasarrea.

6. Ni izanen naiz hala-nola ihintza; Israel hostaturen da lilia iduri, eta haren erotik gandoa altxaturen da Libangoak bezala.

7. Goraturen dire haren adarrak, haren edertasuna izanen da olibondoarena iduri, eta haren usaina Libangoa bezala.

8. Bihurturen dire eta ene itzalean jarriko; ogiz biziko eta mahats-ondoa bezala aihendaturen dire, eta haren izena izanen da Libango arnoaren pare.

9. Efraimek erranen du: Gaugerroz zer dut idolekin ikhusteko? Eta nik entzunen dut, eta nik handiaraziren dut hostatzen den izaia bezala; ene ganik ilkhiren da zure fruitua.

10. Nor da zuhur, eta nork solas haukiek adituko ditu? nork du adi-garria, eta haukiek jakinen ditu? Alabainan zuzenak dire Jaunaren bideak, eta hekietarik dabilta prestuak; lege-haustek aldiz, hekietan eroriko dire.



## JOELEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Jaunaren hitza, Joeli, Phatuelen semeari eguna.
2. Adi zazue hau, zaharrak, eta beharriez ardietsazue lurreko egoiliar guziek. Holakorik gerthatu othe da zuen egunetan, edo zuen aiten egunetan?
3. Hunen gainean mintza zaitezte zuen semeei, eta zuen semeak beren semeei, eta hekien semeak berme ondotikakoei.
4. Xartalak jan du harraren ondarra, eta brukoak xartalaren ondarra, eta herdoak brukoarena.
5. Iratzar, hordiak; nigar eta orrobia egizue arnoa gozoki edaten duzuen guziek; zeren khendua izanen baita zuen ahotik.
6. Ezen jendaki bat igaiten hari da ene lurrera; hazkarra da eta ezin khondatuzkoa; haren hortzek iduri dute lehoin-hortzak, eta haren haginek lehoinkumearanak.
7. Mortu eragin du erre mahastia; azala khendu dio ene pikoari; biluzi eta larrutu du; lurrerat arthiki du, eta zuritu dire haren adarrak.
8. Deithora zaite hala-nola neskatxa zakhua jautzi duena, bere gaztaro senharra galdu baitu.
9. Sakrifizioa eta libazionea galduak dire Jaunaren etxetik; nigarretan daude aphezak, Jaunaren ministroak.
10. Desmasiatua da lekhua; nigarrez dago lurra, zeren xahutua den ogia, biluzia mahastia, olibondoa iraungia.
11. Minez dago laboraria eta orrobiaz mahastizaina, ogiaren eta garraren xahupenaz, eta galdua delakoz landetako uzta.
12. Larrutua da mahastia eta iraungitzen hari da pikoia; mingrana, palma, sagarra eta bazterretako zuhamu guziak ihartu dire; ezen gizase-meatarik galdu da bozkarioa.
13. Zurdatzak jauntzatzue, eta nigarretan zaudezte, aphezak; orrobia egizue, aldareko ministroak; sar zaitezte barnera, zakhuen gainean etzan zaitezte, ene Jainkoaren ministroak; zeren zuen Jainkoaren etxetik galdu baitire sakrifizioa eta libazionea.
14. Sainduetsazue barur bat, deith zazue baldarna, zuen Jainkoaren etxera bilaraz zatzue zaharrak eta lurreko egoiliar guziak, eta Jaunari egiozue deihadar.

15. Ai! ai! ai! hau eguna! Ezen hurbil da Jaunaren eguna, eta Ahalorotakoaren ganik ethorriren da desmasia bezala.

16. Ez othe dire gure begien aitzinean galdu hazkurriak, eta gure Jainkoaren etxetik bozkario eta jauziak?

17. Aziendak beren gorotzean usteldu dire; urratuak dire bihitegiak, bildegiak lurrean daude; ezen galduak dire ogiak.

18. Zergatik arthikitzen dute abereek intzirina, idi-arthaldeek marruma? Zeren hekientzat alhapiderik ez den; eta ardi-arthaldeak ere galdu dire.

19. Zuri, Jauna, igorriren darotzut ene deihadarra, suak xahutu baititu mortuko lekhu ederrak, eta garrak erre bazterretako zuhamu guziak.

20. Lar-abereek ere zure gana goititzen dituzte begiak, uri eske daudezen eraintzak iduri; zeren ithur-urak agortuak baitire, eta suak iretsi baititu mortuko lekhu ederrak.

### II. KAP.

1. Sionen durrundaraz zazue turuta, ene mendi sainduan arthikatzue orrobiak; alsaldutan jar beitez lurreko egoiliarrak oro; ezen heldu da, hur-bii da Jaunaren eguna,

2. Ilhunbe eta gobeletako eguna, hedoi eta xirimoletako eguna; goizeko argia mendien gainera hedatzen den bezala, hedaturen da populu handi eta hazkar bat; haren parerik egundaino izan ez baita, eta haren ondotik menderen mendetan ez baita izanen.

3. Haren aitzinean heldu da iresten duen su bat, eta haren ondotik gar erregarri bat; haren aitzinean lurak iduri zuen atseginetako baratze bat, eta haren ondotik mortuko hustasuna, eta hari itzurtzen zaioenik ez da nihor.

4. Zaldien itxura bezalakoa da hekien itxura, eta nola zaldizkoek, hala laster egiten dute.

5. Mendi-bizkarretan jauzten dire, orga-lasterrek bezalako harrabotsa eginez, lastoa erretzen duen su garraren harrabotsa iduri, gudura abian den armada hazkarra bezala.

6. Hekien aitzinean populuak oinhazetan izanen dire; begitharte guziak dufhina bezain beltz eginen dire.

7. Hazkarrek bezala laster egiten dute, gerlariak bezala harrasi gainera jauzten dire; gizonak bezala lerroan dihoazi beren bideetan eta beren bidexkak ez dituzte hausten.

8. Bakhotxak ez du bere anaia hertsaturen, batbedera bere sailean goanen da; leihoetarik ere eroriko dire eta ez dute min hartuko.



9. Hirian sarthuko dire eta harrasi gainera laster eginen dute; etxe-tara iganen dire leihoetarik sarthuko ohoina bezala.

10. Hekien aitzinean ikharatu da lurra, khordokatu dire zeruak; iguzkia eta ilhargia ilhundu dire, eta izarrek itsutu dute beren argia.

11. Jaunak bere armadaren aitzinean adiarazi du bere mintzoa; zeren gaitza baita haren armada; hazkarra da eta haren erranak egiten ditu; handia da alabainan Jaunaren eguna, eta guziz ikharagarria; eta nork hura jasan?

12. Orai beraz, dio Jaunak, itzul zaitezte ene gana zuen bihotz guziaz, barur, nigar eta deithore eginez.

13. Urta zatzue zuen bihotzak, eta ez zuen soinekoak, eta bihur zaitezte zuen Jainko Jaunaren gana; zeren den ongikoa, urrikalkor eta jasan-korra, urrikalmendu hainitz duena eta hasarreari garaitzen dena.

14. Nork daki hean ez den itzuliko, hean ez duen barkhatuko, eta ez dituen bere ondotik utziko benedizioea, sakrifizioa eta libazioea zuen Jainko Jaunarentzat?

15. Turuta durrundaraz zazue Sionen, sainduetsazue barur bat, deith zazue baldarna.

16. Bilaraz zazue populua, sainduetsaraz baldarna, bilaraz zatzue zaharrak, ethorraz haurttoak eta bulharra edoskitzen dutenak; senharra ilkhi bedi bere etzauntzatik eta emaztea bere ohetik.

17. Ezkaratzaren eta aldarearen artean nigar eginen dute aphezek, Jaunaren ministroek, eta erranen dute: Barkha, Jauna, barkha zure populuari; ez arthik zure primantza laidoaren azpira, jendaia ez ditezen nausi zure haurrei. Zertako derrate populuen artean: Non da horien Jainkoa?

18. Jauna berotu da bere lurraren alde, eta guphidetsi du bere populua.

19. Eta Jaunak ihardetsi du, eta erran dio bere populuari: Huna non igorriren darozkitzuedan nik ogia, arnoa eta olioia, eta aseko zarete, eta etzaitzuet gehiago laidotara emanen populuen erdian.

20. Eta zuen ganik urrun igorriren dut ipharretik heldu dena, eta iraziren dut lur mortu eta bidegabeko batera, burua iguzki-aldeko itsasoaren parrera eta buztana azken itsasora; eta haren usaina eta haren ustel urrina iganen dire, zeren burgoiki den ibili.

21. Lurra, ez izan beldurrik; boz zaite, eta jauz zaite; zeren gauza handien egitera baitoha Jauna.

22. Bazterretako abereak, ez izan beldurrik; zeren mortuko ederrak belharrez estali baitire, zeren zuhaitzek eman baitute beren fruitua; pikoak eta mahastiak ematen dute beren gozoa.

23. Siongo alabak, boz zaitezte eta jauz zuen Jainko Jauna baithan; zeren eman baitarotzue zuzentasunaren irakhaslea, eta zuen gainera jau-saraziren baitu hastetik bezala uri goiztiarra eta berantiarra.

24. Larrainak betheko dire ogiz, arnoa eta olioia nasai izanen da lakotan.

25. Xartala, bruco, herdo eta harrek, izurri gaitz nik zuen gainera igorriek xahutu dituzten uzten ordainak bihurturen darozkitzuet.

26. Hekietarik janez haziko eta aseko zarete; laudaturen duzue zuen Jainko Jaunaren izena, zuentzat hanbat sendagaila egin izan duenaren izena; eta egun-eta-iguzki ez da ene populua ahalketara eroriko.

27. Eta ezaguturen duzue ni naizela Israelen erdian nagoena; eta ni naizela zuen Jainko Jauna, eta bertzerik ez dela; eta ene populua ez da nihoiz-ere ahalketara eroriko.

28. Eta horien ondotik izanen da, ene izpiritua ixuriko dudala gizon guzien baithara; eta profetisatuko dute zuen seme-alabek; zuen zaharrek ametsak izanen dituzte, eta ikhuspenak zuen gazteek.

29. Ene muthil eta neskatoen gainera ere egun hekietan ixuriko dut ene izpiritua.

30. Eta zeru-lurretan agerraraziko ditut sendagailak, odola, eta sua, eta khe-lanhoa.

31. Ilhunbetara aldatuki da iguzkia, eta odoletara ilhargia Jaunaren egun handi eta lazgarria ethor dadien aitzinean.

32. Eta izanen da, Jaunaren izenari dei eginen dioten guziak salbatuak izanen direla; ezen, Jaunak erran bezala, Siongo mendian eta Jerusalem, eta Jaunak deithu dituen ondarretan izanen da salbamendua.

### III. KAP.

1. Ezen hara egun hekietan eta ordu hartan, bihurraziti dituzkedanean Judako eta Jerusalemgo gathibuak,

2. Bilduko ditut jendaia guziak, eta eramanen ditut Josafateko haranera, eta han juiamendutan sarthuko naiz ene populu eta Israelgo ene primantza, jendaietan barriatu dituztenen gainean, eta beren artean zathitu duten ene lurraren gainean.

3. Zorthea arthiki izan dute ene populua gainera; lizuntegian ezarri dituzte muthikoak, eta arno truk saldu dute neskata, edaten haritzeko.

4. Bainan zer ikhusteko da zuen eta ene artean, Tir, Sidon eta Palestindarren eremuak? Asperkunde bihurtzen othe darotazue niri? Eta ene ganik aspertzera hari bazarete, ordu berean zuen buruen gainera bihurturen darotzuet ordaina.



5. Ezen eraman ditzue ene urhe-zilharrak; eta ene gauza lehiagarrienak eta ederrenak zuen tenploetara eraman ditzue.
6. Greziarren semeei saldu ditzue Judako eta Jerusalemgo umeak, hekiek urrun beren eremuetarik igortzea gatik.
7. Eta nik, saldu ditzuzen tokietarik eraikiren ditut; eta zuen burua gainera bihurturen dut gaizkiaren saria.
8. Eta zuen seme-alabak emanen ditut Judako umeen eskuetara, eta salduko ditzute Sabearrei, urrungo jendaia bati, ezen Jaunak erran du.
9. Hori oihu egizue jendaietan, sainduetsazue gerla, altxaraz zatzue hazkarrak; hurbil eta igan beitez gerlariak oro.
10. Hautatzue zuen goldeak ezpata egiteko eta pikotxak lantzetako. Herbalak erran beza: Hazkar naiz.
11. Jauz zaitzte eta zatozte populu guziak alde orotarik, eta bil zaitzte; Jaunak zuen hazkarrei hor joaraziko diote lurra.
12. Jendaia jakiki eta Josafateko haranera igan beitez; zeren han jarriko bai naiz jendaia guzien juiatzen inguruan.
13. Loth ihitegiei, onthua baita uzta; zatozte eta jauts zaitzte, bethea baita lakoak; gaindi dohazi lakoak, mukhuru baita hekien gaixtakeria.
14. Populuak, populuak, sarraskiko haranera Zeren hurbil baita Jaunaren eguna sarraskiko haranean.
15. Gobeldu dire iguzkia eta ilhargia; izarrek itsutu dute beren argia.
16. Jaunak Siondik eginen du orroa, eta Jerusalemetik adiaraziren du bere mintzoa; eta ikharaturen dire zeru-lurrak; eta Jauna izanen da bere populuaren pheskiza eta Israelgo haurren indarra.
17. Eta jakinen duzue ni naizela zuen Jainko Jauna, Siongo ene mendi sainduan egoten naizena; eta saindu izanen da Jerusalem, eta arrotzak ez dire gehiago hartan gaindi iraganen.
18. Eta egun hartan gerthaturen da ezta jautsiko dela mendietarik, eta esnea munhoetarik; ur biziak goanen dire Judako lats guzietarik; eta Jaunaren etxetik ilkhiko da ithurri bat, eta urztaturen du Elhorrietako erreka.
19. Egipto desmasian izanen da, eta Idumea mortu hilgarri bat; zeren gaizki erabili baitituzte Judako umeak, eta beren lurrean ixuri baitute odol hobengabea.
20. Eta Judeak bethi guzian izanen ditu egoiliarak eta Jerusalemek menderen mendetan.
21. Eta garbi eraginen dut aitzinean garbitu ez nuen odola; eta Sionen egonen da Jauna.

## AMOS EN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Amosen hitzak, Amos Thekueko artzainetarik baitzen, Israelen gainean izatu zuen ikhuspenaz, Judako errege Oziasen egunetan, eta Israelgo errege Jeroboam Joasen semearen egunetan, bi urthe lur-ikhara baino lehen.
2. Eta erran zuen: Siondik orroa eginen du Jaunak, eta Jerusalemetik adiaraziko du bere mintzoa; nigarrez baratu dire artzainen alhapide ederrak, eta agortu da Karmelen kaskoa.
3. Hau dio Jaunak: Damasek egin dituen hirur eta lau gaixtakerien ondoan, ez dut aldatuko ene erabakia; zeren burdinazko orgen azpian xehakatu baitute Galaad.
4. Eta sua bidaliko dut Azaelen etxera, eta erreko ditu Benadaden etxeak.
5. Eta trenkaturen dut Damasko haga, eta iraziren ditut hango egoiliarak Idolaren zelhaitetik, eta manamenduko makhila dadukana atseginetako etxetik; eta Siriako populua desherritua izanen da Zirenera, dio Jaunak.
6. Hau dio Jaunak: Gazak egin dituen hirur eta lau gaixtakerien ondoan, ez dut aldatuko ene erabakia; zeren oro gathibu eraman eta Idumean hertsu baitituzte.
7. Eta bidaliko dut sua Gazako harrasien barnera, eta erreko ditu hango etxeak.
8. Eta egoiliarak iraziren ditut Azotetik, eta manamenduko makhila dadukana Askalondik; eta eskua itzuliren dut Akaronen gainera, eta galduko dire Filistindar ondarrak, dio Jainko Jaunak.
9. Hau dio Jaunak: Tirrek egin dituen hirur eta lau gaixtakerien ondoan, ez dut aldatuko ene erabakia; zeren gathibuak oro hertsu ditzuten Idumean eta ez diren orhoitu anaiekilako batasunaz.
10. Eta bidaliko dut sua Tirreko harrasien barnera, eta erreko ditu hango etxeak.
11. Hau dio Jaunak: Edomek egin dituen hirur eta lau gaixtakerien ondoan, ez dut hautsiko ene erabakia; zeren ezpatarekin jarraiki baitzaio bere anaiari, zaurthu baitute hekien alderako urrikalmendua, sobraniozki iduki beren sepha, eta azkeneraino begiratu beren gaitzidura.
12. Sua igorriko dut Themanera, eta erreko ditu Bosrako etxeak.



13. Hau dio Jaunak: Amonek egin dituen hirur eta lau gaixtakerien ondoan, ez dut hautsiko ene erabakia; zeren sabelak urratu diozkaten Galaadeko emazte izorrei, bere mugen zabaltzea gatik.

14. Eta sua biztuko dut Errabako harrasien barnean, eta hango etxeak iretsiko ditu, orrobien erdian, gerla-egunean, eta xirimolen erdian, asaldu-egunean.

15. Eta Melkom gathibu goanen da, bera eta bere aitzindariak, oro batean, dio Jaunak.

## II. KAP.

1. Hau dio Jaunak: Moabek egin dituen hirur eta lau gaixtakerien ondoan, ez dut hautsiko ene erabakia; zeren Idumeako erregeren hezurrak erre dituen herrausteraino.

2. Eta sua igorriko dut Moabera, eta erreko ditu Kariotheko etxeak; eta Moab hilen da harramantzen eta turuta durrunden erdian.

3. Eta haren erditik galduko dut juiea, eta haren aitzindariak hilen ditut harekin, dio Jaunak.

4. Hau dio Jaunak: Judak egin dituen hirur eta lau tzarkerien ondolan, ez dut hautsiko ene erabakia; zeren Jaunaren legea baitute arnegatu, eta haren manamenduak ez zaindu; alabainan enganatu dituzte beren jainkoazunek, zeinen ondotik ibili izan baitire hekien arbasoak.

5. Eta sua igorriko dut Judara, eta erreko ditu Jerusalemgo etxeak.

6. Hau dio Jaunak: Israelek egin dituen hirur eta lau tzarkerien ondolan, ez dut hautsiko ene erabakia; zeren prestua duten saldu dirutan, eta beharra oinetako truk.

7. Hekiek lurreko herrautsean lehertzen dituzte beharren buruak, eta makhurtzen dute xumeen bidea; semea eta aita neskata ber-baten gana ibili dire, ene izen sainduari laido egiteko.

8. Aldare guzien ondoan etzan dire soineko bahituen gainean; eta kondenatuen arnoa edan dute beren Jainkoaren etxean.

9. Nik xahutu nuen bada hekien aitzinetik Amorhearra, zeinaren irazkia zedroaren goratasunaren bardin, eta bera haritza bezain hazkarra baitzen; eta nik lehertu nituen haren gaineko fruituak eta haren behereko erroak.

10. Ni naiz zuek Egiptoko lurretik iganarazi eta mortuan berrogoi urthez bidatu zaituztedana, goza zinezaten Amorhearraren lurra.

11. Nik eraiki ditut zuen semeetarik profetak eta zuen gazteetarik Nazarearrak. Ez othe da hola, Israelgo haurrak? dio Jaunak.

12. Eta zuek arnoa ematen zinaroeten Nazarearrei edatera; eta profetak manatzen zintuzten erranez: Ez profetisa.

13. Huna nik karraska eginen dut zuen gainean, hala-nola orga beharrez sorthatuak egiten baitu karraska.

14. Ihesbideak eskas eginen dio zalhuari, gerlaria ez da bere bihotzaz nausi izanen, hazkarrak ez du bere bizia salbaturen.

15. Arranbela dadukana ez da gogor egonen, bere oinek ez dute itzurraziren zalhua, eta zaldi gainera igaiten denak ez du salbaturen bere bizia;

16. Eta hazkarren artean, bihotzez hazkar denak, buluzik egun hartan ihes eginen du, dio Jaunak.

## III. KAP.

1. Israelgo umeak, adi zazue Jaunak erran hitza zuen gainean, Egiptoko lurretik atheratu dudan ahaidego guziaren gainean, erranez:

2. Lurreko ahaideeria guzietarik, zuek bakharrik ezagutu izan zaituztet; hartatik zuetan bilhaturen ditut zuen tzarkeriak oro.

3. Bi gizon elkharrekin ibiliko othe dire, baldin ez bazaiote ongi heldu?

4. Lehoinak oihanean orroa eginen othe du harrapakinik ez badu? Lehoinkumeak bere etzan-lekhutik marruma arthikiren othe du, ez balin badu zerbait atzeman?

5. Xoria eroriko othe da lurrean den artera, hedatzailerik ez bada? Artea lurretik altxaturen da othe, zerbait atzeman baino lehen?

6. Turutak hirian durrundaturen othe du, eta populua ez izituko? Hirian asturugaitz zerbait izanen othe da, non ez duen Jainkoak igorri?

7. Ezen Jainko Jaunak ez du deusere egin, non ez dioten bere zerbiztari profetei agertu bere segretua.

8. Lehoinak marruma eginen du, nor ez da ikharatuko? Jainko Jauna mintzatu da, nork ez du profetisatuko?

9. Hau adiaraz zazue Azoteko etxeetan eta Egiptoko lurreko etxeetan, eta errazue: Bil zaitezte Samariako mendietara eta ikhusatzue hango erhokeriaketa eta hango zokholoetan jasaiten diren bidegabekeriak.

10. Eta ez dute jakin zuzen zenaren egiten, dio Jaunak, beren etxeetan moltzatzen zituztelarik gaixtakeria eta ohoinkeriak.

11. Aria hortaz, dio Jainko Jaunak: Lurra hertsatua eta inguratua izanen da; khendua izanen zaitzu zure indarra, eta larrutuak izanen dire zure hiriak.



12. Hau dio Jaunak: Nola artzain batek lehoinaren ahotik athera bai-letzazke bi ixter edo beharri moka bat, hain nekez atherako dire Israelgo semeak, Samarian daudenak ohe-zokhoan, edo Damasko-etzauntzetan.

13. Adi zazue eta lekhukotasun athera Jakob en etxean, dio armadetako Jainko Jaunak;

14. Israelen lege-hauspenen bilhatzen abiatuko naizenean, ikharturen naizela haren baithan eta Bethelgo aldareetan; ebakiak izanen direla alda-rearen adarrak, eta lurrera eroriko direla.

15. Eta joko ditut negu-etxea eta udako etxea, eta eroriko dire bolizko jauregiak, eta urratua izanen da etxeketa gaitza, dio Jaunak.

#### IV. KAP.

1. Hitz hau adi zazue, Samariako mendian zareten behi gizenak, beharrari bidegabe egileak, eta erromesen oinkatzaileak, zuen nausiei erraten duzenak: Ekhartzue eta edanen dugu.

2. Jainko Jaunak zin egin du bere izen sainduaz, zuen gainera heldu direla egunak, eta lazafrinetan altxatuak izanen zaretela, eta zuen ondarrak bertz irakitueta arthikiak.

3. Eta harrasietako urraduretarik ilkhiko zarete bat bertzearen ondokit, eta Armonera izanen zarete arthikiak, dio Jaunak.

4. Zoazte Bethelera, eta egizue gaizkia; zoazte Galgalara, eta murruka zatzue zuen lege-haustek; goizetik eraman zatzue zuen bitimak eta hirur egunez zuen hamarrenak.

5. Egizkitzue ophil altxatuzko eskaintzak; espantu egizue zuen oldezko eskaintzez, eta orotan erantzun zatzue; hola nahi izan duzue ezen, Israelgo semeak, dio Jainko Jaunak.

6. Horren gatik nik ere eman darotzuet hortzetako hoskindura zuen hiri guzietan, eta ogi eskasia zuen tokietan orotan; eta halere etzarete ene gana bihurtu, dio Jaunak.

7. Nik halaber zuetarik debekatu dut uria, hirur hilabete gelditzen zirelarik oraino uztarora; eta hiri baten gainera uria egin dut, eta bertzearen gainera ez; aurkhintza bat bustia izan da; eta uriztatu ez dudan ephaitza, agortu izan da.

8. Bi eta hirur hiri bertze batera ethorri dire ur edatera, eta ez dire ase; eta zuek etzarete ene gana bihurtu, dio Jaunak.

9. Jo izan zaituztet haize erregarriaz eta herdoaz; zuen baratzeketa handia, zuen mahastiketa, zuen olibadiketa, zuen pikodiketa harraz izan dire iretsiak; eta zuek etzarete ene gana bihurtu, dio Jaunak.

10. Zuen gainera heriotzea bidali dut Egiptoko bidean; ezpataz jo dut zuen gazteria, zaldiak etsaiari atzemanarazteraino; zuen sudurretara iganarazi dut zuen kanpetako ustel-urrina; eta zuek etzarete ene gana bihurtu, dio Jaunak.

11. Herraus zaituztet, Jainkoak Sodoma eta Gomorha herrausi zituen bezala; eta bilhakatu zarete sualde batetik eraman itxindia iduri; eta zuek etzarete ene gana bihurtu, dio Jaunak.

12. Aria hortaz, hau eginen darotzut, Israel; egin izan darotzuketan ondoan, berriz, abia zaitte, Israel, zure Jainkoaren bidera.

13. Ezen huna mendien egilea, haizearen egilea, bere hitza gizonari ezagutarazten dioena, goizeko lanhoen egilea, eta lurreko bizkar goretan ibiltzen dena; armadetako Jainko Jauna da haren izena.

#### V. KAP.

1. Adi zatzue hitz haukiek, nik zuen gainean altxatzen dudan deithorea: Erori da Israelgo etxea, eta ez du jaikitzerat eginen.

2. Lurrean arthikia dago Israelgo neskatxa, eta nihork ez du eraikitzen.

3. Alabainan hau. dio Jainko Jaunak: Israelgo etxean, hiri batetarik ilkhitzen baziren mila, hartan ez da ehun baizik geldituren; eta zeinetik ehun ilkhitzen baitziren, hainean baraturen dire hamar.

4. Ezen hau dio Jaunak Israelgo etxeari: Bilha nezazue, eta biziko zarete.

5. Eta ez bilha Bethel, eta ez sar Galgalan, eta etzarete Bersabeen iraganen; zeren izanen baitire, Galgala gathibu eramana eta Bethel ezdeus-tua.

6. Bilha zazue Jauna eta bizi zaitzete, beldurrez-eta sua bezala erredadien Josepen etxea; eta suak iretsiko du Bethel, eta nihork ezin hilen du.

7. Zuzena zizari-belharrera bihurtzen eta zuzentasuna lurrean bazterrerat uzten duzenak.

8. Bilha zazue Zazpi-Ohoinen eta Orionaren egilea, ilhunpeak argitara eta eguna gauera aldatzen dituen, itsasoko urak deitzen eta lurraren gainera ixurtzen dituen: Jauna da haren izena.

9. Irriz bezala xahutzen du hazkarra, eta desmasia ekhartzen dio ahaldunari.

10. Higuinzetan hartu dute, athean erantzuten ziotena, eta gaitzirizkotan garbiki mintzo zena.

11. Beraz, larrutzen zindutelakoz beharra, eta eramaten zinazotzelakoz gauza hautenak; lau izkinetako harriz eginen ditutzue etxeak, eta etza-





rete hekietan egonen; landaturen ditutzue mahasti maithagarrienak, eta ez duzue hekietarikako arnoa edanen.

12. Ezagutzen ditut ezen zuen gaizki murrak eta zuen bekhatu dorpheak; prestuaren etsai, emaitza-hartzaile, eta athean beharraren zap-hatzaile zarete.

13. Aria hortaz, horrelako orduan gizon umoa ixilik dago, gaixtoa delakoz ordua.

14. Bilha zazue ongia eta ez gaizkia, bizi zaiteztentzat; eta zuekin izanen da armadetako Jainko Jauna, hala etzelarik erauntsi duzuen bezala.

15. Hastia zazue gaizkia eta maitha ongia, eta athean ezar zazue zuzentasuna; hean beharbada Josepen ondarrei urrikalduren den armadetako Jainko Jauna.

16. Hargatik hau dio armadetako Jainko Jaun, orenen nausiak: Plaza guzietan izanen dire deithoreak, eta kanpo bazietan erranen da: Zorigaitz zorigaitz! Eta khexuetara deithuko da laboraria, eta deithorera deithorutzen dakitenak.

17. Eta mahasti guzietan izanen da deithorea, zeren iraganen bainaiz zure erditik, dio Jaunak.

18. Zorigaitz Jaunaren egunaren irritsean daudezenei! Zertako baliaturen zaitzue hura? Jaunaren egun hura ilhunbezkoa da eta ez argizkoa.

19. Hura izanen da hala-nola lehoinaren ihes dohan gizonari, aitzine-  
ra heldu zaioen hartza; hala-nola gizona etxean sar baledi eta eskua harra-  
sianean gainean berma baleza, eta suge batek asikitzen balu.

20. Jaunaren eguna ez othe da ilhunbezkoa izanen, eta ez argizkoa; gobelezkoa, eta ez dirdirazkoa?

21. Higuintzen eta buhakhaizten ditut zuen bestak eta ez dut onhe-  
tsiren zuen bilkhuetak bitimen usaina.

22. Baldin eskaintzen badaroztatzue zuen holokaustak eta emaitzak, ez ditut onhetsiren; eta zuen bitima gizenen botuei ez diotet begiraturen.

23. Khen zatzue ene aitzinetik zuen kantu kalapitak; eta ez ditut entzunen zuen lirekilako kantikak.

24. Juiamendua agerturen da ura bezala, eta justizia uhar hazkarra iduri.

25. Israelgo etxea, mortuan niri eskaini othe daroztatzu berrogoi urt-  
hez bitimak eta sakrifizioa?

26. Ekharri ditutzue zuen Moloken tabernaklea, zuen idolen itxurak eta zuen jainkoaren izarra, zuentzat egin zintuztenak.

27. Eta nik Damasez haindira herraldaraziko zaituztet, dio Jaunak, armadetako Jainkoa deitzen denak.

## VI. KAP.

1. Zorigaitz zuei, Sionen aberats bizi zaretenei, eta Samariako men-  
diaren indarrean sinheste dadukazuenei, handi-mandi, populuen buruza-  
gi, burrunba handitan Israelgo bilkhura sartzen zaretanak!

2. Iragan zaitezte Kalanera, eta ikhusazue; handik zoazte Emath handira, eta jauts zaitezte Palestindarren Jethera, eta hekien erresuma ede-  
rren guzietara; hean hekien eremuak zuenak baino zabalagoak othe diren.

3. Zorigaitz zuei, egun gaixtorako bereziak zaretenei, eta tzarkeriako tronuari hurbiltzen zaretenei;

4. Bolizko oheetan lo egiten duzuenei, eta zuen etzauntzetan gozoki zabaltzen zaretenei; arthaldetik bildotsa eta aberetarik aratxe goriatzen jaten duzuenei;

5. Maniurrarekin batean kantuz zaudeztenei; zuen buruak, Dabid bezain musikari ederrak daduzkatzuenei;

6. Arnoa basoka edaten, eta zuen buruak gantzugailu hoberenez gantzutzen ditutzuei, eta Josepen hesturari sorhaio zaudeztenei!

7. Aria hortaz desherrituen dire orai desherritzera dihoazenen buruan, eta atseginkerietan baltsatzen zen andana khendua izanen da.

8. Jainko Jaunak zin egin du bere buruaz, armadetako Jainko Jaunak erran du: Hastio dut Jakoberen hanpurustasuna, higuin ditut haren jaure-  
giak, eta hiria bere egoiliarrekin etsaiari arthikiren diot.

9. Hamar gizon gelditu balire etxe batean, hekiek ere hil laizteke.

10. Eta hauzoak hartuko ditu eta erreko, etxetik hezurren eramate-  
kotzat. Eta etxe-zokhoan gelditu denari erranen dio: Bada oraino zutaz bertzerik?

11. Eta ihardetsiren du: Akhabo da. Eta bertzeak erranen dio: Zaude ixilik eta ez orhoit Jaunaren izenaz.

12. Ezen huna Jauna manatzera dihoala, eta etxe handiari joaraziren dio lurra, eta arrailaraziren du etxe ttipia.

13. Zaldiek laster egin othe dezakete hartsuetan, edo iraulden hari othe daiteke bafidiekin? ezen uherdurara bihurtu dituzue juiameuduak, eta zizari-belharrera justiziaren fruituak.

14. Hutsalkerian bozten zaretenek diozue: Ez othe ditugu gure indar-  
raz goratu gure adarrak?

15. Israelgo etxea, huna beraz zuen kontra eraikiren dudala jendaki bat, dio armadetako Jainko Jaunak; eta xahuturen zaituztete Ematheko sartzetik mortuko errekaraino.



## VII. KAP.

1. Hau erakhutsi izan darot Jainko Jaunak, eta hara xartalaren egilea, uri berantekoak belharra sorrarazten abiatzen duenean; eta hara uri berantiarra erregerentzateko ephai-aldiaren ondotik.

2. Eta gerthatu zen, xartalak belharra jaten akhabatu zuenean, erran nuela: Jainko Jauna, begitharte egizu othoi; nork altxaturen du Jakob, ezen aphurtua da?

3. Jauna urrikaldu zen horren gainean, eta erran zuen: Ez da hola-korik izanen.

4. Hau erakhutsi zarotan Jaunak: eta hara Jainko Jaunak deitzen zuela suzko juiamendua; eta suak iretsi zuen zolagune handi bat eta gainetarik zathi bat jan zuen.

5. Eta erran nuen: Jainko Jauna, bara zaite othoi; nork altxaturen du Jakob, ezen aphurtua da?

6. Jauna urrikaldu zen horren gainean: Hori ere ez da izanen, erran zuen Jainko Jaunak.

7. Hau erakhutsi zarodan Jaunak: Hara Jauna xutik zagoela harrasi ebokatu baten gainean, eta hargin phalote bat zen haren eskuan.

8. Eta Jaunak erran zarodan: Zer ikhusten duzu, Amos? Eta ihardetsi nuen: Hargin phalote bat. Eta Jaunak erran zuen: Huna nik utziko dudala phalotea Israelgo ene populuaren erdian; ez naiz gehiago haren ebokatzen hariko.

9. Idolaren lekhu gorak urratuak eta Israelek sainduetsi tokiak desmasatuak izanen dire; eta ezpatarekin jaikiko naiz Jeroboamen etxearen gainera.

10. Eta Amasias, Bethelgo aphezak igorri zuen Israelgo errege Jeroboamen gana, zerralarik: Amos zure kontra bihurtu da Israelgo etxearen erdian; lurrak ezin egarriko ditu haren solas guziak.

11. Ezen hau dio Amosek: Ezpatatik hilen da Jeroboam, eta Israel bere lurretik gathibu eramana izanen da.

12. Eta Amasiasek erran zioen Amosi: Habil, ikhuslea; ihes-egik Judako lurrera; han janen duk ogia, eta han hariko haiz profetisatzen.

13. Ez behedi gehiago Bethelen profetisatzen abia; zeren hemen baitire erregeren lekhu sainduetsia eta erresumako jauregia.

14. Eta Amosek ihardetsi eta erran zioen Amasiasi: Ez naiz ez profeta, ez profeta-semea; bainan ni naiz unha bat, sikomora-ximikatzailea.

15. Eta Jaunak hartu nau, arthaldearen ondotik nindabilarik, eta Jaunak erran izan darot: Zoaz, profetisa diozozu Israelgo ene populuari.

16. Eta orai adi zazu Jaunaren hitza: Zuk diozu: Ez duzu Israelen gainean profetisatuko, ez-eta idolaren tenploaren gainera erauntsiarik eginen.

17. Hori gatik hau dio Jaunak: Hire emaztea lilitxo ibiliren duk hirian; hire semeak eta hire alabak ezpataren azpira eroriko dituk; hire lurra hariaz izanen duk neurtua; eta hi, lur lohian hilen haiz, eta Israel bere lurretik gathibu eramana izanen duk.

## VIII. KAP.

1. Hau erakhutsi zarotan Jaunak: eta hara fruitu mako bat.

2. Eta erran zarotan: Zer ikhusten duzu, Amos? Eta ihardetsi nuen: Fruitu mako bat. Eta Jaunak erran zarotan: Israelgo ene populuaren gainera heldu da akhabantza; ez natzaio barkhatzen gehiago hariko.

3. Eta egun hartan tenploko atheetako erroak karrankaz hariko dire, dio Jainko Jaunak; asko hilen dire, eta ixiltasuna arthikia izanen da toki guzietara.

4. Hau adi zazue, erromesaren lehertzaileak, lurreko beharra abiarazten duzuenak,

5. Diozuelarik: Noiz iraganen da hilabethea, eta salduko ditugu gure salgeiak? Noiz goanen larunbata, eta atheratuko ditugu ogiak; ttipituko dugu neurria, handituko sikloaren phisua, eta erabiliko balantza aizunak,

6. Diruaren bidez jabe gaitezen beharrez, eta oinetako truk erromesez, eta sal diotzoguten ogi-aphainkinak?

7. Jaunak zin egin du Jakobean hanpuruskeriaren kontra: Ala! ez ditudala azkeneraino ahantziren horien egitate guziak.

8. Horren ondotik, lurra ez othe da gainazpikatuko? Nigarretan egonen dire hor daudezenak oro; iganen dire hala-nola hibai bat guzia; eta iraziak izanen dire, eta urthuko dire Egiptoko hibaia bezala.

9. Eta egun hartan gerthaturen da, dio Jainko Jaunak, iguzkia etzannen dela eguerdi bethean, eta egun-argi delarik ilhuntaraziren dudala lurra.

10. Eta zuen besta-buruak aldaturen ditut deithoretara, eta zuen kantika guziak khexuetara; zakhua ekharriren dut zuen bizkarretara eta khar-tzoiltasuna buru guzien gainera; eta lurra ezarriren dut, bere haur bakharraz nigarrez dagoen ama bat iduri, eta haren azken orduak emanen ditut kharmindurazko egun bat bezala.

11. Huna heldu direla egunak, dio Jaunak, eta gosetea bidaliren dut lurrera, ez ogizko gosetea, ez-eta ur-egarria, bainan-bai Jaunaren hitzaren entzutekoa.



12. Eta asaldutan izanen dire itsaso batetik bertzera eta ipharretik iguzki-aldera; inguruka ibiliren dire Jaunaren hitzaren bilha, eta aurkhituren ez dute.

13. Egun hartan, egarriak ahiturik eroriko dire neskatxa ederrak eta gizon-gazteak ere,

14. Zeinek Samariako bekhatuaz zin egiten baitute, eta erraten: Dan, ala hire Jainkoa! eta, ala Bersabeeko bidea! Eta eroriko dire, eta ez dire gehiago jaikiko.

### IX. KAP.

1. Ikhusi nuen Jauna aldarearen gainean xutik, eta erran zuen: Jo athe-erroa, eta khordoka beitez athaburuak; ezen orok buruan dute jaramankeria, eta ezpataz hilen dut horietarik azkena; ez da horientzat ihesbiderik. Goanen dire ihes, eta ihes eginen dutenatarik, bat ez da itzuriko.

2. Ifernuraino jauts baleitez ere, handik ene eskuak athera letzazke; eta zeruraino igan baleitez, handik beheiti herresta netzazke.

3. Eta Karmelgo kaskoan gordeak balaudezi, bilhatuik athera netzazke handik; eta ene begietarik itsas-ondarretan gorde baleitez, han mana niozoke sugeari eta asik letzazke.

4. Eta beren etsaien aitzinean gathibu goan baleitez, han ezpatari mana niozoke eta hil letzazke; eta ene begiak hekien gainean ezarriren ditut hekien gaitzetan, eta ez onetan.

5. Eta mintzo dena, armadetako Jainko Jauna da, zeinak ukitzen baitu lurra, eta lurra urtzen baita; eta hartan dauden guziak nigarrez egonen dire; eta iganen da hibai bateko uharrak bezala, eta suntsituren da Egiptoko hibaia iduri.

6. Bere tronua zeruetan altxatu, eta bere bilduma lurraren gainean jarri duena; itsasoko urak deitzen, eta lurraren gainera ixurtzen dituen, hainak Jauna du izena.

7. Israelgo umeak, ez othe zarete ene aitzinean Ethiopiarren semeak bezala? dio Jaunak. Ez othe ditut nik Egiptoko lurretik iganarazi Israeldarrak, Kapadoziatik Palestindarrak, Zirenetik Siriarrak?

8. Huna Jainko Jaunaren begiak edozein erresuma bekhatu egiten duenaren gainean daudezela, eta lurraren gainetik xahuturen dut hura; guzia gatik ez dut alde bat xahuturen Jakob en etxea, dio Jaunak.

9. Ezen huna non manaturen dudan nik, eta jendaia guzietan iharrosia izanen da Jakob en etxea, bihia bahean iharrosten den bezala, eta harritto bat ere ez da lurrera eroriko.

10. Ezpatatik hilen dire ene populuko bekhatu-egile erraten dutenak: Gaitza ez da hurbilduko, ez da gure gainera ethorriko.

11. Egun hartan eraikiren dut Dabiden etxea, lurrerat erori dena; osaturen ditut haren harrastetako urradurak; altxaturen ditut erori direnak, eta berrituren dut hura, beihalako egunetan zen bezala;

12. Goza detzazten Idumeako ondarrak eta jendaki guziak, zeren ene izena hekien gainera deithua baita, dio Jaunak, horiek eginen dituenak.

13. Huna heldu direla egunak, dio Jaunak, eta iraultzaileak atzemanen du uztatzailea, eta mahats-lehertzaileak hazia arthikitzen duena; mendietarik jautsiko da ezitia eta munhoak lanthuak izanen dire.

14. Eta bihurraziren ditut Israelgo ene populuko gathibuak, eta berrituren dituzte hiri mortu eginak eta hekietan eginen dute beren egoitza; eta landaturen dituzte mahastiak, eta edanen dute hekietako arnoa; eta eginen dituzte baratzeak, eta janen dituzte hekietako fruituak.

15. Jarriko ditut beren lurrean, eta ez ditut gehiago beren eremu eman diozkatenetarik atheratuko, dio zure Jainko Jaunak.



## ABDIASEN PROFEZIA

1. Abdiasen ikhuspena. Edomi hau derro Jainko Jaunak: Jaunaren ahotik aditu dugu erraten, eta bidalkin bat igorri du jendaietara; eta erraten dute: Jaiki jaiki gaitezen oro Edomi gudu ematera.

2. Huna aphurrik ezarri hindudala jendaien erdian: guziz haiz erdeinagarri.

3. Hire bihotzeko hanpuruskeriak handitu hau; harkaitzen zilhoetan hagoelakoz, mendietan gora jarri haizelakoz, hire bihotzean erraten duk: Nork jautsaraz ni beheiti?

4. Arranoa bezala goiti bahindedi ere, eta izarren artean koka baheza hire ohantzea, beheiti hintzaket handik, dio Jaunak.

5. Ebasleak sarthu balire hire etxean, ohoinak gabaz ethorri balire, ez othe hindaite ixilttorik egonen? Beren dina baino gehiago eraman othe lezaket? Mahats-hartzaileak hire mahastira sar baleitez, mulkhotto bat bederen ez othe liazaketek utz?

6. Nola ikhartu dute Esau? nola bilhatu dire haren zokhoetan?

7. Hire muga bururaino irazi haute; hirekin batasun zuten guziek jokatu haute; hire kontra nausitu dituk hire bakezko gizonak; hirekin jaten zutenek arteak hedatu darozkie azpian. Umotasunik ez da Edomen baithan.

8. Ez othe ditut, dio Jaunak, egun hartan galduren Idumeatik zuhurrak, eta Esaturen menditik umotasuna?

9. Eta hegoaldetik ikharan egonen dire hire hazkarrak, Esaturen menditik xahutzen hari delakoz gizona.

10. Hire anaia Jakobean gainean egin izan ditukan heriotze eta gaixtakerien gatik, ahalkeak estaliren hau, eta galduren haiz behin bethiko.

11. Haren kontra atheratua hintzen egunean, arrotzek hartzen zuteanean haren armada, atzeak sartzen zirenean haren atheetan, eta zortea arthikitzen zutenean Jerusalemaren gainera, hi ere orduan hekietarik bat bezala hintzen.

12. Ez duk gehiago erdeinurik arthikiren hire anaiaren egunean, haren desterruko egunean; ez haiz bozkarioz ibiliren haren galpeneko egunean; eta hire ahoa ez duk espantuz betheren hesturako egunean.

13. Eta ez haiz ene populuaren athean sarthuren haren xahupeneko egunean; eta ez duk hik ere erdeinua arthikiren haren desmasiako egu-

nean; eta ez haiz haren armadaren kontra izanen bidalia haren xahupeneko egunean.

14. Eta ez haiz atheketan jarriren ihes eginen dutenen hiltzeko; eta ez dituk haren ondarrak hertsiren egun gaitza dathorrenean.

15. Ezen jendaki guzien gainean hurbil da Jaunaren eguna: nola egin baituk, hala eginen zaik; hire saria bihurturen zaik hire buruaren gainera.

16. Ezen ene hasarrea edan duzuen bezala ene mendi sainduaren gainean, jendaia guziek edanen dute baratu gabe; eta edanen dute eta iretsiko, eta ez balire bezala izanen dire.

17. Eta Siongo mendian izanen da salbamendua eta hura izanen da saindua; eta Jakobean etxea nausituren da lehenago bere nausi zituenei.

18. Eta Jakobean etxea izanen da sua, eta Josepen etxea garra, eta Esaturen lastoa, eta hekiez errea izanen da; eta iretsiko dute; eta Esaturen etxetik ondarrak ez da geldituko, ezen Jauna da mintzatu.

19. Eta hegoaldean direnek primantzetan izanen dute Esaturen mendia, eta zelhaitarrek Filistin-herria; eta jabetuko dire Efraimen eremuaz eta Samariaren eremuaz, eta Benjaminek gozatuko du Galaad.

20. Eta Israelgo semeetarik desherritua izan den armada harek gozaturen ditu Sareptaraino Kanaandarren toki guziak; eta Jerusalemgo desherritu Bosphoroan direnek gozaturen dituzte hegoaldeko hiriak.

21. Eta silbatzaileak Siongo mendira iganen dira, Esaturen mendiaren juiatzera, eta Jaunak izanen du erregetasuna.



## JONASEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Jaunaren hitza Jonasi, Amathiren semeari ilkhi zitzaioena, zerralarik:
2. Jaiki zaite eta zoaz Ninibako hiri handira, eta erantzun zazu han, ene aitzinera igan dela hango tzarkeria.
3. Eta Jonas jaiki zen, Jaunaren aitzinetik Thatsisera ihes egiteko. Jopera jautsi zen eta atzeman zuen Thatsisera zihoan unti bat; eman zuen bidaiako behar zen dirua, eta untzian sarthu zen, hartan zirenekin Thatsisera goateko Jaunaren ihes.
4. Jaunak ordean itsasora igorri zuen haize handi bat, eta phesia gaitza egin zen itsasoan, eta lehertzeko zorian zabilan untzia.
5. Itsasturuak izituak ziren; zein bere jainkoari deihadarka zauden, eta itsasora arthiki zituzten untzian ziren puskak, hekietaz izan zadien arindua; Jonas berriz, unti barnera jautsia zen, eta lo gogor batean zagoen.
6. Eta lemazaina hurbildu zitzaion eta erran zioen: Zertan zaude lo hortan? Jaiki zaite eta dei egiozu zure Jainkoari, hean zure Jainkoa orhoituko den gutaz, eta gal ez gaitezen.
7. Eta han zirenek batak bertzeari erran zuten: Zatozte eta arthik detzagun zorteak, eta jakin dezagun zertako dathorkigun zorigaitz hau. Eta arthiki zituzten zorteak, eta zortea Jonasen gainera erori zen.
8. Eta erran zioten: Ager dizaguk zer ariaz den zorigaitz hau gure gainean. Zer ofizio duk? Nongoa haiz eta norat hoa? edo zein jendakitarik haiz?
9. Jonasek ihardetsi zioten: Hebrearra naiz ni, eta itsasoa eta leihorra egin dituen Jainko Jaun zerukoaren beldurrean bizi naiz.
10. Eta izialdura handia lothu zitzaioten gizon hekiei, eta erran zioten Jonasi: Zertako egin duk hori? (ezen berak erranik bazakiten, Jaunaren aitzinetik ihes zihoala.)
11. Eta erran zioten: Zer eginen deraiagu, itsasoa bara dadien gure ganik? Ezen goitituz eta hantuz zihoan itsasoa.
12. Eta Jonasek ihardetsi zuen: Har nezazue eta arthik itsasora, eta itsasoa baraturen da zuen ganik; nik badakit alabainan phesia gaitz hau ene gatik ethorri dela zuen gainera.
13. Eta gizonak arrau-indarka hari ziren, leihorrera bihurtu nahiz, bainan etziren nausitzen, itsasoa goitituz eta hantuz zihoalako.

14. Eta Jaunari oihu egin eta erran zioten: Othoi, Jauna, ez begedi gal gizon hunen heriotzearen ariaz, eta ez bezazu gure gain ezar odol hobengabea; zeren, Jauna, nahi duzun bezala egiten baituzu.

15. Eta hartu zuten Jonas eta itsasora arthiki zuten, eta itsasoa jabaldu zen bere irakiduratik.

16. Eta gizon hekiek beldur handia hartu zuten Jaunarentzat; eta bitimak imolatu ziozkaten Jaunari, eta botuak egin zituzten.

### II. KAP.

1. Eta Jaunak han ezarri zuen arrain handi bat Jonasen iresteke; eta Jonas arrainaren sabelean egotu zen hirur gau-egunez.
2. Eta bere Jainko Jaunari othoitz egin zioen arrainaren sabeletik,
3. Eta erran zioen: Ene hesturako lekhotik Jaunari egin diot deihadar, eta entzun nau; hobiaren ondotik oihu egin dut, eta aditu duzu ene mintzoa.
4. Arthiki nauzu lezera, itsasoaren barnera, eta urek inguratu naute; zure tirain eta uhinak oro iragan zaizkit gainetik.
5. Eta nik erran dut: Iraizia naiz zure begien aitzinetik; berriz ikhuseren dut halere zure tenplo saildua.
6. Urek inguratu naute, bizia khentzeko heineraino; lezeak birundan hartu nau, itsasoak estali darot burua.
7. Mendien behereko erroetara jautsi naiz; lurreko hersgailuek giltzatu naute bethiko; eta zuk, ene Jainko Jauna, galtzetik begiraturen duzu ene bizia.
8. Ene arima hestutua zenean ene baithan, zutaz orhoitu naiz, Jauna; hel zadien ene othoitz zure gana, zure tenplo saildura.
9. Hutsalkeria alfer batzuei jarraitzen direnek ukho egiten diote beren alderako urrikalmenduari.
10. Bainan nik laudoriozko kantuekin imolaturen darozkituz bitimak; eta ene salbatzeko, Jaunari bihurturen diozkat egin diozkadan botu guziak.
11. Eta Jaunak arrainari erran, eta arrainak goiti egin zuen Jonas leihorrera.

### III. KAP.

1. Eta bigarrera aldiko Jonasi ilkhi zitzaioen Jaunaren hitza, zerralarik:
2. Jaiki zaite, eta zoaz Ninibako hiri handira, eta han erantzun zazu nik erraten darotzudan erantzukia.



3. Eta jaiki zen Jonas, eta, Jaunaren hitzaren arabera, Ninibara goan zen; eta Niniba hain zen hiri handia, non baitzuen hirur egunen bidea.

4. Eta Jonasek, sartzen abiatu zenetik, egin zuen egun baten bidea, eta oihu egiten zuen eta erraten: Oraino berrogoi egun, eta hiria xahutua izanen da.

5. Eta Ninibarrek sinhetsi zuten Jainkoa baithan; erantzun zuten barura, eta handienetik ttipieneraino zakhuz jauntzi ziren guziak.

6. Eta berria heldu izan zitzaioen Ninibako erregeri, eta jaiki zen bere tronutik, eta arthiki zituen bere soinekoak, eta jauntzi zuen zakhubat, eta jarri zen hautsaren erdian.

7. Eta Niniban oihu egin eta erantzun zuten erregeren eta buruzagien manamenduz, erranez: Gizonek, zaldiek, idiek, ardiek ez bezate den-gutiena dasta; ez beitez alha, eta ez bezate urik edan.

8. Zakhuz estal beitez gizonak eta aziendak; beren indar guziaz deihadaregin biozote Jaunari; eta batbedera bihur bedi bere bide gaixto-tik eta eskuen gainean duen tzarkeriatik.

9. Nork daki hean ez den itzuliko Jainkoa, eta hean ez duen barkhatuko; hean ez den bihurko bere hasarrearen irakiduratik, eta hala ez baikare galduko?

10. Eta Jainkoak ikhusi zituen hekien egintzak, itzuli zirela beren bide tzarretik; eta Jainkoa urrikaldu zen hekiei eginen ziotela erran zuen gaizkiaren gainean, eta etzioten egin.

#### IV. KAP.

1. Eta Jonas hestutu zen hestura handi batez, eta minkhaiztu zen.

2. Eta othoitz egin zioen Jaunari, eta erran: Othoi, Jauna, ez othe da hau ene solasa, ene herrian oraino egoten nintzenekoa? aria hortaz aitzindu naiz Tharsisera ihes goatera. Badakit ezen zu zarella Jainko barkhatiar, urrikalmendutsu, jasankor, urrikalpen handitakoa, eta gaizkia barkhatzen duzuna.

3. Eta orai, Jauna, athera zazu othoi ene arima ene baitharik; zeren enetzat heriotzea bizitzea baino hobea baita.

4. Eta Jaunak erran zioen: Uste duzu aria onez hasarretzen zaren?

5. Eta Jonas Ninibatik ilkhi zen eta jarri hiritik iguzki-alderat; eta beretzat egin zuen han itzalpe bat, eta jarria zagoen haren azpian itzalean, ikhusi arteo zer gerthaturen zitzaioen hiriri.

6. Eta Jainko Jaunak sortarazi zuen huntz-ondo bat, eta igan zen Jonasen buru gainera, itzala izan zadien haren buruaren gainean, eta geri-

za zezan hura, beroaz khexatua zelakoz; eta bozkario handiaz boztu zen Jonas huntz-ondoaren ariaz.

7. Eta biharamun argi-hasteen Jainkoak igorri zuen har bat, eta jo zuen huntz-ondoa, eta ihartu zen.

8. Eta iguzkia ilkhi zenean, Jaunak manatu zuen haize bero eta erre-garri bat; eta iguzkiak jo zuen Jonasen burua, eta saphak ithotzen zuen Jonas; eta bere biziari galdatu zioen hilik utz zezan, eta erran zuen: Bizitzea baino hobea nuke hiltzea.

9. Eta Jaunak erran zioen Jonasi: Uste duzu ongi samurtzen zaren huntz-ondoaren ariaz? Eta ihardetsi zuen: Aria dut samurtzeko heriotze-raino.

10. Eta Jaunak erran zioen: Minkhaitz zare huntz-ondo baten ariaz, zeinaren ethorrazteko ez baitzare behartu, eta zeinaren handiarazten ez baitzare haritu; zeina gau batez sorthu eta bertzean hil baita;

11. Eta nik ez othe diot barkhaturen Ninibako hiri handiari, zeintan baitire ehun eta hogoi mila gizon baino gehiago, beren eskuina eta ezke-rra ezagutzen ez dituztenak, eta azienda elemenia bat?



## MIKEASEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Mikeas Morasthiarrari Jaunak egin solasa, Judako errege Joathamén eta Akazen eta Ezekiasen egunetan; Mikeasek izatu ikhuspéna Samariaren eta Jerusaleméren gainean.

2. Adi zazue populu guziék, eta atzarriak egon beitez lurra eta hartan direnak oro; eta Jainko Jauna zuen kontra lekhuko izan bedi, Jauna bere tenplo saindutik.

3. Ezen huna bere lekhutik ilkhitzera dihoala Jauna; eta jautsiren da, eta oina ezarriren du lurreko bizkar guzien gainean.

4. Eta haren azpian ezeztaturen dire mendiak, eta haranak urthuren ezkoa suaren aitzinean bezala, eta zurrunbilora jausten diren urak bezala.

5. Jakoben gaixtakeriaren eta Israelen bekhatuen gatik gerthatuko da hori guzia. Zer da Jakoben tzarkeria? ez othe da Samaria? eta nondik dat-hortzi Judako lekhu gorak? ez othe Jerusalemdik?,

6. Eta ezarriren dut Samaria hala-nola landan harri murrú bat mahastia landatzean; eta haranera anbiduren ditut hartako harriak, eta agerturen ditut haren asentuak.

7. Zathikatuak izanen dire haren jainkomoldeak, eta haren irabaziak oro suz erreak izanen dire, eta herrausturen ditut haren idola guziak; zeren lilitxo-sarietarik bilduak baitire, eta lilitxo-saritara baitire bihurturen.

8. Horren gainean naiz deithoraturen eta orrobiaz egonen; goanen naiz biluz eta has; uhuria eginen dut erainsugeak bezala, eta karranka ostrukak bezala;

9. Zeren etsitua baita haren zauria, zeren ethorri baita Judaraino, jo baitu ene populuaren athea Jerusaleméraino.

10. Jetherat ez hel berria; ez egin marraskaka nigarrík. Herrautsaren etxean herrautsez estal zaitezte.

11. Lekhu ederreko egoiliarrak, zoazte laidoz estaliak; ez da atheratu ilkhibidean dagoena; hauzoko etxeak, bere hazkartasunak xutik dadukanak, zuetarik harturen ditu deithore-ariak;

12. Zeren onerako ezindua baita uherduretan bizi dena, Jauna ganik Jerusalemgo atheetara jautsi delakoz gaitza.

13. Orga-lasterren harramantzak lastu du Lakiseko egoiliarra: hi haiz Siongo alabaren bekhatuaren ithurburua, ezen hire baithan aurkhitu dire Israelen tzarkeriak.

14. Hargatik Jethen primantzara igorriren ditu bidalkinak; gezurrez-ko etxea izanen da Israelgo erregeen enganagarri.

15. Maresan hagoena, ondore bat igorriren derainat oraino; Odolamera helduren da Israelgo ospea.

16. Khartzoil eta murriz hadi hire bihotzeko haur maiteen ariaz; bip-hil hadi arranoa bezala, gathibu eramanak direlako hire ganik.

### II. KAP.

1. Zorigaitz hutsalkeriako gogoetak erabiltzen, eta zuen oheetan asmu gaixtoak egiten ditutzuenei! Goiz-goizetik obratzen dituzte, zeren hekien eskua Jainkoaren kontra goititua baita.

2. Eta lehiatu dituzte landak, bortxaka hartu dituzte, eta ebatsi dituzte etxeak; gezurrez beltzatzen zuten gizon bat, haren etxearen irritsean; bertze bat berriz, haren lurren lehian.

3. Aria hortaz hau dio Jaunak: Huna non jendaki horrentzat gaitza derabilkadan burutan; hartarik ez ditutzue zuen lephoak itzuriko, eta etzaz-ete burgoirik ibiliko, latzegia izanen baita denbora.

4. Orduan errankizun bat atheratuko dute zuen gainean, eta gozoki kantatuko dute kantu hau: Desmasiaz gare xahutuak; ene populuaren zat-hia bertze batzuetara da aldatua: nola urrunduren da ene ganik, gibelerat heldu denaz geroztik gure eremuen zathitzailea?

5. Horren gatik ez da gehiago zuetan izanen zortheko haria hedatuko duenik Jaunaren baldarnan.

6. Ez bezaitezte mintza, erranez: Ez da haukien gainera jautsiko zorigaitza, ahalkea etzaiote iratzikiko.

7. Jakoben etxeak dio: Laburtua othe da Jaunaren izpiritua, edo horrelakoak othe dire haren asmuak? Ene hitzak ez othe dire onak zuzen dabilanarekin?

8. Eta aitzitik ene populua zeherrera jaiki da; athorraz bertzalde, kapa ere khendu diozue beharrari, eta perla eman diozue beren bidean iragaiten zirenei.

9. Beren atseginezko etxeetarik irazi ditutzue ene populuko emazte-kiak; hekien haurtoen ahotik bethiko khendu duzue ene laudorioa.

10. Jaiki, zoazte, zeren ez baitukezue phausurik lur huntan, zeren bere lohitasunaren ariaz andeaturen baita usteldura izigarrienaz.

11. Oxala izpiritugabeko gizon bat banintz, eta gezurak balire ene erranak! Zuen gainera ixuriko dut kharastasuneko arnoa, eta hordiaraziren zaitzute; eta haina hura zeinaren gainera ixuriko baita, populu hau izanen da.



12. Guzia batera bilduko zaitut, Jakob; moltzora bilduko ditut Israelgo ondarrak; batean ezarriko dut ene populua ardi-bordan bezala, arthaldea hespilen erdian bezala; gizonen ostearen handiz, harramaskan egonen dire.

13. Ezen hekien aitzinean izanen da bide-idekitzailea; moltzoka ethorriko dire eta athetik sarthuko; eta hekien errege hekien aitzinean iraganen da, eta hekien buruan izanen da Jauna.

### III. KAP.

1. Eta erran dut: Adi zazue Jakoben buruzagiek eta Israelen etxeko aitzindariak: Ez othe dagokizue zuei zer den zuzen jakitea,

2. Ongia gaitzets eta gaizkia maite duzuenak; beharrei bortxaka larrua bizkarretik eta haragia hezurren gainetik khentzen duzuenak?

3. Horiek jan dute ene populuaeren haragia, eta khendu diote soinetik larrua; eta hautsi diozkate hezurak; eta xhakatu dituzte duphinarako bezala; eta haragia eltzerako bezala.

4. Egun batez eginen diote Jaunari oihu, eta ez ditu entzunen; eta orduan gordeko diote bere begitharte, tzarki beren asinuetan ibili diren bezala.

5. Hau dio Jaunak profeta hainen gainean, zeinek enganatzen baitute ene populua; zeinek hortzez asikitzen baitute, eta bakea erantzuten; eta norbaitek ez badiote ahora zerbait arhikitzen, haren kontra sainduesten dute gudua.

6. Hargatik gaua izanen da zuentzat ikhuspen, eta ilhunbeak zuentzat asmakari; eta profeta horien gainera itsuturen da iguzkia, eta horien gainera ilhunduren eguna.

7. Eta ahalketara eroriko dire ikhuspen ikhusleak, eta ahalketara goanen dire asmaginak; eta orok estaliren dituzte begitharteak, zeren ez baitote ihardetsiren Jaunak.

8. Ni ordean bethea naiz Jaunaren izpirituaren indarrak, adigarriz eta ahalez, Jakobi erantzuteko bere gaizkia eta Israeli bere bekhatua.

9. Hau adi zazue, Jakoben etxeko buruzagiak eta Israelen etxeko juieak; zeren gaitzets baituzue zuzentasuna, eta eragozten baititutuzue zuzenak oro.

10. Odolez altxatzen duzue Sion, eta gaixtakeriaz Jerusaleme.

11. Horgo aitzindariak emaitza truk atheratzen dituzte beren erabakiak, aphezek saritan beren irakhaspenak, profetek dirutan beren asmagintzak; eta gero Jaunaren gainean daudezi, derratelarik: Jauna ez othe da gure erdian? Ez da gure gainera asturugaitzik ethorriko.

12. Horren gatik eta zuen tzarkerien gatik, irauliren da Sion landa bat bezala, eta harri murru bat iduri izanen da Jerusaleme, eta oihan gora bat tenploko mendia.

### IV. KAP.

1. Eta azken egunetan Jaunaren etxeko mendia izanen da mendi-kas-koen gainean xuxendua, eta munhoetarik gorago; eta populuak fharrastan ethorriren dire harat.

2. Eta asko jendaki lehiaka dire ethorriren, eta erranen dute: Zatozte, igan gaitezen Jaunaren mendira eta Jakoben Jainkoaren etxera; eta irakhasiren darozkigu bere bideak, eta haren bidexketan gare ibiliren; zeren Siondik ilkhiko baita legea, era Jerusalemdik Jaunaren hitza.

3. Populu hainitzen artean emanen ditu bere erabakiak, eta lekhu urrunetaraino azurriaturen ditu jendaik; eta golde egiteko hautsiren dituzte beren ezpatak eta pikotx egiteko beren lantzak; jendaik jendairen kontra ez du gehiago harturen ezpata, eta ez dire guduka ikhasten hariko.

4. Eta gizona bere mahats-ondoaren eta bere pikoaren azpian jarri-rik egonen da, eta nihor etzaio izialdura ematera ethorriko; ezen armadeta-ko Jaunaren ahoa da mintzatu.

5. Populu guziak ibil beitez, zein bere Jainkoaren izenean; gu aldiz, gure Jainko Jaunaren izenean ibiliko gare menderen mendetan, eta handik harat.

6. Egun hartan, dio Jaunak, bilduko dut mainguka zabilana, eta ene ganat hartuko dut iraizi eta hestutu nuena.

7. Eta ondarrekin ezarriko dut mainguka zabilana; eta jendaki hazkar batekin behartua zena, eta Jauna erreginaturen da hekien gainean Siongo mendian oraidanik eta bethi guziraino.

8. Eta zu, Arthaldeko dorre hedoitsua, Siongo alaba, zutaraino ethorriren da; eta ethorriren da lehenbiziko botherea, Jerusalemgoko alabaren erreginatasuna.

9. Orai zergatik bihotzminak hari zaitu hiratzen? ala ez duzu erregerik, ala galdu othe da zure kontseilaria, ezen lothu zaitzu oinhazea erditzen hari denari bezala?

10. Erditzen hari denak bezala egizu intzirina eta zalaparta, Siongo alaba, zeren orai baitzare hiritik ilkhiren, eta atze-herritan egonen zare, eta Babilonaraino joko duzu; han izanen zare libratua, han zure etsaien eskuetarik berrerosiren zaitu Jaunak.





11. Eta orai asko jendaia dire zure kontra bilduak, zeinek baiterrate: Harrikatua izan bedi, eta gure begiak begira beza Siongo barneetara.

12. Bainan hekiek ez dituzte ezagutu Jaunaren asmuak, ez dute ardie-tsi haren xedea, ezen bildu ditu lastoa larrainera bezala.

13. Jaiki, Siongo alaba; abia zaita xehakutzen; ezen eginen dut burdinaz zure adarra, eta kobrez zure behatzak; eta porroskaturen ditutzu asko populu, eta Jaunari imolaturen diozkatzu hekien harrapakinak, eta hekien onak sainduetsiren diozkatzu lur guziko Jaunari.

## V. KAP.

1. Orai xahutzerazaramatzate, ohoin-alaba; sethioa ezarri dute gure kontra, eta zigorraz mazelan joko dute Israelgo juiea.

2. Eta zu, Bethlehem Efrata, xumetto zare Judako milen artean; zutarik atheraturen da Israelen jaun izanen dena; eta haren ilkhipena dat-hor hatsarritik eta egundainoko mendeetarik.

3. Hargatik utziko da Juda bazterrerat, amatzekoa dena ama dadien arteo; eta orduan haren anaia ondarrak bihurturen dire Israelgo umeen gana.

4. Eta sendo da egonen, eta alhaturen du bere arthaldea Jaunaren indarrarekin, bere Jainko Jaunaren izenaren ahal handiarekin; eta oro itzuliren dire, zeren orduan handietsia izanen baita lurraren bazterretaraino.

5. Eta hura izanen da bakea. Asiriarra ethorriko denean gure lurrera, eta haren oinak zaphatuko dituenean gure etxe barneak, haren kontra eraikiren ditugu zazpi artzain eta zortzi aitzindari.

6. Eta ezpatarekin hotsemanen daroete Asurren lurrari, eta lantzekin Nemroden lurrari; eta Asurren ganik libraturen gaitu, hura gure lurrera ethorriko denean, eta gure eremuak oinkatuko dituenean.

7. Eta Jakoben ondarrak bainitz populuren erdian izanen dire, halanola Jauna ganikako ihintza, eta ur-nigarra belharrean bezala, zeina ez baitago gizonaren iguriki ez-eta gizasemeen goait.

8. Eta Jakoben ondarrak jendaietan eta populu guzien erdian izanen dire hala-nola lehoma oihanetako abereen erdian, hala-nola ardi-arthaldeetan lehoinkumea, zeinari nihork ez baitio puska khenduko iraganen denean, oinkatuko eta harrapatuko duenean.

9. Zure eskua goitituren da zure etsaien gainera, eta hilen dire zure etsai guziak.

10. Eta hau gerthaturen da egun hartan, dio Jaunak: Zure zaldiak khenduko ditut zure erditik, eta xehakatuko ditut zure orga-lasterrak.

11. Eta xahutuko ditut zure lurreko hiriak, eta urratuko ditut zure hazkargailuak oro; gaizkinkeriak khenduko ditut zure eskutik, eta aztirik ez da gehiago izanen zure baithan.

12. Zure jainkomoldeak eta idolak galaraziren ditut zure erditik, eta ez duzu gehiago adoraturen zure eskuetako lanik.

13. Eta zure lukuak atheraturen ditut zure erditik, eta herreausturen ditut zure hiriak.

14. Eta ene hasarre gaitziduretan, asperkundera eginen dut entzun ez nauten jendaki guzien gainean.

## VI. KAP.

1. Adi zazue zer dion Jaunak: Jaiki zaita, eta zuzenaren alde ihardukazu mendien kontra, eta munhoek adi bezate zure mintzoa.

2. Mendiek eta lurraren asentu hazkarrek adi bezate Jaunaren xuripena, ezen Jaunaren xuritzekoa xuritzera doha populuarekin eta Israelekin.

3. Ene populua, zer egin darotzut, edo zertan izan natzaitzu jasangaitz? ihardets dizadazu.

4. Zeren atheratu zaitudan Egiptoko lurretik eta libratu gathibu-etxetik, eta zure aitzinean igorri ditudan Moise, Aaron eta Maria?

5. Ene populua, orhoit zaita othoi nolako asmutan zabilan Balak Moabeko errege, eta zer ihardetsi zaroen Balaamek, Beorren semeak, Sethimdik Galgalaraino, eta ezagutazu Jaunaren zuzentasuna.

6. Zer eskainiren diot Jaunari haren dina denik? Jainko guziz goraren aitzinean joko dut belhaunaz lurra? eskainiren othe diozkat holokaustak eta aratxe urthumeak?

7. Jabalaraz othe daiteke Jauna mila aharirekin, edo asko mila akher gizendurekin? emanen othe dut ene tzarkeriarentzat ene seme lehena, ene arimako bekhatuarentzat ene sabeleko fruitua?

8. Oi gizona, erakhutsiren darotzut zer den on, eta zer galdegiten duen Jaunak zu ganik: zuzenari bere bidea ematea, urrikalkortasuna maithatzea, eta zure Jainkoaren larderiarekin haren aitzinean ibiltzea.

9. Jaunaren ahoa hiriari oihuz dagoko; eta salbatzea, zure izenaren beldur direnentzat izanen da. Adi zazue, leinuak; bainan nork onhetsiren du solas hori?

10. Tzarkeriak bildu diruak gaixtaginaren etxean daude oraino su bat iduri, eta neurri txarregia Jaunaren hasarrez bethea dago.

11. Nik garbi atheraturen othe ditut balantza tzarrak eta zakhuko phisu enganiozkoak?



12. Hekien bidez bethe dire tzarkeriaz hiri hortako aberatsak, eta gezurra zerasaten horgo egoiliarrek eta mihi jokotriatsua zuten beren ahoan.

13. Eta ni beraz abiatu natzain galpenez jotzen hire bekhatuen ariaz.

14. Janen dun, eta ez haiz aseko; hire beheramendua hire erdian izanen dun; lothuko haiz gauzari, eta ez dun salbaturen; eta salbatuko ditunanak, ezpatari arthikiren zioizkinat.

15. Erainen dun, eta ez bilduko; leherturen ditun olibak, eta ez haiz olioiz gantzutuko; limurreta eginen dun, eta arnorik ez edanen.

16. Begiratu ditutzue Amriren manamenduak eta Akaben etxearen egintzak oro, eta ibili zarete hekien gogara, nik xahupenera arthik hezadan eta hitako egoiliarrak ezar detzadan guzien irrigarri; eta jasanen dun ene populuaren laidoa.

## VII. KAP.

1. Zorigaitz niri! Zeren naizen egin hala-nola udazkenean mahasketa dabilana, mahastiak bildu diren ondoan molkho bat ez da jateko, eta alferretan piko goiztiarrez gutiziatu da ene arima.

2. Saindua lurretik galdu da; gizonetan zuzenik ez da; guziak odolarren ixurtzeko zelatetan dabilta; heriotzearen emateko, gizonak ihizatzen du bere anaia.

3. Ontzat deitzen dute berek egin gaizkia; galdea du buruzagiak ahoan, eta sariari begira dago juiea; handiek goraki derrate beren arimako lehia, eta nahasten dute lurra.

4. Horietarik hobeena elhorria bezala da, eta zuzenenak iduri du berroko arrantzea. Heldu da bilhatuak izanen zaretan eguna, ikhartuak izanen zaretana; orduan izanen da horien desmasia.

5. Sinheterik ez har adiskidearen baithan, ez fida aitzindariari; zure ahoa tapatua idukazu zure sahetsean lo egiten duen emaztearentzat ere.

6. Ezen semeak aitari eginen dio laido, alaba jaikiko da amaren kontra, erreina amaginarrebaren kontra, gizonak bere etxeakoak izanen ditu etsai.

7. Nik ordean Jaunari diot begiraturen, ene Jainko salbagarria dut igurikiren, ene Jainkoak nau entzunen.

8. Ene etsaia, erori naizelako ez boz ene gainean; jaikiko naiz, eta ilhunbeetan jarriko naizenean, Jauna izanen da ene argia.

9. Bekhatu egin dudalako Jaunaren kontra jasanen dut haren hasarrea, juia dezan arteo ene ikhustekoa, eta ene zuzenari bide eman diozon arteo; atheraturen nau argira, ikhusingiren dut haren justizia.

10. Eta begiraturen du ene etsaiak, eta ahalkez da estaliren, niri derra-na: Non da hire Jainko Jauna? Ene begiek ikhusingiren dute ene etsaia lurrean orduan oin-petan izanen da, karriketako lohia iduri.

11. Badathor eguna, zure harrasi urratuen goititzekoa; egun hartan urrun iraiziren da arrotzaren legea.

12. Egun hartan Asurdik ethorriren zaizkitzu zure umeak; ethorriren dire hiri hazkartuetara, eta hiri hazkartuetarik hibairaino, eta itsasotik itsasora, eta menditik mendira.

13. Eta lurra desmasian izanen da han daudezenen ariaz eta hekien asmu tzarren gatik.

14. Jauna, zure zaharoarekin alha zazu zure populua, zure primantzako arthaldea, bakharririk oihanean, Karmelen erdian egoten dena; Basanen eta Galaaden alhaturen da beihalako egunetan bezala.

15. Egiptoko lurretik ilkhi zinen egunean bezala, sendagailak erakhusiren diozkat ene populuari.

16. Jendaiek ikhusingiren dute, eta ahalketara eroriko dire haren indarraren handitasunaz; eskua ezarriren dute ahoaren gainean, eta gor izanen dire hekien beharriak.

17. Sugeek bezala milikaturen dute herrautsa, lurreko zierpeak bezala asaldaturen dire beren egoitzetan; ikharaturen ditu gure Jainko Jaunak, eta zure beldurrez egonen dire.

18. Nor da zure idurikorik, oi Jainkoa, zeinak ezeztatzen baituzu gaizkia, eta bazterrerat uzten zure primantzako ondarren bekhatua? Ez du gehiago bidaliren bere hasarrea, zeren urrikaltzea baitu atsegin.

19. Itzuliren da eta urrikalduren zaiku; bihotzaren gainetik khenduren ditu gure tzarkeriak, eta itsaso-zolara arthikiren ditu gure bekhatuak oro.

20. Zintasuna emanen diozu Jakobi, urrikalmendua Abrahami, aspaldiko egunetarik gure arbasoei zin egin izan dioten bezala.



## NAHUMEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Ninibaren sortha. Nahum Elzestarraren ikhuspeneko liburua.
2. Jauna da Jainko bekhaizkor aspertzen dena; Jaun aspertzen dena eta hasarreduna, Jaun bere etsaien gainean aspertzen, eta bere ixterbegien kontra hasarretzen dena.
3. Jauna da jasankor, eta indarrez handi, eta hobengabetzat hobenduna utziko ez duena. Phesia xirimolen erdian dire haren bideak, eta hedoiak dire haren zangoetako herrautsa.
4. Larderiätzen eta agortzen du itsasoa, eta mortu egiten ditu hibai guziak. Erkhiduran daude Basan eta Karmel, iraungi da Libango lorea.
5. Jaunak iharrosi ditu mendiak eta desmasian ezarri munhoak; haren aitzinean ikharan daude lurra, eta mundua, eta hartan daudezen guziak.
6. Nork iraun haren gaitziduraren aitzinean? nork ihardets haren hasarrearen oldarrari? Gaitzidura hedatu da sua bezala, eta urratu ditu harriak.
7. Ona da Jauna, eta indar ematen du hesturako egunean, eta ezagutzen ditu haren baithan beren pheskiza dadukatenak.
8. Eta toki hunen xahupena eginen du iragaiten den uholde batez; eta ilhunbeek joko dute haren etsaien ondotik.
9. Zer asmu derabilkazue Jaunaren kontra? berak xahuturen zaituzte; bigarren hestualdirik ez da jaiki beharko.
10. Ezen lapharrek nola baitute elkharren artean sasi bat egiten, hala-hala da elkharrekin edaten dutenen bilkhua. Lasto idorra bezala erreak izanen dire.
11. Hitarik ilkhiko da gizon bat, Jaunaren kontra maltzurkeria asmatzen, gogoz tzarkeria egiten hariko dena.
12. Hau dio Jaunak: Izan beitez nahi bezenbat eta nahi bezain hazkar, halarik-ere murriztuak izanen dire eta murriztailea iraganen da. Zuri berriz, eman darotzut atsekabe, bainan ez darotzut gehiago emanen.
13. Eta orai zure bizkarretik xehaturen dut haren zigorra, eta trenkaturen ditut zure estekak.
14. Eta Jaunak emanen ditu hire gainean bere manuak: ez dut gehiago hire izenetik hazirik ilkhiko; hire jainkoaren etxetik ezeztaturen ditiat molde urthu eta zizelatuak eta etxe hura ezarriren diat hire hobi, desohoratu haizelako.

15. Hara mendien gainean, berri ona, bake berria ekhartzen duen urhatsa. Oi Juda, besta zatzu zure besta-buruak, eta bihur zatzu zure botuak; zeren Belial ez baita gehiago zutan gaindi iragaitera abiaturen; zen guzia galdu da.

### II. KAP.

1. Heldu da bazterrak hire aitzinean xahutuko dituen, sethiatua idu-kiko hauena; ago bideei begira, bil zatzin indarrak, hazkarki eragiozon bihotzari.
2. Ezen Jaunak bihurtuko darozkin Jakoben gainean erabili ditunan larderiak, Israelen gainean erabili ditunanak bezala; xahutzaileek itsarasi dituztelakoz eta xahutu baitituzte hekien gandoak.
3. Haren hazkarren erredolak argitzen du suak bezala; purpurazko soinekotan dire armadako gizonak; gudura dohan egunean suskoak iduri dute orga-lasterretako hedeek; eta loasman daude eragileak.
4. Nahastura da bideetan, orga-lasterrek elkhar jotzen dute plazetan; hekien begithartek iduri dute zuziak, simista dirdirutzen dutenak.
5. Orhoituren da bere hazkarrez; trunbilka goanen dire bideetan; zalhuki iganen dire Ninibako harrasietara, eta geriza xuxendua izanen da.
6. Zabalduak dire hibaien atheak, eta erroraino herrautsia da tenploa.
7. Gathibu eramana da soldadoa; eta hango neskatxak, usoak bezala intziraka, beren bihotzetan auhendatuz dihoazi eragileen aitzinean.
8. Ninibako urek iduri dute arraintegiko urak; bainan hango jendeak ihes egin du: geldi, geldi, eta nihor ez da bihurtzen.
9. Harrapa zazue zilharra, harrapa urhea; untzi balios guzietarikako aberastasunak ezin akhabatuzkoak dire.
10. Eroria da Niniba, urratua, xehakatu; bihotzak iraungituak, belhaunak khordokan, barne guziak ethenduak dire, eta hekien ororen begithartek dufhina bezain beltz daude.
11. Non dire lehoinen zilhoa, eta lehoinkumeen alhapidea, zeintara goaten baitzen lehoina, gero zilhora bihurtzeko bere umeekin, eta nihor ez baitzen izituko zituenik?
12. Lehoinak harrapatzen zuen bere umeek behar zutena, hiltzen zuen bere urrixen asetzekoa; bere zilhoak harrapakinez eta bere etzauntza pus-kaz bethetzen zituen.
13. Huna non heldu natzainan, dio armadetako Jaunak; eta erreko ditinat hire orga-lasterrak, oro khetan igorri arteo; eta ezpatak iretsiko ditin hire lehoinkumeak; eta hire lurretik khenduko dinat hire harrapakina, eta ez da gehiago entzunen hire berriketarien mintzorik.



### III. KAP.

1. Zorigaitz, hiri odolko, guzia gezurrez eta gaixakeriaz bethea! Harrapakeria ez dun hitarik galduko.

2. Hara azote-zartak, karraskaka heldu diren arrodan harrabotsak, zaldi-suharrena, orga-lasterrena, igaiten diren zaldizkoena,

3. Dirdiratzan duten ezpatena, phindarra darioten lantzena, hiltzen dituztenen ostearena, eta eragozpen gaitzarena; sarraskia ez da baratzen, hila hilaren gainera doha.

4. Zorigaitz, hire linburkeria nihonerekoen gatik, lilitxo eder eta zoragarria, sorginkeriak erabiltzen ditunana, populua hire linburkeriez eta jendakiak hire gaizkinkeriez saldu ditunana!

5. Huna non heldu natzainan, dio armadetako Jaunak, eta hire begien aitzinean agerturen ditinat hire ahalkagarrikeriak, eta jendaiei erak-hutsiren ziotenat hire buluztasuna, eta erresumei hire laidoa.

6. Hire gainera arthikiren ditinat hatsgarrikeriak, eta hidoiez estaliren haut eta ikhugarrizat emanen.

7. Eta gerthaturen dun, edozeinek ikhus hezan, gibelerat eginen duela, eta erranen: Xahutua da Niniba! Nor grinaturen da hire gainean? nondik hiri bilha gozakari emaille bat?

8. Hobeia othe haiz populueta Alexandria baino, zeina baitago hibaien erdian, urez inguratua; itsasoa haren aberastasun eta urak haren harrasi baitire?

9. Ethiopia zuen bere indarra, Egipto ere bai; eta etzen hekietan akhabo; Afrika eta Libia hintuen laguntza emateko.

10. Halarik-ere atze-herritara hura ere gathibu eramana izan da; haren haur xumeak phorroskatuak izan dire karrika-buru guzietan; haren gizon aiphudunen gainera arthiki dute zortea, eta haren handi-mandi guziak oin-burdinekin lothuak izan dire.

11. Hi ere beraz hordituren haiz eta arbuiatua izanen haiz, eta etsaia- ren ganik eskaturen dun laguntza.

12. Hire hazkargailuak oro ditun hala-nola pikondoa bere pikoekin; norbaitek higitzen badu, jalearen ahora eroriko baitire.

13. Horra hire populua hire erdian dela emazteki batzu iduri; hire lurreko atheak zabal-zabalak egonen zaizkoten hire etsaiei; suak iretsiko ditin hire athe-hagak.

14. Bil zan ura sethioko, sar hadi lohian, eta oinka zan, eta orhaturik egintzan adrailuak.

15. Han ahituren hau suak; ezpatatik goanen haiz eta iretsiren hau brukoak bezala; brukoak bezala bil hadi, xartala bezala berha hadi.

16. Zeruan izar den baino tratu gehiago egin izan dun: brukoak estali ditin bazterrak, eta hegaldaka goan dun.

17. Hire zainak ditun xartalak iduri, eta hire haurrak xartalakumeak bezala, zainak egun hotzean hesi-petan baitire maldatzen; iguzkia agertu da, eta hegaldatu dire, eta ez da ezagun zein den hekiek ziren tokia.

18. Oi Asurgo errege, lohakartu dituk hire artzainak, ehortziko dire hire aitzindariak; hire populua mendietan gorde da, eta ez da hura bilduko duenik.

19. Hire sakhia ez duk itzalekoa; gaixtoenetarik duk hire zauria: hire berriak aditu dituzten guziak esku-zaflaka abiatu dituk hire gainean; ezen nor da haina zeinaren gainean ez baita noizbait iragan hire maltzurutasuna?



## HABAKUKEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Habakuk profetak ikhusi sortha.
2. Jauna, noiz arteo egonen naiz oihuz, eta zuk ez entzunen? noiz arteo bortxaren azpian hariko naiz deihadarka, eta zuk ez salbaturen?
3. Zertako erakhutsi daroztatatzu gaixtakeria eta behardura, begien aitzinera eman daroztatatzu harrapakaria eta bidegabea? Eman da erabakia, eta makhurra atheratu da nausi.
4. Aria hortaz da legea ostikatua, eta zuzena ez da bere bidean burura heltzen; ezen gaixtoa prestuari nausitzen zaio, erabaki tzarrak direlako ilkhitzen.
5. Begia emazue populuen gainera eta ikhusazue: harri eta baldi zaitzte; ezik gerthaturen da zuen egunetan lan bat, nihork sinhetsiren ez duena aiphatuko denean.
6. Ezen huna non eraikiren ditudan nik Kaldearrak, jendaki gogor eta zalhua, lurraren hedaduran dabilana bertzeen etxez jabetzeko.
7. Izigarria eta ikharagarria da; bere oldea du lege, eta haren sortha ilkhiko da.
8. Haren zaldiak lehoiabarrak baino arinagoak dire, eta gabaz dabil-tzan otsoak baino zalhuagoak; haren zaldizkoak hedaturen dire; ezen urrundik ethorriren dire hegaldaka, jatera laster egiten duen arranoa iduri.
9. Oro harrapakinera ethorriren dire; hekien begithartea haize erre-garri bat da, eta gathibuak bilduko dituzte legar-murrua iduri.
10. Populu hura erregeei nausituen da; haren irrigarri izanen dire erregeak; bera hazkargailu guziez trufaturen da: sethiatu eta harturen ditu.
11. Orduan nahasiren zaio izpiritua; iraganen eta eroriko da: horrela-koa da harek bere jainkoaren ganik dukeen indarra.
12. Ene Jainko Jauna, ene saindua, ez othe zare zu hatsarritik Jainko ahalorotakoa, eta gu ez baikare hilen? Jauna, hura ezarria duzu, haren eskuz justiziaren egiteko; indarrean gogortu duzu, haren eskuz azurriatzeko.
13. Zure begiak garbiegiak dire gaizkiari begira egoteko; ezin begira diozokezu gaixtakeriari; zergatik begiratzen diozute tzarkerian hari dire-nei? nolaz zaude ixilik, gaixtaginak bera baino prestuagoa iresten duen orduan?
14. Gizonak egiten ditutzu itsasoko arrainak bezala, eta buruzagirik ez duen zierpea iduri.

15. Harek altxatzen ditu amuaz, eramaten ditu bere sareaz, biltzen ditu bere gormetara. Horren gainean bozturen da eta jauziren.

16. Horren gatik imolaturen diozka bitimak bere sareari, sakrifizioak eginen bere gormei; hekiekin handitu izan duelako bere zathia, eta bildu janhari hauta.

17. Aria hortaz daduka beraz hedatua bere sarea, eta jendaien hiltze-tik ez da baraturen.

### II. KAP.

1. Ernerik egonen naiz ene atalaian, gogorrik hazkargailuaren gainean; eta begira egonen naiz, ikhusteko zer erranen darotedan eta zer behar diodan ihardetsi jazarriko darotanari.

2. Eta Jaunak ihardetsi erran zarotan: Ikhusia iskriba zazu, eta oho-len gainean garbiki ezar zazu, irakurtuko duenak iragan dezan errexxi

3. Zeren ikhusi duzuna urrun baita oraino; eta agertuko da azkenean, eta ez du hutseginen: luzatzen badu, igurikazu; ethorriko da segurki, eta ez du beranduko bere tenorean.

4. Huna, sinhesgaitz denak ez Juda zuzentasunik bere ariman; zuzena ordean, bere sinhesteak biziarezirendu.

5. Nola arnoak enganatzen baitu edalea, orobat izanen da gizon burgoiaz, eta ez da ohoretan izanen; harek zabaldu du arima ifernua bezain; eta bera, herioa iduri, ez da aseko; bere azpira biltzen ditu jendaki guziak, eta bere azpian metatzen ditu populuak oro.

6. Hekiek guziek ez othe dute haren gainetik harturen errankizun bat, eta haren asmakarietarik hizkuntza bat, erranen baita: Zorigaitz bertzeen ontasunen biltzen hari denari! noiz arteo hariko da bere kontra lohi murrukatzen?

7. Ez othe dituk bat-batean jaikiren asikiko hautenak; eta ez othe dire jauziren, zirtzikatuko hautenak; eta harrapakaria egonen baihatzaiote?

8. Zeren larrutu ditukan asko populu, populuetarik gelditu diren guziak larruturen haute hi, ixuri dukan odolaren ariaz; lurrari, hiriari eta han zaudezenei egin diotekan gaizkiaren ariaz.

9. Zorigaitz jaramankeria tzar batez bere etxea bethetzen duenari, bere ohantzea gora kokatu beharrez, eta gaitzari itzuriko dela ustez

10. Ahalkea duk hire etxearentzat asmatu; populu asko xehakatu dituk, eta bekhatura erori duk hire arima.

11. Ezen harriak harrasitik oihi eginen dik, eta etxe-trenkadetako zurek ihardetsiko die.

12. Zorigaitz odolean hiria altxatzen eta gaixtakeriaren gainean asen-tatzen duenari



13. Horrelakoak ez othe dire heldu armadetako Jauna ganik? Ezen populuak su handi batentzat eta jendaiak hutsarentzat dire nekhatzen, eta iraungiko dire guziak.

14. Ezen betheko da lurra, urek itsasoa estaltzen duten bezala, orok ezagut dezaten Jaunaren ospea.

15. Zorigaitz edaria bere adiskideari minarekin nahasiz ematen duenari, eta hordiarazten duenari haren buluztasunaren ikhusteko

16. Ospe orde, laidoz haiz bethea; edazak hik ere eta lohakar hadi Jaunaren eskuko edari-untziak atzemanen hau hi ere, eta laidoa goiti egiten duk hire ospearen gainera.

17. Libango hire gaixtakeriek estaliren haute; eta abereen desmasiak lasturen ditu, ixuri izan duten odol guziaren ariaz; lurrari, hiriari eta hartan zaudenei egin daroezten gaizki guzien ariaz.

18. Zer baliatzen da ofizialeak zizelatu edo urthu duen molde eta itxura gezurtia? eta halere ofizialeak bere lanean sinheste badu, itxura mutu egiten haritzeko.

19. Zorigaitz hainari zeinak zurari erraten baitio: Atzar zait! eta ixilik dagoen harriari: Jaik zait! Harri harek argi othe dezake? Hara non den urhez eta zilharrez estalia; bainan den-gutieneko hatsik ez da haren sabelean.

20. Jauna ordean bere tenplo sailduan da; lurra oro haren aitzinean ixil egon bedi.

### III. KAP.

1. Habakuk profetaren othoitzak jakingabekerientzat.

2. Jauna, entzun dut zure errana, eta lastu naiz.

Jauna, urtheen erdian ezagutaraz zazu: hasarretua zaitkeenean, orhoituren zare zure urrikalkortasunaz.

3. Hegoatik ethorriren da Jainkoa, eta Pharango menditik saildua; Haren ospeak estali ditu zeruak, eta haren laudorioz bethea da lurra.

4. Haren distirak iduriko du iguzki-argia; indarra eta ahala haren eskuetan dire;

Hekietan da gordea haren botherea.

5. Herioa haren aitzinean ibiliko da; Eta debrua ilkhiko da haren oinen aitzinera.

6. Gelditu da, eta neurtu du lurra;

Jendaiei begiratu diote, eta urtarazi ditu; herraustuak dire mendeko mendiak;

Lurreko munhoak aphaldu dire haren bethikotasunaren urhatsen azpian.

7. Tzarkeriaren ariaz Ethiopiako olhak lasturan ikhusi ditut; Madiango lurreko larru-olhak asaldutan izanen dire.

8. Hibaien kontra othe zare samur, Jauna? edo hibaien kontra jauzen othe da zure hasarrea? edo itsasoaren gainera zure gaitzidura?

Zu igaiten zare zure zaldietara, eta zure orga-lasterrek demate salbamendua.

9. Atzarri duzu zure arranbela; eraiki ditutzu leinuei egin zinazozten zinak. Bi aldetara bereziren ditutzu lurreko hibaia;

10. Mendiek ikhusi zaituzte, eta minetan gelditu dire; ur-uharrak suntsitu dire.

Lezeak arthiki du orroa bat; tirainak altxatu ditu eskuak.

11. Iguzkia eta ilhargia baratu dire beren tokian; beren biderei eginen diote zure gezien argitara, zure lantza dirdiragarriaren garretara.

12. Zure hasarrean oinkaturen duzu lurra, zure irakiduran lasturen ditutzu jendaiak.

13. Ilkhi zare zure populuaren salbatzeko, zure Kristorekin gure salbatzeko.

Gaixtaginaren etxean jo duzu burua, haren asentuak agertu ditutzu gainetik beherera.

14. Madarikatu ditutzu haren manamenduko makhila, haren gerlarien buruzagia, xirimola bezala ene xahutzera heldu zirenak.

Haren bozkarioak iduri zuen, zokhoan gizon beharra iresten hari duenaren bozkarioa.

15. Zure zaldiei itsasoa barna egin diozute bidea, ur handietako lohieren erditik.

16. Aditu dut, eta nahasi da ene barnea; zure mintzoak ikharan ezarri ditu ene ezpainak.

Usteldura sar bedi ene hezurretan, eta zornetan bihoa ene azpitik, Phausu har dezadan ene hesturako egunean, igan nadien ene populu, gerria tinkaturik dagoenaren gana.

17. Alabainan pikoa ez da loraturen, eta mahatsak ez du ninikarik izanen; Olibak gezur eginen du, eta landek ez dute ekharriko bihirik; Arditegitik khenduko da azienda, eta heian ez da abererik izanen.

18. Ni ordean ene Jauna baithan naiz bozturen, Jesus ene Jainkoa baithan naiz jauziren.

19. Jainko Jauna da ene indarra, eta ene oinak ezarriren ditu orenen oinen pare.

Eta ene munho gainetara eramanen nau garaitiarrak, psalmoak kantatzen ditudalarik.



## SOPHONIASEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Jaunak erran solasa Sophoniasi, zeina baitzen Kusiren semea, eta Kusi Godoliasena, eta Godolias Amariasena, eta Amarias Ezekiasena, Jonas Amonen seme, Judako erregeren egunetan.

2. Lurra, gainean dituen guzietarik biluziren dut, dio Jaunak,

3. Khenduz gizona eta azienda, khenduz zeruko hegastinak eta itsa-soko arrainak; eta gaixtaginak xahutuak izanen dire, eta lurraren gainetik ezeztaturen ditut gizonak, dio Jaunak.

4. Eta Judaren gainera eta Jerusalem daudezen guzien gainera hedaturen dut esku; eta toki hortarik xahuturen ditut Baalen ondarrak, eta tenplo-zainen izenak aphezekin batean,

5. Eta hegaztegi gainetan zeruko izarreria adoratzen dutenak; eta Jauna adoratzen eta Jaunaren izenaz eta Melkomen izenaz zin egiten dutenak;

6. Eta Jaunaren urhatsetik makhurtzen direnak, eta Jauna bilhatzen ez dutenak, eta haren ondoan ibiltzen ez direnak.

7. Jainko Jaunaren aitzinean zaudezte ixil, zeren hurbil baita Jaunaren eguna; ezik Jaunak aphaindu du bitima, deithu ditu bere barazkaltiarak.

8. Eta hau izanen da: Jaunaren sakrifizioko egunean ikhartzera goanen natzaiote buruzagiei, errege-semeei, eta soineko arrotzez jauntziak diren guziei;

9. Eta egun hartan ikharturen ditut burgoirik tenploko athelasean sartzan diren guziak, eta beren Jainko Jaunaren etxea zimarkhuz eta gaix-takeriaz bethetzen dutenak.

10. Eta egun hartan, dio Jaunak, altxaturen dire oihu-marraskak Arrainathetik, eta Bigarrenetik orrobiak, eta munho gainetarik sarrazki gaitz bateko tarrapatak.

11. Egizue orrobia, Pilatarrak; ixildu da Kanaango populu guzia, galdu dire zilharrez estaltzen zirenak oro.

12. Eta hau gerthaturen da orduan: Argiekin ikharturen dut Jerusalem; eta ikharturen ditut beren ongarrian sarthuak dauden gizonak, zeinek baiterrate: Ez onik, ez gaitzik ez du eginen Jaunak.

13. Eta hekien izateak harrapakara eta hekien etxeak mortu egonen dire; eta eginen dituzte etxeak, eta ez dire hekietan egonen; landatuko dituzte mahastiak, eta ez dute hekietarik arnorik edanen.

14. Hurbil da Jaunaren egun handia, hurbil da, eta guziz zalhu dat-hor; harrabots latzekoa da Jaunaren eguna, zeintan hazkarrak berak hes-tutuak izanen baitire.

15. Hasarrezko eguna egun hura, atsekabe eta hesturetako eguna, ondiko eta beharduretako eguna, ilhunbe eta gobeletako eguna, hedoi eta xirimoletako eguna,

16. Turutetako eta durrundetako eguna hiri hazkarren eta dorre-goren gainera.

17. Eta hesturetan ezarriko ditut gizonak, eta itsuak iduri dire ibiliko, Jaunaren kontra egin dutelako bekhatu; herrautsa bezala ixuriko da hekien odola, eta ongarrria bezala zangoen azpian izanen dire hekien gorphutzak.

18. Beren urhe-zilharrek ere ezin itzurraziren dituzte Jaunaren hasarreko egunean; haren hasarreko suan iretsia izanen da lurra oro, zeren lehiaka akhabaturen baitu hango egoiliar guzien ahipena.

### II. KAP.

1. Zatozte, bil zaitezte, populu higuigarria,

2. Jaunaren manuak ilkhiazaraz dezan baino lehen egun hura, haizeak daraman herrautsa bezala; Jaunaren hasarreko hatsa zuen gainera ethor dadien aitzinean, Jaunaren egun gaitzidurazkoa zuen gainera jautsi baino lehen.

3. Jauna bilha zazue, lurreko emeak, haren legea begiratu duzenak; zuzentasuna bilha zazue, bilha zazue emetasuna, hean nolazbait gerizatu-ko zaretan Jaunaren hasarreko egunean.

4. Ezen izanen dire, Gaza urratua eta Askalon mortu ezarria; eguerdi bethean herrautsiren dute Azot, eta Akaron errotik izanen da eragotzia.

5. Zorigaitz, itsas-zerrendan zaudeztenak, gizon galduzko jendakia! Hire gainera zia-gok Jaunaren hitza, Kanaan, Filistindarraren lurra; eta xahuturen haut, haletan non egoiliar bat ez baita geldituren.

6. Eta artzainen phausa-lekhu eta ardi hespil izanen da itsasoko zerrenda.

7. Eta hura izanen da Judatik gelditu direnentzat; han alhaturen dituzte ardiak, eta arratsean Askalongo etxeetan phausaturen dire; zeren beren Jainko Jauna goanen baitzaiote ikhustera, eta atheraturen baititu beren gathibusonetik.

8. Aditu ditut Moaben irainak eta Amonen semeen burhoak, zeine-taz ene populuari hidoika haritu baitire, eta zabaldu dire haren eremuen gainera.



9. Aria hortaz, Ala ni! dio armadetako Jaunak, Israelgo Jainkoak, Moab Sodoma bezala izanen dela, eta Amonen semeak Gomorha bezala. Hekien lurra elhorri iharra bezala, gatz-munthoin eta mortu izanen da bethiren bethiko; ene populuko ondarrek larruturen dituzte, eta ene jendakitik gelditu direnek azpiraturen dituzte.

10. Beren hanpuruseria gatik gerthatuko zaiote hori; zeren burhoka haritu eta burgoiki diren jaiki armadetako Jaunaren populuaren gainera.

11. Lazgarri izanen da Jauna hekien gainean, eta aphalduren ditu lurreko jainko guziak; eta gizonak adoraturen dute, zeinak bere tokitik, eta jendaien irla guziek ere bai.

12. Eta zuek ere, Ethiopiarrek, ene ezpatak hilen zaituztete.

13. Eta Jaunak hedaturen du eskua ipharraldearen gainera, eta galduren du Asur eta ezarriren du hiri ederra jenderik ez biderik gabe, eta mortu bat bezala.

14. Eta haren erdian etzanen dire ardiak eta bazterretako basabereak; haren athelasetan egonen dire pelikanoa eta sagarroia; ihiziek kantatuko dute haren leihoetan, beleek athaburuetan; zeren ezeztatuko baitut haren indarra.

15. Horta hiri ospetsu hura, beldurrik gabe bizi zena, eta erraten zuena bere bihotzean: Ni banaiz, eta nitaz landara bertzerik ez da. Nola egin da mortu, lar-aberearen ohantze? Handik iraganen diren guziek eginen dute xixtu eta dardaratuko dute eskua.

### III. KAP.

1. Zorigaitz, hasarrearazlea, hiri berrerosi, uso burtxoroa!

2. Ez du entzun Jaunaren mintzoa; irakhaspena ez du onhetsi; Jaunari ez dio bere sinhestea iduki; bere Jainkoari etzaio hurbildu.

3. Haren buruzagiak haren erdian dire, marrumaz dauden lehoinak iduri; haren juieek iduri dute otsoak, arratsean atzemana iresten dutenak, eta goizeko ez ustean.

4. Haren profetak erhoak dire, gizon maltzurak; haren aphezek lohi-tu dituzte gauza sailduak, tzarki egin dute legearen kontra.

5. Haren erdian Jauna da zuzena, bidegabekierarik ez du eginen; goiz-goizetik argira atheraturen du bere erabakia; bainan gaixtaginak ez du ezagutzen ahalkerik.

6. Xahutu ditut jendaiak, eta urratuak daude hekien dorreak; mortu egin ditut hekien bideak, handik nihor iraganen ez den bezala; desmasiatuak daude hekien hiriak, gizon bat gabe, egoiliar bat gabe.

7. Erran izan dut: Noizbait izanen zare bederen ene beldur, noizbait onhetsiren duzu irakhaspena; eta horren egoitza ez da galduko bere egitate gaixtoen gatik, zeinen ariaz azurriatu baitut. Guzia gatik, goizetik jaizki galdukeriarri arthiki diozkate beren gogoeta guziak.

8. Horren gatik igurik nezazu, dio Jaunak, ethorkizunean berriz jaikiko naizen egunerako; zeren ene erabakia baita, bilduko ditudala jendaiak eta batera ekharriko erresumak; eta hekien gainera ixuriko dut ene gaitzidura, ene hasarre guziaren garra; ezen ene gaitzirizkoaren suaz iretsia izanen da lurra oro.

9. Alabainan orduan bihurturen diotet populuei ezpainetako garbitasuna, Jaunaren izenean dei egin dezaten orok, eta gogo batez zerbitza.

10. Ethiopiako hibaiez haindik ethorriren dire ene errekeizaleak; ene populu bazterretan barraiatuen umeek ekharriren darozkide beren emaitzak.

11. Egun hartan etzare ahalkatua izanen zure asmu guzien ariaz, zinetaz ene legea hautsi baituzu; zeren orduan zure erditik khenduko baititut, beren espantuz zure burgoitasuna hantzen dutenak, eta ez baitzare hanpurusturen gehiago ene mendi sailduak.

12. Eta zure erdian utziko dut populu bat beharra eta buluza, eta Jaunaren izenean izanen du bere phekiza.

13. Israelgo ondarrak ez dire tzarkerian hariko, ez-eta gezurrez mintzatu; mihi zimarkhutsua ez da hekien ahoan aurkhitu; zeren hekiek bakean baitire alhatuko eta etzanen, eta nihor ez baita izanen hekien izitzeko.

14. Siongo alaba, kanta zatzu laudoriozko kantuak; bozkariotan sar zaite, Israel; boz zaite eta zure bihotz oroz jauz zaite, Jerusalemgo alaba.

15. Jaunak hautsi du zure kontrako erabakia; irazi ditu zure etsaiak: Israelgo errege, Jauna zure erdian dago, ez duzu gehiago gaitzaren beldurrik izanen.

16. Egun hartan erranen zaio Jerusalemmeri: Ez izan beldurrik; eta Sioni: Ez beitez erkhi zure eskuak.

17. Zure Jainko Jauna hazkarrik dago zure erdian; berak salbaturen zaitu: bozkarioz da bozturen zure gainean; zure amodioan du gozo harturen; zure gainean zure esker onetako kantuen atseginez da jauziren.

18. Bilduren ditut legetik urrundu diren zoroak, zeren zure haurretarik baitziren, ez dezazun gehiago hekien ariaz izan laidorik.

19. Huna non hilen ditudan orduan atsekabe eman izan darotzuten guziak; eta salbaturen dut maingu egiten duena, eta bilduren dut irazia izan zena; eta laudoriotan eta ospetan ezarriren dut ene populua bere ahalkamenduko toki guzietan.





20. Ezen zuek erakharriko zaituztedan ordu hartan, eta bilduko zaituztedan mугan, ospetan eta laudoriotan ezarriko zaituztet lurreko populu guzien aitzinean, gibelerat zuen begietara erakharri ditukedanean zue-tarikako gathibuak, dio Jaunak.

## AGJEOREN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Dario erregearen bigarren urthean, seigarren hilabeteke lehen egunean, Jaunaren hitza Agjeo profetaren arartekoz ilkhi zitzaioen Zorobabeli, Salathielen semeari, Judako buruzagiari; eta Jesusi, Josedeken semeari, aphez-handiari, zerralarik:

2. Hau dio armadetako Jaunak Populu horrek erraten du: Ez da oraino ethorri Jaunaren etxearen berritzeko ordua.

3. Eta Jaunaren hitza Agjeo profetaren arartekoz ilkhi zen, zerralarik:

4. Zuentzat ethorri othe da etxe bobedatuetan egoteko muga, ene etxea mortu delarik?

5. Eta orai hau dio armadetako Jaunak: Ezar zatzue zuen bihotzak zuen bideen gainean.

6. Erain duzue hainitz, eta guti bildu; jan duzue, eta etzarete ase; edan duzue, eta egarria ez khendu; estali zarete, eta ez berotu; eta diru bildu duenak moltsa zilhatuan ezarri du.

7. Hau dio armadetako Jaunak: Zuen bihotzak ezar zatzue zuen bideen gainean.

8. Mendira igan zaitetze, ekhar zatzue zurak, egizue etxea, eta ene gogarako izanen da, eta agerturen dut erre ospea, dio Jaunak.

9. Gauza hainitzen irritsa izatu duzue, eta deus-guitarara itzuli dire; zuek etxerat ekharri, eta nik hura hats batez haizatu: zer ariaz? dio armadetako Jaunak. Zeren ene etxea mortu dagoen, eta zuek bakhotxa bere etxearentzat zaretan lehiatu.

10. Horren gatik debekatu ditut zeruak ez dezaten zuen gainera eman ihintzik, eta lurra debekatua da ez detzan eman bere fruituak;

11. Eta deithu dut agortea lurraren gainera, eta mendien gainera, eta ogiaren gainera, eta mahastiaren gainera, eta olibadiaren gainera, eta lurrak ekhartzen dituen guzien gainera, eta gizonen gainera, eta azienden gainera, eta eskuetako lanen gainera.

12. Eta Zorobabelek, Salathielen semeak, eta Jesusek, Josedeken semeak, aphez-handiak, eta populuko gainerako guziek entzun zituzten beren Jainko Jaunaren mintzoa eta Agjeo profetaren hitzak, hekien Jainko Jaunak hekien gana igorri zuen bezala, eta populua ikharatu zen Jaunaren aitzinean.



13. Eta Jaunaren profetak, Agjeok, Jaunaren bidalkinetarik zenak, erran zioen populuari: Zuekin naiz ni, dio Jaunak.

14. Eta Jaunak berotu zioten gogoia Zorobabeli, Salathielen seme Judako buruzagiari, eta Jesusi, Josedeken seme aphez-handiari, eta gaine-rako populuko guziari; eta sarthu ziren tenploan, eta armadetako beren Jainko Jaunaren etxeko lanean hari ziren.

## II. KAP.

1. Hasi ziren seigarren hilabetearen hogoi eta laurean, Dario erre-gearen bigarren urthean.

2. Zazpigarren hilabetearen hogoi eta batean, Agjeo profetaren arartekoz ilkhi zen Jaunaren hitza zerralarik:

3. Mintza zakizkiote Zorobabeli, Salathielen seme, Judako buruzagiari, eta Jesusi, Josedeken seme, aphez-handiari, eta populuko gainerako-ei, derrazularik:

4. Zuetarik zein da zaharretarik gelditua, etxe hau bere lehenbiziko ospean ikhusi duena, eta zer plantetan ikhusten duzue orai? Zuen begie-tan ez othe da ez balitz bezala?

5. Eta orai, Zorobabel, egiozu bihotzari, dio Jaunak; bihotzari egio-zu, Jesus, Josedeken semea, aphez-handia; bihotzari egiozute, lur hunta-ko populuko guzia, dio armadetako Jaunak; eta begira zazue (ezen ni zuekin naiz, dio armadetako Jaunak)

6. Zuekin egin dudana patua Egiptoko lurretik ilkhi zaretenean eta zuen erdian izanen da ene izpiritua: ez lotsa.

7. Ezen hau dio armadetako Jaunak: Oraino aphur bat, eta nik iha-rrosiren ditut zeru-lurrak, leihor-itsasoak.

8. Iharrosiren ditut jendaia; eta ethorriren da jendaia guziek Agiantzatua, eta ospez betheren dut etxe hau, dio armadetako Jaunak.

9. Zilharra enea da, enea da urhea, dio armadetako Jaunak.

10. Azken etxe hunen ospea handiagoa izanen da lehenbizikoarena baino, dio armadetako Jaunak; eta lekhu huntan emanen dut bakea, dio armadetako Jaunak.

11. Darioren bigarren urthean, bederatzigarren hilabeteako hogoi eta laugarren egunean, Jaunak Agjeo profetari solas egin zioen, zerralarik:

12. Hau dio armadetako Jaunak: Legearen aria aphezai galda diozo-zute huneletan

13. Gizon batek haragi sainduetsitik eraman baleza bere soinekoaren petrailean, eta puska hartaz uki baleza ogia, edo jakia, edo arnoa, edo

olioa, edo jateko zerbaite, sainduetsia othe lizate hura? Aphezek aldiz ihar-detsi zuten: Ez.

14. Eta Agjeok erran zuen: Baldin hilikiaz lohitua denak uki baleza aiphatu horietarik zerbaite, khutsatua lizate othe? Eta aphezek ihardetsi eta erran zuten: Bai, khutsua baluke.

15. Eta Agjeok ihardetsi eta erran zuen: Orobat da populua hau ene aitzinean; hala-hala da jendaki hau, dio Jaunak, eta halaber horien eskue-tako lan guziak; eta hor eskaini dituzten guziak khutsatuak dire.

16. Eta orai zuen orhoitzapena bihurrazaz zazue egungo egunetik goi-tirat, Jaunaren tenploan harria harriaren gainean ezarri denetik aitzinago.

17. Hogoi erregutako ogi-murrura, hurbiltzen zinetenean, hamar-rekora bilhakatua zen; eta lakora zinhoaztenean, berrogoi eta hamar gor-goila arnoren eraustera, hogoietara urthuak ziren.

18. Jo zaituztet haize erregarriaz; herdoaz eta harriaz jo ditut zuen eskuetako lan guziak; eta zuetan ez da izatu ene gana bihurtu denik, dio Jaunak.

19. Eratxikatuzue zuen bihotzak egun huntarik eta ethorkizunari, bederatzigarren hilabeteako hogoi eta laugarren egunetik; Jaunaren ten-ploko asentuak arthikiak izan ziren egunetikako gerthakariak ezar zatzue zuen bihotzaren gainean.

20. Haziak belhartu othe dire oraikoz, eta mahastiak, eta pikodiak, eta mingranadiak eta olibadiak loratu othe dire oraino? egun huntarik ixu-riko dut ene benedizioena.

21. Eta bigarren aldiko, hilabeteako hogoi eta laugarren egunean, Agjeori solas egin zioen Jaunak, zerralarik:

22. Mintza zakizkio Zorobabeli, Judako buruzagiari, erraten diozula-rik: Nik iharrosiren ditut batean zerua eta lurra.

23. Eta eragotziren dut erreinuetako tronua, eta leherturen dut jen-daiaren erreinuko indarra, eta uzkailliren ditut orga-lasterra eta haren gaine-koa; eta lurra joko dute zaldiek eta zaldizkoek, eta gizona eroriko da bere anaiaren ezpataren azpira.

24. Eta egun hartan, dio armadetako Jaunak, hartuko zaitut zu, Zorobabel, Salathielen semea, ene zerbitzaria, dio Jaunak; eta ezarriko zaitut ene zigilua bezala, zeren zu baitzaitut hautatu, dio armadetako Jaunak.



## ZAKARIASEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Zortzigarren hilabetea, Dario erregearen bigarren urtean, Jaunaren hitza ilkhi zitzaioen Zakarias profetari, Barakiasen semeari, Adoren arresemeari, zerralarik:

2. Hasarre gaitzaz hasarretu izan da Jauna zuen aiten kontra.

3. Eta hau erranen diozu populuari: Hau dio armadetako Jaunak: Bihur zaitezte ene gana, dio armadetako Jaunak; eta ni bihurturen naiz zuen gana, dio armadetako Jaunak.

4. Ez izan zuen arbasoak bezala, zeinei oihu egiten baitzaroten aitzineko profetek, zerratelarik: Hau dio armadetako Jaunak: Bihur zaitezte zuen bide tzarretarik eta zuen asmu guziz gaixtoetarik. Eta ez dute entzun, eta etzaizkit begiratu, dio Jaunak.

5. Non dire zuen arbasoak? eta profetak biziko dire bethi?

6. Bizkitartean ene hitzak eta ene erabakiak, ene zerbitzari profeten bidez gaztiatu ditudanak, ez othe zaizkote heldu izan zuen arbasoei? eta hekiek ez othe dire itzuli, ziotelarik: Armadetako Jaunak egin daroku burutan hartu zuena guri egiteaz gure bide eta asmuen arabera?

7. Eta Darioren bigarren urtean, hamekagarren hilabetea, zeina Sabath deitzen baita, hogoi eta laugarren egunean, Jaunak solas egin zioen Zakarias profetari, Barakiasen semeari, Adoren arresemeari, zerralarik:

8. Gabaz izan nuen ikhuspen bat, eta hara gizon bat zaldi gorrast baten gainera igana, eta hura zagoen, zolagune batean ziren arraiandien erdian; eta haren ondotik baziren zaldi gorrastak, nabarrak eta zuriak.

9. Eta erran nuen: Nor dire horiek, ene Jauna? Eta ene baithan mintzo zen aingeru batek erran zarodan: Nik erakhutsiko darotzut zer diren horiek.

10. Eta arraiandien erdian zagoen gizonak ihardetsi eta erran zuen: Horiek dire Jaunak lurraren kurrizera bidali dituenak.

11. Eta hekiek ihardetsi zioten Jaunaren aingeru arraiandien erdian zagoenari, eta erran zuten: Kurritu dugu lurra, eta hara lurak orotan egoiliarak badituela, eta phausuan da.

12. Eta Jaunaren aingeruak ihardetsi eta erran zuen: Armadetako Jauna, noiz arteo etzakizkiote urrikalduren Jerusalemari eta Judako hiriei, zeinen kontra samur baitzare? Oraikoz urthe hau hirur hogoi eta hamar garrena da.

13. Eta ene baithan mintzo zen aingeruari Jaunak ihardetsi ziozkan solas onak, solas gozagarriak.

14. Eta ene baithan mintzo zen aingeruak erran zarodan: Oihu egizu erranez: Hau dio armadetako Jaunak: Khar handiak nerakharka Jerusalemaren eta Sionen alde.

15. Eta hasarre handiaz hasarretzen natzaiote jendaia indardunei zeren ni guti bat samur bainintzen; eta hekiek berriz, gaizki egiteraino eman baitute esku.

16. Aria hortaz, dio Jaunak: Urrikalmenduz betherik bihurturen naiz Jerusalemara; eta haren erdian altxaturen da ene etxea, dio armadetako Jaunak; eta haria hedaturen da Jerusalemaren gainera.

17. Egizu oraino oihu, erranez: Hau dio armadetako Jaunak: Ontasunak ene hirietara gaindika ethorriren dire oraino; eta Jaunak gozakarri emanen dio oraino Sioni, eta Jerusalem hautaturen du oraino.

18. Eta goititu nituen begiak, eta ikhusi nuen; eta hara lau adar.

19. Eta erran nioen ene baithan mintzo zen aingeruari: Zer dire horiek? Eta ihardetsi zarodan: Horiek dire adarrak, Juda, eta Israel, eta Jerusalem haizatu dituztenak.

20. Eta Jaunak erakhutsi zarozkidan lau harotz.

21. Eta erran nuen: Zertara dathortzi horiek? Eta ihardetsi zuen erranez: Horra adarrak, Juda haizatu dutenak guzia gizonen gizon eta hekiek batek ez baitu goititu burua; eta harotzak heldu dire adarren izeiterra, adarren hausteko jendaiei, zeinek goratu baitute besoa Judako lurraren gainera, ene populuaren barraiatzeko.

### II. KAP.

1. Eta goititu nituen begiak, eta ikhusi nuen; eta hara gizon bat, eta haren eskuan neurtzaileen haria.

2. Eta erran nuen: Norat hari zare? Eta ihardetsi zarodan: Jerusalemaren neurtzera, eta ikhustera zer othe den haren zabaltasuna, eta zer haren luzetasuna.

3. Eta hara ilkhi zela ene baithan mintzo zen aingerua; eta bertze aingeru bat atheratu zitzaioen bilera,

4. Eta erran zioen: Laster egizu, mintza zakizkio gizon-gazte horri, derrozularik: inguruan harrasirik gabe izanen dire Jerusalemaren egonen direnak, hango gizon eta azienden ostearien ariaz.

5. Eta neroni izanen natzaio, dio Jaunak, suzko harrasi bat inguruan, eta ospetan izanen naiz haren erdian.



6. Oi! oi! ihes egizue ipharreko lurretik, dio Jaunak; ezen lau haizeetara barraiatu zaituztet, dio Jaunak.

7. Ihes! oi Sion, Babilonako alabaren baithan egoten zarena;

8. Zeren hau erran baitu armadetako Jaunak: Ospezko egunen ondoran, bidali nau zuek larrutu zaituzten jendaien kontra; ezen zuek ukitu zaituztenak, ene begi-ninia du ukitu.

9. Hargatik huna nik eskua goititzen dudala bekien gainera, eta izanen dire harrapakara, lehen berak zerbitzatzen zituztenen eskuetan; eta ezaguturen duzue armadetako Jaunak nauela bidali.

10. Laudoriozko kantuak kanta zatzu eta boz zaitezi, Siongo alaba; zeren huna non heldu naizen ni, eta zure erdian eginen dut ene egoitza, dio Jaunak.

11. Eta egun hartan asko jendaki eratzikiren dire Jaunari, eta ene populu dire bilhakaturen, eta zure erdian eginen dut ene egoitza, eta ezaguturen duzu, zure gana armadetako Jaunak nauela bidali.

12. Eta Jaunak bere primantza bezala gozaturen du Juda lur saildue-tsiar, eta Jerusaleme du oraino hautaturen.

13. Ixil egon bedi gizona Jaunaren aitzinean, zeren ilkhi baita bere egoitza sailduti.

### III. KAP.

1. Eta Jaunak erakhutsi zarodan Jesus, aphez-handia, Jaunaren aingeruaren aitzinean xutik; eta haren eskuinetik zagoen Satan, hari zeiber egiteko.

2. Eta Jaunak erran zioen Satani: Jaunak bere larderia eraik beza hire gainera, Satan; eta bere larderia hire gainera eraik beza Jaunak, Jerusaleme hautatu duenak: ez othe da hori sutik atheratu itxindi hura?

3. Eta Jesus zen soineko zikhinez jauntzia; eta aingeruaren aitzinean zagoen xutik.

4. Aingerua mintzatu zen eta erran zioten bere aitzinean xutik zitueni: Khen diozotzue soineko zikhinak. Eta hari erran zioen: Huna non khendu darotzudan zure tzarkeria, eta aldagarritan jauntzi zaitut.

5. Eta erran zuen: Buruko xahua ezar zazue hunen buruaren gainean. Eta buruko xahua ezarri zuten haren buruan, eta jauntzi ziozkaten soinekoak. Eta xutik zagoen Jaunaren aingerua.

6. Eta Jaunaren aingeruak lekhukotasun atheratu zioen Jesusi, zerralarik:

7. Hau dio armadetako Jaunak: Ene bideetan ibiltzen bazare eta ene legea zaintzen baduzu; zuk ere juiaturen duzu ene etxea, eta zainduren

ditutzu ene lorioak, eta zurekin ibiltzeko emanen darozkitut orai hemen direnetarik.

8. Adi zazue, Jesus, aphez-handia, zuk eta zure adiskide aitzinean dituzunek, zeren gizon profetisatzaileak baitire. Erakharriren dut ene zerbitzaria, Iguzki sortzen dena.

9. Ezen huna harria, Jesusen aitzinean ezarri dudana. Harri bakharren gainean badire zazpi begi. Huna neronek bernuzaturen dudala horren zizeladura, dio armadetako Jaunak; eta egun batez khenduren dut gaixtakeria lur hunen gainetik.

10. Egun hartan, dio armadetako Jaunak, gizonak bere adiskidea deituhuren du mahatsaren azpira eta pikoaren azpira.

### IV. KAP.

1. Eta bihurtu zen ene baithan mintzaten zen aingerua eta atzarri ninduen, bere lotik iratzartzen den gizona bezala.

2. Eta erran zarodan: Zer ikhusten duzu? Eta ihardetsi nuen: Ikhusten dut, eta hara ganderailu bat guzia urhezkoa, eta olio-untzia haren buru buruan, eta zazpi kriselu haren adarretan, eta haren gaineko kriseluetara daude zazpi tutu olio-emaile;

3. Eta gaineko aldean bi olibondo, bat olio-untziaren eskuinetarik, eta bertzea haren ezkerretarik.

4. Eta ene baithan mintzo zen aingeruari ihardestean erran nioen: Ene Jauna, zer dire horiek?

5. Eta ene baithan mintzo zen aingeruak ihardetsi eta erran zarodan: Ez dakizu zer diren horiek? Eta erran nuen: Ez, Jauna.

6. Eta ihardetsi eta erran zarodan Hori da Jaunaren hitza, Zorobabeli derrana: Ez armadez, ez indarrez, bainan ene izpirituz, dio armadetako Jaunak.

7. Zer haiz, mendi handia, Zorobabelen aitzinean? Zelhai eginen hau, eta ekharriren dik izkina-harria, eta oraiko tenploa eginen du berregintasunez lehenekoaren bardin.

8. Eta Jaunak solas egin zarodan, ziodalarik:

9. Zorobabelen eskuek arthiki dituzte etxe hunen asentuak eta haren eskuek akhabaturen dute; eta jakinen duzue armadetako Jaunak nauela zuen gana bidali.

10. Nork daduzka erdeimutan egun hitz haukiek? eta bozturen dire, eta ezteinu-harria Zorobabelen eskuan ikhusiren dute. Lur guzia iragaiten duten zazpi begi horiek Jaunarenak dire.



11. Eta ihardetsi eta erran nioen: Zer dire bi olibondo horiek ganderailuaren eskuinetik eta ezkerretarik?

12. Eta bigarren aldian erran nioen Zer dire bi oliba-floka horiek, urhezko tutuak daduzkaten urhezko bi adarren ondoan?

13. Eta erran zarodan: Ez dakizu zer diren horiek? Eta ihardetsi nuen: Ez, Jauna.

14. Eta erran zuen: Horiek dire olioaren bi semeak, lur guziko Nausiaren aitzinean daudezenak.

### V. KAP.

1. Eta itzuli nintzen, eta goititu nituen begiak, eta ikhusi nuen, eta hara liburu bat hegaldaka zihoala.

2. Eta aingeruak erran zarodan: Zer ikhusten duzu? Eta ihardetsi nuen: Ikhusten dut liburu bat hegaldaka; badu hogoi besoren luzetasuna eta hamarren zabaltasuna.

3. Eta erran zarodan: Hori da lur guziaren gainera atheratzen den madarizionea; ezen ohoin guziak, hor iskribatua denaren arabera izanen dire juiatuak, eta zin gaixto egile guziak orobat hortarik juiaturen dire.

4. Eta atheraturen dut hori, dio armadetako Jaunak; eta sarthuren da ohoinaren etxean eta gezurrez ene izenean zin egiten duenaren etxean; eta haren etxean egonen da, eta erreko ditu etxea eta hartako zur eta harriak.

5. Eta ene baithan mintzo zen aingerua ilkhi zen, eta erran zarodan: Goiti zatzu begiak, eta ikhusazu zer den atheratzen hari den hau.

6. Eta galdegin nuen: Zer da? Eta ihardetsi zuen: Hori da pitxer bat ilkhitzen dena. Eta erran zuen: Hori da hekien begia lur guzian.

7. Eta hara berun mokhor bat zakhartela, eta hara emazteki bat pitxerren barnean jarria.

8. Eta aingeruak erran zuen: Tzarkeria da hau. Eta arthiki zuen emaztekoa pitxerren erdira, eta berun-mokhorra ezarri zuen untzi haren ahoan.

9. Eta goititu nituen begiak, eta ikhusi nuen; eta hara ilkhitzen zirela bi emazteki, eta haizea hegaletan zuten, eta hegalak zituzten miru-hegalak iduri; eta altxatu zuten pitxerra lurraren eta zeruaren artera.

10. Eta erran nioen ene baithan mintzo zen aingeruari: Norat daramate horiek pitxerra?

11. Eta ihardetsi zarodan: Badaramate etxe bat egina izan dakioen Senaargo lurrean, eta gogortua eta bere oinaren gainean ezarria izan dadientzat.

### VI. KAP.

1. Eta itzuli nintzen, eta goititu nituen begiak, eta ikhusi nuen: eta hara lau orga-laster bi mendiren artetik ilkhitzen zirenak; eta mendiak kobrezko mendiak ziren.

2. Lehenbiziko orga-lasterrean, zaldiak gorrastak ziren; eta bigarren orga-lasterrean, zaldi beltzak;

3. Eta hirugarren orga-lasterrean, zaldizuriak; eta laugarren orga-lasterrean, zaldi nabarrak eta hazkarrak.

4. Eta ene baithan mintzo zen aingeruari erran nioen: Zer dire horiek, Jauna?

5. Eta aingeruak ihardetsi eta erran zarodan: Horiek dire zeruko lau haizeak, ilkhitzen direnak lur guziko Nausiaren aitzinean egoteko.

6. Bigarren orga-lasterrean ziren zaldi beltzak, ipharreko lurrera ilkhitzen ziren; hekien ondotik atheratu ziren zuriak; eta nabarrak hegoako lurrera goan ziren.

7. Hazkarrenak ilkhi ziren eta bilhatzen zuten goatea eta lur guzia iragaitea. Eta aingeruak erran zuen: Zoazte, iragan zazue lurra; eta lurra iragan zuten.

8. Eta deithu ninduen, eta mintzatu zitzaitan, zerradalarik: Huna ipharreko lurrean dabilzanek jabalarazi dutela ipharreko lurraren kontra nuen hasarrea.

9. Eta Jaunak solas egin zarodan, zerralarik:

10. Desherrituatarik, Holdai, Tobias eta Idaia ganik har zatzu emaitzak; eta egun hartan goanen eta sarthuko zare Sophoniasen seme Josiasen etxera; horiek oro Babilonatik ethorriak baitire;

11. Eta hartuko duzu urhea eta zilharra, eta eginen ditutzu khoroak; eta Jesus, Josedeken seme aphez-handiaren buruan ezarriko ditutzu.

12. Eta mintzatuko zakizkio, erraten diozularik: Huna Iguzki-sortzea deitzen den gizona; eta hunen azpitik sorthuko da populu berri bat, eta Jaunari eginen dio tenploa.

13. Eta harek eginen dio Jaunari tenploa, eta harek ekharriren du ospea, eta jarriren da, eta bere tronua gainetik jaun izanen da; eta apheza bere tronuan izanen da, eta hekien bien artean izanen da bakezko batasuna.

14. Eta Helemek, Tobiasek, Idaiak eta Hemek Sophoniasen semeak eman khoroak, bethiko orhoitzapenetan egonen dire Jaunaren tenploan.

15. Eta urrun direnak ethorriko eta Jaunaren tenploaren egiten hari-ko dire; eta jakinen duzue armadetako Jaunak igorri nauela zuetara. Hau



gerthatuko da ordean, baldin entzunez aditzen baduzue zuen Jainko Jaunaren mintzoa.

## VII. KAP.

1. Eta Dario erregearen laugarren urthean, bederatzigarren hilabethean, zeina baita Kasleua, laugarren egunean, Jauna mintzatu zen Zakariasi.

2. Jaunaren etxera igorri zuten Sarasarrek eta Erro omelekek eta hunekin ziren gizonak, Jaunaren begithartearen errekeitzera;

3. Eta armadetako Jaunaren tenploko aphezei eta profetei erratera: Bortzgarren hilabethean deithoratu edo ene burua sainduetsi behar othe dut, asko urthez jadanik egin izan dudan bezala?

4. Eta Jaunaren hitza ilkhi zitzaitan, zerralarik:

5. Mintza zakizkiote lur huntako populu guziari eta aphezei, erranez: Bortzgarren eta zazpigarren hilabethean barurtu eta deithoratu zarete-nean hirur hogoi eta hamar urthe haukiez, enetzat barurtu othe duzue zuen barura?

6. Eta jan eta edan duzue, ez othe duzue zuentzat jan eta zuen buruentzat edan?

7. Ez othe dire horiek Jaunak erran izan dituen hitzak aitzineko profeten arartekoz, Jerusalem bere egoiliarrekin zenean oraino, aberats zirenean hura eta haren inguruko hiriak, eta hegoaldea eta zelhaiak egoiliarrez bethak zirenean?

8. Eta Jauna Zakariasi mintzatu zitzaioen, zioelarik:

9. Hau dio armadetako Jaunak: Zuzenari zintasunean emozuete bere bidea, eta batbedera urrikalkor eta urrikalmendutsu izan bedi bere anaia-ren alderako egintzetan.

10. Gaizkirik ez egin alhargunari, umezurtzari, arrotzari eta beharri; gizonak ez beza bere anaia-aren kontra tzarkeriarik asma bere bihotzean.

11. Eta oharrik ez dute ekharri nahi izan, eta urrunduz itzuli dute gibela, eta ez aditzeko, gortu dituzte beharriak.

12. Eta beren bihotza egin dute diamanta bezain gogor, ez aditzea gatik legea, eta armadetako Jaunak bere izpirituaz, aitzineko profeten arartekoz igorri solasak; eta gaitzidura handia jauzi da armadetako Jaunaren gatik.

13. Eta nola hura mintzatu, eta ez baitute entzun; hala-hala oihu egiten dute, eta ez ditut entzunen, dio armadetako Jaunak.

14. Barraiatu ditut ezagutzen etzituzten erresuma guziak barna, eta hekien ariaz desmasiatua da lurra, nihor ez baita han gandi iragaiten, ez alde batera, ez bertzera, eta mortu egin dute lur lehiagarria.

## VIII. KAP.

1. Eta armadetako Jaunak solas egiten zarodan, erranez:

2. Hau dio armadetako Jaunak: Onhirizko handiz onhetsi dut Sion, eta gaitzirizko handiz gaitzetsi dut hura.

3. Hau dio armadetako Jaunak: Itzuli naiz Sionen gana, eta Jerusalem erdian egiten dut ene egoitza; eta Jerusalem deithua izanen da egien hiria; eta armadetako Jaunaren mendia, mendi sainduetsia.

4. Hau dio armadetako Jaunak: Oraino ere Jerusalemgo plazetan ikhasuren dire gizon-zaharra eta atsoa, eta adinaren handiz makhila eskuan dabilan gizona.

5. Eta hiriko plazak betheko dire hango plazetan dosteta hariko diren muttikottoz eta nexkaz.

6. Hau dio armadetako Jaunak: Baldin populu hunen ondarren begiei gaitz iduritzen bazaiote hori egun hekietako, gaitz izanen othe zaio-te ene begiei? dio armadetako Jaunak.

7. Hau dio armadetako Jaunak: Huna non itzurraziren dudan nik ene populua iguzkia ilkhitzen den lurretik eta etzaten den lurretik.

8. Eta erakharraren ditut, eta Jerusalem erdian egonen dire; eta izanen dire ene populua, eta ni izanen naiz hekien Jainkoa, egian eta zuzentasunean.

9. Hau dio armadetako Jaunak: Oi zuek, profeten ahotik agintza hau-kiek egun hekietakotzat aditzen ditut zuek, armadetako Jaunaren etxeko asentuak arthikiak diren egunean, emozuete zuen eskuei, egin dadientzat tenploa.

10. Ezen baldin egun haukiek baino lehen saririk gabe baziren gizonen eta azienden lanak; ez sartzen zenak ez ilkhitzen zenak bakerik ez bazuten hesturaren ariaz; eta gizon guziak utzi baditut, bat bertzeari jazarka;

11. Ez diotet ordean populu hunen ondarrei leheneko egunen arabera egiten, dio armadetako Jaunak.

12. Bainan hekien erdian izanen da bakezko hazia; mahastiak emanen du bere fruitua eta lurak bere uzta; zeruek emanen dute beren ihintza, eta populu hunen ondarrei gozaraziren diozkatet ontasun horiek oro.

13. Eta hau gerthaturen da: Judako etxea, eta Israelgo etxea, madarizonetan izatu zaitzen bezala jendaietan, hala-hala salbaturen zaituztet,



eta izanen zarete benedizionetan; ez izan beldurrik, indar emozuete zuen eskuei.

14. Ezen hau dio armadetako Jaunak: Nola gogoan hartu baitut zuei atsekabe ematea, zuen aitek hasarretzera hizitatu nautenean, dio Jaunak,

15. Eta ez bainaiz urrikaldu; hala-hala itzulirik gogoan hartu dut egun haukietan Judari eta Jerusalemari ongi egitea. Ez izan beldurrik.

16. Huna beraz zer egonen duzuen: Egiaz mintza zaitzete zein zuen lagunari; zintasuna eta bakezko erabakiak athera zatzue zuen atheetan.

17. Zuen bihotzetan ez bezazue gaizkirik asma zeinak zuen adiskidearen kontra, eta ez bezazue gezurrezko zina maitha; ezen horiek oro nik hastio ditudanak dire, dio Jaunak.

18. Eta ilkhi zitzaitan armadetako Jaunaren hitza, zerralarik:

19. Hau dio armadetako Jaunak: Laugarren hilabeteako barura, bortzgarrenekoa, zazpigarrenekoa eta hamargarrenekoa, bozkario eta jauzitara eta besta-buru ederretara bihurturen zaizkio Judako etxeari: bakharrik maitha zatzue egia eta bakea.

20. Hau dio armadetako Jaunak: Izanen da ordua, zeintan ethorriren baitire populuak eta egoiliarrez betheko baitituzte hiri hainitz.

21. Eta egoiliarrak bat bertzea gana goanen dire, diotelarik: Goazen eta errekei dezagun Jaunaren begithartea, eta bilha dezagun armadetako Jauna. Eta bertzeak ihardetsiko du: Heldu naiz ni ere.

22. Eta hainitz populu eta jendaki hazkarrak Jerusalemara ethorriko dire armadetako Jaunaren bilhatzera eta Jaunaren begithartearen errekeitzera.

23. Hau dio armadetako Jaunak: Hori izanen da, noiz-etare hamar gizonak, jendaien mintzaia guzietarikakoek, hartuko baitute Judu baten petraila, diotelarik: Zuekin goanen gare, entzun dugu ezen zuekin dela Jainkoa.

## IX. KAP.

1. Jaunaren hitzaren sortha, Hadrakeko eta Damasko lurraren gainera jautsiko dena; zeren Jaunaren begia gizonaren eta Israelgo leinu guzien gainean baitago.

2. Emath ere, eta Tir, eta Sidon barne dire hortan, zuhurtzia handiaren kheak dituelakoz hartu.

3. Hazkargailuak altxatu ditu Tirrek bere inguruan, eta metatu du zilharra lurra bezala, eta urhea karriketako lohia bezala.

4. Huna hartaz nausitzera dohala Jauna, eta itsasoan joko du haren indarra, eta suz izanen da errea.

5. Askalonek ikhusiko du, eta izituko da; Gazak ere, eta oinhaze mine-tan egonen da; eta Akaron ere bai, zeren urmariatua baita haren pheskiza; eta Gazatik galduko da errege, eta Askalonen nihor ez da egonen.

6. Berezlea jarriko da Azoten eta urmariaturen dut Filistindarren hanpurustasuna.

7. Eta ahotik khenduko diot odola, eta hortzen artetik hatsgarrikeriak, eta bera gure Jainkoari geldituko zaio, eta Judan izanen da buruzagi bezala, eta Akaron Jebusearra bezala izanen da.

8. Eta ene etxea inguraturen dut hainetarik, zeinak harat eta hunat baitabiltza ene alde gudukatzen; eta ez da gehiago hekien baitharik iraganen zerga-biltzailea, zeren orai baititut ene begiz ikhusi.

9. Goiherez jauz zait, Siongo alaba; boz zait, Jerusalemeko alaba; ezen huna zure Errege zuzen eta salbatzailea ethorriren zaitzula; beharra da, eta astoaren eta astokumearen gainera igana.

10. Eta Efraimdik ezeztaturen dut orga-lasterra, eta Jerusalemetik zaldia, eta gerlako arrarbela hautsia izanen da; eta bakea diote jendaiei erantzunen; eta haren ahala hedaturen da itsasotik itsasora eta hibaietarik lurraren bazterretaraino.

11. Zuk halaber zure batasuneko odolaz atheratu dituzu zure gathibuak ur gabeko putzutik.

12. Hazkargailura bihur zaitzete, pheskizaren gathibuak; bihurturen darozkitzuet egun bikhunka agintzen darozkitzuedan onak.

13. Zeren arrarbela bezala ene eskuan hedatu dut Juda, eta bethe dut Efraimen arrarbela; eta, oi Sion, zure semeak jauzaraziren ditut hire semeen gainera, oi Grezia; eta ezarriren zaitut hala-nola hazkarren ezpata.

14. Eta hekien gainera agerturen da Jainko Jauna, eta simista bezala ilkhiren da haren gezia; eta Jainko Jaunak durrundaraziren du turuta, eta hegoa-xirimolan goanen da.

15. Armadetako Jaunak gerizaturen ditu; eta iretsiren dituzte etsaiak, eta habalako harriez zebaturen dituzte; eta hekien odolaz arnoz bezala dire hordituren, eta betheko dire hala-nola sakrifizioetako xatak eta alda-reko adarrak.

16. Eta beren Jainko Jaunak salbaturen ditu egun hartan bere populuko arthaldea bezala; aria hortaz harri sainduak landatuak izanen dire haren lurrean.

17. Ezen zer da haren ona, eta zer da haren ederra, baizik-ere hautesien ogia, eta birjinak sorrarazten dituen arnoa?



## X. KAP.

1. Jaunari berantaroan galda diozozue uria, eta Jaunak eginen ditu elhurak, eta emanen darozkitzue uri eta urixkak eta zeini bere landan belharra.

2. Alabainan hutsalakeriak erran dituzte jainkomoldeek, gezurrak ikhushi dituzte azतिक, eta elhe alferrak erabili dituzte amets-egileek; gozakarari hutsalak ematen zituzten; hargatik ene populua izatu da arthalde bat bezala eramana; eta atsekabeak jasanen ditu, zeren ez baitu artzainik.

3. Artzainen kontra biztu da ene hasarrea, akherren gainean eginen dut ene ikharpena; zeren Jauna goan baita bere arthaldearen, Judako etxearen ikhustera, eta hura hartu du bere ospezko zalditzat gerlarako.

4. Hartarik ilkhiren da izkina-harria, hartarik habea, hartarik guduko arranbela, hartarik kargudun guziak.

5. Eta izanen dire, etsaia guduan karriketako lohia bezala oinkatzen duten gerlari hazkarren iduriko; eta gudukaturen dire, zeren hekiekin izanen baita Jauna; eta zaldien gainera igaiten direnak ahalkez izanen dire estaliak.

6. Eta hazkarturen dut Judako etxea, eta salbaturen dut Josepena, eta bihurraziren ditut, zeren urrikalduren bainatzaioite; eta izanen dire hala-nola hastandu ez nituenean oraino; ni naiz ezen hekien Jainko Jauna, eta entzunen ditut nik.

7. Eta izanen dire hala-nola Efraimgo hazkarrak, eta bozturen da hekien bihotza arnoz bezala; eta hekien semeek ikhustiren dute, eta bozturen dire; eta hekien bihotza jauziren da Jauna baithan.

8. Eginen daroet hixtu, eta bilduren ditut, zeren nik baititut berrero-si; eta berhaturen ditut lehen berhatuak izan ziren bezala.

9. Eta populuen erdian erainen ditut, eta handik ere orhoituren dire nitaz; eta beren hurrekin biziko dire, eta bihurturen dire.

10. Eta bihurraziren ditut Egiptoko lurretik, eta Asiriatik bilduren ditut; eramanen ditut Galaadeko eta Libango lurrera, eta hekientzat lekhuak ez dire oraino aski zabal izanen.

11. Israelek iraganen du itsas-atheka; eta Jaunak joko ditu itsasoan uhinak, eta hibaiko osin guziak agorturen dire; eta Asurren burgoitasuna aphaldua izanen da, eta Egiptoaren manamenduko makhilak gibelerat eginen du.

12. Hazkarturen ditut Jauna baithan, eta ene izenean ibiliko dire, dio Jaunak.

## XI. KAP.

1. Zabal zatzik, Liban, hire atheak, eta suak ires betza hire zedroak.

2. Izaia, egik orrobia, zeren erori baita zedroa, zeren xahutuak baitire gora zirenak; orroa egizue Basango haritzak, zeren ebakia baita oihan hazkarra.

3. Artzainen orrobiazko deihadarra; zeren xahutua den hekien berrengarria, lehoinen marrumaren otsa; zeren xahutua den Jordanearen hanpurusgarria.

4. Hau dio ene Jainko Jaunak: alha zatzu ene azienda hil beharrak;

5. Beren jabeek hiltzen zituzten, eta bihotzminik etzuten; eta saltzen zituzten, ziotelarik: Benedika bekio Jaunari, aberats eginak gare; eta arthaldeak artzainek berek etzituzten guphide.

6. Eta nik ere ez ditut gehiago guphidetsiren lur huntako egoiliarak, dio Jaunak; huna non arthikiren ditudan gizonak, zein bere lagunaren eskura eta bere erregearen eskura: eta xahuturen dute lurra, eta nik ez dut hekien eskutik atheraturen.

7. Eta hargatik, oi arthaldeko beharrak, nik alhaturen dut hiltzeko den azienda. Eta hartu nituen bi zigor, eta bat deithu nuen Edertasuna, eta bertzea Lokharria: eta alhatu nuen arthaldea.

8. Eta hilabete batez hilarazi ditut hirur artzain, eta ene bihotza her-tsi da hekien gainean; ezen hekien bihotza ere aldatu da ene gainean.

9. Eta erran nuen: Etzaitzuet gehiago alhaturen: hilen dena, hil bedi; hiltzen dutena, hil bezate; eta gainerakoek elkhar jan bezate.

10. Eta hartu nuen ene zigor, Edertasuna deitzen zens; eta hautsi nuen, populu guziekin jo nuen patuaren hausteko.

11. Eta patua hautsia izan zen egun hartan; eta holetan, arthaldeko behar niri begiratzen zirenek ezagutu zuten, Jaunaren solasa zela.

12. Eta erran nioten: Zuen begietan ongi bada, indazue ene saria; bertzela, zaudezte. Eta ene saritako phisatu zituzten hogoi eta hamar zilharrezko.

13. Eta Jaunak erran zarodan: Moldeginari arthikozu sari eder hori, zeinaren bethe prezatua bainaiz horietaz. Eta hartu nituen hogoi eta hamar zilharrezkoak eta moldeginari arthiki niozkan Jaunaren etxean.

14. Eta hartu nuen ene bigarren zigorra, Lokharria deitzen zena, anaiatasunaren urratzeko Judaren eta Israelen artean.

15. Eta Jaunak erran zarodan: Har zatzu oraino artzain zoroaren tresnak.

16. Ezen hura non eraikiren dudan lurrean artzain bat, zeina ez baita goanen ardi utziaren ikhustera, barraiatuaren bilhatzera; zeinak ez baitu





sakhitua sendaturen, ez-eta gelditzen zaizkonak haziren; eta janen baititu gizenenak eta hautsiko baitiozkate hatz-behatzak.

17. Oi artzaina, eta artzain-aizun arthaldea trebes uzten duena! Ezpata dago haren besoaren gainera eta haren eskuineko begira; iharturen da haren besoa, eta ilhunbeak harturik itsuturen haren eskuineko begia.

## XII. KAP.

1. Jaunaren hitzaren sortha Israelen gainera. Dio Jaunak, zerua hedatu, lurra asentatu eta gizonaren izpiritua haren baithan egin duenak:

2. Huna non ezartzera daramadan Jerusalemeko hordikeriako athaburu populu guzientzat inguruan; eta Juda ere sethioan izanen da Jerusalemerekin kontra.

3. Eta egun hartan izanen da, populu guziei emanen diotedala Jerusalemeko sortha harriztat; eta hura altxatuko duten guziak sarraskiz larruturen dire; eta haren kontra bilduren dire lurreko erresuma guziak.

4. Egun hartan, dio Jaunak, harriduraz joko dut zaldia eta buruko jauzkuraz haren gainekoa; eta Judako etxearen gainera zabalduren ditut begiak, eta itsuturen ditut populuen zaldi guziak.

5. Eta Judako buruzagiek beren bihotzean erranen dute: Jerusalemek indar aurki bezate armadetako Jauna baithan, beren Jainkoa baithan.

6. Egun hartan ezarriren ditut Judako buruzagiak, hala-nola su-untzia egur-pean, hala-nola zuzi bizia belhar-pean; eta ezkererat eta eskuinerat iretsiko dituzte populu guziak inguruan; eta Jerusalemeko berriz betheko da egoiliarrez, bere leheneko toki berean.

7. Eta Jaunak salbaturen ditu Judako olhak hastapenean bezala; Dabiden etxeak ez dezan bere buruaz espanturik erabil, ez-eta Jerusalemek Judaren kontra.

8. Egun hartan Jaunak gerizaturen ditu Jerusalemek; eta egun hartan hekiarik txarrena Dabid bezala izanen da; eta Dabiden etxea izanen da Jainkoaren etxearen pare, Jaunaren aingerua iduri hekien aitzinean.

9. Eta egun hartan izanen da, Jerusalemerekin kontra ethorri jendakien lehertzerako hariko naizela.

10. Eta Dabiden etxearen eta Jerusalemek gainera ixuriko dut graziazko eta othoitzezko izpiritua; eta begiraturen darotade niri, itzatu dutenari, eta itzatu dutena deithorez deithoraturen dute haur bakhar baten gainera deithoratzen denean bezala, eta minez egonen dire lehen-sorthu bat hiltzen denean egiten ohi den bezala.

11. Deithore handia izanen da egun hartan Jerusalemeko, Maiedongo zelhaian Adadremongo deithorea bezala.

12. Eta deithoretan izanen da lurra; familia familiatik berez, Dabiden etxeke familiak berez, eta hekiatoko emaztekiak ere berez;

13. Nathanen etxeke familiak berez, eta hekiatoko emaztekiak ere bai; Lebiren etxeke familiak berez, eta hekiatoko emaztekiak halaber; Semeiren familiak berez, eta hekiatoko emaztekiak orobat;

14. Gainerako familia guziak, familia familiatik berez, eta hekiatoko emaztekiak berez.

## XIII. KAP.

1. Eta egun hartan izanen zaiote ithurri bat idekia Dabiden etxearekin eta Jerusalemek bekhatorearen eta astagaizdunaren xahutzeko.

2. Eta egun hartan izanen da, dio armadetako Jaunak, lurretik ezertaturen ditudala idolen izenak, eta ez dela izanen gehiago hekien orhoitzapena; eta lurretik iraiziren ditut profetaizunak eta izpiritu lohia.

3. Eta gerthaturen da, norbait profetisatzen abiatuko denean oraino, erranen diotela bere ait-ama, bizia eman diotenen: Ez haiz biziko, zeren gezurrez mintzatu haizen Jaunaren izenean. Eta profetisatu dukeenean, bere ait-amek, bere burhasoek sarraskituren dute.

4. Eta egun hartan gerthaturen da, profetak ahalketara eroriko direla, zein bere ikhuspenaren ariaz, profetisatu duketenean; eta ez dire zak-huzko kapaz estaliren gezur errateko.

5. Bainan bakhotxak erranen du: Ez naiz profeta, lur lanetako gizon bat naiz, Adam izan baitut gaztedanik ikhuskarizat.

6. Eta erranen zaio: Zer dire eskuen erdian ditutzun zauri horiek? Eta ihardetsiren du: Maite nindutenen etxean izatu naiz hunela zaurthua.

7. Ezpata, jaik hadi ene artzainaren gainera eta niri eratxikitzen den gizonaren gainera, dio armadetako Jaunak; jo zak artzaina, eta barraiatuak izanen dire ardiak; eta xumeetara hedaturen dut eskua.

8. Eta lur guzian izanen dire, dio Jaunak, hirur eskuaralde; bia barraiaturen dire eta iraungiren, eta hirugarrena geldituren da lurraren gainera.

9. Eta hirugarren araldea iraganen dut sutik; eta urthuren dut, zilharra urtzen den bezala; eta frogaturen dut, urhea frogatzen den bezala. Harek eginen dio ene izenari dei, eta entzunen dut nik. Erranen dut: Zu zare ene populua; eta harek erranen du: Ene Jainko Jauna zare zu.



#### XIV. KAP.

1. Huna non heldu diren Jaunaren egunak, eta hire erdian zathituren ditine hire buluzkinak.

2. Eta gudura bilduko ditut jendaia guziak Jerusalemera, eta hartua izanen da hiria; etxeak xahutuak eta emaztekiak bortxatuak izanen dire; eta hiriaren erdia gathibu goanen da, eta gainerako populua ez da hiritik khendua izanen.

3. Eta ilkhiren da Jauna eta gudukaturen da jendaia hekien kontra, lehen gudu egunean gudukatu izan den bezala.

4. Eta haren oinak egun hartan phausaturen dire Olibetako mendian, zeina baita Jerusalemeren parrean iguzki-alderat; eta erditik urratuko da Olibetako mendia iguzki-aldeetik mendebalera, erreka handi bat utziz, eta mendiaren erdia bereziko da ipharrerat, eta bertze erdia hegoarat.

5. Eta ihes eginen duzue bi mendien arteko errekarara, zeren mendietako erreka iratxikiren baita hurbileko mendiraino; eta ihes eginen duzue, hala-nola lur ikhararen ihes goan baitzinetan Judako errege Oziasen egunetan; eta ene Jainko Jauna ethorriren da, eta saindu guziak harekin.

6. Eta egun hartan gerthaturen da, ez dela argirik izanen, bainan-bai hotza eta horma.

7. Eta Jaunak dakien egun bat izanen da, ez egun, ez gau; eta arratsaldera agerturen da argia.

8. Eta egun hartan gerthaturen da, Jerusalemdik ur bizi batzu ilkhiko direla, erdia iguzki-haizeko itsasoaren alderat, eta erdia mendebaleko itsas-alderat; iraunen dute uda eta negu.

9. Eta Jauna izanen da lur guziaren gainean errege; eta egun hartan Jaun bakharra izanen da, eta haren izena bakharra izanen da.

10. Eta lur guzia bihurturen da aitzineko heinera morturaino, Erremongo munhotik Jerusalemeren hegoalderat; eta Jerusaleme bozturren da eta bere leheneko tokian jarriren Benjamingo athetik athe zaharreko lekhuraino eta Izkinetako atheraino, eta Hananeelgo dorretik erregeren lakoetaraino.

11. Eta hartan egonen dire jendeak, eta ez da gehiago izanen anathema; bainan Jerusaleme jarriko da deskantsu zabalean.

12. Eta hau izanen da izurria, zeintaz joko baititu Jaunak Jerusalemeren kontra gudukatu diren jendaia guziak: beren zangoen gainean xutik dauden guzien haragia ustelduz eroriko da, begiak beren zilhoetan urthuko eta mihiak ahoan ihartuko zaizkote.

13. Egun hartan Jauna ganikako asaldua handia izanen da hekien baithan; eta gizona eskutik lothuko zaio lagunari, eta haren eskua lothua egonen da lagunaren eskuaren gainean.

14. Judak ere gudu emanen dio Jerusalemeri; eta inguruko jendaia guzien aberastasunak, urhe, zilhar eta asko soineko puska, bilduak izanen dire.

15. Eta xahupen hori nola, hala izanen da zaldi, mando, kamelu, asto eta etsaien kanpetan izanen diren azienda guzien xahupena.

16. Eta Jerusalemeren kontra ethorri izan diren jendaia guzietarik gelditu ditazkeenak oro iganen dire urthetik urthera, armadetako errege Jaunaren adoratzera, eta tabernakleetako besta-buruaren beztatzerara.

17. Eta gerthaturen da, zeina ere lurreko familietarik Jerusalemera iganen ez baita, armadetako errege Jaunaren adoratzera, uririk ez dela haren gainera eroriko.

18. Eta baldin Egiptoko familietarik iganen eta ethorriko ez direnik izaten badire, hekien gainerat ere ez da jautsiko uria, bainan-bai xahupe-na zeintaz joko baititu Jaunak tabernakleetako besta-buruaren bestatzerara iganen ez diren jendaki guziak.

19. Hori izanen da Egiptoaren gaztigua, eta tabernakleetako besta-buruaren bestatzerara iganen ez diren jendaia guzien gaztigua.

20. Eta egun hartan zaldiaren hedeetan izanen dena Jaunari izanen zaio sainduetsia, eta duphinak sainduetsiak izanen dire Jaunaren etxean, xatak aldare aitzinean bezala.

21. Eta Jerusalemen eta Judan guziek izanen dute beren duphina armadetako Jaunari sainduetsia; eta guziak ethorriko dire bitima imolatzera, eta hekietarik hartuko eta beren duphinetan egosiko dute; eta egun hartan ez da gehiago armadetako Jaunaren etxean tratularirik izanen.



## MALAKIASEN PROFEZIA

### I. KAP.

1. Jaunaren hitzaren sortha Israeli, Malakiasen arartekoz.
2. Maithatu zaituztet, dio Jaunak; eta zuek erran duzue: Zertan maitatu hatu gaituzu? Esau ez othe zen Jakobena anaia? dio Jaunak, eta Jakob dut maithatu.
3. Esau berriz, hastio izatu dut, eta haren mendiak ezarri ditut jenderik gabe, eta haren primantza erainsugeen mortutan.
4. Baldin Idumeak erran baleza: Urratuak dire ene etxeak, bainan itzulirik urratua dena berrituen dut; hau dio armadetako Jaunak: Horiek eginen dute, eta nik deseginen; eta lekhu hori deithuko da tzarkeriako lurra, eta populu hori, Jauna bethikotzat samur duen populu.
5. Zuen begiek ikhusionsen dute, eta zuek erranen duzue: Handietsia izan bedi Jauna Israelgo eremuetan.
6. Semeak ohoratzen du aita, sehiak bere nausia. Aita ni balin banaiz, non da enetzateko ohorea? eta ni balin banaiz Jauna, non da ene alderako beldurra? dio armadetako Jaunak. Zuei nago, oi aphezak, ene izena erdeinatzen duzenak, eta derrazuenak: Zertan dugu zure izena erdeinatzen?
7. Ene aldarearen gainean eskaintzen duzue ogi lohia, eta diozue: Zertaz lohitzen zaitugu? Erraten duzen hitz huntan: Erdeinatua da Jaunaren mahaina.
8. Baldin imolatzeko, eskaintzen baduzue itsua, ez othe da gaizki? eta maingua eta eria eskaintzen badituzte, ez othe da gaizki? Eskaint diozue hura zuen buruzagiari, hean haren gogarako izanen othe den, edo hean onhetsiko duen zuen begithartea, dio armadetako Jaunak.
9. Eta orai Jainkoaren begithartea errekei zazue urrikal dadien zue-taz (ezen zuen eskuz egin duzue hori), hean nolazbait onhetsiren dituen zuen begitharteak, dio armadetako Jaunak.
10. Zuetan zein da urrurik hari denik atheen hersten eta ene aldarean su egiten? Ez da zuekin ene bihotza, dio armadetako Jaunak; eta zuen eskutik ez dut emaitzarik onhetsiren.
11. Iguzkia ilkhitzen den lekhitik sartzen den tokiraino, ene izena handi da ezen populuen erdian; eta toki orotan ene izenari sakrifikatzen eta eskaintzen da eskaintza xahua, zeren jendaietan handia baita ene izena, dio armadetako Jaunak.

12. Eta zuek desohoratu duzue hura, derrazuen solas huntaz: Khutsatua da Jaunaren mahaina; eta erdeinagarria da gainean ezartzen zaiona eta hura erretzen duen sua.

13. Eta erran duzue: Hau gure nekheen saritik da; eta haize egin diozue, dio armadetako Jaunak; eta zuen harrapakieratik erakharri duzue maingua eta eria, eta eskaintza egin duzue: hura zuen eskutik harturen othe dut nik? dio Jaunak.

14. Zorigaitz jokotriatsuari, zeinak bere arthaldean azienda ederra izan, eta botu eginez txarra Jaunari imolaten baitio! Ezen errege handia naiz, dio armadetako Jaunak, eta jendaiei lazgarri zaiote ene izena.

### II. KAP.

1. Eta orai, oi aphezak, hau zaitzue gaztiatua:
2. Ez baduzue entzun nahi, eta ez baduzue zuen bihotzaren gainean ezarri nahi, ene izenari ospe bihurtzea, dio armadetako Jaunak; zuetara igorriren dut beharria, eta madarikaturen ditut zuen benedizioneak; eta madarikaturen ditut, zeren ez dituzuen ene hitzak bihotzaren gainean ezarri.
3. Huna nik arthikiren darotzuedala zuen bitimen sorbalda eta begit-hartera fharrastaturen zuen bestetako gorotza, eta berekin eramanen zaituztete.
4. Eta jakinen duzue nik bidali darotzuedala manamendu hau, iraun dezan Lebrekilako ene patuak, dio armadetako Jaunak.
5. Ene patua harekin, bizitzezko eta bakezko patua izatu da; eta hari eman izan diot beldurkundera, eta beldur izatu da, eta izitzen zen ene izenaren aitzinean.
6. Lege egiazkoa izatu da haren ahoan, eta tzarkeria ez da haren ezpainetan aurkhitu; bakean eta zuzentasunean ibili da enekin, eta asko aldaratu ditu gaixtakeriatik.
7. Alabainan aphezaren ezpainek zainduren dute jakitatea, eta haren ahotik bilhaturen da legea, armadetako Jaunaren aingerua delakoz.
8. Zuek ordean bidetik makhurtu zarete, eta legeaz behaztoparazi dituzte hainitz; hutsaldu duzue Lebiren patua, dio armadetako Jaunak.
9. Hargatik nik ere erdeinagarri eta putrus ezarri zaituztet populu guzien aitzinean, ene bideak iduki ez dituzuen bezala, eta nor-nor-zen begiratu zaretan bezala legearen aitzinean.
10. Ez othe dugu guziek aita bakhar bat? ez othe gare guziak Jainko batek eginak? Zergatik beraz, gure arbasoen patua hautsiz, gutarik bak-hotxak erdeinatzen du bere anaia?



11. Legea hautsi du Judak, eta hatsgarrikeria egina izan da Israelen eta Jerusalemen; ezen Judak khutsatu du Jaunaren sailduespena, Jaunak maite zuena, eta emaztetzat hartu du jainko arrotzaren alaba.

12. Jaunak Jakobena olhetarik xahuturen du hori egin dukeena, nahiz nausia, nahiz muthila, nahiz armadetako Jaunari eskaintza-egilea.

13. Eta oraino hau ere egin duzue: Ene aldarea estaltzen zinduten nigarrez, marraskaka eta orroaka, haletan non ez baitiot gehiago begiraturen sakrifizioari, eta ez baitut zuen eskutik onhetsiren jabalgarririk den gutiena.

14. Eta erran duzue: Zergatik hori? Zeren Jauna izatu baita lekhuko zure artean eta zure gaztaroko emaztearen artean, eta hura erdeinatu baituzu eta hura baitzen zure lagunkidea eta zure batasuneko emaztea.

15. Hura eta zu ez othe zaituztete batek egin, eta hura ez othe da haren hatsetik gelditua? Eta egile harek zer galdatzen du bertzerik baizikere Jainkoaren umeak? Begira zazue beraz zuen izpiritua, eta ez erdeina zuen gaztaroko emaztea.

16. Higuintzetan dukezuenean, igorrazue, dio armadetako Jaiuko Jaunak; bainan tzarkeriak estaliko du haren soinekoa, dio armadetako Jaunak; begira zazue zuen izpiritua, eta ez erdeina zuen emazteak.

17. Zuen solasez jasanarazi diozue Jaunari, eta erran duzue: Zertan jasanarazi diogu? Erraten duzuen solas huntan: Gaizkia egiten duten guziak prestu dire Jaunaren aitzinean, eta halakoak ditu gogarako; edo hala ez bada, non da Jainko juiea?

### III. KAP.

1. Huna non igortzen dudan ene aingerua eta ene aitzinean aphainduren du bides, eta berehala bere tenplora ethorriren da zuek bilhatzen duzuen Nausia, eta zuek nahi duzuen batasuneko aingerua. Huna non den heldu, dio armadetako Jaunak.

2. Eta nork gogoan erabil haren ethortzeko eguna, eta nork jasan haren ikhuspena? Ezen hura da mia urtzen duen sua iduri, eta bolazainen belharra bezala.

3. Eta jarriko da urtzen eta zilharraren garbitzen, eta garbituren ditu Lebiren semeak, eta iragaziren ditu urhea eta zilharra bezala, eta hekiek Jaunari zuzentasunean hariko zaizko sakrifizio eskaintzen.

4. Eta Judaren eta Jerusalemaren sakrifizioa Jaunaren gogarako izan da, hala-nola mendeko egunetan eta beihalako urtheetan.

5. Eta egun batez ethorriren natzaitzue juiatzera, eta lekhuko zorrotza izanaren natzaiote gaizkinei, bertzeen emazteekin khutsatu direnei, eta bide-

gabe langilearen sariari, alhargun eta umezurtzei egiten, arrotza zaphatzen dutenei, eta ene beldur izan ez direnei, dio armadetako Jaunak.

6. Ezen ni naiz Jauna, eta ni ez naiz aldatzen; eta zuek, Jakobena umeak, etzarete oraino xahutuak,

7. Nahiz ene legetarik urrundu zareten eta ez dituztuen begiratu zuen arbasoen egunak danik. Bihur zaitzete ene gana, eta ni zuetara bihurturen naiz, dio armadetako Jaunak. Eta erran duzue: Zertan dugu bihurtzeko?

8. Gizonak Jainkoari irain egin behar othe dio zuek niri egin darotaduzuen bezala? Eta erran duzue: Zertan egin darotzugu irain? Hamarrenetan eta pikainetan.

9. Eta erromeserian madarikatuak izan zarete, eta irainztatu nauzue jendaki guziak.

10. Hamarrenak ekhar zatzue guziak bihitegira, eta jatekoa izan bedi ene etxean, eta gero froga nezazue, dio Jaunak, hean zuen gainera ez ditudan idekiren zeruko uharren ahoak, eta ez darotzuedan nasaiziaraino ixuriren benedizioena.

11. Zuen ariaz larderiaturen dut har jalea, eta ez ditu xahuturen zuen lurreko fruituak; eta zuen bazterretan mahastia ez da agor egonen, dio armadetako Jaunak.

12. Eta dohatsu deithuren zaituztete jendaki guziek; ezen zuen lurra, lur lehiagarria izanen da, dio armadetako Jaunak.

13. Gaindi egin dute zuen elheek ene gainera, dio Jaunak.

14. Eta erran duzue: Zer erasi dugu zure kontra? Erran duzue: Zoro, Jauna zerbitzatzen duena! Eta zer baliatu gare haren manamenduak begiraturik, eta armadetako Jaunaren aitzinean ilhunik ibilirik?

15. Eta orai ozarrak deithuren ditugu dohatsu, ezen tzarkerian hari baziren ere, goratu dituzte beren etxeak; eta hurriatu dute Jainkoa, eta gaiztak huts egin diote.

16. Orduan Jaunaren beldur direnak mintzatu dire, zein bere lagunari; eta atzarria egotu da Jauna, eta entzun du; eta orhoitzapeneko liburua haren aitzinean iskribatua izan da Jaunaren beldur direnez eta haren izena gogoan alhatzen dutenez.

17. Eta ene mozkin izanen ditut, dio armadetako Jaunak, ene eskuei eraginen diotedan egunean, eta guphidetsiren ditut, hala-nola gizonak guphide baitu bere seme baliatzen zaioena.

18. Eta itzuliren da zuen ustea, eta ikhusiren duzue zer aria den presuaren eta gaixtaginaren artean, Jainkoa zerbitzatzen duenaren eta egiten ez duenaren artean.



#### IV. KAP.

1. Ezen huna non ethorriko den egun bat, labea bezala khaldan; eta burgoi guziak, eta tzarkeria-egile guziak, lasto izanen dire orduan; eta, dio armadetako Jaunak, sutan ezarriren ditu egun heldu denak, ez baitiote utziren ez erro ez ninika.

2. Eta zuentzat, ene izenaren beldur zaretenentzat ilkhiren da zuzenaren iguzkia, eta haren hegalean azpian izanen da salbamendua; eta ilhiko zarete, eta jauzkatuko zarete arthalde bateko aratxeak bezala.

3. Eta oinkaturen dituzue gaixtaginak, hautsa bezala izanen direnean zuen zangoen azpian, ene eskuei eraginen diotedan egunean, dio armadetako Jaunak.

4. Orhoit zaitezte ene zerbitzari Moisen legez, Horeben eman nioenez ene manamendu eta erabakiekin Israel guziarentzat.

5. Huna non bidaliren darotzuedan Elias profeta, ethor dadien baino lehen Jaunaren egun handi eta lazgarria.

6. Eta itzularaziren du aiten bihotza semeetara, eta semeena aitetara, beldurrez-eta ethor nadien, eta anathemaz jo dezadan lurra.

## MAKABEARRAK

### I. LIBURUA

#### I. KAP.

1. Eta hau gerthatu zen Alexandro Mazedoniarra, Filipen semea, zeina lehenbizikorik erreginatu baitzen Greziaren gainean ilkhi ondoan Zethingo lurretik, eta garhaitu zuen ondoan Dario, Persiarren eta Mediarren erregea:

2. Eman zuen gudu asko, nausitu zen guzien hazkargailuez, hil zituen lurreko erregeak,

3. Iragan zen lurraren bertze bazterreraino, hartu zituen jendaien ostearen buluzkinak, eta lurra ixildu zen haren aitzinean.

4. Eta indar handiak eta armada gaitza bildu zituen; eta burgoitu zen eta hantu zitzaioen bihotza.

5. Eta nausitu zen jendaien lekhuez eta erregeez, eta zergaduru eginak izan ziren.

6. Eta gero ohatu zen eta ezagutu zuen hiltzera zihola.

7. Eta deithu zituen bere aitorenseme gazteak, harekin gaztetik haziak izan zirenak, eta zathitu zioten bere erresuma, bera bizi zelarik oraino.

8. Alexandro erreginatu zen hamabi urthez, eta hil zen.

9. Eta haren aitorensemeak errege egin ziren, zein bere tokian.

10. Eta hura hil ondoan, guziak ezarri zituzten belharrekoak, eta hekien semeek hekien ondolik asko urthez, eta ondikoak berhatu ziren lurraren gainean.

11. Eta hekietarik ilkhi zen erro gaixto bat, Antioko zoharra, Antioko erregearen semea, zeina bahi izatu baitzen Erroman; eta erregetu zen, Greziarren erreinuko sei hogoi eta hamazazpigarren urthean.

12. Eta egun hekietan Israeldik ilkhi ziren asko ume gaixto, eta askori hau eman zioten burutara, zerratelarik: Goazen, eta dugun batasun egin gure inguruetan diren jendaiekin; zeren hekien ganik gibelatu garenaz geroztik, asko asturugaitzek atzeman baikaituzte.

13. Eta solasa ona iduritu zitzaioten hekien begiei.

14. Eta populutik berezi zituzten zenbait, eta hauiek goan ziren erregeren gana, eta erregek eman zioten jendaien legearen arabera egiteko eskua.



15. Eta gimnasio bat egin zuten Jerusalemen, jendaietako legeen araberan.
16. Eta itsutu zituzten ingurephaitzako hatzak, eta batasun saindutik gibelatu ziren, eta jendaiekin batu, eta gaizkiaren egiteko saldu.
17. Eta erregetasuna ethorri zen Antiokoren eskuetara, eta Antioko abiatu zen Egiptoko lurrian ere erregetu nahiz, bi erresumen gainean erreginatzea gatik.
18. Eta sarthu zen Egipton armada hazkarrarekin, orga-laster, elefant, zaldizko eta untziketa gaitzarekin.
19. Eta gerla ezarri zuen Ptolemeo Egiptoko erregearen kontra; eta Ptolemeo lotsatu zen haren aitzinean, eta ihes egin zuen, eta hainitzak erori ziren sarraskituak.
20. Eta Antiokok Egiptoko lurrian hartu zituen hiri hazkartuak, eta hartu zituen Egiptoko lurreko buluzkinak.
21. Eta Egiptoia jo ondoan zazpitan hogoi eta hirugarren urthean, Antioko itzuli eta Israelera igan zen.
22. Eta oste gaitzarekin igan zen Jerusalemera.
23. Eta burgoirik sarthu zen lekhu sainduan, eta hartu zituen urhezko aldarea, eta argiaren ganderailua, eta harekilako tresna guziak, eta eskaintzetako mahaina, eta ixurketetako untxiak, eta xatak, eta urhezko xurruttoak, eta bela, eta khorokak, eta tenplo aitzinean zen urhezko edergailua; eta puskakatu zituen oro.
24. Eta hartu zituen zilharra, urhea eta untxi lehiagarriak; hartu zituen diru gorde atzeman zituenak; eta guziak eramanik, goan zen bere lurrera.
25. Eta egin zuen gizonezko sarraski bat, eta burgoikeria handitan mintzatu izan zen.
26. Eta Israelen eta hango eremu guzian egin zen deithore handi bat.
27. Eta auhendatu ziren buruzagiak eta zaharrak; neskatzak eta gizon-gazteak iraungiak zauden, eta emaztekien edertasuna ubeldurara itzulia zen.
28. Senharrak heiaigoraka guziak, eta emazteak beren espos-oheetan jarriak nigarrez zauden.
29. Eta lurra erdiratua zen bere egoiliarren zorigaitzaz, eta ahalkez estali zen Jakoberen etxe guzia.
30. Bi urtheren buruan, erregek Judako hirietara igorri zuen zergetako buruzagia, eta hura Jerusalemera ethorri zen gizon-andana handi batekin.
31. Eta maltzurkerian solas bakezkoak eman ziozkaten Juduei, eta haukiek sinheste hartu zuten haren baithan.

32. Eta bat-batean jauzi zen hiriaren gainera, eta jo zuen sarraski gaitzaz eta Israeldik xahutu zuen populutze handia.
33. Eta hartu zituen hiriko buluzkinak eta suz erre zuen, eta urratu zituen hango etxeak eta harrasiak inguruan.
34. Eta gathibu eraman zituzten emaztekiak; eta jabetu ziren hurrez eta arthaldeez.
35. Eta Dabiden hiriaren inguruan egin zuten harrasi handi eta hazkar bat, eta dorre hazkarrak, eta hartarik egin zuten beren gaztelua;
36. Eta han ezarri zuten jendaki gaixto bat, gizon tzarkerian ohituak; eta han gogortu ziren; han harmak eta jatekoak ezarri zituzten, eta harat bildu zituzten Jerusalemgo buluzkinak;
37. Eta han gelditu eta jendeentzat arte gaitz bat bilhakatu ziren.
38. Eta hori egina izan zen lekhu sainduaren zelatatzeo, eta debru gaixto bat izan zen Israelen.
39. Odol hobengabea ixuri zuten lekhu sainduaren inguruan eta khutsatu zuten saindutegia.
40. Eta hekien ariaz ihes egin zuten Jerusalemдарrek, eta hiria bilhakatu zen arrotzen egon-lekhu eta tokikoentzat arrotz, eta bere umeek utzi izan zuten.
41. Haren tenplo saindua egin zen mortua bezain huts; haren besta-egunak bihurtu ziren deithoretara, haren larunbatak laidotara, haren oho-reak ezdeusetara.
42. Bere ospearen arabera neurtua izan zitzaioen laidoa, eta haren goratasuna aldatu zen deithoretara.
43. Orduan Antioko erregeak iskribatu zuen bere erresuma guzira, populua oro bat egin zadien, eta bakhotxak bere legea utz zezan.
44. Eta jendaki guziek onhetsi zuten hori, Antioko erregearen manuaren arabera.
45. Eta Israeldik asko jautsi ziren harek galdatzen zuenera; sakrifikatu zuten idolei eta lohitu zituzten larunbatak.
46. Eta erregek bidalkinen eskuz igorri zituen gutunak Jerusalemera eta Judako hiri guzietara, jarraik zitezen oro lurreko jendaien legeei;
47. Debeka zetzazken holokausta, sakrifizio, jabalpeneko eskaintzak, Jainkoaren tenploan eginak izatetik;
48. Eta larunbatak eta besta-egunak debeka zetzazten bestatuak izatetik.
49. Eta manatu zuen lekhu sainduak eta Israelgo populu saindua khutsatuak izan zitezen.



50. Eta manatu zuen egitea aldareak, tenploak eta jainkomoldeak, eta imolatzera urde-haragiak eta abere lohiak;
51. Eta muthikoak uztea ingurebaki gabe, eta hekien arimak khutsatzea zernahi gauza lohi eta hatsgarrikeriaz, haletan ahantz zezaten legea eta aida zitezen Jainkoaren manamendu guzietarik.
52. Eta Antioko erregearen hitzaren arabera eginen etzuen edozein, haina hil behar zen.
53. Hitz horien ororen arabera iskribatu zuen bere erresuma guzira, eta hekien bethetzera bortxatzeko ezarri zituen populua buruan aitzindariak.
54. Eta hekiek Judako hiriei manatu zaroten sakrifika zezaten.
55. Eta populutik asko batu ziren Jaunaren legea utzi zutenei; eta tzarkeriak egin zituzten lurraren gainean.
56. Eta Israelgo populua ihes igorri zuten basa-bazterretara, eta ihes-karien toki gordeetara.
57. Kasleuko hilabethearen hamabortzgarren egunean, zazpitan hogoi eta bortzgarren urthean, Antioko erregeak Jainkoaren aldarearen gainean altxatu zuen inkoniamenduko idola hatsgarria; eta Judako hiri guziak gaindi inguruan altxatu zituzten aldareak.
58. Eta isentsua erretzen eta sakrifizioak egiten zituzten etxeetako athe aitzinetan eta plazetan;
59. Eta Jainkoaren legera liburuak hautsirik, suan zituzten erre.
60. Eta edozeinen baithan atzeman zitezen Jaunaren batasuneko liburuak, eta nor-nahik begira zezan Jaunaren legea, hainak hiltzen zituzten erregeren erabakiaren arabera.
61. Horrelakoak nausitasunaren ariaz egiten zarozten Israelgo populu, hirietan hilabethetik hilabethera khausitzen zenari.
62. Eta hilabethearen hogoi eta bortzgarrenetan, aldare handiaren parrean zen aldarean sakrifikatzen zuten.
63. Eta beren semeak ingurebaki zituzten emaztekiak hilak ziren Antioko erregearen manuaen arabera.
64. Eta hekien etxe guzietan haurrak lephotik urkhatuak ziren; eta hekien ingurephaileak, hilak.
65. Eta Israelgo populutik hainitzek beren baithan egin zuten, etzutea jateko lohirik hartuko; eta jateko lohiz beren buruak khutsatzeaz baino lehen, hautatu ziren hiltzeaz.
66. Eta etzuten nahi izan Jainkoaren lege saindua hautsi, eta hilak izan ziren.
67. Eta hasarre guziz gaitza erori zen populua gainera.

## II. KAP.

1. Egun hekietan Mathathias apheza, Joanesen semea, Simeonen arresemea, Joariben umeetarik, ilkhi zen Jerusalemetik, eta jarri zen Modingo mendian.
2. Eta bazituen bortz seme: Joanes, zeinak baitzuen izen-goititzat Gadis;
3. Simon, izen-goitiaz Thasi;
4. Judas, Makabearra deitzen zutena;
5. Eleazar, izen-goitiaz Abaron; eta Jonathas, izen-goitiaz Aphus.
6. Eta ikhusi zituzten Judako populuari eta Jerusalemen egiten ziren bidegabekeriak,
7. Eta Mathathiasek erran zuen: Ene dohakabea! Zertako naiz sort-hu ikhusteko ene herritarrak ehoak eta hiri saindua ehoa, eta ni hemen jarria egoteko, hau etsaien eskuetara mana denean?
8. Arrotzen eskuan da saindutegia; tenploa gizon putrus bat bezala erabilia da.
9. Hunen ospeko untziak lur atze batetara eramana, hunen zaharrak karriketari hilak, eta gizon-gazteak etsaien ezpataren azpira erotiak dire.
10. Non da jendakia, hunen erresumatik puska eraman ez duena eta hunen buluzkinetarik bere zathia?
11. Khendua du bere berregintasun guzia. Libro zena, gathibu da.
12. Huna gure saindutegia, gure edergarria, gure berregingarria, inkoniamendutan eta jendaiek khutsatua.
13. Zertako gare beraz oraino bizi?
14. Eta Mathathiasek eta bere semeek hautsi zituzten beren soinekoak; zurdatzek estali eta minki deithoratu ziren.
15. Eta Antioko erregeak igorri gizonak ethorri ziren harat, Modingo hirira ihes egin zutenak bortxatu beharrez imolatzera, isentsu erretzera eta Jainkoaren legetik ilkhitzera.
16. Eta onhetsirik, Israelgo populutik asko hekiei hurbildu zitzaizkoten; bainan gogor egotu ziren Mathathias eta bere semeak.
17. Eta hekiei buruz, Antioko erregeak igorri gizonak erran zioten Mathathiasi: Zu zare lehenbizikoa, eta ikhusiena, eta handiena hiri hontan; eta zure semeek eta anaiek edertzen dute oraino zure etxea.
18. Hurbil zaite beraz lehenik, eta egizu erregek manatua, jendaki guziek eta Jerusalem gelditu diren Judako gizonak egin izan duten bezala; eta zu eta zure semeak izanen zarete erregeren adiskideen arteko, eta urhe, zilhar, eta emaitzaz gaindituak.



19. Eta Mathathiasiek ihardetsi eta goraki erran zuen: Baldin jendaia guziak ere jauts baleitez Antioko erregearen nahira, bakhotxak ukho eginenez bere arbasoen legeari, eta haren manauk onhetsiz;

20. Nik eta ene semeek, eta ene anaiek gure arbasoen legea zerbitzaturen dugu.

21. Begithartez itzul bekigu Jainkoa; legearen eta Jainkoaren erabaki zuzenen uztea ez dugu on-hartzen.

22. Ez ditugu entzunen Antioko erregearen solasak, ez-eta ez dugu sakrifikaturen, gure legekoko manamenduak hautsiz, bertze bide batetik goateko.

23. Eta solas horien egitetik baratu zen orduko, hurbildu zen Judu bat idolei aldare gainean sakrifikatzeke guzien begien aitzinean Modingo hirian, Antioko erregearen manuaeren arabera.

24. Eta Mathathiasiek ikhusi zuen, eta bihotza erdiratu zitzaioen eta barne guzia dardaratu; eta hasarrea biztu zen haren baithan, legeak manatzen duen bezala; eta jauzirik hil zuen gizona aldarearen gainean.

25. Eta hanbatean hil izan zuen Antioko erregeak igorri aitzindaria, imolatzera bortxatzen zabilana; eta urratu zuen aldarea.

26. Eta legearen kharrak hartu zuen, hala-nola beihala Phinees, hil zuenean Zamri, Salomiren semea.

27. Eta Mathathiasiek goraki oihu egin zuen hirian, zioelarik: Norkere baitu legearen kharra, eta gogor baitago Jaunarekilako patuan, ilkhi bedi enekin.

28. Eta bera eta bere semeak ihes goan ziren mendietara, eta hirian utzi zituzten beren izate guziak.

29. Orduan legea eta zuzenbidea bilhatzen zuten asko jautsi ziren mortura;

30. Eta han jarri ziren berak, eta beren haurrak, emazteak eta aziendak, zeren ondikoak gaindi ethorri baitzitzaizkoten gainera.

31. Eta erregeren gizoni, eta Jerusalemen Dabiden hirian zen armadari, berria emana izan zaioten, erregeren manamendua hautsi zuten zenbait gizonen ihes egin zutela mortuko toki gordeetara; eta asko hekien ondotik goan zirela.

32. Eta berehala bideari lothu ziren hekien atzemateko, eta gudu ematera abiatu zitzaizkoten larunbat-egunez.

33. Eta erran zaroeten: Bihurri eginen duzue oraino? ilkhi zaitzte; egizue Antioko erregearen manuen arabera, eta biziko zarete.

34. Eta ihardetsi zuten: Ez gare ilkhiko, eta ez dugu larunbat-eguna profanaturen, erregeren nahiaren egiteko.

35. Eta gudua abiatu zen hekien kontra.

36. Eta etzuten ihardetsi, ez-eta harri bat etsaiei arthiki, ez-etare beren gordegailuak tapatu,

37. Ziotelarik: Hiltzen gare guziak gure lainotasunean; eta zeru-lurrak lekhuko izanen dire, bidegabezki galtzen gaituzuela.

38. Eta gerla emana izan zitzaioten larunbat-egunean, eta hil ziren berak eta beren haurrak, emazteak eta aziendak, mila gizonetaraino.

39. Eta Mathathiasiek eta bere adiskideek jakin zuten hori, eta deit-hore mina egin zuten hekien gainean.

40. Eta lagunak lagunari erran ziren Baldin orok egiten badugu gure anaiek egin dutena, eta jendaien kontra ez bagare gure bizientzat eta gure legearen alde gudukatzen, orai laster xahuturen gaituzte lurretik.

41. Eta egun hartan asmu atheratu zuten, zerratelarik: Nor-nahi ethor dakigun gerla ematera larunbat-egunean, guduka gaitezen haren kontra; eta ez gare guziak hilen, gure anaiek hil diren bezala gordegailuetan.

42. Eta hekien gana bildu ziren Asidearren baldarna, indarrez Israelgo hazkarrena, eta legearen alde beren oldez altxatzen ziren guziak;

43. Eta asturugaitzen ihes zabiltzanak oro hekietara batu ziren, eta hekien gogorgarri egin ziren.

44. Eta armada bat egin zuten; eta beren hasarrean jo zituzten behatreak, eta beren gaitziduran gizon gaixtoak; eta bertzeek, itzurtzea gatik, jendaietara ihes egin zuten.

45. Eta Mathathias eta bere adiskideak inguruka ibili ziren, eta urratu zituzten aldareak;

46. Eta ingurebaki zituzten Israelgo eremuetan aurkhitu zituzten haur ingurebakigabe guziak, eta bihotzoki ibili ziren.

47. Eta jazarri zaroeten hanpuruskeriako ume guziei, eta lana ongi goan zen hekien eskuetan.

48. Jendaien bortxaren azpitik eta erregeen eskupetik atheratu zuten legea, eta gaixtaginari etzioten indarrik utzi.

49. Eta hurbildu ziren Mathathiasen biltzeko egunak, eta bere semeei erran zioten: Indarretan dabila burgoikeria; huna gaztigu, eragozpen, gaitzidura eta hasarrezko egunak.

50. Orai beraz, oi ene semeak, legearen alderat khardun athera zaitzte, eta zuen arbasoen batasunarentzat ematzue biziak.

51. Orhoit zaitzte zuen arbasoen egintzez, zeinek beren mendeetan egin; eta ospe handi eta bethiko izen baten jabe egin zaitzte.

52. Abraham frogapenean ez othe da fidela aurkhitu, eta ez othe zaio zuzentiarasuntzat iduki?





53. Josepek hesturako orduan ez othe zuen begiratu Jainkoaren manamendua, eta gero egin baitzen Egíptoko jaun?
54. Phinees gure arbasoak Jainkoaren alderat erakhutsi zuen khar handiaren alderat, ez othe zuen ardietsi bethirainoko aphezetasunaren agintza?
55. Jaunaren errana egitean Israelgo buruzagi bilhakatu zen Josue.
56. Kalebek, baldarnan lekhukotasun bihurtzean, izatu zuen primantza bat.
57. Dabidek bere emetasunaz ardietsi zuen bethikotzat errege tronua.
58. Elias, legearen alderako kharrak zerabilkalarik, eramana izan zen zerura.
59. Ananias, Azarias eta Misael, gogor zaudezelakoz sinhestean, garretik itzuri ziren.
60. Bere lainotasuna gatik, Daniel salbatua izan zen lehoinen ahotik.
61. Eta hunela erabilazue gogoia gizaldiz gizaldi, eta ikhusingen duzue, Jaunaren baithan beren pheskiza dadukatenak ez direla herbaltzen.
62. Eta ez izan gizon bekhatorearen erauntsien beldur, zeren har eta gorotz baita haren ospea.
63. Goratzen da egun, eta bihar ez da aurkhituren; ezen bihurtu da bere ethorkiko lurrera, eta iraungi dire haren asmuak.
64. Zuek beraz, semeak, hazkar zaitezte, eta gizonki guduka legearentzat; ezen hartaz izanen zarete ospetsu.
65. Eta huna Simon, zuen anaia; badakit asmutako gizona dela: entzun zazue bethi, eta aitatatzat baliatuko zaitzue.
66. Eta Judas Makabearra, gaztedanik indarrez hazkar izatu da; izan bedi armadako buruzagi, eta horrek erabiliko du populuaren gerla.
67. Zuen gana bil zatzue legearen begirale guziak eta etsaietarik asper zatzue zuen herritarrak.
68. Bihur diozozute jendaiei merezitu saria, eta legeko manamenduan atzarri zaudezte.
69. Eta benedikatu zituen bere haurrak, eta bere arbasoetara eramana izan zen.
70. Zazpitan hogoi eta seigarren urthean zendu zen, eta bere semeak ehortzi zuten bere arbasoen hobietan Modinen, eta deithore handiz deithoratu zuen Israel guziak.

### III. KAP.

1. Eta aitaren orde jaiki zen Judas haren semea, Makabearra deitzen zena;

2. Eta laguntzen zuten bere anaia guziek eta haren aitari iratxiki zirenek; eta bozkarioz hari ziren Israelentzat gudukatzen.
3. Eta hedatu zuen bere populuaren ospea, eta digante bat bezala estali zen bere gerruntzeaz eta gudueta jauntzi zituen gerlako harmak, eta bere ezpataz zaintzen zituen kanpak.
4. Eta bere egintzez bilhakatu zen lehoian bat iduri, eta harrapakinari orroa egiten dioen lehoinkumea bezala.
5. Eta gaixtaginei jarraiki zitzaizoten, hekiek orotan bilhatuz; eta suan erretzen zituen bere populua nahasten ziotenak.
6. Eta haren ixterbegiak hastanduak izan ziren haren beldurraz; gaixtakeria egile guziak ikharan zauden, eta haren eskuak atheratu zuen populuaren salbamendua.
7. Eta bere eginkariez uhertzen zituen asko errege, eta Jakob bozkarioz bethetzen, eta menderen mendetan benedizionetan izanen da haren orhoitzapena.
8. Eta ibili zen Judako hirietan, eta hekietarik galarazi zituen gaixtaginak, eta Israeldik aldaratu zuen Jaunaren hasarrea.
9. Haren izenaren aiphamena hedatu zen lurraren bazterretaraino, eta bildu zituen galtzeko heinean zirenak.
10. Eta Apoloniok bilarazi zituen jendaiak, eta Samariatik atheratu zuen armada bat handia eta hazkarra, Israelen kontra gerla egitekotzat.
11. Eta Judasek jakinik, atheratu zitzaioen aitzinera; jo eta hil zuen; eta asko erori ziren sarraskituak, eta bertzeek ihes egin zuten.
12. Eta Judasek hartu zituen hekien buluzkinak; Apoloniori khendu zioen bere ezpata, eta geroztik hartaz gudukatu izan zen bere bizi guzian.
13. Eta Siriako armadako buruzagiak, Seronek aditu zuen Judasek legea zatzikaten guzien baldarna bildu zuela bere gana,
14. Eta erran zuen: Ene buruari izen bat eginen diot, eta ospe izanen dut erresuman, garhaituz Judas eta harekin direnak, erregeren hitza arbuiautu dutenak.
15. Eta xuxendu zen, eta harekin igan zen gaixtaginen armada, laguntza hazkarra, Israelgo semeetarik asperkunde atheratzeko.
16. Hurbildu ziren Bethoroneraino, eta Judas bidera atheratu zitzaizoten gizon gutirekin.
17. Bainan haukiek ikhusingen zutenean aitzinera heldu zitzaizoten armada, erran zioten Judasi: Nola gudukaturen ahal gare, garen gutiak, hunenbateko ostearen eta hunen oste hazkarraren kontra; eta oraino behartuak gure baruraz egun?



18. Eta Judasek erran zuen: Errex da gutirentzat hainitzen garhaitzea; zeruko Jainkoari bardin zaio hainitzekin ala gutirekin libratzea;

19. Zeren gerlan garhaizia ez baita armadako oste handiari eratzikia, bainan zerutik dathor indarra.

20. Horiek gure gana dathorzi oste burgoi eta hanpurutsuarekin, xahutu beharrez gu, gure emazteak eta gure haurrak, eta gu biluzi nahiz.

21. Gu aldiz, gudukaturen gare gure bizientzat eta gure legeentzat;

22. Eta Jaunak berak gure aitzinean xahututen ditu; zuek berriz, ez izan horien beldur.

23. Eta mintzatzetik baratu bezain sarri, etsaiari jauzi zitzaioen bat-batean; eta Seron eta bere armada eragotziak izan ziren haren aitzinean.

24. Eta hekien ondotik jo zuen Bethorongo patarra beheiti zelhaieraino; eta etsaietarik erori ziren zortzi ehun gizon, eta gainerakoek Filistindarren lurrera ihes egin zuten.

25. Eta Judasen beldurrak, eta haren anaienak, eta ikharak jo zituen jendaia guziak hekien inguruan.

26. Eta Judasen izena heldu izan zen erregeren baithara, eta jendaki guziak etzuten Judasen guduez bertze aiphurik.

27. Antioko erregea berriz, solas horiek aditu zitueneko, hasarre gaitzean sarthu zen, eta igorriarik bilarazi zuen bere erresuma guzitik armada bat, indar gaitzeko armada.

28. Eta ideki zuen bere diruko khutxa eta armadari eman zioen urthe bateko soldata; eta manatu zioeten egon zitezen zertara nahi abian.

29. Eta ikhusi zuen diruz hustu zitzaizkola bere khutxak, eta Judeako zergak deus-gutiak zirela, han sorrarazi zituen makhur eta asturugaitzen gatik, khendu beharrez hango egundainoko legeak;

30. Eta beldurtu zen etzuela asko aldiz bezala izanen dirurik gerlako gastuentzat eta esku nasaiaz egiten zituen emaitzentzat, zeinetaz xitu baitzituen bere aitzineko errege guziak.

31. Eta gogoia arras eroria zuen, eta burutara ethorri zitzaioen Persiara goatea eta hango zergak hartzea, eta diru hainitz biltzea.

32. Utzi zuen Lisias, sortze handiko gizona, errege odoletik ilkhia, erresumako egitekoei hotsemateko, Ufratako hibaitik Egipetoko hibaieraino;

33. Eta artha izatekotzat bere seme Antiokoz, gibelerat itzul zadien arteo.

34. Eman ziozkan armadaren erdia, eta elefantak, eta bere manuak nahi zituen gauza guzien gainean, eta Judean eta Jerusalemen egoten zirenen gainean;

35. Manatuz igor zezan armada Israelgo indarren eta Jerusalemgo ondarraren xahutzera eta ezeztatzera, eta tokitik khentzera hekien orhoitzapeneraino;

36. Eta hekien eremu guzietan arrotz-semeak ezartzeko egoiliartzat, eta hekien lurra zortera emateko.

37. Eta erregek hartu zuen gelditzen zen armadaren erdia, eta ilkhi zen Antiokiatik, bere erresumako hiri buruzagitik, zazpitan hogoi eta zazpigarrenen urthean; iragan zuen Ufratako hibaia, eta hergaraietarik bazihoan.

38. Lisiasek hautatu zituen Ptolemeo, Doriminiren semea, eta Nikanor eta Gorjias, gizon ahaldunak, erregeren adiskideetarik;

39. Eta hekiekin bidali zituen berrogoi mila oinezko eta zazpi mila zaldizko, Judako lurrera goateko, eta erregeren hitzaren arabera haren xahutzeko.

40. Eta aitzinetu ziren beren indar guziekin, eta ethorri eta hurbildu ziren Emausera, aurkhintza-ordokian.

41. Eta inguruetako tratulariek aditu zuten hekien aiphamena; eta hartu zituzten urhe, zilhar eta sehi hainitz; eta kanpetara ethorri ziren, gathibituztat hartzeko Israelgo semeak; eta Siriako eta toki arrotzetako armadak batu ziren hekiekin.

42. Eta Judasek eta bere anaiek ikhusi zuten ondikoak ondikoen gainera murrukatu zirela, eta armadak hekien eremuetara hurbiltzen hari zirela; eta jakin zituzten erregek eman manuak populuaren galtzeko eta atde bat xahutzeko.

43. Eta elkharri erran zuten: Errekatik athera dezagun gure populua; guduka gaitezen gure populuarentzat, gure tenplo eta gauza sailduentzat.

44. Eta bildu ziren, gudurat abian izateko; othoizteko Jauna eta hari bere urrikalkortasunaren eta urrikalpenen eskatzeko.

45. Orduan Jerusalemek egoiliarrik etzuen, bainan mortua bezala zen; bere umeatarik etzuen ikhusten ez sartzen ez ikhitzten; saildutegia oin-petan erabilia zen, eta arrotz-semeak gazteluan ziren; jendaiek han zuten egoitza; Jakobean ganik ezeztatua zen atsegina, eta handik galduak ziren gitarra-xirolak.

46. Eta bildu eta ethorri ziren Maspahara, Jerusalemgo parrera; zeren Israelek beihala Masphan baitzuen othoizteko lekhuia.

47. Eta barur egin zuten egun hartan; zurdatzak jauntzi zituzten, hautsez estali buruak, eta porroskatu beren soinekoak.

48. Eta hedatu zituzten legeko liburuak, zeinetan jendaiek bilhatzen baitzuten beren jainkomoldeen itxurakeria zerbait.



49. Eta ekharri zituzten aphez-aphaingailuak, pikainak eta hamarrenak, eta eraiki zituzten, egunak betheak zituzten Nazarearrak.
50. Eta zerura deihadar egin zuten, erranez: Zer egingen diotegu, eta norat eramanen ditugu?
51. Jauna, zure saindutegia oinkatua eta lohitua da, zure aphezak auhenetan ezarriak eta lurreraino aphanak dire.
52. Eta huna jendaia gure kontra bilduak, eta zuk badakizkitzu gure gainean derabilzkaten asmuak.
53. Nola ihardukiren ahal dugu horien aitzinean, oi Jainkoa, zuk ez bagaituzu laguntzen?
54. Eta turutak durrundarazi zituzten hazkarki.
55. Eta gero, Judasek buruzagiak eman ziozkan populuari, mila, ehun, berrogoi eta hamar eta hamar gizonen aitzindariak.
56. Eta erran zioten etxeak egin, emazteak hartu eta mahastiak landatu zituztenei, eta beldurti zirenei, bihur zitezen zein bere etxera legeren arabera.
57. Eta kanpak higitu eta ezarri zituen Emausdik hegoaldera.
58. Eta Judasek erran zioten bere gizonen: Soinera zatzue harmak eta athera zaitezte muthil hazkarrak; zaudezte xuxenduak bihar goizeko, gudukatzeko jendaia horiek, zeinak gure kontra bildu baitire, xahutu beharrez gu eta gure lekhu sainduak;
59. Ezen gerlan hiltzea hobe dugu, gure jendakiaren eta gure toki sainduen zorigaitza ikhustea baino.
60. Bainan nolako nahia izanen baita zeruan, hala egin bedi.

#### IV. KAP.

1. Eta Gorjiasek hartu zituen bortsz mila oinezko eta mila zaldizko hautatu, eta gabaz higitu zituzten kanpak,
2. Juduen kanpetara hurbiltzeko, eta bat-batean hekien jotzeko; eta gaztelutikako gizonak zituzten bidari.
3. Eta Judasek nabaritu zuen, eta jaiki ziren bera eta bere gizonik hazkarrenak, Emausen ziren erregeren armadetako indarren jotzeko;
4. Ezen oraino armada kanpetarik barraiatua zen.
5. Eta Gorjias gabaz ethorri zen Judasen kanpetara, eta etzuen atzeman nihor, eta hekien bilha zabilan mendietan, ezen erraten zuen: Gure ihes dohazi horiek.
6. Eta egundu zenean, zelhaiean agertu zen Judas bakharrik hirur mila gizonekin, zeinek ez baitzuten ez erredolarik ez ezpatarik.

7. Eta ikhusi zuten jendaien kanpak hazkarrak zirela, eta gizonak gerruntzez estaliak, eta zaldizkoak hekien inguruan, eta oro gerlan jakinak.
8. Eta Judasek erran zioten berekin zituen gizonen: Ez izan horien ostearen beldur; ez izan horien oldar-aldiaren lotsa.
9. Orhoit zaitezte nola salbatuak izan ziren gure arbasoak itsaso Gorrian, Faraon ondotik zihoakiotenean armada handi batekin.
10. Eta orai zeruari egin diozogun deihadar, eta gutaz urrikalduren da Jauna, eta orhoit izanen da gure aitekilako batasunaz, eta egun armada hori leherturen du gure aitzinean;
11. Eta jendaia guziek jakinen dute Israelen berrerosle eta libratzaile bat badela:
12. Eta arrotzek goititu zituzten begiak eta ikhusi zituzten Juduak buruz heldu zitzaizkotela.
13. Gudura ilkhi ziren kanpetarik, eta Judasen lagunak jo zuten turuta.
14. Lothu ziren; jendaia lehertuak izan ziren, eta zelhaia gaindi ihes egin zuten.
15. Azkenak berriz, ezpataren azpira erori ziren guziak, eta Judas jarraiki zitzaioten Jezeroneraino, Idumeako, Azoteko eta Jamniako ordokietaraino; eta hekiatarik erori ziren hirur mila gizonen heina.
16. Eta bihurtu ziren Judas eta hari jarraitzen zen armada.
17. Eta populuari erran zioen: Ez lehia buluzkinetara, zeren aitzinean baitugu oraino gerla;
18. Gorjias eta bere armada hurbil ditugu mendian; bainan zaudezte gogor gure etsaien kontra; akhaba zatzue, eta gero deskantsuz hartuko dituzte buluzkinak.
19. Eta Judas mintzo zelarik oraino, hara etsaiatarik zenbait agertu zirela mendi gainetik begiraka.
20. Gorjiasek ikhusi zuen ihesari itzuli zirela haren lagunak, eta kanpak erretzen zaudela; ezik ageri zen, kheak erraten zuen zer zen gerthatu.
21. Horiek ikhusirik eta hanbatean oharturik Judasi eta bere armadari ordokian gudurat abian, izitu ziren hainitz,
22. Eta guziek ihes egin zuten lur arrotzetara.
23. Eta Judas bihurtu zen kanpetako buluzkinetara, eta hartu zituzten urhe hainitz, eta zilhar, eta moredin, eta itsas-purpura, eta ontasan handiak.
24. Eta gibelerakoan, Jainkoa benedikatzen zuten zeruetaraino, eta kantatzen himno hau: Zeren den ona, zeren bethikoa den haren urrikalpena.
25. Eta egun hartan handia izan zen Israelen garhaizia salbagarria.



26. Berriz, arrotzetarik itzuri zirenak Lisiasen gana goan ziren, eta gerthatu ziren gauzen berria eraman zioten.
27. Horiek aditurik, harritu zen eta bihotzak eskas egiten zioen, zeren gauzak ez baitziren Israelen gerthatu harek nahi bezala eta erregek manatu bezala.
28. Eta ondoko urthean Liliasek bildu zituen hirur hogoi mila gizon hautak, eta bortz mila zaldizko, Juduen xahutzekotzat.
29. Ethorri ziren Judeara, eta kanpak jarri zituzten Bethoronon; eta Judas aitzinera atheratu zitzaioten hamar mila gizonekin.
30. Eta ikhusi zuen etsaiak hazkar zirela; egin zuen bere othoitza, eta erran zuen: Benedikatua zare, oi Israelen salbatzailea, zeren digante gaitzaren indarra hautsi baituzu, Dabid zure zerbitzariaren eskuan; eta arthiki arrotzen kanpak Jonathas Saulen semearen eta haren ezkutariaren eskuetara.
31. Hestu zazu armada hori Israelgo zure populuaren eskuan, eta ahalketara eror beitez beren oinezko eta zaldizko guziekin.
32. Emozute ikhara, eta urmariaraz zazu horien indarraren ozartasuna, eta beren desmasiaz lastuak gelditu beitez.
33. Zu maite zaituztenen ezpataren azpira arthikatzu; eta zure izena ezagutzen duten guziek lauda betzazte beren himnoetan.
34. Eta abiatu zuten gudua, eta Lisiasen armadatik bortz mila gizonek jo zuten lurra.
35. Lisiasek berriz, ikhusirik bere gizonen ihesa eta Juduen bihotzotasuna, eta jarriak zirela khabutsuki hiltzera edo bizitzera, goan zen Antiokiara eta soldado hautatzen haritu zen, oste handitan Judeara bihurtzeko.
36. Orduan erran zuten Judasek eta bere anaiek: Horra gure etsaiak lehertuak; igan gaitezen orai lekhu sailduen xahutzera eta berritzera.
37. Eta bildu zen armada guzia, eta igan ziren Siongo mendira.
38. Eta ikhusi zuten saildutegia mortu, eta aldarea profanatu, eta atheak erreak eta ezkaratsetan sasia egina oihanean edo mendietan bezala, eta tenploaren inguruko salhak urratuak.
39. Porroskatu zituzten beren soinekoak, deithore handitan deithoratu ziren, eta hautsez estali zituzten beren buruak.
40. Eta ahuspez erori ziren lurrera, eta durrundarazi zituzten ezagutkarietako turutak, eta zeruraino igorri zituzten beren deihadarrak.
41. Orduan Judasek manatu zituen gizonak, gatzeluan ziren etsaien gudukatzeko, saildutegiko xahupena egin arteo.

42. Hautatu zituen aphez nothagabeak, Jainkoaren legean bihotza zadukatenak.
43. Eta egin zuten saildutegiaren xahupena, eta toki lohi batera eraman zituzten khutsua zuten harriak.
44. Judas gogoeta egotu zen, hean zer eginen zuen holokaustetako aldareaz, zeina profanatu izan baitzen.
45. Eta gogoeta on bat egin zuten haren urratzea, etzadien bilhaka hekien laidagarri, zeren khutsatu baitzuten jendaiek; eta urratu zuten.
46. Eta harriak ezarri zituzten tenploko mendian, toki egokian, ethor zadien arteo profeta bat, hekietaz zer egin erranen zuena.
47. Eta legearen arabera, hartu zituzten harri mugerrak; eta aldare berri bat egin zuten lehenago zena bezalakoa.
48. Berritu zituzten saildutegia eta tenploko barneak; eta sailduetsi zituzten etxea eta ezkaratzak.
49. Untzi berriak egin zituzten eta tenploan ezarri ganderailua, usain onetako aldarea eta mahaina.
50. Isentsua ezarri zuten aldarearen gainean, eta biztu zituzten ganderailuaren gaineko kriselu, tenploan argitzen zutenak.
51. Mahainaren gainean ezarri zituzten ogiak, hedatu zuten bela, eta hasi zituzten lan guziek akhabatu zituzten.
52. Zazpitan hogoi eta zortzigarren urthean, bederatzigarren hila-bethean (hura baitzen kasleu), hogoi eta bortzgarren egunetan, jaiki ziren argi aitzinean:
53. Eta holokaustetako aldare berri, berek eginaren gainean, legearen arabera eskaini zuten sakrifizioa.
54. Eta urthe-mugan, eta egun berean zeintan jendaiek khutsatu baitzuten tenploa, sakrifizioa erreberritua izan zen kantiken erdian, eta lira, gitarra eta zimbala otsez.
55. Populu guzia erori zen ahuspeka, eta adoratu zuten eta zeruetaraino benedikatu onerat bihurtu zituen Jainkoa.
56. Zortzi egunez egin zuten aldarearen dedikazioa, eta bozkarioekin eskaini zituzten holokaustak eta esker-onezko eta laudoriozko sakrifizioa.
57. Tenploaren aitzindegia berregindu zuten urhezko khoroeekin eta ezkutatxoekin; berritu zituzten sartzeak eta sahetsetako salhak, eta atheak ezarri zituzten.
58. Eta bozkario guziz handitan jarri zen populua, eta jendaien laidoa khendua izan zen.



59. Judasek eta bere anaiek eta Israelgo baldarna guziak xedatu zuten, aldarearen dedikazioneko eguna bestatua izanen zela bere urthe-mugetan, urthetik urthera, kasleuko hilabethearen hogoi eta bortzean, zortzi egunez, bozkario eta bozkalentzien erdian.

60. Eta ordu berean hazkartu zuten Siongo mendia; inguruan egin ziozkaten harrasi gorak eta dorre hazkarrak, beldurrez-eta ethor zitezen jendaiak, eta oinen azpian erabil zezaten hura, aitzinean egin zuten bezala.

61. Eta han utzi zuen armada bat, haren zaintzeko, eta hazkartu zuen Betsuraren begiratzeko, populuak izan zezan gaztelu bat Idumearren kontra.

## V. KAP.

1. Aditu zuten bezain sarri aldarea eta saildutegia leheneko heinera ekharriak zirela, inguruetakoa jendaiak sepha gaitzean sarthu ziren.

2. Eta burutan hartu zuten xahutu behar zituztela beren artean zituzten Jakoberen odolekoak, eta abiatu ziren populutik batzuen hiltzen eta bertzei ondotik jarraitzen.

3. Eta Judas gerlan hari zen Esaureren semeen kontra Idumean, eta Akrabatenan zirenen kontra, zeren inguratuak baitzaduzkaten Israeldarrak; eta sarraski gaitzaz jo zituen.

4. Eta orhoitu zen Beanen ume maltzurrez, zeinak populuarentzat baitziren arte eta eragozgailutan, zelatak hari bidean hedatuz.

5. Judasek hertsitu zituen dorre batzuetan, eta hurbildu zitzaizoten; anathema arthiki zioten gainera, eta suz erre zituen hekien dorreak barnean ziren guziekin.

6. Eta iragan zen Amonen semeetara, eta han atzeman zuen etsaia indarretan; populua handia zen, eta Timotheo zuen buruzagi.

7. Askok gudutan erauntsi zuen hekietan, eta jo eta lehertu zituen.

8. Gero hartu zuen Gazergo hiria eta haren-peko ziren bertzeak, eta itzuli zen Judeara.

9. Eta Galaaden ziren jendaiak bildu ziren, hekien eremuetan zauden Israeldarren kontra, hekietan xahutu beharrez; bainan Israeldarrek ihes egin zuten Dathemango gaztelura.

10. Eta gutunak bidali ziozkaten Judasi eta haren anaiei, zerratarik: Jendaiak gure kontra bildu dire inguruan, gu xahutu beharrez;

11. Abian dire ethortzeko eta ihes-lekhutzat hartu dugun gazteluaz jabetzeko; Timotheo da horien armadako buruzagi.

12. Zato beraz orai, eta athera gaitzatzu horien aztaparretarik, zeren oraiokoz gutarik hainitzak eroriak baitire.

13. Gure anaia Tubingo lurretan zirenak, hilak dire guziak; gathibu eraman dituzte hekien emazteak, hurrekin eta buluzkinekin; eta hil dute mila gizonen ingurutsua.

14. Eta oraino gutunak irakurtzen hari ziren, agertu zirenean Galileatik bidalkinak, soineko urratuekin, hala-halako berriak ekhartzen zituztenak;

15. Ziotelarik, etsaiak ilkhi zirela Ptolemaidatik, Tirretik eta Sidondik; eta hekien xahutzera ethorri arrotzez bethea zela Galilea guzia.

16. Judasek eta populuak solas horiek aditu bezain laster, bilkhu handi bat egin zen, ikhusteko zer egingen zuten beren anaientzat, zeinak hesturretan eta gaitzeko zoritan baitzauden.

17. Eta Judasek erran zioen bere anaia Simoni: Hauta zatzu gizonak, eta zoaz; athera zatzu gure anaia Galileakoak; ni berriz, eta Jonathas ene anaia Galaadera goanen gare.

18. Josep, Zakariasen semea eta Azarias utzi zituen populuaren buruzagi, Judearen zain armadaren gainerakoarekin.

19. Eta manatu zituen, zerralarik: Zaudetzte populu hunen buruan, eta ez abia jendaiekin gerlan, gibelerat itzul gaitzean arteo.

20. Galileara goateko, Simonek izan zituen hirur mila gizon; Judasek berriz, zortzi mila Galaaderako.

21. Simon goan zen Galileara; jendaiak eman ziozkaten asko gudu, eta jendaiak xahutuak izan ziren haren aitzinean, eta jarraiki zitzaizoten Ptolemaidako atheraino.

22. Jendaietarik erori ziren hirur mila gizonen heina, eta Simonek hartu zituen hekien buluzkinak.

23. Galilean eta Arbatan ziren Israeldarrak, beren haur, emazte eta puska guziekin, hartu zituen bere ganat, eta Judeara erakharri zituen bozkario handitan.

24. Anartean Judas Makaberrak eta haren anaia Jonathasek iragan zuten Jordanea, eta hirur egunen bidea egin zuten mortua barna.

25. Eta Nabathearrek athera zitzaizkoten bidera, eta baketiarki hartu zituzten. Erran ziozkaten hekien anaiei Galaaden gerthatu zitzaizkoten guziak,

26. Hekietarik hainitz atzemanak zirela Barasan, Bosorren, Aliman, Kasporren, Maiethen eta Karnaimen, horiek oro hiri handi eta hazkarrak;

27. Eta oraino Galaadeko bertze hirietan hertsia bazirela, eta etsaiek asmua zutela armada biharamunean hiri hekietara higiarazteko, hekien hartzeko eta egun batez ooren xahutzeko.



28. Judasek eta bere armadak Bosorgo mortura itzuli zuten berehala beren bidea. Judas nausitu zen hiriaz, ezpatatik iragan zituen gizonkiak oro, hartu zituen hekien buluzkinak, eta suz erre zuen hiria.

29. Handik ilkhi ziren gabaz, eta ibili ziren Dathemango gazteluraino.

30. Eta argi-hastean, begiak goititu zituztenean, hara etsai oste bat, khonda ahal baino handiagoa, zihoala, zurubiak eta gerlako tresnak soinean, gazteluaren hartzeko, eta barnekoen xahutzeko.

31. Eta Judasek ikhusi zuen hasia zela gudua, eta guduko otsa zerura igan zen turutaren durrunda bezala, eta hiritik ere deihadar handi bat.

32. Eta erran zioen bere armadari: Egun zuen anaientzat guduka zaitzte.

33. Hirur andanetan goan ziren etsaiaren gainera, turutak jo zituzten, eta deihadar egin zuten beren othoitzean.

34. Timotheoren tropek ezagutu zuten Makabearra zela, eta ihes egin zuten haren aitzinetik. Judasek hekietaz egin zuen sarraski handi bat, eta egun hartan hekietarik zortzi milen heintsuak jo zuen lurra.

35. Judas itzuli zen Maspharen gainera; bortxatu eta hartu zuen hiria, hil zituen gizonki guziak, buluzkinak hartu, eta suz erre hiria.

36. Goan zen handik eta hartu zituen Kasbon, Maieth, Bosor eta Galaadeko hiri gainerakoak.

37. Gauza horien ondoan berriz, Timotheok bildu zuen bertze armada bat, eta bere kanpak jarri zituen Erraphongo parrean, errekaiz haindik.

38. Armada haren ikhuskatzera bidali zuen Judasek, eta gibelerat berriak ekharri ziozkaten, erranez: Gure inguruetakoko jendakiak oro Timotheoren gana bilduak dire; armada guziz gaitza da.

39. Arabiarrek laguntzara erakharri dituzte; kanpak jarriak dituzte errekaiz haindian, zuri gudu ematera abian. Eta Judasek jo zuen hekien bidera.

40. Eta Timotheok erran zioten bere armadako aitzindariak: Judas bere armadarekin ur-errekara hurbildu ditakeenean, lehenbizikorik iragaiten bada gure gana, ezin eginen diogu buru; zeren ahal guziak izanen baititu gure kontra.

41. Bainan iragaiteko lotsa izaten bada, eta uraz haindian jartzen baditu kanpak, gu iraganen gare horietara, eta ahalak gure eskuan izanen dire Judasen kontra.

42. Bainan ur-errekara hurbildu orduko, Judasek erreka-bazterretan ezarri zituen populuko iskribauak, eta manatu zituen, erraten ziotelarik: Gizonetarik nihor ez utz baratzerara, bainan oro dathortzela gudura.

43. Eta etsaien gana iragan zen lehenbizikorik, eta haren ondotik armada guzia, eta hekien aitzinean lehertuak izan ziren jendaia guziak; harmak arthikirik, Karnaimen zen tenplora egin zuten ihes.

44. Judas hiriaz nausitu zen, eta erre zuen tenploa barnean ziren guziekin. Herraustua izan zen Karnaim; ezin ihardetsi zuen Judasen aitzinean.

45. Judasek bilarazi zituen Galaaden ziren Israeldar guziak, ttipi eta handi, emazte eta haur, eta armada handi bat egin zuen, ethor zitezen Judako lurrera.

46. Eta Efromeraino ethorri ziren; eta hiri handi hura, sarbidearen gainean jarria, hainitz zen hazkarra, eta etzitakeen goan hura bazterrerat utziz, ez eskuinetik ez ezkerretik, bainan erdi-erditik zen bidea.

47. Hirian zirenek barnean hertsu zituzten beren buruak, eta harriz poxelatu zituzten atheak. Judasek hekien gana bidali zuen bakezko solasekin,

48. Zioelarik: Zuen lurretik iraganen gare gure lurrera goateko, eta nihork ez darotzue eginen bidegaberik; eta xuxen baratu gabe goatea baizik ez dugu eginen. Eta hekiek etzioten eman nahikatu biderik.

49. Orduan Judasek kanpetan oihu eginarazi zuen, zein bere tokitik buruz abia zadien.

50. Eta bihotzeko gizonak hurbildu ziren; Judasek hiriarri jazarri zioen egun guzian eta gabaz, eta eskuetaratu zuen azkenean.

51. Ezpataren ahotik iragan zituzten gizonkiak oro; errotik arthiki zuten hiria, buluzkinak hartu, eta hilen gainetik iragan zuten hiri guzia.

52. Jordanea iragan zuten zelhai handian, Betsango aitzinean.

53. Judas gibeletik zagoen, azkenak bilduz eta populuari bide guzian gogoa berotuz, Judako lurrera heldu arteraino.

54. Eta Siongo mendira igan ziren boz eta goihere, eta holokaustak eskaini zituzten, hekietarik nihor etzelakoz galdu, gibelerat baketan itzuli bitartean.

55. Judas eta Jonathas Galaadko lurrean, eta Simon, hekien anaia, Galilean Ptolemaidaren aitzinean, ziren egunetan,

56. Josepek, Zakariasen semeak, eta Azariasek, armadako buruzagiak, aditu zituzten gauza ongi goanen eta egin ziren guduetakoko berriak.

57. Eta Azariasek erran zuen: Guk ere gure buruei eman diozoguten lelo; goazen gure inguruetan diren jendaien gudukatzerara.

58. Eta bere armadari manuak eman ziozkan, eta goan ziren Jamniari buruz.

59. Gorjias eta bere gizonak ilkhi ziren hiritik hekien bidera gudu emateko.



60. Eta Josep eta Azarias ihes igorriak izan ziren Judeako mugetaraino; egun hartan Israelgo populutik bi mila gizonen heinak jo zuen lurra; eta iheste handia egin zen populuan,

61. Etzituztelakoz Judas eta haren anaiak nahi izan aditu, ustez bihoz dun beren buruak agertu.

62. Etziren ordean hekiek Israeli salbamendua ekharri dioten gizon hekien odoletik.

63. Judako gizonak berriz, hainitz goretsiak izan ziren Israel guziaren aitzinean, eta hekien aiphamena heltzen zen populu guzien aitzinean;

64. Eta bozkariozko oihutan bidera atheratu zitzaizkien jendea.

65. Gero Judas eta bere anaiak ilkhi ziren eta gerla egin zioten hegoalderako lurtean ziren Esaturen semeei. Judasek jo zituen Kebron eta harenpeko ziren hiriak; eta hango harrasiak eta dorreak erre zituen inguruan.

66. Gero higitu zituen kanpak arrotzen lurretara goateko, eta iragan zen Samaria gaindi.

67. Orduko gerlan hilak izan ziren aphez batzu, beren bihoztoitasuna erakhutsi nahi zutelarik eta nihork erran gabe gudura ilkhirik.

68. Judas makhurtu zen Azot-alderat, arrotzen lurrerat; urratu zituen hekien aldareak eta suz erre hekien jainkomoldeak; eta hartu zituen hirietako buluzkinak, eta itzuli zen Judako lurrera.

## VI. KAP.

1. Bizkitartean Antioko erregeak, hergaraiak gaindi zabilalarik, jakin zuen Elimaida zela Persian hiri lelo handikoa, eta urhe eta zilhar hainitzen jabe zena;

2. Eta han bazela tenplo bat hainitz aberatsa, eta hartan urhezho oihalak eta gerruntzeak eta erredolak, Alexandro, Filiperen seme, errege Mazedoniar Grezian lehenbizikorik erreginatu zenak utziak.

3. Goan zen beraz eta bilhatzen zuen hiriaren hartzea eta haren larrutzea; bainan ezin egin izan zuen, zeren hirian zirenek jakin baitzuten zer zen solasa;

4. Eta jaiki ziren gudukatzeko; eta erregek handik ihes egin zuen; goan zen handik, bihotza beltzik, eta Babiloniara itzuli zen.

5. Persian zelarik oraino ethorri zitzaioen berria, Judako lurtean zuen armaa ihes igorria izan zela;

6. Lisias goan zela armada hazkar baten buruan, Juduek ihes igorri zutelara, eta haren kanpak hartu; eta han atzeman zituzten harmek, ontasunek eta buluzkinketa handiak, indarretan ezarri zituztela;

7. Eta Jerusalemgo aldarearen gainean altxatu zuen hatsgarrikeria xehakatu zutela; eta saindutezia inguratu zutela lehen bezala harrasi gorez, eta Betsurako hiria ere bai.

8. Berri horiek aditzearekin, errege harritu eta guzia nahasi zen; bere burua arthiki zuen ohe baten gainera; eta barneko ilhunduraren ariaz, iraungidurara erori zen, zeren etzitaizkoen asmu zuen bezala gauzak atheratu.

9. Han egotu zen asko egunez, zeren belztasun handia berritzen baitzen haren baitan, eta hiltzera zihoalako ustea hartu zuen.

10. Eta deithu zituen bere adiskide guziak eta erran zioeten: Loak ihesegin du ene begietarik; beheiti hari naiz, eta grinek eragotzi dute ene bihotza.

11. Eta ene bihotzean erran dut: Zer hesturetara naizen jautsi, eta zer ilhundurazko uharretan naizen sarthua, ni atsegina nintzena eta maithatua ene botherearen erdian!

12. Orain orhoitzen naiz ordean Jerusalem egin izan ditudan gaizkiez, handik hartu baititut han ziren urhezko eta zilharrezko buluzkinak, eta igorri baitut hango egoiliarren xahutzera ariarik gabe.

13. Ezagutzen dut beraz, horien gatik atzeman nautela ondiko haukiek; eta huna ilhundura beltzak hilarazten nauela lur arrotzean.

14. Eta deithu zuen Filipe, bere adiskideetarik bat, eta eman zioen bere erresuma guziaren gaineko kargua.

15. Eta eman ziozkan diadema, erregesoina eta erreztuna, eraman zezan Antioko haren semea, haz zezan arren-eta tronurat igan zadien.

16. Eta han hil zen Antioko erregea, zazpitan hogoi eta bederatzigarren urtean.

17. Lisiasek jakin zuen errege hil zela, eta haren orde errege ezarri zuen Antioko haren semea, zeina hazi baitzuen gaztedanik; eta izena eman zioen Upator.

18. Jerusalemgo gazteluan zirenek Israeli bideak hersten ziozkaten tenploaren inguruan; eta bilhatzen zuten bethi hekiei gaizki egitea eta jendaen erroei indar ematea.

19. Judasek burutan hartu zuen xahutu behar zituela, eta populu guzia bildu zuen hekien sethiatzeko.

20. Batera bildu ziren eta sethiatu zituzten zazpitan hogoi eta hamar garren urtean, eta egin zituzten balistak eta gerlako tresnak.

21. Sethiatuak zirenetarik ilkhi ziren zenbait, eta Israeldik hekiei batu ziren gaixtagin bakhar batzu;



22. Goan ziren erregeren gana eta erran zioten: Noiz arteo utziren gaituzo bidegabean, eta gure anaiak asperkunderik gabe?

23. Burutan hartu dugu zure aitaren zerbitzatzea, haren manuen araberan ibiltzea eta haren erabakiak bethetzea;

24. Eta aria hortaz gure herritarrek berezi dire gure ganik; gutarik atzemanak hil, eta gure ontasunak larrutu dituzte.

25. Eta ez bakharrik gure gainera, bainan oraino gure herrialde guziaz gainera hedatu dute eskua.

26. Eta horra orai hurbildu direla Jerusalemgo gaztelura, hartaz nau-situ beharrez, eta hazkargailuz inguratu dutela Bethsura.

27. Eta baldin ez bazaizkiote aitzintzen, horiek baino handiagorik eginen dute, eta ezin nausituren zataizkiote.

28. Horiek aditzearekin, hasarretan sarthu zen errege; bilarazi zituen bere adiskide guziak, bere armadako buruzagiak, eta zaldizkoen aitzindariak.

29. Bertze erresumetarik ere eta itsasoko irletariak haren ganat ethorri ziren saritako armadak.

30. Haren armada heltzen zen ehun mila oinezkotara, eta hogoi mila zaldizkotara, eta bertzalde hogoi eta hamar elefant gerlan ikhasiak.

31. Idumea gaindi ethorri eta Betsurara hurbildu ziren; asko egunez jazarri zioten, eta sethiotako tresnak egin zituzten. Bainan barnekoak ilkhi ziren eta suz erre zituzten tresna hekiek, eta gizonak bezala gudukatu ziren.

32. Judas berriz, gazteluaren aitzinetik aldaratu zen; Bethzakarara higitu zituen bere kanpak, erregeren kanpen parrera.

33. Errege jaiki zen argi aitzinean, eta armadak tarrapatan eraman zituen Bethzakarari buruz. Armadak gudurako arrimatu ziren, eta jo zituzten turutak.

34. Gudura elefanten berotzeko, erakhutsi ziozkaten mahats eta marzoka arnoa.

35. Soldado andanaka berezi zituzten elefantak; mila gizon, gathezko gerruntzeekin eta kobrezko kaskak buruan, elefant bakhotxaren aldean ziren, eta bortz ehun zaldizko hautak manatuak ziren basabere hekiatarik bakhotxaren lagun.

36. Basabereari aitzinduz lekhu gurietara, hura norat, eta hekiek ere harat bazoazen, eta etziren haren ganik aldaratzen.

37. Zurezko dorre hazkar bat ere gerizatzeke, eta gainean gerlako tresnak, baziren elefant bakhotxaren bizkarrean, eta dorre bakhotxean hogoi eta hamabi gizon fetzo, gainetik gudukatzen zirenak, eta Indiar bat, abereari hotsemateko.

38. Erregek bi andanetan hainditik eta hunainditik ezarri zituen gainerako zaldizkoak, turuta otska armadaren berotzeko, eta sustatzeko andana tinkotan zihoazten oinezkoak.

39. Iguzkiak ihardetsi zuenean urhezko eta kobrezko erredolen gainean, argi-argiak ezarri zituzten mendiak, eta distiratzen zuten zuzietako garrek bezala.

40. Erregeren armada bi andanetan zihoan, bat mendi gorak gaindi, eta bertzea zolaguneetarik, eta begiratuki zihoazen eta arrimuz.

41. Lekhuko jendea asaldua zen guzia armada haren oihuez, ostearen tarrapatuz eta harmen harrabotsaz, ezen armada hainitz zen handia eta hazkarra.

42. Judas hurbildu zen gudukatzeko bere armadarekin, eta erregerenetik sei ehun gizonak jo zuten lurra.

43. Eleazar, Sauraren semea ohartu zen elefantetarik bat erregeren gerlako errementez estalia zela; bertze guziak baino handiagoa zen, eta Eleazarrek uste izan haren gainean zela errege;

44. Bere bizia eman zuen bere herritarren libratzea gatik, eta bere buruari bethirainoko izen baten egiteko.

45. Susaiki laster egin zuen haren gana soldado-andanaren erdira, esker eta eskuin hilez; eta hor-hemenka etsaiak erortzen ziren haren ukhaldien azpian.

46. Eta elefantaren zangoetara goanik azpira sarthu zitzaioen, eta hil zuen. Elefanta lurrera erori zen haren gainera, eta han hil zen Eleazar.

47. Bainan Juduek ikhustenez erregeren indarra, eta haren armada-aren oldarra, bide egin zuten hekien ganik.

48. Erregeren armada berriz, igan zen Jerusalemдарren kontra, eta Judeara ethorri zen Siongo mendian kanpatzera.

49. Erregek bakea egin zuen Bethsuran zirenekin, eta hiritik ilkhi ziren, ez baitzuten jatekorik, ezen lurraren larunbateko urthea zen.

50. Erregek hartu zuen beraz Bethsura, eta hirian ezarri zituen zainak haren beiratzeko.

51. Gero armada lekhu sainduaren kontra itzulia iduki zuen asko egunez; eta han egin zituen balistak eta tresnak, su, harri eta gezi arthikitze-koak, gezi igortzeko arranbela handiak eta habalak.

52. Berriz, barnekoek egin zituzten tresnak tresnen kontra, eta gudukatu ziren asko egunez.

53. Bainan hirian etzen jatekorik, zeren zazpigarren urthea baitzen, eta jendaiatarik Judean gelditu zirenek ahitu baitzituzten jateko aldaratuen ondarrak.





54. Eta gizon guti gelditu zen lekhu sainduetan, zeren gosetea nausitu baitzitzaioten, eta gehienak barraiatu baitziren beren tokietara.

55. Bizkitartean Lisiasek aditu zuen, Filipe, zeina Antioko erregeak, bizi zelarik oraino, kargutu baitzuen bere seme Antiokoren hazteaz eta erreginarazteaz,

56. Itzuli zela Mediatik eta Persiatik, harekin harat goan izan zen armadarekin, eta bilhatzen zuela erresumako egitekoen eskura hartzea.

57. Higitu zen beraz, eta goan zen erregeri eta armadako buruzagiei erratera: Egun oroz urtzen hari gare, jateko guti dugu, hazkarra da sethiatzen dugun tokia, eta erresumako egitekoak xuxendu beharrak ditugu.

58. Orain beraz eskua heda diozotegun gizon horiei, eta bakea egin dezagun horiekin eta horien jendaki guziarekin.

59. Utz detzagun bizitzera lehen bezala beren legeen arabera; ezen horien lege eskarniatu ditugunen ariaz sumindu dire eta egin dituzte haukiek oro.

60. Erregeren eta aitzindarien gogarako izan zen solasa; eta bidali zuen Juduei bakearen eskaintzera, eta haukiek onhetsi zuten.

61. Eta erregek eta aitzindariak zin egin zioten, eta Juduek ilkhi ziren gaztelutik.

62. Orduan errege sarthu zen Siongo mendian; ikhusi zuen nola hazkartua zen tokia, eta han berean hautsi zuen egin zuen zina, eta manatu zuen harrasia izan zadien inguruan urratua.

63. Gero gibelerat goan zen lehen-bai-lehen; Antiokiara itzuli, eta atzeman zuen Filipe hirian nausi; eta haren kontra gudukaturik, jabetu zen hiriaz.

## VII. KAP.

1. Zazpitan hogoi eta hamekagarren urthean, Demetrio, Seleukoren semea, ilkhi zen Erromako hiritik, eta gizon guti batekin ethorri zen itsasbazerreko hiri batera, eta erregetu zen han.

2. Bere arbasoen errege-etxean sarthu zen bezain sarri, armadak hartu zituen Antioko eta Lisias, haren aitzinera erakartzeko.

3. Demetriok jakin zuen gauza, eta erran zuen: Ez erakhuts niri horien begitharterik.

4. Eta armadak hil zituen, eta Demetrio jarri zen bere erresumako tronuan.

5. Eta haren gana Israeldik goan ziren gizon tzar eta gaixto batzu; hekien buruko zen Alzimo, zeinak aphez-handi nahi baitzuen jarri.

6. Eta erregeren aitzinean jazarri zuten populuaen kontra, ziotelarik: Judasek eta bere anaiek galdu dituzte zure adiskide guziak, eta gu irazi gaitu gure lurretik.

7. Orain beraz igorrazu gizon bat, zeinaren gainean sinheste baitukezu, goan dadientzat, eta ikhus detzan Judasek guri eta erregeren lurrei egin dituen bidegabe guziak, eta gaztiga betza haren adiskide eta laguntzaileak oro.

8. Erregek bere adiskideetan hautatu zuen Bakide, erresuman hibai handiaz bertze aldean manatzen zuena eta erregeri fidel zena; eta hura igorri zuen,

9. Ikhus zezan Judasek egin bidegabea; Alzimo gaixtoa ere ezarri zuen aphez-handi, eta manatu zioen asperrakunde athera zezan Israelgo semeen gainean.

10. Jaiki ziren beraz, armada handi batekin ethorri ziren Judako lurreira, bidalkinak igorri zituzten, eta Judasi eta bere anaiei mintzatu ziren maltzurkerian bakezko solasekin.

11. Bainan etzuten hekien solasik entzun nahi izan, ikhusten baitzuten ezen armada handi batekin ethorri zirela.

12. Bizkitartean iskribauen bilkhua ethorri zen Alzimoren eta Bakideren gana, zuzen ziren gauzak galdatuz.

13. Eta Asidearrek, Israelgo umeetan lehenbizikoak zirenek, galdegiten zioten bakea.

14. Ezen erraten zuten: Aphez bat, Aaronen odoletikako gizon bat dathor; ez gaitu enganatuko.

15. Alzimok eman ziozkaten bakezko solasak, eta zin egin zioten, erranez: Ez zuei, ez zuen adiskideei ez darotzuegu gaitzik ekharriren.

16. Eta hekiek sinhetsi zuten; bainan harek harrarazi zituen hirur hogoi gizon, eta egun batez hilarazi, iskribatua den hitzaren arabera:

17. Jauna, zure sainduen gorphutzak sarraskitu eta hekien odola ixuri dute Jerusalemaren inguruan, eta nihor etzen hekien ehorzteko.

18. Eta beldurra eta ikhara jarri ziren populu guziaren gainean, ezen erraten zuten: Ez da horien baithan ez zintasanik ez zuzentasunik; hautsi dituzte alabainan egin zituzten patua eta egin izan duten zina.

19. Bakidek higitu zituen kanpak Jerusalemetik eta jarri zituen Bethzekako ondoan; eta gizonak igorriarik, harrarazi zituen haren ganik ihes goan ziren asko eta populutik zenbait, eta hil eta putzu handi batera arthikarazi zituen.

20. Gero lekhu ezarri zuen Alzimoren manuen azpian, eta laguntza utzi zioen esku emateko, eta Bakide goan zen erregeren gana.



21. Alzimo egin ahalaz hari zen aphez-nausigoan bere buruaren gogortzera.
22. Haren gana bildu ziren populuaren nahastaile guziak, nausitu ziren Judako lurrean, eta sarraski handia egin zuten Israelen.
23. Judasek ikhusi zituen Alzimok eta bere lagunek Israelgo umeei egin ziozkaten gaizki guziak, jendaiek baino hainitz handiagoak.
24. Ilkhi zen inguruan Judeako eremu guzietara, asperkunde atheratu zuen haren ganik aldatu zirenen gainean, eta hala gaixtaginak baratu ziren bazterretara ilkhitzetik.
25. Bainan Alzimok ikhusi zuen Judas eta bere lagunak nausitu zirela; ezagutu zuen ezin buru egin ziozoketela, eta erregeren gana bihurturik, iritxiki ziozkaten gaixtakeria hainitz.
26. Erregek igorri zuen Nikanor, bere azpiko aitzindari handienetarik bat, Israelen kontra aiherkundetari zena, eta manatu zioen xahu zezan populu hura.
27. Nikanor armada handi batekin ethorri zen Jerusalemara, eta maltzurkerian bakezko solasak igorri ziozkaten Judasi eta bere anaiei,
28. Zerralarik: Gudurik izan ez bedi zuen eta ene artean; gizon guti batekin ethorriren naiz baketiarki zuen begithartearen ikhustera.
29. Eta goan zen Judasen gana eta elkharri agur egin zuten bakezko solasekin; bainan etsaiek neurriak hartu zituzten Judasen harrapatzeko.
30. Judasek ezagutu zuen gaina, maltzurkerian ethorriak zirela haren gana; Nikanorrez beldurtu zen, eta etzuen gehiago nahi izan ikhusi haren begithartea.
31. Nikanorrek ere ezagutu zuen agertuak zirela haren asmuak, eta Judasi bidera atheratu zitzaioen, Kapharsalamako ondoan gudu ematera.
32. Eta Nikanorren armadatik bortz mila gizonen heinak jo zuen lurra, eta bertzeek ihes egin zuten Dabiden hirira.
33. Horien ondoan Nikanor igan zen Siongo mendira; populuaren aphezetarik zenbait ilkhi ziren hari baketiarki agur egitera, eta erregerentzat egiten ziren holokausten erakhustera.
34. Nikanorrek berriz, murrikatuz erdeinatu eta hidoiztatu zituen eta burgoiki mintzatu zitzaioten.
35. Eta hasarre handitan zin egin zuen, zioelarik: Baldin Judas eta bere armada ez badire ene eskuetarari emanak, garaitiar itzuliko naizen bezain laster erreko dut etxe hau. Eta ilkhi zen hasarre gaitzean.
36. Aphezak sarthu ziren, eta jarri ziren aldarearen eta tenploaren aitzinian, eta nigarrez erran zuten:

37. Zuk, Jauna, hautatu duzu etxe hau hemen deithua izan dadien zure izena, eta hau izan dadien othoitzeko etxea eta zure populuarentzat errekeietako lekhu.
38. Gizon horren eta horren armadaren gainean athera zazu asperkunde, eta eror beitez ezpataren azpira; orhoit bekizkitzu horien burhok, eta ez biozozute eman lurrean iraupenik.
39. Nikanor ilkhi zen Jerusalemetik, eta kanpatu zen Bethorongo ondoan, eta Siriako armada ethorri zitzaioen harat.
40. Judas berriz, Adarsako ondora goan zen kanpatzera hirur mila gizonekin, eta othoitz egin eta erran zuen:
41. Jauna, burhoztatu zinduztelakoz Senakerib erregeak igorri gizonek, aingeru bat ilkhi zen, eta hekiatarik jo zituen bederatzitan hogoi eta bortz mila.
42. Armada hori ere orobat leher zazu egun gure aitzinean, eta bertzeek jakin bezate gaizki mintzatu dela zure toki sainduz, eta jua zazu bere maltzurkeriaren arabera.
43. Armadak gudutan lothu ziren adarreko hilabethearen hirugarren egunean; eta lehertua izan zen Nikanorren armada, eta bera lehenbizikori erori zen gudian.
44. Armadak aldiz, ikhusirik Nikanor eroria, arthiki zituen harmak, eta ihesari eman zen.
45. Egun baten bidean, Adazerretik Gazararaino jarraiki zitzaizkoten ondolik eta turutak jotzen zituzten hekien gibeletik, albiriste emateko.
46. Judeako gaztelu guzietarik inguruan gizonak atheratzen ziren, eta aitzinean zaramatzaten etsaiak, eta bethi hekien gainera bihurtuz hil zituzten guziak, bat bakharra itzuri etzen bezala.
47. Jabetu ziren hekien buluzkinez, eta ebaki zituzten Nikanorren burua eta esku eskuina, burgoiki tenploaren kontra hedatu zuena, eta eraman zituzten, eta Jerusalemaren aitzinean dilindan ezarri.
48. Hainitz boztu zen populua, eta bozkario handitan iragan zuten egun hura.
49. Eta manatua izan zen besta eginen zela egun hura urthe oroz adarreko hilabethearen hamahirurean.
50. Eta Judako lurra ixilik egon zen egun gutiz.

## VIII. KAP.

1. Bada, Judasek aditu zuen Erromarren izena, indar handitakoak zirela, galde guziak onhesten zituztela, hekien gana goaten ziren guziekin adiskidantzak egiten zituztela, eta indar handiaren jabe zirela.



2. Aditu zuen halaber hekien guduen berria eta Galatian egin zituzten gauza handiak; Galatiarrak garhaitu eta zergaren azpian ezarri zituztela;

3. Eta Espainan egin zituzten guziak, nola jabetu ziren hango zilhar eta urhe miez eta nola toki guziaz nausitu ziren beren umotasun eta igurikortasunaz;

4. Nola garhaitu zituzten urrungo lekhuak eta lurraren bazterretarik jazartzera ethorri zitzaizkoten erregeak, sarraski handiaz jo zituztela; bertzeek berriz, urthe oroz zerga pagatzen ziotela;

5. Nola gerlan garhaitu zituzten Filipe eta Perses, Zethearren errege, eta hekien kontra harmak hartu zituztenak oro, eta beren azpiko ezarri zituzten;

6. Nola Antioko Handia, Asiako errege, zeinak gerla eman baitzioten sei hogoi elefantekin, zaldieria, orga-laster eta armada gaitz batekin, hekiez izan zen garhaitua;

7. Eta nola atzeman zuten bizirik eta bortxatu pagatzera berak eta berriren ondotik erreginatuko zirenek zerga handi bat, eta ematera bahiak eta xedatu zituztenak;

8. Erran nahi da India, Media eta Lidia, hekien aurkhintzarik ederrenak; eta nola hekien eskuetarik hartu ondoan eman zituzten Umenes erregeari;

9. Nola Grezian egoten zirenek nahi zuten goan eta Erromarrak xahutu; eta haukiek jakin zutela solasa,

10. Eta buruzagi bat hekien kontra igorri zutela; gudukatu zirela hekien kontra, hekietarik hil zituztela hainitz, bekien emazteak eta haurrak gathibu eraman eta bazterrak larrutu zituztela, hekien lurraz jabetu zirela, arthiki zituztela hekien harrasiak, eta berak gathibu egin, egungo egunean oraino diren bezala;

11. Nola xahutu eta beren azpiko ezarri zituzten bertze erresumak eta noizbait bihurri egin izan zioten iriak;

12. Noiz-eta-ere aldiz beren adiskideei eta hekien baithan phausua bilhatzen zutenei idukitzen baitzioten adiskidetasuna; jabetu zirela hurbileko eta urruneko erresumaz, zeren hekien izena aditzen zuten guziak, hekien bedur baitziren;

13. Erreginatzaera lagundu nahi zituzten guziak erreginatzen zirela, eragozten zituztela, berriz, nahi zituztenak; eta hainitz gora iganak zirela;

14. Hekien artean nihork etzuela ekhartzen diadema, ez-eta bertzeen artean handi agertu nahiz jaunzten purpurarik;

15. Bainan ezarri zutela biltzar bat eta egun oroz argitasunak galdatzen zaroetzela hirurehun eta hogoi biltzarlariei, zeinak beren artean egoten baitziren populuaren egitekoen gainean, egokienik zenaren egiteko;

16. Eta urthe bakhotx, gizon bakhar bati ematen zaroetela beren gaineko kargua beren lur guzian manatzeko; orok baten nahia egiten zutela, eta etzela hekien artean ez bekhazgorik, ez elkharrentzat lehiarik.

17. Judasek hautatu zituen beraz Upolemo, Joanesen semea, Jakoben arresemea, eta Jason, Eleazarren semea, eta gorri zituen Erromarren gana, hekiekin adiskidantza eta batasun egitera;

18. Juduen gainetik khien zezaten Greziarren uztarria, ikhusirik uztarriaren azpian zaphatua zadukatela Israelgo erresuma.

19. Erromara goateko egin izan zuten bideketa handia; sarthu ziren biltzarrean eta erran zuten:

20. Judas Makabearrak eta bere anaiek, eta Judeako populuak bidali gaituztete zuekin patudun eta adiskide har gaitzatzuen.

21. Eta solasa hekien gogarako izan zen.

22. Eta huna, kobrezko hostotan bernuzaturik Jerusalemara igorri zuten ageria, han geldi zadien bakearen eta batasunaren orhoitgarritzat.

23. Bethi guziraino zorion Erromarrei eta Juduen populuari itsasoz eta leihorrez; ezpata eta etsaia hekien ganik urrun izan beitez.

24. Baldin gerla altxatzen bazaiote Erromarrei lehenbizikorik, edo hekiekilako batasundunetarik edozeini, hekien nausitasuneko edozein ephaitzetan,

25. Juduen jendakiak laguntza ekharriren du bihotz oroz, orduak erakhutsiren duenaren arabera.

26. Eta gerlara atheratu direnei Erromarrek ez diote ez eman ez pagatu beharko ogirik, harmarik, dirurik, ez untzirik; Erromarren gogara hola da; eta hekien manuak begitaturen dituzte Juduek, hekien ganik deusere izan gabe.

27. Halaber aldiz, Juduen jendakiari gerla lehenik gerthatzen bazaio, Erromarrek bihotzekin lagunduren dituzte, orduak aginduko diotenaren arabera;

28. Eta laguntzaleei etzaiote emanen ogirik, harmarik, dirurik, ez untzirik, Erromarren gogarako den bezala; eta Juduen manuak zainduko dituzte zimarkhurik gabe.

29. Hitz horien arabera Erromarrek patu egiten dute Judeako popularekin.



30. Eta hitz haukien ondotik, baldin batzuek edo bertzeek zer bait berhatu edo gutitu nahi balute, onez onean eginen ahal dute; eta berhatuak edo gutituak izanen direnak, on goanen dire.

31. Eta Demetrio erregeak Juduei egin bidegabeen gainean ere, huneletan iskribatu diogu, erranez: Zer ariaz dorphetu duzu zure uztarria Juduen gainean, zeinak gure adiskide eta batasundunak baitire?

32. Baldin beraz arranguratzera ethortzen bazaizkigu berriz, zuzena bihurturen diotegu zure kontra, eta gerla eginen darotzugu itsasoz eta leihorrez.

### IX. KAP.

1. Bizkitartean Demetriok jakin zueneko, Nikanor erori zela guduan bere armadarekin, manatu zituen Bakide eta Alzimo Judeara berriz itzultzeaz, eta hekiekin batean armadako indar handiena.

2. Eta goan ziren Galgalara daraman bideaz; kanpatu ziren Masalothen, Arbel-herrian, hiriaz nausitu ziren, eta hainitz gizoni galarazi ziozkaten biziak.

3. Zazpitan hogoi eta hamabigarren urtheko lehenbiziko hilabetean, Jerusalemerat hurbilarazi zuten armada.

4. Handik hogoi eta bi mila gizon eta bi mila zaldizko ilkhi eta goan ziren Bereara.

5. Eta Judas Laifan kanpatua zen hirur mila gizon hautekin.

6. Eta ikhusirik etsaien ostea, izitu ziren hainitz, askok ihes egin zuten kanpetarik, eta etzen hekietarik gelditu zortzi ehun gizon baizik.

7. Judasek ikhusi zuenean bere armada urthua, eta gudurat bortxatua zela, trenkatu zitzaion bihotza, zeren ez baitzuen bere lagun biltzeko astirik, eta besoak erori zitzaizkon.

8. Eta gelditu zirenei erran zioten: Jaiki gaiten eta goanen etsaietara, hean guduka ahal othe detzakegun.

9. Eta hekiek gibelatzen zuten, erranez: Ez gare gai, baina bakharrik egin dezagun gure bizien itzurtzera, eta itzul gaitzen gure anaietara, eta orduan gudukatuko gare horien kontra, ezen orai gutiegi gare.

10. Eta Judasek erran zuen: Urrun da holakorik eginen baitugu, horien aitzinean ihes goanen baikare! Ethorria bada gure orena, bihotzoiki hil gaitzen gure anaienzat, eta gure ospeari ez biozogu eratxik notharik.

11. Etsaia higitu zen kanpetarik, eta jarri zitzaioen Judasi bidean; zaldizkoak bi andanetan bereziak ziren; habalariak eta arranbelariak armada-aren aitzinean zihoazen, eta gothorren guziak lehenbiziko lerroan.

12. Bakide berriz, eskuinetik zen, eta bi aldeetarik andanak hurbiltzen hari ziren, turutak durrundatuz.

13. Aldiz, Judasen aldekoek ere jo zituzten turutak; armaden tarrapatik ikharatu zuen lurra, eta guduak iraun zuen goizetik arratserraino.

14. Judasek ikhusi zuen eskuinetik zela Bakideren armadako indar gogorra; bildu zituen bere ganat bihotz hazkarreneko gizon guziak;

15. Eta hautsi zuten eskuineko alde hura eta jo zuten hekien ondotik Azoteraino.

16. Baina ezkerreko buruan zirenek ikhusirik eskuina hautsia zela, jarraiki ziren gibeletik Judasi eta bere lagunei.

17. Eta gogortu zen gudua, eta batzuetarik eta bertzeetarik sarraskituak erori ziren asko.

18. Erori zen Judas ere, eta bertzeek ihesari eman zuten.

19. Jonathasek eta Simonek eraman zuten Judas, beren anaia, eta ehortzi zuten beren arbasoen hobian, Modingo hirian.

20. Israelgo populu guziak nigar egin zuen haren gainean; deithore handi bat egin zuten, eta auhendatu ziren asko egunez,

21. Erraten zutelarik: Nola da erori gizon botheretsua, Israelgo populua salbatzen zuena

22. Judasen gainerako egintzak guduetan, eta haren bihotz handia erakhusten dutenak, ez dire hemen iskribatuak, bazirelako hainitz sobera.

23. Eta Judas hil ondoan gerthatu zen, gaixtaginak alde orotarik atheratu zirela Israelen, eta jaiki zirela tzarkeria egile guziak.

24. Orduan gerthatu zen gosete bat gaitza eta Juduek beren buruak eta beren lur guzia ezarri zituzten Bakideren eskuetan.

25. Bakidek hautatu zituen gizon gaixtoak eta ezarri zituen lekhuko nausi.

26. Zokho guzietan bilhatzen zituzten Judasen adiskideak, eta eramaten ziozkaten Bakideri, zeina aspertzen baitzen hekien gainean, eta irriz jokhatzen zituen.

27. Israelen jarri zen hestura hain handia, non ez baitzen halakorik izatu, profetarik Israelen agertzen etzenaz geroztik.

28. Orduan Judasen adiskide guziak bildu ziren, eta erran zioten Jonathasi:

29. Zure anaia Judas hil denaz geroztik, ez da hura bezalako gizonik, Bakideren kontra eta gure jendakiaren etsaien kontra atheratzeko.

30. Orain beraz zu hautatu zaitugu haren orde gure aitzindari eta buruzagitzat gure gerlateetan manatzeko.



31. Jonathasek orduan hartu zuen manamendua, eta jarri zen bere anaia Judasen orde.
32. Eta Bakidek jakin zuen hori, eta bilhatzen zuen haren hiltzea.
33. Baina Jonathas, haren anaia Simon, eta harekin ziren guziak jakintsun egin ziren hortaz, eta ihes goan ziren Thekuako mortura, eta Aspharreko aintziraren ondoan gelditu ziren.
34. Bakidek jakin zuen, eta larunbat egun batez goan zen bera bere armada guziarekin Jordaneaz haindira.
35. Jonathasek igorri zuen bere anaia, populuko buruzagi zena, othoiztera Nabuthearrak, zeinak adiskide baitzituen, iduk ziozoten bere errementeria, ezen puska hainitz bazuen.
36. Baina Janbriren semeak Madabatik ilkhi ziren, atzeman zuten Joanes bere puska guziekin, eta hekien jabeturik goan ziren.
37. Horiez geroztik, berria ekharria izan zitzaioten Jonathasi eta haren anaia Simoni, Janbriren semeek eztei handi batzu egiten zituztela, eta burrunba handitan Madabatik laguntzen zutela andre esposa, Kanaango buruzagi handienetarik baten alaba.
38. Jonathas eta Simon orhoitu ziren beren anaia Joanesen odolaz. Goan ziren beraz, eta mendi baten gerizan gorde ziren.
39. Gero begiak goititurik, ikhusi zuten; eta hara harramantz handi bat eta bestaliar oste bat, eri hekien bidera heldu zirela jaun esposa, bere adiskideak eta anaiak, atabalekin, musikako tresnekin eta asko gizon harmaturekin.
40. Eta Juduak zelatetarik jauzi zitzaizkioten gainera; asko erori ziren sarraskituak, eta gelditu zirenek mendietara ihes egin zuten; eta Makabearrek hartu zituzten hekien buluzkin guziak.
41. Horreletan ezteiak aldatu ziren deithoretara, eta musika-otsak auhenetara.
42. Eta aspertu zuten beren anaiaren odola, eta itzuli ziren Jordane-hegira.
43. Bakidek aditu zuen hori eta indar handitan ethorri zen Jordane-bazterrera larunbat egun batez.
44. Orduan Jonathasek erran zioten bere lagunei: Jaik gaitezen eta gudu demoguten gure etsaiei, ezik egun ez da atzo eta herenegun bezala.
45. Huna ezen aitzinetik gerla, hortik eta hemendik berriz, Jordaneko ura, eta latsak, eta aintzirak, eta oihanak, eta nihondik itzurpiderik ez.
46. Orai beraz zeruari egiozue deihadar, athera zaitzaten zuen etsaien aztaparretarik. Eta abiatu zen gudua.

47. Jonathasek hedatu zuen eskua Bakideren jotzeko; baina itzuri zitzaioen, gibelat egin.
48. Jonathasek eta bere lagunak jauzi egin zuten Jordanera, eta etsaien aitzinean igerika goan ziren haindira.
49. Egun hartan Bakideren aldetik erori ziren mila gizon. Bertzeak itzuli ziren Jerusalemara.
50. Hiri hazkarrak egin zituzten Judean; eta Jerikon, Amausen, Bethoronon, Bethelen, Thamnaton, Pharan eta Thopon ziren hazkargailuak segurtatu zituzten harrasi gorez, athe eta zerrapoz.
51. Eta Bakidek ezarri zituen hekietan zeinak, etsaigoan haritzeko Israelen.
52. Hazkartu zituen halaber Bethsurako hiria, eta Gazara, eta gaztela; eta hekietan ezarri zituen laguntzak eta behar zen bezenbat jateko.
53. Bahitzat hartu zituen tokiko handien semeak, eta Jerusalemgo gazteluan zaintzera eman zituen.
54. Zazpitan hogoi eta hamahirugarren urthean, bigarren hilabethean, Alzimok manatu zuen barneko etxe sailduaren harrasiak eta profeten lanak urratuak izan zitezten; eta hasi ere zen urratzen.
55. Baina ordu berean Jaunaren eskuak ukitu zuen, eta haren lana tratatua izan zen; haren ahoa hertsia izan zen, bera enblaitua, eta geroztik ezin egin zuen hitz bat, ez-eta bere etxean manatu.
56. Alzimo hil zen orduan oinhaze handien erdian.
57. Bakidek ikhusi zuen Alzimo hil zela; itzuli zen erregeren gana, eta bi urthez etzen harrabotsik izan Israelgo lurrean.
58. Eta gizon gaixto guziek asmu bat egin zuten, zerratelarik: Huna bakean eta gogoazabalik daudezela Jonathas eta harekilakoak; orai beraz erakhar dezagun Bakide, eta gau batez atzemanen ditu guziak.
59. Eta goanik, hori eman zioten burutara.
60. Jaiki zen, armada handi batekin ethortzeko; gutunak ixilik bidali ziozkaten Judean zituen lagunei, harrapa zezaten Jonathas harekin ziren guziekin. Baina hori ezin egin zuten, nabaritu izan zelako hekien asmua.
61. Jonathasek atzeman zituen lekhuko gizonetarik berrogoi eta hamar, maltzurkeria hortako buruzagiak, eta hilarazi zituen.
62. Eta goan zen Simonekin eta bere lagunekin Bethbesenera, zeina mortuan baita; eta altxatu zituen hango harrasi urratuak, eta hazkartu zuen ongi.
63. Bakidek jakin zituen horiek; bildu zuen bere armada; eta Judean alde zituenei gaztiaturik,



64. Ethorri zen eta kanpak jarri zituen Bethbesengo gaineko aldean; sethiatu zuen asko egunez eta gerlako errementak altxatu.

65. Bainan Jonathasek hirian utzi zuen Simon bere anaia; ilkhi zen bazterretara, eta goan gizon moltzo batekin.

66. Jo zituen Odaren eta haren anaiak eta Phaseronen semeak beren olhetan; eta hasi zen etsaien xahutzen eta indarretan sartzen.

67. Simon berriz, eta haren lagunak hiritik jauzi ziren, etsaiari erre ziozkaten gerlako tresnak,

68. Eta gudukatu ziren Bakideren kontra, zeina garhaitua izan baitzen; eta atsekabe handia eman zioten, zeren urmariatuak baiziren haren asmuak, eta alfertuak haren urhatsak.

69. Hargatik sumindua beren herrira erakharri zuten gizon gaixtoen kontra, hilarazi zituen asko; berak aldiz, gogoan iharduki zuen armada ondarrarekin bere lurrera itzultzea.

70. Nabaritu zuen Jonathasek, eta bidalkinak igorri ziozkan bakeaz antolatzeke eta hari presonieren bihurtzeko.

71. Gogotik onhetsi zuen Bakidek; Jonathasen solasetara erori zen, eta zin egin zuen bere bizian etzioela den-gutieneko bidegaberik eginen.

72. Bihurtu ziozkan, aitzinean Judako lurrean preso altxatu zituenak; itzulirik goan zen bere lurrera, eta etzen gehiago udeara ethortzerat abiatu.

73. Horrela ezpata baratu zen Israeldik. Jonathasek Makmasen egin zuen bere egoitza; han hasi zen populuaren juiatzen, eta Israeldik xahutu zituen gaixtaginak.

## X. KAP.

1. Zortzitan hogoigarren urthean agertu zen Alexandro, Antioko Zoharraren, eta Ptolemaidan nausitu zen. Han onhetsi zuten eta erreginatzen hasi zen.

2. Aditu zuen Demetrio erregeak, eta bildurik armada bat gaitza, bidera ilkhi zitzaioen gudukatzera.

3. Jonathan berriz, bidali zioen gutun bat zeintan ederresten baitzuen eta bakezko solasak ematen.

4. Ezen erraten zuen: Aitzin gaitezen horrekin bakearen egitera, Alexandroekin gure kontra egin dezan baino lehen.

5. Alabainan orhoituko da guk hari, haren anaiari eta herritarrei egin diozkiguten gaizki guziez.

6. Armada baten biltzeko eta harma egiteko eskua eman zioen; deithu zuen bere batasunera, eta manatu zuen emanak izan zakizkion gazteluan bahi zauden haurrak.

7. Jonathas ethorri zen beraz Jerusalemara, eta gutunak irakurtu zituen populu guziak eta gazteluan zirenek aditzen zituztelarik.

8. Eta beldur handiak hartu zituen aditu zutenean erregek ematen zioela armada baten biltzeko eskua.

9. Bahiak Jonathasen eskuetara emanak izan ziren, eta bihurtu zituen beren burhasoei.

10. Jonathasek Jerusalemen egin zuen bere egoitza. Hasi zen hiriaren altxatzen eta berritzen;

11. Eta lanetan hari zirenei erran zaroten, lau pikotako harriz harra-siak altxa zetzazten Siongo mendiaren inguruan ere haren hazkartzeko; eta hala egin zuten.

12. Orduan Bakidek egin hazkargailuetan ziren arrotzek ihes egin zuten.

13. Batbederak utzi zuen bere tokia, eta bere herrira goan zen.

14. Bakharrik, legea eta Jainkoaren manamenduak utzi zituztenarik zenbait gelditu ziren Bethsuran; ezik hura zen hekien ihes-lekhua.

15. Bizkitartean Alexandro erregeak aditu zituen Demetriok Jonathasi egin agintzak; erran ziozkaten Jonathasen eta haren anaien guduak eta balentriak, eta hekiek erabili nekheak.

16. Eta erran zuen: Atzeman othe dezakegu halako bertze gizon bat? Orai eginen dugu beraz gure adiskide eta gure batasundun.

17. Eta iskribatu eta bidali zioen gutun bat, hunela mintzo zena:

18. Alexandro erregeak bere anaia Jonathasi, agur.

19. Entzun dugu zutaz, gizon bat zarela indar handien jabea, eta gure adiskide izatea merezi duena.

20. Hargatik egun ezartzen zaitugu zure jendakiaren aphez-handi; nahi dugu deith zetzazten erregeren adiskidea (eta bidali ziozkan purpura eta urhezko khoroa), eta gureaz dihoan gauzetan gurekin izan zaitezten, eta gure alderat begira dezazun adiskidetasuna.

21. Zortzitan hogoigarren urthean, zazpigarren hilabethean, tabernakleetako besta egunean, Jonathasek jauntzi zuen soineko saildua; bildu zuen armada bat, eta eginarazi harma hainitz.

22. Demetriok jakin zuen hori, eta guzia atsekabetan, erran zuen:

23. Zer egin dugu, utzi baitugu Alexandro aitzintzera, Juduen adiskidetasunaren atzematera bere hazkargarri?



24. Nik ere iskribaturen diozkatet solas onak eta eskainiren diozkatet karguak eta emaitzak, enekilako izan ditezen laguntza emateko.
25. Huneletan iskribatu zioten beraz: Demetrio erregeak Juduen jendakiari, agur.
26. Entzun dugu eta boztu gare jakiteaz begiratu duzuela gurekilako patua, gure adiskidetasunean gogor egotu zaretela, eta gure etsaien gana etzaretela hurbildu.
27. Orai beraz iraun zazue aitzina gure alderako zintasunean, eta guretzat eginen duzuenaren saria bihurturen darotzuegu.
28. Zuen bizkar diren asko gauzak arinduren zaituztegu, eta emaitzak eginen darozkitzuegu.
29. Egundanik zuek eta Judu guziak zergetarik gabetzen zaituztet, barkhatzen darozkitzuet gatz sariak, eta uzten darozkitzuet khoroen eta hazi herenen zuzenak.
30. Uzten darotzuet halaber zuhaitzen fruituen erdia, zeina enea baita; eta hori egundanik eta gerorat, ez dadientzat altxatua Judako lurreen, ez-eta Samariatik eta Galileatik Judeari eratzikiak izan diren hirur hirietan; egungo egunetik, egun-eta-iguzki.
31. Jerusaleme izan bedi saildu eta pelut bere eremu guziarekin; eta harentzat izan beitez hamarrenak eta zergak.
32. Bihurtzen dut halaber Jerusalem den gazteluaren nausitasuna, eta hura ematen diot aphez-handiari, hartan ezar detzan berak hautatuko dituen gizonak haren zaintzeko.
33. Eta urrurik uzten ditut libro Judako lurretik ene erresuman gathibu diren guziak, izan ditezen oro zergetarik garbi, bai-etare beren azien-den zergetarik,
34. Besta-buru guziak, larunbatak, hilabete baxhotzeko lehen eguna, egun bestatuak, eta besta-buruen aitzineko hirur egunak eta ondo-ko hirurak, izan beitez oro salbuespenetzko eta barkhamenduzko egunak ene erresuman diren Judu guzientzat;
35. Eta hekiatarik norbaiten kontra eta nola-nahiko ariaz, nihork ez du orduan ahalik izanen zerbaiten egiteko, eta edozein egitekoren higitzeko.
36. Eta Juduetarik erregeren armadan sarthuren dire hogoi eta hamar mila gizonetaraino, eta mantenatuak izanen dire erregeren armada guziei dagokioten bezala, eta hekiatarik batzu bereziak izanen dire errege handiaren hazkargailuetan egoteko.
37. Fidantzia galdatzen duten erresumako egitekoen buruan izanen dire ezarriak hekiatarik zenbait; buruzagiak izanen dituzte beren artekoe-

- tarik, eta beren legetan ibiliko dire, erregek Judako lurrekotzat manatu duen bezala.
38. Eta Samariako eremuetarik berhatuak izan diren hirur hiriak, Judeako izanen dire idukiak; buruzagi bakhar baten azpian egon ditezen, eta aphez-handiaren buruzagitasunaz bertzerik ezagut ez dezaten.
39. Ptolemaida eta bere eremuak ematen ditut Jerusalemgo lekhu sailnduei, gauza sailnduentzat behar diren gastuen egiteko;
40. Eta urthe oroz emanen ditut hamabortz mila siklo zilharrezko, niri darontzotan hartzekoetarik;
41. Eta Jaunaren etxeko lanentzat emateko gelditu den guzia, aitzineko urtheetan kargutan zirenen aldetik, berehala izanen da emana.
42. Eta sailndutegiko bilkinetik urthe oroz hartzen zituzten bortz mila siklo zilharrezkoak, izan beitez eginbideetan zerbitzatzen diren aphezentzat.
43. Eta erregeren alderat nola-nahiko ariaz hobendun izanez, Jerusalemgo tenplora eta hango eremuetara ihesegin duten guziak izan beitez barkhatuak, eta ene erresuman dituzketen on gaziez izan bezate gozamen garbia.
44. Eta lekhu sailnduetako lanen egiteko edo berritzeko behar den dirua, erregeren zuzenatarik izanen da emana;
45. Eta halaber Jerusalemgo harrasien egitekoa, eta inguruan hekien hazkartzekoa, eta Judean harrasien altxatzekoa erregeren khutxan hartuko dire.
46. Bainen Jonathasek eta populuak aditu zituztenean solas horiek, etzaroeten sinhesterik eman; eta etzituzten onhetsi; ezen orhoit ziren Demetriok Israeli egin gaizki handiez, eta hestura gaitzean iduki zituela.
47. Nahiago izan zuten Alexandroren aldea atxiki, zeren hura bera abiatu baitzitzaioten lehenik bakeaz mintzatzen, eta handik harat hura lagundu zuten bethi.
48. Alexandro erregeak aldiz armada handi bat bildu zuen, eta goan zen Demetrioren kontra.
49. Eta bi erregeak gudutan lothu ziren; Demetrioren armadak ihes egin zuen; ondotik goanik, Alexandro jauzi zitzaioten gainera.
50. Gudu gaitzak iraun zuen iguzkia sarthu arteo, eta egun hartan ezpataren azpira erori zen Demetrio.
51. Gero Alexandrok bidalkinak igorri ziozkan Egiptoko erregeri hunelako solasekin:



52. Nola bihurtu bainaiz ene erresumara, eta jarri bainaiz ene arba-soen tronuan, eta ardietsi baitut nausitasuna Demetrio garhaiturik, eta gure tokiez jabeturik

53. Ezen gudu eman diot, eta bera eta bere armada xahutuak izan dire, eta jarri naiz harek zadukan errege-tronuan.

54. Egin detzagun orai elkharrekin adiskidantzak; indazu zure alaba emaztetzat, eta zure suhia izanen naiz, eta hari eta zuri eginen darozkitzuet zuei dagozkitzuen emaitzak.

55. Eta Ptolemeo erregeak ihardetsi zioen: Zorionezkoa eguna, zeintan bihurtu baitzare zure arbasoen lurrera, eta jarri hekien erresumako tronuan

56. Eginen dut orai zuk iskribatu duzuna; bainan bidera zatorzkit Ptolemaidaraino, ikhus dezagun elkhar, eta alaba emaztetzat eman dezazudan, zuk galdatu bezala.

57. Ptolemeo ilkhi zen beraz Egiptotik bere alaba Kleopatrekin, eta ethorri zen Ptolemaidara, zortzitan hogoi eta bigarren urthean.

58. Alexandro erregea atheratua zen bidera eta Ptolemeok eman zioen bere alaba Kleopatra. Ezteiak egin zituzten Ptolemaidan, erregeek ohi duten bezala ospe handiaren erdian.

59. Alexandro erregeak iskribatu zioen Jonathas athera zakioen bidera.

60. Jonathas osperekin goan zen Ptolemaidara; bi erregeen aitzinera agertu zen; eman zioten urhe, zilhar eta emaitza asko; eta begitharte aurk-hitu zuen hekien aitzinean.

61. Eta gizatar, gizon gaixto batzu haren kontra bildu eta jazarrika haritu ziren; bainan erregek etzituen entzun.

62. Eta manatu zuen Jonathasi khen ziotzoten bere soinekoak eta purpuraz jauntz zezaten; eta hala egina izan zen, eta erregek bere aldean jarrarazi zuen.

63. Eta bere azpiko aitzindariet erran zioten: Ilkhi zaitezte Jonathasekin hiriaren erdira, eta oiuhu egizue nihor ez dadien hunen kontra edozein egitekoz jazartzen abia, eta niholaz-ere nihor ez dakioen izan khexagarri.

64. Eta ikhusi zutenean haren ospea, eta hartaz erantzuten zituzte-nak eta purpuraz jauntzia zela, ihes egin zuten haren jazarle guziek.

65. Eta erregek ohoretan altxatu zuen eta haren izena iskribatu zuen bere adiskide mamienean arteko, eta ezarri zuen buruzagi eta jauntasunean phartedun.

66. Eta Jonathas bake eta bozkariorekin itzuli zen Jerusalemara.

67. Zortzitan hogoi eta bortzgarren urthean, Demetrio, Demetrioren semea, Kretatik ethorri zen bere arbasoen lurrera.

68. Alexandro erregeak aditu zuen berria; atsekabe handia izan zuen, eta Antiokiara bihurtu zen.

69. Demetrio erregeak buruzagi ezarri zuen Apolonio, Zelestrian manatzen zuena; armada handi bat bildurik, Apolonio hurbildu zen Jamniara, eta Jonathas aphez-handiari igorri zuen

70. Erratera: Hi bakharra haiz guri zeiherrera atheratzen haizena; ni berriz, irrigarri eta laidagarri egin naiz horren gatik, zeren gure kontra ihardukitzen dukan mendietan.

71. Orai beraz, gai badadukak hire burua, jauts hadi gure gana ordo-kira; han hazta dezagun elkhar, ezen enekin duk gudueta indarra.

72. Galda zak eta ikhasak nor naizen ni, eta nor diren zure lagunak, zeinek baiterrate hire oinak ezin eginen duela gogor gure aitzinean, zeren hire aitek bi aldiz beren lurrean jo baitute ihesari.

73. Eta orai nola egin hiozokete buru zaldieriari eta hunenbateko armadari, harririk eta gerendarik eta ihes-lekhurik ez den zelhaiean?

74. Jonathasek berriz, solas horiek aditu zituenean, erresumin hartu zuen bihotzean; hamar mila gizon hautaturik, ilkhi zen Jerusalemdik; eta Simon, bere anaia, ethorri zitzaioen laguntzera.

75. Jopeko ondoan landatu zituzten kanpak; bainan hiriak kanpotik utzi zituen (ezen Apolonioentzat zaindua zen), eta Jonathasek sethiatu zuen.

76. Eta hirian zirenak izitu ziren, eta ideki zituzten atheak, eta horre-letan Jonathasek hartu zuen Jope.

77. Apoloniok aditu zuen hori eta bidetari eman zen hirur mila zaldizko eta armada handi batekin.

78. Bide nabar bezala goan zen Azoteko aldera, eta berehala ilkhi zen ordokira, zeren zaldizko hainitz baitzuen, eta hekietan baitzuen bere sin-hestea. Jonathas jarraiki zitzaioen Azotera, eta gudutan lothu ziren.

79. Apoloniok ixilik kanpetan utzi zituen mila zaldizko Juduen gibelean.

80. Jonathasek jakin zuen zelatak bazituela gibeletik; etsaiak ethorri ziren haren kanpen ingurua, eta goizetik arratseraino geziak arthiki zituzten populuaren gainera.

81. Bainan populua higitu gabe zagoen, Jonathasek manatu bezala; eta nekhatu ziren etsaien zaldiak.

82. Orduan Simonek ilkhiarazi zuen bere armada eta gudu eman zioten oinezkoei, ezen nekhatuak ziren zaldizkoak; eta xahutua izan zen etsaia eta ihesari eman zen.





83. Bazterrak gaindi barriatuak zirenek Azotera ihes egin zuten, eta beren idola Dagonen tenploan sarthu ziren, han zaintzeko beren biziak.

84. Bainan Jonathasek su eman zioten Azoti eta haren inguruko hiriei, eta eraman zituen hekiek buluzkinak; Dagonen tenploa ere erre zuen harat ihes egin zuten guziekin.

85. Eta ezpataren azpira erori zirenak erreak izan zirenekin, baziren zortzi mila gizon hurbil.

86. Handik Jonathasek kanpak higitu eta Askalongo ondora eraman zituen; eta hirikoak ilkhi zitzaizkon bidera, ohore handiak egin.

87. Jonathas Jerusalemera bihurtu zen bere armadarekin, zeinak baitzakharkan buluzkinketa handi bat.

88. Alexandro erregeak jakin zituenean horiek, ohore handiagoak eman ziozkan oraino Jonathasi.

89. Igorri zioen urhezko gantxo bat, errege-odoleko direnei ematen ohi den bezalakoa; eta beretzat eman ziozkan Akaron eta hango eremu guziak.

## XI. KAP.

1. Bada, Egiptoko erregek bildu zuen armada bat, itsas-bazterrean den legarra iduri, eta bertzalde untziketa handi bat; eta bilhatzen zuen Alexandroren erresumaz zimarkhuz jabetzea, eta hura bere erresumari iratxikitzea.

2. Eta bakezko solasekin ilkhi zen Siriara, eta hiriek zabaltzen ziozkaten atheak, eta bidera atheratzen zitzaizkon; zeren Alexandro erregeak manatu baitzuen goateaz haren bidera, bera haren suhia zelakoz.

3. Bainan hiri batean sarthu orduko, Ptolemeok zainak ezartzen zituen hiri bakhotxean.

4. Eta Azotera ethorri zenean, erakhutsi zioten Dagonen tenploa suz errea, Azot bere hiripeekin urratua, gorphutzak lurrean etzanak, eta gerlan hilak izan zirenen hobiak bide-bazterretan eginak.

5. Eta erran zioten erregeri, hari gaitzirizko eman nahiz, Jonathasen lanak zirela hekiek oro; bainan errege ixilik gelditu zen.

6. Jonathas berriz, osperekin ethorri zen Jopera, erregeren bidera; elkharri agur egin zioten, eta han eman zuten gaua.

7. Jonathas erregerekin goan zen Elutheroa deitzen den ibaieraino, eta itzuli zen Jerusalemera.

8. Ptolemeo erregeak hareletan ardietsi zuen hirietako nausitasuna Seleuzia itsasokoraino, eta asmu gaixtoak zerabilzkan Alexandroren kontra.

9. Bidalkinak igorri ziozkan Demetriori, gaztiazten zioelarik: Zato, gure artean xuxen dezagun batasun bat; emanen darotzut ene alaba Alexandrok zuena, eta erreginaturen zare zure aitaren erresuman;

10. Urriki dut ezen hari ene alaba emanik, zeren ene hiltzea bilhatu baitu.

11. Haren erresumaz jabetu nahi zelakoz, beltzatzen zuen horrela.

12. Eta khendu zioen bere alaba, eta eman zioen Demetriori; Alexandroren ganik atzetu zen, eta orduan agertu zen haren etsaitasuna.

13. Ptolemeo Antiokian sarthu zen eta bere buruaren gainean ezarri zituen bi khoro, Egiptokoa eta Asiakoa.

14. Bada Alexandro erregea Zilizian zen orduan, zeren toki hekiekan bihurri egin baitzuen populuak.

15. Alexandrok jakin zituen Ptolemeoren berriak eta ethorri zitzaioen gudu ematera. Ptolemeok atheratu zuen bere armada; indar handitan goan zitzaioen Alexandrori bidera, eta ihes igorri zuen.

16. Alexandro Arabiara ihes goan zen, han geriza aurkhitzea gatik; Ptolemeo erregea berriz, nausi gelditu zen.

17. Bainan Alexandrori burua khendu zioen Zabdiel Arabiarrak, eta Ptolemeori igorri zioen.

18. Handik hirugarren egunean hil zen Ptolemeo erregea; eta harek hazkargailuetan ezarri gizonak sarraskituak izan ziren kanpetakoez.

19. Eta zortzitan hogoi eta zazpigarren urthean erregetu zen Demetrio.

20. Ordu hekiekan Jonathasek bildu zituen Judean zirenak, Jerusalemen zen gazteluaren hartzeko; eta gazteluaren kontra egin zituzten tresna asko.

21. Bainan beren herria higuin zuten gaixtagin batzu goan ziren Demetrio erregearen gana eta salhatu zioten Jonathasek sethiatzen zuela gaztelua.

22. Aditu zuenean, hasarretu zen Demetrio; berehala ethorri zen Ptolemaidara, eta Jonathasi iskribatu zioen etzezan gaztelua sethia, bainan bidera ethor zakioen laster solas egitera.

23. Jonathasek berriz, aditu zuenean hori, manatu zuen sethioari jarraitzea; Israelgo zaharretarik eta aphezetarik hautatu zituen zenbait, eta galtzeko zoriari eman zioen bere burua.

24. Hartu zituen urhe, zilhar, soineko eta bertze emateko gauza asko, eta Ptolemaidara goan zen erregeren gana, eta begitharte aurkhitu zuen haren aitzinean.



25. Jonathasen kontra jazartzen zuten haren herritarretarikako gaixtagin batzuek;
26. Bainan erregek Jonathasi egin zioen aitzineko erregeek bezala, eta ohore eman zioen bere adiskide guzien aitzinean.
27. Gogortu zuen aphez-buruzagigoan eta lehenago izatu zituen bertze ohore guzietan, eta bere adiskideetan buruko ezarri zuen.
28. Jonathasek galdatu zioen erregeri zergak khen zetzan Judeatik, hirur toparkietarik, Samariatik eta Samariako eremuetarik; eta agindu ziozkan hirur ehun talendu.
29. Erregek eman zuen bere baia; eta horietaz orotaz Jonathasi iskribatu ziozkan hunela mintzo ziren gutunak:
30. Demetrio erregeak bere anaia Jonathasi eta Juduen jendakiari, agur.
31. Lasthene gure ahaideari zuetaz iskribatu diogun gutunaren kopia igortzen darotzuegu, ezagut dezazuen.
32. Demetrio erregeak Lasthene bere ahaideari, agur.
33. Gure adiskide Juduen jendakiari, guri zor zaikuna gure alderat idukitzen dutenei, ongi egiteko xedetan gare, berek gure alderat erakhus-ten duten ongi-nahiaren gatik.
34. Erabaki dugu beraz Judeako eremu guziak, eta hirur hiriak, Lida eta Erramatha, Samariatik judeari eratzikiak direnak, beren eremu guziekin, bereziak izanen direla, Jerusalem sakrifikatzen hari direnentzat, erregeri emateko bidean, aitzinean handik urthe oroz izaten zituen zergak, lurreko eta zuhaitzetako fruituak.
35. Eta oraidanik uzten daroeztegu erregeren bertze zuzenak hamarrenetan eta zergetan, eta halaber gaztegiak eta ekhartzen zarozkiguten khoroak.
36. Horiek oro ematen diozkategu, eta gure emaitzetarik bat ez da alferra izanen oraidanik eta gero guziraino.
37. Orai beraz artha har zazue erabaki hunen kopia baten atheratze-ko; eta Jonathasi emana izan bekio, eta ezar bezate mendi sainduan, lek-hurik agerienean.
38. Orduan Demetrio erregeak ikhusirik lur guzia ixildu zela haren aitzinean, eta nihork etzioela buru egiten, bere armada guzia igorri zuen, soldado bakhotxa bere herrira, lekhat armada arrotza, jendaien irletarik erakharri zuena; eta bere aiten armadetarik hanbat etsai egin zuen.
39. Bada, Triphon, aitzinean Alexandroren aldea iduki zutenetarik bat zen. Ikhusi zuen armada guziak Demetrioren kontra marmaratz

- zuela, eta goan zen Emalkuel Arabiarraren gana, zeinak hazten baitzuen Antioko, Alexandroren semea;
40. Eta premiatzen zuen eskuetara eman ziozon Antioko, erregina zadientzat bere aitaren orde. Erran ziozkan Demetriok egin zituen guziak eta nolako gaitzirizkoan zen armada haren kontra. Eta Triphon han egotu zen egun luzez.
41. Bizkitartean Jonathasek Demetrioren gana norbait igorri zuen othoiztera khen zetzan Jerusalemgo gazteluan eta bertze hazkargailuetan ziren gizonak, zeren gerla egiten baitzieten Israeli.
42. Eta Demetriok hau gaztiatu zioen Jonathasi: Eginen dut zuretzat eta zure jendakiarentzat ez hori bakharrik, bainan oraino ospetan ezarri-ren zaituztet zu eta zure jendakia, hortako dathorkeenean ordu ona.
43. Orai beraz ongi eginen duzu zure gizonetarik ene laguntzera bidaltzea, zeren urrundu baitzait ene armada guzia.
44. Eta Jonathasek Antiokiara igorri zituen hirur mila gizon biphiletarrik; eta goan ziren erregeren gana, eta erregek atsegin handi izan zuen hekien ethortzeaz.
45. Orduan elkharren gana bildu ziren hiritarrak, sei hogoi mila gizon, eta hil nahi zuten errege.
46. Erregek bere jauregira ihes egin zuen; hiritarrak jabetu ziren hiriko karrizez, eta gudukan hall ziren.
47. Erregek laguntzara deithu zituen Juduak; haukiek oro batera bildu ziren erregeren ingurura; hiria gandi barraiatu ziren,
48. Eta egun hartan hil zituzten ehun mila gizon. Su eman zioten hiriari, bildu zuten buluzkinketa gaitza, eta libratu zuten errege.
49. Hirikoek ikhusirik Juduak nausitu zirela hiriaz, eta nahi zutena egiten zutela; galdu zuten bihotz guzia, eta erregeri deihadar egin zioten othoizka, eta erranez:
50. Iguzu eskua, eta Juduak geldu beitez gerla egitetik guri eta gure hiriari.
51. Eta arthiki zituzten harmak, eta egin zuten bakea. Juduek ospe atheratu zuten erregeren eta haren erresumako guzien aitzinean, eta aip-hamen handitan izan ziren erresuman, eta buluzkinez betherik bihurtu ziren Jerusalemara.
52. Horreletan Demetrio gogortu zen bere tronuan, eta lurra ixildu zen haren aitzinean.
53. Bainan gezur egin zioten eman zituen hitz guziei; urrundu zen Jonathasen ganik, eta haren ganik izan zituen ongiak sariztatu behar bidean, gaizki hainitz egiten zioen.



54. Bainan geroxago bihurtu zen Triphon, eta harekin Antioko gaztea, zeina errege egin baitzen; eta khoroa ezarri zuen buruan.
55. Haren gana bildu ziren Demetriok barriatu zituen armada guziak; gerla eman zioten Demetriori, zeinak ihesari eman eta itzuri baitzen.
56. Triphonek hartu zituen elefantak eta nausitu zen Antiokiaz.
57. Eta Antioko gazteak Jonathasi iskribatu zioen huneletan: Ematen darotzut aphez-handigoa, eta lau hirien gaineko manamendua, erregeren adiskideetarik izan zaitezten.
58. Igorri ziozkan urhezko untzi batzu bere zerbitzuko, eta eman zioen zuzena urhezko untzian edatekoa, purpuraz jaunztekoa eta urhezko gantxoaren erabiltzekoa;
59. Eta haren anaia Simon, buruzagi ezarri zuen Tirreko mugetarik Egiptokoetaraino.
60. Orduan Jonathas ilkhi zen, eta iragan zen ibaiaz haindiko hiriak gaindi. Siriako armada guzia haren gana bildu zen haren laguntzeko; Askalonera goan zen, eta hiritarrak ohore egitera ethorri zitzaizkon bidera.
61. Handik Gazara goan zen, eta hirian zirenek hertsu zioten athea. Jonathasek sethiatu zuen hiria, eta inguru guziak erre eta larrutu zituen.
62. Orduan Gazarrak othoizka jarri zitzaizkon Jonathasi, zeinak eskua eman baitzioten; bahizat hartu ziozkaten semeak; igorri zituen Jerusalemara, eta aurkhintza guzia iragan zuen Damaseraino.
63. Bainan Jonathasek aditu zuen Demetrioren aldeko buruzagiek bihurri egin zutela Kadesen, zeina Galilean baita, armada handi batekin, hura erresumako egitekoetarik urrundu beharrez.
64. Jonathas goan zitzaioten bidera; bere anaia Simon utzi zuen aldiz lekhuaren zain.
65. Simon hurbildu zen Betsurara; asko egunez jazarri zioen hiriarri, eta sethiatu zituen han zirenak.
66. Eta hekiek galdatu zioten eskua, eta eman zioten; eta handik khendu zituen, hartu zuen hiria, eta barnean ezarri zituen zainak.
67. Bizkitartean Jonathas eta bere armada hurbildu ziren Jenesarreko urera; eta argi aitzinean jaikirik jo zuen Asorgo zelhaiera.
68. Eta hara etsaien armada heldu zitzaioela bidera, eta mendietan hedatu ziozkan zelatak; hura berriz, buruz goan zitzaioten.
69. Bainan zelatetan zirenak jaiki ziren beren tokietarik, eta hasi zuten gudua.
70. Jonathasen aldekoek ihes egin zuten guziek, eta etzen hekietarik nihor gelditu bi gizon baizik, Mathathias, Absalomen semea, eta Judas, Kalphiren semea, armadako buruzagia.

71. Jonathasek urratu zituen bere soinekoak, lurra arthiki zuen buruaren gainera eta othoitz egin zuen.
72. Gero etsaiari itzuli zitzaioen gudukatzerara, gibelaz itzularazi eta ihes igorri zituen.
73. Eta haren aldeko ihes egin zutenek ikhusi zuten; itzuli ziren haren gana, eta harekin goan ziren guziak etsaiak Kadesen zituen kanpetara eta haraino heldu izan ziren.
74. Egun hartan, arrotzetarik hirur mila gizonen jo zuten lurra; eta Jonathas bihurtu zen Jerusalemara.

## XII. KAP.

1. Jonathasek ikhusi zuen denborak laguntzen zuela; hautatu zituen gizonak, eta Erromara bidali zituen, hangoekin adiskidantzen egitera eta berritzera.
2. Eta hala-halako gutunak igorri ziozkaten Espartarrei eta bertze zenbaiti ere.
3. Bidalkinak goan ziren beraz Erromara; biltzarrean sarthu ziren eta erran zuten: Jonathas aphez-handiak eta Juduen jendakiak zuen gana igorri gaituztete, zuekin berritzeko adiskidantzak eta batasuna, lehengoaren arara.
4. Eta Erromarrek eman ziozkaten gutunak toki bakhotxeko, Judeara lagunduak izan zitezten bakean.
5. Huna Jonathasek Espartarrei iskribatu gutunaren kopia:
6. Jonathas aphez-handiak, populuko zaharrek, aphezek eta Juduen gainerako populuak, anaia Espartarrei, agur.
7. Duela aspaldi Ariok, zuen gainean erreginatzen zenak, gutunak igorri izan ziozkan Onias aphez-handiari, nola gure anaiak zareten, beherrago emana den ageriak dadukan bezala.
8. Eta Oniasek ohorezki hartu zituen zuen bidalkina eta gutunak zeinek ezagutarazten baitzituzten zuekilako adiskidantza eta batasuna.
9. Guk aldiz, horrelako gauzen eskasik ez ginduen arren, gozakarizat gintuelako zure eskuetan diren liburu sailduak,
10. Nahiago izan dugu zuen gana bidali anaiatasunaren eta adiskidantzen berritzera, beldurrez-eta atze bilhaka gintezen elkarri; ezen urthe asko iragan dire, gure gana igorri duzuenaz geroztik.
11. Gu beraz ordu guzietan, hutsarterik gabe, besta-buruetan, eta bertze behar zirenetan, zuetaz orhoitu gare eskaintzen ditugun sakrifizioetan eta zeremonietan, ongi eta egoki den bezala anaiez orhoitzea.
12. Hargatik bozten gare zuen ospez.



13. Gu aldiz asko hesturaz, asko guduz izatu gare inguratuak, eta jazarri izan darokute gure inguruetako erregeek.
14. Bainan gudu hekietan ez dugu nahi izan ez zuen, ez bertze gurekilako batasundunen eta gure adiskideen behargarri izan.
15. Ezen zerutik izan dugu laguntza; hesturetarik atheratuak gare eta beheititua da etsaia.
16. Hautatu ditugu beraz Numenio, Antiokoren semea, eta Antipater, Jasonen semea, eta igorri ditugu Erromarren gana, leheneko adiskidantza eta batasunen berritzaera.
17. Hargatik manatu diotegu zuen gana ere ethortzen gure goraintziekin, eta bihur detzatzauden gure anaiatasunaren berritzaipenaren ariazko gutunak.
18. Eta orai atsegin eginen darokuzue gure solasei ihardestea.
19. Huna Ariok Oniasi igorri gutunetan iskribatua zena:
20. Ario, Espartarren erregeak Onias aphez-handiari, agur.
21. Espartarrez eta Juduez aurkhitua izan da iskribu batean anaiak direla eta Abrahamen odoletik.
22. Eta orai gauza hortaz argitu garenaz geroztik atsegin eginen darokuzue, guri iskribatuz zuen berri onak.
23. Guk aldiz hau gaztiazten darotzuegu: Gure aziendak eta gure ontasunak zuenak dire, eta zuenak gureak: hargatik manatu dugu gauza horietaz izan zaitezten jakintsun eginak.
24. Bizkitartean Jonathasek aditu zuen Demetrioren aldeko buruzagiak bihurtu zirela lehengo armada baino hainitz handiago batekin, hari gerla egiteko asmutan.
25. Eta Jerusalem dik ilkhirik, Jonathas bidera goan zitzaioten Amatheko ephaitzara, ezen bere eremuetara heltzeko astirik etzioten utzi.
26. Hekien kanpetara igorri zituen ikhusketariak; eta itzuli ziren berriarekin etsaiak hartu zuela haren gainera gabaz bat-batean erortzeko asmua.
27. Iguzkia etzan zenean beraz, Jonathasek manatu zioten bere gizonnei gau guzian egon zitezen ernerik, harmetan eta gudurat abian; eta zainak ezarri zituen kanpen inguruan.
28. Etsaiek nabaritu zuten Jonathas bere gizonekin jarria zela guduko, eta lotsatu ziren; beldurrak hartu zuen hekien bihotza, eta suak biztu zituzten beren kanpetan, eta gibelerat egin zuten.
29. Jonathas berriz, eta harekilakoak, goiz-alderaino etziren ohartu, zeren argitan ikhusten baitzituzten suak.

30. Orduan hekien ondotik jo zuen Jonathasek, bainan etzituen atzeman, ezen jadanik iragana zuten Eluteroko ibaia.
31. Eta Jonathas aldaratu zen Zabadearrak deitzen diren Arabiarren gainera, eta jo zituen eta bildu hekien buluzkinak.
32. Itzuli zen gero bere bidera, eta goan zen Damasera, eta ibili zen ephaitza hartan guzian.
33. Simon berriz, ilkhi eta goan zen Askaloneraino eta hurbil hartako gazteluetara; eta Joperen gainera makhurturik hartu zuen hiria.
34. (Nabaritu zuen ezik, Demetrioren aldekoen eskuetara eman nahi zutela beren gaztelua); eta zainak ezarri zituen hiriaren begiratzeko.
35. Jonathas itzuli zen gibelerat, bilarazi zituen populuko zaharrak, eta hekiekin burutan hartu zuen Judean egitea gaztelu batzu,
36. Eta Jerusalem en harrasi berriak, eta harrasi gora baten altxatzea gazteluaren eta hiriaren artean, bata bertzearen ganik berezteko, zurtz egon zadien gaztelua, eta barnekoek etzezaten izan ez saltzeko, ez erosteko biderik.
37. Bildu ziren beraz hiriaren egiteko; ezen eroria zen, uzki-aldetik erreka gainean zen harrasia, eta Jonathasek altxatu zuen Kaphetetha deitzen zen harrasi hura.
38. Simonek berriz, Saphelan egin zuen Abiada, hazkartu zuen eta ezarri ziozkan atheak eta zerrapoak.
39. Bizkitartean Triphonek burutan ibili zuenean Asian errege jartzea, khoroaen hartzea eta Antioko erregearen gainera eskua hedatzea;
40. Beldurrez beharbada Jonathasek etzioela haizu utziko, bainan gerla emanen zioela, bilhatzen zuen haren harrapatzea eta hiltzea. Eta hori gogoan, jaikirik goan zen Bethsanera.
41. Jonathas haren bidera ilkhi zen, berrogoi mila gizon gerlakotzat hautak berekin, eta goan zen Bethsanera.
42. Triphonek ikhusi zuen Jonathas armada handiegiarekin ethorri zela, haren gainera eskuaren hedatzeko; beldur izan zen.
43. Eta ohoreekin hartu zuen; gomendatu zuen bere adiskide guziei, emaitzak egin ziozkan, eta bere armada guzian manatu zuen, hura entzun zezaten ber-bera bezala.
44. Eta erran zioen Jonathasi: Zertako akhilarazi duzu gizonketa hori oro, gerlarik ez denaz geroz gure artean?
45. Orai beraz igorratzu beren etxeetara; hauta zazu ordean gizon aphur bat, zurekin izateko, eta zato enekin Ptolemaidara; ezarriren dituzure eskuetan hiria eta gainerako gazteluak, armada eta egitekoen kargua duten guziak, eta gero itzulirik goanen naiz; ezen hortakotzat naiz ethorria.



46. Sinhetsi zuen Jonathasek; haren errana egin zuen; igorri zituen bere gizonak, eta Judeara goan ziren.

47. Berekin gelditu zituen ordean hirur mila gizon, zeinetarik Galilean igorri baitzituen bi mila; mila berriz, harekin goan ziren.

48. Bainan Jonathas Ptolemaidan sarthu izan zen bezain laster, Ptolemaidarrek hertsu zituzten hiriko atheak eta atzeman zuten Jonathas; eta harekin sarthu ziren guziak, ezpataz sakhitu zituzten.

49. Eta Triphonek igorri zituen bere armada eta zaldizkoak Galileara eta ordoki handira, Jonathasen lagun guzien xahutzeko.

50. Bainan haukiek jakin zutenean Jonathas hartua zela, eta galduak zirela hura eta harekin ziren guziak, berotu zuten elkhar eta ilkhi ziren gudurat abian.

51. Eta hekien ondotik jarraiki zirenek, ikhusirik azken hatseraino gudukatuko zirela, gibelerat goan ziren berak.

52. Bertzeak Judeako lurrerat bihurtu ziren beraz, nihork khexatu gabe. Eta hainitz deithoratu zituzten Jonathas eta harekilakoak; eta deithore handitan auhendatu zen Israel.

53. Eta hekien inguruko jendaki guziek bilhatu zuten hekien xahutzea, erraten zuten ezik:

54. Ez dute buruzagirik, ez laguntzailerik; jazar diozotegun beraz orai, eta gizonen artetik khien dezagun horien orhoitzapeneraino.

### XIII. KAP.

1. Bada, Simonek aditu zuen, Triphonek armada handi bat bildu zuela, Judako lurrera ethortzeko eta han bazter guzien xahutzeko.

2. Ikhusirik populua beldur eta ikharetan zela, Jerusalemara igan zen, eta bilarazi zuen populua.

3. Eta gogoen altxatzeko, erran zuen: Zuek badakizue zenbat gudu egin ditugun, nik, ene anaiek eta ene aitaren etxeak gure lege eta toki sainduentzat, eta nolako hesturak ditugun ikhusi.

4. Hekiei esker, galdu dire ene anaia guziak Israelen gatik, eta ni, bakharra naiz gelditu.

5. Eta orai ez dihoakit niri ene biziaren guphidestea hesturako edozein ordutan; ez naiz ezen ene anaia bano damuagoa.

6. Asperturen ditut beraz herria, lekhu sainduak, haurrak eta emazteak, ezen jendaia guziak bilduak dire gure xahutzeko beren herraren ariaz.

7. Hitz horiek aditu orduko, suztatu zen popularen gogoa;

8. Eta oihuka ihardetsi zuten erranez: Zu zare gure buruzagia Judasen eta zure anaia Jonathasen orde.

9. Mana gaitzatzu gure guduetan, eta zer-nahi erran dizaguzun, guk eginen dugu.

10. Orduan gerlako gizon guziak bildurik, lehen-bai-lehenka akhabatu zituen Jerusalemgo harrasi guziak, eta inguruan hazkartu zuen hiria.

11. Eta Jopera armada berri batekin igorri zuen Jonathas, Absalomen semea; eta hunek barnean zirenak irazirik, bera jarri zen han.

12. Bizkitartean Triphon Ptolemaidatik higitu zen armada handi batekin Judako lurrera sartzeko, eta Jonathas berekin zakharkan preso.

13. Simon aldiz Adoko ondoan jarri zen zelhaiari buruz.

14. Triphonek jakin zueneko Simon jaiki zela buruzagi bere anaia Jonathasen orde, eta gudu ematera heldu zitzaioela, igorri ziozkan bidalkinak,

15. Hau gaztiatuz: Zure anaia Jonathas iduki dugu, diru zor zioelakoz erregeri, haren egiteko eskuetan zituenean ariaz.

16. Eta orai igorratzu ehun talendu zilharrezko eta Jonathasen bi semeak bahi, beldurrez-eta guk utzi ondoan, gure kontra itzul dadien, eta haletan bihurturen darotzugu.

17. Simonek ezagutzen zuen maltzurkerian mintzo zela; halarik-ere manatu zuen eman ziotzoten dirua eta haurrak, bere gainera herra gaixto baten ez biltzeko Israelgo popularen ganik, zeinak erranen baitzuen:

18. Dirua eta haurrak ez dituelakoz bidali, galdu da Jonathas.

19. Igorri zituen beraz haurrak eta zilharrezko ehun talenduak; bainan Triphonek gezur egin zuen, eta etzuen utzi Jonathas.

20. Sarthu zen gero Judako lurretan, hekien xahutzeko; itzulia egin zuen Adorrera daraman bidez, eta Simon eta bere armada jarraitzen zitzaizkon goatzen zen toki guzietara.

21. Gazteluan zirenek berriz, Triphoni igorri ziozkatzen bidalkinak, higi zadien mortua gaindi ethortzera eta jatekoak igortzera.

22. Triphonek xuxentarazi zuen zaldieria guzia gau hartan goateko; bainan elhur hainitz bazen, eta etzen heldu Galaad-herrira.

23. Eta Baskamanera hurbildu zenean, han hil zituen Jonathas eta haren haurrak.

24. Gero itzuli zen Triphon eta goan zen bere lurrera.

25. Simonek berriz, igorri zuen bere anaia Jonathasen hezurren bilha, eta ehortzi zituen Modinen, bere arbasoen hirian.

26. Eta Israel guziak deithore handitan deithoratu zuen, eta auhendatu zuten asko egunez.



27. Simonek altxatu zuen bere aitaren eta bere anaien hobiaren gainean, urrundarik ageri zen leihor gora bat, bi aldeetarik legunduak ziren harriz.

28. Xutik ezarraziti zituen zazpi piramida, bat bertzearen parrean, bere aitementzat eta lau anaientzat.

29. Eta hekien inguruan ezarri zituen habe gora batzu, eta haben gainean harmak bethirainoko orhoitzapenetan; eta harmen aldean untzi zizelatuak, ikhus zetzazten itsasoz ibiliko ziren guziek.

30. Horrelakoa da Modinen egin zuen hobia, eta egungo egunean ikhusten dena oraino.

31. Bada, Triphon bidean zihoalarik Antioko errege gaztearekin, zimarkhuz hil izan zuen;

32. Eta erregetu zen haren orde; eta bere buruaren gainean ezarri zuen Asiako khoroa, eta gaizki handiak egin zituen erresuman.

33. Anartean Simonek Judean altxatu zituen gazteluak, hekiek hazkartuz dorre goraz, harrasi handiz, athez eta zerrapoz; eta jatekoak ezarri zituen hazkargailuetan.

34. Gero Simonek hautatu zituen zenbait gizon eta igorri ziozkan Demetrio erregeari, galdatuz Judea zerga orotarik garbi utz zezan; ezen Triphonen egitate guziak, ohointza eta harrapakierarik baizik etziren.

35. Demetrio erregeak ihardetsi zioten solas horiei, eta hunelako gutuna iskribatu zioen Simoni:

36. Demetrio erregeak Simon, aphez-handi eta erregeen adiskideari, zaharrei eta Juduen jendakiari, agur.

37. Izatu ditugu zuek igorri urhezko khoroa eta makhila, eta zuekin iraupenezko bake baten egitera, eta erregeren kargudunei iskribatzera gaude, utz detzatzueten guk barkhatu zergak.

38. Ezen guk zuen onetan manatu ditugunak gogor egon beitez; zue-nak izan beitez altxatu dituzuen hazkargailuak.

39. Barkhatzen darozkitzuegu egun arterainoko huts eta hobenak eta zor zinarokuten khoroa; eta balin bazen bertze zerbait zerga Jerusalemen, hura ez da zor izanen hemendik aitzinerat.

40. Eta zuetarik balin badire gure armadetan sartzeko egokiak, sar beitez, eta bakea izan bedi gure artean.

41. Zortzitan hogoi eta hamargarren urthean Israelen gainetik izan zen khendua jendaki arrotzen uztarria.

42. Eta Israelgo populua abiatu zen iskribu eta agerietan iskribatzen: Lehenbiziko urthean, Simon delarik aphez-handi, lehen buruzagi, eta Juduen printze.

43. Egun hekietan Simon hurbildu zen Gazari, armadaz inguratu zuen, egin zituen sethioko tresnak; eta hiriari hurbildurik, jo eta hartu zuen dorre bat.

44. Eta tresna batean ziren gizonak jauzi ziren hiriaren barnera; eta hirian egin zen asaldu handia.

45. Hirian zirenak harrasi baten gainera igan ziren beren emazte eta hurrekin, soinekoak porroskaturik, eta deihadarka hari ziren, Simoni eskua galdatuz,

46. Eta erraten zuten: Guri ez bihur gure gaixtakerien arabera, baina-bai zure urrikalkortasunaren arabera.

47. Simon ukitua izan zen eta baratu zuen hekien ganik ezpata; guzia gatik, hiritik irazi zituen; eta xahupena eginik etxeetan zeinen barnean egotu baitziren jainkomoldeak, orduan sarthu zen hirira, himnotan benedikatu Jauna.

48. Eta handik lohikeria guziak khendurik, hirian ezarri zituen legea zainduko zuten gizonak; eta hazkartu zuen hiria eta beretzat egin zuen egonleku bat.

49. Jerusalemgo gazteluan zirenak berriz, debekatuak ziren ilkhitezetik, eta lurretara sartzetik, saltzetik eta erostetik, eta gosete handia jarri zen hekien erdian eta asko hil ziren gosez.

50. Deihadar egin zioeten beraz Simoni, eskua galdatuz; hunek eman zioten, baina irazi zituen handik, eta khutsapen guzietarik xahutu zuen gaztelua.

51. Zortzitan hogoi eta hamekagarren urthean, bigarren hilabetekeo hogoi eta hirugarren egunean, gazteluan sarthu ziren Israelgo umeak, palma-adarrak eskuetan, Jaunaren laudorioak himnotan eta kantiketan errepikatuz, lira, zimbala eta nabla otsez, Israeldik etsai handi bat zelakoz xahutua.

52. Eta Simonek ezarri zuen manua, urthe oroz egun hekiek bestaturen zirela bozkario handitan.

53. Hazkartu zuen tenploko mendia, gazteluaren ondoan zena, eta han egin zuen bere egoitza bere lagunekin.

54. Bada Simonek ikhusten zuen Joanes, bere semea, gerlari hazkarraren egin zela; eta ezarri zuen bere armada guzietako buruzagi; eta Joanesek Gazaran egin zuen bere egoitza.



#### XIV. KAP.

1. Zortzitan hogoi eta hamabigarren urthean, Demetrio erregeak bildu zuen bere armada, eta Mediara goan zen bere gana iratxiki nahiz zerbaiz laguntza, Triphonen eragozteko.

2. Bainan Arsazesez, Persiako eta Mediako erregek, jakin zuen Demetrio haren eremuetan sarthu zela, eta bere azpiko aitzindarietarik bat igorri zuen, manaturik atzeman eta erakhar ziozon bizirik.

3. Baina goan zen, garhaitu zuen Demetrioren armada, atzeman zuen bera eta eraman Arsazesi, zeinak presondegi batean ezarri baitzuen.

4. Bake handi batean egotu zen Judako lurra Simonen gainerako egunetan; bere herritarren ona bilhatu zuen, eta bizi izan zen haren manamendua eta ospea hekien gogarako izan ziren.

5. Bere egintza ospetsu guzien gainera, hartu zuen Jope, portu baten egiteko, eta hartarik egin zuen itsasoko irletarako bidea.

6. Zabaldu zituen bere herrialdearen mugak, eta nausitu zen eremu guziaz.

7. Gathibu hainitz egin zuen; nausitu zen Gazaraz, Bethsuraz eta Jerusalemgo gazteluaz; hartarik khendu zituen lohikeriak, eta nihor etzen gehiago hari enferratzen.

8. Zeinek bere lurra bakean lantzen zuen; Judako lurrak ematen zituen bere uztak, eta bazterretako zuhamuek beren fruituak.

9. Zaharrak jartzen ziren guziak plazetan eta herriko onaz ihardukitzen zuten; eta gizon-gazteak, ederki aphaindurik eta gerlari soinekotan ibiltzen ziren.

10. Simonek hazkurriak biltzen zituen hirietara, zeinak xuxentzen baitzituen harmategizat; hanbat egin zuen, non haren ospearen aipamenak jo baitzuen lurraren bazterretaraino.

11. Bakea ezarri zuen bere eremu guzietan eta bozkario handiz boztu zen Israel.

12. Batbedera jarria zagoen bere aihen ondoaren eta bere pikoaren azpian, eta nihor etzen hekie izialdura emateko.

13. Suntsitu ziren lurreko etsaiak, eta egun hekietan heziak izan ziren inguruetakoa erregeak.

14. Simon izan zen bere populuko xumeen habea; bilhatu zuen legea, eta irazi gizatzar eta gaixtaginak.

15. Ospe eman zioten lekhu sailduei, eta untzi sailduz gaindi ezarri zituen.

16. Bada, Jonathas hil zelako berria heldu izan zen Erromara eta Espartaraino; eta hainitz atsekabe eman zuen.

17. Bainan jakin zutenean, Simon, haren anaia, haren orde egina izan zela aphez-handi, eta nausitu zela lekhu guziaz eta hartan ziren hiriez;

18. Kobrezko hostoetan iskribatu zioten, haren anaia Judasekin eta Jonathasekin egin izan zituzten adiskidantzen eta batasunaren berritzeko.

19. Eta gutun horiek irakurtuak izan ziren Jerusalemen, baldarna guziaren aitzinean. Eta huna Espartarrek igorri gutunen kopia:

20. Espartarren buruzagiek eta hiriek, Simon aphez-handiari, zaharrei, aphezei eta Juduen gainerako populu, beren anaiei, agur.

21. Gure populuari igorri dituzten bidalkinek jakintsun egin gaituztete zuen ospe, ohore eta bozkarioaz, eta atsegin handia egin daroku hekien ethortzeak.

22. Eta hekiek populuaen bilkhuan erranak, huneletan ditugu iskribatu: Numenio, Antiokoren semea, eta Antipaterren semea, Juduen bidalkinak, gure gana dire ethorri, gurekin adiskidetasun zaharraren erreberitzera.

23. Eta populuaen gogarako izatu da hekiek ospetsuki onhestea, eta hekien solasak populuaen liburu berezietan iskribatzea, Espartako populuari orhoitzapenetan. Aldiz Simon aphez-handiari igorri diogu solas horien kopia.

24. Gero Simonek Erromara bidali zuen Numenio, mila minen haztako urhezko erredola handi batekin, hekiekilako batasunaren berritzera. Aldiz, Erromako populua aditu zituenean

25. Solas horiek, erran zuen: Zer esker bihurturen diozkategu Simoni eta haren semeei?

26. Ezen beren zuzenetan ezarri ditu bere anaiak, eta hekien ganik irazi ditu Israelen etsaiak, zeinek ezagutu baitute Israelen bere-eskukotasuna eta kobrezko hostotan iskribatu, eta ageri batean Siongo mendian ezarri.

27. Eta huna ageri haren kopia: Elulgo hilabeteheko hemezortzigarren egunean, zortzitan hogoi eta hamabigarren urthean; Simon aphez-handi delarik hirugarren urthean, Asaramelen;

28. Aphezen, populuaen, eta populuko aitzindarien, eta lurreko zaharren bilkhu handian, ezagutarazten dire haukiek: Jakina da guduak ardura emanak izan direla gure eremuetan.

29. Bainan Simon, Mathathiasen semea, Jariben odoletikakoa, eta bere anaiak, galtzeko zoritan jarri dire, eta buru egin diote beren herritarren etsaiei, gogor egon zitezen hekien lekhu sailduak eta legea; eta ospe handitara altxatu dute beren jendakia.



30. Jonathasek bildu ditu bere herritarrek, eta egina izan da aphez-handi, eta bere arbasoetara bildua izan da.

31. Eta etsaiek nahi izan dute hekien lurra oinkatu eta xahutu, eta lekhu sailduen gainera hedatu beren eskua.

32. Simonek orduan diote buru egin; bere jendakiarentzat da gudu-katu, barraiatu du diru hainitz, harmak eman diozkate eta soldata bere jendakiko gizon indardunei;

33. Hazkartu ditu Judeako hiriak eta Bethsura, zeina baita Judeako mugetan, eta zeintan baitziren aitzinean etsaiaren harmak; eta haren zaintzeko Juduak ezarri ditu.

34. Hazkartu du Jope, itsas-bazterrean dena, eta Gazara, Azoteko mugetan dena, zeintan etsaiak baitzauden aitzinean, eta hekietan ere Juduak ezarri ditu; eta hekien zaintzeko egoki zen guzia barnean ezarri du.

35. Eta populuak ikhusi ditu Simonen egitateak, eta bere jendakiari bihurtu nahi zioen ospea, eta ezarri du bere buruko eta aphezen buruzagi, zeren egin dituen horiek oro, zuzenari eman dioen bere bidea, bere jendakiari iduki zintasuna, eta alderen-molde haritu den bere populuaren goratzen.

36. Eta haren egunetan, gauzak ongi goan dire haren eskuetan, hanbatean non iraziak izan baitire gure eremuatarik jendaiak, eta Dabiden hirian zirenak Jerusalemgo gazteluan, zeinek, handik ilkhiz, khutsatzen baitzituzten lekhu sailduen inguru guziak eta dainu handia ekhartzen garbitasunari;

37. Eta gazteluan Juduak ezarri ditu bazterren eta hiriaren zaintzeko, eta goratu ditu Jerusalemgo harrasiak.

38. Eta Demetrio erregeak onhetsi dio aphez-handigoa;

39. Ara berera, hartu du bere adiskidetzat, eta ospetan goratu du;

40. Aditua zen ezik Erromarrek Juduak deitzen zituztela adiskideak, batasundunak eta anaiak, eta ohore handirekin hartu zituztela Simonen bidalkinak;

41. Juduek bethiko onhetsi zutela Simon beren buruzagi eta aphez-handitzat, profeta zin bat jaiki zadien arteo,

42. Arren-eta izan zadien hekien buruzagi, har zezan lekhu sailduetz artha eta kargudunak ezar zetzan hango lan egiteko, lur, harma eta gazteluen gaineko;

43. Artha har zezan lekhu sailduetz; entzuna izan zadien orotaz; haren izenean iskribatuak izan zitezten lekhuaren ageri guziak; jauntz zadien urhez eta purpuraz;

44. Eta ez populutik ez aphezetarik nihorri etzakioen izan haizu erran diren haukien haustea, Simonen erranari zeihar egitea, edo lekhuaren bilkhu baten bilaraztea haren manurik gabe, eta purpura eta urhe-gantxoaren soinean erabiltzea;

45. Berriz, horien kontra goanen zena edo horietarik zerbait hautsiko zuena, hobendun idukia izanen zela.

46. Populu guziaren gogarako izan zen Simon altxatzea buruzagi, eta hitz horien arabera egitea.

47. Simonek ere onhetsi zituen, eta haren gogarako izan zen aphezhandiaren eginbideen egitea, Juduen jendakiaren eta aphezen buruzagi eta printze izatea eta guziei manatzea.

48. Eta erran zuten ageri hori ezarri behar zela kobrezko hostotan eta gero tenploko lorioan toki ikhusian;

49. Kopia bat izanen zela berriz, tenploko khutxan ezarria, Simonentzat eta haren umeentzat.

## XV. KAP.

1. Bada, Antioko erregeak, Demetrioren semeak, itsasoko irletarik gutunak igorri zituen Simoni, aphez-handi eta Juduen jendakiko buruzagiari, eta populu guziari.

2. Eta hau zakharten gutun hekiek: Antioko erregeak, Simon, aphezhandiari, eta Juduen jendakiari, agur.

3. Nola gizon izurritzari batzu jabetu baitire gure arbasoen erresumaz, nahi dut orai eskuratu ene erresuma eta ezarri lehen zen bezala. Gizon hautaz egin dut armada handi bat, eta egin ditut gerlako untxiak.

4. Bada, sarthu nahi dut ene erresumara, hura izurritzatu dutenen eta hartan asko hiri deboilatu dituztenen gainean asperkunde atheratzeko.

5. Orai beraz zure eskuko uzten darozkitzut ene aitzineko errege guziek barkhatu darozkitzuten emaitza guziak eta nola-nahiko bertze emanketak.

6. Dirua zure eremuetan zure haztarekin jotzeko eskua onhesten darotzut.

7. Nahi dut berriz, Jerusalem izan dadien saildu eta pelut; egin dituzun harma guziak, eta altxatu dituzun eta zure eskuetan diren gazteluak, geldidakizkitzun.

8. Eta barkhatuak zaizkitzu oraidanik eta bethiraino erregeren alderako zor oraino eta geroko guziak.





9. Aldiz, nausitu gaiztekeenean gure erresumaz, ospetan altxaturen zaituztetegu zu, zure jendakia eta tenploa, haletan non zuen ospea lur guzian ezagunen baita.

10. Zortzitan hogoi eta hamalagarren urthean, Antioko jautsi zen bere arbasoen lurrera, eta armada guziak bildu ziren haren gana, haletan non gizon guti gelditu baitzen Triphonekin.

11. Antioko erregea goan zitzaioen ondotik, eta Triphon itsas-bazterraz ethorri zen Dorara ihes;

12. Ezen bazakien haren gainera bildua zela zorigaitza, armadak utzi zuenaz geroz.

13. Antioko hurbildu zen Dorako bizkarrera sei hogoi mila gerlako gizonekin eta zortzi mila zaldizkorekin.

14. Inguratu zuen hiria, eta untziak itsasoz hurbildu ziren; hiria heratsatzen zuen urez eta leihorrez, eta nihor etzuen uzten ez sartzera ez ilkhitzera.

15. Bada, Numenio eta bere lagunak ethorri ziren Erromatik, eta bazituzten erregeentzat eta populuentzat gutun batzu, zeinek hau baitzakharten:

16. Luzio Erromarren kontsulak, Ptolemeo erregeari, agur.

17. Judu gure adiskideen bidalkinak, Simon aphez-handiak eta Juduen populuak igorririk ethorri dire, gurekilako adiskidantza eta bata-sun zaharren berritzera.

18. Mila minetako erredola urhezko bat ere ekharri darokute.

19. Hargatik gure gogarako izan da errege eta populuei iskribatzea, ez diozoten Juduei bidegaberik ekhar, ez gerlarik eman hekiei, eta hekien hiri eta eremuei, ez-eta laguntzarik hekien kontra gudu duketenei;

20. Ezen ongi iduritu zaiku hekien eskutik erredolaren hartzea.

21. Baldin beraz hekien herritik izurritzari zenbaitek zuetara ihes egin badute, ezar zatzue Simonen, aphezen buruzagiaren eskuetan, bere legearen arabera asperkunde athera dezan bekien gainean.

22. Hola-holako gutunak iskribatu zituzten Demetrio erregeari, Atalori, Ariarthesi eta Arsazes,

23. Eta lekhu guzietara, Lanpsakora eta Espartarrei, Delos, Iblindos eta Sizionara, Kariara, Samosera eta Panphiliara, Liziara, Alikarnasora, Koora eta Sidenera, Aradonera, Errodesera eta Phaselidera, Gortinara, Gnidora, Ziprora eta Zirenera.

24. Igorri zuten oraino gutun horien kopia Simon aphez-handiari eta Juduen populuari.

25. Bada, Antioko erregeak bigarren aldiko hurbildu zituen kanpak Dorara, geroago eta gehiago hertsatuz, eta sethiotako tresnak eginez, eta hertsu zuen Triphon, itzur etzadiantzat.

26. Eta Simonek erregeri igorri ziozkan laguntzara bi mila gizon hautak, urhe, zilhar eta untzi asko.

27. Baina erregek etzituen hartu nahi izan, eta harekilako aitzineko patu guziak hautsi zituen, eta urrundu zen haren ganik.

28. Gero erregek Simoni bidali zioen Athenobio, bere adiskideetarik bat, harekin solasetan sartzeko, gaztiatzen zioelarik: Zuek eskuetan daduzkatzue Jope eta Gazara, ene erresumako hiriak, eta Jerusalem den gaztelua.

29. Desmasian ezarri dituzte hango eremuak, lurrari bidegabe handiak egin diozkatzue, eta ene erresuman jabetu zarete asko tokiz.

30. Orain beraz bihur zatzue hartu dituzten hiriak, eta Judeako mugez kanpoan nausi jarri zareten tokietako zergak;

31. Non ez, ematzue borts ehun zilharrezko talendu hirientzat eta egin dituzten desmasentzat, eta bertze borts ehun hirietako zergentzat; bertzela, ethorriren gare eta gerla eginen datotzuegu.

32. Athenobio, erregeren adiskidea, ethorri zen Jerusalemara; ikhusi zuen Simonen ospea, urheak eta zilharrek nola dirdiratzten zuten haren inguruan, zenbateko berreginduren erdian bizi zen; eta harritu zen, eta ekharri ziozkan erregeren hitzak.

33. Simonek ihardetsi eta erran zioen: Ez dugu bertzeren lurrik hartu, eta ez dadukagu bertzeren ontasunik, bainanbai gure arbasoen ganikako primantza, gure etsaiek zuzen kontra aphur bat gozatu dutena.

34. Guk berriz, orduak lagundu gaituenean, eskuetaratu dugu gure arbasoen ondoregoa.

35. Ezen Jope eta Gazara, galdatzen dituztuz bezenbatean, berek egiten zioten populuari eta gure lurrari bidegabe handia. Hekientzat emanen ditugu ehun talendu. Eta Athenobiok etzioen hitz bat ihardetsi.

36. Baina erregeren gana gaitzirizkotan itzulirik, erran ziozkan Simonen solasak, haren ospea eta gainerako ikhusi zituen guziak; eta hasarre handitan sarthu zen errege.

37. Triphonek berriz, untziz ihes egin zuen Orthosiadara.

38. Erregek itsas-bazterreko buruzagi ezarri zuen Zendebeo, eta armada bat eman zioen, oinezkoz eta zaldizkoz egina.

39. Manatu zioen Judeari buruz higi zetzan kanpak, harrasizta zezan Jedor, poxela Jerusalemgo atheak eta guduka populua. Errege aldiz, Triphonon ondotik zihoan.



40. Eta Zendebeo Jamniara heldu izan zen, eta abiatu zen populuari bidegabe egiten, Judearen oinkatzen, gizon preso hartzen eta hiltzen, eta Jedorren harrasiztatzen.

41. Eta han ezarri zituen zaldizkoak eta armada bat, handik ilkhialdika ibil zitezen Judeako aldeak gaindi, erregek manatu bezala.

### XVI. KAP.

1. Joanes ethorri zen Gazaratik eta bere aita Simoni ekharri zioen Zendebeok beren herritarrei egiten ziozkatenen berria.

2. Orduan Simonek deithu zituen bere bi Seme zaharrenak, Judas eta Joanes, eta erran zioten: Nik, ene anaiek eta ene aitaren etxeak, garhaitu ditugu Israelen etsaiak, gure gaztarotik eta orai arteo; eta zoriona izatu dugu, Israelen libratzekoa behin baino gehiagotan.

3. Orai ordean zahartua naiz; bainan zuek jar zaitezte ene ordain; balia zakizkidate ene anaiatzat; zoazte, gudu egizue zuen herriarentzat, eta zerutikako laguntza izan bedi zuekin.

4. Eta hautatu zituen lekhu guzitik hogoi mila gerlari oinezkoak, eta zaldizkoak ere. Zendebeoren kontra abiatu ziren, eta Modinen eman zuten gaua.

5. Goizean jaikirik, zelhaiera sarthu ziren eta hara oinezko eta zaldizko armada handi bat heldu zitzaioleta bidera, eta ur erreka bat zuten artean.

6. Joanesek hekiei buruz higiarazi zituen kanpak eta bere armada; ohartu zen lotsa zirela erreka iragaitera, eta bera iragan zen lehenbizikorik; gizonak ikhusi zutenean, hekiek ere ondolik iragan ziren.

7. Armada ezarri zuen bi andanetan, zaldizkoak oinezkoen erdian; ezen etsaiak bazuten nihonereko zaldieria.

8. Eta Israeldarrek jo zituzten turuta sakratuak, eta ihesari eman ziren Zendebeo eta bere armada; hekietarik asko erori ziren sarraskituak, gainerakoek berriz, gaztelura ihes egin zuten.

9. Judasek, Joanesen anaiak, atzeman zuen sakhi bat orduan; bainan Joanes jarraiki zen etsaiari heldu arteo Zedronera, zeina hazkartua baitzuen.

10. Etsaiak ihes egin zuen Azoteko bazterretan ziren dorreetara eta Joanesek su eman zioten. Etsaietarik bi mila gizonak lurra jo zuten, eta Joanes bakean bihurtu zen Judeara.

11. Ptolemeo, Abobiren semea, zen Jerikoko ordokian buruzagi ezarria, eta urhe eta zilharrez aberats zen;

12. Ezik aphez-handiaren suhia zen.

13. Eta hantu zitzaioen bihotza; nahi zukeen Judeaz jabetu, eta zimarkhu asmatzen zabilan Simonen eta haren semeen kontra, guzien galarazteko.

14. Bada, Simon Judeako lurrean ziren hirietan zabilan batetik bertzera, hekien egitekoen xuxentzen, eta Jerikora jautsi ziren bera eta bere bi seme, Mathathias eta Judas, zortzitan hogoi eta hamazazpigarren urthean eta hamekagarren hilabethean, hura baitzen sabbath.

15. Zimarkhua gogoan, Abobiren semeak ongi-ethorri egin zioten, berak egina eta Dok deitzen zen gazteluxka batean; barazkari handi bat eman zioten, eta han bazituen gizonak gordeak.

16. Eta Simon eta bere semeak aseak zauden orduan, Ptolemeo jaiki zen bere lagunekin, hartu zituzten beren harmak, sarthu ziren barazkari-ko salhan eta hil zituzten Simon, haren bi semeak eta haren sehi zenbait.

17. Horreletan zimarkhu beltza egin zuen Israelen eta gaizkia bihurtu zuen ongiaren ordain.

18. Ptolemeok iskribatu ziozkan horiek erregeri eta gaztiatu zioen igor ziozon armada bat laguntzera, eta berak eskuetara emanen ziozkala Judea, hango hiriak eta zergak.

19. Bertze gizon batzu igorri zituen Gazarara, Joanesen hiltzera; eta gutunak bidali ziozkatzen armadako aitzindariari, ethor zitezen haren gana eta emanen ziozkatela urhe, zilhar eta asko gauza.

20. Eta bertze batzu igorri zituen Jerusalemek eta tenploko mendiaz nausitzera.

21. Bainan lasterka aitzindurik, gizon batek Gazarara berria ekharri zioen Joanesi, nola galdu ziren haren aita eta anaiak, zioelarik: Zure hiltzera ere igorri ditu gizonak.

22. Bada, horiek aditzearekin, Joanes lastu zen guzia. Hartu zituen beraren galtzera ethorri zirenak eta hilarazi zituen, ezagutu zuen ezik hura galdu beharrez zabilzala.

23. Eta Joanesen gaineko bertze solasak, haren gerletakoak, eta bihotz hainitzekin egin zituen balentria ederretakoak, harek altxatu harrasien gainekoak, eta haren bertze eginkarietakoak

24. Iskribatuak dire haren aphezgoako egunen liburuan, aphezen buruzagi egina izan zenetik bere aitaren orde.



## MAKABEARRAK

### II. LIBURUA

#### I. KAP.

1. Jerusalemen eta Judean diren Juduek, Egipton diren beren anaia Juduei, agur eta bake on.

2. Jainkoak benedika bezaitzazte, eta orhoit bedi Abrahamekin, Isaakekin, eta Jakobekin, bere zerbitzari zinekin egin izan duen batasunaz.

3. Eta orori bihotz bat eman bezazuete adora dezazuen eta haren nahia egin gogo handi eta olde hazkarrez.

4. Zuen bihotza zabal biozote bere lege eta manamenduei, eta bakea eman biazazuete.

5. Entzun betza zuen othoitzak, bake bedi zuekin eta ordu gaitzean zuen ganik urrunt ez bedi.

6. Eta gu orai, hemen gare zuentzat othoitzetan hari.

7. Demetrio errege zelarik, zortzitan hogoi eta bederatzigarren urthean, guk, Juduek iskribatu ginarotzuegun, urthe hekietan gure gainera jautsi ziren hestura eta tarrapatzen erditik, Jason lur saindutik eta erresumatik ilkhi zen ondoan.

8. Gaixtaginek athea erre zuten eta odol hobengabea ixuri; othoitz egin ginaroen Jaunari, eta entzunak izan gare; eskaini ditugu sakrifizioa eta irin-lorea, biztu ditugu kriseluak, eta ogiak jabalketako mahainaren gainean ezarri.

9. Orai zuek ere egizue kasleuko hilabetekeo tabernakleetako besta.

10. Bederatzitan hogoi eta zortzigarren urthean, Jerusalemen eta Judean den populuak, biltzarrak eta Judasek, Aristobulori, Ptolemeo erregearen irakhasleari, zeina aphez gantzutuen odoletik baita, eta Egipton diren Juduei, agur eta osagarri.

11. Jainkoak galmenta handitarik atheratu gaitu, eta eskerrik handienak bihurtzen diozkigu, zeren halako erregeari buru egin izan ahal diogun.

12. Ezen harek Persiatik fharrastaka igortzen zituen, gure kontra eta hiri sainduaren kontra gudukatu diren gizonketak.

13. Bainen bera nihonereko armada baten buruan zelarik Persian, Nanearen tenploan erori da, Nanearen aphezen amarruak enganaturik.

14. Ezen nola Antioko bere adiskideekin tenplora ethorri baitzen, Nanearekin ezkontzeko, eta dote aitzakietan diru hainitzen hartzeko;

15. Eta nola Nanearen aphezek agertu baitzituzten haren aberastasu-nak; Antioko lagun gutirekin athetik sarthu ondoan, hertsu zuten tenploa.

16. Eta barnago goan zenean, athe itsu bat idekirik, harri ukhaldika jo zituzten errege eta harekin zirenak, zathikatu zituzten, eta buruak khendurik, kanporat arthiki.

17. Horietaz orotaz benedikatua izan bedi Jainkoa, gaixtaginak galpenari eman dituen.

18. Nola beraz kasleuko hilabetehearen hogoi eta bortzgarren egunean egitekotan baikare tenploaren xahupena, premia iduritu zaiku zuei jakinaraztea, zuek ere besta detzatzuen tabernakleetako eguna, eta tenplo berria eta aldarea egin ondoan, Nehemiasek sakrifizioak eskaini zituenean emana izan zen suaren eguna.

19. Ezen gure aitak Persiara gathibu zaramatzatenean, orduan Jainkoa zerbitzatzun zuten aphezek, sua aldaretik harturik, ixilik gorde zuten haran batean, zeintan baitzen putzu barren eta agor bat, eta han segurean ezarri zuten, haletan non gorde-lekhua orotaz ezagutugabea gelditu baitzen.

20. Eta asko urtheren buruan eta Jainkoaren gogarako izan zenean Persiako erregek bidal zezan Nehemias, sua gorde zuten aphez hekien ilobasoak igorriak izan ziren haren bilha; eta berek erran darokuten bezala, etzuten sua khausitu, bainan-bai ur lodi bat.

21. Orduan Nehemias aphezak manatu zioten athera eta ekhar ziozoten ur hura, eta hartaz ihinza zetzazten bitimak, egurrak eta gainean ezarriak zirenak.

22. Eta hori egin bezain sarri, eta iguzkiak, lanho-petik ilkhirik, diridiratu zuen orduko, su handi bat biztu zen, haletan non espantatuak baitzauden guziak.

23. Bizkitartean aphez guziek othoitz egin zuten, sakrifizioa ahitu arteo, Jonathasek abiatuz eta bertzeek ihardetsiz.

24. Eta hauxe zen Nehemiasen othoitz: Jainko Jaun, ororen egilea, ikharagarria eta hazkarra, zuzena eta urrikalmendutsua, errege on bakharra zarena;

25. Bakharra handi, bakharra zuzen, guziz ahaldun eta bethi dirauen zarena, asturugaitz orotarik Israel itzurrarazten duzuna, gure arbasoak hautetsi eta sainduetsi dituzuna;

26. Sakrifizio hau onhetsazu Israelgo zure populu guziarentzat; zaint eta sainduetsazu zure zathia.



27. Barraiatuak garenak bil gaitzatu, jendaian gathibu direnak athe-  
ra zatu, arbuiotan eta gaitzirizkoaren azpian daudezenei begia emozute,  
jakin dezaten jendaiek zu zarena gure Jainkoa.

28. Behera zatu, burgoiki zaphatzen eta irainztatzen gaituztenak.

29. Gogor zazu zure populua zure lekhu sainduan, Moisek erran izan  
duenaren arabera.

30. Aphezek berriz, himnoak kantatzen zituzten, sakrifizioa ahitu  
arteraino.

31. Ahitu zenean sakrifizioa, Nehemiasek manatu zuen harri handien  
gainera ixur zezaten uraren gainerakoa.

32. Hori egin zuteneko, harri hekien gainetik biztu zen gar handi bat;  
bainan aldaretik dirdiratu zuen argiak iretsi zuen.

33. Gauza jakina izan zenean, Persiarren erregeri eraman zaroten  
berria, ura agertu zela, aphez desherrituek sua gorde zuten tokian, eta  
Nehemiasek eta bere lagunak hartaz egin zutela sakrifizioen xahupena.

34. Erregek berriz, gauza begietsi eta ardurarekin ikhartu ondoan  
frogatzeko zer zen gerthatu, toki hartan egin zuen tenplo bat.

35. Eta frogak atheratu ondoan, aphezzei eman ziozkaten ontasun  
handiak, eta bertze emaitza asko, eta bere eskuz ematen ziozkaten.

36. Aldiz Nehemiasek lekhu hura deithu zuen Nefthar, erran nahi  
baita Xahupena; bainan hainitzek deitzen zuten Nephi.

## II. KAP.

1. Bada, Jeremias profetaren iskribuetan aurkhitzen da, desherripe-  
nera zihoazenei manatu ziotela har zezaten aldareko sua, gorago errana  
den bezala, eta gomendioak egin ziozkatala desherritzen zirenei.

2. Eman zaroeten legea, ahantz etzezazten Jaunaren manamenduak,  
eta hekien izpirituek etzezaten makhurrerat egin, urhezko eta zilharrezko  
jainkomoldeak eta hekien edergailuak ikhustearrekin.

3. Eta horrelako bertze solasak erranez, dei egiten zaroeten legea  
etzezaten beren bihotzetik khen.

4. Berriz, liburu hartan berean zen, nola profetak, Jainkoak erran  
zioenaren gainean, manatu zuen harekin eramatea tabernaklea eta arkha,  
hel zadien arteo mendira, zeintara iganik Moisek ikhusi baitzuen  
Jainkoaren primantza.

5. Eta harat goanik, Jeremiasek aurkhitu zuen zilho bat; hartan sart-  
hu zituen tabernaklea, arkha eta isentsuetako aldarea, eta tapatu zuen  
ahoa.

6. Eta hari jarraikitzen zirenatarik zenbait hurbildu ziren, tokiaren  
nabaritzeko, eta ezin atzeman zuten.

7. Jeremiasek orduan, jakin zuenean hori, hoben emanez, erran zaro-  
eten, nihork etzuela toki hura jakinen, Jainkoak bil zezan arteo populua-  
ren baldarna, eta begithartez itzul zadien arteo;

8. Jaunak orduan erakhutsiren zituela hekiek; Jaunaren maiestatea  
agerturen zela, eta izanen zela hedoi bat Moiseri agertu zitzaioen bezala,  
eta hala-nola agertu baitzen Salomonek galdatu zuenean, Jainko handia-  
rentzat sainduetsia izan zadien tenploa.

9. Ezen ospetsuki erakhutsi zuen bere zuhurtasuna; eta zuhurtziaren  
jabe den gizon batek bezala, eskaini zuen tenploaren dedikazione eta  
akhabamenduko sakrifizioa.

10. Eta nola Moisek Jaunari othoitz egin, eta zerutik jautsi baitzen  
sua eta erre baitzuen holokausta, hala Salomonek ere othoitz egin, eta sua  
jautsi zen, eta erre zuen holokausta.

11. Eta Moisek erran zuen: Zeren jana izan ez den bekhatuarentza-  
teko bitima, ahitua izan da,

12. Eta Salomonek halaber zortzi egunez bestatu zuen dedikazionea.

13. Horiek berak ekharriak ziren Nehemiasen iskribu eta istorioetan; eta  
nola liburutegi bat eginik, toki guzietarik, bildu zituen profeten eta Dabiden  
liburuak, erregeen gutunak eta tenploarentzateko emaitzen ageriak.

14. Aldiz Judasek ere orobat bildu ditu, gerthatu zarozkigun gerla-  
teetan galdu-gordean ibili ziren guziak, eta orai gure eskuetan dire.

15. Beraz hekien gutzietarik balin baduzue, igor zatzue bilhariak, zuei  
ekhartzeko.

16. Arren iskribatu darotzuegu tenploaren xahupenaren egiterakoan;  
ongi eginen duzue beraz, baldin zuek ere bestatzen badituzue egun  
horiek.

17. Jainkoak berriz, zeinak libratu baitu bere populua, zeinak bakh-  
txari bihurtu baitio bere primantza, zeinak lehengo urhatsera itzularazi  
baititu erresuma, aphezgoa eta lekhu saindua,

18. Legeaz agindu zuen bezala, igurikimena badugu laster urrikalpen  
harturen duela gutaz, eta lekhu saindura bilduren gaituela zeruaren azpi-  
ko toki guzietarik;

19. Ezen galmenta handitarik atheratu gaitu, eta lekhuaren xahupena  
egin du.

20. Orai laburzki erranen ditugu Makabearrari eta haren anaiei, ten-  
plo handiaren xahupenari eta aldarearen dedikazioneari begiratzen diren  
gauzak;



21. Halaber Antioko Zoharraren eta haren seme Upatorren eguneta-ko guduei darontzotenak ere;

22. Erranen dugu nola su batzu agertu zitzaizkoten zerutik, Juduen alde gudutan bihotzoiki erauntsi zutenei; haletan non, gudulari guti ziren arren, nausitu baitziren eremu guziaz, ihes igorri baitzuten erdaldunen ostea,

23. Berriz eskuratu lur guziko tenplorik deithatuena, libratu hiria eta berritan ezarri khendua zen legea, Jauna hekien alde jarririk eta bake osoa emanik.

24. Horiak oro eta Jason Zirenearrak bortz liburutan sarthu zituen solasak, liburu bakhar batera laburtzera haritu gare.

25. Ezen ikhustenez liburuketa handiak gaitz eragiten duela istorioa ikhasi nahi dutenentzat, erranketa handiaren ariaz,

26. Artha izan dugu hau egiteko irakurtzea lakhet dutenen gogara; ikhasi nahiak direnei, berriz, burutan idukitzeko errex, eta irakurle guziei zerbait onik ekharriko daroeten bezala

27. Eta guk, zeinak abiatu baikare obra hau laburtu beharrez, ez diogu lan errex eman gure buruari; aitzitik atzarritasun eta behardura hainitz galdatzen duen lanari lothu gare.

28. Nola barazkariaren aphaintzen hari direnek bilhatzen baitute ber-tzeen gogara egitea, askori atsegin ematea gatik, hala guk ere gogotik jasaiten dugu lana.

29. Gauzen egia, iskribatu izan dituztenen gain utziz, gu aldiz lehen-go moldearen arabera laburtzera gare bermatu.

30. Alabainan, nola etxe berria egiten duenari baitagokio molde ematearen artha; thindatzaileak berriz, ez du egoki diren edergailuen bilhatzea baizik; gutaz dena, ez da bertzela ikhusteko.

31. Ezen istorioa iskribatzen duenari zaio dakienaren biltzea, solasaren xuxentzea eta xehetasun guziak arthatsuki bilhatzea;

32. Laburtzaileari ordean onhetsi behar zaio laburtasunaren bilhatzea eta hedaduretarik urrun egitea.

33. Hemen hasiko dugu beraz solasa; aitzinetik erranik aski bada; alabainan zorokeria bat laiteke istorioa baino lehen ehun solasen atheratzea, eta gero istorioan murriz itatea.

### III. KAP.

1. Beraz bake osoenaz gozatzen zelarik hiri saildua, legeak ere hobekienik begiratuak zirelarik oraino, Onias aphez-handiaren jainkotiartasunaren, eta gaizkiarentzat zuen hastiakuntzaren ariaz;

2. Gerthatzen zen erregeek berek eta buruzagiek ohore handitan zadukatela lekhu eta emaitza aberatsenez berregintzen zutela tenploa;

3. Haletan non Seleukok, Asiako erregeak bere onetarik ematen baitzituen sakrifizioetako eginbideen gastuak.

4. Bainan Simon, Benjaminen leinukoa, tenploaz kargutua zena, ber-matzen zen hiriari zerbait tzarkeria egin beharrez, eta aphezen buruzagiak zehier egiten zioen.

5. Nola ordean ezin garhait baitzezakeen Onias, goan zen Tharsean seme Apolonio gana, zeina baitzen orduan Zelesirian eta Phenizian buruzagi;

6. Eta erran zioen ezin-khondatuzko diruketaz bethea zela Jerusalemgo khutxa, eta bazirela nihonereko aberastasun arrontekoak, sakrifizioei begiratzan etzirenak; oro erorraraz zitazkeela ordean errege-ren eskura.

7. Apoloniok jakintsun egin zuen errege tenploan phausatuak ziren dirutzeez, eta erregek, harturik Heliodoro, haren egitekoen kargua zuena, igorri zuen erran den diruaren altxatzeko manuarekin.

8. Heliodoro bidetari eman zen berehala, Zelesiriako eta Pheniziako hirien ikhusteko itxuran, bainan egiazki, erregeren manuaren bethetzeko xedez.

9. Eta Jerusalemara ethorri eta aphez-handiak begitharte egin zioen ondoan, erran zuen zer aiphu heldu izan zitzaioen erregeri diru hekietaz; eta horrela agertu zen zer ariaz khausitzen zen hirian; galdatzen zuen, berriz, hean horiek hola ziren.

10. Orduan aphez-handiak erakhustera eman zioen diru hekiek zire-la altxatzerat emanak, eta alhargun eta umezurtzen biziaraztekoak.

11. Aldiz, Simon gaixtoak salhatu zituenetarik bazirela Hirkan Tobiasenak, jendeen artean ikhusia zen gizonarenak; diru guzia berriz, zil-harrezko lau ehun talentutara eta urhezko berrehunetara heltzen zela.

12. Aldiz nihondik-ere ezin engana zitazkeela fidatu zirenak lekhu eta tenplo bati, zeina lur guziak ohoratzen baitzuen bere ahalkesunaren eta saildutasunaren ariaz.

13. Bainan Heliodorok, erregeren ganik zituen manuen gainean, ihar-detsi zuen diru hekiek alde edo molde erregeri eraman behar zitzaizkoela.

14. Berezi zuen egunean, Heliodoro sarthu zen beraz, burutan zue-naren egiteko. Aldiz ikhara hiri guzian etzen aphurra.

15. Aphezak berriz, aphez-soinekoekin aldarearen aitzinean lurrerat erori ziren, eta zerura dei egiten zioten diru phausatuen legea eman due-nari, oso zain zetzozten phausatzaileei.



16. Aldiz aphez-handiaren begithartea ikhusten zutenak bihotzeraino erdiratuak ziren; ezen haren ahurpegi eta itxura ubelduek erraten zuten haren arimarainoko min barrena.

17. Halako ilhundura batez hartua zen guzia; eta haren lazturak, ikhusten zutenei erakhusten zioten bihotza zaurtzen zaroen oinhazea.

18. Asko halaber moltzoka etxeatarik heldu ziren goraki errekeitzu Jauna, arbuiotara erortzera zihoalako lekhu saindua.

19. Emaztekiak, zurdatzak soinean, karririk gaindi zabiltzan; neskatzak ere, barnean egoten ohi zirenak, lasterka heldu ziren Oniasen gana; bertze batzuek harrasietara laster egiten zuten; bertze batzu berriz, leihoetarik begira zauden.

20. Bainan oro, eskuak zeruetara hedatuz, Jainkoari errekeika hari ziren.

21. Erdiragarri zen egiazki oste hura nahasia eta aphez-handia iguri jarriak ikhustea.

22. Aphezek ere dei egiten zioten Jainko ahalorotakoari, altxatzerat izan zituzten gauzak, emaleei osorik gelditakoak.

23. Heliodoro berriz, bere gizonekin dirutegiaren inguruan jarria, gogoan hartu asmuaren bethetzen hari zen.

24. Bainan Jainko ahalorotakoaren izpirituak agertu zuen bere burua garbitasun handitan; haletan non Heliodororen erranen egitera ausartatu ziren guziak, Jainkoaren berthuteak lurrerat arthikirik, indarririk gabe eta ikharan gelditu baitziren.

25. Ezen agertu zitzaizoten halako zaldi bat, aphaingailu ederrenez estalia, eta gainean bazuen norbait lazgarririk, eta aitzineko hatzez oldarrean jo zuen Heliodoro; eta haren gainean jarria zenak iduri zuen urhezko harmak zituela.

26. Agertu ziren halaber bertze bi gizon-gazte osoki hazkar eta ederrak, ospez inguratuak eta ederki jauntziak, zeinak Heliodororen inguruan jarri baitziren, eta bi aldeetarik zafratzen zuten ukhaldika eta baratu gabe.

27. Heliodoro berriz, han berean erori zen lurrera, lanhatu ziren haren begiak eta hagetan eraman zuten kanporat.

28. Eta asko zain eta lasterkarirekin erran den dirutegira sarthu zen gizona, eramaten zuten, nihork laguntzarik ematen etziolarik, Jainkoaren berthutea garbiki baitzen ageri;

29. Eta berthute hark zadukan etzana, mutu, pheskizarik eta hatsik gabe.

30. Israel go umeek berriz, benedikatzen zuten Jauna, zeren handien zuten bere lekhu saindua; eta Jaunaren guzizko ahala zenean ager-

tu, bozkarioz eta goiherez bethe zen, lehentxago beldurrez eta asalduz bethea zen tenploa.

31. Orduan Heliodororen adiskideetarik zenbaitek lehiaka othoiztu zuten Onias, dei Guziz-Gorari egin ziozon bizia bihurtzeaz azken hatsean zen gizon hari.

32. Aldiz aphez-handiak gogoeta eginik errege beharbada nabarmenduko zela, Juduetarik norbaitek Heliodorori behar etzen zerbait egin ziokeela, gizon harentzat eskaini zuen salbatzeko sakrifizioa.

33. Eta othoitzean zagoelarik aphez-handia, aitzineko gizon-gazte berak, soineko berez jauntziak agertu ziren Heliodororen aitzinera, eta erran zioten: Onias aphezari bihur diotzok eskerrak, zeren haren gatik Jaunak ematen baitarok bizia.

34. Hi ordean, Jainkoaren eskuaz joa izan haizena, orotan erantzun zatzik Jainkoaren sendagailak eta ahala. Eta horiek erranik, suntsitu ziren.

35. Heliodorok berriz, bitimak Jainkoari eskainirik, eta bizia eman zioenari botu eta agintza handiak eginik, eskerrak bihurtu ziozkan Onias; itzuli zen armadara eta goan erregeren gana.

36. Gero guzien aitzinean lekhukotasun bihurtzen zuen, bere begiz ikhusi zituen Jainko handiaren egintzez.

37. Aldiz erregek galdatu zioenean nor othe zitakeen egoki Jerusalemara oraino behin igorria izateko, Heliodorok ihardetsi zuen:

38. Balin baduzu etsai bat edo zure erregetasunari zelata hedatzen hari den norbait, igorrazu harat eta ikhusiren duzu zafraturik bihurtzen, itzur ahal baditake behintzat; zeren baita egiazki toki hartan Jainkoaren indar zerbait.

39. Ezen zeruetan dagoena bera da lekhu hura ikhusten eta laguntzen duena, eta jotzen eta galtzen ditu, harat gaizki egitera heldu direnak.

40. Horra beraz nola iragan ziren Heliodororen eta khutxako zainpenaren gaineko ariak.

#### IV. KAP.

1. Bada, erran den Simon, diruen eta bere sortherriaren salbatzailea, gaizki mintzo zen Oniasen, harek hizitatu balu bezala Heliodoro egin zituenetara, eta hura balitz bezala gaizki guzietako itxindia;

2. Eta etzen herabe erresumako zelatari erratera hiria zaintzen, bere herritarrak gerizatzen eta Jainkoaren legea khartsuki begiratzen zuena.

3. Bainan nola etsaigoak hain urrun baitzoazen non heriotzeak ere egiten baitziren Simonen adiskide batzuen eskuez;



4. Oniasek ikhusririk makhur horiek zakhartzaten galmentak, eta Apolonio, Zelesiriako eta Pheniziako buruzagi zena, erhotzeraino hari zela Simonen gaixtakeriari eragiten, goan zen erregeren gana,

5. Ez bere herritarren kontra jazartzera, bainan bere bihotzean erabiliz guzien ona.

6. Ikhusten zuen alabainan, errege ez bazen artera heldu, etzitakeela gauzetan bakerik ezar, ez-eta bararaz Simon bere erhokeria gaixtoetarik.

7. Bainan Seleuko hil zen ondoan, Antioko, Zoharra deitzen zutena erregetu zenean, Jason, Oniasen anaia, aphez-handigoa eskuratu beharrez abiatu zen.

8. Erregeren gana goan zen, agintzen ziozkalarik hirur ehun eta hirur hogoi talendu zilharrezko, eta bertze mozkinetarik lau hogoi talendu;

9. Eta hekien gainera eskaintze zituen bertze zazpitan hogoi eta hamar talendu, baldin ematen bazitzaioen jimnasio baten eta morroindegi baten egiteko eskua, eta Antiokiartzat onhesten bazituzten Jerusalemarrak.

10. Erregeren baia izan eta buruzagitasuna ardietsi zuenean, abiatu zen berehala bere herritarrek arrotzen ohitzetara iraganarazi beharrez.

11. Eta khendurik erregeek beren bihotz-beratasunaren ariaz Juduei eman izan zaroezten lege onak Joanesen, Upolemoren aitaren bidez (Joanes bidalkintzan izatu baitzen, Erromarrekin adiskidantzen eta bata-sunaren berritzen), bere herritarren zuzenak hausten eta lege tzarrak ezartzen zituen.

12. Ezen ausartatu zen jimnasio baten egitera gazteluaren beraren azpian, eta morroinik hautenak lizundegietan ezartzera.

13. Etzen hori bada hastapen bat, bainan berhantza eta aitzinamendu batzuek jendaian eta arrotzen bizi-moldean, Jason aphez-aizun gaixtaginaren tzarkeria eta paregabeko belzkeriaren ariaz;

14. Hanbateraino, non aphezak ez baitziren gehiago aldareko eginbi-deetara arthatsu, bainan tenploa arbuiotan emanez, eta ezaxolatuki sakrifizioak utziz, lehiatuki phartedun sartzen baitziren jimnasioan eta hango prezio tzarretan, eta jokoan ikhasten haritzen baitziren.

15. Ezdeusentzat zaduzkaten sortherriko ohoreak; ederrago zitzaizkoten, Greziarren artean lelo ematen dutenak.

16. Beren buruak hekietan erakusteko lehia galgarriak berotzen zituen; Greziarren ohitzez bekhaitez ziren, eta orotan nahi zuketen, beren etsai eta hiltzaile izan zituztenen iduriko agertu.

17. Bainan Jainkoaren legeei ez da alferretan egiten damu, eta heldu diren solasek erakhutsiren dute gauza.

18. Bada, borts urthetarikako bestak egiten zituztelarik Tirren, eta errege han zelarik.

19. Jason gaixtaginak Jerusalemdik igorri zituen gizatzar batzu hirur ehun bidrakmarekin Herkulesen sakrifiziokotzat; eta diru hura eraman zutenek galdatu zuten etzadien sakrifiziotan igor, etzelakoz egoki, bainan bertze zerbaitetan xahu zezaten.

20. Diru hura bidali zuenak, Herkulesen sakrifiziokotzat eskaini zuen arren, ekharri zutenen ariaz untzi egiteko emana izan zen.

21. Berriz, Apolonio, Mnestheoren semea Egiptora igorria izan zenean Ptolemeo Philometor erregearen gobernuko handien ariaz, Antiokok ezagutu ondoan erresumako egitekoetarik atze egin zutela, bere onari begiraturaz, abiatu zen bere tokitik, ethorri zen Jopera eta handik Jerusalemera.

22. Jasonek eta hiriak ongi-ethorri ederrena egin zioten; zuzi-argitara eta irrintzinen erdian egin zuen bere sartzea; eta handik Pheniziara bere armadara itzuli zen.

23. Hirur urtheren buruan Jasonek igorri zuen Menelao, gorago aipatu den Simonen anaia, diru eramatera erregeri, eta premiatzko egiteko batzuen gainean ihardespenteta.

24. Bainan Menelaok erregeren gogoa atzeman ondoan, haren aha-lez espantu erabiliz bere buruaren gainera bildu zuen aphez-handigoa, hirur ehun zilharrezko talendu Jasonek baino gehiago eskainiz.

25. Eta erregeren manuak harturik, ethorri zen etzuelarik deusere aphezetasunari dagokionik, bainan nausi odolgiro baten bihotza eta basa-bere baten sepha.

26. Eta horreletan Jason, zeinak anaia ber-berea atzeman baitzuen, enganatua izan zen bera, eta irazia izanik ihes egin zuen Amon-herrira.

27. Aldiz Menelaok nausitasuna ardietsi zuen hola; bainan erregeri agindu diruetarik etzuen batere igortzen, nahiz hortara hertsia zezan Sostratok, zeinak gazteluan manamendua baitzuen;

28. Ezen hari zitzaioen zergen sarraraztea; aria hortaz izan ziren biak erregeren aitzinera deithuak.

29. Apez-handigotik khendua izan zen Menelao, eta bere anaia Lisimako izan zuen ondoko; Sostrato berriz, Ziprora izan zen aldatua.

30. Anartean Tharsearrek eta Melotarrek bihurrialdi bat eraiki zuten, emanak izan zirelako Antiokidari, erregeren ohaideari.

31. Aria hortaz hekien jabaltzera laster egin zuen erregek, bere ordain utzirik Androniko, bere lagunetarik bat.



32. Menelaok berriz, ustez ordu ona atzeman zuela, tenplotik ebatsirik urhezko untzi zenbait, Andronikori eman ziozkan batzu, eta bertzeak saldu zituen Tirren eta hauzoko hirietan.

33. Oniasek horren garbitasuna jakin ondoan, Menelaori jazartzen zioen, bera lekhu segurean zagoelarik Antiokian, Daphneko ondoan.

34. Hargatik, Andronikoren gana goanik, Menelaok othoiztu zuen hil zezan Onias. Androniko goan zen Oniasen gana; eta esku eskuina emanak zin egin zioen eta (nahiz Oniasi nabarmen zitzaioen) sinhetsarazi bere ihes-lekhutik ilkhitzea, eta ordu berean hil zuen, zuzenbidearen arranguririk gabe.

35. Horren gatik, ez bakharririk Juduak, baina bertze jendakiak ere jauzten ziren, eta nekhez jasaiten zuten hanbateko gizonaren heriotze bidegabezkoa.

36. Eta Ziliziako aldeetarik bihurtu zenean errege, Juduak goan zitzaizkon Antiokiara Greziarrekin batean, Oniasen heriotze bidegabezkoaz arranguren egitera.

37. Oniasen heriotzeak barnea gobeldu zioen Antiokori; eta urrikaldurik, nigarrak ixuri zituen, zendua zenaren begirakortasunaz eta modestiaz orhoituz.

38. Eta suharturik manatu zuen Andronikori khen ziozoten purpura, erabil zezaten hiri guzia gaindi inguruka, eta gaixtaginari bizia idek ziozoten toki berean zeintan izigarrikeria egin izan baitzuen Oniasen gainean. Jaunak horrela bihurtu zioen merezitu saria.

39. Bada, Lisimakok tenploan asko sakrilio eginik, Menelaok hartaratu, berri hori barraiatu zen eta ostea Lisimakoren kontra bildu zen, tenplotik orduko urhe hainitz eraman zuen ondoan.

40. Aldiz jendea erresuminetan jaiki zelakotz, Lisimakok bildu zituen hirur mila gizonen ingurua aitzindari gaixto baten azpian, zeinak adin bezenbat gaixtakeria baitzuen, eta tzarkeria egiten abiatu zen.

41. Baina populuak ikhusi zuenean zertara zohan Lisimako, batzuek hartu zituzten harriak, bertze batzuek makhila lodiak; zenbaitek berriz hautsa arthikitzen zuten Lisimakoren kontra.

42. Haren gizon hainitzek atzeman zituzten sarraskiak, zenbaitek lurra jo zuten eta guziak ihes igorriak izan ziren; sakrilio-egilea bera ere, dirutegiko ondoan hil zuten.

43. Gauza horiez populua abiatu zen beraz Menelaori jazartzen.

44. Eta errege Tirrera ethorri zenean, zaharrek igorriarik hirur gizonen haren aitzinera eraman zuten egitekoa.

45. Eta nola Menelaok azpia hartzen baitzuen, Ptolemeori diruketa handi bat agindu zioen, erregeri nahi zuena sinhetsarazteko.

46. Hargatik Ptolemeo erregeri hurbildu zitzaioen, ezkaratz batean freskatzen zagoelarik, eta gogoz aldarazi zuen.

47. Erregek garbi atheratu zuen Menelao, gaixtakeria guzietz hobendun zena; gaizo batzu berriz, Sithiarren aitzinean xuritu balute ere haren egitekoa, hobengabe atheratuko zirenak, hekiek kondenatu zituen hiltzera.

48. Bidegabezko gaztigua berehala jasan zuten beraz, hiriaren, populuaren eta gauza sainduen alde jaiki zirenek.

49. Aria hortaz gaitziturik, Tiriarrak berak guziz bizar agertu ziren hekien ehorzpenean.

50. Menelaok berriz, botherea zadukaten gizonen jaramankeriari esker, buruzagitasunean irauten zuen, geroago eta maltzurrago bere herri-tarrei zelata hedatzeko.

## V. KAP.

1. Orduan arrimatu zen Antioko Egiptora bigarren athermaldiaren egiteko.

2. Bada, gerthatu zen Jerusalemgo hiri guzian berrogoi egunez laldizko batzu ikhusi izan zirela airetan tarrapataka, urhe-oihalez jauntziak eta lantzekin, gizon harmatuzko andanak bezala;

3. Eta zaldiak lerroka jarriak, laster egiten, gudulariak eskuka abiatzen, erredolak dardaratzen, kaskadunen ostea ezpata biluziekin lotzen, geziak arthikitzen, urhezko harmen eta gerruntze mota guziak dirdiratzten.

4. Aria hortaz guziak othoitzean zauden, onerat bihur zitezen sendagaila horiek.

5. Baina nola gezurrezko haro bat ilkhi baitzen, Antiokok bizia galdu zuela; Jasek, ez mila gizon baino gutiago harturik, hirira laster egin zuen; eta hiritarrek harrasietara egin izan zuten arren, azkenekoz nausitu zen hiriaz eta Menelao gaztelura goan zen ihes.

6. Jasek berriz, bere herritarrek etzitzen sarraskian guphide izatu; etzitziaoen burutaratzen zorigaitz handia dela bere odolekoen kontrako zoriona, ustez etsaien kontra eramaten zuela garhaizia, eta ez herritarren gainean.

7. Eta halarik-ere ezin ardietsi zuen nausitasuna, baina ahalkea bildu zuen bere zimarkhu guzien azken buru, eta berriz ihes goan izan zen Amon-herrira.

8. Azkenekoz, Aretasek, Arabiarren erregek, hertsatzen zuelakoz, iheska zabilan hiriz hiri, orok higuindua, lege-arnegatzaile eta hasgarri bat





bezala, bere sorlekuaren eta herritarren etsaia bezala, eta Egiptora irazia izan zen.

9. Eta hanbat jende beren sorlekhutik irazi zituen gizona, bera lekhu arrotzean akhabatu zen, Lazedemonara goanik, han ihes-lekhu bat atzemanen zuelakoan Juduekilako batasunaren ariaz;

10. Eta nola ehortzi gabe utzi baitzituen asko, bera ere deithorerik gabe eta ehortzi gabe utzi zuten, ez baitzuen ez bere herrian ez arrotz lekhu hobi bat aurkhitu.

11. Horiek arren hola gerthatu ondoan, errege beldurtu zen Juduak urrunduko zitzaizkola berekilako batasunetik; eta horren gatik, burua sutan, ethorri zen Egiptotik, eta harmez hartu zuen hiria.

12. Berriz, soldadoei manatu zioten hil zetzazten urrikari gabe atzemanak oro, eta hiltzera sar zitezen etxeetara.

13. Sarraskitu zituzten beraz eta heriotzez jo zahar-gazteak, emaztekiak eta haurrak, neskatzak eta bulharreko urneak ere.

14. Arren hirur egunik barnean izan ziren laur hogoi mila hilak, berrogoi mila gathibu hartuak, eta berriz, ez gutiago salduak:

15. Bainan horiek etziren aski: Antioko ausartatu zen oraino tenploan, lur guziko tokirik sailduenean, sartzera, bidari zuelarik Menelao, legeak eta sortherria traditu zituena;

16. Eta bere esku hobentsuez hartuz untzi sakratuak, bertze erregeek eta hiriek lekhu haren berregingarri eta ospagarri emanak, izigarri zen bezala erabiltzen eta khutsatzen zituen.

17. Holetan Antioko, burutik jauzia, etzen begiratzen Jainkoa aphur batentzat zela samur Jerusalemдарren bekhatuen gatik, eta aria hortaz lekhu sailduaren inguruan gerthatu zela laidoa.

18. Ezen bertzela, asko bekhatutan izan ez balire pulunpatuak, Antioko ere, hala-nola Heliodoro, Seleuko erregeak dirutegiaren larrutze-ara igorri zuena, Antioko ere agertu bezain laster izanen zen zafratua eta bere urhats ozarretik eragotzia.

19. Bainan Jainkoak ez du populua lekuaren gatik hautatu, bai ordean lekhuaren populuen gatik.

20. Aria hortaz lekhu ere populuen asturugaitzetan phartedun egin izan da; bainan gero zorionetan ere hala izanen da; eta Jainko ahalorotakoaren hasarre-orduan bazterrerat utzia izan den tokia, berriz ospe handitara altxatua izanen da Jaun handiaren baketzeko egunean.

21. Beraz tenplotik hemezortzi ehun talendu eramanez, Antioko zalhurik itzuli zen Antiokiara, bere hanpuruskerian iduritzen baizitzaioen

leihorrean untziz eta itsasoan oinez ibiliko zela, hanbat baitzen harro haren gogoa.

22. Berriz, jendea hesturan idukitzeko utzi zituen kargudunak: Jerusalemen Filipe, ethorkiz Friyiarra, karguaren emalea baino odolkoia-goa berenez;

23. Garizimen berriz, Androniko, eta Menelao, zeina bertzeak baino gogorrago baitzen bere herritarren alderat.

24. Eta nola Antioko Juduei aihar baitzen, igorri zuen Apolonio, aitzindari gaitzesgarria, hogoi eta bi mila gizonekin, manatuz, emaztekiak eta gazteak saldurik, hil zetzan adin oneko gizonak oro.

25. Hau Jerusalemera ethorri zenean, bake alegia batean deskantsuz egon zen larunbateko egun sailduraino; eta noiz-ere Juduak lanetik geldituak baitziren, bere gizonen manatu zioten har zetzazten harmak.

26. Hil zituen ikhustera ethorriak ziren guziak, eta gizon harmatuekin kurrituz hiria, oste gaitza xahutu zuen.

27. Bada, Judas Makabearra, bera hamargarren toki mortu batera bildua zen, eta han basabereen erdian bere lagunekin mendietan zaraman bizia; eta belharra janez egoten ziren, bertzeen khutsapenean ez sartzea gatik.

## VI. KAP.

1. Bainan handik laster erregek bidali zuen Antiokiara zahar bat, bortxa zetzan Juduak herriko legeetarik eta Jainkoa ganik aldatzera;

2. Eta Jerusalemen tenploaren profanatzera, Jupiter Olinparraren izena emanaz, eta Garizimen zen tenploa Jupiter arrotzalearen izenetik deithuz, arrotzak zirelako toki hartako egoiliarak.

3. Horreletan erori zen guzien gainera ondikozko uharrik gaitzena.

4. Ezen arrotzek tenploa bethetzen zuten lizunkeriaz, eta beren aseez, eta lilitxoekin khutsatzen ziren gizonen; eta emaztekiek zilhegi etziren gauzak sartzen zituzten lekhu sakratuetara:

5. Aldarea ere bethea zen haizu etziren haragiz, legeek debekatzen zituztenetarik.

6. Larunbatak berriz, eta tokiko bestaburuak ere etziren idukiak, eta bakharrik Judua zela ere nihork etzuen aithorra eginen.

7. Premia latzak erregeren sort-egunean sakrifizioetara zaramatzen; eta Bakoren bestak zebratzen zirenean, bortxatzen zituzten karriken inguratuzera huntz-ostoz khoroaturik Bakoren ohoretan.



8. Erabaki bat berriz, atheratu zen jendaietako hauzo hiritan, Ptolemaidarrek bururaturik, molde berean hekiek ere Juduen kontra egin zezaten, sakrifikatza bortxatzeko,

9. Edo hil zetzazten arrotz-legeetara iragan nahiko etzirenak. Etzen beraz nihon hesturarik baizen ikhusten.

10. Ezen bi emazteki salhatuak izanik ingurebaki zituztela beren umeak, hiria gaindi agerian erabili ondoan inguruka, haurrak bulharretarik urkhaturik, harrasien gainetik arthiki zituzten.

11. Bertze gizon batzu berriz, hurbileko lur-zilhoetara elkhar gana biltzen zirenak, eta larunbat-eguna ixilka bestatzen zutenak, Filiperi salhatuak izanik, suz erreka izan ziren, herabe zirelako, erliyonearen eta larunbat begiratzearen ariaz, eskuz beren buruei laguntza ekhartzeko.

12. Aldiz othoizten ditut liburu hau irakurturen dutenak ez ditezen lasturari eman asturugaitz horien gatik, baina uste izan dezaten halakoak gerthatu direla, ez gure odolaren galpenerako, bai ordean nehortarazteko.

13. Ezen ongi-nahi handi baten erakhuskaria da bekhatoreak beren lehien arabera egitera ez uztea luzez, baina azurrialdiak laster iratxikitzea.

14. Alabainan Jaunak ez du gurekin bertze jendakiekin bezala jasan-korki igurikitzen, hekien gaztigatzea gatik beren bekhatuen osotasunean, ethorriko denean juiamenduko eguna.

15. Eta gurekin hola nahi izan du egin, asperkunde gure gainean ez atheratzeko noizbait, gure bekhatu guziak azkenean bilduak ditazkenean.

16. Aria hortaz ez du behinere gure gainetik aldaratzen bere urrikalmendua; baina asturugaitzez azurriatuz, ez du bere populua bazterrerat uzten.

17. Hitz guti haukiek irakurleen argitako izan beitez erranak. Beraz gure solasera itzuli behar gare.

18. Bada Eleazar, lehenbiziko iskribauetarik bat, adineko gizona eta begitharte ahalkesunekoa, urdeki jatera nahi zuten bortxatu, ahoa bortxaka zabalaraziz.

19. Baina heriotze ospetsu bat bizitze hasgarri bat baino nahiagoz, hura bere oldetara bazihoan hiltzeko tokira.

20. Ikhusiz zenbat beharko zuen egarri, eta jasan-kortasunean gogortuz, gogotan hartu zuen etzuela biziaren minez sori etzenik deusere onhe-tsiko.

21. Han zirenek berriz, behargabeko urrikalmendu batez ukiturik harekilako azpaldiko adiskidantzaaren ariaz, bazterrerat harturik othoizten zuten jateko zilhegi ziren haragietarik ekhartzera utz zetzan, erregek

manatu zuen bezala sakrifiziotikako haragietarik jan alegia bat egin zezan berak,

22. Eta hori eginik, heriotzeari itzur zadien; eta harentzateko adiskidantza zaharraren ariaz egiten zioten gizatasun hori.

23. Baina hura gogoetaka abiatu zen zenbat zor zioten bere adinari era zahartasunari, sortzetik ekhartzan zuen bihotz-handitasunari, bere ile zuriei, eta haurretik eramane zuen bizitze garbiari; eta Jainkoak ezarri lege sailduaren arabera, ihardetsi zuen berehala, nahiago zuela hobiari utzi bere burua.

24. Eta zioen: Etzaio gure adinari zor alegiaka haritzea; beldurrez-eta gazteetarik asko, ustez Eleazar hau hogoi eta hamar urthetan iragan den arrotzen bizitzera,

25. Berak enganatuak izan ditezen ene alegiakieraren bidez, eta bizitze galkor baten epe laburraren ariaz; eta horreletan ene zahartzeari bil niozoke notha bat eta nihonereko hatsgarritasuna.

26. Alabainan oraiko orduan gizonen ganikako estiretarik athera banindadi ere, niholaz ez bizian ez hilean ezin itzuriko nintake Ahalorotakoaren eskuari.

27. Horren gatik bizitzetik bihozduen ilkhiz, ene adinari dihoakioen bezala naiz agerturen;

28. Gazteriari aldiz itxikitasunezko ikhuskari bat utziko diot, baldin gogo biphil eta hazkarrez jasaiten badu heriotze ohoragarri bat, gure lege premiatsu eta guziz sailduen ariaz. Hitz horiek egin orduko estirara herrestatu zuten.

29. Hura eramaten zutenak berriz, aitzintxean ezti bezain bihurri egin ziren beren hasarrean, erran zituen solasen gatik, burgoikeriaz errantzatzat zaduzkatelakoz.

30. Baina ukhaldien azpian hiltzerakoan, hasgorapen batekin erran zuten: Jauna, jakitate sailduaren jale zarena, zuk garbiki dakizun bezala, heriotzeari itzur nindaiteelarik jasaiten ditut gorphutzeko oinhaze gogorak, baina arimaz gogotik ditut egartzen zure beldurraren ariaz.

31. Horreletan bizitzetik ilkhi zen Eleazar, ez ezik gazteriari, baina bere herritar guziei utziz bere heriotzearen orhoitzapena berthutezko eta indarrezko ikhuskaritan.

## VII. KAP.

1. Gerthatu zen berriz, zazpi anaia beren amarekin hartuak izan zirela, eta erregek bortxatu nahi izan zituen azote eta idi-hede ukhaldika urdekiaren jatera, zilhegi ez den bezala.



2. Bainan hekietarik bat, adinez zaharrena, hunela mintzatu zen: Zer bilhatzen duzu eta zer nahi duzu jakin gure ganik? Hiltzera gaude, Jainkoaren eta herriko legeak hautsiko ditugun baino lehen.

3. Hargatik erregek errabian manatu zuen khalda zitzaizen paderak eta kobrezko bertzak; eta khaldatuak izan ziren bezain sarri,

4. Manatu zuen mihia mozteaz lehenbiziko mintzatu zenari; eta buruko larrua khendurik, ebak ziotzozten esku eta zango muthurrak, bere anaien eta amaren begien azpian.

5. Eta horrela ahal guziez gabetua izan zenean, erregek manatu zuen hurbil zezaten sura, eta hatsa bazuelarik oraino xigorraraz zezaten paderan; eta horrela luzez oinhaztatua zelarik, bertzeek amarekin batean bihoztzoi hiltzera berotzen zuten elkhar,

6. Erraten zutelarik: Zintasunari begiraturen da Jainko Jauna, eta gutan harturen du gozakari, Moisek bere kantikako hitzetan erran duen bezala: Eta bere zerbitzarien baithan harturen du gozakari.

7. Lehenbizikoa hil zenean beraz, ondokoa erakharri zuten estiratze-ko; eta buruko larrua ileekin khendurik, galdatzen zioten hean janen zuen, bere alderdi guzietan oinhaztatua izanen zen baino lehen.

8. Bainan harek bere herriko mintzaian ihardetsiz erran zuen: Ez dut eginen. Horren gatik harek ere jasan zituen bere aldian lehenbizikoaren estirak.

9. Eta azken hatsetara ekharri zutenean, hau erran zuen: Oi gizone-tarik gaixtoena, oraiko bizitzean galarazten gaituk; bainan munduko erregek haren legeentzat hil garenak bethirainoko bizitzera eraikiren gaitik.

10. Haren ondotik, hirugarrena estiratu zuten; galdatu zioten mihia, eta atheratu zuen berehala, eta eskuak hedatu zituen kantitu gabe;

11. Eta sinheste bethearekin erran zuen: Zerutik daduzkat haukiek; bainan orai erdeinu diotet Jainkoaren legearen ariaz, zeren igurikitzen baitut bihurtuko darozkidala berriz:

12. Haletan non errege eta harekilakoak harritzen baitziren gizon-gaztearen bihotzaz, ez tirak ezdeuskeria batzu bezala jasaiten zituelakoz.

13. Hura ere horrela hil zen ondoan, estiratzailak orobat abiatu zitzaizkon laugarrenari.

14. Eta akhabatzera zihoalarik, hunela mintzatu zen: Hobe da gizonen eskuz heriotzeari emanak izatea, Jainkoaren ganik bizi berri bat iguririk, ezen hire arrebiztea ez duk bizitzerakoa izanen.

15. Eta bortzgarrenari lothurik, estiratzen zuten. Harek aldiz erregeri begiratu, erran zuen:

16. Gizonen artean ahala baituk, hilkizun haizen arren, nahi dukana egiten duk; bainan ez biazak usterik izan gure jendakia Jainkoaz bazterrerat utzia dela.

17. Ordean ago ephez, eta ikhusingen duk nola haren bothereak estiratuko zaituztetan hi eta hire odola.

18. Haren ondotik, erakharri zuten seigarrena, eta hau hiltzerakoan, hunela mintzatu zen: Ez behedi ustekeria hutsera eror: ezen gure hobena duk holakoak jasaiten baditugu, gure Jainkoaren kontra egin dugulakoz bekhatu, eta ez duk harritzeko haukiek gure gainera arthikiak izatea.

19. Bainan hik ez uste izan nola-nahi goanen zaikala, Jainkoari gerla egitea bilhaturik.

20. Aldiz ama, ohi den baino miresgarriago eta prestuen orhoitzape-na merezi zuen harek egun batik barnean ikhusten. zituen bere zazpi semeak galtzen, eta gogoia onik jasaiten zuen, Jainkoaren baithan zadukan peskizaren ariaz.

21. Herriko mintzaian oro aldizka hazkarki berotzen zituen solas zuhurrenez, emaztekiaren samurtasunari batuz gizonaren bihotza.

22. Erraten zaroeten: Ez dakit nola ene sabelean agertu zareten; ezen ez darozkitzuet nik erran ez izpiritua, ez arima, ez bizia, eta ez ditut nik batu bakhotxaren alderdiak.

23. Bainan munduaren egileak, gizonaren sortzea egin eta gauza guzien ethorkia aurkhitu duenak, izpiritua eta bizia urrikalmendurekin bihurturen darozkitzuet, egun zuen buruez axolarik ez dadukazuen bezala haren legearen ariaz.

24. Antiokok berriz, ustez arbuio eta irainetara bihurtzen ziotela eta bere ezina; nola haurretarik gazteena gelditzen baitzen oraino, berotzen zuen, ez ezik bere solasez, bainan zinka segurtatzen zuen, aberats eta dohatsu eginen zuela, eta adiskidetzat hartuko zuela eta behar zituenak oro emanen ziozkala, uzten bazuen bere arbasoetarikako legea.

25. Bainan gizon-gaztea ez baitzen horietara erortzen, erregek deit-hu zuen ama eta nahi zioen sinhetsarazi egin zadien gizon-gaztearen salbatzaile.

26. Hainitz solasez hortara hizitatu zuten ondoan, amak agindu zuen hertsaturen zuela bere semea.

27. Makhurturik beraz haren gainera, eta errege odolkoiaz burlatuz, herriko mintzaian erran zioen: Ene semea, urrikal zaite nitaz, bederatzi hilabetez sabelean ekharri zaitudanaz, hirur urthez ene bulharraz hazi, eta adin hortaraino altxatu zaitudanaz.



28. Othoi, haurra, begira biozozute zeruari, lurrari eta hekietan diren guziei, eta ezagutazu Jainkoak ezdeusetarik egin dituela hekiek eta gizonkia;

29. Eta hau gerthatuko da etzarella harakin horren beldur izanen; baina zure anaiei bethe egirik eta hekiekin phartedun, har zazu heriotzea, zu ere zure anaiekin aurkhi zaitzadan urrikalmenduzko egunean.

30. Eta oraino mintzo zelarik, haurrak erran zuen: Zeren iguri zaudetzte? Ez dut erregek manatua eginen, baina bai Moisen eskuz emana izan zarokun legearen manamendua.

31. Baina hi, Hebrearren gaineko gaixtakeria guzien asmatzaile egin haizena, Jainkoaren eskuari ez haiz itzuriko;

32. Ezen guk, gure bekhatuen gatik jasaiten ditugu haukiek.

33. Eta baldin gure Jainko Jauna gure kontra aphur bat samurtu bada gure azurriatzea gatik eta gure nehortzeko, bere zerbitzariekin baketuren da berriz.

34. Baina hi, oi gaixtagina, eta gizon guzietarik laidagarriena, haren zerbitzarien kontra suharturik ez behedi alferretan hant eskiza hutsalez;

35. Ezen Jainko ahalorotakoaren eta guziak ikhusten dituenaren juiamenduari ez haiz oraino itzuria.

36. Alabainan ene anaiek, orai oinhaze aphur bat jasanik, bethiereko bizitzeko batasunean sarthuak dire; hik ordean Jainkoaren erabakiz hire burgoikeriaren gaztigu zuzenak egarriren dituk.

37. Nik berriz, ene anaiek bezala, herriko legeentzat ematen ditut ene gorphutz-arimak, Jainkoari dei eginez, gure jendakiari lehen-bai-lehen begithartez itzul dakioen, eta hik oinhaze eta zafraldien bidez aithor dezaikaian hura dela Jainko baxharra.

38. Baina ene heriotzean eta ene anaieken gainean baraturen duk Ahalorotakoaren hasarrea, zeina gure jendaki guziaren gainera zuzenki jautsia baita.

39. Orduan erregek, hasarrearen khaldan, bertze guziei baino gogorkiagi jarzari zioen huni, min baizitzaioen trufatua izatea.

40. Hau ere beraz garbirik hil zen, gauza orotan Jaunaren baitan gogoza zabal idukiz.

41. Aldiz amak semeen ondolik azkenik jasan zuen heriotzea.

42. Baina bada aski erranik sakrifizioez eta dorphekeria gaindizkakoez.

### VIII. KAP.

1. Bizkitartean Judas Makabearra eta haren lagunak ixilka sartzen ziren herrietan; eta deithuz beren ahaideak eta adiskideak, eta Judu-legean gelditu zirenak hartuz, beren gana bildu zituzten sei mila gizon.

2. Eta Jaunari dei egiten zaroeten begira ziozon bere populu, guziei ostikatuari, eta urrikal bere tenplo, jende tzarrek khutsatzen zutenari;

3. Urrikal zakioen halaber hiriari, zeina xahutzera eta lurraren bardin egitera baitzaramaten, eta entzun haren gana deihadar egiten zuen odolaren oihua;

4. Orhoit zadien ere haurtto hobengabeen heriotze izigarriez, eta haren izenari arthikiak ziren burhoez, eta haren hasarrea phitz zadien horien gainean.

5. Aldiz, oste handia bildu ondoan, Makabearra jendaientzat ezin-jasanezkoa bilhakatu zen; ezen urrikalmendutara bihurtua zen Jaunaren hasarrea.

6. Oharkabean jauziz hiri eta gazteluen gainera, erretzen zituen; eta lekhu hoberenez nausituz, bazaramatzen etsaizko sarraski ez aphurrak.

7. Aldiz ardurenik gabaz egiten zituen horrelako atheraldiak, eta haren setzotasunaren omena alde orotara hedatzen hari zen.

8. Bada, Filipek ikhustenez Makabearra emeki-emeki nausitzera zihola, eta gauzak maizenean ongi atheratzen zitzaizkola, Ptolomeori, Zelesiriako eta Pheniziako buruzagiari iskribatu zioen, laguntza ekhar ziozoten erregeren egitekoei.

9. Harek berriz, berehala igorri zuen Nikanor, Patrokloren semea, gorteko lehenbizikoetarikoa eta bere adiskidea, emanik jendaia nahasteka batetik gizon harmatuak, ez hogoi mila baino gutiago, xahu zezan Juduen jendakia oro; eta laguntzat eman zioen Gorjias, gizon gerlaria eta gerlako gauzetan baintz jakina.

10. Nikanorrek gogoan hartu zuen Judu gathibuetarik erregeri atheratzea bi mila talendutako zerga, Erromarrei eman beharra zena.

11. Eta berehala igorri zuen itsastar hirietara, deithuz Judu gathibu eroatera, eta aginduz talendu baxharreko lau hogoi eta hamar gathibu emanen zituela. Etzitzaioen bururatzen Ahalorotakoaren asperra, haren gainera erortzera zihoa.

12. Judasek berriz, nabaritu bezain laster Nikanorren ethortzea, jakintsun egin zituen berekilako Juduak.

13. Hekietarik batzu, lotsakeriaz eta Jainkoaren zuzentasunean sinhesterik ez izanez, ihesari ematen ziren.

14. Bertzeek aldiz, deusere gelditu bazitzaioeten, saltzen zuten, eta hanbatean errekeitzen zuten Jauna, itzurraraz zetzan Nikanor gaixtoari, zeinak saldu baitzituen hurbildu ere baino lehen;



15. Athera zetzan, beren gatik ez bazen, bederen hekien aitekilako batasunaren ariaz, eta hekien gainera deithua zen izen saildu eta handiesgarriaren ariaz.

16. Makabearrak berriz, bilarazirik berekin zituen zazpi mila gizonak, othoizka galdatzen zaroeten etzitezen bake etsaiekin, ez-eta lotsa buruz bidegabezi heldu zitzaizoten etsai oste hartaz, bainan hazkarki guduka zitezen,

17. Begietan idukiz lekhu sailduari hekiek tzarki ekharri laidoa, eskarnioz hiriari egin iraina, eta bertzalde arbasoen legeen ezeztapena.

18. Eta erraten zuen: Alabainan hekiek beren harmetan eta oldarkoitasunean dute sinheste; guk berriz, gure sinhestea dadukagu Jaun ahalorotakoan, zeinak kheinu batez gure kontra heldu direnak eta mundu guzia ere xahu baitetzazke.

19. Orhoitarazi zituen halaber beren aitei Jainkoak eman izan ziozkaten laguntzez, eta Senakeriben azpiko bederatzitan hogoi eta bortz mila gizon galduak izan zirenez,

20. Eta Babilonian Galatiarren kontra eman guduaz, zeintan, guziak lotzera ethorri zirenean, Juduen lagunak, Mazedoniarrak khordokatuak zirelarik, sei mila Juduk bakharrik xahutu baitzituzten sei hogoi mila etsai, zerutik emanikako laguntzaren bidez, eta hortarik ardietsi baitzuten on asko.

21. Hitz horiek gogortu zituzten, eta beren legeentzat eta sortherriarentzat hiltzera zauden.

22. Ezarri zituen beraz bere anaiak, Simon, Josep eta Jonathas andana bakhotxaren buruan, bakhotxari hamabortz ehun gizon azpiko eman ez.

23. Arren Esdrasek ere irakurtu zioten ondoan liburu saildua, Judasek ezagutkarizat emanik hitz hauiek: Jainkoaren laguntza; lehenbiko lerroan berak abiatu zuen gudua Nikanorren kontra.

24. Eta Ahalorotakoa Juduen alde jarririk, hil izan zuten bederatzita mila gizonaz gainetik, ihes egitera bortxatu zuten Nikanorren armada gehiena, ordukoz sakhiz hebaindua.

25. Aldiz hekien erostera ethorri zirenei khendurik beren diruak, berei urrun ondolik egin zioten.

26. Bainan gibelerat itzuli ziren mugaren bortxaren azpian, ezen larunbat bezpera zen; aria hortaz etziren aitzina goan etsaiaren ondolik.

27. Gero hekien harmak eta buluzkinak bildurik, bestatu zuten larunbata, benedikatu Jauna, egun hartan libratu zituena, bere urrikalmentua gainera ixurtzen hasiz.

28. Larunbat-ondoko egunean berriz, hebainei, umezurtz eta alharguneki buluzkinetarik zathiak berezi zaroezten; eta gainerakoa izan zuten berentzat eta beren etxetakoentzat.

29. Horiek eginik beraz eta orok batean errekeitzu Jaun urrikalmentua, galdatzen zioten behin-bethiko bake zadien bere zerbitzariekin.

30. Horiez geroz, hekien kontra Timotheorekin eta Bakiderekin gudukatzen zirenetarik hil izan zituzten hogoi mila baino gehiago, nausitu ziren hazkargailu gora batzuez, eta zathitu zituzten asko harrapakin, zathi bardinak eginez hebain, umezurtz eta alharguneki, bai-eta gizonzaharrei ere.

31. Artharekin bildu ondoan etsaien harmak, behar-bezalako tokietan ezarri zituzten oro, eta gainerako buluzkinak eraman zituzten Jerusalemara.

32. Eta hil zuten Philarkes, Timotheorekin zabilan gizon guziz gaixtoa eta Juduei asko gaizki jasanarazi ziotena.

33. Jerusalemen esker-onen bihurtzen hari zirelarik, erre zuten Kalisthenes, athe sakratuen erretzailea, etxe batean gordea zagoena, eta bihurtu zioten bere izigarrikeriez merezitu saria.

34. Aldiz Nikanor, gaixtakeria guzien egilea, mila tratulari erakharri zituena Juduak hekiei saltzeko;

35. Jaunaren laguntzarekin, ezdeusentzat zaduzkan gizonaz aphaldua, bere karguko jaunzkura aberatsa utzirik, herrialdeak barna ihes, bakharrik heldu izan zen Antiokiara, zorigaitzik handiena aurkhitu ondoan bere armadaren galtzean.

36. Eta nork-ere agindu batzuen, Erromarren zerga pagatuko zuela Jerusalemgo gathibuen saritik, hedatzen zuen orduan Jainkoak gerizatzen zituela Juduak, eta haren gatik ezin-sakhituak zirela, harek ezarri legeei jarraitzen zirelako.

## IX. KAP.

1. Ordu hartan berean Antioko Persiatik bihurtzen zen eder-er-bezala.

2. Ezik Persepolis deitzen den hirian sarthu eta abiatu zen tenploaren biluztera eta hiriaren hestutzero; bainan jendeak harmetara laster eginik, ihesari eman zen bere lagunekin; eta ihes egin ondoan, Antioko horrela gerthatu zen itsuski bihurtzero.

3. Eta Ekhatanako inguruetara ethorri zenean, jakin zituen Nikanorri eta Timotheori gerthatu gauzak.

4. Eta hasarreak zoraturik, uste zuen ihes igorri zutenen ganikako iraina Juduen gainera bihur zezakeela; hargatik manatu zuen eragin zio-



zoten haren orga-lasterrari, eta hatsarterik gabe bideari jotzen zuen, zeruraren aiherra ondotik, zeren burgoiki erran zuen ethorriko zela Jerusalemara eta hartarik eginen zuela Juduen hobiko munthoina.

5. Bainan Israelgo Jainko Jaunak, oro ikhusten dituenak, jo zuen ezin-sendatuzko eta ezin-ikhusizko zauri batez; ezen solas hori akhabatu zuen bezain sarri, lothu zitzaizkon sabeleko min bat garratza eta barneko oinhaze gogorrak.

6. Eta hori aski zuzen bide zen, berak asko estira berriz estiratu zituenaz geroztik bertzeen sabelak, ez baitzen oraino bere gaixtakerietarik niholaz-ere baratu.

7. Aitzitik, horren gainean hanpuruskeriaz bethea, sudur-mizpiretarik Juduen kontra su zarioelarik, eta bere manuez bidaia herrasaka zaramalarik, gerthatu zen oldarrean orga-lasterretik erortzera, eta danbatakak hezur guziak guritu ziozkala.

8. Eta gizonen negurritik gorago hanpurustasunez betherik uste zuenak itsasoko uhinei ere mana eta balantzetan hazta mendi-bizkarrak, orduan lurreraino beheratua ekhartzen zuten hagetan, lekhukotasun bihurtzen zioelarik Jainkoaren indar haren gainean agertzen zenari;

9. Haletan non harrak mulkhoka ilkhitzen baitzuren gaixtaginaren gorphutzetik, eta oinhazeen erdian bizi zelarik, haragiak puskaka erortzen baitzitzaizkon eta haren usainak ere eta urrin gaitzak khexatzen baitzuten armada.

10. Eta lehentxago zeruko izarrak uki uste zuena, nihork etzezakeen ekhar gehiago, haren ezin-jasanezko usainaren gatik.

11. Halaz bere burgoikeria gaitzetik atheratua, abiatu zen ezagutzara bihurtzen, Jainkoaren ganikako zauriak ohartarazten zuen bezala, ordu oroz garratzago lotzen zitzaizkon oinhazeen bidez.

12. Eta nola berak ere azkenekoz ezin jasan baitzezakeen bere usaina, hunela mintzatu zen: Zuzen da gizona izan dadien Jainkoaren meneko, eta hilkizun denak ez dezan uste izan Jainkoaren heineko dela.

13. Gaixtagin harek othoizten zuen beraz Jauna, zeinaren ganik ez baitzuen urrikalpenik ardietsi behar.

14. Eta hiria zeintara herresaka baitzihoan, hura lurraren bardinera ekharri eta hil-murrueen hobi egin beharrez, orai libro nahi du egin;

15. Eta agintzen du Athenatarren bardin eginen dituela Juduak, zeinek ez baitzuten haren erranera ehorztea merezi, bainan arthiki behar baitzitzen hegastin eta basabereei jatera, eta haurttoetaraino kalitu;

16. Agintzen du halaber, tenplo saindua aitzinean larrutu duena, emaitza ederrenez aphainduren, untzi sakratuak berhaturen, eta sakrifizioei darontzoten gastuak bere zuzenatarik eginen dituela;

17. Eta horiez bertzalde, Judu eginen dela, eta lurreko bazter guziak gaindi ibiliren dela, orotan Jainkoaren ahala erantzunez.

18. Bainan oinhazeak ez baratzenez (ezen haren gainera jautsia zen Jainkoaren juiamendu zuzena), etsiak harturik, Juduei errekei-arara iskribatu zioten gutun bat solas haukiek zaduzkana:

19. Antioko errege eta buruzagiak Juduei, herritar guziz onei, agur, osagarri eta zorion.

20. Osagarritan balin bazarete zuek eta zuen haurrak, eta zuen gogarra badihoazkitzue guziak, eskerrik handienak bihurtzen diozkagu Jainkoari.

21. Eta nik, eri jarria naizen arren, bainan zuetaz bihotz onez orhoiti, eta gaitz handiak Persiako eremuetarik gibelerakoan atzemana, uste izan dut guzien ona gatik egitekoez artha hartzea premia dela;

22. Ez etsitzen dudalakoan ene buruaz, bainan gaitzari itzurtzeko igurikimen handia dudalarik.

23. Ezarriz ordean ene begien aitzinera, ene aitak, hergaraietan gaindi bere armadaren buruan ziholarik, erakhutsi izan zuela nork hartuko zuen haren ondotik khoroa;

24. Arren-eta, baldin zerbait makhur gerthatzen, edo berri gaixto zenbait barraiatzera heldu bazen, herrialdeetan zirenek, jakinez nori utzia zen egitekoen gaineko buruzagitasuna, etzezaten asaldurik har.

25. Hortarakoz, begietsiz hurbilean badirela indarretako gizon batzu eta hauzoak, arteari zelatan eta gerthakizunari iguri dagozkietenak, errege erakhutsi dut Antioko ene semea, zeina zuetarik askori ardura gomen-datzen bainuen hergaraietako erresumetara goaten nintzenez; eta hari iskribatu diozkat gutun hunen azpian direnak.

26. Othoizten zaituztet beraz eta galdatzen darotzuet orhoiturik nik agerian eta bakhartasunean egin darozkitzuedan ongiez, batbederak fedea iduk diazaguzuen niri eta ene semeari.

27. Ezen badut ustea ezti eta gizatiar izanen dela, eta ene xedearen eta zuen guzien onaren arabera ibiliko dela.

28. Beraz gizon-hiltzaile eta burholari hura, gaitz izigarrienaz joa, berak bertzeei egin izan ziotenaren arabera, lur arrotzean, mendi batzuetan akhabatu zen heriotze ondikozkoenetik.



29. Haren gorphutza ekharri zuen Filipek, zeina bulhar beraz hazia izan baitzen; eta haren semearen beldurrez, Egiptora goan zen Ptolemeo Philometorren gana.

### X. KAP.

1. Bizkitartean Makabearrak eta harekin zirenek, Jaunak lagunduz hartu zituzten tenploa eta hiria.

2. Urratu zituzten, berriz, arrotzek plazetan altxatu tenploak eta aldareak.

3. Tenploaren xahupena eginik, egin zuten bertze aldare bat, eta su-harrietarik sua ilkhirik, eskaini zituzten bi urtheren buruan sakrifizioak, isentsua, kriseluak eta proposizioneko ogiak.

4. Horiek eginik, lurrean ahuspez othoizten zuten Jauna etzitzan utz gehiago hanbateko asturugaitzetara erortzera; bainan bekhatu egitera heldu baziren, berak eztikiago gaztiga zetzan, eta ez arthik gizon gogor eta burholarien eskuetara.

5. Tenploaren xahupena egitera gerthatu zen egun berean zeintan lohitu izan baitzuten arrotzek, kasleuko hilabethearen hogoi eta bortzean.

6. Zortzi egunez bozkariotan egin zuten besta, tabernakleetako bestaren arara, orhoituz lehentxago ihiziek bezala mendietan eta har-ziloetan egin izan zutela tabernakleetako besta-burua.

7. Horren gatik ekhartzen zituzten makhila flokatuak, hostoila berdeak eta palmak, tenploaren xahutzeko zoriona eman ziotenaren ohoretan.

8. Eta erabaki bat hartu zuten, Juduen jendaki guziak urthe oroz bes-tatzeko zituela egun hekiek.

9. Horra nola bizitik heriotzera iragan zen Antioko, Zoharra deithua izan zena.

10. Orai erranen ditugu Upatorren, Antioko gaixtoaren semearen egintzak, laburtzen dugularik gerlateko asturugaitzen solasa.

11. Upatorrek hartu zuenean erregetasuna, erresumako egitekoen artha eman zioen Lisis deitzen zen bati, zeina Pheniziako eta Siriako armadaren buruzagi baitzen.

12. Ezen Ptolemeok, izen-goitiaz Mazerrek, gogo hartu zuen Juduen alderako zuzentasunean gogor egotekoa, bereziki hekien gainean erabili zituzten gaixtakerien gatik, eta hekiei baketiarki hotsematekoa.

13. Bainan hori zelakoz, Upatorren adiskideek jazartzen zioten erregeren baithan. Nola maiz aditzen baitzuen traidorearen izena, zeren utzi zuen Zipro Philometorrek zaintzera eman izan zioena, eta Antioko

Zoharraren aldera iraganik, haren ganik ere urrundu izan baitzen, phozoinaz bere buruari khendu zioen bizia.

14. Gorjiasek berriz, toki hekietako kargua izatu zuenean, soldado arrotzak harturik, ardura egiten zioten Juduei gerla.

15. Aldiz, estanta oneko hazkargailuak zaduzkaten Juduek beren ganat hartzen zituzten Jerusalemetik iraziak ziren gizonak, eta gerla egi-tera hari ziren.

16. Berriz, Makabearrekin zirenek, Jaunari othoizka galdaturik lagun zitzan, Idumearren hazkargailuen kontra oldar egin zuten;

17. Eta indar handiarekin bermaturik, lekhuez nausitu ziren, atzema-nak hil zituzten eta guzien artean etzuten xahutu hogoi mila gizon baino gutiago.

18. Eta nola etsaietarik zenbaitek ihes egin baitzuten bi dorre guziz hazkarretara, zeinetan buru egiteko behar den guzia baitzen,

19. Makabearrak hekien hartzeko utzi zituen Simon, Josep eta Zakeo, eta haukiei beren lagunetarik, behar zen bezenbat; eta berak laster egin zuen gudu premiago batzuetara.

20. Bainan Simonekin zirenak, jaramankeriaren ariaz, dorreetan ziren batzuek hartaraturik, diruz izan ziren atzemanak; eta hirur hogoi eta hamar mila bidrakmentzat utzi zituzten zenbait itzurtzera.

21. Bainan berri hori ekharria izan zitzaionean Makabearrari, hunek zaharren bilkhuaren aitzinean jazarri zioten, dirutan saldu zituztela beren anaiak, itzurtzerat utziz hekien etsaiak.

22. Hilarazi zituen beraz traidore egin zirenak, eta bi dorreez nausi-tu zen berehala;

23. Eta harmez eta indarrez traba guziak hautsiz, bi dorreetan hil zituen hogoi mila gizonaz goiti.

24. Bainan Timotheo, zeina lehenago Juduez garhaitua izan baitzen, ethorri zen arrotzeko armada bat eta Asiako zaldizkoak bildurik, iduri harmez nausitzera zihoala Juduez.

25. Hurbiltzen hari zelarik, Makabearrak eta bere lagunek errekeitzen zuten Jauna, buruak hautsez eta soinak zurdatzaz estalirik,

26. Aldarearen oinetan ahuspez, begithartez jar zadien, beren etsaiei etsai, eta partidei partida athera zadien, legeak dioen bezala.

27. Eta haletan othoizta eginik, eta hiritik urrun aitzinatuz, baratu ziren etsaiari hurbildu zirenean.

28. Iguzkia ilkhitzearekin, batzuek eta bertzeak gudura egin zuten, haukiek beren indarrarekin Jauna zutelarik garhaiziaren berme, eta hekiek bere bihotza zuten guduko buruzagi.



29. Bainan gudua muthiritu zenean, etsaiei zerutik agertu zitzaizko ten bortz gizon zaldiz, urhezko hedeeekin, Juduen buruzagi jarriak.

30. Hekietarik biek artean zadukatelarik Makabearra, beren harmez gerizatzen eta begiratzen zuten; berriz, arthikitzen zituzten geziak eta ozpinak etsaietara, eta haukiek itsutuak eta nahasiak, trunbilka lurrerat erortzen ziren.

31. Hogoi mila eta bortz ehun oinezko eta sei ehun zaldizko hilak izan ziren.

32. Timotheok aldiz ihes egin zuen Gazarara, gaztelu hazkarrera, zeintan manatzen baitzuen Kereasek.

33. Bainan Judasek eta bere lagunek bozkarioz lau egunez sethiatu zuten gaztelu hura.

34. Barnean zirenek berriz, tokiaren hazkartasunari fidatuz, nihone-reko madarizioneak eta ahapaldiak arthikitzen ziozkaten.

35. Bainan bortzgarren egunak argitu zueneko, hogoi gizon-gazte Makabearrekin zirenetarik, burho horietaz subermatuak, gizonak bezala hurbildu ziren harrasira, eta bihotz handirekin aitzinatzen eta igaiten ziren;

36. Eta bertzeak ere orobat iganez goan ziren dorreei eta athee su ematera, eta bizirik erre zituzten burho-egile hekiek.

37. Gero bi egun osoz gazteluaren xahutzen hariturik, hil zuten Timotheo zokho batean gordea zagoena; hil zituzten halaber Kereas haren anaia eta Apolophanes.

38. Horiek egin ondoan, himnotan eta aithorretan benedikatzen zuten Jauna, zeinak eginkari handiak atheratu baitzituen Israelen eta berei eman izan baitzioten garhaizia.

## XI. KAP.

1. Bainan handik laster, Lisias erregeren ministro eta ahaidea, eta egitekoeen kargua zuena, gerthatu zenaz jasangaitz,

2. Bildurik laur hogoi mila oinezko eta zaldizko guziak, Juduen kontra bideari eman zen, ustez hiria harturik egoitzetako emanen zaroetala jendaiei;

3. Tenploa berriz, diru egiteko baliaturen zitzaioela, hala-nola jendaien tenploak, eta aphezgoa urthe oroz salduko zuela.

4. Den-gutienekorik etzitzaioen bururatzen Jainkoaren ahala; bainan gogoa gaihendurik, bere sinheste guzia zadukan bere oinezkoen ostearen gainean, bere zaldieria handiaren eta laur hogoi elefanten gainean.

5. Judean sarthurik beraz, eta hurbildurik Betsurari, zeina arte hertsiki batean baita, Jerusalemetik bortz estadiotan, sethiatu zuen gaztelu hura.

6. Aldiz Makabearrak eta haren lagunek jakin zuteneko gazteluei jazartzen ziotela, deihadar eta nigarretan othoizten zuten Jauna (eta populu guziak hekiekin batean), aingeru on bat igor zezan Israelen salbatzera.

7. Makabearrak berak lehenbizikorik harmak harturik, berarekin batean bizien mentura jasaitera berotu zituen bertzeak, eta beren anaiei laguntza ematera.

8. Eta guziak bardin bihotzoiki zihoazelarik, Jerusalemgo aldean agertu zen zaldizko bat hekien aitzinean zihoala soineko xuritan, urhezko harmekin eta lantza bat dardaratuz.

9. Orduan orok batean benedikatu zuten Jaun urrikalmendutsua, eta hanbat berotu ziren bihotzez, non ez ezik gizonen, bainan basabererik gogorrenen gainera jautzera, eta burdinazko harrasien zilhatzera baitzauden.

10. Arin zihoazen beraz, zerutik baitzuten laguntza, eta Jauna hekien gainean urrikaltzen baitzen.

11. Eta lehoinak bezala, oldarrean jauziz etsaien gainera, lurra joarazi zioten hekietarik hameka mila oinezkori eta hamasei ehun zaldizkori;

12. Oro ihes igorri zituzten; asko berriz, sakhiakin eta buluzik itzuri ziren. Lisias bera ere itsuski ihes eginez itzuri zen.

13. Eta nola ez baitzen zoroa, bere baithan iraganik zer galtzea egin zitzaioen eta ezagaturik ezin-garhaitzukoak zirela Hebrearrak, Jainko ahalorotakoaren laguntzaren gainean bermatzen zirenean, igorri ziozkaten bidalkinak,

14. Eta agindu zioten onhetsiren zituela zuzen ziren gauza guziak, eta hertsaturen zuela errege hekiekin adiskidetzera.

15. Makabearra aldiz, orotan herriko onari begiratuz, erori zen Lisiasen othoitzetara; eta erregek onhartu zituen Makabearrak Juduentzat iskribatu guziak.

16. Ezen Lisiasek Juduei iskribatu gutunak hunela mintzo ziren: Lisiasek Juduen jendakiari, agur.

17. Joanek eta Absalomek, zuen bidalkinek, gutunak ematean galdatu dute bethe detzadan hekietan erranak direnak.

18. Beraz erregeren begien azpian ezarri ditut, haren aitzinera eman zitazkeen guziak, eta onhetsi ditu egitekoek agintzen zituztenak oro.

19. Baldin beraz zintasuna begiratzen baduzue egitekoetan, ni ere hemendik goiti hariko naiz zuei ongi ekhartzera.

20. Bertze gauzez berriz, bakhotxaren gainean mintzatu naiz zuen bidalkinei eta eneei, zuekin solas egin dezaten.





21. Izan ongi. Zazpitan hogoi eta zortzigarren urthean, dioskoroko hilabetearen hogoi eta laurean.

22. Aldiz, hau zadukan erregeren gutunak: Antioko erregeak anaia Lisiasi, agur.

23. Gure aita jainkoen artera eramana izan denaz geroztik, guk nahiz gure erresuman direnak asaldurik gabe bizi ditezten eta beren egitekoei artha ekhar diozoten;

24. Entzun dugu Juduek ez dutela onhetsi ene aitak manatu zuena, iragan zitezen Greziarren legera; baina beren ohitzak nahi dituztela iduki, eta aria hortaz galdatzen dutela utz diotzoguten beren legeak.

25. Guk beraz populu hori ere bakean izan dadien nahi baitugu, erabaki bat hartuz juiatu dugu tenploa bihurtua izanen zaiotela, beren arbasoen ohitzaren arabera bizi ditezten.

26. Ongi eginen duzu beraz norbait igortzen badiozute eta eskua ematen; arren-eta gure nahia jakinez, onik izan dezaten gogoia, eta beren beharrei hotseman diozoten.

27. Juduentzat berriz, hunelakoa zen erregeren gutuna: Antioko erregeak Juduen biltzarrari eta bertze Juduei, agur.

28. Osagarritan balin bazarete, guk nahi bezala zarete; guk ere badugu osagarri.

29. Menelao ethorri zaiku erratera, zuen gizon gurekin direnetara nahi duzuela jautsi.

30. Segurtasuneko eskua ematen daroegu beraz horra-hunaka ibiliko direnei ksantikoko hilabetearen hogoi eta hamargarren eguneraino,

31. Juduak aitzinean bezala beren haragiez eta legeez zerbitza ditezten, eta nihork ez diozoten niholaz-ere jasanaraz ustegabeko hutsen ariaz.

32. Berriz, Menelao ere igorri dugu zuekin ihardukitzera.

33. Izan ongi. Zazpitan hogoi eta zortzigarren urthean, ksantikoko hilabetearen hamabortzean.

34. Aldiz Erromarrek ere gutun bat igorri zuten hau zakharrena: Kinto Memio eta Tito Manilio, Erromarren bidalkinek Juduen populuari, agur.

35. Onhesten darozkitzuegu Lifasek, erregeren ahaideak, onhetsi darozkitzuenak.

36. Baina erregeren eskura eman behar zituela uste izatu dituenek, berehala norbait igorrazue, zuen artean lehen-bai-lehen solas eginik, zuei ongi dihoakizuen erabakia har dezagun, ezen Antiokiara bagoazi.

37. Hargatik laster iskriba darokuzue berriz, guk ere jakin dezagun zer nahikundetan zareten.

38. Izan ongi. Zazpitan hogoi eta zortzigarren urthean, ksantikoko hilabetearen hamabortzean.

## XII. KAP.

1. Antolamendu horiek eginik, Lisias goan zen erregeren gana; Juduak berriz, lothu ziren lurreko lanei.

2. Baina gelditu zirenek, Timotheok eta Apoloniok, Jeneoren semeak, Hieronimok eta Demophonek ere, eta bertzalde Nikanorrek, Ziproko buruzagiak, etzioten uzten, ez bake, ez deskantsurik.

3. Jopetarrek berriz, hunelako traidorekeria egin izan zuten: othoiztu zituzten hekiekin batean egoten ziren Juduak, beren haur eta emazteekin igan zitezten xuxenduak zituzten pinazetara, hekien artean etsaigorik etzen bezala,

4. Hirian guzientzat atheratua zen erabakiaren arabera, eta berek onhartzten baitzuten, eta Juduek ez baitzuten bakearen gainean nabarmentzeko ariarik. Baina zabalera heldu izan zirenean, Jopetarrek itho zituzten, ez berrehun baino gutiago.

5. Judasek jakin bezain laster bere jendakitikako gizonen gainean egina izan zen gaixtakeria, manatu zituen berekilakoak; eta Jainkoari, jui zuzenari dei eginik,

6. Ethorri zen anaien hiltzaileen kontra; portuari su eman zioen gabaz, erre zituen pinazak, eta suari itzuri gizonak ezpatatik iragan zituen.

7. Eta horiek egin ondoan, goan zen, Jopetar guzien xahutzera bihurtzekotan.

8. Baina nola jakin baitzuen Jamniakoek ere orobat egin nahi ziotela hekiekin zauden Juduei,

9. Jamniarren gainera halaber gabaz erori zen, eta portua untziekin erre zioten, haletan non suaren argia ageri baitzen Jerusalem, hamabitan hogoi estadiotan.

10. Handik bederatzi estadioz urrunduz zenean, eta Timotheoren kontra zihoalarik, Arabiarrak guduka lothu zitzaizkon bortz mila oinezko eta bortz ehun zaldizko.

11. Eta guduko beroenean, noiz-etare Jainkoaren laguntzaz garailiar baitzen Judas, gelditzen ziren Arabiarrek, bentzutuak izanez, galdatu zioten eskua, aginduz emanen ziozkatela alhapideak, eta orotan lagunduko zutela.

12. Judasez aldiz, asko gauzetako baliaturen zitzaizkoelako ustean, agindu zioten bakea; eta Arabiarrak eskuak emanik, itzuli ziren beren olhetara.



13. Gero jazarri zioen Kasphin deitzen zen hiri hazkar, zubiz eta harrasiz inguratua zen bati, eta zeintan baizauden jendaia nahasteka handi batzu.

14. Barnekoek berriz, beren sinhestea ezarriz harrasien sendotasu-  
nean eta beren jatekoketen gainean, nagiki egiten zuten indar, Judasi  
madarizioneak eta burhoak arthikiz, eta zilhegi ez direnak erranez.

15. Makabearra aldiz, dei egin ondoan munduko buruzagi handiari,  
zeinak Jesusen egunetan, aharirik eta tresnarik gabe eragotzi baitzituen  
Jerikoko harrasiak, beldurrik gabe jauzi zen harrasietara.

16. Eta Jaunaren nahitik hartu zuenean hiria, hanbateko sarraskia  
egin zuen, non ondo hartako ezteinu batek, bi estadioz zabal zenak, iduri  
baitzuen uraren orde hilen odola zerabilala.

17. Handik goanik, egin zuten zazpi ehun berrogoi eta hamar esta-  
dioren bidea eta Karakara ethorri ziren, Tubianarrak deitzen diren  
Juduetara.

18. Toki hekietan ezin atzeman zuten Timotheo, zeina deusera akha-  
batu gabe gibelerat itzuli baitzen, gartzelu batean utzirik tropa guziz haz-  
karra lekhuaen zaintzen.

19. Bainen Dositheok eta Solpaterrek, Makabearrarekilako buruza-  
giek, Timotheok utzi zainetarik hil zituzten hamar mila gizon.

20. Aldiz Makabearrak bere inguruan lerrotan ezarri zituen sei mila  
gizon; eta andanaka berezirik, abiatu zen Timotheoren kontra, zeinak bai-  
titzuen sei hogoi mila oinezko eta bi mila eta borts ehun zaldizko.

21. Timotheok, Judaren ethortzea jakinik, aitzinean igorri zituen  
emaztekiak, haurrak eta hatuak, Karnion deitzen den gartzelu batera,  
zeren ezin-hartuzkoa baitzen eta hurbil-gaitza inguruko atheken gatik.

22. Judasen lehenbiziko andana agertu zenean, beldurrak jo zituen  
etsaiak, han zelakoz Jainkoa, guziak ikhusten dituen, eta batak bertzea  
ihes igorri zuten, haletan non gehienean elkhar hiltzen baitzuten eta  
beren ezpaten ukhaldien azpira erortzen baitziren.

23. Judasek berriz, muthiriki hertsatzen zituen, gaixtagin hekiek gaz-  
tigatuz, eta hil zituen hogoi eta hamar mila gizon.

24. Aldiz Timotheo bera erori zen Dositheoren et Sosipaterren  
eskuetara, eta asko othoitz eginez galdatzen zuen utz zezaten bizirik goa-  
tera, zeren atzemanak baitzituen Juduen ahaide eta anaia hainitz, zeinek  
haren heriotzeaz, libratzeko pheskiza galduko baitzuten.

25. Eta bere fedea emanik libratuko zituela, hekien artean egin patua-  
ren arabera, minik gabe utzi zuten beren anaien salbatzea gatik.

26. Gero Judas goan zen Karnionera eta hil zituen hogoi eta borts  
mila gizon.

27. Haukiek, batzu ihes goan eta bertzeak hil ziren ondoan, Judasek  
higiarazi zuen armada Efromera, hiri hazkarrera, zeintan egoten baitzen  
asko jendakitarikako oste handi bat, eta harrasien gainean bazen gazteria  
hazkar bat, bihotzoiki buru egiten zuena; hirian berriz, baziren gerlako  
tresna hainitz eta geziketa handi bat.

28. Bainen Juduek dei eginik Ahalorotakoari, zeinak bere ahalaz  
hausten baititu etsaiaren indarrak, hartu zuten hiria, eta barnekoetarik  
hogoi eta borts mila hedatu zituzten lurrean.

29. Handik goan ziren Sithiarren hirira, zeina Jerusalemetik sei ehun  
estadiotan baitzen.

30. Bainen Sithopolistarrekin egoten ziren Juduek lekhukotasun  
atherarik begitharte izatu zutela hekien ganik ordu gaitzetan ere, eta ezti-  
tasuna erabili ziotela;

31. Judasen lagunek eskerrak bihurtu ziozkaten, eta hertsaturik bethi  
izan zitezen begithartetsu hekien odolekoen alderat, Jerusalemera ethorri  
ziren, zazpi asteetako besta-buru hurbildua zenean.

32. Eta Mendekoste-ondoan goan ziren Gorjias, Idumeako buruza-  
giaren kontra.

33. Ilkhi zen hirur mila oinezkoekin eta laur ehun zaldizkoekin.

34. Gudutan lothu zirenean, Juduetarik bakhar batzu gerthatu ziren  
erortzera.

35. Bainen Dositheo deitzen zen gizon hazkar bat, Bazenorisen zal-  
dizkoetarik, lothua zagoen Gorjias; eta bizirik hartu nahi zuen orduan,  
Thraziar zaldizko bat jauzi zitzaioen eta ebaki zioen sorbalda; eta horre-  
letan Gorjias itzuri zen Maresara.

36. Bainen Esdrinekin zirenak luzez gudukatu eta nekhatuak baitzi-  
ren, Judasek dei egin zioen Jaunari egin zadien hekien laguntzaile eta  
guduko buruzagi.

37. Eta herriko mintzaian hasiz, himnoekin oiuhu bat eginik, ihes igo-  
rri zituen Gorjiasen soldadoak.

38. Gero Judasek bilarazi zuen armada eta ethorri zen Odolamgo  
hirira, eta nola zazpigarren eguna ethorri baitzen, ohitzaren arabera beren  
buruak xahuturik, toki hartan bestatu zuten larunbata.

39. Biharamunean Judas bere lagunekin goan zen guduan hilak izan  
zirenen altxatzera, beren ahaideekin, arbasoen hobietan ehorzteko.



40. Bada, hilen xamarpeetan aurkhitu zituzten Jamnian ziren idolei eginikako eskaintzetarik, zeinetarik legeak debekatzen baititu Juduak: gauza ageria egin zen beraz guzien begietara, aria hortaz jo zutela lurra.

41. Hargatik orok benedikatu zuten Jaunaren juiamendu zuzena, zeinak agerian ezarri baitzuen gordea zen gauza.

42. Eta horreletan beren buruak othoitzari emanik, errekeika haritu ziren ahanspenera utzia izan zadien egin zen hobena. Berriz, Judas guziz balentak hizitatzen zuen populua bekhatutik bere buruaren begiratzaera, begien azpian ikhusten zutelako zer zen gerthatu eroriak zirenen bekhatuen ariaz.

43. Eta eske bat eginik, Jerusalemara igorri zituen hamabi mila drakma zilharrezko, sakrifizio bat eskainia izan zadien hil zirenen bekhatuentzat, bigarren biziaren gainean asmu on eta jainkotiarrak baitzituen

44. (Ezen uste izan ez balu hil zirenak birphiztekoak zirela, lan huts eta behargabekoa idurituko zitzaioen hilentzat othoitz egitea),

45. Eta haren idurira, jainkotiarki lotan sarthu zirenentzat berezia baitago saririk ederrena.

46. Asmu saindu eta salbagarria da beraz hilentzat othoitz egitea, bekhatuetarik izan ditezen arinduak.

### XIII. KAP.

1. Zazpitan hogoi eta bederatzigarren urthean, Judasek jakin zuen Antioko Upator oste handi batekin heldu zela Judearen kontra,

2. Eta harekin Lisias ministroa, egitekoen kargua zuena, zeinak baitzakharzkan ehun eta hamar mila oinezko, bortz mila zaldizko, hogoi eta bi elefant eta hirur ehun orga-laster segatzatu.

3. Aldiz, Menelao ere hekiekin jarri zen, eta maltzurkeria handiarekin othoizten zuen Antioko, ez sortherria salbatu beharrez, baina buruzagigoan ezarria izateko irritsean.

4. Baina erregeen erregeak eraiki zuen Antiokoren gogoa gaixtaginaren kontra; eta Lisiasen erranik hura zela gaitz guzien ithurburua, erregek manatu zuen, hekien ohitzaren arabera, harturik hil zezaten han berean.

5. Bada, toki hartan bazen dorre bat berrogoi eta hamar beso gora zena, eta zeintara alde orotarik bildu baitzuten hausketa handi bat; gainetik lezea zen begien azpian.

6. Erregek manatu zuen handik arthik zezaten sakriliotsu hura hautserra, oro haren hilaraztera hari baitziren.

7. Horrelako legeaz hiltzera eta lurrari ez ematera gerthatu zen Menelao, lege guzien hauslea.

8. Eta zuzenbide zen; ezik nola gaizki handiak egin baitzituen Jainkoaren aldarearen kontra, zeintako sua eta hautsa sainduak baitziren, hautsetikako heriotzera izan zen bera kondenatua.

9. Bizkitartean errege tentutik jauzirik heldu zen, bere aita baino muthiriago, Juduei bere burua erakhusteko gogoarekin.

10. Horiek jakinik, Judasek populuari manatu zioen gau eta egun deihadarka egon zakioela Jaunari, bethi bezala lagunt zetzan orduan ere.

11. Ezen ikharan zauden, legeaz, sortherriaz eta tenplo sainduaz gabetuak izan zitezten; eta jendaia burholariei utz zezan azpikotzera berriz populua, doidoia hats-hartzen hasia zena.

12. Hargatik guziek batean hori egin, eta hirur egun osoz ahuspeka, nigarrez eta baruretan Jaunari urrikalmendu galdatu zioten ondoan, Judasek berotu zituen abian jartzera.

13. Berak aldiz zaharrekin atheratu zuen ilkhitzeko asmua erregek armada Judeara sarraraz eta hiria har zezan baino lehen, eta Jaunaren juiamendura uzteko egitekoaren ondorea.

14. Hargatik Jainkoari, munduaren kreatoriari, ezagutuz gauza guzien gaineko ahala, eta bere gizonak beroturik hazkarki gudukatzera; legeentzat, tenploarentzat, hiri, sorlekhu eta herritarrentzat heriotzeraino gogor egotera; Modingo aldaketan jarri zuen armada.

15. Eta bere gizon-gazte haitei eta biphilenei ezagutkarizat emanik hitz haukiek: Jainkoaren garhaizia; gabaz jauzi zen erregeren olharen gainera, eta hil zituen kanpetan lau mila gizon eta elefantik handiena, haren gainera iganak zirenekin.

16. Eta ikhara eta asaldu handiaz betherik etsaien kanpak, eta gauzak ongi atheraturik, gibelerat itzuli ziren.

17. Jainkoak bere laguntza emanik, hori egin zen argi-hastean.

18. Baina erregek Juduen oldarrera dastatu zuenean, amarruka hari zen lekhu gaitzen eskuratzera.

19. Eta kanpak higitu zituen Bethsurara, zeina baitzen Juduen gaztelu hazkarra. Baina batean ihes, bertzean erori, eta bethi aphurtuz zihoan.

20. Judasek berriz, barnekoei behar zituztenak igortzen ziozkaten.

21. Baina Juduen armadako gizon batek, Errodokok, etsaiei salhatu ziozkaten gauzak. Hortaz bilhatua izan zen, hartua eta preso ezarria.

22. Gero errege solasetan sarthu zen Bethsuran zirenekin; eman zuen eskua, bertzeen ganik ere hartu, eta goan zen.

23. Judasekin gudukatu, eta garhaitua izan zen. Jakinik ordean Antiokian bihurri egin zuela Filipek, zeina egitekoen karguarekin utzia izan baitzen, gogoa erori zitzaion, eta Juduei othoizka eta jauspenka, zin



egin zuen zuzen iduritu guzien gainean; eta bakeak eginik, eskaini zuen sakrifizio bat, ohoratu tenploa eta emaitzak ekharri.

24. Besarkatu zuen lakabearra, eta egin zuen aitzindari eta buruzagi Ptolemaidatik eta Gerrenarretaraino.

25. Bainan Ptolemaidara ethorri zenean, Ptolemaidarrak gaitzez zauden adiskidantza hortako patuaz, eta jauziak zauden hean ez othe zuten hautsiko antolamendua.

26. Orduan Lisias igan zen tribunalera, begietara eman zituen bere ariak, jabalarazi zuen populua eta Antiokiara itzuli zen; eta horra zer ondore izatu zuten erregeren ethortzeak eta goateak.

#### XIV. KAP.

1. Bainan handik hirur urtheren buruan, Judasek eta bere lagunek jakin zuten Demetrio, Seleukoren semea, armada hazkar batekin untzitan ethorri zela Tripoliseko portura, handik igan zela ephaitza hautenetara,

2. Eta tokiaz nausitu zela Antiokoren eta haren azpiko buruzagi Lisiasen kontra.

3. Bada, Alzimo deitzen zen batek, zeina aphez-handi izatua, bainan bere oldetara nahas-mahaseko denboran, khutsatua baitzen, ikhusirik etzela niholaz-ere harentzat ez lotzeko, ez aldarera hurbiltzeko biderik,

4. Demetrio erregearen gana jo zuen zazpitan hogoi eta hamargarren urthean, eskaintzen ziozkalarik urhezko khoro bat, palma bat, eta bertalde adar batzu ere, tenplotikakoak iduri zutenak. Eta batik-batean ixilik egon zen egun hartan.

5. Bainan haren buru jauziak behar zuen bezalako artea atzemanik, Demetriok biltzarrera deitu eta galdatau zioenean zer indarren eta zer asmuren gainean bermatzen ziren Juduak,

6. Ihardetsi zuen: Juduetan, zeinen buruan baita Judas Makabearra, Asidearrak deitzen dituztenek hazten dute gerlatea, bihurrialdiak bizten eta erresuman bake onik ez jasaiten.

7. Ezen neroni ere ene arbasoen ospetik (aphez-handigotik diot) buluzia izanik ethorri naiz hunat,

8. Lehenbizikorik erregeren zuzenei zintasanaren begiratzeko, eta bigarrenekorik ene herritarren onari halaber artha emateko; ezik gizon hekien gaixakeriak gure jendaki guziari ez dio guti jasanarazten.

9. Holetan horiez guziez jakintsun zaren ber, othoizten zaitut, oi errege, gure lekhuari eta jendaiari begira diozozuten, zure gizatiartasun orotaz ezagutua denaren arabera.

10. Alabainan Judas geldituko deno, bakea ezina da egitekoetan.

11. Harek holako solasak erran ondoan, bertzeek ere, haren adiskide eta Judasen etsai atheratzen zirenek, suztatu zuten Demetrio.

12. Erregek berehala Judeara igorri zuen buruzagi Nikanor, elefanten kargua zuena,

13. Manaturik atzeman zezan Judas, barraiaraz harekilakoak, eta Alzimo ezar tenplo handiko aphez-nausi.

14. Orduan jendaiak, Judeatik Judasen ihes goan zirenak, moltzoka abiatu ziren Nikanorren gana biltzen; Juduen asturugaitz eta sarraskiak zaduzkatelarik beren egitekoen gorigarri.

15. Hargatik Juduek aditu zituztenean Nikanorren ethortzeko eta jendaien biltzeko berriak, buruak lurrez estalirik othoizten zuten haina, zeinak jarri baitzuen bere populua bethi guzian zaintzeko, eta zeinak sendagaila ageriz gerizatzen baitzuen bere primantza.

16. Gero, buruzagiaren manuz, handik higitu ziren berehala, eta Desauko gaztelura bildu ziren.

17. Simon berriz, Judasen anaia, gudutan lothu izan zen Nikanorrekin; bainan harritu zen, etsaia bat-batean agertzearekin.

18. Guzia gatik, Nikanorrek aditzen baitzuen nolakoa zen Judasen lagunen bihotzotasuna eta zein gogo handia erakusten zuten sortheriaren alde gduetan, lotsa zen odolezko juiamendura goateko.

19. Aria hortaz bere aitzinean igorri zituen Pofrdonio, Theodozio eta Mathias eskuen ematera eta hartzera.

20. Eta horren gainean biltzarrak luzez ihardukitzen baitzuen, eta buruzagiak berak ostearen aitzinera ekharri baitzuen solasa, guziak hitz bateko izan ziren adiskidantzen onhesteko.

21. Hargatik egun bat hartu zuten buruzagiek egitekoaz ixilik elkharren artean ihardukitzeko, eta bakhotxarentzat alkhiak izan ziren ekharriak eta behar zen tokian ezarriak.

22. Judasek aldiz manatu zuen gizonak harmetan egon zitezen ephaitza onetan, beldurrez-eta etsaiaren ganik batbatean ilkhi zadien makhur gaixto zerbait; eta solastaldia behar-bezala iragan zen.

23. Nikanor Jerusalemegoten zen; zuzen etzenik etzuen deusere egiten, eta gibelerat igorri zituen bilduak izan ziren osteak.

24. Bihotzez maite zuen bethi Judas, eta haren gainera ixuria zen;

25. Eta othoiztu zuen ezkont zadien, haurren izateko. Ezteiak egin zituen, bakean egon zen, eta elkharren artean lainoki bizi ziren.

26. Alzimok ordean ikhustenez hekien arteko adiskidetasuna eta ihardukimenduak, Demetrioren gana goan zen, eta erraten zuen,



Nikanorrek arrotzen aldeari esku ematen zuela, eta Judas, erresumaren zelatatzaila, eman gogo zioela ondoko.

27. Aria hortaz erregek, sumindurik eta gizatar haren jazargo gaixtoez gaizkuraturik, Nikanorri iskribatu zaroen, zioelarik, etzuela errexki jasaiten adiskidantzako patua, eta manatzen zioela Antiokiara laster igor zezan Makabearra estekaturik.

28. Horiek ikhustean, bihotzak egin zioen Nikanorri, eta gaitzi zitzaioen patu eginen haustea, Judasek deusetan bidegaberik egin etzisionean.

29. Bainan nola ezin bihur baitzaitekeen erregeri, ephe onari begira zagoen haren manuen bethetzeko.

30. Bainan Makabearrak ikhususirik Nikanorrek gordinkiago ihardukitzen zuela harekin, eta bere burua ohi baino handia go erakhisten zuela beren gerthaldietan, ezagutu zuen gordintasun hura etzela onetikakoa, eta bere lagunetarik zenbait bildurik, itzali zen Nikanorren begietarik.

31. Nikanor ohartu zenean Judasek izan zuela hari aitzintzeko ahala, ethorri zen tenplorik handienera eta sainduenera; eta ohiko bitimen eskaintzen hari ziren aphezai manatu zaroten Makabearra eman ziozoten eskuetara.

32. Hekiek zin eginik etzakitela non zen harek bilhatzen zuena, eskua tenploaren gainera hedatuz,

33. Zin egin zuen erranez: Baldin ez badarotazue Judas estekaturik eskuetaraten, Jainkoaren tenplo hau ezarriko dut lurrarekin bardin, eragotziko dut aldarea eta Bakori kontsekratuko tenplo hau.

34. Eta horiek erranik, goan zen. Aphezek berriz, zerurat eskuak hedatuz, hekien jendakiaren zaintzaile bethi agertu zenari dei egiten zioten erranez:

35. Gauza guzien Jauna, deuseren eskasik ez duzuna, gure erdian nahi izan duzu egin zakizun zure egoitzako tenploa.

36. Eta orai, saindu guzien Jaun saindua, khutsugabe zain zazu bethi, duela guti xahutua izan den etxe hau.

37. Aldiz, Errazias, Jerusalemgo zaharretarik bat, hiria maite zuen gizona eta aiphamen onekoa, populuaren aita deitzen zutena bere ekharritasunaren ariaz, belztua izan zen Nikanorren aitzinean.

38. Aspaldidanik xahutasunean idukitzen zuen Judu-legean bere burua, eta bere gorphutzaren eta biziaren ematera gogotik zagoen irautea gatik.

39. Nikanorrek berriz, erakhutsi beharrez bere gaitzirizkoa Juduen kontra, igorri zituen bortz ehun soldado Erraziasen hartzera;

40. Uste zuen ezik eskura ahal bazezakeen gizon hura, bidegabe handia ekharriren ziotela Juduei.

41. Noiz-ere beraz soldadoak murruka hari baitziren haren etxean sarthu nahiz, athea haute eta su eman beharrez, eta atzematera baitzaramaten, ezpata sarthu zioen bere buruari;

42. Nahiagoz hil ohorezki, ezenez bekhatoreen menean izan, eta bere sortzeari etzagozkion eskarnioak jasan.

43. Bainan nola harramaska hartan ez baitzen ukhaldi seguraz sarraskitu, eta soldadoak atheetarik barnerat tarrapatan sartzen baitziren, lotsagabeki laster eginik harrasira, bere burua bihotzoiki arthiki zuen ostearen gainera.

44. Jendeak laster bide eginik erortzen zenari, buruz beheiti goan zen.

45. Eta nola hatsa baitzuen oraino, bihotzeko su hartan jaiki zen; eta nahiz odola zurrutaka zihoakioen, eta sakhi gaitzez bethea zen arren, oldarrean iragan zuen ostea;

46. Eta harri xut baten gainera iganik, orduko odolez hustu hurrana, bere hertzeak bi eskuez hartuz, ostearen gainera arthiki zituen, biziaren eta arimaren nausiari dei eginez, hekiek bihur ziotzon berriz; eta horreletan akhabatu zen.

## XV. KAP.

1. Bada, Nikanorrek jakin zueneko Judas Samariako aurkhintzetan zela, gogoan hartu zuen behar ziola larunbat-egunean gudu eman bere indar guziekin.

2. Ordean nola ezinbertzez jarraitzen zitzaizkon Juduek erraten baitzioten: Ez erabil horrelako gogorkeriarik eta dorphekeriarik, bainan ohore emozu sainduespeneke egunari, eta ohora zain gauza guziak ikhusten dituen;

3. Dohakabe harek galdatu zioten, hean zeruan bazen ahaldun bat, larunbat-eguna bestatzea manatu zuena.

4. Ihardetsi zuten: Jaun bizi, zeruan botheretsu denak, berak manatu du bestatzea zazpigarren eguna.

5. Harek berriz, erran zuen: Eta lurrean ni naiz indardun, harmak hartzea manatzen dudana. Halarik-ere ezin obratu zuen burutan zuena.

6. Ezen Nikanorrek, bere hanpuruskeriaren gaididuran, amestu zuen Judasen eta haren lagunuen buluzkinez orotaz trophe bat egin behar zuela.



7. Makabearrak aldiz, pheskiza oso batekin uste zuen bethi Jainkoa ganikako laguntzak etzioela eskas eginen.

8. Eta berotzen zituen bere gizonak jendaien ethortzeak etzetzan lotsa, bainan gogoan iduk zetzazten zerutik izatu laguntzak, eta orduan ere igurik zezaten Ahalorotakoak emanen ziotela garhaizia.

9. Mintzatu zitzaioeten legeaz eta profetez; eta orhoitaraziz halaber beren aitzineko guduez, suharrago egin zituen.

10. Eta horrela hekien gogoak altxatu ondoan, hanbatean aitzinera ematen ziozkaten jendaien maltzurkeria eta zinhausteak;

11. Eta harmatu zituen guziak, ez erredolak eta lantzak emanez, bainan solas hazkarrak eta berogarriak, erran ziotenean sinhesteko zen amets bat, guziak boztu zituen.

12. Bada, hunelakoa zen ikhuspina: Onias aphez-handi izan zena, gizon on eta prestua, begiz herabea, azturaz lainoa, hizdun ederra eta haurretik berthute guzietan ohitua, ikhusi zuen besoak hedaturik zagoela, Juduen populu guziarentzat othoitzean.

13. Gero agertu zitzaioen bertze gizon bat ere, adin eta ospez ederrekoa, eta dirdira handi batez inguratua.

14. Eta Oniasek erakhustean erran zuen: Hau da anaïen eta Israelgo populuaren adiskidea, hau da othoitz hainitz egiten duena populuarentzat eta hiri saindu guziarentzat, Jeremias, Jainkoaren profeta.

15. Jeremiasek berriz, hedatu zuen eskua eta urrezko ezpata bat eman zioen Judasi, erranez:

16. Har zazu ezpata saindua, Jainkoa ganikako emaitza, zeinarekin eragotziren baititutzu Israelgo ene populuaren etsaiak.

17. Horreletan borthizki berotuak izanik Judasen solas onez, zeinetaz Judasek altxa ahal baitzitakeen bihotzetan oldarra, eta hazkar gazteriaren gogoa, hartu zuten xedea behar zirela gudukatu eta gogorki borrokatu, fetzotasuna izan zadien egitekoen juge, zeren hiri saindua eta tenploa galmentetan baitziren.

18. Ezen emazte eta haurrentzat, anaia eta ahaideentzat grina xumegoa zen; bainan lehenbiziko beldurra eta handiena zen tenploaren saindutasunarentzat.

19. Hirian zirenek berriz, etzuten grina gutiago gudukatzeraz zihozentzat.

20. Eta nola guziak juiamenduaren iguri baitzauden, etsaia aitzinean baitzen, armada lerrotan ezarria, elefantak eta zaldizkoak behar ziren tokian jarriak;

21. Makabearrak, begiratzen ziotelarik heldu zen osteari, eta asko moldetako harmen itxurari, eta basabere gogorrei, eskuak zerurat hedatuz dei egin zioen sendagailak egiten dituen Jaunari, zeinak ez harmen indarraren arabera, bainan berak atsegin duen bezala ematen baitu merezi dutenei garhaizia.

22. Beraz hunela dei eginez, erran zuen: Zu zare, Jauna, zure aingearua igorri duzuna, Ezekias Judako erregeren egunetan, eta Senakeriben armadatik bederatzitan hogoi eta bortz mila hil ditutzuna.

23. Eta orai, oi zeruetako nausia, igorrazu gure aitzinean zure aingearu ona, zure beso hazkarraren beldurra eta laztura hedatuko dituen,

24. Laz ditezen zure populuaren kontra burhoak ahoan heldu direnak. Hori izan zen Judasen othoitz.

25. Aldiz Nikanor eta harekilakoak heldu ziren turutak eta kantuak errepikatuz.

26. Judasek berriz, eta haren lagunek, Jainkoari othoizka dei eginik, abiatu zuten gudua.

27. Eskuez gudukatuz bainan Jauna bihotzez othoiztuz, Jainkoaren begiak harrigarriki goihereturik, etzioten hogoi eta hamabortz mila baino gutiagori joarazi lurra.

28. Gelditu zirenean, eta bozkariotan bihurtzen zirelarik, ezagutu zuten Nikanor bere harmekin eroria.

29. Orduan oiuhu bat eta tarrapata bat altxatu ziren, eta beren herriko mintzarian benedikatzten zuten ahalorotako Jauna.

30. Judasek, noiz-nahi gorphutzez eta arimaz herriarentzat biziaren ematera zagoenak, manatu zuen Jerusalemara eramanez zetzazten Nikanorren burua eta eskua sorbaldarekin ebakirik.

31. Hiria ardietsi zuenean, aldarera bilarazi zituen bere leinukoak eta aphezak; gazteluan zirenak ere deithu zituen.

32. Eta erakhutsirik Nikanorren burua eta esku hobenduna, zeina hedatuz ahalorotako Jainkoaren etxe sainduaren kontra, bere buruaz hanbateko espantuak erabili baitzituen;

33. Judasek manatu zuen Nikanor gaixtaginaren mihia ere ebakirik, poxika ematea hegastinei; erho haren eskua berriz, tenplotik ezar zezaten dilindan.

34. Orok benedikatu zuten beraz Jaun zerukoak, erraten zutelarik: Benedika bekio bere lekhu khutsurik gabe zaindu duenari

35. Nikanorren burua berriz, gaztelu gainean ezarri zuen dilindan, ezagun eta ageri izan zadien Jainkoa ganikako laguntzaren erakhuskaria.



36. Aria horietaz, guziek boz batez erabaki zuten egun hura etzela niholaz-ere bestarik gabe iraganen;

37. Besta hura berriz, izanen zela, siriarez adar deitzen den hilabet-hearen hamahirurean, Mardokeoren egunaren bezperan.

38. Beraz horiek Nikanorren gainean eginak, eta ordutik hiria Hebrearez gozatua izan zen bezala, nik ere hortan akhabaturen dut solasa.

39. Baldin ongi bada eta istorioak galdatzen duen bezala, hori nahi nuke; ez bada ordean gauzak merezi bezenbat, barkhatu behar zait.

40. Alabainan nola bethi arnoa edatea, edo bethi ura kaltekor baita, bainan aldizkatzea gozo; hala irakurleentzat ere solasa ez laiteke gogarako, baldin bethi zorrotasun batean balihoa. Huntan akhabo izanen da beraz ene solasa.